Jaungoicuac gorde zaizala, erreguiña, erruquiz beterico ama, bicitza, gozotasun ta esperantza gueuria, Jaungoicuac gorde zaizala. Zuri deijez gagoz Evaren ume erbestetuboc; zu gana gagoz cizpuruz ta negarrez negarrezco leeu onetan. Ea bada, Andria, gueure bitartecua, biurtu eguizuz gu ganuntz zure begui erruquitsu orreec, eta erbeste au igarota, eracutsi eguiguzu Jesus zure sabeleco frutu bedeincatuba. O guztiz biguna! O erruquiorra! O Marija virgiña gozua! Errecgutu eguizu gu gaitic, Jaungoicuaren ama santia, izan gaitian Jesucristoren aguintzarijac alcantzetaco duin. Amen.

Bermeo.

Ave Marija.

Ave Marija, gracijaz betia, Jauna da zugaz, bedeincatua zara zu andra guztijen artiau, eta bedeincatua da zure sabeleco frutua Jesus.

Santa Marija, Jaungoicuaren ama, erregutu eguizu gu pecatarijoc gaitic, orain eta gueure erijotzaco orduan. Amen.

Salvia.

Jaungoicuac gorde zaizala, erreguiña, erruquiz beterico ama, bicitza, gozotasun ta esperantza gueuria, Jaungoicuac gorde zaizala. Zuri deijez gagoz Evaren ume erbestetuoc; zu gana gagoz cizpuruz ta negarrez negarrezco leeu onetan. Ea bada, Andria, gueure bitartecua, biurtu eguizuz gu ganantz zure begui erruquitsu orreec, eta erbeste au igarota, eracutsi eguiguzu Jesus zure sabeleco frutu bedeincatua. O guztiz biguna! O erruquiorra! O Marija virgiña gozua! Errecgutu eguizu gu gaitic, Jaungoicuaren ama santia, izan gaitian Jesucristoren aguintzarijac alcantzetaco duin. Amen.

La Doctrina cristiana.

Arratia.

AVE MARIE.

Ave Marie, graciez betea, Jaune da zuguez, bedeinquetue zara zu andra guztien artean, eta bedeinquetue da zure sabeleco frutue Jesus.

Santa Marie, Jaungoicoen ama, erregutu eguizu gu pecatarioc gaitic, orain eta gueure eriotzaco orduen. Amen.

SALVEA.

Jaungoicoac gorde zaizela, erreguiñe, erruquiz beterico ama, bicitze, gozotasun ta esperantza gueurea, Jaungoicoac gorde zaizela. Zuri deyez gagoz Evaren ume erbestetuoc; zu gana gagoz cizpuruz ta negarrez negarrezco leeu onetan. Ea bada, Andrea, gueure bitartecoa, biurtu eguizuz gu ganantz zure begui erruquitsu orreic, eta erbeste au iguerota, eracutsi eguiguzu Jesus zure sabeleco frutu bedeinquetue. O guztiz bigune! O erruquiorra! O Marie virgiñe gozoa! Erregutu eguizu gu gaitic, Jaungoicoen ama santea, izen gaitezan Jesucristoren aguintzariec alcantzetaco duin. Amen.

Central.

AVE MARIJE.

Ave Marije, gracijez betie, Jaune da zuguez, bedeinquetue zara zu andra guztijen artien, eta bedeinquetue da zure sabeleco frutue Jesus.

Santa Marije, Jaungoicoen ama, erregutu eguizu gu pecatarijoc gaitic, orain eta gueure erijotzaco orduen. Amen.

SALVIE.

Jaungoicoac gorde zaizela, erreguiñe, erruquiz beterico ama, bicitze, gozotasun ta esperantza gueurie, Jaungoicoac gorde zaizela. Zuri deijez gagoz Evaren ume erbestetuoc; zu gana gagoz cizpuruz ta negarrez negarrezco leeu onetan. Ea bada, Andrie, gueure bitartecoa, biurtu eguizuz gu ganantz zure begui erruquitsu orreic, eta erbeste au iguerota, eracutsi eguiguzu Jesus zure sabeleco frutu bedeinquetue. O guztiz bigune! O erruquiorra! O Marije virgiñe gozoa! Erregutu eguizu gu gaitic, Jaungoicoen ama santie, izen gaitezan Jesucristoren aguintzarijec alcantzetaco duin. Ameu.

Ochandiano.

AVE MARIJA.

Ave Marija, gracijaz betie, Jaune da zuguez, bedeinquetube zara zu andra guztijen artien, eta bedeinquetube da zure sabeleco frutube Jesus.

Santa Marija, Jaungoicuen ama, erregutu eguizu gu pecatarijoc gaitic, orain da gueure erijotzaco orduben. Amen.

SALVIE.

Jaungoicuec gorde zaizela, erreguiña, erruquiz beterico ama, bicitza, gozotasun da esperantza gueurie, Jaungoicuec gorde zaizela. Zuri deijez gagoz Evaren ume erbestetuboc; zu gana gagoz cizpuruz da negarrez negarrezco leeu onetan. Ea bada, Andrie, gueure bitartecue, bijortu eguizuz gu ganantz zure begui erruquitsu orreic, da erbeste au iguerota, eracutsi eguiguzu Jesus zure sabeleco frutu bedeinquetube. O guztiz bigune! O erruquiorra! O Marija virgiña gozue! Erregutu eguizu gu gaitic, Jaungoicuen ama santie, izen gaitezan Jesucristoren aguintzarijec alcantzetaco duin. Amen.

La Doctrina cristiana.

Castellano.

Mandamientos de la lei de Dios.

Los mandamientos de la lei de Dios son diez. Los tres primeros pertenecen al honor de Dios, y los otros siete al provecho del prójimo.

El primero, amar á Dios sobre todas las cosas.

El segundo, no jurar su santo nombre en vano.

El tercero, santificar las fiestas.

El cuarto, honrar padre y madre.

El quinto, no matar.

El sexto, no fornicar.

El sétimo, no hurtar.

El octavo, no levantar falso testimonio, ni mentir.

El noveno, no desear la mujer de tu prójimo.

El décimo, no codiciar los bienes ajenos.

Estos diez mandamientos se encierran en dos: eu servir y amar á Dios sobre todas las cosas, y á tu prójimo como á ti mismo. Amén.

Marquina.

Jaungoicuaren legueco aguindubac.

Jauugoicuaren legueco aguindubac dira amar. Lelengo irurac dagocaz Jaungoicuaren hondriari; beste zazpirac projimubaren provechubari.

Lelengua, Jaungoicua maite izatia gauza guztijen ganian.

Bigarrena, Jaungoicuaren icenian juramentu alperric ez eguitia.

Irugarrena, domecac eta jaijac santututia.

Laugarrena, aita eta ama hondretia.

Bostgarrena, ez iñor iltia.

Seigarrena, araguizco pecaturic ez eguitia.

Zazpigarrena, ez iñori ecer ostutia.

Zortzigarrena, eguin eztaben gauzaric iñori ez ezartia, ta guzurric ez esatia.

Bederatzigarrena, projimubaren emazteric ez gura izatia.

Amargarrena, iñoren ondasunen gurari bidebagacoric ez euquitia.

Amar aguindu oneec sartuten dira bitan: Jaungoicua serviu eta maite izatian gauza guztijac baño gueijago, eta projimuba gueure buruba leguez. Amen.

Bermeo.

Jaungoicuaren legueco aguinduac.

Jaungoicuaren legueco aguinduac dira amar. Lelengo irurac jagocaz Jaungoicuaren hondriari; beste zazpirac projimuaren provechuari.

Lelengua, Jaungoicua ametia gauza guztijen ganian.

Bigarrena, Jaungoicuaren icenian juramentu alperric ez eguitia.

Irugarrena, domecac eta jaijac santututia.

Laugarrena, aita eta ama hondretia.

Bostgarrena, ez iñor iltia.

Seigarrena, araguizco pecaturic ez eguitia.

Zazpigarrena, ez iñori ecer ostutia.

Zortzigarrena, eguin eztaben gauzaric iñori ez ezartia, ta guzurric ez esatia.

Bederatzigarrena, projimuaren emazteric ez gura izatia.

Amargarrena, iñoren ondasunen gurari bidebagacoric ez euquitia.

Amar aguindu oncec sartuten dira bitan: Jaungoicua servidu eta ametian gauza guztijac baño gueijago, eta prujimua gueure burua leguez. Amen.

La Doctrina cristiana.

Arratia.

JAUNGOICOEN LEGUECO AGUINDUEC.

Jaungoicoen legueco aguinduec dire amar. Lelengo irurec jagocaz Jaungoicoen hondreari; beste zazpirec projimuen provechueri.

Lelengoa, Jaungoicoa ametea gauze guztien ganeau.

Bigarrena, Janngoicoen icenean juremintu arpelic ez eguitea.

Irugarrena, domecac eta jayec santututea.

Laugarrena, aite eta ama hondretea.

Bostgarrena, ez iñor iltea.

Seigarrena, araguizco pecaturic ez eguitea.

Zazpigarrena, ez iñori ecer ostutea.

Zortzigarrena, eguin eztauen gauzeric iñori ez ezartea, ta guzurric ez esatea.

Bederatzigarrena, projimuen emazteric ez gure izetea.

Amargarrena, iñoren ondasunca gureri bidebagacoric ez euquitea.

Amar aguindu oneic sartuten dire biten: Jaungoicoa servidu eta ametean gauze guztiec baño gueyego, eta projimue gueure burue leguez. Amen.

Central.

JAUNGOICOEN LEGUECO AGUINDUEC.

Jaungoicoen legueco aguinduec dire amar. Lelengo irurec jagocaz Jauugoicoen hondrieri; beste zazpirec projimuen provechueri.

Lelengoa, Jaungoicoa ametie gauze guztijen ganien.

Bigarrena, Jaungoicoen icenien juremeutu alperric ez eguitie.

Irugarrena, domecac eta jaijec santututie.

Laugarrena, aitc eta ama hondretie.

Bostgarrena, ez iñor iltie.

Seigarrena, araguizco pecaturic ez eguitie.

Zazpigarrena, ez iñori ecer ostutie.

Zortzigarrena, eguin eztauen gauzeric iñori ez ezartie, ta guznrric ez esatic.

Bederatzigarrena, projimuen emazteric ez gure izetie.

Amargarrena, iñoren ondasunen gureri bidebagacoric ez euquitie.

Amar aguindu oneic sartuten dire biten: Jaungoicoa servidu eta ametien gauze guztijec baño gueijego, eta projimue gueure burue leguez. Amen.

Ochandiano.

JAUNGOICUEN LEGUECO AGUINDUBEC.

Jaungoicuen legueco aguindubec dire amar. Lelengo irurec jagocaz Jaungoicuen hondrieri; beste zazpirec projimuben provechuberi.

Lelengue, Jaungoicue ametie gauza guztijen ganien.

Bigarrena, Jaungoicuen icenien juremeutu alperric ez eguitie.

Irugarrena, domecac da egusaijec santututie.

Langarreua, aita da ama hondretic.

Bostgarrena, ez iñor iltie.

Seigarrena, araguizco pecaturic ez eguitie.

Zazpigarrena, ez iñori ecer ostutie.

Zortzigarrena, eguin eztauben gauzaric iñori ez ezartie, da guzurric ez esatie.

Bederatzigarrena, projimuben emazteric ez gure izetie.

Amargarrena, iñoren ondasunen gureri bidebagacoric ez euquitie.

Amar aguindu oneic sartuten dire biten: Jaungoicue servidu da ametien gauza guztijec baño gueijego, da projimube gueure burube leguez. Amen.

La Doctrina cristiana.

Castellano.

EXPLICACION DE LA DOCTRINA CRISTIANA POR PREGUNTAS Y RESPUESTAS.

Pregunto. Sois cristiano?

Respondo. Si, por la gracia de Dios.

P. Ese nombre de cristiano, de quién le hubisteis?

R. De Cristo nuestro Señor.

P. Qué quiere decir cristiano?

R. Hombre de Cristo.

P. Qué entendeis por hombre de Cristo?

R. Hombre que tiene la fe de Jesucristo, que profesó en el bautismo, y está ofrecido á su santo servicio.

P. Cuál es la señal del cristiano?

R. La santa Cruz.

P. Por qué?

R. Porque es figura de Cristo crucificado que en ella nos redimió.

P. En cuántas maneras usa el cristiano de esta señal?

R. En dos.

P. Cuáles son?

R. Signar y santiguar.

P. Qué cosa es signar?

R. Hacer tres cruces con el dedo pulgar de la mano

Marquina.

CRISTIÑAUBEN DOTRIÑIAREN AZALDAERIA ITAUNE TA ERANTZUERETAN.

Itanduten dot. Cristiñaubaba zara?

Erantzuten dot. Bai Jauna, Jaungoicuaren gracijaz.

I. Nundic jatortsu cristiñaubaren icen ori?

E. Jesucristo gure Jauna gandic.

I. Cer esan gura dau cristiñaubac?

E. Cristoren guizona.

I. Cer adituten dozu Cristoren guizonaz?

E. Jesucristoren fede, batiuan artu ebana daucan guizona, eta bera servietaco esquiñiric daguana.

I. Cein da cristiñaubaren señalia?

E. Curutze santuba.

I. Cer gaitic?

E. Dalaco Cristo curutzian josijaren irudija, ceñetan erosi guenduzau.

I. Ceimbat modutan eguiten dau cristiñaubac señale ori?

E. Modu bitan.

I. Ceiutzuc dira?

E. Ceñatutia ta Aitiaren eguitia.

I. Cer da ceñatutia?

E. Escumaco escuco erpurubagaz iru curutze eguiten

Bermeo.

CRISTIÑAUEN DOTRIÑIAREN AZALDAERIA ITAUNE TA ERANTZUERETAN.

Itanduten dot. Cristiñaua zara?

Erantzuten dot. Bai Jauna, Jaungoicuaren gracijaz.

I. Nondic jatortsu cristiñauaren icen ori?

E. Jesucristo gure Jauna gandic.

I. Cer esan gura dau cristiñauac?

E. Cristoren guizona.

I. Cer adituten dozu Cristoren guizonaz?

E. Jesucristoren fede, batiuan artu ebana daucan guizona, eta bera servietaco esquiñiric daguana.

I. Cein da cristiñauaren señalia?

E. Curutze santua.

I. Cer gaitic?

E. Dalaco Cristo curutzian josijaren irudija, ceñetan erredimidu guenduzan.

I. Ceimbat modutan eguiten dau cristiñauac señale ori?

E. Modu bitan.

I. Ceintzuc dira?

E. Ceñatutia ta Aitiaren eguitia.

I. Cer da ceñatutia?

E. Escomaco escuco ercoruagaz iru curutze eguitia.

La Doctrina cristiana.

Arratia.

CRISTIÑEUEN DOTRIÑEAREN AZALDAEREA ITEUNE TA ERANTZUERETAN.

Itenduten dot. Cristiñeue zara ?

Erantzuten dot. Bai Jaune, Jaungoicoen graciez.

I. Nondi jatortsu cristiñeuen icen ori ?

E. Jesucristo gure Jaune ganic.

I. Cer esan gure deu cristiñeuec ?

E. Cristoren guizona.

I. Cer adituten dozu Cristoren guizonaz ?

E. Jesucristoren fede, bateoan artu euena dauquen guizona, eta bera servietaco esquiñiric dagoana.

I. Cein de cristiñeuen señalea ?

E. Curtze santea.

I. Cegaitic ?

E. Dalaco Cristo curtzeau josien irudic, ceñetan erredimidu guenduzen.

I. Ceinbet moduten eguiten deu cristiñeuec señale ori ?

E. Modu biten.

I. Ceintzuc dire ?

E. Ceñatutea ta Aitearen eguitea.

I. Cer da ceñatutea ?

E. Escoaco escuco oreloagaz iru curtze egnitea. Le-

Central.

CRISTIÑEUEN DOTRIÑIEN AZALDAERIE ITEUNE TA ERANTZUERETAN.

Itenduten dot. Cristiñeue zara?

Erantzuten dot. Bai Jaune, Jaungoicoen gracijez.

I. Nondi jatortsu cristiñeuen icen ori?

E. Jesucristo gure Jaune ganic.

I. Cer esan gure dau cristiñeuec ?

E. Cristoren guizona.

I. Cer adituten dozu Cristoren guizonaz ?

E. Jesucristoren fede, batioan artu euena dauquen guizona, eta bera servietaco esquiñiric dagoana.

I. Cein de cristiñeuen señalie?

E. Curtze santue.

I. Cegaitic ?

E. Dalaco Cristo curtzien josijen irudije, ceñetan erredimidu guenduzen.

I. Ceimbet moduten eguiten dau cristiñeuec señale ori ?

E. Modu biten.

I. Ceintzuc dire ?

E. Ceñatutie ta Aitien eguitie.

I. Cer da ceñatutie ?

E. Escoico escuco orenloagaz iru curtze eguitie.

Ochandiano.

CRISTIÑAUBEN DOTRIÑIEN AZALDAERIE ITAUNE DA ERANTZUERETAN.

Itenduten dot. Cristiñaube zara ?

Erantzuten dot. Bai Jaune, Jaungoicuen gracijaz.

I. Nondie jatortsu cristiñauben icen ori ?

E. Jesucristo gure Jaune gandic.

I. Cer esan gure dau cristiñaubec ?

E. Cristoren guizona.

I. Cer adituten dozu Cristoren guizonaz ?

E. Jesucristoren fede, batiuen artu ebana dauquen guizona, da bera servietaco esquinite daguena.

I. Cein de cristiñauben señalie!

E. Curutze santube.

I. Cegaitic?

E. Dalaco Cristo curutzien josijen irudija, ceñetan erredimidu guenduzen.

I. Ceimbet moduten eguiten dau cristiñaubec señale ori?

E. Modu biteu.

I. Ceintzuc dire?

E. Ceñatutie da Aitien eguitie.

I. Cer da ceñatutie?

E. Escumaco escuco aurreco atzagaz iru curutze e-

La Doctrina cristiana.

Castellano.

derecha. La primera en la frente, la segunda en la boca, la tercera en los pechos, hablando con Dios nuestro Señor.

P. Mostrad cómo?

R. Por la señal ✠ de la santa Cruz, de nuestros✠enemigos líbranus ✠, Señor Dios nuestro.

P. Por qué os signais en la frente?

R. Porque nos libre Dios de los malos pensamientos.

P. Por qué en la boca?

R. Porque nos libre Dios de las malas palabras.

P. Por qué en los pechos?

R. Porque nos libre Dios de las malas obras y deseos.

P. Qué cosa es santiguar?

R. Hacer una cruz con los dos dedos de la mano derecha desde la freute hasta los pechos, y desde el hombro izquierdu hasta el derecho, invocando la santísima Trinidad.

P. Mostrad cómo?

R. En el nombre del Padre ✠, y del Hijo, y del Espíritu santo. Amén.

P. Cuándo haveis de usar de esta señal?

R. Siempre que comen-

Marquina.

tia. Lenengua becoquijan, bigarrena auan, irugarrena bularrian, gueure Jaun Jaungoicuagaz berba eguiten dogula.

I. Eracutsi celan?

E. Curutze santiaren ✠ señalia gaitic, gueure ✠ arerijuetatic libradu gaizuz ✠, gueure Jauna ta Jaungoicua.

I. Cer gaitic ceñatuten zara becoquijan?

E. Jaungoicuac librau gaizan pentsamentu gaistuetatic..

I. Cer gaitic auan?

E. Jaungoicuac librau gaizan berba gaistuetatic.

I. Cer gaitic bularrian?

E. Jaungoicuac librau gaizan eguite ta gurari gaistuetatic.

I. Cer da Aitiaren eguitia?

E. Da escumaco escuco atz bijacaz curutze bat eguitia becoquitic bularrera, eta ezquerreco sorbaldatic escumacora, Trinidade guztiz santubari gagocazala.

I. Eracutsi celan?

E. Aitiaren ✠, ta Semiaren, ta Espiritu santubaren iccuian. Amen.

I. Noz eguin biar dogu curutziaren señale ori?

E. Eguite onen bat asten

Bermeo.

Lenengua becoquijan, bigarrena auan, irugarrena bularrian, gueure Jaun Jaungoicuagaz berba eguiten dogula.

I. Eracutsi celan?

E. Curutze santiaren ✠ señalia gaitic, guenre ✠ arerijuetatic libradu gaizuz ✠, gueure Jauna ta Jaungoicua.

I. Cer gaitic ceñatuten zara becoquijan?

E. Jaungoicuac librau gaizan pentsamentu gaistuetatic.

I. Cer gaitic auan?

E. Jaungoicuac librau gaizan berba gaistuetatic.

I. Cer gaitic bularrian?

E. Jaungoicuac librau gaizan eguite ta gurari gaistuetatic.

I. Cer da Aitiaren eguitia?

E. Da escomaco escuco atz bijacaz curutze bat eguitia becoquitic bularrera, eta ezquerreco sorbaldatic escomacora, Triuidade guztiz santuari gagocazala.

I. Eracutsi celan?

E. Aitiaren ✠, ta Semiaren, ta Espiritu santuaren iceniau. Amen.

I. Noz eguin biar dogu curutziaren seũale ori?

E. Eguite onen bat asten

LE CANTIQUE DES CANTIQUES DE SALOMON
SALOMONEN KANTIKETAKO KANTIKA

Jean Pierre Duvoisin

Lapurteraz
Londres
1859

Originala: «Azkue Biblioteka» - Euskaltzaindia

Le Cantique des Cantiques de Salomon,

TRADUIT EN

BASQUE LABOURDIN.

PAR

M. LE CAP. DUVOISIN.

LONDRES. 1859.

I certify that only 250 copies of this work have been printed, of which one is on thick paper.

GEORGE BARCLAY,
28 Castle Street, Leicester Square.

SALOMONEN KANTIKETAKO KANTIKA.

Lehembiziko Kapitulua.

MUSU egidazu zure ahoko musuaz: ezen zure bulharrak arnoa baino gozoagoak dira,

2 Eztiagoak baltsamurik hobeenak baino. Zure izena da olio ichuria iduri: horrengatik neskatcha gasteek maithatu zaituzte zu.

3 Zugana bil nezazu: zure ondoan laster eginen dugu zure baltsamuen usainera. Erregek sarrarazi nau bere gela-barnetan: jauziko gare eta bozkariaturen zu-baithan, orhoiturik zure bulharrak arnoa baino gozoagoak direla: bihotz zuzenek maite zaituzte.

4 Oi Jerusalemeko alabak, beltza naiz, bainan ederra, Zedarreko cholak bezala, Salomonen larru-olhak bezala.

5 Ez-dezazuen begira beltzarana naizela, zeren histu

bainau iguzkiak: jazarri darotet ene amaren semeek, ezarri naute mahastien zain, eta ene mahastia ez-dut zaindu.

6 Oi ene arimak maite zaituena, erakuts dizadazu nongo alhapidetan ibiltzen zaren, non egiten duzun eguerdiko loa, ez-nadientzat bazterrez-bazter abia zure lagunen arthaldeen ondotik.

7 Jakintsun ez-bazare, oi andre guzien arteko ederrena, ilkhi zaite, eta zoazi arthaldeen hatzen ondotik, eta alha zatzu zure pittikak artzainen etcholen ondoan.

8 Ene maitea, agertu zaizkit ene zaldiaren iduriko, Faraonen urkha-lazterretan.

9 Zure bi mathelak ederrak dira hala-nola uso ttorttoilaren baphoa: zure lephoa, lepho-gathea bezala.

10 Eginen darozkitzugu urhezko gatheak, arteak zilharrez berregindurik.

11 Errege bere etzauntzan zagoelarik, ene nardoak hedatu du bere usaina.

12 Ene bihotzekoa, mirrazko floka bat da enetzat, egonen da ene bi bulharren artean.

13 Ene bihotzekoa da enetzat Zipreko mahats-molkho bat bezala, Engaddiko mahastietan.

14 Ai zein ederra zaren, ene maitea, zein ederra zaren, usoaren begiak dituzu.

15 Ai zein ederra zaren, ene bihotzekoa, eta berregina. Gure ohea guzia loreztatua da.

16 Zedroz dira gure etcheko zurak, gure bobedak ziprez.

Bigarren Kapitulua.

NI naiz kampotako lorea, eta ibarretako lilia.

2 Nola lilia lapharren artean, hala ene maitea agertzen da bertze neskatchen erdian.

3 Nola sagarrondoa oihaneko zuhaitzen artean, hala ene bihotzekoa agertzen da giza-semeen artean. Gura nintzenaren itzalean jarri naiz: eta gozo da haren fruitua ene ahoko.

4 Sarrarazi nau bere arnotegian, amodioa ezarri du ene bihotzean.

5 Loreez hazkar nezazue, ingura nezazue sagarrez: ezen amodioz iraungitzen nago.

6 Esku ezkerra ezarriko du ene buruaren azpian, eta eskuinaz besarkaturen nau.

7 Othoizten zaituztet, oi Jerusalemeko alabak, orkhatzez eta oihanetako orenez, ez-dezazuen asalda, ez-etare atzarraraz ene maitea, berak nahi duen arteo.

8 Ene bihotzekoaren mintzoa! huna bera non heldu den mendietan jauzika, bizkarrak iraganez.

9 Ene bihotzekoak iduri du orkhatza eta orenaren umea. Huna non dagoen gure harrasiaren ondoan, leihoetarik begira, chareten artetarik barrandan.

10 Huna ene bihotzekoak non erraten darotan: Jaiki zaite, egizu laster, ene maitea, ene usoa, ene ederra, eta zato.

11 Ezen oraikotz iragan da negua, uria goan, itzuri da.

12 Lorcak agertu dira gure lurrean, ethorri da ephaiaroa: ttorttoilaren kurruka entzun da gure lurrean.

13 Pikondoak ekharri ditu bere pikoak: loretan mahastiek hedatu dute beren usaina. Jaiki zaite, ene maitea, ene ederra, eta zato.

14 Ene maitea, har-arteetan, harrasiko zilhoan, erakuts dizadazu niri zure begithartea, zure bozak jo beza ene beharrietan, ezen gozoa da zure boza, ederra zure begithartea.

15 Atzeman ditzagutzue mahastiak chahutzen dituzten hacheri ttipittoak: ezen loratu da gure mahastia.

16 Enea da ene bihotzekoa, eta ni harena, lilien artean alhatzen denarena,

17 Eguna zabal, eta itzalak eror ditezen arteraino. Bihur zaite: ene bihotzekoa, izan zaitezi orkhatzaren eta orenkumearen iduriko Betergo mendien gainean.

Hirugarren Kapitulua.

ENE ohean, gauen minean, bilhatu izan dut ene arimak maithatzen duena: bilhatu izan dut, eta ez-dut aurkhitu.

2 Jaikiko naiz, eta itzulikatuko dut hiria: karriketan eta plazak gaindi bilhatuko dut ene arimak maithatzen duena: bilhatu dut, eta ez-dut aurkhitu.

3 Atzeman naute hiria zaintzen duten beilariek: ¿Ikhusi duzue ene arimak maithatzen duena?

4 Hekietarik haratchago iragan naizenean, aurkhitu dut ene arimak maithatzen duena: atchiki dut: eta ez-dut utziren sarraraz dezadan arteo ene amaren etchean, eta ene hurhasoaren gelan.

5 Othoizten zaituztet, oi Jerusalemeko alabak, orkhatzez eta oihanetako orenez, èz-dezazuen asalda, ez-etare atzarraraz ene maitea, berak nahi duen arteo.

6 ¿Zein da mortutik igaiten den hau, mirrazko, eta isentsuzko, eta usain gocho egileen herrauts guzietarik eginikako khea iduri?

7 Huna non Salomonen etzauntza inguratzen duten hirur hogoi hazkarrek Israelgo hazkarrenetarikakoek:

8 Guziak ezpatekin, eta gerletan guziz jakinak: bat bederak ezpata du sahetsean, gabazko izialduren ariaz.

9 Bidean goateko tresna bat Salomon erregeak egin izan du Libango zuhamuz.

10 Habeak egin ditu zilharrez, etzinlekhua urhez, igantokia purpuraz: erdi erdian ezarri du gozotasuna, Jerusalemeko alaben ariaz.

11 Ilkhi zaitezte, Ziongo alabak, eta ikhus zazue errege Salomon bere belharrekoa buruan, zeintaz bere amak khoroatu haitzuen ezkontzeko egunean, eta haren bozkarioko egunean.

Laugarren Kapitulua.

ZEINEN zaren ederra, oi ene maitea, zeinen zaren ederra! Usoaren begiak ditutzu, gordetzen denik deusere gabe. Zure ileak dira Galaatko mendi gainera igan diren pittikak iduri.

2 Zure hortzak dira ardi murriztuak iduri, ithurrian garbiturik mendirat igan direnean, guziak ume biritchiekin, eta antzurik ez-da hekiotan.

3 Zure ezpainak eskarlatazko cherrenda bat iduri: zure mintzoa eztia da. Nolakoak baitira granadaren bi

erdiak, halakoak dira zure bi mathelak, gordetzen denik deusere gabe.

4 Zure lephoak iduri du Dabiten dorrea, gerlako zirrituekin dena: mila erredola dilindan daude hartarik, eta hazkarren harmagailu guzia.

5 Zure bi bulharrak dira lilien artean alhatzen diren orkhatzaren bi ume biritchiak iduri.

6 Eguna argi, eta ilhuna suntsi dadien arteraino, goanen naiz mirrako mendira eta isentsuko aldapara.

7 Guzia zare ederra, oi ene maitea, eta itzalik ez-da zu-baithan.

8 Zato Libanetik, ene andre-beharra, zato Libanetik; khoroatua izanen zare: zato Amanako kaskotik, Sanir eta Hermongo gainetik, lehoinen etzanlekhuetarik, lehoinabarren mendietarik.

9 Eritu duzu ene bihotza, oi ene arreba, ene esposa, zure begi batez eta zure lephoko ile kuskula batez.

10 Zein ederrak diren zure bulharrak, oi ene arreba, ene esposa! Arnoa gozo den baino ederrago dira, eta zure baltsamuen usaina, bertze usain on guziak baino gozoagoa da.

11 Oi ene esposa, zure ezpainak dira eztia darioen breska bezala, eztia eta esnea dira zure mihiaren azpian: zure soinekoen usaina da isentsuaren usaina bezala.

12 Baratze hertsi hat zare, ene arreba, ene esposa, baratze hertsi bat, ithurri zigilatu bat.

13 Zure hatsek iduri dute granadazko baratze bat sagarren fruituekin. Zipreko nardoarekin,

14 Nardoa eta safra, azukre-khana eta zinamoma Libango zuhamu guziekin, mirra eta aloesa baltsamu gozoen guziekin.

15 Baratzetako ithurria zare: Libanetik thurrustaka jausten diren ur bizietako ithurhurua.

16 Jaiki zaite, Ipharra; zato, Hegoa; baize emazue ene baratzera, eta heda ditezela hango usain gozoak.

Bortzgarren Kapitulua.

BETHOR, ene bihotzekoa bere baratzera, eta jan beza bere sagarretako fruitua. Ethorri naiz ene baratzera, ene arreba, ene esposa: bildu izan dut ene mirra ene baltsamuekin: jan dut breska ene eztiarekin: edan dut ene arnoa ene esnearekin: jan zazue, adiskideak, eta edan zazue, eta hordi zaitezte, ene bihotzekoak.

2 Lotan naiz, eta ene bihotza atzarria dago: ai! ene bihotzekoaren mintzoa! berak jotzen darot athea; dioclarik: Idek dizadazu niri, ene arreba, ene maitea, ene

usoa, ene nothagabea; ezen burua dut ihintzez bethea, eta ileak gauetako ur-chortez.

3 Erauntzi izan dut ene soina, ¿ nola jauntziren dut berriz? Garbitu izan ditut zangoak, ¿ nola lohi berriz?

4 Ene bihotzekoak eskua zirritutik sarthu du, eta ene barnea laztu du haren ukitzeak.

5 Jaiki naiz ene bihotzekoari idekitzera: ene eskuei zarioten mirra, eta usain gozoenak ene erhiei.

6 Ideki izan diot ene bihotzekoari ene atheko krisketa: hura ordean aitzina goana zen eta iragana. Ene arima urthu da hura mintzatu izan deneko: bilhatu dut, eta ez-dut aurkhitu: deithu dut, eta ez-darot ihardetsi.

7 Atzeman naute hiria ingurinatzen duten zaintzaileak: jo izan naute eta sakhitu: harrasi-zaintzaileek eraman darotet kapa.

8 Othoizten zaituztet, Jerusalemeko alabak, baldin aurkhitzen baduzue ene bihotzekoa, errozue amodioz ahitzen hari naizela.

9 ¿ Zer du bada bertzeek ez-dutenik zure bihotzekoak, oi andretarik ederrena? ¿ Zer du bada zure bihotzekoak bertzeek ez-dutenik, gu huletan othoiztekotzat?

10 Ene bihotzekoa churi-gorria da, asko milen artean berezia.

11 Haren hurua da urhe ederrena iduri: haren ileak, belea bera bezain beltzak, palmondoaren gandoak iduri.

12 Haren begiak dira usoak ur-chirripa bazterrean bezala, esnea bezain churi direnak, eta ur lasterren hegitan egoten direnak.

13 Haren mathelak dira baltsamuzko larraintto bat bezala, baltsamuginek chuchendua: haren ezpainek iduri dute mirra hautena dakharreten liliak.

14 Haren eskuak dira urhea iduri, thornuan thornatuak direnak eta hiazintez ederztatuak. Haren sabelak iduri du bolia zafirrez berregindua.

15 Haren zangarrak dira marmolazko habeak bezala, urhezko asentuen gainean. Ederra da Libango mendia bezala, berezia zedroa bezala.

16 Haren mintzoa ezin-gehiago eztia da, eta bera osoki tirriagarria: horra nolakoa den ene bihotzekoa, eta bera da ene adiskidea, oi Jerusalemeko alabak.

17 ¿ Nora goan da zure bihotzekoa, oi andretarik ederrena? ¿ nora baztertu da zure bihotzekoa? erraguzu, eta bilhaturen dugu zurekin.

Seigarren Kapitulua.

ENE bihotzekoa jautsi izan da bere baratzera baltsamuetako larrainera, baratzetan hartzekotzat bere janharia, eta lilien biltzekotzat.

2 Ni ene bihotzekoarena naiz, eta enea da ene bihotzekoa, lilien artean hazten dena.

3 Ederra zare, ene maitea, gozoa eta berregina Jerusalem bezala: lazgarri zare lerrotan pharatua den armada bezala.

4 Bazter zatzu begiak ni-ganik, zeren ene baitharik jauzarazi hainaute. Zure ileak dira Galaatetik agertu den ahuntz arthaldea iduri.

5 Zure hortzak dira garbitzeko lekhutik igan diren ardiak bezala, guziak ume biritchiekin, eta ez-da hekietan antzurik.

6 Nola granadaren achala, hala dira zure mathelak, gordegailurik gabe.

7 Hirur-hogoi dira erreginak, eta laur-hogoi ohaideak, eta erran ez-daiteke zembat diren neskatcha gazteak.

8 Bainan bat da ene usoa, itzalgabea, bakharra da

bere amarena, bere burhasoaren eskutik hautatua. Neskatchek ikhusi izan dute eta goraki deithu guziz-dohatsua: erreginek eta ohaideek goretsi izan dute.

9 ¿ Zein da andre heldu den hau, argi-urratzea heldu den bezala, ederra nola ilhargia, zoragarria nola iguzkia, lazgarri nola armada lerroka pharatua?

10 Jautsi naiz heltzaurretako baratzera, ikhustekotzat ibarretako sagardiak, begiratzekotzat hea loratu diren mahastiak, eta muskildu granadak.

11 Ez-dut jakin: Aminadaben urkha-lasterrek asaldatu dute ene arima.

12 Bihur zaite, bihur, Zulamitarra; bihur zaite, bihur, begira dizaguzuntzat.

Zazpigarren Kapitulua.

¿ZER ikhusiren duzu Zulamitarra haithan, ezpada gerlari moltzoak kampetan? Zure urhatsak zeinen diren ederrak, errege alaba, zure oinetakoetan! Zure ichterretako giltzek iduri dute ofizialearen eskuz eginak diren lepho-gatheak.

2 Zure chilkhoak iduri du thornuan eginikako azpila, behinere edarigabe, ez-dagoena. Zure sabela da ogimurru liliz inguratua bezala.

3 Zure bi bulharrak dira orkhatzarren bi ume biritchiak bezala.

4 Zure lephoak iduri du bolizko dorrea. Zure begiek iduri dute Hesebongo ithurriak, oste-alabaren athetan direnak. Zure sudurra dago nola Damas-aldera begiratzen duen Libango dorrea.

5 Zure burua da Karmela bezala; eta zure buruko ilayak iduri du erregeren purpura errekaka lothua.

6 ¡ Zeinen zaren ederra, eta zeinen berregina, oi ene maitena, ene gozagarria!

7 Zure irazkia ederra da palmarenaren bardin eta zure bulharrek iduri dute mahats molkhoak.

8 Eta erran izan dut: Iganen naiz palmahondora, eta hartuko ditut haren fruituak: eta zure bulharrak izanen zaizkit mahatsaren molkhoak bezala, eta zure ahoko hatsa sagarraren usaina bezala.

9 Zure zintzurra armorik hautena iduri, ene bihotzekoak edateko, bere ezpainez eta hortzez gozatzeko gai da.

10 Ene bihotzekoarena naiz ni, eta bera ichuria dago ni-gana.

11 Zato, ene bihotzekoa, ilkhi gaitezen kampotara; bizi gaitezen bazter-aldetan.

12 Goizik jaiki gaitezen mahastietara: dugun ikhus hea loratu den mahastia, hea lorcak bihitzen diren, hea

loratu diren granadak: han emanen darozkitzut ene bi bulharrak.

13 Urriloek hedatu dute beren usaina: gure athirian dira fruitu guziak: berriak eta zaharrak, oi ene bihotzekoa, oro zuretzat ditut begiratu.

Zortzigarren Kapitulua.

¿NORK emanen darot izan zaitezen ene anaya, ene amaren bulhar bera edoskia, aurkhi zaitzadan kampoan eta musu eman dizazudan, eta geroz nihoren nardagarri izan ez-nadien?

2 Lothuko natzaitzu, eta eramanen zaitut ene amaren etchera: han jakintsun eginen nauzu, eta nik emanen darotzut arno baltsamuztatu batetik, eta ene granaden limurreta edatera.

3 Esku ezkerra ezarriko du ene burupean, eta eskuinaz besarkaturen nau.

4 Othoizten zaituztet, oi Jerusalemeko alabak, asalda ez-dezazuen nik maite dudana, eta ez-dezazuen atzarraraz-ere, berak nahi duen arteo.

5 ¿Nor-da eremutik igaiten den hau, dena gozotasunez bethea, eta bere bihotzekoaren gainean bermatzen

delarik? Sagarrondoaren azpian atzarrarazi zaitut: han khutsatua izatu da zure ama, zure burhasoak han galdu du bere lorea.

6 Zure bihotzaren gainean ezar nezazu zigilu bat bezala, zigilu bat bezala zure besoan: zeren amodioa hazkar baita herioa bezain; amodioaren eragindura gogor ifernua bezain, eta haren lamek erretzen baitute su eta gar lamek bezala.

7 Ur handiek ezin-iraungi dute amodioa, hibayek ezin eraman dute: gizonak amodioagatik eman baletza ere bere etcheko ontasun guziak, uste luke oraino deusguti egin lukeela.

8 Gure ahizpa ttipia da, eta bulharrik ez-du: ¿Zer eginen diogu gure ahizpari, solaseko adina ethorria daitenean?

9 Harrasia balimbada, egin diotzogun zilharrezko dorreak gainean: athea balimbada, estaliko dugu zedrozko panelaz.

10 Ni harrasia naiz: eta ene bulharrak dorrea bezala dira, agertu naizenaz geroztik bakea ardiesten duena bezala ene senharraren aitzinean.

11 Mahasti bat izan du baketiarrak, jendayak daduzkan hartan: zaintzaileei eman izan diote eta mahastizainak fruituentzat zor ditu mila zilharrezko.

12 Ene mahastia ene aitzinean dago. Baketiarrak izanen ditu bere mila zilharrezkoak, eta zaintzaileek berrehun.

13 Oi zu, baratzetan zaudezena, adiskideak barrandan daude, adiaraz dizadazu zure mintzoa.

14 Ihes egizu, ene bihotzekoa; egizu orkhatzak eta orenkumeak bezala baltsamuetako mendien gainean.

LE LIVRE DE RUTH
ERRUTH

Jean Pierre Duvoisin
Lapurteraz
Londres
1860

Originala: «Azkue Biblioteka» - Euskaltzaindia

LE

LIVRE DE RUTH

TRADUIT EN

BASQUE LABOURDIN

PAR

LE CAP. DUVOISIN.

LONDRES.
1860.

We certify that only 250 copies of this work have been printed, of which one is on thick paper.

STRANGEWAYS & WALDEN,
28 Castle Street, Leicester Square.

ERRUTH.

I. Kap.

JUYE baten egunetan, juyczak buruzagi zirelarik, gosete bat gerthatu zen lurrean. Eta gizon bat goan zen Bethlehem Judakotik, Moab-herrira arrotz, bere emaztearekin eta bi haurrekin.

2 Bera deitzen zen Elimelek, eta emaztea Noemi; eta bi semeak, bat Mahalon eta bertzea Kelion. Efratarrak ziren Bethlehem Judakoak. Eta Moab-herrian sarthurik, han egoten ziren.

3 Hil izan zen Elimelek, Noemiren senharra; eta Noemi bera geldi tu zen bere bi semeckin;

4 Haukiek Moabitar emazteak egin zituzten; bat deitzen zen Orpha, bertzea Erruth. Han egotu ziren hamar urthez;

5 Eta biak hil izan ziren, erran nahi-da Mahalon eta Kelion; eta Noemi gelditu zen bere bi haurrez eta senharraz gabetua.

6 Eta jaiki zen bere herrialdera goateko bere bi erreinekin, Moab-herritik; aditu zuen ezik Jaunak begitharte egin zioela bere populuari, eta jatekoa eman.

7 Hargatik bere bi erreinekin atheratu zen arrotz egotu zen lekhutik; eta jadanik bidean zelarik Judako lurrera bihurtzeko,

8 Erran zioeten: Itzul zaitezte zuen amaren etchera: Jauna urrikalmendutsu izan bekizue, zuek hil direnen alderat eta ene alderat izatu zareten bezala.

9 Phausua eman bezazuete harrau hestutzen: Jaunaren eskua ene kontra ilkhia da.

14 Berriz eman ziren nigar marrasketan. Orphak bere amaginarreba besarkatu zuen, eta gibelerat itzuli zen; Erruth josi zen bere amaginarrebari.

15 Noemik erran zioen: Horra non zure ahizpa bihurtu den bere herritarretara eta bere jainkoetara; zu ere zoazi horrekin.

16 Erruthek ihardetsi zuen: Ez bezaizkit trebes jar, utz zaitzadan eta goan nadientzat; ezen norat-nahi egin dezazun, haratko naiz; eta nonere geldituko baitzare, ni geldituko naiz halaber. Zure populua ene populua izanen da, zure Jainkoa ene Jainkoa.

17 Zein lurrek hartuko baitzaitu hiltzen zarenean, hartan hilen naiz

tuko ditutzuen senharren etchetan. Eta besarkatu zituen. Eta hekiek nigar marraskaz hasi ziren,

10 Erraten zutelarik: Zurekin goanen gare zure populua gana.

11 Noemik ihardetsi zioeten: Bihur zaitezte, ene haurrak; zertako ethor enekin? ene sabelean othe da gehiago semerik, zuek ni ganik igurikitzeko senharrik?

12 Itzul zaizte, ene haurrak, eta zoazte: ezen jadanik adinak azpian naduka, ez naiz ezkontzako lokharriaz gai; gaur amatzen ahal banintz ere, eta bi semez erditzen,

13 Baldin hekien begira egon nahi bazindute, hekiek handitu eta morroindu arteo, berriz ezkondu baino lehen chahartto egin zintezkete. Ez holakorik, othoi, ene haurrak, ezen zuen atsekabeak eneak baino gehiago

ni erc, hartan izancn da ene hobia. Edozein gaitzez jo beneza Jaunak, eta egin bezat gehiago oraino, haldin deusek-ere, herioaz landan, berezten banau zu ganik.

18 Noemik ikhusirik beraz gogo sendo batekin hartu zuela harekin goateko asmua, etzuen nahi izan zeiher jarri, ez-eta gehiago aiphatu here herritarretara bihurtzeaz.

19 Bidcari batean eman ziren eta ethorri Bethlehemera. Hirira sarthu zirenean, berriak laster jo zuen orotara; eta emaztekiek erraten zuten: Hau da behialako Noemi.

20 Noemik erran zioeten: Ez benezazue deith Noemi (erran-nahi-da ederra), bainan deith nezazue Mara (erran-nahi-da uherra), zeren uherdura handiz bethe bainau Ahalorotakoak.

tan bihotz-oneko aita familiako bat, begitharte eginen darotana. Noemik ihardetsi zioen: Zoazi, ene haurra.

3 Goan zen beraz, eta burukak biltzen zituen uztazaleen gibeletik. Gerthatu zen, bada, lauda haren nausia zela Booz, Elimeleken ahaidea.

4 Eta hara non bera Bethlehemetik ethortzen zen, eta uztazaleei erran zioeten: Jauna bedi zuekin. Haukiek ihardetsi zioten: Jaunak benedika bezaitza.

5 Uztazaleen buruko zen gizongazte bati erran zioen Boozek: Norena da neskatcha hori?

6 Harek ihardetsi zuen: Noemirekin Moab-herritik ethorri den Moabitarra da hori.

7 Othoiztu gaitu utz dezagun gelditzen diren buruken biltzera, uzta-

21 Bethea ilkhi naiz, eta hutsa bihurrarazten nau Jaunak. Zertako beraz deitzen duzue Noemi Jaunak aphaldu duena, Ahalorotakoak atsekabez bethe duena?

22 Horreletan ethorri zen Noemi bere erromeriako lurretik, bere erreina Erruth Moabitarrarekin; eta Bethlehemera bihurtu zen garagarraren ephaiten hasiak zirenean.

II. Kap.

BADA, ahal handiak eta onthasun hainitz zuen gizou bat bazen, Elimeleken ahaidea, Booz deitzen zena.

2 Erruth Moabitarrak bere amaginarrebari erran zioen: Zuk nahi baduzu, goanen naiz landetara, eta uztazaleari izturi burukak bilduko ditut, atzemanen dudan lekhu guzie-

zaleen ondotik; eta goizetik hunat landan da, eta ez da aphur bat ere etchera bihurtu.

8 Boozek erran zioen Erruthi: Adi zazu, neskatcha, ez bezedi nihora goan buruka biltzera, bainan zaude landa huntan, eta zoazi ene neskatchetara,

9 Eta jarraik zaitezi uzta egin duketen tokietara. Manatu diotet ezen ene muthilei, nihork ez dezazun nahigaberik eman: eta egarritzen bazina ere, zoazi untziak diren lekhura, eta edan zazu ene mutbilek edaten duten uretarik.

10 Ahuspez eroririk eta lurrean adoratzen zuelarik, Erruthek erran zioen: Nondik dathorkit grazia zure begien aitzinean aurkhitu dudala, eta nardatu gabe jausten zarela ene czagutzera, ni arrotz gaichoa?

11 Boozek ihardetsi zioen: Zure senharra bil ondoan, zure amaginarrebarentzat egin ditutzun guzien berriaz jakina naiz; nola utzi dituzun zure ahaideak eta zure sorlekhua, ezagutzen etzinduen populu batera ethortzeko,

12 Bihur bezazu Jaunak zure egintzaren arabera; sari oso bat ardiets dezazula Israelgo Jainko Jauna ganik, zeinaren gana ethorri baitzare eta zeinaren hegalen azpira ihes-egin baituzu.

13 Erruthek erran zioen: Grazia aurkhitu dut zure begien aitzinean, jauna, zu, kontsolatu nauzuna, eta mintzatu zarena zure sehiaren bihotzari, ez naizelarik zure sehietarik baten bethe.

14 Boozek erran zioen: Jateko tenorea ethorri ditakeenean, zato

18 Hekiek soinean, itzuli zen hirira; erakhutsi ziozkan bere amaginarrebari; bertzalde aitzinera ekharri eta eman ziozkan, ase-ta begiratu zituen jateko ondarretarik.

19 Amaginarrebak erran zioen: Non haritu zare egun biltzen? non haritu zare lanean? Benedikatua izan bedi zutaz urrikaldu dena. Erruthek erran zioen noren baithan haritu zen lanean; erran zioen gizonaren izena, zeina Booz deitzen baitzen.

20 Noemik ihardetsi zioen: Jaunaz benedikatua izan bedi, zeren biziei erakhutsi izan diocten begitharte bera begiratu baitiote hilei ere. Eta berriz erran zuen: Gure ahaide hurbila da gizon hura.

21 Erruthek erran zuen: Hau ere manatu darot, haren uztazalee-

hunat, jan zazu ogia, eta zure ahamena minagrean busti zazu. Jarri zen beraz uztazaleen sahetsean, garagar chigorretik hartu zuen beretzat, jan zuen eta ase zen eta ondarrak begiratu zituen.

15 Eta handik jaiki zen, ohi bezala buruken biltzeko. Bada, Boozek manu hau eman zioten bere muthilei: Zuekin biltzen hari nahi balu ere, ez bezazue debeka.

16 Zuen eskumenetarik ere berariaz arthik zatzue, eta utz gibelerat, ahalkerik gabe bil detzan, eta biltzen dituenean nihork ez bezo gaizkirik erran.

17 Arrats arteo haritu zen beraz landan biltzen; eta bildu zuena zaharo batekin jorik eta iharrosirik, khausitu zuen ephi baten inguruaren garagarra, erran-nahi-da hirur gaitzeru.

tara goan nadiela, uzta guziak bildu arteo.

22 Amaginarrebak ihardetsi zioen: Hobe duzu, ene haurra, haren neskatchekin uztatzera ilkhi zaitezen, nahi-gaberik izan ez dezazun bertze baten landan.

23 Hargatik Boozen neskatchekin ibili zen, eta bekiekin biltzen haritu zen, garagarrak eta ogiak barnera sarthu arteo.

III. Kap.

BADA, itzuli zenean bere amaginarrebaren gana, haren ganik entzun zuen solas hau: Ene haurra, phausua billhatuko darotzut, eta zure ongi izateko bideak hartuko ditut.

2 Booz hura, zeinaren neskatchekin landan ibili baitzare, gure ahaide

hurbila da, eta gau huntan baizatzen du garagarra bere larrainean.

3 Jaiki zaite beraz, guntzu zaite, eta zure soineko ederrenak jauntz zatzu; zoazi larrainera: Boozek ez bezaitza ikhus, bere jan-edanak egin dituen arteo.

4 Ordean lotara goanen denean, begietan har zazu non lo-egiten duen; goanen zare, agertuko duzu haren zangoen gaineko kapa, etzanen zare eta hedatua han egonen. Gero berak erranen darotzu zer egin behar duzun.

5 Erruthek ihardetsi zuen: Zuk erran guzia eginen dut.

6 Eta larrainera jautsi zen, eta amaginarrebak manatu ziozkanak oro egin zituen.

7 Jan eta edan ondoan, Booz arrayago egin zeneau, lotara goan zen

espal-meta baten ondora; Erruth ordnan ethorririk emekitto, kapa agertu zuen zangoen aldetik eta etzan zen.

8 Eta hara non gauherdi gainean Booz laztu eta asaldatu zen, eta emaztekia ikhusi zuen bere oinetan etzana.

9 Eta erran zioen: Nor zare? Harek ihardetsi zuen: Zure neskato, Erruth naiz; heda zazu zure kapa zure schiareu gainera, ezen ahaide hurbila zare.

10 Boozek erran zioen: Jaunaz benedikatua zare, haurra, zure urrikaltzapen bigarrenak chit-tzen du lehembizikoa, zeren ez baitituzu bilhatu gizon-gazteak, nahiz bebarrak, nahiz aberatsak.

11 Ez izan beraz beldurrik, bainan erran darotazun guzia eginen

dut; ezen badaki hiri huntako athoen artean dagoen populu guziak emazteki berthutetsu bat zarela.

12 Ez dut erraten ez naizela ahaide hurbila, bainan bada bertze bat hurbilagoa dena.

13 Phausa zaite gau huntan; eta goiza ethorri denean, harek nahi bazaitu iduki ahaidetasuneko zuzenez, ganza ongi egina da; bainan harek nahi ez badu, segurki hartuko zaitut nik, zin-egiten dut Jaunaz. Lo-egizu goiza arteo.

14 Haren oinetan lo-egin zuen beraz argitze arteo. Jaiki zen gizonek elkhar ezagut zezaketen baino lehen, eta Boozek erran zioen: Berautzu nihork jakin dezan hunat ethorri zarela.

15 Erran zioen berriz: Heda zazu zure soineko kapa, eta bi eskuez

atchik zazu. Erruthek kapa hedatua zadukalarik, Boozek neurtu ziozkan sei gaitzeru garagar eta hartan ezarri. Hekiek soinean, Erruth hirira sarthu zen.

16 Goan zen bere amaginarreba gana, zeinak erran baitzioen: Haurra, zer egin duzu? Erruthek khondatu ziozkan Boozek harentzat egin zituen guziak.

17 Eta erran zuen: Huna, sei gaitzeru garagar eman darozkit, zioelarik: Ez dut nahi zure amaginarreba gana hutsik itzul zaitezen.

18 Noemik erran zioen: Zaude, haurra, ikhusi arteo zer atheratuko den huntarik: ezik Boozek ez du onik izanen erran ditunenak bethe arteo.

IV. Kap.

BOOZ goan zen beraz hiriko athera eta han jarri zen. Eta iragaiten ikhusi zuenean aitzinean aiphatu den ahaidea, bere izenaz deitzen zuelarik, erran zioen: Zaude aphur bat, eta jar zaite hemen. Hau aldaratu zen eta jarri.

2 Bada, Boozek hamar gizon harturik hiriko zahar retarik, erran zioeten: Jar zaizte hemen.

3 Jarri zirenean, hunela mintzatu zen bere ahaideari: Gure anaya Elimeleken landaren zathi bat saltzera darama Noemi, Moab-herritik itzuli denak.

4 Nahi izan zaitut hortaz jakintsun egin eta zuri erran hemen jarriak diren guzien eta ene herritarretako zaharren aitzinean. Baldin

zaharra ahaideen arteko, non batak bertzeari ematen zioenean bere zuzena, emaitza ona izatekotzat, emaileak khentzen zuen bere oinetakoa, eta bere ahaideari ematen zioen: hori zen, Israelen, emaitzaren lekhukotasuna.

8 Boozek erran zioen beraz bere ahaideari: Khen zazu zure oinetakoa. Eta hunek khendu zuen berehala zangotik.

9 Boozek erran zuen zaharren eta populu guziaren aitzinean: Lekhuko zarete egun, Elimelekenak, Kelionenak eta Mahalonenak izatu diren guziez jabetzen naizela Noemiren eskutik;

10 Eta eskontzaz hartzen dudala Erruth Moabitarra, Mahalonen emaztea, haren izena biziaraz dezadan haren primantzan, eta haren deithura

gozatu nahi baduzu ahaidetasuneko zuzenez, eros zazu eta goza; bainan hori ez bada zure gogara, mintza zaite, jakin dezadan zer dudan egiteko; ezen ez da ahaiderik, haizikere zu lehembiziko zarena eta ni bigarren naizena. Hunek ihardetsi zuen: Nik erosiko dut landa.

5 Boozek erran zioen: Noemiren eskutik landa erosi dukezunean, ezkontzaz beharko ere duzu hartu Erruth Moabitarra, hil denaren emazte izatua, zure ahaidearen izena biziaraztko haren primantzan.

6 Hunek ihardetsi zuen: Ützten dut ahaidetasuneko zuzena, ezen ez dut galdu behar ene familiako leinua. Zu balia zaitezi ene zuzen bereziaz, zeinetaz gogo onez biluzten naizela aithorra ematen baitut.

7 Bada, hau zen Israelen aztura

gal ez dadien haren familiatik, anayetarik eta populutik. Zuek, diot, gauza horren lekhuko zarete.

11 Athean zen populu guziak eta zaharrek ihardetsi zuten: Lekhuko gare: Jaunak, zure etchean sartzen den emazteki hori eragin beza iduri Errachel eta Lia, zeinek sorthu baitute Israelen etchea, Efratan izan dadientzat berthutezko ikhusgarri bat, eta haren izena deithatua izan dadien Bethlehemen.

12 Phares, Thamarrek Judari eman semearen etchea iduri egin bedi zure etchea, Jaunak neskatcha horren ganik emanen darozkitzun umeetarik.

13 Boozek Erruth hartu zuen beraz eta bere emazte egin. Sarthu zen haren gana, eta Jaunak eman zioen izorra gertha eta seme batez erdi zedin.

14 Eta hango emaztekiek Noemiri erraten zioten: Benedika bedi Jauna, zeinak ez baitu jasan gal zedin zure familiako ondorea, eta zure izena deithua etzedin Israelen,

15 Izan dezazuntzat nork kontsola zure arima eta nork haz zure zahartzea: ezen zure erreina maite zaituena ganik sorthu da seme bat; eta hainitzez hobe da zuretzat ezenez zazpi seme bazintu.

16 Noemik haurra harturik, ezarri zuen bere altzoan, eta unhidearen eta haurzainaren egimbideak bethetzen zituen.

17 Hauzoko emaztekiek berriz, bozten zirelarik, erraten zuten: Noemiri sorthu zayo seme bat. Deithu zuten Obed. Hura izan da Isairen aita, eta Isai Dabidena.

18 Huna Pharesen ondoregoa: Pharasek izan zuen Esron,

19 Esronek izan zuen Aram, Aramek Aminadab,

20 Aminadabek Nahason, Nahasonek Salmon,

21 Salmonek Booz, Boozek Obed,

22 Obedek Isai, Isaik izan zuen Dabid.

LA PROPHÉTIE DE JONAS
JONASEN PROFEZIA

Jean Pierre Duvoisin
Lapurteraz
Londres
1863

Originala: «Azkue Biblioteka» - Euskaltzaindia

LA PROPHÉTIE DE JONAS

TRADUITE EN

BASQUE LABOURDIN

PAR LE

CAP. DUVOISIN.

LONDRES. 1863.

JONASEN PROFEZIA.

I. Kap.

JAUNAREN hitza Jonasi, Amathiren semearri ilkhi zitzayoena, zerralarik:

2 Jaiki zaite eta zoaz Ninibako hiri handira, eta erantzun zazu han, ene aitzinera igan dela hango tzarkeria.

3 Eta Jonas jaiki zen, Jaunaren aitzinetik Tharsisera ihes-egiteko. Jopera jautsi zen eta atzeman zuen Tharsisera zihoan untzi bat; eman

zuen bidayako behar zen dirua, eta untzian sarthu zen, hartan zirenekin Tharsisera goateko Jaunaren ihes.

4 Jaunak ordean itsasora igorri zuen haize handi bat, eta phesia gaitza egin zen itsasoan, eta lehertzeko zorian zabilan untzia.

5 Itsasturuak izituak ziren; zein bere jainkoari deihadarka zauden, eta itsasora arthiki zituzten untzian ziren puskak, hekietaz izan zadien arindua; Jonas berriz, untzi-barnera jautsia zen, eta lo gogor batean zagoen.

6 Eta lemazaina hurbildu zitzayon eta erran zioen: Zertan zaude lo hortan? Jaiki zaite eta dei-egiozu zure Jainkoari, hean zure Jainkoa orhoituko den gutaz, eta gal ez gaitezen.

7 Eta han zirenek batak bertzeari erran zuten: Zatozte eta arthik detzagun zorteak, eta jakin dezagun zertako dathorkigun zorigaitz

hau. Eta arthiki zituzten zorteak, eta zortea Jonasen gainera erori zen.

8 Eta erran zioten: Ager dizaguk zer ariaz den zorigaitz hau gure gainean. Zer ofizio duk? Nongoa haiz eta norat hoa? edo zein jendakitarik haiz?

9 Jonasek ihardetsi zioten: Hebrearra naiz ni, eta itsasoa eta leihorra egin dituen Jainko Jaun zerukoaren beldurrean bizi naiz.

10 Eta izialdura handia lothu zitzayoten gizon hekiei, eta erran zioten Jonasi: Zertako egin duk hori? (ezen berak erranik bazakiten, Jaunaren aitzinetik ihes zihoala.)

11 Eta erran zioten: Zer eginen derayagu, itsasoa bara dadien gure ganik? Ezen goitituz eta hantuz zihoan itsasoa.

12 Eta Jonasek ihardetsi zuen: Har nezazue eta arthik itsasora, eta itsasoa baraturen

da zuen ganik; nik badakit alabainan phesia gaitz hau ene gatik ethorri dela zuen gainera.

13 Eta gizonak arrau-indarka hari ziren, leihorrera bihurtu nahiz, bainan etziren nausitzen, itsasoa goitituz eta hantuz zihoalakoz.

14 Eta Jaunari oihu-egin eta erran zioten: Othoi, Jauna, ez begedi gal gizon hunen heriotzearen ariaz, eta ez bezazu gure gain ezar odol hohengabea; zeren Jauna, nahi duzun bezala egiten baituzu.

15 Eta hartu zuten Jonas eta itsasora arthiki zuten, eta itsasoa jabaldu zen bere irakiduratik.

16 Eta gizon hekiek beldur handia hartu zuten Jaunarentzat; eta bitimak imolatu ziozkaten Jaunari, eta botuak egin zituzten.

II. Kap.

ETA Jaunak han ezarri zuen arrain handi bat Jonasen iresteko; eta Jonas arrainaren sabelean egotu zen hirur gau-egunez.

2 Eta bere Jainko Jaunari othoitz-egin zioen arrainaren sabeletik,

3 Eta erran zioen: Ene hesturako lekhutik Jaunari egin diot deihadar, eta entzun nau; hobiaren ondotik oihu-egin dut, eta aditu duzu ene mintzoa.

4 Arthiki nauzu lezera, itsasoaren barnera,

eta urek inguratu naute; zure tirain eta uhinak oro iragan zaizkit gainetik.

5 Eta nik erran dut: Iraizia naiz zure begien aitzinetik; berriz ikhusiren dut halere zure templo saindua.

6 Urek inguratu naute, bizia khentzeko heineraino; lezeak hirundan hartu nau, itsasoak estali darot burua.

7 Mendien behereko erroetara jautsi naiz; lurreko hersgailuek giltzatu naute betiko; eta zuk, ene Jainko Jauna, galtzetik begiraturen duzu ene bizia.

8 Ene arima hestutua zenean ene baithan, zutaz orhoitu naiz, Jauna; hel zadien ene othoitza zure gana, zure templo saindura.

9 Hutsalkeria alfer batzuei jarraikitzen direnek ukho-egiten diote beren alderako urrikalmenduari.

10 Bainan nik laudoriozko kantuekin imolaturen darozkitzut bitimak; eta ene salbatzeko, Jaunari bihurturen diozkat egin diozkadan botu guziak.

11 Eta Jaunak arrainari erran, eta arrainak goiti-egin zuen Jonas leihorrera.

III. Kap.

ETA bigarren aldiko Jonasi ilkhi zitzayoen Jaunaren hitza, zerralarik:

2 Jaiki zaite, eta zoaz Ninibako hiri handira, eta han erantzun zazu nik erraten darotzudan erantzukia.

3 Eta jaiki zen Jonas, eta, Jaunaren hitzaren arabera, Ninibara goan zen; eta Niniba hain zen hiri handia, non baitzuen hirur egunen bidea.

4 Eta Jonasek, sartzen abiatu zenetik, egin

zuen egun baten bidea, eta oihu-egiten zuen eta erraten: Oraino berrogoi egun, eta hiria chahutua izanen da.

5 Eta Ninibarrek sinhetsi zuten Jainkoa baithan; erantzun zuten barura, eta handicnetik ttipieneraino zakhuz jauntzi ziren guziak.

6 Eta berria heldu izan zitzayoen Ninibako erregeri, eta jaiki zen bere tronutik, eta artliki zituen bere soinekoak, eta jauntzi zuen zakhu bat, eta jarri zen hautsaren erdian.

7 Eta Niniban oihu-egin eta erantzun zuten erregeren eta buruzagien manamenduz, erranez: Gizonek, zaldiek, idiek, ardiek ez bezate den-gutiena dasta; ez beitez alha, eta ez bezate urik edan.

8 Zakhuz estal beitez gizonak eta aziendak; beren indar guziaz deihadar-egin biozote Jaunari; eta hatbedera bihur bedi here bide

gaichtotik eta eskuen gainean duen tzarkeriatik.

9 Nork daki hean ez den itzuliko Jainkoa, eta hean ez duen barkhatuko; hean ez den bihurko bere hasarrearen irakiduratik, eta hala ez baikare galduko?

10 Eta Jainkoak ikhusi zituen hekien egintzak, itzuli zirela beren bide tzarretik; eta Jainkoa urrikaldu zen hekici eginen ziotela erran zuen gaizkiaren gainean, eta etzioten egin.

IV. Kap.

ETA Jonas hestutu zen hestura handi batez, eta minkhaiztu zen.

2 Eta othoitz-egin zioen Jaunari, eta erran: Othoi, Jauna, ez othe da hau ene solasa, ene herrian oraino egoten nintzenekoa? aria hortaz aitzindu naiz Tharsisera ihes goatera. Badakit ezen zu zarela Jainko barkhatiar, urrikalmendutsu, jasankor, urrikalpen handitakoa, eta gaizkia barkhatzen duzuna.

3 Eta orai, Jauna, athera zazu othoi ene arima enc baitharik; zeren enetzat heriotzea bizitzea baino hobea baita.

4 Eta Jaunak erran zioen: Uste duzu aria onez hasarretzen zaren?

5 Eta Jonas Ninibatik ilkhi zen eta jarri hiritik iguzki-alderat; eta beretzat egin zuen han itzalpe bat, eta jarria zagoen haren azpian itzalean, ikhusi arteo zer gerthaturen zitzayoen hiriari.

6 Eta Jainko Jaunak sortarazi zuen huntzondo bat, eta igan zen Jonasen buru gainera, itzala izan zadien haren buruaren gainean, eta geriza zezan hura, beroaz khechatua zelakoz; eta bozkario handiaz boztu zen Jonas huntzondoaren ariaz.

7 Eta biharamun argi-hastean Jainkoak igorri zuen har bat, eta jo zuen buntz-ondoa, eta ihartu zen.

8 Eta iguzkia ilkhi zenean, Jaunak manatu zuen haize bero eta erregarri bat; eta iguzkiak

jo zuen Jonasen burua, eta saphak ithotzen zuen Jonas; eta berc biziari galdatu zioen hilik utz zezan, eta erran zuen: Bizitzea baino hobe nuke hiltzea.

9 Eta Jaunak erran zioen Jonasi: Uste duzu ongi samurtzen zaren huntz-ondoaren ariaz? Eta ihardetsi zuen: Aria dut samurtzeko heriotzeraino.

10 Eta Jaunak erran zioen: Minkhaitz zare huntz-ondo baten ariaz, zeinaren ethorrarazteko ez baitzare behartu, eta zeinaren handiarazten ez baitzare haritu; zeina gau batez sorthu eta bertzean hil baita;

11 Eta nik ez othe diot barkhaturen Ninibako hiri handiari, zeintan baitire ehun eta hogoi mila gizon baino gehiago, beren eskuina eta ezkerra ezagutzen ez dituztenak, eta azienda elemenia bat?

We certify that only 250 copies of this work have been printed, of which one is with red borders.

STRANGWAYS & WALDEN,
28 Castle Street, Leicester Square.

EL EVANGELIO SEGÚN SAN MATEO

Bruno Echenique
Elizondoko nafarreraz
Londres
1857

Originala: Baionako Udal Bibliotcka

EL EVANGELIO

SEGUN

SAN MATEO,

TRADUCIDO AL VASCUENCE, DIALECTO NAVARRO,

POR

D. BRUNO ETCHENIQUE DE ELIZONDO,

PARA EL

PRÍNCIPE LUIS-LUCIANO BONAPARTE.

LONDRES.

1857.

6. ARCHIVOS DE BAYONA.

I. CAPITULUA.

JESU-CHRISTO Daviden semeain, Abrahamen semeain generacioneco liburua.

2. Abrahamec engendratu zuen Isaac. Eta Isaaquec engendratu zuen Jacob. Eta Jacobec engendratu cituen Judas eta ain anayac.

3. Eta Judasec engendratu cituen Thamaren ganic Phares eta Zara. Eta Pharesec engendratu zuen Esron. Eta Esronec engèndratu zuen Aram.

4. Eta Aramec engendratu zuen Aminadab. Eta Aminadabec engendratu zuen Naasson. Eta Naassonec engendratu zuen Salmon.

5. Eta Salmonec engendratu zuen Rahaben ganic Booz. Eta Boozec engendratu zuen Ruthen ganic Obed. Eta Obedec engendratu zuen Jesse. Eta Jessec engendratu zuen David Erregnea.

6. Eta David Erregueac eugendratu zuen Salomon Uriasen andre izanain gauic.

7. Eta Salomonec engendratu zuen Roboam. Eta Roboamec engendratu zuen Abias. Eta Abiasec engendratu zuen Asa.

8. Eta Asac engendratu zuen Josaphat. Eta Josaphatec eugendratu zuen Joram. Eta Joramec engeudratu zuen Ozias.

4

9. Eta Oziasec engendratu zuen Joatham. Eta Joathamec engendratu zuen Achaz. Eta Achazec engendratu zuen Ezechias.

10. Eta Ezechiasec engendratu zuen Manasses. Eta Manassesec engendratu zuen Amon. Eta Amonec engendratu zuen Josias.

11. Eta Josiasec engendratu cituen Jechonias eta ain anayac, Babiloniara pasatceco demboran.

12. Eta Babiloniara pasatuac izan ciren oudoan: Jechoniasec engendratu zueu Salathiel. Eta Salathielec engendratu zuen Zorobabel.

13. Eta Zorobabelec engendratu zuen Abiud. Eta Abiudec eugendratu zuen Eliacim. Eta Eliacimec engendratu zuen Azor.

14. Eta Azorec engendratu zuen Sadoc. Eta Sadoquec engendratu zuen Achim. Eta Achimec engendratu zuen Eliud.

15. Eta Eliudec engendratu znen Eleazar. Eta Eleazarec engendratu zueu Mathan. Eta Mathanec engendratu zuen Jacob.

16. Eta Jacobec engendratu zuen Joseph Mariain senarra, ceña Mariain ganic sortu baitcen Jesus Christo deitua dena.

17. Guisa ortan generacione gueiac Abrahamez gueroztic Daviderano, amalau generacione: eta Davidez gueroztic Babiloniara pasatuac izan ciren arteraño, amalau generacione: eta Babiloniara pasatuac izan cirenetic Christoraño amalau generacione.

5

18. Beraz Jesu-Christoin sorteca guertatu cen guisa untan: Maria ain ama, ezcontceco itza eman ondoan Josephi, guertatu cen embraza Izpiritu Sainduan virtutez, elcarrequin bici baño lenago.

19. Eta Joseph ain senarrac, nola yustua baitcen, eta ez baitzuen ura deshonratu nai, secretuqui nai izan zuen utci.

20. Eta gauza oc pentsatcen zagon demboran, or aguertcen zayo Yaunain Ainguerua, erraten diolaric: Joseph Daviden Semea, ez beldurric izan Maria zure andreain errecibiteco: ceren artan concebitua dena Izpiritu Sainduain ganic da.

21. Eta erdico da seme batez: eta emain diozu icena Jesus: ceren gatic arc salbatuco du bere puebloa bere becatuetaric.

22. Bada oc guciac guertatu ciren Yaunac Prophetain medioz erran zuena cumplitu zadien, ceñac baitio:

23. Una, Virginac concebituco du, eta erdico da seme batez: eta deituco dute Emmanuel, erran nai baitu, Yanngoicoa gurequin.

24. Eta Josephec, lotaric iratzarriric, eguin zuen Yaunain Aingueruac manatu cion bezala, eta errecibitu zuen bere andrea.

25. Eta ez zuen ezagutu bere seme lembicicoaz erdi arteraño, eta eman cion icena Jesus.

6

II. CAPITULUA.

BADA, sortu celaric Jesus Judaco Bethlehemen Herodes Erregueain demboran, iguzquia ateratcen den aldetic etorri ciren Magoac Jerusalemera.

2. Erraten zutelaric: ¿non da sortu den Yuduen Erreguea? ceren icusi guinuen ain izarra iguzquia ateratcen den aldean, eta eldu gara ain adoratcera.

3. Eta Herodes Erregueac aditu zuelaric ori, izan cen turbatua, eta Jerusalem gucia aiquin batean.

4. Eta bilduric Sarcerdoteen Principe guciac eta puebloaiu Escribac, galde eguin cioten non sortu beartcen Christo.

5. Eta oc erran cioten: Judaco Bethlehemen: ceren ala Prophetac escribitua baita:

6. Eta zu, Bethlehem, Judaco lurra, ez zara ttiquiena Judaco lembicicoen artean: ceren zure ganic ateraco da nere Israelgo puebloa gobernatuco duen aitcindaria.

7. Orduan Herodesec, deituric secretuqui Magoac, yaquin zuen equen ganic cuidadoaiquin, cein demboraz aguertu citzayoten izarra.

8. Eta ec Bethlehemera bidaltcen cituelaric, erran cioten: zoazte, eta informa zaizte ongui aur artaz: eta causten duzuen ondoan yaquinaraz datazue, ni ere gan nadien ain adoratcera.

7

9. Ec beraz, Erregueain ganic ori aditu zuten, becen laster, gan ciren. Eta una, iguzquia ateratcen den alderdian icusi zuten izarra, equen aitcinean zoayen, gueldítu cen arte, allegaturic aurra cen lecuain gañeraño.

10. Eta izarra icusi zutenean atseguin andi bat artu zuten.

11. Eta etchean sartu eta, caustu zuten aurra bere ama Mariaiquin, eta auspesca adoratu zuten; eta beren tesoroac edequiric, esqueñi ciozten erregaloac, urre, incienso eta myrrha.

12. Eta errespuesta izanic ametsetaú ez Herodesen gana itzultceco, bertce bide batetic itzuli ciren bereu lecuetara.

13 Ec gan ciren ondoan, or Josephi aguertcen zayo ametsetan Yaunain Ainguerú bat, erraten diolaric: Yeiqui zaite, eta ar citzu aurra eta bere ama, eta igues eguin zazu Egyptora, eta an egon zaite nic erran arteraño; ceren guertatuco da Herodesec bilatuco baitu aurra, ilarazteco.

14. Yeiquiric, Josephec artu cituen gauaz aurra eta bere ama, eta gan cen Egyptora.

15. Eta an egon cen Herodes il cen arteraño: cumplitua izan zadien Yaunac Propheta baten medioz miutzatu zuena, diolaric: Egyptotic deitu nuen nere semea.

16 Orduan Herodesec icusi zuencan Magoez burlatua izan cela, auitz coleratu cen; eta

8

igorri zuen Bethlehemen eta berc eremu gucian ciren aur gucien ilaraztera, bi urtetacoac, eta berago, Magoetaric informatu izan cen demborain arabera.

17. Orduan cumplitua izan cen Jeremias Prophetaz errana izau cena: erraten duena:

18. Nigarrezco, eta marrasca anitzco boz bat aditua izan cen Ramanen: Rachel nigarrez bere aurrez: eta ez zuen consolatua nai izan, ceren ez diren gueyago.

19. Eta Herodes il ondoan, or Yaunain Ainguerua amets batean aguertcen da Josephi Egypton,

20. Erraten diolaric: Yeiqui zaite, eta ar citzu aurra eta bere ama, eta itzul zaite Israelgo lurrera, ceren ilac dire aurra il nai zutenac.

21. Yeiquiric, Josephec artu cituen aurra eta bere ama, eta etorri cen Israelgo lurrera.

22. Baño adituric Archelaoc erreinatcen zuela Judean bere aita Herodesen lecuan, beldur izan zuen arat gateco; eta amets bateau avisatua izanic, erretiratu cen Galileaco lurretara.

23. Eta gan cen Nazareth deitcen den iri batean egotera: cumplitua izan zadieu Prophetec erran zutena: Nazarendarra izain da deitua.

9

III. CAPITULUA.

DEMBORA artan etorri cen Juan Bautista predicatcen zuela Judeaco desertuan.

2. Eta erraten zuelaric: eguin zazue urriquimendua, ceren urbildua da ceruetaco errcinua.

3. Bada an da ceintaz Isaias Propheta mintzatu baitcen, erraten zuelaric: desertuan oyu eguiten duenain boza: apain zazue Yaunain bidea: chuchen eguin citzue ain bidescac.

4. Eta Juan unec berac ere beztidoa camello ilezcoa zuen, eta larruzco facha bat bere errañen inguruan: eta ain yatecoa cen otea eta basa eztia.

5. Orduan ateratcen ciren ain gana Jerusalemgo, eta Judea gucico, eta Jordanen inguruco erri gucietacoac.

6. Eta batayatuac ciren artaz Jordanen, bereu becatnac confesatcen cituztela.

7. Baño icusiric Phariseotaric eta Sadduceotaric anitz eldu cirela ain Batayora, erran cioten: vibora casta, ¿ norc eracutsi datzue colera etortcecoari igues eguiten ?

8. Eguin zazuc beraz urriqnimenduari dagoquion fruitua.

9. Eta ez zazuela uste izan erratea zuen baitan, Abraham daucagu aitataco. Ceren erraten datzuet, Yaungoicoac arri otaric beretaric sorraraz detzaquela umeac Abrahami.

10

10. Ceren paratua da aizcora arbolen erroan. Beraz fruitu ona ematen ez duen arbola gucia moztua izain da, eta botatua sura.

11. Nic eguiazqui batayatcen zaituztet urean urriquimenduco: baño nere ondotic eldu dena ni baño bortitzagoa da, ceñen oñetacoac ez baitut mereci yaunztea: arc batayatuco zaituzte Izpiritu Sainduan eta suan.

12. Bere bagea escuan dauca: eta garbituco du ongui bere larraña: eta bilduco du bere ogui bia granerora; bañan lastoa erreco du beñere itzaltcen ez den snan.

13. Orduan etorri cen Jesus Galileatic Jordanera Juanen gana ain ganic batayatua izateco.

14. Baño Juanec trabatcen zuen erraten ciolaric: nic bear dut izan zure ganic batayatua, eta zu eldu zara nere gana.

15. Eta iñardesten ciolaric Jesusec, erran cion: utz zazu orai, ceren ula zaicu conveni yusticia gucia cumplitcea. Orduan ntci zuen.

16. Eta Jesus batayatua izan ondoan atera cen bereala nretic. Eta ordu berean edequi citzaizcon ceruac, eta icusi zuen Yaungoicoain Izpiritua yausten usoa bezala, eta ain gañera etortcen.

17. Eta dembora berean boz bat cerutic, erraten zuena: Au da nere Seme maitatua, ceintan artu baitut nere atseguina.

11

IV. CAPITULUA.

ORDUAN Jesus eramana izan cen Izpirituaz desertura, an debruaz tentatua izan zadien.

2. Eta barutu ondoan berroguei egunez eta berroguei gauez, azquenean gosetu cen.

3. Eta urbilduric aiu gana tentatzalea, erran cion: Baldin Yaungoicoain semea bazara, errazu arri ec ogui bilaca ditela.

4. Ceñec iñardetsi cion eta erran znen: Escribitua da: Ez oguiaz bacarric bici da guizona, bañu Yaungoicoain agotic ateratcen direu itz gucietaz.

5. Orduan artu zuen debruac. eta eraman znen iri saindura, eta paratu zuen templuain gañean.

6. Eta erran cion: Yaungoicoain semea baldin bazara, bota zaite emendic beiti, ceren escribitua da: Igorri cituela bere Ainguernac zure urbilera, eta artuco zaituzte beren escuetan, arri cembaiten contra beatz tapa ez zaiten.

7. Jesnsec errau cion: Escribitua da ere: Ez duzu tentatuco zure Yaungoico Yauna.

8. Berriz igan zuen debruac arras goraco mendi batera: eta eracutsi cition mnnduco erreinn guciac, eta equen gloria.

9. Eta erran cion: Oc gnciac emain dazquitzut, baldin auspescaturic adoratcen banauzu.

12

10. Orduan erran cion Jesusec: Goaye Satanas: ceren escribitua da: Zure Yaungoico Yauna adoratuco duzu, eta ura bacarric cerbitzatuco duzu.

11. Orduan debruac utci zuen: eta bereala Ainguernac etorri ciren, eta cerbitzatu zuten.

12. Eta Jesusec aditu zuelaric Juan preso cela, erretiratu cen Galileara.

13. Eta utciric Nazarethgo iria, gan cen Capharnaumen egotera, itsas gañeco iria, eta Zabulongo eta Nephtalimgo mugarrietan.

14. Cumplitua izan zadien Isaias Prophetac errau zuena:

15. Zabulongo lurra eta Nephtalimgo lurra, itsasoraco bidea, Jordanez bertec aldean, Gentilen Galilea.

16. Ilumbetan yarria zagon puebloa, icusi zuen argui andi bat; eta arguia sortu izan cen, erioain itzaleco lurrean zaudenen gañera.

17 Ordutic asi cen Jesus predicatcen eta erraten: Eguin zazue urriquimendua, ceren urbildua baita ceruetaco erreinua.

18. Eta Jesusec, Galileaco itsas bazterrean zabilalaric, icusi cituen bi anaya, Simon, Pedro deitcen dena, eta Andres ain anaya, sareac itsasora botatcen cituztela,(ceren arranzariac ciren.)

19. Eta erran cioten: Segui zazue nere guibeletic, eta eguinen zaituztet guizonen arranzariac.

13

20. Eta ec bereala sareac utciric, seguitu cioten.

21. Eta andic aldaratu eta icusi cituen bertce bi anaya, Santiago Zebedeoin semea, eta Juan ain anaya, barco batean beren aita Zebedeoiquin, saren compontcen ari cirela; eta deitu cituen.

22. Eta ec bereala, beren sarea eta beren aita utciric seguitu cioten.

23. Eta bazabilan Jesusec Galilea gucia, eracusten zuelaric equen Synagoguetan, eta predicatuz erreinuco Evangelioa, eta sendatuz eritasun eta oñace guciac.

24. Eta ain fama edatu cen Syria gucian, eta ecarri ciozten gaizqui pasatcen zuten guciac, asco erreceluz eta dolorez artuac cirenac, eta debrutuac, eta lunaticoac, eta perlaticoac; eta sendatu cituen.

25. Eta yendetce andi batec seguitu cion Galileatic, Decapolistic, eta Jerusalemdic, eta Judeatic, eta Jordanez bertce aldetic.

V. CAPITULUA.

ETA icusiric Jesusec yende ec guciac, igan cen mendi baten gañera, eta yarri ondoan, urbildu citzaizcon bere discipuloac.

2. Eta asiric mintzatcen, eracusten cituen, ciolaric:

14

3. Zori onecoac biotzez pobre direnac, cergatic equena da ceruco erreinua.

4. Zori onecoac biotz manso dunac, cergatic izain dire lurrain yabeac.

5. Zori onecoac nigar eguiten dutenac, cergatic izain dire consolatnac.

6. Zori onecoac yusticiain, edo gauza sainduen gosea eta egarria dutenac, cergatic equen deseyuac izain dire guciz beteac.

7. Zori onecoac misericordiosoac, cergatic yardetsico dute misericordia.

8. Zori onecoac biotz garbi dunac, cergatic icusico dute Yaungoicoa.

9. Zori onecoac baquezcoac, cergatic izain dire deituac Yaungoicoain umeac.

10. Zori onecoac yusticia edo gauza ona gatic perseguituac direnac, cergatic equena da ceruco erreinua.

11. Zori onecoac izain zate escarniatuac eta perseguitnac izaten zatenean, eta cer nai gaizqui zuen contra guezurrez erraten dutenean, oeregatic.

12. Alegra zaizte eta bozcaria, cergatic zuen sari andia izain baita ceruetan. Ceren guisa berean perseguitic cituzten zuen aiteineco Prophetac.

13. Zuec zate lurreco gatza: baño gatzac galtcen baldin badu bere gacitasuna ¿certaz gacitnco da? ez du gueyago deustaco balio,

15

baicic campora botatceco, eta guizonez osticatua izateco.

14. Zuec zate munduco arguia: mendi baten gañean paratua den iri bat ez daiteque gordetua izan.

15. Ez dute ere pizten argui bat gaiteirupean paratceco; baño candeleroain gañean, etchean diren guciac arguituac izan daitecin.

16. Guisa berean zuen arguiac arguitu bear du guizonen aitcinean, icus detzaten zuen obra onac, eta eman dezaten gluria zuen Aita ceruetan denari.

17. Ez zazuela uste Legueain edo Propheten deseguitera, etorri naicela: ez naiz etorri equen deseguitera, baño bai cumplimendu ematera.

18. Ceren eguiazqui erraten datzuet, ceruac eta lurrac iraunen duteraño, ez dela pasatuco Leguean, ez puntu bat eta ez tilde bat, gucia cumplitua izan gabe.

19. Artacotz, norc ere austen badu manamendu ttipi otaric bat, eta ola eracusten duenac guizonei, arras ttiquia deitua izain da ceruetaco erreinuan; baño norc ere eguiten badu, eta eracusten badu, ura deitua izain da andia ceruetaco erreinuan.

20. Ceren, erraten datzuet, zuen yusticia ez baldin bada Phariseoena eta Escribena baño andiagoa izaten, ez zate sartuco ceruetaco erreinuan.

16

21. Aditu duzue errana izan cela zarrei: Ez duzu ilen: Eta norc ere ilcen badu gueldituco da juiciora obligatua.

22. Baño nic erraten datzuet, nor ere aserretcen bada bere anayain contra arrozoñic gabe, obligatua izain da juiciora; eta bere anayai erraten dionac, Raca, obligatua izaiu da conciliora: eta erraten dionac, erguela, gueldituco da suain gehenuara obligatua.

23. Beraz, baldin bazoaci esqueintcera zure ofrenda aldarera, eta an oroitcen bazara zure anayac cerbait baduela zure contra:

24. Otz zazu an zure ofrenda aldareain aitcinean, eta zoaci lenic zure anayaiquin baqueteera; eta guero zato esqueintcera zure ofrenda.

25. Compon zaite bereala zure contrarioaiquin, aiquin bidean zauderaño: ez dadien guerta zure contrarioac zu entregatcea juezari, eta juezac alguacilari; eta garcelan sartua izan zaiten.

26. Eguiazqui erraten datzut ez zarela andic ateratuco, azquen corradua pagatu arteraño.

27. Aditu duzue errana izan dela zarrei: Ez duzu adulteratuco.

28 Baño nic erraten datzuet, norc ere beatcen badu emacume bati ura guticiatceco, eguiten du yadanic adulterioa aiquin bere biotcean.

29 Eta baldin zure escuñeco beguiac escan-

17

dalotaco cerbitzatcen bazaitu, atera zazu, eta bota zure ganic aparte; ceren obe da zuretaco zure alderdietaric bat galtcea, ecen ez zure gorputz gucia izan dadien ifernuco sura botatua.

30. Eta zure escuñeco escuac escandalotaco cerbitzatcen bazaitu, motz zazu, eta bota zazu zure ganic aparte; ceren obe da zuretaco zure alderdietaric bat galtcea, ecen ez zure gorputz gucia izan dadien ifernuco sura botatua.

31. Errana izan da ere oraño: Baldin norbaitec uzten badu bere andrea, eman diozala divorcioco carta.

32. Baño nic erraten datzuet, norc ere uzten badu bere andrea fornicacionea causa izan gabe, adultera bilacarazten duela; eta norc ere utcia den andrea artcen badu, egniten du adulterioa.

33. Aditu dnzue ere errana izan cela zarrei: Ez duzu zure yuramentua autsico, baño cumplitnco ditutzu Yaunaiquin zure yuramentuac.

34. Baño nic erraten datzuet, ez batere yuramenturic eguiteaz, ez eta ere ceruaz, ceren Yaungoicoain tronua da.

35. Ez eta ere lurraz, ceren ain oñetaco sostengua da: ez eta ere Jerusalemez, ceren Erregue andiain Iria baita.

36. Ez eta zure buruaz ere ez eguin yuramenturic, ceren ez dezaquezu ile bat bilacaraci ez churi eta ez belz.

37. Baño zuen mintzatcea izan bedi, bai, bai; ez, ez; ceren otaz gueyagocoa gaitcetic ateratcen da.

18

38. Aditu duzu errana izan dela: Beguia beguiaindaco eta ortza ortzaindaco.

39. Baño nic erraten datznet, ez contraric eguitea gaizqui eguiten datzuenei; baño baldin norbaitec yotcen bazaitu escuñeco matelean, esqueñi diozazu ere bertcea.

40. Eta norbaitec paratu nai badatzu pleitoa, eta quendu zure tunica, utz diozazu zure capa ere.

41. Eta baldin norbaitec borchatu nai bazaitu aiquin mila urrats cargaturic gatera, zoaci bertce bi mila gueyago.

42. Galde eguiten datzuuari, emayozu; eta prestamuz galde eguin nai duenari, ez guibeleco aldea itzul.

43. Aditu duzue errana izan dela: Maitatuco duzu zure lagun proginoa, eta iguinduco duzu zure etsaya.

44. Baño nic erraten datzuet, maita citzue znen etsayac; onguia egnin zazue iguintcen zaituztenei; eta otoitz eguin zazue calumniatcen eta perseguitcen zauztenendaco.

45. Zuen Aita ceruetan denain semeac zaitezten gatic: ceñec onen eta gaistoen gañera sortarazteu baitu iguzquia: eta yustuen eta becatarien gañera erorrarazten bere uria.

46. Ceren baldin ez baditutzue maite, zuec

19

maite zaituztenac baicic, ¿cer sari izain duzue? ez dute Publicanoec ere bardin eguiten?

47. Eta baldin ez baduzue besarcatcen zuen anayac baicic, ¿cer eguiten duzue bertcec baño gueyago? ez dute gauza bera eguiten Paganoec?

48. Izan zaizte beraz perfetac, zuen Aita celestiala perfeta den bezala.

VI. CAPITULUA.

CONTU eman zazue ez eguiteaz zuen limosna guizonen aitcinean, etaz icusiac izatea gatic; bertcenaz ez duzue sariric izain zuen Aita ceruetan denain ganic.

2. Eta beraz limosna eguiten duzuenean, ez zazuela trompeta yoaraci zure aitcinean, hipocritec eguiten duten bezala Synagoguetan eta carriquetan, guizonen ganic ooratuac izateco: Eguiazqui erraten datzuet, errecibitcen dutela beren saria.

3. Baño zuc zure limosna eguiten duzunean, ez dezala zure ezquerreco escuac yaquin cer eguiten duen escuñecoac.

4. Zure limosna izan dadien guericean eguina, eta zure Aita guericean icusten duenac premiatuco zaitu.

5. Eta otoitz eguiten duzuenean, ez zaiztela izan hypocritac bezala, ceren maite dute otoitza chutic eguitea Synagoguetan, eta

20

carrica esquinetan, guizonez icusiac izatea gatic. Eguiazqui erraten datzuet, errecibitu dute beren saria.

6. Baño zuc otoitz eguiten duzunean, sar zaite zure cuartoan, eta atea etsi ondoan: otoitz eguizu zure Aitari secretuan: eta zure Aita secretuan ere icusten duenac, emain datzu zure saria.

7. Eta otoitz eguiten duzuenean, ez zazuela solas alferric cerbitzatu Gentilec bezala. Ceren uste dute anitz mintzatuz obequi adituac izain direla.

8. Beraz ez zaiztela ec iduriac nai izan: ceren zuen Aitac badaqui cer bear duzuen zuen galdetu baño lenago.

9. Zuec beraz ula eguin bear duzue otoitz: Aita gurea, ceruetan zaudena, santifica bedi zure icena.

10. Betor gure gana zure erreinua; eguin bedi zure borondatea ceruan bezala lurrean ere.

11. Eman diezaguzu egun gueren eguneroco oguia.

12. Barca dietzagutzu guri gueren zorrac, guc zor gaituztenei barcatcen dieztegun bezala.

13. Eta ez gaitzatzula utci tentacioan erortcera, baicic libra gaitzatzu gaitcetic. Amen.

14. Ceren baldin barcatcen badiozue guizonei beren becatuac, zuen Aita celestialac ere barcatuco dazquitzue zuenac.

21

15. Baño baldin ez badiozue barcatcen guizonei, zuen Aitac ere ez dazquitzue barcatuco zuen becatuac.

16. Eta baruteen gatenean, ez zaiztela triste paratu hypocritac bezala. Ceren desfigurateen dituzte beren aurpeguiac, eracustera emateco guizonei baru direla. Eguiazqui erraten datzuet, errecibituco dutela beren saria.

17. Baño zuc baru eguiten duzunean, gantzu zazu zure burua, eta garbi zazu zure aurpegula.

18. Ez, eracustera emateco baru zaila guizonei, baño bacarric zure Aita guericean dagonari: eta zure Aita guericean icusten duenac, emain datzu saria.

19. Ez zazula nai izan bildu tesororic zuendaco lurrean, nor erdollac eta pipiec consumitcen baitituzte: eta non ladrouec lurpetic ateratceu eta ebasten baitituzte:

20. Baño bil citzue zuendaco tesoroac ceruan, non ez baitituzte consumitcen ez erdollac eta ez pipiec: eta non ladronec ez baitituzte lurpetic ateratceu, eta ez ere ebasten.

21. Ceren non ere baita zure tesoroa, an izain da zure biotza.

22. Zure gorputceco arguia da zure beguia. Baldin zure beguia garbia bada, zure gorputz gucia arguitua izain da.

23. Baño baldin zure beguia gaistoa bada, zure gorputz gucia izain da ilumbetsu. Beraz, baldin zure baitan den arguia ilumbea bada, ¿ceiñ andiac ez dire izain ilumbeac berac?

22

24. Niore ez detzaque cerbitzatu bi nagusi: ceren edo iguinduco du bat eta maitatuco du bertcea: edo bati sufrituco dio, eta bertcea despreciatuco du. Ez detzaquezue cerbitzatu Yaungoicoa eta aberastasuna.

25. Ortacotz erraten datzuet, ez zaiztela ibili afanatuac zuen biciaz, cer yain duzuen, ez eta zuen gorputcez, certaz veztituco zaten. ¿Ez da bicia yanaria baño gueyago, eta gorputza veztidoa baño gueyago?

26. Icus zatzue ceruco egaztinac ez baitute ereiten, ez biltcen, ez ere pilatcen granoetan; eta zuen Aita celestialac manteuitcen ditu. ¿Bada ez duzue zuec ec baño anitz gueyago balio?

27. ¿Eta nor da zuen artean eguiu al guciac eguinic ere gora dezaquenic bere talla beso bat gueyago?

28. ¿Eta cergatic zabilzate apuratuac veztidoain gatic? Icus zazue nola anditcen diren campoco loreac: ez dire lanean aitcen, ez dute iruten.

29. Segurqui erraten dut, Salomon bera ere, bere gloria guciain erdiau, ez cela otaric bat bezala estalia izan.

30. Beraz baldin Yaungoicoac veztitcen ola campoco belarra, gaur badena, eta biar labera izain dena botatua: ¿cembat obequiagu veztituco zaituzte zuec, fede gutico guizonac?

23

31. Ez zaiztela bada apuratu, diozuelaric: ¿ Cer yain dugu, edo cer edain dugu, edo cerequin veztituco gara ?

32. Ceren Gentilac dire gauza oquen ondoan ibiltcen direnac: eta zuen Aitac badaqui equen gucien bearra baduzuela.

33. Bila zazue beraz lenic Yaungoicoain erreinua, eta ain yusticia: eta gauza oc guciac izain zaizquitzue emanac ausarqui.

34. Eta guisa untan, ez zazuela cuidadoric iduqui biarco egunaz. Ceren biarco egunac, berac ecarrico du bere cuidadoa. Egun bacotchac asqui du bere nequea.

VII. CAPITULUA.

EZ dezazuela yuzcatu, ez zaizten yuzcatuac izan.

2. Ceren yuzcatuco duzuen juicioaz izain zate yuzcatuac: eta neurtuco duzueu negurri beraiquin, izain zate neurtuac.

3. ¿ Certaco bada icusten duzu lasto pizarra zure anayain beguian: eta ez duzu icusten zur petrala zure beguian ?

4. Edo, ¿ nola erraten diozu zure anayari: Utz nazazu, ateraco dut lasto pizarra zure beguitic, eta agueri delaric zur petral bat zurean ?

24

5. Hypocrita, atera zazu lenic zure beguico zur petrala, eta orduan icusico duzu lastoain ateratceco anayain beguitic.

6. Ez dezazuela eman chacurrei gauza saindurie, ez eta ere bota zuen perlac cherrien aitcinera: beldurrez ostica detzaten beren oñen azpian, eta itzultcen direlaric zuen contra, pusca zaizten.

7. Galde zazue, eta emain zaitzue: bila zazue, eta arrapatuco duzue: yo zazue eta edequico zaitzue.

8. Ceren galde eguiten duen guciac, errecibitcen du: eta bilatcen duenac, arrapatcen du: eta yotcen duenari, edequico zayo.

9. ¿ Edo nor izain da zuen artean guizona, bere semeari arri bat emain diona baldin oguia galde eguiten badio ?

10. ¿ Edo galdetcen baldin badio arrain bat, emain ote dio sugue bat ?

11. Beraz zuec gaistoac zatelaric, baldin badaquizue gauza onac ematen zuen semei: ¿ cembatez gueyago zuen Aita ceruetan denac, emain ditu ontasunac galde eguiten diotenei ?

12. Eta guisa berean, nai duzuen gucia guizonec zuequin eguitea, eguin zazue zuec ere equin: ceren au da Leguea eta Prophetac.

13. Sar zaizte ate estutic: ceren largoa da atea, eta zabala bidea fin gaistora eramaten duena, eta anitz dire artaric sartcen direnac.

14. ¡ Cein estua den atea, eta cein mearra

25

bicira eramaten duen bidea! eta gutiac dire, ura acertatcen dutenac.

15. Beguira zaizte Propheta falsoetaric, ceñac eldu baitire zuen gana ardien arropequin, eta barnean otso ebastaleac baitire.

16. Ezagutuco ditutzue beren fruituetaric. ¿ Biltcen ote da venturaz matsic elorrietaric, edo picoric cardoetaric ?

17. Ola beraz arbola onac ecartcen du fruitu ona : eta arbola gaistoac ecartcen du fruitu gaistoa.

18. Ez dezaque arbola onac ecar fruitu gaistoric : cz eta ere arbola gaistoac fruitu onic.

19. Fruitu ona ecartcen cz duen arbola gucia, moztua izain da, eta suan sartua.

20. Ola beraz, ezagutuco ditutzue beren fruituetaric.

21. Yauna, Yauna, erraten datatcn gucia cz da sartuco ceruetacu erreiuuan : baño nere Aita ceruetan denain borondatea eguiten duena, sartuco da ceruetaco erreinuan.

22. Anitcec errain datate egun artan : Yauna, Yauna, ¿ bada cz dugu prophetizatu zure icenean, eta zure icenean casatu guintuen demonioac, eta zure icenean eguin guintuen anitz milagro ?

23. Eta orduan errain diotet claroqui : Ez zaituztet beñere ezagutu : aparta zaizte nere ganic ematen zaretenac gaistaqueriari.

26

24. Beraz, norc ere aditcen baititu itz oc, eta cumplitcen, comparatua izain da peñain gañean bere etchea eguin zuen guizon yaquinsun bati.

25. Erori cen uria, eta etorri ciren uarrac, eta izan ciren aice andiac, eta yo zuten bortizqui etche ain contra, eta ez cen erori ; ceren peñain gañean cimentatua baitcen.

26. Eta nere itz oc aditcen dituena, eta cumplitcen dituena, legarrain gañean bere etchea eguin zuen guizon ero batequin asemejatua izain da :

27. Erori cen uria, eta etorri ciren uarrac, eta izan ciren aice andiac, eta yo zuten bortizqui etche ain contra, eta erori cen, eta izan cen icigarria ain erortcea.

28. Eta Jesusec acabatu cituelaric discurso cc, yendeac admiratu ciren ain dotrinaz.

29. Ceren eracusten baitcioten, antoridadea duenac bezala, eta ez equen Escribec eta Phariscoec bezala.

VIII. CAPITULUA.

ETA nola yautsi baitcen menditic, seguitu cioten yende anitcec.

2. Eta etorri citzayon leproso bat, eta adoratu zuen, erraten ciolaric : Yauna, zuc nai baldin baduzu, garbi nezaquezu.

27

3. Eta Jesusec edaturic escua, uquitu zuen, erraten ciolaric: Nai dut. Izan zaite garbitua. Eta bereala ain lepra izain cen garbitua.

4. Eta erran cion Jesusec: Contu emazu iñori erratetic: baño zoaci, aguer zaite Sacerdoteari, eta esquein zazu Moisesec manatu zuen ofrenda, lecucotasunaindaco cerbitza daquioten.

5. Eta sartu cenean Jesus Caphernaumen, etorri citzayon Centurion bat, otoitzten zuelaric,

6. Eta ciolaric: Yauna, nere cerbitzaria guatcean dago etchean perlesiac artua, eta bortizqui sufritcen du.

7. Eta Jesusec erran cion: Gain naiz, eta sendatuco dut.

8. Eta iñardetsiric Centurionac, erran cion: Ez dut mereci nere etchean sar zaiten: baño mana zazu zure itzaiquin, eta nere cerbitzaria izain da sendatua.

9. Bada ni ere naiz guizon bat bertce bati sometitua, nere menean soldaduac ditudana, eta arraten diot bati: Zoaci, eta gaten da; eta bertceari: Zato, eta etortcen da; eta nere cerbitzariari: Eguin zazu au, eta eguiten du.

10. Au aditu zuenean Jesusec, admiratu cen, eta erran cioten seguitcen ciotenei: Eguiazqui erraten datzuet, ez dudala arrapatu Israelen orren fede andiric.

11. Eta erraten datzuet, etorrico direla anitz iguzquia ateratcen, eta sartcen den

28

alderdietaric, eta yarrico direla Abraham, Isaac, eta Jacobequin ceruetaco erreinuan.

12. Baño erreinuco umeac izain dire botatuac campoco ilumbetara: an izain dire nigarrac eta ortz carrascac.

13. Eta erran cion Jesusec Centurionari: Zoaci, eta eguin daquizula sinetsi duzun bezala. Eta ordu berean cerbitzaria izan cen sendatua.

14. Eta allegaturic Jesus Pedroin etchera, icusi zuen ain amaiarreba guatcean zagola, eta sucarraiquin.

15. Eta uquitu cion escua, eta sucarrac utci zuen; eta yeiqui cen, eta cerbitzatu cituen.

16. Eta arratsa etorri celaric, ecarri ciozten debrutu anitz: eta casatu zazten bere itzaiquin izpiritu gaistoac: eta sendatu cituen eri guciac.

17. Cumplitua izan zadien Isaias Prophetaz errana izan cena, ceñec baitcion: Berac artu cituen gure eritasunac, eta cargatu cen gure oñacequin.

18. Bada, nola Jesusec icusten baitzuen yende anitz bere inguruan, manatu zuen pasatceaz urez bertce aldera.

19. Eta Escriba batec, urbilduric ain gana, erran cion: Nagusia, seguituco zaitut nora nai gan zaiten.

20. Eta Jesusec erraten dio: Acheriec badituzte zuloac: eta ceruco egaztinec cañac: baño guizonain Semeac ez du non pausatu burua.

29

21. Eta bere discipuloetaric batec erran cion: Yauna, utz nazazu lenic gan nadien nere aitain enterratcera.

22. Baño Jesusec erraten dio: Segui nazazu, eta utz zazu ilec enterra detzatela beren ilac.

23. Eta sarturic bera barco batean, bere discipuloec seguitu cioten.

24. Eta goratu cen bereala tempestade andi bat itsasoan, ainbertcetaraño non oladec estaltcen baitzuten barcoa; baño ura lo zagon.

25. Eta urbildu ciren ain gana bere discipuloac, eta iratzarri zuten, erraten ciotelaric: Yauna, salva gaitzatzu, galtcera goaci.

26. Eta Jesus erraten diote: ¿Ceren beldurra duzue fede gutico guizonac? Eta yeiquiric bertan, manatu zuen aicei, eta itsasoari, eta seguitu zuen eztitasun andi batec.

27. Eta guizon ec admiratu ciren, eta erraten zuten ¿Nor da aicec eta itsasoac obeditcen dnten au?

28. Eta pasatu celaric Jesus urez bertce aldera Gerasenoen lurrera, bi debrutu ateraric sepulturetaric, etorri citzaizcon aitcinera, alaco fiertasunean, non ez baitcen iñor atrevitcen bide artaric pasatcera.

29. Eta asi ciren bereala erraten oyuca: ¿Cer eguiteco dugu guc zurequin Jesus Yauugoicain semea? Etorri zara unara gure atormentatcera denbora baño lenagu?

30

30. Eta etaric asqui urbil bacen cherri tropa bat bazcan zabiltzanac.

31. Eta demonioec otoitzten zuten, erraten ciotelaric: Baldin casatcen bagaituzu emendic igor gaitzatzu cherri tropa ortara.

32. Eta erran cioten: Zoazte, eta ec ateratu ciren, eta gan ciren cherrietara, eta ordn berean cherri tropa arc guciac lasterrari eman cion, eta arcadi batetic botatu cen itsasora, eta il ciren uretan.

33. Eta cherri zañec igues eguin zuten: eta irira etorri cirenean, contatu zuten gucia, eta debrutuei guertatu cena.

34. Eta atera cen bereala iri gucia Jesusen bila, eta icusi zutenean, otoitztu zuten equen eremutic ateratcco.

IX. CAPITULUA.

ETA sarturic barco batean, pasatu cen berriz urez bertce aldera, eta gan cen bere irira.

2. Eta an presentatu cioten perlatico bat guatce batean etzana. Eta Jesusec, icusiric equen fedea, errau cion perlaticoari: Nere semea,izan zazu confianza, zure becatuac barcatuac zaizquitzu.

3. Eta bereala Escribetaric cembaitec errau zutcu beren baitan: Guizon unec blasfematcen du.

31

4. Eta nola Jesusec icusten baitzuen equen gogoco berria, erran zuen: ¿Certaco gaitzqui pensatcen duzue zuen biotcetan?

5. Cer da errazago, erratea: Barcatuac zaizquitzu zure becatuac; edo erratea: Yeiqui zaite eta ibili.

6. Bada yaquin dezazuen guizonain Semeac baduela podorea lurrain gañean becatuen barcatceco, erran cion orduan perlaticoari: Yeiqui zaite, ar zazu zure guatcea, eta zoaci zure etchera.

7. Eta yeiqui cen, eta gan cen bere etchera.

8. Eta ori icusi zutenean yendec, beldurtu ciren, eta alabatu zuten Yaungoicoa, alaco podoreac ceren eman cituen guizonei.

9. Eta abiaturic Jesus andic, icusi zuen guizon bat Matheo deitcen cena, cobranzaco alquian yarria, eta erran cion: Segui nazazu. Eta yeiquirie, seguitu cion.

10. Eta guertatu cen, yarria zagolaric Jesus mayan ain etchean, etorteera publicano eta becatari anitz, ceñac yarri baitciren bazcaltcen aiquin eta bere discipuloequin.

11. Eta Phariscoec, ori icusiric, erraten cioten ain discipuloei: ¿Certaco zuen Nagusiac yaten du pnblicano eta becatariequin?

12. Eta Jesusec adituric ori, erran zuen: Osasunecoec ez dute Medicuric bear, baicic eriec.

13. Zoazte bada, eta yaquin zazue cer erran

32

nai duen gauza onec: Misericordia nai dut, eta ez sacrificioa: ceren ez naiz etorri yustuen deitcera, baicic becatarien.

14. Orduan etorri ciren ain gana Juanen discipuloac, eta eran cioten: ¿Cergatic guc eta Phariscoec baruteen dugu anitz aldiz, eta zure discipuloc ez dute barutcen?

15. Eta Jesusec erran cioten: ¿Egon daitzque venturaz triste senarrain umeac, ura oquen compañian daueraño? Baño etorrico dire egunac quendua izain zayotena, eta orduan barutuco dute.

16. Eta iñore ez du ematen oyal lodiaz petatchua veztido zarrean: ceren eraman liozaque veztidoari artcen duen gucia, eta urradura andiago eguin liteeque.

17. Ez dute ere ematen ardo berria zagui zarretan. Bertcenaz lertuco dire zaguiac, eta ichurico ardoa, eta galduco zaguiac. Baño ematen dute ardo berria zagui berrietan, eta ola bat eta bertcea conserbatcen dire.

18. Gauza oquen erraten ari citzayotelaric, etorri citzayon principe bat, eta adoratu zuen ciolaric: Yauna, nere alaba orai berean il da: baño zato, pausa zazu escua ain gañean, eta bicico da.

19. Eta Jesusec, yeiquiric, seguitu cion bere discipuloequin.

20. Eta emacume bat amabi urte artan eri zagona flujoaiquin, eta urbilduric guibeletic, uquitu zuen ain veztidoain bazterra.

33

21. Ceren erraten zuen bere barnean: Baldin uquitcen banu bacarric ain veztidoa senda nindaque.

22. Eta Jesusec, itzuliric eta beaturic erran cion: Izan zazu confianza, nere alaba, zure fedeac sendatu zaitu. Eta ordu beretic sendatua gueldiru cen emacume ura.

23. Eta etorri cenean Jesus principe ain etchera, eta icusi cituenean flauta yotzaleac, eta yende multzu bat arraotsa eguiten zutela, erran zuen:

24. Erretira zaizte, bada nescatocoa ez da ila, baño lo dago. Eta artaz burlatcen ciren.

25. Eta campora emana izan cenean yendea, sartu cen: eta artu zuen escutic. Eta nescatocoa yeiqui cen.

26. Eta berri ura curritu cen bazter guciетau.

27. Eta aldaraturic Jesus toqui artaric, seguitn cioten bi itsuec oyuca, eta erraten zutelaric: Daviden Semea urrical zaite gutaz.

28. Eta allegatu cenean etchera, itsuec etorri ciren ain gana. Eta erraten diote Jesusec: ¿Uste duzue eguin al dezaquedan au zuei? Ec erran zuten: Bai Yauna.

29. Orduan uquitu cituen equen beguiac, erraten zuelaric: Zueu fedeain arabera eguina izan daquizuela.

30. Eta equen beguiac edequiac izan ciren:

34

eta Jesusec amenazatu cituen, errateu zuelaric: Guardia emazue iñorc yaquin ez dezan.

31. Baño ec andic atera cirenean, publicatu zuten bazter etan gucietan.

32. Eta ec ateratu ondoan, bereala presentatu cioten guizon mutu bat debruac artua.

33. Eta demonioa casatu ondoan, mintzatu cen mutua, eta yendeac admiratuac erraten zuten: Ez da egnndaño olacoric icusi Israelen.

34. Baño Phariseoec erraten zuten: Casatcen ditu demonioac demonioen principen virtutez.

35. Eta bazabilan Jesus iri eta erri gucietan barna, eracusten zuelaric equen Synagoguetan, eta predicatcen zuelaric erreinuco Evangelioa, eta sendatuz oñace guciac, eta eritasun guciac.

36. Eta icusi cituelaric yende ec, urricaldu cen etaz: ceren necatuac eta errebelatuac ciren ardi arzain gabeac bezala.

37. Orduan erran zuen bere discipuloei: Citua eguiazqui andia da, baño languile guti.

38. Otoitztu zazue beraz cituain Nagusia igor detzala languileac bere citura.

X. CAPITULUA.

ETA bilaraciric bere amabi discipuloac, eman cioten podorea izpiritu guistoac casatceco, eta oñace, eta eritasun gucien sendatceco.

35

2. Eta amabi Apostoluen icenac oc dire. Lembicicoa: Simon, Pedro deitua dena, eta Andres bere anaya.

3. Santiago Zebedeoin semea, eta Juan ain anaya: Phelippe eta Bartholome: Thomas eta Matheo publicanoa: Santiago Alpheoin semea, eta Thaddeo.

4. Simon Chananco eta Judas Iscariotes, bera entregatu zuen ura.

5. Oc amabiac bidali cituen Jesusec, manatcen ciotelaric, eta erraten zuelaric: Ez zaiztela gan Gentilen aldetara, ez ere sartu Samaritanoen irietan:

6. Baño lenago zoazte Israelgo etcheco ardi galdu cirenetara.

7. Zoazte, eta predica zazue, erraten duzuelaric: Urbildua dela ceruetaco erreinua.

8. Senda citzue eriac, piztzaraz citzue ilac, garbi zatzue leprosoac, casa citzue demonioac: graciaz errecibitu cinuten, eman zazue graciaz.

9. Ez zazuela izan ez urreric ez cilarric, ez diruric zuen fachetan.

10. Ez alforjaric bideco, ez bi tunica, ez oñetacoric, ez maquilic: ceren languileac merecí du bere yatecoa.

11. Eta edoceiñ iri edo errietan sar zaizten, galde eguin zazue nor den an merecí duena: eta egon zaizte an andic atera arteraño.

12. Eta sarteen zafenean etche batean, saluda zazue, errancz: Izan bedi baquea etche untan.

36

13. Eta baldin etche arc mereci badu, zuen baquea etorrico da ain gañera: baño baldin ez badu mereci, zuen baquea itzulico da zuen gana.

14. Eta noiz ere ez baitzaituzte norbaitec errecibitcen, ez aditcen zuen itzac etche batetic, edo iri batetic ateratcean, iñarrots zazue zuen onetaco errautsa.

15. Erraten datzuet eguiazqui: Sodomaco eta Gomorrhaco lurra obequi tratatua izain dela iri ura baño juicioco egunean.

16. Ieus zazue bidaltcen zaiteztedala ardiac otsoen artera bezala. Izan zaizte beraz prudente sugueac bezala, eta simple usoac bezala.

17. Eta guarda zaizte guizonetaric, ceren eramanaracico zauzte beren Audiencietara, eta azotatuco beren Synagoguetan.

18. Eta izain zate eramanac Gobernadoren eta Erreguen aitcinera nere gatic, atestiguatceco equen eta Gentilen aitcinean.

19. Eta eramanac izaten zatenean, ez zaiztela pensatcen yarri nola edo cer bear duzuen mintzatu: ceren ordu berean emana izain zaitzne cer bear duzuen erran.

20. Ceren ez zate zuec mintzatzen zatenac, bañan zuen Aitain Izpiritna zuen baitan mintzo dena.

21. Eta anayac entregatuco du eriotcera bere anaya, eta aitac bere semea: eta goratuco dire umeac gurasoen contra, eta ilaracico dituzte.

37

22. Eta guciez iguinduac izain zate nere icena gatic: bañan acabantzaraño irauten duena, ura izain da salbatua.

23. Eta pertseguitcen zauztenean iri batean, igues eguin zazue bertce batera. Eguiazqui erraten datzuet, ez ditutzuela acabatuco Israelgo iri guciac guizonain Semea etorri arteraño.

24. Discipuloa ez da bere Maistrua baño gueyago, ez eta mutila ere bere Nagusia baño gueyago.

25. Asqui du discipuloac izatea bere Maistrua bezala; eta mutilac bere Nagusia bezala. Baldin deitu bazuten Beelzebub aita familiacoa: ¿ cembatez gueyago ain etcheco mutilac ?

26. Ez zazuela beraz equen beldurric izan: ceren ez da deus gorderic aguertuco ez denic; ez eta secreturic yaquitera allegatuco ez denic.

27. Ilumbetan erraten datzuedana, errazue arguitan; eta bearrira aditcen duzuena, predica zazue tellatuen gañean.

28. Eta ez beldurric izan gorputza ilteen dutenendaco, eta arima ilaraz ez dezaquetenendaco; lenago beldur izan zaizte arima eta gorputza ifernura bota dezaquenaindaco.

29. ¿ Ez ote dire venturaz saltcen bi chori ttiqui bi marabeditan ? eta bizquitartean ez da etaric bat erorico lurrera zuen Aitac nai gabe.

38

30. Zuen buruco ileac ere, dire denac contatuac.

31. Ez beraz izan beldurric: ceren anitz chori baño obeac zarete zuec.

32. Norc ere declaratcen banau guizonen aitcinean, declaratuco dut nic ere nere Aita ceruetan denain aitcinean.

33. Eta norc ere ucatcen banau guizonen aitcinean, ucatuco dut nic ere nere Aita ceruetan denain aitcinean.

34. Ez zazuela uste etorri nitcela baqueain ecartcera lurrera; ez nitcen etorri baqueain ecartcera, bañan bai ezpata.

35. Ceren etorri nitcen guizona bere aitaquin, eta alaba bere amaiquin, eta erreña bere amaiarrebaiquin macurtcera.

36. Eta guizonain etsayac, bere etchecoac.

37. Norc ere maite baitu bere aita edo bere ama ni baño gueyago, ez nau ni mereci. Eta norc ere maite baitu bere semea edo bere alaba ni baño gueyago, ez nau ni mereci.

38. Eta norc ere ez badu artcen bere gurutcea eta niri segnitcen, ez nau ni mereci.

39. Norc ere causten badu bere bicia, galduco du: eta norc ere galtcen badu bere bicia nere gatic, caustuco du.

40. Zuec errecibitcen zauztenac, errecibitcen nau ni: eta ni errecibitcen nauenac, errecibitcen du ni igorri nauena.

39

41. Propheta bat errecibiteen duenac Propheta icenean, Propheta saria errecibituco du: eta yustu bat errecibiteen duenac yustu icenean, yustu saria errecibituco du.

42. Eta nore ere ematen badu baso bat ur otz bacarric edatera ttiqui otaric bati nere discipulo icenean: eguiazqui erraten datzuet, ez duela galduco bere saria.

XI. CAPITULUA.

ETA Jesusec acabatu zuenean instrucione oc ematetic bere amabi discipuloei, andic pasatu cen equen irietan eracustera eta predicatcera.

2. Eta nola Juanec garteelan zagolaric aditu baiteituen Christoin obrac, bidali cituen bere discipuloetaric bida,

3. Eta erran cioten: ¿Zu zara etorri bear dena, edo bear dugu esperatu bertce bat?

4. Eta Jesusec iñardestean erran cioten: Zoazte, eta conta diozue Juani icusi eta aditu duzuena.

5. Itsuec icusten dute, mainguac badabiltza, leprosoac garbituac dire, soorrec aditeen, ilac pizten, eta Evangelioa anunciatua da pobrei.

6. Eta zori onecoa da nitaz escandalizatuco ez dena.

40

7. Eta ec gan cirenean bereala, Jesus asi cen Juanez mintzatcen yendei; ¿Ceren icustera atera zate desertura? ¿cana bat aiceaz iguitua?

8. ¿Bañan ceren icustera atera zate? ¿guizon bat arropa delicatuz veztitua? Cinez, arropa delicatuac veztitcen dituztenac erreguen etchetan dire:

9. ¿Beraz ceren icustera atera zate? ¿Propheta baten? Cinezqui erraten datzuet, eta oraño Propheta baño gueyago dena.

10. Ceren au da ceintaz escribitua baita: Una, bidaltcen dut nere Aingueruа zure aitcinera, ceñac apainduco baitu zure bidea zure aitcineau.

11. Eguiazqui erraten datzuet, emacumetaric sortu direnen artean ez dela atera Juan Bautista baño andiagoric, bizquitarteau, ceruetaco erreinuan den ttiquiena, ura baño andiago da.

12. Eta Juan Bautistain demboratic orai arteraño, ceruetaco erreinua bortchatua da, eta indar eguiten dnenac, eramaten du.

13. Ceren Propheta guciec eta Legueac Juanen dembora arteraño prophetizatu dute.

14. Eta nai baldin baduzue errecibitu, nri bera da etorri bearra den Elias ura.

15. Bearriac dituenac aditceco, aditu beza.

16. ¿Baño noin itea duela erranen dut generacione onec? Iduri du plazan yarriac dauden muticoei, eta oyuca beren iduriei,

41

17. Erraten dute: Cantatu dugu, eta ez zate dantzatu: aire tristeac cantatu ditugu, eta ez duzue nigar eguin.

18. Ceren Juan etorri cen ez zuelaric ez yaten, ez edaten, eta erraten dute: Demonioa du.

19. Guizonain Semea etorri cen, yaten eta edaten duena, eta erraten dute: Una guizon bat golosoa, eta ardo edalea, publicanoen eta becatarien adisquidea. Bañan yaquitatea izan da ain umez justificatua.

20. Orduan asi cen erreportchu eguiten auitz milagro eguin zuen iriei ez cirela urriquitn.

21. ¡Zori gaitz zuri Corozaiu! ¡Zori gaitz zuri Bethsaida! ceren zuen artean eguinac izan diren milagroac, izan balire Tyron eta Sydonen eguinac, aspaldi du urriquituco cirela cilicioan eta autsean.

22. Ain gatic erraten datzuet; zuendaco bañó tratu eztiagoa izaiu da Tyro eta Sydonendaco juicinco egunean.

23. ¿Eta zu Capharnaum, goratuco zara venturaz cerurañó? Ifernurañó yautsico zara. Ceren zure artean eguinac izan diren milagroac, izau balire eguinac Sodoman, venturaz iraunen zuten orañó.

24. Ortaracotz erraten datzuet, Sodomacoec izain dutela zuc bañó tratu eztiagoa juicioco egunean.

42

25. Dembora artan itza arturic Jesusec, erran zuen: Alabateen zaitut, Aita, ceruco eta lurreco Yauna, gauza oc gorde cintuelacotz yaquintsunei eta entendituei, eta aguertu aur ttiquiei.

26. Ala da, Aita, ala izan delacotz zure naiqueria.

27. Nere Aitac paratu cituen nere escutan gauza guciac. Eta iñore ez du ezagutcen Semea Aitac baicic; iñore ere ez du ezagutcen Aita Semeac baicic, eta arc, ceñi Semeac ezaguraci naico baitio.

28. Zatozte nere gana necatuac eta cargatuac zateuac, eta nic lagunduco zauztet.

29. Eraman zazue zuen gañean nere uztarria, eta icas zazue nere ganic cein manso eta umila naicen biotcez: eta caustuco duzue descansoa zuen arimendaco.

30. Ceren nere uztarria eztia da, eta nere carga arina.

XII. CAPITULUA.

DEMBORA artan bazabilan Jesus Larumbat batez ogui batzuetan: eta ain discipuloac, gose izanez, asi ciren ogui buru picatcen, eta etaric yaten.

2. Eta Phariseoec, icusiric ori, erran cioten: Orra, zure discipuloec eguiten dute Larumbatean cilegui ez dena eguitea.

43

3. Baño arc erran cioten: ¿Ez duzue leitu cer eguin zuen Davidec, arc eta arequin cirenac gosetu izan ciren aldi batez?

4. ¿Nola sartu cen Yaungoicoain etchean, eta yan cituen proposicioneco oguiac, ceñen yatea ez baitzayon cilegui, ez eta arequin cirenei, baño bacarric Sacerdotei?

5. ¿Edo ez duzue leitu Leguean Sacerdotec Larumbatean austen dutela templuan Larumbata, eta guelditcen direla becaturic gabe?

6. Bada erraten datzuet, emen dela templua baño andiago dena.

7. Eta baldin bacinaquizue cer den: Misericordia nai dut, eta ez sacrificioa: beñere ez cintuzquete condenatuco inocenteac.

8. Ceren guizonain Semea Larumbatain ere yauna da.

9. Eta andic aldaraturic, etorri cen equen Synagogara.

10. Eta an caustu zuen guizon bat escu bat iñartua zuena, eta acusatcea gatic, galde eguin cioten, erraten zutelaric: ¿Cilegui ote cen Larumbatetan sendatcea?

11. Eta arc erran cioten: ¿Nor izain da zuen artean, baldin badu ardi bat, eta ura erortcen bada zulo batera Larumbatean, artuco eta ateraco ez duena?

12. ¿Bada, cembat ez du guizon batec ardi batec baño gueyago balio? Beraz cilegui da Larumbatetan onguia eguitea.

44

13. Orduan erran cion guizonari: Eda zazu zure escua. Eta arc edatu zuen, eta bertcea becen ongui guelditu citzayon.

14. Bañan ala ere Phariseoac andic atera eta consultatu zuten beren artean, nola ilaracico zuten.

15. Eta Jesusec ezaguturic, erretiratu cen lecu artaric: eta anitz yende gan cen ain guibeletic, eta denac sendatu cituen.

16. Eta manatu cioten ez cezatela ura descubritu,

17. Cumplitua izan zadien Isaias Prophetac erran zuena, ceñec baitio:

18. Una nere cerbitzari autatu dudana, nere ongui maitatua, ceñen baitan agradatu baitcen nere arima. Unen gañean paratuco dut nere Izpiritua, eta adiaracico du yusticia yendei.

19. Eta ez du iñardetsico, ez du oyu eguinen, ez ere adituco ain voza iñore placetan.

20. Ez du autsia den cana cheatuco, ez eta ere equea botatcen duen metcha itzalico, yusticia triunfaraci arteraño.

21. Eta yendec esperatuco dute ain icenean.

22. Orduan presentatu cioten debruztatu itsu eta mutu bat, eta sendatu zuen, alaco moduan non mintzatu eta ieusi baitzuen.

23. Eta arrituac guelditcen ciren yende guciac, eta erraten zuten: ¿Au ote da venturaz Daviden Semea?

45

24. Bañan Phariseoec ori aditu eta erraten zuten: Unec demonioac ez ditu casatcen Beelzebub demonioen principeain virtutez baicic.

25. Eta Jesusec yaquinic equen pensamentuac, erran cioten: Bere contra macurtua den erreinua destruitua izain da: eta bere contra macurtua den iri edo etche guciac ez du iraunen.

26. Eta baldin Satanasec ematen badu campora Satanas, bere contra macurtua da: ¿ beraz nola iraunen du ain erreinuac ?

27. Eta baldin casatcen baditut demonioac Beelzebuten virtutez, ¿ noin virtutez casatcen dituzte zucu umec ? Ain gatic izain dire berac zuen juezac.

28. Bañan baldin nic casatcen baditut demonioac Yaungoicoain Izpirituaz, segurqui zuen gana allegatuco da Yaungoicoain erreinua.

29. ¿ Edo nola sar daiteque norbait guizon azcar baten etchean, eta arrobatu ain gauzac, ez badu lenic guizon azcar ura lotu ? eta orduan arrobatuco du ain etchea.

30. Nerequin ez dena, nere contra da: eta nerequin biltcen ez duenac, barratcen du.

31. Ortaracotz erraten datzuet: Becatu eta blasfemia guciac barcatuac izain dire guizonei, bañan Izpirituco blasfemia ez da barcatua izain.

32. Eta norbait mintzatcen bada guizonain Semeain contra, barcatua izain zayo: baño

46

Izpiritu Sainduain contra mintzatcen denac, ez du barcamendurie izain, ez munde untan, ez datorrenean.

33. Edo eguin zazue arbola ona, eta ain fruitua ona: edo eguin zazue arbola gaistoa, eta ain fruitua gaistoa: ceren arbola fruitutic ezagutua da.

34. Vibora casta, ¿ nola erran dezaquetzue gauza onac, gaistoac zareteuean ? ceren biotceco abundanciatic mintzo da agoa.

35. Guizon onac tesoro onetic ateratcen ditu gauza onac: bañan guizon gaistoac tesoro gaistotic aterateen ditu gauza gaistoac.

36. Eta erraten datzuet, guizonec, erran dituzqueten solas alfer guciez, emain dutela contu juicioco egunean.

37. Ceren zure itcez izain zara justificatua, eta zure itcez izain zara condenatua.

38. Orduan Escriba eta Phariseotaric cenbaitec iñardetsi cioten, erraten zutelaric: Nagusia, nai dugu icusi zutazco señalea.

39. Eta iñardetsi cioten, erraten zuelaric: Generacione gaisto eta adulteratzaleac galdetcen du señalea; baño ez zayo emana izain señaleric, Jonas Prophetaina berteeric.

40. Ceren nola Jonas egon baitcen iru egun eta iru gau baleain sabelean; guisa berean guizonain Semea egoin da iru egun eta iru gau lurrain barnean.

41. Ninivitac goratuco dire juicioco egunean

47

generacione unen contra, eta condenatuco dute: ceren eguin baitzuten urriquimendua Jonasen predicacioneaz. Eta una lecu untan bada Jonas baño gueyago.

42. Austroco Erreguiña goratuco da juicioco egunean generacione unen contra, eta condenatuco du; ceren lurrain azquen finetic etorri cen Salomonen yaquitatea aditcera, eta una lecu untan, Salomon baño gueyago.

43. Izpiritu gaistoa atera denean guizon baten ganic, badabila lecu idorretan pausa bilatcen, eta ez du arrapatceu.

44. Orduan erraten du: Itznlicn naiz nere etchera, ceintaric atera bai naiz. Eta itzuli ondoan arrapatcen du utsa, garbitua eta adornatua.

45. Orduan badoaye eta arteen ditu bertce zazpi izpiritu bera baño gaistoagoac, eta sarteen dire barnera, eta an egoten dire: eta guizon ain azqueneco condicionea lembicicoa baño gaistoagna da. Gauza bera guertatuco zayo generacione gaisto uni.

46. Mintzo celaric oraño yendei, una bere ama eta anayac campoco aldean ciren, galde eguiten zutela ura mintzatcea.

47. Eta erran cion batec: Orra zure ama eta zure anayac campoco aldean dire, eta zure bila dabiltza.

48. Eta iñardetsiric ori mintzatcen cenari, erran cion: ¿Nor da nere ama, eta nor dire nere anayac?

48

49. Eta edaturic escua bere discipuluen aldera, erran znen: nna nere ama, eta nere anayac.

50. Ceren nore ere eguinen badu nere Aita ceruetan denain borondatea, ura da nere anaya, nere arreba, eta nere ama.

XIII. CAPITULUA.

EGUN artan berean Jesus etchetic ateraric, yarri cen itsasoain bazterrean.

2. Eta urbildu cen ain gana yendetce andi bat; non, sartnric barco batean, an yarri cen; eta yende gucia zagon zutic itsas bazterrean.

3. Eta erran cioten gauza anitz parabolaz, ciolaric: Una bein batean aci ereile bat atera cen ereitera.

4. Eta ereiten ari celaric, cembait aci erori ciren bideain ondoan, eta etorri ciren aireco egaztinac, eta denac yan cituzten.

5. Bertce cembait erori ciren cascallu lecura, non ez baitcen lur guti baicic: eta sortu ciren bereala, ceren ez baitzuten lur guicena.

6. Baño iguzqnia atera cenean, erre ciren: eta iñartu ciren, ceren ez baitzuten zañic.

7. Eta bertce cembait erori ciren elorrien artera: eta goratu ciren elorriac, eta ito cituzten.

8. Eta bertce cembait erori ciren lur onera,

49

eta ecarteen zuten fruitu: batec egun, berteeac iruetan oguei, eta berteeac oguei eta amar.

9. Bearriac dituena aditceco, adi beza.

10. Eta urbilduric discipuloac, erran cioten: ¿ Certaco mintzatcen zaizcote parabolaz ?

11. Iñardetsi cioten eta erran zuen: Ceren zuei emana baizaitzue eeruetaco erreinuco mysterioac yaquitea: bañan oriei ez zayotc emana.

12. Ceren duenari, emana izain da, eta izain du gueyago: baño ez duenari duena ere quendua izain zayo.

13. Ortaracotz mintzatcen natzaizcote parabolaz: ceren icustean, ez dute icusten; eta aditcean ez dute aditcen, ez ere entenditcen.

14. Eta etan cumplitcen da Isaiasen prophccia, ceñac baitio: Adituco duzue znen bearriez, eta ez duzue entendituco; eta beatuz icusico duzue, eta ez duzue icusico.

15. Ceren pueblo unen biotza loditu da, eta beren bearriez aditu dute pisuqui, eta beguiac etsi dituzte: ez dezaten icus beguiez, eta ez dezaten aditu bearriez, eta ez dezaten entenditu biotcez, eta ez daiten converti, eta ez detzadau senda.

16. Baño zori oneeoac zuen beguiac, ceren icusten dute; eta zuen bearriac, ceren aditcen dute.

17. Ceren eguiazqui erraten datzuet, anitz Propheta eta yustuec deseatu zuten icustea

50

zuec icusten duzuena, eta ez zuten icusi; eta aditcea zuec aditcen duzuena, eta ez zuten aditu.

18. Zuec beraz adi zazue aci ereileain parabola.

19. Aditcen duenac erreinuco itza eta ez duenac entenditcen, etortcen da gaistoa, eta artcen du ain biotcean erein cena: au da acia bidcain aldean ereina izain cena.

20. Eta cascallu lecuan ereina izan cen acia, itza aditcen duena, eta ordu berean bozcarioaiquin errecibitcen duena.

21. Baño bere baitan ez du zañic, ain gatic iraupen guticoa da. Eta allegatcen zayonean nai gabea eta persecucionea itzain gatic, bereala escandalizatcen da.

22. Eta elorrien artean ereina izan cen acia, au da itza aditcen duena; bañan mundu untaco cuidadoec eta aberatstasunen enganoac itotcen dute itza, eta fruitu gabe guelditcen da.

23. Eta lur onean ereina izan cen acia, au da aditcen duena itza eta entenditcen duena, eta fruitu ematen duena: eta batec ematen du egun, eta berteeac iruetan oguei, eta berteeac oguei eta amar.

24. Proponitu cioten bertee parabola bat, erraten zuelaric: Ceruetaco erreinuac iduri du aci ona bere landan erein duen guizona.

25. Eta guizonac lo zauden demboran, etorri cen ain etsaya, eta erein zuen iraca oguiain erdian, eta gan cen.

51

26. Eta aciac pusatu zuenean, eta ecarri fruitua, aguertu cen orduan iraca ere.

27 Eta aita familiacoain mntilac etorriric, erran cioteu : ¿ Yauna, ez cinuen venturaz aci ona erein zure landan ? ¿ beraz nondic eldu da iraca ?

28. Eta erran cioten : Guizon etsai batec eguin du ori. Eta erran cioten mutilee : ¿ Nai duzu goaciu eta bil dezagun ?

29. Eta iñardetsi cioten : Ez, ez dadien guerta iraca artcean, ateratcera ere aiquin batean oguia.

30. Utz zazue anditcera bat eta berteca biltceco demboraño, eta biltceco demboran errain diotet picatzalei : Bil zazue lenic iraca, eta lot zazue, multzuca erreteeco ; baña oguia bil zazue uere granerora.

31. Bertee parabola bat proponitu cioten, ciolaric : Ceruetaco erreinuac iduri du mostaza acia guizon batec artu zuena, eta erein zuena bere landan :

32. Au eguiazqui da acietan den ttiquiena, baño anditu ondoan legumbre guciac baño andiago da, eta eguiten da arbola bat, guisa batean, non aireco egaztinec eguiten dituzte beren cafiac ain adarretan.

33. Erran cioten bertee parabola bat : Ceruetaco erreinuac iduri du emacume batec arteen, eta iru irin negurritan, dena areitu arteraño, ematen duen oranza.

52

34. Gauza oc guciac erran cituen Jesusec puebloari parabolaz; eta ez citzayon mintzatcen parabolaric gabe.

35. Prophetac erran zuena cumplitua izan zadien, ceñec baitio : Edequico dut nere agoa paraboletan : adiaracico ditut munduain astetic gordeac diren gauzac.

36. Orduan, despedituric yendeac, etorri cen etchera : eta urbilduric ain gana bere discipuloac, erran cioten : Esplica dacuzu landaco iracain parabola.

37. Iñardetsi cioten, eta erran zuen : Aci ona ereiten duena guizonain Semea da.

38. Eta landa mundua da. Eta aci ona, erreinuco umeac dire. Eta iraca, gaistaqueriain umeac dire.

39. Eta erein zuen etsaya, debrua da : biltcea munduain acabantza da. Eta biltzaleac Aingueruac dire ;

40. Ala nola biltcen baita beraz iraca, eta suan erretcen, guisa berean izain da munduain acabantzan.

41. Guizouain Semeac bidalico ditu bere Aingueruac, ceñec artuco dituzute ain eremutic escandalo guciac, eta gaistaqueriari ematen direnac :

42. Eta botatuco dituzte labe suzcora. An izain da nigarra, eta ortz carrasca.

43. Orduan yustucc dirdiratuco dute iguzquiac bere Aitain erreiuuan bezala. Bearriac dituenac aditceco, adi beza.

53

44. Ceruetaco erreinuac iduri du landa batean gordea den tesoro bat, ceña guizon batec arrapatu ondoan, gorde baitu: eta bozcarioz betea, badoaye; eta saltcen du duen gucia, eta erosten du landa ura.

45. Modu berean, ceruetaco erreinuac iduri du perla ederrac bilatcen dituen guizon comerciante bat.

46. Eta arrapatu ondoan bat precio andicoa, gan baita, eta saldurie dituen guciac, erosi baitu ura.

47. Ceruetaco erreinuac iduri du oraño sare bat, itsasora botaturic arrain genero guciac biltcen dituena.

48. Eta betea denean, ateratcen dute itsas bazterrera, eta an yarri ondoan, autatcen dituzte oberenac, eta sarteen beren uncietan, eta campora botateen gaistoenac.

49. Bardin izain da munduain acabantzan: ateraco dire Aingueruac, eta berechico dituzte gaistoac yustuetaric;

50. Eta sartuco dituzte suain labeau: an izain da nigarra, eta ortz carrasca.

51. ¿Entenditu ditutzue gauza oc guciac? Ec iñardetsi cioten: Bai.

52. Eta erran cioten: Ortaracotz ceruetaco erreinuain gañean icasia den Escriba bacotchac iduri du bere tesorotic gauza berriac eta zarrac ateratcen ditnen aita familiaco bat.

53. Eta Jesusec acabatu cituenean parabola oc, gan cen andic.

54

54. Eta etorri cen bere errira, eta eracusten cioten beren Synagoguetan, alaco moduan, non admirateen ciren, eta erraten zuten: ¿Nondic eldu zaizco uni yaquitate eta milagro oc?

55. ¿Ez da venturaz an zurguinain Semea? ¿Ez da unen ama Maria deitcen, eta unen anayac Santiago, eta Joseph, eta Simon, eta Judas?

56. ¿Eta uneu arrebac ez dire denac gure artean? ¿Nondic bada eldu zaizco uni gauza oc guciac?

57. Eta escandalizateen ciren artaz. Bañan erran cioten Jesusec: Ez da Prophetaric ooreric gabe, baicic bere errian eta bere etchean.

58. Eta ez zuen an eguin milagro anitz, equen sinets gabetasuna celacotz.

XIV. CAPITULUA.

DEMBORA artan Herodes Tetrarchac aditu zuen Jesusen fama.

2. Eta erran zuen bere mutilei: Au da Juan Bautista iletaric piztu cena: eta ortaracotz virtuteac badire orren baitan.

3. Ceren Herodesec arraraci zuen Juan, eta loturic pararaci gartcelan Herodias bere anayain andreain gatic.

4. Ceren erraten baitcion Juanec: Ez zaitzu cilegui ain izatea.

5. Eta naico zuen ilaraci, baño puebloain-

55

daco beldur cen: ceren iduquia cen Propheta batendaco.

6. Bada Herodesen sort egunean, Herodiasen alaba dantzatu cen gucien aitcinean, eta Herodes agradatu cen artaz.

7. Non promctitu baitcion yuramentuz, emain ciola galde eguiten cion gucia.

8. Eta arc, amaz prebenitua izanez, erran cion: Ecartzu emen plater batean Juan Bautistain burua.

9. Eta Erreguc tristatu cen: baño eguin zuen yuramentuaz, eta aiquin mayan cireneu gatic, manatu zuen eman cezoten.

10. Eta bidali zuen Juani lepoa moztera garteelan.

11. Eta ecarria izan cen ain burua plater batean, eta emana nescatocoari, eta arc eraman zuen bere amari.

12. Eta ain discipuloac etorri ciren, eta artu zuten ain gorputza, eta enterratu zuten: eta gan ciren Jesusi berria eramatera.

13. Eta Jesusec aditu zuenean, erretiratu cen andic barco batean, lecu desertu apartatu batera: eta pueblоac ori yaquinic, irictaric atera eta, seguitu cioten oñez.

14. Eta atera cenean icusi zuen yendetce andi bat, eta izan zuen etaz urricaluendua, eta sendatu cituen equen eriac.

15. Eta arratsa allegaturic, urbildu ciren ain gana bere discipuloac, eta erran cioten: Desertua da lecu au, eta ordua ya pasatua da:

56

igor citzu yende oc, gan diten errietara, eta eros detzaten yatecoac.

16. Baño Jesusec erran cioten: Ez dute gan bearric, emozue zuec yatera.

17. Iñardetsi cioten: Ez dugu emen bortz ogui eta bi arrain baicic.

18. Eta Jesusec erran cioten: Ecar citzue unat.

19. Eta manaturic yendeari etzan citeccla belarrain gañean, artu cituen bortz oguiac eta bi arrañac, eta beguiac goitituric cerura, esquerrac eman cituen, eta autsi citnen oguiac, eta eman cituen discipuloei, eta discipuloec yendei.

20. Eta denec yan zuten, eta ase ciren. Eta goratu cituzten soberatuac amabi sasqui pusquez beteac.

21. Eta yan zutenac bortz mila guizon ciren, emacumeac eta aurrac contatu gabe.

22. Eta Jesusec andic bereala iganaraci cituen bere discipuloac barcora; eta pasaraci bera baño lenago urez bertce aldera, yendeac despeditu bitartean.

23. Eta despeditu oudoan, igan cen bacarric mendi batera ntoitz eguitera. Eta arratsa etorri cenean an cen bacarric.

24. Eta barcoa itsasoain erdian oladaz asaltatua cen: ceren aicea contra cen.

25. Eta gauain laugarren bellan gan cen Jesus equen gana itsasoain ganean ibiliz.

57

26. Eta ain discipuloec icusi zutenean itsasoain gañean zabilala, arritu ciren, eta erraten zuten: Mamu bat da. Eta beldurrez asi ciren oyuca.

27. Bañan Jesus mintzatu citzayoten dembora berean, eta erran: Izan zazue animo ona: ni naiz, ez beldurric izan.

28. Eta iñardetsi zuen Pedroc, eta erran zuen: Yauna, baldin zu bazara, mana datazu zure gana urain gañean gateco.

29. Eta Jesusec erran cion: Zato. Eta yautsiric Pedro barcotic ibili cen nrain gañean Jesusen gana gateco.

30. Bañan icusirie aicea bortitz zagola, beldur izan zuen: eta nola asi baitcen barna sarlcen, oyu eguin zuen, ciolaric: Yauna, salba nazazu.

31. Eta bereala Jesusec cdaturic esena, artu zuen ciolaric: Guizon fede guticoa, ¿certaco dudatu duzu?

32. Eta sartn cirelaric barcoan, eztitu cen aicea.

33. Eta barcoan cirenac etorri ciren, eta adoratu zuten, erraten zutelaric: Eguiazqui Yaungoicoain Semea zara.

34. Eta bertce aldera pasaturic, gan ciren Genezaretheco lurrera.

35. Eta lecu artaco guizonec czagutu zutenean, igorri zuten ingnru etara gucietara, eta presentatu ciozten cerbait gaitz sufritcen zuten guciac.

58

36. Eta otoitzten zuten uzteaz uquitcera arropain bazterra bederen. Eta seguitu zuten guciac sendatu cituen.

XV. CAPITULUA.

ORDUAN etorri ciren ain gana Jerusalemgo Escriba eta Phariseo cembait, erraten zutelaric:

2. ¿Certaco zure discipuloec austen dute zarren tradicione? Bada ez dituzte garbitcen escuac oguia yateracoan.

3. Eta arc iñardetsiric, erran cioten: ¿Eta zuec certaco austen duzue Yaungoicoain manamendua zuen tradicioncaz? bada Yaungoicoac erran zuen;

4. Honra citzu aita eta ama. Eta: Norc ere madaricatcen baititu bere aita eta bere ama, il dadiela erioteeaz.

5. Baño zuec erraten duzue: Norc ere erraten badu bere aita edo bere amai: nic esqueñi dezaquedau ofrenda zure probechutan izain da:

6. Eta ez du honratuco bere aita edo bere ama: eta baño eguinaraci duzue Yaungoicoain manamendua zuen tradicioneaz.

7. Hypocritac, ongui prophetizatu zuen Isaiasec zuetaz, erraten zuenean:

8. Pueblu unec ezpañez honratcen nau: bañan equen biotza urrun da nerc ganic.

59

9. Eta alferretan honratcen naute eracutsiz guizonen dotrinac eta manamenduac.

10. Eta deituric bere gana yendeac, erran cioten: Adi zazue eta entenditu.

11. Ez du agoan sartcen denac ciquintcen guizona: bañan agotic ateratcen denac, arc ciquintcen du guizona.

12. Orduan ain discipuloac urbilduric erran cioten: ¿Badaquizu Phariseoac escandalizatu direla aditu dutenean solas ori?

13. Bañan arc iñardetsiric, erran zuen: Nere Aita celestialac landatu ez zuen landarea, errotic ateratua izain da.

14. Utz citzue: itsuac dire eta itsu guidariac. Eta baldin itsu batec guidatcen badu bertce itsu bat, biac erorico dire zulora.

15. Eta iñardetsiric Pedroc, erran cion: Esplica dacuzu parabola ori.

16. Eta erran zuen Jesusec: ¿Oraño zuec ere entendimenturic gabe zate?

17. ¿Ez duzue entenditcu oraño agoan sartcu diren guciac sabelera doacela, eta lecu secretu batera botatuac direla.

18. Baño agotic ateratcen dena bioteetic ateratcen da, eta au da guizona ciquintcen ducna.

19. Ceren biotcetic ateratcen dire gogota gaistoac, eriotceac. adulterioac, fornicacioneac, ladronqueriac, falso testimonioac, blasphemiac.

60

20. Gauza oc dire guizona ciquintcen dutena. Bañan escuac garbitu gabe yateac, ez du ciquintcen guizona.

21. Eta Jesus andic partitu, eta gan cen Tyroco eta Sydoneco partera.

22. Eta Chananear emacume parrapio etaric ateratcen cen batec oyu eguin zuen, ciolaric: Yauna, Daviden Semea, urrical zaite nitaz: nere alaba gaitzqui toreatua da demonioaz.

23. Eta ez ciou itcic iñardetsi. Eta urbilduric discipuloac, otoitzten cioten eta erraten: Bidal zazu, ceren gure guibeletic oyuca elduda.

24. Eta iñardetsiric, erran zuen: Ez naiz bidalia Israelen etcheco ardi galduetara baicic.

25. Bañan etorri cen, eta adoratu zuen ciolaric: Yauua, laguu nazazu.

26. Iñardetsi cion, eta erran zuen: ez da ongui eguina umeain oguia artu, eta chacurrei botatcea.

27. Eta erran zueu: Ala da Yauna, baño chacur ttiquiec yaten dituzte beren nagusieu mayetic erortcen diren papurrac.

28 Orduan iñardetsi zuen Jesusec, eta erran cion: O emacumea, zure fedea andia da: eguin bedi zurequin zuc nai duzun bezala. Eta ordu berean sendatua izan cen ain alaba.

29. Eta Jesus andic gauic, etorri ceu Galileaco itsaso oudora: eta mendi baten gañera iganic, an yarri cen.

61

30. Eta yendetce andi bat etorri cen ain gana, zacartzatela berequin mutuac, itsuac, mainguac, mantchotac, eta bertce anitz: eta paratu cituzten ain oñetan, eta sendatu cituen:

31. Alaco guisan non yendeac admiratcen zuen icusiric mutuac mintzatcen, mainguac ibiltcen, itsuac icusten: eta glorificatcen zuten Israelgo Yaungoicoa.

32. Orduan Jesusec, deituric bere discipuloac, erran zuen: Urricaldua naiz yende otaz: ceren badu yadanic iru egun nerequin daudela, eta ez dute yatecorie: eta ez ditut bidali nai baruric, beldurrez indarrac gal detzaten bidean.

33. Eta discipuloec erran cioten: ¿Nondic izan al dezaquegu desertu untan oguiric asqui ainbertce yende asctceco?

34. Eta erran cioten Jesusec: ¿Cembat ogui dituzue? Eta erran cioten: Zazpi, eta cembait arrain ttiqui.

35. Eta manatu zuen yendeari lurrean etzan zadiela.

36. Eta arturic zazpi ogniac, eta arrañac, eta esquerrac emanic, autsi cituen, eta eman bere discipuloei, eta discipuloec puebloari.

37. Eta denec yan zuten, eta ase ciren. Eta soberatu ciren pusquetaz goratu cituzten zazpi sasqui beteac.

38. Eta yan zutenac baciren lau mila guizon, aurric eta emacumeric contatu gabe.

62

39. Eta despedituric yendeac, sartu cen barco batean: eta pasatu cen Magedaneco mugara.

XVI. CAPITULUA.

ORDUAN Phariseoac eta Sadduceoac etorri ciren ain gana, eta otoitztu zuten, eracusteco milagro señale cembait ceruan.

2. Eta iñardetsi cioten: Arratsa eldu dencan erraten duzue: Dembora ona eguinen du, ceren cerua gorri da.

3. Eta goicean erraten duzue: Dembora tcharra eguinen du gaur, ceren cerua uel eta gorri da.

4. Bada, badaquizue ezagutcen ceruco itchura: ¿eta ecin ezagutu dituzue demboren señaleac? Generacione gaisto eta adulterac señalea galdetcen du, eta señaleric ez zayo emain, baicic Jonas Propbetain señalea. Eta ec uteiric, gan cen.

5. Eta ain discipuloac pasaturic urez bertce aldera, ancí citzayen oguiac artcera.

6. Jesusec erran cioten: Beguira zazuc, eta guarda zaizte Phariseoen et Sadduceoen orantzatic.

7. Ortaracotz pensatcen zuten, eta beren baitan erraten: Ori da ceren ez dugun oguiric artu.

8. Eta Jesusec ori ezaguturic, erran cioten:

63

Fe'e gutico guizonac, ¿certaco pensatcen duzue zuen baitan ez duzuela oguiric?

9. ¿Ez duzue oraño entenditcen, ez ere oroitcen bortz mila guizonendaco bortz oguiez, eta cembat sasqui pusca goratu cinuten?

10. ¿Ez eta lau mila guizonen zazpi oguiez, eta cembat sasqui pusca bildu cinuten?

11. ¿Nola ez duzue entenditcen ez natzuela oguiaz erran: Guarda zaizte Phariseoen eta Sadduceoen orantzatic.

12. Orduan entenditu zuten erran zuela guardatceco, ez oguiain orantzatic, baicic Phariseoen eta Sadduceoen dotrinatic.

13. Eta etorri cen Jesus Cesarea Philippoco partera, eta galde eguin zuen bere discipuloei, ciolaric: ¿Nor diote guizonec dela guizonain Semea?

14. Eta iñardetsi cioten: Batzuec diote Juan Bautista, bertzec Elias, bertze batzuec Jeremias, edo Prophetetaric bat.

15. Eta Jesusec erran cioten: ¿Eta zuec nor diozue naicela?

16. Iñardetsi zuen Simon Pedroc, eta erran zuen: Zu zara Christo Yaungoico biciain Semea.

17. Eta Jesusec iñardetsiric, erran cion: Zori onecoa zara, Simon Juanen semea: ceren ez datzu ori ezagutaraci ez araguiac, ez odolac, bañan nere Aita ceruetan denac.

18. Eta nic erraten datzut Pedro zaila, eta

64

arri unen gañean goratuco dut nere Eliza, eta ifernuco ateac ez dire baliatuco ain contra.

19. Eta zure emain dazquitzut ceruetaco erreinuco guiltzac. Eta zuc lurrean lotuco ditutzun guciac, lotuac izain dire ceruetan: eta lurrean lachatcen ditutzun guciac, lachatuac izain dire ceruetan.

20. Orduan manatu cioten bere discipuloei ez errateco ura cela Jesus Christo.

21. Ordutic asi cen Jesus declaratcen bere discipuloei conveni cela ura Jerusalemera gatea, eta padecitcea gauza anitz Zarretaric, eta Escribetaric, eta Sacerdoten Principetaric, eta ila izatea, eta piztea irugarren egunean.

22. Eta Pedroc bazterrera deituric, asi citzayon meatchatcen, ciolaric: Olaco gauzac urrun Yanna zure ganic; ez zaitzu ori guertatuco.

23. Eta itzuliric Pedroin aldera, erran cion: Quen zaite nere aitcinetic, Satanas; trabu eguiten datazu: ceren ez ditutzu entenditcen Yaungoicoain gauzac, bañan bai guizonenac.

24. Orduan Jesusec erran zuen bere discipuloei: Norc ere etorri nai baitu nere ondotic, renuncia beza bere buruari, eta ar beza bere gurutcea, eta segni nezala.

25. Ceren bere bicia salbatu nai duenac, galduco du. Baño galtcen duenac bere bicia nere gatic, caustuco du.

26. ¿Ceren cer probetchu atera lezaque

65

guizon batec mundu gucia irabaciric ere, baldin bere arima galtcen badu? ¿Edo cer eman lezaque guizonac bere arimara trucadun?

27. Ceren guizonain Semeac etorri beardn bere Aitain glorian bere Aingueruequin: eta orduau emain du bacotchari bere obren arabera.

28. Eguiazqui erraten datzuet, emen direnen artean badirela cembait, ilen ez direnac icusi gabetanic guizonain Semea etortcen bere erreinuan.

XVII. CAPITULUA.

ANDIC sei egunen buruan Jesusec artu cituen berequin Pedro, eta Santiago, eta Juan ain anaya, eta eraman aparte mendi gora batera.

2. Eta bertce figura bat artu zuen equen aitcinean. Eta dirdiratu zuen ain aurpeguiac iguzquiac bezala: eta ain veztidoa elurra becen churia yarri cen.

3. Orduan berean aguertu ciren Moises eta Elias aiquin solasean.

4. Eta orduanPedroc arturic itza, erran cion Jesusi: Yauna, on izain da emen egon gaitcin: baldin nai baduzu eguiu detzagun emen iru etchola, bat zuretaco, bertcea Moysesendaco, eta bertcea Eliasendaco.

5. Mintzo celaric oraño goibel argui bat etorriric estali cituen. Eta una, goibeletic

66

boz bat erraten zuela: Au da nere Seme maitatua,ceintan eman baitut nere atseguin gucia: entzun zazue.

6. Eta discipuloec ori aditu zutenean, erori ciren aurpeguiz lurrera, eta izan zuten beldur andia.

7. Baño Jesusec urbilduric, uquitu cituen, eta erran cioten: Goiti zaizte, eta ez izan beldurric.

8. Eta beguiac goitituric ez zuten icusi iñor, baicic Jesus bacarric.

9. Eta menditic yaustean, Jesusec manatu cioten, erraten zuelaric: Ez zazuela iñori erran cer icusi duzuen guizonain Semea ilen artetic piztu arteraño.

10. Eta here discipuloec galde eguin cioten, ciotelaric: ¿Beraz cergatic erraten dute Escribec, Eliasec etorri bear duela lenic?

11. Eta Jesusec iñardetsi cioten, eta erran zuen: Elias eguiazqui etorri bearra da, eta componduco ditu gauza guciac.

12. Baño erraten datzuet, Elias etorri cela, eta ez zuten ezagutu, bañan eguin zuten aiquin nai zuten gucia. Guisa berean padeciaracico diote guizonain Semeari.

13. Orduan discipuloec entenditu zuten, Juan Bautistaz mintzatu citzaiztela.

14. Eta allegatu cenean yendea zagon lecura, etorri citzayon guizon bat, eta ain aitcinean belaurico yarriric, erran cion: Yauna,

67

urrical zaite nere semeaz, ceren lunaticoa da, eta anitz padecitcen du; bada, maiz erortcen da sura, eta maiz urera.

15. Eta presentatu dut zure discipuloei, bañan ecin sendatu izan dute.

16. Eta iñardetsiric Jesusec, erran zuen: ¡O generacione sineste gabea eta gaistoa! ¿noiz arteraño egon bear dut zurequin? ¿noiz arteraño aguantatuco datzuet? Ecar zazue unat.

17. Eta Jesusec meatchatu zuen, eta atera cen ain ganic demonioa, eta ordu beretic sendatua izan cen muticoa.

18. Orduan discipuloac etorri ciren aparte Jesusen gana, eta erran cioten: ¿Cergatic ecin casatu izan dugu guc demonio ori?

19. Jesusec erran cioten: Zuen fede gutiaz. Ceren eguiazqui erraten datzuet, baldin bacinuquete fedea mostaza acia becen lodi, erran ciniozaquete mendi orri: Pasa zaite emendic arat, eta pasa laiquc; eta dens ez liteeque imposible zuendaco.

20. Bañan casta au ez da casatceu oracionez eta baruez baicic.

21. Eta Galilean cirelaric, Jesusec erran cioten: Guizonain Semea entregatua izain da guizonen escuetara,

22. Eta ilaracico dute, eta piztuco da irugarren egunean. Eta ec tristatu ciren ecin gueyago.

68

23. Eta etorri cirenean Caphernaumera, didrachma cobratzaleac etorri ciren Pedroin gana, eta erran cioten: ¿Zuen Nagusiac ez ditu pagatcen didrachmac?

24. Erran zuen: Bai. Eta sarturic etchean, Jesusec mintzatu zuen lenic, eta erran cion: ¿Cer iduriteen zaitzu Simon? Lurreco Erreguec ¿noin ganic cobratcen dituzte contribucione edo censoac? ¿Beren umetaric edo arrotcetaric?

25. Arrotcetaric, iñardetsi zuen Pedroc. Jesusec erran cion: Gueroztic umeac libre dire.

26. Bañan ala ere ez dezaten gaizqui artu, zoaci itsasora, eta bota zazu amua: eta lembicico eldu den arraña, ar zazu; eta ediquiric agoa, an arrapatuco duzu estatera bat, ar zazu, eta emain diozu neretaco eta zuretaco.

XVIII. CAPITULUA.

ORDU artan discipuloac etorri ciren Jesusen gana, eta erran cioten: ¿Nor uste duzu dela andiena ceruetaco erreinuan?

2. Eta Jesusec deituric aur bat, paratu zuen equen erdian.

3. Eta erran zuen: Eguiazqui erraten datzuet, baldin ez bazate cambiatcen, eta eguiten aurrac bezala, ez zatela sartuco ceruetaco erreinuan.

69

4. Nor ere beraz umildu baita aur au bezala, ura izain da audiena ceruetaco erreinuan.

5. Eta norc ere errecibitcen baitu olaco aur bat nere icenean, ni errecibitcen uau.

6. Eta norc ere galarazten badu nitan sinesten duten aur ttiqui otaric bat, obe luque lepotic lotcen baliote errota-arri bat, eta botatcen itsaso zolara.

7. ¡Zori gaitz munduaindaco escandaloen gatic! Cereu ecin faltatua da izain direla escandaloac: bañan ¡zori gaitz guizonari, cenen gatic guertatuco baita escandaloa!

8. Ortaracotz, baldin znre escuac edo zure zangoac galarazten bazaitu, motz zazu, eta bota zure ganic urrun: ceren obeago da zuretaco sar zaiteu bician maingu edo mantchot, ecen ez bi zango edo bi escu izanez, botatua izatea su eternalera.

9. Eta baldin zure beguiac galarazten bazaitu, atera zazu, eta bota zure ganic urrun: ceren obeago da zuretaco sar zaiten bician begui bacarraiquiu, ecen ez izanez bi begui, gehennaco sura botatua izatea.

10. Guarda zaizte ttiqui otaric bat ere gauza gutitaco iduquitcetic: ceren erraten datzuet, equen Aingueruec ceruetan beti icusten dutela nere Aita ceruetan denain aurpeguia.

11. Ceren guizonain Semea etorri da galduac cirenen salbatcera.

12. ¿Cer iduritcen zaitzue? Baldin guizon

70

batec baditu egun ardi, eta etaric bat estrabiatcen bada; ¿ez ditu venturaz uzten lauetan oguei eta emeretciac meudietan, eta badoaye estrabiatu denain esque?

13. Eta guertatceu bada ain arrapatcera: erraten datzuet eguiazqui, bozcario gueyago duela artaz, ecen ez estrabiatu ez diren lauetau oguei eta emeretciez.

14. Guisa bercan zuen Aita ceruetan denain borondatea ez da ttiqui orietaric bat ere gal dadien.

15. Ortaracotz baldin zure anayac becatu eguiten badu zure contra, zoaci, eta meatcha zazu buruz buru. Baldin entzuten bazaitu, irabacico duzu zure anaya.

16. Eta baldin ez bazaitu entzuten, oraño ar zazu zurequin bat edo bida, solas guciac izan daitecin aseguratuac bi edo iru lecucoen aitcinean.

17. Eta baldin ez baditu ec ere nai entzun, errozu Elizari. Eta baldin ez badu entzun nai Eliza, iduqui zazu Gentil bat eta Publicano bat bezala.

18. Eguiazqui erraten datzuet, lurrean lotuco ditutzuen guciac, lotuac izain dire ceruan ere: eta lurrean lachatuco ditutzuen guciac, lachatuac izain dire ceruan ere.

19. Erraten datzuet oraño, baldin znetaric bida conformatcen badire lurrain gañean, galde eguinen duten gucia emana izain zayote nere Aita ceruetan denaz.

71

20. Ceren non ere baitire bada edo iru bilduac nere icenean, an naiz equen erdian.

21. Orduan Pedroc urbilduric, erran cion: Yauna, ¿cembat aldiz barcatuco diot nere anayari, nere contra becatu eguiten duenean? ¿zazpi alditaraño?

22. Jesusec erraten dio: Ez datzuet erraten zazpi alditaraño, bañan iruetan oguei eta amar aldiz zazpietaraño.

23. Ain gatic ceruetaco erreinuac iduri du guizon Erregue bat, bere cerbitzariequin contua garbitu nai izan zuena.

24. Eta asi cenean contuen artcen, presentatu cioten bat zor ciona amar mila talentu.

25. Eta ez baitzuen cerequin pagatu, ain yaunac manatu zuen izan zadiela saldua, ura, ain andrea, ain umeac, eta cituen guciac, eta izan zadiela zorra pagatua.

26. Ordnan cerbitzari ura, auspescaturic ain oñetan, otoitzten zueu, erratcu zuelaric: Yauna, ar zazu paciencia, eta dena pagatuco datzut.

27. Eta cerbitzari ain nagusiac, urricalduric, utci zuen libre, eta barcatu cion zorra.

28. Bañan cerbitzari ura atera cenean, arrapatu zuen bere mutil lagun bat egun denario zor ciona: eta arturic, ito nai zuen, ciolaric: Paga datac znr dataquena.

29. Eta ain lagun ura auspesca yarriric ain oñetan, otoitzten zueu, ciolaric: Ar zazu paciencia pichca bat, eta pagatuco datzut gucia.

72

30. Bañan arc ez zuen nai izan: eta gan cen, eta sarraraci zuen gartcelan zorra pagatu arteraño.

31. Eta ain bertce mutil lagunec icusiric cer pasatcen cen, tristatu ciren anitz: eta gan ciren nagusiari contatcera pasatu cen gucia.

32. Ordnan ain nagusiac ecarraci zuen, eta erran cion: Cerbitzari gaistoa, zor gucia barcatu naquen, ceren otoitztu ninduquen:

33. ¿Bada ez uen orobat urricaldu bear ire mutil lagunaz, ni eguin nitcen bezala itaz?

34. Eta ain nagusiac, coleran sarturic, entregaraci zuen tormentatzalei, zor zuen gucia pagatu arteraño.

35. Guisa berean eguinen du zuequin nere Aita celestialac, ez baduzue barcatcen zuen biotcez bacotchac bere anayari.

XIX. CAPITULUA.

ETA Jesusec acabatu zuenean erratetic solas oc, gan cen Galileatic, eta pasatu cen Judeaco mugara Jordauez bertce aldera,

2. Eta seguitu cioten yende anitcec, eta sendatu cituen an equen eriac.

3. Eta etorri ciren ain gana Phariseoac incitatcera, eta erran cioten: ¿Cilegui da guizon bati bere andrea uztea edocein motibuz?

4. Iñardetsi zuen, eta erran: ¿Ez duzue leitu guizona eguin zuenac astetic, arra eta emea eguin cituela? eta erran zuen:

73

5. Unen gatic guizonac utcico ditu bere aita eta ama, eta yuntatuco da bere andreari, eta izain dire bida aragui batean.

6. Ortaracotz cz dire gueyago bida, baicic aragui bacar bat. Beraz Yaungoicoac yuntatu duena, ez beza guizouac berech.

7. Erraten diote: ¿Certaco bada maaatu zuen Moisesec divorcioco carta ematea eta andrea uztea?

8. Erran cioten: Ceren zuen biotcen gogortasunain gatic Moysesec permititu datzue zuen andreac uztea: bañan ez cen astean ola.

9. Eta erraten datzuet, norc ere utcico baitu bere andrea, non eta ez bada fornicacioneaz, eta artuco badu bertce bat, adulterioa cumpliteen duela; eta norc ere ezconduco baita utcia denaiquin, adulterioa cumpliteen duela.

10. Bere discipuloec erran cioten: Baldin olacoa bada guizonain condicionea bere andreaiquin, ez da conveni ezcontcea.

11. Jesusec erran cioten: Guciac ez dire ortaraco capacidadecoac, baicic choilqui ala emana izan zayotena.

12. Ceren badire chiquiratuac, ala sortu cirenac bere amain sabeletic: eta badire chiquiratuac, ala eguinac izan direnac guizonez: eta badire chiquiratuac, beren buruac egnin dituztenac ceruetaco erreinnain amodioa gatic. Adi dezaquenac, adi beza.

13. Orduan presentatu ciozten cembait aur, escuac equen gañean pausatceco, eta otoitz

74

eguiteco: bañan discipuloec meatchatcen cituzten.

14. Eta Jesusec erran cioten: Utz citzue aurrac nere gana etorcera, ez citzuela debeca: ceren oriec bezalacoena da ceruetaco erreinua.

15. Eta escuac pausatu ondoan equen gañean, gan cen andic.

16. Eta etorri cen bat, eta erran cion: Nagusi ona, ¿cer ongui eguin beardut betico biciain ardiesteco?

17. Jesusec erran cion: ¿Certaco galde eguiten datazu ongui? Bat bacarra da ona, cein baita Yaungoicoa. Bañan baldin nai baduzn bician sartu, guarda zatzn manamendu ac

18. Erran cion: ¿Ceiu? Eta Jesusec erran cion: Ez duzu ileu: Ez dnzn adulteratuco: Ez duzu ebatsicu: Ez duzu lecucotasun falsoric errain.

19. Honra zatzu zure aita eta ama; eta zure lagun proginoa maitatuco duzu zure burua bezala.

20. Muticoac erran ciou: Oriec guciac guardatu ditut nere gaztetasunetic: ¿cer dut escas oraño?

21. Jesusec erran cion: Baldin nai baduzu izan perfetoa, zoaci, sal zatzu ditutzun guciac, eta ematzu pobrei, eta izain duzu tesoro bat ceruan: guero zato, eta segui nazazn.

22. Eta muticoac aditu cituenean solas oc, gan cen tristatua: ceren ontasun anitz baitzuen.

75

23. Eta Jesusec erran zuen bere discipuloei: Eguiazqui erraten datzuet, aberats bat nequez sartuco dela ceruetaco erreinuan.

24. Eta erraten datzuet oraño: Errazago da camelu bat pasa dadien orratz baten zulotic, ecen cz aberats bat sar dadien ceruetaco erreinuan.

25. Discipuloec aditu cituztenean itz oc, admiratu ciren anitz, eta erran zuten: ¿Gueroztic nor salba daiteque?

26. Eta Jesusec equi beaturic erran cioten: Guizonendaco ori imposiblea da, baño Yaungoicoaindaco denac posible dire.

27. Orduan Pedroc arturic itza, erran cion: una gu denac utzi ditugunac, eta seguitu zaitugunac: ¿cer da beraz guc izain duguna?

28. Eta Jesusec erran cioten: Eguiazqui erraten datzuet, zuec seguitu naizuenac, gauza guciac erreberritcean guizonain Semea yarria izaten denean bere magestadeain tronuan, zuec ere yarrico zatela amabi cataderen gañean, Israelgn amabi tribuen yuyateeco.

29. Eta nore ere uzten baititu etcheac, edo anayac, edo arrebac, edo aita, edo ama, edo emaztea, edo aurrac, edo lurrac nere icena gatic, errecibituco du batendaco egun, eta gozatuco du biei eternalaz.

30. Baño anitz lembicico cirenac izain dire azqueneco; eta azqueneco cirenac, lembicico.

76

XX. CAPITULUA.

CERUETACO erreinuac iduri du guizon aita familiaco bat, cein atera baitzen argui astean languile ajustatcera bere mastiraco.

2. Eta compondu ondoan languilequin denario bana egunean emateco, bidali zituen bere mastira.

3. Eta ateraric oraño iruac pontuan, icusi cituen bertce cembait plazan alfer zaudenac.

4. Eta erran cioten: Zoazte zuec ere nere mastira, eta emain datzuet zucen dena.

5. Eta gan ciren: Atera cen oraño eguerdi urbilean, eta bederateiac pontuan, eta eguin zuen gauza bera.

6. Eta atera cen arratsalde apalean, eta causitu cituen bertce cembait an zaudenac, eta erran cioten: ¿Cer ari zate emen egun gucian alfer?

7. Eta ec iñardetsi cioten: Ceren iñorc ez bai gaitu galde eguin yornalean. Erran cioten: Zoazte zuec ere nere mastira.

8. Arratsa etorri ceneau mastico nagusiac erran cion bere mayordomoai: Deit citzu languileac eta paga diotzazute beren yornalac, asiric azquenetaric leneraño.

9. Etorri cirenean arratsalde apalean gan cirenac, bacotchac errecibitu zuen deuario bat.

10. Eta etorri cirenean lembicicoac, uste

77

zuten equi gueyago emain ciotela: bañan ez znen bacotchac errecibitu denario bat baicic.

11. Eta errecibitu zntenean arrencuratu ciren aita familiacoain contra,

12. Ciotelaric: azqueneco oc ez dire lancan ordu bat baicic aitu, eta guri bardin eguin ditutzu, guri egun osoain eta beroain carga eraman dugunei.

13. Baño etaric bati iñardetsi cion, eta eran cion: Adisquidea, ez datzut bide gaberic eguiten: ¿ez zara compondn nerequin denario batendaco?

14. Ar zazu zurea dena, eta zoaci: bada nic azquen orri eman nai diot zuri becembat.

15. ¿Ez naiz venturaz cilegui nai dudana eguitea? ¿Zure beguia ote da gaistoa, ceren ni ona naicen?

16. Ola azquenac izain dire lenac, eta lenac azquenac: ceren anitzac dire deituac, baño gutiac autatuac.

17. Eta Jesus Jerusalemera igatean, artu cituen a parte bere amabi discipuloac, eta erran cioten:

18 Icusten dnzue Jerusalemera igaten gaila, eta guizonain Semea izain da entregatua Sacerdoteen Principei, eta Escribei, eta iltcera condenatuco dnte,

19. Eta Gentilei entregatuco dute, burlatua, eta azotatua, eta gurutcificatua izateco; bañan berriz piztuco da irugarren egunean.

78

20. Orduan Zebedeoin semeen ama urbildu cen ain gana bere semequin, adoratcen zuelaric, eta cerbait galde eguiten.

21. Eta Jesusec erran cion: ¿Cer nai duzu? Iñardetsi cion: Mana zazu nere bi seme oc izan daitecin yarriac znre erreinuan, bat zure escuñean, eta bertcea zure ezquerrean.

22. Eta Jesusec iñardetstean, erran zuen: Ez daquizue cer galde eguiten duzuen. ¿Edan ote dezaquezue nic edan bear dudan calitza? Erraten diote: Badezaquegu.

23. Erran cioten: Eguia da, edain duzue nere calitza: bañan nere escuñean edo nere ezquerrean yarriac, izatea ez zait tocatzen ematea zuei, baicic nere Aitac destinatua daucan equi.

24. Eta bertce amarrec aditu zutenean ori, becaitztu ciren bi anayen contra.

25. Baño Jesusec deitu cituen bere gana, eta erran zuen: Badaquizne yenden aintcindariec escuperatcen dituztela beren puebloac: eta andienac direnec empleatcen dutela beren indarra equen gañean.

26. Bañan ez da ala izain zuen artean: bada andia izan nai duena znen artean, izan bedi zuen cerbitzari.

27. Eta izan nai duenac lena zuen artean, izan bedi zuen cerbitzari.

28. Yaungoicoain Semea etorri den bezala, ez cerbitzatua izateco, bañan cerbitzateco, eta bere bicia emateco anitcen errescateaindaco.

79

29. Eta aterarie Jerichotic, yendetce andi batec seguitu zuen.

30. Eta bi itsu, bide bazterrean yarriac, aditu zuten Jesus pasatcen cela, eta asi ciren oyuca, ciotelarie: Yauna, Daviden Semea, urrical zaite gutaz.

31. Eta yendeac meatchatcen cituzten, ichilarazteco. Bañan ec eguiten zuten oyua gorago, ciotelarie: Yauna, Daviden Semea, urrical zaite gutaz.

32. Eta Jesus guelditnric, deitu cituen, eta erran cioten: ¿Cer nai duzue eguin dezazuedan?

33. Yauna, erran cioten: edequiac izan ditecela gure beguiac.

34. Eta Jesus nrricaldua etaz, uquitu ciozten beguiac. Eta nuomentu berean icusi zuten, eta seguitu cioten.

XXI. CAPITULUA.

ETA Jerusalemera urbildu cirenean, eta allegatu Bethphagera, Olivetaco menditic urbil: igorri cituen Jesusec bi discipulo,

2. Erraten ciotelarie: Zoazte zuen parean den erri ortara, eta an caustuco duzue asto urruch bat lotua, eta umea aiquin: lacha zazue, eta ecar dazquidatzue.

3. Eta baldin norbaitec cerbait erraten

80

badatzue, errozue Yaunac equen bearra duela; eta bereala utzico ditu.

4. Eta an gucia eguina izan cen, cumplitua izan zadien Prophetac erran zuena, ceñac baitio:

5. Errozne Sionen alabari: Una zure Erreguea eldu da ezti zure gana, yarria asto baten gañean, eta astocume batequin, cargain azpian dagonain umea.

6. Eta discipuloac gan ciren, eta eguin zuten Jesus manatu cioten bezala.

7. Eta ecarri cituzten astoa eta umea: eta bere veztidoac paraturic gañean, an yarraraci zuten.

8. Ordnan yende multzu andi batec ere edatu cituen bere arropac bidean: eta bertce batzuec picatcen cituzten arbol adarrac, eta edatcen cituzten bidean:

9. Eta aitcinean zoacinac, eta guibeletic eldu cirenac, oyu eguiten zuten, ciotelarie: Hosanna Daviden Semeari: benedicatua izan bedi Yaunain icenean eldu dena: Hosanna lecu goretan.

10. Eta sartu cenean Jerusalemen mubitu cen iri gucia, erraten zntelarie: ¿Nor da au?

11. Eta yendeac erraten zuen: An da Jesns Propheta Galileaco Nazaretharra.

12. Eta sartu cen Jesus Yaungoicoain templuan, eta casatcen cituen campora templuan erosten eta saltcen ari ciren guciac; eta nasi

81

cituen cambiatzalen mayac, eta uso saltcen ari cirenen cataderac:

13. Eta erran cioten: Escribitua da: Nere etchea otoitceco etchea deitua izain da: baño zuec artaz eguin duzue ladronen lecea.

14. Eta etorri ciren ain gana itsuac eta mainguac templura, eta sendatu citnen.

15. Eta Sacerdoteen Principec eta Escribec icusi cituztenean eguin cituen milagroac, eta aurrac templuan oyu eguiten zutela eta erraten: Hosanna Daviden Semeari: becaitztu ciren,

16. Eta erran cioten: ¿Aditcen duzu oc cer dioten? Eta Jesusec erran cioten: Bai. ¿Ez duzue egundaño leitu: Aurren, eta bularra artcen dutenen agotic atera duzu laudorio perfetoa?

17. Eta, ec uteiric, gan cen iritic campora Bethaniara; eta an pasatu zuen gaua.

18. Eta goicean irira itzultcen cclaric, gosetn cen.

19. Eta icusiric pico ondo bat bide gañean, artara urbildu cen: baño ez baitzuen caustu ostoric baicic, erran cion: Ez dadiela ire ganic beñere fruiturie sortu. Eta bereala iñartu cen pico ondoa.

20. Eta discipuloec uri icusiric, arritu ciren, eta erraten zuten: ¿¿Nola iñartu da instant batez?

21. Eta Jesusec iñardetsiric, erran cioten: Eguiazqui erraten datzuet, baldin bacinute

82

fedea, eta ez bacinute dudatcen, eguin cenezaquetela, ez choilqui pico ondoaiquin bañan oraño, baldin erraten bacinute mendi orri: Quen adi ortic, eta bota adi itsasora, eguin liteequela.

22. Eta otoitztuz galdeteen ditutzuen gauza guciac, baldin sinesten baduzue, izain ditutzue.

23. Eta ganic Jesus templura, Sacerdoteen Principeac eta errico Zarrac etorri ciren ain gana eracusten aicen demboran, eta erran cioten: ¿Cer autoridadez eguiten ditutzu gauza oriec? ¿Eta nore eman datzu autoridade ori?

24. Jesusec iñardetsiric, erran cioten: Nai datzuet nic ere galdetu itz bat: eta baldin erraten badatazue, nic ere errain datzuet, cer autoridadez eguiten ditudan gauza oriec.

25. Juanen batayoa ¿nondic eldu cen? ¿cerutic, edo guizonetaric? Eta ec beren baitan pentsatcen yarri ciren, ciotelaric:

26. Baldin erraten badugu, cerutic, errain dacu: ¿Certaco bada ez dnzue sinetsi? Eta baldin erraten badugu, guizonetaric, yendeain beldur gara, ceren denec zaucaten Juan Prophetatzat.

27. Eta iñardetsi zuten Jesusi, erraten zutelaric: Ez daquigu. Eta erran cioten berac: Bada, nic ere ez datzuet errain, cer autoridadez eguiten ditudan gauza oc.

28. ¿Bañan cer iduritcen zaitzue untaz?

83

Guizon batec bacituen bi seme, eta urbilduric lembicicoari, erran cion: Nere semea, zoaci, eta ari zaite gaur lanean nere mastian.

29. Eta iñardetsiric, erran cion: Ez dnt nai. Baño guero urriquituric, gan cen.

30. Eta urbilduric berteeain gana, erran cion modu berean: eta iñardetsiric, erran znen: Banoaye, Yauna; bañan ez cen gan.

31. ¿Bi etaric ceñec eguin zuen aitain borondatea? Erran cioten ec: Lembicicoac. Jesusec erran cioten: Eguiazqui erraten datzuet, Publicanoec eta emacume abandonatuec aitcintcen zauztela Yaungoicoain erreinura.

32. Ceren Juan etorri cen zuen gana yusticiaco bidez, eta ez cinuten sinetsi. Eta Publicanoec eta emacume abandonatuec sinetsi zuten: eta zuec icusi ondoan ere ez zate urriquitu sinesteco.

33. Entzun zazue bertce parabola bat: Bacen aita familiaco bat, masti bat landatu zuena, inguratu zuen cerracura batez, eguin cituen an dolareac, eta goratu zuen dorre bat, eta laborari batzuei emanic errentan, gan cen urrun.

34. Eta fruitu sasoña urbildu cencan, bidali citnen bere mutilac laborari equen gana, angc frnitnen errecibitcera.

35. Baño labnrariec, mutilen gañera ganic, golpatu zuten bat, il bertce bat, eta arricatu bertce bat.

84

36. Berriz igorri cituen bertce mutilac lenago baño gueyago; eta guisa berean tratatu cituzten.

37. Azquenean igorri znen bere semea equen gana, erraten zuelaric: Errespetatuco dute nere semea.

38. Baño laborariec, icusi zutenean semea, erran zuten bere artean: Au herederoa da: zatozte, il dezagun, et izain dugu nnen herencioa.

39. Eta ura arturic, botatu zuten mastiz campora eta il zuten.

40. Beraz mastico yauna etortcen denean, ¿cer eguinen du laborari equi?

41. Erran zuten ec: Gaistoac gaistoqui destruituco ditu: eta errentan emain du bere mastia. bere sasoñean fruituac pagatuco dituzten laborariei.

42. Jesusec erraten diote: ¿Ez duzue beñere Escrituretan leitu: Etchea eguiten dutenec botatu duten arria, paratua izan da canton arritaco? Ori eguina izain daYannaz, eta gauza admiragarria da gure beguiendaco.

43. Ortaracotz erraten datzuet, Yaungoicoaiu erreinua quendua izain zaitzuela, eta emana izain dela fruituac pagatuco dituen pueblo bati.

44. Eta arri nnen gañera erortcen dena, izain da cheatua: eta ceñen gañera erortcen baita, ura izain da lertua.

45. Eta Sacerdoteen Principec, eta Phariseoec

85

aditu cituztenean ain parabolac, ezagutu zuten etaz mintzo cela.

46 Eta nai izan cioten escua gañera botatu, baño beldur izan ciren puebloaindaco, ceren iduquia baitcen propheta batendaco.

XXII. CAPITULUA.

ETA Jesus, iñardetsiric, mintzatu citzayoten oraño berriz parabolaz, erraten zuelaric:

2. Ceruetaco erreinuac iduri du bere semeain eztayac eguin cituen Erregue bat:

3. Eta igorri cituen bere cerbitzariac combidatuen deitcera, baña ez zuten etorri nai izan.

4. Igorri cituen berriz bertce cerbitzariac, ciolaric: Errozue combidatuei: Una preparatu dut nere bazcaria, nere cecenac, eta nere animale guiceuduac ilac dire yadeneco, dena prest dago: zatozte eztayetara.

5. Baña ec casuric eguin gabe, gan ciren, bat bere bazter etchera, eta bertcea bere tratura.

6. Eta bertcec artu cituzten ain cerbitzariac, eta tratu tcharra eman ondoan, il cituzten.

7. Eta Erreguec aditu zuenean, coleratu cen: eta bidaliric bere tropac, il cituen ilzaleac, eta su eman beren iriari.

8. Orduan erran zuen bere cerbitzariei:

86

Eztayac eguiazqui preparatuac dire, baña combidatuac cirenac ez zuten mereci.

9. Berez zoazte bide gurntcetara, eta caustuco ditutzuen guciac, deit citzue eztayetara.

10. Eta ganic ain cerbitzariac bidetara, bildu cituzten caustu cituzten guciac, onac eta gaistoac: eta eztayetaco lecua bete cen combidatuz.

11. Eta Erregue sartu cen mayan cirenen icustera, eta an icnsi zuen guizon bat, eztayetaco arropaz veztitua cz ceua.

12. Eta erran cion: Adisquidea, ¿nola sartu zara emen eztayetaco arropa izan gabe? eta ura egon cen ichil.

13. Orduan Erreguec erran zuen bere Alguacilei: Zaugoac eta escuac lotu ondoan, bota zazue campoco ilumbetara: an izain dire nigar eta ortz carrascac.

14. Ceren anitzac dire deituac, baña gutiac autatuac.

15. Orduan Phariseoac gan ciren andic, eta elgarren artean tratatu zuten, nola arrapatuco zuten bere solasetan.

16. Eta bidali cioten bere discipuloetaric Herodianoequin batean, ciotelaric: Nagusia, badaquigu eguiazcoa zaila, eta eracusten duzula Yaungoicoain bidea eguiain puntutic, deusetaz casuric eguin gabe: ceren ez duzu beatcen guizonen ichurari:

17. Erran dacuzu beraz, ¿cer iduritcen

87

zaitzu ? ¿ cilegui da Cesari tributoa ematea, edo ez ?

18. Baño Jesusec ezaguturic equen malicia, erran znen : ¿ Hipocritac, certaco tentatcen nauzue ?

19. Eracuts datazue tributoco dirua. Eta presentatu cioten denario bat.

20. Eta Jesusec erran cioten : ¿ Noina da ichura au eta inscripcione au ?

21. Erran cioten : Cesarena. Orduan erran cioten : Beraz, paga zazue Cesari Cesarena, eta Yaungoicoari Yaungoicoaina.

22. Eta ori aditn zutenean, admiratu ciren, eta ura ntci eta, gan ciren andic.

23. Egun artan etorri ciren ain gana Sadduceoac, ceñec erraten baitute ez dela izain berriz pizteric, eta galde eguin cioten,

24. Ciotelaric : Nagusia, Moisesec erran zuen : Baldin norbait iltcen bada aurric izan gabe, ain anaya ezcon dadiela ain andreaiquin, eta furma dezala ondorioa bere anayari.

25. Bada baciren gure artean zazpi anaya : eta zarrena ezcondu ondoan, il cen : eta ez baitzuen izan anrric, utci zuen bere andrea bere anayari.

26. Eta orobat bigarrenac, eta irugarrenac zazpigarrenerañio.

27. Eta equen gucien ondotic il cen andrea ere.

88

28. ¿Beraz berriz piztean, zazpietaric ceñena izain da andrea ? ceren denec izan zuten.

29. Jesusec iñardetsiric, erran cioten : Equivocatcen zate, ez yaqninez Escriturac, ez ere Yaungoicoain podorea.

30. Ceren berriz piztean ez dire ezconduco, ez ere ezcontzaz emanac izain : baño Yaungoicoain Aingueruac ceruan bezala izain dire.

31. Eta ilen pizteaz, ¿ ez duzue leitu Yaungoicoac erran dazquitzuen itzac :

32. Ni naiz Abrahamen Yaungoicoa, Isaaquen Yaungoicoa, eta Jacoben Yaungoicoa ? Ez da ilen Yaungoicoa, bañan bai biciena.

33. Eta yendea, ori aditcean, admiratua guelditcen cen ain dotrinaz.

34. Bañan Phariseoac, aditu zutenean ichilaraci cituela Sadduceoac, eguin zuten bilcura.

35. Eta etaric batec, ceña legueain Doctorea baitcen, galde eguin cion probatceco :

36. Nagusia, ¿ cein da legueco manamenduric andiena ?

37. Jesusec erran cion : Maitatuco duzu zure Yaungoico Yauna zure biotz guciaz, zure arima guciaz, eta zure gogo guciaz.

38. Au da lena, eta manamendnric andiena.

39. Eta bigarrena au iduria da : Maitatuco duzu zure lagun progimoa zure burua bezala.

40. Bi manamendu otaric dependitcen dire Legue gucia, eta Prophetac.

89

41. Eta Phariseoac elcarrequin cirelaric, Jesusec galde eguin cioten,

42. Erraten eiotelaric: ¿ Cer iduritcen zaitzue Christoz? ¿ noin semea da? Erraten diote: Davidena.

43. Eta erran cioten: ¿ Nola beraz Davidec izpirituaz deitcen dn Yauna, diolaric:

44. Erran zuen Yaunac nere Yaunari: yar zaite nere escuñican, zure etsayac zure oñazpicotaco paratuco ditndan arteraño?

45. Bada Davidec deitcen baldin badu bere Yanna, ¿ nola da ain semea?

46. Eta iñorc ecin iñardetsi cion itz bat: eta egun artaz gueroztic iñor ere ez cen atrevitn gueyago galderic eguitera.

XXIII. CAPITULUA.

ORDUAN Jesus mintzatu cen yendeari eta bere discipuloei,

2. Erraten zuelaric: Mnisesen cataderan yarriac daude Escribac eta Phariseoac.

3. Beguira zazue beraz, eta eguin erraten datzuen gucia: bañan ez zazuela eguin equen obren arabera: ceren erraten dute eta ez eguiten.

4. Bada lotcen dituzte carga pisuac eta ecin yasanac, eta paratcen dituzte guizonen bizcarrean: baño beatz batez ere ez dituzte nai iguitu.

90

5. Eta eguiten dituzte beren obra guciac guizonez icusiac izateco. Eta zabaltcen dituzte beren bandac, eta beren arropetan edatcen bere franjac.

6. Eta maite dituzte lenta bicico asientoac afarietan, eta lembicico cataderac Synagoguetan,

7. Eta saludatuac izatea placetan, eta guizonec deitcea, Nagusia.

8. Bañan zuec ez zazuela nai deituac izan Nagusia: ceren bat bacarra da zuen Nagusia, eta zuec denac anayac zate.

9. Eta ez zazuela lurrean iñor deitu zuen aita: ceren bat da zuen Aita, ceruetan dena.

10. Ez zaiteztela izan deituac maestroac: ceren bat da zuen Maestroa, cein baita Christo.

11. Zuen artean andiena dena, izain da zuen cerbitzari.

12. Ceren goratcen dena, izain da apaldua: eta apaltcen dena, izain da goratua.

13. ¡ Bañan zorigaitz zuei, Escriba eta Phariseo hipocritac, esten duznenei ceruetaco erreinua guizonen aitcinean; bada ez zate sartcen ceroc, ez ere uzten sartcera, sar litcezquenac!

14. ¡ Zorigaitz zuei, Escriba eta Phariseo hipocritac: emacume alargunen etcheac iresten ditutzuenac, otoitz luceac eguiteco estaculuan: ortaracotz eramain duzue juicio bortitzagoa!

15. ¡ Zorigaitz zuei, Escriba eta Phariseo

91

hipocritac : ceren curritcen ditutzue itsasoa eta lurra proselito bat eguitea gatic : eta eguin ondoan, ceroc baño bi aldiz ifernuaz merecidunago eguiten duzue !

16. ¡ Zorigaitz zuei, guidari itsuac, erraten duzuenac : Templuaz yuramentu eguitea deus ez da : bañan norc ere eguiten baitu yuramentu templuco urreaz, guelditcen da zor dun !

17. ¡ Buru gogorrac eta itsuac ! ¿ Cein da andiena, urrea, edo urrea santificatcen duen templua ?

18. Aldareaz yuramentu eguitea deus ez da : bañan norc ere yuramentu eguiten baitu ain gañean den ofrendaz, guelditcen da zor dun !

19. ¡ Itsuac ! ¿ Cein da andiago, ofrenda, edo ofrenda santificatcen duen aldarea ?

20. Beraz aldareaz yuramentu eguiten ducnac, yuramentu eguiten du aldareaz, eta ain gañean danden guciaz.

21. Eta templuaz yuramentu eguiten duenac, yuramentu eguiten du templuaz, eta an egoten denaz.

22. Eta ceruaz yuramentu eguiten duenac, yuramentu eguiten du Yaungoicoain tronuaz, eta artan yarria denaz.

23. ¡ Zorigaitz zuei, Escriba eta Phariseo bipocritac, pagatcen duzuenac mentain, anetain, eta cominain amarrena, eta ntzi ditutzuenac Legueain gauzaric bearrenac, yusticia, miseri-

92

cordia, eta fedea ! Au cen eguin bear cena, bertcea utci gabetanic.

24. Guidari itsuac, ulitcha iraaci, eta camelua iresten duzuenac.

25. ¡ Zorigaitz zuei, Escriba eta Phariseo hipocritac, vasoain eta platerain campoco aldea garbitcen duzuenac, barnetic ladronqueriaz, eta ciquinqueriaz beteac zaten demboran !

26. Phariseo itsua, garbi zazu lenic vasoain, eta platerain barnea, campoan dena ere garbi dadien.

27. ¡ Zorigaitz zuei, Escriba eta Phariseo hipocritac, iduri duzuenac sepultura churitu batzuec, campotic ederrac iduri baitute, eta barnean il ezurrez, eta ciquinqueriaz beteac direnac !

28. Guisa bereao zuec ere, campotic yustu aguertcen zate guizonei : bañan barnean bipocresiaz eta gaistaqueriaz beteac zate.

29. ¡ Zorigaitz zuei, Escriba eta Phariseo hipocritac, Propheteu sepulturac eguiten ditutzuenac, eta yustuen monumentuac apaintcen !

30. Eta erraten duzue : Bici izan baguine gure aiten demboran, ez guinen equen lagun izain Propheten odola ichurceco.

31. Guisa ortan lecuco zate znen buruain contra, Prophetac il cituztenen equen semeac zatela.

32. Eta hete zazue zuec zuen aiten uegurria.

93

33. Sugue, vibora casta, ¿ uola eguinen duzue igues gehennaco juiciotic ?

34. Ortaracotz, una, bidaltcen dazquitzuet Prophetac, yaquinsunac, eta Doctoreac; etaric batzuec il eta gurutcificatuco ditutzue, eta bertceac azotatuco zuen Synagoguetan, eta perseguituco ditutzue iriz iri:

35. Etor dadien zuen gañera lurrean ichuria izan den odol yustu gucia, Abel yustuain odoletic asiric, Zacharias, Barachiasen semeaineraño, cein il baitcinuten templuain eta aldareain artean.

36. Eguiazqui erraten datzuet, gauza oc guciac etorrico direla generacione unen gañera.

37. Jerusalem, Jerusalem, Prophetac iltcen ditutzunac, eta arricatcen zure gana bidaliac direnac, ¿ cembat aldiz nai izan ditut bildu zure umeac, olloac bere chitoac biltcen dituen bezala bere egalpera, eta ez duzue nai izan ?

38. Una, zuen etchea desertu guelduco da.

39. Ceren erraten datzuet, emendic aitcina ez nauzuela icusico, errain duzuen arteraño: Benedicatua izan bedi Yaunain icenean eldu dena.

XXIV. CAPITULUA.

ETA Jesus templutic atera ondoan, erretiratcera zoayen. Eta etorri ciren aiu gana bere discipuloac, templuco edificioac eracustea gatic.

94

2. Bañau Jesusec iñardetsi cioten, erraten zuelaric: ¿ Icusten duzue au gucia ? Eguiazqui erraten datzuet, ez dela emen guelduco arria arriain gañean, barrayatua izan gabe.

3. Eta yarria zagolaric Olivetaen mendian, bere discipuloac etorri cireu ain gana ichilic, eta erran cioten: Erran dacuzu, ¿ noiz guertatuco dire gauza oriec ? ¿ eta cer señale izain da zure etortceaz, eta munduain acabantzaz ?

4. Eta Jesusec iñardetsiric, erran cioten: Guarda zaizte iñorc engana ez cetzaten:

5. Ceren etorrien dire anitz nere icenean, eta errain dute: Ni naiz Christo, eta yende anitz enganatuco dute.

6. Eta adituco duzue oraño mintzatcen guerlaz, eta guerlaco arrabotsez: beguira zaizte turbatcetic. Ceren combeni da gauza oc guerta daitecin, baño ez da oraño acabantza izain.

7. Ceren goratuco da yendea yendeain contra, eta erreinuac erreinuen contra, eta izain dire pesteac, goseteac eta lurricarac, anitz lecutan.

8. Eta gauza oc guciac ez dire oraño izain oñacen astapena baicic.

9. Orduan entregatuco zaituzte tormentura, eta ilaracico zaituzte: eta izaiu zate yende guciaz iguinduac nere icena gatic.

10. Eta orduan anitz escandalizatuac izain dire, eta traituco dute batec bertcea, eta elcar iguinduco.

95

11. Eta anitz Propheta falso goratuco dire, eta enganatuco dute yende anitz.

12. Eta gaistaqueria berratuco baita, anitzen caridadea oztuco da.

13. Bañan azqueneraño irauten duenac, ura izain da salvatua.

14. Eta ceruetaco erreinuco Evangelio au predicatua izain da mundu gucian, lecucotasunaindaco yende guciei: eta orduan allegatuco da acabantza.

15. Beraz icusten duzuenean desolacioneain abominacionea, Daniel Prophetaz errana izan dena, lecu sainduan dela, leitcen duenac, entendi beza:

16. Orduan Judean izaten direnec, igues eguin bezate mendietara.

17. Eta tellatuan dena, ez bedi yauts cerbait gauza artcera bere etchetic.

18. Eta landan dena, ez bedi guibelat itzul bere tunicain artcera.

19. ¡Eta zorigaitz emacume traba direnei, eta aurrac bularrean dituztenei egun etan!

20. Otoitz eguizue beraz zuen escapada guerta ez dadien, ez neguan, ez ere Larumbatean.

21. Ceren izain da orduan naigabe andia, munduain astapenetic unat izan ez dena, eta seculan izain ezten bezalacoa.

22. Eta egun ec ez balire izan laburtuac, iñor ez litceque salva: baño autatuen gatic egun ec izain dire laburtuac.

96

23. Orduan baldin norbaitec erraten badatzue: Beguira, Christo emen da, edo an da: ez dezazuela sinets.

24. Ceren goratuco dire Christo falsoac eta propheta falsoac: eta emain dituzte señale eta milagro andiac, modu batean non, posible bada, autatuac ere enganatuac izan daiten.

25. Icusazue erran datzuedala aitcinetic.

26. Ortaracotz, erraten badatzue: Una desertuan da, ez zaiztela atera: beguira, etcheac duen leturic erretiratueneun da, ez zazuela sinets.

27. Ceren nola oñaztura ateratcen baita iguzquia ateratcen den lecutic, eta agueri baita iguzquia sartcen den lecuraño, guisa berean izain da guizonain Semeain etortcea.

28. Non ere izaten baita gorputza, an bilduco dire arranoac.

29. Eta bereala, egun etaco naigabequerien ondotic, iguzquia ilnndnco da, eta ilarguiac ez du emain bere arguia, eta izarrac erorico dire cerutic, eta ceruco birtuteac izain dire mubituac.

30. Eta orduan guizonain Semeain señalea aguertuco da ceruan: eta orduan lurreco tribu guciac nigarretan yarrico dire, eta icusico dute guizonain Semea etortcen cernco goibelen artean, podore eta magestade andi batequin.

31. Eta bidalico ditu bere Aingueruac trompeta soindu andi batequin: eta bilduco dire

97

bere autatuac lan aicetaric, ceruco bazter batetic bertce bazterreraño.

32. Icas zazue pico ondotic comparacione bat: noiz ere ain adarrac gurituac baitire, eta ostoac sortu baitire, badaquizue uda urbil dela:

33. Bada guisa berean, gauza oc guciac icusten ditutzuenean, yaquin zazuc urbil dela, eta atean dela.

34. Eguiazqui erraten datzuet, ez dela generacione au pasatuco gauza, oc guciac guertatu gabetenicau.

35. Cerua eta lurra pasatuco dire, bañu nere itzac ez dire pasatuco.

36. Bada egun artaz, eta ordu artaz iñorc ez daqui, ez eta ceruco Aingueruec ere, bañan choilqui nere Aitac.

37. Eta Noein egunetan cen bezala, izain da bardin guizonain Semeain etortcea.

38. Ceren ala nola diluvioain aitcineco egunetan yaten eta edaten baitzuten, ezcontcen eta ezcontzaz ematen, Noc arcan sartu cen eguneraño,

39. Eta ez zuten entenditu diluvioa etorriric denac eraman cituen arteraño: guisa berean izain da guizonain Semeain etortcea.

40. Orduan izain dire bida landan: bat izain da artna, eta bertcea utcia.

41. Bi emacumec egoco dute elcarrequin errota batean: bat izain da artua, eta bertcea utcia.

98

42. Zauzte beraz iratzarriac, ceren ez daquizue cein orduz etorri bear den zuen Yauna.

43. Bañan yaquin zazue, baldin aita familiaco batec balaqui cein orduz etorri bear luquen ladronac, iratzarria egon litcequela, eta ez lezaquela zulatcera utz bere etchea.

44. Ortaracotz egon zaizte erne zuec ere: cereu gutienic uste duzuen orduan, etorri bear da guizonain Semea.

45. ¿Cein dela uste duzue cerbitzari fidela, eta prudentea, nagusiac bere familiain aitcinean paratu duena, yatera bear den demboran emateco?

46. Zori onecoa, bere nagusiac, etortcen denean, ola eguiten arrapatuco duen cerbitzaria.

47. Eguiazqui erraten datzuet, bere ontasun gucien aitcinean paratuco duela.

48. Bañan baldin cerbitzari gaisto batec erraten balu bere biotcean: Nere nagusiac berautcen du etortcera,

49. Eta asten balitz bere cerbitzari laguuen yotcen, eta mozcortcen direnequin yaten eta edaten:

50. Cerbitzari ain nagusia etorrico da esperatcen ez duen egunean, eta ez daquien orduan:

51. Eta berechico du, eta paratuco hypocritequin. Au izain dire nigarrac, eta ortz carrascac.

99

XXV. CAPITULUA.

ORDUAN ceruetaco erreinuac idurico du amar virgina, ceñac bere lamparac arturic, atera baitcireu esposoa eta esposain errecibiteera.

2. Bada etaric bortz simpléac ciren, eta bertce bortzac prndenteac:

3. Eta bortz simplec, beren lamparac artcean, ez zuten eraman olioric berequin.

4. Bañan prudentec artu zuten olioa beren uncietan lamparequin batean.

5. Eta nola esposoac beranteen baitzuen, asi ciren culuscan, eta locartu ciren denac.

6. Gau erdi airean aditu cirelaric oyuac: Una esposoa eldu da, atera zaizte errecibitcera.

7. Orduan goititu ciren virgina ec guciac, eta compondu cituzten beren lamparac.

8. Eta simplec erran zuten prudentei: iguzue zuen oliotic, ceren gure lamparac itzaltcen dire.

9. Prudentec iñardetsi zuten, erraten zutelaric: Ez, ventnraz ez dugu asqui izain guretaco eta zuendaco, zoazte leuago saltcen dutenctara, eta eros zazue zuendaco.

10. Eta erostera gan ciren bizquitartean, etorri cen esposoa: eta prest cirenac, sartu ciren aiquin eztayetara, eta atea etsia izan cen.

100

11. Azquenecotz etorri ciren bertce virginac ere, ciotelaric: Yauna, Yauna, edec dacuzu.

12. Bañan iñardetsi cioten, eta erran zuen: Eguiazqui erraten datzuet ez zaituztedala ezagutcen.

13. Egon zaizte beraz iratzarriac, ceren ez daquizue ez eguna, ez ere ordua.

14. Ceren artaz da nola guizon batez, ceñac viagean gateracoan deitu baitcituen bere cerbitzariac, eta entregatu baitciozten bere ontasunac:

15. Eta eman cituen bati bortz talentu, bertce bati bida, eta bertce bati bat, bacotchari bere capacidadeain arabera, eta bereala gan cen.

16. Bortz talentu errecibitu cituena, gan cen equin traficatcera, eta irabaci cituen bertce bortz.

17. Guisa berean bida erreeibitu cituenac, irabaci cituen bertce bida.

18. Baño bat baicic errecibitu ez zuena, gan cen, eguin zuen zulo bat lurrean, eta an gorde zuen bere nagusiain dirua.

19. Dembora anitcen ondoan etorri cen cerbitzari equen nagusia, eta deitu cituen contu ematera.

20. Eta bortz talentu errecibitu cituena etorri cen, eta presentatu cition bertce bortz talentu, erraten zuelaric: Yauna, bortz talentu entregatu cinaztan, una bertce bortz gueyago irabaci ditudanac.

101

21. Bere nagusiac erran cion: Arras ongui, cerbitzari ona eta fidela; fidela izan zailacotz gauza gutitan, paratuco zaitut anitcen gañean, sar zaite zure yaunain bozcarioan.

22. Eta bi talentu errecibitu cituena ere etorri cen, eta erran zuen: Yauna, bi talentu entregatu cinaztan, una non ditutzun bertce bida irabaci ditudanac.

23. Bere nagusiac erran cion: ongui da, cerbitzari ona eta fidela; fidela izan zailacotz gutiain gañean, paratuco zaitut anitcen gañean, sar zaite zure yaunain bozcarioan.

24. Eta talentu bat baicic errecibitu ez znen, erran zuen: Yauna, badaquit condicione gogorreco guizona zaila, erein ez duzun lecuan segatcen duzu, eta edatu ez duzun lecuan biltcen:

25. Eta zure beldurrez gan nitcen, eta zure talcntua lurrean gorde nuen: una uon duznn zurea dena.

26. Eta beren yaunac iñardetsiric, erran cion: Cerbitzari gaisto eta alferra, bacinaqnien ereiten ez dudan lecuan segatcen dudala, eta edatu ez dudan lecuan biltcen dudala:

27. Bada, cman bear cinnen nere dirua banqueroei, eta ni itzultcean, errecibituco nuen ausarqui nerea cena.

28. Quen diozue beraz talentua, cta cmozue amar talentu dituanari.

29. Ceren duenari emana izain zayo, eta

102

izain du gueyago: baño ez duenari, duela iduri duen ura ere quendua izain zayo.

30. Eta cerbitzari inutila, bota zazue campoco ilumbetara: an izain dire nigarrac, eta ortz carrascac.

31. Eta guizonain Semea etortcen denean bere magestadean, eta Aingueru guciac berequin, orduan yarrico da bere magestadeain tronuan:

32. Eta izain dire yende guciac bilduac ain aitcinean, eta berechico ditu batzuec bertcetaric, arzañac ardiac berechten dituen bezala anchumetaric:

33. Eta paratuco ditu ardiac bere escuñean, eta anchnmeac bere ezquerrean.

34. Orduan Erreguec errain du escuñean direnei: Zatozte, nere Aitaz benedicatuac, goza zazue munduain astetic zuendaco preparatua dagon erreinuaz:

35. Ceren gosetu nitcen, eta eman cinatazuen yatera: egarritu nitcen, eta eman cinatazuen edatera: arrotza nitcen, eta errecibitu ninduznen:

36. Bilucia nitceu, eta estali ninduzuen: eri nitcen, eta visitatu ninduzuen: garicelan nitcen,eta etorri cineten nere icustera.

37. Orduan yustuec iñardetsico diote, eta errain dnte: Yauna, ¿noiz icusi zaitugu gosetua, eta eman datzugu yatera: edo egarritua, eta cman datzugu edatera?

103

38. ¿Eta noiz icusi zaitugu arrotza, eta errecibitu zaitugu: edo bilucia, eta veztitu zaitugu?

39. ¿Edo noiz icusi zaitugu eri, edo garcelan, eta gan gara zure icustera?

40. Eta Erreguec iñardetsiric, errain diote: Eguiazqui erraten datzuet, gauza oriec nere anaya ttiquien otaric bati eguin ditutzuen casuan, neroni eguin daztatzuela.

41. Orduan ezquerrean izain direnei ere errain du: Aparta zaizte nere ganic madaricatuac, eta zoazte betico sura, ceña preparatua baita debruaindaco eta ain aingueruendaco.

42. Ceren gosetu nitcen, eta ez cinatazuen eman yatera: egarritn nitcen, eta ez cinatazuen eman edatera:

43. Arrotza nitcen, eta ez ninduzuen errecibitu: bilucia, eta ez ninduzuen estali: eri, eta gartcelan, eta ez ninduzuen visitatu.

44. Orduan ec ere iñardetsico diote, erraten dutelaric: Yauna, ¿noiz icusi zaitugn gosetua, edo egarritua, edo arrotza, edo bilucia, edo eri, edo gartcelan, eta ez zaitugu lagundn?

45. Orduan iñardetsico diote, erraten duelaric: Eguiazqui erraten datzuet, ttiquien otaric bati eguin ez duzuen casuan, ez datazuela eguin niri ere.

46. Eta oc gain dire tormentu eternora; eta yustuac bici eternora.

104

XXVI. CAPITULUA.

ETA Jesusec acabatu cituenean arrozoñamendu oc guciac, erran zuen bere discipuloei.

2. Badaquizue emendic bi egunen buruan eguinen dela Bazcoa, eta guizonain Semea entregatua izain dela, gurutcificatua izateco.

3. Orduan Sacerdoteen Principeac, eta errico jnezac bildu ciren Sacerdoteen Principe Caiphas deitua cenain larrañean:

4. Eta tratatu zuten Jesusen artcea engañuz, eta ain ilaraztea.

5. Baño erraten zuten: Ez besta egunean, beldurrez nastura cembait guerta zadien puebloain artean.

6. Eta Jesus Bethanian celaric Simon leprosoain etchean,

7. Etorri cen ain gana emacume bat, ceñac ecartcen baitzuen berequin alabastrozco baso bat unguendu onaz betea, eta ichuri zuen ain buruain gañera, mayan zagolaric.

8. Eta discipuloec ori icusi zutencan, nabarbendu ciren, ciotelaric: ¿Certaco galtce ori?

9. Ceren precio andi batean saldua izan citequen, eta pobrei emana orren balioa.

10. Bañan Jesusec ori entenditnric, erran cioten: ¿Certaco penatcen duzue emacume ori? bada, eguin du nerequin obra on bat.

105

11. Ceren beti izain ditutzue pobreac zuequin: bañan ez nauzue ni izain beti.

12. Ceren ichuri baldin badu unguendu ori nere gorputzain gañera, nere enterratceco eguin du.

13. Eguiazqui erraten datzuet, mundu gucian Evangelio au predicatua izain den lecn gucietan, orrec eguin duena contatua izain dela, orren oroitzapenaz.

14. Orduan amabietaric bat Judas Iscariotes deitua, gan cen Sacerdoteen Principetara:

15. Eta erran cioten: ¿Cer nai datazue eman, eta nic entregatuco datzuet? Eta ec señalatu ciozten oguei eta amar cilar moneda.

16. Eta ordutic ocasione on bat bilatcen zuen, ain entregatceco.

17. Eta orantzaric gabeco oguien lembicico egunean, discipuloac etorri ciren Jesusen gana, eta erran cioten: ¿Non nai duzu prepara dezagun Bazcoain yateco?

18. Eta Jesusec erran zuen: Zoazte irira alacoain etchera, eta errozue: Nagusiac dio: Nere dembora urbildua da, zure etchean eguiuen dut Bazcoa nere discipuloequin.

19. Eta discipuloec eguin zuten, Jesusec manatu cioten bezala, eta preparatu zuten Bazcoa.

20. Eta arratsa etorri ceuean, yarri cen mayan bere amabi discipuloequin.

21. Eta yaten ari cirelaric, erran zuen:

106

Eguiazqui erraten datzuet, zuetaric batec entregatuco nauela.

22. Eta ec tristezac arras artuac, bacotcha asi cen erraten: ¿Ni ote naiz venturaz, Yauna?

23. Eta iñardetsi zuen, eta erran zuen: Nereqnin platerean escua sartcen duena, ori izain entregatuco nauena.

24. Guizonain Semea badoaye segurqui, artaz escribitua den bezala: bañan zorigaitz guizon ari, ceintaz entregatua izain baita guizonain Semea: obe izain zuen sortu ez balitz.

25. Eta iñardetsiric Judasec, ceñac entregatu baitzuen, erran zuen: Nagusia, ¿ni naiz venturaz? Erraten dio: Ceronec erran duzu.

26. Eta afaitan ari cirelaric, Jesusec artu zuen oguia, benedicatu zuen, autsi zuen, eta eman zuen bere discipuloei, erraten zuelaric: Ar zazue, eta yan zazue: au nere gorputza da.

27. Eta arturic calitza, esquerrac eman ondoan, eman cioten, erraten zuelaric: Edan zazue denec untaric.

28. Ceren au nere odola da Testamenta berricoa, auitcen gatic ichuria izain dena becatuen barcamenduraco.

29. Eta erraten datzuet, gueyago ez dudala edain matsain fruitu uutaric, nere Aitain erreinuan zuequin berria edain dudan egun artaraño.

30. Eta Hymnoa erran ondoan, atera ciren Olivetaco mendira.

107

31. Orduan Jesusec erran cioten: Zuec guciac esperimentatuco duzue tentacione bat nere gatic gau untan, ceren escribitua da: Yoco dut arzaña, eta artaldeco ardiac barrayatuco dire.

32. Bañan berriz pizten naicenean, gain naiz znen aitcinean Galileara.

33. Iñardetsi zuen Pedroc, eta erran cion: Bertce guciac escandalizaturic ere zure gatic, ni ez naiz beñere escaudalizatuco.

34. Jesusec erran ciou: Eguiazqui erraten datzut, gau untan, ollarrac cantatu baño len, ucatuco nauzu iru aldiz.

35. Pedroc erran cion: Il bear banu ere zurequin, ez zaitut ucatuco. Eta bertce discipulo guciec ere erran zuten gauza bera.

36. Orduan Jesus gan cen equin Gethsemani deitcen cen bazterretche batera, eta erran zuen bere discipuloei: Yar zaizte emen, ni arara otoitz eguitera noayen demboran.

37. Eta arturic berequin Pedro eta Zebedeoin bi semeac, asi cen tristatcen eta quechatceu.

38. Eta orduan erran cioten: Triste da nere arima eriotcerañocoan: egon zaizte emen, eta bela zazue nerequin.

39. Eta cembait pausu eman eta, auspescatu cen bere aurpeguiaiu gañera, eta otoitz eguinic, erran zuen: Nere Aita, al bada, urrun zazu nere ganic calitz au: baño ez nic nai dudan bezala, baicic zuc nai duzun bezala.

108

40. Eta itzuli cen bere discipuloetara, eta arrapatu cituen lo zaudela, eta erran cion Pedrori: ¿Beraz, ecin belatn izan duzue ordu batez nerequin?

41. Bela zazue, eta eguin otoitz, tentacionean ez erortceco. Izpiritua cinezqui erne da, baño araguia flaco.

42. Gan cen berriz bigarren aldian, eta otoitz eguin zuen, erraten zuelaric: Nere Aita, ez bada posible urruutcea calitz au nic edan gabe, eguin bedi zure borondatea.

43. Eta itzuli cen berriz, eta arrapatu cituen oraño lo zandela, ceren equen beguiac cargatuac baitciren.

44. Eta utci cituen, eta berriz gan cen irngarren aldian otoitz eguitera, itz berac erraten cituelaric.

45. Orduan etorri cen bere discipuloetara, eta erran cioten: Lo eguizue garguero, eta pausa zaizte: una, allegatua ordua, eta guiznain Semea izain da entregatua becatarien escuetan.

46. Yeiqui zaizte, goacen: entregatuco nauena urbiltcen da.

47. Eta oraño mintzo celaric, una, Jndas, amabi etaric bat, etorri cen, eta arequin batcan yeude tropa andi bat ezpatequin eta maquilequin, Sacerdoteen Principec eta errico juecec bidali cituztenac.

48. Eta entregatn zuenac eman zuen señalea,

109

ciolaric : Nic musu emain diodana, ura bera da, ar zazue.

49. Eta bereala urbilduric Jesusen gana, erran zuen : Yaungoicoac guarda zaitzala, Nagusia. Eta musu eman cion.

50. Eta Jesusec erran cion : ¿ Adisquidea, certara etorri zara ? Dembora berean urbildu ciren, eta Jesusi escuac edaturic, artu zuten preso.

51. Eta Jesusequin ciren etaric batec, edaturic escua, atera zuen bere ezpata, eta golpea botaturic Pontificeain cerbitzari bati, ebaqui cion bearri bat.

52. Orduan erran cion Jesusec : Itzul zazn zure ezpata bere lecura : ceren ezpata artuco duen gucia ezpatac ilen du.

53. ¿ Uste duzu venturaz, ez dezaquedala otoitztu nere Aita, eta emain dazquit orai berean amabi Aingueru legione baño gueyago ?

54. ¿ Nola bada cumplitnco dire Escriturac, ola dela combeni guerta dadien ?

55. Ordu artan berean erran zuen Jesusec yende tropa ari : Ladron bati bezala atera zaizte ezpateqnin eta maquilequin nere artcera : egun guciz zuen artean yarria nindagon templuan eracusten nuela, eta ez ninduzuen artu.

56. Bañan au gucia eguina izan cen, Propheten Escriturac cumplitnac izan citecin. Orduan discipulo guciec abandonatu zuten, eta gan ciren iguesi.

110

57. Bañan Jesus preso zaucatenec, eraman zuten Caiphas Sacerdoteen Principeain etchera, non bilduac baitciren Escribac eta Zarrac.

58. Eta Pedroc seguitcen zuen urrundic Sacerdoteen Principeain palacioraño. Eta sarturic barnera, yarria zagon cerbitzariequin, ucabantza icusteco.

59. Bada Sacerdoteen Principec, eta Concilio guciac bilatcen zuten cerbait lecucotasun falso Jesusen contra, eriotcera entregatceco :

60. Eta ez cioten arrapatu, naiz lecuco falso anitz presentatu izan cen. Bañan azquenecotz urbildu ciren bi lecuco falso,

61. Eta erran zuten : Unec erran zuen : Destruitu dezaquet Yaungoicoain templua, eta goratu iru egunez.

62. Eta Sacerdoteen Principeac chutituric, erran cion : ¿ Ez duzu deusere iñardetsten oc zure contra eguiten duten lecucotasunari ?

63. Eta Jesus ichilic zagon. Eta Sacerdoteen Principeac erran cion : Yaungoico biciaz, galdetcen datzut, guri errateaz, zu zain Christo Yanngoicoain Semea.

64. Jesusec erraten dio : Zuc erran duzu : eta erraten datzuet oraño, emendic dembora gutien buruan icusico duzuela guizonain Semea yarria Yaungoicoain virtuteain escuñean, eta etorteen ceruco goibeletan.

65. Orduan Sacerdoteen Principeac urratu cituen bere arropac, eta erran zuen : Blaspne-

111

matu du. ¿ Cer bear dugu lecucoric gueyago ? Una, orai berean aditu duzue blasphemia :

66. ¿ Cer iduritcen zaitzue ? Eta ec iñardetsiric, erran zuten : Eriotcea merecitu du.

67. Orduan tu eguin cioten aurpeguira, eta maltratatu zuten ucumil ucaldica, eta bertce batzuec eman ciozten bearri ondocoac aurpeguian,

68. Erraten zutelaric : Adivina zazu, Christo, ¿ nor den yo zaituena ?

69. Pedro bitartean yarria zagon campoco aldean, larrañean : eta nescato bat urbildu cen ain gana, ciolaric : Jesus Galileacoaiquin cinen zu ere.

70. Baño arc ucatu zueo denen aitcinean, erraten zuelaric : Ez daquit cer diozun.

71. Eta nola ateratu baitcen atera, bertce nescato batec icusi zuen, eta erran zuen au cirenei : Au ere Jesns Nazarendarraiquin cen.

72. Eta ucatu zuen berriz yuramentuaiquin, erraten zuelaric : Ez dut ezagutcen olaco guizonic.

73. Eta andic instant baten buruan an cirenac urbildu ciren, eta erran cioten Pedrori : Segurqui zu ere etaric zara : ceren zure mintzairac ere ematen du ongui ezagutcera.

74. Orduan asi cen arnegu, eta yuramentu eguiten, ez zuela ezagutcen alaco guizonic. Eta bereala ollarrac cantatn zuen.

112

75. Eta Pedro oroitu cen Jesusec erran cion itzaz : Ollarrac cantatuco duen baño len, ucatuco nauzu iru aldiz. Eta campora ateraric, nigar eguin zuen garratzqui.

XXVII. CAPITULUA.

ETA etorri cenean goiza, Sacerdoteen Principe guciac eta puebloco Zarrac edequi zuten consejoa Jesusen contra, eriotcerat entregatceco.

2. Eta eraman zuten lotua, eta entregatu zuten Poncio Pilato Presidenteari.

3. Orduan Judas, entregatu zuenac, icusi zuenean condenatua izan cela, urriquiaz uquitua, itzuli cituen oguei eta amar moneda cilarrac Sacerdoteen Principei eta Zarrei,

4. Ciolaric : Becatu eguin dut odol inocentea entregaturic. Bañan ec erran cioten : ¿ Cer zaicu guri ? zuc icusi bearra cen.

5. Eta, botaturic cilarrezco monedac templuan, erretiratu cen, eta gan cen, eta bere burua urcatu zuen soca lasterrean.

6. Eta Sacerdoteen Principeec, arturic cilar monedac, erran zuten : Ez da cilegui oc tesoroan sartcea, cereu odolain precioa baita.

7. Orreu gañeau tratu ondoan, equin erosi zuteu lur untci eguile baten bazterra, arrotcen enterratceco.

113

8. Orren gatic bazter ura deitua izan da Haceldama, erran naidu, odolain bazterra, egun arteraño.

9. Orduan cumplitu cen Jeremias Prophetaz errana izan cena, ceñac baitcion: Artu cituzten oguei eta amar moneda cilarrac, estimatuain precioa, ceña tasatu baitzuten Israelgo umeec.

10. Eta eman cituzten lur untci egnile baten bazterrean truc, Yannac manatu zaudan bezala.

11. Eta Jesus presentatua izan cen Presidenteain aitcinera: eta galdetu ciou Presidenteac, eta erran zuen: ¿Zu zara Yuduen Erreguea? Jesusec erraten dio: Zuc diozu.

12. Eta nola acusatua baitcen Sacerdoteen Principeez etaZarrez, ez zuen deusere iñardetsi.

13. Orduan Pilatosec erraten dio: ¿Ez duzn aditcen cembat lecucotasun mintzo den zure contra?

14. Eta ez zuen ain itcei batere iñardetsi, ala, non Presidentea admiratua guelditn baitcen osoqui.

15. Bazco egunean Presidenteac bazuen usaya libre entregatcea puebloari preso bat, yendeac nai zueoa.

16. Eta orduan bazuen preso famatu bat, deitcen cena Barrabas.

17. Eta bildu ciren ondoan, Pilatosec erran cioten: ¿Ccin oai duzue entrega dezazuedan? ¿Barrabas, edo venturaz Jesus, Christo deitua dena?

114

18. Bada bazaquien envidiaz entregatu zutela.

19. Eta bere tribunalean yarria zagolaric, bere andreac bidali cioo erratera: Ez izan deusere eguitecoric Yustu urrequin: ceren uri dela causa anitz sufritu dut gaur ametsetan.

20. Baño Sacerdoteen Principeec eta Zarrec gogoau sarraraci zuten puebloari galdetceco Barrabas, eta ilarazteco Jesus.

21. Eta Presidenteac iñardetsi cioten, eta erran zuen: ¿Bietaric cein nai duzue entrega dezazuedan libre? Eta erran zuten ec: Barrabas.

22. Pilatosec errateo diote: ¿Cer eguioen dut beraz Jesus, Christo deitua denaz?

23. Erraten dute denec: Gurutcificatua izan bedi. Presidenteac erraten diote: ¿Bañan cer gaizqui eguin du? Eta ec goratcen zuten oyua gueyago, ciotelaric: Gurutcificatua izan bedi.

24. Eta Pilatosec icusiric ez zuela deusere aitcinatcen, bañan alborotoa berratcen cela gueyago, arturic ura, garbitu cituen escuac puebloain aitcinean, erraten zuelaric: Yustu unen odolaz inocente naiz: or icus zazue ceroc.

25. Eta pueblo guciac iñardetsiric, errao zuen: Orren odola izan bedi gure gañean, eta gure umeen gañean.

26. Orduan libratu cioten Barrabas: eta

115

azotaraci ondoan Jesus, entregatu cioten gurutcificatua izateco.

27. Orduan Presidenteain soldaduec, arturic Jesus palaciora eramateco, formaraci zuten ain inguruan tropa gucia :

28. Eta biluci ondoan, veztitu zuten capa granazco batez :

29. Eta clorrizco corona bat eguinic, paratu cioten buruain gañean, eta cana bat escuñeco escuan : eta belaunicaturic ain aitcinean, escarniatcen zuten, ciotelaric : Yaungoicoac salva zaitzala, Yuduen Erreguea.

30. Eta tu eguinez, artu zuten canabera bat, eta yotcen zuten buruan.

31. Eta escarniatu ondoan, quendu cioten capa, eta paratu bere arropac, eta eraman zuten gurutcificatcera.

32. Eta campora ateratcean, topatu ciren Cyreneco guizon batequin, icena zuena Simon : au bortchatu zuten Jesusen gurutcealquin cargatcera.

33. Eta etorri ciren lecu batera deitua Golgotha, au da, Calabera lecua.

34. Eta eman cioten edatera ardoa quedarraiquin nasia : eta probatu ondoan, ez zuen edan nai izan.

35. Eta gurutcificatu zuten ondoan, partitu cituzten ain arropac, chortean botaturic : cumplitua izan zadien Prophetaz errana izan cena, ceñac baitio : Partitu cituzten nere arropac, eta nere tunica chortean botatu zuten.

116

36. Eta yarriric eguiten cioten guardia.

37. Eta paratu zuten ain buruain gañean bere causa escribitua : Au da Jesus Yuduen erreguea.

38. Orduan gurutcificatu cituzten bi ladron aiquin batean ; bat ain escuñean, eta bertcea ain ezquerrean.

39. Eta andic pasatcen cirenec blasphematcen zuten beren buruac iguituz,

40. Eta ciotelaric : Ha, Yaungoicoain templua deseguiten uena, eta berriz iru egunez goratcen, salva adi eroni : Yaungoicoain Semea baldin baiz, yauts adi gurutcetic.

41. Guisa berean Sacerdoteen Principeec Escribequin eta Zarrequin insultatuz, erraten cioten :

42. Bertceac salvatu cituen, eta ez ditaque bera salva : baldin Israelgo Erreguea bada, yauts bedi orai gurutcetic, eta sinetsico dugu.

43. Yaungoicoain baitan fidatu cen : libra beza orai, baldin maite badu ; bada erran zuen : Yaungoicoain Semea naiz.

44. Eta aiquin gurutcificatuac ciren ladronec ere, meatchatcen zuten.

45. Bada seigarren ordutic bederatcigarrenerañe ilundu cen lur gucia.

46. Eta bederatci orduac puntuan cirelaric, Jesusec eguin zuen oyu andi bat, ciolaric : Eli, Eli, ¿ lamma sabacthani ? errau nai da : Nere Yaungoicoa, nere Yaungoicoa, ¿ certaco abandonatu nauzu ?

117

47. Bada an ciren cembaitec, ori aditu zutenean, erraten zuten : Elias deitcen du.

48. Eta bereala etaric batec, lasterca ganic, artu zuen esponja bat, eta trempatu zuen ozpinean, eta paraturic cana baten puntan, ematen cion edatera.

49. Eta bertcec erraten zuten : Utz zazue, icus dezagun Elias etortcen ote den arren libratcera.

50. Bañan Jesusec, clamatnric bigarren aldian voz andi batequin, entregatn zuen arima.

51. Eta, una, templuco velon urratu cen bi aldetara, gain beiti : eta lurra icaratu cen, eta arriac arraildu ciren :

52. Eta sepnlturac edequi ciren : eta ilac ciren Sainduen anitz gorputz berriz piztu ciren,

53. Eta beren sepulturetaric ateraric, ura piztu ondoan, etorri ciren iri saindura, eta anitcei aguertu ciren.

54. Beraz Centurionac, eta oaiquin Jesusen guardatcen zaudenac, icusi zntenean lurricara, eta an pasatcen ciren ganzac, beldur andia artu zuten, eta erraten zuten : Segurqui Yaungoicoain Semea cen guizon au.

55. Eta an bacen anitz emacume urrundanic beatcen zutenac, eta Jesus seguitu zutenac Galileatic, ura cerbitzatuz :

56. Ceñen artean baitciren Maria Magdalena, eta Maria Santiagoin eta Josephen ama, eta Zebedeoin semeen ama.

118

57. Eta arratsa etorri cenean, Arimatheaco guizon aberats bat, Joseph deitua, ceiñ ere Jesusen discipulo baitcen, etorri cen.

58. An nrbildu cen Pilatosen gana, eta galdetu cion Jesusen gorputza. Pilatosec orduan manatu zuen eman ciozatela gorputza.

59. Eta Josephec arturic gorputza, inguratu zuen maindire churi batean.

60. Eta paratu zuen peña batean beretaco edecaraci zuen sepultura berri batean. Eta irauli zuen arlauza mdi bat sepultnrain gañera, eta gan cen.

61. Eta Maria Magdalena, eta bertce Maria, an ciren yarriac sepulturain parean.

62. Eta biaramunean, cein baita Parasceveco egunain ondocoa, Sacerdoteen Principeac eta Phariseoac gan ciren elcarrequin Pilatosen gana,

63. Erraten zutelaric : Yauna, oroitcen gara, enganatzale orrec, bici cenean erran zuela : Iru eguuen buruan berriz piztuco naiz.

64. Mana zazu beraz sepultura izan dadien zaindua irugarren egunerañó, beldurrez ain discipuloac etor daitecin, eta ebats dezaten, eta yendeari erran dezaten : Piztu da ilen artetic : eta azquen engañoa gaistoagoa litceque lembicicoa baño.

65. Pilatosec erran cioten : Guardac baditutzue, zoazte, eta zain zazue daquizuen bezala.

66. Gan ciren beraz, eta aseguratceco sepul-

119

tura, sellatu zuten arria. eta paratu cituzten guardac.

XXVIII. CAPITULUA.

LARUMBATECO eguna pasatu cenean, asteain lembicico egunean argui astean, etorri ciren Maria Magdalena, eta bertce Maria sepulturain icustera.

2. Eta lurricara andi bat izan cen: ceren Yaunain Aingueru bat yautsi cen cerutic, eta urbilduric, irauli zuen arria, eta yarri cen ain gañean.

3. Eta ain aurpeguia oñaztura bezalacna cen. eta ain veztidoa elurra becen churi:

4. Eta ain beldurrez guardac icaratu ciren, eta guelditu ciren ilac bezala.

5. Baña Aingueruac arturic itza, erran zuen emacumei: Zuec ez zazuela izan beldurric: ceren badaquit, Jesus gurutcificatua izan dena bilatcen duzuela.

6. Ez da emen; ceren berriz piztu da, errau zuen bezala. Zatozte, eta icusazue Yauna paratua izan cen lecua.

7. Eta zoazte bereala, errazue ain discipuloei berriz piztu dela: eta, orra, non doayen zuen aitcinean Galileara: an icusico duzue: una, avisatu zaiztet aitcinetic.

8. Eta atera ciren bereala sepulturatic beldurraiquin eta bozcario andi batequin: eta gan ciren lasterca discipuloei berriac eramatera.

120

9. Eta,una,non atera citzayoten Jesus bidera, erraten zuelaric: Yaungoicoac guarda zaitzatela. Eta ec urbildu ciren ain gana, eta besarcatu cituzten ain zangoac, eta adoratu zuten.

10. Orduan Jesusec erran cioten: Ez izan beldurric: zoazte, eraman citzue berriac nere anayei Galileara gan daitecin, an icusico naute.

11. Eta ec partitu cirenean, guardetaric cembait gan ciren irira, eta eman zuten avisua Sacerdoteen Principei pasatcen cen gueiaz.

12. Eta bildu ondoan Zarrequin, eta tratatu ondoan, eman zuten dirutce andi bat soldaducei,

13. Erraten eiotelaric: Errazue etorri cirela ain discipuloac gauaz, eta ebatsi zuten gu lo guinauden demboran.

14. Eta au allegatcen balitz Presidentcain bearritara, guc sinetsaracico diogu, eta cuidatuco dugu zuen seguridadeaz.

15. Eta ec arturic dirua, eguin zuten eracusi cioten bezala: eta fama unec, edatu cena Yuduen artean, irauten du egun arteraño.

16. Eta ameca discipuloac gau ciren Galileara, Jesusec manatu cioteu mendiain gañera.

17. Eta icusi zutenean, adoratu zuten: bañan cembaitce dudatu zuten.

18. Eta Jesus urbilduric, mintzatu citzayoten, erraten zuelaric: Podore gucia eman zait ceruan eta lurrean.

121

19. Zoazte beraz, eta eracuts zazue yende guciei, batayatcen ditutzuelaric Aitain, eta Semeain, eta Izpiritu Sainduain icenean:

20. Eracusten diozazuelaric observatcen manatu dazquitzuedan gauza guciac: eta yaquin zazue ni zuequin naicela egun guciz munduain acabantzaraño.

I CERTIFY that this book was printed by me in the house of His Highness the Prince Louis-Lucien Bonaparte, and that the number impressed amounted to ten copies only, which are numbered and bear the names of their respective owners on the first page, with the exception of two, one of which has the title printed in red and black inks with a border.

W. H. BILLING.

ERRATAS.

Página.	Línea.	Dice.	Léase.
5	10	zayo	zayo ametsetan
27	9	Caphernaumen	Capharnaumen
68	1	Caphernaumen	Capharnaumen
78	14	yarriac, izatea	yarriac izatea,

LA PROFECÍA DE JONÁS
JONASEN PROFECIA

Bruno Echenique
Elizondoko nafarreraz
Londres
1862

Originala: «Azkue Biblioteka» - Euskaltzaindia

LA PROFECÍA DE JONÁS

TRADUCIDA AL VASCUENCE,

DIALECTO NAVARRO DEL VALLE DE BAZTAN,

SEGUN AHORA COMUNMENTE SE HABLA
EN LA VILLA DE ELIZONDO.

POR

DON BRUNO ECHENIQUE.

LONDRES. 1862.

JONASEN PROFECIA.

I. Cap.

ETA 'torri cen Yaunaïn itza Amatiïn seme Jonasi, ciolaïc:

2 Goiti zaite, eta zoaci Ninive ciudade aundira, eta an predica zazu: igan delacotz aren malicia nere aitzinera.

3 Eta goititu cen Jonas, Yaunaïn presentziatic igues 'iteco, eta yautsi cen Jopera, eta arpatu zuen untzi bat Tarsisera zoayena: eta 'man zuen bere pasaya saria, eta artan sartu cen equin batean goateco Tarsisera Yaunaïn ganic igues.

4 Baño Yaunac igorri zuen aice bortitz bat itsasora: eta goratu cen tormenta aundi bat itsasoan, eta untzia puscatzeco arriscuan zagon.

5 Eta mariñelac beldurtu ciren, eta bacotchac deadarca otoiztu zuen bere Yangoicoa: eta botatu cituzten itsasora untzian zacarzcaten puscac, equen cargaz arintzea gatic: baño Jonas, yautsia untziaïn zolara, an lo zagon tranquilqui.

6 Eta urbildu cen aren gana pilotoa, eta erran cion: ¿Nola zaude zu olaco lo pisuaïquin? goiti zaite, deit zazu zure Yangoicoa, venturaz nai izaten badu Yincoac gutaz contu 'in, eta ez gaitzin galdu.

7 Eta bacotchac erran zuen bere lagunaï: Zatozte, eta tira 'zagun chortea, eta yaquin 'zagun cergatic guertatu zaicun macur au.

Eta tiratu zuten chortea: eta erori cen chortea Jonasen gañera.

8 Eta erran cioten: Erran diezaguzu ¿cergatic guertatu zaicu macur au? ¿cer oficio 'izu? ¿cein da zure tierra, ta nora zoaci? ¿edo cein pueblotacoa zara zu?

9 Eta erran zaben: Ni naiz hebreoa, eta beldur naiz ceruco Yangoico Yaunaï, itsasoa ta lurra 'in cituena.

10 Eta guizonac beldurtu ciren aunitz, eta erran cioten: ¿Bada cergatic 'in duzu oï? (ecen uste zuten guizonec Yaunaïn aurpeguitic igues 'iten zuela, ceren berac ala 'man zaben entenditzera.)

11 Eta erran cioten: ¿Cer 'inen dugu zutaz, eta itsasoa ezti daquigun? ceren bazoayen itsasoa goratuz, eta asertuz.

12 Eta erran zaben: Ar nazazuc, eta bota

nazazue itsasora, eta itsasoa eztituco zaitzue: ongui daquidalacotz nerc gatic 'torri dela zuen gañera tormenta aundi au.

13 Eta arraunatzen zuten guizonec legorreco aldera itzultzeco, eta etzezaqueten: ceren itsasoa bazoayen iganez, eta equen contra asertuz.

14 Eta deadarca asi ciren Yaunaï, eta erran zuten: Otoizten zaitugu, Yauna, ez gaitecila galdu guizon unen biciaïn gatic, eta etzazula erorraci gure gañera odol inocentea: ceren zuc, Yauna, 'in duzu, nai izan duzun bezala.

15 Eta artu zuten Jonas, eta botatu zuten itsasora: eta guelditu cen bela itsasoaïn furrinda.

16 Eta artu zuten guizonec beldur aundi bat Yaunaï, eta esqueñi citiozten Yaunaï victimac, eta 'in cituzten votuac.

II. Cap.

ETA bazaucan Yaunac prest arrañ aundi bat, Jonas iretsi zuena: eta egon cen Jonas arrañaïn sabelean iru egun, ta iru gauez.

2 Eta 'in zuen Jonasec arrañaïn sabeletic otoitz bere Yangoico Yaunaï.

3 Eta erran zuen: Nere naigabetan deitu nuen Yauna, eta aïtu ninduen: sepulturaïn barnetic oyu 'in nuen, eta aïtu cinuen nere voza.

4 Eta botatu ninduzun itsasoaïn erdira uraïn

10 Baño nic laudorioco vozaïquin esqueñico datzut zuri sacrificioa: pagatuco 'ut Yaunaï salvacioaïndaco esqueñi diodan gucia.

11 Eta Yaunac manatu cion arrañaï: eta goitica botatu zuen Jonas legorrera.

zolaraño, eta ur biciac inguratu ninduen: zure remolina guciac, eta zure oladac pasatu ciren nere gañetic.

5 Eta erran nuen nic: Botatua izan naiz zure beguien vistatic: baño oñic berriz 'cusico 'ut zure templu saindua.

6 Inguratu ninduten urec arimaraño: leceac inguratu ninduen, osinac estali zuen nere burua.

7 Yautsi nitzen mendien zañetaraño: legorreco morrollec etsi ninduten seculaco: baño zuc guardatuco 'izu galtzetic nere bicia, nere Yinco Yauna.

8 Nere arima quechatzen celaïc nere barnean, oroitu nitzen Yaunaz: zure gana allega dayen nere otoitza zure templu sainduaï.

9 Gauza vanoac inutilqui guardatzen 'tuztenec, uzte' 'ute aren misericordia.

III. Cap.

ETA 'torri cen berriz Yaunaïn itza Jonasi, ciolaïc:

2 Goiti zaite, eta zoaci Ninive ciudade aundira: eta 'in zazu an, nic erten datzudan predicua.

3 Eta goititu cen Jonas, eta partitu cen Ninivera Yaunaïn itzaïn arabera: eta Ninive cen ciudade aundi bat iru egunen bidecoa.

4 Eta asi cen Jonas ciudadean sartzen, an egun batez ibiliic: eta oyuca erran zuen:

Oñic berroguei egun, eta izaïn da Ninive arrasatua.

5 Eta ninivarrec Yangoicoaïn baitan sinetsi zuten: eta publicatu zuten barua, eta veztitu ciren zacuz aundienetic ttipienerañocoan.

6 Eta allegatu cen solasa Niniveco erregueïn ganaño: eta goititu cen bere tronutic, eta biluebi cen bere veztidotic, eta veztitu cen zacuz, eta yarri cen autsaïn gañean.

7 Eta 'in zuen oyu, eta erran zuen Niniven erregueïn eta ministro printzipalen ordenaz: Guizonec, eta aciendec, eta idiec, eta ardiec eztezatela deusere yastatu: ez bazcaïc yan, ez ere uric edan.

8 Eta guizonec, eta aciendec yauntz detzatela zacuac, eta esca dezatela Yaunaï firmequi, eta itzul dayela bacoteha bere bide macurretic, eta equen escuetan den gaichtaqueriatic.

9 ¿Eta norc daqui itzulico ote den Yangoicoa, eta barcatuco ote dacun: eta eztituco ote den bere coleraïn furrindatic, eta ez garela galduco?

10 Eta 'cusi cituen Yincoac equen obrac, nola aldaratu ciren beren bide gaichtotic: eta izan zuen Yangoicoac urricalmendua 'inen zabela mintzatu cen gaitzaïn gañean, eta etzuen 'in.

IV. Cap.

ETA Jonasec izan zuen sentimentu aundi bat, eta asertu cen:

2 Eta Yaunaï otoitz 'in zuen, eta erran: Otoizten zaitut, Yauna, ¿ezta au, nere tierran oñic nitzelaïc, beldur nitzena guertatuco cela? unen gatic aitzinatu nitzen Tarsisera igues 'itera. Daquidalacotz zu zarela Yangoico bat biotz onecoa eta misericordiosoa, sufritua eta urricalmendu aundicoa, eta becatuac barcatzen 'tutzuna.

3 Eta orai, Yauna, otoizten zaitut quen diezadazula bicia: ceren obeago zait bicia baño eriotzea.

4 Eta erran zuen Yaunac: ¿Uste 'izu zuc arrazoñic baïzula asertzeco?

5 Eta atra cen Jonas ciudadetic, eta yarri cen iruzquia sortzen den alderdico ciudadeaïn portaleaï caraz cara: eta an 'in zuen etchol bat, eta bazagou aren azpian yarria itzalean, 'cusi artañocoan cer guertatuco citzayon ciudadeaï.

6 Eta prevenitu zuen Yinco Yaunac untz bat, eta igan zuen Jonasen buruaïn gañera, aren buruaï itzal 'iteco, eta estaltzeco (soil necatua zagolacotz). Eta Jonasec izan zuen atseguin aundia untz artaz.

7 Eta biaramunean argui astean igorri zuen Yincoac ar bat: eta atsiquitu zuen untza, eta iñartu cen.

8 Eta iruzquia atra cenean, 'torraci zuen Yaunac aice bat beroa, ta erre nai zuena: eta yo zuen iruzquiac Jonasen buruaïn gañean, eta erretzen cen: eta escatu zuen bere arima guciaïquin eriotzea, eta erran zuen: Obeago zait bicitzea baño iltzea.

9 Eta erran zuen Yaunac Jonasi: ¿ Uste 'izu arrazoñic baïzula untzaïn gatic asertzeco? Eta erran zuen: Arrazoin dut eriotzea deseatu artañocoan disgustatua izateco.

10 Eta erran zuen Yaunac: Zu arrencura zara untzaïn gatic, ceintan ez baïtzara trabajatu, eztare aundiaci; cein gau batez sortu baitzen, eta gau batez il.

11 ¿ Eta eztut nic barcatuco Niniveï, ciudade aundia, ceintan baïtire eun ta oguei mila guizon baño gueyago, eztaquitenac escuñaïn ta ezquerraïn artean cer diferentzia den, eta aciendа aunitz?

We certify that only 250 copies of this work have been printed, of which one is with red borders.

STRANGEWAYS & WALDEN,
(late G. Barclay,)
28 Castle Street, Leicester Square.

LE SAINT ÉVANGILE DE JESUS-CHRIST SELON SAINT MATHIEU
JESUS-KRISTEN EBANJELIO SAINTIA SEN MATHIUREN ARAUERA

Emmanuel Ichauspe
Zuberotarrez
Bayonne
1856

Originala: Gipuzkoako Foru Diputazioaren Biblioteka

LE SAINT ÉVANGILE

DE

JÉSUS-CHRIST

SELON SAINT MATHIEU,

TRADUIT EN BASQUE SOULETIN

PAR

L'ABBÉ **INCHAUSPE,**

Pour le Prince LOUIS-LUCIEN BONAPARTE.

BAYONNE,
IMPRIMERIE DE VEUVE LAMAIGNÈRE NÉE TEULIÈRES,
Rue Pont-Mayou, 39.

1856.

JESUS-KRISTEN

EBANJELIO SAINTIA

SEN MATHIUREN ARAUERA,

INCHAUSPE Aphézac

ZUBEROUCO USCARALAT UTZULIRIC

LOUIS-LUCIEN BONAPARTE Printziarentaco.

BAYOUNAN,

ANDÈRE LAMAIGNÈRE ALHABUNXAREN IMPHIMERIAN.

Pont-Mayoüco Khorricün, 39.

1856.

JESU-KRISTEN

EVANJELIO SAINTIA.

SEN MATHIUREN ARAUÉRA.

LEHEN CAPITULIA.

1. Jesu-Krist Dabíten Semiaren, Abrahámen Semiaren oundorióco guthúna.

2. Abrahámec úkhen zían Isaák. Isaákec áldiz úkhen zían Jacób. Jacóbec áldiz úkhen zutían Judá eta háren anayiac.

3. Judác áldiz úkhen zutían Farés eta Zará Thamaregánic. Farésec áldiz úkhen zían Esrón. Esrónec áldiz úkhen zían Arám.

4. Arámec áldiz úkhen zían Aminadáb. Aminadábec áldiz úkhen zían Naasón. Naasónec áldiz ukhen zían Salmón.

5. Salmónec áldiz úkhen zían Boóz Rahabegánic. Boózec áldiz úkhen zían Obéd Ruthegánic. Obédec áldiz úkhen zían Jesé. Jeséc áldiz úkhen zían Dabít erreguia.

6. Dabít erreguiac áldiz úkhen zían Salomón, Uriaren emázte ízan zenagánic.

7. Salomónec áldiz úkhen zían Roboám. Roboámec áldiz úkhen zían Abiás. Abiásec áldiz úkhen zían Asá.

8. Asác áldiz úkhen zían Josafát. Josafátec áldiz úkhen zían Jorám. Joramec áldiz úkhen zían Oziás.

9. Oziásec áldiz úkhen zían Joathám. Joathámec áldiz úkhen zían Akház. Akházec áldiz úkhen zían Ezekhiás.

10. Ezekiásec áldiz úkhen zían Manasé. Manaséc áldiz úkhen zían Amón. Amónec áldiz úkhen zían Josiás.

11. Josiásec áldiz úkhen zutían Jekhoniás eta háren anayiac, Judioúen Babilónerat eramaítéco demborán.

12. Eta Babilónerat eramánic ízan oundoúan, Jekhoniásec úkhen zían Salathiél. Salathiélec áldiz úkhen zían Zorobabél.

13. Zorobabélec áldiz úkhen zían Abiúd.

— 7 —

Abiúdec áldiz úkhen zian Eliazim. Eliazímec áldiz úkhen zian Azór.

14. Azórec áldiz úkhen zian Sadók. Sadókec áldiz úkhen zian Akhím. Akhímec áldiz úkhen zian Eliúd.

15. Eliúdec áldiz úkhen zian Eleazár. Eleazárec áldiz úkhen zian Mathán. Mathánec áldiz úkhen zian Jacób.

16. Jacóbec áldiz úkhen zian Joséf, Mariaren senhárra; eta Mariagánic sórthu da Jésus, Krist déitzen déna.

17. Ba-díra árren órotan, Abrahametáric Dabitetára hamaláu guizoun araldía; eta Dabitetáric Babilonerát joúan ordártio hamaláu guizoun araldía, eta Babilonerát joúan ordútic Jésu-Kristetára hamaláu guizoun araldía.

18. Hóula ordian héltu zén Jésu-Kristen sórtzia : Maria, háren amá, ezcoúntu zénian Joseféki, alkharganátu gábe, guerthátu zén izórra Espíritu Sáintiaren berthútez.

19. Joséf háren senhárra, guizoun chuchéna bei-tzén, eta ez-pei-tzian laidostátu náhi, ichílic háren igórtera ekhárri zén.

20. Hóric gogoúan zarabiltzaláric, aguértu

— 8 —

zéyon lótaric Jáunaren Aingurú bat eta érran zéyon : Joséf, Dabíten semía, ez-tezazúla úkhen beldúrric Maria zoúre emaztíaren etchekítez, ézi hártan sórthu déna Espíritu Sáintiaganic dúzu.

21. Sórthuren dizu semé bat eta emánen déyozu Jésus izéna, ézi hárec dizu bére populía salbatúco bére bekhatiétaric.

22. Hóri óro éguin izán da, bétha lédin Jincouac profetáz érran zian hítza :

23. Birjiná izórra guerthatúco da, eta ukhénen du semé bat, zoúñen izéna bei-táte *Emmanuél ;* érran náhi béi-ta, *Jincoua-gouréki.*

24. Iratzárri zénian Joséf, éguin zian Aingúriac manhátu zéyona, eta etchéki zian bére emaztía.

25. Eta haréki ezagutzéric úkhen gábe, érdi zén bére léhen semíaz eta éman zéyon Jésus izéna.

II CAPITULIA.

1. Sórthu zénian Jésus Bethleéme Judáco hirian, Heródes erreguiaren egunétan, Májiac ékhi-jaikiguiátic jin zirén Jerusalémera;

2. Eta galthátu zién : noún da Judiouén errégue sórthu berría ? ézi ikhóusi dúgu háren izárra ékhi-jaikiguián eta jin guira háren adoratzéra.

3. Hóri éntzun ziánian, izitu zén Heródes erreguia, eta Jerusaléme óro haréki.

4. Eta bilduric Aphézen guehién guziac eta populiari Légue-eracasliac, galthátu zéyen, noún béhar zían Kristec sórthu.

5. Eta héc érran zéyouen : Bethleéme Judácouan; ézi hóula da Profetác izkiribatúric :

6. Eta hi Bethleéme, Judáco lúrra, é-hiz éz Judáco híri guehiénetan tchipiéna, ézi hitáric elkhicó duc, Israél éne populia gobernatúren dian burozuguia.

7. Ordían Heródesec, Májiac berhéz déithuric, galthátu zéyen arrancuraréki noúiz aguértu zéyen izárra.

— 10 —

8. Eta igórri zutian Bethleemerát, erráiten zéyelaric : zouazté, argudía ziteyé chehéki háur hártzaz eta ediren dukeziénian, jákin-eráz czadazie, ni ére joúan nádin háren adoratzéra.

9. Hóurac, errégue éntzun oundoúan, abiátu zirén, eta houná noún aitzinían ba-douakén ékhi-jaikiguián ikhóusi zién izárra, hél ártio háurra zén lekhiala noún ukhurátu bei-tzén.

10. Izárraren ikhoustiári boztario handítan járri zirén.

11. Eta sárthu zirénian etchían, ediren zién háurra, Maria bére amáreki, eta ahózpez emánic adorátu zién ; guéro bére tresóruntziac zabaltúric, esténtu zeitzouén bére emáitziac : úrhe, inxénxu eta mirha.

12. Eta mezutúric lótaric e-litían útzul Herodesenganát, béste bidé batetáric utzúli zirén bére herrialát.

13. Hóurac joúan zirénian, Jáunaren Ainguría aguértu zéyon Joséfi lótaric eta érran zéyon ; jáiki zite, hár etzátzu háurra eta háren amá eta ihési eguizu Egiptarát, eta hán égon zite

— 11 —

nic érran ártio; ézi Heródes ebilico dúzu háurraren oundoúan háren gál-erázteco.

14. Jáiki zén Joséf, hártu zutian háurra eta háren amá gaihalára eta joúan zén Egiptarát.

15. Eta hán égon zén Heródes hil ártio: bétha lédin Jincouac profetáz érran zian hitza: Egiptatic erakhárri dut éne Semia.

16. Ordian Heródes, ikhousíric Májcc inganátu ziéla, gáizturic járri zén, eta igórri zian, Bethleémen eta ungurúne guziétan, bi úurthe eta gutiágo zién haurrén óroren ehoitera.

17. Ordian béthe zén Jeremía profetáren errána:

18. Oihu erántzun da Arráman, nigar eta heyagóra hánitch: Rachél da nigárrez bére háurrer dóluz, eta éz-ta náhi counsolátu eztirélacoz.

19. Heródes hil zénian, Jincouaren Ainguría aguértu zéyon Joséfi lótaric Egiptan,

20. Eta érran zéyon: jáiki zite, hár etzátzu háurra eta háren amá eta zouáza Israeléco lurretarát; ézi hil dutúzu háurraren hil-erázi náhiz zabilzánac.

— 12 —

21. Jáiki zén Joséf, hártu zutian háurra eta háren amá eta jin zén Israeléco lurretarát.

22. Béna éntzunic Archelaús zéla Judéan errégue, Heródes bére aitáren ordári, lóxa izan zén harát jouáitera; eta lótaric ahólku ukhénic, baztérin zén Galiléaco gaintietarát;

23. Eta jin zén Nazaréth déitzen dén hirialát egóitera: bétha lédin profetén érran háu: Nazarethárra déithuric izánen da.

III CAPITULIA.

1. Orduco egunétan, jin zén Jouháne Báptista pheredicatzéra Judeáco bortiétan;

2. Eta zióuan: peniténtzia eguizie, húllan da ézi zeliétaco erresoumá.

3. Hártzaz zén mintzo Isaía profetá zioudnian: bótz bat óihuz ari da bortian: apháñ ezazie Jáunaren bidia; chúchent etzatzié haren chendác.

4. Jouháneren souñecoúa khamélu bilhoz eguinic zén eta lárruzco guerricó bat ekhárten zían: háren janharía áldiz iguélac eta básа eztía zirén.

5. Ordian harengána jálkhiten zén Jerusaléme eta Judéa óro, eta Jordanéco ungurúne guzía.

6. Eta batheyía harengánic hártzen zién, bére bekhatiac cofesátzen zutiélaric.

7. Ikhousíric Farisienetáric eta Sadduzeene-

— 14 —

táric hánitch jiten ziréla háren batheyiala, érran zéyen: súgue castá, noúre eracáxi deizié gáña héltu zaizién colerári ihési eguíten?

8. Eguitzié árren doluménari douazcón eguitatiac.

9. Eta ez-tezaziéla érran: Abrahám áita dúgu: ézi nic erráiten deiziét, Jincouac hárri hoiétaric Abrahámen háur sór-eráz diokiála.

10. Oraidánic aiscorá zuhañén herrouétara da; eta frútu hoúnic ekhárten ez-tién zuháñac óro móuzturic izánen dira eta suyalát ourthikirie.

11. Nic batheyátzen zutiét hoúrian, dolumenétan sár zitcyén; béna éne oundótic jiten déna ni benouagoúa da, ez-péi-niz háren houñetacouén ére ekhárteco háizu. Hárec batheyatúco zutié Espíritu Sáintian eta sóyan.

12. Eskian du bére bahia eta chahatúco du bére ezcarátza; bilduren du ógui bihía bére bihiteguietarát, eta lastoúa erre-crázico du jagóiti hilen ez-tén súyan.

13. Ordian jin zén Jésus Galiléatic Jordanéra Jouhanegána, hártzaz batheyatúric izáteco.

— 15 —

14. Béna Jouhánec guibéltzen zian, erráiten zeyoláric : nic dizut béhar zútzaz batheyatúric izan, eta zú enegána jíten zira?

15. Ihardéxi zéyon Jésusec : útz nezázu béhin ; ézi hóla béhar ditizúgu gúc oúnxa dirénac óro éguin. Ordian Jouhánec útzi zian.

16. Batheyátu eta berhála Jésus élkhi zén hoúretic. Eta hainbesteréki zeliac idéki zirén, eta ikhoúsi zian Espiritu Sáintia jáixten urzó báten udurian eta háren gáña pháusatzen.

17. Eta ordu bérian, bótz bat erántzun zén zelútic : haú da éne séme maitía, zouñtan ezári béi-tut éne gogoúa.

IV CAPITULIA.

1. Ordian Jésus izan zén Izpirítiaz bortú baletarát eramánic , débriaz tentatúric izáteco.

2. Eta bárour égon oundoúan berróguei egúnez eta berróguei gáyez, guerócoz gosétu zén.

3. Eta tentazalía hullantúric érran zéyon : Jincouaren semía ba-zira, errázu hárri hóric óguit ditian.

4. Ihardéxi zéyon Jésusec : éz-ta oguía guizoúnaren bizigárri bakhótcha, béna Jincouaren ahótic élkhitzen dirén elhiac óro.

5. Ordían débriac eráman zían hiri sáintiala eta ezári zían temploáren goihenian.

6. Eta érran zéyon : Jincouaren semía ba-zira, ourthiki zíte behéra, ézi izkiribatúric dúzu : bére ainguriér mánu éman dízu zoúre beguirátzez , eta bére eskiétan eramánen

— 18 —

zutic, zoûre hoûña behaztópa ez-tádin hárri zoumbáitetan.

7. Ihardéxi zéyon Jésusec : balabér izkiribatúric duc : ez-túzu tentatúco zoûre Jinco Jáuna.

8. Bérriz hártu zian débriac eta eráman méndi góra-gorá batetára ; eta eracóuxi zéitzon mundúco erresoúma guziac eta hayén edertarzúna ;

9. Eta érran zéyon : hóric óro emánen déitzut, luherrásturic adorátzen ba-náizu.

10. Ordian Jésusec érran zéyon : ábil-hoûa satán ; ézi izkiribatúric duc : zoûre Jinco Jáuna adoratúren dúzu eta hoûra béra dúzu zerbutchatúren.

11. Ordian útzi ziau débriac : eta hainsárri hullántu zeitzón ainguriac eta zerbutchátu zién.

12. Entzun ziánian Jésusec préso hárturic izan zéla Jouháne, joûan zén Galilearát.

13. Eta útziric Nazaréthe hiría, jin zén egóitera Cafarnaûme itchúso-oundocoûan, Zabulóneco eta Nefthalico muguétan.

14. Bétha lédin Isaía profetác errána :

15. Zabulóneco lúrrac eta Nefthalico lúrrac,

— 19 —

Jordánez beste áldian itchas-bazterrían direnéc, arrotzén Galileác;

16. Ulhunpétan zágouan populiac ikhóusi du árgui handi bat; eta herioûaren itzal-péco herrían járriric zaudenér aguértu záye arguia.

17. Ordútic hási zén Jésus pheredicátzen eta erráiten : peniténtzia eguizie, ézi húllan da zeliétaco erresoumá.

18. Ba-zoualáric báda Jésus Galiléaco itchas-baztérra gáinti, ikhóusi zutian bi anáye : Simoún, Phetíri déithia, eta Andréu háren anayia, sariareu itchasoualát ourthikítzen, (ézi arrantzále zirén).

19. Eta érran zéyen : jarráiki zakizkayé eta guízouu-arrantzále eguinen zutiét.

20. Eta hóurac berhála, útziric sariac, jarráiki zéitzon.

21. Hántic aitzinágo jouánic, ikhóusi zutian béste bi anáye, Jacóbe Zebedéen semía eta Jouháne haren anayia, ountzi batétan Zebedé bére aitáreki, bére sarén apháintzen ári, eta déithu zutian.

22. Eta hóurac berhála, sariac eta aita útziric, jarráiki zéitzon.

— 20 —

23. Eta ba-zabilan Jésus Galiléa guzian, Judiouén bilkhurétan eracástez, zelúco erresoumáren Ebanjelioúaren pheredicátzez, zóñbo eta eritárzun guzién populiaren ártian sendótzez.

24. Eta háren oména barreyátu zén Siria órotan, eta ekhárri zéitzouén éri zirénac óro, zér náhi minez édo gáitzez hárturic izan zitian; débrieki zirénac, lunaticouac, paraliticonac, eta óro sendótu zutian.

25. Eta jénte ózte hándi elibat jarráiki zéitzon Galiléatic, Decapolitic, Jerusalémeric, Judéatic eta Jordánez haráintitic.

V CAPITULIA.

1. Saldo hándi hoúrac ikhoúsi zutiánian, Jésus igañ zén mendi batetára, eta járri zénian, hullántu zéitzon bére dizipuliac.

2. Eta elhia hárturic, hási zéyen eracásten, zioualáric:

3. Dohákzu dira gógoz práube dirénac: hayéna béi-ta zeliétaco erresoumá.

4. Dohákzu ézti dirénac: lúrraren jábe izánen bei-tira.

5. Dohákzu nigárrez dáudenac; hóurac izánen bei-tira counsolatúric.

6. Dohákzu ounxáren góse eta egárri dirénac; hoúrac asérie izánen bei-tira.

7. Dohákzu misericordioúsac, misericórdia hayéc ardiéxiren bei-tie.

8. Dohákzu bíhotz chahiac, Jincoua ikhousiren bei-tie.

9. Dohákzu baketiárrac, Jincouaren háurrac izánen bei-tira déithuric.

— 22 —

10. Dohàxu ounxágatic goitzárren igoúrzten diénac, hayéna béi-ta zeliétaco erresoumá.

11. Dohàxu ziratekeyé, enegátic laidostátzen eta eskerniátzen zutukeyénian, eta zérnahi gáizki erráiten dukeyénian guezúrrez zien coúntre :

12. Bótz ziteyé eta alaguéra, zéren hándi béi-ta zien phákia zelian : ézi bér guisán eskerniátu dutie zien aitzinéco profetác.

13. Ziec zirayé lúrreco gátza ; gatzózten bá-da gátza, zérez gazitúco da ; éz-ta habóro déusentaco hoún, camporát ourthikitzéco eta igarállen hoún-pétan zapatzéco báizic.

14. Ziec zirayé mundiaren arguia : ez-táite górda méndin-gáñen eguina dén hiria.

15. Eta ez-tie phízten argui bat gaitzúrupian ezárteco, béna ezárten die khandeléraren gáñen, etchénco guzién arguitzéco.

16. Halabér árgui béza zien arguiac guizounén aitzinian, zien óbra hounén ikhoústez goréx dezén zien Aita zeliétan déna.

17. Ez oúste úkhen jin nizála leguiaren édo profetén háustera ; é-niz jin háustera béna bái bethatzéra.

— 23 —

18. Eguiáz erráiten deiziét : zelia eta lúrra léhen igaránen díra, eziez leguian dirénac óro egónen bei-tira éguin gábe, i batetára eta tiletá batetaráno.

19. Noúre-ere háuxeco béi-tu mánu hétan dén tchipiénetaric bát eta hála eguíten eracaxíco, gutiéxia izánen da zeliétaco erresoumán : noúre-ere beguiratúren beitútu eta beguirátzen eracaxico béi-tu, hoúra hándi izánen da zeliétaco erresoumán.

20. Dióziet ézi : ez-páda zien justotarzúna Legue-eracasléna eta Farisiénena béno hóbe, e-tzirayé sárthuren zeliétaco erresoumán.

21. Entzun duzie lehenagocouér erránic izan déla : éz-tuc ehóren eta guizoun ebóilia coundenatúric izánen da jujamentiaz ;

22. Nic áldiz erráiten deiziét, bére anayíaren coúntre gáizten dénari zór záynla jujaméntuz coundenatúric izátia ; bére anayiari, Ráca, errailiári, zór záynla counselliaz coundeuatzia ; eta, erhó bat iz, errailiári, zór záyola ifernúco súya.

23. Ekhárten ba-dúzu árren zoúre emáitzia althariala, eta hán orhitzeu ba-zíra zoúre anayíac ba-diála zerbáit zoúre coúntre.

— 24 —

24. Utz ezázu hán zoûre emáitzia eta zouiza lehénic zoûre anayiareki báketzera ; eta guéru jinen zira zoûre oberendáren eskentzéra.

25. Jár zite léhen-béno-léhen zoûre exáyareki bákian, haréki bidian zouazáno ; beldúrrez jujiaren eskiétan ézar zitzan exáyac eta jujiac bére manuzpécouari éman zitzan, eta presounteguialát izan zitian igorriric.

26. Eguiáz erráiten déizut, e-tzira hántic élkhiren, ázken ardita pluáca ártio.

27. Entzun duzie errânic izan déla lehenagocouér : é-hiz nahasico bestéren emaztéki.

28. Nic áldiz erráiten deiziét : noûre-ere só eguinen bei-téyo emazté báti harenganátu nahiareki, ordútic bére bihotzian haréki nahási déla.

29. Hire bégui escúña gálgarri bá-da hiretáco idók ézac eta ourthiki hitáric húrrun, ézi hobé duc hiretáco hire mémbrietaric bát gál dezayán, eziez hire khorpitza óro izan dádin ifernialát egotchíric.

30. Eta hire éscu escúña gálgarri bá-da hiretáco, moútz ézac eta ourthiki hitáric húrrun; ézi hobé duc gál dádin hire mémbrietaric bát, eziez hire khorpitza óro ifernialát joûan dádin.

— 25 —

31. Errâna da oráno : noûre-ere igorrico béi-tu bére emaztia, éman dizóla útzi diálaco jakilegouá.

32. Nic áldiz erráiten deiziét, noûre-ere igórten béi-tu bére emaztia, bestéki nahási eztén bér, bérac theyu-erázten diála ; eta hóla igórri emaztiaren harzalia theyútzen déla.

33. Entzun duzie oráno nouzpaitcouér errânic izan déla : éz-tuc zina háuxeco, béna Jincouari éguin dutuyán zinac etchekico dútuc.

34. Nic áldiz erráiten deiziét, ez-tezazién éguin zinic bátere ; éz zeliaz, Jincouaren jarguiá délacuz ;

35. Ez lúrraz, báren hoûñ-pétacoua délacoz ; éz Jerusalémez, Errégue handiaren hiria délacoz.

36. Ez eta zoûre buríaz ez-tezazúla zinic éguin, ez-pei-tezakézu choûri-eráz édo béltzeráz bíllo bakhótch bat ére.

37. Béna izan bédi zien ellúa : bái, bái ; éz, éz ; habóro erráiten dirén elhíac, oundorio gaistótic jiten dira.

38. Entzun duzie errâna déla : beguia beguiaren, hórtza hórtzaren.

— 26 —

39. Nic áldiz erráiten deiziét, e-tziteyén búhurt gaistoúari: béna nourbáitec jóiten bazúlu escúñeco machelán phára ezózu bestia.

40. Eta nálti bá-da nourbáit debádiotan sárthu zouréki, éta hártu náhi ba-déizu saioúa, útz ezúzu oráno capá.

41. Eta nálti ba-déizu nourbáitec beréki míla úrhax eguin-erázi; eguiózu eta bestéric bi míla.

42. Galthátzen déizunari emoúzu, eta e-tzitiála guibélaz útzul jésan náhi déizunari.

43. Entzon duzie errána ízan déla: maithatúren dúzu zoúre khíde lagúna, eta hástio ukhénen dúzu zoúre exáya.

44. Nic áldiz erráiten deiziét: máitha etzatzie zien exáyac, hoúuki eguízie húgu zutienér eta óthoi-eguizie zien eskerniazalén eta gaízki-saltzalén.

45. Izan ziteyén zien Aita zeliétan dénaren háur, zoúñec jáiki-erazten béi-tu bére ekhía hoúnetara eta gaistouétara, eta euría ichóurten jústu diréneiara eta ez-tiréneiara.

46. Ezi ez-pa-dutuzié máite zutiénac báizic maithátzen, zér pháeu zór zaikezie? ez-tiéya hóri publicánouec ére eguiten?

— 27 —

47. Eta zien aurhidér báizic ez-pa-duzie bátze-hoún eguiten, bestéc eguiten ez-tiénic zér eguiten duzie? pagánouec ére ez-tiéya hainbéste eguiten?

48. Izan ziteyé árren ziec óro-hoún, zien Aita zelucoúa óro-hoún dén bezála.

VI CAPITULIA.

1. Gogo-Emazie zien óbra hounén éz eguitez guizounén aitzinian, hétzaz ikhousiric izatiagátic, bestéla ez-tuzie phácuric ukhénen zien Aita zeliétan denagánic.

2. Emáiten duzunian árren amoniná, e-tzitiála ári troumpetóxez zjháuren aitzinian, hounetaco igáran nahiéc eguiten dién bezála, bilkhurétan eta kharrikétan, guizounéz goréxiric izáteco. Eguiáz dioziét, úkhen die bére phákia.

3. Béna zúc eguiten duzunian amouiná, eztezála jákin zoúre éscu eiskérrac zér eguiten dian escúñac:

4. Izan dádin zoúre amouiná gordéric; eta zoúre Aitac ikhóusten bei-túru gordéric diránac, emánen déizu phákia.

5. Eta othoitzétan ári zirayénian, éz éguin Jincotiár falxiéc bezála, zoúñec máite bei-tie bilkhurétan eta kharrica buriétan chúti othóitzen aritzia, jentéz ikhousiric izáteco: eguiáz dioziét, úkhen die bére phákia.

6. Zúc othóitze éguin guéi duzunian, sár zite zoúre khamberán, eta borthá zerratúric, zoúre Aita gordéric óthoi ezázu, eta zoúre Aitac gordian ikhoústen béi-tu, emánen déizu phákia.

7. Othoitze eguitian áldiz, e-tzitiála hánitch míntza, pagánouen guisa, zoúñec oúste bei-tie hánitch élhe erráitez éntzunic izánen diréla.

8. Ez izan hoúrac udúri, ézi ba-dáki zien Aitac zéren behárra duzién, zíec galthátu béno léhen.

9. Hoúnla árren ziec othoitúren duzie: Goúre Aita zeliétan ziréna, erábil bédi sáintuki zoúre izéna.

10. Zoúre erresoumá jin bekígu; zoúre boronthatia éguin bédi zelían bezála lúrrian ére.

11. Igúzu égun bizitzéco béhar dúgun oguía.

12. Eta phárca etzagútzu goúre zórrac, gúc góuri zordunér pharcátzen dutúgun bezála;

13. Eta ez-kitzatzúla útzi tentaziónian erórtera, béna beguira guitzátzu gáitzetic. Hálabiz.

— 31 —

14. Ezi ziec pharcátzen ba-déitzezie guizounér hayén oguénac, zier ére zien Aita zelucoúac pharcatúren déitzie zien gaizkiguinac.

15. Béna ziec ez-pa-deyézie pharcátzen guizounér, zien Aitac ez-téitzie zier ére pharcatúren zien bekhatiac.

16. Bárour eguiten duziénian e-tziteyéla jár tristetúrie Jincotiár falxién guisa : ézi hayéc tzúrtzen dutié bére beguithártiac, bárour diréla jentér cracoustéco. Eguiáz dioziét úkhen diéla bére phákia.

17. Bena zúc baróurtzen duzunian, beréca ezázu zoúre buría eta zoúre beguithártia gárbi ezázu ;

18. Ez-tezázun ikhóustera éman guizounér bárour ziréla, béna zoúre Aita gordian dénari, eta zoúre Aita gordian ikhóusten diánac emánen déizu phákia.

19. E-tziteyéla ári lúrrian hountárzun athétzen, hán erdollác eta zerrénac játen dútu; hán ouhouñéc zilátzeo eta ebásten dutie.

20. Béna bil ezazíc hootárzun zelian; hán ez-péi-tu éz erdollác, éz zerrénac játen : hán ez-pei-tíc ouhouñéc zilátzen éz ebásten.

— 32 —

21. Ezi noún-ere béi-ta zoúre tresóra, hánere dúzu zoúre bihótza.

22. Zoúre khorpítzaren arguía zoúre beguía dúzu. Zoúre beguía cháhu há-da zoúre khorpítza óro árgui dukézu.

23. Béna gáisto há-da zoúre beguia, úlhun dukézu zoúre khorpítza óro. Báita zútan dén arguía úlhun há-da, zér diráte ulhumpíac bérac ?

24. Ihourc ez-tezáke bi náusi zerbútcha : ézi, édo batá hástio ukhénen du eta bestía maithatúco du : édo batári etchekíco da eta bestia gaitzéxiren du. Ez-tezakezie zerbútcha Jincoua eta diharia.

25. Hartácoz dioziét, ez-tuziéla anxiáric bizitzéco zér jánen duzién, éz khorpítza zértzaz estalíco duzién : ez-tá bizía, janharia béno habóro ; eta estalguía béno habóro, khorpítza ?

26. Soguizié airéco tchoriér ; ez-tíc eréiten, ez bíltzen, ez bihiteguiétan athétzen ; eta zien Aita zelucoúac házten dútu; e-tziréya ziec hoúrac béno hanitchez habóro ?

27. Nnúre dezáke, zoumbát-náhi gogozcatúric, besó bátez góra bére handitarzúna?

28. Eta souñecouéz zértaco arrancurátzen zirayé? Soguizié alhorrétaco liliér, noúla handitzen dirén: ez-tie lánic eguiten, ez-tie urúten:

29. Báita diozié, Salomón bére lória handiénian e-tzéla hoyéturic bát bezañ edérki beztitúric.

30. Othían, alhorréco belhár bat égun ehúti déna eta bihar labialát ourthikiric izánen déna, hóla Jincouac beztitzen bá-du, zoumbát hobéki ziec e-tzutie beztitúren?

31. E-tziteyéla árren inkiéta, zér jánen dúgu, óxez, édo zér edánen dúgu, édu zértzaz beztitúren guira?

32. Hoyén guzién oundoúan pagánouec lankhéi hártzen die. Ba-dáki zien Aitac hoyén óroren behárra ba-duziéla.

33. Tehérkha ezazie árren lehénic Jincouaren erresoumá éta háren justiziá, eta hóric óro gañerátic emánen zaitzié.

34. E-tziteyéla árren izan biharaménaz lankhéixu: ba-dúke biharaménac bére lankhéia; egúnac aski du bére gáitzu.

—

VII CAPITULIA.

1. Ez-tezaziéla júja e-tziteyén izan jujatúric.

2. Ézi noúl'ere jujátu bei-tutukezie bestiac, hála izánen zirayé jujatúrie: eta bestiac izártu dutukezién izarian, izánen zirayé izárturic.

3. Zértaco sóguiten dúzu zoúre anayiaren beguian buruscá báti, eta soumér bat ez-túzu ziháuren beguian ikhousten?

4. Edo noúlaz diózu zóure anayiari: záude, khén dizazúdan beguian dúzun buruscá, ziháurec duzulárie soumér bat zoúre beguian?

5. Falxía! khén ezázu lehénic souméra zoúre beguitie, eta guéro ikhousico dúzu noúla idóki buruscá zoúre anayiaren beguitie.

6. Ez éman gáiza sáintia tchacurrér; eta éz ourthiki ourdén aitzintala zien perlác, zán-

kho-pétan hár ez-titzén, eta zihaurér oldárturic úrra e-tzitzén.

7. Gáltha ezazie eta emánen zaizié; tchérkha ezazie eta edirenen duzié; jó ezazie eta idékiren zaizié.

8. Ezi galthátzen diánac ukhéiten du; tcherkhátzen diánac ediréiten du, jóiten diánari zabáltzen záyo.

9. Noúr da zien ártian guizoúna, gáltha halizó bére semíac ógui, harrí bat éman lizakióna?

10. Edo gáltha ba-léza arráñ bat, éman lizakioúa sugué bat?

11. Eta zíec holatán gáisto zirayélaric bálin ba-dakizie gáiza hoúnen emáiten zien haurrér, zoumbát hobéki zien Aita zelucoúac ez-túru emánen gáiza hoúnac galthátzen deitzoyéner?

12. Zér-ere náhi bei-tuzie éguin dizazién guizounéc, zíec hayér eguiézie: ézi hórtan zerrátzen dira leguia éta profetác.

13. Sár ziteyé bortha hérsitic, ézi hórtha largóuac eta bíde handíac eramáiten du galguiála, eta hánitch dira hán sártzen dirénac.

14. Ala béi-ta tchipi borthá eta hérsi bídia

bethíco bizitzialát eramáiten diána! eta gúti dira hoúra ediréiten diénac.

15. Beguiréizie proféta falxiétaric, zoúñ, árdi lárruz estalírie, jíten bei-tzaitzié, barnétic áldiz óxo chelegátu bátzu dira.

16. Bére frutietáric ezagutúren dutuzie: bíl óthe dáite elhorriétan maháxic édo phicóric naharrétan?

17. Halahála zuháñ hoúnac frútu hoín ekhárten du eta zuháñ gaistoúac frútu gáisto ekhárten du.

18. Ez-tezáke zuháñ hoúnac frútu gaistóric ékhar, éz eta zuháñ gaistoúac frútu hoúnic.

19. Frútu hoún ekhárten ez-tían zuháña, móuzturic izánen da eta suyalát ourthíkiric.

20. Holatán bere frutietáric ezagutúco dutuzie.

21. Éni, Jáuna, Jáuna, errúiliac óro ez-tíra sárthuren zelúco erresoumán; béna éne Aita zeliétan dénaren nahía eguiten diána, hoúra sárthuren da zeliétaco erresoumán.

22. Hanitchec erránen deitayé égun hártan: Jáuna, Jáuna, ez-kirá zoúre izenian mintzátu, ez-tutuguia zoúre izenian débriac uhíltu, ez-

tuguia zoúre izenian miracúllu hánitch éguin ?

23. Eta níc ordian gorátic errámen déyet : egnadáno e-tzutiét ezagúin : zouazté enegánic gaizkiaren eguiliac.

24. Noúre-ere éne érran hóric éntzuten beitútu eta eguiten, hárec udúri du guizoun zuhúr bat zoúñec hárrin-gáñen éguin béi-tu bére etchia.

25. Eta éuri eráunxiac jin dira, eta uharriac abiátu dira, eta aizéc bouhátu die, eta étche hartára erári dira, eta éz-ta izan egotchiric, hárrin-gáñen járria zélacoz.

26. Béna noúre-ere éntzuten bei-tútu éne érran hóric, eta éz eguiten, hárec udúri du guizoun ertzó bat zoúñec éguin béi-tu bére etchia hariñán-gáñen.

27. Eta éuri eráunxiac jin dira, eta uharriac abiátu dira, eta aizéc bouhátn die eta étche hoúra jó die, eta erári da, eta hándi izán da háren eroria.

28. Urhéntu zutiánian Jésusec élhe hóric, ózte hóurac amiratúric zaudén háren eracaspénaz.

29. Mintzo zén ézi buruzágui bezála, eta éz hayén Légue-eracaslén eta Farisiénen guisa.

VIII CAPITULIA.

1. Jésus jáixi zénian mendític, jarráiki zeitzón jénte-ózte handiac.

2. Ordian lepradún bátec, hullantúric, adorátu zian eta érran zéyon : Jáuna, náhi badúzu, sendótzen áhal náizu.

3. Eta Jésusec eskía hedatúric, hoúnki zian erráiten zéyolarie : náhi dizut, séndo zite ; eta órdu bérian sendótu zén háren leprá.

4. Eta érran zéyon Jésusec : beguiréizu ihoúri erráitetic ; béna zouáza, crácoux zite aphézari, eta éskent ezúzu Moisac manhátu emáitzia, jakilegouatáco úkhen dezén.

5. Sárthu zénian Cafarnaúmen, hullántu zéyon ehuntari bat, eta ótboy háu éguin zéyon :

6. Jáuna, ba-dit étchen mithil bat paralisiatúric, éta hánitch sofritzen dizu.

7. Jésusec érran zéyon : jinen núzu eta sendotúren dit.

— 40 —

8. Eta chuntariac ihardéxi zéyon : Jáuna, enúzu díño zú sár zitian éne étchen, béna errázu hítz bat béra eta sendotúren dúzu éne mithila.

9. Ezi ni bestéren manupéco nizaláric, baditit éne pian soldádouac, eta erráiten diót hoúni : ábil, eta ba-douázu ; eta besté báti : áigu, eta jiten dúzu ; eta éne zerbutchariari : éguic hóri, eta eguiten dizu.

10. Háren éntzutiari amiraturic járri zén Jésus eta érran zéyen bére oundocouér : eguiáz dioziét, éz-tut ediren haiñbéste fède Israélen.

11. Hartácoz ére dioziét hánitch jínen diréla ékhi-jaikiguiátic eta itzalguiátic, eta járrico diréla zeliétaco erresoumán, Abrahám, Isaák eta Jacóbeki ;

12. Erresoumáco háurrac áldiz campóco ulhunpétarat ourthikiric izánen diréla : háu beitáte nigar eta hórtz carrásca.

13. Ordian Jésusec érran zéyon chuntariari : zouáza, eta sinhéxi dúzun bezála éguin dakizúla. Eta óren bérian sendótu zéyon mithila.

14. Jésus Phetíriren etchéra jin zén aldi bátez, edireo zian háren áma-guilharrebá elgáitzeki ohian :

— 41 —

15. Hounki zéyon eskia eta elgáitzac útzi zian, eta berhála jáikiric hási zén hayén zerbutchátzen.

16. Arráxa jin zénian, ekhárri zeitzouén débrice hárturic zirén hánitch, eta hítz bátez obiltzen zutíau débriac ; eta éri zirénac óro sendótu zutían.

17. Bétha lédin Isaía profetác errána : bérac hártu dútu goúre zoñtíac eta goúre eritarzúnac egári dútu.

18. Ikhousíric ungurian zutían jénte-ózte bandíac, Jésusec manhátu zian igáran lezén houraren best'áldialat.

19. Ordian hullántu zéyon Légue-eracaslé bat eta érran zéyon : Jáuna jarráikiren nitzáizu, nourát-náhi joúan zitían.

20. Jésusec dió : acheriéc ba-dutíe bére ziloúac, airétaco tchoriéc bére habiác, béna guizoónaren seniac éz-tu noún étzan buria.

21. Bére dizipuliétaric besté bátec érran zéyon : útz nezázu lehénic jouáitera, éhortz dezádan éne áita.

22. Jésusec érran zéyon : jarráiki zakitzat eta béde hílac hílen chórztera.

— 42 —

23. Guéro igañ zén ountziala eta jarráiki zéitzon bére dizipuliac.

24. Eta batbatian jáiki zén itchasoúan irazárri báñ handi bat, noún uháñec estáltzen beitzién ountzia; béra áldiz ló zágouan.

25. Hullántu zéitzon dizipuliac eta irátzarerázi zién, zioyélaric: Jáuna, beguira guitzátzu, gáltzera gouátzu.

26. Jésusec erráiten déye: zéren izitzen zirayé, féde gutitacoúac? Ordian jáikiric, mánu éman zian aizér eta itchasoúari eta éme hándi bat éguin zén.

27. Jentiac harritúric zaudén: zér da háu, óxez, noúren maniac aizéc eta itchasoúac eguíten bei-tutie?

28. Igáran zénian hoúraren best'áldialat, Gerasentárren lurretarát, aguértu zéitzon aitziníala hobiétaric élkhiric, bi behargabédun, háñ gáitzac, noún ez-peitzén ihour ausárt bide hartárie igaráitera.

29. Eta óihuz hási zéitzon: zér da, óxez, zoúre eta goúre árteco, Jésus Jincouaren semía? jin zira órdu-gábe goúre eskerniatzéra.

— 43 —

30. Ba-zén, hétaric éz húrrun, oúrdę sáldo handi bat álha.

31. Débriec othoitu zién Jésus, zioyélaric: hebéntic élkhi-erázten ba-gutúzu igor guitzátzu oúrde sáldo hartára.

32. Erran zéyen: zouazté. Eta hoúrac guizounétaric élkhiric ourdétan sárthu zirén, eta háñ sárri saldoúa óro abiátu zén lauházca garáin-behéra itchasoúalát; eta hoúrian ítho zirén.

33. Ourdáñac áldiz joúan zirén ihési, eta héltu zirénian hiríala, érran zutién hóric óro, behargabedunér ére zér éguin izan zén.

34. Eta berhála hiri guzia élkhi zén Jésusen aitziníala, eta báthu ziénian, othóitu zién, hayén lurretárie húrrunt lédin.

——»«·——

IX CAPITULIA.

1. Ountziala igáñic, hoúra bérriz igáran zian eta utzúli zén bére herrialát.

2. Eta ekhárri zeyouén paraliticó-bat obian etzánic. Jésusec hayén fedia ikhousíric, érran zian paraliticouári : çráikazu bihótza, éne semía, zoúre bekhatiac pharcátu záitzu.

3. Hórtan gáñen Légue-eracásle bátzuc bére béithan zioyén : Bourháu eguitén du guizoun hórrec.

4. Jésusec hayén gogozcác ikhousíric, érran zéyen : zértaco darabiltzazie gogocoúnde gaistoúac zien bihotzétan?

5. Zér da érran-éhiago : zoúre bekhatiac pharcátu záitzu ; ála, jáiki zite eta ébil zite.

6. Jákin dezazién árren Guizoúnaren semiac ba-diála lúrrian bekhatién pharcatzéco photería, érran zéyon paraliticouári : jáiki zite, hár ezázu zoúre ohía eta zouáza etcherát.

7. Eta jáiki zén eta joúan zén etcherát.

8. Hórren ikhoústiac harritu zutían jentiac, eta Jincoua goréxten zién éman ziálacoz holáco photéria guizounér.

9. Eta hántic aitzina zouálaric, ikhoúsi zían guizoún bat legarteguian járriric, Mathiú déitzen zéna, eta érran zéyon : jarráiki zakitzat. Eta berhála jáikiric jarráiki zéyon.

10. Báita guerthátu zén, Jésus háren étchen zélaric barazcáitan, jin zitían hára legarcári eta guiza-tzár hánitch Jesuséki eta háren dizipulíeki barazcáitara.

11. Hóri ikhousíric Farisienéc érran zéyen dizipuliér : zértaco zien buruzaguiac játen du legarcariéki eta guiza-tzáreki?

12. Jésusec éntzun bei-tzutían érran zéyen : ez-tíe oúnxa direnéc atchetér behárric béna bái éri direnéc.

13. Zouazté eta ikhas ezazie zér érran náhi dén : misericordiá naitiágo dut eziez sacrifizioúa ; é-niz ézi jin justouén déitzera béna bekhatorén.

14. Ordían hullántu zéitzon Jouháneren dizipuliác eta érran zéyouen : zértaco gúc eta Farisienéc ardúra bárour eguiten dúgu, eta zoúre dizipuliéc áldiz ez-tíe baroúrtzen?

— 47 —

15. Jésusec ihardéxi zéyen : ezcountzaliaren lagunéc béhar diéya nigar éguin hayéki dágoueno ezcountzalia? jinen dira egúnac, élkhiren bei-téye ezcountzalia, éta ordian bárour eguinen die.

16. Ihourc éz-tu ezárten soúñeco zahár báti bethatchú bat óihal bérriz, bestéla berriac zahárra urratúren du eta zílo handiágoua eguinen da.

17. Ez-tic ezárten ardoú berria zahágui zaharrétan ; bestéla lehértzen dira zahaguiac eta ardoúa ichoúrten, eta zahaguiac gáltzen. Béna ezárten die ardoú berria zahágui berriétan eta biac beguirátzen dira.

18. Hoyén erráiten zélaric, aitzindari bat hullántu zéyon, adorátu zian eta érran zéyon : Jáuna, alhabá orai - bérian hil zitazut ; béna tziáuri, zoúre eskia gáñen pháusa ezózu, eta bizico dúzu.

19. Jáiki zén Jésus eta jarráiki zéyon bére dizipuliéki.

20. Eta emazté bat, hamabi oúrthe hártan odol-gáltze baték zéna, hullántu zéyon guibelétic, eta hounki zian háren souñecoúaren baztérra.

— 48 —

21. Ezi gogoúan igaráiten zian : hoúnkiten ba-déyot ezpére souñecoúa sendotúric niz.

22. Jésus utzúli zén, eta hoúra ikhousiric érran zéyon : bihótza eráikazu, éne alhabá, zoúre fediac séndo-erázi zútu. Eta órdu béretic sendotúric izan zén emaztia.

23. Héltu zénian Jésus aitzindariaren etchéra, eta ikhoúsi zutiánian hán tchurulariac eta jentétze beróxti hándi bat, érran zéyen :

24. Zonazté hebéntic : ézi háur hóri éz-ta hilic béna ló dágo. Eta érriz ári zéitzon.

25. Elkhi-erázi zénian jénte-ózte hoúra, sárthu zén Jésus; hártu zéyon eskia eta jáiki zén nescatilá.

26. Eta barreyátu zén bérri hóri ungurunéco hérri guziétan.

27. Hántic zoualaric Jésus, jarráiki zéitzon bi úxu óihuz ári zéitzolaric : ukházu pietáte gútzaz, Dabiten semia.

28. Héltu zénian etchéra hullántu zéitzon uxíac : eta érran zéyeu Jésusec : oúste dozie ziec náhi duziéna éguin dizakeziédala? erráiten deyoué : bái, Jáuna.

29. Ordian hoúnki zéitzen begniac, zioualáric : zien sinhestíaren aráu éguin bekizie.

— 19 —

30. Eta hayén beguiac idéki zirén; eta Jésúsec mehatchuéki érran zéyen : beguiréizie ihourc jákin ez-tézan.

31. Béna hayéc, joúan eta, sallhátu zién hánco bérri órotan.

32. Hoúrac élkhi zirénian, ekhárri zéyouen guizoun mutú bat behargabéki.

33. Ohiltu ziánian débria, mutia mintzátu zén, eta jentíac harritúric zaudén : Egundáno, óxez, éz-ta holacóric Israélen aguértu.

34. Farisienéc áldiz zioyén : debrién guehiénaz élk'erázten dútu débriac.

35. Eta Jésus ba-zabílan hiríac eta herríac gáinti, bilkhurétan eracásten ári zélaric, ezágut-erázten ziálaric zelúco erresoumáren Ebanjelioúa, eta sendótzen zutiálaric eritárzun eta zóñhu guziac.

36. Jente - ózte hayén ikhoústiac boúnki zéyon bihótza; ziélacoz ezintúric eta etzánic, artzáin gábe dirén ardiac bezála.

37. Ordian érran zéyen bére dizipuliér : uztác hánitch díra eta lánguiliac áldiz gúti.

38. Othuy ezazie uztén naúsia igor dézan lánguile bére uztetarát.

X CAPITULIA.

1. Jésusec bére hamabi dizipuliac déitlu zutían, eta éman zéyen photeria izpíritu gaistouén ohiltzéco, eta zér-nahi eritarzúnen eta zoñhúren sendotzéco.

2. Hamabi dizipulién izénac hóric díra : lehéna Simoún, Phetíri déitzen déna, eta Andréu háren anayía ;

3. Jacóbe Zebedéen semía eta Jouháne háren anayía : Filipe eta Bartolóme ; Thomás eta Mathiú legarcaria ; Jacóbe Alféen semía eta Thadé ;

4. Simoún Canácoua, eta Judás Iscarióta, Jésus sáldu ziána.

5. Hóric hamabiac igórri zutían Jésusec, mánu hoyéki : e-tziteyéla joúan paganouén lurretarát, éz eta súr Samaritanouén herriétau.

6. Béna lehénic zouazté Israeléco árdi galdietára.

7. Eta jouáiten zirayén álde órotan phere-

dica ezazie, diózielaric : hullántu déla zeliétaco erresonmá.

8. Eriac séndo etzatzie, hílac phítz-eráz etzatzie, lepradúnac cháha, eta óhilt débriac : dohañ úkhen duzie, dohañ emazie.

9. Ez úkhen urhéric, éz zilhárric, éz béste diharúric zien guerricouétan ;

10. Ez alphorjáric bidéco, éz bi souñecóric, éz oskíric, éz makhilárie ; languiliac merézi du bére janharia.

11. Zoúñ-náhi hiritan édo etchétan sár ziteyén, argudía ziteyé noúr dén hán béharbezaláco dénic, eta háren étchen égon ziteyé hántic elkh'ártio.

12. Etchian sartziaréki, hoúnki-báth eguiózie, erráiten duziélaric : bákia étche hoúni.

13. Eta béhar-bezaláco bá-da étche hoúra, ziec énan bákia jinen záyo, eta merézi ezpádu, zien bákia zihaurtara utzalico záizie.

14. Eta noorbáitec e-tzutukeyénian náhi hárta, eta zien elhér behátu náhi ez-tatekiénian : zouazté étche édo hiri hartúric cámpo, eta iharráus ezazie zien hoúñetaco erháuxa.

15. Eguíáz dioziét : eztiágo izánen da judi-

zióneco egúna Sodomatárren eta Gomorhatárren ezíez hiri háren.

16. Igórten zutiét ardiac oxouén ártiala bezála : izan ziteyé árren zúhur suguiac bezála, eta gógo-cháhu urzoúac bezála.

17. Beguiréizie guizounér : igorríren zutié tribunaletára eta bére bilkhurétan azotatúco zutié.

18. Eta aitzindariétara eta erreguétara enegátic eramánen zutié, jakilegoúa émun dizadazién hayén eta pagánouen aitzinian.

19. Hayén eskiétan ziratekeyéoian, ez-tuziéla anxiárie noúla édo zér erránen duzién ; ézi zérere érran béhar bei-tukezie, órdu bérian gogoúala emánic izánen záizie.

20. E-tzirayé ézi ziec izánen mintzazaliac, béna zien Aitáren Espíritia da ziétan mintzatúren.

21. Ordian anayiac anayía hil-erázteco saldurén du, éta aitác semía : eta jáikico díra haúrrac bére buurhasouén coúntre, eta hil-erázico dutie ;

22. Eta izánen zirayé enegátic guziéz huguntúric : béna urhentziala ártio iráñen diána, hoúra dáte salbatia.

— 54 —

23. Eskernio eguiten ba-deizié hiri batétan ihes eguizie besté batetára. Eguiáz dioziét, eztutukezie ungurátu urhéntu Israeléco hiriac, Guizoúnaren semia jin dátekieneco.

24. Ez-ta dizipulia burruzaguia béno habóro, éz miscandia náusia benouágo.

25. Aski du dizipuliac izan dádin buruzaguia bezála, eta miscandiac izan dádin náusia bezála. Etchéco-jáuna Beelzebúb deithu ba-die, zoumbát ehúkiágo háren manuzpécouac?

26. Ez árren úkhen loxáric; éz-ta déus estaliric aguertúco ez-ténic, éz déus gordériс jakínen ez-ténic.

27. Ulhumpian erráiten deiziedána, errazie arguian; eta behárriala éntzuten duziéna, hegátzen gañétic erántzun ezazie.

28. Ez izan béldur khorpitza hil-ezázten dienén, zoúñec ez-pei-tiokeyé hil-eráz ariná; béna béldur izan ziteyé khorpitza eta ariná ifernialát igor diókienaren.

29. Ez-tiréya bi tchóri sós báten sáltzen? haregátic éz-ta hétaric bát lúrrialat erórten, zien Aitáren nahia gábe.

30. Zien burúco bilhoúac óro khountatúric díra.

— 55 —

31. Ez árren úkhen beldúrric, zoumbátnahi tchóric béno habóro halío duzie.

32. Noúre-ere aithortúco bei-nái guizounén aitzinian, nic ére aithortúco dut hoúra éne Aita zeliétan dénaren aitzinian.

33. Noúre-ere ukhatúren bei-nái guizounén aitzinian, nic ére ukhatúren dut hoúra éne Aita zeliétan dénaren aitzinian.

34. Ez oúste úkhen jin nizála bákiaren lúrriala ekhártera; é-niz jin bákiaren ekhártera, béna bái ezpatáren.

35. Jin niz ézi semiaren bére aitáganic berhéztera, alhabáren amáganic, errénaren ama-guiharrebáganic.

36. Eta guizoúnaren exáyac izánen dira bére etchecoúac.

37. Noúre-ere áita édo áma ni béno maitiágo béi-tu, hoúra éz-ta enetáco hoún; eta noúre-ere semia édo alhabá ni béno maitiágo béi-tu éz-ta hoúra hoún enetáco.

38. Eta, bére khurutchia hárturic, éni jarráikiten ez-téna, éz-ta hoún enetáco.

39. Bére bizia beguirátzen diánac, hoúra gálduco du; eta bére bizia enegátic gáltzen diánac, hoúra edirénen du.

— 56 —

40. Ziec hártzen zutiénac ni hártzen nái; eta ni hártzen náyanac, ní igórri náyana hártzen du.

41. Profetári batzárre hoún eguiten déyonac, proféta délacoz, ukhénen du profetáren phákia; eta jústouari batzárre hoún eguiten déyonac jústo délacoz, jústouaren phákia ukhénen du.

42. Eta noúre-ere emánen béi-tu tchipién hoyétaric báti khopór bat hoúr éne dizipúlu délacoz: eguiáz dioziét ez-tiála gálduren bére phákia.

XI CAPITULIA.

1. Urhéntu zutiánian Jésusec bére hamabi dizipuliér éman eracaspénac, joúan zén hántic, ungurunétaco hiriétan eracastéra eta pheredicatzéra.

2. Ordian Jouhánec, éntzunic presounteguian Jesu-Krísten eguitatiéz mintzátzen, igórri zéitzon bére dizipuliétaric biga,

3. Galthatzéra: zú zirá jín behárra, ála besté bat béhar dúgu egurúki?

4. Eta Jésusec ihardéxi zéyen: zouazté eta errózic Jouháneri zér éntzun eta ikhoúsi duzién:

5. Uxiéc ikhoústen die, tcháñkiac chúchen dabiltza, lepradúnac sendótzen dira, gorréc éntzuten die, hilac phízten dira, eta Ebanjelioúa eracásten da praubér.

6. Eta doháxu da nitan gálbide hárturen eztiána.

7. Hoúrac zouatzaláric, Jésus hási zén populiari Jouhánez mintzátzen, zioualáric:

zéren ikhoústen ebili zirayé bortían ? — Aiziac darabílan canaberá báten ?

8. Zéren ikhoústen árren ebili zirayé ? — Mardóki beztitúric dén guizoún báten ? — béna mardóki beztitúric dirénac erreguén etchétan dira.

9. Zéren árren ikhoústen ebili zirayé ? — profetá báten ? — bái, dioziét, eta profèta béno habóro dénaren.

10. Ezi hárez da izan izkiribatúric : houná noún igórten déizudan aitzinían éne ainguría, zoúñec apháintuco bei-téizu aitzinétic bidia.

11. Eguiáz dioziét, éz-ta aguértu emaztétaric sorthién ártian Jouháne béno handiágoric : haregátic zeliétaco erresoumán tchipiénic déna, houra béno handiágo da.

12. Jouháne Baptístaren egunétaric hounát, bórtcha éguin béhar záyo zeliétaco erresoumári, eta bórtcha-eguilée die eramáiten.

13. Ezi profetác óro eta leguia, Jouhánetaráno dira tnintzátu.

14. Eta náhi ba-duzie jákin, hóri da Elía jín béhar diána.

15. Behárri diánac entzutéco, éntzun béza.

16. Béna zéri uduritúco dútut sortzápen

hountáco guizoúnac ? udúri die plazán járritic daudén hánr elíbat, zoúñec óihuz lagunér,

17. Erraiten bei-tie : khantátu deiziégu eta e-tzirayé dántzatu ; nigarrézco aháire éman dúgu eta ez-tuzie éguin nigárric.

18. Ezi aguértu da Jouháne ez-pei-tzían éz játen, éz edáten, eta erráiten die débriaz hárturic da.

19. Jín da guizoúnaren semia ; játen eta edáten zian, eta erráiten die : houná guizoun jále handi bat eta ardoú edále bat, legarcarién eta bekhatóren adiskidía. Béna zuhurtarzúna dénarentaco ezagutúric da bére haurréz.

20. Ordian hási zén ondicátzen hirién, zoúñtan hánitch miracúllu éguin bei-tzian, e-tziélacoz peniténtzia éguin.

21. Gáitz hire Corozaim, gáitz hire Bethsaida ; zéren éguin izan ba-zirén Tiren eta Sidónen, ziétan éguin izan dirén miraculliac, best'órduz zakiaz eta háuxaz estaliric peniténtzia éguin bei-tzukeyén !

22. Hartácoz dioziét : Tiren eta Sidónentaco eztiágo dáte judizióniaren egunéco arrésta, eziez zientáco.

23. Eta hí Cafarnaúme, aitchatúren iza ze-

liétarano? iférnu zolála jáixico hiz: zéren éguin izan ba-zirén Sodómetan, hítan éguin dirén miraculliac, ehiñére égun ártio iráñen bei-tzién.

24. Hartácoz dioyát; Sodomatárren arrésta eztiágo izánen duc judizióneco egunian eziez hirja.

25. Ordian Jésusec, hitz hórie érran zutian: Esker déizut, Aita, zelúco eta lúrreco Jáuna, hórie górde dutuzulárie zuhurrér eta jakinxiér, aguértu bei-tutúzu tchipiér.

26. Hóla dúzu, Aita, hóla bei-tzén zoúre nahia.

27. Oro éne eskiétan ezári dútu éne Aitac. Eta ihoure éz-tu ezagútzen Semia Aitac báizic: éz eta Aita ihoure éz-tu ezagútzen Semiac baizic, eta noúri-erc Semiac ezágut-erázi nahiúkhen bei-tu.

28. Tziáuste eneganát ziec óro necatúric eta ezintúric zirayénac, eta nic urgáitziren zutiél.

29. Hár ezazie éne uztarria zien soúñian, eta ikhas ezazie enegánic ézti nizála eta umil bihótzez, eta edirénen duzie zien arimén pháusia.

30. Ezi éne uztarria ézti da eta árhin da éne cargá.

XII CAPITULIA.

1. Orou hétan, igáran zén Jésus ógui elgué bat gáinti nescanegún bátez, eta háren dizipuliac, góse bei-tzirén, hási zirén ogui-búru moúzten eta játen.

2. Farisienéc hóri ikhousiric érran zéyuuen: sóizu, zoúre dizipuliéc eguiten dizie nescanegunéz háizu ez-téna.

3. Jésusec érran zéyen: ez-tuziéya iracoúrri zér éguin zian Dabitec góse zén bátez hoúra eta háren lagúnac:

4. Noúla sárthu zén Jincouaren etchian, eta ján zian oberendáco oguiétaric, zoúñen játia ez-pei-tzén háizu, éz hári, éz háren lagunér, aphézer berér báizic.

5. Edo ez-tuziéya leguian iracoúrri, nescanegunétan aphezéc háusten diéla témplouan nescanegúna, eta ez-tiéla gáizki eguiten?

6. Báita dioziét, témploua béno guchiágocoua déla hében.

7. Béna ba-zenakié zér érran náhi dén: misericordiá maitágo dut eziez sacrifizioúa egundáno e-tzuntukeyén oguengabiac coundenátu.

8. Ezi guizoúnaren semia nescanegúnaren ére náusi da.

9. Hántic igáran oundoúan jiu zén hayén bilkhurála.

10. Eta hán khaúsitu zén eskia eihartúric zian guizoún bat, eta hási zéitzon galthátzen: háizu dénez nescanegunétan sendotzia; húxetan háren atzáman náhiz.

11. Béna Jésusec érran zéyen: noúr da ziétaric, ardi bat lukiána, eta erórten bazáyo ziló batetára nescanegunian, hántic hár eta élkhi e-lezakiéna?

12. Zombátez othian éz-ta guizoúna ardia benouágo? háizu da árren nescanegunéz hoúnki eguitia.

13. Ordian érran zéyon guizoúnari: héda ézázu zoúre eskia; eta hedátu zian, eta séndo eguin zéyon bestia bezála.

14. Farisiénac élkirie, alkharréki, hitzártzen hási zirén, noúla gal-eráziren zién.

15. Jésus hoyén jakinxu bei-tzén, joúan zén hántic, eta jarráiki zéitzon hanitch, eta guziac sendótu zutían.

16. Eta mánu énan zéyen e-lezén ezágut-eráz.

17. Bétha lédin Isaia profetác errána:

18. Houná éne zerbutchatia, haitátu dudána, éne maitia, zoúñtan gozátzen béi-ta éne bihótza. Ene Espíritia hártan ezarico dut, eta chúchen-bidía popúlu arrotzér eraconxicu du.

19. Ez-ta ahárran arico, éz-tu oihúric eguinen, ez-tie éntzunen háren mintzoúa kharrikétan.

20. Konabéra zartatía éz-tu háuxeren, éz-tu hil nrhentúren khé emáiten dian mokía.

21. Eta popúlu arrotzéc hártan esperántza hárturen die.

22. Ordian ekhárri zeyouén débriaz hárturic zén, úxu eta mútu bat, eta sendótu zian, háñ oúnxa noún mintzátzen bei-tzén eta íkhoústen bei-tzian.

23. Eta izitúric zaudén jente-óztiac eta zioyén: éz othé da háu Dabiten semia?

24. Farisienéc hóri éutzun bei-tzién, érran

— 64 —

zién : hórrec ez-túru débriac ohíltzen Beelzebúb debrién guehiénaz báizic.

25. Jésusec ezagútzen bei-tzutían hayén gogozcác, érran zéyen : Bére ártian berhezíric dén erresoumá eráuzirie izánen da ; eta bére béithan berhezíric dén hiríac édo etchiac éz-tu iráñen.

26. Eta Satánec Satán ohíltzen bá-du, bére coúntre berhezíric da ; noúla ordían iráñen du háren erresoumác ?

27. Eta nic Beelzebúbez ohíltzen ba-dútut débriac, zien haurrác noúrtzaz ohíltzen dutie? Bérac árren izánen dira zien jujiac.

28. Béna Jincouaren Espiritiaz ba-dútut nic débriac ohíltzen, ordían héltu da ziengána Jincouaren erresoumá.

29. Noúr dáite sár azcárraren etchian, eta háren hatiac noúre ditzáke eráman, ez-pá-du aitzinétic estéki azcárra? ordían déyo bilâizico etchia.

30. Enéki ez-téna, éne exái da ; eta enéki bíltzen ez-tiánac barreyátzen du.

31. Hortácoz dioziét : zér náhi bekhátu eta bourháu izánen da pharcatúric guizounér ;

— 65 —

béna Espíritu sáintiaz éguiu bourháua éz-ta izánen pharcatúric.

32. Guizoúnaren semiaren coúntre mintzazaliari izánen záyo pharcatúric : béna Espíritu Sáintiaren coúntre mintzazaliari e-tzáyo izánen pharcatúric, éz ménte hoúntan, éz eta guerocoúan.

33. Errazie zuháña hoún déla, háren frútia hoún ezagútzen duziénian ; édo errazie zuháña gáisto déla eta háren frútia ére gáisto ; ézi frútutic zuháña ezagútzen da.

34. Súgue castá, noúla zitakeyé oúnxa mintza, gáisto zirayénian ? ézi bihótzaren bethadurátic da aboúa mintzátzen.

35. Guiznun hoúnac barné hoúnetic idúkitzen dútu gáiza hoúnac ; eta guizoun gaistoúac barné gaistútic idókitzen dútu gáiza gaistoúac.

36. Erráiten deiziét, érran dutukeyén éllac áuher guziéz, guizounéc khoúntu emánen diéla judizióneco egunian.

37. Ezi zoúre hitzetáric zira izánen justo ezagutúric, eta zoúre hitzetáric zira izánen coundenatúric.

38. Ordían mintzátu zéitzon Légue-eracas-

létaric eta Farisienetáric zoumbáit eta érran zéyouen : Jáuna, náhi dizúgu zouregánic miracullú bat ikhoúsi.

39. Jésusec ihardéxi zéyen : cásta gáisto eta nahási hounec miracullú bat galthátzen du, eta miracullúric e-tzáyo emánen, Jonás profetáren miracullía báizic.

40. Hala-noúla ézi égon bei-tzén Jouás arráñ haudi báten sabelian, hirour egúnez eta hirour gáyez; hala-hála egónen da guizoúnaren semia lúrraren bihotzian hirour egúnez eta hirour gáyez.

41. Ninibatárrac jáikico dira judiziónian popúlu hounen coúntre, eta condenatúren die, zéren peniténtzia éguin bei-tzién Jonásen erraniala. Eta houná Jonás béno habóro déna hében.

42. Hegouá-aldéco erreguiñá jáikiren da, judiziónian, popúlu hounen coúntre eta coundenatúco du : jin bei-tzén lúrraren bazterrétic Salomónen zuhurtarzúnaren éntzutera, eta hnuná Salomón béno habóro déna hében.

43. Izpiritu gaistoúa élkhi dénian guizounétic, ba-doúa bázter idórrac gáinti, pháusiaren oundoúan, eta éz-tu ediréiten.

44. Ordian erráiten du : utzulico niz élkhi nizan etchialat. Eta jin dénian ediréiten du húxic, chahatúric eta apháinturic.

45. Ba-doúa ordian, eta hártzen dútu beréki béste zázpi izpiritu, béra béno gaistouágouac ; eta hán sártburic egóiten dira : eta guizoun háren azkentziac haxárrien sordéi bilhátzen dira. Hála aguitúco záyo cásta ezinágo gáisto hoúni.

46. Oráno mintzo zélaric jente-oztér, háren áma eta anayiac campoúan zaudén hári mintzátu náhiz.

47. Eta nourbáitec érran zéyon : zoúre áma eta zoúre anayiac campoúan dutúzu, eta galthátzen zutic.

48. Jésusec mintzo zéyonari ihardéxi zéyon : noúr da éne áma eta zoúñ dira éne anayiac ?

49. Eta eskía hedatúric bére dizipulietarát érran zían : houná éne áma eta éne anayiac.

50. Ezi noúre-ere eguiten béi-tu éne Aita zeliétan dénaren nahia ; hoúra éne anáye da, eta arréba eta áma.

XIII CAPITULIA.

1. Eguñ hártan, Jésus etchéric élkhiric, járri zén itchas-bazterrian.

2. Eta bildu zirén haren-gána jente-ózte háñ handiac, noún ountzi batetára igañ beitzén eta hán járri : jente-ózte guzia áldiz hoúr bazterrian zágouan.

3. Eta hánitch gáiza érran zéyen aleguiaz : Elkhi zén, zioúan, eréilia eréitera ;

4. Eta eréiten ári délaric, ázi zoumbáit erórí zirén bíde bazterriala, eta zelúco tchoríac jin zirén eta ján zutién.

5. Béste zoumbáit erórí zirén hartokiétara noún ez-pei-tzién hambát lúrric : eta berhála sórthu zén, lúrrac loditarzúnic ez-pei-tzian.

6. Eta ekhía jáiki zénian érre zirén ; eta záñic e-tziélacoz, cihártu zirén.

7. Béste zoumbáit erórí zirén elhorriétara, eta elhorríac handitu zirén eta ítho zutién.

8. Bestiac erórí zirén lúr hoúniala : eta bihi éman zién, bátac éhun, bestiac hirourétan hóguei, bestiac hóguei eta hámar.

9. Diánac behárri entzutéco éntzun béza.

10. Dizipuliéc, hullantúric, érran zéyouen : zértaco aleguiaz mintzátzen zitzayé.

11. Jésusec ihardéxi zéyen : zier éman délacoz zeliétaco erresoumáren gáiza gordén ezagutzia eta hayér ez-télacoz éman.

12. Ezi diánari emánen záyo, eta gaintica ukhénen du, ez-diánari áldiz, diána ére idókiric izánen záyo.

13. Hartácoz aleguiaz míntzo nitzáye, ikhousíric ére ez-pei-tie ikhoústen, eta éntzunic ére ez-pei-tie éntzuten, éz enthelegátzen.

14. Eta hoyétan bethátzen da Isaía Profetáren errána : zíen beharriéz éntzunen duzie eta ez-tuzie gogoúan hárturen, eta beguiéz ikousíren duzie eta e-tzirayé ohartúren.

15. Ezi gogórtu da popúlu hórren bihótza, eta behárriac thapátu dutie, eta zerrátu beguiac, lóxaz ikhous dezén beguiéz eta beharriéz éntzun dezén, eta gogoúan hár dezén eta hoúnerat útzul ditían, eta séndo ditzádan.

— 71 —

16. Béna zien beguiac dohâñ hoúnecouac dira ikhoústen bei-tie; eta zien belhárriac, éntzuten bei-tie.

17. Eguiáz dioziét, hánitch proféta eta jústoc náhi úkhen diéla ikhoúsi ziec ikhoústen duziéna, eta ez-tie ikhoúsi, eta éntzun ziec éntzuten duziéna eta ez-tie éntzun.

18. Ziéc árren éntzun ezazie eréiiaren aleguiá.

19. Noúre-ere éntzuten béi-tu Erresoumáco hítza eta gogoán éz hártzen, jiten záyo gaistoía eta idókitzen déyo bihotzian eréñ zeyouéna; hóri da bíde bazterrian eréña.

20. Hartokian eréña da, noúizetare nourbáitec éntzuten béi-tu hítza, eta berhála hoúra boztarioeki hártzen.

21. Béna éz-tu bére béithan herróric, eta igarancór da; hortácoz jiten dirénian goitzarrénac eta eskerniotac Jincouaren leguiagátic, berhála khordocátzen da.

22. Elhorriétan eréña da, noúre-ere éntzuten béi-tu hítza, béna ménte hountáco arrancuréc eta aberaxtarzunén inganioúac ithótzen dic hítza eta frútu gábe barátzen da.

— 72 —

23. Lúr hoúnian eréña da: hítza éntzuten diána eta gogoán hártzen, eta frútu ekhárten, noúre élun, noúre hirourétan hóguei, noúre hóguei eta hámar.

24. Béste aleguiá bat ekhárri zéyen, zioualáric: zeliétaco erresoumác udúri du guiznún bat zoúñec eréñ bei-tzian ázi hoúna bére alhorrian.

25. Béna ló zaudeláric guizoúnac, háren exáya jin zén eta eréñ zian zálgue oguiaren ártian, eta joúan zén.

26. Handítu zénian belhárra eta burútu, ordian aguértu zirén ére zalguíac.

27. Joúan zéitzon etchéco-jáunaren mithilac eta érran zéyouen: Jáuna ez-tuzia ázi hoúna eréñ zoúre alhorrian? Noúlaz dú árren zálgue ekhárten?

28. Ihardéxi zéyen: exáyac hóri eguin du. Mithiléc érran zéyouen: náhi duzia joúan guitian eta bíl dezágun?

29. Erran zéyen: éz, zalguiaren biltziaréki, élkhi ez-tezazién haréki batian oguía ére.

30. Útz etzatzie biac handítzéra uztétarano; eta uztén ordian erránen dut ogui-ephailér:

— 73 —

bil etzatzie lehénic zalguiac eta hérx etzatzie escutáca erra-erázteco, oguia áldiz bil ezazie éne bihiteguialat.

31. Béste aleguiá bat ekhárri zéyen, zioualáric : udúri du zeliétaco erresoumác moustárda bihí-bat zoúñ guizoún bátec hár eta eréiten béi-tu bére alhorrian.

32. Bihi hóri aziétaco tchipiéna da ; béna handitu dénian, bélbar guziac béno handiágo da, eta zuháñ bat bilhátzen da, hála noún tchoriac pháusatzen bei-tira háren adarrétan.

33. Béste aleguia háu oráno ekhárri zéyen : zeliétaco erresoumác udúri du altchaturázi hat, zoúñ emazté bátec hár eta ezárten béi-tu hírour gaitzúru irini, orhía óro áltcha ártio.

34. Gáiza hóric óro Jésusec alegoiaz érran zutian populiari ; eta alegoiaz báizic e-tzéyen hayér mintzátzen.

35. Bétha lédin profetác érran ziána : miotzatóren niz aleguiaz, aguertúren dútut, mundiaren hástetic gordéric dirénac.

36. Ordian, populia igorríric, jin zéo etcherát : eta hullántu zéitzon dizipuliac : thípil ezagúzu, óxez, alhorréco zalguiaren aleguiá.

— 74 —

37. Jésus hoúla mintzátu zéyen : ázi hoúnaren eréilia, guizoúnaren semia da.

38. Alhórra áldiz, mundia da. Azi hoúna, erresoumáco háurrac dira ; zalguia áldiz, izpíritu gaistoúaren háurrac dira.

39. Exái, zalguiaren eréilia, débria da : úzta demborá, mentén urhentzia da ; oguiephäiliac áldiz, ainguriac dira.

40. Hala-noúla bíltzen bei-tira zalguiac eta súyan errátzen, hála izánen da mentén urhentzian.

41. Guizoúnaren semiac igorríren dútu bére ainguriac, eta bilduco dutie háren erresoumátic gálbide emáiliac óro eta gáizki eguiliac.

42. Eta egotchíren dutie súzco labialát. Hán izánen da nigar eta hórtz carrásca.

43. Ordian justouéc arguitúren die ekhiac bezála, bére Aitáren erresoumán. Diánac behárri entzutéco éntzun béza.

44. Udúri du zeliétaco erresoumác alhorrian gordéric dén tresór bat, zoúñ guizoun bátec ediréiten béi-tu eta gordátzen ; eta bére ediréitziaz bózturic ha-doúa, eta sáltzen dútu dutian guziac, eta erósten du álhor hoúra.

— 75 —

45. Udúri du oráno zeliétaco erresuumác guizoun sál-eroslé bat, pérla ederrén oundoúan dabilána.

46. Aurkhitúric pérla prezio handitacó bát, ha-doúa eta sáltzen dútu dutían guziac eta crústen du hoúra.

47. Udúri du oráno zeliétacu erresoumác, itchasoúalat ourthikiric dén saré bat, zoúñec biltzen béi-tu arráñ suérte órotaric.

48. Béthe dénian, élkhiten die ; eta hoúr bazterrian járriric, haitátzen dutie hoúnac eta zarétan ezárten, gaistoúac áldiz camporát ourthikitzen.

49. Hóla guerthatúren da mundiaren urhentzían : aguertúren dira ainguriac eta berhoziren dutie gaistoúac hoúnen ártetic.

50. Eta egotchíren dutie súzco labialát ; hán izánen da nigar eta hórtz carrásca.

51. Hóric óro gogoúan hártu dutuziéya ? — Ihardéxten déyuue : Bái.

52. Jésusec erráiten déye : hotatán zeliétaco erresounáren gaizéz jakinxu dénac, udúri du etchéco-jáun bat zoúñec élkhitzen bei-tútu bére guiltz-pétic gáiza berríac eta zahárrac.

— 76 —

53. Jésusec érran urhéntu zutiánian aleguia hóric, joúan zén hántic.

54. Eta bére herrialát utzuliric, ári zén hánco bilkhurétan eracásten, eta entzulée, amiratúric, zioyén : noúntic dútu hórrec holáco jakitatia eta photeria ?

55. Ez-tá háu mayér báten semía ? hórren amá ez-tá Maria déitzen ; eta hórren anayíac ez-tirá, Jacóbe eta Joséph eta Simoún eta Júde.

56. Eta hórren arrebác ez-tirá guziac gouréki ? noúntic dútu árren hórrec hóric óro ?

57. Eta gálbide hártan hártzen zién. Jésusec érran zéyen ordian : éz-ta profétа ouhoúre gabéric bére herrían eta bére étchen báizic.

58. Eta e-tzían hán éguin miracúlu hánitch, hayén sinhéxte-gabiagátic.

XIV CAPITULIA.

1. Oanu hétan Heródes erreguiac éntzun zian Jésusen oména.

2. Eta érran zian bére manuzpecouér : hóri Jouháne Baptista da : hiletaric phíztu dáte, eta hartácoz du hainbéste miracúllu eguíten.

3. Heródesec ézi har-erázi zian Jouháne, eta estecatúric presounteguian ezári, Herodiás bére anayiaren emaztiagátic.

4. Erráiten zéyolacoz Jouhánec : e-tzáizu háizu hórren etchekitzia.

5. Eta hil-erázi nahíric, populiaren beldúrrac barátu zian, profétataco etchekítzen ziélacoz.

6. Béna Heródesen sór-egunian dántzatu zén Herodiásen alhabá khorteliárren erdian, eta láket izan zéyon Heródesi.

7. Hainbéstetara noún hitzéman bei-tzéyon zin eguinic, emánen zéyola zér náhi gáltha lizón.

8. Nescatilác, bére amáz aholcatúric, érran zéyon : indázut órai bérian oúntzi hoúntan Jouháne Baptistaren buria.

9. Phéna hártu zian erréguec ; béna bére zinagatic eta barazcaltzále lagunéngatic, manhátu zian éman lekión.

10. Igórri zian árren, eta Jouháneri buria moútz-erázi zian presounteguian.

11. Eta ekhárri zién háren buria ountzian, eta éman zéyouen nescatilári, eta hárec eráman zéyon amári.

12. Háren dizipuliac joúan eta hártu zién háren khorpitza eta chórtzi zién ; guéro jín zirén Jésusi herriaren emáitera.

13. Hóri éntzun ziánian Jésusec, abiátu zén hántic outziscá-batétan, basa-baztér batetarát béra : béna populiéc jakíntu ziénian, jarráiki zéitzon hoúñca ungurunétaco hiriétaric.

14. Ountzitic elkhitzian ikhoúsi zian jenteózte hándi hoúra, eta bihotzberátu zén hayéntaco, eta hétan zirén ériac sendótu zutian.

15. Arráxaren jitiari, hullántu zeitzón bére dizipuliac eta érran zéyouen : gúne háu básadúzu, eta jádanic beránta ; igor etzátzu jénte

hóric, joúan ditian herriétarat, eta játeco éros dezén.

16. Jésusec érran zéyen : ez-tic joúan behárric, emézie ziec játera.

17. Ihardéxi zéyouen : ez-tizúgu hében bóst ógui eta bi arráñ báizic.

18. Jésusec érran zéyen : ékhar etzadatzic hoúna.

19. Eta jár-erázi oundoúan jente-ózte hoúra belhárren-gáñen, hártu zutían bóst oguiac eta bi arráñac, eta beguiac zelialát-altchatúric, benedicátu zutían eta háuxe eta émen oguiac dizípuliér, dizípuliéc áldiz saldouér.

20. Eta ján zién guziéc eta áse zirén ; eta bildu zutién oundárrac, hamabí zaréta ógui záthi.

21. Báita jáliac ba-zirén bóst míla guizoun, emaztiac eta háurrac bestálde.

22. Ordian berhála Jésusec manhátu zutían dizipuliac igañ litian ountziala, eta léhent lekitzón hoúraren best'áldiala, hárec jente-ózte hoúrac igórten zutían ártian.

23. Igórri zianian populia, igañ zén béra mendiala othoitzéra. Eta arráxa jin zénian hán zén ber-béra.

24. Ountziscá áldiz uháñec ba-zarabilén itchasoúaren erdian, coúntre bei-tzian aizía.

25. Gáyazco laúr-guerren belláldian jin zéyen Jésus itchúson gáñen ebiltez.

26. Itchúson gáñen háreo hoúñez ebílten ikhoústiac izítu zutían : klusó bat da, zioúén. Eta loxatúric óihuz hási zirén.

27. Béna berhála Jésus mintzátu zéyen : éma ziteyé ni niz, éz úkben loxáric.

28. Phetíric ihardéxi zéyon : Jáuna, zú bazíra, jin-eráz nezázu zouregána hoúren-gáñen.

29. Jésusec érran zéyon : tziáuri. Eta Phetíri ountzític jáixiric, ba-zoúan hoúñez hoúren-gáñen, Jésusetara héltzeco.

30. Béna ikhousíric aizía bórthitz zéla, loxátu zén ; eta bárna jouáiten hási bei-tzén, óihu éguin zían : Jáuna, beguíra nezázu.

31. Eta Jésusec berhála eskía hedatúric etchéki zían eta érran zéyon ; fédc gútitacoua, zértaco dudátu zíra ?

32. Eta igañ zirénian ountziala, emátu zén aizía.

33. Ordiau ountzían zirénac hullántu zeitzén eta adorátu zién, zioúelaric : eguiázki Jincouaren semia zíra zú.

34. Houretic élkhi zirénian, jin zirén Genesaréco lurretarát.

35. Ezagútu ziénian hánco jentéc, jakin-erázi zién ungurúne órotan, eta ekhárri zeitzouén éri zirénac óro.

36. Eta othóitzen zién, útz litzan háren soûñecouaren baztérraren berére houńkitera. Eta houńki ziénac óro sendótu zirén.

XV CAPITULIA.

1. Ordian hullántu zéitzon, Jerusaleméric jinic Legue-eracásle eta Farisién bátzu, eta érran zéyouen :

2. Zértaco zoûre dizipuliéc háuxten die zaharrén eracaspéna? ézi ez-titizie eskiac chahátzen oguiaren jateráco.

3. Jésusec ihardéxi zéyen : zértaco ziec háuxten duzie Jincouaren manía, zihaurén eracaspénari jarráikiteco? Ezi Jincouac errán du.

4. Ouhoûra etzátzu áita eta áma. Eta, aitári edo amári gáizki mintzátzen déna, hil dadila.

5. Ziec áldiz erráiten duzie: noûre-ere errânen béi-tu aitári edo amári : nic Jincouari eskentúren dutudánac óro, zouretáco ekhoizpen izánen dira :

6. Ez-tu béste eguinbidéric zór aitári edo amári. Eta hóla ezdéustu duzie Jincouaren manía zien eracaspénaz.

— 84 —

7. Falxiac, ziétzaz da eguiázki Isaía profetá mintzátu, érran diánian :

8. Popúlu hórrec ezpañéz ouhourátzen nái, béna hórren bihótza húrrun da enegánic.

9. Hoyéc emáiten deitadén ouhouría foúnxic gábe da, guizounén erránac eta maniac eracásten dutiélacoz.

10. Eta jente-óztiac bereganát déithuric, érran zéyen : behá ziteyé eta gogoúan hár ezazíe.

11. Ez-tu ahoúan sartzen dénac theyútzen guizoúna ; béna ahótic élkhitzen dénac, hárec theyútzen du guizoúna.

12. Ordían dizipuliac hullantu zéitzon eta érran zeyoutén : Ba-dakizia, Farisienér zoúre hítz hóri gaitzitu záyela ?

13. Jésusec ihardéxi zéyen : éuc Aita zelucoúac lanthátu ez-totían lantharíac óro, herrouétarie élkhiric izánen dira.

14. Béde : úxu dira eta uxién laguntzále, béna uxíac uxía lagúntzen bá-du, biac zíloualát erorico dira.

15. Phetíric elhia hárturic érran zéyon : aleguia hóri thipil ezagúzu.

— 85 —

16. Jésusec ihardéxi zéyon : ziec ére oráno enthelégu gábe ziréya ?

17. Ez-tuzie ikhoústen ahoúan sártzen dirénac óro sabelialát douatzála, eta guéro baztér batetarát igórten diréla ?

18. Ahótic élkhitzen dirénac áldiz, bihotzétic jíten dira, eta hayéc guizoúna theyútzen dic.

19. Ezi bihotzétic élkhitzen dira, gogózca gaistoúac, guizoun ehóitiac, bésten emaztéki nahastíac, likhizkeriác, ouhouinkeriác ; guezurrézco jakilegouác, bourhátuac.

20. Hoyéc die guizoúna theyútzen. Béna eskiac chahátu gábe játiac éz-tu theyútzen guizoúna.

21. Jésus hántic élkhi zén eta joúan Tíreco eta Sidóneco aldétarat.

22. Eta emázte Canaantár bat, gáinti hétaric jínic, óihuz hási zéyon : Ukházu pietáte nítzaz, Jáuna, Daviten semia : éne alhabá débriaz esteyaríki eskerniatúric dúzu.

23. Jésusec hítzic e-tzéyon ihardéxi. Bére dizipuliac hullántu zéitzon eta érran zéyoueo ; douála igor ezázu, óihuz bei-túgu oundótic.

— 86 —

24. Jésusec ihardéxi zian : é-niz igorriric Israélen etchénco árdi gáldietara báizic.

25. Béna emaztia hullántu zén eta adorátu zian, erráiten zéyolaric : Jáuna, hél zakitzat.

26. Jésusec ihardéxi zéyon : éz-ta sóri hár dádin háurren oguia, eta ourthiki dádin tchacurrér.

27. Erran zéyon emaztiac : hála dúzu, Jáuna : béna tchacorréc ére játen dizie bére nausién maháñetic erórten dirén phorrokiñétaric.

28. Jésusec ordian érran zéyon : O emaztia, zoúre fedia hándi dúzu : éguin dakizúla náhi dúzun bezála. Eta sendótu zén háren alhabá óren bérian.

29. Hántic igaránic Jésus jin zén Galiléaco itchas-bazterriala ; eta mendi batetára igáñic hán járri zén.

30. Eta jin zéitzon jénte-ózte handi clibat, ekhárten ziélaric beréki mútu, úxu, tcháñku, hérbal eta béste éri hánitch ; eta háren hoúñetara ezári zutién, eta sendótu zutian.

31. Jentiac áldiz harritúric zaudén, ikhóustez mutiac mintzátzen, tcháñkiac ehúehen

— 87 —

ebillen, uxiac ikhoústen ; eta goréxten zién Israélen Jincoua.

32. Jésusec ordian déithu zutian bére dizipuliac eta érran zéyen : bihotzberátzen náye jénte hoyéc, zéren hirour égun béi-tu enéki dáudela, eta ez-tie zér ján : eta ez-túlut náhi bárour igórri, bidian ingócha ez-titian.

33. Dizipuliéc erráiten déyoue : noúntic úkhen dezakégu bórtu hoúntan áski ógui sáldo hándi hoyén ase-erázteco ?

34. Jésusec gallhátu zéyen : zoumbát ógui duzie ? érran zéyouen zázpi eta arráinco zoumbáit.

35. Manhátu zutian jentiac jár litian lúrrian.

36. Eta hártu zutian zázpi oguiac eta arráñac, eta eskérrac éman oundoüan, háuxe zutian eta dizipuliér éman, eta dizipuliéc populiari.

37. Eta ján zién gnziéc eta áse zirén : eta barátu phorrokiñétaric bildu zién zázpi zaréta.

38. Bazirén othian jále, láur milá guizoun, háurrac eta emaztiac bestálde.

39. Igórri ziánian jente-ózte hoúra, igañ zén ontziscá batetára eta jin zén Majedáneco muguétara.

XVI CAPITULIA.

1. Ordían Farisién eta Sadduzeén bátzu jin zéitzon háren ikhertzecótan; eta othóitu zién erácoux lizén zelútic zerbáit miracúllu.

2. Jésusec ihardéxi zéyen eta érran : arráxa héltu déuian erráiten duzie : athéri eguinen du, ézi górri da zelia ;

3. Eta góizan : égun irazárri ukhénen dúgu, ézi gor-béltz da zelia.

4. Ba-dakizie árren zeliaren utchurác zér dian señalátzen, eta demborén señaliac ez-titzakezie ezágut. Cásta gáisto eta nahási hoúnec galthátzen du miracullú bat eta miracullúric e-tzáyo emánen, Jonás profetáren miracullia báizic. Eta hoúrac útziric joúan zén.

5. Dizipuliac igáran zirén hoúraren best'áldialat eta janharia ahátze zéyen bártzeco.

6. Jésusec érran zéyen : beguiréizie, eta gogo-emazie Farisiénen eta Sadduzeénen altchaturáziari.

7. Eta gngozkétan zaudén ber'ártian, zioué-laric : aráuz ez-tugulácoz hártu oguiric, erráiten du.

8. Jésusec bei-tzakian zér igaráiten zién gogoúan, érran zéyen : zértaco zien ártian mintzo zirayé, oguiric ez-tuziéla?

9. E-tzáizie gogoúatzen, eta e-tzirayé órhit, bóst míla guizoúni éman bóst oguiétarie, zoumbát zaréta bildu duzién ?

10. Eta láur míla guizoúni éman zázpi oguiétarie, zoumbát zaréta bildu duzién?

11. Noúlaz ez-tuzie enthelegátzen, e-nizála óguiz mintzátu erraitián : beguiréizie Farisiénen eta Sadduzeénen altchaturázitic.

12. Gogoúatu zirén ordian, e-tzéyela érran beguira litian ógui altchaturázitic, béna Farisiénen eta Sadduzeénen eracaspenétaric.

13. Jin zén guéro Jésus Zesaré-Filipeco gaintietarát : eta galthátu zéyen dizipuliér ; noúr déla dioyé jentéc guizoúnaren semia?

14. Ihardéxi zéyoueu : batéc Jouháne Baptista, bestéc Elía, bestéc Jeremía, edo profetétaric zoumbáit.

15. Jésusec érran zéyen : zicc álditz noúr nizála diózie?

— 91 —

16. Simoún Phetíric elhía hárturic érran zéyon : zú zíra Krist, Jinco biziaren Semia.

17. Jésusec ihardéxi zéyon eta érran : Dohâxu zíra Simoún, Jonáen semia, ez-pei-téizu hóri araguiac éz odólac eracáxi, béna bái éne Aita zeliétan dénac.

18. Eta nic erráiten déizut, zú ziréla Phetíri (*érran náhi béi-ta Harría*), eta hárri hórtan gáñen eráikico dodála éne Elizá, eta ifernúco borthéc ez-tiéla hoúra góilhuco.

19. Eta zoúri emánen déitzut zeliétaco erresounáren guíltzac, eta zér-ere hérxiren beitúzu lúrrian, hérxiric izánen da zelian, eta zér-ere súltaturen bei-túzu lúrrian, izánen da ére sóltaturic zelian.

20. Ordian mánu éman zían dizipuliér, e-lezén ihoúri érran hoúra zéla Jésu-Krist.

21. Ordútic hási zén Jésus dizipuliér aguértzen, béhar ziála Jerusalemerát joúan eta húnitch igoúrtzi zaharrétaric eta Legue-eracastétaric, eta aphézen guchiénetaric; hil erázico ziéla, eta hírour-guérren egunían phízturen zéla.

22. Phetíric berhéz hártu zían eta érran

— 92 —

zéyon : ez-tuzúla zér, Jáuna, holacóric guértha dakizun.

23. Jésus utzúli zéyon eta érran : húrrun zakitzat, Satán, gáizki-bide zitzáit, ez-pei-túzu Jincouaren-ganicáco zuhurtarzúna, bena bái guizounén-ganicacoúa.

24. Ordian Jésusec érran zéyen bére dizipuliér : noúr-ere náhi béi-ta jin éne oundótic, bére buríari úkho éguin béza, hár béza bére khurutchía eta jarráiki békit.

25. Ezi noúre-ere náhi bei-túke bére bizía beguirátu, hárec gálduren du; noúre-ere áldiz gálduren béi-tu bére bizía enegátic, hárec edirénen du.

26. Eta othían zér hobé du guizoúnac, ruúndu guzía irabaziric, bére arimá gáltzen bá-du? Edo zér emánen du guizoúnac bére arimáren ordári?

27. Ezi jínen da guizoónaren Semia bére Aitáren lorián bére ainguriéki : eta ordían bathedéra sáristatúren du bére lanheguinén aráu.

28. Eguiáz dioziét, ba-díra hében dirénetan zoumbáit, hílen ez-tirénac, ikhoúsi gábe Guizoúnaren semía bére erréguegouan aguértzen.

XVII CAPITULIA.

1. Haxtic séi egúnen burian, hártu zutian Jésusec Phetiri eta Jacóbe eta Jouháne háren anayia, eta eráman zutian berbérac méndi gorá batetára.

2. Eta utchúraz khambiátu zén hayén aitzinian. Háren beguithártia járri zén ekhia bézañ árgui: eta háren soúñecouac elhúrra bézañ choúri.

3. Eta hainbéstereki ikhoúsi zutién Moisa eta Elia haréki mintzátzen.

4. Phetiric elhia hárturic, érran zéyon Jésusi: Jáuna, hoún dúzu hében egóitia: náhi ba-dúzu, dezágun éguin hében hirour etchóla, bát zoúre, besté bat Moisaren eta besté bat Eliaren.

5. Oráno' mintzo zélaric, odéy argui bátec estáli zutian. Eta bótz bat erántzun zén odéyetic: háu da éne Séme maitía, zoúñtau ezári béi-tut éne gogoúa, hehá zakitzoyé.

6. Hórren éntzutiari ahózpez eróri zirén dizipuliac, eta lóxaz ikharátu zirén.

7. Hullántu zéyen Jésus, eta hoúnki zutían erráiten zéyelaric: jáiki ziteyé eta éz úkhen loxáric.

8. Ordian beguiac altchátu zutién eta ihour e-tzién ikhoúsi Jésus béra báizic.

9. Eta jáisten zirélaric mendític, mánu háu énan zéyen Jésusec: Ihoúri ez-tezaziéla érran zér ikhoúsi duzién, Guizoúnaren semía hiletaric phítz ártio.

10. Gáltho háu éguin zéyouen dizipuliéc: zértaco dioyé árren Legue-eracaslée Eliac jin béhar diála lehénic?

11. Jésusec ihardéxi zéyen eta érran: eguiá da Elía jinen déla eta óro apháintuco dutiála.

12. Béna erráiten deiziét, jádanic Elía jin déla, eta ez-tiéla ezagútu, béna náhi zutién guziac éguin deitzoyéla. Halabér hayen-gánic sofritúren du Guizoúnaren Semiac.

13. Ordian gogouátu zirén dizipuliac, Jouháne Baptistaz mintzo zéyela.

14. Populia-gána jin zénian, hullántu zéyon guizuún bat, eta háren hoúñetara eroriric

érran zéyon : Jáuna ukházu pietáte éne Semiaz, lunatico béi-ta eta hánitch sofritzen béitu ; ézi ardúra erórten dúzu suyalát, eta úsu hourialát.

15. Eta zoúre dizipuliétara ekhárri dizut, eta ez-tizie sendótu áhal úkhen.

16. Jésusec elhía hárturic érran zían : O jénte sinhéxte-gabia eta gaistoúa, noúiz ártio nizáte ziéki ? noúiz ártio egaríren zutiét ? Ekhar ezadazie hoúna.

17. Eta Jésusec nehatcháto zían, eta débria élkhi zén haren-gánic, eta órdu béretic séndo ízan zén háurra.

18. Ordian hullántu zéitzon dizipuliac Jésusi, eta berhéz hárturic érran zéyouen : zértaco gúc ez-túgu ohilto áhal úkhen ?

19. Jésusec ihardéxi zéyen : zíen sinhéxtegabia gátic. Ezi eguiáz dioziét : balin ba-zunie fedia, moustárda bihi bat bézañ hándi lizatiána, érran zenezakeyé méndi hórri : ábil hebéntic hára, eta joúan léite eta déus elizáte e-tzenezakeyénic.

20. Béna débru suérte hóri éz-ta iráisten othoitziaz eta baroúraz báizic.

21. Galiléan zaudelárie, Jésusec érran zéyen :

Guizoúnaren Semia ezaríric izánen da guizounén eskiétan :

22. Eta hil-eráziren die, eta hirour-guerren egunian phízturen da. Eta tristeíu zirén ezinágo.

23. Eta jin bei-tzirén Cafarnaúmera, hullántu zirén legar-biltzaliac Phetiri-gána, eta érran zéyouen : Zíen buruzaguíac ez-tizu phacátzen legárra.

24. Erran zéyen : Bái. Eta sárthu zéniau étchen, aitzíntu zéyon Jésus eta érran : zér záizu, Simoún ? Lúrreco erreguée noúrganic eráik'óhi die legárra ? bére háurretaric, ála atzélaric ?

25. Phetíric ihardéxi zéyon : atzétaric. Jésusec hári : árren háurrac libro dutúzu.

26. Béna ez-tezégun éman gáizteco bidéric, zouáza itchasoúala eta ourthik'ázu hamia eta lehénic jinen záizun arráña hár ezázu ; ahoúa zábalt ezózu, eta edirénen bei-téyozu berrogueiecó bat ; hár ezázu eta emézu éne eta zouretáco.

XVIII CAPITULIA.

1. Orduan hullántu zéitzon dizipuliac Jésusi, eta galthátu zéyouen: noúr óthe dáte handiéna zeliétaco erresoumán?

2. Jésusec háurtto bat déithuric, ezári zian hayén erdian.

3. Eta érran zéyen: Eguiáz dioziét ez-pazirayé khambiátzen, eta háurrac bezalacátzen, e-tzirayé sárthuren zeliétaco erresoumán.

4. Noúr-ere árren tchipitúren béi-ta háurtto háu bezála, hoúra izánen da handiéna zeliétaco erresoumán.

5. Eta noúrc-ere hártzen béi-tu éne izenian holáco háurtto bat, ni hártzen nái.

6. Eta nourbáitec gálbide emáiten bá-du, nitan sinhéxte dién tchipi hoyétaric báti, hóbe lizáte harentáco, eiher'úrri bat lephoúan ezaríric, ourthiki lezén itcháson bárna.

7. Gáitz mundíari, galbidiac dirélacoz. Galbidién izátia ezin-béste da; haregátic gáitz guizoúnari zoúnen-gánic jiten béi-ta galbidia.

8. Zoúre eskia edo zoúre zankhoúa gálgarri bá-da zouretáco, moútz ezázu eta ourthiki zutáric húrrun: hóbe dúzu bethiéreco bizitzian sártzia, esku-bákhoitch édo zankho bákhoitch izánic, eziez bi eskiac edo bi zankhoúac ukhénic bethiéreco súyalat igorriric izátia.

9. Eta zoúre beguia gálgarri bá-da zouretáco, idók ezázu eta ourthiki zutáric húrrun; hóbe dúzu bégui bákhoitch izánic bethiéreco bizitzian sártzia, eziez bi beguiac ukhénic igorriric izátia ifernúco súyalat.

10. Gogo-emazie ez-tezazién tchípi hoyétaric bátere gutiéxi: dióziet ézi, hoyén aínguriée zeliétan béthi ikhoústen diéla éne Aita zeliétan dénaren beguithártia.

11. Jin da othian Guizoúnaren Semia gálduric zénaren salbatzéra.

12. Zér záizie? Bálin bá-du nourbáitec éhun árdi eta hétarie bat baztértzen bazáyo, eztutía úzten lauretan-hóguei eta hemerétziac mendiétan, eta ez-tá jouáiten gáldu dénaren oundoúan?

13. Eta háren ediréitia aguitzen bazáyo : eguiáz dioziét botztario guehiágo ukhénen diála harengátic, eziez laurétan-hóguei eta hemerétzu baztértu ez-tirenengátic.

14. Holatán éz-ta zien Aita zeliétan dénaren nahía, gál dádin tchipi hoyétaric bátere.

15. Zoúre anayiac óguen éguin ba-déizu, zouáza eta ezagutzéra emoúzu zoúre eta háren beráren ártian. Behátzen ba-záizu, irabázi dúzu zoúre anayia.

16. Béna ez-pa-záizu behátzen ; hár ezázu zouréki lagún-bat edo biga ; biga edo hirour jakíleren ártian égon dádin eguitecoúa óro.

17. Hayér ez-pá-da behátzen, errázu Elizári, eta Elizári ez-pá-da behátzen, izan bédi zouretáco pagáno bat eta publicáno bat bezála.

18. Egoiáz dioziét, zér-ere hérxico bei-tuzie lúrrian, hérxiric izánen da zelian ere, eta zér-ere sóltatuco bei-tuzie lúrrian, sóltaturic izánen da ére zelían.

19. Dioziét oráno, zietáric biga alkhárri júntatzen ba-díra : zér náhi gáltha dezén, ukhénen die ene Aita zeliétan denagánic.

20. Ezi noún ére bei-tira biga edo hirour

alkhargána bilduric éne izenían, hán niz hayén erdían.

21. Ordian Phetiri hullántu zéyon, eta érran : Jáuna, zoumbát áldiz, éne anayiac óguen éguin deikedanían, pharcátu behar deikót ? Zázpitaráno ?

22. Jésusec ihardéxi zéyon : ez-téizut erráiten zazpítaráno ; béna hirourétan-hóguei eta hamarrétan zazpitaráno.

23. Hartácoz zeliétaco erresoumác udúri du erregué-bat zoúñec náhi úkhen bei-tzutían khountíac bardíntu bére manuzpécoucki.

24. Eta hási zénian khountién bardíntzen, bát aitzinátu zéyon, hámar mila taléntu zór zéyona.

25. Eta ez-pei-tzían noúntic útzul, mánu éman zian náusiac sál litzén, béra eta háren emaztía eta háurrac eta zutían guzíac, eta pháca lédin zórra.

26. Zerbutchári hárec, luherrásturic, othóitzen zían : thây emadázot, óxez, eta óro utzulico déizut.

27. Náusiac, bihotzberatúric zerbutzári háren eretzían, útzi zian, eta zórra kitátu zéyon.

28. Báita élkhi zénian, báthu zian mithil háree bére mithil lagunétaric bát, zoúñec zór bei-tzéyon éhun dinér, eta lephótic lótburic ithótzen zian: indac, óxez, zór duyána.

29. Mithil lagúnac, luherrásturic, othóitzen zian: indázut thây, óxez, eta óro utzulico déizut.

30. E-tzian náhi úkhen, eta jouánic, presounteguian ezar-erázi zian, zórra pháca ártio.

31. Hoyén ikhoústiac zinez phenátu zutian mithil lagúnac, eta joúan zirén náusiari erráitera zér igárau zén.

32. Ordian náusiac déithu zian hoúra eta érran zéyon: mithil gaistoúa, zórra óro kitátu déyat, othóitu bei-náic;

33. E-hiána árren hic béhar hírc mithil lagúnaz pietáte úkhen, nic hitzaz úkhen dúdan bezála?

34. Eta náusiac, gáizturic, ezári zian azotazalén ezkiétan, zór zéyon guzia pháca ártio.

35. Hóla eguinen déizie éne Aita zelucoúac, batéc bestér ez-pa-dutuzie oguénac bihutzélic pharcátzen.

—

XIX CAPITULIA.

1. Jésusec urhéntu zutiánian élhe hóric, élkhi zén Galiléatic eta jin zén Judéaco muguétara, Jordáneren haráintiala.

2. Eta jarráiki zéitzon jente-ózte hándi elibat, eta sendótu zutian hétan zirén ériac.

3. Ordian hullántu zéitzon Farisién elibat, háren húxetan atzáman náhiz, eta galthátu zéyouen: háizu dénez guizoúnari bére emaztiaren igórtia, zér náhi estacúruz?

4. Jésusec ihardéxi zéyen: ez-tuziéya iracoúrri, hástetic guizoúna éguin ziánac, éguin zutiála guizoún bat eta emazté bat? eta érran zéyela:

5. Hortácoz útzico du guizoúnac áita eta áma, eta bére emaztiari hérxico da, eta ez-tira biac araguí bat báizic izánen.

6. Gueróztic ez-tira árren biga, béna araguí bat béra. Hartácoz Jincouac bátian ezári diána, guizoúnac ez-tezála bérhez.

— 104 —

7. Hayéc bérriz galthátzen déyoue : zértaco árren Moisac manhátu du éman dádin emaztiari, útziric délaco jakilegouá, eta guéro igor.

8. Ihardéxi zéyen : Moisac zien bihótzaren gogortarzunagátic háizu éguin déizie zien emaztén igórtia : béna haxárretic e-tzén hóla.

9. Hartácoz dioziét nic, noúrc-ere igórten béi-tu bére emaztía, bestéki ez-tén bér nahási, eta hártzen béi-tu besté bat, hoúra theyútzen déla ; eta emázte igorría hártzen diúna, theyútzen déla.

10. Erran zéyouen bére dizipuliéc : hóla bá-da guizoúnaren ízátia emaztiaren eretzian, éz-ta hoún ezcountzia.

11. Jésusec ihardéxi zéyen : ez-tiókeye hóri guziéc gogoúan hár, béna uoúri-ére béita emánic.

12. Ba-dira ézi agórrac, sorzároz hála diréuac, eta ba-dira agórrac guizounéc halacatiac, eta ba-dira agórrac bérac agórtu dirénac zelúco erresoumágatic. Entzun áhal dezakiánac éntzun béza.

13. Ordían ekhárri zeitzoúen háurtto bátzu, náhiz hétara eskíac héda litzan eta benedica. Dizipuliéc áldiz mehatchátzen zutién.

— 105 —

14. Béna Jésusec érran zéyen : Béde háur hóric, ez-titzatziéla ene-ganát jítetic bára : holacouén da ézi zeliétaco erresouniá.

15. Eta eskíac pháusatu zéitzenian, joúan zén hántic.

16. Ordían guizoun gazté bat hullántu zéyon eta érran : Jáun hoúna, oúnxa dénic zér éguin behár dut bizítze bethiérecouaren irabaztéco ?

17. Jésusec ihardéxi zéyon : zértaco déitzen náizu hoóna ? Bát béra dúzu hoún déna, Jincoua. Béna náhi ba-zira eguiázco bizitzian sárthu, beguíra etzátzu maniac.

18. Galthátu zéyon : zoúñ ? — Jésusec érran zéyon : ez-túzu ihour ehóren : e-tzíra bestéren emaztéki nahasiren ; ez-túzu ebaxíren : ez-túzu jakile-falxugouáric erránen :

19. Zoúre áita eta zoúre áma ouhoúra etzátzu, eta máite ukházu zoúre khidia zibáur bezála.

20. Erran zéyon guizoun gaztiac : hóric óro beguirátu ditízut éne gaztezarótic ; zér escáz dut oráno ?

21. Jésusec ihardéxi zéyon : náhi ba-zira izan osóki hoún, zouáza, sál etzátzu dutuzú-

— 106 —

nac, eta éman beharrér ; eta ukhénen dúzu aberaxtarzúna zelian ; guéro tziáuri, eta jarráiki zakítzat.

22. Hitz hóric éntzun zutiánian guizoun gaztiac, joúan zén tristetúric, hountárzun handiac bei-tzutian.

23. Ordian Jésusec érran zéyen bére dizipuliér : eguiáz dioziét, aberáxa nékez sárthuren déla zeliétaco erresoumán.

24. Eta oráno erráiten deiziét : ehiágo da socá báten igaran-eráztia orrátz báten chilótic, eziez aberáxaren zelian sártzia.

25. Hitz hoyén éntzutez harritúric zirén dizipuliac eta zioyén : noúr dáite árren sálba?

26. Jésusec só éguin zéyen eta érran : hóri guizounéc ézin diókeyena da ; héna Jincoaren-taco óro eguin-ébi dira.

27. Ordian Phetiric ellúa hárturic érran zéyon : eta gúc óro útzi bei-tutógu zoúri jarráikiteco, zér dukégu sáritaco?

28. Jésusec érran zéyen : Eguiáz dioziét, ziec éni jarráiki zirayénac, bizítze berrían, nouizetáre Guizoúnaren Semia járrico bei-ta bére handitárzunaren jarguián, ziec ére járrico

— 107 —

zirayéla hamabi járguitan Israeléco hamabi castén jujatzéco.

29. Eta noúre-ere útzico béi-tu etchia, édo anayíac, édo arrebác, édo áita, édo áma, édo emaztia, édo háurrac, édo alhórrac, ene-gátic, chunetacoúa ukhénen du, eta bethiéreco bizitzia ardiéxico du.

30. Léhen dirén hánitch izánen dira ázken, eta ázken dirén háuitch léhen.

XX CAPITULIA.

1. Udcri du zeliétaco erresoumác etchécojáun bat, zoüñ góizian góizic élkhi bei-tzén lánguile hitzártzera bére mahastialaco.

2. Hitzártnric langniléki emánen zéyela egunéco dinér bat, igórri zutian bére mahastialat.

3. Elkhi zén bérriz hirour-guerren orénaren ungurunian, eta ikhoúsi zutian béste bátzu plazán áuher záudenac.

4. Eta érran zéyen: zouazté ziec ére éne mahastialat, eta züzen dukeziéna emánen deiziét.

5. Joúan zirén hoúrac ére. Elkhi zén oráno séi eta bederátzu-guerren orenén ungurunian, eta halabér éguin zian.

6. Haméca-guerren orénaren ungurunian élkhi zén bérriz, eta ediren zutian béste bátzu hán chùti; eta érran zéyen: zértaco záuzte hében égun órotan áuher?

7. Ihardéxi zéyouen: ihourc ez-pei-kútu hártu. Erran zéyen: zouazté ziec ére éne mahastialat.

8. Arráxa jin zénian, mahastiaren náusiac érran zéyon bére míthil-buruzaguiari: déi etzátzu languiliac, eta emézu sária, azkenétaric hásiric lehenétara.

9. Hullántu zirénian haméca-guerren orenian jinac, úkhen zién bakhótchac dinér bat.

10. Lehenén unguria jin zénian, oúste zién habóro ukhénen ziéla: éman zéyen hayér ére bakhótchari dinér bat.

11. Eta hártziareki mourmouzicátzen ári zirén etcheco-jáunaren coúntre,

12. Zioyélaric: Azken hóric ez-tira orén bat báizic ári izan, eta goúre bárdin éguin dutúzu, egári dugularic gúc egúnaren nekía eta beroúa.

13. Hayétaric báti ihardéxi zéyon éta érran: adiskidía ez-téizut eguíten oguénic; e-tzirá enéki dinér bátez hitzártu?

14. Hár ezázu jiteu záizuna eta zouáza: béna náhi dit ázken hórri éman zoüri bezála.

15. Ez othe záit háizu náhi dudánaren eguitia? zoüre beguia gáisto datekia ni hoún nizalácoz?

— 111 —

16. Hóla izánen dira azkénac lehen, eta lehénac ázken; ézi hánitch dira déithiac béna gúti haitatiac.

17. Bazoualáric Jésus Jerusalemerát, hártu zutían berhéz hamabi dizipuliac, eta érran zéyen :

18. Ba-gouátza Jerusalemerát, eta Guizoúnaren Semia, aphéz-guehienén eta Legue-eracaslén eskiétara ezaríric izánen da, eta hiltzera coundenatúren die.

19. Eta pagánouen eskiétan ezarico die, laidostatúric, azotatúric eta crucificatúric izáteco; eta lúrour-guerren egunian phizturen da.

20. Ordian hullántu zéyon Zebedéen semén amá, bére seméki, eta hoúñetara eróri zéyon zerbáiten galthatzéco.

21. Jésusec érran zéyon : zér náhi dúzu? ihardéxi zéyon : errázu ène bi séme hóric jár ditían, bála zoúre escúñian, bestia zoúre eiskérrian, zoúre erresoumán.

22. Jésus mintzátu zéyen eta érran : ez-takizie zér galthátzen duzién. Edan dezakeziéya nic édan béhar dúdan edária? erráiten déyoue; édan dezakezúgu.

— 112 —

23. Jésusec bérriz : Eguiá da éne edáritic edánen duziéla, béna éne escúñian édo eiskérrian jartiáren, éz-ta éni zier emáitia, béna noúri ére ène Aitac éman guéi béi-tu.

24. Hoyén éntzutia gaitzitu zéyen bésté hamarrér bi anayén aldétic.

25. Jésusec déithu zutían beregána eta érran zéyen : ba-dakizie pagánouen erreguéc gañia hétan etchekitzen diéla; eta handiagouéc, aphalagouér bére photeria egar-erázten diéla.

26. Ez-ta zien ártian hóla izánen; béna noúrere náhi bei-táte zien ártian izan guehién izan bédi zien zerbutchári.

27. Eta noúr-ere náhi bei-táte zien ártian izan lehéna, izánen da zien mithila.

28. Guizoúnaren Semia jin dén bezála, éz zerbutchatúric izátera, béna zerbutchatzéra, eta bére biziaren emáitera hanitchen arrerósteco.

29. Elkhitzen zirélaric Jericóic, jente-ózte handi bat jarráiki zéyon.

30. Eta bide bazterrian zaudén bi úxoc, éntzun zién Jésus igaráiten zéla; eta óihuz bási zirén : Jáuna, ukházu pietáte gótzaz, Daviten semia.

— 113 —

31. Jentiac, khechátzen zéitzen, ichil litian. Béna hayéc zinezágo óilhu eguiten zién : Jáuna, ukházu pietáte gútzaz, Davilen semia.

32. Ukhurátu zén Jésus, eta déithu zutian, eta galthátu zéyen : zér nahi duzie éguin dizaziédan ?

33. Ihardéxten déyoue : Jáuna, goúre beguiac zábalt ditian.

34. Jésus bihotzberátu zén hayéntaco, eta hoúnki zéitzen beguiac. Eta órdu bérian ikhoúsi zién eta jarráiki zéitzon.

XXI CAPITULIA.

1. Jerusalémeric hullántu zirénian eta héltu Bethfajéra Olivétaco mendiaren oundoúala, igórri zutian Jésusec bi dizipúlu,

2. Erránic : zouazté aitzinian duzién hérri hortára, eta héltziareki edirénen duzie astó bat estecatúric bére humiaréki ; sólta ezazie eta ékhar ezadazie.

3. Eta nourbáitec zerbáit erráiten ba-déizie, errazie Jáunac béhar dutiála, eta berhála útzico déitzie.

4. Hóri óro éguin zén, bétha lédin Profetáren érran háu :

5. Errózie Sióneco alhabári : háu duzúla zoúre erreguia, zouregána jiten eztitárzunez bethéric, járriric aston-gáñen, eta uztarricoúaren humen-gáñen.

6. Dizipuliac joúan zirén eta éguin zién Jésusec manhátu zéyen bezála.

7. Eta ekhárri zutién astoúa eta asto-khu-

mia: bére soüñecorac ezári zeitzén gáñen, eta guéro Jésus gáña jar-erázi zién.

8. Jente-ózte handi bátec bére souñarropác hedátu zutían bidían; bestéc áldiz moúzten zutién adárrac zuhaiñetáric eta bidian ezárten.

9. Eta aitzinian eta oundoúan zouátzan jentíac óihuz ári zirén: Hosánna Dabiten Semiari; benedicátu déla Jáunaren izenian jiten déna, Husánna zelu gañ-gáñetan!

10. Sárthu zénian Jerusalémen, hiria óro zotucátu zén: noúr da hóri, óxez?

11. Eta jentéc zioyén: háu da Jésus profetá, Galiléa-Nazarethecotia.

12. Jésus sárthu zén Jincouaren témplouan; eta ohíltu zutían témplouan sáltzen eta erósten ári zirénac óro, eta irálli zutían dibáru khambiazalén maháñac, eta úrzo saltzalén jarguiác.

13. Eta érran zéyen: izkiribatúric da: éne Etchia izánen da déitburic oraziónezco etchía, ziec áldiz éguin duzie oulhoüñ-tegui bat.

14. Eta hullántu zéitzon úxu eta tcháñcu bátzu témplouan eta sendótu zutían.

15. Ikhoúsi zutiénian aphéz guehienéc eta Légue-eracasléc, Jésusec éguin miraculliac, eta

háurrac témplouan óihuz: Hosánna Dabíten semiari; gáiztu zirén.

16. Eta érran zéyouen: éntzuten duzia zér dioyén hoyéc? Jésusec ihardéxi zéyen: Bái, ez-tuziéya egundáno érran háu iracoúrri: háurren eta thiticouén ahótic idóki dúzu laidorióric holséna.

17. Eta huúrac útziric, joúan zén hiritic cámpo, Bethaniarát; eta hán igáran zían gáya.

18. Góizian, utzúltzen zélaric birialát, goséta zén.

19. Eta ikhousíric phicotzé bat bide bazterrian, hullántu zén hartára, eta e-tzéyon déus ediren ósto báizic; eta érran zéyon: ez-tadíla jagóiti hitáric frúturic sór; eta hainsárri eihártu zén phicotzia.

20. Hórren ikhoústiari harritu zirén dizipuliac, eta zioyén: noúla eihártu da hathatian?

21. Jésusec elhia hárturic érran zéyen: eguiáz dioziét, bálin ba-zunie fedía, eta ez-pazinteyé khurdóca, e-tzenezakeyé bakhóichki éguin phikotziari éguin dudána, béna érran

ba-zenezé méndi hórri ; khén adi, eta jáuz adi itchasonalát ; éguin léite.

22. Eta zér-ere galthatúren bei-tuzie othoitzian sinhéxtereki, ukhénen duzie.

23. Jin zénian témplouala, hullántu zéitzon, ari zélaric eracásten, Aphézen guehiénac eta populúco zahárrac, eta érran zéyouen : zér léguez hóric eguiten dutúzu ? eta noúre éman déizu zúzen hóri ?

24. Jésusec ihardéxi zéyen : bá-dut nic ére galthó bat zier eguitéco : eta ziec hórtan ihardésten ba-deitazie, erránen déiziet nic ére zér léguez hóric eguiten dutúdan.

25. Noúntic zén Jouháneren batheyia ? zelútic ála guizounétaric ? — Hoúrac bére ártian árí zirén :

26. Erráiten ba-dúgu : zelútic, erránen déicu : zértaco árren ez-tuzie sinhéxi ? Erráiten ba-dúgu áldiz guizounétaric, popolíaren béldur izáteco dúgu, zéren guziée profetatáco etchekítzen bei-tzién.

27. Ihardéxi zéyouen holatán Jésusi eta érran : ez-takizúgu ; eta Jésusec hayér : nic ére ez-téiziet erránen zér zuzénez hóric eguiten dutúdan.

28. Béna zér záizie hoúntzaz : Guizoún bátec ba-zutian bí séme, eta guehiénari jouánic érran zéyon : éne Semia, zouáza égun, éne mahastialat lánguitera.

29. Eta hárec ihardéxi zéyon : e-núzu náhi. Béna guéro dolotúric, joúan zén.

30. Bestiagana joúan zén eta bér gaizá érran zéyon ; hárec áldiz ihardéxi zéyon : ba-noúazu, Jáuna, eta e-tzén joúan.

31. Zoúñ da biétaric aitáren nahía éguin diána ? Ihardésten déyoue : Lehéna. Jésusec erráiten déye. Eguiáz dioziét, publicánouac eta nesca-tzárrac lehentúren záitziela Jincoóaren erresoumára.

32. Ezi jin záizie Jouháne saintutárzuneco bidian, eta ez-tuzie hoúra sinhéxi ; publicanouéc áldiz eta nesca-tzarréc sinhéxi die ; eta ziec hóri ikhoúsi duzie eta ez-tuzie úkhen bihotzmioie, éz habóro sinhextéric.

33. Behá zileyé béste aleguia hoúni : Etcheco-jáuo bátec lanthátu zian mahasti bat eta zerrálluz ungurátu ; zugán bat ezári zian hán, eta thorré bat eráiki, guéro mahasti-záñer éman zian, eta béra hérriz-cámpo joúan zén.

— 120 —

34. Hullántu zénian mahaxén biltzeco thenoria, igórri zutian bére mithilac mahasti-záñetara, mahaxén hártzeco.

35. Béna mahasti-záñac lóthu zéitzen mithilér, eta báta zañátu zién, bestia ého, eta bestia harrikaldustátu.

36. Igórri zian bérriz lehénic igórri zian béno mithil habóro ; eta hayér béste hainbéste éguin zéyen.

37. Azkenian igórri zéyen bére semia, zioualáric : éne semiaren achól ukhénen die.

38. Béna mahasti-záñec ikhoúsi ziénian semía, bére ártian érran zién : houná prímia, tziáuste, dezágun ého, eta goúre dáte háren hountarzúna.

39. Hártu zién, mahastitic cámpo croúan, eta ého.

40. Jiten datekiénian mahastiareu náusia, zér eguinen du mahasti-záñ hayér ?

41. Ihardésten déyoue : gaistoúac gaistóki gálduren dútu, eta bére mahastia emánen du béste mahasti-záñi, zoúñec frútiac ekharrico bei-teitzoué bére thenorétan.

42. Jésusec érran zéyen : ez-tuziéya egun-

— 121 —

dáno iracoúrri Gúthun-Sáintietan : etche-eguiléc bazterrialát ezári harria, izán da guiltz-hárritaco hárturic : Jáun-góicouac du hóri éguin eta miragárri da goúre beguiéntaco.

43. Hartácoz erráiten déiziet, Jincouaren erresoumá izánen déla zier élkhiric, eta háren frútiac ekharrico dutian populiari izánen déla emánic.

44. Hárri háren gáña erórten déna phorrocatúren da, eta noúren ére gáña erorico béita, hoúra lehertúren du.

45. Entzun zutiénian Aphézen guehienéc eta Farisienéc aleguia hóric, ezagútu zién hayétzaz mintzo zéla.

46. Eta náhi úkhen zukeyén hártu, béna populiaren lóxa zirén, profetatáco edukitzen ziélacoz.

XXII CAPITULIA.

1. Jésus, elhia hárturic, mintzátu zén oráno aleguiaz eta érran zian:

2. Zeliétaco erresoumác udúri du erregué bat zoúñec eztéyac éguin bei-tzutian béne semiari.

3. Eta igórri zutian béne mithilac ezteiliárren déitzera, eta e-tzirén joúan náhi izan.

4. Bérriz igórri zian béste mithilic mézu hounéki: érran ezézie ezteiliárrer: ene apáiria adelátu dut: éne zezénac eta abére guizentiac ehóric díra, eta óro adelatúric: tziausté ezteyétarat.

5. Béna hoúrac e-tzirén acholátu, eta joúan zirén batá béne bordáltialat, bestia béne salcrostétarat.

6. Bestée áldiz hártu zutién mithilac eta goitzarrénez béthe oundoúan, élio zutién.

7. Errégue, hóri éntzun ziánian, gáiztu zén eta béne armadác igorríric erháustu zutian guizoun-ehóile hoúrac eta hayén hiria sútan ezári zian.

8. Ordian érran zéyen béne mithilér: eztéyac adelatúric díra, béna khumitatúric zirénac e-tzirén diño.

9. Zouazté árren bide buriétarat, eta ediréiten duduzién guziac, eztéyetarat déi etzatzie.

10. Elkhi zirén mithilac bidétarat, eta báthu guziac, hoún eta gáisto, bildu zutién, eta béthe zén eztéyetaco barazcalguiá.

11. Sárthu zén errégue barazcalzalén ikhoústera, eta ikhoúsi zian hán guizoún bat eztéy arropá e-tziána.

12. Eta érran zéyon: adiskidia, noúla hében sárthu zira eztéy arropá gábe? Béna hoúra ichil égon zén.

13. Ordian erréguec érran zian béne manuzpécouer: estéca etzófzie eskiac eta zankhouac, eta ourtbiki ezazie campóco ulhunpétarat: hán izánen da nigar eta hórtz carrásca.

14. Ezi hánitch dira déithiac béna gúti haitatiac.

15. Ordian Farisiénac joúan zirén, eta

— 125 —

alkharréki hitzártu zién atzánau béhar ziéla bére elhétan.

16. Eta igórri zéitzouen bére dizipuliac Heródesen guizounéki erráitera : Jáuna, badakizúgu egoiáti ziréla, eta Jincouaren bidia eguián eracásten duzúla ; eta ez-túzu zúc ihoúren achólic, eta ez-túzu guizounétan berhezkeriáric eguiten.

17. Erragúzu árren zér záizun : sóri dá legárraren Zesárri emáitia, ála éz?

18. Jésusec ezagútzen bei-tzían hayén gaistokeriá, érran zéyen : zértaco therritálzen náizie, falxiac?

19. Erácoux ezadazie legárraren phacatzéco emáiten dén phezetá bat. Eta esként zéyouen dinér bat.

20. Jésusec érran zéyen : noúrena da beguithárte háu, eta izkiribatúric dén ízen húu?

21. Erráiten déyoue : Zesárrena. Ordian érran zéyen : útzul etzatzie árren Zesárrenac Zesárri, eta Jincouarenac Jincouari.

22. Hoyén éntzutiac amiratúric ezári zutían, eta hoúra útziric joúan zirén.

23. Bér egunían, hullántu zéitzon Saddu-

— 126 —

zeénac, zoúñec bei-tioyé ez-téla hílen phizteric ; eta galthátu zéyouen :

24. Náusia, Moísac érran dizu : nourbáit hiltzen bá-da háurric gábe, háren emaztiareki ezcoúnt dádin hílaren auayia, eta oundóco éruan dizón bére anayíari.

25. Ba-zutuzón árren goúre ártian zázpi anáye : lehéna ezcoúntu eta hil zúzun, eta ezpei-tzian háurric úkhen, anayíari útzi ziózun bére emaztia.

26. Bér guisán éguin dizu bi-guerrénac ; eta guéro hirour-guerrénac, zázpi-guerreniala ártio.

27. Guzién oundótic hil izan dózu emaztia.

28. Hílen arraphíztian árren, záspietaric zoúñen emázte izánen da? ézi guziéna izan dúzu.

29. Ihardéxi zéyen Jésusec : herrapidían zirayé, éz ezagútuz Gúthun Sáintiac eta Jincouaren indárra.

30. Hílen phíztian, ez-tukeyé guizounéc emaztéric, éz emaztéc senhárric, béna izánen díra Jincouaren ainguriac bezála zelian.

31. Eta hílen phízten gáñen, ez-tuduziéya iracoúrri Jincouac érran déitzien hítz hóric :

— 127 —

32. Ni niz Abrahámen Jincoua eta Isaáken Jincoua, eta Jacúbeen Jincoua. Ez-ta othían hilen Jincoua béna bizi dirénena.

33. Behá zén populia, miréxiric zágouan harén jakitatiaz.

34. Farisiénac ordian, éntzunic ichil-erázi zutiála Sadduzeénac, bíldu zirén alkhargána.

35. Eta galthátu zéyon hayétaric bátec, leguiaren eracásle zénac, húxetan atzámau náhiz :

36. Náusia, zoúñ da leguéco mánu handía?

37. Ihardéxi zéyon Jésusec : maithatúren dúzu zoúre Jinco Jáuna, zoúre bíhotz guziac, zoúre arima guziaz, eta zoúre gógo guziaz.

38. Hóri da mánu handiénu eta lehéna.

39. Hóri bezaláco da bi-guerréna : maithatúren dúzu zoúre khide lagúna, zibáur bezála.

40. Bi mánu hoyétan dágo leguia óro, bái eta profetác.

41. Bílduric bei-tzirén ordian Farisiénac, Jésusec éguin zéyen gáltho háu :

42. Zér záizie Krístez? Noúren Semía da? Ihardésten déyoue : Dabitena.

43. Jésusec harzára : noúla árren Dabitec,

— 128 —

Espíritu Sáintiac mintz'erázten ziánian, déitzen du hoúra Jáuna, dioualáric :

44. Jáunac errán du éne Jáunari, jár zite éne escúñian, ézar ditzádan ártio zoúre exáyac zoúre hoúñ-petaco.

45. Dabitec déitzen diánian hoúra Jáuna, noúlaz da háren Semia?

46. Eta íhourc e-tzezakión hítzic ihárdex : eta égun hartáric aitzína íhour e-tzén ausártu galthóric hári halóro eguitéra.

XXIII CAPITULIA.

1. Ordian Jésus mintzátu zén populiari eta bére dizipuliér :

2. Zioualáric : Moïsaren jarguián járri dira Legue-eracasliac eta Farisiénac.

3. Erráiten déitzienac óro árren beguira etzatzie eta éguin : béna hayén eguitatén aráu ez-tezaziéla éguin ; ézi erráiten die eta éz eguiten.

4. Hérxten dutie háclie handíac eta ézin égar ditakiénac, eta guizounén bizcarrétan ézarten dutie, berác áldiz erhíaz ére ez-tutie náhi hounki.

5. Bére eguitatiac óro guizonnéz ikhousiric izáteco eguiten dutie : pergámu hediac ekhárten dutie zoúñec zabalágo, eta franjác zoúñec luziágo.

6. Máitc dutie léhen etzanguiác apairiétan eta léhen jarguiác hilkhurétan ;

7. Gúrrac plazétan ; eta, náusia, déithuric izátia guizounéz.

8. Ziec e-tziteyéla náusiac déi, ézi ez-tuzie náusi bat báizic ; ziec áldiz óro anáye zirayé.

9. Eta ez-tezaziéla ihour áita déi lúrrian ; ézi ez-tuzie aitá bat báizic, zeliétan déna.

10. Eta náusi izénic ez-tezaziéla hár, zéren Krist béi-ta zien náusi bakhótcha.

11. Zien ártian handién déna, izánen da zien zerbutchári.

12. Ezi altchátzen dátekiena, aphaltúric izánen da, eta apháltzen dátekiena altchatúric izánen da.

13. Gáitz áldiz zien, Legue-eracásle eta Farisién falxíac, zéren zerrátzen bei-tuzie zeliétaco erresoumá guizounén aitzinian ; ézi e-tzirayé zihaurée sártzen, eta sárthu náhi liratekienac, ez-tutuzie úzten sártzera.

14. Gáitz zien, Legue-eracásle eta Farisiéu falxíac, iréxten bei-tutuzie alhargunxén etchíac, othóitze lúze eguitez, hortácoz ére garratzágo izánen da zien judiziónia.

15. Gáitz zien, Legue-eracásle eta Farisién falxíac ungurátzen bei-tuzie itchasoúa eta luhi-

— 131 —

dórra zien errelijionialát guizoún báten biltzeco, eta hoúra úkhen duziénian, eguiten duzie ifernúco séme berritacoúaz ziec bèno habóro.

16. Gáitz zieo, aitzindári uxíac, zoúñec beitiózie: nourbáitec zin eguiten bá-du témplouaz, éz-ta déus: béna témploco urhiaz zin eguiten bá-du, zórdun da.

17. Ertzoúac eta uxíac: zér othé da handiágo, urhia, ála urhia sáintutzen dian témploua?

18. Oráno diózie: nourbáitec zin eguiten bá-du althariaz, déus éz-ta; béna noúre-ere zin eguiten béi-tu althariaren gáñen dén oberendáz, hárec zór du.

19. Uxíac, zér da óthe handiago, oberendá, ála oberendá sáintutzen dian altharia?

20. Althariaz árren zin eguiten diánac, zin eguiten du hártzaz eta háren gáñen dirén guziéz.

21. Eta témplouaz zin eguiten diánac, zin eguiten du témplouaz eta hártan dágonaz.

22. Eta zeliaz zin eguiten diánac, zin eguiten du Jincouaren trónouaz eta hártan járriric dágonaz.

— 132 —

23. Gáitz zien, Legue-eracásle eta Farisién falxíac, zoúñec hártzen bei-tutuzie detchimác, azkenazbéste ahamentátic, anétatic eta tcharpólletic, eta úzten bei-tutuzie leguéco mánu handiénac, justiziá, urgaiztia, eta leyáltarzuna: hórie éguin béhar zuntién eta bestíac éz útzi.

24. Aitzindári uxíac, eltchó batengátic edária irátzico duziénac, eta khamelú bat áldiz iréxico.

25. Gáitz zien, Legue-eracásle eta Farisién falxíac, zoúñec chabátzen bei-tuzie edan-ountziaren eta ján-ountziaren campoúa; zihaurec áldiz barnétic ouhoúñkeriaz eta théyukeriaz bethéric zirayé.

26. Farisién uxía, cháha ezázu lehénic edan-ountziaren eta jan-ountziaren barnia, campoúa ére cháhu izan dádin.

27. Gáitz zien, Legue-eracásle eta Farisién falxíac zéren udúri bei-tuzie hóbi chouriliac, zoúñ campótic éder aguéri bei-tira, barnétic áldiz hil ezúrrez eta zér náhi zikhinkeriaz bethéric.

28. Halabér ziec ére jústo udúri duzie guizounén aitzinian, barnétic áldiz falxukeriaz eta guistokeriaz bethéric zirayé.

— 133 —

29. Gáitz zien, Legue-eracásle eta Farisién falxiac, zoûñec eráikiten bei-tutuzie Profetén hobiac, eta jústouen ehortz-lekhiac edértzen;

30. Eta erráiten bei-tuzie : goûre aitén egunétan izan ba-guina, ez-kinén izánen hayén lágun Profetén odólaren ichoûrteco.

31. Holatán zihauréntaco jakile zirayé, Profetác ého dutiénen Séme zirayéla.

32. Bétha úrhent ezazie ziec, zien aitén izaria.

33. Suguiac, bipéra humiac, noûla ihes eguinen duzie ifernialat coundenatúric izátiari?

34. Hartácoz nic igorrico déitziet Profetác, eta zuhúrrac eta Legue-eracasliac, eta hayétaric ehóren duzie, eta cruzificatúren, eta hétaric azotatúren duzie zien bilkhurétan, eta hérriz hérri oundoûan jarráikiren zitzáitze.

35. Eror dádio ziétara, lurren-gáña ichouriric izao dén ódol jústo guzia, Abél jústouaren odolétic Zacaria, Barakiásen Semiaren odoliala ártio, zoûñ ého bei-tuzie témplouaren eta altharíaren ártian.

36. Eguiáz dioziét, hóric óro jinen dira órai bizi dirén hoyétara.

— 134 —

37. Jerusaléme, Jerusaléme! Profetén hilerázlia, eta hiregána igorrién azota-erázlia zoumbát órduz náhi úkhen dútut bildu hire háurrac, olloúac bére tchitchác hegalpétara biltzen dutían bezála, eta éz-tuc náhi úkhen.

38. Sárri útziric izánen záizie zien etchia húxic.

39. Ezi erráiten déiziet : e-náizie habóro ikhousico, érran dezazien ord'ártio : Benedicátu déla Jáunaren izenian jiten déna!

XXIV CAPITULIA.

1. Jésus témplotic élkhiric, ba-zoúan. Eta hullántu zéitzon bére dizupuliac, témplouaren eguindúra cderrén hári ikhous-erázteco.

2. Jésusec elhia hárturic, érran zéyen : ikhoústen dutnzie hóric óro? Eguiáz dioziét, éz-ta hór egónen harríric hárrin gáñen, barreyatúren ez-ténic.

3. Guéro járriric zágoualaric Olibétaco mendían, hullántu zéitzon dizipuliac berbérac, eta galthátu zéyouen : erragúzu, noúiz hóric hélturen dirén? eta zére ezágut - eráziren dían, zoúre jitia eta mundiaren urhentzía?

4. Jésusec ihardéxi zéyen; Beguiréizie ihoure ingána e-tzitzén.

5. Ezi hánitch jinen dira éne izenian : ni niz Krist, óxez; eta saldoúa inganatúren die.

6. Entzunen ére duzie mintzátzen guérlaz, guérla heróxez. Beguiréizie izitzétic. Ezi hoyác héltu béhar die, béna ez-táte oráno urhentzia.

7. Ezi jáikico da populia populiaren coúntre, erresouma erresoumáren coúntre, eta izánen dira uzurriac, eta gosetiac, eta luhikharác, hánitch lekhútan.

8. Eta hóric óro izánen dira gáitzen haxárriac.

9. Ordian emánen zutié eskerniatúric izáteco eta hil-eráziren zutié : eta popúlu guziác hástio zutukeyé éne izenagátic.

10. Eta ordian hánitch khordocatúco eta erorico dira; álkhar sálduren die, eta álkhar húgu dukeyé.

11. Hánitch proféta fálxu jáikiren dira, eta saldoúa inganatúren die.

12. Eta noúla gáiuti eguinen béi-tu gaistokeriác, hóztuco da hanítchen caritatía.

13. Béna noúre-ere iráñen béi-tu urhentzialáno, hoúra izánen da salbatúric.

14. Erántzonic izánen da zeliétaco erresoumáren Ebanjelio háu múndu guzian, izan dádin jakiletáco popúlu guzién, eta ordían héltuco da urhentzía.

— 137 —

13. Ikhoúsi dutukeziénian árren, lékhu sáintian, Daniél Profetác aiphátu dutian itchouskeria deithóragarriac (iracoúrten diánac, hár béza gogoúan) :

16. Ordian Judéan direnéc ihes éguin bezé mendiétarat;

17. Hegátzian déna, ez-tadila jáix etchéric zerbáiten hártzera.

18. Eta alhorrian déna ez-tadila útzul sayoúaren hártzera.

19. Gáitz izórra direnén, eta unhúde direnén, égun hétan.

20. Othoi ezazie ez-tádin guértha zien ihési joutáitia, neguian edo nescanegunian.

21. Ezi izánen dira ordian eskernio izigarriac, halacóric ez-péita izan mundiaren hástetic oraidára, éz eta izánen jagóiti.

22. Eta ez-pa-zirén izan égun hoúrac llaburtúric, salbatúren zénic ihour e-tzén izánen: béna haitatiéngatic llaburtúric izánen dira égun hoúrac.

23. Ordian nourbáitec erráiten ba-déizie: houná Krist hében da, édo hán da: ez-tezaziéla sinhex.

— 138 —

24. Ezi jáikico da Krist fálxu eta proféta fálxu: eta eguínen dutíe gáiza háiñ handiac eta izigarriac, noúu haitatiac bérac (áhal balédi), bil bei-litzakeyé herrapídialat.

25. Náhi úkhen zutiét aitzinétic jakinxútu.

26. Erráiten ba-deizié árren: bortían da, e-tziteyéla joúan; hébeu da barnian, ez-tezaziéla sinhex.

27. Ezi noúla béi-ta iñhazia ekhi-jáikiguiatic élkhi, eta itzalguiála ártio aguértzen: hála izánen da Guizoúnaren Semiaren jitia.

28. Noún-ere bei-táte khorpítza, hára bilduco dira arranoúac.

29. Eskerniózco égun hoúrac igáran diratekian bézañ sárri; eklıia ulhuntúren da, eta arguizaguiac éz-tu emánen bére arguia; izárrac eroríco dira zelútic, eta zeliétaco armadác zotucatúco dira.

30. Eta ordian aguertúco da Guizoúnaren semiaren banderá zelian, eta heyagúraz hásico dira lúrreco popúlu guziac, eta ikhousico die Guizoúnaren Semia jiten zelúco odéyetan photére eta óspe handiréki.

31. Igurrico dútu bére ainguriac trompetá-

— 139 —

ren óihu ozénareki, eta bílduren dutic Jincouaren haitatiac láur aizén aldétaric, mundiaren bazter-batétic bestialáno.

32. Gogo-emazie phicotzétic hártu counparazióniari: ádar berác élkhiten záitzonian, eta ostoúac sórtzen, ba-dakizie udá húllan déla.

33. Halabér ziec, ikhoústen dutukeziénian hóric óro, jákin ezazie húllan déla eta borthán.

34. Eguiaz dioziét, ez-téla igaránen sortzápen háu, hóric óro héltu gábe.

35. Zelia eta lúrra igaránen dira, béna éne erránac ez-tíra igaránen.

36. Béna égun hoúra eta oréna ihourc eztakitza, éz eta zeliétaco ainguriéc, Aitac bérac báizic.

37. Noéren egunétan héltu zéna, guerthatúco da Guizoúnaren semiaren jitian.

38. Ezi noúla bei-tzirén, uholdiaren aitzinéco egunétan, játen ári eta edáten, ezcoúntzen eta ezcount-erázten, Noé arcán sárthu zén egunialáno;

39. Eta ez-pei-tzirén gogouátu, uholdia jin ártio eta hárec óro eráman ártio; hála izánen da Guizoúnaren Semiaren jitia.

— 140 —

40. Ordían bi guizoun ba-diráte alhorrian, báta hárturic izánen da eta bestia útziric.

41. Bi emázte cháiten ári diráte eiherán, báta hárturic izánen da, eta bestia útziric.

42. Izan ziteyé árren iratzárri, ez-pei-takizie zér orénez zien Jáuna jinen dén.

43. Ezi hoúntzaz óhart ziteyé: ba-léki etcheco-jáunac zér thenúrez jitecoua dén ouhoúña, izatzarriric égon lóite, eta e-lezáke bére etchia zilatzéra útzi.

44. Ziec ére árren prést égon ziteyé; zéren ez-takizién orenian jinen béi-ta Guizoúnaren Semia.

45. Noúr oúste duzie déla níthil leyál eta zuhúrra, náusiac etchénco guzién gáñen ezári diána, hayér behar-ordían játecouaren emáiteco ?

46. Dohákzu da níthil hoúra, náusiac, jiten dénian, ediréiten bá-du hála bére eguinbidian.

47. Eguiáz dioziét, bére hontárzon guzién gañéco ezaríren diála.

48. Béna gáisto bá-da zerbutchári hoúra, eta erráiteu bá-du bére béithan: berántzen du éne náusiac jítia:

49. Eta hásten há-da bére miscándi lagunén jóiten, eta játen eta edáten ordizaléki :

50. Jinen da mithil háren náusia, egurukiten ez-tian egunian, eta háree ez-takian orenian :

51. Eta berhezico du, eta gaistoéki emánen déyo bére phartia. Hán dáte nigar eta hórtz carrásca.

XXV CAPITULIA.

1. Ordian zeliétaco erresoumáceudúri dúke hámar birjina, zoúñ bére argui-ountziac hárturic, élkhi bei-tzirén ezcountzalén hártzera.

2. Hayétaric bóst ba-zirén érho zirénac, eta bóst zúhur zirénac.

3. Bóst erhouéc argui-ountzién hártzian, e-tzién hártu beréki olióric.

4. Zuhurréc áldiz argui-ountziéki hártu zién olioúa bére pitchérretan.

5. Ezcountzaliac berántzen bei-tzian jitia, logalétu zirén óro, eta loúac hártu zutian.

6. Béna gaihérditan, oihú-bat erántzun zén: ezcountzalia jitén da, élkhi ziteyé háren hártzera.

7. Berhála jáiki zirén Birjina hoúrac óro, eta adelátu zutién bére argui-ountziac.

8. Erhouéc ordian érran zéyen zuhurrér: emaguzie zien oliótic, hiltzen bei-tira goúre arguiac.

— 144 —

9. Ihardéxi zéyen zuhurréc : éz, lóxaz eztezágun áski úkhen zien eta gouretáco ; zouazté lehenágo saltzalétara eta éros ezazie.

10. Béna erostéra zouatzaláric, jin zén ezcountzalia : eta adelatúric zirénac eztéyetarat haréki súrthu zirén, eta borthá zerrátu zén.

11. Azkenian jin ziren béste Birjinác érc : Jáuna, Jáuna, óxez, idéki ezagúzu.

12. Béna hárec ihardéxi zéyen : eguiáz dioziét, e-tzuliét ezagútzen.

13. Hartácoz iratzárri égon ziteyé, ez-peitakizie egúna, ez oréna.

14. Guerthatúco da, hala-noúla guizoun herriz-cámpo zoúan bátec déithu bei-tzutian bére mithilac, eta hayén eskiétan bére hountarzúnac ezári.

15. Báti éman zian bóst taléntu, bestè báti biga eta besté báti bát ; bakhótchari bére ahálaren aráu, eta joúan zén berhála.

16. Joúan zén bóst taléntu úkhen ziána, eta balía erázi zutian, eta irabázi zian bestéric bóst.

17. Halabér éguin zian bi taléntu úkhen ziánac eta béste biga irabázi zian.

— 145 —

18. Bát úkhen ziána áldiz, joúan eta lúrrian ziló-bat éguin zian eta górde zian bére náusiaren díharia.

19. Dembóra luzéren burian, utzúli zén mithil hayén náusia, eta galthátu zéitzen khountiac.

20. Hullántu zén bóst taléntu úkhen ziána, eta eskéntu zéyon béste bóst, erráiten zéyolaric : Jáuna, bóst taléntu éman déitazu, houná béste bóst irabázi dutudánac.

21. Náusiac érran zéyon : oúnxa hóri, mithil hoún eta leyála, izan béi-hiz fidél aphurrétan, hanitchen guehién ezarico áit ; sár ádi hire náusiaren boztarioúan.

22. Hullántu zén guéro bi taléntu úkhen ziána, eta érran zéyon : Jáuna, bi taléntu éman zenéitan, houná béste bi irabázi dutudánac.

23. Ihardéxi zéyon náusiac : oúnxa hóri, mithil hoún eta leyála, aphurrétan izan béihiz fidél, hanitchen guehién ezarico áit, sár ádi hire náusiaren boztarioúan.

24. Hullántu zén azkénic, taléntu bat úkhen ziána eta érran zian : Jáuna, ba-dakit guizoun

gogórra ziréla ; eráikiten dúzu eréñ ez-túzun lekhian, eta iráurri ez-túzun lekhian biltzen dúzu :

25. Hartácoz lóxa bei-nintzan , joúan núzu eta górde dizut zoúre taléntia túrrian : houná noún dúzun zouria.

26. Náusiac ihardéxi zéyon eta érran : nithil gáisto eta auhérra, ba-hakian eráikiten dudála eréñ ez-túdan lekhian, eta biltzen iráurri ez-túdan lekhian :

27. Béhar hian árren ezári éne diharia bankiéren eskiétan, eta nic jin oundoúan eráikico nián enia irabaziareki.

28. Elkhi ezózie taléntia , eta emoúzie hámar taléntu diánari.

29. Ezi diánari emánen záyo eta gáintica ukhénen du ; ez-tiánari áldiz, diála udúri dian hoúra ére élkhico záyo.

30. Eta mithil auhérra ourthiki ezazie campóco ilhunpétarat : hán dáte nigar eta hürtz carrásca.

31. Jiten dátekienian Guízuúnaren Semia bére handitárzunian, eta aingúru guzíac haréki, ordian járriren da bére erreguegouáco jarguián.

32. Eta háren aitziniala bilduren dira popúlu guziac, eta berhezíren dútu alkhargánic, artzáñac berhézten dutían bezála ardiac akherrétaric.

33. Eta ezarico dútu ardiac bére escúñian , akhérrac áldiz eiskérrian.

34. Ordian Erréguec erránen du bére escúñecouer : tziáuste éne Aitac benedicatíac, góza ézazie zientáco mundiaren hástetic adelatúric dén erresoumá.

35. Ezi góse izán niz eta éman déitazie játera : egárri izán niz, eta éman déitazie edátera : árrotz nintzan eta hártu náizie :

36. Biláiziric nintzan eta beztítu náizie ; éri nintzan eta jin zitzáiztayé ikhoústera: presoúnteguian nintzan, eta jin zirayé enegána.

37. Ordian jústouec ihardexíren déyoue : Jáuna , noúiz ikhoúsi zutúgu gosetúric eta éman déizugu játera ? egárriturie eta éman déizugu edátera?

38. Noúiz árrotz ikhoúsi zutúgu eta hártu etcherát, edo biláiziric eta beztítu ?

39. Edo noúiz ikhoúsi zutúgu éri edo presoúnteguian eta jin guíra zouregána ?

40. Eta erréguec ihardexiren déye : egoiáz dioziét, hóric éguin dutuziénian éne anáye tchipién hoyétaric báti, éni éguin dutuzie.

41. Erránen du guéro eiskérrecouer : zouazté enegánic, maradicutiac, bethiéreco súyalat, zoûñ izán béi-ta phízturic débriaren eta háren lagunén.

42. Ezi góse izán niz, eta ez-téitazie éman játera : egárri izán niz eta ez-téitazie éman edátera.

43. Arrotz nintzan eta e-náizie bildu : biláiziric eta e-náizie beztitu : éri eta presoúntegnian eta e-tzitzáiztaye jin ikhoústera.

44. Ordian hayéc ére ihardexiren déyoue : Jáuna, noúiz ikhoúsi zutúgu gosetúric, edo egárriturie, edo árrntz, edo biláiziric, edo éri, edo presoúntegnian, eta ez-téitzugu éguin goûre eguinbidiac ?

45. Eta háree erránen déye ; egniáz dioziét, tchipién hoyétaric báti hóric éguin ez-tutuziénian, éni dutuzie éz éguin.

46. Eta jouánen dira hóric bethiéreco thormentiétarat, jústouac áldiz bethiéreco bizitzialat.

XXVI CAPITULIA.

1. Ukhéntc zutiánian Jésusec élhe hóric, érran zéyen bére dizipuliér :

2. Ba-dakizie bi egúnen burían Bázcoua eguinen déla ; eta Guizoúnaren Semia emánic izánen da cruzificatúric izáteco.

3. Ordian bildu zirén Aphézen guehiénac eta populúco zalutúrrac, Caifas déitzen zén Aphézbandiaren etche-héipiala.

4. Eta bitzártu zién béhar ziéla ichílea Jésus atzáman eta hil-erázi.

5. Béna zioyén : Ez jéi-eguniau, albarót zoumbáit populian eráik ez-tádin.

6. Ordian Jésus Bethanian zélaric, Simoún lepradúnaren étehen,

7. Hullántu zéyon emazté bat, urrin-hoún balioúsez bethéric zén alabástrozco ountzi bat eskian, eta ichoúri zéyon burun-gáña mahaíñan zélaric.

— 150 —

8. Hórren ikhoústia gaitzéxi zién dizipuliéc, eta érran zién : zértaco éguin holáco gáltzia?

9. Ezi hóri sáldu áhal zátekian oúnxa, eta sária éman beharrér.

10. Jésusec bei-tzakian zér zioyén, érran zéyen : zértaco emáiten deyozié emázte hoúni hiráic? eguitáte hoúna eguin du éne cretzian.

11. Ezi ba-dutuzie béthi behárrac ziéki, ni áldiz e-náizie béthi ukhénen.

12. Urrin-hoún hóri éne khorpitziala ichoúri du éne ehortzetáco.

13. Eguiáz dioziét : noún-nahi izan dádin Ebanjelio háu pheredicatúric múndu guzian, izánen da ére erránic hoínec zér éguin dian, hoúnen orhitzapenétan.

14. Ordian joúan zén hamabiétaric bát, Judás Iscarióta déitzen zéna, Aphézen guehiénetara ;

15. Eta érran zéyen : zér náhi déitazie éman eta níc hoúra eskiétaturen déiziet. Hayéc esképtu zéyouen hóguei-eta-hámar zílhar.

16. Ordútic uxártiaren gouáita zabilan, hayén eskiétan háren ezárteco.

17. Ogui altchátu-gabén léhen egunian,

— 151 —

hullántu zéitzon dizipuliac Jésusi eta érran zéyouen : noún náhi dúzu adéla dizazúgun Bázcouaren játeco ?

18. Ihardéxi zéyen Jésusec : zouazté hiriala, houlacouagána eta errózie : náusiac igórten déizu : éne thenoria húllan da, zoúre etchéra jíten núzu éne dizipuliéki Bázcouaren eguitéra.

19. Dizipuliéc éguin zién Jésusec manhátu zéyen bezála, eta adelátu zién Bázcoua.

20. Arráxa héltu zénian, járri zén maháiñian bére hamabi dizipuliéki.

21. Eta játen ári zirélarie érran zéyen : eguiáz dioziét ziétarie bátec traditúren náyala.

22. Hitz hoyéz ezinágo bihotztérrituric, hási zéitzon aldica galthátzen : ni othé niz, Jáuna ?

23. Jésusec ihardéxi zéyen : enéki eskia plátian ezárten diánac, hárec traditúren nái.

24. Bái Guizoúnaren Semia ba-doúa, hártzaz izkiríbatúric dén bezála ; béna gáitz guizoun háren, zoúñtzaz izánen béi-ta traditúric ; hóbe zátekian harentáco, ez-pa-zén egundáno sórthu.

25. Judás háren tradizaliac, ellía hártu zían

eta érran zéyon : náusia, ni ollié niz ? ihardéxi zéyon : érran dúzu.

26. Aiháitan zirélaric, Jésusec hártu zian ogúia, benedicátu eta háuxe eta éman dizipuliér erráiten zéyelaric : hár ezazie eta ján ; háu da éne khorpítza.

27. Guéro hárturic edan-ountzia, eskérrac utzúli zutian, eta éman zéyen, erráiten ziálaric : édan ezazie hountáric guziéc,

28. Ezi háu da éne odóla, páto berricoúa, zoúñ hanitchen-tzát ichouríric izánen béi-ta bekhatién pharcamentútan.

29. Báita erráiten déiziet : éz-tut habóro edánen aihénaren frútu hortáric, jin ártio egúna zoúñtan bérri edánen béi-tut ziéki, éne Aitáren erresoumán.

30. Eta eskerrézco psálmiac érran oundoúan, joúan zirén Olibétaco mendialat.

31. Ordian Jésusec érran zéyen : ziec guziéc gáur gálbide hárturen duzie nítan. Ezi izkiribatúric da ; jóco dut artzáña, eta barreyatúren díra arthaldéco ardiac.

32. Béna phíztu nizatekiénian, lehentúren nitzáizie Galiléara.

33. Phetíric elhía hárturic érran zéyon : béste guziéc zútan gálbide hárturic ére, nic eztít jagóiti hárturen.

34. Jésusec érran zéyon : eguiáz erráiten déizut, gáur bérian, ollárrac khantátu gábe, birourétan ukhatúren náizu.

35. Phetírie érran zéyon : béhar bá-nu ére zouréki hil, e-tzútut ukhatúren. Halabér béste dizipúlu guziéc ére érran zéyouen.

36. Ordian héltu zén Jésus hayéki Jetsemáni déitzen dén gumé batetára, eta érran zéyen dizipuliér : záuzte bében, ni haráche noúan ártian, othóitze eguitéra.

37. Hártu zutian beréki Phetíri eta Zebedéen bi semiac, eta hási zén tristetzen eta bihotztérritzen.

38. Ordian érran zéyen : tríste da éne arimá hiltzerano : záuzte hében, eta iratzarríric égon ziteyé enéki.

39. Eta hurruntchiágo jouánic, eróri zén ahózpez lúrren-gáña, othóitze háu eguiten ziálaric : Ene Aita, áhal bá-da, húrrunt bédi enegánic calítzia hóri ; baregátic éguin dadila éz nic náhi dúdan bezála, béna zúc náhi dúzun bezála.

— 154 —

40. Guéro jin zén dizipuliétara eta ló ediren zutian, eta érran zéyon Phetíriri : zér, e-tzirayé orén bat égon áhal izan enéki iratzarriric?

41. Záuzte iratzarriric, eta othóitze eguizie, éror e-tziteyén tentaziónian, ézi izpiritia bérhañ zálhe da, béna araguia flácu.

42. Harzára bi-guerren aldico joúan zén, eta othoitze éguin zian, zioualáric : éne Aita ez-pa-dáite calitzia húri igáran nic édan gábe, éguin bédi zoúre nahía.

43. Utzúli zén bérriz eta ló ediren zutian, ézi logaliac zerrátzen zéitzen beguiac.

44. Eta hoúrac útziric, bérriz joúan zén eta othóitze éguin zian hirour-guérren aldico, ber hítzac errálten zutiálaric.

45. Guéro jin zén béne dizipuliétara eta érran zéyen : ló egnizie órai eta phausa ziteyé; houná noún dén húllan oréna, eta Guizoúnaren Semia gaistouén eskiétan ezariric izánen da.

46. Jáiki ziteyé, gouátzan, háu duziéla hullántzen éne tradizalia.

47. Oráno mintzo zélarie, aguértu zén Judás, hamabiefaric báta, eta haréki jénte-ózte handi lat ezpatéki eta makhiléki, aphézen guehienéc eta populúco zaharréc igorriric.

48. Háren tradizaliac segnále háu éman zéyen : noúri-éne emánen béi-tut pót bat, hoúra da, lóth zakitzoyé.

49. Eta hainbéstereki Jésusen-gána hullantúric érran zéyon : ágour, náusia : eta pót éman zéyon.

50. Erran zéyon Jésusec : éne adiskidia, zértara jin zíra? Ordian bestiac hullántu zirén eta ezári zutién eskiac Jésusen gáña, eta hártu zién.

51. Arte-hórtan Jésuseki zién etaric bátec, hártu zian ezpatá, biláizi, eta jó Aphéz-handiaren mithil bat ; eta moúztu zéyon behárria.

52. Béna Jésusec érran zéyon : útzul ezázu ezpatá béne lekhialat, ézi ezpatá erabilico diána, ezpatáz hílen da.

53. Oúste duzía ez-tezakedála óthoy éne Aita, eta e-lizakedála berhála igor hamabi aingúru lejióne béno habóro?

54. Béna noúla bétha litáke, hóla izan béhar déla, errálten dién Izkiribiac?

55. Ordian Jésus mintzátu zén jénte sáldo

— 155 —

— 154 —

40. Guéro jin zén dizipuliétara eta ló ediren zutian, eta érran zéyon Phetíriri : zér, e-tzirayé orén bat égon áhal izan enéki iratzarriric?

41. Záuzte iratzarriric, eta othóitze eguizie, éror e-tziteyén tentaziónian, ézi izpiritia bérhañ zálhe da, béna araguia flácu.

42. Harzára bi-guerren aldico joúan zén, eta othoitze éguin zian, zioualáric : éne Aita ez-pa-dáite calitzia húri igáran nic édan gábe, éguin bédi zoúre nahía.

43. Utzúli zén bérriz eta ló ediren zutian, ézi logaliac zerrátzen zéitzen beguiac.

44. Eta hoúrac útziric, bérriz joúan zén eta othóitze éguin zian hirour-guérren aldico, ber hítzac errálten zutiálaric.

45. Guéro jin zén béne dizipuliétara eta érran zéyen : ló egnizie órai eta phausa ziteyé; houná noún dén húllan oréna, eta Guizoúnaren Semia gaistouén eskiétan ezariric izánen da.

46. Jáiki ziteyé, gouátzan, háu duziéla hullántzen éne tradizalia.

47. Oráno mintzo zélarie, aguértu zén Judás, hamabiefaric báta, eta haréki jénte-ózte handi lat ezpatéki eta makhiléki, aphézen guehienéc eta populúco zaharréc igorriric.

48. Háren tradizaliac segnále háu éman zéyen : noúri-éne emánen béi-tut pót bat, hoúra da, lóth zakitzoyé.

49. Eta hainbéstereki Jésusen-gána hullantúric érran zéyon : ágour, náusia : eta pót éman zéyon.

50. Erran zéyon Jésusec : éne adiskidia, zértara jin zíra? Ordian bestiac hullántu zirén eta ezári zutién eskiac Jésusen gáña, eta hártu zién.

51. Arte-hórtan Jésuseki zién etaric bátec, hártu zian ezpatá, biláizi, eta jó Aphéz-handiaren mithil bat ; eta moúztu zéyon behárria.

52. Béna Jésusec érran zéyon : útzul ezázu ezpatá béne lekhialat, ézi ezpatá erabilico diána, ezpatáz hílen da.

53. Oúste duzía ez-tezakedála óthoy éne Aita, eta e-lizakedála berhála igor hamabi aingúru lejióne béno habóro?

54. Béna noúla bétha litáke, hóla izan béhar déla, errálten dién Izkiribiac?

55. Ordian Jésus mintzátu zén jénte sáldo

— 155 —

lat ezpatéki eta makhiléki, aphézen guehienéc eta populúco zaharréc igorriric.

48. Háren tradizaliac segnále háu éman zéyen : noúri-éne emánen béi-tut pót bat, hoúra da, lóth zakitzoyé.

49. Eta hainbéstereki Jésusen-gána hullantúric érran zéyon : ágour, náusia : eta pót éman zéyon.

50. Erran zéyon Jésusec : éne adiskidia, zértara jin zíra? Ordian bestiac hullántu zirén eta ezári zutién eskiac Jésusen gáña, eta hártu zién.

51. Arte-hórtan Jésuseki zién etaric bátec, hártu zian ezpatá, biláizi, eta jó Aphéz-handiaren mithil bat ; eta moúztu zéyon behárria.

52. Béna Jésusec érran zéyon : útzul ezázu ezpatá béne lekhialat, ézi ezpatá erabilico diána, ezpatáz hílen da.

53. Oúste duzía ez-tezakedála óthoy éne Aita, eta e-lizakedála berhála igor hamabi aingúru lejióne béno habóro?

54. Béna noúla bétha litáke, hóla izan béhar déla, errálten dién Izkiribiac?

55. Ordian Jésus mintzátu zén jénte sáldo

hári, eta érran zéyon: ouhoún batetára bezála élkhi zirayé ezpatéki eta makhiléki éne hártzera: égun óroz zien ártian nindágon, témplouan eracásten, eta e-náizie hártu.

56. Béna hórie óro éguin dira Profetéc erranén bethatziagátic. Ordian dizipúlu guziác, houra útziric, ihes éguin zién.

57. Jésus hártu zienéc eroúan zién, Caifas Aphéz-handiaren etchéra, noún bílduric beitzáuden Legue-eracasliac eta populúco zahárrac.

58. Phetíri jarráiki zéyon hurrúntic, Aphéz-handiaren etche-héipiafano: eta bárna sártharic, járri zén miscandiéki, urhentburia ikhoúsi nábiz.

59. Aphézen guehiénac eta bilkhúra gúzia, jakile-falxugouá báten oundoúan zirén Jésusen coúntre, háren hil-erázteco.

60. Eta e-tzién ediréiten, nahi-báda bánitch jakile-fálxu erántzun zirén. Azkenian bi jakile-fálxu aguértu zirén,

61. Eta érran zién: houínec errán du: egótchi dezáket Jincouaren témploua, eta hirour egúnez arr'eráiki.

62. Ordian Aphéz-handia chutítzen da eta erráiten déyo: ez-túzu déus ihardésten hoyéc zoúre cóntre ekhárten dutién jakilegouér?

63. Jésus áldiz ichílic zágouan. Aphéz-handiac érran zéyon: manhátzen zútut Jinco biziaren izenian, érran dizagúzun zú zirénez Krist Jincouaren Semía.

64. Jésusec ihardéxi zéyon: érran dúzu. Báita dinziét, egún bátez ikhousíren duzie Guizoúnaren Semía járriric Jinco photerexiaren escúñian eta jiten zelúco odéyetan gáñen.

65. Ordian Aphéz-handiac urrátu zutían bére soúñecouac: bourháu eguín du, óxez; zértaco dúgu habóro jakile behárric? zihaurée órai éntzun duzie bourháua:

66. Zér záizie? hayéc ihardéxi zién: hiltzía zór záyo.

67. Ordian thú éguin zéyouen beguilhártiala; ukhubilla-khálduz jó zién; bestiac áldiz matheláco emáiten ári izan zéitzon,

68. Ziouélaric: khárusi ézac, Krist, noúr da jó áyana?

69. Phetíri árte-hórtan járriric zágouan campóco héipian: eta hulliántu zéyon nescató

hat eta érran: zú ére Jésus Galiléacoearéki zinén.

70. Béna hárec guzién aitzínian ukhátu ziau, zioualárie: ez-takit zér diózun.

71. Bortiátic élkhiten zélarie, béste nescató bátec ikhoúsi zian eta érran zian hán zirenér: hóri ére Jésus Nazaréthecouaréki zén.

72. Eta hárec bérriz ukhátu zian zíneki, erráiten ziálarie: éz-tut ezagútzen guizoun hóri.

73. Hántic aphúr báten burian, hullántu zirén hán záudenac, eta érran zién Phetiriri: bái hayétaric zira zú ére, ézi zoúre elhestáe bérac salhátzen zútu.

74. Ordian hási zén arnégu eta zin eguiten e-tziála guizoun hoúra ezagútzen. Eta hainsárri ollárrac khantátu ziau.

75. Eta orhítu zén Phetíri zér érran zéyon Jésusec: ollárrac khantátu béno léhen, hirourétan ukhatúren náizu. Eta camporát élkhiric, nigár éguin zian mingárki.

XXVII CAPITULIA.

1. Goíza héltu zénian, Aphézen guehienéc eta populúco zaharréc alkharréki hitzártu zién Jésusen hil-eráztia.

2. Estecatúric erakhárri zién, eta ezári Poúntzio-Pilátusen eskiétan.

3. Ordian Judás, háren tradizaliac, ikhoúsi ziánian coundenatúric zéla, dolutúric, ekhárri zéitzen aphézen guehienér eta zaharrér hógueieta-hámar zilhárrac:

4. Erráiten zéyelarie: gáizki eguin dut jústouaren odóla sálduz. Ihardéxi zéyouen: goúri zér záicu? Zúc ikhousázu.

5. Ourthíki zian dibaría témploualat, eta joúan zén eta bére buría urkhátu zian.

6. Aphézen guehienéc eráiki zién dibaría, béna érran zién: éz-ta sóri hoyén tresórialat ezártia, odólaren sária délacoz.

7. Eta alkharréki hitzárturic, erósi zién hárt-

— 160 —

zaz, lúrrezco ountzi-eguilé báten alhórra, arrotzén illérritaco.

8. Hartácoz da, égun oráno, álhor hoúra déithuric *Hazeldáma*, érran náhi béi-ta ódol-alhórra.

9. Ordian béthe zén Jeremía profetác érran ziána : hártu dutie hóguei-eta-hámar zilhar phezác, zoúñ bei-tira saltzapenétan ezaríric izan dénaren sária, eta zoúñen khóstuz erósi bei-tie Israeléco háurrer;

10. Eta ezári dutie lúrrezco ountzi-eguiliaren alhorrían ; Jincouac eracoúxi déitan bezála.

11. Jésus árren ekhárri zién gobernadoriaren aitziníala ; eta galthátu zéyon gobernadoriac : zú zirá Judíonén erreguía ? Jésusec érran zéyon : ba-diózu.

12. Eta oguendúntzen bei-tzién aphézen guehienéc eta zaharréc ; e-tzéyen déus ihardéxi.

13. Ordian Pilátusec érran zéyon : ez-túzu éntzuten zoumbát jakilegoúa zoúre gáñ ekhárten dién ?

14. Béna e-tzéyon déusetan ihardéxi, hórtzaz ezinágo bei-tzén gobernadória miréxiric.

15. Bázcoco égun handían, éman óhi zian populiari presounér-bat, berác náhi ziéna.

— 161 —

16. Báita ba-zian ordían khatiétan guizagáisto famatú bat, Barabbás déitzen zéna.

17. Eta hán bei-tzirén bilduric, Pilátusec érran zéyen : zoúñ náhi duzie éman dizaziédan, Barabbás ála Jésus, Krist déitzen déna?

18. Ba-zakían ézi hekhaisteriaz háren eskiétan ezári ziéla.

19. Báita tribunálian járriric zélaric, igórri zéyon emaztiac erráitera : ez-tadíla déus izan zoúre eta jústo hórren ártian, ézi hánitch eskerniátu núzu gáur amexetáric horrengátic.

20. Arte-hórtan Aphézen guehienéc eta zaharréc populiari burian ezári zéyouen, béhar ziéla Barabbás galthátu, Jésus áldiz gál-erázi.

21. Gobernadoriac árren elhia hárturic, érran zéyen : zoúñ náhi duzie biétarie éman dizaziédan ? Ihardéxi zéyouen : Barabbás.

22. Pilátusec érran zéyen : zér ordian eguínen dut Jésus, Krist déitzen dénaz ?

23. Guziéc ihardésten die : cruzifica dadíla. Gobernadoriac erráiten déye : Béna zér gáizki eguin du ? Hayéc zinezágo óihu eguíten die, dioyélaric : cruzifica dadila.

24. Pilátusec, ikhousíric e-tziála déus ira-

bázten, eta jentia habóro gúiztez zouála, hour erakhárri zian, eta eskiac chahátu zutian populiaren aitzinian zioualárie : cháhu niz ni jústo houinen odolétic : ziec ikhousazie.

25. Popúlu guziac ihardéxi zian : hórren odóla goúre gáñ déla eta goúre háurren gáñ.

26. Ordian eman-erázi zéyen Barábbas ; Jésus áldiz azotatúric eskiétan ezári zéyen crucificatúric izáteco.

27. Ordian gobernadoriaren soldádouec, erámman zién Jésus jaureguiala eta bére lagúnac óro háren unguriala bildu zutiéu.

28. Biláizi zién eta cápa gorri bátez unguriátu,

29. Eta khorouá bat elhórriz eguínic, ezári zéyouen burun-gáñen, eta canaberá bat eskian, eta belhaicátzen zirélaric háren aitzinian, náusaz ári zéitzon, ziouélaric : ágour déizugu, Judioñen erreguia.

30. Guéro thú eguíten zéyouen eta canaberá hárturic jóiten zéyouen buria ;

31. Aski laidostátu ziénian, khéntu zéyouen capá eta bére soúñecouac jáunxi zéitzouen, eta erámman zién crucificatzéra.

32. Elkhitziaréki, báthu zién Zirénaco guizoún bat, Simoún déitzen zéna, eta houra bortchátu zién Jésusen khurutchiaren eramáitera.

33. Héltu zirénian Golgothá déitzen dén lekhiala, zoún béi-ta Calbarioúa,

34. Eman zéyouen edátera ardoú ourdalminareki nahasirie, eta tehéste ziánian e-tzian édan náhi úkhen.

35. Itzátu zién khurutchian, phartítu zutién háren soúñecouac, zorthíala élkhirie ; bétha lédin profetác érran ziána : phartítu dutie ber'ártian éne soúñecouac, eta éne sayoúa zorthían ezári die.

36. Guéro járriric háren beguira zaudén.

37. Ezári zéyouen buriaren álde-gañian izkiribatúric, zértaco condenatúric izan zén : NAC DA JÉSUS JUDIOUÉN ERREGUÍA.

38. Ordian ére crucificatúric izan zirén haréki bi ouhoún, báta háren escúñian eta bestía eiskérrian.

39. Igaráiliac áldiz nausátzen ári zéitzon, buria iharráusten ziélaric,

40. Eta erráiten : eyá báda, hi Jincouaren

témplouaren egotchlia, eta hirour egúnez háren arreraikizalia, beguíra ézac óre buria : Jincouaren Semia ba-hiz jáix ádi khurutchétic.

41. Halabér Aphézen guehiénac ére náusaz ári zéitzon, Legue-eracaslèki eta zaharréki, ziouélaric :

42. Bestiaè libratu dútu eta bére buria eztezáke libra : Israeléco erreguia báda, jáix dadíla órai khurutchétic eta hórtan sinhésten dógu.

43. Jincouatan bermátzen da : libra dezála órai háren gogóco bái-da, ézi érran du : Jincouaren Semia niz.

44. Bér guisán haréki cruzificatúric zirén ouhouñéc oundicátzen zién.

45. Báita séi-guerren orenétic bederátzuguerreníala, ulhumpéc hártu zién múndu guzía.

46. Eta bederátzu-guérren orénaren ungurnian Jésusec óihuz érran zian azcárki : Eli, Eli, lamma-sabactháni : érran nahí da : Ene Jincoua, éne Jincoua, zértaco útzi náizu?

47. Hán zaudenétaric zoumbáitec, hóri éntzunic, érran zién : Elía déitzen du houínec.

48. Eta berhála hayétaric bátec, lastérca jouánic, espoúnja bat ardoú mingártuz béthe zian eta hagá báten phuntán ezaríric, emáiten zéyon edátera.

49. Bestéc áldiz erráiten zién: eyá, dezágun ikhous Elía jínen záyonez libratzéra.

50. Jésusec ordian, óihu handí bat eguiten ziálaric, ázken háxa igórri zian.

51. Ordu bérian témploco mihisía bi zathitan urrátu zén, gañétic zolála; ikharátu zén lúrra, eta harrocác erdirátu zirén;

52. Eta zabáltu zirén hil-hobiac, eta hílic zirén hanitchen khorpítzac phíztu zirén;

53. Eta élkhiric hobiétaric, arraphíztu zénian Jésus, jin zirén híri sáintíala, eta hanitchi aguértu zirén.

54. Holatán chuntaría eta haréki Jésusen beguirátzen záudenac, ikhoúsi zutiénian luhícará eta béste igaráiten zirén gaizác, ízitu zirén ezinágo eta zioúen : eguiázki háu Jincnoaren Semia zén.

55. Ba-zirén ére háu hurrunttotan, emázte saldó bat, Jésusi Galiléatic jarráiki zirénac, eta hári lagungoúa eguiten zéyenac.

— 166 —

56. Hayétan zén Maria Madaléna, eta Maria Jacóbecn eta Joséfen amá, eta Zebedéen semén amá.

57. Arráxa héltu zénian, jin zén Arimathéaco guizoun aberáx bat, Joséf deitzen zéna, zoúñ bei-tzén ére Jésusen dizipúlu.

58. Joúan zén Pilátusen-gána, eta gallhátu zéyon Jésusen khorpitza ; eta Pilátusec berhála manhátu zían éman lekión.

59. Joséfec hártu zían khorpitza eta mihíse chouri batétan ungurátu.

60. Eta ezárí zían bére hóbi berrian, zoún harrian zil'erázi bei-tzian : eta hárri handí bat utzulicátu zían hobi-ahoúala eta joúan zén.

61. Hán zaudén Maria Madaléna eta béste Mariá, járriric hobiaren khantian.

62. Biharamenian, zoúñ bei-tzén nescanegúna, Aphézen guehiénac eta Farisiénac alkharréki joúan zirén Pilátusen-gána.

63. Eta érran zéyouen : Jáuna, urhitu gutúzu, inganazále hórrec érran diála bízi zélaric : hirour egúnen burian phizturen niz.

64. Mánu emázu árren beguira dádin hobía, hirour-guérren egunialano ; joúau ez-titian

— 167 —

háren dizipuliac khorpitzaren ebastéra eta érran ez-tezén populiari : hiletaric phiztu da ; ázken inganioúa lehénaren sordéi be-lizáte.

65. Pilátusec érran zéyen : ba-dutuzie beguirariac, zouazté eta zien jakinaren aráu beguir'eráz ezazie.

66. Hórtan joúan zirén ; zerrátu zién hobia, harria cachetátu eta beguirariac ezárí.

— 170 - -

XXVIII CAPITULIA.

1. Nescaxégun gáyan, asléco léhen egúnaren arguitziaréki, joúan zirén Mariá Madaléna eta béste Mariá hobiaren ikhoústera.

2. Eta batbatian luhicára handi bat izan zén. Ezi Jincouaren ainguría jáixi zén zelútic, eta hobiala hullantúric egótchi zian harria eta háren gáñen járri zén.

3. Háren beguithártiac udúri zian inhazía, eta háren sayoúa elhúrra bezála zén.

4. Lóxaz harritu zirén hobiaren beguirariac, eta hilic bezála járri zirén.

5. Ainguría mintzátu zén emaztér eta érran zéyen : ez-tezaziéla ziec loxáric úkhen ; badákit Jésus cruzificatúric izan dénaren ikhoúsi náhiz zirayéla :

6. Ez-ta hében, phíztu da, érran zían bezála; tziáuste eta ikhoús ezazic Jáuna ezári zién lekhía.

7. Eta zouazté berhála háren dizipuliér erráitera : phíztu da eta Galiléara lehentúren záizie ; hán ikhousico duzie, aitzinétic jakinxútzen zutiét.

8. Elkhi zirén bértan hobitic, ikhára eta boztario handiréki, eta lastérca ha-zouátzan dizipuliér berriaren emáitera.

9. Eta houná noún Jésus aitziniala agüértzen záyen, dioualáric : ágour déiziet. Eta hourác hullántu zéitzon, besárcatu zutién háren zankhoúac eta adorátu zién.

10. Ordian Jésusec érran zéyen : éz úkhen loxáric, zouazté, errézie éne anayér joúan ditían Galiléara, hán ikhousíren náyela.

11. Hourác joúan zirénian, hobiaren beguirariétaric zoumbáit jin zirén luriala, eta érran zéitzen Aphézen guehienér igáran zirénac óro.

12. Hayéc bilzárren éguio zién populúco zahárréki, eta alkharréki hitzárturic, éman zién soldádouer diharútze handi bat ;

13. Erráiten zéyelaric : errazie háren dizipuliée, gáyaz jinic, eráman diéla, ziec ló ziniélaric.

14. Eta hóri gobernadoriac jakiten bá-du,

— 171 —

gúc mintzatúren dúgu, eta gáitzic ukhéitetic beguiratúren zutiégu.

15. Hayéc diharia hártu zién eta éguin eracáxi zéyen bezála. Eta guézur hóri barreyatúric da Judiouén ártian oráno égunco egunian.

16. Haméca dizipuliac áldiz joúan zirén Galiléara, Jésusec érran zéyen mendiala.

17. Hán ikhoúsi eta adorátu zién: zoumbáit haregátic dudán izan zirén.

18. Jésus hullantúric mintzátu zéyen eta érran: Photére osoúa emánic izan záit zelian eta lúrrian:

19. Zoazté árren, popúlu guziac árgui etzatzie, batheyátzen dutuziélarie Aitáren eta Semiaren eta Espíritu Sáintiaren izenian:

20. Eracústen deyeziélarie nic manhátu déitziedan guzién beguirátzen. Eta ni ziéki niz béthi mentén urthentzialano.

NOTES GRAMMATICALES

SUR LA LANGUE BASQUE.

Pour faciliter l'intelligence de ces notes, nous avons cru utile de mettre ici un paradigme de la déclinaison basque avec les dénominations casuelles dont nous avons fait usage :

Dénominations.	Indéfini.	Défini singulier.	Défini pluriel.
1 Nominatif.	*Hiri*, ville.	*Hiria*, la ville.	*Hiriac*, les villes.
2 Actif.	*Hiric*, ville.	*Hiriac*, la.	*Hiriéc*, les.
3 Génitif possessif.	*Hiriren*, de.	*Hiriaren*, de la.	*Hirién*, des.
4 Génitif relatif.	*Hiritaco*, de.	*Hirico*, de la.	*Hiriétaco*, des.
5 Datif.	*Hiriri*, à.	*Hiriari*, à la.	*Hiriér*, aux.
6 Instrumental.	*Hiriz*, par.	*Hiriaz*, par la.	*Hiriéz*, par les.
7 Local.	*Hiritan*, dans, en.	*Hirian*, dans la.	*Hiriétan*, dans les.
8 Adlatif.	*Hiritára*, à.	*Hiriala*, à la.	*Hiriétara*, aux.
9 Translatif.	*Hiritarat*, à et vers.	*Hirialat*, à la, vers la.	*Hiriéturat*, aux, vers les.
10 Élatif.	*Hiritaric*, de.	*Hiritic*, de la.	*Hiriétaric*, des.
11 Déterminatif.	*Hirituraño*, jusque.	*Hirialano*, jusqu'à la.	*Hiriétarano*, jusqu'aux.
12 Prolatif.	*Hiriréntaco*, pour.	*Hiriarentaco*, pour la.	*Hiriéntaco*, pour les.
13 Donatif.	*Hiriréntzat*, pour.	*Hiriarentzat*, pour la.	*Hiriéntzat*, pour les.
14 Sociatif.	*Hiriréki*, avec.	*Hiriareki*, avec la.	*Hiriéki*, avec les.
15 Causatif.	*Hirirengatic*, à cause de.	*Hiriarengatic*, à cause de la.	*Hiriéngatic*, à cause des.
16 Despectif.	*Hirigatic*, au mépris de.	*Hiriagatic*, malgré la.	*Hiriacgatic*, au mépris des.
17 Contributif.	*Hirical*, par ville (un homme).		
18 Destinatif.	*Hiritzat*, pour ville (je l'ai choisi).		
19 Infinitif.	*Hiriric*, de ville (il n'y a pas).		
20 Modal.	*Orguitáca*, par charretée ; *ahurretá-ca*, par poignée ; *ukhabillá-ca*, à coups de poings.		

L'indéfini seul a les quatre derniers cas.

Les terminaisons *gánic, gána* et *ganát* s'emploient pour les noms propres, et en général pour les noms, les adjectifs et les pronoms qui désignent des êtres raisonnables. Leur valeur est celle des cas élatif, adlatif et translatif.

Gábe gañen, pían, aldian, etc., sont des mots qui s'ajoutent comme suffixes ; mais ce sont de vrais noms avec terminaisons casuelles, et ils ne peuvent être considérés comme des cas particuliers de la déclinaison basque.

NOTES GRAMMATICALES.

PRONONCIATION

Des Lettres de l'Alphabet Basque Souletin.

En général, toutes les lettres se prononcent telles qu'elles sont écrites, mais elles n'ont pas, toutes, le même son que leurs correspondantes dans le français.

1. *a* se prononce comme en français.
2. *b* au commencement des mots et après *m* et *n*, se prononce comme le *b* français : *bat, buru, hambat, haiñbeste*. Dans les autres positions le *b* basque a un son intermédiaire entre le *b* et le *v* français, *abere, heben, haboro, salbuzale, erbi*.
3. *c* n'est employé, dans cette traduction, que pour le son dur devant les voyelles *a, o, u* et à la fin des mots. Il pourrait être partout remplacé par le *k*.
4. *d* se prononce comme en français.
5. *e* est le plus souvent ouvert; il est fermé quand il se trouve accentué à la fin des mots.

— IV —

6. *f* ne se trouve que dans les mots empruntés aux langues étrangères ; il a le même son qu'en français.
7. *g* n'est employé que pour le son guttural : *ga, gué, gui, go, gu ; gué, gui* se prononcent comme *ghé, ghi* en italien.
8. *h* est aspiré toutes les fois qu'il n'est pas précédé du *c*.
9. *i* comme en français.
10. *j* dans le dialecte souletin, se prononce comme en français.
11. *k* est dur comme en français.
12. *kh* a le son aspiré de *k*.
13. *l* comme le *l* français dans *Louis, parler; galdu, lehen*.
14. *ll* leur son est celui des *ll* espagnols : *llabur, ollo*.
15. *m* comme le *m* français non nasal.
16. *n* comme le *n* français non nasal.
17. *ñ* comme le *gn* français et le *ñ* espagnol.
18. *o* comme en français dans *homme*.
19. *p* comme en français.
20. *ph* a le son du *p* aspiré.
21. *r* est doux, seul entre deux voyelles; dur, dans tous les autres cas.
22. *rr* entre deux voyelles se prononcent durs comme en français *guerre; erre, haurra*.
23. *s* a un son gras qui ne se trouve pas dans le

— V —

français : *gose*, *ase*, *usu*. Ce son se produit sans le concours des dents.

24. s Le *s*, dans le dialecte souletin, a un son plus doux dans certains mots tels que *Jésus*, *guisa*, *arrésa*; nous l'indiquons par un *s* italique dans la traduction et par le s ordinaire dans les notes. C'est le son doux correspondant du s ordinaire basque.

25. *t* a le son du *t* français.

26. *th* a le son aspiré du *t*.

27. *tt* double a un son doux dont l'union du *t* avec *y* consonne peut donner une idée, *ty*. C'est un *t* mouillé.

28. *u* en dialecte souletin, se prononce comme en français.

29. *x* a le son simple de *ts* réunis.

30. *y* entre deux voyelles, a le son doux qu'on lui donne en français dans les mots *payer*, *voyage*. Il est toujours consonne. Entre une consonne et une voyelle il prend le son d'un *d* mouillé : *ónyo*, *angerèijer*.

31. *z* a le son du *c* doux en français dans les mots *grâce*, *espèce*, *ciel*.

32. *z* italique (ou ordinaire dans les mots écrits en italiques) a le son doux du *z* français.

33. *tz* a le son de *tz* réunis. C'est le *z* italien dans le mot *azione*.

34. *ch* a le son de ces lettres dans *chacun*, *chercher*.

— VI —

35. *tch* a le son du *ch* rendu plus dur par le *t*. C'est le *ch* espagnol.

36. *ou* se prononce comme l'*ou* français.

37. *au* se prononce *aou*, *haur* prononcez *haour*.

38. *eu* se prononce *eou*, *euri* prononcez *eouri*.

39. *ai* se prononce *a-ï*, comme dans *Anaïs*, *Adélaïde*.

40. *oi* se prononce *oï*, comme dans *sphéroïde*.

CHAPITRE I.

Inversions. — *Versets 1 et 2.* — 1° La langue basque admet les inversions; ainsi on dit indifféremment : *Abrahámec úkhen zían Isaák;* ou, *Isaák úkhen zían Abrahámec;* ou, *úkhen zían Isaák Abrahámec;* ou, *Isaák Abrahámec úkhen zían;* ou, *Abrahámec Isaák úkhen zían;* ou, *úkhen zían Abrahámec Isaák;* de quelque manière que l'on place ces mots, la phrase est régulière et également intelligible pour les Basques. Ces inversions se font, dans toutes les propositions *complètes*, entre le sujet, le verbe et les compléments directs et indirects.

2° Mais l'inversion ne se fait jamais entre deux mots qui sont en rapport de dépendance l'un de l'autre. Alors celui des mots qui dépend de l'autre se met toujours après le mot dont il dépend; ainsi on dit : *Jesu-Kristen ebanjelioúa* et on ne peut pas dire *Eban-*

— VII —

jelioúa Jesu-Kristen; on dit : *Dabíten semia* et on ne peut pas dire *semía Dabíten*. Cette règle a nécessité la répétition de *Maria* au verset 16.

3° L'inversion ne se fait jamais non plus entre un substantif et l'adjectif qualificatif qui lui est *immédiatement* uni ; le substantif s'exprime toujours le premier ; ainsi on dit : *Ebanjelío sáintia, Jinco hoúna*, et on ne dira point : *Sáintu Ebanjelioúa, hoún Jincoua*. — L'inversion peut se faire lorsque le substantif est uni à l'adjectif par l'intermédiaire d'un verbe et que les termes constituent une proposition complète ; ainsi on pourra dire indifféremment : *hoún da Jincoua, sáintu da Ebanjelioúa*, et *Jincoua hoún da, Ebanjelioúa sáintu da*.

4° L'inversion ne se pratique pas non plus entre les verbes attributifs et les auxiliaires ou formatifs avec lesquels ils se conjuguent ; lorsque la proposition est affirmative, l'auxiliaire se met après le verbe attributif, en règle générale ; et lorsque la proposition est négative, l'auxiliaire précédé de la particule négative se met avant le verbe attributif ; ainsi on dira : *Abrahámec úkhen zian Isaák, Abrahámec e-tzian eho Isaák ;* et on ne pourrait pas dire dans le même sens : *Abrahámec zían úkhen Isaák, Abrahámec eho e-tzían Isaák*.

Il arrive quelquefois que l'auxiliaire, dans une proposition affirmative, se place avant le verbe attributif, mais alors la proposition a un sens particulier qui se rend en français par *c'est, c'était ;* ainsi, *Abrahámec zían úkhen Isaák* est une phrase régulière, mais elle signifie : *c'est Abraham qui engendra Isaac; hóri da jin goizan* veut dire : *c'est lui qui est venu ce matin*.

— VIII —

Accord. — *Verset 1.* — Lorsqu'un substantif est suivi d'un ou de plusieurs qualificatifs sans l'intermédiaire d'un verbe, le dernier terme seul prend le cas modificatif, les autres qui s'y rapportent conservent leur état radical ou indéfini ; ainsi on dit : *Ebanjelío sáintia* et non : *Ebanjelioúa sáintia ;* on dirait : *Jésu-Krist goáre Jáunaren Ebanjelioúa*, et non : *Jésusen-Kristen gouriaren Jáunaren Ebanjelioúa*, ce que demanderaient les règles de la syntaxe latine et grecque ; on dit : *Jésu-Krist Dabíten semiaren oundorióco guthúna*, et non : *Jésusen-Khristen, Dabíten semiaren*, etc. Ce mode de construction lie intimement les mots indéfinis au terme défini et en forme un seul tout.

— *Guthúna* est un mot basque employé encore aujourd'hui au pluriel dans une partie de la Soule pour signifier *un livre, guthúnac*. Il est probable que, dans l'origine, on a employé ce terme au pluriel, parce que les livres étaient une réunion de plusieurs feuilles ou rouleaux, et qu'on appelait sans doute une feuille ou un rouleau séparé, *guthúna*. Comme il est à croire que le *liber generationis* des Hébreux n'était qu'une feuille de parchemin ou d'écorce, j'ai employé *guthúna* au singulier.

Affixe *ba*. — *Verset 17.* — 1° *Ba-dira*. Lorsque les verbes auxiliaires *dut* et *niz* sont employés seuls pour signifier *avoir* et *être*, et non comme formatifs, ils prennent la particule ou affixe affirmatif *ba* dans les propositions affirmatives, et la particule négative *ez* ou *e* dans les propositions négatives ; ainsi on dit : *badira bost, ils sont cinq ; ez-tira, ils ne sont pas ; bá-dut*

— IX —

etché-bat, j'ai une maison; éz-tut etchéric, je n'ai pas de maison. Quelques verbes irréguliers, tels que *ba-noúa, ba-dákit, ba-nágo, ba-nabila*, prennent également la particule *ba* pour la proposition affirmative et la particule *ez* ou *e* pour la proposition négative.

2° Lorsque les deux auxiliaires sont employés comme formatifs de verbes attributifs, cette même particule *ba*, précédant l'auxiliaire, exprime la conjonction conditionnelle *si*; ainsi : *jouáiten bá-niz*, veut dire : *si je vais; emáiten bá-dut, si je donne.* Pour exprimer cette particule conditionnelle lorsque les verbes auxiliaires sont employés seuls, c'est-à-dire sans verbe attributif, ou sans adjectif, on se sert de la conjonction *balin* ou *baldin*, suivant le dialecte; ainsi pour rendre ces termes : *s'ils sont quatre*, on dira : *bálin ba-dira láur*; pour rendre : *si j'ai le droit*, on dira : *bálin bá-dut zuzéna.*

Affixe *bei*. — *Verset 19.* — L'affixe *bei* ou *bai*, suivant e dialecte, s'emploie devant les auxiliaires, de même que l'affixe *ba*. Il signifie *parce que*, toutes les fois que les verbes ne sont pas précédés d'un des pronoms ou adverbes ci-après. Ainsi : *Joséf, guizoun chuchéna bei-tzén*, veut dire : *Joseph, parce qu'il était un homme juste; jin núzu, ikhoúsi bei-tut éne behárra ba-zuniála*, veut dire : *je suis venu, parce que j'ai vu que vous aviez besoin de moi.*

L'affixe *bei* s'emploie devant les auxiliaires, lorsque les verbes sont précédés des pronoms : *zoún, zoúñec, n, i, tzaz; zoún-ere, zoúñi-ere, zoúñen-ere, zoúñec-ere*, etc.; *noúr-ere, noúre-ere*, etc.; *zér-ere, zére-ere, zéren-ere, zéri-ere*, etc.; ou des adverbes : *noún-ere,*

— X —

noúiz-ere, noúla-ere, noúrat-ere, noúntic-ere. Mais dans ces cas, cet affixe n'ajoute rien à la signification propre du verbe. Ainsi, *Birjiná, zoúñen senhárra Joséf* BEI-*tzén*, veut dire : *la Vierge dont l'époux était Joseph; noúr ere jinen* BÉI-*ta* veut dire : *quel que soit celui qui viendra; noúla-ere náhi* BEI-*túke*, veut dire : *de la manière qu'il voudra*, etc. Lorsque ces pronoms et ces adverbes sont employés comme interrogatifs ou exquisitifs, ils ne demandent pas la particule *bei* devant le verbe; ainsi on dit : *érran ezadázut zoúñ joúan zén, dites-moi lequel est parti*, et non : *érran ezadázut zoúñ joúan bei-tzén;* on dit : *jákin ezázu noúr dén, sachez qui c'est*, et non : *jákin ezázu noúr béi-ta*, etc.; *noúr jin da? qui est venu? nourát jouán da? où est-il allé?*

Changement de lettres. — 1° Les Souletins changent par euphonie les diphthongues *eu, ua, ue, oa, oe*, en *ia, ie, oua, oue*; ainsi on dit : *semia* pour *seméa; bortía* pour *bortúa; bortién* pour *bortuén; Jincoua* pour *Jincoa; gaistouén* pour *gaistoén.* Les Navarrais font aussi ces changements; seulement, au lieu de changer *ua* en *ia*, ils le changentquelquefois en *uia*; ainsi ils diront *bekhatuia* au lieu de *bekhatua.*

Si la crainte d'innover ne nous eût retenu, nous aurions conservé dans l'écriture les diphthongues *ea, ua, ue, oa* et *oe*, et pour avertir qu'il faut les prononcer *ia, ie, oua, oue*, nous aurions mis un tréma sur l'*ë*, sur l'*ü* et sur l'*ö*. Ce système d'orthographe aurait eu l'avantage de ne pas altérer les radicaux et de conserver aux mots leur véritable physionomie.

—

— XI —

Le changement euphonique de *ua* et *ue* en *ùa* et *ùe*, dans les mots qui au nominatif indéfini se terminent en *u*, et la prononciation *oua* et *oue* qui se trouve dans un très-grand nombre de mots du dialecte souletin, sont des preuves que l'*u* aigu doit être primitif et essentiel dans ce dialecte. En effet, puisque le Souletin prononce si souvent *oua, oue*, comme dans *ardoúa, lanhoúa, anhoué, gagoúa, Jincoua, ardouén, lanhouén, anhouéki*, etc., etc., l'euphonie ne lui aurait pas fait changer *oua, oue*, en *ùa, ùe*, comme il change *úa, úe* en *ùa, ùe*. Si ces mots : *asmúa, burúa, bortúa, damúa, katúac, daillúa, gaitzurúa, sárthua, kártua*, etc., il eût été habitué à les prononcer *asmoúa, buroúa, bortoúa, damoúa, dailloúa, katoúac, kártouac*, etc., rien ne pouvait le porter à changer ces prononciations, puisqu'il les conservait et qu'il les a conservées dans une multitude de mots. Si donc de *ásmu* il fait *asmúa*; de *buru, burúa*; de *bórtu, bortúa*; de *daillu, daillúa*; de *sórthu, sórthúa*; de *gáthu, gathúa*; c'est que l'*u* a dû pour lui être aigu de tous les temps dans ces mots, et que jamais il n'a dû les prononcer *daillou, dailloua, damou, damoua, borton, bortoua*, comme il prononce *ardou, ardoua, lanhou, lanhoua*.

2° Lorsque la lettre douce *z* se trouve suivie des lettres douces *b, d, g*, ou d'un autre *z*, le *b* se change en *p*, le *d* en *t*, le *g* en *k* et le *z* en *tz*; ainsi on dit : *ez-pá-dut* au lieu de *ez-bá-dut*; *ez-péi-niz* au lieu de *ez-béi-niz*; *éz-tut* au lieu de *éz-dut*; *éz-ta* pour *éz-da*; *ez-tákit* pour *ez-dákit*; *ez-kira* pour *ez-guira*; *ez-kútu* pour *ez-gútu*; *e-tzén* pour *ez-zén*;

— XII —

e-tzakian pour *ez-zakian*. — Le même changement des lettres douces *d, g, z*, dans les lettres fortes *t, k, tz*, se fait toujours après l'affixe *bei*, à cause de la consonnance douce de l'*i*. Ainsi on dit : *béi-ta* pour *béi-da*; *bei-kinén* pour *bei-guinén*; *bei-tzén* pour *bei-zén*; et dans le verset 19 du chapitre 1er, *ez-pei-tzian* pour *ez-bei-zian*.

Ces changements des lettres douces en fortes se font dans tous les dialectes et on les a observés jusqu'à nos jours dans l'écriture comme dans le langage. Quelques écrivains modernes ont cru que ces changements étaient des incorrections, et ils ont commencé à écrire *ez-dut, ez-da, ez-zen*, etc.

3° Lorsque la particule négative *ez*, jointe aux verbes auxiliaires, précède un *h*, un *l*, un *n*, ou un *tz*, elle perd le *z*; ainsi on dit : *é-hiz* pour *éz-hiz*; *e-lézan*, *e-lédin* pour *ez-lézan, ez-lédin*; *é-niz, e-nintzan* pour *éz-niz, ez-nintzan*; *e-tzén* pour *ez-zén*; *e-tzakian* pour *ez-zakian*.

Verset 20. — *Zarabiltzaláric* pour *erabílten zutiálaric*. Il n'y a dans la langue basque qu'une seule conjugaison. Mais plusieurs verbes d'un usage commun ont, outre la forme régulière, une forme contractée pour un certain nombre de modes, de temps et de personnes; aucun ne l'a pour la conjugaison entière. Il est utile de connaître ces formes irrégulières pour mieux comprendre la langue, mais elles ne sont nullement nécessaires pour parler et écrire correctement, parce qu'on peut toujours se servir de la forme régulière.

— XIII —

Il n'y a d'exception que pour le verbe *savoir, jákin*, qui, à l'indicatif présent et imparfait, n'a que la forme irrégulière pour signifier *je sais, je savais, dákit, ba-dákit, nakían, ba-nakían*. Le verbe *jákin* a bien toutes les formes régulières, mais au présent, *jakíten dut* signifie *j'apprends ;* et à l'imparfait, *jakíten nían* signifie *j'apprenais*, et non *je sais, je savais*. La conjugaison régulière de *jákin* sert pour tous les autres modes et temps du verbe *savoir ;* ainsi pour dire : *j'ai su*, on dit *jákin dut ; que je sache, jákin dezádan ; je puis savoir, jákin dezáket*, etc.

Si, dans les autres verbes, on préfère quelquefois la forme contractée et irrégulière à la forme régulière, c'est, presque toujours, pour donner plus de rapidité ou d'élégance au langage; ainsi, quoi qu'on puisse dire et que l'on dise *jouáiten níz*, on dira néanmoins plus souvent *ba-noúa;* et de même, *ábil* et *hoúa* au lieu de *joúan h idi ; daramála* pour *eráman dezála ; ba-dágo* pour *egóiten da ; ba-dabíla* pour *ebiltén da*.

Verset 20. — Dans la langue basque, les verbes se déclinent à tous les temps, à tous les modes et à toutes les personnes, excepté au subjonctif et à l'impératif ; ainsi de *jóiten dut, je frappe*, on fait la forme adjective *jóiten dutána* ou plutôt *dudána* (en changeant par euphonie le *t* en *d*), *celui que je frappe;* et il se décline : *jóiten dudánac, dudanáren, dudanári, dudánaz, dudanétic, dudanian, dudanlala, dudanaréki, dudanarentáco, dndánagátic*, etc. ; également de *jóiten nian*, on forme *jóiten niána, niánaz*, etc. ; de *jouáiten zén*, on forme *jouáiten zéna, zénaz, zénari*, etc.

— XIV —

Outre cette particularité, chaque verbe basque a une forme qui est un véritable substantif et qui signifie l'action ou l'état exprimé par le verbe. Ce substantif ou nom verbal se décline comme tous les autres substantifs et il en suit les règles ; ainsi son régime se mettra au génitif et non à l'accusatif; on dira : *hoún da lánaren órduz eguitía, il est bon de faire le travail à temps*, et non : *hoún da lána órduz eguitía ;* on dira : *háren ikhoústez e-náite ase, je ne puis me rassasier de le voir*, et non : *hoúra ikhoústez*. C'est d'après cette règle qu'au verset 20 on dit : *ez-tezazúla úkhen beldúrric Maríaren etchekítez, ne craignez pas de retenir Marie;* mot à mot : *n'ayez pas de crainte du retenir de Marie*.

Verset 23. — Birginá (la Vierge). Nous le mettons au cas défini, conformément au texte hébreu et au texte grec qui emploient l'article déterminatif, *ha-ghalmah, he parthenos*. Ce qui suppose qu'Isaïe entendait parler d'une Vierge déjà promise par le Seigneur et appelée *la Vierge* par excellence.

Dans le dialecte souletin, les mots terminés en *a*, à l'indéfini, tels que *áma, arréba, alhába, makhíla, járguia*, ont l'*a* final bref à l'indéfini et long au nominatif ou accusatif défini ; ainsi on dira : *sa sœur est venue, háren arrebá jín da ;* et on dira : *anáye arréba dira, ils sont frère et sœur ;* on dira : *séme ála alhába da? est-ce un garçon ou une fille ?* et on dira : *alhabá gáldu du, il a perdu sa fille*.

Si, dans le langage, il arrive qu'en parlant de son père ou de sa mère, du père et de la mère de

quelqu'un, on s'écarte de cette règle, c'est que les termes de *áita* et *ánia* s'emploient à l'indéfini, comme *papa* et *maman* en français ; ainsi on dit : *aíta noún dúzu ? où avez-vous papa ?* et non *aitá*. Le mot *etche, maison*, quand il s'agit de sa maison ou de la maison qu'habite quelqu'autre, s'emploie également à l'indéfini, comme *áita* et *ánia* ; ainsi on dira : *étchen dúzu*, au lieu de *etchian dúzu ; etchera jouán da* au lieu de *etchiala*. Il en est de même du mot *errégue, roi*, employé seul ; c'est ainsi qu'au chapitre XXII on lira : *errégueс hóri éntzun ziánian ; errégue sárthu zén*, au lieu de *erréguiac hóri éntzun zianian ; erreguia sárthu zén*.

CHAPITRE II.

Verset 1. — *Sórthu zénian Jésus. Zénian* est le cas local de *zén, il était*, décliné adjectivement : *zéna, zénaz, zénaren, zénian*. Les verbes basques rendent ainsi par le cas local *ian* de leur forme déclinée, la signification des mots français *lorsque, quand, étant*, placés devant les verbes. Ainsi pour exprimer : *quand je donne*, on dira : *emáiten dudanian ; lorsqu'ils étaient venus*, se traduit par : *jin zirénian ; étant parti*, par : *jouán zénian ; lorsqu'il sera venu*, par : *jin datekiénian. Dudanian, zirénian, zénian, datekiénian* sont les cas locaux des formes déclinées *dudána, zirénac, zéna, datekiéna*.

Verset 2. — *Háren adoratzéra, pour l'adorer*, mot à mot, *à l'adorer de lui. Adoratzéra* est le cas adlatif de *adorátze, adoratzia, action d'adorer* ou *adoration*. C'est ainsi que pour exprimer : *il est venu me voir*, on dira : *jín da éne ikhústera*, mot à mot, *il est venu à voir de moi*.

Verset 4. — *Bilduric aphézen guehiénac. Bilduric, assemblé* ou *ayant assemblé* ; ce cas infinitif *ic* du participe passé est employé pour le singulier et le pluriel, dans le sens indéfini et absolu ; il exprime l'ablatif absolu latin, et le participe passé indéfini ; on trouvera ces deux emplois dans le verset 16e du même chapitre : *Heródes, ikhousíric Majéc inganátu ziéla, gáizturic járri zén*.

v. 7.—Bizizko zuhañetik jatia da, jagoiti hil gabe Jinkouaren gozatzia zelian.

12

Espiritiak zer diouan elizer: Goitzen dianari emanen dut jatera bizizko zuhañetik, zouñ beita ene Jinkouaren pharadusian.

8. Eta Esmirnako elizaren ainguriari izkirib' ezazu: Horik diotza lehenak, eta azkenak, hil izan denak, eta bizi denak:

9. Badakit zoure eskernioua, eta zoure gabezia, bena aberats zira: eta gaizkisaldurik zira Judio direla dioyenez, eta eztira hala, bena bai satanen hiltzarrena.

10. Ez ukhen egartera zouazanen beldurrik. Houna noun debriak igorriko dutian zietarik zoumbait presountegialat, tentaturik izateko: eta

13

eskernio ukhenen duzie hamar egunez. Izan zite fidel hil artio, eta emanen deizut bizizko khoroua.

11. Dianak beharri, entzun beza zer diouan Espiritiak elizer: Goitzen diana, ezta hounkirik izanen bigerren heriotziaz.

12. Eta Pergameko elizaren ainguriari izkirib' ezazu: Horik diotza dianak ezpata bi aldetarik zorroztia:

13. Badakit noun zaudian, satanen jargia den lekhian: eta edukiten duzu ene izena, eta eztuzu ukhatu ene sinhestia. Ez eta egun hayetan, zouñtan Antipas ene aithorzale leyala hil izan beita zien artian, noun beitago satan.

14

14. Bena badizut zoure kountre zerbaitto: beitutuzu hor jarraikiten direnak Balaamen erakaspenari, zouñek erakasten beitzian Balaki galbide emaiten Israelelco semer, sori etzeyenaren janeraztez, eta likhizkerian nahaseraztez:

15. Halahala badatuzu ere Nikolaiten erakaspenari jarraikiten direnak.

16. Egizu arren penitentzia: bestela jinen nitzaizu bertan, eta gudukatuco niz hayeki ene ahoko ezpatareki.

17. Dianak beharri, entzun beza zer erraiten dian Espiritiak elizer: Goitzen dianari emaneu dut mana gordia, eta emanen deyot harri chouri

15

bat : eta harrian izen berri bat izkiribaturik, ihourk eztakiana, harzaliak baizik.

18. Eta Tiatirako elizaren ainguriari izkirib' ezazu : Horik diotza Jinkouaren Semiak, zouñen begiak su garraren antzoko beitira, eta zankhouak leten chouria uduri :

19. Ezagutzen ditizut zoure egitatiak, eta sinhestia, eta zoure karitatia, eta lanhegina, eta zoure zintarzuna, eta zoure azkeneko egitatiak lehenak benouagouak.

20. Bena badizut zoure kountre

v. 17.—Mana gordia—zeluko dohatsutarzuna, gozo guziak daduzkana-Harri chouria-da graziazko estatia, zouñi ereichekirik beita Jinkouaren seme girelako izena.

16

zerbaitto : nzten beituzu Jezabel, emazte profeta dela berak diouan bat, erakastera, eta ene zerbutcharien inganatzera, likhizkeriala hen boulkatzera, eta jinko faltsier ohereskatietarik janeraztera.

21. Eta aldarte eman deyot penitentzia egiteko : eta ezta nahi urrikitan sarthu bere likhizkeriaz.

22. Haudela ezariko dut ohian : eta hareki nahasi direnak, izanen dira eskernio handienian, ezpadie penitentzia egiten bere egitatez.

23. Eta haren haurrak ehoren dutut, eta jakinen die eliza guziek, ui nizala gerrien, eta bihotzen ikherzalia : eta emanen dut zietarik ba-

17

khoitzari bere lanheginen arau. Zier aldiz dioziet,

24. Eta beste Tiatiren zirayener : Erakaspen horri jarraikiten eztirenak oro, eta ezagutzen eztutienak satanen barnatarzunak, hayek dioyen bezala, eztut ezariko zietan gañen beste hacherik :

25. Alabena duziena etchek ezazie ni jin artio.

26. Eta goitzen dianari, eta ene eretzeko eginbidiak begiratzen dutianari, esku emanen deyot populien gañen,

v. 24.—Egiaren etsai hayek deitzen zutien bere erakaspenak Ebanjeliouaren-Barnatarzunak.
v. 26, 27, 28.—Jesukristek erakousten deiku hiru horiez, pharte emanen diala bere haitatier, ez bakhoizki bere gloriau, bena orano bere photerian.

18

27. Eta erabiliren dutu burduñazko zaharouareki, eta lurrezko ountzi bat bezala izanen dira phorrokaturik,

28. Nihaurek ukhen dudan bezala ene Aita ganik : eta emanen deyot goiz izarra.

29. Beharri dianak, entzun beza zer diouan Espiritiak elizer.

HIROURGERREN KAPITULIA.

ETA Sardespeko elizaren ainguriari izkirib' ezazu : Horik

v. 28.-Goiz izarra-Jesukristen beraren gloria.

19

diotza dutianak Jinkouaren zazpi izpiritiak, eta zazpi izarrak: Badakitzat zoure egitatiak, baduzula bizi zirelako izena, eta hilik zirela.

2. Izan zite iratzarri, eta azkart etzatzu beste, hiltzera zouatzanak. Ezi eztitizut edireiten zoure egimbidiak betherik ene Jinkouaren aitzinian.

3. Gogouan arren har ezazu zer ukhen duzun, eta entzun, eta begir' ezazu, eta egin penitentzia. Ezpazaude ordian iratzarririk, jinen nitzaizu ouhouña bezala, eta eztakikezu zer orduz jinen nitzaizun.

4. Haregatik badutuzu izen ba-

v. 4.—Souñekouak theyutu eztutienak—erran nahi du batheyuko chahutarzuna begiratu dienak.

20

khoitz batzu Sardesen, bere souñekouak theyutu eztutienak: eta ebiliko dira eneki chouriz althaturik, zuzendun beitira.

5. Goitzen diana, hola izanen da chouriz althaturik, eta eztut khentuko haren izena bizizko Librutik, eta aithorturen dut haren izena ene Aitaren aitzinian, eta haren ainguriren aitzinian.

6. Beharri dianak, entzun beza zer erraiten dian Espiritiak elizer.

7. Eta izkirib' ezazu Filadelfiako elizaren ainguriari: Horik diotza Saintiak eta Egiatiak, Dabiten giltza dianak: zouñek idekiten beitu, eta ihourk eztu zerratzen: zouñek ze-

21

rratzen beitu, eta ihourk eztu idekiten:

8. Badakitzat zoure egitatiak. Houna ezari deizut aitzinian bortha idekirik, ihourk zerra eztezakena: indar guti duzulakoz, eta begiratu beituzu ene hitza, eta ezpeituzu ene izena ukhatu.

9. Houna noun emanen deitzudan satanen bilkhuratik, Judio direla erraiten dien batzu, eta eztira hala, bena gezurra dioye: Houna noun jineraziko dutudan, eta gurthuren dira zoure houñetan: eta jakinen dizie maite zutudala.

v. 8.—Bortha idekirik—sinhestegaben sarerazteko Jesukristen Elizan.

22

10. Begiratu beituzu ene igourtzpeneko hitza, nik ere begiraturen zutut boroguzko orenian, zouñ jitekoua beita mundu guziala lurreko ekhoiliarren borogatzera.

11. Houna noun jiten nizan berhala: etchek ezazu duzuna, ihourk har eztezan zoure khoroua.

12. Goitzen dianaz, eginen dut habe bat ene Jinkouaren templouan, eta kamporat ezta elkhiren haboro: eta izkiribatuko dut hartan gañen ene Jinkouaren izena, eta ene Jinkouaren hiriaren izena Jerusalem berriarena, zouñ jaisten beita zelutik

v. 12.—Zeluko egongia ainguriez eta saintiez eginik date, harri bizi batzuz bezala; eta orok ekharriko die—Jinkouaren semo izena.

23

ene Jinkoua ganik, eta ene izen berria.

13. Dianak beharri, entzun beza zer erraiten dian Espiritiak elizer.

14. Laodiziako elizaren ainguriari ere izkirib' ezazu: Horik diotza: Egiak, jakile leyalak, eta egiazkouak, zouñ beita Jinkouak eginen haslia.

15. Badakitzat zoure egitatiak: etzirela ez hotz, ez bero: aizina hotz, edo bero:

16. Bena zirelakoz ephel, eta ez botz, eta ez bero, hasiko nuzu zoure ourthikiten ene ahotik.

17. Erraiten beituzu: Aberats niz, eta ditchatu, eta ihouren eztut beharrik: eta eztakizu zirela orozbe-

24

har, eta desditchatu, eta deusgabe, eta utsu, eta bilaizi.

18. Aholkatzen zutut eros dizadazun suyan garbitu urhia aberast zitian, eta jaunts detzatzun souñeko chouriak, ager eztadin zoure pikarraitarzunaren ahalkia, eta begihourez bercka etzatzu zoure begiak ikhous dezazun.

19. Nik maite dutudanak, chuchentzen dutut, eta zehatzen. Suhart zite arren, eta egizu penitentzia.

20. Houna nago borthan, eta joiten dut: nourbaitek entzutcu badu

v. 18.—Suyan garbitu urhia—da karitatia.

v. 20.—Mintzo da arimaren—borthaz—noun sarthu nahi belizate, hari gozerazteko bere adiskidegouaren eztitarzuna mundu hountan, ete bethicreko gloria zelian.

25

ene oihia, eta idekiten badeit bortha, sarthuren niz haren ganat, eta aihalturen niz hareki, eta houra eneki.

21. Goitzen diana, jareraziko dut eneki ene tronouan: nik ere goithu dudan bezala, eta jarri nizan bezala ene Aitareki haren tronouan.

22. Dianak beharri, entzun beza zer diouan Espiritiak elizer.

LAURGERREN KAPITULIA.

HORIEN oundouan ikbousi nian: eta houna bortha bat idekirik zelian; eta lehenik entzun nian botzak,

26

trompeta bat bezala eni mintzatzen, erran zeitan: Igain zite bouna, eta erakoutsiren deitzut haraitzina beltu behar dienak.

2. Eta bainsarri izan nintzan goguz eroaanik: eta houna jargia bat ezaririk zen zelian, eta jargian gañen jarria;

3. Eta jarririk zenak, uduri zian jaspe eta sardouñ harria: eta ozadar bat bazen jargiaren ungurian, uduri beitzian esmerauda.

4. Eta jargiaren ungurian hogei eta laur jargia: eta tronouetan gañen hogei eta laur zahar jarririk, sayo

v. 4.—Hogei eta laur zahar horik, dotoren oustez, dira lege zaharreko eta berriko hogei eta laur saintu handienak.

27

chouriz unguraturik, eta hayen burietan urhezko khorouak.

5. Eta tronotik elkhiten zen iñhazi, eta oihu, eta uhulgu: eta bazen tronouaren aitzinian zazpi argi phizturik, horik beitira Jinkouaren zazpi izpiritiak.

6. Eta tronouaren eretzian bitrezko itchaso bat bezala kristala uduri: eta jargiaren erdian, eta jargiaren ungurian, laur abere begiz betherik aitziniao eta gibelian.

7. Eta leben aberia zen lehoua uduri, eta bigerren aberia aretchia uduri, eta hirourgerren aberiak ba-

v. 6, 7.—Laur abere horik dira, edo laur Ebanjelisten, edo laur Profeta handien utchurak.

28

zian begitharte bat gizounarena uduri, eta laurgerren aberiak uduri zian hegaltaz douan arranoua.

8. Eta laur aberek bazien seya hegal: eta ungurian, eta aldebarnian betherik ziren begiz: eta thaik hartu gabe gayaz ez egunaz, erraiten zien: Saintu, Saintu, Saintu, Jauna Jinko ahalorotakoua, zouñ beitzen, eta zouñ beita, eta zouñ jinen beita.

9. Eta ari zirelarik abere hourak

v. 8.—Sei hegal—Isaia mintzo da sei hegal hoyetzaz: bigez begithartia gordatzen die, Jinkouarentako zien errespetia horrek erakousten deiku: bigez zankhouak gordatzen dutie, horrek ezaguterazten deiku hayen aphalmentia eta obedientzia: bigez hegaltatzen dira, horrek erazagutzen beiteiku Jinkouaren manien egiteko hayen zalhetarzuna.
—Begiek markatzen dutie hayen argiak misteriouen ezagutzeko.

29

gloria, eta ouhoure eta beneditzione emaiten jarririk zenari tronon gañen, bizi denari menten mentetan,

10. Ahozpez erorten ziren hogei eta laur zaharrak tronouan jarririk zenaren aitzinian, eta egoisten zutien bere khorouak tronouaren aitziniala, ziouelarik:

11. Zuzendun zira, goure Jinko Jauna, ukheiteko gloria, eta ouhoure, eta berthute: zeren znk egin beituzu oro, eta zoure nahiz heitziren, eta eginik beitira.

30

BOSTGERREN KAPITULIA.

ETA ikhousi nian tronouan jarririk zenaren esku eskuñian, libru bat barnetik eta kampotik izkiribaturik, eta zazpi kachetez zerraturik.

2. Eta ikhousi nian ainguru azkar bat, oihu egiten borthizki: Nour da haizu libriaren zabaltzera, eta kacheten eraikitera?

3. Eta ihourk etzezakian, ez zelian, ez lurrian, ez lurpian, zabalt libria, ez houra begista.

4. Eta ni nigar tourroustaz nengouan, ihour etzelakoz haizu edireiten

31

libriaren zabaltzeko, eta haren ikhousteko.

5. Eta zaharretarik batek erran zeitan : Eztezazula egin nigarrik : houna irabazi du Judaren gizeliko lehouak, Dabiten herrouak, libriaren zabaltzia, eta zazpi kacheten eraikitia.

6. Eta ikhousi nian : eta houna tronouaren eta laur aberen erdian, eta zaharren erdian, Achouri bat chuti chorik bezala, beitzutian zazpi adar, eta zazpi begi : zouñi beitira Jinkoua-

v. 5.—Judaren gizeliko lehoua, eta Dabiten herroua —Jesukrist da.
v. 6.—Achouria—da Jinko Seme gizonn egina, khurutchen gañen hil dena eta arraphiztu bere heriotzeko horecheki—Adarrek—erakousten die haren Espiritiaren indarra—Begiek, argitarzuna.

32

ren zazpi izpiritu, lur guziala igorriak.

7. Eta jin zen : eta hartu zian libria tronouan jarririk zenaren esku eskuñetik.

8. Eta zabaltu zianian libria laur aberiak, eta hogei eta laur zaharrak luherrastu ziren Achouriareu aitzinian, zaduzkelarik orok harpa, eta urhezko fiola batzu urrin hounez betherik, horik beitira saintien othoitziak :

9. Eta khantatzen zien kantika berri bat, ziouelarik : Haizu zira, Jauna, libriaren hartzera, eta haren kacheten eraikitera : zeren ehorik izan beitzira, eta arrerosi beikutuzu

33

Jinkouarentako zoure odolaz gizeli, eta mintzaje, eta populu, eta nazione guzietarik :

10. Eta egin gutuzu goure Jinkouaren errege, eta aphez : eta errege girate lurrian.

11. Eta ikhousi nian, eta entzun nian ainguru hanitchen botza tronouaren, eta aberen, eta zaharren ungurian : eta ziren mila miliouka,

12. Goratik oihuz zioyenak : zuzendun da, hilik izan den Achouria, ukheiteko berthute, eta Jinkotarzun, eta zuhurtarzun, eta indar, eta ouhoure, eta gloria, eta beneditzione.

13. Eta zelian, eta lurren gañen, eta lurpian diren guziak, eta itcha-

34

souan, eta hartan barnen direnak : oro entzun nutian erraiten : Tronouan jarririk denari, eta Achouriari : beneditzione, eta ouhoure, eta gloria, eta photere menten mentetan.

14. Eta laur aberek erraiten zien : Halabiz. Eta hogei eta laur zaharrak ahozpez erori ziren : eta adoratu zien bizi dena menten mentetan.

SEIGERREN KAPITULIA.

ETA ikhousi nian Achouriak ideki ziala zazpi kachetetarik bat, eta entzun nian laur aberetarik bat,

35

erraiten, uhulgiaren botza bezalako bateki: Tziauri, eta ikhous ezazu.

2. Eta ikhousi nian: eta houna zamari chouri bat, eta hartan gañen jarririk zenak bazian balesta bat: eta eman zeyouen khoroua bat, eta abiatu zen goitzale goitzera.

3. Eta ideki zianian bigerren kacheta, entzun nian bigerren aberia, erraiten: Tziauri, eta ikhous ezazu.

4. Eta elkhi zen beste zamari gorhail bat: eta hartan gañen jarririk zenari, emanik izan zen bakiaren lurretik khentzia, eta alkharren er-

v. 2.—Elizako Erakaslek ikhousten die Jesus, zamari chourian jarririk denian.

36

hoeraztia, eta eman zeyouen ezpata handi bat.

5. Eta ideki zianian hirourgerren kacheta, entzun nian hirourgerren aberia, erraiten: Tziauri, eta ikhous ezazu. Eta houna zamari beltz bat: eta hartan gañen jarririk zenak, bazian balantza bat bere eskian.

6. Eta entzun nian botz bat bezala laur aberen artetik, erraiten: Bi libera ogi dinerian, eta hirour libera garagar dinerian, eta ardoua, eta olioua ez hounki.

7. Eta ideki zianian laurgerren

v. 6.—Orduko dinerak oraiko hamar sos balia zian.

37

kacheta, entzun nian laurgerren aberiaren mintzoua, erraiten: Tziauri, eta ikhous ezazu.

8. Eta houna zamari zourphail bat: eta hartan gañen jarririk zenak, izen zian Heriona, eta jarraikiten zeyon ifernia, eta esku emanik izan zeyon lurraren laur eretzetan, erhaiteko ezpataz, gosetiaz, eta heriotziaz, eta lurreko saiez.

9. Eta ideki zianian bostgerren kacheta: ikhousi nutian althariaren pian, Jinkouaren hitza gatik, eta ekharri zien jakilegoua gatik erhorik izan zirenen arimak,

10. Eta oihuz ari ziren borthizki, ziouelarik: Nnuiz artio, Janna, saintia

38

eta egiatia, eztuzu zuzen egiten, eta eztuzu goiherazten goure odola lurrian dauden hoyetarik?

11. Eta emanik izan zeitzen sayo chouriak: eta erranik izan zeyen eguruki lezen orano aphur bat, bethe artio hayen zerbutchari lagunen, eta hourak bezala erhorik izan behar zienen saldoua.

12. Eta ikhousi nian ideki zianian seigerren kacheta: eta houna luhikhara handi bat izan zen, eta ekhia belztu zen bilhozko zaku bat bezala: eta argizagia oro odola bezalakatu zen:

13. Eta izarrak zelutik erori ziren lurrialat, phikotziak ichourten

39

dutian bezala bere phikouak, aize handi batek iharrausten dianian.

14. Eta zelia bildu zen libru bat biribilkatzen den bezala: eta mendiak oro, eta uhartiak bere gunetarik zotukatu ziren:

15. Eta lurreko erregiak, eta gehienak, eta armadetako aitzindariak, eta aberatsak, eta azkarrak, eta oro mannzpeko direnak, eta jabiak gorde ziren harzilouetan, eta mendietako botchietan:

16. Eta erraiten deyie mendier, eta botchier: Eror ziteye gutan gaña, eta gorda gitzatzie tronouan jarririk

v. 14.—Lehenagoko libriak holletan biribilkaturik begiratu ohi ziren.

41

beitzian Jinko biziaren zeñharia: eta oihu egin zeyen borthizki laur aingurier, zouñi esku emanik beitzen lurraren, eta itchasouaren zaflatzeko,

3. Zioualarik: Ez egin ogenik lurrari, ez itchasouari, ez eta zuhañer, marka ditzagun artio goure Jinkouaren zerbutchariak bere belarretan.

4. Eta entzun nian markatien zoumbata, ehun eta berrogei eta laur mila markaturik, Israelen semen gizeli orotarik.

v. 2.—Jinko biziaren zeñharia da khurutchia edo khristi marka.
v. 3, 8.—Heben Jinkouak erakousten du, mundiaren urhentzia heltu gabe, egiazko sinhestiala deithuren dutiala Judiouak.

40

denaren ikhousbidetik, eta Achouriaren khecheriatik:

17. Zeren heltu beita hayen khechiaren egun handia: eta nour dauke chuti?

ZAZPIGERREN KAPITULIA.

HOYEN oundouan ikhousi nian laur ainguru chuti lurraren laur eretzetan, lurrekn laur aizen etchekiten, bouha elezen lurrialat, ez itchasoualat, ez zuhañ batetara ere.

2. Eta ikhousi nian beste ainguru hat igaiten ekhi jalkhigiatik, zouñek

42

5. Judaen gizelitik hamabi mila markaturik: Rubenen gizelitik hamabi mila markaturik: Gaten gizelitik hamabi mila markaturik:

6. Aseren gizelitik hamabi mila markaturik: Neftalien gizelitik hamabi mila markaturik: Manaseen gizelitik hamabi mila markaturik:

7. Simeonen gizelitik hamabi mila markaturik: Lebien gizelitik hamabi mila markaturik: Isakarren gizelitik hamabi mila markaturik:

8. Zabulonen gizelitik hamabi mila markaturik: Josefen gizelitik hamabi mila markaturik: Benjaminen gizelitik hamabi mila markaturik.

43

9. Hoyen oundotik ikhousi nian saldo handi bat, ihourk khounta etziokiana nazione, eta gizeli, eta herri, eta nintzaje guzietarik, chuti tronouaren aitzinian, eta Achouriaren begipian, sayo chouriz estalirik, eta palmak bere eskietan:

10. Eta oihu egiten zien borthizki zionelarik: Gur goure Jinko, tronouan jarririk denari, eta Achouriari.

11. Eta ainguriak oro zauden chuti tronouaren, eta zaharren, eta laur aberen ungurian: eta ahozpez erori ziren tronouaren aitzinian, eta adoratu zien Jinkoua,

12. Zionelarik, Bai. Beneditzione,

44

eta ospe, eta zuhurtze, eta esker, eta ouhoure, eta berthute, eta indar goure Jinkouari menten mentetan, Halabiz.

13. Eta erantzun zeitan zaharretarik batek, eta erran zeitan: Nour dira sayo chouriz althaturik diren horik? eta nountik jin dira?

14. Eta erran neyon: Ene Jauna, zuk dakizu. Eta erran zeitan: Horik dira, jin direnak eskernio handitik, eta bere zayak chahatu dutienak, eta hourak ehouritu Achouriaren odolian.

15. Hartakoz dira Jinkouaren tronouaren aitzinian, eta zerbutchatzen die gai eta egun haren templouan;

45

eta tronouan jarririk dena, egonen da hayen gañen:

16. Eztukie goserik, ez egarririk haboro, eta eztutie joko ekhiak, ez beste erredurak:

17. Zeren Achouri, tronouaren erdian denak, zaintuko beitutu, eta otsemanen bizizko uthur hnuretara, eta tchukaturen dutu Jinkouak nigarrak oro hayen begietarik.

46

ZORTZIGERREN KAPITULIA.

ETA ideki zianian zazpigerren kacheta, ichiltu zen zelian, oren erdi baten heña.

2. Eta ikhousi nutiao Jinkouaren aitzinian dauden zazpi ainguriak: eta emanik izan zeitzen zazpi troumpeta.

3. Eta heste ainguru hat jin zen, eta ukhuratu zen althariaren aitzinian urhezko intsentsouar bat zadukalarik: eta eman zeyouen intsentsu hanitch, ezar lezan saintu guzien othoi-

VIII, IX.—Ezta lau houni emanik erakoustia zer dembora, zouñ gizoun, eta zouñ uzurri diren bi kapitulu hoyetan aiphatzen direnak. Elizako Erakaslek hor ikhousten die, batek lehen khiristicu persecutionen dembora, bestek Elizaren adin guziezako gudukak, borogiak eta gaitzak.

47

tzetarik urhezko altharen gañen, zouñ beitaJinkouaren tronouaren aitzinian.

4. Eta igañ zen intsentsien khia saintien otboitzez egina ainguriaren eskutik Jinkouaren aitziniala.

5. Eta hartu zian ainguriak intsentsouarra, eta bethe zian althareko sutik, eta ourthiki zian lurrialat, eta egin zen uhulgu, eta oihu, eta iñhazi, eta luhikhara handi.

6. Eta zazpi ainguru, zazpi troumpetak zaduzkenak, adelatu ziren troumpeten joitera.

7. Eta lehen ainguriak jo zian troumpeta, eta egin zen harri, eta su, odolareki nahasirik, eta egotchirik izan ziren lurrialat, eta lurraren he-

48

rena erre zen, eta zuhañen herena tchokartu zen, eta belhar berde guzia erre zen.

8. Eta bigerren ainguriak jo zian troumpeta: eta mendi handi bat bezalako bat su garretan onrthikirik izan zen itchasoualat, eta itchasouaren herena odol bilhatu zen,

9. Eta hil zen itchasouan bizia zien kreaturetarik herena, eta ountzien herena galdu zen.

10. Eta hirourgerren ainguriak troumpeta jo zian: eta erori zen zelutik izar handi bat, su garretan zuzi bat bezala, eta erori zen uhaitzetarik hereniala, eta uthur houretara:

49

11. Eta izarraren izena da Icheña; eta houren herena icheñetara khambiatu zen: eta gizoun banitch hil zen hour hayetarik, kharastu zirelakoz.

12. Etu laurgerren ainguria troumpetotsez ari izan zen: eta joik izan zeu ekhiaren herena, eta argizagiaren herena, eta izarren herena, hala noun ulhuntu beitzen hayen heren phartia, eta ezpeitzian heren phartiak argirik eman egunari, ez eta halaber gayari.

13. Eta ikhousi nian, eta entzun nian zeliaren erdia gainti hegaltaz zouan arrano baten botza, zouñek oihu egiten beitzian azkarki: Gaitz, gaitz,

50

gaitz lurrian daudener, beste hirour ainguru, troumpetak jo behar dutienen botzetarik.

BEDERATZUGERREN KAPITULIA.

ETA bostgerren ainguriak jo zian troumpeta: eta ikhousi nian izar bat erori zela zelutik lurrera, eta emanik izan zeyon lezeko phutziaren giltza.

2. Eta ideki zian lezeko phutzia: eta igañ zen phutzuko khia, su labe handi batena bezala: eta ulhunturik izan zen ekhia, eta airia phutzuko

51

khiaz:

3. Eta phutzuko khetik elkhi zen llarhote lurrialat, eta emanik izan zeyen ahal, lurreko erlouriek dien bezalako ahala:

4. Eta izan zeyen manhaturik elezen ogenik egin lurreko belharrari, ez berde zen orori, ez zuhañ guzier: baizik ere Jinkouaren zeñharia bere belarretan eztien gizouner:

5. Eta esku emanik izan zeyen ez hayen erhaiteko: bena eskerniatzeko bost hilabetez: eta hayen minak ziren erlouriak gizouna isoukiten dianian bezalako minak.

6. Eta egun hayetan gizounak ebiliko dira heriouaren oundouan, eta

52

eztie edirenen: eta nahi dirateke hil, eta heriouak ihes eginen deye.

7. Eta llarhotiak bezalako hayek uduri zien zamari elibat gudukako adelaturik: eta hayen hnrietan ziren khorouak bezalako hatzu urhezko uduriz: eta hayen begithartia gizoun begithartia bezalako zen.

8. Eta bazutien bilhouak emazten bilhouak uduri; eta hayen hortzak lehouen hortzak uduri ziren:

9. Eta bazutien boulharrekouak burdun boulharrekouak uduri, eta hayen hegalen herotsak uduri zian orgeki gudukara douan zaldi saldo baten herotsa:

10. Eta hazutien buztanak erlou-

53

rienak uduri, eta lantzetak baziren hayen buztanetan: eta hayen photeria gizouner ogen egiteko bost hilabetez: eta bazien bere gañen

11. Erregetako leze handiko ainguria, zouñen izena beita Hebruz Abaddon, Grekez aldiz Apollyon, Latiz deitzen da Exterminans.

12. Gaitz bat igaran da, eta houna jiten dira orano bi gaitz haren oundotik.

13. Eta seigerren ainguriak jo zian troumpeta: eta entzun nian botz bat Jinkonaren begien aitzinian den urhezko althariaren laur adarretarik,

14. Erraiten seigerren ainguru

54

troumpetadunari: Solt' itzak Eufrateko uhaitz handian estekirik diren laur ainguriak.

15. Eta soltaturik izan ziren laur ainguriak, zouñ beitziren adelaturik oreneko, eta eguneko, eta hilabeteko, eta ourtheko: gizounen herenaren erhaitera.

16. Eta zaldizko armadaren saldoua hogei milatan hamar mila. Eta entzun nian hayen zoumbata.

17. Eta hola ikhousi nutian zamariak ikhousaldian: eta hayetan gañen jarririk zirenek, bazutien suzko, jazintezko, eta sofrezko boulharrekouak, eta zamarien huriak ziren lehouen buriak bezalako: eta hayen

55

ahotik elkhi zen su, eta khe, eta sofre.

18. Eta hil zen gizounen herena hirour uzurri hoyez, hayen ahotik elkhiten ziren su, eta khe, eta sofriaz.

19. Ezi zamarien photeria hayen ahouan da, eta hayen buztanetan. Ezi hayen buztanak sugiak uduri dira, badutie buriak, eta hayez ogen egiten die.

20. Eta uzurri hoyez erhorik izan etziren beste gizounek, etzien hartu urrikirik here eskien egitatez, eta etzien utzi debrien, eta urhezko, eta zilharrezko, eta metalezko, eta harrizko, eta zourezko uduripenen adoratzia, zouñek ezpeitiokeye ez

56

ikhous, eta ez entzun, eta ezpeititake ebil,

21. Eta etzien egin peniteutzia bere gizounerhaitez, ez pozouatzez, ez bere likhizkeriez, ez eta bere ouhouinkeriez.

HAMARGERREN KAPITULIA.

ETA ikhusi nian beste ainguru azkar bat zelutik jaisten odeyez nnguraturik, eta ozadar bat burnn gañen, eta haren begithartia zen ekhia hezala, eta haren zankhouak suzko habe batzu bezala :

2. Eta bazian eskian librutto

57

bat zabalturik : eta ezari zian zankhn eskuña itchason gañen, eiskerra aldiz lurren gañen :

3. Eta oihu egin zian ozenki, lehouak orroua egiten dian bezala. Eta oihu egin zianian, zazpi durundak bere mintzouak erantzun zutien.

4. Eta erantzun zutienian zazpi durundek bere mintzouak, ni izkiribatzera nindouan : eta entzun nian botz bat zelutik eni erraiten : Kachet' etzatzu zazpi durundek erantzunak : eta eztitzatzula hourak izkiriba.

5. Eta ainguru, itchason, eta lurren

v. 2.—Libru tchipi houra Jinkouaren azken arrestaren libria da.

58

gañen chuti ikhonsi nianak, altchatu zian bere eskia zelialat :

6. Eta juratu zian menten mentetan hizi denaz, zelia eta hartan direnak, eta lurra eta hartan direoak, eta itchasoua eta hartao direnak kreatn dutianaz : Demborarik eztatekiala haboro :

7. Bena zazpigerren ainguriaren mintzouaren egunetan, troumpeta hasi datekianian erantzuten, urhenturen dela Jinkouaren misterioua, erazagutu dian bezala bere zerbutchari profetez.

8. Eta entzun nian botz bat zelutik berriz eni mintzatzen, eta erraiten : Zouaza, eta har ezazu libru za-

59

baltia itchason gañen eta lurren gañen chuti dagon ainguriaren eskutik.

9. Eta jouan nintzan ainguria gana, eta erran neyon, eman lizadan libria. Eta erran zeitan: Har ezazu libria, eta irets ezazu: eta kharasteraziko dizu zoure sabela, bena zoure ahouan gozo dukezu eztia bezala.

10. Eta hartu nian libria ainguriaren eskutik, eta iretsi nian: eta ene ahouan gozo zen eztia bezala: eta iretsi nianian, kharastu zen ene sabela.

11. Eta erran zeitan: Behar duzu

v. 9.—Irets ezazu—erran nahi da, barna gogouan ezar etzaizu Jinkouaren erranak.

v. 10.—Lehenik atsegin da ikhoustia Jinkouaren justiziari eta gloriari zuzen egiten; bena gero haïbestegizounengaltzenikhoustiakkharasten du bihotza.

60

orano egia erantzun nazioner, eta populier, eta mintzaje hanitchekori, eta hanitch erregei.

HAMEKAGERREN KAPITULIA.

ETA emanik izan zeitan kanabera bat zaharo bat uduri, eta erranik izan zeitan: Jaiki zite, eta izart ezazu Jinkouaren temploua, eta altharia, eta han adoratzen ari direnak.

2. Heipia aldiz, templotik kampo

v. 1, 2, 6.—Templouak zeñharatzen du Jesukristen Eliza; hartzaz eta haren haurrez khountu har dezan, Jinkouak manhatzen du ainguria—Heipia, Elizatik kampo den phartia—erran nahi da, sinhestegabe diren gizounak.

61

dena, bego kampouan, eta eztezazula houra izart: zeren utzirik beita atzer, eta hiri saintia zaphatuko die berrogei eta bi hilabetez:

3. Eta manu emanen dut ene bi jakiler, eta egia erantzunen die mila berrehun eta hirourhogei egunez, zakiak jauntsirik.

4. Horik dira olibatziak, eta bi khandelerak, lurraren Jaunaren aitzinian daudenak.

5. Eta nourbaitek gaizkirik egin nahi badeye, su bat elkhiko da hayen ahotik, eta ilhainturen dutu hayen etsayak: eta nourbaitek min egin

v. 3, 6.—Bi jakiliak Henok eta Elia dira, mundiaren urhentzian jin behar dienak.

62

nahi badeye, hola harek hil behar duke.

6. Hoyek badie photeria zeliaren zerratzeko, egin eztezan eurirk hoyen profetisatzeko egunetan: eta esku badie houretan gañen hayen odoletara khambiatzeko, eta lurraren joiteko zer nahi uzurriz nahi dukieu hezañbat.

7. Eta urhentu dukeyenian berc jakilegoua, leze handitik igaiten den saia, gudukan ariko da hoyen kountre, eta goithuren dutu, eta erhoko dutu.

8. Eta hayen khorpitzak hedatu-

v. 7.—Lezetik igaiten den saia, Antekrist da, debrien gaistokeriaz eta ahalaz armaturik.

63

rik egonen dira Sodoma, eta Ejipta uduripencz deitzen den hiri handiko plazetan, noun ere hayen Jauna izan beita kruzifikaturik.

9. Eta hanitch gizeli, eta populu, eta mintzaje, eta nazionetakok ikhousiren dutie hayen khorpitzak hirour egun, eta erdiz: eta eztutie utziko hayen khorpitzak hobietan ezartera.

10. Eta lurreko ekhoiliarrak boztuko dira hayen hiltziaz, eta jei eginen die: eta algarri emaitze igorriko die, zeren bi profeta hayek marruskatu beitutie lurrian egoiten zirenak.

11. Eta hirour egun, eta erdien

64

oundouan, bizizko hatsa Jinkoua ganik sarthu zen hayetan. Eta chutitu ziren bere zankhouetan gañen, eta lotseria handi batek hartu zutian hayen ikhousliak.

12. Eta entzun zieu botz handi bat zelntik, hayer erraiten: Igañ ziteye hounat. Eta igañ ziren zelialat odei batetan: eta ikhousi zutien hayen etsayek.

13. Eta ordu hartan egin zen luhikhara handi bat, eta hiriaren hamargerren phartia erori zen: eta hil ziren luhikharan zazpi mila gizoun: eta bestiak lotsak harturik izan ziren, eta gloria eman zieu zeluko Jinkouari.

14. Bigerren gaitza igaran da:

65

eta houna hirourgerren gaitza laster jiteko dena.

15. Eta zazpigerren ainguriak jo zian troumpeta: eta botz handiak erantzun ziren zelian, eta ziouen: Mundu hountako nausigoua, goure Jaunaren eta haren kristentakotu da, eta errege date menten mentetan: Halabiz.

16. Eta hogei eta laur zaharrak, Jinkouaren aitzinian bere jargietan jarririk direnak, erori ziren ahozpez, eta adoratu zien Jinkoua, ziouelarik:

17. Esker deizugu, Jauna Jinko ahalorotakoua, zirena, eta zinena, eta ziratekiana: hartu beituzu zoure in-

66

dar handia, eta nausitu beitzira.

18. Khechatu dira nazioniak, bena zoure khechaldia heltu da, eta thenoria hilen jujatzeko, eta sariaren emaiteko zoure zerbutchari profeter, eta saintier, eta zoure izenaren beldur direner tchipier, eta handier, eta lurra sokhierazi dienen ilhaintzeko.

19. Eta zabaltu zen Jinkouaren temploua zelian, eta ikhousi zen haren patoko arka, eta egin zen iñhazi, eta oihu, eta luhikhara, eta harrite handia.

v. 19.—Jinkouaren patoko arka, Jesukrist bera da; hartan da Jinkouaren legia eta zeluko mana: saintien hazkurria eta siratsa.

67

HAMABIGERREN KAPITULIA.

ETA ikhousgarri handi bat agertu zen zelian: Emazte bat ekhiaz unguraturik, eta haren houñpetan argizagia, eta haren burian hamabi izarrezko khoroua bat:

2. Eta izorra beitzen, heyagoraz ari zen haurminetan, eta eskerniatzen zen erditzeko.

3. Eta ikhousi zen beste ikhous-

v. 1.-Emazte horrek uduritzen du Eliza Jesukristen argiaz unguraturik; houñpetan etchekitzen du argizagia; erran nahi da gizounen arrazouaren argi flakia, khambiakorra eta jesana; hamabi Apostoliak haren buriaren khoroua dira.

v. 3.—Heben markaturik dira Luziferren eta haren lagun zelutik eroriен errabia, bekhaitzteria eta gudukak Jinkouaren Elizaren kountre.

68

garri bat zelian: eta houna herensuge handi gorhail bat, zouñek beitzian zazpi buru, eta hamar adar: eta haren burietan zazpi khoroua,

4. Eta haren buztanak zaraman zeluko izarren hirourgerren phartia, eta egotchi zutian lurrialat, eta herensngia baratu zen haurminetan zen emaztiaren aitzinian: erdi zatekianian, haren semiaren iretsteko.

5. Eta sorthu zian haur bat seme, zouñek otsemanen beitutu nazione guziak burdun zaharouarcki: eta erouanik izan zen haren semia Jinkoua ganat, eta haren tronouala,

6. Eta emaztiak ihes egin zian

v. 4.—Seme sorthu dian hori Jesukrist da.

69

baserrialat noun beitzian lekhu bat Jinkouak adelaturik, han bazirik izateko mila berrehun eta hirourhogei egunez.

7. Eta izan zen guduka handi bat zelian: Michel, eta haren ainguriak gudukan ari ziren herensugiaren kountre, eta sugia oldartzen zen, eta haren ainguriak ere:

8. Eta etzien goithu, eta etzen ediren hayen lekhurik haboro zelian.

9. Eta egotchirik izan zen herensuge handi houra, suge zaharra,

v. 6, 14. — Elizaren haurrak persekuzione handien demboran ihesi douatza eta gordatzen dira basabazterretan.

v. 7.—Guduka hori mundiaren hastian izan da; berriz Jesukristen Elizaren hatsarrian; eta izanen da ere mundiaren urhentzian.

70

debria, eta satan deitzen dena, mundu guzia inganatzen diana: eta egotchirik izan zen lurriala, eta haren ainguriak hareki igorririk izan ziren.

10. Eta entzun nian botz handi bat zelian erraiten: Orai zintu da salhamentia, eta indarra, eta goure Jinkouaren erregegoua, eta haren Kristen photeria: egotchirik beita goure anayen gaizkisalhazalia, zouñek gaizkilsalhatzen beitzutian goure Jinkouaren aitzinian gai eta egun.

11. Eta hoyek goithu die houra Achouriaren odolaz, eta bere jakilegouaren elhiaz, eta eztutie bere biziak maithatu heriotziari ihes egiterano.

71

12. Hartakoz botz ziteye, zeliak, eta han zaudenak. Gaitz lurrari, eta itchasouari, zictara jaitsi beita debria khechueri handiareki, jakinik dembora guti diala.

13. Ikhousirik herensugiak egotchirik zela lurrialat, gahatu zeyon semia sorthu zian emaztiari.

14. Eta emanik izan zeitzon emaztiari arrano handi baten bi hegal, hegalta ledin baserrialat bere egongialat, noun hazirik beita dembora batez eta demboraz, eta demhora erdi batez sugiaren ikhousbidetik.

15. Eta igorri zian sugiak bere

v. 15.—Uhaitz hori da gaitz eta eskernio mota guzion uharria.

72

ahotik emaztiaren oundouan, hour uhaitz bat bezala, uhaitzaz haren eronanerazteko.

16. Eta lagungoua egin zeyon lurrak emaztiari, eta zabaltu zian lurrak bere aboua, eta iretsi zian herensugiak bere ahotik igorri uhaitza.

17. Eta gaiztu zen herensugia emaztiaren kountre: eta jouan zen gudukara haren odoleko besten kountre, zouñek begiratzen beitutie Jinkouaren maniak, eta ekharten Jesukristen jakilegoua.

18. Eta baratu zen itchasoko hariñan.

v. 16.—Lurrak laguntu du Eliza; lurreko printziak koumbertitu direnian, eta Jesukristen eta haren Elizaren aldia hartu dienian.

73

HAMAHIROURGERREN KAPITULIA.

ETA ikhousi nian sai bat itchasotik igaiten, zazpi buru zutiana, eta hamar adar, eta hamar adarretan gañen hamar khoroua, et haren hurietan gañen bourhauzko izenak.

2. Eta ikhousi nian saiak uduri zian leopardoua, eta haren houñak hartzaren aztaparrak bezalako ziren, eta haren ahoua lehouaren ahoua bezalako. Eta herensugiak eman

v. 1.—Sai hau Antekrist da: elkhiten da itchasotik, erran nahi da, mundu hountako uhañ gaitzen artetik. Zazpi buru, hamar adar eta khoroek erakousten die haren photeriaren hedadura handia lurrian.

74

zeyon bere indarra, eta ahal handia.

3. Eta ikhousi nian haren burietarik bat joik uduri hiltzera zouala: eta haren heriozko zauria sendotu zen. Eta lur guzia amiraturik jarri zen saiaren oundotik.

4. Eta adoratu zien herensugia, zouñek eman beitzian photeria saiari: eta adoratu zien saia, ziouelarik: Nour da saia uduri? eta nour guduka daite hareki?

5. Eta emanik izan zeyon aho bat nausa, eta bourhau egiten ziana: eta eman izan zeyon gaizkigiteko ahala berrogei eta bi hilabetez.

6. Eta ideki zian ahoua Jinkou-

75

aren bourhaustatzeko, eta haren izenaren, eta haren egongiaren, eta zelian daudenen bourhaustatzeko.

7. Eta eman izan zeyon saintier gerla egitia, eta hayen goitzia. Eta esku ukhen zian gizeli, eta populn, eta mintzaje, eta nazione guzien gañen,

8. Eta adoratn zien lurrian zauden guziek: zouñen izenak ezpeitira izkiribaturik mundiaren hastetik erhorik izan den Achouriaren bizizko Librian.

9. Nonrbaitek balin badu beharrirk, entzun beza.

10. Besten bahi erouailia, bere bahiturik jouanen da: ezpataz erhailiak,

76

behar du ezpataz hil. Heben da saintien zintarzuna, eta fedia.

11. Eta ikhousi nian beste sai bat lurretik igaiten, eta bazutian bi adar Aehouriarenak uduri, eta mintzo zen herensugia bezala.

12. Eta lehen saiaren ahala oro egiten zian haren aitzinian: eta lurrari, eta hnrtan zaudener, adorerazi zian lehen saia, zouñen heriozko zauria sendoturik izan beitzen.

13. Eta egin zian gaiza izigarri handirik, su jaitseraz artio zelutik lurriala gizounen aitzinian.

v. 11.—Bigerren sai hounek Achouriak bezalako bi adar bazutian; erran nahi da, erakaspenaren edertarzunaz eta mirakullu faltsuz Elizaren kountre gudukaturen dela, eta gizounak inganaturen dutiala.

77

14. Eta inganatu zutian lurrian zaudenak, saiaren aitzinian, eman izan zeyon gaiza izigarrien egitiaz, erranik lurreko ekhoiliarrer, egin lezen ezpataren zauria ukhenik bizi den saiaren uduri bat.

15. Eta ahala ukhen zian bizianen emaiteko saiaren uduriari, eta saiaren uduriaren mintzerazteko: eta egiteko saiaren uduria adoratzen etzienak oro, erhorik izan litian.

16. Eta guzier, tchipier, eta handier, eta aberatser, eta beharrer, eta jaber, eta manuspekouer hareraziko deye señale bat bere esku eskuñian, edo bere belarretan:

17. Eta eginen du ihourk eros,

78

edo sal eztezakian, ezpalin badu saiaren señalia, edo izena, edo haren izenaren zoumbata.

18. Heben da zuburtarzuna. Dianak enthelegia, khounta beza saiaren zoumbata. Ezi gizoun baten zoumbata da: eta haren zoumbata sei ehun eta hirourhogei eta sei.

HAMALAURGERREN KAPITULIA.

ETA ikhousi nian: eta houna Achouria zen chnti Sioneko men-

v. 1.—Sioneko mendiaren izenaz deithurik da ardura libru saintietan zelia, baietare Jesukristen Eliza.

79

din gañen, eta hareki ehun eta berrogei eta laur mila, haren izena, eta haren Aitaren izena ekharten zienak bere belarretan izkiribaturik.

2. Eta entznn nian herots bat zelutik, hour haodien herotsa uduri, eta uhulgu handi baten orrokoua uduri: eta entzun nian herotsa zen harpalariak harpan ari direnian bezalaknua.

3. Eta kbantatzen zien kantika berri bat bezala jargiaren aitzinian, eta laur aberen, eta zaharren aitzinian, eta ihourk etzezakian erran kantika, ehun eta berrogei eta laur mila, lurretik erosirik izan diren hayek baizik.

80

4. Horik dira emazteki theyutu eztirenak: ezi birjina dira. Horik Achouriari jarraikiten dira noratnahi jouan dadin. Horik erosirik izan dira gizounetarik lehentchak Jinkouareutako, eta Achouriarentako,

5. Eta hayen ahouau ezta aurkhitu geznrra: halaz thonagabe dira Jinkouaren tronouareu aitzinian.

6. Eta ikhousi nian beste ainguru bat zeliaren erdia gainti hegaltatzen, Ebanjelio bethierekoua zadukalarik, erakastekn lurrian zaudener, nazioue, eta gizeli, eta mintzaje, eta populu guzier:

7. Erraiten zialarik oihu handireki: Jaunaren beldur izan ziteye,

81

eta eman ezozie ouhoure, jin beita haren judizioneko orena, eta adora ezazie, zelia, eta lurra, eta itchasoua, eta uthur hourak egin dutiana.

8. Eta beste aioguru bat oundotik jin zen, erraiten zialarik: Erori da, erori da Babilone handi houra: zouñek bere likhizkheriaren kolerazko ardoua edanerazi beitu nazione guzier.

9. Eta hirourgerren ainguru bat agertu zen hayen oundotik, zioualarik oihu handireki: Nourk ere adoratu

v. 8.—Babilone izenian mintzo da Antekristen hiriaz. Erroma zen, Elizaren haisarrian, Jesukristen etsayen hiria; han ziren emperadore khiristien eskerniazale eta hilerazliak. Zouñ izanen da azken demboretako Babilone handia, Antekristen hiria? Jinkouak daki. Eta heben emanik diren arauez bere demboran gizounek ezagut dezakeye.

82

beituke saia, eta haren uduria, eta zeñharia hartu bere belarrian, edo bere eskian:

10. Harek ere edanen du Jinkouaren khechuzko ardoutik, haren khechuzko ouutzian garbi adelaturik izan denetik, eta izaneu da thormentaturik suyaz eta sofriaz ainguru saintieu aitzinian, eta Achouriaren aitzinian:

11. Eta hayen gaitzminen khia igañen da menten mentetan: eta eztie phansurik gai ez eguu, saia, eta haren uduria adoratu dieuek, eta haren izenaren zeñharia hartu diaoak.

12. Heben dago Jinkouaren maniak, eta Jesusen fedia begiratzen dien saintien zintarzuna.

83

13. Eta entzun nian botz bat zelutik, eni erraiten: Izkirib' ezazu: Dohatsu hilak, Jaunian hiltzen direnak. Oraidanik dio Espiritiak, phausa ditiala bere neketarik, ezi bere lanheginak jarraikiten zaitze.

14. Eta ikhousi nian eta houna odei chouri bat: eta odein gañen jarririk gizounaren Semia uduri bat, zouñek beitzian urhezko khoroua bat burian, eta eskian dallu zorrotz bat.

15. Eta beste ainguru bat elkhi zen templotik, oihuz goratik odein gañen jarririk zenari: Igor ezazu zoure dallia, eta ephait ezazu, jin beita ephaiteko ordia, zohi direlakoz lurreko uztak.

84

16. Eta igorri zian odein gañen jarririk zenak, bere dallia lurrialat, eta ebakirik izan zen lurra.

17. Eta beste ainguru bat elkhi zen zelian den templotik, beitzian harek ere dallu zorrotz bat.

18. Eta beste ainguru bat elkhi zen altharetik, harek esku beitzian suyaren gañen: eta oihu egin zian azkarki dallu zorrotza zianari, zioualarik: Erabil ezazu zoure dallu zorrotza, eta moutz etzatzu lurreko mahasti molkhouak: houuturik beitira banko mahatsak.

19. Eta igorri zian ainguriak

v. 18.—Mahats molkho hoyen uduripenian gaistouak dira erakousten.

85

bere dallu zorrotza lurrialat, eta bildu zutian lurreko mahatsak, eta ourthiki zutian Jinkouareu khechnzko zugan handialat:

20. Eta irouchkirik izan zen zugana hiritik kampouan, eta elkhi zen odol zuganetik zaldien kabasturietarano mila eta sei ehun estadaren eremian.

v. 19.—Jinkouaren khechusko zugan handia iferuia da.

v. 20.—Hiritik kampo irouchkirik da zugana, erran nahi da, zeluko Jerusalemetik kampo, ifernian. Erroumako estadak 185 metra igaranttorik du. 1600 Estadak egiten die 300 kilometraren ungurunia, edo hirourhogei lakoua.

86

HAMABOSTGERREN

KAPITULIA.

ETA ikhousi nian beste zeñhare handi, eta izigarri hat zelian: zazpi ainguru, azken zazpi uzurriak zaduzkenak: hayetan beita urhentzen Jinkouaren khechia.

2. Eta ikhousi nian bitrezko itchaso bat hezala suyareki nahasirik, eta saiaren, eta haren uduriaren, eta haren izeneko zoumbataren goitzaliak, zaudela itchason gañen Jinkouareu harpeki:

3. Eta khantatzen ziela Moisa

87

Jinkouaren zerbutchariaren kantika, eta Achouriaren kantika, ziouelarik: Handi, eta izigarri dira zoure laoheginak, Jauna Jinko ahalorotakoua: chuchen eta egiazko dira zoure bidiak, menten Erregia.

4. Nour ezta zoure beldur izanen, Jauna, eta nourk eztu handietsiren zoure izena? zu zihaur beitzira bihotzbera: nazioniak orn jinen beitira, eta gurthuko beitira zoure aitzinian, ageri direlakoz zoure judizioniak.

5. Eta gero ikhousi nian, eta hau dela ideki zen zelian jakilegouaren egongiako temploua:

6. Eta elkhi zireu templotik zazpi

88

uzurriak zaduzken ainguriak, lizko sayo chahu, eta chouriak jauntsirik, eta urhezko gerrikouez boulharretan tinkaturik.

7. Eta laur aberetarik batek eman zian zazpi aingurier zazpi urhezko ouotzi, Jinko menten mentetan bizi denaren khechiaz betherik.

8. Eta temploua khez bethe zen Jinkouaren handitarzunetik, eta haren borthiztarzunetik: eta ihour etzaitekian sar templouan, zazpi aingurien zazpi uzurriak igaran artio.

89

HAMASEIGERREN KAPITULIA.

ETA entzun nian botz handi bat templotik, erraiten zazpi aingurier. Zouazte, eta ichour etzatzie Jinkouaren khechiaren zazpi ountziak lurrialat.

2. Eta jouan zen lehena, eta ichouri zian bere ountzia lurrialat, eta jin zen zauri garratz, eta ezinago gaistoua saiaren hercha zien gizounetara, eta haren uduria adoratu zienetara.

3. Eta bigerren ainguriak ichouri zian bere ountzia itchasoualat, eta jarri zen hil baten odola bezala:

90

eta bizi zireuak oro hil ziren itchasouan.

4. Eta hirourgerrenak ichouri zian bere ountzia uhaitzetarat, eta uthur houretarat, eta odol bilhatu ziren.

5. Eta entzun nian houretako ainguria erraiten: Chuchen zira, Jauna, zirena, eta ziuena: saintia, arrest horik ekharri dituzuna:

6. Ichouri dielakoz saintien, eta profeten odola, eman deyezu odol edatera: eki merechi zizien.

7. Eta entzun nian heste bat altharetik erraiten: Bai, Jaun Jinko ahalorotakoua, egiazko dira eta chuchen zoure jujamentiak.

91

8. Eta laurgerren ainguriak ichouri zian bere ountzia ekhin gaña, eta emanik izan zeyon gizounen berouaz thormentatzia, eta suyaz.

9. Eta tchispiltzen ziren gizonnak berouaren handiaz, eta bourhaustatu zien Jinkoua, uzurri hoyen igorteko photeria ziana, eta etziren urrikitan sarthu hari gloria emaiteko.

10. Eta bostgerren ainguriak ichouri zian bere ountzia saiaren jargiala: eta haren erreṣouma ulhuntu zen, eta jan zutien bere mihiak minez:

11. Eta bourhaustatu zien zeluko Jinkoua bere min, eta zaurien artian, eta etziren urrikitu bere egitatez.

92

12. Eta seigerren ainguriak ichouri zian bere ountzia Eufrateko uhaitz handi hartara: eta agorerazi zian haren houra, bidiaren adelatzeko ekhijalkhigiatiko erreger.

13. Eta ikhousi nian hereusugiaren ahotik, eta saiaren ahotik, eta basaprofetaren ahotik hirour izpiritu likhits elkhiten igelen udurian.

14. Hourak dira eki debrien izpiritiak gaiza izigarri eguiliak, eta badouatza lur orotako erregetara, hayen gudukara biltzera, Jinkn ahalorotakonaren egun handiko.

15. Houna noun jiten nizan ouhouña bezala. Dohatsu iratzarririk dagonana, eta souñekouak begiratzen

93

dutiana, bilaizirik ebil eztadin, eta ikhous eztezen haren ahalkia.

16. Eta bilduko dutu Hebruz Armagedon deitzen den lekhiala.

17. Eta zazpigerren ainguriak ichouri zian bere ountzia airialat, eta erantzun zen miotzo handi bat templotik tronoko aldetik, ziouana: Egin da.

18. Eta egin zen iñhazi, eta oihu, eta uhulgu; eta luhikhara bat izan zen, egundano gizounak lnrren gañen zirenez geroz, ezpeitzen izan halako luhikhara handirik.

19. Eta hiri handia egin zen hirour zathitan: eta uazionetako hiriak errori ziren. Eta Babilone handia go-

94

gnuala jin zeyon Jinkouari, hari hurrupatzera emaiteko bere khecbu herakituzko ardouaren edanonntzia.

20. Eta uhartia oro ezabatu zen, eta mendiak etziren cdiren.

21. Eta harrite handi bat talentia bezalakoua ernri zen zelutik gizounetara: eta bourhaustatu zien Jinkoua gizounek harrizko uzurriaren gatik: handi beitzen izigarri.

v. 21.—Erraiten du Jaundone Jouhanek harri tchitcher bakhoitzak phezu ziala—talentu bat.—Hebruen talentiak phezu zian laur hogei eta zoumbait libera, goure kintaliaren hullau.

95

HAMAZAZPIGERREN KAPITULIA.

ETA jin zen zazpi ountziak zutien zazpi aingurietarik bat, eta mintzatu zeitan, zioualarik: Tziauri, erakoutsiren deizut hour handietan gañen jarririk den phuta handiaren koundenazionia,

2. Zouñeki nahasi beitira lurreko erregiak, eta orditu heitira lurreko

v. 1.—Phuta handiaren izenian erazagutzen da Paganouen Errouma, likhizkeria guzietan nahasia, Jinko faltsu guzien adorazalia, egiazko Jinkouaren etsaya eta khiristien eskerniazalia eta erhailia. Babilone ere deithurik da, bere sinhestegabiaz, nahaskeriez eta Jinkouaren populiaren kountre dian aiherkuntiaz, uduri beitu bestorduzko Babilone hiria, eta harek bezala izan behar beitu Jinkouaren justiziaz eta koleraz joik.

96

ekhoiliarrak haren likhizkeriako ardouaz.

3. Eta erouan nundian gogoz baserri batetara. Eta ikhousi nian emazte bat jarririk sai gorri baten gañen, zouñ beitzen bourhauzko izenez betherik, eta zouñek beitzian zazpi buru, eta hamar adar.

4. Eta emaztia unguraturik zen pourpraz, eta eskerletaz, eta urhez, eta harri baliousez, eta perlaz aphain-

v. 3.—Sai gorri bourhauzko izenez betherik den hori, da Erroumako burizagigouaren bedadura. Gorri da khiristien odolaz gorritu beita; bourhauzko izenez betherik da, ihortaki zoumbat Jinko faltsu ezagutzen beitutu. Haren zazpi buriak dira zazpi emperadore khiristien eskerniazale handienak. Hamar adarrak dira hamar populu zouñ nausituren beitira Erroumako erresoumaz. Achouriak goithuren dutu bere legiaren eta sinhestiaren hayer besarkeraztez—Hayek erauziko eta erreraziko die Errouma paganoua.

97

turik, eta bazian bere eskian edanountzi bat, itchouskeriaz, eta bere likhizkeriazko theyarzunez betherik:

5. Eta haren belarrian izen bat izkiribaturik: Misterio: Babilone handia, likhizkerien, eta lurreko itchouskerien ama.

6. Eta ikhousi nian emaztia orditurik saintien odolaz, eta Jesusen martiren odolaz. Eta izitu nintzan haren ikhoustiaz harrigarriki.

7. Eta erran zeitan ainguriak: Zertako lazten zira? Nik erranen deiznt emaztiaren egia estalia, eta houra daraman sai zazpi buru, eta hamar adar dianarena.

8. Ikhousi duzun saia, izan da, eta

98

ezta, eta igañen da lezetik, eta hiltzera jouanen da: eta izituko dira lurreko ekhoiliarrak, zouñen izenak ezpeitira izkiribaturik bizizko Librian mundiaren hatsarretik, ikhoustez saia bazela, eta haboro eztela.

9. Eta hau da erranahia, zouñtan beita jakitatia. Zazpi buriak dira zazpi mendiak, zouñtan gañen jarririk beita emaztia, eta ere zazpi errege dira.

10. Bost erori dira, bat badago, heste bat ezta orano jin: eta jin datekianen, behar du harek guti egon.

11. Eta sai zena, eta eztena: houra da zortzigerrena: eta zazpietarikoua da, eta hiltzera doua.

99

12. Eta ikhousi dutuzun hamar adarrak, hamar errege dira: zouñek erreşoumarik ezpeitie orano ukhen, bena photere errege bezala oren batez ukhenen die saiaren oundotik.

13. Hoyek chede hat die, eta bere indar, eta ahala emanen die saiari.

14. Horik Achonriareki gudukaturen dira, eta Achouriak goithuren dutu: zeren jaunen Jauna beita, eta erregen Erregia, eta hareki direnak, deithiak, haitatiak, eta leyalak.

15. Eta erran zeitan: Hour, ikhousi dutuzunak noun phuta jarririk beitago, populiak dira, eta nazioniak, eta mintzajiak.

16. Eta saiari ikhousi dutuzun

100

hamar adar: hayek hastiatuko die likhitsa, hereber eta pikarrai ezariko die: haren aragiak janen dutie, eta bera suyan erreren.

17. Ezi Jinkouak ezari deye bihotzian, egin dezen harek nahi diana: eman dezen bere erreşouma saiari, bethe ditian artio Jinkouaren erranak.

18. Eta ikhousi duzun emaztia, da hiri handia, zouñek beitu buruzagigoua lurreko erregetan gañen.

101

HAMAZORTZIGERREN KAPITULIA.

ETA gero ikhousi nian beste ainguru bat, photere handia ziana, jaisten zelutik: eta lurra argiturik izan zen haren gloriaz.

2. Eta oihu egin zian azkarki, zioualarik: Erori da, erori da Babilone handia: eta egin da debrien egongia, eta izpiritu likhits guzien iheslekhia, eta hegazti tzar, eta hugungarri ororen ziloka:

3. Zeren haren khechuzko likhizkeriaren ardoutik edan beitie po-

102

pulu guziek: eta lurreko erregiak hareki nahasi beitira: eta lurreko salerosliak aberastu beitira horren siratsen khostuz.

Jaquiña da eguzquiaren bitartez eguiten dan gatza ascoz merqueago ateratzen dala.

Donde la sal se encuentra debajo de tierra. abren pozos y llevan una regata allá para llenarlos de agua.

El agua se sala, se saca y, ó la calientan al fuego, ó en eras al sol.

Sabido es que la sal que se hace por medio del sol sale mucho mas barata.

Gatza lurraren azpijan aurquituten dan lecubetan, idiguiten ditube zuluac eta darue ara erreca bat urez betetaco.

Ura gacituten da, ateraten da eta, edo berotuten dabe sutau, edo larriñetan eguzquitan.

Jaquiña da eguzquijaren bitartez eguiten dan gatzac urteten dabela asco merquiago.

Diel. Labourdin. 114 Dial. Souletin.

Celhaya guelditzen da guero gatzez zuritua elhurra eguin izan balu bezala.

Gatza luphean aurkhitzen den lekhuetan, eguiten dira phutzuac eta harat eramaten da erreca bat hekiec nrez bethetzecotzat.

Ura gacitzen da, atheratzen dute eta berotzen, edo suarekin, edo larrainetan iguzkiarekin.

Iguzkiaren bidez eguiten den gatza hainitzez merkeago heldu dela gauza ikhusia da.

La terre reste ensuite blanchie par le sel comme s'il eût neigé.

Dans les endroits où le sel se trouve au sein de la terre, on creuse des puits et on y conduit un canal pour les remplir d'eau.

L'eau se sale, on la puise et on la chauffe, soit au feu, soit an soleil snr des aires.

On sait que le sel qui se fait au moyen du soleil revient beaucoup moins cher.

Ordokia baratzen da guero gatzez chourituric elhur eguin balu bezala.

Gatza lurpian den lekhietan, eguiten dutie cilo batzu eta hetara eramaiten die erreca bat bourez hayen bethatzeco.

Houra gacitzen da, elkhiten die eta beroerazten, edo suyan, edo ekhian barriouetan.

Jakina da ekhiaren bidez eguin gatza hanitchez merkiago jiten dela.

Dial. Guipuzcoano. 115 Dial. Vizcaíno.

OGUEI TA IRUGARREN JOLASA.

—

B. Badaquizn cer abarrotsa egniten duen surtan gatzac.

Bada sutautsa ez da gatza baicic.

A. Bizquitartean gatza zuria da eta sutautsa beltza.

Nai nuque jaquin cerequin eguiten duten sntautsa.

B. Esatera noaquizn.

Gatzua lurrarequin nastua arqnitzen da eta eguiten da

VIGÉSIMA TERCERA CONVERSACION.

—

B. Ya sabes qué ruido hace la sal al fuego.

Pues la pólvora no es mas que sal.

A. Entre tanto la sal es blanca y la pólvora negra.

Quisiera saber con qué hacen la pólvora.

B. Te lo voy á decir.

El nitro se halla mezclado con la tierra y se hace lejía

OGUETAIRUGARREN BERBALDIJA.

—

B. Badaquizu celaco otsa egniten daben gatzac sutan.

Bada polboria ez da gatza baño.

A. Bitartian gatza zurija da ta polboria baltza.

Gura neuque jaquin cegaz eguiten daben polboria.

B. Esatera nuatsn.

Gatzua anrquituten da lurragaz naastauric eta lur one-

Dial. Labourdin. 115 Dial. Souletin.

HOGOI ETA HIRUGARREN SOLASTALDIA.

—

B. Badakizu nolaco zartacoa eguiten duen gatzac suan.

Bada bolbora ez da deus ere bertzeric ecen gatza.

A. Bizkitartean gatza znria da eta bolbora beltza.

Nahi nuke yakin cerekin eguiten den bolbora.

B. Erratera nohakizu.

Nitrea lurrarekin nahasia aurkhitzen da eta lur hori bokhetatzen da.

VINGT-TROISIÈME CONVERSATION.

—

B. Vous connaissez sans doute le bruit que le sel fait au feu.

Or, la poudre n'est autre chose que du sel.

A. Cependant le sel est blanc et la poudre est noire.

Je voudrais savoir avec quoi se fait la poudre.

B. Je vais vous le dire.

Le nitre se trouve mêlé à la terre et on lessive cette terre.

HOGUEI ETA HIROURGUERREN ELHESTALDIA.

—

B. Badakizu cer heroxa eguiten dian gatzac suyan.

Eta arren pholbora ezta gatz baicic.

A. Haregatic gatza chouri da eta pholbora beltz.

Nahi nuke jakin cereki eguiten den pholbora.

B. Erraitera nouakizu.

Nitre-gatza lurrareki nahasiric guerthatzen da eta lur hori bukhatatzen die.

Dial. Guipuzcoano. 116 Dial. Vizcaino.

lixiba lur onequin.

B. Baña ¿ nola eguiten da lixiba ?

B. Ifintzen da lurra edo errautsa saisqui batean, botatzen zayo ur iraquiña eta onec urtu eta eramaten du berequin gatzua.

Ur oni deritza lixiba, eta oztutzen daneau guelditzen da ondoan gatzua.

Cembat eta urari gueyagotan iraquiñaracitzen zayon ambat eta gatzuac indar gueyago izaten du.

Baña gueyago costaco da, con esta tierra.

A. Pero ¿ cómo se hace la lejía ?

B. Se pone la tierra ó ceniza en una cesta, se le echa agua hervida y esta derrite y lleva consigo el nitro.

Á esta agua se llama lejía, y cuando se enfría se queda en el fondo el nitro.

Cuantas mas veces se le haga hervir al agua tanta mas fuerza tendrá el nitro.

Pero costará mas, porque gaz eguiten da lessibia.

A. Baña ¿ celan eguiten da lessibia ?

B. Iminten da lurra edo antsa otzara baten, botaten jaco ur iraquiña eta onec urtu ta darua beragaz gatzua.

Ur oni lessibia dericha, ta otzituten danian gueldituten da onduan gatzua.

Cembat gueijagotan iraquin eraguiten jacon urari aimbat indar gueijago euquico dau gatzuac.

Baña gueijago costaco da,

Dial. Labourdin. 116 Dial. Souletin.

A. Bainan nola eguiten da bokheta hori ?

B. Ezartzen da lurra edo hauxa saski batean, gain behera ematen zayo ur irakitua, eta hunec ortharazten du nitrea eta berekin badaramaca.

Ur hau deitzen dute lichiba, eta hoztu denean nitrea guelditzen da ondoan.

Cembat eta guehiagotan irakitaracico baitiote urari hambat ere indar guehiago izanen du nitreac.

Bainan guehiago gostaco da, ceren irakitaldi bakho-

Mais comment fait-on cette lessive ?

B. On place la terre ou la cendre dans une manne et on jette dessus de l'eau bouillante ; cette eau fond et entraîne le nitre.

Cette eau se nomme lessive, et quand elle s'est refroidie le nitre reste au fond.

Plus on fera bouillir l'eau de fois et plus le nitre aura de force.

Mais il coûtera davantage parce qu'à chaque fois qu'on

A. Eta noula eguiten da bukhata hori ?

B. Ezarten da lurra edo hauxa zare batetan, ichourten zayo gaña hour berakia, eta hounec hourterazten du eta bereki eramaiten nitre-gatza.

Hour hau deitzen die bukhata, eta hoztu denian baratzen da zolan nitre-gatza.

Zoumbat ere guehiagotan herakieraci beitnkeye houra hambat ere haboro indar duke nitre-gatzac.

Bena guehiago khostaren da, ceren herakialdical houra

Dial. Guipuzcoano. 117 Dial. Vizcaino.

iraquite bacoitzean ur berria bear duelaco.

Ez da dudario, ceren beti gatzua urritzen dijoa eta su gueyago bear du.

Argatic gatzuac cembat fiñagoa dan ambat eta gueyago balio du.

Gatzuari botatzen zayo sufre pisca bat motraidura eta jotzen da orre eguin arte.

Guero botatzen zayo icatz auta pisca bat eta jotzen da berriz luzaro.

en cada hervor es menester echarle agua limpia.

No hay duda, porque cada vez va disminuyéndose mas la cantidad del nitro y necesita mas fuego.

Por eso el nitro cuanto mas fino sea vale mas.

Al nitro se le echa un poco de azufre al mortero y se machaca hasta que quede hecha una masa.

Despues se le echa un poco de carbon en polvo y se machaca otra vez largo rato.

cerren iraquin bacochian bota biar jaco ur garbija.

Ez dago dudaric, cerren bacochian dua guichituaz gatzua eta su gueijago biar dau.

Orregaitic gatzuac cembat piñago dan gueijago balijo dau.

Gatzuari botaten jaco azufre pisca bat motrallura eta joten da ora bat eguinic guelditu artian.

Guero botaten jaco icatz auts pisca bat eta barriro joten da luzaro.

Dial. Labourdin. 117 Dial. Souletin.

tchean ur garbia behar baitu.

Ez da dudaric, ceren aldi oroz nitrea gutituz baitoha eta su guehiago behar baitu.

Hargatic nitrea cembat ere fiuago eta hambat balio guehiagocoa da.

Nitreari sufre liphar bat botatzen zayo churrura eta yotzen dute orhe eguina izan dadien arteo.

Guero ematen zayo ikhatz herraux pichca bat eta yotzen da berriz luceki.

fait bouillir l'eau il faut qu'elle soit renouvelée.

La chose n'est pas douteuse, vu qu'à chaque fois la quantité de nitre va diminuant et qu'il faut plus de feu.

C'est pourquoi le nitre vaut d'autant plus qu'il est plus fin.

On ajoute au nitre un peu de soufre dans le mortier et on bat jusqu'à ce qu'on en ait fait une pâte.

Ensuite on y jette un peu de charbon en poudre et on bat de nouveau longuement.

berritu behar beitzaico.

Ezta dudaric, ceren bethi hertzez beitoua nitria eta su haboro behar beitu.

Hartacoz ere nitria fiago eta balioua handiago du.

Nitriari ezarten zayo sofre iñhar hat zapharriala eta joiten da orhe eguin dadin artio.

Guero emaiten zayo inkhatz erhaux aphur bat eta joiten da berriz luzaki.

Dial. Guipuzcoano.

Azquenic eralquitzen da zurda bai batean eta guelditzen da sutauts eguiñic.

Orain endeglatuco dezu nola sortzen diran oñazcarrac, chimistac eta turmoyac.

Baoacquin igotzen dira lurretic eta itsasotic gatza, sufrea eta beste gauz asco.

Oyec guztiac nastutzen dira elcarrequin eta artzen dute su.

Orra cer dan oñazcarra: cz da beraz mirari eguin oi dituen zatigoac eguitea.

118

Últimamente se cierne en un cedazo de cerdas y queda hecha la pólvora.

Ahora comprenderás cómo se forman los rayos, relámpagos y truenos.

Con los vapores suben de la tierra y del mar sal, azufre y otras muchas cosas.

Todas estas se mezclan entre sí y se encienden.

Ve ahí lo que viene á ser el rayo: no es pues de admirar que haga los destrozos que suele hacer.

Dial. Vizcaíno.

Azquenic eralguiten da zurdazco bae baten eta gueldituten da polboria eguinic.

Orain aituco dozu celan sortuten diran oñaztarrijac, oñaztubac ta trumonadac.

Lurrunacaz igoten dabe lurretic ta ichasotic gatzac, azufriac ta beste gauza ascoc.

Oneec guztijoc naastetan dira euren artian eta su artuten dabe.

Orra or cer dan oñastarrija: ez da bada mirari eguitia ni dituzan triscantzac.

Dial. Labourdin.

Azkenecotz bahatzen da zurdazco bahe batean eta eguina da bolbora.

Orai bortaric adituco duzu nola ditazkeen ozpinac, simistac eta ihurtzuriac.

Beroaren baxarekin igaiten dira lurretic eta ixasotic gatza, sufrea eta bertze asco gauza.

Horiec guciac elkharrekin nahastecatzen dira eta su hartzen dute.

Horra cer den ozpina: ez da beraz harritzeco harec

118

Enfin on passe dans un sas de crin et la poudre est faite.

Maintenant vous comprendrez comment se forment la foudre, les éclairs et le tonnerre.

Avec les vapeurs sorteut de la terre et de la mer le sel, le soufre et beaucoup d'autres choses.

Tout cela se mêle ensemble et prend feu.

Voilà ce que c'est que la foudre: après cela il n'y a

Dial. Scelatin.

Azkenian igaraiten da bilhozco bahe batetan eta pholbora eguinio da.

Orai gogouan hartuco duzu noula sor ditakian irourciriac, iñhaciac eta durundac.

Alphoreki igaiten da lurretic eta itchasotic gatz, sofre eta beste hanitch gaiza.

Horic oro nahasten dira alkharreki eta su hartzen die.

Hnrra cer den irourciria: ezta ordian icitzeco eguin ohi

Dial. Guipuzcoano. 119 Dial. Vizcaíno.

A. Orrec esan nai du oñazcar bacoitza sutumpada bat dala.

B. Ala da.

Badaquizu izotza ur gogortua besteric ez dala.

Oro bat dira chingorra, elurra eta gatza.

A. Bizquitartean diferenteac dirudite bata bestearen gandic.

B. Bai, ceren beste cerbait gauzarequin nastuac dauden.

A. ¿Eta lur icara cer da? ¿edo certatic dator?

A. Eso quiere decir que cada rayo es un cañonazo.

B. Es así.

Ya sabes que el hielo no es mas que agua endurecida.

Lo propio son el granizo, la nieve y la sal.

A. Entre tanto parecen diferentes unos de otros.

B. Sí, porque están mezclados con alguna otra cosa.

A. ¿Y qué es terremoto? ¿ó de qué proviene?

A. Orrec esan gura dau oñaztarri bacocha dala cañonazu bat.

B. Alan da.

Badaquizu izotza ez dala besteric ezpada ur gogortua.

Beste aimbeste dira chingorra, edurra ta gatza.

A. Bitartian dirudije desbardiñac batzuc bestiac gandic.

B. Bai, dagozalaco naastauric beste gauzaren bategaz.

A. ¿Eta cer da luicaria? ¿edo cetatic dator?

Dial. Labourdin. 119 Dial. Souletin.

eguin ohi dituen zathicatzeez.

A. Hunec erran nahi du ozpin bakhotcha kanoi peza ukhaldi bat dela.

B. Hala da.

Badakizu horma ez dela ur gogortuaz bertzeric.

Gauza bera da harriaz, elhurraz eta gatzaz.

A. Bizkitartean batzuec iduri dute bertzeac ez bezalacoac.

B. Bai, ceren bertze cerbait gauzarekin nahastatuac baittra.

pas à s'étonner du fracas qu'elle fait ordinairement.

A. Ceci veut dire que chaque coup de foudre est un coup de canon.

B. C'est cela.

Vous savez sans doute que la glace n'est que de l'eau solidifiée.

Il en est de même de la grêle, de la neige et du sel.

A. Cependant ils paraissent différer les uns des autres.

B. Oui, parce qu'ils sont mêlés à quelqu'autre corps.

dutian itchesez.

A. Hori erran nahi da irouriciri zaparta bakhotcha canou khaldu bat dela.

B. Hala da.

Badaki kharroua eztela besteric hour gogortia baicic.

Eta orobat dira harria, elhurra eta gatza.

A. Haregatic uduri die batec bestiac ez bezalaco direla.

B. Bai, beste cerbait gaizaeki nahasiric direlacoz.

Dial. Guipuzcoano. 120 Dial. Vizcaíno.

B. Ori da gauza jaquiña jaquitearequin lurra dagoala gatzez, sufrez eta beste onelaco gaucez betea.

A. Orrec esan nai du lur icara lurpeco oñazcarrac eguiten duela.

B. Baitaere sutocariac. Sutocaria deritza sua botatzen duen mendiari.

A. Calte aundiac etortzen bide dira lur icaretatic eta sutocarietatic.

B. Iriac lurreratzeraiiocoac eta lurpean sartzeraiiocoac.

B. Esa es cosa sabida con saber que la tierra está llena de sal, azufre y otras cosas semejantea.

A. Eso quiere decir que el terremoto es efecto del rayo subterráneo.

B. Tambien los volcanes. Volcan se llama al monte que vomita fuego.

A. Parece que resultan grandes males de los terremotos y volcanes.

B. Hasta arruinar ciudades y hundirlas.

B. Ori gauza jaquiña da jaquiñaz lurra daguala gatzez, azufrez eta beste oneen antzeco gauzaz beteric.

A. Orrec esan gura dau luicaria eguiten dabela lurpeco oñaztarrijac.

B. Baitabere garmendijac. Garmendija deituten jaco suba botaten daben mendijari.

A. Calte andijac etorten edo dira luicaretatic eta garmendijetatic.

B. Urijac triscau ta ondatuteraiiocuac.

Dial. Labourdin. 120 Dial. Soulétin.

A. Eta cer da lur ikhara? edo nondic heldu da?

B. Hori gauza yakina da ikhusiz gueroztic lurra dagoela gatzez, sufrez eta bertze hunelaco gauzaz bethea.

A. Horrec erran nahi dn lur ikhara lupheco ozpinac eguiten duela.

B. Bai eta ere garmendiac. Garmendia deitzen da sua botatzen duen mendia.

A. Oudicozco calteac heldu bide dira lur ikhara eta garmendietaric.

A. Et qu'est-ce que le tremblement de terre? ou quelle en est la cause?

B. C'est une chose connue dès qu'on sait que la terre est pleine de sel, de soufre et d'autres choses semblables.

A. Cela veut dire que le tremblement de terre est l'effet de la foudre souterraine.

B. De même que les volcans. On nomme volcan une montagne qui vomit du feu.

A. Des tremblements de terre et des volcans résultent de grands maux à ce qu'il paraît.

A. Eta luikhara cer da? edo certaric jiten da?

B. Hori gaiza ezagutia da jakinez gueroz lurra dela gatzez, sofrez eta beste holaco gaizaz betheric.

A. Hori erran nahi da luikhara lurpeco irourciriac eguiten diala.

B. Bai eta garmendiac ere. Garmendia deitzen da su egoisten dian mendia.

A. Itches handiric eguin behar die luikharec eta garmendiec.

Dial. Guipuscoano. 121 Dial. Vizcaino.

Lurpean ura gatza dagoan toquitic igarotzen bada, gacia ateratzen da iturritic ; sufre gustocos, sufre artetic igarotzen bada, eta beroa, sua dan lecutic igarotzen bada.

Si el agua dentro de tierra pasa por donde hay sal, manará salada de la fuente ; sulfurosa, si pasa por entre azufre, y caliente, si pasa por donde hay fuego.

Lurpeco ura igaroten bada gatza daguan lecutic, urtengo dau iturrijan gacijac ; azufretsuac, igaroten bada azufre artetic, eta beruac, igaroten bada suba daguan lecutic.

Dial. Labourdin. 121 Dial. Souletin.

B. Hiriac erauci eta hondatzerainocoac.

Lupheco ura iragaiten bada gatza den tokitic, gacia atheraco da ithurritic ; sufrexua, iragaiten bada sufretic, eta beroa, sua den lekhutic iragaiten bada.

B. Jusqu'à ruiner des villes et les abîmer.

Si l'eau souterraine passe par un endroit où il y a du sel, elle sortira salée de la source ; sulfureuse, si elle passe par le soufre, et chaude, si elle passe par là où il y a du feu.

B. Hirien erauztera eta founditzerano.

Lurpian igaraiten bada houra gatz den lekhutic, gaci elkbiten da uthurritic ; sofratu, sofre artetic igaraiten bada, eta bero, su den lekhutic igaraiten bada.

ERRATA.

Pages.	Colonnes.	Lignes.	au lieu de	lisez :
22	soul.	18	ornametientaco	ornamentientaco
27	guip.	11	izteatic	izatetic
47	esp.	6	aleguen	halaguen
50	esp.	13	hechar	echar
52	franç.	15	ques	que
86	esp.	8	hecha	echa
103	soul.	4	gaistoa	gaistoua

L.L. Bonaparte
printzaren omenez
OPERA OMNIA VASCONICE
lau liburutan
argitaratu ditu
1991.eko urriaren 15ean
EUSKALTZAINDIAK



LOUIS LUCIEN BONAPARTE

OPERA OMNIA VASCONICE

III

LOUIS LUCIEN BONAPARTE
(1813-1891)

LOUIS LUCIEN BONAPARTE

OPERA OMNIA VASCONICE

III

EUSKALTZAINDIA
1991

Liburua IBERDROLAren babesaz argitaratu da
Esta obra ha sido publicada con el patrocinio de IBERDROLA

© Euskaltzaindia. Bilbao
ISBN: Lan osoa 84-85479-65-3
Lege Gordailua: BI-1641-91
Prestakuntza eta maketa: Jose Antonio Arana Martija
Fotokonposaketa: Didot, S.A. Bilbao
Fotolitoak: Kamara, Bilbao; Fonasa, Iruñea; Itxaropena, Zarautz
Inprimaketa. koadernaketa: GRAFO, S.A. - Bilbao

INDEX

III. TOMOA

Lizarraga, J., *Jesucristoren Evangelio Sandua Juanec dacarran guisara* 9
Lizarraga, J., *Jesus. Copla guisa batzuc molde gutitacoac* 103
Olce, I., *Pregariac Bayonaco diocezacotz* 169
Olce, I., *Pregariac Bayonaco diocezacotz*. Réimpression 191
(Bonaparte, L.L., *Observations*) 212
Oratio dominica 217
Parabola de seminatore. In septem dialectos versa 223
Parábola del sembrador. En ocho dialectos y cuatro subdialectos 237
Le petit catéchisme espagnol du P. Astete. En trois dialectes 255
Salaberry D'Ibarrole, *L'Evangile selon Saint Mathieu* 331
El Salmo quincuagésimo 421

JESUCRISTOREN EVANGELIO SANDUA JUANEC DACARRAN GUISARA

Joaquin Lizarraga
Elkanoko nafarreraz

Londres
1868

Originala: «Azkue Biblioteka» - Euskaltzaindia

JESUCRISTOREN EVANGELIO SANDUA

JUANEC DACARRAN GUISARA.

DON JOAQUIN LIZARRAGAC

EUSCARAN ITZULIA

ITZES ITZ, DAIQUEN DIÑA, EGUIAREN AMOREZ,

TA

LUIS LUCIANO BONAPARTE PRINCIPEAC

ARGUITARA EMANA.

LONDRESEN. 1868.

We certify that only 250 *copies of this work have been printed, of which one is on thicker and larger paper.*

STRANGEWAYS & WALDEN,
28 Castle Street, Leicester Square.

JESUCRISTOREN EVANGELIO SANDUA JUANEC DACARRAN GUISARA.

I. Cap.

PRINCIPIOAN bacé Verboa, eta Verboa cégo Jangoicoan, eta Jangoico cé Verboa.

2. An cego principioan Jangoicoa-baitan.

3. Gauza gucíac eguin-díre bera-gátic: eta bera-gábe eztá bátere eguín eguin-denic.

4. Bera-baitan cé vicitza, eta vicitza cé guizónen arguia:

5. Eta-argniac arguitzen-dú ilumbetán, eta ilumbeéc etzúte ártn béra.

6. Izán-ce guizon-bát Jangoicoa-gánic biália, deitzen-céna Juan.

7. Au etorri-cé testimoniotáco ematecó testimónio arguiarén, sinetsi-cczáten gnciéc berarén medios.

8. Etzé urá arguia, baicic ematecó testimónio árguias.

9. Bacé argui-bát eguiáscoa arguitzen-duéna gnizón guciái datorrenái mundu-gontára.

10. Múnduan cégo, eta múndua bera-gátic eguincé, eta múuduac béra ezaundu-etzué.

11. Bere proprioen-gána etorri-cé, eta bereéc etzúte errecibitu.

12. Baña errecibitu-zúten guciéi eman-cióte éscu eguitecó Jangoicoarén ume, sinesten-dutenéi berarén iceneán:

13. Cein ere ez odolctatíc, eztaré araguiarén naicundetíc, ez-eta-ére guizonquiarén naicundetíc, baicic Jangoicoa-ganic jayo-baitíre.

14. Eta Verboa eguin-ce arágui, eta vicitu-cé gutártean: eta icusi-guínduc berarén gloria, gloria-bát nolacoa dagoquión Aitarén seme bacarrarí, beteríc grácias eta éguias.

15. Juanec testimónio ematen-dú beraréu, eta oyu eguiten-dú, dióla: Au ce nióna: Nere atzétic etorricodéna, ene alcinean parátua-da: cerén baice ni baño lén.

16. Eta berarén betetasunetíc guc guciéc artu-dúgu, eta gracia gracia-gátic.

17. Cerén eci léguca emán-ce Moisesen medios, grácia ta éguia Jesucristoren medios eguin-dá.

18. Jangoicoa nióre eztú icúsi béñere: bere Seme bacárra, Aitarén baitan dagóna, berbera dá ezaunaracidigúna.

19. Eta au dá Juanen testimónioa, noiz ta judatárrec biali-zúzten bera-gána saccrdóteac eta levitac, galdeguiterá: Zu nor zará?

20. Eta confesatu-zué, ta etzué ucátu: eta confesatu-zué: Ez-naicela ni Cristo.

21. Eta galdeguin-cióte: Cer bada? Elias zára zú? Eta errán-zue: Ez-náiz. Profeta zara zú? Eta errespondatu-zué: Ez.

22. Erran-cióte bada: Nor zara, eramatecó errespuésta biali-gaitutenéi? cer diózu ceure buruas?

23. Errán-zue: Ni voza oyu iten-duenaréna desértuan: Ibili zucén Jaunarén vidca, ala nola errán-zuen Isaias profétac.

24. Eta biali-zuzténac cire fariseoetáic.

25. Eta galdeguin-cióte ta errán: Cer-gátic bada batayátzen-dúzu, ezpazára zú Cristo, eztaré Elias, ezeta-ere profeta?

26. Errespondatu-cióte Juanec, cióla: Nic batayatzen-dút úres: baña zuén erdian egon-dá zuéc ezauntzen-eztucéna.

27. Bera dá ene atzétic etorrico-déna, cein baita ni baño lén, ceñen oñetácoen lotzáquia lazátzeco ere ezpaináiz digno ni.

28. Ebéc aguitu-círe Betanian Jordánen aratáco áldean, non baicégo Juan batayátzen.

29. Berce eguneán icusi-zué Juanec Jesus eldu-céla bera-gána, ta errán-zue: Oná Jangoicoarén acbsúria, oná quentzen-duéna munduco becátua.

30. Au dá, ceintas nión: Ene atzétic eldu-dá

guizon-bát, cein nere alcinean parátua dén: cerén baice ni baño lén.

31. Eta nic ez-nué ezauntzen, baicic manifestadayen-gátic Israélen, orren-gátic etorri-náiz ni batayátzen urean.

32. Eta emán-zue testimonio Juanec, cióla: Icusidutéla Espiritua jausten cerutíc uso-báten idúrian, eta jarri-céla berarén gañean.

33. Eta nic ez-nué ezauntzen: baña biali-nindnénac batayátzera ures, arc erran-cida: Nóren gáñean icusi-dezázun Espiritua jautsi ta guelditzen-déla, ori dá batayatzen-duéna Espiritu sanduas.

34. Eta nic icusi-nué: eta testimónio eman-nué au déla Jangoicoarén Sémea.

35. Berce eguneáu bérriz cégo Juan, eta berarén discipuloetáic bida.

36. Eta icusiric Jesus dabilála, erraten-dú: Oná Jangoicoarén achsúria.

37. Eta aditu-zúte bi discipuloéc mintzátzen, eta seguitu-zúte Jesus.

38. Itzuliric Jesus, ta icusiric seguitzen-diotéla, erraten-dióte: Cer billatzen-dúce? Errespondatucióte: Rabbi, (nai-baitu erráu Maestrua) non dago ostatus?

39. Erraten-dióte: Zatózte, ta icusáce. Etorricire, ta icusi-zúte non cegon, eta heraréqui egon-círe egun-gártan: eci ordua cé yá amargarréna.

40. Eta cé Andres Simon Pedrorén anáya bietáic bat, aituric Juanen-gánic seguitu-zuténa.

41. Aurquitu-zué arc leníc bere anáya Simon, ta erraten-dió: Aurquitu-dúgu Mesias (nai-baitu errán Cristo).

42. Eta eramán-zue Jesusen-gána. Eta beiraturic Jesusec, errán-cio: Zu zara Simon Jonaren sémea: zu deituco-zára Cefas, nai-baitu errán Pedro.

43. Biramoneán nai-izán-zue átra Galileará, ta opatu-zué Filipe. Eta erraten-dió Jesusec: Seguinazázu.

44. Eta cé Filipe Betsaidacoa, Andresen ta Pedroren erricoa.

45. Aurquitu-zué Filipec Natanaél, ta erraten-dió: Escribitu-zuténa Moisesec léguean, ta profétec, aurquitu-dúgu Jesus Josefen semea nazaretdárra.

46. Eta erran-ció Natanaélec: Nazaretdic daique izán gauza oníc? Erraten-dió Filipec: Atóz, ta icusázu.

47. Icusi-zuc Jesúsec Natanael eldu-céla beragána, ta errán-zue ártas: Oná bat eguiáz israeldárra, ceintan ezpaita maliciaríc.

48. Erraten-dió Natanaélec: Nondic ezaundunáu? Errespondatu-ció Jesusec, ta errán-cio: Filipec zú deitu-baño-lén, cindeudeláic bicuarén péan, icusi-cinduzáda.

49. Errespondatu-ció Natanaelec, ta errán-cio:

Maestrua, ori dá Jangoicoaren Semea, ori dá Israelgo Erregue.

50. Errespondatu-ció Jesusec, ta erran-cio: Ceren erran-dizúten: Icusi-zaitudála bicu-péan, sinesten-dúzu: ori baño andiagóco gauzac icusco-túzu.

51. Eta erraten-dió: Sin sinés erraten-dicet, icusico-ducé idiquiríc cérua, ta Jangoicoaren ainguiruac jausten, ta igaten guizonaren Semearen gain.

II. Cap.

ETA irugárren eguneán aguitu-cire bodac Cana Galileacoan: eta cego Jesusen ama án.

2. Deitu-zúte Jesus ere, ta bere discipuloac bodetára.

3. Eta faltaturíc árdo, erraten-dió Jesusen amac berarí: Ardoríc eztúte.

4. Eta erraten-dió Jesusec: Cer zaigu niri eta zuri, emastéquia? oráño eztá ellegátu nere órdua.

5. Erraten-dióte berarén amac cervitzucoéi: Inzace erraten-dicen gucia dena déla.

6. Ceude bada án sei arrisco tinaja parátuac judatarren garbinayarén araura, ceucátela bacóchac birana edo irúua nenrri.

7. Erraten-dióte Jesusec: Bete-zquice tinajac ures. Eta bete-zuzte cascoraño.

8. Eta erraten-dióte Jesusec: Atra-zace orai, ta emócie maipurucoai. Ta erman-cióte.

9. Baña maipurucoac chastatu-zuelaic ur ardo eguína, ezpaicéquie nola cen, baña bacequite cervitzucoéc atra-zutenec ura: deitzen-du esposoa maipurucoac,

10. Eta erraten-dió: Guizon guciéc paratzeunte leníc ardo ona: eta orditu-direláic, orduán charrágo dena; baña zuc guardatu-duzu ardo ona orái arteo.

11. Au eguin-zuc milagroen lembicicoa Jesusec Galileaco Canán: ta manifestatu-zué bere gloria, eta sinetsi-zúte bera-baitan bere discipnloéc.

12. Ondorcán jautsi-ce Cafarnaúna bera, ta bere ama, ta bere anayac, ta bere discipuloac: eta án egoncirè cz anitz egúncs.

13. Eta urbil ce judatarren bazcoa, eta igan-ce Jesus Jerusalena,

14. Eta opatu-citue temploan ceudéla salcen idiac, ta ardiac, ta usoac, eta dirutratariác jarriric.

15. Eta eguin-zueláic azote guisa-bát cordeles, guciác bota-citue templotic, ardiac ere baita idiac, eta lurreratu-zué tratarien dirua, eta mayac irauli.

16. Eta usoac salcen-ceudenéi erran-cióte: Quen oriéc emendíc, eta etzacéla nai ene Aitarén cchea eguín mercatalgoarén echea.

17. Baña oroitu-circ bere discipuloac baitago escribituric: Zure echearén zéloac jaten-náu.

18. Errespondatu-cióte bada judatárrec, ciótela : Cer señale ematen-dígu gauza-guébec iten-baitítu ?

19. Errespondatu-cióte Jesusec, cióla : Zuéc deseguín templo-gáu, ta irur egunés goratuco-dút.

20. Erran-cióte bada judatárrec : Berrogueitasei urte costatu-dá templo-gonen eguitea, eta orréc goratuco-dú irur egúnes ?

21. Baña berac ció bere gorputzarén témploas.

22. Erresucitaturic bada ilen ertetíc, oroitu-cire bere discipuloac óntas cerducála, eta sinetsi-zúte Escriturarí, eta Jesusec erran-zuen itzarí.

23. Cegolaríc bada Jerusalénen bázcoan jai andian, anitzéc sinetsi-zúte beraren icenean, icúsis berarén señáleac iten-cituénac.

24. Baña bera Jesus etzé fiátzeu ayéi, cergatic eci berac ezauntzen-baicitue guciac,

25. Eta ezpaizue beár eman-cézon niorc testimonio guizouas : eci berac cequie cer dén guizona-baitan.

III. Cap.

CÉ guizon-bát fariseoetáic, deitua Nicodemo, judatárren principe.

2. Au joán-ce Jesusen-gána gáuas, ta erran-cio : Maestrua, badaquigu etórri déla Jangoicoa-gánic erajustún, cerón eci niórc erc ez-dezázque eguín orréc

eguiten-tuen señale-guébec, ezpalégo Jangoicoa berarécqui.

3. Errespondatu-ció Jesusec, cióla: Sinés bai sinés erraten-dizut, eci ezpada bát berriro jayótzen, ezdezáque icúsi Jangoicoarén erreinua.

4. Erraten-dió Nicodémoc: Nola daique jayo guizona delaric zarra? aguián daique berriro itzúli bere amarén sabelerá, eta jayo berriz?

5. Errespondatu-ció Jesusec: Eguiáz bai eguiáz erraten-dizút, ezpada bát jayoberritzen ur ta Espiritu sanduarén virtútes, eztaique sártu Jangoicoarén erreinuan.

6. Jayo-déna araguitic, arágui dá: eta jayo-déna espiritua-gánic, espiritu dá.

7. Etzaitela arrítu nic erránas, preciso déla zuéc jayótzea berriró.

8. Espirituac nón nai-duen espiratzen-dú: eta berarén voza aditzen-dúzu, baña eztaquízu nondic eldu-dén, edo nora doayén: alá dá espiritua-gánic jayo-dén gucía.

9. Errespondatu-cio Nicodémoc, cióla: Nola daique ori izán?

10. Errespondatu-cio Jesúsec, cióla: Zu zara maestru Israélen, eta eztaquizquízu cbéc?

11. Sin sinés erraten-dizut, daquigúna diogúla, ta icusi-dugúna seguratzen-dugúla, eta gure testimónioa eztúcie errecibitzen.

12. Lurréco gauzac erran-baiticiet, ta ezpaucie sinésten : nola sinetsico-ducié, erraten-baiticiet cerúcoac ?

13. Eta nióir eztá igán cerúra, baicic jautsi-déna cerútic, guizonarén Semea, cein baitágo céruan.

14. Eta ala nola Moisesec goratu-zuén serpiéntea desértuan ; alá dá preciso gorátzea guizonarén Sémea:

15. Sinesten-duenic bera-baitan gal-eztáyen nióir ere, baicic logra-dézan vicitza etérnoa.

16. Cerén eci Jangoicoac aláco manéran onetsi-dú múndua, eci eman-baitu bere Seme bacárra : gal-eztáyen nióir sinesten-duenic bera-baitan, baicic guciéc logra-dezáten vicitza etérnoa.

17. Eci eztú bialí Jangoicoac bere Sémea mundurá juzga-dezan-gátic múndua, baicic salva-dayen-gátic múndua berarén médios.

18. Sinesten-duéna bera-baitan, eztá juzgátzen : baña eztuéna sinésten, yá juzgaturic dago : cerén eztuén sinésten Jangoicoarén Seme bacarrarén icénean.

19. Baña au dá juicioa : cerén árguia etorri-baita mundurá, eta nayago-baitúte guizónec ilúna, eci árguia : cerén gaichstoac diren ayén obrac.

20. Eci gaizqui eguiten-duénac, eztu-nái árguia, ta eztatór arguirá, eztaitzen aguértu bére óbrac :

21. Baña egniten-duénac éguia, eldn-dá arguirá, manifesta-daitzen berarén óbrac, cerén Jangoicoan eguínac baitíre.

22. Guero etorri-ce Jesus, ta bere discipuloac Judeaco lurrerá: eta áu cégo egótes, ta batayátzen.

23. Cégo Juan ere batayátzen Enonen, Salin ondoán: cerén ur anitz baice án, ta eldu-círe, ta batayatzen-círe.

24. Eci oráño etzúte sártu Juan carcélean.

25. Eta Juanen discipuloetáic batzuéc paratu-zúte questione judatarréqui garbitzearén gáin.

26. Eta etorri-círe Juanen-gána, ta erran-cióte: Maestrua, orréqui cegónac Jordanen aratáco aldean, ceñén testimonio orréc eman-duén, arc batayatzen-dú, eta guciác doáz bera-gána.

27. Errespondatu-zué Juanec, cióla: Ez-dezáque guizónac ártu deus, ezpazáyo emáten cerutic.

28. Ceuréc zaráte testigo, erran-nuéla, ez-naicela ni Cristo: baicic biália berarén alcinetíc.

29. Duéna espósa, espóso dá: baña esposoarén adisquidea, dagóna presénte, ta beraren aditzen, gozos gozatzen-dá esposoarén voza-gátic. Bada nere gozogáu cumplitu-dá.

30. Bera beár-da gorátu, baña ni apáldu.

31. Goratic etorri-déna, gucién gañetic dá. Lurrécoa déna, lurretic dá, ta lurras dardńca. Cerutic etorri-déna, gucién gáñean dá.

32. Eta icusi-duéna, ta aditu, ori seguratzen-dú: eta berarén testimonioa niórc eztú admititzen.

33. Admititu-duénac berarén testimonioa, firmatudú dela Jangoicoa egui-errállea.

34. Ceren eci Jangoicoa-ganic biáliac erraten-tú Jangoicoarén itzac: eci eztió Jangoicoac emán espiritua neurrituric ain chsústo.

35. Aitac maitatzen-dú Sémea: eta gucía emandió berarén éscuan.

36. Sinesten-duénac Semean, logratzen-dú vicitza eternoa: baña sinetsi-nai-eztiónac Semearí, eztú icnsíco vicitza, baicic Jangoicoarén ira dago egótes arren gáñean.

IV. Cap.

EZAUNDU-ZUELARÍC bada Jesúsec aditu-zutela fariseoéc yágo discipnlo iten-zuéla, ta batayatzen-zuéla Jesusec, Juanec baño,

2. (Naiz etznén batayátzen Jesúsec, baicic bere discipuloéc)

3. Utzi-zué Judéa, ta joán-ce berriz Galileará.

4. Baña beár-zue pasátu Samariatic bárna.

5. Ellegatu-cé bada Samariaco iri-batéra, deitzendéna Sicár: urbil alór eman-cionarí Jacobec bere seme Josefi.

6. Cé bada án Jacoben iturri-bát. Bada Jesus necaturíc viájeas, cego alá jarriríc itúrri pocálean. Ordua cé yá seigarréna.

7. Etorri-ce Samariatic emastequi-bat úr esque. Erraten-dio Jesusec: Idázu edatera.

8. (Éci bere discipuloac yá joan-cire errirá erosterá janari.)

9. Erraten-dió bada emastequi samaritar-gárrec: Nola orréc, delaric judatarra, escatzen-dida edatecó niri, baináiz emastéqui Samariacoa? eci eztúte tratátzen judatarrec samaritarréqui.

10. Errespondatu-cio Jesusec, ta erran-cio: Bacindéqui Jangoicoaren donua, eta nor den erratendizuna: Idázu edátera: zuc aguián berái escatucocindio, eta emanen-cizu ur vici-bát.

11. Erraten-dio emastequiac: Jauna, eztú ere certas átra ur, eta bútzua dago barna: beras nondic dú ur vicía?

12. Aguián ori dá yago eci gure aita Jacob, ceñéc eman-cigun butzu-gáu, eta berac edan-baizue ontáic, eta bere umeéc, ta bere arsaldoéc?

13. Errespondatu-cio Jesusec, ta errán: Ur gontaic edaten-dúten guciác, egarrituco-dire berriz; baña edaten-duéna nic emanen-dióten ura, eztá egarritúco séculan:

14. Baicic ere nic emanen dióten ura, inen-dá bera-baitan uresco iturri-bát salta-dayéna vicitza eternoráño.

15. Erraten-dió emastéquiac: Jauna, bida niri urgórtaic, ez-nadien egarritu: eta ez ctorri ur esque onará.

16. Erraten-dió Jesusec: Zoáz, dei-zázu ceure guizona, eta atóz onará.

17. Errespondatu-cio emastéquiac, cióla: Eztut senarríc. Erraten-dio Jesusec: Ongui erran-dúzu, eztuzula senarríc:

18. Eci borz guizon izau-túzu, eta orai duzun guizoua, eztá zurea: ortan eguia erran-duzu.

19. Erraten-dió emastéquiac: Jauna, dacusat déla profeta berorí.

20. Gure burasoec oyan-góntan adoratu-zúte, eta oyéc dióte, lecua déla Jerusalenen, non bear-den adorátu.

21. Erraten-dió Jesusec: Emastéquia, sinestazadázu, etorri-déla ordua, noiz ez oyan-góntan, eztaré Jerusalenen adoratuco baituce Aita.

22. Zuéc adoratzen-ducie eztaquicéna: guc adoratzen-dugu daquigúna, ceren salvacioa judatarretáic eldu-dá.

23. Baña etorri-dá ordua, eta orái dá, noiz adorazale eguiascoéc adoratuco-baitute Aita espirituás ta eguiás. Ceren Aitac ere alácoac billatzen-tu, adoradezátenac.

24. Espiritu dá Jangoicoa: eta adoratzen-dutenec bera, bear dute-adorátu espirituás ta eguiás.

25. Erraten-dio emastequiac: Badáquit eldu-déla Mesias (deitzen-déna Cristo), bada etortzen-deláic arc, eracutsico-digu gucía.

26. Erraten-dió Jesusec: Ni naiz mintzatzen-nagóna zuréqui.

27. Eta berealá etorri-cire bere discipuloac: ta arritu-cire egóteas mintzátzen emastequiaréqui. Ala-ére etzió niórc erráu: Cer billatzeu-dú, edo cer-gátic mintzatzen-dú onéqui?

28. Utzi-zue bada bere cantaro emastequiac, eta joan-ce errirá, ta erraten-dióte ango guizonéi:

29. Atozte, ta icusácie guizon-bát erran-didána indudan gucía: bera ote-dá Cristo?

30. Atra-cire bada erritic, ta eldu-círe bera-gána.

31. Bitárteo escatzen-cióte discipuloéc, erránes: Maestrua, jan-béz.

32. Baña berac erraten-dióte: Nic dut jatecó janari-bát, zuéc eztaquiciena.

33. Errateu-cire bada discipuloéc elcár: Aguiáu norbaitec ecarri-ote-dió jaterá?

34. Erratcu-diote Jesusec: Eue janária dá eguitea biali-nauenarén vorondátea, bucatzecó berarén láua.

35. Aguián eztúcie erráten zuéc, oraño laur ilabete diréla, ta iguita dembóra eldu-déla? Orrá ea erraten-diciet: Góra ceurén beguióc, ta beira campoac, baitaude zori yá churituríc iguitatzéco.

36 Eta iguitatzen-duénac, artzen-dú saria, ta biltzen-dú fruitu betico vicitzaráco: goza-daitzen bateo eraiquitzen-duéna, ta iguitatzen-duéna.

37. Eci au dá itz-bát eguiáscoa: bat déla eraiquitzen-duéna, ta berce-bát déla biltzen-duéna.

38. Nic biali-zaiztet zuéc biltzera landu-eztucéna: berceéc lanac eguín, eta zuéc sartu-zaráte ayén lanetán.

39. Erri-gartáic bada anitzec samaritarretáic sinetsi-zúte bera-baitan, emastequiarén errana-gátic: Erran-tidála niri eguin-tudan gucíac.

40. Etorriric bada bera-gána, samaritárrec escatucióte gueldi-ceyéla án. Eta guelditu-cé ta egon-ce án bi egúnes.

41. Eta anitz yágoc siuetsi-zúte bera-baitau berarén erraneu-gátic.

42. Eta emastequiarí erraten-cióte: Eztúgu yá sinésten zure errana-gátic: eci gueuréc aitu-dúgu, ta daquigu, au déla eguiáz munduarén Salvazálea.

43. Baña bi egúnen buruán atrá-ce ándic: eta joáu-ce Galileará.

44. Eci Jesus berac emán-zue testimonio, profetac bere sortuerrián eztuela onoreríc.

45. Joan-celáic bada Galileará, errecibitu-zúte galileatárrec, icusias-guéros eguin-zuen gucia Jerusalénen jai-egúnean: ceren eci berac ere joan-cire jai-eguncco.

46. Etorri-ce bada berriz Caná Galileacorá, non eguin-zuen ura árdo. Eta cé jaun-bát erregue guisa, ceñen sémea cégon éri Cafarnaúnen.

47. Onéc aitu-zneláic eldu-céla Jesus Judeatic Galileará, joán-ce bera-gána, ta escatzen-ció jautsiceyéla, ta senda-cezála arren semea: eci il urrán cé.

48. Erran-cio bada Jesusec: Ezpaitúcie icústen señáleac eta prodigioac, eztúcie sinésten.

49. Erraten-dió jauuarc: Jauna, betór il-dáyen baño lén ene sémea.

50. Erraten-dió Jesúsec: Zoáz, zure semea vici-dá. Sinetsi-zué guizónac Jesusec errána, ta bazoéye.

51. Jansterácoan yá ura, atra-cequizquio viderá mutilac, ta mezu eman-cióte, vici-céla arren sémea.

52. Galdeguiten-cióte arc órdna, ceintan emánzuen oberá. Eta errespondatu-cióte: Eci atzó zazpietácoan utzi-zue sucárrac.

53. Ezaundu-zué bada aitac, ordu-gúra céla, ceintan erran-cion Jesúsec: Zure semea vici-dá: eta sinetsi-zué berac, eta eche guciac.

54. Au eguin-zue bigárren señálea Jesusec, etorricelaríc Jndeatic Galileará.

V. Cap.

ONDOREÁN cé judatárren festa-egúna, eta igán-ce Jesus Jerusaléna.

2. Dá Jerusalenen ur balsa-bát probatica, deitzendéna ebreoen izcúntzan Bethsaida, cituéna bortz leorpe.

3. Ebétan cégo cantidáde andi-bát eri, itsu, maingu, eár, echidéten, noiz moguituco-cén ura.

4. Eci Jaunarén ainguiru-bát jausten-cé aldártes ur balsará : ta moguitzen-cé ura. Eta nor ere jausten-cén ur balsará moguituas-guéros len leníc, sendatzen-cé edocéin eritásun izan-cézan.

5. Bada cé án guizon-bát oguei-ta-emezórtzi urte zuéna bere eritasúnean.

6. Au icusi-zueláic Jesúsec eróría etzaníc, ta ezaundu-zueláic ásco dembóra zuéla yá, errán-cio: Naidúzu guelditu sendaturíc?

7. Errespoudatu-cio ecinduac: Jauna, eztút guizoníc, jautsi-nazaníc urerá, moguitzen-deláic : eci ni noáyen bitárteo, jausten-dá berce-bát ni baño lén.

8. Erraten-dió Jesusec: Jaiqui-zaite, ar-zázu sóñean ceure goatze-gói, eta ibili-zaite oñes.

9. Eta istántean sendatu-cé guizon-gúra : ta artuzué bere goátzea, ta cebila. Baña cé larumbáta egungártan.

10. Erraten-ciótc bada judatárrec sendatu-cenarí : Larumbáta dá, eztúzu cillégui eramátea soñeau ceure goatze-gói.

11. Errespondatu-cióte : Sendatu-nauénac, bérac erran-dida: Ar-zázu goatze-gói, ta zabiltza.

12. Galdeguiu-ciote bada : Nor dá guizon-gńra erran-dizúna: Ar-zázu goatzc-gói, ta zabiltza?

13. Baña sendatu-cen-árc etzéquie nor cén. Eci Jesus apartatu-cé lecuan cén gendearén ertetíc.

14. Gucro aurquitu-zué Jesusec ura temploan, eta

erran-cio: Ea orrá sendatu-zára: ya etzázula becaturíc eguín, eztaquizun águi gaizquiágo.

15. Joán-ce guizon-gúra, ta contatu-cióte judatarréi, Jesus céla sendatu-zuéna.

16. Orgátic perseguitzen-zúte judatárrec Jesus, cerén iten-cituen gauza-guébec larumbátean.

17. Baña Jesusec errespondatu-cióte: Ene Aitac orai ere obratzen-dú, eta nic obratzen-dút.

18. Orgátic bada yago nai-zúte il judatárrec bera: cerén ez solamente lazatzen-zuén larumbáta, baitaré erráten bere aita céla Jangoicoa, iten-zueláic Jangoico adiña bere búrua. Eta alá errespondatu-cióte Jesusec, cióla:

19. Sin sinés erraten-dicét: ez-dezáque Semeac bere-gánic deusere eguín, baicic icusten-duéna eguiten Aita: eci arc iten-duén gucía, iten-du Sémeac ere guisa bérean.

20. Eci Aitac oncsten-dú Semea, eta mostratzentió berac iteu-tuén gucíac: eta ebéc baño yagocoác ere mostratuco-tió, arritu-zaizten zuéc.

21. Eci ala nola Aitac erresucitatzen-tuen ilac, ta viciarázten: alá Semeac ere, nai-tuénac, vizten-tú.

22. Ceren eci eztú Aitac juzgátzen uiór: baicic juzgamendu gucia utzi-dió Semearí,

23. Oora-dezaten-gatic guciéc Semea, ala nola ooratzen-dúten Aita: eztuénac oorátzen Semea, eztú oorátzen Aita, ceñcc biali-zuen ura.

24. Eguiáz bai eguiáz erraten-diciét, eci aditzenduénac nere itza, ta sinésten biali-nauenái, duéla vicitza etérnoa, eta eztatorréla juiciorá, baicic pasatzen eriotzetíc vicitzará.

25. Eguiáz bai eguiáz erraten-diciét, ellegatu-déla garáya, eta orái dela, noiz ilec adituco-dúten Jangoicoarén Semearén voza: ta aditzen-duténac, vicicodire.

26. Eci ala nola Aitac baitu vicitza bere-baitan: alá eman-dió Semearí ere izátea vicitza bere-baitan:

27. Eta emán-dio potestáde eguiteco yuyamendu, ceren baita guizonarén Seme.

28. Etzaiztela arritu ontas, eci eldu-da órdua, noiz monumentuetán diren guciéc adituco-dúten Jangoicoarén Semearén voza:

29. Eta atraco-dire in-zuzténac obra onac, vicitzarén erresurecciorá: baña in-zuzténac gaichstoac, yuyamenduarén erresurrecciorá.

30. Ez-dezáquet nic nere burutíc eguin deusere. Nola aditzen-duten, alá juzgatzen-dút: eta ene yuyamendua dá justoa: ceren ezpaitut billátzen nere vorondatea, baicic biali-nauenarén vorondátea.

31. Baldin nic ematen-badút testimónio nere buruas, ene testimónioa eztá eguiáscoa.

32. Berce-bát dá, ematen-duéna testimonio nitas: eta badáquit eguiáscoa dela nitas ematen-duen testimónioa.

33. Zuéc biali-cindúte Juanen-gana : eta eman-zue testimónio eguiarén.

34. Baña nic eztút guizonarén testimonio bearríc : baicic ere diót au, salva-zaizten-gátic.

35. Ura cé arguizucia errétzen, ta arguitzeu-duéna. Baña zuéc nai-cindúte dembora aldi-bátes ale-grátu arren árguian.

36. Baña nic badút testimonio yagócoa eci Juan. Eci obra eman-tidánac Aitac in-dezquiten nic : obra-gayec berec emateunte testimonio nitas, ceren Aitac biali-baináu :

37. Eta biali-náuen Aitac, berac emán-du testi-mónio nitas : eta beñere eztúcie aditu berarén vóza ez-eta-ere icúsi beraren idúria.

38. Eta beraren itza eztaucáce egótes ceuren-bai-tan : cerón berac biali-duenái, oní zuéc eztiocen sinésten.

39. Beguira Escritúrac, uste-baitúcie zuéc ayetán duciéla vicitza etérnoa : eta ayéc dire ematen-duténac testimonio nitas :

40. Eta eztúcie etorri-nai ene-gána izateco vicitza.

41. Oórea guizonen-gánic eztút nai.

42. Baña ezaundu-zaiztet znéc, eztuciéla Jangoi-coarén amórea ceuren-baitan.

43. Ni etorri-náiz ene Aitarén icénean, eta ez-naucie errecibitzen : berce-bát baletór bere icénean, ura admititnco-dúcie.

44. Nola zuéc dezaquéce sinésta, billatzen-ducié-nec gloria elcarren-gánic : eta Jangoicoa-ganic sollic dén gloria ez billátzen ?

45. Ez pensa acusatuco-zaiztetéla nic Aitarén alcinean. Badá acusatzen-zaiztenic, au dá Moises, ceintan zuéc esperatzen-ducién.

46. Sinesta-bacindezócic Moisesí, sinesta-cindezaquéte aguián niri ere : eci nitas escribitu-zué arréc.

47. Baña arrén letraéi ezpadúcic sinésten, nola sinetsico-túcie ene itzac ?

VI. Cap.

GUERO joán-ce Jesus Galileaco itsasoarén berce aldéra, cein baita Tiberiascoa :

2. Eta seguitzen-ció gendétze ándiac, cerén icusten-zúzten milagro iten-cituénac eri ceudenéqui.

3. Igán-ce bada Jesus oyán batéra : eta án cégo gueldituric bere discipuloéqui.

4. Eta urbil cé bázcoa judatárren festa-egúna.

5. Bada goraturíc béguiac Jesusec, ta icusiríc elducéla gendequéta andia bera-gána, errán-cio Filiperí : Nondic erosico-dúgu ogui jatecó ebéc ?

6. Baña au ció arren progatu-nayes : eci berac bacéquie cer eguin-bear-zuén.

7. Errespondatu-ció Filipec : Berreún diruen

óguiac eztire ásqui, ematecó bacóchai pichscabana.

8. Erraten-dió bere discipuloetáic batec, Andresec Simon Pedroren anáyac :

9. Badá emén mutico-bát, dituéna bortz ogui ordioscoác, ta bi arrái : baña ebéc cer dire aimberceendáco ?

10. Errán-zue bada Jesusec : Jarraraci-zquicie gendeóc. Eci belarquéta andi-bát cé lecu-gártan. Jarri-cire bada guizónac bortz milla becála.

11. Artu-citue bada Jesusec oguiác : eta esquérrac eman-óndoan, errepartitu-cióte jarriric ceudenéi : guisa berean arrayetáic ere nai-zuten diña.

12. Ase-cireláic, erran-zue bere discipuloéi : Bilzquicie sobratu-diren zatiac, gal-eztaitzen.

13. Bildu-zúzte bada, ta bete-zúzte amábi sásqui puscaéqui, bortz ogui ordioscoctáic sobratu-cirenéqui jan-zutenéi.

14. Guizon-gáyec bada icusi-zutelaríc eguin-zuéla Jesusec señalea, cióte : Au déla eguiáz profeta etorricodéna mnndúra.

15. Baña Jesusec ezaunduríc etorrico-ciréla arrapátzera, ta eguitera bera errégue, joán-ce berriz igués oyancrá bera bacarríc.

16. Beránt eguin-celáic, arratsálde apálean, jantsicíre bere discipuloac itsasorá.

17. Eta iganic itsasóncian, joan-cire itsasoarén

berce aldéra Cafarnaúna: eta yá ce sarturic gáua: eta etzé ayen-gána etórri Jesus.

18. Eta itsásoa zoéye gorátus, aice crru-bátec emánes.

19. Erremátus pasatu-zuztcláic ogueitabortz edo amár estadio, icusteunte Jesus dabilála itsasoaren gáñean, ta urbiltzen-céla, ta icitu-círe.

20. Baña berac erraten-dióte: Ni naiz, etzaciela izán-beldurríc.

21. Nai-zúte bada ártu oncirá: eta berealá óncia ellegatu-cé lurrerá, ceintará zoécin.

22. Bercc eguneán, itsasotíc arát cégon géndeac, icusi-zué etzéla berce onciric bat baicic, eta etzéla sartu oncian Jesus bere discipuloéqui, baicic joanciréla sollic discipuloac:

23. Baña berce onci-batzuc etorri-cire Tiberiasdic urbil lecu-gartára non jan-zúten óguia, graciac emánes Jaunac.

24. Icusiríc bada géndeac etzególa Jesus án, ez-eta bere discipuloac ere, embarcatu-círe onciétan, eta joan-cire Cafarnaúna Jesusen billa.

25. Eta aurquitu-zuteláic itsasotic arát, errancióte: Maestrua, noiz etorri-dá onará?

26. Errespondatu-cióte Jesusec, ta errán: Sin sinés erraten-dicét: ene billa zabiltzate ez cerén icusitúcen señáleac, baicic cerén jan-dúcien oguietáic, ta ase-zaráten.

27. Trabája ez ogui, acabatzen-dena-gátic, baicic dirauena-gátic betiróco vicitzan, cein emanen-dicien guizonarén Semeac. Eci au señalatu-zué Aitac Jangoicoac.

28. Erran-cióte bada ayéc: Cer inen-dńgu obratzéco Jangoicoarén obrac?

29. Errespondatu-cióte Jesusec, ta errán: Au dá Jangoicoarén obra, sinetsi-dezácen, arc biali-duenabaitan.

30. Erran-cióte bada ayéc: Bada cer señále itendú orréc icusi-dezágun, eta sinetsi-dezágun berorí? cer obratzen-dú?

31. Gure burasoéc jan-zúte maná desértuan, nola dagon escribituríc: Cerutic óguia eman-ciotéla jaterá.

32. Erran-cióte Jesúsec: Eguiáz bai eguiáz erraten-diciét, eztéla Moises eman-diciéna óguia cerútic, baicic ene Aitac ematen-diciéla ogui eguiáscoa cerútic.

33. Eci Jangoicoaren oguia dá, jautsi-déna cerútic, ta ematen-duéna vicitza munduarí.

34. Erran-cióte bada ayéc: Jauna, betiró emanbezágu ogui-góí.

35. Erran-cióte Jesusec: Ni naiz vicitzásco óguia: ene-gána datorréna, eztá gosetúco: ta ene-baitan sinesten-duéna, eztá egarritúco beñere.

36. Baña errau-diciét icusi-naucéla, ta sinésten ez.

37. Aitac ematen-didan guciá, etorrico-dá ene-gána : cta datorréna ene-gána, eztút botáco campóra :

38. Ceren eci jautsi-nitza cerutíc, ez eguitecó neure vorondátea, baicic biali-nauenarén vorondatea.

39. Bada au dá biali-náuen Aitaren vorondatea : ez-dezáten gál eman-didanetíc bátere, baicic erresucita-dezáten azqnén eguneán.

40. Au dá biali-nanen ene Aitarén vorondatea : eci icusten-dúten guciéc Sémea, ta sinésten berabaitan, logra-dezáten vicitza betirócoa, eta nic erresucitatuco-tút azquen eguncán.

41. Murmuratzen-zúte bada judatárrec ártas, ceren erran-zuen : Ni naiz ogui vicia, cerutic jautsinitzána,

42. Eta cióte : Agnián au eztá Jesus Josefen semea, ceñen aita ta ama ezauntzen-túgun guc? Nola bada dio onéc : Cerutic jautsi-naicela ni?

43. Errespondatu-cióte Jesúsec, ta errán : Etzáciela nai murmurátu elcarréqui :

44. Niór eztatórqne ene-gána, ezpadacár Aitac biali-nauénac : eta nic viztnco-dút azquen egúnean.

45. Dago escribituric profetaetán : Izanen-díre guciác icascóyac Jangoicoarén. Aita-gánic aditu, ta icasi-dúten guciác, eldu-dire ene-gána.

46. Ez cerén Aita niórc icusi-duén, baicic ere

Jangoicoa-ganic dénac, onéc icusi-dú Aita.

47. Eguiáz bai egniáz erraten-diciét: Sinesten-duénac ene-baitan, badú vicitza betirócoa.

48. Ni naiz vicitzarén óguia.

49. Zuén burasoéc jan-zúte maná desértuan, ta il-cire.

50. Au dá óguia cerútic jautsi-déna: ontáic jaten-duéna, il-eztáyen.

51. Ni naiz ógui vicía, cerútic jautsi-nitzána.

52. Norc ere jaten-duén ogui-gontáic, vicico-dá betícos: eta nic emanen-dúten óguia, nenre aráguia dá munduarén vicitza-gátic.

53. Asi-círe bada marmarquetán elcarréqui juda-tárrac, ciótela: Nola dezáque onéc guri emán bere aráguia jatecó?

54. Erran-cióte bada Jesúsec: Sin sinés erraten dicét: Ezpadúcie jaten guizonarén Semearén arágnia, ta edáteu berarén odóla, eztúcie izánen vicitza ccuren-baitan.

55. Jaten-duénac ene aráguia, ta edáten ene odóla, dú vicitza betirócoa: eta nic viztuco-dút azquen eguncán.

56. Ene aráguia dá eguiáz janári: eta ene odóla eguiáz dá edári.

57. Jaten-duéna ene aráguia, ta edáten enc odóla, mantenitzen-dá ni-baitan, ta ni bera-baitan.

58. Ala nola biali-ninduén ni Aitac vici-dénac eta

ni vici-bainái̇z Aita-gátic: jaten-nauéna ni vicico-dá bera ere ene-gátic.

59. Au dá óguia cerútic jautsi-déna. Ez ala nola zuén buratsoéc jan maná, ta il-baicire. Jaten-duéna ogui-gáu vicico-dá betiróco.

60. Ebéc erran-citue sinagógan eracústen, Cafarnaúnen.

61. Ascoc bere discipuloetáic aituríc, cióte: Gogorra dá predicu-gáu, eta norc dezáque aditu?

62. Baña cequieláic bere-baitan Jesusec murmnratzen-zutéla óntas bere discipuloéc, errán-zue: Orréc escandalizátzen-zaizte?

63. Bada cer, icus-bacindezáte Guizonarén Semea igáten non cégon lenágo?

64. Espiritua dá, viciarazten-duéna: baña aráguiac eztú prochátzen dens ere. Nic erran-ticiéten itzac, espiritu ta vicitza dire.

65. Baña badire zuetáic cembáit, eztutenac sinésten. Eci bacéquie principiotíc Jesusec nor ciren sinesten-etzutenac, eta norc traiciatuco-zuén.

66. Eta ció: Orgátic erran-diciet, nióre eztatorréla nere-gána, ezpazáyo emán enc Aita-gánic.

67. Eméndic ásco discipuloetáic joan-cire atzerát: eta yá etzebiltza beraréqui.

68. Erran-cióte bada Jesusec amabiéi: Aguián nai-dúcie joán znéc ere?

69. Errespondatu-ció Simon Pedroc: Jauna, no-

ren-gána joanen-gára? vicitza eternoco itzac ditu orréc.

70. Eta gúc sinetsi-dúgu, eta ezaundu-dúgu berórí déla Cristo Jangoicoarén Sémea.

71. Errespondatu-cióte Jesusec: Etzaiztet aguián nic beréchsi amábi: eta zuetáic bát deábru dá.

72. Ció Judas Iscariote Simonen semeac: eci onec traiciatuco-zué, amabietáic bat celaríc.

VII. Cap.

ANDIC guero cebila Jesus Galilearát, eci etzué joan-nái Judeará: cerén judatárrec nai-zúten il.

2. Eta andic guti cé judioen festa-egúna, Escenopegia.

3. Erran-cióte bada bere anáyec: Pasa eméndic, ta bidoéye Judeará, icus-dezquiten bere discipnloec obra eguiten-tuénac.

4. Eci niórc eztú eguiten estálian deus, ta nai-du bere burua aguértu: eguiten baitu orréc aláco ganzac, manifesta-béz bere burua munduarí.

5. Eci bere anayec ere etzúte sinésten bera-baitan.

6. Erran-cióte bada Jesúsec: Ene dembóra eztá oráño ellegátu: baña zuén dembóra beti dago prést.

7. Etzaizquéte múnduac gaitzétsi zuéc: baña ni gaitzetsitzen-náu: cerén ártas ematen-baitut testimonio arren obrac diréla gaichstoac.

8. Zuéc igan-zaizte festa-egun-gontára, baña ni ez-naiz igáten: ceren ezpaita bete nere dembóra.

9. Au erraníc, guelditu-cé bera Galilean.

10. Baña igan-cireláic bere anáyac, orduán bera ere igán-ce festa-egunerá ez aguérrian, baicic cstalian becála.

11. Judatárrec bada billatzen-zúte festa-egúnean, eta cióte: Ura non dá?

12. Eta marmár asco cé arren gain gendeetán. Eci batzuéc cióte: Ona déla. Berce-batzuéc cióte: Ecetz, baicic engañatzen-tuéla géndeac.

13. Baña alaére nióz etzé mintzátzen artas aguérrian judatárren beldúrres.

14. Baña yá festa-egúnac erditsután cireláic, igance Jesus templorá, ta cego eracústen.

15. Eta arritzen-cire judatárrac, ciótela: Nola daqui onéc letraríc, eztueláic icási?

16. Errespondatu-cióte Jesusec, ta errán: Ene doctrina eztá nereá, baicic biali-nanenaréna.

17. Norc ere nai-duen eguín berarén vorondatea: ezaunduco-dú doctrinas, ote-dén Jangoicoa-gánic, edo ni mintzatzen-naicen enc burutíc.

18. Bere burutic mintzatzen-dénac, billatzen-dú bere gloria proprioa. Baña billatzen-duénac bialiuauenaren gloria, ura dá eguiáscoa, ta eztú maliciaríc.

19. Ezticie Moiseséc emán léguea: eta eztú niorc zuetáic eguiten légnea?

20. Cer-gátic zabiltzáte il-náyes ni? Errespondatució géndeac, ta errán-cio: Demónioa dauca orréc: nor dabila orrén il-nayes?

21. Errespondatu-zué Jesusec, cióla: Obra bacarbát eguin-dút, eta gucióc arritzen-zaráte.

22. Orgátic Moiseséc eman-cicie circuncisioa: (ez cergátic dén Moisesen-gánic, baicic burasoen-gánic) eta larumbátean circuucidatzen-dúcie.

23. Artzeu-badú circuucisioa guizónac larumbátean, laza-eztáyen Moiseseu léguea: ene contra indignatzen-zaráte ceren guizóna gucia sendatu-dúten larumbátean?

24. Etzaciela nai juicio eguín iduri-utses, baicic dena dén becála, zucénvidean.

25. Erraten-zúte bada Jerusaléngo batzuéc: Eztá au, ceñen il-náyes dabiltzan?

26. Eta orrá mintzatzen-dá aguérrian claro, ta eztiote deus erráten. Aguián ezaundu-dúte eguiáz buruzáguiec au dela Cristo?

27. Baña au badaquigu nóngoa dén: baña Cristo datorreláic, nióre eztáqui nóngoa dén.

28. Clamatzen-zué bada Jesusec témploan eracústen, ta erráten: Badaquice ni nor naicen, ta nondic naicen badaquice: eta ez-náiz etórri neure burutíc, baicic badá eguiasco-bát, bialinauéna, zuéc eztaquiciéna.

29. Eta nic badáquit ura nor dén: cerén beragánic naiz, eta berac biali-náu.

30. Cebiltza bada in-nayes preso: eta nióre etzió bota escuríc, cerén oráño etzén ellegátu bere ordua.

31. Baña gende comunetic anitzéc sinetsi-zúte bera-baitan, eta erraten-zúte: Cristoc datorreláic, inen-dú aguián yágo señale onéc iten-duén báño?

32. Aditu-zúte fariseoéc gendeac cerducála au artas: eta biali-zúzte buruzáguiec ta fariseoec ministroac arrapa-cezáten préso.

33. Erran-cióte bada ayéi Jesusec: Oráño dembóra guti-bát nago zuéqui: eta banoáye biali-naueuagána.

34. Billatuco-naucie, ta aurquituco ez-naucie: eta non ere nágon ni, zuéc etzaizquete etorrí.

35. Erran-zúte bada elcarréqui judatárrec: Norá joanen-dá au, ezpaitúgu aurquitúco? joanen-ote-dá gendalderát eracusterá gendéei, eta gentiléi?

36. Cer erráua dá, erran-duen-gáu: Billatuconaucie, ta aurquitúco ez: eta non nágon ni, zuéc eciu etorrí?

37. Baña festarén azquén egún andian cego chutiríc Jesus, ta ció, oyus: Nor ere dagon egarriác, betor ene-gana, eta edan-béz.

38. Sinesten-duénac ene-baitan, nola dión Escritúrac, ur viciarén errécac bera-gáuic ugarico-díre.

39. Baña au ció Espiritu artu-bear-zuténas sinesten-zuténec bera-baitan: eci oraño etzé Espiritua emán, cerén oraño etzén gloriastátu Jesus.

40. Bada gendetze-gartáic aitu-citutelâic itz-guebec, cióte : Au dá eguiáz profeta.

41. Berce-batzuéc cióte : Au dá Cristo. Baña cembaitéc cióte : Aguián Galileatic dator Cristo ?

42. Eztió aguián Escriturac : Datorréla Cristo Daviden gendaquitic, ta Belengo castelutic, non cegon David ?

43. Aguitu-cé bada desarauqnida géndean berarén casos.

44. Ayetáic cembaitec nai-zúte arrapátu : baña niórc etzió botátu escuríc.

45. Etorri-cire bada ministroac pontificeén ta fariseoen-gána. Ta erran-cióte ebéc ayéi : Cer-gatic eztúcie ecárri ?

46. Errespondatu-zúte ministroec : Seculan eztá mintzátu alá guizoníc, nola guizon-gáu.

47. Errespondatu-cióte bada ayéi fariseoéc : Aguián zuéc cre utzi-zaráte engañatzerá ?

48. Aguián buruzagnietáic niórc sinetsi-dú arrenbaitan, edo fariseoctáic ?

49. Baña gende común, eztaquiténac léguea, madaricátuac dire.

50. Erran-cióte ayéi Nicodemoc, gauas etorricénac bera-gána, cein baice ayetáic bat :

51. Aguián gure legueac juzgatzen-dú guizoníc aditu-gábe bera, ta informatu-gábe cer in-dnén ?

52. Errespondatu-cióte, ta errán : Aguián zu ere

galilcatárra zára? Lei-zquizu ongui Escriturac, eta icúsi eztéla profetaric atrátzen Galileatic.

53. Eta itzuli-cire bacócha bere echéra.

VIII. Cap.

BAÑA Jesus joán-ce Oliveteco oyanerá:

2. Eta goiz goiccán berriz etorri-cé templorá, eta errico gende gucia bera-gana etorri-cé, eta berac jarriric eracusten-cióte.

3. Baña escriba, ta fariseoéc ecartzen-dúte emastequi-bát arrapátua becátuan: ta paratu-zúte berarén alcinean erdián,

4. Eta erran-cióte: Macstrua, emaste-gáu orayetán aurquitu-dá becátuan.

5. Eta Moisesen legucan manatu-cígu arricatzecó alácoac. Bada orréc cer dió?

6. Baña au erraten-zúte tentátns, al-bacezaquéte acusátu. Baña Jesus curturic becrát, cego escribitzen erias lurreán.

7. Bada cirautcláic galdeguiten, goratu-cé, ta errau-cióte: Zuetáic nor ere aurquitzen-dén becaturic-gabe, arc lembicicoric tira-bézo arrucáldia.

8. Eta berriz curturic, escribitzen-zué lurreán.

9. Baña adituric ayéc atratzen-círe bata berccarén

atzétic, ásis zarrenetáic: eta guelditu-ce sollic Jesus, eta emastéquia cegóna erdián.

10. Goratu-celáic, Jesusec erran-cio: Emastéquia, non dire, acusatzen-cinduténac zu? niórc etzaitu condenátu?

11. Arc errán-zue: Niorc ere ez, Jauna. Bada erran-zuc Jesusec: Nic ere etzaitut condenatúco: Zoáz, eta yá etzázula nai yago eguín becaturíc.

12. Berriz bada mintzatu-cequióte Jesus ayéi, cióla: Ni naiz munduarén árguia: nor ere datórren ene atzétic, eztabila ilumbetán, baicic izanen-dú vicitzaco arguitasúna.

13. Erran-cióte bada fariseoéc: Orréc bere buruas ematen-dú testimonio: orrén testimonioa eztá eguiáscoa.

14. Errespondatu-zué Jesusec, ta errán-cióte: Naiz nic emán testimonio nitas, eguia dá nere testimonioa: cerén baitáquit nondic etorri-naicen, ta nora noáyen: baña zuéc eztaquice nondic etórri, edo nora noáyen.

15. Zuéc araguiarén araura juicio iten-dúcie: nic eztút juzgátzen niór:

16. Eta juzgatzen-barimbadút nic, nere jnicioa eguiáscoa dá, ceren ez-naicen bacarríc: baicic ere ni, eta biali-nauéna ni, Aita.

17. Eta zuén legucan dago escribituríc, eci bi guizónen testimonioa déla eguiáscoa.

18. Ni naiz ematen-duténa testimonio nitas: eta

nitas ematen-dú testimonio biali-nauénac, Aitac.

19. Erraten-cióte bada: Non dá orrén Aita? Errespondatu-zué Jesusec: Ez nitas daquicie, ez nere Aitas ere: nitas bacindeqnite, jaquin-cindezáquete ene Aitas erc.

20. Itz-guébec erran-citue ondacarteguian, eracutsis temploan: eta niórc etzué arrapatu preso, cerén oraño etzén ellegátu berarén ordua.

21. Erran-cióte berriz Jesusec: Ni banoáye, ta ene billa ibilico-zaráte, ta ceuren becátuan ilen-zaráte. Nora noayen ni, zuéc etzaizquete etórri.

22. Erraten-zúte bada judioéc: Ilen-ote-dú bere burua, baitio: Nora noáyen ni, zuéc ecin etorrí?

23. Eta erran-cióte ayéi: Zuéc cmén beiticoac zaráte, ni goratic gorenetíc naiz. Zuéc mundu-gontacoac zaráte, ni ez-náiz mundu-gontácoa.

24. Erran-dicet bada eci ilen-zarátela ceuren becatuetán: ceren eci ezpadúcie sinésten ni naicéla, ilen-zaráte ceuren becatuan.

25. Erraten-cióte bada berái: Ori nor dá? Erran-cióte Jesusec: Principioa, cein ere mintzatzen-naicen zuéqui.

26. Asco dút cer errán, ta juzgátu zuétas. Baña biali-naucna ni, eguiáscoa dá: eta nic aitu-tudánac bera-gánic, ebéc erraten-tút munduan.

27. Eta etzúte ezaundu eci bere Aita deitzen zuela Jangoicoa.

28. Erran-cióte bada Jesusec: Goratzen-ducieláic guizonarén Semea, orduáu ezaunducoucie ni naicéla, eta neure burutic eztut deus ere eguitén, baicic nola eracutsi-didan Aitac mintzatzen-náiz:

29. Eta biali-nauéna ni, enéqui dago, ta ez-náu utzi bacarríc: eci nic berarén placér dena, iten-dut beti.

30. Ebéc erratcaréqui berac, anitzec sinetsi-zúte bera-baitan.

31. Erraten-cióte Jesusec sinetsi-cióten judatarrei: Baldin zuéc irauten-badúce nere erranetán, eguiáz ene discipuloac izanen-zaráte:

32. Eta ezaunducouce eguia, ta eguiac libratucozaizte.

33. Errespondatu-cióte: Abraanen gendaquia gara, ta niori eztiógu cervitzátu beñere: nola dió orréc: Libre izanen-zaráte?

34. Errespondatu-ciote Jesusec: Sin sinés erraten-diciet: Eci eguiteunten guciéc becátu, becatuarén siervo diréla.

35. Bada siervoa ezta mantenitzen echean betiróco: baña semea mantenitzen-dá beti.

36. Berás libratzen-bazaizte semeac, eguiáz-libre izanen-zaráte.

37. Badáquit zarátela Abraanen umeac: baña zabiltzáte il-náyac ni, ceren nere erranac etzuten lecuric zuen-baitan.

38. Nic icusi-dutena ene Aitan, erraten-dút: eta zuéc icusi-duciéna ceuren aitan, eguiten-ducie.

39. Errespondatu-ciote, ta errán: Gure aita Abraan dá. Erraten-dióte Jesusec: Barimbazarate Abraanen umeac, eguin-zquicie Abraanen obrac.

40. Baña orái zabiltzáte il-nayac ni, guizon-bát erran-diceténa eguia aitu-dudána Jangoicoa-ganic: au etzué Abraanec eguín.

41. Zuéc eguiten-tucie ceuren aitarén lánac. Erran-zúte ayéc: Gu ez-gára jayo becatutic: Jangoicoa dugu aita bacarríc.

42. Bada erran-cióte Jesusec: Jangoicoa balitz zuén aita: onetsi-nindezaquéce ni. Eci ni Jangoicoa-ganic proceditu, ta etorri-náiz: eci ez-naiz etórri neure-ganic, baicic berac biali-náu.

43. Cer-gatic eztúcie ezauntzen mintzaéra enéa? Cerén ez-dezazquecen aditu nere itzac.

44. Zuéc aita deabrua-gánic zaráte: eta ceuren aitarén deseoac nai-túcie eguín. Ura cé guizailzále principiotic, eta etzé égou firme eguián: ezpaita arren-baitan eguiaríc: mintzatzen-dueláic guczúrra, mintzatzen-dú beretíc, baita guezúrti, ta arren aita.

45. Baña nic erraten-badicet eguia, eztidáce sinésten.

46. Norc zuetáic acusatuco-uáu ni becaturen-bates? Erraten badicet eguia, cer-gatic eztidacie sinesten?

47. Jangoicoa-ganic dénac, aditzen-tú Jangoicoaren itzac. Orgatic zuéc eztucie aditzen, ezpaizaráte Jangoicoarén.

48. Errespondatu-cióte bada judatarrec, ciótela: Aguián eztiógu ongui guc samaritarra déla ori, eta daucála demonioa?

49. Errespondatn-zué Jesusec: Nic eztút demonioríc: baicic onratzen-dút nere Aita, eta zuéc desonratu-naucie ni.

50. Baña nic eztút billátzen neure gloria: badá billatzen-dueníc, eta juzgatuco-dueníc.

51. Sin sinés errateu-dicet: norc ere guardatzentuen nere erránac, eztú icusicó eriótzca beticos.

52. Erran-zúte judatárrec: Orái ezauntzen-dugu demonio duéla. Il-cire Abraan, ta profetac: eta orréc dió: Guardatzen-tuénac nere erránac, eztú chastatucó eriótzea seculan.

53. Aguián ori andiágo dá eci gure aita Abraan, cein il-baice? Profetac ere il-cire. Nor iten-da berori?

54. Errespondatu-zué Jesusec: Nic onratzen-badút nere burua, nere onac eztú deus valio: nere Aita dá, onratzen-nauéna ni, cein baitióce zuéc dela zuén Jangoicoa,

55. Eta eztúcie ezauntzen bera: baña nic ezauntzen-dút. Eta erran-bánez cztutéla ezauntzen, nitzáque zuen guisa guezúrti. Baña ezauntzen-dút bera, ta berarén itzac guardatzen-tút.

56. Abraán znén aita alegratu-cé icusi-náyes nere egúna: icusi-zué, ta gozatu-cé.

57. Erran-cióte bada judatárrec: Berrogueitamár urte oráño eztú, eta Abraau icusi-dú?

58. Erran-ciote Jesusec: Eguiáz bai eguiáz erraten-dicet, Abraán in-baño-lén, banáiz ni.

59. Artu-zúzte bada arriac, tiratzecó berarén contra: baña Jesus alchatu-cé, ta atra-cé templotic.

IX. Cap.

ETA pasátus vidanabar icusi-zue Jesusec guizonbát itsua jayotzés:

2. Eta galdeguin-ciote bere discipuloéc: Maestrua, norc dú culpa, onéc, edo onen buratsoéc, jayotzecó au itsu?

3. Errespondatu-zué Jesusec: Eztú onéc culparic, ez-eta onen buratsoéc ere: baicic aguer-daitzen Jangoicoarén obrac ontan.

4. Dá preciso nic obrátzea biali-nanenarén-obrac, egúnac diráuen bitártco: eldú-da gáua, noiz nióre ere ez-dezáquen obrátu.

5. Nagon bitárteo múnduan, munduarén árguia naiz.

6. Au errán ta bota-zué lichstu lúrrean, ta eguinzue lichstuas lói, ta lóyas untatu-citio béguiac,

7. Eta errán-cio: Zoáz, garbi-zaite Siloeco bálsan (nai-baitu-errán Bialia). Joán-ce bada, ta garbitu-cé, eta etorri-ce icusten-céla.

8. Eta ala aldecoéc, ta lén icusi-zutenéc errumés ésqueau cebilála, cióte: Aguián eztá au, cegóna esquean? Batzuéc cióte: Bayétz, au déla.

9. Berce-batzuéc: Ecétz, baicic arri iduritua déla. Bana berac ció: Ni naicéla.

10. Erraten-cióte bada berarí: Nola idiqui-zaizquizu beguióc?

11. Errespondatu-zué: Jesus deitzen-dén guizongarréc eguin-du lói, untatu-tida beguióc, ta errandida: Zoáz Silocco balsará, ta garbi-zaite. Eta joannáiz, garbitu-náiz, ta icusten-dút.

12. Eta erran-cióte berái: Non dago guizon-gúra? Arc dió: Eztáquit.

13. Dacárte fariseoen-gána itsu izan-céna.

14. Bada cé larumbáta noiz in-zuen Jesúsec lóya, ta idiqui-cituen arren beguiac.

15. Berriz bada galdeguiten-cióte fariseoéc nola icusi-zuén. Baña berac erran-cióte: Lóya paratu-dida beguien gáñean, ta garbitu, ta icusten-dút.

16. Cióte bada fariseoetáic cembaitec: Eztá Jangoicoaren aldétic guizon-góí, ezpaitu guardátzen larumbáta. Baña berce-batzuéc cióte: Nola dezáque guizón becatáriac eguín aláco señáleac? Eta desarauquida cé ayen értean.

17. Erraten-dióte bada itsuarí berriz : Zuc cer diózu ártas, idiqui-tizúnas beguióc ? Arc ció : Profeta déla.

18. Etzúte bada judatárrec sinétsi ártas, itsu izancéla, ta icusi-znéla, aliqnetá deitu-zúzten árteo icusizuen-gárren burátsoac :

19. Eta galdeguin-cióte ayéi, ta errán : Au dá zuén semea, zuéc dióccna jayo-céla itsu ? Bada nola orái icusten-dú ?

20. Errespondatu-cióte arren burátsoec, ta errán : Daquígu au déla gúre sémea, ta itsu jayo-céla :

21. Baña nola icusten-duén orái, eztaquígu : edo norc idiqui-tión beguióc, guc eztaquígu : berórri galdeguin-bezóte : badú adín, berórrec erran-béz bere búruas.

22. Au erran-zúte arrén burátsoec, ceréu baicire judioén beldúr : eci yá batzárreau in-zúte, eci norbaitec confesa-balez ura céla Cristo, botatzecó sinagogatic.

23. Orgátic arréu burátsoec erran-zúte : Badú adín, galde berorrí.

24. Deitu-zúte bada berriz itsu izána, ta errancióte : Emózu gloria Jangoicoai. Guc daquigu guizongói dela becatári.

25. Errau-cióte bada arc ayéi : Becatári dén, eztaquit : gauza-bát daquit, eci nitzaláic itsu, orái icustendudála.

26. Errau-cióte ayéc : Cer in-dizu ? nola idiquitizu beguióc ?

27. Errespondatu-cióte ayéi: Erran-dicet yá, ta aditu-duce: cer naucie berriz aditu? aguián naucie zuéc ere izán berarén discipulo?

28. Madaricatu-zúte, ta errán: Zu zaicela arren discipulo: baña gú Moisesen discipulo gara.

29. Guc daquigu Moisesi mintzatu-cióla Jangoicoac: baña au eztaquigu nóndic dén.

30. Errespondatu-zué guizon-gárrec, ta errán: Ontan bada dago miragárria ezpaitaquice nondic dén, eta idiqui-baititu nere beguioc:

31. Eta badaquígu eci becatáriac eztituéla aditzen Jangoicoac: baña barimbáda bát Jangoicoaren beldurdún, ta iten-duéna berarén vorondátea, alácoa aditzen-dú.

32. Séculan eztá aditu idiqui-tuéla batec itsu jayoarén béguiac.

33. Ezpálitz au Jangoicoa-ganic, ecin lezáque deus eguín.

34. Errespondatu-cióte ayéc, ta errán: Becatuetán guciói jayo-zára, eta zuc eracútsi guri? Eta botatu-zúte camporá.

35. Aitu-zué Jesúsec bota-zntéla: ta aurquitu-zuelaric, errán-cio: Zuc sinesten-dúzu Jangoicoaren Sémean?

36. Errespondatu-zué arc, cióla: Nor dá, Jauna, sinesta-dezáten bera-baitan?

37. Erran-cio Jesusec: Aldebát icusi-dńzu, ta mintzatzen-dagóna zuréqui, berbera dá.

38. Eta arc errán-zue: Sinesten-dút, Jauna. Eta auspésca paraturíc, adoratu-zué.

39. Eta errán-zue Jesusec: Juiciotáco ni etorrinaiz mundu-gontára: icusten-eztuténec icus-dezáten, eta icusten-duténac itsu eguin-daitzen.

40. Eta aditu-zúte cembaitec fariseoetáic, beraréqui ceudénec, eta erran-cióte: Agnián gu ere itsu gara?

41. Erran-cióte Jesusec: Itsu barimbacináte, etzindúte becaturíc. Baña orái dióce: Icusten-dúgu. Bada zuén becátua dá iraupétsu.

X. Cap.

EGUIÁZ bai eguiáz erraten-dicét: ezténa-sartzen ataritíc ardien artéguian, baicic igáten berce nondicbáit, ura dá lapúrra, ta ooina.

2. Baña sartzen-déna ataritic, dá ardien artzáya.

3. Oni atalzáyac idiquitzen-dió, ta ardiéc aditzendúte berarén voza, ta deitzen-tú bere ardi proprioac berén icénes, eta atratzen-tú.

4. Eta atra-óndoan bere árdiac, doáye ayén alcinean: ta ardiéc seguitzeunte, baitaquite arren voza.

5. Baña berceréna eztúte seguitzen, baicic igués eguiten arren-gánic: ezpaitútc ezauntzen bercerénen mintzoa.

6. Esanguiáu erran-cióte Jesusec. Bana ayéc etzúte entendátu cer erraten-ciótcn.

7. Erran-cióte bada berriz Jesusec: Sin sinés erraten-diciét, ni naicéla ardien atária.

8. Etorri-diren guciác, lapúrrac dire, ta ooinac, eta eztúzte aditu ardiec.

9. Ni naiz atária. Ene-gátic sartzen-déna, salvatuco-dá: ta sar-atraco-dá, ta aurquituco-dú bázca.

10. Lapúrra eztá etórtzen baicic ebastea-gátic, il, eta galtzea-gátic. Ni etorri-náiz izan-dezáten-gatic vicitza, ta abásto izan-dezáten.

11. Ni naiz artzái óna. Artzái onac bere vicia ematen-dú bere ardien-gátic.

12. Baña alocairucoác, ta artzái eztenác, norénac ezpaitire ardiac, icusiric ótsoa eldu-déla, uzten-tú ardiac, ta igués eguiten-dú: eta otsoac arrapátzen, eta galtzen-tú ardiac:

13. Baña alocairucoac igués iten-dú, baita alocátua, ta ezpaizáyo deus ardies.

14. Ni naiz artzái ona: eta ezauntzen-tút nere árdiac, ta ezauntzen-naute ni neureéc.

15. Ala nola ezauntzen-náuen ni Aitac, eta nic ezauntzen-dúten Aita: eta nere vicia ematen-dút nere ardien-gátic.

16. Berce ardi-batzúc ere baitút, eztirénac arteguigontácoac: ayéc ere bear-tut ecárri, ta adituco-dúte nere voza, ta inen-dá saldo-bát, ta artzai-bát.

17. Orgatic maitatzen-náu ni Aitac : ceren nic uzten-baitut nere arima, artzeco berriz bera.

18. Nióre eztida quéntzen au : baicic nic uztendút nere-gánic, eta escu dút uztecó : ta escu dút artzecó berriz. Manamendu-gáu artu-dút ene Aita-gánic.

19. Desarauquida berriz aguitu-cé judatárren ertean itz-guében cásos.

20. Ascoc ayetáic baicióte : Demonioa dauca, ta eraturic dago : Cer-gátic aditzen-dúcie ?

21. Berce-batzuec cióte : Itz-guebec eztire demonio daucanarénac : aguián demonioac dezázque idiqui itsuen beguiác ?

22. Cé temploarén festa, deitua Encenia, Jerusalencn. Eta negua cé.

23. Eta cebila Jesus témploan, Salomónen leorpéan.

24. Inguratu-zúte bada bera judioéc, ta erratencióte : Noiz árteo gauzqui dudan ? ori barimbada Cristo, erran-bezágu claro arguiró.

25. Errespoudatu-cióte Jesusec : Erraten-dicet, ta eztúcie sinésten. Obra iten-tuténac nic ene Aitarén icenean, ebéc ematen-dúte prógu nitas :

26. Baña zuéc eztucie sinésten, ezpaizaráte nere ardietáic.

27. Nere ardiéc aditzen-dúte nere voza : eta nic ezauntzen-tút ayéc, eta ayéc seguitzen-naute ni :

28. Eta nic ematen-diótet vicitza betirócoa : ta eztire galdúco betícos, ta ez-titu nióre atráco nere escutic.

29. Ene Aitac eman-didána, dá guciac baño yagócoa: eta nióre ez-dezáque quendu ene Aitaren escutíc.

30. Ni, eta Aita gara bat.

31. Artu-zúzte bada judioéc árriac, arricátzeco bera.

32. Errespondatu-cióte Jesusec: Ásco obra ón eracutsi-ticiét ene Aita-gánic; ayetáic cein obra-gátic arricatzen-naucic ni?

33. Errespondatu-cióte judioéc: Obra ona-gátic eztúgu arricátzen, baicic blasfemia-gátic: eta cerén guizóna deláic, iten-baitu Jangoico bere buruói.

34. Errespondatu-cióte Jesusec: Eztágo escribituric zuén léguean: Nic erran-dut jangoico zaratéla?

35. Deitu-bacitue jangoico ayéc, ceñéi mintzatucén Jangoicoa, eta eztaique deseguín Escritura:

36. Aitac santificatu-duéna, ta biali mundurá, zuéc diócc: Blasfemia diotéla, erránas Jangoicoaren Seme naicéla?

37. Ezpaitnt egniten ene Aitarén obrac, ez sinetsi niri.

38. Baña iten-baditut: naiz niri eztidacen sinetsinái, sinetsi-zócic obraći, ezauntzecó, ta sinestecó Aita dagóla ni-baitan, eta ni Aita-baitan.

39. Nai-zúte bada préso eguín: eta atrá-ce ayén escuetáic.

40. Eta joan-ce berriz Jordanetic berce aldéra

lecu-gartára, non cegon Juan batayátzen lén: eta guelditu-cé án.

41. Eta anitz etorri-cire bera-gána, eta cióte: Ez-paizue Juanec eguin-señaleric bátere.

42. Baña ontas Juanec erran-cituen guci guciac, baitire eguiac. Eta anitzec sinetsi-zúte bera-baitan.

XI. Cap.

CÉ eri-bát deitua Lazaro Betaniacoa, Mariarén, ta bere aizpa Martarén gaztelńcoa.

2. (Eta Maria cé, ungitu-zuéna ungnéndus Jauna; ta igórtzi berarén oñac bere biloaréqni: eta Mariaren anáya Lázaro cégo éri.)

3. Biali-cióte bada arreba-gáyec Jaunarí errátera: Jauna, orrá maite-duéna orréc dágo éri.

4. Aituric Jesúsec errán-znc: Eritasnn-gán eztá erioarén, baicic Jangoicoaren gloriarén, arren casos onra-dayen Jangoicoaren Sémca.

5. Bada onesten-zué Jesnsec Marta, ta arren aizpa Maria, ta Lazaro.

6. Aituric bada cególa eri, egón-ce gueldi án lecu bérean bi egúnes.

7. Gnero ondórean erran-cióte bere discipuloéi: Goácen Judeará berriz.

8. Erraten-dióte discipnloec: Macstrua, orayetán

judioéc nai-zute arricátu berorí, eta berriz doáye arará?

9. Errespondatu-zué Jesusec: Eztire amabi eguneco orduac? Barimbadabila bát egunás, eztá tropezátzen, baitacúsa mundu-gontaco árguia:

10. Baña barimbadabila gauás, tropezatzen-dá, cerén ezpaitu arguiríc.

11. Au errán ta ondoreán erraten-dióte: Lazaro gure adisquidea ló dágo: baña banoáye idatzarridezáten lotíc.

12. Erran-cióte bere discipuloéc: Jauna, ló barimbadágo, atraco-dá salvo.

13. Baña Jesusec cerdúca arrén eriótzeas: baña ayéc pensatu-zúte cerducála locártuas.

14. Orduan bada erran-cióte Jesusec aguerri: Lazaro il-da:

15. Eta placér dút zuen-gátic, sinesta-dezácen, nola ezpainégo án. Baña goácen bera-gána.

16. Tomas, Didimo deitzen-dénac, erran-cióte lagunéi: Goácen gu ere, il-gaitzen beraréqui.

17. Ala bada etorri-ce Jesus: eta aurquitu-zué yá laur egún ilic cególa monumentuan.

18. (Eta Betania ce Jerusaléna urbil amabortz estadio guti gora bera.)

19. Bada judioetáic anitz etorri-cire Marta, ta Maria-gana, consolatzerá berén anaya-gátic.

20. Martac bada aitu-ordúco etorri-céla Jesus, atra-céquio viderá: baña Maria cego gueldi echeán.

21. Erran-cio bada Martac Jesusi : O Jauna, egonbáce berórí emén, enc anáya etzé ilén.

22. Baña oraño ere badáquit edocéin gauza escadezón orréc Jangoicoai, emanen-dióla Jangoicoac.

23. Erraten-dió Jesusec : Viztuco-dá zure anáya.

24. Erraten-dió Martac : Badáquit viztuco-déla erresurréccioan azquén egúnean.

25. Erraten-dió Jesusec : Ni naiz erresurréccio, ta vicitza : Sinesten-duéna ni-baitan, naiz il-dén, vicico-dá :

26. Eta vici-dén, ta ni-baitan sinesten-duén gucía, eztá ilén seculan. Sinesten-dúzu au ?

27. Erraten-dió : Bai, Jauna, nic sinetsi-dút, cerén ori baita Cristo Jangoico viciaren Sémea, etorri-déna mundu-gontára.

28. Eta au erran ta joán-ec, ta deitu-zué ichsil ichsila bere aizpa Maria, erraten-dióla : Maestrua etorri-dá, ta deitzen-zaitu.

29. Aitu-ordúco, jaiqui berla ura, ta doáye beragána :

30. Eci oráño etzé ellegátu Jesus castelurá : baicic cégo lecu-gártan, non atra-céquion Marta.

31. Bada judioéc, ceudénec arréqui echean, ta consolatzen-zuténec, icusi-zuteláic jaiqui-cela Maria prisacá, ta joan-céla, seguitu-znte ciótela : Monumenturá bide-doáye, negár iterá án.

32. Maria bada, ellegatu-celáic non cégon Jesus,

icusi-ordúco, belauricatzen-záyo oñetará, ta erratendió: O Jauna, ori egon-báce emén, ene anaya etzé ilén.

33. Jesusec bada, icusi-zueláic ura negárres, ta beraréqui etorri-ciren judioac negárres, lastimatu-cé espirituan, ta guenastu-cé bera ere,

34. Eta errán-zue: Nou paratu-ducie? Erratendióte: Jauna, betór, ta icusi-béz.

35. Eta negar eguin-zue Jesusec.

36. Erran-zúte bada judioéc: Beira nola maitezuén.

37. Baña ayetáic cembaitec erran-zúte: Onéc idiqui-cituénac itsu jayoarén beguiac, etzúque eguín etzéyen il au?

38. Jesus bada berriz lastimaturic bere-baitan, etorri-cé monumenturá. Eta cé lurruspe-bát: eta arri-bát paraturic cego gañean.

39. Erraten-dú Jesusec: Qnen-záce arri-gói. Erraten-dió Martac il-cenarén arrébac: Jauna, yá usanduric dago, eci laur eguntáco ila dá.

40. Erraten-dió Jesúsec: Eztizut errán eci sinesten-bauzu, icusco-duzúla Jangoicoaren gloria?

41. Quendu-zúte bada árria: eta Jesusec, goraturic béguiac gora, errán-zue: Aita, esquerrac ematen-tiót cerén aditu-náuen.

42. Nic banéquic aditzen-nauéla beti ni, baña ingúrnan dágon gendea-gátic erran-dút: sinetsi-dezaten-gátic orréc biali-nauéla ni.

43. Au errán ta oyu andi-batéqui clamatu-zué: Lazaro, atóz campora.

44. Eta istántean atra-cé ila cena, loturic éscuac ta oñac vendaéqui, eta aurpéguia ceuca loturic oyal-batéqui. Erran-cióte ayéi Jesúsec: Laza-zácie, ta utzácie doayelá.

45. Anitzec bada judioetáic, etorri-cirénec Maria ta Marta-gána, ta icusi-zuzténec Jesúsec eguin-cituenac, sinetsi-zúte bera-baitan.

46. Baña ayetáic batzúc joan-cire fariseoen-gána, ta contatu-cióte eguin-zuéna Jesusec.

47. Bildu-zúte bada pontificeéc ta fariseoéc batzárre, eta erratcn-zúte: Cer ai-gára? eci guizon-gónec anitz señale eguiten-dú.

48. Baldín uzten-badúgu alá, guciéc sinetsico-dúte bera-baitan: eta etorrico-dire erromatárrac ta galduco-dúte gure lécua ta géndea.

49. Baña ayetáic batec, Caifas deituac, celaric urte-gartáco pontifice, erran-cióte: Zuéc eztaquice deusere,

50. Eta eztúce pensátzen conveni-zaicéla il-dáyen guizon-bát gendea-gátic, eta gal-eztáyen gende gucia.

51. Baña au etzné errán bere burutíc: baicic nola baicc urte-gartaco pontifice, asmeguitatu-zué, Jesus il-bear-céla gendea-gátic,

52. Eta ez gendea-gátic sollic, baicic ére baterá

biltzecó Jangoicoaren umeac, ceudénac barrayaturíc.

53. Egun-gartáic bada gogo artu-zúte ilaraztecó Jesus.

54. Bada Jesus yá etzebila aguérrian judioén értean, baicić joán-ce alderri-batéra desertura urbil, Efrem deitzen-den irirá, ta án cégo bere discipuloéqui.

55. Baña urbil cé yá judioen bázcoa: eta igan-cire anitz alderritic Jerusaléna bázcoa-alciuean, santificátzera berac.

56. Cebiltza bada Jesúsen billa: eta mintzatzencire elcarréqui, témploan ceudcláic: Cer-gátic ustedúcie, eztéla etórri festa-eguuecó? Emanic ceucáte pontificcéc ta fariseoéc manamendu, eci norbaitec ezauntzen-bázue non cén, contu cmatecó, bera preso arrapatzecó.

XII. Cap.

JESUS bada sei egún bázcoa baño lén etorri-ce Betaniará, nón il-baice Lazaro cein viztu-znén Jesúsec.

2. An prestatu-cióte afária: eta Mártac cervitzatzen-ció, eta Lazaro cé bát máyean jarriric ceudenetáic.

3. Bada Mariac artu-zué libra-bát unguéndu nárdu fiñ, precióso, ta ungitu-citue Jesúsen óñac, eta

igórtzi bere biloaréqui: eta échea betc-cé unguenduarén achónas.

4. Errán-zué bada bere discipuloetáic bátec, Judas Iscariotec, traiciatu-bear-zuénac:

5. Cer-gátic unguendu-gáu eztá saldu irur eún dirután, eta emán beartsuerí?

6. Baña au errán-zuc, ez cerén ajola zuén beartsués, baicic cerén baice lapúrra, ta ceucaláic bolsa, baicéma ematen-céna.

7. Errán-zue bada Jesusec: Utzáce guarda-dézan ori ene ilari-egunecó.

8. Cerén eci beártsuac beti baitúcic ceuréqui: baña ni ez-naucácie beti.

9. Bada judatarretáic ásco géndec chsaquin-zué án cególa: eta etorri-cire, ez Jesusen-gátic sollíc, baita icustea-gatic ere Lazaro, viztu-zuéna ilctáic.

10. Baña sacerdoteén principeec gogo artu-zute ilarázteco Lazaro ére:

11. Cerén judatarretáic áscoc arren casos joán, ta sinesten-zúten Jesusen-baitan.

12. Baña biramónean ásco génde, etorri-céna festaegunecó, aituric eldu-céla Jesus Jerusaléna:

13. Artu-zúzte palmaen adár, ta atra-cequizquio viderá, ta óyus clamatzen-zúte: Osana, bedeicatua eldu-déna Jaunarén icencan, Israélgo Errégue.

14. Eta aurquitu-zué Jesusec astoco-bát, eta jarrice arren gáñcan, nola baicégo escribituric:

15. Etzázula beldurric izán, Siongo alába: orrá zure errégue eldu-dá jarriric asto-báten astócoan.

16. Au etzúte entendátu bere discipuloéc lén: baicic gloriaztatu-celaríc Jesus, orduán oroitu-cire au cególa escribituric beras: ta au in-ciotéla berarí.

17. Ematen-zué bada testimonio géndeac, beraréqui cegónac deitu-zuelaríc Lazaro monumentutíc, ta viztu ilen ertetíc.

18. Orgátic ere atra-céquio videra géndea: ceren aditu-baizúte berac in-zuéla señale-gáu.

19. Fariseoéc bada erran-zúte elcárren ártean: Badacusáce eztugúla prochuric atrátzen? orrá mundu gucía doáye berarén atzétic.

20. Baña bacire gentil-batzúc igan-cirenetáic adorátzera festa-egúnean.

21. Ebéc bada ellegatu-cire Filipe-gána, ceiu baice Galileaco Betsaidacoa, ta escatzen-cióte, erranes: Jauna, nai-dúgu icúsi Jesus.

22. Doáye Filipe, ta erraten-dió Andresí: Berriz Andres eta Filipec erran-cióte Jesúsi.

23. Jesúsec bada errespondatu-cióte, cióla: Etorri-dá órdua, izáteco oorátua guizonarén Sémea.

24. Siu sinés erraten-dicet, ezpálitz gari picórra eroriric lúrreau iltzen;

25. Bera sollic guelditzeu-dá. Báña iltzen-badá, anitz fruitu dacár. Maitatzen-duénac bere arima, gal-

duco-dú: eta gaitzetsitzen-duénac bere arima mundu góntan, betico vicitzaráco guardatzen-dú.

26. Norc ere cervitzatzen-didan niri, segui-benáza ni: eta nón ere nágon ni, án egonen-dá ene cervitzúcoa ere. Norc ere cervitza-názan ni, ura nere Aitac ooratuco-dú.

27. Orái ene anima turbatu-dá. Eta cer erranen-dút? Aita, salva-benáza ordu-gontáic. Baña orgátic ellegatu-náiz ordu-gontára.

28. Aita, ezaunaraci-béz bere icéna. Etorri-cc bada oyu-bát cerútic: Ezaunaraci-dút, ta berriz ére ezaunaracico-dút.

29. Gendeac bada, án cegónac, ta aditu-zuenac, ció ortótsa izan-céla. Berce-batzuéc cióte: Aingueruen-bát mintzatu-záyo.

30. Errespondatu-zué Jesusec, ta errán: Eztá ene-gátic eguin oyu-gáu, baicic zuen-gátic.

31. Orái dá munduarén yuyamendua: orái mundu-gónen buruzáguia botaco-dá campóra.

32. Eta nic gorátua barimbanáiz lurretic, gucíá ecarrico-dút nere-gána.

33. (Baña an ció, emánes aditzerá cer erio guisas beár-cen il.)

34. Errespondatu-ció géndeac: Gu aitu-dúgu leguetíc, eci Cristoc irauten-duela betícos: eta nola orréc dió, bear-déla gorátu guizonarén Sémea? Nor dá guizonarén Seme-góí?

35. Erran-cióte Jesúsec: Oráño arguitásun guti dá zuen-baitan. Ibili-zaizte árgui ducien bitártean, etzaizten arrapátu iluntasúnac: eta ilumbetán dabilánac, cztáqui nora doáyen.

36. Arguia ducién bitárteo, sinetsi-zácie arguián, izan-zaizten arguiaren úmcac. Au crran-zue Jesúsec: eta joán-ce, ta alchatu-cé ayen-gánic.

37. Eta eguin-citueláic aimbérceco señáleac ayén alcinean, etzúte sinésten bera-baitan:

38. Cumpli-ceyen Isaias profetac erran-zuén itza: Jauna, norc sinetsi-dú gure adimentuarí? eta Jaunarén bésoa nori aguertu-záyo?

39. Orgátic etzuquéte sinétsi, cerén baicio berriz Isaiasec:

40. Itsutu-citue ayén bégniac, ta gogórtu ayén biótza: ez-dezáten icúsi béguies, ta ez enténda biótzas, eta converti-daitzen, ta senda-dezquíten.

41. Au errán-zue Isaiasec, icusi-zuelaric berarén glória, eta mintzatu-celáic berarén gain.

42. Alarican-ére anitzec buruzaguietáic sinetsizúte bera-baitan: baña fariseoen cásos etzúte confesátzen, botatu etzezquíten sinagogatic.

43. Cerén estimatzen-zúten guizónen glória yago eci Jangoicoaren glória.

44. Baña Jesúsec oyu eguin-zue, ta errán: Sinesten-duénac ni-baitan, eztú sinesten ni-baitan, baicic biali-nauena-baitan.

45. Eta icusten-nauénac ni, icusten-dú biali-nauena-ni.

46. Ni naiz argui etorri-naicéna mundúra: nibaitan sinesten-dúten guciác, eztauden-ilumbetán.

47. Eta norc ere aditzen-tuén nere itzac, ta ez guardátzen: nic eztút ura jnzgátzen. Eci etorri-eznáiz juzgátzera múndua, baicic salvátzera mundua.

48. Mespreciatzen-nauenac ni, ta ez artzen nere itzac: badú norc juzgatuco-duén bera. Nic erranicáco itzac juzgatuco-dú azqueu eguueán.

49. Ceren nic eztút erráu nere burutíc, baicic biali-nauen Aitac, bérac manatu-didá cer errán, ta mintza.

50. Eta badáquit eci berarén manamendua dela vicitza betirócoa. Mintzatzeunténa bada nic, nola erran-didan Aitac, alá mintzatzen-dút.

XIII. Cap.

BAZCOARÉN festarén vézperan, cequieláic Jesusec cllegatzen-céla beraréu órdua pasatzecó mundugontáic Aita-gána: onetsi-citueláic bereác, munduan cirénac, azqueneráño onetsi-citue.

2. Eta bucaturíc afária, yá ordúco deábruac Judas Iscariote Simonen semeari paratu-cioláic, ta sartu biótzean eguitea traicio berari:

3. Cequielaric eci gauza guciac utzi-citióla Aitac

escuetán, eta etorri-céla Jangoicoa-gánic, eta doayéla Jangoicoa-gána :

4. Jaiquitzen-dá mayetíc, ta uzten-tú bere trésenac : eta arturic oyal-bát, paratu-zué guerruntzean.

5. Guero paratzen-dú ur bacia-bátean, ta asten-dá garbítzeu discipuloen óñac, ta igórtzen oyál ceucanaréqui guerrúntzean.

6. Eldú-da bada Simon Pedroren-gána. Eta erraten-dió Pedroc : Jauna, orréc niri garbitzen óñac ?

7. Errespondatu-ció Jesuscc, ta errán : Nic itenduténa, zuc eztúzu entendátzen orái, baña entendatucouzu guero.

8. Erraten-dió Pedroc : Ez-tída niri garbitúco óñac séculan. Errespondatu-cio Jesúsec : Ezpazaitut garbitzen, eztúzu izánen itecoríc neréqui.

9. Erraten-dió Simon Pedroc : Jauna, ez óñac sollíc, baita éne éscuac, eta búrua ére.

10. Erraten-dió Jesusec : Garbituric dagónac, eztú beár garbítu baicic óñac, eci gucía dágo gárbi. Eta zuéc gárbi zauzte, baña ez gucióc.

11. Ceren eci bacéquie nor cen entregatuco-zuéna : orgátic ció : Etzauzte garbi gucióc.

12. Garbituas-guéros ayéu oñac, artu-citueláic bere trésenac, jarri-celáic berriz, erran-cióte : Badaquicé cer eguin-dúten zuéqui ?

13. Zuéc deitzen-naucie Maestru, ta Jauna : eta óngui dióce : ceren eci alá naiz.

14. Nic bada garbitu-baitut zuén oñac, Jaun, ta Maestru izaníc : zuéc ere bear-túcie garbitu elcár batac berccaréu oñac.

15. Eci ejémplu emau-diciét, ala uola nic eguindicéten zuéi, eguitecó zuéc ere.

16. Eguiáz, eguiáz erraten-dicét : Eztá mutila yago nausia baño : ez-eta apostolua ére eztá yago bialiduéna baño.

17. Au barimbadaquice, zorionécoac izanen-zaráte ori eguiten-badúcie.

18. Eztút erráten zuétas guciétas : nic badáquit cein autatu-nitnen : baña cumpli-dáyen Escritura : Norc ére jaten-duén óguia neréqui, goratuco-dú bere astála ene cóntra.

19. Oraidaníc erraten-dicét, aguitu-baño-lén : alá aguituas-guéros, sinetsi-dezáceu, ui naicela.

20. Eguiáz bai eguiáz erraten-dicét : Errecibitzenduénac bialtzen-duténa nic, errecibitzen-náu ni : ta errecibitzen-nauénac ni, crrecibitzen-dú biali-ninduéna ni.

21. Au erran-zucláic Jesúsec, turbatn-cé espirituan : ta seguratu-zué, ta erráu-zue : Sin sinés erraten-dicet : Eci zuetáic bátec traiciatuco-nauéla ni.

22. Elcárri beiratzen-zúte discipuloéc, dudaquetán echaquínes nor ote-cén cióna.

23. Cego bada cratziníc Jesusen áltzoan berc discipuloetáic bat, Jesusec zuéna maite.

24. Queñu eguin-cio oní Simon Pedroc: ta errán-cio: Nor dá, ceintas dión?

25. Alá bada erreclinatu-celaríc ura Jesusen bulárrean, erraten-dió: Jauna, cein dá?

26. Errespondatu-cio Jesusec: Ura dá, ceñéi ere nic ematen-dióten ógui bústia sálsan. Eta busti-zueláic, emán-cio Judas Iscariote Simonen semeari.

27. Eta amenarén atzétic, sartu-cé ártan satanás. Eta erran-cio Jesúsec: Iten-duzúna, in-zázu len baño lén.

28. Baña an etzné entendátu nióre jarriric ceudenctáic certará erran-ote-ción.

29. Eci batzuéc uste-zúte, nola Judasec baicéma bolsa, erran-bide-cióla Jesúsec: Erosi-zázu bear-déna festa-egunéco: edo eman cerbáit beartsuerí.

30. Arc bada artu-zuelaríc aména, atra-cé berealá. Eta cé gáua.

31. Atra-celáic bada, erran-zue Jesúsec: Orái ooratu-dá guizonarén Sémea: eta Jangoicoa ooratudá ártan.

32. Jangoicoa ooratu-barimbáda ártan, Jangoicoac ere bera ooratuco-dú bere-baitan: ta berealá ooratnco-dú.

33. Umétyoac, oráño guti-bát zuéqui nago. Billatuco-nauce: ta nola erran-nióten judioéi: Nora noáyen ni, zuéc ecin etórri: ta orái erraten-dicet.

34. Manamendu-bát bérria ematen-dicet: Onetsi-

zaiztéla elcár, ala nola onetsi-zaiztéten nic, onetsi-zaizten-gátic zuéc ere elcár.

35. Ontan czaunduco-dúte guciéc zarátcla nere discipulo, barimbadióce amóre elcarrí.

36. Erraten-dió Simon Pedroc: Jauna, nora doáye? Errespondatu-cio Jesusec: Nora noayen ni, zuc ez-nazaquézu orái seguí: baña seguituco-nauzu guero.

37. Erraten-dió Pedroc: Cer-gátic ez-dezóquet segui orái? ene anima orren-gatic utzico-dút.

38. Errespondatu-cio Jesusec: Ceure arima ene gátic emanen-dúzu? Siu siués erraten-dizút: Eztú cantatúco ollárrac, ucatu-árteo zuc ni irur áldis.

XIV. Cap.

EZTADIÉLA turbátu zuén biótza. Sinesten-dúcie Jangoicoa-baitan, sinetsi-zácie ni-baitan ére.

2. Ene Aitarén échean vicitégui ásco dá. Eci ezperén, erranen-nice: Ceren bainoáye prestátzera zuendáco lécu.

3. Eta naiz joán, ta prestátu lécua zuendáco: berriz eldu-náiz, eta artuco-zaiztet neure-gána, egon-zaizten-gátic zuéc ere, non nágon ni.

4. Eta nora noáyen badaquíce, eta videa badaquíce.

5. Erraten-dió Tomasec: Jauna, eztaquígu nora doáyen: eta nola dezaquégu jaquín videa?

6. Erraten-dió Jesusec: Ni naiz videa, ta eguia, ta vicitza. Nior eztoáye Aita-gána, ezpada ene medios.

7. Ezaundu-banindúce ni, ezaunduco-cindúte sinés Aita nérea ére: eta oraidaníc lastér ezaunduco-dúce, eta icusi-baitúze.

8. Erraten-dió Filipec: Jauna, eracutsi-bezágu Aita, eta ásqui dúgu.

9. Erraten-dió Jesúsec: Aimbérce dembóras nago zuéqui: eta ez-naucie ezaundu ni? Filipe, icusten-nanénac ni, icusten-dú ene Aita ére. Nola zuc diózu: Eracutsi-bezágu Aita?

10. Eztúcic sinésten ni Aita-baitan, ta ni-baitan dagóla Aita? Nic erraten-túdan itzac, eztitut erráten neure-gánic. Baña ene baitan dagónac Aitac, bérac eguiten-tú óbrac.

11. Eztúcie sinésten Aita-baitan nagóla ni, eta Aita ni-baitan?

12. Ezperén obra beren cásos sinetsi-zácie. Sinés, sinés erraten-dicet, eci sinesten-duénac ni-baitan, inentuéla arc ere óbrac nic iten-tudánac, ta ebéc baño yagócoac ere inen-tu: cerén eci bainoáye Aita-gána.

13. Eta edocéin gauza esca-dezócen Aitari ene icéncan, ori eguinen-dút: izan-dáyen oorátua Aita Semean.

14. Cerbáit escatzen-barimbadúcie ene icenean, ori eguinen-dút.

15. Maite-banaucie ni, guarda ene manamenduac.

16. Eta nic escatuco-diót Aitarí, eta emanen-dicie berce Paraclito, zuéqui egon-dáyen betícos,

17. Eguiaréu Espiritua, cein múnduac ez-dezáquen errecibitu, cerén ezpaitu icústen, eztaere ezauntzen. Baña zuéc ezaunduco-dúce: eci zuén ártean iraunendú, ta zuen-baitan egonen-dá.

18. Etzaiztet utzico emazúrtz: etorrico-náiz zuengána.

19. Oráño guti-bát: eta yá múnduac ez-náu icusten. Baña zuéc icusten-nance: ceren eci ni vici-náiz, eta zuéc vicico-zaráte.

20. Egun-gártan ezaunduco-dúcie cerén ni nagon ene Aitan, ta zuéc nitan, eta ni zuétan.

21. Norc erc baititu ene manamenduac, ta guardátzen: ori dá onesten-nauéna ni. Baña onesten-nauéna ni, onétsia izanen-dá ene Aita-gánic: ta nic onetsicodút bera, ta aguertuco-natzáyo.

22. Erraten-dió Judasec, ez Iscariotec: Jauna, cer eguin-dá, cerén aguertuco-dén berórí bai gurí, ta ez munduari?

23. Errespondatu-cio Jesusec, ta errán: Norc ere onesten-náuen ni, guardatuco-tú nic erránac, ta ene Aitac onetsico-dú bera, ta bera-gána etorrico-gára, ta bera-baitan egonen-gára egótes:

24. Ez-nauénac onésten ni, eztitu guardátzen nic erránac. Eta predicu aitu-ducéna, eztá nereá: baicic biali-ninduenaréna, Aitaréna.

25. Au erran-dút, nagon bitarteo zuéqui.

26. Baña Espiritu sandu Paraclitoac, cein Aitac bialico-duén nere icénean, arc eracutsico-dice gucía, ta inspiratuco-dice nic erran-dezáten gucía.

27. Báquea uzten-dicet, ene báquea emateu-dicet: ez nola múnduac ematen-duén, ematen-dicet nic zuéi. Eztáyela turba zuén biótza, ta ez lótsa.

28. Aitu-dúce nic erran-dicetéla: Banoáye, ta eldu-náiz zuen-gána. Maitc-banindúce ni, alegra-cindeizquéte, cerén bainoáye Aita-gána: eci Aita yágo dá eci ní.

29. Eta orái erran-dicet agui-dayen baño lén: alá guero aguituríc, sinetsi-dezácen.

30. Ya ez-náiz mintzatúco anitz zuéqui. Eci eldudá mundu-gontaco buruzaguia, ta enc-baitan eztú icustecoríc.

31. Baña ezaun-dézan mundnac maite-dudála Aita, eta nola Aitac eman-didan manamendua, alá eguitendutéla. Jaiqui-zaizte, goácen emendíc.

XV. Cap.

NI naiz ayén eguiáscoa: eta ene Aita dá necazária.

2. Zarmendu-gáyec guciác fruituríc eztacarra-

ténac, qnenduco-tú : eta fruitu dacarraténac, garbituco-tú, ecar-dezáten fruitu yágo.

3. Yá zuéc gárbi zauzte nic zuéi erranicáco itzengátic.

4. Manteni-zaizte ni-baitan : eta ni zuen-baitan. Ala nola zarmenduac ezpaitezáque ecárri fruitnric bere-gánic, ezpalitz mantenitzen ayeneán : alá zuéc ere ez, ezpazaráte mantenitzen ene-baitan.

5. Ni naiz ayéna, zuéc zarmenduac : mantenitzendéna ni-baitan, eta ni bera-baitan, onéc dacárra fruitu anitz : cerén eci ni-gábe dens ez-dezaqnéce eguín.

6. Nor ere eztén mantenitzen ni-baitan : botaco-dá camporá ala nola zarmendua, ta cartuco-dá, ta bilduco-dúte, ta botaco-dúte sura, ta erretzen-dá.

7. Mantenitzen-bazaráte ni-baitan, ta nere itzac mantenitzen-badíre zuen-baitan : nai-ducien gucia escatuco-dúcie, ta eguinen-zaice.

8. Óntan dá oorátua ene Aita, ecar-dezácen fruitu anitz, ta eguin-zaizten ene discipulo.

9. Ala nola maitatu-náuen ni Aitac, nic ere maitatu-zaiztet zuéc. Manteni-zaizte ene amórean.

10. Guardatzen-baitúce ene mandamentuac, mantenituco-zaráte ene amórean, ala nola nic ere guardatu-tudán ene Aitarén manamenduac, ta mantenitzenbainái berarén amórean.

11. Gauza-guébec mintzatu-ticet : izan-dáyen conténtu zuétan, ta cumpli-dáyen zuén conténtua.

12. Au dá nere manamendua, onetsi-zaiztela elcár, ala nola nic onetsi-zaiztéten zuéc.

13. Nióre eztú amóre andiagoric au baño, baita emátea batec bere vicia bere adisquideen-gatic.

14. Zuéc ene adisquideac zaráte, eguiten baitúcie nic manatzen-ticicténac.

15. Yá etzaiztet deitúco zuéc siérvoac: eci cervitzúcoac eztáqui cer iten-duén bere nausiac. Baña zuéc deitu-zaiztet adisquideac: cerén Aita-gánic adi-tudan gauza guciac, adiaraci-ticet zuéi.

16. Ez-naucic zuéc autátu ni: baicic nic autatu-zaiztet zuéc, ta paratu-zaiztet joatecó, ta frnitu ematecó: ta zuén fruituac iraun-dézan: edocein gauza esca-dezócen Aitari ene-icenean, eman-dezácien zuéi.

17. Au manatzen-dicet, onetsi-zaiztela elcár.

18. Baldín múnduac gaitzetsitzen-bazaizte zuéc, jaquin-záce gaitzetsi-naucla ni zuéc baño lén.

19. Munduarénac izan-bacináte, múnduac bere eéna onetsico-zué: baña cerén ezpaizaráte munduarén aldécoac, baicic mundutic autatu-zaizten nic, orrengátic gaitzetsitzen-zaizte múnduac.

20. Oroi-zaizte nere itzas, nic zuéi erránas: Eztá yágo siérvoa nansia baño. Perseguitu-banaute ni, persegnituco-zaizte zuéc ere: ene errána guardatu-badúte, zuéna ere guardatuco-dńte.

21. Baña ebéc gucióc inen-ticie zuéi ene icenagátic: cerén ezpaitute ezauntzen biali-ninduéna ni.

22. Ezpanitza etórri, ta ezpanióte mintzátu, ez luquéte becaturíc : baña orái eztute achequiaric berén becatuarén.

23. Gaitzetsitzen-nauénac ni, gaitzetsitzen-dú ene Aita ere.

24. Ezpanítu eguín áyen értean obrac berce nióre ere in-eztituéuac, ez-luquéte becaturíc : baña orái icúsi, ta gaitzetsi-naute ni, eta nere Aita ére.

25. Baña cumpli-dáyeu itza, béren léguean escribituric dagóna : Eci gaitzetsi-uautéla ni causaric-gábe.

26. Baña datorreláic Paraclito, bialico-duténa nic Aita-gánic, eguiarén espiritua, proceditzen-déna Aitaganic, arc emanen-dú testimónio nitas :

27. Eta zuéc emanen-dúce testimonio, ceren principiotic baizauzte neréqui.

XVI. Cap.

GAUZA-GUÉBEC erran-ticiet, etzaizten gaitzvidetu.

2. Utzico-zaizte batzarretáic cámpoan : baña eldúda órdua, eci iltzen-zaizténac zuéc, uste-duén bere gógoan, cervitzu iten-dióla Jangoicoai.

3. Eta ebéc inen-ticié, ezpaitúte czauntzen Aita, ta ez ni.

4. Baña ebéc errau-ticet zuéi : ellegatzen-deláic órdua, oroi-zaizten-gátic, nola nic erran-nicen.

5. Baña ez-nicie errán lenetic, cerén bainindégo zuéqui. Eta orái noáye biali-nauena-gána; eta zuetáic niórc eztida galdeguiten: Nora doáye?

6. Baña cerén au erran-dicéten nic zuéi, tristuras bete-dá zuén biotza.

7. Baña nic éguia erraten-dicét: conveni-zaice noáyen ni: ceren eci ezpanindoéye, Paraclitoa eztá etorrico zuen-gána: baña joaten-banítz, bialico-dicét.

8. Eta arréc datorrcláic, acusatuco-dú mundua becatuas, justicias, eta juicioas.

9. Becátuas, cerén eztúten sinétsi ni-baitan:

10. Bada justicias, cerén bainoáye Aita-gána, eta yá ez-naucen icusíco:

11. Baña juicioas, cerén mundu-gónen buruzáguia yá juzgátua baita.

12. Asco yágo erráteco zuéi badút oráño: baña ez-dezaquéce jasi orái.

13. Baña datorrcláic eguiarén Espiritu-gúra, arc eracutsico-dice éguia gucía. Eci eztú erráuen beregánic: baicic aditzen-duén guciá erranen-dú, eta avisatuco-zaizte aguituco-dirénes guero.

14. Arc ooratuco-náu ni: cerén neretic artuco-dú, eta eracutsico-dice zuéi.

15. Aitac duén guci gucía, nérea dá. Orgátic errandút: eci neretíc ártu, ta eracutsico-dicéla.

16. Guti-bát, eta yá ez naucic icusíco: eta berriz guti-bát, eta icusico-naucie: cerén noáye Aita-gána.

17. Erran-zúte bada bere discipuloetáic elcarrí: Cer dá au erraten-digúna: Guti-bát, ta ez-naucie icusico: ta berriz guti-bát, ta icusico-naucie, ta cerén bainoáye Aita-gána?

18. Cióte bada: Cer dá dion-gáu: Guti-bát? eztaquígu cer erraten-dígun.

19. Ezaundu-zué bada Jesúsec, nai-ciótela galdeguín, ta erran-cióte: Onen gáin darducáce elcárren árteau cerén erran-dúten: Guti-bát, ta ez-uaucie icusíco: ta berriz guti-bát, ta icusico-naucie.

20. Eguiáz bai eguiáz erraten-dicet: inen-ducela zuéc negár, ta dolamén, baña múndua gozatuco-dá: zuéc órdea tristatuco-zaráte, baña zuén tristúra itzulico-dá gozotán.

21. Emastéquiac erditzerácoan dú tristúra, cerén ellegatu-báita bere órdua: baña arguirá emanas guéros aurra, yá eztá oroitzen erstúras gozoarén utses, cerén jayo-dén guizóna mundúra.

22. Eta bada zuéc ere orái dncie tristúra, baña berriz icusico-zaiztet, ta gozatuco-dá zuén biótza: eta zuén conténtua nióre ezticie quendńco.

23. Eta egun-gártan eztidáce niri escatńco deus. Sin sinés erraten-dicét: baldín cerbáit escatzen-badióce Aitarí ene iceneán, emanen-diciéla zuéi.

24. Orái árteo eztúcie escátu deus ene icénean: esca-zácie, ta artucoúcie, zuén conténtua izan-dáyen bétea.

25. Ebéc erran-ticiet esanguietán. Eldú-da órdua noiz yá ezticiéten erránen esanguictán, baicic aguérri claro eracutsico-diciet Aitas.

26. Egun-gártan escatuco-dúcie ene icénean : ta eztiót nic escatuco-diotéla Aitarí zuen partes :

27. Eci Aitac berac maite-zaizte zuéc, cerén zuéc maite-naucien ni, ta sinetsi-baitúcie ni Jangoicoa-gánic etorri-naicéla.

28. Aita-gánic átra, ta etorri-nitza mundúra : berriz uzten-dút mundua, ta noáye Aita-gána.

29. Erraten-dióte bere discipuloéc : Orrá orái claro mintzatzen-dá, ta eztió esanguiríc bátere.

30. Orái daquígu badaquiéla orréc gucía, ta eztuéla beár galdeguin-dézon nióre : ontan sinesten-dúgu Jangoicoa-gánic atra-déla.

31. Errespondatu-cióte Jesusec : Orái sinesten-dúcie ?

32. Orrá eldu-dá órdua, eta yá etorri-dá, barratuco-baizaráte bacócha bere álde, ta utzíco ni bacarríc : eta ez-nágo bacarríc, cerén Aita neréqui dago.

33. Au erran-dicét, izan-dezácien báquea ene-baitan. Múnduan erchidúra izanen-dúcie : baña confiazacie, nic garaitu-dút múndua.

XVII. Cap.

EBÉC erran-citue Jesusec : eta goraturic béguiac cerurát, errán-zue : Aita, ellegatu-dá órdua, oora-béz bere semea, oora-dézan bere sémeac berorí :

2. Ala nola emán-cion berarí potestáde guizaguende guciarén gain, eman-dezóten berac vicitza betirócoa, orréc berái emanicáco guciarí.

3. Baña au dá vicitza betirócoa : Ezaun-dezáten berórí, sollic Jangoico eguiáscoa, eta orréc biali-duéna Jesucristo.

4. Nic ooratu-dút berórí lur-gáñean : bucatu-dút obra, eman-cidána eguitecó :

5. Eta orái oora-benáza ni orréc, Aita, bere-baitan, oóre nucnaréqui berorren-baitan, mńndua izan báño lén.

6. Adiaraci-dút orrén icéna orréc mundutic emantidan guizonéi. Orrénac cire, ta niri eman-citida : ta guardatu-túzte orren erránac.

7. Orái ezanudu-dúte eman-citidan gauza guciac, orren-gánic diréla :

8. Eci niri eman-citidan itzac, eman-tiótet nic ebéi : eta berec artu-túzte, ta ezaundu-dúte eguiáz orren-ganic atra-nitzála, ta sinetsi-dútc orréc bialininduéla.

9. Nic eben-gátic otoitz eguiten-dút : eztút mun-

dua-gátic otoitz eguíten, baicic eman-tidan-guebengátic: cerén berorrénac baitíre:

10. Eta nere gauza gucíac orrénac dire, ta orrénac dire nereác: ta oorátua naiz ayetán.

11. Eta yá ez-nágo múnduan, ta ebéc munduan daude, eta ni orren-gána noáye. Aita sandua, guardabézqui orrén icénean, níri eman-tidánoc: izan-daitzen gauza-bát, ala nola gú ere.

12. Ebéqui nindegoláic, nic gnardatzen-nitue orren icénean. Eman-tidánac, guardatu-tút: eta ebetáic niór eztá gáldu, ezpáda galmendearén úmea, cnmplitzecó Escritura.

13. Baña orái noáye orren-gána: eta ebéc crratentút munduán, izan-dezáten nere contentua beteríc beren-baitan.

14. Nic eman-diótet nere itza, eta múnduac gaitzetsitzen-tú, cerén ezpaitirc mnnduarén aldecoác, nola ni ere ezpainái z mundncoá.

15. Eztiót escátzen quen-dezquiéla mundutíc, baicic guarda-dezqniéla gaitzetíc.

16. Munducoac eztire, nola ni ere ez-náiz mundúcoa.

17. Santifica-bézqui eguiáz. Orrén itza éguia dá.

18. Ala nola orréc ni biali-nindnén mundurá, nic ere ebéc biali-tút mundurá.

19. Eta eben-gátic ni santificatzen-náiz: izan-daitzen ebéc ere santificátuac eguiáz.

20. Baña eztút sollic eben-gátic escátzen, baitaere ayen-gátic, ceñéc ebén itzarén medios sinetsico-dúten ene-baitan:

21. Izan-daitzen guciác bát, ala nola ori, Aita, ni-baitan, ta ni orren-baitan, bérac ére gure-baitan izan-daitzen bát: sinetsi-dézan múnduac, eci orréc biali-ninduéla ni.

22. Eta nic claridade, orréc eman-cidána, eman-diótet ebéi: izan-daitzen gucióc bát, ala nola gu ere baicára bát.

23. Ni ebetán, eta ori ni-baitan: izan-daitzen perfécto batcán: eta ezaun-dézan munduac orréc biali-nauéla ni, eta maite-tuéla ebéc, nola maite-náuen ni ére.

24. Aita, orréc emau-tidánac, nai-dut nón nagon ni, dauden ebéc ere enéqui: icus-dezáten glória eman-cidána: cerén onetsi-bainău egnin-baño-lén múndua.

25. Aita jństoa, múnduac eztú ori ezaundu: bañà nic ezaundu-dút: eta ebéc ezaundu-dúte, eci orréc biali-ninduéla ni.

26. Eta ezaunaraci-diótet cbéi orrén icena, ta ezaunaracico-diótet: alá amórea, ceñéqui amatu-náuen ni, dágon ebetán, eta ni beretán.

XVIII. Cap.

EBÉC erran-ondoán, atrá-ce Jesus bere discipuloéqui Cedron errecarén berce aldéra, non baice baratze-bát, ceintan sartú-cen béra, ta bére discipuloac.

2. Judasec ere, traiciatzen-zuénac, bacéquie lécua: cerén maiz egón-cen án Jesus bere discipuloéqui.

3. Judasec bada arturíc soldado tropa-bát, eta ministroac pontificeén ta fariseoen-gánic, joán-ce arará linternaéqui, zuci, ta armaéqui.

4. Jesus bada chsaquinic aguituco-céu gucía beraréqui, alcinatu-cé, ta errán: Nor billatzen-dúcie?

5. Errespondatu-cióte: Jesus Nazaretdárra. Erraten-dióte Jesusec: Ni naiz. Eta cego Judas ere, entregatzen-zuéna bera, ayéqui.

6. Bada erran-ciotenéco: Ni naiz: atzerá joán, ta erori-cire lurreán.

7. Berriz bada galdeguin-cióte: Nor billatzen-dncie? Ta ayéc erran-zúte: Jesus Nazaretdarra.

8. Errespondatu-zué Jesusec: Erran-dicét, ni naicéla: bada ni billatzen-banaucic, utz-quicic ebéc doacéla.

9. Cumpli-céyen itz erran-zuéna: Eci eman-tidanetáic, eztút gáldu bacóchic ére.

10. Bada Simon Pedroc ceucalaríc ezpata-bát, atra-

zue ura: ta eritu-zué pontificearén siervo-bát: ta ebaqui-ció escuyéco beárria. Eta siervoac zué icéna Malco.

11. Errán-cio bada Jesusec Pedrorí: Álcha ceure ezpata-góí bere máguian. Trágoa, enc Aitac emandidána, cztút edan-beár?

12. Tropac bada, ta buruzáguiac, ta judioen ministroec arrapatu-zúte Jesus préso, ta lotu-zúte:

13. Eta eraman-zúte lenic Anasen-gána: baice sui Caifasén, cein baice pontifice urte-gártan.

14. Eta cé Caifas, eman-cioténa consellu judioéi: Eci déla convéni guizon-bát iltzea gendea-gátic.

15. Baña seguitzen-zué Jesus Simon Pedroc, ta berce discipulo-bátec. Eta discipulo-gura cé ezauna pontificearén, ta sartu-cé Jesuséqui pontificearén echebárnean.

16. Baña Pedro cego atárian cámpoan. Atrá-ce bada berce discipulo-gura, pontificearen ezauna cena, ta errán-cio atalzayarí, ta sarraraci-zue Pedro.

17. Erraten-dió bada Pedrori nescáto atalzáyac: Zú erc zara guizon-górren discipuloctáic? Erraten-dió arc: Ez-náiz.

18. Ceude bada cervitzúcoac ta ministroac suondoán, eci ótz cegó, ta berotzen-ceude: baitaré cego ayéqui Pedro chutiric, ta berótzen.

19. Pontificeac bada galdeguin-cio Jesusí bere discipuloén, ta bere doctrinarén gain.

20. Errespondatu-ció Jesusec: Ni aguerrián cláro

mintzatu-dút munduarí: nic beti eracutsi-dút sinagógan, ta témploan, nora biltzen-diren judio gnciac: eta estálian deus ez-náiz mintzátu.

21. Cer-gátic galdeguiten-dida niri? galde-bezóte aditu-nautenéi, yá cer mintzatu-diotéten: orrá ayéc badaquite cer erran-dúten nic.

22. Au erran-zueláic, emán-cio Jesnsi ministroetáic batec presénte cegónac zaflada-bát, cióla: Alá errespondatzen-dióc pontificcarí?

23. Errespondatu-ció Jesusec: Gaizqui mintzatn-banáiz, errázu cértan: baña óngui mintzatu-banáiz, cer-gátic golpatzen-nauzu?

24. Eta biali-zué Anasec bera loturic Caifas pontificea-gana.

25. Cego bada Simon Pedro chutiríc berótzen. Bada erran-cióte: Aguián zú ere arren discipuloetáic zara? Ucatu-zué árc, ta errán: Ez-náiz.

26. Erraten-dió pontificearén siervoetáic bátcc, aide cenac arrén, ceñen beárria ebaqui-zuen Pedroc: Etzindúzada nic icúsi zú beraréqui barátzean?

27. Berriz bada neatu-zué Pedroc: eta berealá cantatu-zué ollárrac.

28. Daramáte bada Jesus Caifasen echetic presidentearén jaureguirá. Eta goiza cé: eta berac etzíre sártu justiciaco salan, etzeicen-gátic ciquindu, baicic celebrátzeco bázcoa.

29. Atrá-cc bada Pilatos ayen-gána camporá, ta

erran-zue : Cer acusácio dacarráce guizon-gónen contra ?

30 Errespondatu-cióte, ta errán : Ezpálitz au gaizquieguillea, ez-guindio ecarríco berorrí.

31. Erran-cióte bada Pilatoséc : Ar-zácie zuéc, ta juzga-zácie ceurén leguearén araura. Erran-cióte judioéc : Guri eztagoquígn vicia edequitzea niórí.

32. Cumpli-ceyen Jesusen itz erran-znéna, adiarácis nolaco eriótzeas il-bear-cén.

33. Sartú-ce bada berriz salan Pilatos, ta deitu-zué Jesus, ta erran-cio : Zú zára judioén errégne ?

34. Errespondatu-ció Jesuscc : Bere burutic dió orí, edo berceéc erran-dióte nitas ?

35. Errespondatu-zué Pilatoséc : Aguián ni judatárra náiz ? Zure géndcac, ta pontificeéc entregatuzaitútc nere escuetán : Cer eguin-dúzu ?

36. Errespondatu-zué Jesusec : Ene erreguetasúna eztá mundu-gontácoa : mundu-gontácoa balitz ene erreguetasuna, ene cervitzucoéc indár inen-zúte ez uztecó judioen escuetán : baña orái ene erreguetasúna eztá emendic.

37. Erran-cio bada Pilatosec : Berás errégue zára zń ? Errespondatu-zue Jesusec : Orréc dió errcgue naicela ní. Ni ontacó jayo-náiz, ta ontará etorri-náiz mundurá, ematecó testimonio eguiarén : eguiarén aldétic dénac, aditzen-dú ene voza.

38. Erraten-dió Pilatosec : Cer dá eguia ? Eta au

errán ta atrá-ce berriz judioen-gána, ta erraten-dióte: Nic eztút aurquitzen causaric bátere ártan.

39. Baña usánza dúcie, ntz-dezacéten bát libre bázcoan: naucie bada utz-dezacéten libre judioén erréguea?

40. Oyu eguin-zúte bada berriz gucióc, ciótela: Ez au, baicic Barabas. Eta cé Barabas ladron-bát.

XIX. Cap.

ORDUÁN bada artu-zué Pilatoséc Jesus, eta azotatu-zué.

2. Eta soldadoéc forjátus coroa-bát arantzeés, paratu-cióte berarén búruan: eta inguratu-zúte purpurasco soñeco-bátes.

3. Eta zoéci bera-gána ellegátus, ta erraten-cióte: Agúr, judioen erregue: ta ematen-citióte zafladac.

4. Atrá-ce bada berriz Pilatos camporá, ta erraten-dióte: Oná dacarrácict au zuéi aguerrirá, jaquin-dezácien eztutéla nic ontan causaric bátere aurquitzen.

5. (Atrá-ce bada Jesus ceramála córoa arantzéscoa, ta purpurásco soñécoa.) Eta erraten-dióte ayéi: Oná guizóna.

6. Icusi-zuteláic bada pontificeéc, ta ministroéc, clamatzen-zúte, ciótela: Gurucifica-béz, gurucifica-béz. Erran-dióte Pilatoséc: Ar-zácie zuéc, ta gurucifica-zácie:

eci nic eztút bátere cansaric aurquitzen onen-baitan.

7. Errespondatu-cióte judioéc : Guc dugn légue, ta leguearén araura bear-du il, cerén bere burua inbaitu Jangoicoaren Seme.

8. Aituríc Pilatosec itz-gáu, yago icitu-cé.

9. Eta sartú-ce salan berriz : ta erran-cio Jesusi : Nóngoa zara zu ? Baña Jesusec etzió eman errespuestaríc.

10. Erraten-dió bada Pilatosec : Niri eztidázu mintzátzen ? eztaquízu eci dutéla nic escu zure gurucificatzecó, ta dutéla escu zure libratzecó ?

11. Errespondatu-ció Jesusec : Ez-lúque izánen escuric bátere ene cóntra, ezpaléquio emán án goratíc. Orgátic orrí entregatu-nauénac, becátu andiágo dú.

12. Andic alcína cebila Pilatos libratu-náyes bera. Baña judioéc clamatzen-zúte ciótcla : Au libratzenbarimbádu, eztá Cesaren adisquide. Eci bere búrua errégue iten-duénac, Cesaren contra iten-dú.

13. Pilatosec aituric erran-guébec, atrá-zue camporá Jesus : eta jarri-ce juez-aintzu, Litostroto deitzenden lecuan, eta ebreoen izcúntzas Gabbatha.

14. Eta cé bazcoarén Parasceve, ordua yá seigarréna, ta erraten-dióte judioéi : Oná zuéu erréguea.

15. Baña ayéc clamatzen-zúte : Quén, quen-béz, gurucifica-béz. Erraten-dióte Pilatosec : Zuén erregue gurucificatuco-dút? Errespondatu-zute pontificeéc : Eztúgu erregueríc, baicic Cesar.

16. Orduán bada entregatu-cióte gurucificatzecó. Eta artu-zúte Jesus, eta atra-zúte.

17. Eta ceramaláic soñean gurútzea, atrá-ce lecugartárat, cein deitzen-baita Calvariocoa, ta ebreoén izcúntzas Golgotha:

18. Eta án gurucificatu-zúte bera, ta beraréqui berce bida andic eta emendic, baña erdián Jesus.

19. Escribitu ere zué Pilatosec letrero gañécoa: ta paratu-zué gurutzearén gañean. Eta cego escribituríc: Jesus Nazaretdarra, judioén Erregue.

20. Letrero-gáu bada ásco judioéc leitu-zúte: ceren errirá urbil cégou lécua, non gurucificatu-zuten Jesus. Ta cego escribituric ebreos, griegos, eta latines.

21. Erraten-cióte bada Pilatosí judioén pontificeéc: Ez-dezála nai escribitu, judioén Errégue: baicic berac erran-zuéla: Naiz judioén Errégue.

22. Errespondatu-zué Pilatosec: Escribitu-duténa, escribitu-dút.

23. Soldadoéc bada gurucificatu-zuteláic, artu-zúzte berarén trésenac (ta eguin-zúzte laur zati: soldado bacocharí bere zatia), eta tunica. Eta cé tunica costura-gabea, eorturíc goititíc gucía.

24. Erran-cire bada elcarrí: Etzágula zatitu au, baicic sortéz átra noréndaco dén. Cumpli-céyen Escritura, dióna: Partitu-túzte nere trésenac: ta ene soñécoa sórtean atra-dúte. Soldadoec bada eguin-zúzte gauza-guébec.

25. Baña ceude chutiric Jesúsen gurutzearén óndoan berarén ama, ta bere amaren aizpa Maria Cleofarena, ta Maria Magdalena.

26. Icusiric bada Jesusec ama, ta discipulo maitezuéna chutiríc, erraten-dió bere amarí: Emastequia, orrá zure semea.

27. Guero erraten-dió discipuloarí: Orrá zure ama. Eta ordu-gartáic artu-zué discipuloac bera beretáco.

28. Guero cequieláic Jesusec guciá cela bucátua, cumpli-céyen Escritura, errán-zue: Egárri dút.

29. Cego bada paraturic onci-bát ozpiñes beteric. Ayéc bada isopo-bát inguraturic arróquias ozpiñes béteas, paratu-cióte agoan berarí.

30. Artu-zueláic bada Jesusec ozpiña, erran-zuc: Bucátua dá. Eta búrua inclinaturíc entregatu-zué espiritua.

31. Judioéc bada (cerén baice Parasceve), etzeicengátic gorpútzac guelditu gurútzean larumbátean (eci larumbateco egun-gúra andia cé), escatu-ciote Pilatosí licencia auchstecó ayen zángoac, ta quentzecó.

32. Etorri-circ bada soldadoac: eta auchi-zúzte lcmbicicoaren zángoac, ta arréqui gurucificatu-cén bercearénac.

33. Baña ellegaturic Jesusen-gána, nola icusi-baizúte yá ilic, etzitióte auchi bere zángoac,

34. Baicic soldadoetáic bátec idiqui-ció lanza-bátes berarén sayetsa, eta berealá atrá-ce odóla, ta úra.

35. Eta icusi-duénac, emán-du testimonio: eta eguiáscoa dá berarén testimónioa. Eta arc dáqui dióla éguia: zuéc érc sinetsi-dezacen-gátic.

36. Aguitu-círe ebéc cumpli-céyen Escritúra: Eztúcie berarén ezurríc auchicó.

37. Eta berriz bérce Escritura-bátec dió: Icusicodúte nor traspasatu-dúten.

38. Ebén ondoreán escatu-ció Pilatosi Josef Arimateacoác (baice Jesúsen discipulo, baña alchaturic judioén beldúrres), licéncia artzecó Jesusen gorpútza. Aguindu-ció Pilatoséc. Etorri-ce báda, ta artu-zué Jesusen gorpútza.

39. Etorri-ce Nicodemo ere, cein jóan-cen gáuas leníc Jesusen-gána, ceramála mirra, ta aloen unguéndu, eún libra becála.

40. Artu-zúte bada Jesúsen gorpútza, ta iuguratuzúte misésco maindrees aromaéqni, nola duten jndioéc usanza ortzitzea.

41. Baña cé gurucificatu-zúteu lécuan, baratzebát: eta barátzean mouumentu-bát bérria, non etzén ortzi nióre erc oráño.

42. An bada judioén festa-gátic, cerén baicégo aldácan monumentua, paratu-zúte Jesus.

XX. Cap.

BAÑA astearén lembicico eguneán, Maria Magdalena joán-ce goicíc, arguitu-gabe oráño, monumenturá : ta icusi-zué arlauza quenduríc monumentutíc.

2. Lastér eguin-zue bada, ta joán-ce Simon Pedrogána, ta berce discipuloa-gána, cein maite-zuén Jesúsec, ta erraten-dióte : Eraman-dúte Jauna monumentutíc, ta eztaquigu nón paratu-dúten.

3. Atrá-ce bada Pedro, ta berce discipulo-gúra, eta joan-cire monumenturá.

4. Lasterca zoéci biac báteo, ta berce discipulogúra lasterrágo joán-ce Pedro baño, ta ellegatu-cé lenic monumenturá.

5. Eta inclinatu-celaríc, icusi-citue misésco maindreac án utziríc, baña etzé sártu.

6. Ellegatu-cé bada Simon Pedro atzetíc eldu-céna, ta sartu-cé monumentuan, ta icusi-citue oyálac án utziríc,

7. Eta buruarén gáñean egón-cen pañoloa, ez maindreéqui paraturíc, baicic apárte involucaturíc lecu-bátean.

8. Orduán bada sartu-cé discipulo-gura érc, lenic etorri-céna monumenturá : eta icusi-zué, ta sinetsi-zué :

9. Eci oráño etzequíte Escritura, eci bear-céla erresucitátu ilen ertetíc.

10. Joan-cire bada berriz discipuloac bere lagunengana.

11. Baña Maria cego chutiric monumentuaren alcinean, negárres. Negárren bitártean inclinatu-cé, ta beiratu-zué monumenturá:

12. Eta icusi-citue bi ainguiru churis vestituríc, ceudéla jarriric, bat buru aldean, bercea oñetaco aldean, non egon-cen paraturic Jesusen gorpútza.

13. Erraten-dióte berarí: Emastéquia, cer-gatic zaude negárres? Erraten-dióte ayei: Cergatic eraman baitúte ene Jauna: ta eztáquit non paratu-duten.

14. Au errán ta itzuli-ce atzerát, ta icusi-zue Jesus cególa chutiric: eta etzéquie Jesus déla.

15. Erraten-dió Jesusec: Emastéquia, cer-gatic zaude negárres? nor billatzen-dúzu? Arc ustés cén baratzezáya, erraten-dió: Jauna, orréc quendu-barimbadú, erran-bezáda nou paratu-duéu: eta nic eramacodút.

16. Erraten-dió Jesusec: Maria. Itzuliric arc, erraten-dió: Rabboni (nai-baitu errán Maestru Jauna).

17. Errán-cio Jesusec: Ez-nazázula nái uquitu, eci oráño ez-náiz igán ene Aita-gána: baña zoáz ene anayen-gána, ta erran-zozúte: Bauoáye igánes ene Aitagána, ta zuen Aita-gána, ene Jangoico, ta zuén Jangoicoa-gána.

18. Etorri-ce Maria Magdalena berri emánes: Icusi-dutéla nic Jauna, eta au erran-dída.

19. Bada berándu celaríc egun-gártan, astearen lembicicoan, eta atáriac ceudeláic erchiríc, non ere discipuloac baiceude bilduríc judioén beldúrres: etorri-ce Jesus, ta paratu-cé erdian, ta erran-cióte: Báquca zuéi.

20. Eta au erran ta mostratu-citióte éscuac, eta sayetsa. Boztu-cire discipuloac, icusiric Jauna.

21. Erran-cióte bada berriz ayéi: Báquca zuéi. Ala nola biali-ninduen ni Aitac, nic ere bialtzeu-zaiztet zuéc.

22. Au errán ta ats eman-cióte: ta errán: Errecibi-zácie Espiritu sandua:

23. Noren becátuac barcatzen-tucién, barcatzen-zaizquióte: ta norénac guelditzen-tucién, gueldituac dirc.

24. Baña Tomas amabietáic bat, deitzeu-dena Didimo, etzégo ayéqui etorri-celáic Jesus.

25. Erran-ciotc bada arrí berce discipuloéc: Icusidugu Jauna. Baña arc erran-cióte: Baldin ezpadut icusten berarén escuetán itzeén cúntzca, eta paratzen enc eriáu itzeén lecuan, ta paratzen nere escuáu bere sayetsean, eztút sinetsíco.

26. Eta zortzi egúnen burnán, berriz ceude discipuloac eche-barnean: eta ayequi báteo Tomas. Etorricé Jesus, atariac ceudelaic erchiric, ta paratu-cé erdian, ta errán: Baqnea zuei.

27. Guero erraten-dió Tomasi: Sar-zazu ceure eriorí emén, eta beira nere escuóc, ta eda ceure escuói, ta para-zázu ene sayétsean: ta etzaitela izán sinestagáitz, baicic sinestacór.

28. Errespondatu-zué Tomasec, ta errán: Ene Jauna, ta ene Jangoicoa.

29. Erran-cio Jesusec: Cerén icusi-nauzun, Tomas, sinetsi-dúzu: Zorionecoac icusi-gabe sinetsi-duténac.

30. Eguin-zue Jesusec bere discipuloen alcinean berce ásco señale, eztaudenac escribituric libru-góntan.

31. Baña ebéc escribitu-dire sinetsi-dezacien-gátic, eci Jesus déla Cristo Jangoicoaren Semea: eta sinétsis, logra-dezácen vicitza beraren iceneán.

XXI. Cap.

GUÉRO aguertu-cé berriz Jesus discipulocrí Tiberiasco itsásoan. Ta aguertu-cé alá:

2. Ceude bátean Simon Pedro, ta Tomas, deitzendéna Didimo, ta Natanaél, Galileaco Canaco cena, ta Zebedeorén semeac, eta berarén discipuloetáic berce bida.

3. Erraten-dióte Simon Pedroc: Banoáye arrantzatzerá. Erraten-dióte ayéc: Bagoáci gu ere zuréqui. Eta atra-cire, ta onciratu-cire: eta gauártan deus ere etzúte arrapátu.

4. Baña goiza ellegaturíc, baratu-cé Jesus bastérrean : baña etzúte ezaundu discipuloéc Jesus céla.

5. Erran-cióte bada Jesúsec : Mutilac, aguián badúcie janariríc ? Errespondatu-zúte, ecétz.

6. Erraten-dióte ayéi : Bota-zquice sarea onciarén escuyéco aldéra : ta aurquituco-dúce. Bota-zúte bada : eta yá etzezaquéte tirátu arraiquéta andiarén cásos.

7. Bada Jesúsec maite-zuéu discipulo-gárc errán-cio Pedrorí : Jauua dá. Simon Pedroc aitu-zuelaríc Jauna céla, estali-cé túnicas (baicego biluchsiric) eta saltatu-cé itsasorá.

8. Baña berce discipnloac etorri-cire itsasóncian (eci etzeudc urrúti lurretic, baicic berréun ucondo becála) ceramátela arráyen sárca.

9. Bada atra-cireláic lurrerá, icusi-zúzte paraturíc brásac, ta gáñean arrai-bát, eta ogui.

10. Erraten-dióte Jesusec : Ecárcie orái arrapatutucien arrayetáic.

11. Igán-ce Simon Pedro, ta atra-zuc lurrerá sarea, beteric arrái andies eún ta berroguéi ta amairures. Eta aimbérce circláic, etzé urrátu sárea.

12. Erraten-dióte Jesusec : Atózte, bazcal-zace. Eta nióv ccudenetáic jarriríc etzé treve galdeguiterá : Ori nor dá ? baicequite céla Jauna.

13. Eta etorri-ce Jesus, ta artzen-dú óguia, eta emáten-dióte, eta guisa bérean arráya.

14. Au cé yá irugárren aldia aguertu-cequiótena

Jesus bere discipuloerí viztu-cenas-guéros ilen ertetíc.

15. Bazcaldu-óndoan erraten-dió Simon Pedrori Jesusec: Simon Juancn semea, maitatzen-nauzu ni ebéc baño yágo? Erraten-dió: Bai, Jauna, orréc daqui maite-dutéla. Erraten-dió: Bazca-zquizu ene achsúriac.

16. Erraten-dió berriz: Simon Juanena, amatzennauzu ni? Erraten-dió: Bai, Jauna, orréc badáqui maite-dudála. Erraten-dió Jaunac: Bazca-zquizu ene achsuriac.

17. Irugárren aldian erraten-dió: Simon Juanéna, maite-nauzu ni? Tristatn-cé Pedro, cerén erran-cion irugarren aldian: Maite-nauzn ni? eta erran-cio: Jauna, orréc guciá dáqui. Orréc badaqui maite-dudála orí. Erran-cio: Bazca-zquizu ene ardiac.

18. Eguiaz bai eguiáz erraten-dizút: gazteago cinaláic, ceurói guerricatzen-cina, ta cindebiltza nora nai-cinduen: baña zartzen-zareláic, edatuco-tuzu ceure escuac, ta berce-bátec guerricatuco-zaitu, ta eramacozaitu nora nai-eztúzun.

19. Baña au erran-cio adiarácis nolaco eriotzearéqui ooratu-beár-zuen Jangoicoa. Eta au erran-ondoán, erraten-dió: Segui-nazázu ni.

20. Itzuliric Pedroc icusi-zué berce discipulo, Jesusec maite-zuen-gura, seguitzen-cióla, ceiu ere erreclinatu-baice afárian berarén bular-gañean, ta erran-

baicio: Jauna, nor dá entregatuco-dućna berorí?

21. Au bada icusi-zuelaric Pedroc, erraten-dió Jesusí: Jauna, ontas cer izanen-da?

22. Erraten-dió Jesusec: Alá nai-dut au gueldidáyen natórren árteo, zuri cer zaizu? zuc segui-nazázu ni.

23. Atrá-ce bada izqueta-gáu anayen értean, eci discipulo-gúra cztéla iltzen. Eta etzió errán Jesusec: Eztá iltzen; baicic: Ala nai-dút gueldi-dáyen natórren árteo, zuri cer zaizu?

24. Au da discipulo-gúra, ematen-duéna testimónio gauza ebétas, ta escribitu-tuéna ebéc: eta daquigu éguia déla bere testimonioa.

25. Badire alaber ásco berce gauza, Jesusec eguincituénac: cein escribi-baleitez banacá, uste-dút múuduac berac ecin lezázquela idúqui escribitu-bear-liráz-quen libruac.

JESUS. COPLA GUISA BATZUC MOLDE GUTITACOAC

Joaquin Lizarraga
Elkanoko nafarreraz
Londres
1868

Originala: «Azkue Biblioteka» - Euskaltzaindia

JESUS.

COPLA GUISA BATZUC
MOLDE GUTITACOAC,

CELEBRATU'S JESUS JAUNAREN AMORE¢C
TA FAVOREAC.

DON JOAQUIN LIZARRAGAC

COMPONDUAC,

TA LUIS LUCIANO BONAPARTE
PRINCIPEAC

AROUITANA 'EMANAC.

LONDRESEN. 1868.

We certify that only 250 copies of this work have been printed, of which one is with violet-coloured ink.

STRANGEWAYS & WALDEN,
(late G. BARCLAY,)
28 Castle Street, Leicester Square.

COPLAC.

1.

Jesus, orren amoréa
Niorc ecin asqui estíma:
Mostratu-nayes béréa
Emen dago nere aríma.

2.

Nola nola estima nic
Jesusen caridadéa,
Beiratus deseguiníc
Ni-gatic majestadéa!

3.

Jesus, ori enegatíc
Ain andia ta ain chipí!
Badacusat cergatíc,
Amorostea-gatic ni.

4.

Jesus nai-dut il-artáño,
Barimbadut biotzíc,
Yago ori guciac báño,
Ori nai-dut bacarríc.

5.

Jesus onac maite ni,
Nic ere maite Jesús;
Erre ta il-banindedí
Ojala amoresco sus.

6.

Amoresco su andía
Jesus or ichequiríc;
Ene-gana su chindía
Sar-baledi viciríc.

7.

Achsuri eder oneguía
Da Jesus ene maitéa,
Ni naiz naicen anchuméa,
Jesusena naiz gucía.

8.

Nola nola eguzquía
Ala dago alchaturíc?
Ala ere ni gucía
Ala nauca suturíc?

9.

Orgo suac, orgo gárrac
Ene entrañac erretzén,
Ayotsac eta negárrac
Orrec, orrec atratzén.

10.

Gloriaco Erregue béra
Emen ala alchaturíc;
Jautsi-da cerutic béra
Gutas amorosturíc.

11.

Nola dauca apalduríc
Ain apal majestadéa?
Ain gora goraturíc
Gure zamarra probéa!

12.
Beira Erregue cerucóa
Gure lurreraturíc,
Beira Guizon-Jangoicóa
Zamarras vestituríc.

13.
Anchume larruaréqui
Beira guero achsuría,
Gu gaichstoen cargaréqui
Gure guisa ta iduría.

14.
Beira preso gure amóres
Asco guisas loturíc,
Beira penas ta dolóres
Azqueneco galduríc.

15.
Bere amaren sabeléan
Beira lenic bilduríc;
Gambelaren agotzéan
Chipityo paraturíc.

16.
Beira preso baratzéan,
Guerochsago pilaréan,
Andic berla gurutzéan,
Ta beticos aldaréan.

17.
Naiz iganic ceruráño,
Ta jarriric goyenéan,
Emen dago preso oráño,
Beira preso aldaréan.

18.
Cer-gatic ala ori préso,
Jesus ona, cer-gatíc?
Gu-gatic aimberce excéso,
Jesus ona, gu-gatíc.

19.
Nola du becatoréac
Amante-gau amatzén?
Amore ta favoréac
Nola ditu pagatzén?

20.
Ai Jesus, amatu-eztúgu,
Nola duen merejí,
Atzendu bai sobra dúgu,
Ta ofenditu gueyeguí.

21.
Amantea ta amabléa
Da Jesus ou oneguía:
Ni pobre miserabléa
Esqnergaitza naiz gucía.

22.
Naiz izanic alacóa,
Amatu-nau orrec ni:
Ta nic, ene Jangoicóa,
Ez amatu berorí!

23.
Gucis amatu-nai-dút;
Bear-uue beti amátu;
Contra eguinas damu-dút:
Barcatu, Jauna, barcátu.

24.

Nora nora joanen-náiz,
Jesus, orrec utziric?
Guciec utzia náiz,
Atariac erchiric.

25.

Orren atarietára
Itzultzen-naiz, Jesus óna,
Ez-nazala desampára,
O Jangoico den guizóna.

26.

Berce nion lecuric,
Nion ez amparoric,
Ceren ezta sanduric,
Ori becalacoric.

27

Amore du ta podóre,
Iteco limosna-gáu,
Jesus, eguin-bez favóre
Salvatzeas pobre-gáu.

28.

Jesusen icena da
Prenda salvacioarén,
Eci Jesus deitzen-dá,
Ceren salvatzen-duén.

29.

Cer-gatic arimac du
Aimberce aimberce beldúr?
Jesus onac nai-badú
Salvatzea du segúr.

30.

Daquit, Jesus, dezaquéla,
Baita gucis poderóso,
Daquit ere nai-duéla,
Baita gucis amoróso.

31.

Ene-gatic jautsi-cé
Cerutic Jesus ueréa;
Ene-gatic jaintsi-cé
Gure zamarra probéa.

32.

Ene-gatic vici-cé
Betiro penaturic,
Ene-gatic ere il-cé
Penas acabaturic.

33.

Il-da, ta iltzeco in-dú,
Len testamentu berría,
Guretaco an utzi-dú
Bera, ta bere gucía.

34.

Berceric ere ezpacé,
Ene Jesus amabléa,
Sobra bai bai sobra ce
Sacramentu admirabléa.

35.

O Sacramentu goréna,
Non Jesus ematen-dén,
Pasioaren oroipéna
Eta prenda gloriarén.

36.
Il ta berriz vizturíc,
Bere cerura iganíc,
Dago emen alchaturíc,
Ecin quendus gu-ganíc.

37.
Etze content Jesus óna
Naiz guciac emanic,
Gnelditus bere guizóna
Bera-gabe bacarríc.

38.
Goiti dago poderóso
Ene Jesns aguerrían,
Bai emen ere amoróso
Manera miragarrían.

39.
An sanduac gloriastátzen
Nauten gucies ornítzeu ;
Emen gure graciastátzen,
Ta araraco prevenítzen.

40.
Ez solamente guréqui
Jesus ona egoten-dá,
Bera bere donoéqui
Gure-baitan sartzen-dá.

41.
Inic arimen espóso,
Ta erregalo gueyeguía,
Gracioso ta amoróso
Ematen-da den gucía.

42.
Aditzen ta mintzatzén,
Vici-celaic, zutenéc,
Dicha andia contatzén
Zute bai cequitenéc.

43.
Bada sarcen-cen echéan
Jesus, an ce dicha obéna,
Gracia ta gloria batéan
Mundu-gontan al-daiquéna.

44.
An salvacioa batéo,
An vicitza ta alegría ;
Testigo ona da Zaquéo,
Progu Marta ta María.

45.
Zaqneo guizon chipía
Cego iganic arboléan
Icus-nayes Jaun andía
Vidanabar pasatzéan.

46.
Jaunac arri alcinetíc
Dio aguertu-denéco,
Ea berla jautsi ordíc,
Egun nai-dut zure echéco.

47.
Arc echean artzen-dú
Jesus ona gustoróqui ;
Jaun onac betetzen-dú
Ones bera bereéqui.

48.
O Jesus, cein ona den
Arturic echeetán,
Pensa cer izanen-dén
Sarturic entruñetán.

49.
Ecin pensa, ecin errán
Nic aláco favoréac;
Eguin-zuzque, zuzque emáu
Sollic orren amoréac.

50.
Norc alaco amanteric
Seculan icusi-dú?
Norc ala bere umeric
Seculan onetsi-dú?

51.
Amac ume maiteéna
Acitzen bere esuearéqui:
Jesus onac probeéna
Bere gorputz odoléqui.

52.
O Jesus, au cer finés?
Cer nai-ote-du lográtu?
Nai-du bai nai-du sinés
Gu berequi baterátu:

53.
Besarca miragarrían
Erchitu gu beretáco,
Berarequi orai vicían
Gauden, eta seculáco.

54.
Ceruraco acitzen-gáitu
Jesus onac ederquí,
Ala erregalatzen-gáitu
An den obenarequí.

55.
Jesus bera amen-batéan
Ematen-da alchaturíc,
Aguitz realidadéan,
Naiz guti idurituric.

56.
Naiz aingueruec mundúan
Nai ones gu suplitú,
Ez-lezaquete ceruán
Onagoric aurquitú.

57.
Ayec gozatzen-duténa
Osoquiro ta aguerrían
Da nic chastatzen-duténa
Manera miragarrían.

58.
Desterruan nai-badúgu
Ango erregaloric,
O Jesus, nion eztúgu
Ori becalacoric.

59.
Erregalo cerucóa
Emengo guisatu-dú,
Banu nic ona gustóa
Gloria urrin ta gusto du.

60.
Berce favore-bat yágo
Egotea alchaturíc
Contino, ceren baitágo
Gutas amorosturíc.

61.
Nai-nuque Jesus gozátu
Emen daiquen diña nic:
Bear-nuque ortaco amátu
Ori gucis ta sollíc.

62.
Amoreac amoróa,
Suac sua viztu-béz,
Orrenac, Jesus, neréa
Amatzeco nic sinéz.

63.
O Jesus, amatzen-náu
Segurqui, amatzen-badút;
Elcarren amore-gáu
Gloriaraco prenda dut.

64.
Nola Jesus su vicía
Ene-baitan sarturíc
Ez-nago ya ni gucía
Amoretan urturíc?

65.
Beti presente aldaréan,
Ta jatera ematen-dá
Jesus, nauten egunéau,
Ta egunoro ofratzen-dá.

66.
Cer den Jesus beiratzéa
An sacrificaturíc,
Nola achsuri ecin obéa,
Ain mauso ta umilduríc.

67.
Loturic, golpaturíc
Len, eta azotaturíc,
Gurucificaturíc,
Eta odoles usturíc.

68.
Norc ala paratu-dú?
Eta cer culpa-gatíc?
Eztu culparic, eztú:
Gucia da eue-gatíc.

69.
Culpac izanic nerćac,
Jesus ona norc il-dú?
Niri didan amoréac,
Amoreac eguin-dú.

70.
O amore gucyeguía,
Gurutzean il-duzú
Gure Jesus oneguía;
Aldarean cer nauzú?

71.
Oneguiac gaichstoa-gátic
Vicias pagatu-dú:
Bere burua cer-gátic
Berriz or paratu-dú?

72.
Guc mereji baño yágo
Ta yago len eguin-dú:
Emen berriz certau dágo?
Jesus ona, cer nai-dú?

73.
Aguertu amore dućna
Gu-gatic, bear-balítz,
Iltzeco, ta artzeco péna
Yago ta yago berríz.

74.
O amorea noráño?
Claroqui mostratzen-dú,
Bere vicia ere báño
Yago gaituela gu.

75.
Ta emendic seguitzen-déna
Gure arimen galtzeás
Luquela gueyago péna,
Eci berriz iltzeás.

76.
Il-eztaique, ta eztu yágo
Penaric ya sentitzén,
Alaere oraño dágo
Pasatuac berritzén.

77.
Emen Jesus oneguía
Presentatzen-da aldaréan
Nola baquesco uztarguía
Jangoicoaren alcinéan.

78.
Presentatzen-tu zauríac,
Neque, pena, tormentúac,
Eriotz, odol, icerdíac
Eta merejimentúac.

79.
Alaco miragarríac,
Jesus ona, cer-gatíc?
Zar eta berri gucíac
Guciac gure-gatíc.

80.
Ofratu-ce gurutzéan
Jesus beteric dolóres:
Orai berriz aldaréan
Ofratzen-da gure amóres.

81.
Sustancian gucia oroát,
Naiz diferente manéra,
Ceren ofrenda da bat,
Ta ofrazalea berbéra.

82.
Lograturic arren fínac,
Onec orai cer dn itéco?
Berritzeco len eguínac,
Bacochai aplicatzéco.

83.
Fruituac ecin pondéra
Ontatic eldu-dirénac:
Barraturic gora béra
Gozatzen-tu nai-tućnac.

84.
Jangoicoaren ta guizónen
Jesus ona bitartéco
Da len lenic, baque ónen
Elcarrequin eguitéco.

85.
Da Jangoico ta guizóna,
Ala iteco, aguiz propía,
Jangoicoai placer óna,
Ta guizonei on gucía.

86.
Ta pagazale emaníc
Justicia aplacatzen-dú,
Eta ala bera-ganíc
Guizona libratzen-dú.

87.
Gnero berriz Jaun andía
Onratzen-du ta estimátzen,
Ala gure charquería
Berac errecompensátzen

88.
Baita guri onguieguínac
Ditu correspondítzén,
Gure esquergaitz mezquínac
Esquer ones suplitzén.

89.
Ala ceruco iturría
Cegona guc erchiríc,
Eraunsteco on den gucía,
Dauca beti idiquiríc.

90.
Cerucoec an beréan
Gozo ta gusto berría
Dute, icusis aldaréan
Achsuri maitagarría.

91.
Trintatec gusto artzen-dú,
Virginac gozo betéa,
Aitac ere erraten-dú,
Au ene seme maitéa.

92.
Ta purgatorioco súan
Nondic dute alivioríc?
Ezta sufragio mundúan
Meza becalacoríc.

93.
Orgatic arimac áyes
Suspira ta clamatzén,
Jesus ona icusi-náyes
Aldarean ofratzén.

94.
Jesusen pasio ta pénac
Emen representatús,
An arimec zor-tuténac
Abasto descontatús.

95.
On-gau purgatoriorá
Nai-diotenec bialí,
Su-gura bere ariorá
Dezoquete an itzalí.

96.
Emen ofratzen-badá
Ongui meza ta maizágo,
Aisago an atratzen-dá
Arima, ta lasterrágo.

97.
Cembat andic nola apóstus
Doaz cerura iganés!
Baña, Jesns, orren cóstus,
Orrec gucia emanés.

98.
Orai bada mundurá
Cembat on ecartzen-dú,
Bere dagon lecurá
Jauna, norc erranen-dú?

99.
Cer-gatic gure lecúan
Jesus nai-ce guelditú?
Baicic on denas cerúan
Erregalatzeco gu?

100.
Gu gaitn lecuquidéac
Baitare bere echecóac,
Bere aide ta adisquidéac
Gure Guizon-Jangoicóac.

101.
Guelditu-da probeéqui
Gure gaitzac qnentzecó,
Unitzeco gu beréqui,
Ta ondasun ematecó.

102.
Gu nola bere onetsíac
Nai-gaitu favoratú,
Bere gracien erauntsíac
Guri comunicatú.

103.
Nola Jauna assarratzéa
Baita gaitzen gaitzeníc,
Gure culpen barcatzéa
Logratzen-du len leníc.

104.
Doble gaitz becatuéna:
Gure Jaun ona ofendítu;
Ori len, ta bigarréna
Gneuroc galduric gueldítn.

105.
Becatuac gainduríc
Gure contra clamatzón;
Gure Jauna iraturíc:
Certan dugu esperatzén?

106.
Cer erremedio dugú?
O Jesus, nion eztá:
Ori baicic eztugú:
Ori sollic asqui da.

107.
Orrec sollic aldaréan,
Gure Jesus oneguía,
Du mostratzen an beréan
Bai piedade gueyeguía.

108.
Jaunaren ta gure erdían
Paraturic bitartéco
Eguiten-du amore andían
Elcarrequi baquetzéco.

109.
Moguitzen-du Jangoicóa
Izateco paciéncia:
Uquitzeu gure gogóa
Eguiteco peniténcia.

110.
Ala palacaturíc
Jaunac digu barcatzén,
O Jesus, beiraturíc
Ori dela empeñatzén.

111.
Ala detenitzen-dú
Justiciaren azotéa,
Ceren atenditzen-dú
Bere seme Jaun maitéa.

112.
Baña Jesus ona guc
Nola dugu atenditzén?
Aimberce ou eguinen truc
Nola correspondítzén?

113.
Atencio guti diógu
Gurequi emen dagouái,
Esquer onic eztiógu,
Esquer gaichsto sobra bái.

114.
Dagolaric gu betótzen
Contino Jesus favóres,
Bear-guinduque egon errétzen
Guc amores ta dolóres.

115.
Bear-guinduque emen beutzáit
Bere echean onratú,
Ceru guisa nolapáit
Onetsi ta adoratú.

116.
Emen guc aingueruéqui,
Ayen diña naiz ecín,
Gure eutraña guciéqui
Al gucia gusto eguín.

117.
Contra ai-gara, contra bái
Ofenditzen betiró
Nola-nai eta non-nái,
Emen ere itsusquiró!

118.
Ofenditus galtzen-dúgu
Abogatu den bacárra:
Aurqui ya cer uste-dúgu,
Pena baicic ta negárra?

119.
Ala litzaque, baldín
Guc baño obequi favóre,
Jesus, ezpalez eguín,
Guri izanes sobra amóre.

120.

Ala nola ama-bat óna
Daucana firme besárca
Ume charra dagoquióna
Quendu-nayes atzapárca :

121.

Utzi-balez, eror-léique
Charra bai ta golpatú ;
Ala utz-banindez, nindéique
Ni galtzera botatú.

122.

Pleitu guisara porfia
Gueuroc gueuren caltetán,
Contra Jesus oneguía
Gure on-nayes ta onetán.

123.

Norc, Jauna, obligatzen-dú
Eguitera favoréac
Aimberce ? niorc eztú,
Baicic digun amoréac.

124.

O amore sendo fiña
Dituzu indar gueyeguíac,
Jangoico berac adiña,
Garaitzeco gaitz gucíac !

125.

Cerc ecarri-du lurréra ?
O Jesus, cerc gambelára ?
Pilarera, gurutzéra,
Eta alaco penatára ?

126.

Cerc il hi-gayen ertéan,
Jaintairic gure zamárra ?
Cerc dauca emen aldaréan ?
Cerc gure-gana dacárra ?

127.

Jaquinic nola garén,
Esquergaitz sobra guréac,
Cerc gurequi dauca eméu ?
Sollic digun amoréac.

128.

Aguerri vici-celáic,
Tratatu-zute gaizquí :
Orai alchatzen-deláic,
Eztugu iten obequí.

129.

Obe litzaque eguzquía
Faltatzea mundutíc,
Eci Jesus oneguía
Bere Sacramentutíc.

130.

Ezpaledi mantenítu
Jauna Sacramentu-góntan,
Nola neique ni vicítu
Negarresco valle-góntan ?

131.

Ala nola ilunduríc
Triste negoque gucía ;
Niondic consoluríc ;
Neque-penasco vicía.

132.
Alaere ematen-dúgu
Sobra causa, gu-ganíc
Botatzeco eguiten-dúgu,
Ain gaichstoac izaníc!

133.
Baña nola egoten-dá
Gaichstoequi oneguía?
Nola mantenitzen-dá
Otsoequin achsuría?

134.
Nola gaizque ya sufrítu,
Jesus, gu becatoréac?
Nola daique detenítu?
Dauca preso amoréac.

135.
Gure culpen barcatzéa
Nai-du, ez-gaitzen condenátu;
Gure arimen sendatzéa
Nai-du, gaitzen gu salvátu.

136.
Noiz-nai urriquituríc
Guc confesatzen baitúgu,
Berla urricarituríc
Jaun ona favore dúgu.

137.
Len cena bere vicían
Biotz-bera ta amoltsúa
Da admititzeco gracían
Becatari penatúa.

138.
Ala zute murmurátzen,
Cergatic becataríac
Baititu bereganátzen,
Obequi ines bazcaríac.

139.
Erraten-du Jesus ónac,
Sendazale bear-dú
Preciso gaizqui dagónac;
Ongui dagonac eztú.

140.
Ez-naiz etorri deitzéra
On direnac ta sandúac,
Bai gaichstoen sandutzéra,
Ta billatzera galdúac.

141.
Au da Jesus dabilána
Becatarien atzéan:
Artzai ona daramána
Ardi galdua soñéan.

142.
Couvit-gura len emána
Orai ere ematen-dú;
Atozte, atozte ene-gána,
Coutino clamatzen-dú.

143.
Atozte, becataríac,
Sendatzera nerequí
Ceuren arimen zauríac,
Badut euen cerequí.

144.
Becatuen carguería,
Laceria, neque, péna
Queu ; ta nere bustarría
Erman arin aisa déna.

145.
Deitzen-tu galtzen-cirénac,
Billatzen ta itzultzen-tú,
Beras itzultzen-dirénac,
Jesus, admititzen-tú.

146.
Ezta aditu, ta ezta léitu
Nior itzuli-deníc
Orrec duela despéitu
Beñere bere-ganíc.

147.
Uste-dut, escatu-bácio
Sines Judas traidoréac,
Emanen-ciola barcácio,
Jesus, orren amoréac.

148.
Lenic culpa eguin-tugúnes
Ematen-digu barcácio,
Guero pena zor-tugúnes
Justiciari satisfáccio.

149.
Culpac sobra direláic,
Ariora zor-dire pénac,
Justiciac au dioláic,
Paga-bez iten-duénac.

150.
Zor anditan sartu-gára
Andia da artzeco-dúna ;
Noren-gana joanen-gára
Pagatzecos zor-dugúna ?

151.
O Jesus, berorren-gána
Datoci becataríac,
Otsoec in-duten lána
Pagatzen-du achsuríac.

152.
Preso galdu-bear-ciréuac
Orren costus dire líbre,
Ayec culpac, orrec pénac,
Orren costus vici-díre.

153.
Ofratzen-da, norc estíma ?
Guizon-bat Jangoico déna,
Gorputza, odola, ta aríma,
Ta iltze pasatu-zuéna.

154.
Ofratzen-tu bere onquíac,
Bere neque-pena errúac,
Bere llagac ta zauríac,
Eta merejimentúac.

155.
Bere azote ta arantzéac,
Lanza, gurutze, ta itzéac,
Cate, soca, ramaléac,
Pasioaren señaléac.

156.
Fiadore pagazále
Ederra Jesus dugú,
Gu baguina aguitz zorrále,
Ederqui pagatu-dú.

157.
Mai-gartan du presentátzen
Jesus onac pagaménta,
Jangoicoac du cobrátzen,
Eztaiquc baicic conténta.

158.
Gu gueroc galdu-bagára
Culpa ta penen-gatíc,
Gucietaic salvu gára,
Jesus, bai orren-gatíc.

159.
Ain ona barimbadá
Jesus ona gaichstoéqui,
O cein ona bide-dá
Bere on onetsiéqui?

160.
Aita non da, edo ama non,
Edo esposo alacoríc?
Berceudaco ain on
Amante amorosoríc?

161.
Gloriaraco acitzen-tú
Nola erregue errealquí:
Sendatzen, sendotzen-tú,
Ta saudutzen edorquí.

162.
Onac onago iten-tú,
Ta sanduago sandúac,
Gracia aumentatzen-dú,
Eta merejunentúac.

163.
Caridadea du añadítzen,
Ta esperanza fedearéqui,
Ala arimac ditu acítzen
Jesusec ecin obéqui.

164.
Umiltasun, mansotásun,
Paciencia, peniténcia,
Indarqueta, edertásnn
Emanes ta diligéncia:

165.
Castitade, garbitásun,
Prudencia, zelo, constáncia,
Baitare su, ta arguitásun,
Ta azquenic perseveráucia.

166.
Orai nola bere amóres
Nola ditu erretzén!
Jesus onac ta favóres
Nola ditu betetzéu!

167.
Erregalo gueyeguías
Nola ditu cebatzén!
Consolacios, alegrías
Nola ditu zoratzén!

168.
Ceruraco señaléac
Amoresco prendac au
Jesus onac ta amabléac
Bere onei nai emán.

169.
Prendaric oben obéna
Berequi bateratzéa,
Ori da ayec nai-duténa,
Vici ala, ta bucatzéa:

170.
Beretic apegatzéa
Jesus onac on gucía,
Eta ala conformatzéa
Daiquen diña ayen vicía.

171.
Guizonari Jesus óna
Ain gucis ematen-dá,
Eci beraiqui guizóna
Bat becala eguiten-dá.

172.
Genio ta condicio ónac
Ain ongui apegatzen-tú,
Eci berari guizónac
Gucis iduritzen-dú.

173.
Obrac, itzac, ta gogóa
Gucis onac ditu ya,
Ceren Guizon-Jangoicóa
Arren-baitan vici-dá.

174.
Sinesta San Pablorí,
Au berac errana da;
Vici-naiz ni, ez ya ni,
Nitan Cristo vici-dá.

175.
Cristo da nere vicía,
Bioc bat ina-gatíc;
Iltzea da irabacía
Beraren gloria-gatíc.

176.
Sines ala dela bái,
Sinesta alaber dióna,
Ala garela non-nái
Gu Criatoren achon óna.

177.
Miragarri ecin daizquénac
Explica gure miéqui
Eguiten-tu ofratzen-dénac
Mai-gartan arima onéqni.

178.
Baña sollic ez orí,
Baicic on diren gucíac
On eta gaichstoerí
Dacarzqui achsuri vicíac.

179.
Edo gorputzaren déla,
Edo dela arimarén
Niondic ecin daiquéla,
Logratzen, ezpada emén.

180.
Arima penatan nóra
Nora zu joanen-zará?
Atoz, atoz sagrarióra
Nola choria cafiará.

181.
Iltze-guisas nai beldúr
Contues lotsaturíc;
Nondic naique izan segúr?
Non izan consoluríc?

182.
Ai-batequi gan ta egún
Penaturic vici-náiz,
Ai ene Jauna Jesús,
Salvatuco-ote-náiz!

183.
Nora nora joanen-náiz?
O achsuri oneguía,
Orren-gana eldu-náiz,
Ori da nere on gucía.

184.
Ori juez nai-nuquéna,
Eztu bere pareríc:
Nor ote-da eldu-déna?
Ori da, ta ez berceríc.

185.
Ori juez-gura béra,
Emen ala alchatzen-déna:
Datorrelaic juzgatzéra,
Ez-nazala ni condéna.

186.
Berce guisas izaníc
Cerbait pena edo tristúra,
Icasazu oraidaníc
Egatzen lecu sandúra.

187.
Emen gure Jangoicóa
Umano gure on-nayés!
Nora guizon munducóa
Bere ona-ganic igués?

188.
Munduac segui mnndúa
Elcar engañazaléa;
Jesus ene consolúa
Eguiaz salvazaléa.

189.
On gucieu iturría
Sacramentu andi-gói:
Ala ere chinurría
Non dabila loyes lói?

190.
Cer-gatic triste ene aríma
Zaude, eta turbatzen ni?
Ama Jesus, eta estíma,
Ta alegra berarequí.

191.
Naiz tristuran sarturíc,
Atraco-da arima-gáu,
Jesusec beiraturíc
Ongui nai barimbanáu.

192.
Jesusec ni beiratzéa
Amores biotz barnéan
Dut nayago eci sartzéa
Gusto guciac batéan.

193.
O Jesus on oneguía,
Pobre-goni beira-béz,
Sendatzeco arima ería,
Itz-bat ona mintza-béz.

194.
Cousoluric ezperón
Nion izanen eztú,
Amore ones ematén,
Jesus, orrec ezpadú.

195.
Duda ta ignoranciétan
Peligroan uts itéco,
Jesusen atariétan,
Dei ta dei, acertatzéco.

196.
Emen arguitu-gaizquéna
Gu, da Jesus oneguía,
Ni naiz, an erran-zuéna,
Ni munduaren arguía.

197.
Da Jaun Sacramentatúa
Eguzqui-bat aldaréan,
Arguitzen-baitu mundúa
Bere ceruco vidéan.

198.
Emen estudiatu-zúte
Doctore ta Aita Sandúec,
Emendic icasi-zúte
Izan-diren famatúec.

199.
Doctore ainguerua béra
Emendic arguituric
Eguin-ce nola lumbréra
Elizan goraturíc.

200.
Emen argitua da
Doctora sanda berría
Teresa, emen eguin-dá
Nola eguzqui eder arguía.

201.
O Jesus, ene pausúac
Quida orrec ene ilumbéan,
Cer inen-dut nic itsúac?
Uts eguin vide-gabéan.

202.
Acertatu nic ecín;
Argui berce nion ez;
Cer dezaquet nic eguín?
Argui, Jesus, argui-béz.

203.
Ilumbetan ala nóla
Itsasoan iten dén,
Beiratu non den faróla,
Navegatzeco zucén:

204.
Arimaren ilunćan
Ori Jesus ene arguía
Paraturic aldaréan
Arguitzeco ene beguía

205.
Orri beira nago ni,
Orrec, Jesus, argui-béz,
Ez-nadien erorí,
Orrec niri beira-béz.

206.
Baña nola mantení
Tentacio peligrotán,
Ezpanauca firme ni
Jesus bere besotán?

207.
Mundu-gau irrista béra,
Peligroac nondic-nái,
Erorcor guizona béra,
Nola dezaque garái?

208.
Ez-nagoque chutiríc
Mundu peligros betéan,
Cer incn-dut utziríc
Peligro andiren-batéan?

209.
Naute etsayec bulcatzén:
Jesus, ez-nazala utzí,
Ezpanau favoratzén,
Libra-ez-naique neurau ni.

210.
Neure-ganic etsiríc
Emen nago orren mai-péan,
Gorde-nazan erchiríc
Sendoqui bere catéan.

211.
Orren varac ta palóac
Naute ni consolatzén,
Mayac eta erregalóac
Gucyago seguratzén.

212.
Barimbadut nic favóre
Jesus ona berorí,
Norc izanen-du podóre
Garaitzeco ni orrequí.

213.
Erioaren ilumbéan
Banindego sarturíc,
Jesus, orren egal-péan
Eztut gaitzen beldurríc.

214.
Vicitzaren azquenćan
Nai-nautelaic galdu ni,
Orrec, Jesus, len lenéan
Ene etsayac gal-bezquí.

215.
Orduan bai, bai ordúan
Bego firme nerequí;
Bereac tuen modúan
Gorde, Jesus, gorde ni.

216.
Ez utzi galtzera ni
Aimberce costaturíc,
Ene etsayac utz-bezquí
Bai beticos galduríc.

217.
Fiaturic nant egón
Inen-dnela etsayéqui,
Ala nola Faraón
Ta bere gendearéqui.

218.
Triunfante ala izaníc
Orren ona ta victóriac
Betiro cantatu nic
Orri esquerrac, orri glóriac.

219.
Vicio zarren atratzéco,
Jesus, eztut medioríc,
Ta vertute acitzéco,
Ori becalacoríc.

220.
Penitencia nondic da,
Eta negarren oguía?
Mai-gortan ematen-dá,
O achsuri oneguía.

221.
Jesus or beiraturíc
Gaichsto-gonen amazále,
Biotza prensaturíc,
Eldu-zaida negargále.

222.
Castidade garbináya
Non da? non acitzen-dá?
Orra acia, orra máya,
Or eman ta amatzen-dá.

223.
Eta norc beiraturíc
Ain gucia garbi emén,
Ezta asico alqueturíc
Bere echea garbitzén?

224.
Amoresco sua báda
Nola bear, nai-badút,
Emen ematen ezpáda,
Nion izanen eztút.

225.
Amoresco sutan dágo
Or gucia ichequiríc;
Ni, nayac barimbanágo,
Erretzeco viciríc.

226.
Paciencia bada non,
Non dezaquet arquitú?
Esque ta esque emen egón,
Gabe eztaique guelditú.

227.
Beira achsuri oneguía
Trabajutan beti acía,
Or ere gueldi gueldía,
Sufritzen gure gaizquía.

228.
Onquiaren iturría
Orra beti idiquiríc,
Eman-nayes on gucía,
Bortz cañuac beteríc.

229.
Ez in gaizqui lagunéi,
Zuri eguinac sufri bái,
Eguin ongui guciéi,
Principalquiro etsayái:

230.
Orra Jesusen ur óna
Bortz cañuec dacarténa,
Edan gogotic, guizóna,
Izateco Jesuséna.

231.
Edan zelo sanduéna,
Ez anitz senti ceuréa,
Bai ofensa Jaunaréna,
Eta arimen galmendéa.

232.
Gucien len eta azquén
Edan-zazu umiltasúna,
O eztaquizula atzén,
Baita gueyen bear-duzúna:

233.
On gucien cimendúa
Fundatzeco sendoquí,
Muralla ta tellatúa,
Seguratzeco osoquí.

234.
Eracusten Jesus óna
Dago itz eta obrequí,
Eztayen gora guizóna
Presuncio vanoequí:

235.
Icasace ene-gaudíc
Bainaiz manso eta umíla:
Ori beroi dio andíc,
Naiz dagon ichsil ichsíla.

236.
Jaun goicoa umilduríc
Emen beiti aldaréan:
Ta artyoa goraturíc
Izarretan gora airéan!

237.
Ez nayela, Jesus, ni
Pobre ta suber izán,
Gal-ez-náyen osoquí,
Ez izanes norc emán.

238.
Ezaundu ori, eta ni,
Cer orrena, cer neréa:
On gucia berorí,
Ni malder, eta gabéa.

239.
Irur itze bear yágo
Jositzeco Jesuséqui,
Emen suteguia dágo
Eguiteco suaréqui.

240.
Deitzen-tut irur virtúte
Principalec nic itzéac,
Ceñen icenec baitúte
Lembicico letrac céac.

241.
Caridadea duzu léna,
Compasionea bigarrén,
Contricioa irugarréna,
Orra itzeac cein dirén.

242.
Ebequi arima nai-dút
Josi Jesus onaréqui,
Biotza burriña dnt,
Moldatu-bez or beréqui.

243.
Nagola ya beti amátzen
Jesus ori emen daiquénes,
Ta amorosoqui penátzen
Nere culpes ta orren pénes.

244.
Azquenean guizon zárra
Deseguin, ta eguin berría,
Gure erremedio bacárra
Da, ta batean gucía.

245.
Dago emen criadoréa
In-guinduzana onac len,
Baitare Redentoréa
Gure on-nayes dago emén.

246.
Formatzen, erreformátzen
Daqui Jangoico-Guizónac,
Gure gaizquiac sendátzen,
Obetzen beraren ónac.

247.
Sartuco-naiz aldaréra
Bai Jangoico Jauna-gána,
Baitaqui lengo lustréra
Berritzen zartu-dudána.

248.
O Jesus, icatz beltz-gáu
Bere suan gori-béz,
Biotz zartu gaichsto-gáu
Bere guisa berri-béz.

249.
Orrec, Jesus, ene-gátic
Cembat figura artzen-dú!
Zar-gau nola bere-gátic
Guisa berritzen eztú?

250.
Berri-benaza, ta aiu bére
In-benaza oraidaníc,
Ez-nazaquen deusec ére
Berechsi bere-ganíc.

251.
Bada gorputzaren ére
Nai-badut onic izáu,
Ezpada emen, ez batére
Nion ezta norc emán.

252.
Gorputzaren osasúna
Conveni-barimbadá,
Jesus da emanen-digúna,
Ezperen nior eztá.

253.
Bere tresenac caléan
Sendatzen uquituríc;
Cembat obequi aldaréan
Berberac ofraturíc?

254.
Gaitz guciac itz-batéqui
Jesus onac quentzen an:
Emen gorputz odoléqui
On gucia nai-du emán.

255.
O Jesus gure amantéa,
Nai-duena eguiten-dú,
Asqui du nai izatéa,
Ongui guelditzeco gu.

256.
Imitatus nic pobréa
Nai-diot emen errán,
O Jesus ecin obéa,
Nai-badu, dezaque emán.

257.
Lazaros erran-cinténa
Nitas emen adi-béz,
Orrec ongui nai-duéna
Gaizqui dago, senda-béz.

258.
Jesus gure Salvazále
Nola deitzen, ala da:
On gucien emanzále
Cerutic etorri-dá.

259.
Jesus bortz letra bortz prénda
Medicu onarenac dítu,
Gaizqui dagonac enténda,
Nai-badu gucis onguítu:

260.
Gaitz guciac sendatzén,
Berla gucis vizcortús,
Gracias du visitatzén,
Medicinac paratús:

261.
Borzgarrena ecin ceiquéna
Niori ere gogorátu,
Ta alaber ecin daiquéna
Seculan asqui estimátu:

262.
Cein da ori? Cein ote da?
Bera sano sendo déna
Jesus ona eritu-dá,
Sendatzeco eritu-céna.

263.
Sendatzeco gure míña
Pasatu-du libre cénac
Trago-gura aguitz samíña,
Ta sangria bortitzénac.

264.
Beira bera erituríc,
Eta penas beteríc,
Eta odoles usturíc,
Izan-gabe culparíc.

265.
Beira orai paraturíc,
Mayan amorosoquí,
Ala zuc beiraturíc,
Senda-zaiten osoquí.

266.
Jesusec erituríc
Ditu sendatzen eríac
Bere gañan arturíc
Gure gaitz ta laceríac.

267.
Gaitz gucien da erremédio,
Ezta deusen faltaríc,
Jesus ona dela médio,
Guri guti costaríc.

268.
Escatzeco du manátu ;
Ar-zagun bere itzetíc,
O Jesus, nai-dugu escátu.
Libra-gaitza gaitzetíc.

269.
Emanen-du ez solaménte
Gorputzaren osasúna,
Baitare emen presénte
Gañarico bear-dugúna.

270.
Ta fortuna deitzen-déna
Non dezaquet non arquítu ?
Nor den Jesus, daquiéna
Ezta emendic cer moguítu.

271.
Gaitzetátic libratzéa
Da fortuna amatzen-déna ;
Asco ondasun logratzéa
Fortuna goren goréna.

272.
Gaitzes inguraturíc
Vici-gura mundu-góntan ;
Non da libre lecuríc
Negurresco valle-góntan ?

273.
Noen arcatic usóa
Arat onat cen egátu ;
Andic campoan gaichsóa
Etzeique niou barátu.

274.
Noen arca baño obéa
Da Jesusen mai sandúa ;
Gorde-bedi emen probéa.
Nai-ezpada izan galdúa.

275.
Nora naique erretirátu
Aimberce gaitzen ertéan ?
O Jesus, non segurátu,
Baicic orren egal-péan ?

276.
Errefugio gora góra
Emen digu iminí;
Emendic ez ya nióra
Ez-nazala utzi ni.

277.
Nion ez, emen baicíc,
Ezta nion salvatzén,
Emen bai, ceren gaitzíc
Ezta onara ellegatzén.

278.
Eta bada deus oníc
Ori-gabe nola izán?
Ezta aingueru, ez guizoníc,
Ori ezpada, norc emán.

279.
On guciac bildu-tú
Jesusec dagon lecúan,
Ta berequi guiltza du
Emen beti bere escúan.

280.
Eman-nayac beti dágo
Probeen convidatzén,
Emanago ta nayágo
Bere escuac edatzén.

281.
Gucia prestaturíc
Guretaco; gu probéac!
Ta maya paraturíc,
Emen iltzen gu gosćac!

282.
Nola seme galdu-gúra
Despeitus aita-ganíc,
Izuli-cen acordúra
Bai goseac emaníc.

283.
A! cembat dauden aséan
Ene aita onarequí,
Cervitzuan bere echéan;
Ta goseac emen ni!

284.
Cer inen-dut? Joanen-náiz
Aita-gana bai arín,
Oñetan botaco-náiz,
Nai-badida gracia eguín.

285.
Erranen-dnt aitarí,
Aita, eguin-dut nic becátu
Berorri ta Jaunarí;
Barcatu niri, barcátu.

286.
Ez-naiz digno dei-nazáten
Berorren seme ya ni,
Conteut naiz eguin-nazáten
Laneco cervitzarí.

287.
Ori-gabe gauza oníc
Ecin izan, galdu bái:
Baña orrequi ni egoníc
Ongui nago nola-nái.

288.
Ala nola chacurtyóa
Bere jaunaren mai-péan,
Ala nago probetyóa
Ni betiro orren menéan.

289.
Idiac bere jabéa,
Astoac bere gambéla
Ezauntzen: ta ezaungabéa
Guizona izan datequéla!

290.
Jabe, Nausi, Jaun burúa
Jesus ona, ez permití
Izan-nayen ain itsúa
Munduan orrequi ni.

291.
Ezauntzen-dut ene jábe
Jesus ona, ta nai-dút;
Niondic nic ori-gábe
Onic batere ezpaitút.

292.
Astoco-gonen gambéla
Mai-goi estimatzen-dút,
Ta emen cebatzen-diréla
Aingueruac uste-dút:

293.
Ta errcgalo erreála
Au dutelaic an cerúan,
Emen ere dabiltzála
Aingueruac ingurúan.

294.
Ayec ere mai-gontátic
Jesus dute gustatzén,
Ta duen gusto ona-gátic
Bere criac chupatzén.

295.
Aingueru ederren erdían
Astoco itsusia máiz
Jaun ouaren ausardían
Mayera ellegatzen-náiz.

296.
Astoco-bat izaníc
Nai-nuque egon orrequí;
Ni bota bere-ganíc
Ez, bai lotu berequí.

297.
Aingeruena becála
Emen nere gozandéa;
Au ceruco antesála,
Ta an sartzeco, da vidéa.

298.
Gloria gusto iduri-bát
Senti-du arima sandúac:
Non gabiltza arat onát
Gusto billa gu galdúac?

299.
Gloria guisa-bat emén
Du sinetsis viciró
Ematen-dená nor den,
Eta onetsis betiró.

300.

Jesus dago gutartéan
Gure amores beteríc;
Galtzen-gara bitartéan
Gu, billatus berceríc.

301.

Ene Jesus ona, nic
Mundua despeitzen-dút;
Eztut nai, ori baicíc,
Ori sollic asqui dut.

302.

Emen San Pedrorequí
Sines erran-nai-dugú,
O Jesus, berorrequí
Emen ongui gaude gu.

303.

Ongui da emen egotéa
Elcarrequi oraidaníc:
Ez permiti berechstéa
Bioc elcarren-ganíc.

304.

O Jesus, ilic nagóla
Munduraco emen ya ni,
Ene vicitza dagóla
Alchaturic orrequí.

305.

Galdeturic nitas ya,
O balitz sines eguía
Erratea, il ta ortzi da,
Ona non duen obía.

306.

O banego munduráco
Ilic emen ta ortziríc,
Ala obequi ceruráco
Nindegoque viciríc.

307.

Ala ase bere betéa
Biotza nuque sinés,
Nic orren vorondatéa,
Orrec nerca eguinés.

308.

Cer ai-da guizaguendéa
Biotzac loya ta lúrra,
Amatus vanidadéa,
Engañua ta guezúrra?

309.

Otsorrai ta usoa bíac
Noen arcan egon-círe,
Andic guero berecíac
Ez biac itzuli-círe.

310.

Otsorraya campoán
Guelditu-ce loyestátzen,
Gorputz ilen ceboán
Picatzen eta bazcátzen.

311.

Usoac nai garbi egón
Egatus onat arát,
Ecin baratus nión,
Itzuli-cen arcarát.

312.
Otsorrayen guisa díre,
Utzis erregalo-góri,
Asco cebatzen-baitíre
Mundu-gortan loyes lói.

313.
Ene arima, gu ez atzén;
Nola Noen arcará,
Jesusenera goacén
Uso-garren guisará.

314.
Emen nere consolúa,
Gusto, gozo ta alegría,
Onra, amore, sosegúa,
Seguranza ta on gucía.

315.
Ori Jesus ya nerća,
Ta ni berriz berorréna;
Lotzaqui eterno guréa
Amore-gau elcarréna.

316.
Sinetsi, onetsi, adorátu
Nai-dut emen, ta esperátu,
Dena eman, bear-dena escátu,
Ta ene-gatic ori ofrátu.

317.
Jesus bego gurequí,
Eman-tigu Jangoicóac
On guciac onequí
Oraicoac, guerocóac.

318.
Jesus, erdi-seguránza
Ori oraico graciarén,
Ori heroi esperánza
Da gueroco gloriarén.

319.
Jesus cerco vidća,
Vicitza da, ta ataría;
Da gure esne ta unidća,
Arguia ta quidaría.

320.
Adisquide, aide ta anáya,
Amante, esposo, aitatáma,
Ardi, achsuri eta artzáya,
Gure carga baitaráma.

321.
Abogatu, Redentóre
Eta juez da berbéra,
Beti da gure favóre,
Salvazale biotz-béra.

322.
Amazale oben obéna
Guretaco Jesus óna,
Gure amores iltzen-déna,
Gure amores or dagóna.

323.
Eztu nai gure galtzća
Aimberce exceso eguinés:
Nai-du bai gu salvatzća
Jesus onac, bai sinés.

324.
Jesus ona guretáco
Beti dago brindatzén:
Eta dire berendáco
Probeac descnidatzén!

325.
Emen tigu mostratzén
Amoresco señaléac,
Ta ala nola paratzén
Cerurac escaléac.

326.
Pensa emen paratu-déla
Nola atari pocaléan,
Eman-nayes dauzquiéla
Guiltzac escu zabaléan.

327.
Eman-nayac probeći
Jesus emen: bada nic
Egon-nai-dut dei ta déi
Emen beti ya daníc.

328.
Adi-bez, ta beira-béz:
Esque ta esque nago ni;
Ene Jesus, eman-béz,
Limosna probe-goní.

329.
Otoi, Aita liberála,
Nai-badit, otoi, emán
Niri, dezaquen becála,
Gracia emen ta gloria an.

330.
Eztut, Jauna, eztut-utzíco,
In-artaño piedadéa,
Niri emateas betíco
Salvacioco baimendéa.

331.
Asqui du erratea bái,
Ni gucis seguratzéco;
Itz-gau baicic eztut nái,
Víde-gonen pasatzéco.

332.
Orren itza guiltza da,
Idiquitzeco cerúac;
Orren itza eguiterá
Daude tinel ainguerúac.

333.
Itz-batequi criatzéa
Eguin-zue mundu-gáu;
Cer milagro salvatzéa
Itz-batequi arima-gáu?

334.
Nai-bez, Janna, nai-bez nái,
Pobre-gau consola-béz;
Niri erranic orrec bái,
Norc dezaque erran ecétz?

335.
Esperanza ta beldúr
Dut alde bietatíc,
Orren-ganic naiz segúr,
Ta beldur neure-gatíc.

336.
Esperanza dut, céren
Jesus ona cerutíc
Ene amores jautsi-cén,
Ni atratzera infernutíc,

337.
Ta ceren pasaturíc
Aimberce pena leníc,
Il-cen acabaturíc
Gurutzean azqueníc.

338.
Esperanza dut gueyágo,
Ceren ala gure amóres
Errealqui emen baitágo,
Betetzeco gu favóres.

339.
Ta ceren ofratzeu-dén
Jangoicoari egunóro,
Ta guri ere ematen-dén
Guc nai-dugun aldióro.

340.
Jauna, sobra igan-badá
Esquergaitz gaichsto neréa,
Alaere gaindu-dá
Orren ona ta amoréa.

341.
Ene Guizon-Jangoicóa,
Victoria irabaci-béz,
Garai-bez ene gaichstóa
Orrec onac, garai-béz.

342.
Nai-du sines salvatzéa
Asco modus orrec ní:
Gucia malogratzéa,
Jesus ona, ez permití.

343.
Costa-zayo bere odóla
Ene arima bere artzéa,
O Jesus, eztaquiócla
Galdu bata ta bercéa.

344.
Ez-nazala ni coudéna,
Jesus, andic atraríc;
Pagatu-du nere péna,
Orri sobra costaríc.

345.
Ez permiti, jartzen-déna
Orren mayan arturíc,
Pasa-dezan anitz péna
Infernuan sarturíc.

346.
Dena emen erregalátzen
Amoresco mai sandúan,
Ez an erre errabiátzen
Utzi bere iraren súan.

347.
Esperanza berce aldéra
Dut Jesusen oneguían,
Eramanen gozatzéra
Nauela bere glorían.

348.
Icusi ene Jesus óna
Aguerrian uste-dút
Alchaturic or dagóna,
Naiz mereji-ezpadút.

349.
Emen ala apaltzen-déna,
An da goratzeco ni,
Emen ala ematen-déna,
An emateco obequí.

350.
Prenda eman-du lendaníc
Bere odola ta vicía;
Emen daucat emaníc
Prenda Jesus den gucía.

351.
Prenda socac ta catéac,
Pilarea ta azotéac,
Cana-gura ta arantzéac,
Lanza, gurutze ta itzéac,

352.
Memoria-bat ta bilgúra
Nai-baduzu guciéna,
An da Sacramentu-gúra
Guciac biltzen-tuéna.

353.
Or guciac bilduríc
Jesusec ofratzen-tú,
Ala seguraturíc
Nai-dutenac uzten-tú.

354.
Baitare llaguen cuntzéac
Glorian dauzqui glorióso,
Nola arrac ta señaléac,
Dela arimaren espóso.

355.
Dire prendac alabér,
Eta letrac firmaréqui
Diotenac claro edér,
Nai-naucla ni beréqui.

356.
Alaber dire escritúra
Declaratzeco pagúa
Ene zorren eman-gúra,
Niri emateco cerúa.

357.
Dago Jesus an ta emén
Paraturic fiadóre
Ene partes ematén
Pagamenda ene favóre.

358.
Justicia pagaturíc
Bego ya, ene Jesns óna,
Sentencia borraturíc,
Ene contra len cegóna.

359.
Orren costus ea orái
Biz sentencia ene favóre,
Aguertus duela bái
Amore adiña podóre.

360.

Salvo naiz, nago segúr,
Jesus, orrec nai-badú:
Nai-ote-du, naiz beldúr?
Nai-du, Jauna, bai nai-dú.

361.

Dire gaizqui-naucaténac
Sollic neure becatúac,
Andic dire nere pénac;
Orren-ganic consolúac.

362.

Orren odol preciosóa,
Ta bere amaren esnéa,
Ta contricio amorosóa
Erremedio biz enéa.

363.

Semearen ta amarén
Oñetan paraturíc
Egon-nai-dut penarén
Citara nic arturíc.

364.

Nai-dut egon bitartéan
Soñatzen ta cantatzén,
Ala biequi batéan
Ene gaitza sendatzén.

365.

Citara amoresco péna,
Negarra nere soñúa,
Confesio becatuéna
Izanen-da ene cantúa.

366.

Nago aguitz penaturíc
Gaizqui-eguines, o Jesús,
Il negarres urturíc
Nai-dut amoresco sus.

367.

Beguiac ya goratzéa
Cerura eztut merejí,
Ain guti orrec beiratzéa
Begui onequi ya nirí.

368.

Alaere galduríc
Naiz ni nagon itsuquí,
Jesus urricalduríc
Beira-bez amoltsuquí.

369.

Ene arimac du sentí
Ez-nauela botatzén,
Bere-ganic, baicic ni
Bere-gana tiratzén.

370.

Non da alaco anayaríc,
Non esposo alacoríc,
Non aitaric ta amaríc,
Ori becalacoríc?

371.

Nere gaichsto gueyeguías
Nago ni emen penatzén,
Baña orren on oneguías
Naiz bateo gozatzén.

372.
Confesatzen-dut eguía,
Delaric gaichstoaréqui
Jesus ain on oneguía,
Ceric bide-da onaréqui!

373.
Esperanzaren gozóa
Gozatzen-dut nic emén;
Emen dena ain gustosóa,
Guero cer izanen-dén!

374.
Emen, ene Jesus óna,
Nai-dut egon orrequí,
Eci orrequi emen dagóna
Ongui dago, ta ederquí.

375.
Au izanen-da mundúan
Ene gloria emen daiquéna
Or Sacramentu Sandúan
Egon beira alchatzen-déna.

376.
Arat onat munducóac
Nora nauten dabiltzála,
Emen preso ni naucála
Ene Guizon-Jangoicóac.

377.
Barimbada graciaríc,
Barimbada fruituríc,
Barimbada gloriaríc,
Emen dago bilduríc.

378.
Ceruco ta lurrecóac
Bear-gara conformatú
Nola eche batecóac
Ta Jesus Jauna amatú:

379.
An aguerri glorióso
Icusis ta goratús;
Emen estali amoróso
Sinetsis ta maitatús:

380.
An dagona gloriastátzen
Ango gende doatsúac,
Emen berriz graciastátzen,
Ta aberasten beartsúac.

381.
Gucien erregue orái
Emen ala alchaturíc
Jesus ona ez-nuque nái
Utzi nic atzenduríc.

382.
Jesus ona, cerequí
Dezoquet pagatu nic
Egon-naya nerequí
Ori, nor den chsaquiníc?

383.
Erregue goren goréna
Jesus ala gurequí!
Ene dicharic obéna
Emen erreguerequí.

384.
Erreguec du convidátu
Bere tratura probéa;
Probeac ecin ucátu
Tratu-gan ecin obéa.

385.
Bego eguinic elcarréqui,
O Jesus, tratu guréa,
Ori nerequi, ni orréqui,
Ni orrena, ori neréa.

386.
Nic estimatzen-badút
Erregue echola apaléan,
Guero icusi uste-dút
Bere corte errealéan.

387.
Ordañac itzultzen-dítu
Jesus onac noblequí,
Ofensac pagatzen dítu
Gaizqui-eguinac onequí.

388.
Ongui nautenac nai-dítu
Beras pagatu obequí;
An ceruan inen-dítu
Jaun erregue berequí.

389.
Baña arara baño lén
Ederqui pagatzen-dú,
Batendaco, naiz emén,
Eun yago ematen-dú.

390.
Ones on apostu eguín
Nai batec orrequi orái,
Millendaco bat ecín;
Orren ona norc gurái?

391.
Iten-badut cerbait on
Nic orren amoretán,
Ordañac milla millón
Tut ene favoretán.

392.
Naiz ezpalitz prochuríc,
Nic bear-dut onetsítu;
Naiz espalitz damuríc,
Eztut bear ofendítu:

393.
Naiz ezpalitz ceruríc,
Naiz ezpalitz gloriaríc,
Naiz ez ere infernuríc,
Naiz baterez penaríc:

394.
Asqui da Jesus nor den,
Nola ni amatzen-nauén,
Ene-gatic nola il-dén,
Cembat pasatu-dnén:

395.
Ta gucian azquenéan
Asqui da emen egotéa
Accidente-goyen péan,
Ta bera niri ematéa:

396.
Amatzeco Jesus nic
Biotz ta arima gucías
Erre ta deseguiníc
Amoresco su vicías.

397.
Jesus bada amatzen-dút
Sintasun guciaréqui,
Jesus respiratzen-dút
Ene anelo ta antsiaréqui.

398.
Amatzen-dut yago bái
Eci munduco gustóac,
Eci estima, ta andinái,
Eci amore, ta gozóac:

399.
Yago eci nai-duen gucía,
Eci ondasun munducóac,
Eci osasun ta vicía,
Eci dono cerucóac.

400.
Nai-dut afectoaréqui
Biotz gucia empleatús,
Nai-dut efectoaréqui
Obras eta trabajús:

401.
Nai-dnt perfectoaréqui
Naiz trabaju pasatús,
Amoresco suaréqui
Vici-gau acabatús.

402.
Amatzen-dut, eta fiñac
Amatzeco tut antsíac,
Ambat nola serafiñac,
Nola bere ama onetsíac.

403.
Amatzen, ta dut placér
Ama-dezaten cerúan
An direnec, ta alabér
On direnec desterrúan.

404.
Amatzen, eta dut péna
Ezpaitute ascoc amátzen
Ain amable amante déna
Jesus ona, ta estimátzen.

405.
Nola daique ama-dezáten
Jauna ezauntzen ezpadúte?
Arqui-bezqui ezaun-dezáten,
Orrequi amatuco-dúte.

406.
O ezaumentu-gabéac!
O Jesus ceruco arguía!
Argui-beitez ilumbéac,
Icus orren oneguía.

407.
Amatzeu-dut nai-nuquéla
Ama-dezaten gucíec
Goiti beiti non-nai déla
Jesus ilec ta vicíec.

408.
Nai-nuzque biotzac bíldu
Or guciac mai sandúan,
Guciac erre pispíldu
Orren amoresco súan.

409.
Erre ta pispil-bedí
Enc biotza bentzáit,
Ala consola-bedí
Pasatuas nolapáit.

410.
Dut dolore amorosóa
Ez amatuas lenágo:
Ta amore dolorosóa
Amatu-nayes gueyágo.

411.
Jesus, orrec lendanic
Amatu-nau beti ni:
Eztut len ta ez guero nic
Asqui amatu berorí.

412.
Ez-gara bada bardín
Ori, Jesus, eta ni;
Deusez ni, ta deus ecin;
On gucia berorí.

413.
Ala ere amatu-náu
Len ta gnero ni sinés,
Ondasunes bete-náu,
Ene amores sobra inés.

414.
Ala ere amatu eztút
Asqui beñere Jesús,
Atzendu bai, ta eguin-tút
Beti ofensac sobra itsús.

415.
Ene ofensac castigátu
Orrec onqni berriéqui;
Ebec contra nic pagátu
Tut ofensa indignoéqui.

416.
Pena erruac mereji
Nic: eta cer dida emán?
Favoratus ederquí
Gora nai-nau eramán.

417.
Jesusec mereji-eztú
Guc ofendi-dezagún,
Eguiaz mereji-dú
Gucis ama-dezagún:

418.
Conta eguin ta iten-dugú,
Gucia bai contra guc,
Sobra ofenditzen-dugú
Bai amorearen truc.

419.
Bear bai, eta ez amátzen;
Ez bear, eta ofendítzen!
Jauna, nola tolerátzen,
Nola gaitu gu sufrítzen?

420.
Ya bada, Jesus neréa,
Garaitu-du ene gaizquía
Ones; bada ene amoréa
Ar-bez, ta naiceu gucía.

421.
Nauca ya garaituríc,
Berorrena da victória;
Nauca ya errendituríc,
Biz orrèna nere glória.

422.
Ea quendu ene misériac
Firma ni caridadéan;
Nic orren misericórdiac
Cantatu eternidadéan.

423.
Vici bear-dut gucís
Berce guisas ya daníc
Condicio zarrac utzís,
Guizon berria izaníc.

424.
Ez-nayela izan maldér
Ya bada ni, ene Jesús,
In-benaza sandu edér
Sacramentuaren sus.

425.
Icatza gorituríc
Brasa eder itzultzen-dá;
Or arima suturíc
Sanda eder eguiten-dá.

426.
Ez-nayela vici ni
Ni baitan, ori baicíc,
Eztayen emen aurquí
Orren contra den gaitzíc.

427.
Ori biz ene sucár
Erre-nazana gucía,
Ama-gaitzen beti elcár,
Ori biz ene vicía.

428.
Or nai-du nere acitzéa
Ceruco vicitzará;
Arracio da vicitzéa
Emen ango guisará.

429.
Niri Guizon-Jangoicóa
Comunicatzeu-da emén,
Beraren genio gozóa
Progatzen-da nola den.

430.
Ceiu ona den Jangoicóa,
Ezpace agueri osoquí,
Or Jesus amorosóa
Dago aguertzen claroquí.

431.
Maiz tratatus onaréqui
Nor-nai ontzen emen da:
Ez ontzecos Jesuséqui,
Erremedioric eztá.

432.
Ez ona, gaichstoa náiz;
Ona bai da Jesus óua;
Tratatus onequí máiz,
Ondu-bedi orren guizóna.

433.
Pacto-ebec, Jauna, nic
Nai in-zquigun elcarréqui,
Firma-bezqui oraidaníc
Orrec bere firmaréqui.

434.
Lena biz, orrena ni
Garela, ta ori neréa,
Firme dagola betí
Elcarrengo amoréa.

435.
Nere Jaunac nai-duéna
Nautela nic ere bái,
Berorrec nai eztuéna
Nic ere eztutela nái.

436.
Bigarrena, obra neréac,
Itzac ta pensamentúac,
Afectoac ta amoréac,
Ats, pausu, moguimentúac,

437.
Andi, chipi, dena déla
Vicitzean eta iltzéan,
Guciac izan-daitzéla
Orren gloria ta amoréan.

438.
Irugarrena, deitúac
On nereac graciaréqui
Doacela beti unitúac
Jesus onaren onéqui.

439.
Laurgarrena, eman-daquióla
Gloria, placer al gucía
Bacochean, ala nóla
Emanes nere vicía.

440.
Borzgarrena, nai-dutéla
Ongui-eguinas deseguín
Gaizqui-eguina non-nai déla,
Ezpaice bear eguín.

441.
Seigarrena, nai-dutéla
Aldioro aprobátu
Ongui-eguina non-nai déla,
Ta ene partes orri ofrátu.

442.
Zazpigarrena, cembát
Golpe ematen pulsoác,
Nautela diren ambát
Afecto amorosoác:

443.
Direla atsaldi gucíac
Ala nola arimarén
Aneloac eta antsíac
Nayes Jesus onarén.

444.
Zortzigarrena, orrendáco
Vici-nayela, banáiz
Vici; ta berorrendáco
Il-nayela, iltzen-banáiz:

445.
Ta ala vici, nola iltzéan
Berorrena ni naicéla,
Ta betean ta bercéan
Ene Jauna onra-dayéla.

446.
Bedratzigarrena, nic
Nitas etsiric nantéla
Confesatu, gauza oníc
Nere-ganic eztutéla:

447.
Gaicbsto dena ene-ganíc
Sollic ori datorréla:
On gucia orren-ganíc
Izan, eta izanen-déla.

448.
Ta salvatzen-banaiz ni,
Orren gracias ori déla;
Galtzen-banitz, contra orí
Neure culpas litzaquéla.

449.
Baña neure culpac ez
Ez-dezala, otni, garái:
Orren onac garai-béz,
Gracia eguines, gracia, bái.

450.
Amargarrena, noiz ni
Juiciora deitzen-nauén,
Ez bacarric, ez utzí,
Beticos gal-ez-nayén.

451.
Galtzeas etsituríc
Nago ni nere-gatíc;
Nego condenaturíc,
Ezpalitz orren-gatíc.

452.
Infernutic ni lenágo
Libratu-nan graciaréqui,
Erortzeco berriz nágo,
Ezpanauca ni beréqui.

453.
Berori ta ni batéan
Goacela juntaturíc,
Nerees contu ematéan,
Orrenac contaturíc.

454.
Ori fiadore biz,
Jesus, eta pagadóre;
Ene contra culpa anítz;
Orren onac biz favóre.

455.
Orren merejimentúac
Ene falta supli-béz,
Orrec in ta pasatúac
Ene partes cumpli-béz.

456.
Ene Jesus, azquenéan
Orren casos salvo ni,
Ceren eci orren menéan
Jangoicoac du iminí.

457.
O Jauna, emen ezpadá,
Nion ez salvacioríc,
Ceren nior ere eztá
Ori becalacoríc.

458.
Ezta glorian dagoníc,
Ezpada orren amoréz,
Ori-gabe gauza oníc
Ezta nion, nion ez.

459.
Orren casos, Jesus óna,
Nic ere esperatzen-dút,
Ceren eci emen-dagóna
Ango erregue ezauntzen-dút.

460.
Bitartaño den lecúan
Ori, nic emen umil
Utziric orren escúan
Nai-dut vici, nai-dut il.

461.
Orrec didan amoréan
Nago ni fiaturíc
Ez nauela ez ondoréan
Utzico ni galduríc.

462.
Ene amores sobra bái
Eguin-du ta pasatú,
Cembait nic emen orái
Nai-dut errepasatú.

463.
Ene amores jautsi-có
Berorreu Majestadéa
Lurrera, ta jaintsi-có
Gure zamarra probéa.

464.
Virginaren sabeléan
In-ce guizou Jangoicóa
Ta Belengo portaléan
Aur jayo-ce chipityóa.

465.
Egon-ce pachsaturíc
Bere amaren besoétan,
Baitare paraturíc
Gambelaren agotzétan.

466.
Ene amores alabér
Canibetas ala nóla
Achsuriac goiz edér
Ematen-du bere odóla.

467.
Andic fite perseguítus
Erodesec il-nayés
Jesus ona anitz sufrítus
Egiptora joan-ce iguéz.

468.
Izanic perseguitúa
Erregueren su errúan,
Vicitu-cen aurzutúa
Pensa nola desterrúan.

469.
Gauza gucien jabéa
Ala desterraturíc
Egou-ce nola probéa
Gucien bearturíc!

470.
Nazareta itzuliríc
Bere amaren compañían
Alchaturic ta ichsilíc
Egon-ce dembora andían.

471.
Estalis majestadéa
Cen Jangoico Jaunaréna;
Aguertus umildadéa,
Erremedio gnizonéna.

472.
Oracio ta peniténcia
Cembat an gure-gatíc!
O Jaunaren paciéncia!
Onac gaichstoen-gatíc?

473.
Dembora ellegaturíc,
Atra-ce eguzqui berría
Cerutic aguerturíc
Jesus andic etorría.

474.
Iluntasunac arguítu,
Videac tu eracustén,
Gaitz guciac quentzen-dítu,
Ta on guciac ematén.

475.
Jangoico Jaunaren óna
Guretaco nola dén,
Progu Jangoico-Guizóna
Jesus ona dngu emén.

476.
Obra on ta milagróac
Eguitea anitz badá,
Baña trabaju alacóac
Pasatzea yago da.

477.
Cer-gatic, Jesns, pasátu
Aimberce orrec? Cergatíc
Sobra den ona, ta amátu
Sobra duen, orgatíc.

478.
Baña amatuec amátu
Bearrean, contra eguín;
Nai-zute ori acabátn,
Naiz berac bai deseguín.

479.
Nola tzacurra eror-déna
Jocatzen ozcatzerá
Berc jabe jautsi-déna
Butzutic atratzerá.

480.
Lembiz galzale galdúac
Alcindu-cire judúac
Beren ustes bai sandúac,
Baña eguiaz deabrúac.

481.
Judasequi tratu in-zúte
Oguei ta amar dirután,
Merque Jauna icusten-dúte
Berla beren escután.

482.
Traidoreac aparéqui
Jesus entregaturíc
Berla cate socaéqui
Daramate loturíc.

483.
Ala presentaturíc
Anasi Jaun oneguía,
Beira ya golpaturíc
Bofetadas aurpeguía.

484.
Orduraño egondu-cé
Jaun ona ichsil ichsíla,
Orduan mintzatu-cé
Bearres umil umíla.

485.
Gaizqui mintzatu-banáiz,
Erran-zadazu certán;
Ezperen, cer-gatic náiz
Eritua guisortán?

486.
Nior favore an etzé,
Naiz eguia ezaunduríc;
Jaun ona guelditu-cé
Aurpeguia ubelduríc.

487.
Andic Caifasen echéra
Damate guisa beréan,
Non bilduric batzarréra
Ceuden guciac batéan.

488.
Cego Jesus oneguía
Erdian paraturíc
An ala nola achsuría
Otsos inguraturíc.

489.
Odios ayec beteríc
Invidia ta iraren sus
Etzute nai berceríc
Baicic il gure Jesús.

490.
Cer culpa du achsuríac
Onen ilaraztecó?
Bai otsoen gosetíac
Nai-du zaticatzecó.

491.
Ayec andic ta emendíc
Dabiltza afanaturíc,
Albaleique niondíc
Arrapatu punturíc.

492.
Eguzquiaren arguían
Nola ez ilunduraríc,
Ala Jesus oneguían
Ezta culpa motaríc.

493.
Ezta pasatzen eguía
An, gucia da guezúrra;
Norc an Jaunaren beguía
Atenditzen? norc beldúrra?

494.
An onaren contra díre
Guciac, nior favóre;
Alaere nola ai-díre
Eman-nayac on colóre!

495.
Engañatzeco mundúa,
Cein testigo, nolacóac,
Billatzea da modúa,
Au da, beren guisacóac.

496.
Ebec ayen alderát
Asco guezur eguiníc,
Ecin compon zuen bat
Eguiaren urriníc.

497.
Preso Jauna cego umíl,
Sereno, modesto, gráve,
Baice agueri, naiz ichsíl,
Cela sandu culpa-gábe.

498.
Caifasec, ira andi-bát
Arturic, badio emén,
Eztuc aditzen cembát
Ire contra erraten-dén?

499.
Ichsil Jesus: arc orgátic,
Ea, diat manatzén
Erran-zaquen Jauna-gátic,
Cristo Jesus i aicén.

500.
Emeu Jesus oneguía
Mintzatzen-da bereála,
Ala da sines eguía,
Berorrec erran becála:

501.
Ta ala preso daucaténa
Orai guciec erdían
Dela guero etorco-déna
Majestade gora andían.

502.
Caifasec dio ontarát,
Capa zarrastaturíc,
Erran-du blasfemia-bát
Ona, ceurec aituríc:

503.
Testigo yago certáco?
Zuei cer zaice idurí?
Erran-zute ayec ontáco,
Iltzea du merejí.

504.
Euchi berla ango gendéac
Aurpeguira lichstucátzen,
Atratzen buruco illéac,
Andic ta emendic golpátzen.

505.
Guero burla yago ecín,
Beguiac vendaturíc,
Golpe eman ta galdegnín,
Erran-zac, norc eman-díc?

506.
Norc alaco festaríc
Alaco Jaunari adítu?
Poderoso delaríc,
Jesus, nola du sufritu?

507.
Gau-garren gañaracóan
Cembat pena-nequetán
Egon-cen calabozóan,
Norc pensa, ta norc errán?

508.
Gau-gura pasaturíc,
Urbilen ortzilaréan
Daramate loturíc
Jaun ona guisa berán.

509.
Gendetzea bilduríc,
Daramate Jesus ála
Armas inguraturíc
Ladrou andi-bat becála.

510.
O guizonen uts gaichstóa!
Tratatzen nola ladróna
Gure Guizon-Jangoicóa,
Gnre Jangoico-Guizóna!

511.
Ain daucate gaichstotáco,
Eci juezac galdetzéa
Artzen-dute puntutáco,
Berla nayes eriotzéa.

512.
Galdeturic alaére
Claroqui ezauntzen-dú;
Ezta culparic batére
Ontan, declaratzen-dú.

513.
Ecin errecabatús
Pilatosec ayequí,
Erodes-gana Jesús
Bialtzen-du berequí.

514.
Asten-dire emen berríz
Culpatzen Salvazaléa
Porfiaz, nola balíz
Munduaren galzaléa.

515.
Jesus onac itzic-gábe
Guciac garaituríc,
Ta mostratns ala gráve,
Erodes arrituríc.

516.
Emen Jesus on garbíac
Urde-gurren alderát
Eztu goratu beguíac,
Eztaere atra itz-bát.

517.
Arc ere eztu juzgátzen
Jesus gaichsto gaizquieguílle,
Solamente du tratátzen
Ero guisa ta irriguílle.

518.
Manta churi-bat parátu,
Ta arrapaturic erdían
Irris an zute jocátu
Ero guisa hurla andían.

519.
Ero guisa Jesus óna
Emen ala iduquitzén
Goiti ceruan dagóna
Querubinen arguitzén!

520.
Alaco gala berrían
Jesus ona itzultzen-dá,
Ya famaturic errían,
Gendequeta biltzeu-dá.

521.
Atra-bedi icusterá,
Nou juez universála
An batetic bercerá
Damaten reo becála.

522.
Jaun ona bere menéan
Juezac icusiríc,
Len errana ta azquenéan
Dio eztela causaríc.

523.
Libratu-nayes presóa
Gogoratu-cequio céna
Biramona ayen bazcóa,
Libratzeco nai-zuténa.

524.
Au nai-cezaten obéqui,
Ladron gaichsto-bat arrás
Eman-zue antara onéqui,
Deitzen-cena Barrabás.

525.
Oyu iten-du bai orgátic,
Libre bear-da bat berás,
Cein nai-ducie bietátic?
Jesus edo Barrabás?

526.
Ayec emanac diréla
Galtzerá gucis arrás,
Oyus diote uautéla,
Ez au, baicic Barrabás.

527.
O biotzen gaitz gaichstóa,
Noraño daiquen elléga!
Utzi beren Jangoicóa,
Contra denai ala apéga!

528.
Cembat aldis bere arióra
Ala erran-dut obrequí;
Eztu bada, ene juicióra,
Orrec ala merejí!

529.
Pilatosec etsiríc
Etzuzquela beratú,
Zue daiquen gaizquiríc
Gaichstoena pensatú.

530.
Pensatu-zue beréqui,
Ederqui azotatu-déla
Conteut icustearéqui
Or baratuco-ciréla.

531.
Alaber barimbadú
Onec becatu cerbáit,
Ala pagatuco-dú,
Cio, dena nolapáit.

532.
Uts eguin Pilatosée,
Nondic-nai beiraturíc:
Ta pagatu Jesusée
Naiz ez merejituríc.

533.
Cer espera ayen-ganíc,
Ceñec beren temaréqui
Ya satanasi emaníc,
Pacto zuten beraréqui?

534.
Preso-goi bada norc dúda,
Ona dela ta oneguía?
Beguira berez eldú-da,
Ain claro da nola arguía.

535.
Bada aurquitzen eztióla
Causaric, orrec errán:
Pena andi-goi beras nóla
Juez batec nai-dio emán?

536.
Baña culpac guizonénac
Izanic, galdus elcár;
Jesus ona, baña pénac
Guciac orreu bizcár!

537.
Prevenitzen verdugóac
Dire ya sei guizatzár,
Gorputzac eta gogóac
Sendo, cruel, eta azcár.

538.
Jaun ona biluchsiríc
Ayen erdian umíl,
Nautenera utziríc
Nola achsuri-bat ichsíl!

539.
Bortz milla ta yago azóte
Beren indar guciéqui
Jaunari ematen-tióte,
Aldiscatus elcarréqui.

540.
Nola zuten zaticátu,
Nola zuten deseguín,
Ustu odoles, eta urrátu,
Nola pensa? norc chsaquín?

541.
Gure culpa anitz ta andíen
Pena berac arturíc,
Lastima gueldi-dadíen
Ain gucis urraturíc.

542.
Ala ere, naiz ecín
Dagoquen onen gañéan,
Eztu arquitu norc eguín
Lagunzale chutitzéan.

543.
Pena-gonen atzetíc
Eztute uzten ala ez;
Pasatu bai gaitzetíc
Gaitzagora, daiquenéz.

544.
Diote elcarri sayonéc,
Au erregue eguin-zagún,
Erreinatu nai-du ouéc,
Ea, corona-zagún.

545.
Forjatus arantzeéqui
Uztai-bat ala ingurúan,
Bere punta tzorrotzéqui
Frincatzen-dute burúan.

546.
Trono guisara da alquía,
Cetro guisa cana-bát,
Soñetaco estalquía
Purpurasco zatar-bát.

547.
Ala eguinic, ayendáco
An ce festa irrigarría,
Baña serafinendáco
Icusteco arrigarría.

548.
Ellegatus bat-banáca
Guciac gaichstaquerían,
Bera adoratzeco ñáca
Iteu-dute burlerían.

549.
Belaun-bat inclinatús
Cortesias bai segúr,
Badoaz salutatús,
Judueu erregue, agúr.

550.
Bitarteo gozogo
Eguiteco festa andía,
Ceñec baño ceñec yágo
Eguinea gaichstaquería.

551.
Batac listucaldi-bát
Aurpeguíra botatzén,
Berceac zaflada-bát
Matelean ematén.

552.
Gueyenec cana artzen-dúte
Ceucana bere escuán,
Arrequi golpatzen-dúte
Jesus ona buruán.

553.
Ainguenuac nola nóla
Bide-ceude arrituric,
Beiratus Jauna cególa
Ala irris jocaturíc!

554.
Etzute licenciaríc!
Erregue mendecatzéco;
Non ce pacienciaríc,
Ezperen, ala icustéco?

555.
Nola orrec, dena izaníc,
Jesus, zue sufritú?
Paciencia orren-ganíc
Nai-nuque nic aurquitú.

556.
Jesus, alque daquidála
Ni beñere quejatzéas,
Oroituric orren ála
Alacoac pasatzéas.

557.
Pilatosec bide-zúe
Ala icusis urricári,
Eci causatu uste-zúe
Ala aguertus gendeári.

558.
Jesus bada aguertu-zúe
Ain aldaturic ichúra,
Eci bear izan-zúe
Erran, ona guizon-gúra.

559.
Aitac beiratus Seméa
Alacoa, dió cer?
Au da ene Seme maitéa,
Ceintas nic duten placér.

560.
Bere Ama Virginac báda,
Icusis alaco ichúra,
Sentitu-zue estocáda
Simconec erran-gúra.

561.
Congojac arimaráño
Mortalac sentituríc,
Nola etzen il oráño
Biotz-gura ilunduríc!

562.
Gure amores, ene aríma,
Ala Jesus beira-zágun,
Izan-zogun bai lastíma,
Il-artaño estima-zágun.

563.
Baña ayec dutelaic an
Jesus ala beiratú,
Lastimatu-dire aguián?
Ez, baicic yago iratú.

564.
Nai-dute lan bein asía
Bucatu arras, ala nóla
Otsoec jan achsuría,
Chastatus-gueros odóla.

565.
Au da clamatzen-duténa,
Quen ordic ori, quen-béz;
Au repetitzen-duténa,
Quen-bez, crucifica-béz.

566.
Dio arc, dacusalaríc
Gucia nola dagón,
Nic eztaquit causaríc,
Or ar-zace, ta or compóu.

567.
Ona ni informaturíc
Emen ceureu alcinéan,
Eztaucat progaturíc
Den culparic chipienéan.

568.
Ez-eta Erodesec ére,
Eci ceurec ermaníc
Eztio aurquitu batére
Culpa, bentzait andiríc.

569.
Ayec dute alegatzén,
Gure legues il-bear-dá,
Ceren Jangoicoarén
Seme beroi eguin-dá.

570.
Dauzqui erriac nasitúac,
Erregue nayes izán,
Cesari ere trebutúac
Ez-ditio nai emán.

571.
Pilatos arrituríc
Sartu-ce sollic barnéra,
Jesus berequi arturíc
Eguias informatzéra.

572.
Otc-daiqueu Jangoicóa,
Dudan, dio, galdetzén,
Nor den bera, ta nongóa,
Ta uola preso utzi-dén.

573.
Erregue barimbazára,
Nola etzara defendátu?
Edo, dio, nola zára
Niri ceuroi entregátu?

574.
Ezta zuen munducóa
Erreguetasun neréa,
Bai, dio, goragocóa
Da nic duten podoréa.

575.
Etzinduque ez escuríc
Ene gain zuc, emaníc
Ezpalitz an cerutíc
Jangoico Jauna-ganíc.

576.
Orduan Pilatoséc,
Beras zara erregue zu?
Berla ontara Jesuséc,
Ala zuc erran-duzú.

577.
O Jesus, galdetu-dáique
Erregue ori den berás,
Ceren eci ezaun-eztáique
Tratamentu manerás.

578.
Baña erregue da sinés
Ta erregue goren goréna,
Naiz daucaten ala inés
Tratamentu den charréna.

579.
Erregue da, ta ezauntzéco
Ori, dire señaléac,
Bai ceruco ta lurréco
Miragarri admirabléac.

580.
Or tuen insiguiéqui
Naute erregue burlascóa
Pinta, baña naiz oyéqui
Da erregue eguiascóa.

581.
Cetrotaco cana-bát
Eman-dio gende itsúac:
Ta orrec orrequi oroát
Dezazque doma infernúac.

582.
Nai-dut yago ene favóre
Jesus bere canaréqui,
Eci erregueen podóre
Gucia bere armaéqui.

583.
Potestade divinóa
Orren cetro da propía,
Ceñequi cena apaltyóa
Eguiten-du erregue andía.

584.
Ori arantzes ta dolóres
Coronatu da mundúan:
Orrec glorias eta onóres
Coronatzen-tu cerúan.

585.
Beira beira Salomón
Divinoa, eta noláco
Corona paratu-dión
Ugazamac onratáco.

586.
Alaere Jesus óna
Eder iduritzen-dú,
Bere amoreac coróna
Au ere eder iten-dú.

587.
Apatzen-tut arantzéac
Ene Jesus onarénac,
Ala nola señaléac
Amore didanarénac.

588.
Baña purpura zatárrac
Cer du adiaraci nái?
O amoresco negárrac,
Zuen bear naiz orái.

589.
Aichstean manto churía,
Orai berriz du gorría;
Ona ceruco achsuría
Ene amores etorría.

590.
Churía da ta gorría,
Au da, ederra ta amantéa,
Arimen maitagarría
Esposo ona ta maitéa.

591.
Gure arimen amoréac
Nolaco estadora du?
Apenas ama beréac
Idurias ezaundú.

592.
Gloriaco Erregue dagóla
Berau norc erranen-dú?
Jangoicoac au dióla,
Elizac clamatzen-dú.

593.
An nic sinesten-dutéla
Martarequi diot nic,
Jesucristo bera déla
Gure mundura emaníc.

594.
Ori da Seme propía
Jangoico viciaréna
Mundu-gontara etorría
Jangoico ta guizon déna.

595.
Ceruco ori ta lurréco
Jaun erregue da batéan,
Goiti beiti manatzéco
Podore bete betéan.

596.
Goiti an onratzen-dúte
Aingueruec bai sinés,
Beiti desonratzen-dúte
Charrec emen burla inés.

597.
Naiz umil egona-gátic,
Nai dut nic aingueruéqui,
Ta ori delaic ene-gátic,
Obligacio yagoréqui.

598.
Emen adoratzen-dút
Gorputz eta arimaréqui,
An guero esperatzen-dút
Adoratu bai obéqui.

599.
Apatzen-dut cana-gúra
Orren escu errealéan,
Inclina nere burúra
Baquearen señaléan.

600.
Ta Moisesec vararéqui
Nola atra libre gendéa,
Orrec, Jesus, canaréqui
Segura uiri vidéa.

601.
Apatzen-tut arantzéac,
Arimaren eritzéco;
Ojala balire itzéac
Jesusequi jositzéco.

602.
Orebgo malda neréac
Biz, ni sutan egotéco;
Biz ordic nere loréac
Glorian ni coronatzéco.

603.
Purpura adoratzen-dút
Yago odoles gorritúa;
Erregue admiratzen-dút
Ene amores eritúa.

604.
Bere mantoaren péan
Jesus ona gorde ni;
Orren onaren menéan
Gucia dut iminí.

605.
Ori ene gordelecúa
Daucat orraico vidéan,
Ori beroi descansúa,
Jesus eternidadéan.

606.
Emen orren conturáco
Alcha nere becatúac,
Aguertu nere oneráco
Orren merejimentúac.

607.
Ala ni libra-nadíen
Justiciaren iratíc,
Jesus, eta atra-nadíen
Salvo orren ona-gatíc.

608.
Pilatosec nolapáit
Ezaundus Jesusen óna
Artzeu-du medio cembáit
Libertatzeco guizóna.

609.
Azquenic aguertzen-dú
Jesus ya ichuragabéa
Lastimas ta erraten-dú,
Ona zuen erreguéa.

610.
Ayec beti ira bortítz,
Lastimaric beñeréz,
Clamatzeu-dute berríz,
Quen-bez, grucifica-béz.

611.
Dio ez-nayes disgustátu,
Il ere ez, sinesten-dút,
Erregue crucificatu?
Zueu erregue ilen-dút?

612.
Ayec iras beteric
Goratzeunte clamoréa,
Guc eztugu erreguerîc,
Baicic emperadoréa.

613.
Ori ezta adisquide arréna,
Au nai-badu libre utzí,
Eci erregue iten-déna,
Arren contra da vicí.

614.
Pilatos lotsaturîc
Juez char ta cobardéa
Dago destinaturîc
Galtzera zucenvidéa.

615.
Jangoicoas guti ajóla,
Anitz ajola mundúas;
Nola daiquo admira, nóla,
Guero gucia galdúas?

616.
Cumplimentu bai ichúras,
Escuac garbitzen-tú
Alcinera ecar-deu úras,
Ta itz-guebec erraten-tú:

617.
Justo-gonen odoláren
Causan garbi libre nágo:
Orra zuen arimáren
Carguan utziric dágo.

618.
Ayec emen, beira nóla
Arras itsuac dirén,
Biz, diote, onen odóla
Gure gain ta gureén.

619.
Juez gaichstoac ordúan
Eman-zue escatu-céna
Sentencia-gura mundúan
Eman-daiquen gaichstoéna.

620.
Obediente Jesus óna
Errenditu-ce gucía,
Ceren Judaco leóna
Itzuli-cen achsuría.

621.
Gure amores du admitítu
Vicitzaren ematéa,
Ala du gucis cumplítu
Aitaren vorondatéa.

622.
Ni naiz, erranes, lurréan
Bota guciac lenchágo,
Nai-baluque orai beréan
Lezazque bota aratágo.

623.
Jesus ona utzi-da orái,
Charrec artu potestáde,
Eguiteco nola-nái
Berarequi anitz maldáde.

624.
Artzen-du bere soñéan
Gurutze-gura ain pizúa,
Ta darama arren gañéan
Gure culpen pizu errúa.

625.
Daraina preso oneguíac
Ecin iues videríc:
An etsai ditu gucíac,
Nior adisquideríc.

626.
Ez odol, ez indarríc
Eztuela ya casí;
Lastima ta negarríc
Niorc an ez icasí.

627.
Erdi ilic, ta ayec tirátus
Erori, ta ecin jaiquí;
Jaiquiarazten meachátus
Golpeca moldegaizquí.

628.
Ta gucis acaituríc,
Eta atsa goraturíc,
Eta il colore arturíc,
Ecin eman pausuríc.

629.
Beldurtu-cire etzeiquéla
Ellega cargaren péan,
Eta il ere baceiquéla,
Nola etzuten nai, vidéan.

630.
Guizon-bat alocatzéa
In-zute, ez biotzetíc,
Erman-cezan gurutzéa
Bai Jesusen atzetíc.

631.
Cirenetar dichosóa,
Aliviatu baituzú
Jesus on amorosóa,
Alocairu ona duzú.

632.
Cirenetarra nic ére
Nai-dut izan biotzéan,
Pena amorosos berére
Segui Jesuseu atzéau.

633.
Veronica deitzen-déua
Firme Jesusen fedéan
Da animosa aguertu-céna
An doloresco vidéan.

634.
Beiraturic icerdía
Jaun onaren aurpeguían,
Izan-zuen ausardía,
Pasatzeco armeu erdían.

635.
Umilqui chucatu-cíon
Oyal-bates aurpeguía,
Artan Jaunac utzi-cíon
Impreso bere iduría.

636.
Berce batzuc beiratús
Jesus ala penatzén,
Segui-ecin baratús
Negarres lamentatzén.

637.
Ebei estimaturíc
Jaun ona mintzatu-cén,
Culpes lastimaturíc
Eracutsis penatzén:

638.
Jerusalendarrac, péna
Ez aimberce ene-gátic,
Ceuren-gatic bear-déna
Yago da ta umeen-gátic.

639.
Ceren eci zur ecéan
Au iten-barimbadá,
Pensa sines, earréan
Cer eguinen-bide-dá?

640.
Amac bada, ama obénac
Seme obena icusiríc,
Cer antsiac, ta cer pénac!
Nola cegon viciríc!

641.
Cego ya bucatu urrán:
Bere biotzeco míña
Ecin pensa, ecin errán
Niorc ere ceu adíña.

642.
Semeac guisa beréan
Beiratzeas ama-gúra
Ain penaren ondarréan
Cer tristura ta amargúra!

643.
Negar eguiten beguíac,
Biotzac mintzatu-círe,
Mia ichsilic, eta bíac
Elcar entendatu-círe.

644.
Calvariora ya iganíc
Beira ya beira lecúa,
Non duen ayen-ganíc
Jesus onac descansúa.

645.
Etziteco egüerdían,
Iten-diote goatzéa,
Errepausa neque andían,
Ar-dezan an, gurutzéa.

646.
Erran-dute etziń-dayéla
Zur-gartan edaturíc,
Ta ala reposa-dayéla
Ongui seguraturíc.

647.
Josiric an itzeéqui,
Irur edo laur dirén,
Gora airean zuraréqui,
Dilindan ala il-dayén.

648.
Bi ladron bi sayetsétan
Paratu ; ori certacó ?
Ezaun-dayen guciétan
Au gaichstoena, ortacó.

649.
Irur ordus agonían
Jesusec iraundu-zúe ;
Ain exceso gueyeguían
Gu-gatic pagatu-zúe.

650.
Zure amores icusázn
Zur-gartan Salvazaléa,
Icusazu ta icasázu,
Amatzen amazaléa.

651.
Jesus onac gure amóres
Aimberce pasaturíc !
Nola paga, naiz dolóres
Gu gucioc urturíc ?

652.
Icusagun ta icaságun
Doctrina ematen-digúna,
Azquen atsetan ai-zágun
Zazpi iztan erran-digúna.

653.
Etsayen favore léna,
Otoi, ene Aita, barcátn
Ebei gaizqui eguin-duténa,
Ezpaitute ongui pensátn.

654.
Jesus onac nai barcátu
Ain etsai gaichsto-gayéi :
Nola nic ez procurátu
On dena nere etsayéi ?

655.
Orren-gatic maite-tút
Contra direnac obéqui,
Jauna, pagatu nai-tút
Gaizquieguinac onquiéqui.

656.
Bigarren itza da, oóiz
Eguin-ciolaic ladrónac
Artas oroitzeco otóitz,
Erran cion Jesus ónac :

657.
Zuri diot ala déla,
Zaudena orai gurutzéan
Glorian egonen zaréla
Bai enequi egun beréan.

658.
Otoi nic orai beréan
Bai ladron-garrec becála,
Eriotzean ta ondoréan,
Jesus, berequi naucála.

659.
Irugarrena amarí
Utzis Juan semetáco,
Berla Juan berarí
Ama divina amatáco.

660.
O Jesus ene amoréa,
In-bez, otoi, nai-nuquéna,
Orren ama biz neréa,
Ta ni seme beraréna.

661.
Niri nola Juaní
Dicha bequida erorí:
Orren seme nayen ni,
Ene ama María orí.

662.
Laurgarrena, Jangoicóa
Jangoico nerea, ni
Ceren-gatic alacóa
Gurutzean nau utzí?

663.
Aurquituric eriotzéan
Ez-nazala orrec utzí,
Jesus, ez-nayen lecéan
Seculacos galdu ni.

664.
Borzgarrena, egarri-dút,
Erran-zue, Jaunarén
Gloria-nayes, uste-dút,
Ta guizonen onarén.

665.
Orren gustoco edaría
Bere odola logratzéa,
Arimen irabacía,
Ta Jaunaren onratzéa.

666.
Seigarrena gurutzétic,
Au, ció, cumplitu-dá:
Jauna, ala da bere aldétic,
Gure aldetic falta-dá.

667.
Ene aldetic cumpli-dáyen,
Jesus, orrec supli-béz:
Bere odola logra-dáyen,
Arima-gau salva-béz.

668.
Zazpigarren ta azquenéan
Gurutzetic cigu errán,
Guc nola iltzen-garenéan
Azquenic despeida emán:

669.
Aita, orren escuétan
Ene arima uzten-dút:
Jesus, orren ta arrenétan,
Nic nerea ematen-dút.

670.
Il-ce gure Jesus óna
Aimberce penen costús,
Il-ce Jangoico-Guizóna
Bai ta guizonen escús.

671.
Baña il-da noren-gatíc?
Jesus ala dolorés?
Il-da guizonen-gatíc,
Ta guizonen amorés.

672.

Exceso amorosóac
Eguiaz ta gueyeguíac
Eguin-tu poderosóac
Ene amores oneguíac.

673.

Gañetic sacramentúas
Cer dezaquet nic errán?
Gure-gatic pasatúas
Eztagola urriquitán.

674.

Pasatuac bilduríc
Berritzen emen orái,
Señale, ni galduríc
Ez-nauela utzi-nái.

675.

Contatzen-tut favoréac
Anitz ta andiac emén,
Prendac eta señaléac
Seculaco gloriarén.

676.

Criacion.

Criatu-nindue ni
Bere biotza-ganíc
Gorputz ta arimarequí
Duten gucia emaníc:

677.

Ezauntzeco ta amatzéco
Jangoico Jauna mundúan,
Ta betiro gozatzéco
Gozaturic an cerúan.

678.

Conservacion.

Conservatu-nau vicí
Beti ni nola beréa,
Cervitzaracis nirí
Urra, lurra, sua, airéa.

679.

Guti balitz campocóac,
Nau besotan ni iduquítzen
Nola unide divinóac,
Ta berequi mantenítzen.

680.

Preservacion.

Iltzetic nau preservátu,
Culpa, pena, gaitzetáic
Cembat, nola, nore pensátu?
Izan-nuzquen guisetáic.

681.

Condenatzetic librátu
Nau, in-tuten culpetán,
Cembat aldis, nore contátu?
Baitare in-nuzquenetán.

682.

Redencion.

Alaber nau rescatátu,
Nindegolaic galduríc;
Ene culpac tu pagátu
Infinito apalduríc.

683.

Betoz betoz icustéra
Ceruac arrituríc
Gloriaco Erregue béra
Ene amores galduríc.

684.
Plantacion.
Eliza ere du plantátu
Nola Noen arca obéna,
Non sollic daiquen salvátu
Sines salvatu-nai-déna.

685.
Vocacion.
Bere elizau nau plantátu
Zarmendu ta landaréa,
Bere ardia nau marcátu,
Eguin-nau ume beréa:

686.
Eguinic ni Cristoréna
Nola nic eztaquitéla,
Dicha-gau daiquen obéna
Mereji-gabe dutéla.

687.
Provicion.
Emen-dut ceruratzéco
Leguea zucenvidéa;
Ta ilumbean icustéco,
Ceruco arguia fedéa.

688.
Oracio, gauza sandúac,
Oroipen, festa, doctrínac,
Devocio, sacramentúac,
Arimaren medicínac.

689.
Justificacion.
Alaber dida barcátu,
Cembat aldis norc daquí?
Bere gracian nau parátu,
Naiz nic ecin merejí.

690.
Naiz gueyegui becatúac,
Noiz-nai penaturíc,
Berla dire barcatúac,
Ongui confesaturíc.

691.
Sustentacion.
Erregalo Jesus béra
Entrañetan sarturíc
Ematen-zaida jatéra
Amores guisaturíc.

692.
Emen-gaitu sustentátzen
Glorian den obenaréqui,
Ala gaitu gu prestátzen
Eramateco beréqui.

693.
Compañia.
Alaber dago contíno
Gurequi Jesus mundúan
Eguinic lagun divíno
Miragarrisco modúan.

694.
O cer fortnna guréa!
Baguindequi estimatzén,
Gloriaco Erregue egotéa
Contino gurequi emén!

695.
Sacrificion.
Ta sacrificatzen-dú
Bere burua egunóro,
Pasioa berritzen-dú
Len pasatua aldióro.

696.
Ematen-digu aditzéra
Ala, preciso balítz,
Gure amores iltzéra
Eman-leiquela berríz.

697.
Comunicacion.
Ta comunicaciorá
Admititzea elcarréqni
Da favore, oraciorá
Goacelaric beraréqui.

698.
Jangoicoac ta probéac
Ala tratatzen elcár,
Arc erauntsi favoréac,
Onec esca cer beár.

699.
Gouernacion.
Providencia beraréna
Nola entenda? nola estíma?
Itzulis agui-dayéna,
Salvatzera nere aníma.

700.
On baitire gaitzac ére,
Bere biotz onetíc;
Ez-naiz galdnco beñére
Ni beraren uldetíc.

701.
Guardia.
Aingueruac tu manátu
Guardatzeco ni vicían,
Ta dezatela cuidátu
Probeas vide gucían.

702.
Namate ebec arturíc
Escuetan aireán,
Eztayen tropezuríc
Ene etsayeu arteán.

703.
Inspiracion.
Nauca ni gordeturíc
Jaunac bere biotzéan,
Nola olloac bilduríc
Bere chitac egal-péau.

704.
Gaitzac quendu, onac emán
Cembat, cembat guisatán,
Niri berechs iu-didán
Ecin conta millatán.

705.
Inspiracion.
Dagoquida ere inspirátzen
Beti biotz barnerá,
Gaitzetic erretirátzen,
Ta tiratzen onerá:

706.
Ya cenzua niri arguítus,
Ya deitus amoltsuquí,
Ya biotza ere moguítus,
Ya ere uquitus erruquí.

707.
Obeditu banu nic
Inspiracio onetará,
Nindegoque ya eguiníc
Aingueruen guisará.

708.
Predestinacion.
Baitare predestinátu
Nauela ni Jangoicóac
Nai-nuque bai sinestátu,
Icusis gañaracóac.

709.
Nai-duéla, ta in-duéla
Salvatzeco orrec anítz,
Claro da, ta izanen-déla,
Nere coutra ni ezpanítz.

710.
Preparacion.
Eman-tida señalóac
Videa prestaturíc,
Paraturic escaléac,
Ateac zabalduríc.

711.
Orrec eguina ta emána
Ene amores da Jesús,
Ni ermateco bere-gána,
Naiz izanic erreús.

712.
Glorificacion.
Bere glorian Jangoicóa
Aguerrian icustéa
Da dezaquena gogóa
Bai ase bete betéa.

713.
Gracia gloriaren acía,
Jesus onac logratúa;
Lore esperanza vicía;
Gloria bere da fruitúa.

714.
Aci ona ta loréa
Orrec, Jesus, emaníc,
Alaber fruitu beréa
Eman-bez bere-ganíc.

715.
Eman-du bere vicía
Ene-gatic, Jesus óna,
Emanen-dida gucía,
Ta glorian guero coróna.

716.
Caridade divinac.
Caridade gueyeguía
Jaunac guri izan-digúna
Causa da ta mindeguía
On gucien eman-dúna.

717.
Jangoicoac maite-dú
Eguiaz guizaguendéa;
Onen-gatic eman-dú
Seme bacarra maitéa.

718.
Caridade gueyeguía,
Ceñequi Seme bacárra,
Eguin-cen aguitz chipía,
Arturic gure zamárra.

719.
Dena gucis oneguía
Becatari nai idúri,
Beira ya ezten gueyeguía
Amore diguna gúri.

720.

Becatarien amóres
Iduris becataría
Il-ce penas ta dolóres,
Artus gure carguería.

721.

Cer ez-dezaquet espéra
Nic, Jesus, orren-ganic,
Utzi-delaic ala iltzéra
Ene amores emanic?

722.

Amante-gau emen dut
Lengo amore beraréqui;
Nic bera amatzen-badút,
Jangoicoa da neréqui.

723.

Naiz ecin emen icús
Gorputzeco beguiéqui,
Amatzen-dut bai Jesús
Arima guciaréqui.

724.

Norc ni nauen amatzén,
Jesusec erraton-dú,
Ene itzac tu guardatzén,
Ta ene aitac amatzen-dú:

725.

Ta unituric elcarréqui
Bera-gana etorco-gára,
Ta gogotic beraréqui
Egotes egonen-gára.

726.

Beras ala alchaturíc
Jesus amatzen-badút,
Berarequi bilduric
Trintate gucia dut.

727.

Beras ain nola cerian
Jauna dagolaic emén,
Aingueruac ingurúan
Daude bera adoratzén.

728.

Beras ebequi batéan
Emen biz ene itecóa,
Vici-naicen bitartéan
Emen ceru lurrecóa.

729.

Biotz-gau, Jesus, ar-béz,
Ta berequi bat eguín,
Ta gañetic firma-béz,
Jesusena da Joaquín.

FORMULAIRE DE PRÔNE CONSERVÉ DANS L'ÉGLISE D'ARBONNE PREGARIAC BAYONACO DIOCEZACOTZ

Ioannes d'Olce

(1. argitarapena)
Bayonne
1866

Originala: Biblioteca General de Navarra

FORMULAIRE DE PRONE

CONSERVÉ DANS L'ÉGLISE D'ARBONNE,

ET RÉÉDITÉ SANS AUCUN CHANGEMENT

PAR LE PRINCE

Louis-Lucien BONAPARTE

A BAYONNE,

Chez Madame veuve LAMAIGNÈRE, rue Chegaray, 39.

En Février 1868.

PREGARIAC

BAYONACO

DIOCEZACOTZ.

Ioannes d'Olce Bayonaco Iaun Aphezpicuaren manamendux ordenatuac eta imprimaraciac.

BORDELEN,

G. DE LA COURT imprimaçaillea baithan.

—

1651.

PREGARIAC

BAYONACO

DIOCESACOTZ.

Ioannes d'Olce Bayonaco laun Aphezpicuaren manamenduz ordenatuac, eta imprimaraciac.

ELIÇA *sainduac, ceina baita guciz ederra, eta graciosa haren campoco edertassuna eguiten duten vestimendu sacratuen diversitatean, eztu guciarequin ere nahi humaleco diversitateric Sacramenduen administrationean, ez bere ceremonia sainduetan : ez eta oraino doctrinan ere, ceinez bere umeac hazten baititu bere Arçainen ahotic Parropietaco Mecen Pregarioetan :* In veste ista varietas sit scissura non sit. *Permettitzen darue Arçainei pensamenduen, Inven-* Aug. super Ps. 44.

tionen, eta campoco aggradamenduen diversitatea : bainen nola maite baitu batassuna bere fedean, eta haren bilçarreak ezpaitu fincatcen bere fermutassuna batassunean baicen, nahi du halaber iducaraci façoin bat bera Guiristino leialei eman eta irakhatsi behar çaizten doctrina, eta instructione necessarioenetan, eta'ez luque desiratcen, hala ahal baliz, lengoaia bat baicen guciei cervilçatceco, eta evangelioco Dorre, bethiere lurraren gainen handitcen duen hunen ceruraino alchatceco. Hartaracoiçat Errelor guciec, Vicarioec, eta berce arimen cargu dutenec iracurrico dituzte, eta hitcez hitz erranen, deusic berretu, edo gutitu gabe. Liburu hunetan diren Pregario hauc Igandetan bere Parropietaco Mecetan, eta lekhuetaco costumaren aravera berce Besletan.

1

IN NOMINE PATRIS, et Filij, et Spiritus Sancti. Amen.

Liburian iracurtuz erran behar da gucia.

GUIRISTINUAC egungo egunian bilducirete lekhu sacratu huntara gure Eliça Ama saindaren authoritatez.

LEHEMBICIRIC Meça saindiaren ençutera, cein erraiten baita Iesu Christo gure Iaunac curutcian eguin cien sacrificio odolztatiaren orhoitçapenian, offrendatcen diociela Aita Eternalari Iesu Christoren sacrificio bera, ez odolz-

2

tatia curutcian cen beçala : bañan odol issuriric gabe Apheçaren esquiez oguiaren, eta mahats anuaren idurien azpian. Eta bi arraçoin principalcatic offrendatcen diogu Aita Iaincoari Meçaco Sacrificio saindu haur. Lehenbicicua da, hari eçagutça, era adoratione handienaren eguiteco, nola guciz haren ganic dependitcen guiren, eta Iesu Christo gure Iaunaren heriotce, eta passione saindiaz, eta berce haren ganic errecibitu ditugun huntarçun suerte guciez, eta particularqui aste huntacuez esquerren emaiteco. Eta bigarrena, hari bere gracia, eta misericordiaren humilqui escatceco, eta haren ganic gure bekhatien barkhamendiaren, eta berce huntarçun spiritual, eta temporalen vicien, eta hilençat ardiesteco. Hargatic Eliçac eztaroca behinere offrendatcen Iaincoari Hostia saindu haur, non eztarocan bere ume leial vicien, eta hilentçat ere othoitz eguiten, gucioc Sacrificio saindu hunen huntarçunetan partalc guiren

3

amorecatic. Eta nahidu ciec ere iunta ditçacien harequin batian cien desirac, eta othoitçac, langoicoari gucioc elgarrequin othoitz eguiteco, eta huntarçun guciez esquerrac emaiten diotçagula errazquiago haren gauic erdirex ditçagun galdeguin behar diotçagun gauçac.

BIGARRENIAN bilducirete cien arimen salvatceco sinhetsi behar ditutcien gaucen ikhastera. Eta nola hec baitira Apostoliec eguin, eta utci daroguten sinhestian, erranenducie enequin batian.

1. CREDO in Deum Patrem omnipotentem Creatorem cœli et terræ.

2. Et in Iesum Cristum filium eius unicum Dominum nostrum.

4

3. Qui conceptus est de Spiritu sancto, natus ex Maria Virgine.

4. Passus sub Pontio Pilato, crucifixus, mortuus et sepultus.

5. Descendit ad Inferos, tertia die resurrexit à mortuis :

6. Ascendit ad Cœlos, sedet ad dexteram Dei Patris Omnipotentis.

7. Inde venturus est judicare vivos et mortuos.

8. Credo in Spiritum sanctum.

9. Sanctam Ecclesiam Catholicam, Sanctorum communionem.

10. Remissionem peccatorum.

11. Carnis resurrectionem.

12. Vitam æternam. Amen.

1. SINHESTENDUT langoico Aita bothere gucia diena baithan, ceru eta lurraren Creaçalian.

5

2. Eta Iesu Christo haren seme bakhoitz gure Iauna baithan.

3. Cein concebitu baitcen Spiritu saindiaren vertutez, sorthu cen Maria Virgina ganic.

4. Pairatu cien Pontio Pilatussen maniaren azpian, crucificatu çuten, hilcen, eta ehorci çuten.

5. Iautsicen ifernietara, eta hirur garren egunian iaiqui cen biciric hilen artetic.

6. Ikhancen Cerietara, iarriric dago Iainco Aita bothere gucia dienaren escuñeco aldian.

7. Hantic iauguinènda vicien, eta hilen iuiatcera.

8. Sinhestendut Spiritu saindia baithan.

9. Eliça catholica saindian, Saindien partaletarzunian.

10. Bekhatien barkhamendian.

11. Haraguiaren piztiau.

12. Bethiere iraunendien vicitcian.

Halabiz.

6

HIRURGARRENIAN iaugui cirete Parabisuco gloriaren erdiresteco behar ditucien gaucen ikhastera, cein baitira Iaincoaren, eta Eliça Ama saindaren Manamendietan eçarriac, eta erakhasten daragute cer eguin behar dugun, eta cer ez, orai erranen-dugun beçala.

Iangoicoaren Manamendu sainduac dira hoc.

1. IANGOICO bat adora eçaçu,
Halaber maita ossoqui.

2. Iuramenturic çuc eztuçu,
Ez ciñic eguinen vanoqui.

3. Igandiac beguiraitçatçu,
Iauna ere cerbitça debotqui.

4. Aita, eta Ama ohoraitçatçu
Viciciten luçazqui.

7

5. Nehor obraz hilen eztuçu,
Ez vorondatez gaixtoqui.
6. Paillardiça eguinen eztuçu,
Obraz, ez gogoz likhisqui.
7. Bercerena ebatsico eztuçu,
Ez goratuco iniustoqui.
8. Lekhucotasuoic eztuçu,
Ez hitça erranen falsuqui.
9. Bertceren espossic eztuçu
Desiraturen saxuqui.
10. Guticia içanen eztuçu
Berceren onaren gaizqui.

Eliça Ama saindaren Manamendiac dira hoc, cein beguiratcera obligatiac baicara Iangoicoarenac beçala.

MEÇA saindiaençun eçaçu
Besta, igandetan devoqui.

8

Bekhatiac cofessaitçaçu
Urthian behin ossoqui.
Gorphuz saindia erreciviçaçu
Bazcoz berere umilqui.
Eta Bestac beguiraitçaçu,
Manamenduzcuac sainduqui.
Gartha, vigiliac baruritçatçu,
Gariçuma ere ossoqui.
Orciralian ianen eztuçu,
Ez eviacoitcian haragui.
Ezteic eguinen eztuçu,
Dembora eztenian cilhegui.
Eta detchemac pagaitçaçu
Primiciarequin çucenqui.

Guehiago iaquin beharducie Iesu Christo gure Salvaçaliac gure arimen salvamenduco ordenatu darauzquiula, eta utci çazpi Sacramendu.

1. Bathaiua.

9

2. Confirmacionia.
3. Gorputz Saindia.
4. Penitencia.
5. Anunciua.
6. Ordena.
7. Ezconça.

SACRAMENDU hoc unsa errecibitcen ditugnn ordian, gure Salvaçaliac issurtcen darozquigu gure arimetara bere gracia saindiac, eta gure gatic curutcian issuricien odol preciatiaren merechimendiac, Hargatic gomendatcen darauciet hec unsa, eta ardura errecibitciaz.

LAURGARRENIAN bilducirete huna Iangoicoari cien othoitcen humilqui eguitera, lehenic placer dien bere ohoria, eta gloria avançaraci, eta Eliça catholica Saindia bere odol preciatiaz chahutu diena, conservatu, alchatu, berretu, eta

10

lekhu gucietara hedatu, eta mundu gucia baquian mantenatu, infidelac convertitu, heretico, eta berce haren obedient eztiren guciac bere gana ðeithatu, eta Fede eguiazcoaren batarçunian berriz iuntatu, eta eçarri.

HALABER othoi eguinen daracogu gure Iangoicoari Aita Sainduagatic, Cardinelen Collegio Sacratuagatic, Arz-Aphezpicu, eta Aphezpicu guciegatic, eta particularqui gure laun Aphezpiquiagatic, Erretor, eta berce arima cargu duten guciegatic placer daraen eman bere eguinbiden unsa eguiteco, eta vicitce hunaren exempliaz, eta doctrina saindiaz bere cargutan dituzten arimac mundu huntau unsa arguituric, eta instruituric, hequin batian ceruco gloriaren erdiresteco gracia.

11

GUEHIAGO othoi eguinen daracogu Iangoicoari gure Erregue, eta Erreguinagatic, eta Erresuma hunen governatcen heien Maiestatiac consellatcen, eta laguncen dituztenegatic. (Patronic balinbada erranbehardu urlia, icendaturic Eliça saindu huntaco Iauna Patronagatic). Cargudun guciegatic, eta particularqui herri huntacuegatic, placer ditien bere Spiritu Saindiaz aiutatu, eta favoratu, eta eman gucier gracia Erresumaco eguitecuen unsa governatceco, eta bere carguiez cein bere lekhietan chuchenqui, eta videzqui descargatceco, moien harçaz vici guitecen baque hunian, eta eguiazco Fede Catholicaren batarçunian.

OTHOIT eguinen daracogu halaber gure Iangoicoari, bekhatu mortaletan vici direnen gatic bere Spiritu Saindiaz argui ditçan, eta bekhatiac quitaturic, emandieçaen hunera convertitceco gracia : eta guehiago ezpiritien tri-

12

bulationetan, eta gorputceco erharçunetan direnengatic, placer ditien gaitz gucietaric libratu: eta itchassoco periletan dabilçanengatic, nahi ditien peril gucietaric beiraturic, salvamenduco portura guidatu.

EGUINEN diogu orano othoitz gure Iangoicoari, placer darauzquigun lurreco frutiac conservatu, hetaric behar duguna emaiten daracogula, hobequiago eçagut, adora cerbitça, eta lauda deçagunçat, eta esquerrac maizago, eta ardurago errenda.

ETA nola guc Iangoicoari galdeguin behar diotçagun gauçac, Pater nosterriau baitira, cein gure Salvatçaliac berac eguin, eta erakhatsi baitaraucu, erranen ducie enequin batian devoqui.

13

PATER noster, qui es in cœlis, sanctificetur nomen tuum : adveniat regnum tuum : fiat voluntas tua, sicut in cœlo et in terra. Panem nostrum quotidianum da nobis hodie : et dimitte nobis debita nostra, sicut et nos dimittimus debitoribus nostris. Et ne nos inducas in tentationem : sed libera nos à malo. Amen.

GURE Aita cerietan çaudena, etc.

ETA Iangoicoa ganic, galdeguiten daratçogun gauçac, hobequiago erdirestia gatic, emanen daracogu ararteco Virgina Andardana Maria, ceñen alderat içanen baitucie bethiere devocione particularbat, erraiten duciela enequibatian.

14

AVE Maria, gratia plena : Dominus tecum : Benedicta tu in mulieribus, et benedictus fructus ventris tui Iesus. Sancta Maria, mater Dei, ora pro nobis peccatoribus nunc, et in hora mortis nostræ. Amen.

AGUR Maria, graciaz bethia, etc.

HALABER othoi eguinen daracogu gure Iangoicoari Purgatorietan diren arimegatic, cenen orhoitçapenac içanen baitira aste huntan Eliça saindu huntan, particularqui hulaco egunez N. hulacuaren Meçac, hoguei hamarrena, urtaburia, edo orhitçarrena. Eta erranen dugu guciençat devoqui. Pater noster, etc.

℣. Et ne nos inducas in tentationem.

15

℟. Sed libera nos à malo.

℣. A porta Inferi.

℟. Erue Domine animas eorum.

℣. Requiescant in pace,

℟. Amen.

℣. Domine exaudi orationem meam.

℟. Et clamor meus ad te veniat.

℣. Dominus vobiscum,

℟. Et cum spiritu tuo.

Oremus.

DEUS, cuius miseratione animæ Fidelium requiescunt, famulis, et famulabus tuis, et omnibus hic, et ubique in Christo quiescentibus, da propitius veniam peccatorum, ut à cunctis reatibus absoluti, tecum sine fine lætentur. Per eumdem Dominum nostrum.

ETA azquenian bilduguira lekhu saindu huntara laingoicoari gure bekhatiez barkhamendu escatcera, eta guehiago bekhatutan ez erortceco graciaren galdeguitera.

16

ETA Meça saindu hunen ontarçunetan partale içaitecotz, behar dugu hartara disposatu gure bekhatu guciez cofessione humilbat eguiten dugula, bihotceco urriquimendu handibatequin, eta belhauricaturic erranenducie enequin batian devoqui confessione generala.

CONFESSATCEN nitçaio Iangoico Aita bothere gucia dienari Andardena Maria bethi virgina dohatsiari, Michele archangelu dohatsiari, Ianni Baptista dohatsiari, Petri, eta Paule apostolu dohatsier, berce saindu gucier, eta çuri, aita spirituala: ceren eguin baitut sobera bekhatu gogoz, hitcez, eta obraz ene faltaz, ene faltaz, ene falta handiaz. Hargatic othoitz eguiten daracot Andardana

17

Maria bethiere Virgina dohatsiari, Michele Archangelu dohatsiari, Iauni Baptista dohatsiari, Petri, eta Paule Apostolu saindier, berce Saindu gucier, eta çuri, Aita Spirituala, enegatic othoiz eguin dieçoçuen gure Iangoico Iaunari.

Eta nic cier benedictionia eman baño lehen, eguinen ducie contricioneco acta erraiten duciela enequin bathian bihotcez.

Ene Iangoicua barkhamendu esquc nahoçu humilqui ene bekhatu guciez, damudut, eta urriqui çure amorecatic, ceren, guciz huna cirelaric offensatu citudan, eta hartcendut vorondate fermubat ez guehiago bekhaturic eguiteco çure graciarequin batian: eta halaber hartcendut vorondate neure bekhatu guciez ossoqui cofessatceco, eta emanen çaitan penitenciaren complitceco.

18

MISEREATUR vestri omnipotens Deus, et dimissis peccatis vestris perducat vos ad vitam æternam. Amen.

INDULGENTIAM, absolutionem, et remissionem peccatorum vestrorum tribuat vobis Omnipotens, et misericors Dominus. Amen.

Baldin bada astian Bestaric, Vigiliaric, Gartharic, Ezconçaco banaric, Amonacioneric, Escumicuric, edo Iaun Superioren manamenduric, etc., hemen beharco dira publicatu.

19

HILEN MECETAN

EGUIN BEHAR DIREN

Pregariac.

In nomine Patris et Filij, et Spiritus Sancti. Amen.

Bedratcigarrena, bularretan golpe emateas escatus Jangoicoari barcamendu.

Cerendaco da comecatceco Sacramentu Sandua?

Recibitcen deleic dinoqui, izan dain gure arimein mantenimentua eta aumenta dazagun gracia.

Cer recibitzauzu comecatceco Sacramentu Sanduan?

Cristo Jangoico eta guizon eguiascoa, cein beitago eguiasqui aldareco Sacramentu Sanduan.

Cerendaco da oliatceco sacramentua?

Irur gauzetaco.

Cein dira?

Lemessicoa, lenoco vici gaisstocin mancha eta reliquien equentceco.

Bigarrena, arimari indar emateco demonioein tentacioen contra.

Irugarrena, gorputzari osasunein emateco conveni bazayo.

Cerendaco da ordeoateeco sacramentua?

Consagratceco eta ordenatceco Eliceio ministro dinoac, nola beitira apezac, diaconoac eta sudiaconoac.

Quatrième partie.

Salazarais.

Seigarna, ogui benedicatuaz.
Zazpigarna, aitagureara errateaz.

Zortcigarna, predicu aitceaz.
Bedratcigarna, bularretan golpe emateaz galdinez Jangoicoari parcamendu.
Certaco da comecatceco Sacramentu Sandua?
Recibitcen delaric dinoqui, izan dadien gure arimen mantenimentu eta aumenta dazaicun graciara.
Cer recibitcen ssu comecatceco Sacramentu Sanduan?
Cristo Jangoico eta guizon eguiazcoa, zoin baitago eguiazqui aldareco Sacramentu Sanduan.
Certaco da oliatceco sacramentua?

Irur gauzataco.
Zoin dra?
Lena, lenagoco vici gasstoaren mancha eta reliquien guentceco.

Bigarna, arimari indar emateco demonioaren tentacioen contra.

Irnrgarna, corputzari osasunaren emateco conveni bazayo.
Certaco da ordenatceco sacramentua?
Consagratceco eta ordenatceco Elizaren ministro dinoac, nola baitra apezac, diaconoac eta sudiaconoac.

Roncalais.

Seigarna, ogui benedicatiuaz.
Zazpigarna, aitagoria erraitiaz.

Zortcigarna, sermon entzutiaz.
Bedratzugarna, burarretan golpe emoitiaz escatan Jangucicuari parcamentu.
Certaco da atizataco Sacramentu Saintiua?
Recibitan delaric dinoqui, izan dein gore arimen mantenimentu eta aumenta daquigun gracia.
Cer recibitan tzu atizataco Sacramentu Saintiuan?
Cristo Jangueico eta guizon eguiazcua, zoin baidago eguiazqui altareco Sacramentu Saintiuan.
Certaco da oliataco sacramentiua?

Irur gaizataco.
Zoin dra?
Leina, leinagoco vici gasstuaren mancha eta reliquien guentaco.

Bigarna, arimari indar emoiteco demoniuaren tentacionen contra.

Irurgarna, corpizari osagarriren emoiteco conveni bazau.
Certaco da ordenataco sacramentiua?
Consagrataco eta nrdenataco Elizaren ministro dinuac, nola baidra apezac, diaconuac eta sudiaconuac.

Catéchisme.

Espagnol.

190. *P.* Para qué es el sacramento del matrimonio.

R. Para casar y dar gracia á los casados, con la cual vivan entre sí pacíficamente, y crien hijos para el cielo.

191. Los pecados capitales son siete.

El primero, soberbia.
El segundo, avaricia.
El tercero, lujuria.
El cuarto, ira.
El quinto, gula.
El sexto, envidia.
El sétimo, pereza.

192. *P.* Por qué llamasteis pecados capitales á los siete que comunmente se llaman mortales?

R. Llámanse capitales, porque son cabezas, como fuentes y raíces de otros vicios, que de ellos nacen, y llamarse mortales no les cuadra tan bien, pues muchas veces no son más que veniales.

193. *P.* Cuándo son mortales?

R. Cuando son contra la caridad de Dios y del prójimo.

194. *P.* Cuándo son contra la caridad?

R. Cuando por ellos se quebranta algun mandamiento de Dios ó de la Iglesia en cosa grave.

195. *P.* Qué es soberbia?

R. Un apetito desordenado de ser preferido á otros.

Aezcoan.

Cerendaco da matrimonioco sacramentua?
Ezcontceco eta ezconduei emateco gracia, ceinequi baquean elcarren artean vici izan diten, eta umeac az zquiten ceruco.
Becatu capitalac dira zazpi.

Lemessicoa, soberbia.
Bigarrena, avaricia.
Irugarrena, lujuria.
Laugarrena, ira.
Bozgarrena, gula.
Seigarrena, invidia.
Zazpigarrena, pereza.
Ceren gatic deitu ituzu becatu capitalac comunqui mortalac deitcen diren zazpiac?
Deitcen dira capitalac, ceren beitira bertce vicio gayetaic jayotcen direnen buru, iturri eta zain bezala, eta mortalac deitcea etzaye cuadratcen guein ongui, bada anitz aldiz eztira venialac beicic.
Noiz dira mortalac?
Jangoicoein eta projimoein caridadein contra direleic.
Noiz dira caridadein contra?

Gayetas Jangoicoein edo Elicein cetubeit mandamentu austen denean gauza anditan.
Cer da soberbia?
Bertceac beino gueyo izateco apetitu desordenatu bat.

Quatrième partie.

Salazarais.

Cerendaco da matrimonioco sacramentua?
Casatceco eta casatuer emateco gracia, zoinequin baquean alcarren artean vici izan ten, eta ume az zayeu cerualaco.
BECATU CAPITALAC TZU ZAZPI.

Lena, soberbiara.
Bigarna, avariciara.
Irurgarna, lujuriara.
Laurgarua, irara.
Borzgarna, gulara.
Seigarna, invidiara.
Zazpigarna, prezara.
Ceren gatic deitu chu becatu capitalac comunzqui mortal deitcen dren zazpiac?
Deitcen tzu capitalac, cerengatic baitra berce vicin cayetaric sortcen drenen buru, iturri eta erro bezala, eta mortalac deitcea etciayezu cnadratcen cain ongui, bada anitz aldiz etzu venialac baicic.
Noiz dra mortalac?
Jangoicoaren eta projimoaren caritatearen contra drenean.
Noiz dra caritatearen contra?

Caitaz Jangnicoaren edo Elizaren zomait mandamentu quebrantatcen denean gauza anditan.
Cer da soberbiara?
Berceac beño gucago izateco apetito desordenatu bat.

Roncalais.

Cerentaco da matrimonioco sacramentiua?
Bordaltaco eta bordaltiuer emoiteco gracia, zoinequi baquian alcar vici izan tian, eta aur az tcein ceuriaraco.
BECATU CAPITALAC DRA ZAZPI.

Leina, soberbia.
Bigarna, avaricia.
Irurgarna, lujuria.
Laurgarna, ira.
Borzgarna, gula.
Seigarna, invidia.
Zazpigarna, preza.
Ceren gatic deitu dutzu becatu capitalac comunqui mortal deitan dren zazpiac?
Deitan dra capitalac, ceren baidra berce vicio quetaric sortan drenen buru, iturri eta izorro bicala, eta mortalac deitia ez zabei cuadratan cain onqui, bada anich aldiz ez dra veoialac baicic.
Noiz dra mortalac?
Jangueicuaren eta projimuaren caritatiaren contra drenian.
Noiz dra caritatiaren contra?

Quetaz Jangueicuaren edo Elizaren znmait mandamentu austan denian gaiza anditan.
Cer da soberbia?
Berciac beino obro izaiteco apetito desordenatu bat.

Catéchisme.

Espagnol.

196. *P.* Qué es avaricia?

R. Un apetito desordenado ó deseo de hacienda.

197. *P.* Qué es lujuria?

R. Un apetito desordenado de sucios y carnales deleites.

198. *P.* Qué es ira?

R. Un apetito desordenado de venganza.

199. *P.* Qué es gula?

R. Un apetito desordenado de comer y beber.

200. *P.* Qué es envidia?

R. Un pesar del bien ajeno.

201. *P.* Qué es accidia ó pereza?

R. Un caimiento de ánimo en bien obrar.

202. CONTRA ESTOS SIETE VICIOS HAY SIETE VIRTUDES.

Contra soberbia, humildad.
Contra avaricia, largueza.
Contra lujuria, castidad.
Contra ira, paciencia.
Contra gula, templanza.
Contra envidia, caridad.
Contra pereza, diligencia.

203. LOS ENEMIGOS DEL ALMA DE QUE HEMOS DE HUIR.

El primero es el mundo.
El segundo, el demonio.
El tercero, la carne.

204. *P.* Cómo se huye del mundo?

R. Este se huye con menosprecio de sus pompas y vanidades.

Aercoan.

Cer da avaricia?
Ontasunein apetitu edo deseo desordenatu bat.
Cer da lujuria?
Araguiein deleite ciquinen apetitu desordenatu bat.
Cer da ira?
Mendecatcecn apetitu desordenatu bat.
Cer da gula?
Ssateco eta edateco apetitu desordenatu bat.
Cer da invidia?
Bercen onein pena bat.
Cer da pereza edo afertasuna?
Obra onen eiteco animu falta bat.

ZAZPI VICIO QUEBEN CONTRA DIRA ZAZPI VIRTUTE.

Soberbiein contra, umildadea.
Avariciein contra, largueza.
Lujuriein contra, castidadea.
Irein contra, paciencia.
Gulein contra, templanza.
Invidiein contra, caridadea.
Perecein contra, diligencia.

ARIMBIN ETSAYAC CEINEN GANIC ESCAPATU BEAR BEITUOU.

Lemessicoa da mundua.
Bigarrena, demonioa.
Irugarrena, araguia.
Nola escapatcen da munduein ganic?
Aren anditasun eta vanidaden mennsprecios.

Quatrième partie.

Salazarais.

Cer da avariciara?
Ontarzunaren apetito edo deseyu desordenatu bat.
Cer da lujuriara?
Araguiaren deleite ciquinen apetito desordenatu bat.
Cer da irara?
Mendecatceco apetito desordenatu bat.
Cer da gulara?
Ssateco eta edateco apetito desordenatu bat.
Cer da invidiara?
Berzren onaren pena bat.
Cer da preza edo agüertarzuna?
Obra onen eguiteco animo falta bat.

ZAZPI VICIO CUEN CONTRA TZU ZAZPI VIRTUTE.

Soberbiaren contra, umildadea.
Avariciaren contra, larguezara.
Lujuriaren contra, castidadea.
Iraren contra, pacienciara.
Gularen contra, templanzara.
Invidiaren contra, caritatea.
Prezaren contra, diligenciara.

ARIMAREN ETSAYAC ZOINEN GANIC IESI EGUIN BEAR BAITUGU.

Lena zu mundua.
Bigarna, demonioa.
Irurgarna, araguia.
Nola iesi eguiten da munduaren ganic?
Aren anditarzun eta vanidaden menosprecioz.

Roncalais.

Cer da avaricia?
Ontarzunaren apetito edo deseo desordenatu bat.
Cer da lujuria.
Araguiaren placer ciquinen apetito desordenatu bat.
Cer da ira?
Mendecataco apetito desordenatu bat.
Cer da gula?
Ssateco eta edateco apetito desordenatu bat.
Cer da invidia?
Bercen onaren tristuria bat.
Cer da preza edo aurertarzuna?
Obra onen eguiteco animo falta bat.

ZAZPI VICIO CUEN CONTRA BADRA ZAZPI VIRTUTE.

Soberbiaren contra, umildadia.
Avariciaren contra, largueza.
Lujuriaren contra, castidadia.
Iraren contra, paciencia.
Gularen contra, templanza.
Invidiaren contra, caritatia.
Prezaren contra, diligencia.

ABIMAREN ENEMIGUAC ZOINEN GANIC IESI BIAR BAIDIGU.

Leina da mundiua.
Bigarna, demoniua.
Irurgarna, araguia.
Nola iestan da mundiuaren ganic?

Aren anditarzun eta vanidaden menosprecioz.

Catéchisme.

Espagnol.

205. *P.* Cómo se huye del demonio?

R. Con oracion y humildad.

206. *P.* Cómo se huye de la carne?

R. Esta se vence con asperezas, disciplinas y ayunos: este es el mayor enemigo, porque la carne no la podemos echar de nosotros, al mundo y al demonio sí.

207. LAS VIRTUDES TEOLOGALES SON TRES.

La primera, fe.

La segunda, esperanza.

La tercera, caridad.

208. LAS VIRTUDES CARDINALES SON CUATRO.

La primera, prudencia.

La segunda, justicia.

La tercera, fortaleza.

La cuarta, templanza.

209. Los SENTIDOS CORPORALES SON CINCO.

El primero, ver con los ojos.

El segundo, oir con los oidos.

El tercero, gustar con la boca.

El cuarto, oler con las narices.

El quinto, tocar con las manos.

210. *P.* Para qué nos dió Dios los sentidos y todos los demás miembros?

R. Para que con todos le sirviésemos en todas cosas.

211. LAS POTENCIAS DEL ALMA SON TRES.

Aezcoan.

Nola escapatcen da demonioein ganic?

Oracio eta umildades.

Nola escapatcen da araguiein ganic?

Mortificacio, diciplina eta barures: gau da etsaic andiena, cerengatic araguia ezpeitzaquegu bota gure ganic, baya hai mundua eta demonioa.

VIRTUTE TEOLOGALAC DIRA IRUR.

Lemessicoa, fedea.

Bigarrena, esperanza.

Irugarrena, caridadea.

VIRTUTE CARDINALAC DIRA LAUR.

Lemessicoa, prudencia.

Bigarrena, justicia.

Irugarrena, fortaleza.

Laugarrena, templanza.

GORPUTCEIN SENTIDOAC DIRA BORTZ.

Lemessicoa, beguies icustea.

Bigarrena, bearries aitcea.

Irugarrena, agoas gustatcea.

Laugarreoa, sudurres usmatcea.

Bozgarreoa, escues uquitcea.

Cerendaco eman dauzquigu Jangoicoac sentidoac eta bertce miembro guciac?

Gucietas cervitza guindezan gauza gucietan.

ARIMEIN POTENCIAC DIRA IRUR.

Quatrième partie.

Salazarais.

Nola iesi eguiten da demonioaren ganic?
Oracio eta umildadez.
Nola iesi eguiten da araguiaren ganic?
Mortificacio, diciplina eta barurez: cau zu etsairic andiena, cerengatic araguia ezpaitoquegu egotz gure ganic, baya bai mundua eta demonioa.
VIRTUTE TEOLOGALAC TZU IRUR.

Lena, fedea.
Bigarna, esperanzara.
Irurgarna, caritatea.
VIRTUTE CARDINALAC TZU LAUR.

Lena, prudenciara
Bigarna, justiciara.
Irurgarna, fortalezara.
Laurgarna, templanzara.
CORPUTZAREN SENTIDOAC TZU BORZ.

Lena, beguiez icustea.
Bigarna, bearriez aitcea.
Irurgarna, agoaz gustatcea.
Laurgarna, sudurrez urrin eguitea.
Borzgarna, escuez onquitcea.
Certaco eman dauzcu Jangoicoac sentidoac eta berce miembro guciac?
Guciez cervitza guinezan gauza gucietan.
ARIMAREN POTENCIAC TZU IRUR.

Roncalais.

Nola iestan da demoniuaren ganic?

Oracione eta umildadez.
Nola iestan da araguiaren ganic?

Mortificacione, diciplina eta barurez: caur da enemigoric andiena, cerengatic araguia ez baidroquegu egoch gore ganic, baya bai mundiua eta demoniua.
VIRTUTE TIOLOGALAC DRA IRUR.

Leina, fea.
Bigarna, esperanza.
Irurgarna, caritatia.
VIRTUTE CARDINALAC DRA LAUR.

Leina, prudencia.
Bigarna, justicia.
Irurgarna, fortaleza.
Laurgarna, templanza.
CORPIZAREN SENTIDUAC DRA BORZ.

Leina, beguiez ecustia.
Bigarna, biarriez entzutia.
Irurgarna, abaz testatia.
Laurgarna, sudurrez quio eguitia.
Borzgarna, esquiuez tocatia.
Certaco emon daizcu Jangueicuac sentiduac eta berce miembro guciuac?
Orotaz cervucha guinezan gaiza guciuetan.
ARIMAREN POTENCIA DRA IRUR.

Catéchisme.

Espagnol.

Memoria, entendimiento y voluntad.

212. *P.* Para qué nos dió Dios la memoria?

R. Para acordarnos de él y de sus beneficios.

213. *P.* Para qué nos dió el entendimiento?

R. Para reconocer á nnestro Señor, y pensar en él.

214. *P.* Para qué nos dió la voluntad?

R. Para que le amemos como á suma bondad, y al prójimo por él.

215. Los DONES DEL ESPÍRITU SANTO SON SIETE.

El primero, don de sabiduría.
El segundo, don de entendimiento.
El tercero, don de consejo.
El cuarto, don de ciencia.
El quinto, don de fortaleza.
El sexto, don de piedad.
El sétimo, don de temor de Dios.

216. Los FRUTOS DEL ESPÍRITU SANTO SON DOCE.

El primero, caridad.
El segundo, paz.
El tercero, longanimidad.
El cuarto, benignidad.
El quinto, fe.
El sexto, continencia.
El sétimo, gozo.
El octavo, paciencia.

Aercoan.

Memoria, entendimentua eta vorondatea.

Cerendaco Jangoicoac eman zagu memoria.

Oreit guiten artas eta aren beneficioetas.

Cerendaco eman zagu entendimentua?

Ezautceco gure Jauna, eta aren beitan pentsatceco.

Cerendaco eman zagu vorondatea?

Onesteco Jangoicoa bondade andiena bezala, eta projimoa aren gatic.

ESPIRITU SANDUEIN DONAC DIRA ZAZPI.

Lemessicoa, don ssaquindurieina.
Bigarrena, don entendimentueina.
Irugarrena, don consejueina.
Laugarrena, don ciencieina.
Bozgarrena, don fortaleceina.
Seigarrena, don piedadeina.
Zazpigarrena, don Jangoicoein beldurreina.

ESPIRITU SANDUEIN FRUITUAC DIRA AMABI.

Lemessicoa, caridadea.
Bigarrena, baquea.
Irugarrena, biotceco anditasuna.
Laugarrena, beninidadea.
Bozgarrena, fedea.
Seigarrena, continencia.
Zazpigarrena, gozoa.
Zortcigarrena, paciencia.

Quatrième partie.

Salazarais.

Memoriara, entendamentua eta vorondatea.
Certaco Jangoicoac eman zaucun memoriara?
Orit guiten artaz eta aren beneficioez.
Certaco eman zaucun entendamentua?
Izauteco gure Jauna, eta aren baitan pentsatceco.
Certaco eman zaucun vorondatea?

Onesteco Jangoicoa bondade andiena bezala, eta projimoa aren gatic.
ESPIRITU SANDUAREN DONAC TZU ZAZPI.
Lena, don ssaquitearna.
Bigarna, don entendamentuarna.
Irurgarna, don consejoarna.
Laurgarna, don cienciarna.
Borzgarna, don fortalezarna.
Seigarna, don piedadearna.
Zazpigarna, don Jangoicoaren beldurrarna.
ESPIRITU SANDUAREN FRUTOAC TZU AMABI.
Lena, caritatea.
Bigarna, baquea.
Irurgarna, biotceco anditarzuna.
Laurgarna, beninidadea.
Borzgarna, fedea.
Seigarna, continenciara.
Zazpigarna, gozoa.
Zortcigarna, pacienciara.

Roncalais.

Memoria, entendimentiua eta voruntatia.
Certaco Jangueicuac emon zaicun memoria?
Guart guitian artaz eta aren beneficiuetaz.
Certaco emon zaicun entendimentiua?
Izaguntaco gore Geina, eta artan pensataco.
Certaco emon zaicun vorondatia?

Maitecuteco Jangueicua bontate andiena bicala, eta projimua aren gatic.
ESPIRITU SAINTIUAREN DONAC DRA ZAZPI.
Leina, don ssaquintarzunarna.
Bigarna, don entendimentiuarna.
Irurgarna, don conscjuarna.
Laurgarna, don cienciarna.
Borzgarna, don fortalezarna.
Seigarna, don piedadiarna.
Zazpigarna, don Jangueicuaren lotsatarzunarna.
ESPIRITU SAINTIUAREN FRUTIUAC DRA AMABI.
Leina, caritatia.
Bigarna, baquia.
Irurgarna, biotceco anditarzuna.
Laurgarna, beninidadia.
Borzgarna, fea.
Seigarna, continencia.
Zazpigarna, gozua.
Zortcigarna, paciencia.

Catéchisme.

Espagnol.

El nono, bondad.
El décimo, mansedumbre.
El undécimo, modestia.
El duodécimo, castidad.

217. Las bienaventuranzas son ocho.

Bienaventurados los pobres de espíritu, porque de ellos es el reino de los cielos.

Bienaventurados los mansos, porque ellos poseerán la tierra.

Bienaventurados los que llorau, porque ellos serán consolados.

Bienaventurados los que han hambre y sed de la justicia, porque ellos serán hartos.

Bienaventurados los misericordiosos, porque ellos alcanzarán misericordia.

Bienaventurados los limpios de corazon, porque ellos verán á Dios.

Bienaventurados los pacíficos, porque ellos serán llamados hijos de Dios.

Bienaventurados los que padecen persecucion por la justicia, porque de ellos será el reino de los cielos.

218. *P.* Qué hemos dicho ahora?
R. Las ocho bienaventuranzas.

219. *P.* Qué cosas son estas bienaventuranzas?

Aezcoan.

Bedrateigarrena, bondadea.
Amargarrena, mansedumbrea.
Amecagarrena, modestia.
Amabigarrena, castidadea.
Bienaventuranzac dira zortci.

Bienaventuratuac dira biotces pobre direnac, ceren ayena beita ceruco erreinua.
Bienaventuratuac dira mantsoac, ceren urac iccin beitira lurrein ssabe.
Bienaventuratuac dira nigar eitautenac, ceren urac icein beitira consolatuac.
Bienaventuratuac dira justicias gose eta egarri direnac, ceren urac icein beitira aseac.
Bienaventuratuac dira misericordiosoac, ceren ayec erdietsico beitute misericordia.
Bienaventuratuac dira biotces garbi direnac, ceren ayec icusco beitute Jangoicoa.
Bienaventuratuac dira baquescoac, ceren urac deituac icein beitira Jangnicoein umeac.
Bienaventuratuac dira justiciein gatic persecucio padecitzautenac, ceren ayena icein beita ceruco erreinua.
Cer erran dugu orei?
Zortci bienaventuranzac.
Cer gauza dira zortci bienaventuranza guebec?

Quatrième partie.

Salazarais.

Bedratcigarna, bondadea.
Amargarna, mansedumbrea.
Amecagarna, modestiara.
Amabigarna, castidadea.
BIENAVENTURANZAC TZU ZORTCI.

Bienaventuratu tzu biotcez pobre drenac, cerengatic ayena baita ceruco reinoa.
Bienaventuratu tzu mantsoac, cerengatic urac izanen baitra lurraren ssabe.
Bienaventuratu tzu near eguiten dienac, cerengatic urac izanen baitra cunsolatric.
Bienaventuratu tzu justiciaz gose eta egarri dienac, cerengatic urac izanen baitra aseric.
Bienaventuratu tzu misericordiosoac, cerengatic ayec erdietsien baitie misericordia.
Bienaventuratu tzu biotcez garbi drenac, cerengatic ayec icusien baitie Jangoicoa.
Bienaveoturatu tzu baquezcoac, cereogatic urac deitric izanen baitra Jangoicoaren ume.
Bieuaventuratu tzu justiciaren gatic persecucio pndeciteeu dienac, cerengatic ayena izanen baita ceruco reinoa.
Cer erran dugu orai?
Zortci bienaventuranzac.
Cer gauza dra zortci bieoaventuranza cuec?

Roncalais.

Bedratzugarna, bontatia.
Amargarna, mansedumbria.
Amecagarna, modestia.
Amabigarna, castidadia.
BIENAVENTURANZAC DRA ZORTCI.

Bienaventurado drade biotcez pobre drenac, ceren ena baita ceurico reinua.
Bienaventurado dra mansuac, ceren urac izanen baidra lurraren nausi.

Bienaventurado dra nessar eguiteo deinac, ceren urac izanen baidra consolntruc.
Bienaventurado dra justiciaz gose eta egarri deinac, ceren urac izanen baidra aseric.
Bienaventurado dra misericordiosuac, ceren ec alcanzaten baidei misericordia.
Bienaventurado dra biotcez ssaï dreoac, cereo ec ecusen baidei Jangucicua.
Bienaventurado dra baquezcuac, cereu urac deitruc izanen baidra Jaugueicnaren aur.
Bienaventurado dra justiciaren gatic persecucione padccitan deinac, ceren ena izanen baida ceurico reinua.
Cer erran digu orai?
Zortci bienaveuturanzac.
Cer gaiza dra zortci bienaventurauza cuec?

Catéchisme.

Espagnol.

R. Las mejores obras de las virtudes y dones del Espíritu santo.

220. *P.* Quiénes son los pobres de espíritu?

R. Los que no quieren honras ni riquezas, ni aún moderadas.

221. *P.* Quiénes son los mansos?

R. Los que no tienen ira ni aún casi movimiento de ella.

222. *P.* Cómo poseen la tierra?

R. Como señores de sí mismos.

223. *P.* Quiénes son los que lloran?

R. Los que dejan los placeres aún moderados.

224. *P.* Quiénes son los que han hambre y sed de la justicia?

R. Los que hacen con ansia el deber en todo.

225. *P.* Quiénes son los misericordiosos?

R. Los muy piadosos aún con los estraños.

226. *P.* Quiénes son los limpios de corazon?

R. Los que son del todo mortificados en sus pasiones.

227. *P.* Quiénes son los pacíficos?

R. Los obradores de la paz en sí y en otros.

228. *P.* Quiénes son los que padecen persecucion por la justicia?

R. Los que están firmes en todo, aunque los persigan.

Aezcoan.

Virtuten eta Espiritu sanduein donen obreic obenac.

Nor dira biotces pobre direnac?

Nai eztutenac onra ez eta abrastasunic, chiquiac izanic ere.

Nor dira mantsoac?

Ireic eztutenac eztare casic irein movimentuic.

Nola dira lurrein ssabe?

Beren buruen jaun bezala.

Nor dira nigar eitautenac?

Gustoac uzten tuztenac, chiquiac izanic ere.

Nor dira justicias gose eta egarri direnac?

Beren obligacioa deseoiqui cumplitzautenac.

Nor dira misericordiosoac?

Piedades beteic direnac arrotcequi ere.

Nor dira biotces garbi direnac?

Beren pasione gucietan mortificatcen direnac.

Nor dira haquescoac?

Beren eta bertcen artean baquea ezartzautenac.

Nor dira justiciein gatic persecucio padecitzautenac?

Gauza gucietan firme daudenac perseguitnac izanic ere.

Quatrième partie.

Salazarais.

Virtuten eta Espiritu sanduaren donen obraric obenenac.
Nor dra biotcez pobre drenac?

Nai eztienac onra ez eta abrastarzunic, chiquinac izanic ere.
Nor dra mantsoac.
Iraric eztienac eztare casic irarcn movimenturic.
Nola dra lurraren ssabe?
Beren buruen ssaun bezala.
Nor dra near eguiten dienac?

Gustoac uzten tienac, chiquinac izanic ere.
Nor dra justiciaz gose eta egarri dienac?
Beren obligacioa deseyurequin cumplitcen dienac.
Nor dra misericordiosoac?

Piedadez beteric drenac arrotcequin ere.
Nor dra biotcez garbi drenac?

Beren pasionc gucietan mortificatcen drenac.
Nor dra baquezcoac?

Beren eta berzren artean baquea izartcen dienac.
Nor dra justiciaren gatic persecucio padecitcen dienac?
Gauza gucietan firme daudenac perseguitric izanic ere.

Roncalais.

Virtuten eta Espiritu saintiuaren donen obraric obenenac.
Nor dra biotcez pobre drenac?

Nai ez deinac onre ez eta abrastarzunic, chiquerrac izanic ere.
Nor dra mansuac?
Iraric ez deinac eztare ullan iraren movimenturic.
Nola dra lurraren nausi?
Beren buriuen gein bicala.
Nor dra nessar eguiten deinac?

Gustuac eiztan teinac, chiquerrac izanic ere.
Nor dra justiciaz gose eta egarri deinac?
Beren obligacionia deseorequi cumplitan deinac.
Nor dra misericordiosuac?

Piedadez beteric drenac arrotcequi ere.
Nor dra biotcez ssal drenac?

Beren pasione guciuetan mortificatan drenac.
Nor dra baquezcuac?

Beren eta bercen artian baquia izartan deinac.
Nor dra justiciaren gatic persecucione padecitan deinac?
Gaiza guciuetan firme daudenac perseguitruc izanic ere.

Catéchisme.

Espagnol.	*Aezcoan.*
229. *P.* Por qué estas se llaman bienaventuranzas?	Ceren gatic guebec deitcen dira bienaventuranzac?
R. Porque en ellas consiste la de esta vida, y la esperanza de la otra.	Cerengatic gayetan beitago vici gontaco ongui izatea, eta bertceco esperanza.
230. *M.* El Señor nos lleve á todos allá. Amen.	Jaunac gara gucioc erman guitzala.

Ici finit le petit catéchisme espagnol du P. Astete, d'après l'édition sans

Quatrième partie.

Salazarais.	*Roncalais.*
Ceren gatic cuec deitcen dra bienaventuranzac?	Ceren gatic cuec deitan dra bienaventuranzac?
Cerengatic caitan baitago vici contaco ongui izatea, eta berceco esperaozara.	Cerengatic quetan baidago vici contaco onqui izaitia, eta berceco esperauza.
Jaunac cara gucioc erman guitzala.	Geinac cara guciuer eraman guitzala. Amen.

date de Salamanque, chez Antoine Joseph Villargordo, in-12 de 48 pages.

We certify that only 250 copies of this Work have been printed, of which one is on thicker and larger paper.

STRANGEWAYS & WALDEN,
28 Castle Street, Leicester Square.

L'ÉVANGILE SELON SAINT MATHIEU
SAN MATHIUREN EBANYELIOA

Salaberry d'Ibarrolle
Nafarrera-behereaz
Bayonne
1856

Originala: Gipuzkoako Foru Diputazioaren Biblioteka

L'ÉVANGILE

SELON SAINT MATHIEU.

SUR LA VERSION DE M. LE MAISTRE DE SACY,

TRADUIT EN LANGUE BASQUE,

DIALECTE BAS-NAVARRAIS,

PAR

M. SALABERRY (D'IBARROLLE,)

Pour le Prince LOUIS-LUCIEN BONAPARTE.

BAYONNE,

IMPRIMERIE DE VEUVE LAMAIGNÈRE NÉE TECLIÈRES,

Rue Pont-Mayou, 39.

—

1856.

SAN MATHIUREN

EBANYELIOA.

LEHEN KAPITULIA.

YESU-KRISTOREN HASTEPENA.

Haren konsebizionia eta haren sortzia.

1. Yesu Kristo, David-en seme Abraham-en semiaren, hastapeneko liburia.

2. Abraham-en seme zen Isaak. Isaak-en seme zen Yacob. Yacob-en seme ziren Yuda eta haren anayak.

3. Yuda-ren seme ziren, Thamar-en-ganik, Pharès eta Zara. Pharès-en seme zen Esron. Esron-en seme zen Aram.

4. Aram-en seme zen, Abinadab. Abinadab-en seme zen Naasson. Naasson-en seme zen Salmon.

4. Salmon-en seme zen, Rahab-en ganik, Booz. Booz-en seme zen, Ruth-en ganik, Yesse, Yesse-ren seme zen David, zoin baitzen errege.

6. David errege-ren seme zen, uria-ren emazte izan zena-ganik, Salomon.

7. Salomon-en seme zen Roboam. Roboam-en seme zen Abias. Abias-en seme zen Asa.

8. Asa-ren seme zen Yosafat. Yosafat-en seme zen Yoram. Yoram-en seme zen Osias.

9. Osias-en seme zen Yoatham. Yoatham-en seme zen Akhas. Akhas-en seme zen Ezechias.

10. Ezekias-en seme zen Manasse. Manasse-ren seme zen Amon. Amon-en seme zen Yosias.

11. Yosias-en seme sorthu ziren Yekonias eta haren anayak, Yudi-ak Babylonarat eramanak izan ziren-dembora-xi-an.

12. Eta Babylonarat eramanak izanez geroz, Yekonias-en seme sorthu zen Salathiel. Salathiel-en seme zen Zorobabel.

13. Zorobabel-en seme zen Abiud. Abiud-en seme zen Eliazim. Eliazim-en seme zen Azor.

14. Azor-en seme zen Sadok. Sadok-en seme zen Achim. Achim-en seme zen Eliud.

— 7 —

15. Eliud-en seme zen Eleazar. Eleazar-en seme zen Mathan. Mathan-en seme zen Yakob.

16. Eta Yakob-en seme zen Yosef, espos Mariaren-a, zoinen ganik sorthu baita Yesus, deithia dena Kristo.

17. Badira beraz hamalaur Yende-mende (génération). Abraham-en ganik, David-en gana heltzeko ; haunalaur yende mende David-en ganik Yudiak Babylonarat eramanic izan artio. Eta Babylonarat eramanak izan zirenetik Yesu Kristorano hamalaur yende mende.

18. Yesu Kristoren sortzia gisa huntan gerthatu-zen : Maria haren arnak esposatu zienian Yosef, ezagutia izan zen izorra zela, elgarrekin egon gabe, Izpiritu Saindiaren obraz.

19. Nola Yosef, haren senharra, yustua baitzen, nahi gabez ber'esposa desohoratu, deliberatu zien desperitzera segreki.

20. Bena phensamendu hortan zagolarik, amexetan Yainkoaren ainguru bat agertu zitzakon eta erran zakon : Yosef, David-en semia, ez herabe ukhan Maria zur' emaztiaren hartziaz zurekin : ezik haren barnian sorthu dena, Izpiritu Saindiak formatia da.

— 8 —

21. Erdiko da seme batez, zoini emanen baitakozu izena Yesus, erran nahi da Salbazalia; zeren hark beharko du bere populia salbatu, bekhatutik libratuz.

22. Ezik hori oro egin zen komplitzeko Yainkoak profetaz erran ziena therminno holan.

33. Biryina batek haur eginen du, eta sorthuko du seme bat. Emanen dakote izena Emmanuel, erran nahi da Yainkoa gurekin.

24. Iratzartu zenian, Yosef-ek egin zien aingoriak manatu zakona, eta hartu zien ber'emaztia ber'ekin.

25. Bena etzen harekin behinere nahassirik izan sorthu zienian seme primu hori, zoini eman baitzakon izena Yesus.

— 10 —

II GARREN KAPITULIA.

Erregien adorazionia. Ejiptorat. Yesusen ihes egitia Betleemeko massakria. Yesus ekharria Ejiptotik.

1. Yesus sorthu zenian beraz Bethleem Yuda-ren tribuko hirian, Herodes erregiaren demboran, Orientetik Yerusalemerat yin ziren errege batzu,

2. Eta galdegin zuten: nun da Yudien errege sorthu berria? Orienten ikhussi dugu haren izarra, eta yin gira haren adoratzera.

3. Herodesek hori yakin zienian, beldurtu zen, eta Yerusalemeko hiri guzia harekin.

4. Eta bil arazirik populuko prinze, aphez eta doctorrak, galdegin zien nun beharzen sortu Kristo.

5. Erran zakoten Bethleemen Yuda-ren tribuko hirian, profetak izkiribatu dien arabera:

6. Eta hi, Bethleem, Yudako lurra, ez hiz Yudako hiri prinzipal-eta azkena; ezik hitarik sorthuko duk ene Israeleko populia gobernatuko dien aintzindaria.

7. Ordian Herodesek, erakarririk Orientetik yin ziren erregiak, galdegin zeyen artha handirekin noiz agertu zitzeyen izarra;

8. Eta desperitziarekin Bethleemerat, erran zeyen: zuazte, informa zitezte haur hortaz; eta khaussitu duzienian, yakin arazi zadazie, ni ere yuan nadin haren adoratzera.

9. Intzon ondoan erregeren hitz horiek, phartitu ziren. Eta dembora berian, Orienten ikhossi izarra bazuan heyen aintzinian, haurra zen tokiraino; han geldituzen.

10. Ikhussi zutenian izarra, hartiak izan ziren alegerantzia batez;

11. Eta etchian sartzian, khaussitu zuten haurra, Maria bere amarekin, eta lurrerat ahuspez bere buriak emanik, adoratu zuten; gero bere tresorrak zabaldurik, oferitu zazkoten presentzat, urhe, insenxu eta mirra.

12. Eta lo zaudelarik, ukhan ondoan zerutik abis bat, ez yuaiteko berriz Herodes-en edi-

— 11 —

reitera, itzuli ziren bere lekhurat bertze bide batetarik.

13. Hek phartitu onduan, Yosef lo zagolarik, Yainkoaren Ainguria agertu zitzakon, eta erran zakon; yeiki zite, hartzazu haurra eta ama; ihes egizu Egiptorat, eta han egon zite nik erran artio hantik yiteko; ezik Herodesek cherkhatuko du haurra hilarazteko.

14. Yosefek yeikirik, hartu zitien, gaüaz, haurra eta ama, eta erretiratu zen Ejiptorat.

15. Han egon zen Herodes hil artio, amore gatik komplitia izan zadin Yainkoak bere profetaz erran zien hitz hau: deithatu dut ene semia Ejiptotik.

16. Ordian Herodesek ikhussirik, erregiak trufatzen zirela hartaz, sarthu zen kolera handi batian; eta igorri zien ordre hiltzeko Bethleemeko eta ingurunetako bi urthe tako eta gaztiagoko haur guziak, demboraren arabera, zointaz informatu baitzen Orienteko erregiak baithan.

17. Ordian ikhussi zuten komplitzen Yeremia profetak erran ukhan ziena:

18. Azanz handi bat inzuna izanda Raman.

— 12 —

Aditu dituzte auhenak eta heiagorak; Rachel bere haurren gainian nigarrez, errezebitu nahi gabe konsolazionerik, zeren ez baitira gehiago bizi.

19. Herodes hilzenian, Yainkoaren ainguria agertu zitzakon Yosefi, Ejiptoan, lo zagolarik.

20. Eta erran zakon: yeikizite, hartzazu haurra eta ama, eta itzulzite Izraeleko herrirat; haurra cherkhatzen zutenak hilarazteko, berak hil dira.

21. Yosefek yeikirik, hartu zitien haurra eta ama, eta eman zen bidian, yiteko berriz Izraeleko herrirat.

22. Bena yakin onduan Archelaus errege zela Yudean, Herodes bere aitaren lekhian, beldurtuzen harat yuaiteko. Lo zagolarik, zeruko abis bat ukhan zien, eta Galilearat erretiratu zen,

23. Eta yin zen egoitera Nazareth deitzen den hiri baterat; amoregatik profetak errana komplizadin: deithia izanen da Nazarendarra.

III GARREN KAPITULIA.

Yuan doni Yoanes Batistaren predikia eta Batheyoa. Farisienen kontreko erreprotchiak. Yesu-Kristoren batheyoa.

1. Dembora hartan, Yoanes Batista yin zen predikatzera Yudeako desertorat,

2. Erraiten ziela: egizie penitenzia, ezik zerietako erresuma hurrandia da.

3. Hori da markatia izan dena Isaia profetaz, erran zienian: huna desertian oihuz dagonaren botza: prepara zazie Yaunaren bidia: chuchen ezartzkitzie haren chenderak.

4. Yoanesek bazien bilozko beztimendabat eta larruzko zintura bat gerrian. Eta haren hazgarria-zen otthe eta ezti bassa.

5. Ordian Yerusalemeko hiria, Yudea guzia, eta Yordaineko ingurune guzia yiten ziren haren ganat;

— 14 —

6. Eta konfessatuz bere bekhatiak, batheatiak izaiten ziren hartaz Yordaineko uhaitzian.

7. Eta ikhussirik zombait Farisien eta Sadduzeen haren batheyorat yiten. Erran zeyen: bipera kasta, nork erakaxi dauzie zien gainera erori behar dien kolerari ihes egiten?

8. Egin zazie beraz penitenziazko obra digne denik.

9. Eta ez dezaziela phenxa zien baithan erraitia: aitatzat badugu Abraham; ezik deklaratzen dauziet Yainkoak egin ditzazkela harri hotarik Abraham-en haurrak.

10. Ezik aizkora yadanik arbolen erruan da: zoin ere arbolek beraz ez baidu frutu onik emaiten, hura izanen da phikatia eta surat aurthikia.

11. Nitaz bezambatian batheyatzen zituztet hurez, erakartzeko penitenziarat. Bena ene ondotik yin behar diena ni beno botherezuago da; eta ni ez niz gai haren zapaten erabilzeko: harek batheyatnko zituzte Izpiritu Saindian eta suyan.

12. Bere erhatza eskian du, garbituko du ezkaratza, eta bilduko du bere bihia ganer-

rian; bena erreko du lastua behin ere hilen ezden su batian.

13. Ordian Yesus yin zen Galileatik Yordainerat, Yoanesen edireitera, hartaz batheyatia izaiteko.

14. Bena Yoanesek etzien, nahi erraiten zielarik: ni izan behar uiz batheyatia zutaz; eta zu yiten zira ene gana?

15. Eta Yesusek errespondítu zakon: utz nezazu oren huntako; ezik hola behar dugu yustizia oro komplitu. Ordian Yoanes ez zitzayon gehiago bihurtu.

16. Batheyatia izan onduan, Yesus yalgi zen huretik kamporat; eta dembora berian, zeriak zabaldu zitzaizkon; eta ikhussi zien Yainkoaren izpiritia, zoin yeuxi baitzen, eta phausatu haren gainian, urzo koloma baten itchuran.

17. Eta ordu berian, intzuna izan zen zerutik botz bat, erraiten ziela: hau da ene seme maitia, zoinetan ezarri baidut ene afekzione guzia.

IV GARREN KAPITULIA.

Yesu Kristoren barura eta hirritatzia. Hasten da predikatzen.
Piarressen, Andreren, Yakessen, eta Yoanes-en galdia edo bokazionia.

1. Ordian Yesus eramana izan zen Izpiritiaz deserturat han hirritatia izaiteko debriaz;

2. Eta barur egin onduan berrogei gaü eta egunez, gossetu zen.

3. Eta debriak hurranzen zelarik, erran zakon: Yainkoaren semia bazira, errazu harri hok ogi bilhaka diten.

4. Bena Yesusek errespondítu zakon: izkiribatia da: gizona ez da bizi ogiz choilki, bena Yainkoaren ahotik yalgiten diren hitz orotaz.

5. Ordian debriak eraman zien hiri saindura; eta ezarten zielarik templuaren thinian,

6. Erran zakon: Yainkoaren semia bazira,

— 18 —

aurthik zite behereral; ezik izkiribatia da, ordenatu diela bere aingurier, zutaz artha hartzeko, eta sostengatuko zituztela ber'eskiez, beldurrez yo dezazun zanguez zombait harri.

7. Yesusek errespondilu zakon: iskiribatia da ere: ez duzu hirritatoko zure Yainko Yauna.

8. Debriak orano ereman zien mendi arras gora baten gainera; eta erakasten zazkolarik munduko erresuma guziak, eta hekiei atchikitzen den loria,

9. Erran zakon: emanen daitzut gauza hok oro, ene aintzinian belhaunikaturik, adoratzen banuzu.

10. Bena Yesusek errespondilu zakon: aparta hadi Satan, ezik izkiribatia duk: zure Yainko Yauna adoratuko duzu, eta hura bakharrik zerbitzatuko dnzu.

11. Ordian debriak utzi zien; eta dembora berian aingiuiak hurrandu zitzaizkon, eta hek zerbitzatzen zuten.

12. Yesusek inzun zienian erraitén, Yoanes emanik izan zela presondeyan, yuan zen Galilearat;

— 19 —

13. Eta kitatzen zielarik Nazaretako hiria, yin zen egoitera Kafarnaumerat, zoin baida ixasso hiri bat zabuloneko eta Neftaliko mugan.

14. Amoregatik Isaïa profetaren hitz hau izan zadin komplitia:

15. Zabulon-en herria, Neftali-ren herria, bide ixassorat eramaiten diena, herri Yordainez alde hartarik dena, Nazionen Galilea;

16. Populu hunek, zoin baitzagon ilhun pian, ikhussi ukhandu argi handi bat, yeikia itzalaren eta herioaren pean zaudenen gainian.

17. Dembora hartaz geroztik, Yesus hassi zen predikatzen, ziolarik: egizie penitenzia, zeren zerietako erresuma hurran da.

18. Yesus bazuelarik Galileako itchas bazterraz, ikhussi zitien bi anaya, Simon, deithia Piarres, eta Andre haren anaya, zoinek hedatzen baitzuten bere saria; ezik arrainkari ziren.

19. Eta erran zeyen: segi nezazie, eta bilhakaraziko zituztet gizon cherkhari.

20. Berhala utzi zituzten bere sariak, eta segitu zuten.

— 20 —

21. Hantik ainzinatzian, ikhussi zitien bertze bi anaya, yakes zebedearen semia, eta Yoanes, zoin baitziren barka batian, zebedea bere aitarekin, eta zoinek aphaintzen baitzituzten bere sariak; eta deithatu zitien.

22. Dembora berian, segitu zuten, utzirik bere saria eta ber'aita amak.

23. Eta Yesus bazabilan Galilea guzian, synagogetan erakaxiz, Ebanyelioa predikatuz, populiaren artian, eritarzun orotarik sendotuz.

24. Eta haren omena hedatu zenian Syria orotan, pharatzen zazkoten eri guziak; zerbait min edo dolore sofritzen zutenak, lunatikoak, paralytikoak, eta sendotzen zitien:

25. Eta populuko yendeketa handi batek segitu zuten, Galileatik, Dekapoletik, Yerusalemetik, Yudeatik, eta Yurdainez alde hartarik.

V GARREN KAPITULIA.

Predikia Mendian.

1. YESOSEK ikhussirik populu hau oro, igaran zen mendi baten gainera; han yarri zenian, haren dizipuliak hurrandu zitzaizkon;

2. Eta erakaxten zeyen, erraiten zielarik:

3. Dohaxu dira izpirituz probe direnak, zeren heyena da zeruko erresuma.

4. Dohaxu dira ezti direnak, zeren gozatuko dute lurra.

5. Dohaxu dira nigar egiten dutenak, zeren konsolatiak izanen dira.

6. Dohaxu dira yustiziaren gossia eta egarria dutenak, zeren assiak izanen baidira.

7. Dohaxu dira miserikordiazu direnak, zeren yardirexiko dute miserikordia.

8. Dohaxu dira bihotza garbi dutenak, zeren ikhussiko dute Yainkoa.

— 22 —

9. Dohaxu dira bakezkoak, zeren izanen dira deithuak Yainkoaren haurrak.

10. Dohaxu dira sofrituco dutenak persekuzionia yustiziarentzat, zeren zeruko erresuma heyena da.

11. Dohaxu zirete gizonek kargatzen zituztenian maradizionez, persekutatzen zituztenian eta erraiten dituztenian falxuki, gaitz suerte guziak zien kontra ene gatik.

12. Ordian alegera zitezte; zeren errekompenxa handibat beiratzen da ziendako zerian; ezik hola persekutatu dituzte profetak zoin izan baidira ziek beno lehenago.

13. Ziek zirete lurreko gatza; galzen badu gatzak bere indarra, zerekin gazituko da? Ez da hun deusetako gehiago, bezik ere aurthikiteko kamporat, eta gizonez ostikatia izaiteko.

14. Ziek zirete munduko argia: hiribat mendi baten gainian ez daite izan gordia:

15. Ez dute phizten lampa bat ezarteko gaitzuriaren pian; bena ezartzen dute ganderailu baten gainian, amoregatik argi ditzan etchian direnak oro.

— 23 —

16. Hola zien argiak argi beza gizonen aintzinian, amoregatik ikhus ditzaten zien obra hunak, eta ohura dezaten zien aita, zoin baita zerietan.

17. Ez dezaziela phenxa yin nizala legiaren edo profeten destruitzera: ez niz yin destruitzera, bena bai komplitzera.

18. Ezik erraiten dauziet egiazki, zeria eta lurra ez dira igaranen, non ez diren komplitzen, undar phunduranokoan, legian direnak oro.

19. Beraz nork ere bauxiko baidu manamendu horietarik mendrena, eta nork ere erakaxiko baidu gizoner hetarik hausten, soina izanen da zeruko erresuman azkena bezala; bena komplitzen ditiena, eta ikhasarazten ditiena, handia izanen da zeruko erresuman.

20. Ezik erraiten dauziet; zien yustizia ez bada abondosago eskribano eta farisien-ena beno, ez zitezte zeruko erresuman sarthuko.

21. Ikhassi duzie erranik izan dela zaharrer: ez duzie hilen nehor; eta hiltzen dienak, merechituko du kondenatia izaitia yuyamenduz.

— 24 —

22. Bena nik erraiten dauziet; bere anayaren kontre koleran yartzen denak, merechi dukela kondenaturik izaitia konseillinz; eta erranen dakonak erho bat zira, merechituko diela ifernuko surat kondenatzia izaitia.

23. Beraz zure oferenda aldarerat eramaitian, orhoitzen bazira anayak badiela zerbait zure kontra.

24. Utzazu zure oferenda aldare aintzinian, eta zuaza zure anayarekin baketzera, eta gero itzuliko zira zure presentaren emaitera.

25. Kompont zite zure partidarekin bidian zirelarik, ahalik lasterrena, beldurrez harek eman zitzan yuyiari; yuyiak yustiziako ministroari, eta ez ziten ezarria izan presondeyan.

26. Egiazki erraiten dauzut: ez zirela hantik yalgiko, pagatu gabe arditeranokoan.

27. Yakin duzie erranik izan dela lehencko yender: ez ziezte adulterios izanen.

28. Bena nik erraiten dauziet nurk ere soegin baidu emazte bati haren gutizia gaichto batekin, yadanik adulterioa harekin egindu bere bihotzian.

— 25 —

29. Beraz eskuineko begiak eskandalisatzen bazitu, khen ezazu, eta aurthikazu zure ganik urrun; ezik hobe da zuretzat, zure gorphutzeko membro bat gal dadin, zure gurphutz guzia ifernurat aurthikia baliz beno.

30. Zure eskuineko eskiak eskandalisatzen bazitu, phikhazazu, eta aurthik zure ganik urrun; ezik hobe da zuretzat, zure membroetarik bat galdadin, zure gorphutz guzia ifernurat aurthikia baliz beno.

31. Erranik izan da orano: nork ere nahi baidu desperitu bere emaztia, eman bezako izkiribu bat, zointaz deklaratuko baidu abandonatzen diela.

32. Eta nik erraiten dauziet: nork ere desperitzen baidu bere emaztia, adulterioko ogenik gabe, adulterio bilhakarazten du; eta nork ere esposatzen baidu bere senharrak desperitzen diena; adulterio bat egiten du.

33. Ikhassi duzie orano erranik izan dela zaharrer: ez duzie eginen zin falxurik. Bena Yainkoari, pagatuko dituzie zin eginez hitzemanak.

34. Eta nik erraiten dauziet ez egiteko zinik

— 26 —

neholare, ez zeriaz, zeren hura baida Yainkoaren tronua ;

35. Ez lurraz, zeren hori zerbitzatzen baida eskabelatzat, haren zanguen dako ; ez Yerusalemez, ezik hori da errege handiaren hiria.

36. Ez duzie ere zinik eginen zien buriaz, zeren ez bai duzie khanbiatzen ahal bilo bakhoitz bat churi ez belz.

37. Bena kontenta zitezte erraitez : horida, horida, edo hori ez da ; hori ez da : ezik gehiagokua, gaichtokeriatik helduda.

38. Yakin duzie erranik izan dela : begia begiarentzat, hortza hortzarentzat.

39. Eta nik erraiten dauziet ez bihurtzez egin nahi deraukuten gaizkiari, bena norbaitek yo bazitu eskuineko mathelan, phara zakozun bertzia.

40. Eta norbaitek nahi badu pleiteatu zure kontra, zuri hartzeko zure arropa, abandona zakozu, eta emozu orano zure kapa.

41. Eta norbaitek nahi bazitu bortchatu hareki mila urhax egitera, egin ezazu orano bi mila.

42. Emozu galdegiten dauzunari, eta ez

— 27 —

dezazula urrunt zure ganik nahi diena mailleatu.

43. Ikhassi duzie erranik izan dela : maithatuko duzu zure auzua, eta hastiatuko duzu zure exaia.

44. Eta nik erraiten dauziet : maitha zatzie zien exaiak, egin ezazie ongi hastio zituztener, eta othoitz egizie persekutatzen eta kalomniatzen zituztenentzat ;

45. Amore gatik izan zitezten zien aita zerietan denaren haur, zoinek yeikiarazten baidu bere ekhia hunen eta gaichtuen gainerat, eta eror arazten baidu euria yustuen eta inyustuen gainerat.

46. Ezik ez baduzie maithatzen maite zituztenak bezik, zer errekompenxa ukhanen duzie ? Publikanuek ere ez dutea hori egiten ?

47. Ez badituzie salutatzen zien anayak bezik, zer egiten duzie bertzek beno gehiago ? Paganuek ere ez dutea hori egiten ?

48. Izan zitezte ziek, perfeit, zien aita zerukua perfeit den bezala.

VI GARREN KAPITULIA.

Predikiaren segida mendian.

1. Goco emazu, ez egiteko obra hunik gizonen aintzinian ikhussia izaiteko: bertzainez ez duzu ukhanen errekompensarik zure aita zerietan dena ganik.

2. Beraz amoina emaiten duzienian, ez dezaziela zien aintzinian trompetaz soinu eragin, hypokritek synagogetan eta kharriketan egiten duten bezala, gizonez ohoratiak izaiteko. Erraiten dauziet egiazki, heyek errezebitu dute bere errekompenxa.

3. Bena amoina egiten duzienian, zure ezkerreko eskiak ez beza yakin zer egiten dien eskuinekuak;

4. Amoregatik zure amoina segeretian izan dadin: eta zure aitak, zoinek ikhusten baidu zer igaraiten den segeretian, emanen dauzu haren errekompenxa.

5. Orobat othoitz egiten duzienian, ez dezaziela iduri izan hypokriter, zoinek nahi baidute othoitzak egin agertuz, zutik synagogetan, kharrika chokhoetan, ikhussiak izaiteko gizonez. Erraiten dauziet egiazki, heyek errezebitu dute bere errekompenxa.

6. Bena ziek, nahi duzienian othoiztu, sar zitezte zien gamberan, eta bortha hertxirik, othoi zazie zien aita segretian; eta zien aitak, zoinek ikhusten baidu zer igaraiten den segretian, emanen dauzie errekompenxa.

7. Ez dezazula erakasterat eman othoitz anitz egitia, Paganuen gisa, zoinek uste baidute ethe anhitzez inzunak izanen direla.

8. Ez zitela hek iduri bilhaka; zure aitak badaki zeren beharra duzun, zuk galderik egin gabe.

9. Othoitz eginen duzu beraz gisa huntaz: gure aita zerietan zirena, erabil bedi seinduki zure izena:

10. Yin bekigu zure erresuma: egin bedi zure borondatia lurrian ere zerian bezala:

11. Eman ezaguzu egunian eguneko ogia:

12. Eta gure zorrez kito egin gitzazu, guk gure zor dunak kito egiten ditugun bezala:

— 31 —

13. Eta ez gitzazula utzi tentazionerat ; bena begira gitzazu gaitzetik. Halabiz.

14. Ezik barkhatzen baduzie gizoner, zien kontra egiten dituzten kaltiak, zien aita zerikoak ere barkhatuko dauz kitziete zien bekhatiak.

15. Bena ez baduzie barkhatzen gizoner, ofensatu zuztenian, zien aitak ere ez dauzkitziete barkhatuko zien bekhatiak.

16. Eta barur egiten duzienian, ez ziteztela izan triste hypokritak bezala; ezik agertzen dira begithartia deseginak, amoregatik gizonek ezagut dezaten barur direla. Erraiten dauziet egiazki heyek bere errekompenxa errezebitu dutela.

17. Bena zick, barur egiten duzienian, aphaint itzazie zieu buriak, eta ikhuz zieu begithartiak ;

18. Ez erakustiagatik gizoner barur zireztela, bena zien aitari, zoin present baida lekhurik segretenetan, eta zoinek, emanen baidauzie errekompenxa.

19. Ez dezaziela bil tresorrik lurrian, non erdoilak eta harrek yaten baidituzte, eta non ohoinek edireiten eta ebasten baidituzte.

— 32 —

20. Bena bil itzazu tresorrak zerian, non ez baidituzte yaten ez erdoilak, ez harrek ; eta non ez baida ohoinik ez bilhatzeko ez ebasteko.

21. Ezik nun da zure tresora, han da zure bihotza ere.

22. Zure begia zure gorphitzeko lampada ; zure begia garbi bada, zure gorphitz guzia izanenda argitia.

23. Bena zure begia gaizki bada, zure gorphitz guzia ilhun izanenda ; ezik zutan den argia ez bada ilhun bezik, zombat ez dira handi izanen ilhunpiak berak !

24. Nehork ez ditzazke zerbitza bi naussi ; ezik hastiatuko du bat eta maithatuko bertzia, edo estekaturen da bati eta mesperetchatuko du bertzia.

25. Ez detzazkezu zerbitza Yainkoa eta aberaxtarsunak.

26. Hortakotz erraiten derauziet : ez zitezela inketa non khaussituren duzien zer yan zien bizien sostengatzeko, ez nuntik ukhanen dituzien arropak zien gorphutzen estalzeko : bizia ez dea gehiago haz garria beno eta gorphitza arropa beno ?

— 33 —

27. Konsidera itzazie zeruko choriak : ez dute ereiten, ez dute biltzen, ez dute deus ganerretan ; zien aita zerukuak hazten ditu ; ez zirctea hek beno anitz gehiago ?

28. Eta nor da zietan bere thaila emendatzen ahal dienik bere beso batez, bere insegu guziekin ?

29. Eta zertako inketatzen zirete beztimendez ? Konsidera zazie nola handitzen diren landetako liliak : ez dira lanian artzen, eta ez dute iruten :

30. Bizkitartian errailen derauziet : Salomon bera ere, bere loria guzian, ez dela sekula beztitia izan hetarik bat bezala.

31. Beraz Yainkoak artha badu beztitzeko hola landetako belhar bat, zoin egun fresko izanik, bihar aurthikia izanen baida laberat ; zombat ez du artha gehiago ukhanen zien beztitzeko ; ô gizon fede gutikoak !

32. Ez zirteztela arren inketa, erranez : zer yanen dugu, zer edanen dugu, edo zertaz beztituko gira ?

33. Paganuek egiten dituzten bezala, zoinek cherkhatzen baidituzte gauza horiek oro : ezik zien aitak badaki zer behar duzien.

— 34 —

34. Cherkha zazie beraz lehenik, Yaincoaren erresuma eta haren yustizia ; eta gauza horiek emanak izanen zaitzie izariz kampo.

35. Hartakotz ez ziteztela izan anxietan biharamuneko ; ezik biharamunak artha hartuko du bere buruaz ; egun bakhotchak, gaitz bat aski du.

VII GARREN KAPITULIA.

Predikiaren segida eta undarra mendi gainian.

1. Ez dezaziela yuya, izan ez zitezten yuyatiak.

2. Ezik yuyatiak izanen zirezte bertziak yuyatu dituzkezien bezala; eta zerbitzatuko dira zient-zat, heyent-zat zerbitzatu zirateketen izari beraz.

3. Zertako ikhusten duzu lastobat zure anayaren begian, zuk ez baiduzu ikhusten pitrail bat zure begian?

4. Edo nola erraiten duzu zure anayari: utz nezazu zure begitik lasto baten idekitera, zuhaurek haduzularik pitrail bat zurian?

5. Hypokrita, khen ezazu lehenik pitrailla zure begitik, gero idekiten ahal dukezu lastua zure anayaren begitik.

6. Begirazite zakhurrer emaitetik gauza saindurik, eta ez ditzazula aurthik perlak cherrien aintzinerat, beldurrez zango petan ostika ditzaten, eta zure kontra bihurturik, zuhaur phorroka zitzaten.

7. Galdegin zazu, eta emanen dauzie; cherkha zazu, eta khaussituko duzu; yo zazu bortha, eta idekiko dauzie.

8. Ezik galde egiten dienak ukhaiten du; cherkhatzen dienak khaussitzen du; eta bortha yotzen dienari, idekiten dakote.

9. Nor da zien artian gizona emaiten dakona harrihat semiari, hunek ogi galdegiten dakonian?

10. Edo arrain bat galde giten badako, emanen dakoya suge bat?

11. Beraz gaichto izanez, hala ziren bezala, baldin badakizu gauza onen emaiten zure haurrer; zombat arrazoin azkarraguez, zure aita zerukoak emanen ditu egiazko gauza hunak galdegiten dituztener?

12. Egizu beraz gizoner hek zuri egin dezazien nahi dituzun guziak; ezik hor dira legia eta profetak.

13. Sar zite bortha herxitik; zeren galtzeko

— 37 —

bortha largo da, eta hartarat eramaiten dien bidia zabal, eta badira anitz han sartzen direnak.

14. Ala bizitzeko bortha ttipi eta harateko bidia hersi direla ! eta gutik khaussitzen dituztela !

15. Begira zite profeta falxietarik, zoin yiten baitzauz kizu ardilarruz estaliak, eta zoin baidira barnian oxo errabiatiak.

16. Ezaguturen dituzu bere obretarik. Mahaxik biltzen ahal dea elhorrietan, edo phikorik laharretan ?

17. Holaz arbole hun orok ekhartzen dute frutu hunik, eta arbole gaichto guziek frutu gaichtorik.

18. Arbole hun batek ez diro ekhar frutu gaichtorik, eta arbole gaitchtuak ez diro ekhar hunik.

19. Frutu hunik ekhartzen ez duteo arbole guziak, izanen dira phikatiak eta surat aurthikiak.

20. Bere frutietarik ezagutuko dituzu beraz.

21. Yauna, Yauna, erraiten derautatenak,

— 38 —

oro ez dira zeruko erresuman sarthuko; bena choilki han sarthuko da, ene aita zerukoaren borondatia egiten diena.

22. Anhitzek erranen derautate egun batez ; Yauna, Yauna, ez duguia predikatu zure izenian? ez dituguia demonioak kazatu zure izenian? ez dituguia egin mirakuliak zure izenian?

23. Eta ordian erranen deyet goraki : ez zituztet ezagutu sekulan ; erretira zitezte ene ganik, ziek ez baiduzie egiten obra gaitchtorik bezik.

24. Nork ere inzuten eta pratikatzen bai ditu erraiten ditudan hitz hok, hura komparitia izanen da gizon zuhur bati, zoinek bere etchia egin baidu harriaren gainian.

25. Euritu dienian ; hurak yalgi direnian, aiziak handiturik eman dienian etche horren kontra, hau ez da erori, zeren bastitia baitzen harriaren gainian.

26. Bena nork ere inzuten baiditu erraiten ditudan hitz hok, eta ez baiditu pratikatzen, harek iduriko du erhobat, zoinek bere etchia egin baidu harignaren gainian.

— 39 —

27. Eta euritu dienian, hurak yalgi direnian, aiziak handiturik eman dienian etche horren kontra, hori aurthikia izanda, eta destruizione handia izanda.

28. Yesusek finitu zienian diskus hori, haren doktrinaz populiak amirazionetan zauden.

29. Ezik inztruitzen zitien, naussitarzuna ukhanik bezala, eta ez eskribauen eta farisienen gisa.

VIII GARREN KAPITULIA.

Leprosa. Centinierra-Yaundoni Phetriren amiharreba. Yesu Kristoren segitzia. Tempesta apazeatia. Demonioak kazatiak, urdiak aurthikiak.

1. Yesus yenxi zenian menditik, mundu handibat yarraiki zitzakon :

2. Eta dembora berian, lepraz hartia zen bat yin zitzakon eta adoratu zien, erraiten zakolarik : Yauna zuk nahi baduzu sendotzen ahal nuzu.

3. Yesusek eskia hedatzen zielarik hunki zien, eta erran zakon : nahi dut : sendotia izan ziten ; eta istantian haren lepra sendotia izan zen.

4. Eta Yesusek erran zakon : begira zite huntaz nehori minzazetik ; bena zuaza zure buriaren erakastera aphezari, eta oferizakozu

— 42 —

Moysesek ordenatu dien presenta amoregatik hori zerbitcha dakiten phoroganzetako.

5. Yesus Kafarnaum-en zelarik, zeutinierbat yin zitzaikon, eta egin zakon othoiza hau :

6. Yauna, ene zerbitzaria etzana dut etchian paralysiak yoa, eta biziki sofritzen du.

7. Yesusek erran zakon : yinen niz eta sendotuko dut.

8. Bena zentinierrak errespondítu zakon : Yauna, ez niz digno ene etchian zure errezebitzeko ; bena errazu choilki hitz bat, eta ene zerbitzaria izanen da sendotia.

9. Ezik nahiz ere ez nizan nihau bertze gizon bati ubeditzeko bezik, baditut halere soldaduak ene peko, eta erraiten dakot bati ; zuaza harat, eta yuaiten da ; eta bertziari, zauri hunat, eta yiten da; eta ene zerbitzariari, eginezazu hori, eta egiten-du.

10. Hitz horiek intzutian, Yesus eman zen amirazionian, eta erran zeyen hura segitzen zutener : egiazki erraiten dauziet, ez dut khaussitu Israelen ere horren fede azkarrik.

11. Ere erraiten dauziet : anitz yinen direla Orientetik eta Occidentetik, eta plazatiak iza-

— 43 —

nen direla Abraham, Isaak eta Yakobekin, zeruko erresumako banketian.

12. Bena erresumako haurrak izanen direla aurthikiak kampoko ilhunpetarat. Han izanen dira nigarrak eta hortz karraskak.

13. Ordian Yesusek erran zakon zenteniérrari : zuaza, eta egin bekizu sinhexi duzun bezala ; eta haren zerbitzaria oren berian sendotia izan zen.

14. Yesusek Petriren etchera yinik, ikhussi zien hunen amin-arcba, ohian eri, sukharrak hartia,

15. Hunkitu zakonian eskia, sukharrak kitatu zien : yeikizen berhala, eta gero zerbitzatzen zitien.

16. Arraxian presentatu zazkoten anitz yende demonioez tormentatiak, eta bere hitzaz hetarik kazatu zitien izpiritu gaichtoak, eta sendotu zitien eri zirenak oro ;

17. Amoregatik Isaia profetareu hitz hau izan zadin komplitia : berak hartu ditu gure gaitzak, eta kargatu da gure eritarzunez.

18. Yesusek ikhussirik populu handi batez inguratia zela, ordenatu zien igaraitia huraz bertze alderat, bere dizipulier.

— 44 —

19. Ordian eskribau, edo legeko doktor batek hurbiltzen zitzakolarik, erran zakon : naussia, norat nahi yuan ziten, segituko zitut.

20. Eta Yesusek ihardexi zakon : acheriek baditozte bere chiluak, eta choriek bere kafiak ; bena gizonaren semiak ez du buria nun phaussa.

21. Bere dizipulietarik bertze batek erran zakon : Yauna, permeti zaduzu yuaitia, zu segitu heno lehen, ene aitaren ihortztera.

22. Bena Yesusek erran zakon : segi nćzazu, eta utzitzazu hiler bere hilen ihortzteku arrangurak.

23. Gero sarthu zen untzian, bere dizipuliez lagundia.

24. Eta berhala altchatu zen ixassoan tempesta bat hain handia nun untzia hurez estali baitzen ; eta hargatik hura lo zagon.

25. Ordian dizipuliak hurbildu zitzaizkon, eta iratzartu zuten erraiten zakotelarik : Yauna salba gitzazu, galtzen ari gira.

26. Yesusek errespondilu zeyen : zertako zirete beldurti, gizon fede gutikuak? Eta dembora berian yeikitzeu zelarik, manu eman

— 45 —

zien aizer eta ixassoari, eta eztitarzun handi bat egin zen.

27. Ordian han zirenak amirazionetan sarthu ziren, erraiten zutela : norda, aizek eta ixassoek obeditzen dakoten hori ?

28. Yesus heldu zenian huraz bertze alderat, Yerasendarren herrira, yin ziren haren aintzinera, hil herrietarik yalgirik, bi persona demonioaz hartiak, hain furiosak nun ez baitzen nehor menturatzen igaraitera bide hartarik.

29. Dembora berian eman ziren oihuz, erraiten zakotela : Yesus, Yainkoaren semia, zer da zure eta gure artian ? yin zirea hunat gure tormentatzera dembora beno lehen ?

30. Hantik haratchago bazen urde tropa handi bat yaten ari zirenak.

31. Eta demoniock otheizten zuten, erraiten zakotelarik : kazatzen bagituzu hebentik, igor gitzazu urde multzo hartarat.

32. Erran zeyen : zuazte. Eta hantik yalgirik, sarthu ziren urde hetan. Berhala azinda saldo hori oro lasterka yuanik ixassoan sarthu zen, eta han itho.

33. Ordian haren begirazalek ihes egin zuten; eta hirirat yin zirenian, khondatu zituzten horiek oro, eta zer gerthatu zitzeyen demoniock hartiak zirener.

34. Berhala hiri guzia yalgi zen yuaiteko Yesusen aintzinera; eta ikhussi zutenian, othoiztu zuten erretira zadin heyen herritik.

IX GARREN KAPITULIA.

Paralytikua. San Mathiuren bokazionia. Barura. Yairaren alaba. Emazte sendotia odol galze batetarik. Bi ixu. Demonioaz hartu mutia. Ardi artzain gabiak.

1. Yesus untzian sarthurik, igaran zen berriz ixassoan, eta yin zen bere hirirat.

2. Eta nola pharatu baitzakoten paralytiko bat etzana ohe baten gainian, Yesusek ikhussirik heyen fedia, erran zakon paralytikoari: ene semia, ukhan ezazu kuraye; zure bekhatiak barkhatiak dira.

3. Hain laster eskribanetarik zombaitek erran zuten bere baithan: gizon horrek blasfematzen du.

4. Bena Yesusek ezaguturik zer phensatzen zuten, erran zeyen: zertako duzie phensamendu gaichtorik zien bihotzetan?

— 48 —

5. Ezik zerda erretchenik, edo erraitia zure bekhatiak barkhatiak izan zauzkitzu, ala erraitia ; yeiki zite eta ibil zite ?

6. Amoregatik yakin dezazien gizonaren semiak badiela lurrian bekhatien barkhatzeko botheria : yeiki zite, erraiten du paralytikuari; harzazu zure ohia, eta zuaza zure etcherat.

7. Paralytikua yeiki zen berhala, eta yuan zen ber'etcherat.

8. Populia, mirakulu hori ikhussiz, beldurrak hartu zien, eta Yainkoari gloria errendatu zien , zeren holako botheria gizoner emian zeyen.

9. Hantik yalgitian, Yesusek bidian zuelarik ikhussi zien gizon bat yarria zerga biltzeko bureuan , deithatia Mathieu ; erran zakon : yarraiki zaizkit ; eta hau berhala yeiki zen, eta yarraiki zitzakon.

10. Eta Yesus gizon horren etchian mahaian zelarik, publikano eta fede gaichtoko yende anitz harat yin ziren ; yarri ziren mahaian Yesusekin eta haren dizipuliekin.

11. Hori ikhussirik farisienek, erran zeyen haren dizipulier : zertako zien naussiak yaten

— 49 —

du publikano eta bizitze gaichto deramatenekin ?

12. Bena Yesusek hori intzunik, erran zeyen : ez dira onxa ekharten direnak , bena bai eriak, mediku beharretan.

13. Hartakotz zuazte, eta ikhas zazie zer erran nahi duten hitz huk : maitiago dut miserikordia sakrifizioa beno ; ezik ez niz yin deithatzeko yustnak, bena bai bekhatoriak.

14. Ordian Yoanesen dizipuliak yin zitzaizkoo, eta erran zakoten : zertako farisienek eta guk barur egiten dugu ardura , eta zure dizipuliek batere ?

15. Yesusek erresponditu zeyen : espossaren adiskidiak egoiten ahal direa tristezian eta dolian, noiz ere baida esposa heyekin ? Bena yinenda dembora bat zointan esposa khendia izanen baitzeye, ordian barurtuko dute.

16. Nehork ez du ezarten oihal berrizko bethatchu bat arropa zahar bati ; zeren berriak altcha lezake zaharretik pharte bat, eta ordian gehiago andea liro.

17. Eta ez dute ezarten arno berririk untzi zaharretan ; zeren bola egiten bada, unziak

— 50 —

lehertzen dira, arnoa ichurtzen da, unziak galdiak dira, bena ezarten dute arno berria unzi berrietan; eta hola arnoa eta unziak konserbatzen dira.

18. Hori erraiten zeyelarik, synagogako aintzindaribat hurrandu zitzakon, eta adoratu zien, erraiten zakolarik; Yauna, ene alaba orai hil da; bena zauri eskiez hunki zazu, eta biziko da.

19. Berhala Yesus yeikizen, eta segitu zien bere dizipuliekin.

20. Ordian emazte bat, zoin eri baitzen odol galze batetarik, hurrandu zitzakon gibeletik, eta hunki zakon bere arroparen zolako batza;

21. Ezik erraiten zien bere baithan; horren arropa hunkitzen ahal badut, sendotia izanen niz.

22. Ordian Yesusek itzulzen zelarik, ikhussi zien, eta erran zakon: ene hanrra, ukhan ezazu konfidanza, zure fediak salbatzen zitu. Eta emazte hori sendotia izan zen.

23. Synagogako aintzindariaren etchera heldu zenian, Yesus, han ikhussirik chirula yoi-

— 51 —

liak, eta yende tropa bat, zoinek egiten baitzuten abarrox, erran zeyen:

24. Erretira zitezte; ezik neskato hori ez da hila, ez da lokhartia bezik. Eta yende horiek burlatzen ziren hartaz.

25. Beraz mundu guzia kamporat yalgiarazi onduan, sarthu zen, eskia hartu zakon; eta nechkato gazte hori yeiki zen:

26. Eta mirakulu horren fama hedatu zen kartier guzian.

27. Yesus yalgiten zelarik lekhu hortarik, bi ixu yarraiki zaizkon, oihuz: David-en semia, ukhazu pietate gutaz.

28. Eta etcherat yin zenian, ixu hok hurrandu zitzaizkon. Eta Yesusek erran zeyen: sinhesteo duzea egiten ahal dutala ziek gakde egiten duziena? Errespondituzakoten: Bai, Yauna.

29. Ordian hunki zitien heyen begiak, erraiten zielarik: egin dakiziela zien fediaren arabera.

30. Berhala heyen begiak zabaldu ziren. Eta Yesusek defendatu zeyen azkarki hortaz miutzatzia, erraiten zeyelarik: onxa gogo emazie nehork ez dezan yakin.

— 32 —

31. Bena hek yuan zirenian, hedatu zuten haren fama kartier hotan orotan.

32. Hek yalgi onduan, pharatu zakoten gizon mutu bat demonioaz hartia.

33. Demonioa kazatu izan onduan, mutia mintzatu zen, eta populia amirazionetan eman zen. Erraiten zuten: ez da sekulan Israelen ikhussi holakorik.

34. Bena farisienek erraiten zuten kontrara: Demonioen Prinziaz kazatzen ditu demonioak.

35. Yesusek yuanez alde orotarat, hirietarat eta herrietarat, hetako synagogetan erakasten, eta predikatzeu zien erresumako Ebanyelioa, sendotzen zitielarik populiaren artian, eritarzun suerte guziak.

36. Eta ikhustiarekin populu hok oro, urrikaldu zitzaizkon; zeren dako baitziren gaitzez yuak; han, hemen etzanak, ardi artzain gabiak bezala.

37. Ordian erran zeyen bere dizipulier: frutu ausarki bada; bena langiliak guti dira.

38. Othoitzazie beraz frutien naussia igor dezan langile bere frutietarat.

X GARREN KAPITULIA.

Apostolien hautatzia Yesu Kristok emaiten deyen botheria. Persekuzionia zointaz abertitzen baiditu. Errekompenza hitz emaiten deyena.

1. Ordian Yesusek, bere hamabi dizipuliak deithaturik, eman zeyen bothere izpiritu gaichtuen gainian heyen kazatzeko, eta erien sendotzeko gaitz suerte guzietarik.

2. Ezik huna hamabi apostolien izenak: lehena, Simon, zoin deithia baita Piarres, eta Andres haren anaya;

3. Yakes zebedearen semia, eta Yoanes haren anaya, Filipe eta Barthelemi; Thomas eta Mathieu publikanoa; Yakes, Alfearen semia, eta Thaddea;

4. Simon Kananeendarra, eta Yudas Iskariote, zoinek bera trahitu baitzien.

— 54 —

5. Yesusek igorri zitien hamabi hok, eman onduan instrukzione segidakuak : ez ziteztela yuan Paganuetarat, eta ez sar Samaritanuen hirietarat ;

6. Bena zuazte lehenago Israeleko etcheko ardi galdietarat.

7. Eta yuaiten zirezten lekhietan, predikazazie, erranez zerietako erresuma hurranda.

8. Errenda zazie erier ossagarria, phitz itzazie hilak, sendo itzazie lepradunak, kaza itzazie demonioak ; emazie kitorik ukhan duziena kitorik.

9. Etziteztela eman penetan urhe edo zilhar ukhaileko, edo bertze dirurik molxan.

10. Ez dezaziela prepara ez zaku bat bideko, ez bi abitu, ez zapata, ez makhila ; ezik trabaillatzen denak, merechi du haz dezaten.

11. Zoin nahi hiri edo herrietan sar zitezten, informa zitezte nor den digne zien aloyatzeko, eta haren etchian egon zitezte lekhu hortarik yuan artio.

12. Etchian sartzian, saluta zazu erranez : bakia dela etche huntan.

13. Etche hori digno bada, zure bakia harat

— 55 —

eroriko da ; eta digno ez bada, zure bakia zu ganat itzulikoda.

14. Nurbaitek ez bazituzte nahi errezebitu ziek, ez badute nahi behatu zien hitzer, lekhu hortarik yalgitzian, ihurros itzazie zien oinetako erhauxak.

15. Erraiten dauziet egiazki: hiri hori beno eztikiago tratatiak izanen dira Sodoma eta Gomorra yuyamenduko egunian.

16. Ygorten zituztet ardiak oxuen erdira bezala : izan zitezte prudent sugiak bezala, eta chimple kolombak bezala.

17. Bena goardi' emazie gizoner ; ezik eramanen zuztete bere biltzarretara, eta azotaraziko zuztete bere synagogetan.

18. Eta pharatiak izanen zirezte, ni nizala khausa, gobernadorer eta erreger, hain onxa nazioner, nitaz yakitate emaiteko.

19. Beraz noiz ere emaiten baitzituztet heyen eskietarat, ez ziteztela penan yar nola mintzatuko zirezten, ez zer erranen deyezien : ezik erranen duziena ukhanen duzie memento-ko.

20. Zietan mintzo denaz yeroz zien aitaren izpiritia, eta ez ziek.

— 56 —

21. Ezik anayak anaya libratuko du heriotzerat eta aitak semia: haurrak altchatuko dira bere aiten eta bere amen kontra, eta hilaraziko dituzte:

22. Eta hastiatiak izanen zirete gizon guziez ene izena gatik; bena salbatia izanen da undarrerano fermo egoiten dena.

23. Beraz persekutatzen zuztenian hiri batian, ihes egizie hertze baterat. Erraiten dauziet egiazki: ez dukezie finitia Israeleko hiri guzien instruitzia, gizonaren semia yin beno lehen.

24. Dizipulia ez da naussia beno gorago, ez eta zerbitzaria Yauna beno gehiago.

25. Askida dizipuliarentzat naussia bezala izaitia, eta zerbitzariaren-tzat bere Yauna bezala. Deithu badute familiako aita Beelzebud, zombat aisekiago deithatuko dituzte haren sehiak?

26. Ez dezaziela beraz heyen beldurrik izan, ezik ez da yeus gorderik, agertu behar ez denik, ez segreturik ezagutia izan behar ez dienik.

27. Erran ezazie agerian nik itzalian erraiten dauzkitzietanak, eta predikatzazie etchen gainetarik beharrietarat erraiten dauzkitzietenak.

— 57 —

28. Ez beldurrik ukhan gorphitzak hiltzen, eta arimarik hil ez dezaketenen dako; bena lehenago beldur ukhan ezazie arima eta gorphitza galditzazketenen dako.

29. Ez dea egia bi chorik saltzian ez dutela balio ardit bat hezik; bizkitartian hat-ez da erorten lurrerat zien aituren borondatia gabe.

30. Bena zientzat, zien buruko bilo guziak khondatiak dira.

31. Holaz ez beldurrik ukhan; anitz gehiago balio duzie chori nombre handi batek beno.

32. Nork ere ezagutzen bainu gizonen aintzinian, nik ere hura ezaguturen dut aita zerietan denaren aintzinian.

33. Eta nork ere ukhatuko bainu gizonen aintzinian, nik ere hura ukhatuko dut eue aita zerietan denaren aintzinian.

34. Ez dezaziela phenxa yin nizala bakiaren ekhartera lurrerat; ez niz yin ekhartera bakia, bena ezpata.

35. Ezik ni niz yina berheztera gizona ber'aitaren ganik, alaba ber'amarenganik, eta errena ber'aminharrebarenganik.

36. Eta gizonak ukhanen ditu exaietako bere etchekuak.

37. Bere aita edo ama ni beno maitiago ditiena, ez da digno enetako; eta bere semia edo bere alaba ni beno maitiago diena, ez da enetako digno.

38. Bere khurutzia hartzen ez diena eta ni segitzen ez niena, ez da digne enetako.

39. Bere bizia konserbatzen dienak, galduko du; eta bere bizia galdu dukeyenak ene amoregatik, berriz edirenendu.

40. Ziek errezebitzen zuztenak, errezebitzen nu; eta ni errezebitzen nienak, errezebitzen du ni igorri niena.

41. Errezebitzen dienak profeta, profeta gisa, ukhanen du profetaren errekompenxa. Eta errezebitzen dienak yustua, yusto gisa, ukhanen du yustuaren errekompenxa.

42. Nork ere eman baiduke edatera chuilki heire bat hur hotz ttipien hotarik bati, ene dizipulu kalitatian, erraiten dauziet egiazki, ez du galduko errekompenxa.

XI GARREN KAPITULIA.

Yaun doni Yoanek mezutzen dako Yesu-Kristori Yaun doni Yoaneren laudorioak.

Yesu-Kristo eta Yaun doni Yoane abandonatiak. Hiri penitenzia egin nahi ez dutenak. Sabantak ixutiak; chempliak argitiak. Yesu-Kristoren eztitarzuna.

1. Instrukzione hok eman onduan bere hamabi dizipulier, phartitu zen hantik yuaiteko erakastera, eta predikatzera inguruetako hirietan.

2. Beraz Yaun doni Yoanek yakinik presundeyan, Yesu Kristoren obra miragarriak, igorri zazkon bere dizipulietarik biga.

3. Erraitera: zu zirea yin behar diena, ala behardugu berzebat iguriki?

4. Yesusek erresponditu zeyen: zuazte, khonda zakozu Yoanesi zer aditu duzien eta zer ikhussi duzieo.

— 60 —

5. Ixiek ikhusten dute, maingiak badabiltza, leprossak sendotu dira, elkhorrek intzuten dute, hilak phizten dira, Ebanyelioa probet hitzemana da ;

6. Eta dohaxu da nitan hartzen ez diena eskandalazko eta galtzeko suyet bat.

7. Yuan zirenian hantik, Yesus hasi zen Yoanes ez mintzatzen populiari gisa huntan : zeren ikhustera yuan zirezte desertura? Khanabera bat aiziak higitzen diena ?

8. Zeren ikhustera, diot, yuan zirezten? gizon bat beztitia urgulurekin? bola, gisa hortan beztitzen direnak erregen etchetan dira.

9. Zeren ikhustera yuan zirezte beraz? profetabat? bai, errailen dauziet, eta profeta beno gehiagokua.

10. Ezik hortaz izkiribatia izan da : igortzen dut zure aintzinian ene ainguria, zoinek preparatuko baidu zuk ibili behardunzun bidia.

11. Egiazki errailen dauziet, emazten ganik ez da sorthu Yoanes Batista beno handiagokorik ; bena zerietako erresuman den ttipiena, hori beno handiago da.

12. Yoanes Batistaren demboratik orai artio, zerietako erresuma bortchaka hartzen da, eta azkarrek deramate.

— 61 —

13. Ezik profeta guziek, Yoanesen ganarakuan, eta leguiak berak, zer gerthatuko den erran dute ;

14. Eta nahi baduzie komprenitu zer errailen dauzietan, hori bera da Elias yin behar zen hura.

15. Nork ere baiditu beharriak intzuteko, hak intzun beza.

16. Bena nori erranen dut populu hau hulako dela? hunek iduri du baur horier, zoin plazan yarririk, oihuz baidaude laguner :

17. Khantatu dugu zien alegeratzeko eta ez zirezte dantzatu ; khantatu ditugu ahaire ilhunak zientzat, eta ez duzie erakaxi trizteziarik.

18. Ezik Yoanes yinda ez dielarik yaten ez edaten, eta errailen dute demonioaz hartia da.

19. Gizonaren semia yinda, yaten eta edaten dielarik eta errailen dute : horra gizon bat, zoinek maite baiditu apairu hunak eta arno huna ; poblikanuen eta gaizki bizidiren yenden adiskide da : bena haren zuhurtzia yustifikatia izan da haren haurrez.

20. Ordian hassi zen erreprotchu egiten, zoin ere hiritan egin baitzien mirakulu anitz, heyer, ez zutelakotz egin penitenzia.

21. Zori gaitz hiri, korozain, zori gaitz hiri, Bethsaida, zeren egin balira Tyrren eta Sidonen zien erdian eginak izan diren mirakuliak, aspaldian hok eginen zuten penitenzia hauxez estalzen zirelarik zakien barnian.

22. Hortakotz erraiten dauziet yuyamenduko egunian, Tyr eta Sidon ziek beno gutiago garrazki trataliak izanen direla.

23. Eta hi, Kafarnaum, aitchatuko hiza bethi zeruradino? aphaldia izanen hiz ifernuko zolaradino; zeren hitan egin mirakoliak eginak izan balira Sodoman, orai orano hiri hau menturaz zutik khaussituko zia.

24. Hortakotz deklaratzen deat yuyamenduko egunian, Sodoma hi beno gutiago garrazki tratatia izanen dela.

25. Ordian Yesusek erran zitien hitz hok: Loria errendatzen dauzut, ene aita, zeriaren eta lurraren naussi Yauna, zeren gorde dituzun gauza hok zuhurrer eta prudenter, eta ezagutarazi yende chimpler eta cheher.

26. Bai, ene aita, hortaz loria errendatzen dauzut, zeren nahi ukhanduzun hori izan zadin bola.

27. Ene aitak ezarri dauzkit gauza guziak eskietan: eta nehork ez du ezagutzen semia aitak bezik; hala nola aita ez baidu ezagutzen semiak bezik, eta zoin ere semiak ezagutarazi baidu.

28. Zauzte ni ganat, ziek oro kargatiak eta akhitiak ziretenak, eta soleatuko zituztet.

29. Harzazie ene uztarria zien gainerat, eta ikhas zazie ene ganik ezti eta umil nizala bihotzez, eta khaussituko duzie zien arimen phaussia.

30. Ezik ene uztarria eztida, eta ene karga arhin.

XII GARREN KAPITULIA.

Ogi buriak phikatiak, Sabatoko bestari zor zakon errespetia. Messiassen eztitarzuna. Ixu eta mutu demonioaz hartia. Farisienen blasfemioak. Izpiritu Saindiaren kontrako bekhatia.

1. Dembora hartan, besta egun batez, Yesus igaraiten zen ogi bazter batetarik, eta haren dizipuliak gosseturik, eman ziren zombait bururen phikatzen eta yaten.

2. Farisienek hori ikhussirik, erran zakoten : horra zure dizipuliak, zoinek egiten baidute besta eguoian zilhei ez dena.

3. Bena erran zeyen : ez duzieya irakartu Davidek zer egin zien, bura eta haren lagunak izan zirenian gossiaz atakatiak?

4. Nola sarthu zen Yainkoaren etchian, eta yan zien ogi sakratietarik, zointarik yatia ez baitzen zilhey ez hari, ez harekin zirener, bena choilki aphezer?

5. Edo ez duzieya irakurtu legian, besta egunetan aphezek templuan besta hausten dutela, eta halere ez direla ogen dun?

6. Beraz erraiten dauziet heben badela norbait templua beno handiagorik.

7. Bazindakite zer erran nahi dien hunek : maitiago dut miserikordia sakrifizioa beno : ez zinduten sekula kondenatuko ogen gaberik.

8. Ezik gizonaren semia bestaren beraren ere naussi da.

9. Hantik phartiturik, yin zen heyen synagogarat.

10. Han khaussitzen zen gizon bat, zoinek baitzien eskubat eihartia; eta galdegin zakoten, nahiz akussatzeco suyet bat ukhan, zilhei zenez besta egunetan sendoarazlia.

11. Bena erresponditu zeyen : nor izaneo da zien artian gizona, ikhussi onduan ardi bat errekarat erorten, besta egunian, hartu eta altchatuko ez diena?

12. Zombat da beraz baliossago gizon bat ardi bat beno? Arren zilhey da obra hun egitia besta egunetan.

13. Ordian errao zakon gizon horri : heda

— 67 —

zazu zure eskia. Hedatu zien, eta bilhakatu zen sendo besso hori bertzia bezalu.

14. Bena Farisienek yalgirik, atchiki zuten konseillu elgarrekin haren kontra, zer egiten ahalzuketen haren gal arazteko.

15. Yesusek bazakien hori, lekhu hortarik yuan zen ; anitz yende, yarraiki zitzazkonak, oro sendoarazi zitien.

16. Eta manatu zeyen ez zezaten hura ager nun zen :

17. Amoregatik Isaia profetaren hitz hau izan zadin komplitia :

18. Huna ene zerbitzari, hautatu dudana ; zointan ezarri baidut ene amodio guzia ; hunen gainian phaussaraziko dut ene Izpiritia, eta hunek ezagutaraziko du yustizia nazioner.

19. Ez da aharratuko, ez da oihuz ariko, eta nehork ez du adituko haren botza plaza publikoetan.

20. Ez du chehatuko Khanabera hauxia, ez du urhentuko mitcha orano khe emaiten diena, bere kausaren yustizia triomfarazi artio.

21. Eta nazionek esperanza dukete haren izenian.

— 68 —

22. Ordian pharatu zakoten ixu eta mutu zen bat demonioaz hartia ; eta sendotu zien hain onxa nun hassi baitzen mintzatzen eta ikhusten.

23. Populu guzia amirazionez bethe zen : eta erraiten zuten : ez dea hori David-en semia ?

24. Bena farisienek hori inzutiarekin, zioten : gizon horrek ez ditu kazatzen demonioak Beelzebud, debrien Prinziaren berthutez bezik.

25. Ezik Yesusek ezaguturik heyen phenxamendiak, erran zeyen : bere buriaren kontra berhezten eta altchatzen den erresuma, galdiada, eta hiri edo etche berhezi dena bere buriaren kontra, ez da konserbatzen ahal.

26. Satanek kazatzen badu Satan, bere buriaren kontra altchatia da : nola beraz haren erresumak irauten ahaldu ?

27. Eta Beelzebud-ez kazatzen baditut demonioak, nortaz zure haurrek kassatzen dituzte ? Hortakotz hek berak izanen dira zien yuyiak.

28. Kazatzen baditut demonioak Yainkoaren Izpiritiaz, Yainkoaren erresuma heldu da beraz zietaradino.

29. Bena nola sartzen ahal da norbait azkar baten etchian, eta pillatzeo haren harmak eta bertze ditienak, aintzinetik ez badu estekatzen azkar hori, gero pilla ahal dezan horren etchia?

30. Enekin ez dena, ene kontra da; eta enekin biltzen ez diena, barreatzen arida.

31. Hartakotz erraiten dauziet bekhatu guziak eta blazfemio guziak barkhatiak izanen direla gizoner: bena Izpiritu Saindiaren kontreko blazfemioa ez zeye barkhatia izanen.

32. Gizonaren semiaren kontra mintzatu denari, barkhatia izanen zako; bena nehor mintzatu bada Izpiritu Saindiaren kontra, bari ez zako barkhatuko ez mende huntan, eta ez mende yineu direnetan.

33. Edo errazu arbole huna dela, eta haren frutia ere bai: edo errazu arbolia gaichtua dela horren frutia ere gaichtua dela; ezik frututik ezagutzen da arbolia.

34. Bipera kastak, nola erraiten ahalduzie gauza hunik, ziek gaichtuak zietelarik? ezik bihotzeko abondanziatik ahua mintzatzen da.

35. Gizon hunak idekiteu du gauza hunik bere bihotzeko tresur hunetik eta gizun gaichtuak, idekitendu gauza gaichtorik bere tresor gaichtotik.

36. Beraz deklaratzen dauziet yuyamendian gizonek khondu errendatuko dntela erran duzketen elhe auher guziez.

37. Ezik izanen zirete garbitiak zien hitzez, eta izanen zirete kondenatiak zien hitzez.

38. Ordian zombait eskribau eta farisienek erran zakoten: naussia, unxa nahi ginduke egin dezazun zombait mirakulu.

39. Bena erresponditu zeyen: kasta gaichto eta adnlterio horrek galdegiten du mirakulubat; eta ez dakote emanen Yonas profetarena bezik.

40. Ezik Yonas egonzen hirur gau-egun balenaren sabelian, hola gizonaren semia izanen da hirur egun eta hirur gau lurraren bihotzian.

41. Ninivatarrak altchaturen dira yuyamen-

dian arraza horren kontra, eta kondenatuko dute ; zeren egin baidute penitenzia intzunik Yonasen predikia; eta bizkitartian heben hada Yonas beno gehiago denik.

42. Eguerdiko erreginna altchatuko da yuyamendian kasta horren kontra, eta kondenatuko du ; zeren hura yin baida lurraren bazterretik Salomonen zuhurtziaren intzuteko ; eta bizkitartian heben bada Salomon beno gehiago denik.

43. Izpiritu gaichtua yalgiten denian gizon baten ganik, badoha lekhu idorretarat phaussu bilhatzen diela, eta ez du khaussitzen.

44. Ordian erraiten du: itzuliko niz ene etcherat nuntik yalgia bainiz; eta itzuli denian khaussitzen du huxa, garbitia eta aphaindia.

45. Eta dembora berian hartzen ditu berekin bertze zazpi izpiritu bera beno gaichtoagoak, sartzen dira etche hortan, eta han egoiten dira; eta gizon horren undar estatia lehena beno Sordech da. Hola gerthatoko zako arraza kriminel horri.

46. Mintzo zelarik orano populiari, haren ama eta anayak yin ziren, eta kampuan zaudelarik, galdegin zuten hari mintzazia.

47. Eta norbaitek erran zakon : horra zure ama eta zure anayak, zoin baidira kampuan, eta zoinek galdegiten baitzituzte.

48. Bena erresponditu zakon hori erran zakonari, nor da ene ama? eta nor dira ene anayak ?

49. Eta eskia hedatzen zielarik dizipulien alderat, erran zeyen: huna ene ama eta ene anayak.

50. Ezik nork ere egiten baidu ene aita zerietan denaren borondatia, hura da ene anaya, ene arreba eta ene ama.

XIII GARREN KAPITULIA.

Ereitiaren parabola edo komparazionia. Yraka. Seneva azia.

1. Egun hortan berian etchetik yalgirik, yarrizen ixas bazterrian.

2. Eta haren ingurian bilduzen yendetze haudi bat; hartakotz igaranzen untzi ttipi batera eta han yarri, populia zagolarik hur bazterrian.

3. Eta erran zeyhen anitz gauza komparazionetan, mintzatzen zelarik gisa huntan: ereinzalia yoan zen ereitera;

4. Eta ereiten zielarik, azi pharte bat erori zen biderat, eta choriak yinik yan zuten:

5. Bertze pharte erori zen lekhu harrizietarat, nun ez baitzen lur guti bezik; berhala sorthuzen; zeren han lurra ez baitzen aski barna.

— 74 —

6. Bena gero ekhia yalgi zenian, hak erre zien, eta ez baitzien errorik egin, eihartu zen.

7. Bertze bat erori zen elhorri artetarat, eta elhorriek handitziarekin itho zuten.

8. Bertze bat afin erori zen lur hun etarat; eta eman zien frutu; zombait bihikek errendatu zuten ehun batenzat, bertzek hirurefan hogoi, bertzek hogoi eta hamar.

9. Intzun beza, beharririk dienak intzuteko.

10. Bere dizipuliek, hurran zen zirelarik, erran zakoten zertako mintzatzen zitzeyen komparazionez.

11. Errespondítzen zeyelarik, erran zeyen: zeren zerietako erresunako mysterioen ezagutza zier emana izan zauzie; bena heyer, ez zeye emana izan.

12. Emanen dakote orano yadanik dienari, eta izanen da abondanzian. Bena yeusik ez dienari, khenduko dakote ukhaiten ahal dukeyena ere.

13. Hortakotz mintzatzen nitzeye komparazionez; zeren so egitian ez dute ikhusten, eta behatzian, ez dute deus intzuten, ez komprenitzen.

14. Eta Isaia profetak erran ziena : behatuko zirezte zien beharriez, eta ez duzie deusik intzunen ; erran hori hetan komplitzen da.

15. Ezik populu hunen bihotza phizutu da ; heyen beharriak elkhor bilhakatu dira eta bere begiak zerratu dituzte, beldurrez heyen begiek ikhus dezaten, heyen beharriek intzun dezaten, heyen bihotzak kompreni dezan, eta kombertitu direnian, sendo ditzadan.

16. Bena zientzat, uros dira zien begiak, zeren ikhusten duten, eta zien beharriak, zeren intzuten duten.

17. Ezik erraiten dauziet egiazki ; anitz profeta eta yustok desiratu dutela ikhustia ziek ikhusten duziena, zoin ez baidute ikhussi ; eta intzutia ziek intzuten duziena, zoin ez baidute intzun.

18. Ziek beraz, beha ziezte azi erein zaliaren parabolari.

19. Nor ere behatzen baida erresumako hitzari, eta ez baidu khassurik egiten hari, yiten zako izpiritu gaichtua, zoinek khentzen baitako haren bihotzian ereinik izan zena : horda bidian azia errezebitu diena.

20. Eta lekhu harrizian azia errezebitzen diena da, hitzari behatzen zakona, eta hartzen diena bozkariorekin.

21. Bena ez du bere baithan errorik ; ez da dembora batendako bezik ; eta zerbait makhur edo persekuzione yiten denian hitzaren kausaz, hortarik hartzen du eskandalazko eta erorteko suyet bat.

22. Elhorrien artian azia errezebitzen diena da, hitza intzuten diena ; bena gero segidan munduko arrangurek eta aberastarzunen, ilusionek ithotzen dute hura baithan hitza, eta gastatzen dute hain onxa nun ez baidezake fruturik eman.

23. Bena errezebitzen diena azia lur hun batian da, nor ere behatzen baida hitzari, eta khassu egiten baitako, eta erakarten baidu ehun, edo hiruretan hogoi, edo hogoi eta hamar batendako.

24. Proposatu zeyen bertze parabolabat, ziolarik : zerietako erresumak iduri du gizon bati, zoinek erein baitzien azi huna bere alhorrian.

25. Bena begirazaliak io zaudelarik, haren

— 77 —

exaia yin zen, eta erein zien iraka azi hunaren artian, eta yuan zen.

26. Beraz belharra banditurik, ogi buriak agertuzirenian, iraka ere hassi zen agertzen.

27. Ordian aita familiakoaren zerbitzariak yin zitzaizkon erraitera : Yauna, ez duzia zuk azi huna erein zure alhorrian ? nuntik beldu da izan dadin iraka ?

28. Ihardexi zeyen : exai batek han erein du. Eta zerbitzariek erran zakoten : nahi duzia yuan giten hantik idekitera ?

29. Erresponditu zeyen : ez, beldurrez iraka idekitiarekin, idekidezazien, dembora berian, bihi huna.

30. Bede handitzera bata eta bertzia biltzerano ; eta biltzeko demboran, erranen deyet bilzaler : lehenik iraka errotik idekazie, esteka zazie paketaka erratzeko ; bena bil zazie ugia ekharteko ene granerrerat.

31. Proposatu zeyen bertze komparazionebat, erraiten zeyelarik : zerietako erresumak iduri du mustarda azia, gizon batek har eta ereiten diena bere alhorrian.

32. Azi hori azi guzietako chehena da ;

— 78 —

bena sorthu denian, bertze landariak beno handiago da, eta arbole bilhakatzen da ; gisa huntaz nun zeruko choriak yiten baidira haren adarretan phausatzera.

33. Erran zeyen orano bertze parabola bat ; zerietako erresumak iduri du emazte batek hartzen dien altchagarri, nahasten diena hirur izari irinekin, orhia oro altchatia izan artio.

34. Yesusek'erran zitien gauza hok oro populiari paraboletan ; eta ez zitzeyen mintzatzen komparazionez bezik ;

35. Amoregatik profetaren hitz hau izan zadin komplitia : idekiko dut ene ahua mintzatzeko parabolaz ; publikatuko ditut gauza batzutarik, zoin gordiak egon baidira mundia kreatia izanez geroz.

36. Ordian Yesus yin zen etcherat populia desperiturik, eta bere dizipuliak hurranzurik, erran zakoten : explika zauguzu alhorrian erein irakaren parabola.

37. Eta erreposta egitiarekin, erran zeyen : azi ona ereiten diena, gizonaren semia da.

38. Alhorra mundia da. Erresumako haurrak dira azi huna, eta gaichtakeriako haurrak, iraka.

— 79 —

39. Exai erein diena, debria da. Biltzeko dembora, mundiaren akhabanza da; biltzaliak, ainguriak dira.

40. Beraz nola iraka idekiten eta suyan erratzen baidute, gauza bera gerthatuko da mundiaren akhabanzan.

41. Gizonaren semiak igorriko ditu bere ainguriak, zoinek bilduko eta khenduko baidituzte haren erresumatik kamporat erorteko eta eskandalazko okasione direnak oro, eta gaichtakeria egiliak.

42. Eta aurthikiko dituzte suz gorritu laberat; han izanen dira nigarrak eta hortz karraskak.

43. Ordian yustuek brillatuko dute ekhiak heyen aitaren erresuman bezala.

44. Zerietako erresumak iduri du alhorrian gorderik den tresor gizon batek edireiten dien, eta gordatzen dien bati; eta bere bozkalentzian, badoha ditien ororen saltzera, eta erosten du alhor hori.

45. Zerietako erresumak iduri du orano marchant bati, zoinek billhatzen baiditu perla hunak;

— 80 —

46. Eta zoin khaussitu onduan prezio handitako bat, baidoha zitienen saltzera, eta hori erosten baido.

47. Zerietako erresumak iduri du orano ixassoan den sare bati; zoinek arrapatzen baiditu arrain suerte guziak;

48. Eta bethe denian, arrainkariek thiratzen dute hur bazterrerat, eta han yarririk, ezarten dituzte huoak oro elgarrekin untzietan, eta aurthikitzen dituzte gaichtuak kamporat.

49. Hori da izanen dena mundiaren akhabanzan. Ainguriak yinen dira eta berheziko dituzte gaichtuak yustuen erditik;

50. Eta aurthikiko dituzte labe suz gorriturat. Han izanen dira nigar eta hortz karraskak.

51. Ongi komprenitu duzieya hau oro? Bardexi zakoten: bai, Yauna:

52. Eta erran zeyen gehiago: hortakotz zerietako erresumari tokatzen den gauzetan ongi argitia den dotorrak, iduri du aita familiako bati, zoinek idekiten baidu bere tresorretik gauza berri eta zahar.

53. Yesusek finitu zitienian komparazione hok, phartitu zen hantik.

— 81 —

54. Eta yinik bere herrirat, erakasten zeyen bere synagogetan, gisa huntan nun estonarnendiak harturik, erraiten baitzuten : nuntik heldu zazko zuhurtzia hori eta mirakulu horiek ?

55. Hau ez dea mayastriaren semia ? hunen ama ez dea deitzen Maria ? eta hunen anayak Yakes, Yosef, Simon eta Yuda ?

56. Eta horren arrebak ez direa oro gure artian ? nuntik heldu zazko beraz huni gauza horiek oro ?

57. Eta haren ganik hartu zuten eskandalazko suyet bat. Bena Yesusek erran zeyen : profeta bat ez da ohorerik gabe, bere herrian eta bere etchian bezik.

58. Eta han etzien anitz mirakulu egin, heyen sinhex gogorkeria zelakotz.

XIV GARREN KAPITULIA.

Yaun doni Batistaren presondeya eta heriotzia. Bost ogiren emendatzeko mirakulia. Yesus eta Yaun doni Petri huren gainian. Yesu-Kristoren arroparen herthutia.

1. Dembora hartan Herodes tetrarkak yakin zien Yesusen fama,

2. Eta erran zien bere ofizierrer : hori Yoanes Batista da zoin phiztu baida hilen artetik : eta hortakotz egiten da horren beste mirakulu.

3. Har-arazirik Herodesek Yoanes Batista, estekarazi eta presondeyan eman arazi zien, Herodiada bere anaya Filiperen emaztiaren kausaz ;

4. Zeren Yoanesek erraiten baitzakon : ez zauzu zilhei emazte horren ukhaitia.

5. Beraz Herodesek nahi zien hil arazi ; bena populiaren beldur zen, zeren Yoanes ikhussi-a zen profeta bat bezala.

6. Bena nola Herodesek egiten baitzien bere sortze eguneko besta, Herodiaren alaba danzatu zen gomitatu guzien aintzinian ;

7. Eta plazer egin zakon ; hain onxa nun hitz eman baitzakon, yuramenturekin , emaiteko galdegiten zazkonak oro.

8. Harek, eskolatia izan onduan aintzinetik bere amaz, erran zakon : emadazu oray, bazin batian, Yoanes Batistaren buria.

9. Errege tristatu zen galde hortaz : halere bere yuramentiaren, eta mahayan berekin zitien yen den gatik, manatu zien eman zezakotela.

10. Dembora berian igorri zien presundeyra Yoanesen buriaren phikatzera.

11. Eta haren buria ekharri izan zen bazin batian eta emana alaba hari, zoinek eraman baitzakon bere amari.

12. Hortarik landan haren dizipuliak yin ziren; haren gorphitza hartu eta, ihortzi zuten, eta yuan ziren Yesusi erraitera.

13. Beraz Yesusek yakinik Herodesek zer erraiten zien hartaz, phartitu zen hantik barka batian baztertzeko lekhu desertu baterat.

Populiak hori yakinik, yarraiki zitzakon oinez, hiri liferent batzietarik.

14. Yalgi zenian barkatik, ikhussi zien yende mulzo handi bat : hartaz kompassione ukhan zien, eta heyen eriak sendotu zitien.

15. Arraxa yin zenian , bere dizipuliek erran zakoten : lekhu hau desertu da , yadanik berant da ; desperi zazu populu hau , amoregatik yuan diten herrietarat erostera zer yan.

16. Bena Yesusek erran zeyen : ez da beharrik yuan diten : zihauriek eman ezeyezie yatera.

17. Ihardexi zakoten : ez dugu bost ogi eta bi arrain bezik.

18. Erran zeyen : ekhar itzadazie hunat.

19. Eta manatu onduan populiari yar zadin lurreko belharraren gainian, hartu zitien bost ogiak eta bi arrainak ; eta altchatzen zitielarik begiak zerurat, benedikatu zitien ; gero hauxirik , eman zitien dizipulier, eta dizipuliek eman zituzten populiari.

20. Orok yan zuten, asse ziren, eta altchatu zuzten hamabi saski puska azkendiez bethiak.

— 86 —

21. Bizkitartian yan zutenak baziren bost mila gizon, khondatu gabe emaztiak eta haurrak.

22. Berbala Yesusek obligatu zitien bere dizipuliak barkan sartzera, eta igaraitera bera beno lehenago huraz bertze alderat, harek populia desperitzen zielarik.

23. Desperitu onduan, igaran zen bakharrik mendi baten gainera othoitz egiteko; eta arraxa yin zenian, bakhar khaussitu zen lekhu hartan.

24. Bizkitartian ixassoaren erdian zen barka, hurek azkarki yoiten zutela, zeren aizia kontre zien.

25. Bena laurgarren beilla gauazkuan, Yesus yin zitzeyen ixassoaren gainian ibilten zelarik.

26. Eta haren dizipuliek ikhussirik ixassoaren gainian zabilala, nahassi ziren, eta erraiten zuten: mamubat da: eta beldurrak oihuz emanarazi zitien.

27. Berhala Yesus mintzatu zitzeyen, erraiten zeyelarik: segurta zitezte; ni niz, ez ukhan beldurrik.

28. Piarresek ihardexi zakon: Yauna, zu

— 87 —

bazira, manazazu yin nadin zu ganat, huren gainian ibiliz.

29. Yesusek erran zakon; zauri, eta Piarres yeuxi zen barkatik; eta huraren gainian ibiliz, yuan zen Yesusen ganat.

30. Bena aize bortlitz bat ikhussirik, beldur ukhan zien; eta hassirik hur barnerat sartzen, oihu egin zien: Yauna, salba nezazu.

31. Berhala Yesusek eskia hedatzen zielarik, hartu zien, eta erran zakon: gizon fede gutikoa, zertako dudatu duzu?

32. Eta harkarat igaran zirenian, aizia geldito zen.

33. Ordian barka hartan zirenak hurrautzen zitzazkolarik, adoratu zuten erraiten zakotela; egiazki Yainkoaren semia zira.

34. Hura igaran onduan, yin ziren Genesarreko lurreral.

35. Toki hortako gizonek ezagutu zutenian, igorri zuten ingurune hortako herri orotara, eta pharatu zazkoten eri guziak;

36. Othoizten zutela utzi zitzan choilki haren arroparen zolan khaussitzen zen hatzaren hunkitzera: eta hura hunki zutenak oro sendotiak izan ziren.

XV GARREN KAPITULIA.

Esku ikhuztekuak. Gizonen errafrena. Eskandala mesperetchatzeko. Gida ixiak. Egiazko zikhinkeria. Kananeendarra. Zazpi ogiren emendatzeko mirakulia.

1. Ordian eskribauek eta farisienak yinik Yerusalemetik, hurrandu ziren Yesusen ganat, eta erran zakoten.

2. Zertako zure dizipuliek hausten dute zaharren errafrena? Ezik ez dituzte eskiak ikhuzten bere apairiak hartzen dituztenian.

3. Bena Yesusek ihardexi zeyen: zertako zihauriek hausten duzie Yainkoaren manamendia, segitzeko zien errafrena? Ezik Yainkoak egindu manamendu hau:

4. Ohora itzazu zure aita eta zure ama; eta bertze hau: nork ere erranen baidu hitz offensagarririk bere aitari eta bere amari, izan bedi punitia herioaz.

5. Bena ziek erraiten duzie: nork ere bere aitari edo bere amari erran baiduke. Emaitza Yainkoari egiten dudana oro zure abantailletan da, eta satifatzen du legiari.

6. Hortaz landan orano ez du ohoratzen ez laguntzen, bere aita edo bere ama; hortaz ez deus bilhakarazten dituzie Yainknaren manamendiak, zien tradizione edo errafrenez.

7. Ilypokritak, Isaia onxa minzatu da zietaz, errandienian?

8. Populu hunek ohoratzen nu ezpainez; bena haren bihotza ene ganik urrunda:

9. Eta alferretan ohoratzen nute, erakaxiz gizonen dotrinak eta manamendiak.

10. Gero populia deithaturik, erran zeyen: beha zazie, eta onxa kompreni zazie hau.

11. Ahoan sartzen denak ez du gizona zikhintzen; bena gizonaren ahotik yalgitzen denak zikintzen du.

12. Ordian bere dizipoliek hurrantzen zirelarik, erran zakoten: badakizia farisienek intzunik zer erran duzun, eskandalisatu direla?

13. Bena ihardexi zeyen: ene aita zerukoak landatu ez ditien landare guziak, errotik idekiak izanen dira.

14. Utz itzazie; hok ixu batzu dira ixu gidazale: ixu batek bertze ixu bat gidatzen badu, biak erorten dira errekarat.

15. Ordian Piarresek erran zakon: explika zauguzu parabola hori:

16. Eta Yesusek ihardexi zakon: zer! orano ziek ere ezagutza gabe zieztea?

17. Ez dakizieya ahorat sartzen direnak oro yeusten direla sabelerat, eta gero aurthikiak lekhu segretuko batetarat?

18. Bena ahotik yalgiten dena phartitzen dela bihotzetik, eta hori dela gizona zikhintzendiena?

19. Ezik bihotzetik phartitzen dira gizonaren phenxaroendu gaichtoak, yende hiltziak, adulderioak, lohikeriak, ohoinkeriak, lekhukotassun falxiak, blasfemioak eta medisentziak.

20. Han dira gizona zikhin bilhakarazten dutenak; bena yatia eskiak ikhuzi gabe, ez da gauza bat gizona zikhintzendiena.

21. Yesus lekhu huntarik phartitu zenian, erretiratuzen Tyr-eko eta Sidon-eko alderat;

22. Eta emazte bat Kanaeendarra, zoin yalgi baitzen herri horietarik, oihuz eman zen

erraiten zielarik: Yauna, David-en semia, ukhazu pietate nitaz; ene alaba biziki tormentatia da demonioaz.

23. Bena ez zakon ihardexi hitz bakhar bat; eta bere dizipuliek hurrandurik, othoitzen zuten erraiten zakotelarik: akorda zakozu galdegiten diena, amoregatik yuan dadin, zeren oihuz dabila gure ondotik.

24. Ihardexi zeyen: ez niz igorria izan Israeleko etcheko ardi galdu direnetarat bezik.

25. Bena emazte hori hurrandu zitzakon, eta adoratu zien erraiten zakolarik: Yauna, lagun nezazu.

26. Errespondítu zakon: ez da yusto haurren ogia har, eta emaitia chakhurrer.

27. Ihardexi zakon: egia da, Yauna, bena chakhurrek yaten dituzte amens naussien mahaitik erorten diren puchkak.

28. Ordian Yesusek errespondítzen zakolarik, erran zakon:

Oh emaztia, zure fedia handia da; egin dakizula desiratzen duzun bezala. Eta haren alaba oren berian sendotu zen.

29. Yesus lekhu hortarik yalgi zenian, yin

— 93 —

zen Galileako ixas bazterraz ; eta igaranik mendi baten gainera, han yarri zen.

30. Ordian yende tropa handi batzu yin zitzaizkon idereitera , eramaiten zutelarik mutu , ixu , maingu , estropiatu , eta bertze anitz eri , zoinak ezarri baitzituzten haren oinetan. Eta sendotu zitien :

31. Gisa buntan nun populu horiek amirazionetan baitziren, ikhussiz mutiak mintzatzen zirela, estropiatiak sendotiak zirela, maingiak bazabilzala, ixiek ikusten zutela ; eta errendatzen zuten loria Israeleko Yainkouri :

32. Ezik Yesusek deithaturik bere dizipuliak, erran zeyen : pietate dut populu huntaz , zeren bada yadanik hirur egun enekin daudela bethi, eta deusik ez dute yateko : eta ez ditut nahi yan gabe desperitu, beldurrez bidian flakezak har ditzan eta eror diten.

33. Bere dizipuliek erresponditu zakoten : nola edirciten ahal dugu lekhu desertu huntan, aski ogi assetzeko horren yende mulzo handia ?

34. Eta Yesusek ihardexi zeyen : zombat ogi dituzie ? zazpi, erran zakoten, eta zombait arrain ttipi.

— 94 —

35. Beraz manatu zien populiari yar zadin lurrian :

36. Eta hartzen zitielarik zazpi ogiak eta arrainak, eskerrak errendatu onduan, hauxi zitien eta eman zitien bere dizipulier ; eta haren dizipuliek eman zituzten populiari.

37. Orok hetarik yan zuten eta asse ziren : eta eraman zuzten zazpi saski betherik puska azkendiez.

38. Yan zutenian nombria bezen laur mila , khondatu gabe haur ttipiak eta emaztiak.

39. Gero Yesus, populia desperitu onduan , igaran zen barka baterat, eta yin zen Majedaneko fonterala.

XVI GARREN KAPITULIA.

Mirakulu errefusatia. Farisienen altchagarria. Yaun doni Petriren konfessionia. Hitz eman zaizkonak. Passionia aintzinetik erakaxia. Khurutzia eta bakhotchak bere buriari ukho egitia.

1. Ordian farisienak eta Sadduzeenak yin zitzaizkon hirritatzera, eta othoiztu zuten ikhussarazi zezeyen zombait mirakulu zerian.

2. Bena ihardexi zeyen; arraxian diozie: dembora eder eginen du, zeren zeria gorri da.

3. Eta goizian, diozie: egun orzanztuko du zeren zeria ilhun da eta gorkhara:

4. Hypokritak, badakizie beraz ezagutzen zeriaren aparanzia liferentek zer markatzen duten yineo deoeko; eta ez dakizie berhezten Yainkoak markatu ditien demboretako seinhaliak? Nazione korrompitu horrek galdegiten du mirakulu bat. Ez zako emanik izanen Yonas profetarena bezik. Eta han utzirik, yuan zen.

5. Haren dizipuliak igaran ziren huraz bertze alderat, ogiak ahatzirik.

6. Yesusek erran zeyen: gogo emazie zien burien begiratzez farisienen eta Sadduzeenen altchagarritik.

7. Bena hek phenxatzen zuten eta erraiten bere artian: hori da ez dugulakotz hartu ogirik.

8. Hori ezaguturik, Yesusek erran zeyen: gizon fede gutikoak, zertako mintzatzen zirete elgarrekin ez duzielakotz ogirik hartu?

9. Ez duzieya komprenitzen orano, eta ez ziteztea orhitzen bost ogi aski izan direla bost mila gizonentzat, eta zombat saskira altchatu duzien undarretarik?

10. Eta zazpi ogi aski izan direla laur mila gizonentzat, eta zombat saskira altchatu duzien?

11. Nola ez duzie komprenitzen ez nintzauziela ogiz mintzatzen, noiz ere erraiten bainauzien begira zintezten farisieoen eta Sadduzeenen altchagarritik?

— 97 —

12. Ordian komprenitu zuten ez zeyela erran begira ziten ogian ezarteu zen altchagarritik, bena bai farisienen eta Sadduzeenen doktrinatik.

13. Yesus yin zenian Filipeko Zesareako ingurietarat, interrogatu zitien bere dizipuliak eta erran zeyen: gizonek zer diote gizonaren semiaren gainian? zer nizala diote?

14. Ihardexi zakoten: batziek diote Yoanes Batista zirela, bertzek Elia, bertzek Yeremia edo profeta zombait.

15. Yesusek erran zeyen: eta ziek nor nizala diozie?

16. Simon Piarresek hitzaz yabeturik, erran zakon: zu zira Kristo, Yainko biziaren semia.

17. Yesusek errespondítu zakon: dohaxu zira, Simon Yoanesen semia, zeren ez baidauzu hori erakaxi ez haragiak ez odolak, bena ene aita zerietan denak.

18. Eta nik ere erraiten dauzut: zu zirela harria, eta harri horren gainian altchatuko dut ene Eliza; eta ifernuko borthak ez dira deusez baliatuko haren kontra:

— 98 —

19. Eta emanen dautzut zerietako erresumako giltzak; eta zuk estekatuko duzuna lurrian, estekatia izanen da zerietan: eta zer ere lachatuko baiduzu lurrian, lachatia izanen da zerietan.

20. Dembora berian manatu zien bere dizipulier borthizki nehori ez erraiteko Yesu-Kristo zela.

21. Ordutik Yesus hassi zen bere dizipulier deklaratzen behar zela yuan Yerusalemerat; han behar ziela anitz sofritu senaturren, eskribauen eta aphezen Printzen aldetik, heriotzia pairatu; eta hirurgarren egunian phiztuko zela.

22. Eta Piarresek hartzen zielarik bazterrerat, erran zakon: Yainkoak ez dezala nahi ukhan, Yauna hori ez zauzu gerthatuko.

23. Bena itzultzen zelarik, Yesusek erran zakon Piarresi urrunt zite ene ganik, Satan; enetzat eskandalazko suyet bat zira, zeren ez baiduzu gusturik Yainkoaren gauzendako, bena gizonen ganik yiten direnen dakn.

24. Ordian Yesusek erran zeyen bere dizipulier: norbait yin nahi bada enekin, karga bedi khurutziaz, eta yarraiki bekit.

25. Ezik bizia konserbatu nahi dienak, galduko du, eta bizia galtzen dienak ene amoregatik, berriz edirenen du.

26. Eta zer balia lakio gizon bati mundiaren irabaztia bere arima galduz? edo zer trukadaz arra eros lezake bere arima galdu onduan?

27. Ezik gizonaren semiak yin behardu bere aitaren lorian bere aingueiekin; eta ordian emanendu bakhotchari bere obren arabera.

28. Erraiten daoziet egiazki: bada hemen denetarik, zombait hilen ez direnak, ikhussi gabe yiten gizonaren semia bere botherian.

XVII GARREN KAPITULIA.

Transfigurazionia. Eliasen agertzia. Lunatikoa. Fediaren botheria. Othoitza eta barura. Passionia aintzinetik erakaxia. Zerga pagatia.

1. Sei egunen burian, Yesusek, berekin harturik Piarres, Yackes eta Yoanes, eraman zitien berhez mendi gora baten gainera,

2. Eta figuraz khanbiatu zen heyen aintzinian; haren arropak elhurra bezain churi egin ziren; haren begithartia ekhia bezain brillant bilhakatu zen:

3. Dembora berian ikhussi zituzten Moyses eta Elias harekin elhekan zaudela.

4. Ordian Piarres mintzatu zen, Yesusi erraiteo zakola: Yauna, heben onxa gira. Egin ditzagun, plazer baduzu, hirur atherbe; bat zuretzat, bertze bat Moysesen-tzat, bertze bat Eliasen-tzat.

5. Hura mintzo zelarik orano, odei batek estali zitien; hortarik botz bat intzuna izan zen erraiten ziela: hau da ene seme onxa maitia, zoinetan ezarri baidut ene afekzione guzia: beha zazkiote:

6. Horiek intzun onduan dizipuliak erori ziren begithartez lurrari kontra, eta ikhara handi batek hartu zitien.

7. Bena Yesusek hurrantzen zelarik hunkitu zitien, eta erran zeyen: yeiki zitezte, eta ez ziteztela beldur izan.

8. Ordian begiak altchatziarekin, ez zuten ikhussi gehiago Yesus bakharrik bezik.

9. Menditik yeuxtian, Yesusek egin zeyen manamendu hau, eta erran zeyen: ez ziteztela mintza nehori orai ikhussi duzienaz, gizonaren semia phitz artio hilen artetik.

10. Bere dizipuliek ordian interrogatu zuten, erraiten zakotelarik: zertako beraz eskribauek erraiten dute Eliasek yin behar diela lehenik?

11. Bena Yesusek ihardexi zeyen: egia da Eliasek yiu behar diela, eta hak erreparatuko ditu gauza guziak.

12. Bena deklaratzen dauziet Elias yadanik yin dela, eta ez dutela ezagutu; bena tratatu dute plazer ukhan duten bezala. Gisa bera sofriaraziko dute gizonaren semiari.

13. Ordian haren dizipuliek komprenitu zuten Yoanes Batiztaz mintzatu zitzeyela.

14. Yiu zenian populiaren alderat, gizon bat hurrandu zitzakon, erori zen belhauniko haren oinetarat, eta erran zakon: Yauna, ukhazu pietate ene semiaz, zoin baita lunatiko, eta anitz sofritzen baidu; ezik ardura erortzen da surat, eta ardura hurerat.

15. Presentatu dut zure dizipulier; bena ezin sendotu dute.

16. Yesusek ihardexi zakon: o arraza sinheste gabia! eta noiz artio izanen niz ziekin? Noiz artio sofrituren zituztet? Ekhar zadazie haur hori hunat.

17. Eta demonioa mehatchatia izan onduan Yesusez, yalgi zen haur haren ganik, zoin sendotu baitzen berhala.

18. Ordian dizipuliak yin ziren Yesusen edireitera bakharrik, eta erran zakoten: zertako guk ezdugu kazatu ahal ukhan demonio hori!

— 104 —

19. Yesusek errespondítu zeyen : zien sinheste gabiaren kausaz : ezik erraiten dauziet egiazki, bazindute fedia mustarda azia bezain handi, mendi hori erranzindezakote : habil hebentik hara ; balohake eta yeus elitzakezie impossible.

20. Bena demonio suerte hori ez da kazatzen othoitzez eta barurez bezik.

21. Galilean zirelarik, Yesusek erran zeyen : gizonaren semia libratia izan beharda gizonen eskietarat :

22. Eta hil araziko dute, eta phiztuko da hirur garren egunian : hitz horiek anitz tristarazi zitien.

23. Kafarnaumerat yin zirenian zerga bilzaliak, yuan zaizkon Piarresi eta erranzakoten : zure naussiak ez dia zergarik pagatzen ?

24. Ihardexi zeyen : bai, pagatzen du. Eta etchiau sarthu zenian, Yesusek erran zakon : Simon, zer idnri zauzu ? noren ganik lurreko erregek errezebitzen dituzte zergak ? bere erresumetako auzuetarik, ala arrotzetarik ?

25. Arrotzetarik, errespondítu zien ; Yesusek errah zakon : haurrak beraz exent dira ?

— 105 —

26. Bena amoregatik ez ditzazun eskandalisaraz, zuaza ixassora, eta han aurthikazu amia ; lehenik hartzen duzun arrainari zabal ezakozu ahoa ; han khaussituko duzu zilhar phezabat, laur drama dirutakoa ; harturen duzu eta emanen deyezu zure, eta enetzat.

XVIII GARREN KAPITULIA.

Umiliatzia. Eskandalari ihes egitia. Ardi errebelatia. Anayen gaztigatzia. Apostolier emana den botheria. Yainkoa bilzarren erdian. Inguricen barkhamendia. Hartze dunak. Zordunak.

1. Dembora berian, dizipuliak hurrandu ziren Yesusen ganat, eta erran zakoten: nor da handiena zerietako erresuman?

2. Yesusek deithaturik haur ttipinnobat, ezarri zien beyen erdian,

3. Eta erran zeyen: egiazki erraiten dauziet, ez baziezte kombertitzen, eta ez baziezte bilhakatzen haur ttipinno hori bezala, ez ziretela sarthuko zerietako erresuman.

4. Nor ere beraz umiliatuko baita eta bilhakatuko baita haorttipi hori bezala, hori izanen da handiena zerietako erresumao;

5. Eta nork ere errezebitzen baidu, ene izenian, haur bat gisa hortakua, ni nihaur errezebitzen nu.

6. Norbaitek eskandalisatzen badu ttipi nitan sinhesten dutenetarik bat, hobe izanen zen harentzat eman bolakote dilindan lephotik eihera harribat asto batek inguratzen diena, eta aurthiki halute ixassoaren zolarat.

7. Zori gaitz mundiari eskandalak direla kausa: ezik eskandalak izan behar dira; bena zori gaitz gizonari, zoinen ganik yinen baidira.

8. Zure eskia edo zure oina eskandalazko suyet bazauzu, phika itzazu, eta aurthik zure ganik urrun: hobeda zuretzat sartzia bizian zango batekin edo esku batekin, ezinez biekin aurthikia izaitia su eternalerat.

9. Eskandalazko suyet bat balin baduzu begi bat, idekazu eta aurthikazu zure ganik urrun; ezik zuretzat hobeda bizian sar ziten begi bat bezik gabe, ezinez biga ukhaitia eta ifernurat aurthikia izaitia.

10. Goardia emazie mesperetchatzez ttipi hotarik; deklaratzen dauziet hoyen ainguriek ikhusten dute bethi ene aita zerietan denaren begithartia.

— 109 —

11. Ezik gizonaren semia yin da galdia zenaren salbatzera.

12. Gizon batek baldin baditu ehun ardi, eta bakhar bat errebelatzen bada, ez ditia utziko bertze lauretan hogoi eta hemeretziak mendietan, errebelatiaren bilha yuaiteko ?

13. Eta edireiten badu, erraiten dauziet egiazki, harek emaiten dako alegerantzia gehiago errebelatu ez diren lauretan hogoi eta hemeretziek beno.

14. Holaz zien aita zerietan denak ez du nahi ttipi horietarik bakhar bat galdadin.

15. Zure anayak bekhatu egin badu zure kontra, yuan zazkio bere faltaren ezagutaraztera, bibitan, haren eta zure artian ; behatzen bazauzu irabazi dukezu zure anaya.

16. Bena ez bazauzu behatzen, hartzazu orano zurekin persona bat edo biga, amoregatik gauzak oro izan diten ezagutiak bi edo hirur destimoniuz , eta heyen autoritatiaz segurtatiak.

17. Ez balin bazeye behatzen heyer ere, errozu Elizari ; eta ez bada behatzen Elizari berari ere, zuretzat izan dadila pagauo bat eta publikanobat bezala.

— 110 —

18. Erraiten dauziet egiazki , lurrian estekatzen dituzienak oro, estekatiak izanen dira zerian, eta lurrian lachatzen dituzienak oro, lachatiak izanen dira zerian.

19. Erraiten dauziet orano, zietarik biga yuntatzen badira elgarrekin lurrian , zer nahi den gauza galdegin dezaten, yardirexiko dute ene aita zerietan dena ganik.

20. Ezik nun nahi khaussi diten bi edo hirur persona yuntatiak, ene izenian, heyen erdian edireiten niz.

21. Ordian Piarresek hurrantzen zelarik erran zakon ; Yauna, zombat aldiz barkhatuko dakut ene anayari ene kontra bekhatu egin dukeyenian? zazpi alditarano datekea?

22. Yesusek ibardexi zakon : ez dauzut erraiten zazpi alditarano, bena hiruretan hogoi eta hamarretan zazpi alditarano.

23. Hortakotz zerietako erresuma komparatia da errege bati, zoinek nahi ukhan baitzien khondu emanarazi bere zerbitzarier ;

24. Hassi zenian, pharatu zakoten bat, zoinek zor baitzakon hamar mila talendu.

25. Bena ez baitzien pagatzeko ahalik ,

— 111 —

naussiak manatu zien sal zitzaten bera, haren emaztia, haren haurrak, eta zilienak oro, zor horren hiltzeko.

26. Zerbitzari horrek aurthiki zien bere buria naussiaren oinetara, erraiten zakolarik: Yauna, harzazu pazienzia aphur bat, eta oro errendatuko dauzut.

27. Ordian naussiak, urrikitan harturik, barkhatu zakon bere zorra, eta utzi zien yuaitera.

28. Bena zerbitzari hunek yalgi zen bezain sarri, khaussitu zien bere lagunetarik bat, zoinek zor haitzakon ehun diner; hartu zien zinzurretik erraiten zakola: errenda zadak zor dautakana.

29. Eta lagun hurrek haren oinetara bere buria aurthikirik, othoitu zien erraiten zakola: ukhazu pazienzia aphur bat, eta oro errendatuko dauzut.

30. Bena ez zitzazkou behatu nahi izan; eta ezar arazi zien presondeyan, han atchikitzeko pagatu artio zor zaikona.

31. Bertze zerbitzari, haren lagunak, hori ikhussiz arras khechatiak izan ziren, eta abertitu zuten bere naussia igaran zen orotaz.

— 112 —

32. Ordian hunek erakarririk erran zakon: zerbitzari gaichtua, barkhatu nauzun zor zindautana oro, zeren othoitu ninduzun:

33. Ez zindiena beraz urrikalmendu ukhan behar zure lagunaz, nik zutaz ukhan nien bezala?

34. Eta bere naussiak koleraturik, burreuen eskietarat eman zien, bere zor zakona oro pagatu artio.

35. Gisa hortan ene aita, zerian denak, tratatuko zuzte zietarik bakhotchak, ez badu bihotzaren erditik barkhatzen bere anayari haren kontra egin dituzkeyen faltak.

XIX GARREN KAPITULIA.

Ezkonza ezin hauxizkua. Borondatezko unukoa. Haur ttipiak. Perfekzioniaren konseilliak. Aberaxen salbamendu nekia. Batendako ehun hitzemana oro uzten dituztener Yesu-Kristoren gatik.

1. Yesusek finitu zitienian elhe horiek, phartitu zen Galileatik, eta heldu zen Yordainez alde hartarat Yudeako mugara.

2. Nun yende saldo handi batziek segitu baitzuten, eta heyen eriak lekhu berian sendotu baitzitien.

3. Farisienak yin zaizkon hirritatzera, eta erran zakoten: zilhey dea gizon bati bere emaztiaren desperitzia zer nahi kausa gatik?

4. Errespondítu zeyen: ez duzea irakurtu hastepenetik, gizona kreatu zienak egin zitiela khotchua eta urricha? Eta errana dela:

5. Arrazoin hortako; gizonak utziko ditu bere aita eta bere ama, eta estekatuko da bere emaztiari, eta ez dira gehiago izanen biak haragi bakhar bat bezik?

6. Holaz ez dira gehiago izanen biga, bena haragi bakhar bat. Gizonak ez bitza berhez Yainkoak yuntatu ditienak.

7. Bena zertako beraz, erran zakoten, Moysesek manatu du eman dezakoten emaztiari berhezteko izkiribu bat, eta desperi dezaten?

8. Ihardexi zeyen: hori da zien bihotz gogorkeria dela kausa: Moysesek zien emazten desperitzia zilhei utzi dauzie: bena hori ez da izan hastepenetik.

9. Deklaratzen dauziet ere: nork ere desperitzen baidu bere emaztia, adulterioko khassuz kampo, eta bertze bat esposatzen badu, adulterio bat egiten du; eta nork ere esposatzen baidu bertzek desperitu emazte bat, adulterio bat egiten du.

10. Bere dizipuliek erran zakoten: gizonaren kondizionia emaztiaren alderat holako balin bada, ez da abantallos ezkontzia.

11. Bena erran zeyen: guziak ez dira kapa-

ble hortako, bena horiek choilki, zoini emana izan baita gainetik.

12. Ezik badira unukoak (kapable ez direnak) sortzetik hala direnak. Badira gizonak unuko egin dituztenak bortchaz : badira bere buriak unuko egin dituztenak zerietako erresumaren irabazteko, hau komprenitzen ahal dienak kompreni beza.

13. Ordian pharatu zazkoten haur ttipi batzu, amoregatik phausa zitzezten eskiak gainian eta othoitz egin zezan heyentzat : eta nola haren dizipuliek gibelatzen baitzituzten hitz idorrekio.

14. Yesusek erran zeyen : bede hor haur horiek, eta ez ditzaziela geldi ene gana yitetik ; ezik zeruko erresuma horiek iduri dutenentzat da.

15. Eta eskiak phausatu zeztenian, hantik phartitu zen.

16. Ordian gizon gazte bat hurrandu zen, eta erran zakon : naussi huna, zer ongi egin behar dut bizitze eternalaren irabazteko ?

17. Yesusek ihardexi zakon : zertako deitzen nuzu huna ? ez da Yainkoa bakharrik

bezik huna denik. Sarthu nahi bazira bizian, begiratzazu manamendiak.

18. Erran zakon : zer manamendu ? Yesusek ihardexi zakon : ez duzu nehor hilen : ez zira adulterio izanen : ez duzu ebaxiko : ez zira destimonio falxu izanen.

19. Ohoratzazu zure aita eta zure ama, eta maithazazu zure proximo laguna zure buria bezala.

20. Gizon gazte horrek errespondituzakon : begiratu ditut manamendu horiek ene gaztetarzunetik hunat : zerdut falta orano ?

21. Yesusek erran zakon : izan nahi bazira perfeit, zuaza ; salzazu ditzunak, eta emanitzazu prober, eta ukhanen duzu tresor bat zerian : gero zauri, yarraiki zazkit.

22. Gizon gazte hori hitz hok inzutian, ynan zen arras triste, zeren ontarzun handiak baitzitien.

23. Eta Yesusek erran zien bere dizipulier : egiazki erraiten dauziet onxa neke dela aberax bat sar dadin zerietako erresuman.

24. Erraiten dauziet orai berriz ere : erretchago dela kamelu bat igaran dadin orratz

— 117 —

baten chilotik, ezinez aberax bat sar dadin zerietako erresuman.

25. Haren dizipuliak hitz hok intzutian, arras estonatiak izan ziren, eta erraiten zuten: nor izaiten ahal da beraz salbatia?

26. Yesusek so egiten zeyelarik, erran zeyen: hori gizonek ez dirotè egin; bena Yainkoak oro egin dirozke.

27. Ordian Piarresek hitzaz yabeturik, erran zakon: ikhusten duzu guk oro utzi ditugula eta segitu zitugula, zer izanen da beraz ukhanen dugun errekompenxa?

28. Eta Yesusek erran zeyen; egiazki erraiten dauziet: nola ziek segitu banauzie, gizonaren semia izaiten denian yarria bere loriako tronoan, berritzapeneko demboran, ziekere yarriak izanen zirete hamabi tronotan, eta yuyatuko dituzie Israel eko hamabi phartiak.

29. Eta nork ere utzi baiduke enc izenaren gatik bere etchia, edo bere anayak, edo bere arrebak, edo bere aita, edo bere ama, edo bere lurrak, errezebituko du halakorik ehun, eta ukhanen bizitze eternala primanzetako.

— 118 —

30. Bena anitz leben gradoan izanak, undarrak izanen dira: anitz undar leben bilhakatuko dira.

XX GARREN KAPITULIA.

Langile mahastirat igorrien parabola. Passionia aintzinetik erakaxia. Zebedearen haurren galdia. Naussitarzuna dehekatia. Yerikoko ixiak.

1. Zerietako erresumak iduri du aita familiako bati, zoiu yalgi baitzen guiz goizetik, khaussitzeko langiliak bere mahastian trabaillatzeko;

2. Komenitu ondoan langilekin ukhanen zutela diner bana eguneko, igorri zitien bere mahastirat.

3. Yalgi zen orano eguneko hirur urenetako irian; eta ikhussirik bertze batzu plazan afer zaudela.

4. Erran zeyeo: zuazte ziek ere ene mahastirat; emanen dauziet zuzen datekeyena;

5. Eta yuan ziren. Yalgi zen orano eguneko seigarren eta bederatzi orenetako irian, eta egin zien gauza bera.

6. Eta yalgirik hameka garren oreneko hirian, khaussitu zitien bertze batzu han zaudela afer. Erran zeyen: zertako zaudezte hor egun guzia trabaillatu gabe?

7. Horida, erran zakoten, nehork ezgiticlakotz lanerat hartu, eta erran zeyen: zuazte ziek ere ene mahastirat.

8. Arraxa yin zenian, mahastiaren naussiak erran zakon haren egitekoez arrangura hartzen zienari: deithazatzu langiliak, eta pagazatzu, hasten zirelarik undarretarik lehenetarano.

9. Beraz hameka garren orenian bezik yin ez zirenek, hurrandurik, errezebitu zuten bakhotchak diner bat.

10. Lehenik hartu langiliak yiten zirelarik bere aldian, uste zuten gehiago emanen zeyetela; bena ez zuten hek ere bakhotchak diner bat bezik ukhan:

11. Eta errezebitziarekin, erassi zuten aita familiakoaren kontra,

12. Ziotelarik: undar horiek ez dira trabaillatu oren bat bezik, eta ezarten dituzie igual gurekin, zoinek yassan baidugu egunaren eta beroaren phizia.

— 121 —

randu zitzakon bere bi semekin, eta adoratu zien erakastera emaiten zakolarik zerbait galdegin nahi zakola.

21. Erran zakon: zer nahi duzu? ihardexi zakon: manazazu ene bi seme hok yarriak izan diten zure erresuman, bat zure eskuinian, eta bertzia zure ezkerrian.

22. Bena Yesusek errespondítu zakon: ez dakizu zer galdegiten duzun: edan dezakezia nik edan behar dutan kalitza? Ihardexi zakoten: ez dezakegu.

23. Berriz erran zeyen: egia da edanen duziela nik edanen dutan kalitza; bena yartiaz bezan batian ene eskuinian, edo ene ezkerrian, ez dago niri zier horren emaitia, bena hori izanen da zoinendako ere ene aitak preparatu baiduke.

24. Bertze hamar apostoliek intzun zutenian hori, kolerak hartu zitien bi anayen kontra.

25. Yesusek deithaturik erran zeyen: badakizie Prinziak nazionen gainetik daudela, eta yende handiek tratatzen dituztela naussitarzunekin.

26. Ez da zien artian hola izan behar; bert-

— 122 —

15. Bena errepostutzat erran zakon hetarik bati: ene adiskidia, ez dauzut ogenik egiten: ez zirea enekin akordatu diner batez zure alokairotzat?

14. Harzazu zuria dena, eta zoaza: nik eman nahi dakot undar horri zuri bezambat.

15. Ez zauta zilhei nahi dudanaren egitia? eta zure begia gaichtua dea, zeren dako ni nizan huna?

16. Heraz azkenak izanen dira lehenak, eta lehenak izanen dira undarrak; zeren baidira anitz deithatiak, eta guti hautatiak.

17. Yesusek zuelarik Yerusalemerat, hartu zitien berhez bere hamabi dizipuliak, eta erran zeyen:

18. Baguatza Yerusalemerat, eta gizonaren semia izanen da emana aphezen Prinzer eta eskribauer, zoinek hiltzera kondenatuko baidute,

19. Eta emanen dute paganoekin, amoregatik burla dazkion, azotarazi eta khurutzefikarazi dezaten: eta phiztuko da hirur garren egunian.

20. Ordian zebedearen haurren ama hur-

ziak beno handiago bilhakhatu nahi dukeyena zien artian, izan bedi zien zerbitzaria.

27. Eta zien artian lehena izan nahi dukeyena, izan bedi zien esklaboa ;

28. Nola gizonaren semia ez baida yin zerbitzatia izaiteko, bena zerbitzatzeko, eta bere biziaren emaiteko bertze anitzen arrerosteko.

29. Yalgiten zirelarik Yerikotik, segitia izan zen yende mulzo handi batez :

30. Eta bi ixu bide bazterrian yarririk zaudenek, intzunik Yesus igaraiten zela, hassi ziren oihuz, erraiten zutela : Yauna, David-en semia, ukhazu pietate gutaz.

31. Eta populiak ichiltzeko manatzen zitien ; bena eman ziren oihuz orano gorago, erranez : Yauna, David-en semia, ukhazu pietate gutaz.

32. Ordian Yesus gelditu zen, eta deithaturik, erran zeyen : zer nahi duzie egin dezazielan ?

33. Yauna, erran zakoten, gure begiak zabal diten.

34. Yesusek urrikaldurik heyen alderat, begiak hunki zezten, eta istant berian, bichta yin zitzeyen eta yarraiki zitzazkon.

XXI GARREN KAPITULIA.

Yesusen sartzia Yerusalemen. Salzaliak templotik kazatiak. Phiko eihartia. Yesu-Kristoren nausitarzuna. Bi semeren parabola.

1. Hurrandu zirenian Yerusalemerat, eta heldu zirenian Betfaje Olivieretako mendiaren ondora, Yesusek igorri zitien bere dizipulietarik biga.

2. Eta erran zeyen : zuazte zien aintzinian den herri hortara, eta han khaussituko duzie asto urricha bat estekatia, bere pullua onduan : lacha zazie, eta ekhar zadazie.

3. Norbaitek zerbait erraiten badauzie, erran ezeyezie Yaunak behar diela, eta berhala utziko dauzkiziete eramaitera.

4. Ezik hau oro egin izanda, amoregatik izan zadin komplitia profetaren erran hau :

5. Errokozu sioneko alabari : huna zure errege yiten dena zu ganat, eztitarzunez be-

— 126 —

thia, asto urricha baten gainian, eta haren pulluaren gainian.

6. Beraz dizipuliak yuan ziren, eta egin zuten Yesusek manatu zeyena.

7. Eta ekharri zuztenian astua eta pullua, estali zituzten bere arropez, eta gainerat igaran arazi zuten.

8. Yende saldo handi batek ere hedatu zituzten bere arropak bidiaren gainian; bertzek arbole adarrak hauxten zituzten, eta hedatzen igaraiten zen lekhurat:

9. Eta orok elgarrekin, haren aintzinian zuatzenek, eta gibeletik yarraikiten zazkonek, oihu egiten zuten: Hosana, agur eta loria David-en semiari: benedikatia dela Yaunaren izenian yiten dena: Hosana, agur eta loria eman bekiu zerietako gorenian.

10. Yerusalemen sarthu zenian, hiri guzia bihotzian hunkitia izan zen; eta bakotchak galdegiten zien: norda hau?

11. Bena populu laguntzen zuten horiek, errailen zuten: hauda Yesus profeta, zoin baida Galilea Nazaretako.

12. Yesus sarthu zenian Yainkoaren tem-

— 127 —

pluan, kazatu zitien templuan saltzen eta erosten zuten guziak. Aurthiki zitien trukazalen mahayak, eta urzo saltzen ari zirenen alkhiak;

13. Eta erran zeyen: izkiribatia da: ene etchia deithatia izanen da othoitzako etchia: eta ziek egin duzie horiarik ohoin bilgia bat.

14. Ordian ixiak eta maingiak yin zazkon templorat, eta sendotu zitien.

15. Bena aphezen Prinzek eta eskribauek, ikhussirik egin zitien mirakuliak, eta haurrak templuan oihuz ziotela; Hosana; agur eta loria David-en semiari, izan ziren indinnatiak.

16. Eta erran zakoten: aditzen duzia zer errailen duten? bai, erran zeyen Yesusek. Bena ez duzieya behin ere irakurtu hitz hau: ideki dugu laudoriorik perfeitena haur ttipien ahotik, eta hulharrian direnetarik?

17. Eta hek utzirik han, yalgi zen hiritik eta yuan zen Bethaniarat, nun igaran baitzien gaua.

18. Goizian hirirat yiten zelarik, gusse ükhan zien:

19. Eta ikhussirik bidiaren gainian phikotze bat, hurrandu zitzakon; bena ez zien khaus-

— 128 —

situ ostorik bezik ; erran zakon. Sekula hitan ez dadila sor fruturik batere ; eta memento berian phikotzia eihartu zen.

20. Dizipuliek hori ikhussi zutenian, harritu ziren, eta erran zuten batak bertziari : nola phikotze hori eihartu da instant batian?

21. Ordian Yesusek erran zeyen : egiazki erraiten dauziet baldin baduzie fede , eta ez bazitezte kordokatzen zien bihotzetan , ez choilki ez duzie eginen phikotze hortan ikhusten duziena , bena erraiten baduzie ere mendi horri : khen-hadi hortik eta erorhadi ixassorat, hori egina izanen da ;

22. Eta zer nahi galda dezazien othoitzian federekin, yardirexiko duzie.

23. Ethorri zenian templorat , aphezen Prinziak eta yudu populiaren senaturrak yin zaizkon , eta erran zakoten : zer autoritatez egiten tuzu gauza hok, eta nork eman dauzu bothere hori?

24. Yesusek ihardexi zeyen : nik ere badut zier galde bat egiteko ; eta erresponditzen badautazie , erranen dauziet zer autoritatez egiten ditudan gauza hok.

— 129 —

25. Yoanesen batheyoa nuntik zen , zerutik ala gizonetarik? bena bek arrazoindatzen zuten hola bere baithan :

26. Ihardesten badugu zerutik , erranen daugu : zertako beraz ez duzie hartan sinhexi? eta erresponditzen badugu gizonetarik zela , beldur izaiteko dugu populiaren ; zertako Yoanes ezagutia zen profeta batentzat mundu ororen sinhestian.

27. Beraz erresponditu zuten Yesusi : ez dakigu. Eta ordian errepostu eman zeyen : nik ere beraz ez dauziet erranen zer autoritatez egiten ditudan gauza hok.

28. Bena zer iduri zauzie erraitera nohanaz? gizon batek bazitien bi seme ; lehenari mintzo zelarik, erran zakon : ene semia, zoaza egun ene mahastirat lanera.

29. Bere semiak ihardexi zakon : ez dut nahi yuan ; bena gero dolutturik yuan zen.

30. Gero yin zen bertziaren khanssitzera , eta eman zakon manu bera. Hunek ihardexi zakon : Yauna, banoha; bena etzen yuan.

31. Bietarik zoinek egindu aitaren borondatia? Lehenak, erran zakoten. Yesusek erran

zeyen : egiazki erraiten dauziet : publikanoak eta emazte galdiak aintzinduko zautzie Yainkoaren erresumarat.

32. Ezik Yoanes yin zauzie yustiziaren bidian, eta ez duzie sinhexi. Publikanuek eta emazte galdiek kontrara sinhexi dute : eta ziek, ikhussi onduan heyen exemplia, ez ziezte hunkitiak eta dolutiak izan, eta ez ekharriak sinhestera.

33. Beha zitezte bertze komparazione bati : bazen aita familiako bat, zoinek mahasti bat landatu onduan, zerratu baitzien hersi batez : eta lurra zilatzen zielarik, egin zien lako bat, eta hau berian altchatu zien dorre bat ; gero aferman eman zien binne batzuri, eta yuan zen toki urrun baterat.

34. Frutien dembora hurrandu zenian, igorri zitien bere sehiak binnetara, mahastiko frutien bilzeko.

35. Bena binnek arrestatu zituzten, bat yo zuten, bertze bat hil, eta bertzia harrikatu.

36. Igorri zezten orano bertze sehi batzu, bena nombre handiagoan, eta gisa berian tratatu zituzten.

37. Undarrian igorri zeyen bere seme propia erraiten ziela bere baithan : zerbait errespetu ukhanen dute ene semiarentzat.

38. Bena binnek ikhustiarekin semia, erran zuten ber'artian : huna primia, zauzte ; hil dezagun, eta haren primantzaz naussi izanen gira.

39. Hola arrastatu zuten, mahastitik kamporat aurthiki zuten, eta hil zuten.

40. Beraz mahastiko Yauna yiten denian, nola tratatuko ditu binne horiek ?

41. Errespondítu zakoten : Periauziko ditu miserableki gaichto horiek, eta afermatuko du bere mahastia bertze binne batzuri, zoinek frutiak errendatuko baitazkote bere sassoinetan.

42. Yesusek gehiago erran zeyen : ez duzieya behin ere irakurtu izkiribietan : bastizalek utzi harria hun gabez, bilhakatu dela kanton harri prinzipala. Hori da Yaunak egin diena ; ikhusten duguna amirazionerekin.

43. Hortakotz deklaratzen dauziet Yainkoaren erresuna khendia izanen zauziela, eta emana izanen dela populu bati, zoinek ekharriko baiditu frutiak.

44. Harri horren gainera erorten dena, phorroskatuko da; eta horrek lehertuko du gainera erorten zakona.

45. Aphezen Prinzek eta farisienek intzon zuztenian Yesusen parabola hok, ezagutu zuten hetaz mintzo zela.

46. Eta nahi zuketen preso hartu, bena beldurtu ziren populiarentzat zoinek hartan ikhusten baitzien profeta bat.

XXII GARREN KAPITULIA.

Ezteyetako banketa. Eztei arropa. Yainkoa eta Cesar. Phiztia. Yainkoaren eta proximo lagunaren amorioa messias, David-en seme eta Yauna.

1. Yesus mintzo zelarik orano komparazionez, erran zeyen:

2. Zerietako erresumak iduri du errege bati, zoinek bere semiaren ezteyak egin nahiz,

3. Igorri baitzitien bere sehiak deithatzera ezteietarat gomitaturik zirenak; bena hok errefosatu zuten yitia.

4. Igorri zitien orano bertze sehi batzu, maniarekin erraiteko haren phartez gomitatier: prestatu dut ene bazkaria, hil arazi ditut ene idiak eta gizentarazi nitien gauzak; prest dira oro: zauzte ezteietarat.

5. Bena hek, khassurik egin gabe, yuan

— 134 —

ziren, bat bere etcherat, bertzia ber'alhorrerat eta bertzia bere traturat :

6. Bertzek arrestatu zuzten sehiak eta hil zuzten, sofriarazi onduan anitz mesperetchu.

7. Erregek yakin zienian, kolerak hartu zien : eta igorri zitien bere armadak, massakrarazi zitien hilzaliak, eta heyen hiria erarazi.

8. Ordian erran zeyen bere sehier : ezteietako banketa prest presta da ; bena gomitatiak izan zirenak ez dira digne khaussitu.

9. Zuazte beraz bide khurutzetarat, eta deitha zatzie ezteietarat khaussitzen dituzienak oro.

10. Ordian haren zerbitzariak yuaiten zirelarik kharriketan gaindi, khaussitu guziak bildu zituzten, hunak eta gaichtuak ; eta ezteietako sala bethe zen yendez, zoin mahayan yarri baitziren.

11. Errege sarthu zen gero ikhusteko mahayan zirenak. Ohartu zen gizon bati, zoin ez baitzen arrabeztitia eztei arropaz.

12. Erran zakon : ene adiskidia, nola sarthu zira heben nkhan gabe eztei arropa ? eta gizou hori mutu egon zen.

— 135 —

13. Ordian erregek erran zeyen bere sehier : esteka itzakozie eskiak, eta berhala aurthikazie kampoko ilhunpetarat ; han izanen dira nigarrak eta hortz karraskak.

14. Ezik badira anitz deithiak, eta guti hautatiak.

15. Ordian farisienak erretiraturik, hartu zuten desseina bere hitzetan arrapatzeko.

16. Igorri zazkoten beraz bere dizipuliak erraiten zakotela. Naussia, badakigu egiazkua zirela, erakasten duzula egiazko Yainkoaren bidia, khassurik egin gabe nehori ; zeren ez baiduzu konsideratzen gizonetan personetako liferenziarik :

17. Erran ezaguzu zure abisa hunen gainian : zilhei zauguya. Cesarri zergaren pagatzia edo ez pagatzia ?

18. Bena Yesusek ezaguturik heyen malczia, erran zeyen : hypokritak, zertako hirritatzen nuzie ?

19. Erakax ezadazie zergarentzat emaiten den diria. Eta hek erakaxi zakoten diner bat.

20. Yesusek erran zeyen : norena da figura hau eta huntan izkiribatia den izen hori ?

21. Ihardexi zakoten : Cesarrenak. Ordian Yesusek erresponditu zeyen : Errenda zazie Cesarrena Cesarri, eta Yainkoarena Yainkoari.

22. Intzun zutenian mintzatzen gisa hortan, amiratu zuten haren arrapostia ; utzi zuten eta erretiratu ziren.

23. Egun hartan Sadduzeenak, zoinek ez baidute sinhesterik phiztian, yin zitzaizkon, eta egin zakoten galde hau,

24. Erraiten zakotela : naussia, Moysessek manatu du norbait hiltzen bada haurrik gabe, haren anayak esposa dezan, haren emaztia eta anaya hilari haurrak eman ditzazkola.

25. Baziren gure artian zazpi anaya ; hetarik lehena emazte batekin ezkondurik, hil izan da ; eta haurrik ez baidu ukhan, utzi du bere emaztia bere anayari.

26. Gauza bera gerthatu zeye bigarrenari, hirurgarrenari eta bertze guzier, zazpigarrenerano.

27. Undarrian, heyen ororen ondotik, emazte hura ere hil izan da.

28. Beraz phiztian, zazpitarik zoinena izanen da emazte hori, ororena izan denaz geroz ?

29. Yesusek ihardexi zeyen : makhur zabiltzate komprenitu gabez izkiribiak, eta Yainkoaren botheria.

30. Ezik phiztiaren onduan gizonek ez dute ukhanen emazterik, ez emaztek senharrik ; bena izanen dira zerian Yainkoaren ainguriak bezala.

31. Eta hilen phiztiaz bezambatian, ez dituzieya irakurtu Yainkoak erran-dauzkitzien hitz hok :

32. Ni niz, Abraham-en Yainkoa, Isaak-en Yainkoa, Yakoben Yainkoa? Ezik Yainkoa ez da hilen Yainkoa bena bizien Yainkoa.

33. Eta populia intzutian hori, amirazionetan zen haren doktrinaz.

34. Bena farisienek yakin zutenian tapatu zeyela ahoa Sadduzeener, bildu ziren elgarren gana ;

35. Eta hetarik bat, zoin baitzen doktor, yin zitzakon egitera, hirritatzeko, galde hau.

36. Naussia, zoin da legeko manamendu handia ?

37. Yesusek ihardexi zakon : maithatuko duzu zure Yainko Yauna zure bihotz guziaz, zure arima guziaz, eta zure Izpiritu guziaz.

— 138 —

38. Hor da manamendietako handiena eta lehena.

39. Eta huna bigarrena zoinek iduri baidu horri: zure proximo laguna maithatuko duzu zure buria bezala.

40. Lege guzia eta profetak bi manamendu horietan daude.

41. Farisienak bildiak zaudelarik, Yesus-ek egin zeyen galde hau;

42. Eta erran zeyen: zer zauzie Kristoz? noren seme da? Ihardexi zakoten: David-en.

43. Eta nola beraz, erran zeyen, David-ek deithatzen du bere Yauna hitz hotaz:

44. Yaunak errandako ene Yaunari: yar zite ene eskuinian, nik ezar artian zure exayak zure oinen phaussa lekhutako?

45. David-ek beraz deithatzen badu bere Yauna, nula da haren seme?

46. Nehork ezin erresponditu zakon: eta egun hartaz geroz, nehor ez zen menturatu gehiago deusik galdegitera.

XXIII GARREN KAPITULIA.

Moyses-en alkia. Naussi urguluziak. Doktor bakharra. Umil alchatiak. Doktor hypokritak. Gidari ixiak. Hil hobi churitiak. Izari bethia. Yerusalemeren desegitia.

1. Orduan Yesus mintzatu zen populiari eta bere dizipulier,

2. Erraiten zeyelarik: eskribauak eta farisienak yarriak dira Moysesen alkhian.

3. Beraz begira zatzie, eta egin zatzie hek erraiten dauzkitzienak: bena ez egin hek egiten dituztenak; ezik erraiten dute. Zer egin behar den, eta berek ez dute egiten.

4. Estekatzen dituzte karga phiziak ezin yossanezkuak, eta ezarten gizonen sorbalden gainian; eta ez dituzte nahi higitu bere erhi mokuez.

5. Egiten dituzte bere obra guziak, amoregatik ikhussiak izan diten gizonez; hortako

— 140 —

ekharten dituzte legeko hitzak izkiribatiak paper banda parcheminezko batzietan, zoin baidira bertziak beno zabalago; eta badituzte ere franya batzu bere arropak beno luziaguak.

6. Maite dituzte lehen yar tokiak baskarietan, eta lehen alkhiak bilzarretan.

7. Maite dute saluta ditzaten plazetan, eta gizonek deitha ditzaten naussiak edo doktorrak.

8. Bena zietaz bezambatian, ez dezaziela nahi ukhan deithu zitzazten naussiak; zeren ez duzie naussi bakhar bat bezik, eta ziek oro anayak zirete.

9. Ere ez dezaziela nehor deitha lurrian zien aita; zeren ziek ez duzie aita bat bezik, zoin baida zerietan.

10. Eta ez zitzaztela deitha naussi edo gidari, zeren ez baiduzie naussi bat eta gidari bat bezik, zoin baida Kristo.

11. Zien artian handien dena, izanen da zien zerbitzaria.

12. Ezik nork ere bere buria goratuko baidu, aphaldia izanen da; eta nork ere bere buria aphalduko baidu, altchatia izanen da.

13. Zori gaitz zientzat, eskribau eta farisien

— 141 —

hypokritak, zeren herxten baidüzie gizoner zerietako erresuma; ezik han ez zirete sartzen zihauriec, eta bihurtzen zirete han sarthu nahi dotener.

14. Zori gaitz, zientzat eskribau eta farisien hypokritak zeren zien othoitz hizen estakurian, iresten baidituzie alhargunsen etchiak: horlakotz ukhanen duzie yuyamendu garratzago bat.

15. Zori gaitz zientzat. Eskribau eta farisien hypokritak; zeren dako kurritzen baidituzie ixassoa eta lurra suyet baten erakarteko zien sinhesterat; eta gero ukhan duzienian, ezarten duzie bietan zihauriek beno kapabliago ifernurat yuaiteko.

16. Zori gaitz zier, gidari ixiak, zoinek erraiten baiduzie: norbaitek zin egiten badu templuaz, deus ez da; bena nork ere zin egiten baidu temploko urhiaz, bere zina atchiki behar du.

17. Erho eta ixu zireztenak! zoin behar da gehiago estimatu, ala urhia, ala templua, zoinek santifikatzen baidu urhia bera.

18. Eta gizon batek, diozie, zin egiten badu

aldariaz deusik ezda; bena nork ere zin egiten baidu aldariaren gainian den emaitzaz, zordun da.

19. Ixu ziretenak! zoin behar da estimatu gehiago, ala emaitza, ala aldare emaitza santifikatzen diena?

20. Nork ere beraz zin egiten baidu aldariaz, zin egiten du aldariaz eta haren gainian diren gauza guziez.

21. Eta nork ere zin eginen baidu templuaz, zin egiten du templuaz eta han egoiten denaz.

22. Eta nork ere zin egiten baidu zeriaz, zin egiten du Yainkoaren tronuaz eta han yarria dagonaz.

23. Zori gaitz zier, eskribau eta farisien hypokritak, zoinek pagatzen baidituzie mentharen, anetharen eta kuminen detchemak, eta zoinek abandonatzen baiduzie legian importantenik dena, yakiteko: yustizia, miserikordia eta fedia. Horiek ziren pratikatu behar ziren gauzak, hargatik bertzerik utzi gabe.

24. Gidazale ixiak, zoinek baiduzie artha handi irazteko zien edaria, beldurrez irex elzo bat, eta irexten baiduzie kamelu bat.

25. Zori gaitz zientzat, eskribau eta farisien hypokritak, zeren garbitzen dituzien thazaren eta plataren kampuak, eta zireztelarik zihaurick barnian ohoinkeriaz eta zikhinkeriaz bethiak.

26. Farisien ixiak, garbitzazie lehenik thazaren eta plataren barniak, anhoregatik kampua ere garbi izan dadin.

27. Zori gaitz zier, eskribau eta farisien hypokritak, zeren iduri duzien hil-hobi churitu batzuri, zoin kampuan eder ageri baidira gizonen begietan; bena zoin barnian bethiak baidira hil hezurrez eta zer nahi ustelkeriaz.

28. Hola kampuan agertzen zirete zuzenak gizonen begietan; bena barnian bethiak ziezte hypokrisiaz eta gaichtokeriaz.

29. Zori gaitz zientzat, eskribau eta farisien hypokritak, zoinek bastitzen baidituzie hil hobiak profetentzat, eta edertzen yustuen ohoretan egin izan diren obrak,

30. Eta zoinek erraiten baiduzie: gure aiten demborako izan bagina, ez ginen yuntatuko heyen profeteu odolaren ichurtzeko.

31. Holaz aithortzen duzie zihauriek, profeten hilarazi zalen haur zireztela.

— 144 —

32. Fini zazie beraz ; betha zazie zien aiten izaria.

33. Suge, bipera arraza, nola eskapatzen ahal zira ifernuko surat kondenatia izaitetik?

34. Hortakotz igorriko dauzkitziet profetak, zuhurrak eta eskribauak ; eta hilen tuzie batzu, khruzifikatuko tuzie bertziak, eta bertze batzu, azotatuko tuzie zien bilzarretan ; eta persekutatuko tuzie hiritic hirira ;

35. Amoregatik zien gainerat eror dadin yustuen odol guzia, lurrian ichuria izan dena, Abel yustuaren odoletik, Zakarja Barachiaren semiaren odolerano, zoin hil baiduzie templuaren eta aldariaren artian.

36. Erraiten dauziet egiazki ; gauza hok oro eroriko direla orai den arraza hunen gainera.

37. Yerusalem, Yerusalem, zoinek hiltzen baidituk profetak eta harrikatzen hi ganat igorriak, zombat aldi nahi ukhan ditut bil arazi hire haurrak, ollo batek bere chitak hegalen perat biltzen tien bezala, eta hik ez duk nahi ukhan !

38. Dembora hurrantzen da zure etchia huxik egonen da.

— 145 —

39. Ezik deklaratzen dauziet heben harat ez nuziela ikhussiko, ziek erran arterano : benedikatia dela Yainkoaren izenian yiten dena.

— 148 —

XXIV GARREN KAPITULIA.

Templuaren desegitia aintzinetik erakaxia. Senhale templuaren desegin aintzinekuak eta Yesu-Kristo berriz yin beno lehenagokuak.

1. Yesus yalgi zenian templotik yuaiteko, bere dizipuliak hurrandu zitzaizkon ohartaraziteko zombat handitarzunekin eta edertarzunekin egina zen obra hori.

2. Bena erran zeyen: Ikhusten ditozen bastimendu horiek oro? erraiten dauziet egiazki: deseginak izanen dira, gisa huntan ez baida geldituko harria harriaren gainian.

3. Gero Olibetako mendiaren gainian zenian, bere dizipuliak hurrandu zitzaizkon berheziki, eta erran zakoten: zer seinhaletarik ezaguturen dira zure yitia eta mendeen akabantza?

4. Eta Yesusek ihardexi zeyen: begirauzie nehork engana ez zitzaten;

5. Zeren anitzak yinen dira ene izenian, diotelarik: Kristo niz; eta anitz galaraziko dute.

6. Adituko duzie ere nintzatzen gerlaz eta gerlako abarroxez; bena onxa begira zitezte nahastetik; ezik gauza horiek yin behar dira: bena ez da orano hori izanen akhabanza.

7. Ezik ikhussiko dira altchatzen populia populiaren kontra, erresuma erresumaren kontra, eta izanen dira anitz tokitan izurritiak, gossetiak, lur ikhariak.

8. Eta gauza hok oro ez dira izanen doloren hastepena bezik.

9. Ordian emanen zituztete exaietarat tormentatiak izaiteko, eta hil araziko zituztete; eta hastiatiak izanen zirete nazione guziez ene izena dela kausa:

10. Eta dembora berian anitzek khaussituko dute okasione eskandalazko eta erorteko; elgar traituko dute eta hastiatuko dute batak bertzia.

11. Altchatuko da anitz profeta falxu, zoinek enganatuko baidute anitz presona.

12. Eta gaichtokeria ausarki baidateke, anitzen karitatia hoztuko da.

13. Bena atchikitzen diena fermoki, undarrian salbatia izanen da.

14. Eta erresumako Ebanyelio hau predikatia izanen da mundu guzian, zerbitzatzeko nazione guzier destimoniotzat; eta ordian iznen da akabantza.

15. Beraz ikhusten duzienian lekhu saindian phaussatia, Daniel profetaz aintzinetik erakaxia izan den desolazionia, irakurzaliak kompreni beza irakortzen diena.

16. Ordian Yudean diratekeyenak, ihes yuan ditela mendietarat.

17. Etche hegatzaren gainian datekeyena, ez bedi yeux hantik bere etchetik zerbait eramaitekotan.

18. Eta landan dena, ez bedi itzul bere soinekoen hartzera.

19. Bena zori gaitz egun hetan izorra edo unhide diratekeyen emazter.

20. Othoi zazie beraz Yainkoa ez dadin gertha zien ihes yuaitia ez negian, ez eta sabato egunian.

21. Ezik dembora hetako tormenta hain handia izanen da, nun ez baida izan halakorik mundiaren hastetik orai artio, eta ez izanen ere sekulan.

22. Eta egun hek ez balira izan laburtiak, nehor ez zen salbaturik izanen; bena egun hek laburtiak izanen dira hautatien favoretan.

23. Ordian norbaitek erraiten badauzie: Kristo hebenda edo handa, ez dezaziela sinhex.

24. Ezik altchatuko dira Kristo falxiak eta profeta falxiak, zoinek eginen baidituzte gauza handiak eta estonagarriak, enganatzeranokuan hautatiak berak ere, ahal baliz.

25. Abertitu nahi ukhan zituztet aintzinetik.

26. Beraz erraiten badauziete: huna nun den desertian; ez ziteztela yalgi harat yuaiteko. Erraiten badauziete: huna, ikhussazie. Etcheko tokirik chokhoenian; ez dezaziela sinhex.

27. Ezik nola Orientetik yalgi chimichta batek argitzen baidu Okzidenterano bat batian, gizonaren semia hala hala ginen da.

28. Gorphitz hilak khaussitzen diren toki orotara biltzen dira arranuak.

— 151 —

29. Tormentazko egun hetarik berhala, ekhia hobielduko da, argizayak ez du gehiago emanen bere argia, izarrak eroriko dira zerutik, eta zerietako bothieriak izanen dira ikharatiak.

30. Ordian gizouaren semiaren seinhalia agertuko da zerian, eta lurreko populu guziak izanen dira nigar eta narrasketan ; eta ikhussiko dute gizonaren semia, zoin yinen baida hodeyen gainian mayestate handi batekin.

31. Eta igorriko ditu bere ainguriak, zoinek adiaraziko baidute bere trompeten botz klarra, eta zoinek bilduko baidituzte harek hautatiak munduko laur kantonetarik, zeriaren bazter batetarik bertzeraino.

32. Ikkas zazie kumparazioue bat hartia Phikotik. Haren adarrak yadanik gurdo direnian, eta plussatzen ditienian ostuak, badakizie uda hurran dela :

33. Hola hola, ikhusten dituzienian gauza horiek oro, yakin zazie gizonaren semia hurran dela eta borthan bezala dela.

34. Egiazki erraiten dauziet ez dela igaranen oraiko yende mende hau, nun ez diren gauza horiek oro komplitzen.

— 152 —

35. Zeria eta lurra igaranen dira ; bena ene hitzak ez dira igaranen.

36. Egun hartaz eta orenaz bezambatian, nehork ez du heyen ezagutzarik, ez zeruko ainguriek ere, bena choilki ene aitak.

37. Eta gerthatuto da gizonaren semiaren yitian Noeren demboran gerthatu zena.

38. Nola huroldiaren aintzineko egunetan, gizonek yaten eta edaten baitzuten, ezkontzen baitziren, bere haurrak ezkontarazten baitzuzten, Noë arkhan sarthu zen egunerano,

39. Eta ezbaitzuten ezagutu huroldeko mementua yin zenian eta mundia oro eraman zienian bezik, gauza bera izanen da gizonaren semia yiten denian.

40. Ordian bi gizon alhorrian diratekeyenetarik bat izanen da hartia eta bertzia utzia.

41. Eyheran ehotzen ari diren bi emazteta-rik, izanen da bata hartia eta bertzia utzia.

42. Zaudezte beraz iratzarririk, zeren ez dakizie zien Yaunak zer orenez yin behar dien.

43. Beraz yakin zazie aita familiakuak balaki gabazko zer orenetan yin behar zakon

ohoina, dudarik gabe iratzarria egon litakeyela eta ez lezakeyela bere etchia zilatzera utzi.

44. Beraz ziek ere zaudezte bethi prest, zerendako gizonaren semia yinen da uste ez duzien orenian.

45. Zoin da zerbitzari zuhur eta fidela bere naussiak ezarri diena bere zerbitzarien gainian, heyer emaiteko denboran bere hazgarria?

46. Dohaxia da zerbitzari haur, bere naussiak khaussitzen badu gisa hortan ari dela, bera yiten denian.

47. Erraiten dauziet egiazki ezarriko diela bere huntarzun guzien gainian:

48. Bena zerbitzari hau gaichtua bada, erraiten dielarik bere baithan: ene naussia ez da prest yiteko;

49. Eman bedi bere lagunen yotzen, hordiekin yaten eta edaten:

50. Zerbitzari horren naussia yinen da igurikitzen ez dien egunian, eta ez dakien orenian:

51. Berheziko du, eta emanen dako gaztigutzat izaitia hypokriten herrenkan. Han izanen dira nigarrak eta hortz karraskak.

XXV GARREN KAPITULIA.

Hamar Biryinen Parabola. Talentuen komparazionia. Azken yuyamendia aintzinetik erakaxia.

1. ORDIAN zerielako erresumak iduri izanen du hamar Biryiner, zoin bere lampak harturik, yuan baitziren ezkont berrien bidera.

2. Hetarik bost erhuak ziren eta bertze bostak zuhurrak.

3. Bost erhuak zirenak, lampak hartzian, ez zuten hartu oliorik berekin.

4. Zuhurrek kontrara hartu zuten olio bere untzietan bere lampekin.

5. Eta nola berantzen baitzien esposak yitia, oro logaletu ziren, eta lokhartu ziren.

6. Bena gaulierditan oihu handi bat intzunik izan zen: huna esposa nun heldu den; yalgi zazkiote aintzinera.

7. Berhala Biryina horiek oro yeiki ziren eta bere lampak preparatu zituzten.

— 156 —

8. Bena erhuek erran zuten zuhurrer: emaguzie zien oliotik, zeren gure lampak hiltzen dira.

9. Zuhurrek ihardexi zeyeten: beldur dugu ez dezagun ukhan aski guretzat eta zientzat; zuazte saltzen duten etara, eta han eros zazie behar duziena.

10. Bena erostera zuatzelarik esposa yin zen, eta prest zirenak harekin sarthu ziren ezteyetarat, eta bortha herxia izan zen.

11. Norbait bertze Biryinak ere yin ziren, eta erran zakoten: Yauna, Yauna, idek ezauguzu.

12. Bena errespondítu zeyen: erraiten dauziet egiazki ez zituztet ezagutzen.

13. Beraz zaudezte iratzarriak, zeren ez dakizie ez eguua ez orena.

14. Ezik Yauna komportatzen da gizon bat bezala, zoinek, kartierraz kampo bidaye luzebat egin beharrez, deithatu baitzitien bere zerbitzariak, eta ezarri baitzeyen eskietarat bere huntarzuna.

15. Eta emanik bost talentu batari, biga bertziari, eta bat bertziari, bat bederari, beren ahalaren arabera, berhala phartitu zen.

— 157 —

16. Beraz bost talentu ukhan zitiena yuan zen; eman zen diru horrekin sal erosian, eta irabazi zitien bertze bost.

17. Biga errezebitu zitienak ere irabazi zitien bertze biga.

18. Bena bat bezik ukhan ez ziena, yuan zen zilo egitera lurrian, eta han gorde zien bere naussiaren diria.

19. Dembora lozeren onduan, zerbitzari horien naussia itzuli zenian, emanarazi zeyen khondu.

20. Bost talentu errezebitu zitiena, yin zitzakon pharatzera bertze bost, erraiten zakola: Yauna, ezarri zindazkidan eskietan bost talentu; huna, hetaz kampo, bertze bost irabazi ditudanak.

21. Bere naussiak errespondítu zakon: O, zerbitzari huna, fidel izan zirelakotz gauza gutitan, ezarriku zitut bertze anitzen gainian: sar zite zure Yaunaren bozkarioan.

22. Bi talentu ukhan zitiena ere yin zitzaikon, eta erran zakon: Yauna, ezarri zindazkidan bi talentu eskietan. Huna, hetaz kampo, bertze biga irabazi ditudanak.

23. Bere naussiak ihardexi zakon : O, zerbitzari huna, izan zirelakotz fidel gauza gutitan, ezarriko zitut bertze anitzen gainian : sar zite zure Yaunaren bozkarioan.

24. Talentu bat bezik ukhan ez ziena yin zitzakon gero, eta erran zakon : Yauna, badakit gizon gogor bat zirela, frutia biltzen duzula erein ez duzun landan, eta altchatzen duzula deus ere ezarri ez duzun lekhutik ;

25. Hortakotz, zure beldurrez, izan niz zure talentiaren gordatzen lurrian : huna, errendatzen dauzut zuria.

26. Bena bere naussiak ihardexi zakon : zerbitzari gaichto eta aferra, bazindakien frutia biltzen dudala erein ez dudan landan, eta atheratzen dudala deus ezarri ez dudan lekhutik :

27. Beraz behar zindien ezarri ene diria bankierren eskietan, amoregatik itzuli ninzanian euia har nezan irabaziarekin.

28. Khen bezakote beraz talentu diena, eta eman bezakote hamar talentu ditienari.

29. Ezik eman deyete yadanik duten orori, eta hok ontarzunez bethiak izanen dira ; bena

yeus gabe denaz bezambatian, edekiko dazkote harena iduri dutenak ere.

30. Eta aurthik bezate zerbitzari afer hori kampoko ilhunpetarat.

31. Gizonaren semia yiten denian bere mayestatian, ainguru guziez lagundia, yarriko da bere loriako tronuan.

32. Eta nazione guziak haren aintzinera bildiak direlarik, berheziko ditu batziak bertzetarik, hala nola artzain batek berhezten baiditu ardiak akherretarik :

33. Eta ezarriko ditu ardiak bere eskuinian, eta akherrak bere ezkerrian.

34. Ordian erreguek erranen du haren eskuinian direner : zauzte, ziek zoin izan baitziezte benedikatiak ene aitaz ; goza zazie mundiaren hastetik preparaturik izan zauzien erresuma.

35. Ezik gosse izan niz, eta yatera eman dautazie egarri izan niz, eta edatera eman dautazie. Loyamendu behar ukhan dut, eta loyatu nuzie :

36. Buluzia izan niz, eta beztitu nuzie : eri izan niz, eta bisitatu nuzie. Presondeyan ninzan, eta yin zazkidate ikhustera.

— 160 —

37. Ordian yustuek ihardexiku dakote: noiz ikhussi zitugu gosse, eta eman dauzugu yatera; edo egarri, eta eman dauzugu edatera?

38. Noiz ikhussi zitugu loyamendu gabe, eta loyatu zitugu; edo buluzia, eta beztitu zitugu?

39. Eta noiz ikhussi zitugu eri: edo presondeyan, eta yin gira zure ikhustera?

40. Eta erregek errespondituko deye: erraiten dauziet egiazki, ene anaya hotarik ttipienari egin dituzien aldi oroz, niri, nihauri egin ditazie.

41. Gero erranen deye ezkerrian direner. Urrunt zitezte ene ganik, maradikatiak; zuazte su eternalerat, zoin izan baida preparatia debriaren eta haren aingurientzat.

42. Ezik gosse izan niz, eta ez dautazie eman yatera, egarri izan niz, eta ez dautazie eman edatera;

43. Loyamendu beharretan izan niz, eta ez nuzie loyatu; buluzia izan niz, eta ez nuzie beztitu; izan niz eri, pressondeyan, eta ez nuzie bisitatu.

— 161 —

44. Ordian ihardexiko dakote hek ere: Yauna, nun ikhussi zitugu gusse, edo egarri, edo loyamendu gabe, edo buluzia, edo eri, presondeyan, eta faltatu dugu zure laguntzia?

45. Bena errespondituko deye: erraiten dauziet egiazki faltatu duzien aldi oroz laguntza hotarik ttipienari, faltatu duzie nihauri.

46. Ordian hok yuanen dira bethikotz tormentetalat, eta yustuak bizi eternalaren gozamenerat.

XXVI GARREN KAPITULIA.

Yudien komplota. Parfuma (urrin hunezko likurra) Yesu-Kristoren buru gainerat ichuria. Yudasen traidorekeria. Bazkoko afaria. Eukaristia mezako sacrifizioa. Yaun doni Petriren ukhatzia aintzinetik erakaxia. Yesusen tristezia, Yudasen pota. Dizipulien ihes egitia. Yesu-Kristo eramana, Kaifasen gana. Yaun doni Petriren ukhatzia eta haren penitenzia.

1. Yesus-ek finitu zitienian elhe horiek oro, erran zeyen bere dizipulier:

2. Badakizie bi egunen burian bazko eginen dela, eta gizonaren semia libratia izanen dela khurutzefikatia izaiteko.

3. Dembora berian, aphezen prinziak eta populuko zaharrac bildu ziren Kaifas aphez handiaren salara;

4. Eta elgarrekin han konseillu atchiki zuten khaussitzeko moyena adreki Yesusen arrestatzeko eta hil arazteko.

5. Bena zioten: ez hargatik bestak diraueno, nahaskeria zerbait izan ez dadin populiaren artian.

6. Yesus Bethanian zelarik, Simon leprossaren etchian,

7. Emazte bat yin zitzakon albatrezko untzi bat bethia zielarik prezio handitako parfumezko olioz, zoin ichuri baitzakon buriaren gainera mahaian zelarik.

8. Dizipuliek hori ikhussirik, saimurtu ziren eta erran zuten: zertako galtze hori?

9. Ezik saldu ahal zuketen untxa khario parfum hori, horren diria emaiteko prober.

10. Bena Yesusek zer erraiten zuten intzunik, erran zeyen: zertako emaiten dakozie penarik emazte horri? Oray horrek egin dautana obra hun bat da.

11. Ezik baditozie bethi zien artian pobriak; bena ni ez nuzie bethi ukhanen.

12. Eta ichuri dienian parfum olio hori ene gorphitzaren gainerat, egindu Abantzutik ene ihortzteko.

13. Erraiten dauziet egiazki: Ebanyelio hori predikatia izanen den toki oratan, erran

nahi da mundu guzian, khondatuko dute, emazte horren laudoriotan, orai egin dautana.

14. Ordian hamabitarik bat, deithatia Yudas Izkariote, yuan zen khaussitzera aphezen prinziak,

15. Eta erran zeyen: zer eman nahi dautazie, eta eskietarat ezarriko dauziet? eta hitz hartu zuten emanen zakotela hogoi eta hamar diru pheza.

16. Geroztik bilha zabilan nola behar zeyen eskietarat eman.

17. Azimen lehen egunian (erran nahi da yudien bazko demborako lehen egunian), dizipuliak yin ziren Yesusen khaussitzera, eta erran zakoten: nun nahi duzu presta dezagun behar dena bazkoareu yateko?

18. Ihardexi zeyen: zuazte hirira hulakoaren etchera, eta errozie: naussiak igorten daozo erraitera: ene dembora hurranda; heldu niz zure etcherat bazkoaren egitera ene dizipuliekin.

19. Dizipuliek egin zuten Yesusek manatu zeyena, eta preparatu zuten bazkoaren egiteko behar zena.

20. Arraxa yin zenian, yarri zen mahayan bere hamabi dizipuliekin.

21. Eta yaten ari zirelarik, erran zeyen: erraiten dauziet egiazki zietarik batek trahituko niela.

22. Hunek tristezia handi bat khaussaturik, bassi zitzazkon bat bedera galdegiten: Yauna, ni othe niz?

23. Ihardexi zeyen: platian enekin eskia ezarten diena da ni trahituko niena.

24. Gizonaren semiaz bezambatian, badoha hartaz izkiribaturik izan den bezala; bena zori gaitz gizonaren semia trahituko dienarentzat: hobezukeyen egundaino sorthu izan ez baliz.

25. Yudasek, zoin baitzen trahitu ziena, hitzaz yabeturik, erran zakon: naussia, ni niza hura? Ihardexi zakon: zuhaurek erran dozu.

26. Eta afariteo ari zitelarik; Yesusek hartu zien ogia; eta benedikatu onduan hauxi zien, eta eman bere dizipulier, erraiten zeyela: har zazie, eta yan zazie: hau da ene gorphitza.

27. Eta harturik kalitza (erran nahi da edari untzia), Yainkoari eskerrak erreodatu zitien, eta eman zeyen, erraiten zeyela: edan zazie orok huntarik;

— 167 —

28. Ezik hau ene odola da, odol alienza berrikua, zoin izanen baida ichuria anitzeu bekhatien barkhameudutan.

29. Erraiten dauziet ez dudala heben harat gehiago edanen mahastiko frutu huntarik, ene aitareu erresuman berriz ziekin edanen dudan eguneraino.

30. Eta khantatu onduan Yaiukoari eskerren emaiteko kantika, yuan ziren Olibetako mendirat.

31. Ordian Yesusek erran zeyen: gau huntan zien ororentzat eskandalazko suyet bat izanen niz; ezik izkiribatia da: zehatuko dut artzaina, eta barreatiak izanen dira azinda saldoko ardiak.

32. Bena hiletarik phiztu nizanian, yuanen niz ziek beno lehenago Galilearat.

33. Piarresek ihardexi zakon: bertze guzientzat eskandalazko suyet bat bazina ere, enetzat ez zira hala izanen sekulan.

34. Yesusek errespondittu zakon: egiazki erraiten dauzut; gau huntan berian, oillarrak khantatu beno lehen, hirur aldiz niri ukho eginen dautazu.

— 168 —

35. Bena Piarresek erran zakon: hil behar banintz ere zurekin, ez zintzazket ukha. Eta bertze dizipulu orok gauza bera erran zuten.

36. Ordian Yesus heldu zen heyekin Getsemani deithia zen lekhu batera; eta erran zien bere dizipulier: yar zitezte heben, ni hebentik othoitzera yuaiten nizan artian.

37. Eta harturik berekin Piarres eta zebedearen bi semiak hassi zen tristatzen, eta izaiten bihotz min handi batian.

38. Ordian erran zeyen: ene ariuna triste da heriotzerano: egon zitezte heben, eta iratzarriak zaudezte enekin.

39. Eta hantik yuanik urrunchago, ahuspez eman zen begithartia lurrari kontre, othoizian erraiten ziela: ene aita ahal bada, egizu urrun dadin kalitza hau ni ganik: bizkitartian izan bedi, ez nik nahi dudan bezala, bena zuk nahi duzun bezala.

40. Gero yiu zen bere dizipulietara, eta khaussiturik lokhartiak, erran zakon Piarresi: zer! ezin egon zirezte oren bat enekin iratzarririk?

41. Zaudezte iratzarriak eta egizie othoitz,

amoregatik ernr ez zitezten tentazionetan, izpiritia erne da, bena haragia flako da.

42. Yuan zen orano bigarren aldian othoitzera, erraiten zielarik: ene aita, kalitza hau ez bada, nik edan gabe, igaraiten ahal, izan bedi zure borondatia egina.

43. Gero itzuli zen heyetarat, eta khaussitu zitien orano lokhartiak, zeren heyen begiak loz phizatiak ziren.

44. Uzten zitielarik, yuan zen orano, hirur garren aldiañ, othoitzera, erranez hitz berak.

45. Gero yin zen bere dizipulien khaussitzera, eta erran zeyen: lo egin zazie orai, eta phaussa zitezte: huna orena hurrandia, eta gizonaren semia izaitera doha emana bekhatoren eskietarat.

46. Yeiki zitezte, guazen; trahitu behar niena hurran-da.

47. Orano mintzo zela, Yudas, hamabietarik bat, yin zen, eta harekin yende mulzo handi bat harmatiak ezpataz eta makhilaz, zoin igorriak izan baitziren aphezen prinzez eta populuko zaharrez.

48. Trahitzen zienak eman zeyen seinhale

bat ezagutarazteko, erraiten zeyelarik: pot emaiten dakodana da bilhatzen duziena: ber hari lot zazkiote.

49. Beraz berhala hurrandu zen Yesus-en gana, eta erran zakon: agur naussia. Eta pot eman zakon.

50. Yesusek erresponditu zakon: ene adiskidia, zertara yin zira huna? Eta dembora berian, bertze guziak aintzinaturik, Yesus-en gainerat eman ziren eta presso hartu zuten.

51. Ordian Yesusekin zenetarik batek, bere ezpata idekirik, eta eskian harturik, hartaz eman zakon aphez handiaren zerbitzari bati, eta phikatu zakon beharri bat.

52. Yesusek erran zakon: itzul zazu zure ezpata bere lekhurat; ezik ezpata hartzen dutenak oro, ezpataz perituko dira.

53. Uste duzia ez dezakedala othoi ene aita, eta hak ez dezakedala igor dembora berian hamabi legione ainguru?

54. Nola beraz komplituko dira izkiribiak, zoinek erraiten baidute horrek hola egina izan behar diela?

55. Dembora berian, Yesus mintzo zelarik

— 171 —

mulzo horri, erran zakon : yin zirete hunat harmatiak ezpatez eta makhilez ene hartzera oluoin bat banintz bezala : egun oroz zien artian ninzan yarria, erakasten templuan eta ez nuzie arrestatu.

56. Bena hori oro egina izan da, amoregatik profetek izkiribatu dutena izan dadin komplitia. Ordian dizipuliek orok abandonaturik, ihes egin zuten.

57. Beraz yende horiek Yesus harturik, eraman zuten aphez handiaren etchera, nun haitziren bildiak eskribauak eta zaharrak.

58. Bizkitartian Piarresek segitzen zien urrunetik aphez handiaren etcheko ezkaratzerano, eta han sarthurik, yarri zen yendekin ikhusteko bek guziak nola finituku ziren.

59. Bizkitartian aphezak eta konseillu guzia lekhuko falxu baten bilha zabiltzan Yesusen hil arazteko.

60. Eta ez zuten khaussitu aski zenik, nahiz bat benu gehiago pharatu zen. Undarrian bi lekhuko falxu yin ziren,

61. Zoinek errau baitzuten : hunek errandu : aurthiki dezaket Yainkoaren templua, eta berriz zutik ezar hirur egunen barnian.

— 172 —

62. Ordian aphez handia yeikiten zelarik erran zakon : ez duzu deusik ihardesten, yende horiek zure kontre erraiten dutenen gainian ?

63. Bena Yesus ichilik zagon. Eta aphez handiak erran zakon : manatzen dauzut, Yainko biziaren izenian, erran dezauguzun zu zirenez Kristo, Yainkoaren semia ?

64. Yesusek errespondilu zakon : erran duzu : hala niz : bena deklaratzen dauzut gero ikhussiko duzula gizonaren semia, Yainko bothereziaren eskuinian yarria, yiten zeruko odeieu gainian.

65. Ordian aphez handiak phorroskatu zitien bere arropak, erraiten ziela : blasfematu du : zer behar dugu gehiago lekhukorik ? Intzun duzie blasfemioa :

66. Zer iduri zauzie ? Ihardexi zuten : hiltzia merechitu du.

67. Ordian ihu egin zakoten begithartera : ukhambila ukhaldiz yo zuten, eta bertze batziek behar ondokoak eman zazkoten,

68. Erraiten zakolelarik : phenxazak, eta erran ezauguk nork yo hien ?

— 173 —

69. Artehartan Piarres zagón yarria kampoko aldetik ezkaratzian ; eta sehi neskato batek hurrandurik , erran zakon : zu ere Yesus Galileakoarekin zinen.

70. Bena ukhatu zien mundu guziaren aintzinian, erraiten zielarik : ez dakit zer diozun.

71. Eta borthatik yalgiten zelarik , bertze neskato batek ikhussi zien, eta erran zeyen han zirener : hau ere Yesus Nazaretakuare-kin zen.

72. Piarresek ukhatu zien bigarren aldian, erraiten zielarik : ez dut ezagutzen gizon hori.

73. Aphur baten burian, han zirenek hurrandurik, erran zakoten : egiazki zu ere yende horietarik zira , ezik zure mintzayiak berak ezagutarazten zitu.

74. Ordian eman zen burho eta zin egiten, erraiten zielarik gizon harekin ez ziela ezagutzarik batere ; eta berhala oillarrak khantatu zien.

75. Eta Piarres orhoitu zen Yesusek erran ukhan zakonaz ; oillarrak khantatu beno lehen, hirur aldiz ukho eginen dautazu. Beraz kamporat yalgirik, nigar egin zien kharaski.

XXVII GARREN KAPITULIA.

Yudasen dolia eta heriotzia. Yesus Pilatusen aintzinian. Barrabas preferatia. Azotatzia. Khurutziaren yassaitia. Khurutzefikatzia. Ilhunpiak. Yesu-Kristoren hiltzia. Haren ihortzia.

1. Goiza yin zenian, aphezen prinzek eta yudu populuko aintzindariek, konseillu atchiki zuten, Yesusen kontre haren hil arazteko.

2. Eta estekaturik, eraman zuten, eta ezarri Ponzio Pilatus Gobernadoriaren eskietan.

3. Arte hartan Yudas, hura trahitu ziena, ikhussirik kondenatia zela, dolutia izan zen egin zienaz ; eta itzultzen zitielarik hogoi eta hamar diru phezak aphezen prinzer eta populuko aintzindarier,

4. Erran zeyen. Bekhatu egin dut salduz odol ogenik gabia. Ihardexi zakoten : guri zer duhaugu ? hori zure egitekua da.

— 176 —

5. Ordian aurthiki zien diria templuan, eta haotik yalgirik yuan zen, eta bere buria urkhatu zien.

6. Bena aphezen prinzek diria harturik, erran zuten: ez zaugu zilhei hunen ezartia tresorrian, zeren odolaren saria da.

7. Eta elgar aditurik, erossi zuten untzi-egile baten landa, arrotzen hil hobitzat.

8. Hartakotz landa hura deithatia da, orano egun ere, Haceldama, erran nahi baida, odolaren landa.

9. Gisa hortan komplitia izan zen Yeremia profetaren hitz hau: harto dituzte hogoi eta hamar diru phezak, zoinek egiten baitzuten preziotan emanik izan zenaren saria, eta zuinen tratia egin baitzuten Israeleko haurrekin;

10. Eta eman dituzte untzi egile baten landaren erosteko, Yaunak manatu dautan bezala.

11. Yesus eramana izan zen gobernadoriaren aintzinera; eta gobernadoriak interrogatu zien hitz holaz: yudien erregia zirea? Ihardexi zakon: zuk diozu.

12. Eta akusatia izan zenian aphezen prin-

— 177 —

zez eta populuko aintzindariez, deusik ez zien ihardexi.

13. Ordian Pilatusek erran zakon: ez duzia intzuten zombat gauzaz yende hok akusatzen zuzten?

14. Bena ez zien yeusik errespondidu, zer nahi erran zezakon; gisa huntan nun gobernadoria arras estonatia baitzen.

15. Usaya zen gobernadoriak libratzeko, bazko-besta egunian, presuner bat, populiak hautatzen ziena.

16. Ordian bazen bat famatia, deithatia Barrabbas.

17. Oro bildu zirenian, Pilatusek erran zeyen: zoin nahie duzie libra dezazietan, Barrabbas, ala Yesus, zoin deithia baida Kristo?

18. Ezik bazakien onxa bekhaizkuaz emanzutela haren eskietarat.

19. Arte hartan, yustiziako alkhian zagolarik, bere emaztiak igorri zakon erraitera: ez zitela sar yusto horren egitekuan, ezik egun horren khaussaz, biziki tormentatia izan niz amexetan.

20. Bena aphezen prinzek eta aintzindariek

— 178 —

ekharri zuten populia galdegitera Barrabbas, eta hil araztera Yesus.

21. Beraz gobernadoriak erran zeyenian: zoin nahi duzie bietarik libra dezazietan? Ihardexi zuten: Barrabbas.

22. Pilatusek erran zeyen: zer eginen dut beraz Yesu-Kristo deitzen denaz?

23. Ihardexi zuten orok: klurutzefikabedi. gobernadoriak erran zeyen: bena zer gaizki egin du? Eta eman ziren orano azkarkiago oihuz, erraiten zutela: izan bedi khurutzefikatia.

24. Pilatusek ikhussirik deus ez ziela irabazten, eta abarroxa emendatzen zela bethi, erakharri zien hur, eta eskiak ikhuzten zitielarik populiaren aintzinian, erran zeyen: ni garbi niz gizon yusto horren odoletik; zier egonen da hortaz errespondidzia.

25. Eta populu guziak ihardexi zakon: horren odola eror dabila gure eta gure haurren gainerat.

26. Ordian libratu zeyen Barrabbas; eta azotarazi onduan Yesus, eman zeyen khurutzefikatia izaiteko.

— 179 —

27. Gobernadoriaren soldadnek eraman zuten gero Yesus palaziorat; eta hara bildu zutenian tropa oro,

28. Khendu zazkoten bere arropa guziak, eta yauntzi zakoten eskarlatazko kapa bat;

29. Gero eginik elhorrizko khoro bat, ezarri zakoten buriaren gainian, eta khanabera bat eskuineko eskian. Eta belhaunikaturik haren aintzinian, trufatzeu ziren hartaz, erranez: agur yudien erregia.

30. Eta thu egiten zakoten begithartera; khanabera eskutik hartu eta hartaz burian yoiten zuten.

31. Hartaz gisa hortan trufatu onduan, khendu zakoten eskandalazko kapa, eta bere arropak ezarririk, eraman zuten khurutzefikatzera.

32. Yalgiten zirelarik, khaussitu zuten Cyrenako gizon bat, deithatia Simon, zoin bortchatu baitzuten Yesusen khurutziaren eramaitera.

33. Eta heldu zirenian Golgotha deithia den lekhura, erran nahi da, Calvarioko lekhura.

34. Eman zakoten edatera arnoa nahissirik

khedarriarekin ; bena yastatu zienian, ez zien edan nahi ukhan.

35. Khurutzefikatu zuten onduan, phartitu zituzten haren arropak, zorthian emanez bere artian ; amoregatik izan zadin komplitia profetaren erran hau : phartitu dituzte bere artian ene soineko phildak, eta chorthian ezarri dute ene kapa.

36. Eta berak yarririk, zaintzen zuten.

37. Ezarri ere zuten haren buriaren gaineko aldian haren kondenazioneko suyeta izkiribatia hitz hotaz : haurda yudien erregia.

38. Dembora berian, khurutzefikatu zituzten harekin bi ohoin, bata haren eskuinian, eta bertzia ezkerrian.

39. Eta hantik igaraiten zirenek, buria kordokatuz, blasfemio egiten zakoten,

40. Erranez : hik desegiten baiduk Yainkoaren templua, eta berriz zutik ezarten hirur egunen barnian, zerlako ez duk hire buria salbatzen? Yainkoaren semia bahiz, yeux hadi khurutzetik.

41. Aphezen Prinziak ere hartaz burlatzen ziren eskribauekin eta senaturrekin, ziotelarik.

42. Berziak salbatu ditu, eta ez dezake salba bere buria. Israeleko errege balin bada, yeux bedi orai khurutzetik, eta sinhexiko dugu hura baithan.

43. Ezarten du Yainkoa baithan bere fidanza ; Yainkoak maite badu beraz, orai libra beza, erran dienaz geroz : Yainkoaren semia niz.

44. Harekin khurutzefikatiak ziren ohoinek ere, egiten zazkoten erantzute berak.

45. Eguneko sei orenetarik bederatzilaranokuan, lur guzia estalia izan zen ilhunpez.

46. Eta bederatzi garrenaren irian egin zien oyhu handi bat, erraiten ziela : Eli, Eli, lama Sabactani? erran nahi da : ene Yainkoa, zertako abandonatu nuzu.

47. Han zirenetarik zombaitek, intzunik hola oihu egiten, erraiten zuten ; horrek Elias galdegiten du.

48. Eta hetarik batek laster egin zien, esponya bat ozpinez trempatu zien ; eta khanabera baten phuntan ezarririk, pharato zikon edatera.

49. Bertzek erraiten zaten : igurika zazie,

ikhus dezagun Elias yinen zakonez libratzera.

50. Bena Yesusek orano oihu haoti bat egiten zielarik, aurthiki zien azken haxa.

51. Dembora berian temploko bela urratu zen bi pharte, gainetik behererano, lurra ikharatu zen; harriak arraildu ziren:

52. Hil hobiak zabaldu ziren, eta zombait seinduren gorphitzak phiztu ziren.

53. Eta phiztu ouduan, bere hil hobietarik yalgirik, yin ziren hiri seindurat, eta han ikhussiak izan ziren anitz personez.

54. Kapitaina, eta harekin Yesusen begiratzen zaudenak, ikhussirik lur ikharia, eta igaraiten zirenak oro, izitu ziren biziki, eta erran zuten: egiazki gizon hori Yainkoaren seme zen.

55. Baziren ere han zombait emazte urruttorik zaudenak, eta yarraiki zitzazkoriak Yesusi Galileatik, hartaz artha hartzen zutela;

56. Hetan ziren Maria Madelena, Maria Yakessen eta Yosefen ama, eta Zebedearen bi semen ama.

57. Eta arraxian, Arimathiako hiriko gizon

aberax bat, deithatia Yosef, zoin baitzen ere Yesusen dizipulu,

58. Yuan zen Pilatusen gana, eta galdegin zakonian Yesusen gorphitza, Pilatusek manatu zien emaiteko.

59. Beraz Yosefek harturik gorphitza, mihisse churi batez inguratu zien,

60. Ezarri zien bere hil hobian, zoin ez baitzen orano zerbitzatia, eta egin arazia baitzien harria phikatuz arroka batian; eta gero harri handi bat inguruka ezarri onduan hil hobiaren sargian, yuan zen.

61. Maria Madelena, eta bertze Maria han zauden yarriak hil hobiaren onduan.

62. Binaramunian, zoin baitzen eguna bestaren preparatzeko egunaren ondokua, aphezen prinziak eta farisienak elgagana bildurik, yin ziren Pilatusengana.

63. Eta erran zakoten: Yauna, orhnitu gira enganazale harek erraiten ziela, bizi zelarik: phiztuko niz ene heriotzetik hirur egunen burian.

64. Beraz manazazu hil hobia izan dadin zaindia hirurgarren egunerano, beldurrez haren

dizipuliak yin diten, gorphitza altcha dezaten, eta erran dezaten populiari : phiztu da hilen artetik; eta gisa hortaz azken enganio hori lehena beno sordetch litake.

65. Bena Pilatusek erran zeyen : hadituzie zainzaliak ; zuazte, zain ezazie zien gisa.

66. Beraz yuan ziren; eta segur izaiteko hil hobiaz, kachetatu zuten harria eta ezarri zituzten zainzaliak.

XXVIII GARREN KAPITULIA.

Yesu-Kristoren phiztia. Haren agertzia. Apostolien kargia.

1. Bena aste huri igaran zenian, segidakuaren lehen eguna hasten zelarik argitzen, Maria Madelena eta bertze Maria yin ziren hil hobiaren ikhustera.

2. Eta berhala izan zen lur ikhare handi bat : Yaunaren ainguru bat zerutik yeuxi zen, eta yin zen uzkaltzera hil hobiaren sargian zen harria, eta haren gainian yarri zen.

3. Haren begithartiak distiatzen zien chimichtak bezala, eta haren arropak ziren elhurra bezain churi.

4. Zain zaliak hain beste izitu ziren nun hilak bezalakatu baitziren.

— 186 —

5. Bena ainguria mintzatzen zelarik emaztter, erran zeyen : zietaz bezambatian, ez ukhan beldurrik ; ezik badakit bilhatzen duziela Yesus, zoin izan baida khurutzefikatia :

6. Ez da heben : phiztu da erran zien bezala. Zauzte, eta ikhus ezazie Yauna ezarri zuten lekhia ;

7. Pressa zitezte yuaitera eta erraitera haren dizipulier phiztu dela. Yuanen da zien aintzinian Galilearat ; han ikhussiku duzie ; aintzinetik yakin arazten dauziet.

8. Emaztiak yalgi ziren bit hobitik berhala, izitiak, bena bozkario handirekin ; eta laster egin zuten berri horren eramaitera dizipulier.

9. Denbora berian Yesus pharatu zitz zeyen aintzinera, eta erran zeyen : agur eman dakiziela. Hurrantzen zazkolarik, bessarkatu zazkoten oinak eta adnratu zuten.

10. Ordian Yesusek erran zeyen : ez ukhan beldurrik zuazte erraitera ene anayer yuan diten Galilearat : han ikhussiko nute.

11. Hek zoatzelarik, zainzaletarik zombait yin ziren hirirat, eta khondatu zituzten aphezen prinzer igaranziren gauzak oro.

— 187 —

12. Hok bildurik populuko aintzindariekin, elgarrekin delibero hartu onduan, eman zuten soldaduer diruketa handi bat,

13. Manatzen zeyetelarik : errazie, haren dizipuliak gauaz yin dira, eta ebaxi dute gu lo gindaudelarik.

14. Eta gobernaduria yiten bada horren yakitera, gok eztiaraziko dugu, eta ezarriko zifuztegu segurtanetan.

15. Diru hori hartu onduan, soldaduek egin zuten erran zeyetena ; eta erran horrek, zoin hedatu baitzuten, irauten du orano egun yudien artian.

16. Hameka dizipuliak yuan ziren, Yesusek han khaussitzeko manatu zeyen mendi gainera.

17. Eta han ikhussi zutenian, adoratu zuten : halere zombait dudatu ziren.

18. Bena Yesus hurrandarik mintzatu zitzeyen hola : bothere guzia emana izan zaut zerian eta lurrian.

19. Zuazte beraz, eta erakax ezazie populu guzier, baiheyatzen dituzielarik aitaren, eta semiaren eta Izpiritu Saindiaren izenian ;

20. Eta erakaxten deyezielarik komplitzen, nik manatu dauzkitzietan gauza guziak. Eta segurta zitezte izanen nizala bethi ziekin mundiak diraueno.

Cette traduction de l'ÉVANGILE DE SAINT MATHIEU, en dialecte Basque Bas-Navarrais, a été imprimée aux frais du Prince LOUIS-LUCIEN BONAPARTE.

Je certifie que cet ouvrage a été tiré au nombre de douze exemplaires, dont dix numérotés portent le nom imprimé du destinataire, et deux autres non numérotés, dont l'un imprimé sur papier grand-raisin vélin, appartiennent à Son Altesse.

Veuve A. Lamaignère née Teulières.

BAYONNE, IMPRIMERIE DE VEUVE LAMAIGNÈRE.

EL SALMO QUINCUAGÉSIMO

Martin Elizondo
Pedro Jose Samper
Mariano Mendigacha
Aezkeraz
Zaraitzueraz
Erronkarieraz
Londres
1869

Originala: «Azkue Biblioteka» - Euskaltzaindia

EL SALMO QUINCUAGÉSIMO,

TRADUCIDO AL

VASCUENCE AEZCOANO, SALACENCO Y RONCALÉS

DE

LA VERSION CASTELLANA DEL PADRE FELIPE SCIO,

POR

DON MARTIN ELIZONDO DE ARIBE,
DON PEDRO JOSÉ SAMPER ABAD DE JAURRIETA, Y
DON MARIANO MENDIGACHA DE VIDÁNGOZ.

LONDRES. 1869.

El Salmo quincuagésimo.

Castellano.

El Salmo quincuagésimo traducido al castellano por el padre Felipe Scio. Londres. 1869.

Salmo L.

PARA el fin, Salmo á David,

2. Cuando vino á él el Profeta Natan, después que entró á Betsabec.

3. Ten piedad de mí, ó Dios, segun tu grande misericordia.
Y segun la multitud de tus piedades, borra mi iniquidad.

4. Lávame más y más de mi iniquidad : y límpiame de mi pecado.

5. Porque yo conozco mi iniquidad : y mi pecado está siempre enfrente de mí.

6. Contra tí solo he pecado, y he hecho el mal delante de tí : para que seas justificado en tus palabras, y venzas cuando eres juzgado.

Aezcoano de Aribe.

Bebrogueitamargarren Salmoa, Don Martin Elizondoc aita Scioin erderatic Aribeco uscara itzulia. Londresen. 1869.

L. Salmoa.

FINEINDACO, Salmoa Davidi,

Etor celeic Natan Profeta aren gana, sartu cenas gueros Betsaben gana.

Izan zazu piedade nitas, o Jangoicoa, segun zure misericordia andia.
Eta segun zure piedaden aniztasuna, borra zazu ene gaisstotasuna.

Icuz naztazu gueyo eta gueyo ene gaisstotasunetic : eta garbi naztazu ene becatutic.

Ceren nic ezautzaut ene gaisstotasuna : eta cue becatua dago beti ene ailtcinean.

Zure contra bacarric ein dut becatu, eta ein dut gaizquia zure ailtcinean : izan citeu justificatua zure itcetan, eta garei zazun cirelcic juzgatua.

El Salmo quincuagésimo.

Salacenco de Jaurrieta.

BERROGUEITAMARGARREN SALMOA, DON PEDRO JOSE SAMPER EAURTACO APECHONAC AITA SCIOREN ERDERATIC EAURTACO USCARALA ITZULIA. Londresen. 1869.

L. SALMOA.

FINARENDACO, Salmoa Davidi,

Ssin cenean Natan Profetara aren gana, sartu cenaz gueroz Betsaberen gana.

Izan zazu piedade nitaz, o Jangoicoa, segnn zure misericordia andia. Eta segun zure piedaden aniztarzuna, borra zazu ene gasstotarzuna.

Icuz nazazu gueago eta gucago ene gasstotarzunetic: eta garbi nazazu nore becatutic.

Cerengatic nic izauten zut nore gasstotarzuna: eta ene becatua diozu beti enc altcinean.

Zure contra solo eguin zut becatu, eta eguin zut gaizquia zure altcinean: izan zten justificatric zure itcetan, eta garai zazun zrenean juzgatric.

Roncalés de Vidángoz.

BERROGUEITAMARGARNEN SALMUA, DON MARIANO MENDIGACHAC AITA SCIOREN ERDARATIC VIDANGOCECO USCARARA ITZULIA. Londresen. 1869.

L. SALMUA.

ACABANCHARENTACO, Salmua Davidi,

Ssin cenian Natan Profeta aren gana, sartu cenaz guero Betsaberen gana.

Ecun zazu piedade nitaz, o Jangueicua, segun zure misericordia andia. Eta segun zure piedaden anisstarzuna, broga zazu eue gasstotarzuna.

Ecuz naztazu obro eta obro ene gasstotarzunetic: eta ssaī naztazu ñore becatutic.

Ceren nic izaguntan diez ñore gasstotarzuna: eta ene becatiua diozu betic ene antcinian.

Zure contra solo eguin diez becatu, eta eguin diez gassquia zure antcinian: izan ztian justificatruc zure eletan, eta irabaz tzazun zrenian juzgatruc.

El Salmo quincuagésimo.

Castellano.

7. Pues mira que yo he sido concebido en iniquidades: y en pecados me concibió mi madre.

8. He aquí que tú has amado la verdad: me has manifestado lo arcano y lo oculto de tu saber.

9. Me rociarás con hisopo, y seré limpiado: me lavarás, y más que la nieve seré emblanquecido.

10. A mi oido darás gozo y alegría: y se regocijarán mis huesos abatidos.

11. Aparta tu rostro de mis pecados: y borra todas mis iniquidades.

12. Cria eo mí, o Dios, un corazon puro: y renueva en mis entrañas un espíritu recto.

13. No me deseches de tu rostro: y no quites de mí tu Espíritu santo.

14. Vuélvame la alegría de tu salud: y confórtame con un espíritu principal.

Aezcoano de Aribe.

Bada beira zazu izanizala concebitua gaisstaquerietan: eta becatuetan concebitu ninduela ene amac.

Ona guen zuc onetsiuzula eguia: manifestatu dazquidazu zure ssaquinduriein secretu eta estalitasuna.

Bustico nuzu isipus, eta iceiniz garbituic: icucico nuzu, eta elurra beino gueyo iceiniz ssurituic.

Ene aitceari emein dacozu gozo eta alegria: eta regocijatuco dira ene ezur abatituac.

Aparta zazu zure aurpeguia ene becatuetcic: eta borra zquizu ene gaisstaqueria guciac.

Cria zazu ene beitan, o Jaogoicoa, biotz garbi bat: eta herri zazu ene entrañetan izpiritu ssussen bat.

Enaztazu desecha zure aurpeguitic: eta etzazu equen ene ganic zure Espiritu sandua.

Itzul daztazu zure osasunein alegria: eta fortaleci naztazu izpiritu principal bates.

El Salmo quincuagésimo.

Salazenco de Jaurrieta.

Bada beira zazu izanizala concebitric gasstaquerietan: eta becatuetan concebitu nintzala nore amac.

Una quemen zuc maitatu zula eguiara: manifestatu daztazu zure ssaquitearen secreto eta alchatutarznna.

Bustienizu isopoz, eta izanenizu garbitric: icucienizu, eta elurra beño gueago izanenizu ssuritric.

Ene aitceari emanen dacozu gozo eta alegria: eta regocijatren tzu nore ezur abatituac.

Aparta zazu zure beitartea ene becatuetaric: eta borra zquizu nore gasstaqueria guciac.

Cria zazu ene baitan, o Jangoicoa, biotz ssau bat: eta berra zazu nore entrañetan izpiritu ssussen bat.

Ez nazazu desecha zure beitartetic: eta etzazu gueu ene ganic zure Espiritu sandua.

Itzul daztazu zure osasunaren alegriara: eta fortaleci nazazu izpiritu principal batez.

Roncalés de Vidángoz.

Bada beira zazu izanazala concebitruc gasstaquerietan: eta becatiuetan concebitu nindiola ñore amac.

Ona queben zuc maitatu tzula eguia: manifestatu daiztazud zure ssaquintarzunaren secreto eta alchatarzuna.

Bustirenuzu isopoz, eta izanenuzu ssaintruc: ecucenuzu, eta elurra beino obro izanenuzu ssuritruc.

Ene entzutiari emonen dauzu gozo eta alegria: eta regocijatren dutzu ñore enzur abatitiuac.

Aparta zazu zure beitartia ene becatiuetaric: eta broga tzazu ñore gasstaqueria guciuac.

Cria zazu nitan, o Jangueicua, biotz ssaī bat: eta berri zazu ñore entrañetan izpiritu ssussen bat.

Ez nazazu desecha zure beitartetic: eta ez zazu guen ene ganic zure Espiritu saintiua.

Utzul daztazud zure osagarriaren alegria: eta fortaleci nazazu izpiritu principal batez.

El Salmo quincuagésimo.

Castellano.

15. Enseñaré á los inícuos tus caminos: y los impíos se convertirán á tí.

16. Líbrame de las sangres, Dios, Dios de mi salud: y ensalzará mi lengua tu justicia.

17. Señor, abrirás mis labios: y mi boca anunciará tu alabanza.

18. Porque si hubieras querido sacrificio, lo hubiera sin duda ofrecido: tú no te deleitarás con holocaustos.

19. Sacrificio para Dios es el espíritu atribulado: el corazon contrito y humillado no lo despreciarás, o Dios.

20. Haz bien, Señor, á Sion con tu buena voluntad: para que se edifiquen los muros de Jerusalen.

21. Entonces aceptarás sacrificio de justicia, ofrendas y olocaustos: entonces pondrán sobre tu altar becerros.

Aezcoano de Arbe.

Eracutsico daiztet gaisstoei zure videac: eta impioac convertituco dira zure gana.

Libra naztazu odoleteic, Jangoico, Jangoico ene osasuneina: eta ene miac goratuco du zure justicia.

Jauna, idequico ituzu ene ezpeinac: eta ene agoac anunciatuco du zure alabanza.

Ceren naizan bacindu sacrificio, dudeic gabe esquinduco nindue: zu etcira deleitatuco olocaustoequi.

Jangoicoeiudaco da sacrificio izpiritu atribulatua: o Jangoicoa, eztuzu menospreciatuco biotz arrepentitu eta umillatua.

Ein zazu ongui, Jauua, Sioui zure vorondate onas: edifica diten Jerusalengo murallac.

Orduan ametituco ituzu sacrificio justiciascoa, ofrendac eta olocaustoac: orduan ezarco ituzte zure aldare gaincan bilorcheac.

El Salmo quincuagésimo.

Salacenco de Jaurrieta.

Eracutsien diauztezut gasstoer zure vidcac: eta impioac convertitren tzu zure gana.

Libra uazazu odoletaric, Jangoico, Jangoico ene osasunarna: eta ene miac goratreu zu zure justiciara.

Jauna, edequien tzu ene ezpañac: eta ene agoac anunciatren zu zure alabanzara.

Cerengatic naizan bacinu sacrificio, dudaric bague ofrecitren nizun: zu etzra deleitatren olocaustoequin.

Jangoicoarendaco zu sacrificio izpiritu atribulatua: o Jangoicoa, etzu menospreciatren biotz arrepentitu eta umillatua.

Eguin zazu ongni, Jauna, Sioni zure vorondate onaz: edifica teu Jerusaleucco murallac.

Orduau amititren tzu sacrificio justiciazcoa, ofrendac eta olocaustoac: orduan eserien tcie zure aldare gañan arecheac.

Roncalés de Vidángoz.

Eratsuquen dazcabeizud gasstuer zure vidiac: eta impiuac convertiten dutzu zure gana.

Libra naztazu odoletaric, Jangueico, Jangueico ene osagarriarna: eta ene mïac azcateu dizu zure justicia.

Geina, iriquen dutzu ene ezpainac: eta ene abac anunciaten dizu zure alabanza.

Ceren nai ecun bazunu sacrificio, dudaric bague ofreciten nizun: zu ezra deleitaten olocaustoequi.

Jangueicuarentaco tzu sacrificio izpiritu atribulatiua: o Jangueicua, etzu menospreciaten biotz arrepentitu eta umillatiua.

Eguin zazu onqui, Geina, Sioni zure vorontate onaz: edifica tian Jerusaleneco murallac.

Gunian amititen dutzu sacrificio justiciazcua ofrendac eta olocaustuac: gunian izaren ticei zure altare gainiau sserreruac.

Ouvrages servant à l'étude des dialectes basques d'Aezcoa, de Salazar et de Roncal :

1. Etudes sur les trois dialectes basques des vallées d'Aezcoa, de Salazar et de Roncal. Par le prince Louis-Lucien Bonaparte.

2. Le Cantique des Trois Enfants dans la fournaise, dans les dialectes basques d'Aezcoa, de Salazar et de Roncal, tel qu'il a été recueilli sur les lieux mêmes à Aribe, à Jaurrieta et à Vidangoz de la bouche des gens de la campagne ; avec l'indication des variantes les plus importantes particulières aux autres localités de ces trois vallées. Par le prince Louis-Lucien Bonaparte.

3. Id., première édition.

4. El Salmo quincuagésimo traducido al vascuence del valle de Salazar. Por Don Pedro José Samper, abad de Jaurrieta.

5. El Salmo quincuagésimo traducido al vascuence aezcoano, salacenco y roncalés.

6. Le petit Catéchisme espagnol du P. Astete, traduit en trois dialectes basques : aezcoan, salazarais et roncalais.

We certify that only 250 *copies of this Psalm have been printed, of which one is on vellum.*

STRANGEWAYS & WALDEN,
28 Castle Street, Leicester Square.

L.L. Bonaparte
printzearen omenez
OPERA OMNIA VASCONICE
lau liburutan
argitaratu ditu
1991.eko urriaren 15ean
EUSKALTZAINDIAK



LOUIS LUCIEN BONAPARTE

OPERA OMNIA VACCONIUS

LOUIS LUCIEN BONAPARTE

OPERA OMNIA VASCONICE

IV

LOUIS LUCIEN BONAPARTE
(1813-1891)

LOUIS LUCIEN BONAPARTE

OPERA OMNIA VASCONICE

IV

EUSKALTZAINDIA
1991

Liburu hau IBERDROLAren babesaz argitaratua izan da.
Esta obra ha sido publicada con el patrocinio de IBERDROLA.

© Euskaltzaindia. Bilbao
ISBN: Lan osoa 84-85479-65-3
Lege Gordailua: BI-1642-91
Prestakuntza eta maketa: Jose Antonio Arana Martija
Fotokonposaketa: Didot, S.A. Bilbao
Fotolitoak: Kamara, Bilbao; Fonasa, Iruñea; Itxaropena, Zarautz
Inprimaketa, koadernaketa: GRAFO, S.A. - Bilbao

INDEX

IV. TOMOA

Udabe, J.E., *El Evangelio según San Mateo*, guipuzcoano 9
Uriarte, J.A., *El Evangelio según San Mateo*, vizcaíno 31
Uriarte, J.A., *El Apocalipsis del Apóstol S. Juan*, vizcaíno 113
Uriarte, J.A., *El Apocalipsis del Apóstol S. Juan*, guipuzcoano 153
Uriarte, J.A., *Canticum canticorum Salomonis* 191
Uriarte, J.A., *El Evangelio según San Mateo*, guipuzcoano 227
Uriarte, J.A., *Biblia edo Testamentu Zar eta Berria*, gipuzkeraz 307
Uriarte, J.A., *Le Cantique des Cantiques de Salomon*, biscayen 439
INDEX AUCTORUM 453

EL EVANGELIO SEGÚN SAN MATEO

Juan Eloy Udabe
Gipuzkeraz
Londres
1857

Originala: Baionako Udal Biblioteka

EL EVANGELIO

SEGUN

SAN MATEO,

TRADUCIDO AL VASCUENCE.

DIALECTO GUIPUZCOANO.

LÓNDRES.

1857.

6. ARCHIVOS DE BAYONA.

I.

JESUCRISTOREN Daviden semearen Abrahamen semearen jatorriaren liburua.

2. Abrahamec emartu zuen Isaac. Eta Isaaquec emartu zuen Jacob. Eta Jacobec emartu cituen Judas, eta bere anayac.

3. Eta Judasec emartu cituen Thamar gandic Phares, eta Zara. Eta Pharesec emartu zuen Esron. Eta Esronec emartu zuen Aram.

4. Eta Aramec emartu zuen Aminadab. Eta Amiuadabec emartu zuen Naasson. Eta Naassonec emartu zuen Salmon.

5. Eta Salmonec emartu zuen Rahab gandic Booz. Eta Boozec emartu zuen Ruth gandic Obed. Eta Obedec emartu zuen Jesse. Eta Jessec emartu zuen David erreguea.

6. Eta David erregueac emartu zuen Salomon Uriasen andre zaua gandic.

7. Eta Salomonec emartu zuen Roboam.

4

Eta Roboamec emartn zuen Abias. Eta Abiasec emartu zuen Asa.

8. Eta Asac emartu zuen Josaphat. Eta Josaphatec emartu zuen Joram. Eta Joramec emartu zuen Ozias.

9. Eta Oziasec emartu zuen Joatam. Eta Joatamec emartu zuen Achaz. Eta Achazec emartu zuen Ezechias.

10. Eta Ezechiasec emartu zuen Manasses. Eta Manassesec emartu zuen Amon. Eta Amonec emartu zuen Josias.

11. Eta Josiasec emartu zuen Jechonias, eta bere anayac Babiloniaco erraldairan.

12. Eta Babiloniaco erraldairaren ondoren, Jechoniasec emartu zuen Salathiel. Eta Salathielec emartu zuen Zorobabel.

13. Eta Zorobabelec emartn znen Abiud. Eta Abiudec emartu zuen Eliacim. Eta Eliacimec emartu zuen Azor.

14. Eta Azorec emartu zuen Sadoc. Eta Sadoquec emartn zuen Achim. Eta Achimec emartu zuen Eliud.

15. Eta Eliudec emartu zuen Eleazar. Eta Eleazarec emartu zuen Mathan. Eta Mathanec emartu zuen Jacob.

5

16. Eta Jacobec emartu zuen Jose, senar Mariarena, ceña gandic jayo zan Jesus, ceñ deitzen dan Cristo.

17. Modu onetan guizaldi guztiac Abraham gandic David bitartean dira amalau guizaldi : eta David gandic Babiloniaco erraldairaraño amalau guizaldi : eta Babiloniaco erraldairatic Cristoraño amalau guizaldi.

18. Eta Jesucristoren jayotza zan onela: Egonic Maria bere ama ezcondua Joserequin, elcarganatn baño len, arquitu zan sortu zuela sabelean Espiritu Santua gandic.

19. Eta Jose bere senarra, nola zan justua, eta etzuen nai galostu, nai izan zuen utzi isilca.

20. Eta onetan pensatzen cegoela, ona non aingueru Jaunarena aguertzen zayon ametsetan, esanaz : Jose Daviden semea, ez beldurtu artzea Maria zure andrea ; bere sabelean dagoena Espiritu Santuarena da.

21. Eta jayoco da semea, eta deituco dezu bere icena Jesus : ceren berac salbatuco duen bere erria pecatutic.

22. Au guztia eguin zan, cumpli cedin esan zuena Jaunac profetaren aotic, diona :

6

23. Ona non Virgiña batec sortuco du eta jayoco da semea, eta icendatuco dute Emmanuel, esan nai duena, Gurequin Jaungoicoa.

24. Eta esnaturic Jose ametsetic, eguin zuen Jaungoicoaren aingueruac aguindua, eta artu zuen bere andrea.

25. Eta etzuen ezagutn alic eta jayo zan arte bere seme lenijayoa, eta deitu zuen bere icena Jesus.

II.

ETA nola jayo zan Jesus Bethlehem Judeacoan Herodes erreguearen egunetan, ona non mago batzuec etorri ciran sortaldetic Jerusalemera,

2. Esanaz : ¿ non dago Erregue Juduen jayo dana ? cergatic bere izarra icusi degu sortaldean, eta gatoz adoratzera.

3. Eta au adituric erregue Herodesec, guenastn zan, eta Jerusalem guztia berarequin.

4. Eta biribillaturic sacerdoteen principe

7

guztiac, eta escriba erricoac, galdetu cioten non jayo bear zan Cristoc.

5. Eta berac esan cioten: Bethlehem Judeacoan: cergatic ala dago escribitua profeta gandic:

6. Eta zu, Bethlehem Juda lurrecoa, etcera chit chiquia Judeaco principeen artean; cergatic zure gandic irtengo da gudalari bat gobernatu bear duena nere erri Israelcoa.

7. Orduan Herodesec deituric ezcutuan magoai, aditu zuen beretatic contuz cer demboretan aguertu zan izarra:

8. Eta bialtzen cituela Bethlehemera, esan zuen: Ibilli an, eta galdetu contuz aurra gatic; eta guero arquitzen dezutenean, jaquiñerazo nazazute, etorri nadin adoratzera.

9. Eta berac adituric erreguea, joan ciran: eta ona non izarra icusi zutena sortaldean, cijoan beren aurretic, alic eta allegatzean, ipiñi zan aurra cegoen gañeau.

10. Eta icusiric izarra, poztu ciran beingoan.

11. Eta sarturic echean, arquitu zuten aurra bere ama Mariarequin, eta belaunico adoratu zuten, eta iriquiric beren tesoroac, esqueñi ciozcaten doañac, urrea, eta incensua, eta mirra.

8

12. Eta izanic abisatuac ametsetan etcitecela biurtu Herodesen gana, biurtu ciran beren errira beste bidetic.

13. Eta joanic berac, ona non aguertu zau Jaunaren ainguerua ametsetan Jose gana, esanaz: Jaiqui zaite, eta artu ezazu aurra, eta bere ama, eta igues Egiptora, eta zaude an alic eta nic esan artean; cergatic guertatu bear duen, Herodesec arquitu nai izango duela aurra illarazteco.

14. Eta bera esnaturic, artu zuen aurra eta bere ama gauaz, eta joan zan Egiptora;

15. Eta an egon zan alic eta Herodes ill zan artean, cumpli cedin Ien danaz Jaunac profeta gandic esana: Egiptotic deitu nion nere semeari.

16. Herodes orduan, icusiric magoac burlatua izan zala, aserratu zan asco, eta bialdu eta, ill cituen aur guztiac Bethlehemen eta bere inguru guztietan ciran, bi urtetic beracoac, magoai aditu cioten demboracoac.

17. Orduan cumplitu zan Jaunac esana profeta Jeremias gandic, dionac:

9

18. Boza aditua izan zan Raman, negarra, eta oju aundiac: Raquelen negarra bere semeenzaz; eta etzuen nai consueloric, cergatic ill ciran.

19. Baña illican Herodes, ona non aingueru Jaunarena aguertzen zayon ametsetan Joseri Egipton,

20. Esanaz: Alcha zaite, eta artu aurra, eta bere ama, eta zoaz Israelgo lurrera; ceren illac dira aurrareu eriotza nai zutenac.

21. Orduan alcha zan bera, eta artu zuen aurra, eta bere ama, eta etorri zan Israelgo lurrera.

22. Eta adituric Archelao zala erregue Judeacoa Herodes bere aitaren lecuan, bildurtu zan aronz joatea; baña izanic abisatua ametsetan, joan zan Galileaco lurrera.

23. Eta etorri zan bicitzera erri Nazareth izena duenera; cumpli cedin esana profetac: Izan bear zuela Nazarenoa.

10

III.

ETA egun ayetan etorri zan Jnan Bautista predicatzen Judeaco eremnan,

2. Eta esanaz: Eguin zazute penitencia· bada ceruetaco erreinua alderatu da.

3. Cergatic au da ceñen gatic esan zuen Isaias profetac: Boza eremuan oju eguiten duenarena: Prestatu Jaunaren bidea: zucendu bere bide chigorrac.

4. Eta Juanec ceucan bere jantzia gamelu illezcoa, eta cinta bat larruzcoa bere bizcarraren inguruan; eta zan bere jana langosta eta basoco eztia.

5. Orduan irten zan beraren gana Jerusalem, eta Judea guztia, eta provincia Jordango guztia;

6. Eta ciran batayatuac Jordauen, aitortzen beren pecatuac.

7. Eta icusiric berac fariseotaco asco eta saduceoetacoac cetoztela bere bateora, esan cioten: ¡Ciraun arrazac! ¿ceñec eracusi dizute igues eguiten ira etorquizuna gandic?

11

8. Eguin bada frutu eguiazco penitenciacoac.

9. Eta ez dezazutela pensatu esatea: Abraham daucagu aitatzat; cergatic nic esaten dizutet esna ditzaqueala Jaungoicoac Abrahamen semeac naizdala arri ayetatic.

10. Orain baita ere aizcora ipiñia dago arbolaren sustrayean. Eta frutu ona ematen ez duen arbola guztia, izango da ebaquia, eta botatua surtara.

11. Nic eguiazqui batayatzen zaituztet penitenciaco urean; baña nere ondoren datorrena, jaquintsuago da ni baño, eta ez det mereci beraren zapatac eramatea: berac batayatuco zaituzte Espiritu Santuau, eta suan.

12. Beraren sardechea bere escuan dago, eta aicetuco du bere larrafia, eta bilduco du garia aleteguian, eta erreco du lastoa suan beñere itzalduco ez danean.

13. Orduan Jesus etorri zan Galileatic Juanen gana, onec Jordauen batayatu cezan.

14. Baña Juan escusatzen zan asco, esanaz: ¿Nic izan bear det zure gandic batayatua, eta zu zatoz nere gana?

12

15. Baña erantzuten Jesusec, esan cion: Utzi ezazu orain; cergatic ala combeni zaigu cumplitzeco justicia guztia. Orduan utzi cion.

16. Eta Jesus batayatu eta guero, igo zan bereala uretic, eta ona non ceruac iriqui citzayozcan, eta icusi zuen Jaungoicoaren Espiritua jaisten zala usoa becela, eta cetorrela beraren gañera.

17. Eta ona non boza bat ceructacoa esaten zuena: Au da nere Seme amatua, ceñengan dedan poza.

IV.

ORDUAN Jesus izan zan eramana Espirituac eremura tenta cezan deabruac.

2. Eta eguiñic barau berroguei egunez eta berroguei gauez, guero izan zuen gosea.

3. Eta allegaturic beraren gana tentatzallea, esan cion: Baldin bacera Seme Jaungoicoarena, esazu arri oyec eguin ditecela ogui.

4. Baña berac erantzuten esau cion:

13

Escribatua dago: Ez da bicico guizona oguiarequin bacarric, baicic itz guci Jaungoicoaren aotic irtentzen diranetatic.

5. Orduan deabruac pasatu zuen erri santura, eta ipintzen du temploco alnenaren gañean,

6. Eta esaten dio: Baldin bacera Jaungoicoaren Semea, erori zaite emendic bera; ceren escribatua dago: Bere aingueruac aguinduco diotela zu gatic, eta alchatuco zaituztela escuetan, beñere estropozoric eguin ez dezan zure oñac arrian.

7. Jesusec esan cion: Berriz dago escribatna: Ez dezu tentatuco Jaun zure Jaunguicoa.

8. Berriro pasatu zuen deabruac mendi chit altu baten tontorrera: eta eracusi ciozcan erreinn mundu guzticoac eta bere gloria,

9. Eta esaten dio: Au guztia emango dizut, macurturic adoratzen banazu.

10. Orduan Jesusec esan cion: Zoaz, Satanas: escribatua dago: Jaun zure Jaungoicoa adoratuco dezu, eta bera bacarra serbi ezazu.

11. Orduan deabruac utzi zuen; eta ona non aigueruac etorri ciran, eta serbitzen zuten.

14

12. Baña adituric Jesusec Juan preso zala, biurtu zan Galileara:

13. Eta utziric Nazaret, etorri zan, eta bici zan Capharnaumgo erri ichastarrean, Zabulon eta Nephtalimgo mugan:

14. Cumpli cedin Isaias profetac esana:

15. Zabulongo erria eta Nephtalimgoa, ichasoco bidea, Jordango beste aldetic, Galilea Gentillena,

16. Erri illumpean jarriric cegoena, icusi zuen argui aundia; eta jarriric ceudenac itzal eriotzecoan, arguiac arguitn cituen.

17. Ordu ezquero abiatu zan Jesus predicatzen, eta esaten: Eguin zazute penitencia, ceren ceruetaco erreinua urbildu da.

18. Eta cijoala Jesus Galileaco ichas bazterretic, icusi cituen bi anai, Simon, deitzen dana Pedro, eta Andres bere anaya, botatzen zutela sarea ichasoan, cergatic ciran arrantzaleac,

19. Eta esaten diote: Etorri nere ondoren, eta eguingo zaituztet guizonaren arrantzalcac.

20. Berac orduan, utziric bereala sareac, jarraitu cioten.

21. Eta andic igarotzean, icusi cituen

15

beste bi anai, Santiago seme Zebedeocoa, eta Juan bere anaya, chanelan beren aita Zebedeorequin adobatzen beren sareac, eta deitu citnen.

22. Eta berac bereala, utziric chanela eta beren aita, jarraitu cioten.

23. Eta ingurutu zuen Jesusec Galilea guztia, sinagoga berenetan, eta predicatzen evangelio erreinucoa, eta sendatzen gaxotasnn guztiac, eta argaltasun guztiac errietan.

24. Eta zabaltzeo zan bere fama Siria guztitic, eta ecarri cinzcaten gaxo ceuden guztiac, gaitz eta tormentuz beteac, eta gaizquinduac, eta alditsuac, eta baldatuac; eta guztiac sendatu cituen.

25. Eta jarraitu cioten gende asco Galileatic, eta Decapolistic, eta Jerusalemdic, eta Judeatic, eta Jordango beste aldetic.

V.

ETA beguira ceudela gendeac, igo zan mendian, eta an eserirican, etorri ciran icasleac beraren gana;

16

2. Eta iriquiric bere aoa, eracusten cioten esanaz:

3. Doatsuac pobreac espirituan, cergatic berena dan ceruetaco erreinua.

4. Doatsuac mansoac, cergatic berac mempetuco duten lurra.

5. Doatsuac negar eguiten dutenac, cergatic berac poztuac izango dira.

6. Doatsuac dutenac gosea eta egarria justiciacoa, cergatic berac izango diran aseac.

7. Doatsuac misericordiotsuac, cergatic berac alcantzatuco duten misericordia.

8. Doatsuac biotz garbicoac, cergatic berac icusico duten Jaungoicoa.

9. Doatsuac paquetsuac, cergatic izango diran deituac Jaungoicoaren semeac.

10. Doatsuac padecitzen dutenac persecucioa justiciareu causaz, cergatic berena izango da ceruetaco erreinua.

11. Doatsuac cerate arrencuratzen eta perseguitzen zaituztenean, eta esaten dutenean gaizqui guztia zuen gatic nere causaz, guezurra esanaz.

12. Poztn zaitezte eta aleguera zaitezte, cergatic zuen saria dan aundia ceruetan:

17

ala perseguitu cituzten profeta zuec baño len izanac.

13. Zuec cerate gatz lurreeoa. Eta gatza urtutzen balitzaque, ¿ cerequin gatzituco da? ez du gueyago balio ecertaraco, cz bada campora botatzeco, eta guizonac oñ azpian artzeco.

14. Zuec cerate munduco arguia. Erri bat mendi baten tontorrean ipiñia ecin ezcuta liteque.

15. Ez da iracequitzen criselu bat, eta ipintzen lacari baten azpian, baicic candeleroan, eta argui eguiten diote cehean dauden guztiai.

16. Onela argui eguiten du zuen arguiac guizonaren aurrean, ditzaten icusi zuen obra onac, eta eman dezaten gloria zuen aita ceruetan dagoena.

17. Etzazutela pensatu etorri naicela ascatzera leguea, edo profetac: ez naiz etorri ascatzeco, baicic cumplitzeco.

18. Cergatic eguiaz esaten dizutet, alic eta acaba ditecen arte cerua eta lurra, ez jota bat, ez tilde bat leguearena acabatuco da, alic eta gauza guztiac eguiñ arte.

19. Modu onetan edocein ascatu nai

18

duenac mandamentu chit chiqui oyetatican bat, eta onela eracusico diotet guizonai, chit chiquia izango dala deitua ceruetaco erreinuan; baña edocein eguiten duena eta eracusten duena, au izango da deitua anndia ceruetaco erreinuan.

20. Cergatic esaten dizutet, ez bada zuen justicia aundiagoa escriba eta fariseoena baño, etzerate sartuco ceruetaco erreinuan.

21. Aditu zenduten esan citzayotela anciñacoai: Ez dezu illco, baicic edocein illtzalle izango da culpaduna juicioarena.

22. Baña nic esaten dizutet, ecic edocein aserratzen dana bere anayarequin, izangn dala culpaduna juicioarena: eta edocein esaten diona bere anayari raca, izango da culpaduna batzarrearena: eta edocein esaten duena eroa, izango da culpaduna infernuco suaz.

23. Onen gatic, ecartzen badezu ofrenda aldarera, eta an acordatzen bacera duela zure anayac cerbait gorroto zuretzat,

24. Utzi czazu an zure ofrenda aldarearen aurrean, eta zoaz; biurtu zaite lenengo adisquide zure anayarequin; eta orduan atoz, eta esqueñi zure ofrenda.

19

25. Izan zaite adisquide zure etsayaren laster, berarequin bidean zauden artean; cergatic ez dedilla guerta zure etsayac ipiñi zaitzan juezaren escuetan, eta onec ministroarenetan, eta eraman zaitzaten preso.

26. Eguiaz esaten dizut, ateraco ecerala andic, paga dezazun arte azqueneco ardita.

27. Aditu cenduten izan zala esana anciñacoai: Ez dezu adulteratuco.

28. Gueyago nic esaten dizutet: edocein beguiratzeu dionec andreari cuticiatzeco, adulteratu du bere biotzean.

29. Argatic, zure escuico beguiac gaiztoraco bidea ematen badizu, atera ezazu eta bota ezazu zuregandic; obeago dezu galdu dedin zure begui bat, ecen ez zure gorputz izan dedin botatua infernura.

30. Eta zure escuico escuac gaiztoraco bidea ematen badizu, ebaqui ezazu eta bota ezazu zure gandic; obeago dezu galdu dedin zure alderdi bat, eceu ez zure gorputz guztia izan dedin botatua infernura.

31. Baita ere izan zan esana: Edocein uzten duenac bere andrea, eman bizayo banacatutaco aguiria.

20

32. Gueyago nic esaten dizutet: ecen uzten duenac bere andrea, cansa araguizcotic campora, eguiten du andreac adultera dezan; eta escontzen danac utziarequin eguiten du adulterioa.

33. Berriz aditu cenduten esana izan zala anciñacoai: Ez dezu guezurrezco juramenturic eguingo; baicic pagatuco diozcazu Jaunari zure juramentuac.

34. Gueyago nic esaten dizutet, ez juramenturic eguin iñolaco moduz; ez cerua gatic ere, cergatic dan Jaungoicoaren jargoya;

35. Ez ere lurra gatic, cergatic dan bere oñen alquia; ez ere Jerusalem gatic, cergatic dan erri erregue aundiarena:

36. Ez ere zure burua gatic juramentu eguingo dezu, cergatic ecin eguin dezaquezu ille bat churia edo belcha.

37. Baicic izan dedilla zuen izquera, Bai, bai: Ez, ez: cergatic onezaz gañeracoa, gaiztotic dator.

38. Aditu cenduten esana izan zala anciñacoai: Beguia beguia gatic, eta ortza ortza gatic.

39. Gueyago nic esaten dizutet, ez erre-

21

sistitu gaitzari ; lenago edocein jotzen zaituenari escuicn matrallean, ipiñi zayozu bestea :

40. Eta ipiñi nai zaituenari aucitan, eta artu zure arropa, utzi zayozu capa ere.

41. Eta edocein cargatzen zaituenari ordu bateraco, zoaz berarequin bian.

42. Escatzen dizunari, eman zayozu ; eta artu nai duenari zu gandic prestatua, etzayozula ucatu.

43. Aditu cenduten esana izan zala : Amatuco dezu zure lagun urcoa, eta gorrotatuco zure etsaya.

44. Gueyago esaten dizutet uic : Amatu itzatzute zuen etsayac, eta bedeincatu maradicatzen zaituztenac ; on eguin zayezute gorroto dizutenai, eta erregutu ezazute guezurrarequin acnsatzen eta perseguitzen zaituztenac gatic,

45. Izan zaitezten semeac zuen aita ceruetan dagoenarenac, ceñac irten eguiten duen bere eguzquia gaizto eta onen gañera, eta eguiten duen euria justuentzat eta justua ez danentzat.

46. Cergatic amatzen badituzute amatzen

22

zaituztenac, ¿ cer sari izango dezute ? ¿ ez dute ere eguiten orobat publicanoac ?

47. Eta lastantzen badituzute zuen anayac bacarric, ¿ cer eguiten dezute gueyegui ? ¿ ez dute eguiten orobat gentillac ?

48. Izan zaitezte bada zuec obetanduac, zuen aita ceruetan dagnena obetandua dan becela.

VI.

BEGUIRATU ez dezazutela eguin zuen limosna guizonaren aurrean, berac icustea gatic : bestela ez deznte izango sariric zuen aita ceruetan dagoena gandic.

2. Bada limosna eguiten dezunean, ez dezazula joaraci trompeta zure aurrean, eguin oi duten becela hipocritac sinagoguetan, eta plazetan, estima ditzaten guizonac. Eguiaz esaten dizutet, badutela beren saria.

3. Baña zuc eguiten dezunean limosna, ez beza jaquin zure ezquerrac cer eguiten duen zure escuyac,

4. Izan dedin zure limosna ezcutuan, eta

23

zure aitac icusten duen ezcutuan, saria emango dizu.

5. Eta erregutzen dezunean, ez izan hipocritac becela; cergatic oyec amatzen dute erregutzea sinagoguetan eta cale cantoyetan chutican, icusiac izan diteceu guizonac. Eguiaz esaten dizutet, badutela bereu saria.

6. Baña zuc erregutzen dezunean, sar zaite zure guelau, eta ichita zure atea, erregutu zayozu zure aitari ezcutuan, eta zure aitac icusten duen ezcutuan, saria emango dizu.

7. Eta erregutzen, etzaiteztela izan luceguiac, gentillac becela, ceren pensatzen dute beren izcunacquin izango dirala adituac.

8. Etzaiteztela eguin bada ayeo antzecoac; cergatic badaqui zuen aitac cer gauza bear dituzuten, zuec galde eguin baño len.

9. Zuec bada erregutuco dezute onela: Aita gurea ceruetan zaudena: santifica bedi zure icena.

10. Betor zure erreinua gu gana. Eguin bedi zure borondatea, nola ceruan, ala lurrean.

11. Eman zaguzu gaur gure ogui egunerocoa.

24

12. Eta barca zazquiguzu gure zorrac, nola ere guc barcatzen diozcategun gure zordunai.

13. Eta ez gaitzazula sartu tentacioan: baicic libra gaitzazu gaitzetic. Amen.

14. Cergatic barcatzen badiozcatezute guizonai beren pecatuac, barcatuco dizquizute zuei ere zuen aita cerucoac.

15. Baña ez badiozcatezute barcatzeu guizonai beren pecatuac, ez ere zuen aitac barcatuco dizquizute zuen pecatuac.

16. Eta barautzeu dezuteuean, etzaiteztela izan hipocritac becela latzac, cergatic oyec iraultzeu dituzte beren arpeguiac, aguer eraguiteco guizonai barantzen dirala. Eguiaz esaten dizutet, badutela beren saria.

17. Baña zuc, barau eguitcan, gantzutu ezazu zure burua, eta garbi ezazu zure arpeguia,

18. Ez cracusteco guizonai barau cerala, baicic zure aita ezcutuan dagoenari; eta zure aita icusten duenac ezcutuan, saria emango dizu.

19. Etzazutela eguin tesororic lurrean, non sitsac, eta erdoyac galquidatzen duten;

25

eta non lapurrac minatzen, eta ebasten duten.

20. Baicic eguin itzatzute tesoroac ceruan, non ez sitsac, ez erdoyac galtzen ez duen; eta non lapurrac ez duten minatzen, ez duten ebasten.

21. Cergatic non dagoen zure tesoroa, an egongo da zure biotza.

22. Gorputzaren criselua da beguia. Ala zure beguia cintia bada, zure gorputz guztia izango da arguitsua.

23. Baña zure beguia charra bada, zure gorputz guztia izango da illuna. Argatic zurequin dagoen argoia baldin bada illuna, ¿ cembat izangn dira illuntasunac berac ?

24. Iñore ecin serbi ditzaque bi Jaun; cergatic gorrotatuco du bata, eta amatuco du bestea, edo etortzen bada baten gana, mezprezatuco du bestea. Ecin serbi ditzaquezute Jaungoicoa eta aberastasunac.

25. Argatic esaten dizutet: ez larritu zuen bicia gatic, jan bear dezutela, edo zuen gorputza janci bear dezutela. ¿ Bicia ez da janaria baño gueyago, eta gorputza jancia baño gueyago ?

26

26. Beguira egazti cerucoai, ez dutela ereintzen, itaitzen, eta biltzen alea, eta zuen aita cerucoac jaten ematen diote. ¿ Etzerate zuec asco obeac ayec baño ?

27. Baña ¿ cein zuetaco larrituarequin lucetuco da beso bat ?

28. Eta jancia gatic, ¿ cergatic larritzen cerate ? Icasi lirio campocoetatic nola aunditzen diran: ez lanic eguin, ez iruten duten.

29. Gueyago esaten dizutet, ez Salomon ere bere gloria guztiarequin izan zan jancia beretaco bat becela.

30. Eta baldin campoco belarra gaur dana, eta bigar da botatua surtara, Jaungoicoac ala jazten baditu: ¿ ez du eguiugo asco gueyago zuec gatic, guizon fede guchicoac ?

31. Etzaiteztela bada larritu esanaz: ¿ Cer jango degu, edo cer edango degu, edo cerequin estalico guera ?

32. Cergatic gentillac billatzen dituzte gauza oyec guztiac; eta zuen aita badaqui, gauza oyec guztiac bearrac dituzutela.

33. Baña, billatu itzatzute lenengo erreinu Jaungoicoarena eta bere justicia, eta gauza oyec guztiac emango zaizquizute.

27

34. Onela bada, etzaiteztela larritu bigarco eguna gatic; ceren bigarco egunac ecarrico du bere larria; asco da egunero bere larritasuna.

VII.

ETZAZUTELA juzgatu, juzgatuac izan etzaitezten;

2. Cergatic justicia juzgatzen dezutenarequin, izango cerate juzgatuac; eta neurri neurtzen dezutenarequin, izango cerate neurtuac.

3. Eta ¿ cergatic beguiratzen dezu zure anayaren beguian dagoen lastoa, eta ez dezu icusten zure beguian dagoen zura ?

4. Edo ¿ nola esango diozu zure anayari: Icbozu, botaco det zure beguian dagoen lastoa, eta ona non zura zure beguian ?

5. Hipocrita, bota ezazu leoic zura zure beguicoa, eta orduan icusico dezu botatzea anayaren beguico lastoa.

6. Ez diotezutela eman chacurrai santuzcoa, ez ere bota zuen perlac cherrien aurrean, ez ditzaten ciquindu beren oñacquin, eta biurturic puscatu etzaitzaten.

28

7. Esca ezazute, eta emango zaizute: billa ezazute, eta arquituco dezute: jo zazute, eta idiquico zaizute.

8. Cergatic edocein escatzen duenac, artzen du: eta billatzen duenac, arquitzen du: eta jotzen duenari, idiquituco zayo.

9. ¿ Cein guizon da zuetacoa, ceñec bere semeari, onec escatzen badio oguia, emango diona arri bat ?

10. ¿ Eta ezcalu bat escatzen badin, emango diona sugue bat ?

11. Bada zuec, gaiztoac izanic, badaquizute ematen emaitza onac zuen semeai, ¿ cembat gueyago zuen Aita ceruetan dagoenac, emango diozcate gauza onac, escatzen diozcatenai ?

12. Modu onetan guizonac zuei eguitea nai dezuten guztia zuec ere ayei eguiezute. Cergatic au da Leguea, eta Profetac.

13. Sartu zaitezte ate estutic, cergatic zabala da atea, eta zabala da bidea daramana galtzera, eta asco dira emendic sartzen diranac.

29

14. ¡O cein ate estua dan, eta bide mearra bicira daramana! ¡eta ceiu guchi diran arquitzeu dutenac!

15. Baita, gorde zaitezte profeta falsoetatic, zuen gana datocen janci arcumearenacquin; ceren barrendic diran otso ebatzalleac.

16. Beren frutuetatic ezagutuco dituzute. ¿Menturaz arantzac matsic ematen dute edo sasilarrac picoric?

17. Modu onetan arbola on guztiac darama frutu ona, baño arbola ustelac darama frutu charra.

18. Ecin dezaque arbola onac eraman frutu charric, ez ere arbola ustelac eraman frutu onic.

19. Frutn ona ez daraman arbola guztia, ebaqui eta bota bedi surtara.

20. Ala beren frutuetatic ezagutuco dituzute.

21. Ez da ¡Jauna, Jauna! esaten didau guztia sartuco ceruetaco erreinuau; baicic nere Aita ceruetan dagoenaren borondatea eguiten dneua.

22. Ascoc esango didate egun artan: ¡Jauna, Jauna! ¿ez guenduen profetizatu

30

zure icenean, eta zure icenean atera guiñituen demonioac, eta zure icenean eguin guiñituen asco milagro?

23. Eta orduan esango diotet: Beñere etzinduztedan ezagutu: aparta zaitezte ni gandic, gaiztoa eguiten dezutenoc.

24. Bada, edocein aditzen dituenac itz oyec, eta eguiten, berdinduco da guizon jaquintsu bati eguin duena bere echea arcaitzaren gañean.

25. Eta jachi zan euria, eta etorri ciran ibayac, eta ascatu ciran aiceac, bulcatu zuten echc ura, eta etzan erori, cergatic cegoen eguiña arcaitzaren gañean.

26. Eta edocein aditzen dizquidanac itz oyec, cta ez eguin, berdinduco da guizon ero bati eguin zuena bere echea ondarraren gañean.

27. Eta jachi zan euria, eta etorri ciran ibayac, eta ascatu ciran aiceac, bulcatu zuten echc ura, eta erori zan, eta izan zan galtzepena aundia.

28. Eta zan, nola Jesusec acabatu eituen itz oyec, gendeac arrituric ceuden eracasten ciozcaten gauzacquin.

31

29. Ceren eracasten cioten aguintea ceucanac becela, eta ez beren escriba eta fariseoac becela.

VIII.

ETA nola jachi zan menditic, jarraitu cioten gende ascoc.

2. Eta ona non sorayo bat etorri zan, eta adoratzen zuen, esanaz: Jauna, nai badezu garbitu nazaquezu.

3. Eta luceturic Jesusec bere escua, icutu zuen, esanaz: Nai det: garbitua izan zaite. Eta bereala bere sorayotasuna izan zan garbitua.

4. Orduan Jesusec esan cion: Beguira ez esan iñori; baña zoaz, aguer zatzaquio sacerdoteari, eta esqueñi ezazu ofrenda Moisesec aguindua, jaquin dezaten.

5. Eta sarturin Jesus Capbarnaumen, etorri zan bera gana centurion bat, erregutzen,

6. Eta esaten: Jauna, nere morroya dago

32

echean perlesiac artua, eta gaizquiro sufritzen du.

7. Eta Jesusec esan cion: Ni etorrico naiz, eta sendatuco det.

8. Eta erantzunic centurionac, esan cion: Jauna, ez naiz diña sartu zaitecen nere tellatupean; baña esau ezazu itzez bacarric, eta nere morroya sendatuco da.

9. Cergatic naiz ni, ere guizon besteren mendecoa, eta dauzcat nere mendean soldaduac, eta esaten diot nri: Zoaz, eta badijoa: eta besteari: Atoz, eta badator: eta nere serbitzariari: Eguizu au, eta eguiten du.

10. Eta adituric Jesus, arritu zan, eta esan cioten jarraitzen ciotenai: Eguiaz esaten dizutet Israelen ere ez det arquitu onembeste fede.

11. Gueyago esaten dizutet, etorrico dirala asco sortaldetic eta sartaldetic, eta eserico dirala Abraham, Isaac eta Jacobequin ceruetaco erreinuan:

12. Eta Erreinuco semeac izango dira botatuac illuntasun campocoetara: an izango da negarra, eta ortz carrascotsa.

13. Orduan Jesusec esan cion centurio-

33

nari : Zoaz, eta sinistu dezun becela eguin dedilla zurequin. Eta morroya izan zan sendatua ordu berean.

14. Eta etorri zan Jesus Pedroren echera, eta onen amaguiarraba icusi zuen, cezala oyean sucarrarequin :

15. Eta icutu cion bere escua, eta utzi zuen sucarrac : eta jaiqui zan, serbitu cituen.

16. Eta nola zan berandua, ecarri ciozcaten asco demonioac ceuzcatenac, eta botatzen cituen beretatic espirituac itzarequin, eta sendatu cituen eri guztiac :

17. Cumpli cedin esan zuena Isaias profetac, esan zuen : Berac artu cituen gure eritasunac, eta eraman gure miñac.

18. Eta icusiric Jesusec gende asco bere inguruan, aguindu zuen igarotzea uraz beste aldera ;

19. Eta etorriric escriba bat, esan cion : Maisua, jarraituco dizut edocein lecu zoacenera.

20. Eta Jesusec esan cion : Aceriac dituzte arzuloac, eta chori cerucoac cabiac ; baña Seme guizonarenac ez du non etzin bere burua.

34

21. Eta beste bere icasleetaco batec esan cion : Jauna, utzi nazazu noan lenago, eta obira dezadan nere aita.

22. Eta Jesusec esan cion : Jarrai nazazu, eta utzi zazu illac obira ditzaten beren illac.

23. Eta sarturic bera ontzian, bere icasleac jarraitu cioten :

24. Eta non eguiñ izan zan ichasoan ecaitz aundi bat, estaltzen zuena ontzia bagacquin ; eta bera cegoen lotan.

25. Eta alderaturic bere icasleac, esnatu zuten, esanaz : Jauna, salba gaitzazu, bada galtzen guera.

26. Eta berac esaten diote : ¿Cergatic bildurtzen cerate, guizon fede guchicoac ? Orduan esnaitu zan, arrencuratu cituen aiceac, eta ichasoan izan zan onanza aundia.

27. Eta guizonac arritu ciran, esanaz : ¿Cer guizon da an, aiceac eta ichasoac ere obeditzen diotena ?

28. Eta nola bera etorri zan uraz beste aldetic Gerasenoen errira, etorri citzayozcan bidera bi ceuzcatenac demonioac, irtentzen ciranac obietatic, supertuac modu aundian, iñor ecin bide artan igaro citequean moduan.

ERRATA.

Página.	Línea.	Dice.	Léase.
15	16	asco	ascoc

I CERTIFY that this work, interrupted at the 34th page, was printed by me in the house of His Highness the Prince Louis-Lucien Bonaparte, and that the number impressed amounted to nine copies only, which are numbered and bear the names of their respective owners on the first page, with the exception of two, one of which is printed on larger and stouter paper.

July, 1857. W. H. BILLING.

EL EVANGELIO SEGÚN SAN MATEO

Jose Antonio Uriarte
Bizkaieraz
Londres
1857

Originala: Zarauzko Frantziskotarren Liburutegia

EL EVANGELIO

SEGUN

SAN MATEO,

TRADUCIDO AL VASCUENCE, DIALECTO VIZCAÍNO.

POR

EL P. FR. JOSÉ ANTONIO DE URIARTE.

PARA EL

PRÍNCIPE LUIS-LUCIANO BONAPARTE.

LONDRES.

1857.

8.--PARA EL P. FR. J. A. DE URIARTE.

I.

JESU-CRISTOREN Daviden semiaren, Abrahamen semiaren jatorrijaren liburuba.

2. Abraham gandic izan zan sortuba Isaac. Eta Isaac gandic izan zan sortuba Jacob. Eta Jacob gandic izan ciran sortubac Judas ta bere anaijaac.

3. Eta Judas gandic izan ciran sortubac Fares eta Zara Tamargan. Eta Fares gandic izan zan sortuba Esron. Eta Esron gandic izan zan sortuba Aram.

4. Eta Aram gandic izan zan sortuba Aminadab. Eta Aminadab gandic izan zan sortuba Naasson. Eta Naasson gandic izan zan sortuba Salmon.

5. Eta Salmon gandic izan zan sortuba Booz Rahabgan. Eta Booz gandic izan zan sortuba Obed Ruthgan. Eta Obed gandic izan zan sortuba Jesse. Eta Jesse gandic izan zan sortuba David Erreguia.

4

6. Eta David Erreguia gandic izan zan sortuba Salomon aregan Uriasena izan zanagan.

7. Eta Salomon gandic izan zan sortuba Roboam. Eta Roboam gandic izan zan sortuba Abias. Eta Abias gandic izan zan sortuba Asa.

8. Eta Asa gandic izan zan sortuba Josafat. Eta Josafat gandic izan zan sortuba Joram. Eta Joram gandic izan zan sortuba Ozias.

9. Eta Ozias gandic izan zan sortuba Joatam. Eta Joatam gandic izan zan sortuba Acaz. Eta Acaz gandic izan zan sortuba Ezequias.

10. Eta Ezequias gandic izan zan sortuba Manasses. Eta Manasses gandic izan zan sortuba Amon. Eta Amon gandic izan zan sortuba Josias.

11. Eta Josias gandic izan ciran sortubac Jeconias ta bere anaijaac, Babilonijara Judatarrac eruanac izan ciran demporan.

12. Eta Babilonijara eruanac izan ciran

5

ezquero, Jeconias gandic izan zan sortuba Salatiel. Eta Salatiel gandic izan zan sortuba Zorobabel.

13. Eta Zorobabel gandic izan zan sortuba Abiud. Eta Abiud gandic izan zan sortuba Eliacim. Eta Eliacim gandic izan zan sortuba Azor.

14. Eta Azor gandic izan zan sortuba Sadoc. Eta Sadoc gandic izan zan sortuba Aquim. Eta Aquim gandic izan zan sortuba Eliud.

15. Eta Eliud gandic izan zan sortuba Eleazar. Eta Eleazar gandic izan zan sortuba Matan. Eta Matan gandic izan zan sortuba Jacob.

16. Eta Jacob gandic izan zan sortuba Jose Marijaren senarra, ceñegandic (Marija gandic) jaijo zan Jesus Cristo derichana.

17. Eta alan Abraham gandic David-rañoco guizaldi guztijac, amalau guizaldi: eta David gandic Judatarrac Babilonijara eruanac izan ciran demporaraño, amalau guizaldi: eta Babilonijara eruanac izan ciranetic Cristoraño, amalau guizaldi.

18. Eta Cristoren sorreria onelan izan

6

zan: Eguala ezcontzaco berbia emon—da bere ama Marija Josegaz, alcarganatu baño lenago, aurquitu zan sabelian ebala Espiritu Santubagandic.

19. Eta Jose bere senarrac, zan leguez justuba, ta ez eban leguez nai desondrau, gura izan eban issillic ichi.

20. Eta eguala bera gogoraciño oneetan, orra nun Jaunaren Aingueruba aguertu jacon berari amesetan, cirautzala: Jose Daviden semia, ez zaite bildur izan artuten Marija ceure emaztia: cerren beragan jaijo dana Espiritu Santubarena da.

21. Eta eguingo dau semia: eta deituco deutsazu bere icena Jesus: cerren berac salbauco dau bere errija euren pecatubetatic.

22. Eta au guztijau izan zan eguiña betia izan cedin Jaunac bere Igarliaz esan izan ebana, ciñuala:

23. Orra, Doncelliac sabelian euquico dau, eta eguingo dau semia: eta deituco deutse bere icena Emmanuel, ceñec esan gura daben, Gugaz Jaungoicua.

24. Eta jaguiric Jose lotatic, eguin eban aguindu eutsan leguez Jaunaren Aingueru-bac, eta artu eban bere emaztia.

7

25. Eta ez eban bera ezagututen* eguin eban artian bere seme lelensortuba: eta deitu eutsan bere icena Jesus.

II.

JAIJO zanian bada Jesus Belen Judacuan Herodes Erreguiaren egunetan, orra nun Maguac eguzquijaren urteeratic etorri ciran Jerusalema,

2. Ciñuela: ¿Nun da Judeguben Erreguc jaijo dana? cerren icusi dogu bere izarra eguzquijaren urteeran, eta gatoz bera adoretara.

3. Eta entzunic Herodes Erreguiac, icaratu zan, eta Jerusalem guztija beragaz.

4. Eta baturic Sacerdoteen Nagusi guztijac, eta errico Escribaac, itanduten eutsen, nuu jaijoco ete zan Cristo.

5. Eta eurac esan eutsen: Beleu Judacuan: cerren onelan dago escribiduric Igarliaren bitartez.

6. Eta zu, Belen, Judaco errija, ecelan bere ez zara chiquijena Judaco nagusijen artian: cerren zugandic urtengo dau, Israelgo neure errija zucenduco daben guijarijac.

8

7. Orduban Herodesec, issillic deituric Maguai, arduraz jaquin eban eurac gandic, ce demporatan aguertu jaquen izarra.

8. Eta bialduric eurac Belena, esan eutsen: Zuace, eta itandu eguizube arduraz seña gaitic: eta aurquitu daguizubenian, adierazo eguidazube, neuc bere etorri ta adorau daguidan.

9. Eurac, entzunic Erregueri, juan ciran. Eta orra nun eguzquijaren urteeran icusi eben izarra, joian euren aurretic, ariqueta elduric seña eguan lecubaren ganera, guelditu zan artian.

10. Eta icusi ebenian izarra, poztu ciran poz guztiz andi bategaz.

11. Eta sarturic ecbian, aurquitu eben seña bere ama Marijagaz, eta auzpazturic adorau eben: eta idiguiric euren uchaac, esquiñi eutsezan oparijac, urria, intzentzua, ta mirria.

12. Eta arturic erantzueria lotan, ez biurtuteco Herodes gana, beste bide batetic biurtu ciran euren errira.

13. Eurac juan ezquero, orra nun Jannaren Aingueruba aguertu jacon lotan Joseri, ta esan eutsau: Jagui zaite, eta artu

9

eguizu umia, eta bere ama, eta igues eguizu Egiptora, eta egon zaite an neuc esan daguizudan artian ; cerren jazoco da Herodesec billatutia umia bera galduteco.

14. Jaguiric bera artu eban umia, ta bere ama gabaz, eta aldendu zan Egiptora.

15. Eta an egon zan Herodes ill zan artian : bete cedin Jaunac esan ebana Igarliaren bitartez, ceñec diñuan : Egiptotic deitu neutsan neure semiari.

16. Orduban Herodesec, icusiric Maguac burlauba izan zala, artu eban aserre andi bat, eta bialduric ill eraguin cituzan, Belenen ta bere alberri guztijetan egozan ume guztijac urte bitic beeracuac, Maguac gandic jaquin eban demporiaren erara.

17. Orduban bete zan, esan zana Jeremias Igarliaren bitartez, ceñec diñuan :

18. Boza izan zan entzuna Raman, negarra, ta ulu andijac : Raquel negarrez bere semiac gaitic, eta ez eban izan nai gozatuba, cerren ez diran.

19. Eta ill ezquero Herodes, orra nun Jaunaren Aingueruba aguertu jacon lotan Joseri Egipton,

10

20. Ciautsala : Jagui zaite, eta artu eguizu umia ta bere ama, eta zuaz Israelgo errira, cerren illac dira billatuten ebenac umiaren arimia.

21. Bera jaguiric artu eban umia ta bere ama, eta etorri zan Israelgo errira.

22. Eta entzunic Arquelaoc aguintetan ebala Judean Herodes bere aitaren lecuban, bildur izan zan ara juaten : eta izanic adierazua lotan, aldendu zan Galileaco errijetara.

23. Eta etorriric bici izan zan Nazaret derichan uri baten : betia izan cedin Igarlen bitartez esana izan zana : Nazarena izango dala deituba.

III.

ETA egun areetan etorri zan Juan Bautistia prediquetan ebala Judeaco eremuban,

2. Eta ciñuala : Penitencija eguizube : cerren urreratu da cerubetaco erreinuba.

3. Bada au da izan zana esana Isaias Igarliaren bitartez esaten ebala : Eremuban diadar eguiten dabenaren boza : prestau

11

eguizube Jaunaren bidia : zucenac eguizubez bere bide ciorrac.

4. Eta Juanec berac eucan gambeluben ulezco soñecua, eta narruzco ugala bere guerrijan : eta bere janarija ciran langostaac, eta basacztija.

5. Orduban urteten eban beragana Jerusalemec, eta Judea guztijac, eta Jordan inguruco erri guztijac.

6. Eta batiatubac ciran aren escuz Jordanen confesauric euren pecatubac.

7. Eta icusiric Fariseo ta Sadduceo asco etozala bere Bautismura, esan eutsen : Ciraunen eastia, ¿noc eracutsi deutsube igues eguiten etorrico dan aserretic ?

8. Eguizube bada penitencijaren diñaco frutuba.

9. Eta ez eguizube nai esan ceuben barruban : Abraham aita daucagu. Cerren dirautsubet, altsuba dala Janngoicua arri oneetatic jasoteco semiac Abrahami.

10. Cerren onezquero imiñiric dago azcoria zugatzen sustraijan. Bada frutu ona eguiten ez daben zugatz guztija, izango da ebaguija ta sutara botia.

12

11. Nic eguijaz batiatuten zaitubedaz urian penitencijaraco : baña nire ondoric etorrico dana, ni baño senduagua da, ceñen oñetacuac eruateco diña ez naz ni : berac batiatuco zaitube Espiritu Santuban ta suban.

12. Escuban dauca bere sardia : eta garbituco dau undo bere larriñia : eta batuco dau bere garija gariteguijan, eta erreco ditu lastuac suban amatau ecingo danagan.

13. Orduban etorri zan Jesus Galileatic Jordana Juangana, onec batiatuba izateco.

14. Baña Juanec eragozten eutsan, esanaz : Nic izan biar dot zuc batiatuba, ¿eta zu zatoz nigana ?

15. Eta erantzunic Jesusec esan eutsan : Ichi eguizu orain, cerren onelan jaocu guri betetia zucentasun guztija. Orduban icbi entsan.

16. Eta batiatuba izanic Jesus, beriala igon eban uretic. Eta orra nun idigui jacozan cerubac, eta icusi eban Jaungoicuaren Espirituba jatziten zala usua leguez, eta etorrela bere ganera.

13

17. Eta orra emen boza cerubetatic ciñuana: Au da nire Seme maitia, ceñegan daucadan neure atseguin guztija.

IV.

ORDUBAN Jesus ernana izan zan espiritubac eremura, diabruac tentanba izan cedin.

2. Eta baru eguinic berroguei egunetan, eta berroguei gautan, guero gose izan zan.

3. Eta elduric beragana tentalarija esan eutsan: Baldin bazara Jaungoicuaren Semia, esan eguizu arri oneec ogui biurtu ditecela.

4. Berac erantzun ta esan eutsan: Escribiduric dago: Ez da bici guizona ogui bacarraz, ezpada Jaungoicuaren aotic urteten daben berba guztijaz.

5. Orduban artu ta eruan eban diabruac uri santura, eta iniñi eban elessaco galjurrian.

6. Eta esan eutsan: Baldin bazara Jaungoicuaren Semia, hota zaite beera, cerren escribiduric dago: Aguindu eutsela bere Ainguerubai zu gaitic, eta escubetan artuco

14

zaitube estropezu eguin ez daguizun arrijan ceure oñagaz.

7. Jesusec esan eutsan: Baitabere escribiduric dago: Ez dozu tentauco ceure Jaun Jaungoicua.

8. Barriro artu eban diabruac ta eruan eban mendi guztiz altu batera: eta eracutsi eutsazan munduco erreiñu guztijac, eta euren glorija,

9. Eta esan eutsan: Oneec guztijoc ceuri emongo deutsudaz, baldin auzpazturic adoretan banozu.

10. Orduban esan eutsan Jesusec: Juadi Satanas: cerren escribiduric jagoc: Ceure Jaun Jaungoicua adorauco dozu, eta bera bacarric serbiuco dozu.

11. Orduban ichi eutsan diabruac, eta orra nun Ainguerubac eldu ciran, ta servietan eben.

12. Eta entzunic Jesusec Juan egunla presondeguijan, aldendu zan Galileara.

13. Eta ichiric Nazaretco urija, etorri zan, ta bici izan zan Cafarnaum icbasbazterrecuan, Zabulon ta Neptaliren muguetan.

15

14. Betia izan cedin Isaias Igarliac esan ebana:

15. Zabulongo errija ta Neptalico errija, ichasoraco bidia Jordango beste aldian, Galilea Gentillena.

16. Illuntasunetan jarriric eguan errijac, icusi eban argui andi bat; eta jarriric egozanai erijotziaren querizaco lurrian, arguija jaijo jaqueu.

17. Ordutic asi zan Jesus prediquetan ta esaten: Penitencija egnizube, cerren urreratu da cerubetaco erreiñuba.

18. Eta ebillela Jesus Galileaco ichasuaren nrrian, icusi cituzan anaija bi, Simon, Pedro derichana, eta Andres bere anaijia, botaten saria ichasuan, (cerren ciran arraintzallaac.)

19. Eta esan entsen: Erdube neure ondoric, eta eguingo dot ceubec izau zaitecela guizonen arraintzallaac.

20. Eta eurac beriala ichiric sariac jarraitu eutsen.

21. Eta juanic aurrerago andic, icusi cituzan beste anaija bi, Santiago Zebedeorena, eta Juan bere anaijia, chalupan Zebedeo

16

euren aitagaz, ciardubela adabetan euren sariac; eta deitu eutsen.

22. Eta eurac bertatic ichiric sariac eta aita, jarraitu eutsen.

23. Eta inguratuten eban Jesusec Galilea guztija, eracusten ebala euren Sinagoguetan, eta prediquetan ebala erreiñuco Evangelijua, eta osatuten ebala gach guztija, ta gueisso guztija errijan.

24. Eta zabaldu zan bere entzutia Siria guztitic, eta ecarri eutsezan charto egozan guztijac, gach ta oñacen batzubecaz artubac, eta demonioac euquezanac, eta alditsubac, eta perlesijadunac; eta osatu cituzan.

25. Eta jarraitu eutsen gente aldra ascoc Galileatic, eta Decapolistic, eta Jerusalemdic, eta Judeatic, eta Jordanez beste aldetic.

V.

ETA icusiric Jesusec gente aldraac, igon eban mendira, eta jarri ezquero, urreratu ciran beragaua bere icaslaac.

2. Eta idiguiric bere aua, iracasten eutsen, ciñuala:

17

3. Zorijonecuac espirituz pobriac, cerren eurena da cerubetaco erreiñuba.

4. Zorijonecuac otsanac, cerren eurac mempetuco dabe lurra.

5. Zorijonecuac negar eguiten dabenac, cerren eurac izango dira poztubac.

6. Zorijonecuac zucentasunaren gosia ta egarrija dauquenac, cerren eurac izango dira asiac.

7. Zorijonecuac erruquiorrac, cerren eurac jarichico dabe erruquija.

8. Zorijonecuac bijotz garbicuac, cerren eurac icusico dabe Jaungoicua.

9. Zorijonecuac baquetsubac, cerren izango dira deitubac Jaungoicuaren semiac.

10. Zorijonecuac igaroten dabenac esetsija zucentasuna gaitic, cerren eurena da cernbetaco erreiñuba.

11. Zorijonecuac zare, madaricatuteu zaitubezanian, eta esetsiten deutsubenian, eta esaten dabenian char guztija zubec gaitic, guzurraz, ni gaitic.

12. Poztu eta gozatu zaitcce, cerren zuben sarija ugarija da cerubetan. Bada onelan esetsi eutsen Igarlai, zubec baño lenago izan ciranai.

18

13. Zubec zare lurreco gatza: eta baldin gatza guezatuten bada ¿ cegaz izango da gacituba? ez dau balijo ecetaraco gueijago, ezpada izateco botia campora, eta guizonac osticopetuteco.

14. Zubec zare munduco arguija. Ecin izan leiteque ezcutauba mendijaren ganian imiñiric daguan urija.

15. Ez dabe berc issiotuten arguija iminteco imillaunaren azpijan; ezpada candeleruaren ganian, argui eguin daguijuen echian dagozan guztijai.

16. Onelan argui eguin begui zuben arguijac guizonen aurrian, icusi daguijezan zuben eguite onac, eta alabau daguijen zuben Aita cerubetan daguana.

17. Ez eguizube uste izan etorri nazala indargatutera leguia edo Igarlaac: ez naz etorri iudargatutera, ezpada betetara.

18. Cerren eguijaz dirautsubet, igaro artian ceruba ta lurra, jota bat ez izpi bat ez dala igaroco leguetic, guztija eguin artian.

19. Orregaitic, ausiten dabena aguindu guztiz chiqui oneetatic bat, eta eracnsten

19

deutsena alan guizonai, guztiz chiquija izango da deituba cerubetaco erreiñuban*: baña eguiten dabena ta eracusten dabena, au andija izango da deituba cerubetaco erreiñuban.

20. Cerren dirautsubet, ez bada ugarijagua zuben zucentasuna Escribaena ta Faresijuena baño, ez zare sartuco cerubetaco erreiñuban.

21. Entzun cenduben esan jaquela anchiñacuai: Ez dozu ilgo, eta ilten dabena izango da auciepalliaren erabaguijaren errudun.

22. Baña nic dirautsubet, bere anaijiagaz aserratuten dan guztija, izango da auciepalliaren erabaguijaren errudun. Eta esaten deutsana bere anaijiari Raca, izango da batzarraren errudun: eta esaten deutsana, Erua, izango da suzco lecubaren errudun.

23. Baldin bada badiarduzu esquintzen ceure oparija altaran, eta an gomutauco balichatzu ceure anaijiac daucala cerbait ceure gachian,

24. Ichi eguizu an ceure oparija altariaren aurrian, eta zuaz lenago baquetutera

20

ceure anaijiagaz; eta orduban etorriric esquiñico dozu ceure oparija.

25. Obeu eguijozu ceure arerijuari, laster zagozanian bidian beragaz: iniñi ez zaguizan arerijuac auciepalliaren mendian, eta auciepalliac iniñi ez zaguizan borrerubaren mendian; eta izan zaitian presondeguijan sartuba.

26. Eguijaz dirautsut, ez dozula urtengo andic, biurtu daguizun artian azquenengo zurieua.

27. Entzun cenduben esan jaquela anchiñacuai: Ez dozu araguizco pecaturic eguingo besteren emaztiagaz.

28. Bada nic dirautsubet, beguiratuten deutsan guztijac emacumiari bere gurari charragaz, araguizco pecatuba eguin dau beragaz bere bijotzian.

29. Eta baldin ceure escumaco beguijac* pecatuban jausi eraguin nai badeutsu, atera eguizu, eta bota eguizu ceugandic; cerren oba dozu galdu dedilla ceure centzunetatic bat, ceure gorputz guztija botia izan baño infernura.

30. Eta baldin ceure escumaco escubac pecatuban jausi eraguin nai badeutsu, ebagui

21

eguizu, eta bota eguizu ceugandic; cerren oba dozu galdu dedilla ceure centzunetatic bat, ceure gorputz guztija juatia baño infernura.

31. Baitabere esan zan: Bere emaztia ichiten daben edoceñec, emon beguijo ichijaren aguirija.

32. Baña nic dirautsubet: Bere emaztia ichiten daben guztijac, ez izanic araguizco pecatuba gaitic, eraguiten deutsa araguizco pecatuba: eta artuten dabenac ichija, eguiten dau araguizco pecatuba.

33. Onezaz ganera entzun cenduben esan jaquela anchiñacuai: Ez dozu guzurragaz juramenturic eguingo, eta beteco deutsazuz Jaunari ceure juramentubac.

34. Baña nic dirautsubet, ecelan bere ez eguiteco juramenturic, ez ceruba gaitic, Jaungoicuaren jarlecuba dalaco: *

35. Ez lurra gaitic, dalaco bere oñen aulquija: ez Jerusalem gaitic, dalaco Erregue andijaren urija.

36. Ez eguizu bere juramenturic eguin ceure buruba gaitic, cerren ecin ciñaique eguin ule bat zurija edu baltza.

22

37. Izan bedi bada zuben berbetia, bai, bai; ez, ez: cerren oneec baño ugarijago dana, charretic datorrena da.

38. Entzun cenduben esan zala: Beguija beguija gaitic, ta aguiña aguiña gaitic.

39. Baña nic dirautsubet, ez jarquiteco charrari: ezpada baldin iñoc joten bazaitu ceure escumaco matrallan, emon eguijozu bestia bere.

40. Eta aucitan imiñi gura zaituzanari, eta ceure tuniquia artu, ichi eguijozu capia bere.

41. Eta iñoc bazaruaz eargauric milla pausutan, zuaz beragaz beste millatan.

42. Emon eguijozu escatuten deutsunari, eta gura deutsunari escatu epian, ez eguijozn atzia emon.

43. Entzun dozube esan zala. Maitetuco dozu ceure lagun urcua, eta gorroto euquico deutsazu ceure arerijuari.

44. Baña nic dirautsubet: Maitetu eguizubez ceuben arerijuac; eguijezube on gorroto deutsubenai: eta erregutu eguizube esesten deutsubenac gaitic; eta guzur andijac asmetan deutsubezanac gaitic:

23

45. Izan zaitecen ceuben Aita, cerubetan daguanaren semiac: ceñec bere eguzquijari jaijo eraguiten deutsan onen ta charreu ganera: eta eurija eguiten dau onen eta charren ganera.

46. Cerren baldin maitetuten badituzube maite zaitubenac, ¿ce sari euquico dozube? ¿Ez al dabe eguiten au Publicanuac bere?

47. Eta agur eguiten badeutsazube ceuben anaijai bacarric, ¿cer gueijago eguiten dozube? ¿Ez al dabe au eguiten Gentillac bere?

48. Izan zaitece bada ceubec guztiz onac, alan eclan ceuben Aita cerucua bere dan guztiz ona.

VI.

BEGUIRATU eguizube, ez daguizubela eguin ceuben zuceutasuna guizonen aurrian, eurac icusi zaguijezan: bestelan sariric ez dozube euquico ceuben Aita cerubetan daguanagan.

2. Eguiten dozunian bada limosnia, ez eguizu trompetia jo eraguin ceure aurrian,

24

hipocritaac eguiten daben leguez Sinagoguetan ta auzoteguijetan, guizonac ondrau daguijezan: Eguijaz dirautsubet, artu eben euren sarija.

3. Baña zuc eguiten dozunian limosnia, ez begui jaquin zure ezquerrac, cer eguiten daben zure escumiac:

4. Izan dedin zure limosnia ezcutuban, eta zure Aita dacusanac ezcutuban, biurtuco deutsu.

5. Eta erregu eguiten dozubenian, ez zare izango hipocritaac leguez, ceintzubec nai oi daben erregu eguitia zutunic Sinagoguetan, ta caleetaco cantoietan, guizonac icusi daguijezan: Eguijaz dirautsubet, artu eben euren sarija.

6. Baña zuc erregu eguiten dozunian, sartu zaite ceure guelaan, eta ichiric atia, erregutu eguijozu ceure Aitari ezcutuban: eta zure Aita dacusanac ezcutuban, biurtuco dentsu.

7. Eta erregubac eguiten diarduzubenian, ez eiquezube berba asco eguin, Gentillac leguez. Cerren uste dabe berba asco eguiñaz, entzunac izango dirala.

25

8. Ez zaitequece bada eurai iruditu, cerren badaqui zuben Aitac ceren premiñia daucazuben, escatu baño lenago berari.

9. Onelan bada zubec erregutuco dozube: Aita guria, cerubetan zagozana: sautificadu bedi zure icena.

10. Betor gu gana zure erreiñuba: eguin bedi zure borondatia, celan ceruban, alan lurrian.

11. Gueure ogui izatezganeticua emon eguiguzu gaur.

12. Eta parcatu eguiguzuz gueure zorrac, gueuc gueure zordunai parquetan deutseguzan leguez.

13. Eta ez eguiguzu ichi jausten tentaciñoian. Baña libradu gaguizuz gachetic. Alan izan dedilla.

14. Cerren parcatuten badeutsezubez guizonai eureu pecatubac, parcatuco deutsubez ceubei here ceuben Aita cerucuac ceuben pecatubac.

15. Baña baldin ez badeutsazubez parcatuten guizonai, ceubeu Aitac here ez deutsubez parcatuco ceuben pecatubac.

16. Eta baru eguiten dozubeniau, ez

26

zaitece egon triste hipocritaac leguez. Cerren ichusitnten ditube euren arpeguijac, icusi eraguiteco guizonai baru eguiten dabela. Eguijaz dirautsubet, artu ebela euren sarija.

17. Barriz zuc baru eguiten dozunian, untau eguizu ceure buruba, eta ceure arpeguija garbitu eguizu.

18. Ez aguertuteco guizonai baru eguiten dozula, ezpada ceure Aita daguanari ezcutuban: eta ceure Aita icusten dabenac ezcutuban, biurtuco deutsu.

19. Ez eguizubez batu ondasunac ceubentzat lurrian, nun ugarrac eta sitsac deseguiteo ditubezan; eta nun lapurrac ateraten ditubezan lurpetic, eta ostuten ditubezan.

20. Ezpada batu eguizubez ceubentzat ondasunac ceruban, nun ez ugarrac ez sitsac desceguiten ditubezan; eta nun lapurrac ez ditubezan ateraten lurpetic, ez ostuten.

21. Cerren nun daguan zure tesorua, an dago here zure bijotza.

22. Zure gorputzaren arguija da zure beguija. Zure beguija baldin balitz toles-

27

baguia : zure gorputz gustija izango da arguitsua.

23. Baña baldin zure beguija balitz donguia, zure gorputz guztija illuna izango da. Bada baldin zugan daguan arguija, illuntasunac badira, ¿illuntasunac eurac ceiu andijac izango dira ?

24. Iñoc ecin leiquez serviu Jaun bi, cerren edo batari gorroto izango deutsa, eta bestia maitetuco dau : edn bata sufriuco dan, ta bestia desprecijau. Ecin ciñaijez serviu Jaungoicua ta aberastasunac.

25. Orregaitic dirautsubet, ez zaitecela izan arazutsubac ceuben arimiarentzat, cer jango dozuben, ez ceuben gorputzarentzat, cer jantzico dozuben. ¿Ez al da arimia janarija baño gueijago : eta gorputza soñecua baño gueijago ?

26. Beguiratu eguijezube ceruco egaztijai, celan ez daben ereiten, ez ebaguiten, ez galteguijetan pillatuten ; eta zuben Aita cerucuac enuoten deutse janarija. ¿Ez al zare zubec areec baño ascozaz gueijago ?

27. ¿Zubetarico ceiiec asmaciñoiacaz iraatzi leiquijo bere lucetasuuari beso bat ?

28

28. ¿Eta jantzija gaitic cergaitic zagoce arazuz ? Gogaratu eguizubez campoco lirijuac celan aciten diran : ez dabe biarric eguiten, ez iruten.

29. Bada nic dirautsubet, ez da Salomon bere, bere glorija guztijan izan zala estalduba oneetarico bat leguez.

30. Bada baldin campoco bedarra, gaur dana, ta bijar dana labara botia, Jaungoicuac alan jantziten badau : ¿cembat gueijago zubeec, fede guichicuac ?

31. Ez zaitece bada estuturic egon, diñozubela : ¿Cer jango dogu, edo cer edango dogu, edo cegaz estalduco gara ?

32. Cerren oneec guztijoc Gentillac billatuten ditube : cerren badaqui zuben Aitac, oneen guztijoen premiñia daucazubela.

33. Billatu bada lelengo Jaungoicuaren erreiñuba, eta bere zucentasuna : eta oneeo guztijoc izango jatsubez iratzijac.

34. Ez zaitece bada egon bijarco quezcaz. Cerren bijarco egunac izango dau bere beretzat arduria. Asco da egunarentzat bere arazuba.

29

VII.

EZ eguiznbe iñor juzgau, izan ez zaitecen juzgaubac.

2. Bada ceubec juzguetan dozuben juzgubagaz izango zare juzgaubac: eta ceubec neurtuten dozuben neurrijagaz, izango zare ostera neurtubac.

3. ¿Ccrgaitic bada icusten dozu samarra ceure anaijiaren beguijan: eta abia ceure beguìjan ez dozu icusten?

4. ¿Edo celan esaten deutsazu ceure anaijiari: Ichi, ateraco dot samarra ceure beguitic: eta orra nun abe bat daguan ceure beguijan?

5. Hipocritia, bota eguizu lelengo abia ceure beguitic, eta orduban icusico dozu botateco samarra ceure anaijiaren beguitic.

6. Ez eguijozube emon santuba chacurrai, eta ez eguizubez bota ceuben perlaac charrijen aurrian: zapaldu ez daguijezan euren oñacaz, eta biurturic ceubec gana zatitu ez zaguijezan.

7. Escatu eguizube, ta emougo jatsube:

30

billatu eguizube, ta aurquituco dozube: jo eguizube, ta idiguico jatsube.

8. Cerren escatuten daben guztijac, artuten dau: eta billatuten dabenac, aurquituten dau: eta joten dabenari, idiguico jaco.

9. ¿Edo zubetatic cein da guizona, ceñi baldin escatuco baleutsa bere semiac oguija, emongo deutsana arrija?

10. ¿Edo baldin arraina escatuco baleutsa, emongo al deutsa sierpia?

11. Bada baldin zubec, izanic gaistuac, badaquizube emocai onac emoten ceuben semiai: ¿cembat gueijago zuben Aita cerubetan daguanac, emongo deutsez gauza onac escatuten deutsezanai?

12. Eta alan guizonac ceubei eguitia nai dozuben guztija, ceubec bere eguijezube eurai: cerren au da Leguia ta Igarlaac.

13. Sartu zaitece ate estutic: cerren zabala da atia, ta nasaija bidia, daruana galdumendira, eta asco dira sartuten diranac beratatic.

14. ¡Ce estuba da atia, eta ce bedarra bidia, daruana vicitzara! eta guichi dira aurquituten dabenac.

31

15. Gorde zaitece Igarla paltzuetatic, datozanetatic znbec gana ardijen jantzijacaz, eta barruban dira otso lapurretaguillaac.

16. Euren frutnbetatic ezagutuco dituznbe. ¿ Arantzetatic artuten al ditube maatsac, edo sasijetatic picuac ?

17. Alan arbola on guztijac eguiten ditu frutu onac : eta arbola charrac eguiten ditu frutu charrac.

18. Ecin leiquez arbola onac frutu charrac eguin : ez arbola charrac frutu onac eguin.

19. Frutu ona eguiten ez dahen arbola guztija, izango da ebaguija, eta sutara botia.

20. Alan bada, euren frutubetatic ezagutuco dituzube.

21. Ez da sartuco cerubetaco erreinuban, Jauna, Jauna, niri esaten deustan gnztija ; ezpada eguiten dabena nire Aita cerubetan daguanaren borondatia, ben sartuco da cerubetaco erreinuban.

22. Ascoc esango deuste egun atan : Jauna, Jauna, ¿ ez al guenduban znre icenian profetizau, eta znre icenian demonioac bota guendnzan, eta zure icenian mirari asco eguin guenduban ?

32

23. Eta orduban autortuco deutset : Ez cendubedazan iñoz ezagutu : alde eguizube ni gandic, gaistaquerija eguiten dozubenac.

24. Bada nire berba oneec entznten dituzan guztija,ta eguiten dituzana, izango da irudituba guizon jaquintsu bati, eguin ebanari bere echia acharen ganian.

25. Eta jatzi zan eurija, eta etorri ciran ibaijac, eta putz eguin eben assiac, eta esetsi eutsen sendo eche ari, eta ez zan jausi ; cerren eguan eguinic acharen ganian.

26. Eta nire berba oneec entzuten dituzan guztija, eta eguiten ez dituzana, izango da guizon ero baten irudicua, ceñec eguin eban bere echia ondarraren ganian.

27. Eta jatzi zan eurija, eta etorri ciran ibaijac, eta putz eguin eben assiac, eta esetsi eutsen sendo echc ari, eta jausi zan, eta izan zan bere ondamendija andija.

28. Eta jazo zan, amaitn ezquero Jesusec berba oneec, miraritu ciran gente aldrauc bere iracatsijaren ganian.

29. Cerren eracusten eutsen escnbidia eucanac leguez, eta ez euren Escriba ta Faresijuac leguez.

33

VIII.

ETA jatzi ezquero menditic, jarraitu entsen gente aldra ascoc.

2. Eta orra nun leguendnn bat etorriric, adoretan eban ciñuala: Jauna, baldin gura badozn, garbitu naiquezu.

3. Eta luzaturic Jesusec escuba, ucutu eutsan, esanaz: Gura dot. Garbiturie guelditu zaite. Eta beriala izan zan garbituba bere leguena.

4. Eta esan eutsan Jesusec: Beguira, ez daguijozula esan iñori: ezpada zuaz, eracutsi zaquijoz Sacerdotiari, eta esquiñi eguizu, Moysesec aguindu eban oparija, ezagungarritzat eurai.

5. Eta sarturic Cafarnaumen, eldu zan beragana Centurion bat, erregututen eutsala,

6. Eta cirautsala: Jauna, nire otsein bat datza echian perlesijagaz, eta cbarto penauric.

7. Eta esan eutsan Jesusec: Neu ctorrico naz, ta osatuco dot.

8. Eta erantzunaz Centurionac, esan eu-

34

tsan: Jauna, ez naz ni diña sartu zaitian nire tellatuaren azpijan; baña esan eguizu bacarric berba bat, eta izango da osatuba nire otseiña.

9. Bada neu bere naz guizon bat besteren mendian naguana, daucadazana neure aguindura soldaubac, eta dirautsat oni: Zuaz, eta badua; eta bestiari: Erdu, eta badator; eta neure otseiñari: Eguizu au, eta eguiten dau.

10. Entzunic au Jesusec miraritu zan, eta jarraituten eutsenai esan eutsen: Eguijaz dirautsubet, ez dot aurquitu fede ain andiric Israelen.

11. Eta dirautsubet, etorrico dirala asco eguzquijaren urteeratic eta sarreratic, eta jarrico dira Abrahamgaz, eta Isaacgaz, eta Jacobgaz cerubetaco erreinuban:

12. Eta erreinuco semiac izango dira jaurtiguijac campoco illuntasunetara: an izango da negarra ta aguin carrascotsa.

13. Eta esan eutsan Jesusec Centurioni: Zuaz, eta sinistu dozun leguez, jazo daquizula. Eta osatu zan otseiña ordu atan.

14. Eta elduric Jesus Pedroren echera,

35

icusi eban bere amaguiñarreba etzunic eguala, eta calenturiagaz.

15. Eta ucutu eutsan bere escubari, eta ichi eutsan calenturiac, eta jagui zan, eta serbietan cituzan.

16. Eta elduric arratsaldia, imiñi eutsezan aurrian asco demonioac euquezanac: eta botaten cituzan espiritubac berbiagaz: eta gueissoric egozan guztijac osatu cituzan.

17. Bete cedin esan ebana Isaias Igarliac, esan ebanian: Berac artu cituzan gure gachac, eta eruan cituzan bere ganian gure miñac.

18. Baña icusiric Jesusec gente aldra asco bere inguruban, aguindu eban juateco ichasuaren beste aldera.

19. Eta elduric beragana Escriba bat, esan eutsan: Iracaslia, jarraituco deutsut, noranai juan zaitiala.*

20. Eta dirautsa Jesusec: Azerijac cobauac dauquez, eta ceruco egaztijac abijaac: baña guizonaren Semiac ez dauca nun buruba etzin.

21. Eta bere icasleetatic beste batec

36

esan eutsan: Jauna, ichi eguidazu lelengo juaten, eta obituten neure aita.

22. Baña Jesusec dirautsa: Jarraitu eguidazu, eta ichi eguijezu illai obituten euren illac.

23. Eta sarturic bera ontzichu baten, jarraitu eutsen bere icaslaac.

24. Eta orra nun ecach andi bat jagui zan ichasuau, allaguiña ce ontzichuba estalduten eben olatubac, eta bera eguan lotan.

25. Eta eldu ciran beragana bere icaslaac, eta iratzartu eben, ciñuela: Jauna, salbau gaizuz, galdubac gara.

26. Eta dirautse Jesusec: ¿Ceren bildur zare, fede guichicuac? Orduban jaguiric, aguindu eutsen assiai, eta ichasuari, eta guelditu zan bare bare.

27. Eta guizonac miraritu ciran, ciñuela: ¿Celacua da au, assiac eta ichasuac obeiduten deutsen au?

28. Eta etorriric ichasuaren beste aldetic Gerasenuen errira, urten eutsen bidera bic euquezanac demonioac, urteten ebela obijetatic, arrabijauric guztiz, ain modutan ce iñor ecin igaro zatequian bide atatic.

37

29. Eta orra nun diadar eguin eben, ciñuela : ¿ Cer daucagu guc zugaz, Jesus Jaungoicuaren Semia ? ¿ Etorri zara ona demporia baño lenago gu penetara ?

30 Eta eguan euretatic urrin baga charri ascoren aldra bat jaten ciardubala.

31. Eta demonioac erregututen eutsen, esaten ebela : Baldin botaten bagaituzu emendic, bialdu gaguizuz charrijen aldrara.

32. Eta esan eutsen : Zuace. Eta curac urtenic juan ciran charrijetara, eta orra nun arin juan zan aldra guztija amillategui batetic ichasora : eta ill ciran uretan.

33. Eta charrizañac igueseguin eben : eta etorriric urira, esan eben guztija, baitabere demonioac euqui citubezanen jazoeria.

34. Eta orra nun uri guztijac urten eutsan bidera Jesusi : eta icusiric bera, erregututen eutsen, urten eguijala euren mugarrijetatic.

38

IX.

ETA igonic ontzichura, igaro zan ichasbestaldera, eta etorri zan bere urira.

2. Eta orra nun imiñi eutsen aurrian perlesijadun bat etzunic oian. Eta icusiric Jesusec euren fedia, esan eutsan perlesijadunari : Icharon eguizu, ene semia, parcatuten jatzuz ceure pecatubac.

3. Eta orra nun Escribaetatic batzuc esan eben euren artiau : Onec gaisqui esaten dau Jaungoicua gaitic.

4. Eta icusiric Jesusec euren gogoraciñoiac, esan eban : ¿ Cergaitic gogoratuten dituzube gauza charrac ceuben bijotzetan ?

5. ¿ Cer da errazago esaten : Parcatuten jatzuz ceure pecatubac ; ala esatia : Jagui zaite ta ibilli zaite ?

6. Jaquin daguizuben bada, guizonaren Semiac daucala escubidia lurrian parcatuteco pecatubac, orduban esan eutsan perlesijadunari : Jagui zaite, artu eguizu ceure oia, eta zuaz ceure echera.

7. Eta jagui zan, ta juan zan bere echera.

39

8. Eta icusiric au gentiac, bildurtu ciran, eta alabau eben Jaungoicua, emon eutsena alaco escubidia guizonai.

9. Eta igaroten zala andic Jesus, icusi eban guizon bat, jarriric eguala alcabalaen maijan, Mateo erichana; eta esan eutsan: Jarraitu eguidazu. Eta jaguiric, jarraitu eutsan.

10. Eta jazo zan egonic bera maijan jarriric echian, orra nun Publicanu ta pecatari asco etorriric, egozan jarriric Jesusegaz ta bere jarraitzallacaz.

11. Eta icusiric Fariseuac, esaten eutsen bere jarraitzallai: ¿ Cergaitic zuben Iracasliac jaten dau Publicanuacaz ta pecatarijacaz?

12. Eta Jesusec entzunic, esan eban: Ez dauque osaguilliaren premiñaric osuac, ezpada gueissuac.

13. Juanic bada icasi eguizube cer dan: Erruquija gura dot, eta ez oparija: cerren ez naz etorri deitutera justubai, ezpada pecatarijai.

14. Orduban eldn ciran bera gana Juanen jarraitzallaac, eta esan eutsen: ¿ Cergaitic guc eta Fariseoac baru eguiten dogu sarri-

40

tan, eta zure jarraitzallaac ez dabe baruric eguiten?

15. Eta esan eutsen Jesusec: ¿ Ezcombarrijaren semiac negar eguin al baleije, ezcombarrija euracaz daguan artian? Baña etorrico dira egunac quenduba izango jaquena ezcombarrija, eta orduban baru eguingo dabe.

16. Eta ez deutsa iñoc iminten adobazain oijal lodizcua soñeco zarrari: cerren queuduten dau soñecotic bere betetasuna, eta cbarrago eguiten da urratua.

17. Ez dabe bere botaten ardao barrija zaragui zarretan. Bestelan urratuten dira zaraguijac, eta ardaua jausten da, eta zaraguijac galduten dira. Ezpada ardao barrija zaragui barrijetara botaten dabe, eta bitznbec diraube.

18. Berac gauza oneec cirautsezan artian, orra nun Principe bat etorri zan, eta adoretan eban, esanaz: Jauna, nire alabia orainche ill da: baña crdu, imiñi eguizu ceure escuba bere ganian, eta bicico da.

19. Eta jaguiric Jesus, jarraituten eutsan, baitabere bere icaslaac.

20. Eta orra nun andra bat, amabi urtian

41

gueissoric eguana odol erijuagaz, eldu jacon atzetic, eta ucutu eutsan bere soñecuaren ertzari.

21. Cerren ciñuan bere artian : Baldin ucututen badeutsat bacarric bere soñecuari, osatuba izango naz.

22. Eta Jesus biurturic, eta bera icusiric, esan eban : Icharon eguizu, ene alabia, ceure fediac osatu zaitu. Eta osatuba izan zan andria ordu atatic.

23. Eta etorri zanian Jesus Principiaren echera, eta icusi cituzanian chilibiterubac, eta gendedija otsca, esaten eban :

24. Alde eguizube : cerren ez dago illic nescatillia, ezpada lotan.* Eta burla eguiten eutsen.

25. Eta botia izan zanian gendedija, sartu zan : eta eldu eutsan bere escutic. Eta jagui zan nescatillia.

26. Eta zabaldu zan onen entzutia inguru guzti atatic.

27. Eta igaroten zala andic Jesus, jarraitu eutsen icbu bic, diadarrez, ta ciñuela : Erruquitu zaite arren gugaz, Daviden Semia.

28. Eta elduric echera, etorri ciran beragana ichubac. Eta esaten deutse Jesusec : ¿ Sinistuten dozube au eguin neiquezubela ? Esaten deutse : Bai, Jauna.

42

29. Orduban ucutu eutsen euren beguijetan, esanaz : Ceuben fediaren erara izan daquizubela eguiña.

30. Eta idiguijac izan ciran euren beguijac : eta cematu cituzan Jesusec, esanaz : Beguiratu eguizube, ez daguijala iñoc jaquin.

31. Barriz eurac urtenic, zabaldu eben inguru guzti atan.

32. Eta urtenic areec, orra nun ecarri eutsen guizon bat mutuba, demonioa eucana.

33. Eta bota ebanian demonioa, berba eguin eban mutubac, eta miraritu ciran gentc aldraac, ciñuela : Ez da iñoz icusi onelaco gauzaric Israelen.

34. Faresijuac barriz ciñuen : Demonioen aguintarijaren escubidiagaz botaten ditu demonioac.

35. Eta inguratuten cituzan Jesusec uri ta erri guztijac, eracusten ebala euren Sinagoguetan, eta prediquetan ebala erreinuco Evangelijua, eta osatuten ebala min guztija, eta gueisso guztija.

43

36. Eta icusiric gente aldraac, erruquitu zan euracaz : cerren egozan cantzauric, eta etzunic, artzaiñic ez dauqueen ardijac leguez.

37. Orduban dirautse bere discipulubai : Eguijaz lan asco dago, eta languilla guichi.

38. Erregutu eguijozube bada lanaren Jaunari, bialdu daguizala languillaac bere lanera.

X.

ETA baturic bere amabi discipulubac, emon eutsen escubidia espiritu loijen ganian, eurac botateco, eta osatuteco min guztija, eta gueisso guztija.

2. Eta amabi Apostoluben icenac dira oneec. Lelengua : Simon, Pedro derichana, eta Andres bere anaijia.

3. Santiago Zebedeorena, eta Juan bere anaijia : Felipe ta Bartolome : Tomas eta Mateo Publicanua : Santiago Alfeorena, eta Tadeo.

4. Simon Canaantarra eta Judas Iscariotcua, ceñec saldu eban bera.

44

5. Amabi oneec bialdu cituzan Jesusec, aguinduten eutsela, esanaz : Gentillen bidera ez zaitece juan, eta Samarijatarren urijetan ez zaitequece sartu :

6. Ezpada zuace lenago Israelgo echeco ardi galdu diranetara.

7. Eta juaten zarenian predicau eguizube, diñozubela : Urreratu dala cerubetaco erreinuba.

8. Osatu eguizubez gueissuac, biztu illac, garbitu leguendunac, bota demonioac : dnaric artu dituzube, duaric emon eguiznbez.

9. Ez eguizube euqui urreric ez cidarric, ez diruric ceuben guerrijctaco ugaletan.

10. Ez zacutoric bidian, ez tunica bi, ez oñetacuac, ez maquillia : cerren languillia bere janarijaren diña bada.

11. Eta sartuten zareen edocein uri edo erritan, itandu eguizube, ceiu dau bertan diña : eta egon zaitece an urten daguizuben artian.

12. Eta sartuten zareenian echian, agur eguijozube, diñozubela : Baquia cehe ouetau.

13. Eta baldin eche á diña balitz, etorrico da zuben baquia bere ganera : baña diña

45

ez baldin balitz, ceuben baquia biurtuco da ceubec gana.

14. Eta artuco ez bacindubez edoceñec, eta entzungo ez balitu zuben berbaac, urtenic campora echetic, edo uritic, astindu eguizube ceuben oñetaco autsa.

15. Eguijaz dirautsubet: Igarocarrijago izango jaco Sodomatarren eta Gomorratarren errijari juicijoco egunian, uri ari baño.

16. Orra nun nic bialduten zaitubedazan ardijac otsuen erdijan leguez. Izan zaitece bada zurrac sierpiac leguez, eta tolesbagaac usuac leguez.

17. Eta gorde zaitece guizonetatic, cerren eruango zaitube batzarretara, eta azotauco zaitube euren Sinagoguetan.

18. Eta izango zare eruanac Aguintarijac eta Erreguiac gana ni gaitic, ezagungarritzat eurai eta Gentillai.

19. Eta zaruezanian, ez eiquezube gogoratu celan edo cer berba eguingo dozuben: cerren emongo jatsube ordu atan cer berba eguin.

20. Cerren ez zare zubec berba eguiten dozubenac, ezpada ceuben Aitaren Espirituba zubecgan berba eguiten dabena.

46

21. Eta eruango dau anaijiac anaijia iltera, eta aitac semia: eta jaguico dira semiac gurasuen contra, eta ill eraguingo ditube.

22. Eta guztijac gorroto izango deutsube nire icena gaitic: baña irauten dabena azqueneraño, au izango da salbauba.

23. Eta esesten deutsubenian uri onetan, igues eguizube beste batera. Eguijaz dirautsubet, ez dituzubela amaituco Israelgo urijac, etorri artian guizonaren Semia.

24. Ez da icaslia iracaslia baño gueijago, ez mempecua bere Jauna baño gueijago.

25. Asco da icasliarentzat izatia bere iracaslia leguez; eta mempecuarentzat bere jauna leguez. Baldin echecojaunari Beelzebub deitu beutsen: ¿ cembat gueijago bere echecuai ?

26. Ez zaitece bada euren bildur izan: cerren ez dago gauza estalduric aguertuco ez danic; eta ezcuturic jaquingo ez danic.

27. Esaten deutsubedana illuntasunetan, esan eguizube arguitan; eta belarrijan entzuten dozubena, predicau eguizube tellatuben ganian.

28. Eta ez eiquijezube bildurric euqui

47

gorputza ilten dabenai, eta arimia ecin ill dabenai : ezpada bildur izan zaquijuez arimia ta gorputza galdu leiquezauari infernuban.

29. ? Ez al dira salduten chorichu bi laumaraico baten, eta euretatic bat ez da jausico lurraren ganera zuben Aita bagaric ?

30. Baitabere zuben buruco uliac guztijac dagoz cembaturic.

31. Ez zaitece bada bildur izan : chori asco baño obaac zare zubec.

32. Guizonen aurrian bada ni autortuten naben guztija, autortuco dot neuc bere bera, neure Aita cerubetan daguanaren aurrian.

33. Eta ucatuten nabena guizonen aurrian, ucatuco dot neuc bere bera, neure Aita cerubetau daguanaren aurrian.

34. Ez eguizube uste izan etorri nintzala baquia ecartera lurrera : ez nintzan etorri baquia ecartera, ezpada ezpatia.

35. Cerreu etorri nintzan aldendutera guizona bere aita gandic, eta alabia bere ama gandic, eta erreña bere amaguiñarreba gandic.

36. Eta guizonaren arerijuac, bere echecuac.

48

37. Maite dabena aita edo ama ni baño gueijago, ez da nire diña. Eta maite dabena semia edo alabia ni baño gueijago, ez da nire diña.

38. Eta artuten ez dabena here curutzia eta jarraituten ez deustana, ez da nire diña.

39. Aurquituten dabenac bere arimia, galduco dau : eta galduten dabenac bere arimia ni gaitic, aurquituco dau.

40. Zubec artuten zaitubezanac, neu artuten nau : eta ni artuten nabenac, artuten dau ni bialdu nindubana.

41. Artuten dabenac Igarlia Igarliaren icenian, artuco dau Igarliaren sarija : eta artuten dabenac justuba justubaren icenian, artuco dau justubaren sarija.

42. Eta edoceñec emoten deutsanac edarija cbiquichu oneetatic bati baso bete ur otz bacarric discipulubaren icenian : eguijaz dirautsubet, ez dau galduco bere sarija.

XI.

ETA jazo zan, amaitu ezquero Jesusec emotia iracatsi oneec bere amabi

49

icaslaai, igaro zan andic eracusteco eta prediquetaco euren urijetan.

2. Eta Juanec entzunic Iocarrijetan Cristoren eguitadaac, bialduric bere icasleetatic bi,

3. Esan eutsan : ¿ Zu zara etorrico dana, ala besteric icharoten dogu ?

4. Eta erantzunic Jesusec esan eutsan : Zuace, ta adierazo eguijozubez Juani entzun ta icusi dituzubenac.

5. Ichubac icusten dabe, errenac dabiltz, leguendunac dira garbitubac, gorrac entznten dabe, illac biztuten dira, eta pobriai adierazoten jaque Evangelijua.

6. Eta zorijouecua da, gacheraco bidia artuten ez dabena nigaz.

7. Eta eurac juan ta laster, asi zan Jesus esaten gendedijai Juau gaitic : ¿ Cer icustera urten dozube eremura ? ¿ assiac darabillan cañaberaren bat ?

8. ¿ Baña cer icustera urten doznbe ? ¿ soñeco bigun ta ederracaz jantzirico guizonen bat ? Eguijaz, soñeco bigun ta ederracaz jantzijac, Erregueen echeetan dagoz :

9. ¿ Baña cer icustera urten dozube ?

50

¿ Igarlia ? Baita dirautsubet, Igarlia baño gueijago bere.

10. Cerren au da ceñegaitic escribiduric daguan : Orra emen, neuc bialduten dot neure Aingueruba ceure aurrian, ceñec prestauco daben ceure bidia ceure aurretic.

11. Eguijaz dirautsubet : Ez da jagui andretatic jaijotaco guizacumeen artian Juan Bautistia baño andijagoric : baña chiquijena dana cerubetaco erreinuban, bera baño andijago da.

12. Eta Juan Bautistiaren egunetatic orain artian, cerubetaco erreinubari indar eguin biar jaco, eta gogoz jarquijac atrapetan dabe.

13. Cerren Igarla guztijac eta Leguiac Juanerafio adierazo citubezan etorquizunac.

14. Eta artu gura badozube, bera da Elias etorrico dana.

15. Belarrijac daucazanac entzuteco, entzun daguijala.

16. ¿ Ceñi baña dirudijala usteco dot guizaldi onec ? Da plazan jarrita dagozan mutillen antzecna, ceintzubec diadarrez enren idecuai,

17. Dirautsen : Cantau deutsugube, eta

51

ez dozube dantzan eguin : cizpuruz egon gara, ta ez dozube negar eguin.

18. Cerren etorri zan Juan ez ebala jaten, ez edaten, eta diñue : Demonioa dauca.

19. Etorri zan guizonaren Semia jaten dabela ta edaten dabela, eta diñue : Orra emen guizon tripontzi, ta ardao edale bat, Publicanuen ta pecatarijen adisquidia. Baña jaquiturija izan da garbituba bere semeen aldetic.

20. Orduban asi zan arpeguijan emoten, bere mirari guztiz asco eguiñac izan ciran urijai, ez ebelaco eguin penitencija.

21. ¡ Ay zure errucarrija Corozain ! ¡ Ay zure errucarrija Betsaida ! cerren baldin Tiron eta Sidonen eguiñac izan balira, zubetan eguiñac izan diran mirarijac, anchiña eguingo eben penitencija cilicijuan eta autsian.

22. Orregaitic dirautsubet : Tiro eta Sidon bigunago artubac izango dirala juicijoco egunian zubec baño.

23. ¿ Eta zu Cafarnaum, izango al zara jasua ceruraño ? Infernuraño jatzico zara. Cerren baldin Sodoman eguin izan balira,

52

zugan eguiñac izan diran mirarijac, menturaz iraungo eben egun onetaraño.

24. Orregaitic dirautsubet : Sodomaco errija bigunago izango dala artuba juicijoco egunian zu baño.

25. Dempora atan erantzunic Jesusec, esan eban : Esquerrac emoten deutsudaz, Aita, ceruco eta lurreco Jauna, cerren ezcutau cenduzan oneec jaquitunetatic eta aditubetatic, eta aguertu deutsazuz chiquijai.

26. Alan, Aita : cerren onelan izan zan zure naija.

27. Nire Aitac emon eustazan niri gauza guztijac. Eta iñoc ez dau ezagututen Semia ezpada Aitac ; eta ez dau bere iñoc ezagututen Aita ezpada Semiac, eta Semiac aguertu gura deutsanac.

28. Erdube ni gana, necaturic eta cargauric zagozen guztijoc, eta neuc arinduco zaitubedaz.

29. Artu eguizube neure buztarrija ceuben ganian, eta icasi eguizube ni gandic, bada otsana naz ta bijotzez umilla : eta aurquituco dozube atsedena ceuben arimentzat.

53

30. Cerren nire buztarrija biguna da, eta nire carguia ariña.

XII.

DEMPORA atan juan zan Jesus garitzetatic Zapatnban: eta bere discipulubac, gose izanic, asi ciran ebaguiten galburubac, eta jaten.

2. Eta Fariseoac icusiric, esan eutsen: Orra nun, zure discipulubac eguiten daben ondo ez dana eguitia Zapatubetan.

3. Baña berac esan eutsen: ¿Ez dozube iracurri cer eguin eban Davidec gose izan zanian, bera ta beragaz egozanac?

4. ¿Celan sartu zan Jaungoicuaren echian, eta jan cituzan ofrendaco oguijac, ceintzubec ecin jan euquezau berac, ez beste beragaz egozanac, ezpada bacarric Sacerdotiac?

5. ¿Edo ez dozube iracnrri Leguian Zapatubetan Sacerdotiac elessan Zapatuba ausiten dabela, eta pecatu bagaric dirala?

6. Bada dirautsubet, templua baño andijagua daguala emen.

54

7. Eta baldin bacenquije cer dan: Erruquija gura dot, eta ez esquintzarija: iñoz ez cendubezan condenauco errubagaac.

8. Cerreu guizouaren Semia da Zapatubaren jauna bere.

9. Eta andic aldendu ezquero, etorri zan euren Sinagogara.

10. Eta orra emen guizon bat eucana escuba sicaturic; eta itanduten eutsen, ciñuela: ¿Zapatubetan osatutia ondo al da? Salatutiarren bera.

11. Eta berac esan eutsen: ¿Ce guizon izango da zubetatic, daucana ardi bat, eta baldin jausico balitz au Zapatuban lezara, ez leusquijona escubagaz elduco, eta ateraco?

12. ¿Cembat obiago ez da guizona ardija baño? Alan bada ondo da Zapatubetan onesede eguitia.

13. Orduban esan eutsan guizonari: Luzatu eguizu ceure escnba. Eta luzatn ebau, eta biurtuba izan jacon osatuta bestia leguez.

14. Eta urtenic Fariseoac, eguiten eben batzaarra bere contra, celan galduco eben.

15. Eta Jesusec jaquiñic, aldendu zan

55

andic : eta jarraitu eutsen ascoc, eta osatu cituzan eurac guztijac.

16. Eta aguindu eutsen ez eguijela aguertu,

17. Betia izan cedin esana izan zana Isaias Igarliaren bitartez, diñuala :

18. Orra emen neure serbitzarija autu nebana, neure maitia, ceñegan ondo gozatu dan nire arimia. Imiñico dot neure Espirituba bere ganian, eta adierazoco deutse zucentasuna Gentillai.

19. Ez dau euquico ezbairic, eta ez dau eguingo diadarric, eta ez dau iñoc entzungo placetan bere berbia.

20. Cañabera zartatua ez dau ausico, eta queia darijon mechia ez dau amatauco, jaurtigui daguijan artian garaitzara zucentasuna.

21. Eta bere icenian erreinubac icharongo dabe.

22. Orduban ecarri eutsen demonioa eucan bat, ichuba ta mutuba, eta osatu eban, ain modutan ce berba eguiten eban ta icusten eban.

23. Eta mirarituten ciran gendedi guztijac, eta esaten eben : ¿ Daviden Semia bai al da ?

56

24. Barriz Fariseoac entzunic, esan eben : Onec ez ditu botaten demonioac ezpada Beelzebub demonioen aguintarijagan.

25. Eta Jesuaec jaquiñio euren gogoraciñoiac, esan eutsen : Bere contra zatiturico erreiñu guztija izango da ondatuba : eta bere contra zatiturico uri edo eche guztijac ez dau iraungo.

26. Eta baldin Satanasec Satanas botaten badau, bera beragan dago zatituric : ¿ celan bada iraungo dau bere erreinubac ?

27. Eta baldin nic Beelzebubgan botaten baditut demonioac, ¿ zuben semiac nogau botaten ditube ? Orregaitic eurac izango dira zuben guzurtatzallaac.

28. Barriz baldin nio Jaungoicuaren Espiritubaz botaten baditut demonioac, beraz eldu da zubetara Jaungoicuaren erreinuba.

29. ¿ Edo celan sartu leiteque norbait senduaren echian, eta ostu daucana, ezpadau lenago lotuten sendua ? eta orduban ostu leique bere echian daguana.

30. Nigaz ez dana, nire contra da : eta nigaz batuten ez dabenac, zabalduten diardu.

31. Orregaitic dirautsubet : Pecatu eta

57

ernegu guztija izango jaque parcatuba guizonai, baña Espiritubaren erneguba ez da izango parcatuba.*

32. Eta esaten daben edoceñi berbia guizonaren Semiaren contra, parcatuba izango jaco: baña esaten dabenari Espiritu Santubaren contra, ez jaco parcatuco, ez mundu onetan, ez guerocuan.

33. Edo eguizube zugatz ona, ta bere frutuba ona: edo eguizube zugatz charra, ta bere frutuba charra: cerren frututic zugatza da ezagutuba.

34. Ciraunen castia, ¿celan esan cinaijez herba onac, izanic ceubec gaistuac? cerren auac berba eguiten dau bijotzaren ugaritasunetic.

35. Guizon onac gordelecu onetic ateraten ditu gauza onac: eta guizon gaistuac gordelecu gaistotic ateraten ditu gauza gaistuac.

36. Eta dirautsubet, guizonac esaten daben berba alper guztijaren, contuba emongo dabe juicijoco egunian.

37. Cerren ceure berbetatic izango zara ontzat ezagutuba, eta ceure berbetatic izango zara dongatzat ezagutuba.

58

38. Orduban erantzun eutsen Escribaetatio eta Fariseoetatic batzubec, ciñuela: Iracaslia, gura dogu icusi zu gandic ezagungarrija.

39. Berac erantzunio esan eutsen: Casta gaisto eta siniste charreco oneo ezagungarrija billatuten dau; eta ezagungarririo emongo ez jaco, ezpada Jonas Igarliaren ezagungarrija.

40. Cerren celan egon zan Jonas baleiaren sabelian iru egunian eta iru gautan; alan egongo da guizonaren Semia lurraren bijotzian iru egunian ta iru gautan.

41. Niniveco guizonac jaguico dira juicijuan guizaldi onegaz, eta condenauco dabe: cerren penitencija eguin eben Jonasen predicaciñoiagaz. Eta orra Jonas baño gueijago lecu onetan.

42. Egoeco Erreguiña jaguico da juicijuan guizaldi onegaz, eta condenauco dau; cerren etorri zan lurraren azquenetatic entzutera Salomnnen jaqniturija, eta orra Salomon baño gueijago lecu onetan.

43. Espiritu loijac bada urten dabenian guizona gandic, dabil lecu liorretatic billatuten atseguiña, eta ez dau aurquituten.

59

44. Orduban diño: Biurtuco naz neure echera, nundic urten neban. Eta datorrenian aurquituten dau utsa, guiñarracaz garbituba eta apainduba.

45. Orduban badua eta artuten ditu beragaz beste zazpi espiritu bera baño dongaguac, eta sarturic barruban bici dira an: eta eguiten dira guizon aren azquenac lenagocuac baño dongaguac. Alan jazoco jaco guizaldi guztiz donga oni bere.

46. Oraindie berac berbetan ciardubala geudedijari, orra nun bere ama eta anaijaac egozan campuan, berba eguin nairic berari.

47. Eta esan eutsan batec: Orra nun zure ama eta zure anaijaac campuan dagozan billatuten zaituhela.

48. Eta berac erantzunic berba eguiten eutsanari, esan eutsan: ¿Cein da nire ama, eta ceintzuc dira nire anaijaac?

49. Eta luzaturic escuba bere jarraitzallaac gana, esan eban: Orra emen nire ama, ta nire anaijaac.

50. Cerren nire Aita cerubetan daguanaren borondatia eguiten daben edocein, au da nire anaijia, eta arrebia eta ama.

60

XIII.

EGUN atan urtenic Jesusec echetic, eguan jarrita ichaso onduan.

2. Eta batu zan bera gana gendedi asco; ain modutan, ce ontzichu batera igonic, eguan jarrita; eta gendedi guztija eguan zutunie ichas bazterrian.

3. Eta esan eutsezan gauza asco irudijetan, ciñuala: Orra nun urten eban ereiten dabenac ereitera.

4. Eta ereiten diarduala, aci batzuc jausi ciran bidiaren onduan, eta etorri ciran ceruco egaztijac, eta jan citubezan.

5. Beste batzuc barriz jausi ciran arritzetan, nun ez euquen lur asco: eta laster erne ciran, ez euquelaco lur lodija.

6. Eta eguzquijac urtenic, erre ciran: eta ez euquelaco sustrairic, sicatu ciran.

7. Beste batzuc barriz jausi ciran arantzetan: eta aci ciran arantzaac, eta ito citubezan.

8. Beste batzuc barriz jausi ciran lur

61

onian : eta emoten eben frutuba, batec eunca, bestiac irurogueica, bestiac oguetaamarca.

9. Daucazanac belarrijac entzuteco, entzun daguijala.

10. Eta elduric jarraitzallaac, esan eutsen : ¿ Cergaitic irudijetan berba eguiten deutsezu ?

11. Berac erantzunic, esan eutsen : Cerren zubei emona jatzube ezagututia cerubetaco erreinuco ezcutapenac : areei barriz ez jaque emon.

12. Cerren daucanari, emongo jaco, eta izango dau ugarijago : eta ez daucanari, daucana bere quenduco jaco.

13. Orregaitic irudijetan berba eguiten deutset : cerren icusten dabela, ez dabe icusten ; eta entzuten dabela, ez dabe entzuten ez adituten.

14. Eta betetan da euracgan Isaias Igarliaren esana diñuanarena : Belarrijagaz entzungo dozube, eta ez dozube adituco ; eta icusten dozubela icusico dozube, eta ez dozube icusico.

15. Cerren loditu da erri onen bijotza, eta belarrijacaz astun entzun eben, eta euren

62

beguijac ichi citubezan : icusi ez daguijen beguijacaz, eta belarrijacaz entzun ez daguijen, eta bijotzagaz aditu ez daguijen, eta biurtu ez ditecen, eta osatu ez daguidazan.

16. Zorijonecuac barriz zuben beguijac, cerren dacusen ; eta zuben belarrijac, cerren dantzuben.

17. Cerren eguijaz dirautsubet : Igarla ta on ascoc gura izan ebela icustia dacutzubezanac, eta ez citubezan icusi ; eta entzutia dantzuzubezanac, eta ez citubezan entzun.

18. Zubec bada entzun eguizube ereilliaren irudija.

19. Erreinuco berbia entzun eta adituten ez daben guztija, badator gaistua, eta atrapetan dau bere bijotzian erein zana : au da bide onduan erein zana.

20. Arritzen ganian erein zana barriz, au da entzuten dabena berbia, eta beriala pozagaz artuten dabena.

21. Baña ez dauca beragan sustrairic, ezpada da iraupen guichicua. Eta datorrenian naibaguia ta esetsija berbia gaitic, laster artuten dau gacheraco bidia.

22. Eta erein zana arantzadijan, au da

63

entzuten dabena berbia; baña mundu onetaco arduriac eta aberastasunen engañubac itoten dau berbia, eta frutu baga gueldituten da.

23. Erein zana barriz lur onian, au da entzuten dabena berbia eta adituten dabena, eta frutuba daroiana: eta eguiten dau batec eunca, bestiac barriz irurogueica, eta bestiac oguetaamarca.

24. Beste irudi bat imiñi eutsen, cirautsela: Cerubetaco erreinuba da guizon baten irudicua, ceñec erein eban aci ona bere soluan.

25. Eta lotan egozala guizonac, etorri zan bere arerijua, eta erein eban olua garijaren erdijan, eta juan zan.

26. Eta aci zanian bedarra, eta frutuba eguin ebanian, orduban aguertu zan olua bere.

27. Eta elduric echecojaunaren otseiñac, esan eutsen: ¿ Jauna, ez al cenduban erein aci ona ceure soluan? ¿ Nundic bada dauca olua?

28. Eta esan eutsen: Gnizon arerijuac eguin dau au. Eta otseiñao esan eutsen: ¿ Gura dozu juan gaitian eta batu daiguzan?

29. Eta esan eutsen: Ez: batuten dozubela olua, atera ez daguizuben batera euracaz garija bere.

64

30. Ichi eguizube bitzubec aci ditecela garija ebaguiteco demporaraño, eta garija ebaguiteco demporan esango deutset galepallai: Batu eguizube lelengo olua, eta lotu eguizube, escutadetan erretaco; garija barriz pillatu eguizube neure galtoquiraco.

31. Beste irudi bat imiñi eutsen, ciñuala: Cerubetaco erreiñuba da moztaza garaubaren antzecua, cein arturic guizonac erein eban bere soluan:

32. Cein eguijaz da aci guztijetatic chiquijena, baña aciten danian, andijagua da bedar guztijac baño, eta zugatz eguiten da, allaguiña ce, ceruco egaztijac etorri oi dira, ta bici bere errametan.

33. Beste irudi bat esan eutsen: Cerubetaco erreinuba da labaduriaren antzecua, cein arturic andra batec ezcutetan daben iru neurri urunetan, aric eta jagui artian guztija.

34. Oneec guztijoc esan eutsezan Jesusec irudijetan gendedijai; eta irudijacaz baga ez eutsen berba eguiten.

35. Bete cedin Igarliac esan ebana ci-

65

ñuanian : Idiguico dot irudijetan neure aua : aguertuco ditut ezcutauric egozanac munduba eguin zanetic.

36. Orduban, ichirio gendedijac, etorri zan echera : eta urreratn ciran bera gana bere jarraitzallaac, ciñuela : Azaldau eguiguzu soloco oluen irudija.

37. Berac erantzunic esan eutsen : Aci ona ereiten dabena da guizonaren Semia.

38. Solua barriz da munduba. Aci ona barriz, oneec dira erreiñuco semiac. Eta olua, seme dongaac dira.

39. Eta erein cituzan arerijua, da diabrua: barriz garija ebaguiteco demporia, mundubaren azquena da. Galepallaac barriz, Ainguerubac dira ;

40. Celan bada batuten dan olua, eta sutan erretan dan, alan izango da mundubaren amaijan.

41. Bialduco ditu guizonaren Semiac bere Ainguerubac, eta batuco ditube bere erreiñutic escandalu guztijac, eta gaistaquerija eguiten dabenac :

42. Eta botaco ditube suzco labara. An izango da negarra, ta aguin carrascadia.

66

43. Orduban justubac argui eguingo dabe eguzquijac leguez euren Aitaren erreinuban. Daucazanac belarrijac entzuteco, entzun daguijala.

44. Cerubetaco erreinuba da campo baten ezcutaurico tesoruaren irudicua, cein aurquituten daben guizonac, estalduten dau : eta aren pozagaz dna ; eta saldnten ditu daucazan guztijac, eta erosten dau campo a.

45. Ostera cerubetaco erreinuba da guizon mercatari perla oneen billa dabillenaren irudicua.

46. Eta aurquituric balijo andico perla bat, juan zan, eta saldu cituzan eucazan guztijac, eta erosi eban.

47. Barriro cerubetaco erreinuba da ichasora botarico sarc, arrain mucta guztijac batuten dituzanaren irudicua.

48. Cein, bete danian, ateraric, eta ichasonduan jarriric, autu citubezan onac ontzijetaraco, charrac barriz campora bota citubezan.

49. Alan izango da guizaldijaren amaijan : urtengo dabe Ainguerubac, eta aldenduco ditube dongaac justuben erditic ;

50. Eta sartuco ditube suzco laban : an izango da negarra, eta aguin carrascadia.

51. ¿ Aditu dituzube oneeo guztijoc ? Dirautse : Bai.

52. Esan entsen : Orregaitic Escriba jaquitun guztija cerubetaco erreinuban da guizon echecojaun baten irudicua, ceüec ateraten dituzan bere gordelecutic barrijac eta zaarrac.

53. Eta amaitu cituzanian Jesusec irudi oneec, juan zan andic.

54. Eta etorriric bere errira, emoten eutsezan iracatsijac euren Sinagoguetan, ain modutan ce mirarituten ciran, eta esaten eben : ¿ Nnndic oni jaquiturija au eta mirarijac ?

55. ¿ Ez al da au arotzaren Semia ? ¿ Ez al da bere ama Marija derichana, eta bere anaijaac Santiago, eta Jose, eta Simon, eta Judas ?

56. ¿ Eta bere arrebaac ez al dagoz guztijac gueure artian ? Nundic bada oni oneec guztijoc ?

57. Eta gach bidia artuten eben beragan. Jesusec barriz esan eutsen : Ez dago Igar-

laric ondra baga, ezpada bere errijan eta bere echian.

58. Eta ez cituzan eguin an mirari asco, euren sinisgachtasuna gaitic.

XIV.

DEMPORA atan entzun eban Herodes Tetrarcac Jesusen ospia.

2. Eta esan eutsen bere otseiñai : Au da Juan Bautistia ; bera biztu zan illen artetic : eta orregaitic mirarijac eguiten dira beragan.

3. Cerren Herodesec atrapau eban Juan eta lotu eban, eta imiñi eban presondeguijan Herodias bere anaijiaren emaztia gaitic.

4. Cerren esaten eutsan Juaneo : Ecin euqui ciñaique bera.

5. Eta ill guraric bera, errijaren bildur izan zan : cerren euquen Igarlia leguez.

6. Barriz Herodesen jaijotzaco egunian, dantzan eguin eban Herodiadesen alabiac erdijan, eta gustau jacon Herodesi.

7. Orregaitic juramentubagaz esquiñi eu-

69

tsan, emotia escatuten eutsan edocein gauza.

8. Eta arec, bere amac aurrez adierazoric: Emon eguidazu, esan eban, emen platerian Juan Bautistiaren buruba.

9. Eta tristetu zan Erregue: baña juramentuba gaitic, eta beragaz batera maijan jarriric egozanac gaitic,aguindu eban emoteco.

10. Eta bialdu eban eta ebagui eutsan buruba Juani presondeguijan.

11. Eta ecarri eben bere buruba platerian, eta emon eutsen nescatilliari, eta onec eruan eutsan bere amari.

12. Eta etorriric bere jarraitzallaac, artu eben bere gorputza, eta obitu eben: eta juan ciran adierazotera Jesusi.

13. Jesusec entzun ebanian an, aldendu zan andic ontzichu baten, lecu bacar urrin batera: eta entzunic gendedijac, jarraitu eutsen oñaz urijetatic.

14. Eta urtenic, icusi eban gentedi asco, eta erruquitu zan euracaz, eta osatu cituzan euren gueissuac.

15. Eta elduric arratsaldia, etorri ciran bera gana bere jarraitzallaac, ciñuela: Bacarra da lecu au, eta orduba onezquero igaro da:

70

ichi eguijezu gendedijai, juanic errijetara, erosi daguijezan eurentzat janarijac.

16. Eta Jesusec esan eutsen: Ez dauque juanaren biarric, emon eguijezube ceubec jaten.

17. Erantzun eutsen: Ez daucaguz emen ezpada bost ogui eta arrain bi.

18. Berac esan eutsen: Ecarri eguidazubez neuri ona.

19. Eta aguinduric gendedijari jarteco bedarraren ganian, arturic bost oguijac eta arrain bijac, beguiraturic cerura, bedeincatn ta ohiquitu cituzan, eta emon eutsezan jarraitzallaai, eta jarraitzallaac gentedijai.

20. Eta jan eben guztijac, eta ase ciran. Eta ecarri citubezan emparanbac amabi zara zatiz beteric.

21. Eta jan ebenac ciran bost milla guizon, andraac eta umiac baga.

22. Eta beriala Jesusec igon eraguin eutsen ontzichura jarraitzallai; eta juan ceitezala bere aurretic ichas beste aldera, aric eta bialduten cituzan artian gendedijac.

23. Eta bialduric gendedija, igon eban mendira bacarric erregututera. Eta gaba etorrita eguan bacarric an.

71

24. Ontzichuba barriz ichasuaren erdijan erabillen olatubac : cerren assia zan aurreticua.

25. Goss aldian etorri zan eurac ganuntz ebillela ichasuaren ganian.

26. Eta icusiric bera ichasuaren ganian ebillela, icaratu ciran, ciñuela : Mamua da. Eta bildurraz asi ciran diadarrez.

27. Eta beriala Jesusec berba eguin eutsen, cirautsela : Icharrn eguizube : neu naz, ez zaitece bildurtu.

28. Eta erantzunic Pedroc esan eutsan : Jauna, baldin zu bazara, aguindu eguizu etorri nadilla zu gana uren ganetic.

29. Eta berac esan eutsan : Erdu. Eta jatziric Pedro ontzichutic ebillen uraren ganian etorteco Jesus gana.

30. Eta icusiric asse sendua, bildurtu zan : eta asiric ondatuten, diadar eguin eban, ciñuala : Jauna, balija zaquidaz.

31. Eta beriala Jesusec luzaturic escuba, eldu eutsan ta esan eutsan : Fede guichicua, ¿ cergaitic bildur izan zara ?

32. Eta sartu ciranian ontzichuban, guelditu zan assia.

72

33. Eta ontzichuban egozanac etorri ciran, eta adorau eben, ciñuela : Eguijaz Jaungoicuaren Semia zara.

34. Eta igaroric ichasuaren beste aldera, etorri ciran Genesarco errira.

35. Eta ezagutu ebenian lecu ataco guizonac, adierazo eutsen inguru guzti atacuai, eta ecarri eutsezan gueissoric egozan guztijac.

36. Eta escatuten eutsen ichi eguijuela ucututen edolabere bere soñecuaren egalari. Eta ucutu eutsen guztijac osatu ciran.

XV.

ORDUBAN eldu ciran bera gana Jerusalemdic Escriba ta Fariseoac, ciñuela :

2. ¿ Cergaitic zure icaslaac austen dabe zaarren iracatsija ? Cerren ez ditube garbituten euren escubac oguija jaten dabenian.

3. Berac barriz erantzunic, esan eutsen : ¿ Eta cergaitic zubec austen dozu Jaungoicuaren aguinduba ceuben iracatsija gaitic ? bada Jaungoicuac esan eban :

4. Honrau eguizu aita eta ama. Eta :

73

Madaricatuten dabena aita edo ama, illa izan bedi.

5. Zubec barriz diñozube: Aitari edo amari esaten deutsan edoceñec: nic eguiten dodan edocein esquintzari izango da zure oneraco:

6. Eta ez dau ondrauco bere aita edo bere ama: eta alperra eguin dozube Jaungoicuaren aguinduba ceuben iracatsija gaitic.

7. Irudiz bacarric onac, ondo adierazo eban aurrez zubec gaitic Isaiasec, ciñuala:

8. Erri onec ezpanacaz ondretan nau: baña euren bijotza urrin dago ni gandic.

9. Eta alperric ondretan nabe, adierazoten ditubezala guizoneu iracatsi ta aguindubac.

10. Eta deituric bera gana gendedijai, esan eutsen: Entzun ta aditu eguizube.

11. Ez dau loituten guizona auan sartuten danac*: ezpada aotic urteten dabenac, onec loituten dau guizona.

12. Orduban eldurio bere icaslaac, esan eutsen: ¿Badaquizu Fariseoac berba au entzun da, escandalizau dirala?

13. Eta berac erantzunic, esan eban: Nire

74

Aita cerucuac iminten ez daben landara guztija, izango da sustraitic ateria.

14. Ichi eguijezube: ichubac dira ta ichuben zucentzallaac. Eta baldin ichuba bada ichubaren zucentzallia, bijac jausico dira lezara.

15. Eta erantzunic Pedroc, esan eutsan: Azaldau eguiguzu irudi au.

16. Eta berac esan eutsen: ¿Oraindic zubec bere adin baga zagoce?

17. ¿Ez dozube adituten auan sartuten dan guztija, sabelera doiala, eta lecu ezcutura botaten dala?

18. Baña aotic urteten dabenac bijotzetic datoz, eta oneec loituten dabe guizona.

19. Cerren bijntzetic datoz gogoraciño charrac, guizon iltiac, araguizco pecatubac besteren emaztiacaz, ezcontzacacaz, lapurretaac, asmaciño guzurrezcuac, blasfemijac.

20. Oneec dira guizona loituten dabenac. Barriz escubac garbitu baga jatiac, ez dau loituten guizona.

21. Eta urtenic andic Jesusec aldendu zan Tiro ta Sidongo aldeetaruntz.

22. Eta orra emen andra bateo Canaan-

75

tarrac, muga areetatic urtenac diadar eguin eban, cirautsala : Erruquitu zaite arren nigaz, Jauna, Daviden Semia : nire alabia charto penetan dau demonioac.

23. Berac ez eutsan erantzun berbaric. Eta elduric bere jarraitzallaac, erregututen eutsen, cirautsela : Bialdu eguizu emonic nai dabena, cerren diadarrez dator gueure ondoric.

24. Berac barriz erantzunic, esan eutsen : Ez naz bialduba ezpada Israelgo echeco ardi galdu ciranetara.

25. Barriz bera etorri zan, eta adorau eban cirautsala : Jauna, lagundu eguidazu.

26. Berac erantzunic, esan eutsan : Ez da ondo artutia semeen oguija, eta botatia chacurrai.

27. Eta berac esan eutsan : Baita ori bere, Jauua : cerren chacurchubac bere jan oi ditube, euren jaunen maitic jausten diran apurrac.

28. Orduban erantzunic Jesusec, esan eutsan : O andria, andija da zure fedia : eguin daquiznla gura dozun leguez. Eta osatu zan bere alabia ordu atatic.

76

29. Eta urtenic andic Jesusec, etorri zan Galileaco ichasuaren ondora : eta igonic mendira, eguan jarriric an.

30. Eta eldu ciran bera gana gendedi asco, euquezanac euracaz mutubac, ichubac, errenac, manchuac, eta beste asco : eta bota citubezan bere oñetara, eta osatu cituzan :

31. Ain modutan ce gendedijac mirarituten ciran icusiric mutubac berbetan, errenac ebiltzala, ichubac ecusela : eta alabetan eben Israelgo Jaungoicua.

32. Jesusec barriz, deituric bere jarraitzallaai, esan entsen : Erruqui ditut gendedijac : cerren iru egun dira onezquero dagozala neugaz, eta ez dauque cer janic : eta ez ditut gura bialdu baruric, gosiac ill ez daguizan bidian.

33. Eta dirautse jarraitzallaac : ¿ Nundic bada izan guinaiquez eremuban aimbeste ogui asetaco gendedi ain andija ?

34. Eta esan eutsen Jesusec : ¿ Cembat ogui daucazubez ? Eta eurac esan eutsen : Zazpi, eta arrainchu guichi batzubec.

35. Eta aguindu eutsan gendedijari jarri cedilla lurraren ganian.

77

36. Eta arturic zazpi oguijac, eta arraiñac, eta esquerrac emonic, chiquitu cituzan, eta emon eutsezan bere jarraitzallaai, eta jarraitzallaac emon eutsezan errijari.

37. Eta jan eben guztijac, eta ase ciran. Eta guelditu ciran zatijetatic eruan citubezan zazpi otzara betiac.

38. Ciran barriz jan ebenac lau milla guizon, ume ta andra baga.

39. Eta, bialduric gendedija, igon eban ontzichura: eta etorri zan Magedan ingurubetara.

XVI.

ETA eldu ciran bera gana Fariseoac eta Saduceoac esetsitera: eta erregutu eutsen, eracutsi eguijuela cerutic ezagungarriren bat.

2. Eta berac erantzunic, esan eutsen: Eldu danian illuntzija diñozube: Aterri eguingo dau, cerren gorrija dago ceruba.

3. Eta gossian: Gaur ecacha, cerren gorri ta illun dago ceruba.

78

4. Badaquizube beraz ezagututen cerubaren ichuratic ce dempora eguingo daben: ¿ eta ecin dozubez jaquin nire etorreriaren demporen ezagungarri arguijac ? Casta gaisto ta siniste oquerrecuac ezagungarrija billatuten dau, eta ezagungarriric ez jaco emongo, ezpada Jonas Igarliaren ezagungarrija. Eta ichiric areec, juan zan.

5. Eta etorriric bere jarraitzallaac ichasuaren beste aldera, aztu jaquen oguijac artutia.

6. Berac esan eutsen: Beguiratu eguizube, ta gorde zaitece Fariseoen ta Saduceoen labaduratic.

7. Eta eurac gogoratuten eben euren artian, ciñuela: Oguiric ez dogu artu.

8. Jaquinic barriz Jesusec, esan eutsen: ¿ Cergaitic gogoratuten dozuhe ceuben artian, fede guichicuac, oguiric ez daucazubela ?

9. ¿ Ez dozube aituten, eta ez zare gogoratuten bost oguijacaz bost milla guizonentzat, eta cembat zaracada batu cendubezan ?

10. ¿ Ez zazpi oguijacaz lau milla guizonentzat, eta cembat otzaracada batu cendubezan ?

79

11. ¿ Celan ez dozube adituten ez neutsubela berba eguin oguija gaitic esan neutsubenian: Gorde zaitece Fariseoen ta Saduceoen labaduratic ?

12. Orduban aditu eben ez ebala esan gordetaco oguijen labaduratic, ezpada Fariseoen ta Saduceoen iracatzitic.

13. Etorri zan barriz Jesus Cesarea Filipoeneco aldeetara, eta itanduten entsen bere jarraitzallaai, cirautsela: ¿ Nor dala diñue guizonac guizonaren Semia ?

14. Eta enrac esan eben: Batzuc Juan Bautistia, batzuc barriz Elias, eta bestiac Jeremias, edo Igarletatic bat.

15. Dirautse Jesusec: ¿ Zubec barriz nor nazala ni diñozube ?

16. Erantzunic Simon Pedroc, esan eutsan: Zu zara Cristo Jaungoico bicijaren Semia.

17. Eta erantzunic Jesusce, esan eutsan: Zorijonecua zara, Simon Juanen semia: cerren araguijac eta odolac ez deutsu zuri eracutsi, ezpada nire Aita cerubetan daguanac.

18. Eta nic dirautsut zuri, zu zariala

80

Pedro, eta arri onen ganian eguingo dot neure Elessia, eta infernuco atiac ez dabe gucijago eguingo bere contra.

19. Eta zuri emongo deutsudaz cerubetaco erreiñuco guiltzac: Eta lurraren ganian lotuten dozun guztija, izango da lotuba cerubetan bere: eta lurraren ganian ascatnten dozun guztija, izango da ascatuba cerubetan bere.

20. Orduban aguindu entsen bere jarraitzallaai ez eguijuela esan iñori bera zala Jesus Cristua.

21. Ordutic asi zan Jesus aguertuten bere jarraitzallaai berac juan biar ebala Jerusalema, eta asco igaro Zaarren, Escribaeo, eta Sacerdoteen aguintarijen aldetic, eta izan biar ebala illa, eta biztu biar ebala irugarren egunian.

22. Eta arturic bera Pedroc bacarric, asi jacon aguiraca eguiten, cirautsala: Urrin zu gandic, Jauna; ez jatsu zuri au guertanco.

23. Bera biurturic Pedro ganuntz, esan eutsan: Quendu aquit aurretic, Satanas; escandaluba emoten deustac: cerren ez da-

81

zauzac Jaungoicuarenac dituan gauzac, ezpada guizonenac dituanac.

24. Orduban Jesusec esan eutsen bere jarraitzallaai: Baldin iñoc gura badau nire ondoric etorri, ucatu begui bere buruba, eta artu begui bere curutzia, eta jarraitu beguit.

25. Cerren gura dabenac salbau bere arimia, galduco dau. Eta galduten dabenac bere arimia ni gaitic, anrquituco dau.

26. ¿Cerren cer balijo deutsa guizonari irabaztiac mundu guztija, galduten badau bere arimia? ¿Edo cer emon leique guizonac bere arimiaren ordian?

27. Cerren guizonaren Semia etorrico da bere Aitaren glorijan bere Aingueruba-caz: eta ordnban emoogo deutsa bacochari bere eguitadaen sarija.

28. Eguijaz dirautsubet, badirala emen dagozanetatic batzuc, ilgo ez diranac icusi artian guizonaren Semia datorrela bere erreinuban.

82

XVII.

ETA igaro ezquero sei egun artu cituzan beragaz Jesusec Pedro, eta Santiago, eta Juan bere anaijia, eta eruan cituzan mendi altu bacar batera.

2. Eta beste irudi bat artu eban euren aurrian. Eta argui egnin eban bere arpeguijac eguzquijac leguez: eta bere soñecuac guelditu ciran zurijac edurra leguez.

3. Eta orra nun aguertu jaquezan Moyses eta Elias beragaz berbetan ciardubela.

4. Eta asiric berbetan Pedro, esan eutsan Jesusi: Janna, ondo da gu emen egotia: baldin gura badozu eguin daiguzan emen iru bicilecu, zuretzat bat, Moysesentzat bat, eta Eliasentzat bat.

5. Oraindic berac berbetan ciardubala, orra nun odei arguitsu batec estaldu cituzan. Eta orra emen, boz bat odeitic ciñuana: An da nire Seme maitia, ceñegan ni asco gozatu nazan: berari entzun eguijozube.

6. Eta entzunic icaslaac, jausi ciran auzpaz, eta euqni eben bildur andija.

7. Eta urreratu zan Jesus, eta ucutu eu-

83

tsen, ta esan eutsen: Jaigui zaitece, eta ez zaitece bildur izan.

8. Eta jasoric euren beguijac, ez eben iñor icusi, ezpada bacarric Jesus.

9. Eta jatziten cirala menditic, aguindu eutsen Jesusec, cirautsela: Ez eiquijozube esan iñori icusquizuna, guizonaren Semia illen artetic biztu dedin artian.

10. Eta itandu eutsen jarraitzallaac, ciñuela: ¿Cergaitic bada Escribac diñue, Eliasec etorri biar dabela lenago?

11. Eta berac erantzunic esan eutsen: Elias eguijaz etorrico da, eta imiñico ditu jaoquen lecubetan gauza guztijac.

12. Dirautsubet barriz, Elias onezquero etorri dala,* eta ez eben ezagutu, ezpada eguin citubezan beragaz gura citubezan gauza guztijac. Alan eurac padeciu eraguingo deutse guizonaren Semiari bere.

13. Orduban aditu eben jarraitzallaac, Juan Bautistia gaitio berba eguin eutsela.

14. Eta eldu zanian gendedira, etorri zan bera gana guizon bat eta belaunico jarriric bere aurrian, cirautsan: Jauna, erruquitu zaite nire semiagaz, cerren alditsuba da, eta

84

asco igaroten dau; bada, sarri jausten da sutara, eta ascotan uretara.

15. Eta eruan deutset zure jarraitzallaai, eta ecin izan dabe osatu.

16. Eta erantzunic Jesusec, esan eutsen: ¡O casta sinisgach ta gaistua! ¿noiz artian egongo naz zubecaz? ¿Noiz artian sufriuco zaitubet? Ecarri eguidazube ona.

17. Eta aguiraca eguin eutsan Jesusec, eta urten eban bera gandic demonioac, eta osatu zan mutilla ordu atatic.

18. Orduban urreratu ciran icaslaac Jesus gana issillian, ta esan eutsen: ? Cergaitic guc ecin izan dogu bota?

19. Esan eutsen Jesusec: Ceuben fede laburra gaitic. Cerren eguijaz dirautsubet, baldin baceunque fedia moztaza garau bat lacua, esango deutsazube mendi oni: Igaro zaite emendic ara, eta igaroco da; eta ez da izango zubentzat ecinic.

20. Casta au barriz ez da botaten ezpada erregubaren ta barubaren bitartez.

21. Eta egozala eurac Galilean, esan eutsen Jesusec: Guizonaren Semia izango da iminija guizonen escubetan,

85

22. Eta illgo dabe, eta irugarren egunian biztuco da. Eta atsacabe guztiz andi bat artu eben.

23. Eta etorriric Cafarnauma, eldu ciran dracma bijac batuten citubezanac Pedrogana, eta esan eutsen: ¿Zuben Iracasliac ez ditu paguetan dracma bijac?

24. Esan eutaen: Bai. Eta sarturic echian, aurreratu jacon Jesus, cirautsala: ¿Cer derichazu zuri Simon? Lurreco Erreguiac ¿nortzuc gandic artuten dabe tributuba edo centzua? ¿Euren semiac gandic, ala arrotzac gandic?

25. Eta berac esan eutsan: Arrotzac-gandic. Esan eutsan Jesusec: Beraz ez dabe zor semiac.

26. Baña gachbideric emon ez daguijeguben, zuaz ichasora, eta bota eguizu amuba: eta artu eguizu lelengo atrapetan dozun arraiña; eta idiguiric bere aua, aurquituco dozu lau dracmaco bat: arturic, emon eguijezu ceu gaitic, eta neu gaitic.

86

XVIII.

ORDU atan eldu ciran icaslaac Jesus gana, ciñuela: ¿Cein derichazu, andijagua dala cerubetaco erreinuban?

2. Eta deituric Jesusec ume bati, imiñi eban euren erdijan,

3. Eta esan eutsen: Eguijaz dirautsubet, ez bazare biurtuten, eta eguiten umiac lacuac, ez zare sartuco cerubetaco erreinuban.

4. Ume au leguez bada umilduten dan edocein, au da andijagua cerubetaco erreinuban.

5. Eta artuten dabenac onelaco ume bat neure icenian, neu artuten nau.

6. Eta escandalicetan dabenari nigan sinistuteu daben chiquichu oneetatic bat, oba litzaquijo imintia dinguilizca bere idunetic asto errota arri bat, eta botaco balebe ichasuaren ondora.

7. ¡Ay mnndubaren zorigaistocua escandalubac gaitio! Cerren premiñazcua da escandalubac etortia: baña ¡zorigaistocua araco guizona, ceinen bitartez datorren escandaluba!

87

8. Orregaitic baldin ceure escubac edo ceure oñac pecatu eraguin gura badeutsu, ebagui eguizu, eta bota ceu gandic: cerren oba dozu sartu bicitzan mauchu edo erren, escu bi edo oin bi dituzula botia izan baño betico sutara.

9. Eta baldin ceure beguijac pecatu eraguin gura badeutsu, atera eguizu, eta bota ceu gandic: cerren oba jatsu begui bacar bategaz bicitzan sartutia, cein da begui bi daucazuzala izan jaurtiguija suzco lecura.

10. Beguiratu eguizube ez daguizubela guichitan euqui chiquichu oneetatic bat: cerren dirautsubet, euren Ainguerubac cerubetan beti icusten dabela neure Aita cerubetan daguanaren arpeguija.

11. Cerren etorri zan guizonaren Semia salbetara galdu zana.

12. ¿Cer derichazube? Baldin baleucaz norbaiteo eun ardi, eta galduco balitz euretatic bat; ¿ez al ditu ichiten laroguetaemeretzijac mendijetan, eta ez al dua billatutera galdu zana?

13. Eta baldin jazoten bada aurquitutia: Eguijaz dirautsubet, gueijago poztuten dala

88

beragaz, beste laroguetaemeretzi galdu ez ciranacaz baño.

14. Alan ez da zuben Aita cerubetan daguauaren borondatia, galdutia chiquichu oneetatic bat.

15. Eta baldiu pecatu eguiten badau zure contra zure anaijiac, zuaz, eta aguiraca eguijozu ceure eta bere artian bacarric. Baldin entzuten badeutsu, irabaci izango dozu ceure anaijia.

16. Eta baldin entzuten ez badeutsu, artu eguizuz ceugaz oraindic bat edo bi, testigu biren edo iruen aoz aguertu dedin berba guztija.

17. Eta baldin ez badeutse entzuten eurai, esan eguijozu Elessiari. Eta baldin Elessiari entzuten ez badeutsa, izan bedi zuretzat Gentilla eta Publicanua leguez.

18. Eguijaz dirautsubet, lurraren ganian lotuten dozuben guztija, izango da lotnba ceruban bere: eta lurraren ganian ascatnten dozuben guztija, izango da ascatuba cerubau bere.

19. Barriro dirantsubet, baldin zubetarico bi alcartuten badira lurraren ganian,

89

escatuten daben gauza guztija eguingo deutse nire Aita cerubetan daguanac.

20. Cerren nun dagozan bi edo iru baturic nire icenian, an nago euren erdijan.

21. Orduban elduric Pedro bera gana, esan eutsan: ¿Jauna, cembat bidar parcatuco deutsat neure anaijiari, bidebagatasunen bat eguiten badeust? ¿zazpi bidarreraño?

22. Esan eutsan Jesusec: Ez dirautsut zazpi bidarreraño, ezpada iruroguetaamar bidar zazpiraño. *

23. Orregaitic cerubetaco erreinuba da irudituba guizon Erregue bati, gura ebanari contubetan sartu bere otseiñacaz.

24. Eta asiric contubac artuten, ecarri eutsen bat zor eutsazana amar milla taleutu.

25. Eta ez euquiric cegaz pagau, aguindu eban bere jaunac izau cedilla salduba, bera, ta bere emaztia, eta semiac, eta eucan guztija, eta pagan equijola.

26. Eta auzpazturic otseiña, erregututen eutsan, cirautsala: Icharon eguidazu, eta pagauco deutsut guztija.

27. Eta erruquituric jauna otsein aregaz, ichi eutsan, eta zorra parcatu eutsan.

90

28. Urtenic barriz otsein arec, aurquitu eban bere otsein lagunetatic bat, ceñec zor eutsazan eun diru: eta elduric, ito gura eban, cirautsala: Pagau eguidac zor deustana.

29. Eta auzpazturic bere otsein laguna, erregututen eutsan, cirautsala: Icharon eguidazu, eta guztija pagauco deutsut.

30. Berac barriz ez eban gura: ezpada juan zan, eta imiñi eraguin eban presondeguijan pagau artian zorra.

31. Icusiric barriz bere otsein lagunac igaroten ciranac, naibaguetu ciran asco: eta etorri ciran, eta adierazo eutsezan euren jaunari igaro ciran gauza guztijac.

32. Orduban deitu eutsan bere jaunac, eta esan eutsan: Otsein donguia, zor guztija parcatu neuan erregutu eustalaco:

33. ¿Ez al enduban bada euc bere erruquitu biar eure otsein lagunagaz, neu bere engaz erruquitu ncan leguez?

34. Eta aserraturic bere jauna, imiñi eban borreruben escubetan, pagau artian zor guztija.

35. Alan eguingo deutsube nire Aita cerucuac berc, baldin ez badeutsazube par-

91

catuten bacochac bere anaijiari ceuben bijotzetatic.

XIX.

ETA jazo zan, amaitu ezquero Jesusec berbaldi oneec, aldendu zan Galileatic, eta etorri zan Judeaco muguetara Jordanen beste aldetic,

2. Eta jarraitu eutsen gendedi ascoc, eta osatu cituzan an.

3. Eta eldu ciran bera gana Fariseoac esesten berari, eta cirautsela: ¿ Ichi ete leique guizonac bere emaztia edocein gauza gaitic ?

4. Berac erantzunic, esan eutsen: ¿ Ez dozube iracurri, eguin ebanac guizona asieratic, aarra ta emia eguin cituzala ? eta esan eban:

5. Onegaitic ichico ditu guizonac aita eta ama, eta batzanduco da bere emaztiagaz, eta izango dira bi aragui batian.

6. Alan bada onezquero ez dira bi, ezpada aragui bat. Jaungoicuac bada batu dabena, guizonac ez begui aldendu.

92

7. Dirautse eurac: ¿ Cergaitic bada Moysesec aguindu eban emoteco aldendubaren aguirija eta ichiteco ?

8. Esan eutsen: Cerren Moysesec ceuben bijotzeco gogortasuna gaitic ichi eutsuben botaten ceuben emaztiac: asieratic barriz ez zan alan.

9. Eta dirautsubet, bere emaztia ichiten daben edoceñec, ez izanic araguizco pecatuba gaitic, eta beste bategaz ezconduten danac, araguizco pecatuba eguiten dau; eta ichijagaz ezconduten danac, araguizco pecatuba eguiten dau.

10. Esaten deutse bere jarraitzallaac: Baldin orrelan bada guizonac emaztiagaz eguin biar dabena, ecin ezcondu leiteque.

11. Berac esan entsen: Guztijac ecin daiquee gauza au, ezpada emon jaquenac.

12. Cerren badira irendubac, amaren sabeletic alan jaijo ciranac: eta badira irendubac, guizonac egniñac: eta badira irendubac, eurac eureu burubai ebaguijac cerubetaco erreinuba gaitic. Eguin daiqnianac, daijala.

13. Orduban imiñi eutsezan aurrian ume

93

batzuc, escubac iniñi eguijuezan, eta erregutu eguijan : jarraitzallaac barriz aguiraca eguiten eutsen.

14. Jesusec barriz esan eutsen : Ichi eguijezube umiai, eta ez eguijezube eragotzi ni gana etortia : cerren alacuena da cerubetaco erreiñuba.

15. Eta iniñi ezquero euren ganian escubac, juan zan andic.

16. Eta orra nun bat elduric, esan eutsan : Iracasla ona, ¿ cer on eguingo dot jarichiteco betico bicitzia ?

17. Berac esan eutsan : ¿ Cergaitic itanduten deustazu onaren ganian ? Bat da ona, Jaungoicua. Baldin gura badozu barriz bicitzara sartu, gorde eguizuz aguindubac.

18. Esan eutsan : ¿ Ceintzuc ? Jesusec barriz esan eutsan : Ez dozu iñor illgo : Ez dozu araguizco pecaturic eguingo : Ez dozu lapurretaric eguingo : Ez deutsazu iñori guzurric asmauco.

19. Onrau eguizu ceure aita eta ceure ama; eta maitetuco dozu ceure lagun urcua ceure buruba leguez.

20. Esan eutsan zaldunac : Oneec guztijoc gorde ditut neure gazte demporatic : ¿ cer palta jat oraindic ?

94

21. Esan eutsan Jesusec : Baldin gura badozu osaro oua izan, zuaz, saldu eguizu daucazuna, eta emon eguijozu esquecuai, eta euquico dozu ondasunteguija ceruban : eta erdu, jarraitu eguidazu.

22. Entzunic barriz zaldunac berba au, juan zan motz : cerren zan ondasun andijen jaubia.

23. Eta Jesusec esan eutsen bere jarraitzallaai : Eguijaz esaten deutsubet, aberatsa nequez sartuco dala cerubetaco erreinuban.

24. Eta gueijago dirautsubet : Errazago da gambelu bat jostorratzaren zulotic igarotia, aberats bat sartutia baño cerubetaco erreinuban.

25. Entzunic barriz oneec, jarraitzallaac mirarituten ciran asco, ciñuela : ¿ Nor bada salbau leiteque ?

26. Eta beguiraturic Jesusec, esan eutsen : Guizonac au ecin eguin leije : baña Jaungoicuac guztijac eguin leiquez.

27. Orduban erantzunic Pedroc, esan eutsan : Orra nun guc ichi ditugu gauza guz-

95

tijac, eta jarraitu deutsugu : ¿ ce sari bada izango dogu ?

28. Eta Jesusec esan eutsen : Eguijaz dirautsubet, zubec, jarraitu deustazubenoc, guizaldi barrijan jarten danian guizonaren Semia bere anditasuneco aulquijan, jarrico zarela zubec bere amabi jarlecuren ganian, juzguetsco Israelgo amabi echadijac.

29. Eta edoceñec ichiten dabenac echia, edo anaijaac, edo arrebaac, edo aita, edo ama, edo emaztia, edo semiac, edo lnrrac uire icena gaitic, bacocba gaitic eun artuco dau, eta betico bicitziaren jaube izango da.

30. Asco barriz izango dira lelenguac azquenac ; ta azquenac, lelenguac.

XX.

CERUBETACO erreinuba da guizon echeco jaun baten irudicua, ceñec urten eban gossian goss artutera languillaac bere maastiraco.

2. Eta gueldituric alogueregnacaz emo-

96

teco eguneco diruba, bialdu cituzan bere maastira.

3. Eta urtenic bederatzijetaruntz, icusi cituzan beste batzuc egozala plazan alperric.

4. Eta esan eutsen : Zuace zubec bere nire maastira, eta jaotsu bena emongo deutsubet.

5. Eurac barriz juan ciran. Ostera bere barriz urten eban egüerdiruntz, eta iruretaruntz, eta bardin eguin eban.

6. Eta urten eban arratsaldeco bostetaruntz, eta aurquitu cituzan beste batzuc an egozala, ta esan eutsen : ¿ Cergaitic zagoce emen egun guztijan alperric ?

7. Esaten deutse : Iñoc ez gaituzalaco eruan alogueriau. Dirautse : Zuace zubec bere neure maastira.

8. Gaba eguin zanian bada, esaten deutsa maastijaren jaubiac bere otscin nagusijari : Deitu eguijezu languillaai, eta emon eguijezu aloguera, asiric azquenengüetatic lelengüetaraguiño.

9. Etorri ciranian bada arratsaldeco bostetaruntz etorri ciranac, artu citubezan bacochac diru bana.

97

10. Etorriric bada lelenguac bere, uste izan eben gueijago artuco ebela: artu eben barriz eurac bere diru batna.

11. Eta artuten ebela charto esaten eben echeco jauna gaitic,

12. Ciñuela: Oneec azquenenguoc ordu batian eguin eben, eta euracaz bardin eguin gaituzu, eruan dogunoc egunaren ta beruaren pisuba.

13. Baña berac erantzunic euretarico bati, esan eutsan: Adisquidia, ez deutsut eguiten bidebagatasunic: ¿ez al ciñan guelditu neugaz diru batian?

14. Artu eguizu ceuria dana, ta zuaz: gura dot oni azquenengo oni bere emon zuri beste.

15. ¿Edo ez al daiquet nic gura dodana eguin? ¿Zure beguija gaistua al da, ni ona nazalaco?

16. Alan izango dira azqueuenguac lelengo, eta lelenguac azqueuengo: cerren asco dira deitubac, barriz guichi autubac.

17. Eta igoteu ebala Jesusec Jerusalema, artu cituzan amabi jarraitzallaac issillian, ta esan eutseu:

18. Orra nun igoteu dogun Jerusalema,

98

eta guizonaren Semia izango jaque saldua Sacerdoteen Nagusijai, ta Escribaai, eta emongo deutse ilteco epaija,

19. Eta emongo deutse Gentillai destañac eguin daguijuezan, eta azotau, eta curutzian josi; eta irugarren egunian biztuco da.

20. Orduban eldu zan bera gana Zebedeoren semeen ama bere semiacaz, adoretan ebala, eta escatuten eutsala cerbait berari.

21. Berac esan eutsan: ¿Cer gura dozu? Esan eutsan: Esan eguizu neure seme bi oneec jarri ditecela, bata ceure escumaco aldian, ta bestia ezquerreco aldian ceure erreinuban.

22. Erantzunic barriz Jesusec esan eban: Ez daquizube cer escatuten dozubeu. ¿Edan bai al ciñaije neuc edango dodan calizia? Esaten deutse: Baguiñaiquc.

23. Esan eutsen: Edango dozube eguijaz nire calizia: baña jartia nire escumaco aldian edo ezquerrecuan, ez jaot niri zubei emotia, ezpada nire Aitac prestau deutsenai.

24. Eta entzunic amarrac, aserratu ciran anaija bijacaz.

25. Jesusec barriz deitu eutsen bera gana,

99

eta esan eutsen : Badaquizube erreinubetaco aguintarijac mempian euquiten ditubezala eurac : eta nagusijaguac diranac escubidiagaz aguinduten deutsela eurai.

26. Ez da izango alan zuben artian : ezpada zuben artian andijago izatia gura daben edocein, izan bedi zuben otseina :

27. Eta gura dabena zuben artian lelengua izan, izango da zuben serbitzarija.

28. Guizonaren Semia ez zan leguez etorri otseiñac euquitera, ezpada otsein izatera, eta emotera bere bicitzia ascoren arimen erospeneraco.

29. Eta urteten ebela enrac Jericotic, jarraitu eutsan gendedi ascoc.

30. Eta orra nun ichu bic jarriric egozanac bidiaren onduan, entzun eben Jesus igaroten zala, eta diadar eguin eben, ciñuela : Jauna, Daviden Semia, erruquitu zaite gugaz.

31. Gendedijac barriz aguiraca eguiten eutsen issildu citezen. Baña eurac diadar andijaguac eguiten citubezan, ciñuela : Jauna, Daviden Semia, erruquitu zaite gugaz.

32. Eta guelditu zan Jesus, eta deitu

100

eutsen, eta esan eutsen : ¿ Cer gura dozube eguin daguizubedan ?

33. Dirautse eurac : Jauna, idiguijac izan ditecela gure beguijac.

34. Erruquituric barriz euracaz Jesus, ucutu eutsen euren beguijai. Eta beriala icusi eben, eta jarraitu eutsen berari.

XXI.

ETA urreratu ciranian Jerusalema, eta eldu ciranian Bethphagera Oliveteco mendira : orduban Jesusec bialdu cituzan jarraitzalla bi,

2. Esaten eutsela : Zuace ceuben aurrian daguan errira, eta beriala aurquituco dozube astaeme bat loturic, eta umia beragaz : ascatu eguizube, eta ecarri eguidazube neuri.

3. Eta baldin iñoc ecer esaten badeutsube, esan eguijozube Jaunac euren premiñia daucala ; eta beriala ichico ditu.

4. An guztijan barriz eguin zan, bete cedin Igarliac esan ebana ciñuanian :

101

5. Esan eguijezube Siongo alabiari : Orra nun zure Erreguia jatortzun otsana, jarriric astaemiaren ganiau, eta ume bat buztarripian daguanaren semia.

6. Juanic barriz icaslaac eguin eben Jesusec eurai aguindu eutsen leguez.

7. Eta ecarri citubezan astaemia ta umia : eta imiñi citubezan oneen ganian euren soñecuac, eta berari ganian jarri eraguin entsen.

8. Gendedi andi batec barriz zabalduten cituzan bere soñecuac bidian : eta beste batzuc ebaguiten citubezan arechen erramaac, eta zabalduten citubezan bidian :

9. Barriz aurretic juazan, ta ostetic jarraituten eutsen gente aldraac, diadar eguiten eben, ciñuela : Hosanna Daviden Semiari : bedeincatuba datorrena Jaunaren icenian : Hosanna goi goijetan.

10. Eta sartu zanian Jerusalema, uri guztija jarri zan itantzen, ciñuala : ¿ Cein da au ?

11. Errijac barriz ciñuen : Au da Jesus Igarlia Nazaret Galileacua.

12. Eta sartu zan Jesus Jaungoicuaren elessan, eta botaten cituzan elesan salduten

102

eta erosten egozan guztijac ; eta jaurtigui cituzan diru trucalarijen maijac, eta uso saltzallen jarlecubac :

13. Eta esaten deutse : Escribiduric dago : Nire echia erreguco echia izango da deituba : zubec barriz eguin dozube lapurren cobaua.

14. Eta etorri ciran bera gana ichubac eta errenac elessan, eta osatu cituzan.

15. Icusirio barriz Sacerdoteen Nagusijac eta Escribaac eguin cituzan mirarijac, eta umiac ciardubela diadarrez elessan eta ciñuela : Hosanna Daviden Semiari : aserre andi bat artu eben,

16. Eta esan eutsen : ¿ Entzuten dozu cer esaten daben oneec ? Jesusec barriz esan eutsen : Bai. ¿ Ez dozube iñoz iracurri : Umeen, eta ugatzelacuen aotic atera cendubala alabantza osua ?

17. Eta ichiric areec, juan zan campora uritic Betanijara ; eta an egon zan.

18. Eta gossian biurturic urira, gose izan zan.

19. Eta icusiric pico ondo bat bidiaren albuan, urreratu zan bera gana : eta ez eban ecer aurquitu beragan ezpada orrijac bacarric,

103

eta esan eutsan: Ez doc secula gueijago picoric izango. Eta igartu zan beriala pico ondua.

20. Eta icusiric icaslaac, miraritu ciran, ciñuela: ¿Celan beriala sicatu da?

21. Erantzunic barriz Jesusec, esan eutsen: Eguijaz esaten deutsubet, baldin bacenduque fedia, eta euquico ez bacendube ezbairic, ez bacarric eguingo dozube picuarena, baita bere esango baceunsquijue mendi oni: Alde eguic, eta bota adi ichasora, eguiña izango da.

22. Eta escatnten doznben edocein gauza erreguban siniststuten dozubela, artuco dozube.

23. Eta etorriric elessara, eldu ciran bera gana eracusten eguala Sacerdoteen Nagusijac eta errico Zaarrac, ciñuela: ¿Ce escubidegaz eguiten dituzu oneec? ¿Eta noc emon deutsu zuri escubide au?

24. Erantzunic Jesusec esan eutsen: Neuc bere itanduco deutsubet berba bat: baldin an esaten badeustazube, neuc bere esango deutsubet, ce escubidegaz eguiten ditudazan oneec.

25. Juanen bautismua ¿nundicua zan?

104

¿ceruticua, ala guizonetaticua? Eta eurac gogoratuten eben euren artian, ciñuela:

26. Baldin esango baguendu, ceruticua, esango deuscu: ¿Cergaitic bada ez ceuntzen sinistu berari? Baldin barriz esango baguendu, guizonetaticua, gendedijaren bildur gara, cerren guztijac euquen Juan Igarlia leguez.

27. Eta erantzunic Jesusi, esan eben: Ez daquigu. Esan eutsen berac bere: Neuc bere ez deutsubet esaten, ce escubidegaz eguiten ditudazan oneec.

28. ¿Cer barriz derichazube? Guizon bateo eucazan seme bi, eta elduric leleogua gana, esan eutsan: Semia, zuaz gaur, biar eguizu neure maastijan.

29. Berac barriz erantzunic, esan eutsan: Ez dot nai. Guero barriz damuturic, juan zan.

30. Elduric barriz bestia gana, bardin esan eutsan: eta berac erantzunic, esan eutsan: Banua, Jauna, eta ez zan juan.

31. ¿Bijetatic ceñec eguin eban aitaren borondatia? Eurac esaten deutse: Lelenguac. Esaten deutse Jesusec: Eguijaz esa-

105

ten deutsubet, Publicanuac eta emacume galdubac juango dirala zuben aurretic Jaungoicuaren erreinura.

32. Cerren etorri zan zubec gana Juan zucentasuneco bidian, eta ez ceuntzen sinistu. Publicanuac barriz, eta emacume galdubac sinistu eutsen: zubec barriz icusiric bera ez cenduban eguin penitencijaric bere guero, sinistuteco berari.

33. Beste irndi bat entzun eguizube: Bazan guizon echeco jaun bat, ceñec imiñi eban maastija, eta esi batez inguratu eban, eta achurturic eguin eban bertan dolara bat, eta jaso eban torre bat, eta emon eutsen errentau uecazarijai, eta urrin juan zan.

34. Urreratu zanian bada maatsen demporia, bialdu cituzan bere otseiñac necazarijac gana, artu eguijezan aren maatsac.

35. Eta necazarijac, atrapanric bere otseiñac, bata zauritu eben, bata ill eben, batari barriz arrica eguin eutsen.

36. Barriro bialdu cituzan beste otsein batzuc lelenguac baño gueijago; eta bardin egnin eutsen.

37. Azquenian barriz bialdu eban eurac

106

gana bere semia, ciñuala: Lotsia gordeco deutse nire semiari.

38. Necazarijac barriz, icusiric semia, esan eben euren artian: Au da jaubegueija: erdube, ill daigun, eta euquico dogu bere senipartia.

39. Eta elduric berari, bota eben maastitic campora eta ill eben.

40. Datorrenian bada maastijaren jauna, ¿cer eguingo dau necazari areecaz?

41. Dirautse eurac: Dongaac dongaro galduco ditu: eta bere maastija emongo deutse erreutan beste necazari batzubei, pagauco deutsenai frutuba euren demporetan.

42. Esaten deutse Jesusec: ¿Ez dozube iracurri iñoz Escrituretan: Echeguillaac bazterrera bota eben arrija, au izau da iminija cantoiaren buruban? Jaunac eguin eben au, eta da miragarrija gure beguijetan.

43. Orregaitic esaten deutsubet, quenduba izango jatzubela Jaungoicuaren erreinuba, eta emona izango jacola bere frutubac eguiten dituzan erreinubari.

44. Eta jausten dana arri*onen ganera, izango da zatituba: eta berau barriz ganera jausten jacona, izango da puscatuba.

107

45. Eta entzunic Sacerdoteen Nagusijac, eta Fariseoac bere irudijac, ezagutu eben eurac gaitic berba eguiten ebala.

46. Eta billaturic celan elduco eutsen, gendedijen bildur izan ciran, cerren euquen bera Igarlia leguez.

XXII.

ETA erantzunic Jesusec, barriro berba eguin eutsen irudijetan, ciñuala:

2. Cerubetaco erreinuba da guizon Erregue baten antzecua, eguin eutsazanarena eztegubac bere semiari:

3. Eta bialdu cituzan bere otseiñac deitutera combidaubai eztegubetara, eta ez eben etorri gura izan.

4. Barriro bialdu cituzan beste otsein batzuc, esanaz: Esan eguijezube combidaubai: Orra emen neure bazcarija prestauric daucat, neure ceeenac, eta abere guicendubac illic dagoz, guztija dago prestauric: erdube eztegubetara.

5. Eurac barriz ez eutsen jaramonic eguin,

108

eta juan ciran, bata bere solora, bestia bárriz bere artuemonetara.

6. Emparaubac barriz eldu eutsen bere serbitzarijai, eta destañaz bete ezquero, ill citubezan.

7. Erregueri barriz, entzun ebanian, aserratu jacon: eta bialduric bere soldauteguijac, galdu cituzan eralla areec, eta euren urijari su emon eutsan.

8. Orduban esan eutsen bere otseñai: Eztegubac eguijaz prestauric dagoz, bañа combidauric egozanac ez ciran duiñac.

9. Zuace bada bideen urteeretara, eta aurquituten dituzuben guztijai, dei eguijczube eztegubetara.

10. Eta urtenic bere otseñac bideetara, batu citubezan aurquitu citubezan guztijac, dongaac eta onac: eta bete ciran eztegubetaco saletaco maijac combidaduz.

11. Sartu zan barriz Erregue icustera maijan jarriric egozanac, eta icusi eban an guizou bat ezteguco jantzijaz jantzi baga.

12. Eta esan eutsan: Adisquidia, ¿celan ona sartu zara euqui bagaric ezteguco jantzija? Bera barriz mututu zan.

109

13. Orduban esan eutsen Erreguec serbitzarijai: Loturic bere escubac eta oñac, bota eguizube campoco illuntasunetara: an izango da negarra ta aguin carrascadia.

14. Cerren asco dira deitubac, eta guichi autubac.

15. Orduban juanic Fariseoac, aditu ciran euren artian, atrapetaco bera berban.

16. Eta bialduten deutsez euren icaslaac Herodestarraquin, ciñuela: Iracaslia, badaquigu eguijatija zariala, eta Jaungoicuaren bidia eracusteo dozula eguijan, eta ez deutsula iñoren ardura ric: cerren ez dozu beguiratuten guizonetan uor nor dan:

17. Esan eguiguzu bada, ¿cer derichazu? ¿ondo da ceotzua emotia Cesarri, ala ez?

18. Ezaguturic barriz Jesusec euren gaistaquerija, esan eutsen: ¿Cergaitic esesten deuztazube, irudi utsez onac?

19. Eracutsi eguidazube centzoco diruba. Eta eurac esquiñi eutsen cidarrezco diru bat.

20. Eta esan eutsen Jesusec: ¿Norena da irudi au, eta ganian escribiduric daguana?

110

21. Esaten deutse: Cesarrena. Orduban esan eutsen: Emon eguijezube bada Cesarri Cesarrena, eta Jaungoicuari Jaungoicuarena.

22. Eta entzunic miraritu ciran, eta ichiric bera juan ciran.

23. Egun atan eldu ciran bera gana Sadduceuac, ceintzubec diñuen ez daguala biztuera barriric, eta itandu eutsen,

24. Ciñuela: Iracaslia, Moysesec esan ebau: Baldin iñor ilgo balitz euqui baga semeric, ezcondu dedilla bere anaijia aren emaztiagaz, eta biztu beguijo jatorrija bere anaijiari.

25. Baciran bada gure artiau zazpi anaija: eta lelengua, ezcondu ezquero, ill zan: eta ez euquiric jatorriric, ichi eutsan bere emaztia bere anaijiari.

26. Bardin bigarrena, eta irugarrena zazpigarrenera guiño.

27. Eta guztijen azquenian andria bere ill zan.

28. ¿Biztuera barrijan bada, zazpiretatio ceñena izango da emaztia? cerren guztijac euqui eben bera.

29. Erantzunic barriz Jesusec, esan eu-

111

tsen : Uts eguiten dozube, ez jaquinic Escrituraac, ez Jaungoicuaren indarra.

30. Cerren biztuera barrijan ez dira ezconduco, ez ezcontzeco emonac izango : ezpada izango dira Jaungoicuaren Ainguerubac ceruban leguez.

31. Illen biztueriaren ganian barriz, ¿ ez dozube iracurri Jaungoicuac esan ebana esaten deutsubela :

32. Ni naz Abrahamen Jaungoicua, eta Isaaquen Jaungoicua, eta Jacoben Jaungoicua ? Ez da illen Jaungoicua, ezpada bicijena.

33. Eta entzunic gendedijac, mirarituten ciran bere iracatsijan.

34. Fariseuac barriz entzunic issildu eraguin eutsela Sadduceuai, eguin eben batzaarra.

35. Eta itandu entsan euretarico batec Leguetsubac, ciricatuten ebala :

36. Iracaslia, ¿ cein da aguindu andija leguian ?

37. Esan eutsan Jesusec : Maitetuco dozu ceure Jaun Jaungoicua ceure bijotz guztitic, eta ceure arima guztijagaz, eta ceure gogo guztijagaz.

112

38. Au da aguindubetan nagusijena ta lelengua.

39. Bigarrena barriz da onen antzecua : Maitetuco dozu ceure lagun urcua ceu ceurori leguez.

40. Aguindu bi oneetan dago sarturic Legue guztija ta Igarlaac.

41. Eta egozala baturic Fariseoac, itandu eutsen Jesusec,

42. Ciñuala : ¿ Cer derichazube Cristo gaitic ? ¿ ceñen semia da ? Esaten deutse : Davidena.

43. Esan eutsen : ¿ Celan bada Davidec espirituban deituten deutsa Jauua, diñuala :

44. Esan eutsan Jaunac nire Jaunari : jarri zaite nire escumatatic, imiñi daguidazan artian ceure arerijuac ceure oñen aulquitzat ?

45. Baldin bada Davidec deituten badeutsa Jauna, ¿ celan da bere semia ?

46. Eta iñoc ecin eutsan erantzun berbaric : eta ez zan azartu iñor egun atatic berari gueijago itandutera.

113

XXIII.

ORDUBAN Jesusec berba eguin eutsen gente aldraai ta bere jarraitzallaai,

2. Ciautsela: Moysesen iracastoquijaren ganian jarri ciran Escribaac ta Fariseoac.

3. Esateo deutsuben guztija bada, gorde eguizube ta eguin: baña ez eguizube eguin euren eguitadeeñ erara: cerren esaten dabe ta ez eguin.

4. Cerren lotuten ditube carga astunac ta eruan eciñac, ta iminten ditube guizonen bizcarretan: baña ez deutse nai cirquinic bere eraguin euren atzamarragaz.

5. Euren eguitada guztijac barriz eguiten ditube guizonac icusi daguijezan: cerren darabillez narruzco ugal zabaletan nire Legueco aguindubac, eta edertuten ditube egalac.

6. Maite ditube barriz lelengo lecnbac aparijetan, eta lelengo jartoquijac Sinagoguetan,

7. Eta agurrac eguin daguijuezala plazan, eta Iracasleen icenagaz deitu daguijuela guizonac.

114

8. Zubec barriz ez eguizube nai izan deitubac izatia Iracaslaac: cerren bat bacarra da zuben Iracaslia, zubec guztijoc barriz anaijaac zare.

9. Eta ez eguijozube deitu iñori ceuben aita Jurraren ganian: cerren bat da zuben Aita, cerubetan daguana.

10. Eta ez eguijozube alcarri deitu Iracaslaac: cerren bat da zuben Iracaslia, Cristo.

11. Zuben artian andijena dana, izango da zuben serbitzarija.

12. Cerren goratuten dana, izango da beeratuba: eta beeratuten dana, izango da goratuba.

13. ¡Baña ay zuben errucarrijac, Escriba ta Fariseo irudiz bacarric onac; cerren ichiten dozube cerubetaco erreinuba guizonen aurrian: cerren ceubec ez zare sartuten, eta sartutera duazauai, ez deutsaznbe ichiten sartuten!

14. ¡Ay zuben errucarrijac, Escriba ta Fariseo irudiz bacarric onac: cerren jaten ditnzube alargunen echiac, errezu luciac errezauric: au gaitic artuco jatzubez contu estubaguac!

115

15. ¡ Ay zuben errucarrijac, Escriba ta Fariseo irudiz bacarric onac : cerren inguratuten dozube ichasua ta lurra ceuben leguera norbait ecarteco : eta ecarri daguizubenian, eguiten dozube infernubaren semc ceubec baño birritan gueijago.

16. ¡ Ay zuben errucarrijac, zucentzalla ichubac, esaten dozubenac : Juramentu eguiten daben guztijac templuba gaitic ez da ecer : baña juramentu eguiten dabenac templuco urria gaitic, zor dau !

17. ¡ Eruac, ta ichubac ! ¿ Cerren cer da andijago, urria, ala templuba urria santututen dabena ?

18. Eta altaria gaitic juramentu eguingo baleu edoceñec ez da ecer : baña altariaren ganian daguan esquintsarija gaitic juramentu eguingo baleu edoceñec, zor dau.

19. ¡ Ichubac ! ¿ Cer da barriz andijago, esquintsarija, ala altaria santututen dabena esquintsarija ?

20. Juramentu eguiten dabenac bada altaria gaitic, juramentu eguiten dau bera gaitic, eta bere ganian daguan guztija gaitic.

21. Eta juramentu eguiten dabeu edoceñec elessia gaitic, juramentu eguiten dau bera gaitic, eta bertan bici dana gaitic.

116

22. Eta juramentu eguiten dabenac ceruba gaitic, juramentu eguiten dau Jaungoicuaren jartoquija gaitic, eta bere ganian jarten dana gaitic.

23. ¡ Ay zuben errucarrijac, Escriba ta Fariseo irudiz bacarric onac, eguiten dozubenac amarrena mendatic, millutic, eta cominotic, eta ichi dituzube Leguiaren gauza astunaguac diranac, zucentasuna, eta erruquija, eta fedia ! Oneec biar ciran eguin, eta areec ez ichi eguin baga.

24. Zuceutzalla ichubac, iraciten dozubenac elchua, gambeluba barriz iruntzi.

25. ¡ Ay zuben errucarrijac, Escriba ta Fariseo irudiz bacarric onac, garbituten dituzubenac ontzijac ta platerac campotic, barruban barriz zagnce lapurretaz ta loiquerijaz beterio !

26. Fariseo ichuba, garbitu eguic lelengo ontzijaren ta plateraren barruba, garbitua izan jadin campotic daguana.

27. ¡ Ay zuben errucarrijac, Escriba ta Fariseo irudiz bacarric onac, cerren zare

117

obi zuritubén antzecuac, ceintzubec campotic beguitanduten jaquez guizonai ederrac, barrutic barriz dagoz illeu azurrez ta ciquinquerija guztijaz beteric !

28. Alan zubec bere campotic eguijaz aguertuten zachaquez guizonai onac : barruban barriz zagoce guzurrez ta gaistaquerijaz beteric.

29. ¡ Ay zuben errucarrijac, Escriba ta Farisco irudiz bacarric onac, ceintzubec eguiten dituzuben Igarleen obijac, eta apainduten dituzuben oneen eguitadeen gomutagarrijac !

30. Eta diñozube : Baldin izan baguiña gueure gurasuen egunetan, ez guiñan izango euren laguna Igarleen odolian.

31. Eta alan emoten dozube aguirija ceuben ceuroen gachian, zareela Igarlaac ill citubezanen semiac.

32. Eta zubec bete eguizube ceuben gurasoen neurrija.

33. Sierpiac, ciraun castaac, ¿ celan igues eguingo deutsazube infernuraco epaijari ?

34. Orregaitic, orra nun, nic bialduten ditudazan zubec gana Igarlaac, eta jaquitunac, eta Eracuslaac ; eta euretatic ilgo dituzube,

118

eta curutzian josico dituzube, eta euretatic azotauco dituzube ceuben Sinagoguetan, eta perseguiduco dituzube uritic uri :

35. Etorri dedin zuben ganera odol errubagaco guztija, izan zana isurija lurraren ganian, Abel errubaguiaren odoletic, Zacarias Baraquiasen semiaren odolera guiño, cein ill cenduben elessiaren eta altariaren artian.

36. Eguijaz dirautsubet, etorrico dirala oneec guztijoc guizaldi onen ganera.

37. Jerusalen, Jerusalen, ilten dituzuna Igarlaac, eta arrica eguiten deutsezuna ceu gana bialdubac diranai, ¿ cembat bidar gura izan neban batu zure semiac, olluac batuten dituzan leguez bere chitaac egoen azpijan, eta ez cenduban gura izan ?

38. Orra nun gueldituco jatsube ceuben echia iñor baga.

39. Cerren esaten deutsubet, ez nozubela icusico oraindissec, esan daguizuben artian : Bedeincatuba datorrena Jaunaren icenian.

119

XXIV.

ETA urtenic Jesusec elessatic, bajoian. Eta urreratu jacozan bere jarraitzallaac, eracusteco berari ce andi ta ederra zan elessia.

2. Berac barriz erantzunic esan eutsen: ¿ Badacutsubez oneec guztijoc ? Eguijaz esaten deutsubet, ez dala guelldituco emen arriric arrijaren ganian, botia izango ez danic.

3. Eguala barriz bere jarriric Oliveteco mendijaren ganian, eldu ciran bera gana jarraitzallaac issillian, ciñuela: Esan eguiguzu, ¿ noiz izango dira oneec ? ¿ eta cer izango da zure etorreriaren, ta mundubaren amaijaren ezagungarrija ?

4. Eta erantzunic Jesusec esan eutsen: Beguira ez zaguijezala iñoc engañau:

5. Cerren asco etorrico dira nire icenian diñuela: Ni naz Cristo, eta asco engañauco ditube.

6. Cerren entzungo dituzube guerraac, eta guerren otsac: beguira ez zaitecela

120

icaratu. Cerren oneec eguiñac izan biar dabe, baña oraindic ez da azquena.

7. Cerren jaguico da gentia gentiaren contra, eta erreinuba erreinubaren contra, eta izango dira izurrijac, eta gosiac, eta luicaraac lecubetatic.

8. Oneec guztijoc barriz miñen asierac dira.

9. Orduban emongo zaitube naibaguetubac izateco, eta illgo zaitube: eta gente guztijac gorroto izango deutsube nire icena gaitic.

10. Eta orduban gacheraco bidia artuco dau ascoc, eta alcar salduco dabe, eta alcarri gorroto izango deutse.

11. Eta guzurrezco Igarla asco jaguico dira, eta engañauco ditube asco.

12. Eta ugarituco dalaco gaistaquerija, otzituco da ascoren caridadia.

13. Barriz irauten dabena azquenera guiño, au izango da salbaua.

14. Eta predicaduba izango da erreinuco Evangelijo au mundu guztijan, gente guztijen ezagungarritzat: eta orduban etorrico da amaija.

121

15. Icusten dozubenian bada ondamendijaren igüiña, Daniel Igarliac esana, daguala lecu santnban, iracurten dabenac, aditu daguijala :

16. Orduban Judean dagozanac, igues eguin daguijela mendijetara.

17. Eta tellatuan daguana, ez bedi jatzi artutera cerbait bere echetic.

18. Eta campuan daguana, ez bedi biurtu artutera bere tuniquia.

19. ¡Baña ay seindun dagozanen, ta seña aciten dauquenen errucarrijac egun areetan!

20. Erregutu eguizube bada, jazo ez dedin zuben iguesa neguban, edo Zapatuban.

21. Cerren izango da orduban naibague andija, celacua izan ez dan mundubaren asieratic orain artian, ta izango bere ez dan.

22. Eta laburtubac izango ez balira egun areec, ez litzateque iñor salbauco : baña autubac gaitic laburtubac izango dira egun areec.

23. Orduban baldin iñoc esango baleutsube : Beguira, emen dago Cristo, edo an : ez eguijozube sinistu.

122

24. Cerren jaguico dira guzurrezco Cristuac eta guzurrezco Igarlaac : eta eguingo ditube ezagungarri andijac eta mirarijac, allaguiña ce siniste charrera ecarrico litnquez, baldin al balitz, autubac bere.

25. Beguira aurrez esan deutsubedala.

26. Baldin bada esango baleutsube : Orra nun eremuban dago, ez eguizube urten : orra nun echeco lecuric ezcatubenetan, ez eguijezube sinistu.

27. Cerren oñaztubac urteten daben leguez eguzquijaren urteeratic, eta icusten dan sarrerarañotic, alan izango da guizonaren Semiaren etorreria bere.

28. Nunnai daguala gorputza, an batuco dira arranuac bere.

29. Beriala barriz egun areetaco naibagoiaren ondoric, eguzquija illunduco da, eta illarguijac ez dau emongo bere arguija, eta izarrac jausico dira cerutic, eta cerubetaco birtutiac cirquin eguingo dabe.

30. Eta orduban aguertuco da guizonaren Semiaren ezagungarrija cernban : eta orduban negar eguingo dabe lurreco echadi guztijac, eta icusico dabe guizonaren Semia

123

datorrela ceruco odeijetan, escubide ascogaz ta anditasunagaz.

31. Eta bialduco ditu bere Ainguerubac trompetiagaz ta boz andijagaz: eta batuco ditube bere autubac lau asseetatic, ceruben güenetatic euren barrenengo amaijetaraño.

32. Pico arechetic barriz icasi eguizube bardincuntzia: bere erramia ija samurra daguanian, eta orrijac urtenac, badaquizube urrian dala udia:

33. Alan znbec bere icusten dituzubenian oneec guztijoc, jaquin eguizube urrian dala atetan.

34. Eguijaz dirautsubet, ez dala igaroco guizaldi au, oneec guztijoc jazo ditecen artian.

35. Ceruba ta lurra igaroco dira, uire berbaac barriz ez dira igaroco.

36. Egun ta ordu aren barriric barriz iñoc ez daqui, ez da cerubetaco Ainguerubac bere, ezpada bacarric Aitac.

37. Noeren egunetan leguez barriz, alan izango da guizonaren Semiaren etorreria bere.

38. Cerren ujolia baño lenagoco egunetan

124

egozan leguez jaten ta edaten, ezconduten ta ezcontzaraco emoten, Noe uchan sartu zan egun atara guiño,

39. Eta ez eben ezagutu etorri zan artian ujolia, ta eruan guztijac: alan izango da guizonaren Semiaren etorreria bere.

40. Orduban bi egongo dira campuan: bata izango da artuba, eta bestia ichija.

41. Emacume bic jardungo dabe eijoten errotan: bata izango da artuba, eta bestia ichija.

42. Zagoce bada iratzarriric, cerren ez daquizube ce ordutan ceuben Jauna etorrico dau.

43. Jaquin eguizube bada au, baldin balequi echeco jaunac ce ordutan lapurra etorrico dan, iratzarriric egongo litzatoque eguijaz, eta ez leuque ichico zulatuton bere echia.

44. Orregaitic zubec bere egon zaitece prestauric: cerren ez daquizuben orduban guizonaren Semia etorrico da.

45. ¿Cein uste dozn dala otsein leijal ta zurra, bere jaunac bere familijaren ganian iniñi ebana, emoteco eurai jaten demporaz?

46. Zorijonecua otsein a, bere jaunac

125

datorrenian, aurquituten dabena alan eguiten dabela.

47. Eguijaz dirautsubet, imiñico dabela bere onera guztijen ganetic.

48. Eta baldin esango baleu otsein gaisto arec bere bijotzian : Nire jaunari belututen jaco etortia,

49. Eta asico balitz joten bere otsein lagunac, jaten barriz ta edaten ordijacaz :

50. Etorrico da otsein aren jauna icharoten ez daben egunian, eta ez daquijan orduban :

51. Eta quenduco dau, eta imiñico dau partill eguinic otsein gaistuacaz. An izango da negarra ta aguin carrascadia.

XXV.

ORDUBAN cerubetaco erreinuba izango da amar birgiñen antzecua, ceintzubec arturic euren arguiontzijac, urten eutseen bidera ezcombarrijai.

2. Euretatic bost barriz ciran eruac, eta bost zurrac :

126

3. Baña bost eruac, artnric arguiontzijac, ez eben eruan orijoric euracaz.

4. Zurrac barriz artu eben orijua euren ontzijetan arguiontzijacaz.

5. Luzaturic barriz ezcombarrijaren etorreria, loguratu ciran guztijac, eta luac artu cituzan.

6. Gabaren erdijan barriz entznn zan diadar bat : Orra nun ezcombarrija datorren, urten eguijezube bidera.

7. Orduban jagui ciran birgiña guztl areec, eta prestau citubezan euren lamparaac.

8. Eruac barriz zurrai esan eutsen : Emon eguiguzube ceuben orijotic, cerren gure lamparaac amatetan dira.

9. Erantzun eben zurrac ciñuela : Badezpadan asco izan ez dedin guretzat ta zubentzat, oba juan zaitezela saltzallaac gana, ta erostia ceubentzat.

10. Erosten ciran artian barriz, etorri zan ezcombarrija : eta prestauta egozanac, sartu ciran beragaz eztegubetana, eta ichi zan atia.

11. Azquenic bada badatoz beste nescatillac bere, ciñuela : Jauna, Jauna, idigui eguiguzu.

127

12. Barriz berac erantzunic, esan eutsen: Eguijaz dirautsubet ez zaitubedaz ezagututen.

13. Iratzarriric egon bada, cerren ez daquizube eguna, ez orduba.

14. Cerren celan guizon batec urriñera doianac deitu eutsen bere serbitzarijai, eta emon eutsezan bere ondasunac:

15. Eta batari emon eutsazan bost talentu, bestiari barriz bi, eta bestiari bat, bacochari bere indarraren erara, eta juan zan beriala.

16. Juan zan bada bost talentu artu cituzana, eta jardun eban artnemonian euracaz, eta irabaci citnzan beste bost.

17. Bardin bi artu cituzanac bere, irabaci cituzan beste bi.

18. Bat artu ebanac barriz, juanic eguin eban zulo bat lurrian, eta ezcutau eban bere jaunaren diruba.

19. Igaroric barriz dempora asco etorri zan otsein areen jauna, eta artu eutsezan contubac.

20. Eta etorriric bost talentu artu cituzana, esquiñi eutsazan beste bost talentu, ciñuala: Jauna, bost talentu emon ceustazan,

128

orra emen beste bost irabaci dituzanac arez ganetic.

21. Esan eutsan bere jaunac: Ederto, otsein on ta leijala; guichijan leijala izan zarialaco, imiñico zaitut ascoren ganian, sartu zaite ceure jaunaren atseguiñian.

22. Eta eldu zan talentu bi artu cituzana bere, eta esan eban: Jauna, talentu bi emon ceustazan niri, orra emen beste bi irabaci ditudazanac.

23. Esan eutsan bere jaunac: Ondo dago, otsein on ta leijala; guichijan leijala izan zarialaco, imiñico zaitudaz ascoren ganian, sartu zaite ceure jaunaren atseguiñian.

24. Eldurio barriz talentu bat artu ebana bere, esan eban: Jauna, badaquit guizon gogorra zariala, ebaguiten dozu erein ez cenduban lecuban, eta batuten dozula zabaldu ez cenduban lecuban:

25. Eta bildur izanic juan nintzan, eta ezcutan neban talentuba lurrian: orra emen nun daucazun ceuria dana.

26. Erantzunic barriz bere jaunac, esan eutsan: Otsein gaistua ta naguija, baenquijan ebaguiten juadala ereiten ez juadan lecuban,

129

eta batuten juadala zabalduten ez juadan lecuban :

27. Biar euan bada imiñi nire diruba irabacijan, eta etorriric ni, artuco najuan eguijaz neuria duana gueituta.

28. Quendu eguijezube bada berari talentuba, eta emon eguijezube amar talentu daucazanan.

29. Cerren daucan guztijari emongo jaco, eta euquico dau ugarijago : barriz ez daucanari, daucala dirudijana bere quenduco jaco.

30. Eta otsein alperra bota eguizube campoco illuntasunetara : an izango da negarra ta aguinen carrascadia.

31. Datorrenian barriz guizonaren Semia bere anditasunian, eta Aingueru guztijac beragaz, orduban jarrico da bere anditasunaren jarlecuban :

32. Eta batubac izango dira bere aurrian gente guztijac, eta aldenduco ditu alcar gaudic, artzaiñac aldenduten dituzan leguez ardijac aumeetatic :

33. Eta imiñico ditu ardijac bere escumatatic, aumiac barriz ezquerretatic.

34. Orduban esango deutse Erreguec bere

130

escumatatic egongo diranai : Erdube, neure Aitaren bedeincatuboc, gozau eguizube mundubaren asieratic zubentzat prestauric daguan erreinuba :

35. Cerren gose izan nintzan, ta emon ceusten jaten : egarri izan nintzan, ta emon ceusten edaten : bidastija nintzan, ta artu ninduzuben ostatuz :

36. Billosic, ta estaldu ninduzuben : gueissoric, ta bisitau ninduzuben : presondeguijan nenguan, ta etorri ciñen ni gana.

37. Orduban erantzungo deutse justubac, diñuela : Jauna, ¿ noiz icusi cinduguzan gosez, ta jaten emon gueuntzun : egarriz, ta emon gueuntzun edarija ?

38. ¿ Noiz barriz icusi cinduguzan arrotz, ta artu cinduguzan ostatuz : edo billosic, eta estaldu cinduguzan ?

39. ¿ Edo noiz icusi cinduguzan gueissoric, edo presondeguijan, eta etorri guiñan zu gana ?

40. Eta erantzunic Erreguec, esango deutse : Eguijaz esaten deutsubet, eguin ceuntzenian neure anaija chiqui oncetatic bati, neuri eguin ceusten.

131

41. Orduban esango deutse ezquerretatic egongo diranai bere : Alde eguizube ni gandic, madaricatuboc, betico sutara, prestauric daguanera diabruarentzat ta bere ainguerubentzat.

42. Cerren gose izan nintzan, eta ez ceusten emon jaten : egarri izan nintzan, ta ez ceusten emon edaten :

43. Bidastija nintzan, ta ez ceusten emon ostatuba : billosic nenguan, ta ez ninduzuben estaldu : gueissoric, ta presondeguijan, ta ez ninduzuben bisitau.

44. Orduban erantzungo deutse eurac bere, diñuela : Jauna, ¿ noiz icusi cinduguzan gosez, edo egarriz, edo bidastiz, edo billosic, edo presondeguijan, eta ez gueuntzun lagundu ?

45. Orduban erantzungo deutse, esanaz : Eguijaz esaten deutsubet, ez ceuntzenian eguin cbiquicbu oneetatic bati, niri bere ez ceusten eguin.

46. Eta juango dira oneec betico peuectara ; justubac barriz betico bicitzara.

132

XXVI.

ETA jazo zan amaitu ezquero Jesusec berbaldi guzti oneec, esan eutsen bere jarraitzallaai :

2. Badaguizube egun bi barru izango dala Pascua, eta guizonaren Semia izango da salduba, curutzian josija izateco.

3. Orduban batu ciran Sacerdoteen Nagusijac eta errico Zaarrac Sacerdoteen Nagusijaren Caifas erichanaren ataijan :

4. Eta batzaarra eguin eben atrapetaco Jesus marroz, eta ill eraguiteco.

5. Ciñuen barriz : Jai egunian ez, jagui ez dedin machioadaren bat errijan.

6. Eguala barriz Jesus Betanijan Simon leguentijaren echian,

7. Eldu zan bera gana emacume bat eucala alabastrozco ontzi bat ugentu balijozcoz betia, eta isuri eban bere burubaren ganian, egoala maijan jarriric.

8. Icusiric barriz jarraitzallaac, aserratu jaquen, ciñuela : ¿ Cetaraco alperric galdu au ?

133

9. Cerren saldu zatequian au caru, eta emon esquecuai.

10. Jaquinic barriz Jesusec, esan eutsen: ¿ Cergaitic zare gogaicarrijac emacume onentzat ? cerren eguite ona eguin dau nigan.

11. Cerren beti daucazubez esquecuac ceubecaz: ni barriz ez naucazube beti.

12. Cerren isuriric onec ugentu au nire gorputzian, ni obituteco eguin dau.

13. Eguijaz esaten deutsubet, edonun Evangelijo au predicauba dan mundu guztijan, esango da bere onec eguin dabena, bere gomutaraco.

14. Orduban juan zan amabijetatic bat Judas Iscariote erichana, Sacerdoteen Nagusijac gana:

15. Eta esan eutsen: ¿ Cer gura deustazube nire emon, eta neuc iminico dot zuben escubetan? Eta eurac esquiñi eutsezan ogetaamar diru cidarrezco.

16. Eta ordutic billatuten eban eria iminteco bera areen escubetan.

17. Azimoen lelengo egunian barriz, eldu ciran jarraitzallaac Jesus gana, ciñuela: ¿ Nuu gura dozu prestau daizugun Pascua jateco ?

134

18. Eta Jesusec esan eutsen: Zuace urira urlija gana, eta esan eguijozube: Iracasliac diño: Nire demporia urrian da, ceure echian eguiten dot Pascua neure icaslaacaz.

19. Eta eguin eben icaslaac Jesusec aguindu eutsen leguez, eta prestau eben Pascua.

20. Etorriric barriz arratsia, eguan maijan jarriric bere amabi icaslaacaz.

21. Eta jaten ciardubela eurac, esan eb[illegible]n: Eguijaz dirautsubet, zubetatic bateo salduco nabela.

22. Eta eurac naibague andi batez beteric, asi zan bacocha esaten: ¿ Ni ete naz, Jauna ?

23. Eta berac erantzunic esan eban: Sartuten dabenac nigaz escuba platerian, onec saldnco nau.

24. Guizonaren Semia badua eguijaz, bera gaitic escribiduta daguan leguez: baña ay errucarrija guizon arena, ceñen bidez salduba izango dan guizonaren Semia: oba zan berctzat baldin jaijo ez balitz guizon a.

25. Erantzunic barriz Judasec, saldu ebanac, esan eban: ¿ Ni al naz, Iracaslia? Erantzun cutsan: Ceuc esan dozu.

135

26. Apaltzen ciardubela barriz eurac, artu eban Jesusec oguija, eta bedeincatu eban, eta ebagui, eta emon eutseu bere jarraitzallaai, eta esan eutsen: Artu eguizube, eta jan eguizube: au da nire gorputza.

27. Eta arturio calizia, esquerrac emon cituzan, eta emon eutsen, esanaz: Edan eguizube onetatic guztijoc.

28. Cerren au da oire odola testamentu barricua, asco gaitic isurija izango dana pecatuben parcaciñoraco.

29. Esaten deutsubet barriz, ez dodala edango gaurtic gueijago maatsaren frutu ouetatic araco egun atara artian, edan daguidanian zubecaz barrija neure Aitaren erreinuban.

30. Eta csquerrac emonic, urten eben Oliveteco mendiruntz.

31. Orduban esan eutsen Jesusec: Zubec guztijoc gacheraco bidia artuco dozube nigan gau onetan, cerren escribiduric dago: Zaurituco dot artzaña, eta egabanatuco dira artaldico ardijac.

32. Barriz barriro biztu ezquero, juango naz zuben aurretic Galileara.

136

33. Erantzunic barriz Pedroc, esan eutsan: Baldin guztijac gacheraco bidia artuten badabe bere zugan, nic ez dot iñoz gacheraco bideric artuco.

34. Esan eutsan Jesusec: Eguijaz esaten deutsut, gau onetan, ollarrac jo baño lenago, iru bidar ucatuco nozula.

35. Esan cutsan Pedroc: Zugaz ill biar baneu bere, ez zaitut ucatuco. Bardin esan eben beste icasla guztijac bere.

36. Orduban etorri zan Jesus euracaz Getsemani dericban barruti batera, eta esan eutsen bere icaslaai: Jarri zaitece emen, juan naitian artian ara ta erregu eguin daguidan arte.

37. Eta arturic Pedro ta Zebedeoren seme bijac, asi zao atsacabetu eta larrituten.

38. Orduban esan eutsen: Estu dago nire arimia ill arteraño: icharon eguizube emen, eta eguizube gaubela neugaz.

39. Eta juanic aurrerachuago, auzpaztu zan, erregututen ebala, ta ciñuala: Aita neuria, baldin al bada, igaro bedi ni gandic caliza au: baña ez nic gura dodan leguez, ezpada zuc leguez.

137

40. Eta etorri zan bere icaslaac gana, eta aurquitu cituzan lotan egozala, eta dirautsa Pedrori: ¿Beraz, ecin egon izan zare ordu batian gaubelan neugaz?

41. Zagoce iratzarriric, eta erregu eguizube, sartu ez zaitecen tentacinoian. Espiritua eguijaz prest dago, araguija barriz argala.

42. Barriro bigarrenez juan zau, eta erregu eguin eban, ciñuala: Aita neuria, baldin ecin bada caliza au igaro nic edan baga, eguin bedi zure borondatia.

43. Eta etorri zan ostera, eta aurquitu cituzan lotan egozala, cerren euren beguijac egozan astunac.

44. Eta ichiric eurac, barriro juan zan, eta erregu eguin eban irugarrenez, leengo berbaac eurac esaten cituzala.

45. Orduban etorri zan bere icaslaetara, eta esan eutsen: Lo eguizube onezquero, eta atseden eguizube: orra nun, urreratu dan orduba, eta guizonaren Semia izango da imiñija pecatarijen escubetan.

46. Jagui zaitece, guazan: orra urreratu da salduco nabena.

47. Oraindic berac berbetan ciardubala,

138

orra nun, Judas, amabijetatic bat, etorri zan, eta beragaz gendedi audija ezpatacaz ta maquillacaz, Sacerdoteen Nagusijac eta errico Zaarrac bialdubac.

48. Saldu ebanac barriz emon eutsen ezagungarrija, ciñuala: Nic mosu emoten deutsadana, bera da, eldu eguijozube.

49. Eta beriala eldurio Jesus gana, esan eutsan: Agur, Iracaslia. Eta mosu emon eutsan.

50. Eta esan eutsan Jesusec: ¿Adisquidia, cetara etorri zara? Orduban eldu ciran, eta ezarri eutsezan escubac Jesusi, eta atrapau eben.

51. Eta orra nun, Jesusgaz egozanetatic batec, luzaturic escuba, atera eban bere ezpatia, eta joric Sacerdoteen Nagusijaren otseiña, ebagui eutsan bere belarrija.

52. Orduban esan entsan Jesusec: Biurtu eguizu ceure ezpatia bere lecura: cerren ezpatia artuten daben guztijac ezpataz illgo dira.

53. ¿Uste al dozu, ecin neiquijola erregutu neure Aitari, eta emongo leusque dazala niri orain amabi Aingueru aldra bañó gueijago?

139

54. ¿ Celan bada beteco dira Escrituraac, gauzaac onelan eguiñac izan biar dabela ?

55. Ordu atan esan eutsen Jesusec gendedijai : Lapurra gana leguez urteu dozube ezpatacaz ta maquillacaz ni atrapetara : egunoro zubecaz nenguan jarriric iracasten elessan, eta ez ninduzuben atrapau.

56. Au guztijau barriz eguin zan, bete ceitezan Igarlaac escribidu citubezanac. Orduban icasla guztijac, ichiric bera, igues eguin eben.

57. Eta areec elduric Jesusi, eruan eben Caifas Sacerdoteen Nagusija gana, nun Escriba ta Zaarrac batu ciran.

58. Pedroc barriz jarraituten eutsan urriñetic Sacerdoteen Nagusijaren atairaño. Eta sarturic barrura, eguan jarrita otseñacaz, icusteco azquena.

59. Sacerdoteen Nagusijac, eta Batzaar guztijac barriz billatuten eben guzurrezco asmacinoia Jesusen contra, bera erijotzaraco emoteco :

60. Eta ez eben aurquitu, testigu guzurrezco asco ecarri arren. Azquenic barriz etorri ciran guzurrezco testigu bi,

140

61. Ta esan eben : Onec esan dau : Bota neique Jaungoicuaren elessia, eta iru egun barru barriro eguin.

62. Eta jaguiric Sacerdoteen Nagusija, esan eutsan : ¿ Ez dozu ecer erantzuten oneec zu gaitic esaten ditubezan gauza charretara ?

63. Jesus barriz issillic eguan. Eta Sacerdoteen Nagusijac esan eutsan : Jaungoico bicijaren icenian, itanduten deutsut, esan daguiguzula, zu bazara Cristo Jaungoicuaren Semia.

64. Esaten deutsa Jesusec : Ceuc esan dozu : alambere esaten deutsubet, oraindic icusico dozube guizonaren Semia jarriric Jaungoico indartsubaren ezcumatatic, eta datorrela ceruco odeijetan.

65. Orduban Sacerdoteen Nagusijac urratu cituzan bere soñecuac, ciñuala : Blasfemau dau. ¿ Cetaraco ditugu onezquero salatsallaac ? Orra emen, orain entzun deutsazube blasfemija :

66. ¿ Cer deribazube ? Eta eurac erantzunic, esan eben : Erijotziaren errudun da.

67. Orduban chistu urtica jardnn eutsen

141

bere arpeguira, eta ucabilca ezarri eben, beste batzuc barriz escu zabalacaz emon eutsezan bere arpeguijan,

68. Ciñuela : Igarri eguiguc, Cristo, ¿ nor doc zauritu abena ?

69. Pedro barriz eguan jarrita campuan ataijan : eta eldu zan bera gana otsein nescatilla bat, cirautsala : Zu bere Jesus Galileacuagaz cengozan.

70. Baña berac ucatu eban guztijen aurrian, ciñuala : Ez jaquiñat cer diñonan.

71. Urtenic barriz berac atera, icusi eban beste otsein nescatilla batec, eta esan eutsen an egozanai : Au bere eguan Jesus Nazarenuagaz.

72. Eta barriro ucatu eban juramentubagaz, ciñuala : Ez ebala ezagututen alaco guizonic.

73. Eta guerochuago eldu ciran an egozanac, eta esan eutsen Pedrori : Eguijaz zu bere euretaricua zara : cerren zure berbetiac bere aguertuten zaitu.

74. Orduban asi zan hiraoca ta juramentuca ez ebala ezagututen alaco guizonic. Eta beriala ollarrac jo eban.

142

75. Eta gomutau zan Pedro Jesusen berba, esan eutsanagaz : Ollarrac jo baño lenago, iru bidar ucatuco nozu. Eta urtenic campora, eguin cituzan negar mingochac.

XXVII.

ELDURIC barriz gossa, eguin eben batzarra Sacerdoteen Nagusi guztijao eta errico Zaarrac Jesusen contra, bera ill eraguiteco.

2. Eta loturic eruan eben, ta emon eutsen Poncio Pilatos Gobernarijari.

3. Orduban icusirio Judasec, bera saldu ebanac, ilteco epaija emon eutsela, damuturic, biurtu eutsezan oguetaamar diru cidarrezcuac Sacerdoteen Nagusijai ta Zaarrai,

4. Cirautsela : Pecatu eguin dot salduric odol errubaguia. Eta eurac esan eutsen : ¿ Cer jeuscuc guri ? euc beguiratu biar eban.

5. Eta jaurtiguiric cidarrezco dirubac elessan, aldendu zan, eta juanic, urcatu zan.

6. Sacerdoteen Nagusijac barriz, arturic

143

cidarrezco dirubac, esan eben : Ez dira bota biar atabacara, odolaren sarija dalaco.

7. Eunonic barriz euren erechijac onen ganian, erosi eben areecaz lapicoguin baten landia, arrotzac obituteco.

8. Au gaitic izan zan deituba landa a Haceldama, au da, odol landia, gaurco egunera guiño.

9. Orduban bete zan Jeremias Igarliac esan ebana, ciñuanian : Eta artn citubezan oguetaamar cidarrezco dirn, ceintzubec diran salduba izan danaren sarija, ceñetan erosi jaquen Israelgo semiai.

10. Eta emon citubezan ontziguin baten landia gaitic, Jaunac aguindu eustan leguez.

11. Jesus barriz izan zan eruana Gobernarijaren anrrera : eta itandu eutsan Gobernarijac, cirautsala : ¿ Zu zara Judeguben Erreguia ? Esaten deutsa Jesusec : Ceuc diñozu.

12. Eta salatuten beben bere Sacerdoteen Nagusijac eta Zaarrac, ez eban ecer erantzun.

13. Orduban esaten deutsa Pilatosec : ¿ Ez dantzuzu cembat gauza diñuezan oneec zure gachian ?

144

14. Eta ez cutsan erantzun berba batera bere, allaguiña ce Gobernarija miraritu zan guztiz asco.

15. Pascuaco egun andijan barriz, Gobernarijac emon oi eutsan errijari ascatuta, eurac nai eben catigu bat.

16. Eucan barriz ordnban loturic, Barrabas erichan entzute andico bat.

17. Baturic bada eurac, esan eutsen Pilatosec : ¿ Cein gura dozube emon daguizubedan ? ¿ Barrabas, ala Jesus, Cristo derichana ?

18. Cerren bequijan ondamuz ecarri eutsela.

19. Eguala barriz jarriric bere epai aulquijan, bialdu eban bera gana bere emaztiac esatera : Ez zaite sartu errubagaco orren gauzetan : cerren asco igaro dot gaur amesetan bera gaitic.

20. Sacerdoteen Nagusijac barriz eta Zaarrac burutan imiñi eutsen errijai, escatu eguijela Barrabas, Jesus barriz galdu eraguijela.

21. Erantzunic barriz Gobernarijac, esan eutsen : ¿ Bijetatic cein gura dozube ascaturic

145

emon daguizubedan ? Eta eurac esan eben : Barrabas.

22. Esaten deutse Pilatesec : ¿ Cer bada cguingo dot Jesus, Cristo derichanagaz ?

23. Diñue guztijac : Izan bedi curutzian josija. Esaten deutse Gobernarijac : ¿ Ce gauza char bada eguin dau ? Eta eurac gueijago diadar eguiten eben, ciñuela : Izan bedi curutzian josija.

24. Icusiric barriz Pilatosec ez ebala ecer aurreratuten, ezpada gueitubaz joiala machiñadia, arturic ura, garbitu cituzan escubac errijaren aurrian, ciñuala : Errubagaric nago ni justu orren odoletic : beguira ceubec.

25. Eta erantzunic erri guztijac, esan eban : Bere odola gure ganera, ta gure semeen ganera.

26. Ordubau ichi eutsen Barrabas : Jesus barriz azotauric, emon eutsen curutzian josija izan cedin.

27. Orduban Gobernarijaren soldadubac, arturic Jesus jaureguiraco, batu eben bera gana aldra guztija :

28. Eta billosturic bera, granazco mantu bat imiñi eutsen :

146

29. Eta ijoric coroia arantzacaz, imiñi eutsen bere burubaren ganian, eta cañaberia bere escuman : eta belaunicoturic bere aurrian, destañac eguiten eutsezan, ciñuela : Agur, Judeguben Erreguia.

30. Eta chistuca jardunic berari, artu eben cañaberia, eta zaurituten eutsen bere buruba.

31. Eta destañac eguin ezquero berari, erantzi eutsen mantua, eta jantzi eutsezan bere soñecuac, eta eruan eben curutzian positera.

32. Urtenic barriz aurquitu eben guizon bat Cirenecua, Simon icena ebana : oni artu eraguin eutsen Jesusen curutzia.

33. Eta etorri ciran Golgotha derichan lecu batera, au da, Calbarijoco lecura.

34. Eta emon eutaen edaten ardaua beaztunagaz naastauric : eta probauric, ez eban gura izan edan.

35. Curutzian josi ezquero harriz, partiu citubezan bere soñecuac, botaric suertia : bete cedin Igarliac esan ebana ciñuanian : Partiu citubezan nire soñecuac, eta nire soñecuaren ganian bota eben suertia.

147

36. Eta jarriric zainduten eben.

37. Eta imiñi eben bere burubaren ganian bere causia escribiduric : Au da Jesus Judeguben Erreguia.

38. Orduban izan ciran curutzian josijac beragaz lapur bi : bata escumatatic, ta bestia ezquerretatic.

39. Andic igaroten ciranac barriz gaisqui esaca ciarduben bera gaitic eraguinic euren burubai,

40. Eta ciñuela : Ya i botaten duana Jaungoicuaren elessia, ta iru egun barru barriro eguiten duana, salba adi : Jaungoicuaren Semia baaz, jatsi adi curutzetic.

41. Bardin Sacerdoteen Nagusijac bere destañac eguiñic Escribaacaz eta Zaarracaz, ciñuen :

42. Beste batzuc salbau jituc, bera ecin doc salbau : Israelgo Erregue badoc, jatsi jadilla orain curutzetic, eta sinistuten jeutsagu.

43. Icharon juan Jaungoicuagan : librau jaijala orain, baldin gura bajoc ; cerren esan juan : Jaungoicuaren Semia zuala.

44. Gaisqui oneec euroc esaten eutsezan

148

beragaz curutzian josiric egozan lapurrac bere.

45. Eguberditic barriz iruretaraño illundu zan mundu guztija.

46. Eta irurac urrian ciranian, diadar eguin eban Jesusec boz andi bategaz, ciñuala : Eli, Eli, ¿ lamma sabacthani ? au da : Neure Jaungoicua, neure Jaungoicua, ¿ cergaitic ichi nozu ?

47. An egozan batzuc barriz, eta entzunic oneec, ciñuen : Eliasi deituten jeutsac onec.

48. Eta beriala juanic arin euretatic bat, arturic esponja bat, bete eban vinagrez, eta imiñi eban cañabera bateu, ta emoten eutsan edaten.

49. Bestiac barriz ciñuen : Ichi, dacuscun ete datorren Elias berau libretara.

50. Jesusec barriz, bigarrenez diadar andi bat eguinic, emon eban azquenengo arnasia.

51. Eta, arra nun, elessaco estalquija urratu zan zati bitan, goitic beera guiño : eta lurra icaratu zan, eta arrijac zatitu ciran :

52. Eta illen obijac idigui ciran : eta ill ciran Santuben gorputz asco biztu ciran,

149

53. Eta urtenic obijetatic bere biztuera barrijaren ondoren, etorri ciran uri santura, ta aguertu jaquezan ascori.

54. Centurionec barriz, eta beragaz egozanac zainduten Jesus, icusiric luicaria, eta jazoteu ciran gauzaac, bildur andi bat artu eben, eiñuela: Eguijaz Jaungoicuaren Semia zan au.

55. Egozan barriz an emacume asco urriñetic, jarraitu eutsenac Jesusi Galileatic, serbietan ebela:

56. Ceintzuben artian eguan Maria Magdalena, eta Maria Santiagoren ta Joseren ama, eta Zebedeoren semeen ama.

57. Elduric barriz arratsaldia, etorri zan guizon aberats bat Arimateacua, Jose erichana, cein bere zan Jesusen jarraitzallia.

58. Au eldu zan Pilatos gaua, eta escatu eutsan Jesusen gorputza. Orduban Pilatosec aguindu eban emon equijola gorputza.

59. Eta arturic gorputza, Josec batu eban izara garbi baten.

60. Eta imiñi eban bere obi barri, achian idigui ebanian. Eta ichi eban arri andi batcgaz obijaren sarreria, eta juau zan.

150

61. Eguan barriz an Maria Magdalenia, eta beste Marija, jarriric obijaren aurrian.

62. Beste egunian barriz, cein dan Parasceveri darraicona, batu ciran Sacerdoteen Nagusijac ta Fariseoac Pilatosen aurrian,

63. Ciñuela: Jauna, gomuta gara, guzurti arec esan ebala oraindic biciric eguala: Iru egun igaroric barriro biztuco naz.

64. Aguindu eguizu bada zaindu dedilla obija irugarren egunera guiño, etorri ez ditecen bere jarraitzallaac, eta ostu ez daguijen, eta esan errijari: Biztu zan illen artetic: eta izango da azqnenengo erracuntzia lelengua baño dongagua.

65. Esan eutsen Pilatosec: Badaucazubez jaolaac, zuace, zaindu eguizube daquizuben leguez.

66. Eurac bada juanic, inguratu eben obija, silluturic arrija, jaolaacaz.

151

XXVIII.

ZAPATUBAREN arratsaldian barriz, astiaren lelengo egunaren egunsentijan, etorri zan Maria Magdalenia, eta beste Marija icustera obija.

2. Eta orra nun izan zan luicara andi bat: cerren Jaunaren Aingueruba jatsi zan cerutic, eta urreraturic, quendn eban arrija, eta egnan jarriric bere ganian.

3. Zan barriz bere ichuria oñaztuba lacua, eta bere soñecua edurra lacua:

4. Bere bildurrez barriz icaratu ciran jaolaac, eta guelditu ciran illic leguez.

5. Asiric barriz berbetan, Aingueruba esan eutsen emacumiai: Ez eguizube bildurric euqui zubec: cerren badaquit billatuten dozubela Jesus, curutzian josija izan zana.

6. Ez dago emen; cerren biztu zan, esan eban leguez. Erlube, ta icusi eguizube Jauna iniñiric eguan lecuba.

7. Eta laster juanic, esan eguijezube bere jarraitzallaai biztu dala: eta orra nun juango dan zuben aurretic Galileara: an icusicn

152

dozube: orra nun aurrez adierazo deutsubedan.

8. Eta urten eben beriala obitic bildur ta poz andijagaz, arin ibilliric adierazoteco bere jarraitzallaai.

9. Eta orra nun Jesusec bidera urteten deutsen, dirautsela: Agur guztijoi. Eurac barriz urreratu ciran bera gana, eldu eutsen bere oñetatic, eta adorau eben.

10. Orduban esan eutsen Jesusec: Ez zaitece bildur izan: zuace, adierazo eguijezube nire anaijai juan ditecela Galileara, an icusico nabe.

11. Eurac juanic, orra nun jaola batzuc etorri ciran urira, eta adierazo eutsen Sacerdoteen Nagusijai igaro zan guztija.

12. Eta baturic Zaarracaz, alcar aituric, diruba ugari emon eutsen soldadubai,

13. Cirautsela: Esan eguiznbe bere jarraitzallaac etorri ciran gabaz, eta ostu eben gu lotan guengozala.

14. Eta baldin au elduco balitz Gobernarijaren belarrijetara, guenc sinistu eraguingo deutsagu, eta ez dozube buruce miñic izango.

153

15. Eta eurac arturic diruba, eguin eben eracutsi eutsen leguez: eta zabaldu zan berba au Judeguben artian, eta dirau gaurco eguneraño.

16. Amaica jarraitzallaac barriz juan ciran Galileara, Jesusec aguindu eutseu mendira.

17. Eta icusiric bera adorau eben: batzuc barriz euqui citubezan ezbaijac.

18. Eta elduric Jesus berba eguin eutsen, cirautsela: Emon jat niri escnbide guztija ceruban ta lurrian.

19. Juanic bada, iracatsi egnijezube gente guztijai, batiatuten dituzubela Aitiaren, ta Semiaren, ta Espiritu Santubaren icenian:

20. Eracusten deutsezubela gordetan zubei aguindu deutsubedazan gauza guztijac: eta orra nun ni zubecaz naguan egun guztijetan mundubaren amaira guiño.

I CERTIFY that this book was printed by me in the house of His Highness the Prince Louis-Lucien Bonaparte, and that the number impressed amounted to eleven copies only, which are numbered and bear the names of their respective owners on the first page, with the exception of two, one of which is printed on larger and stouter paper.

April, 1857. W. H. BILLING.

ERRATAS.

Página.	Línea.	Dice.	Léase.
6	1	emon da	emonda
10	13	Nazarena	Nazareua
11	10	ascuz.	escuz.
16	8	gueissa	gueisso
18	3	dan	dau
19	19	surco	suzco
31	19	bere	bera
46	16	deutseo	beutsen
58	13	jaquico	jaguico
59	24	eguitan	eguiten
72	18	dozuba	dozube
101	25	elesan	elessan
102	12	aserri	aserre
112	17	ceura	ceure
114	24	jetzubez	jatzubez
116	4	da	dau
117	15	laguna	lagunac
119	10	bere	bera
122	9	ezcatubenetan	ezcutubenetan
126	22	eztegubetana	eztegubetara
129	8	daucazanan	daucazanari
132	4	badaguizube	badaquizube
133	18	nire	niri
134	10	eben	eban
150	6	garra	gara
151	18	eraube	erdube

ADIGARRIJAC.

1. c. 1, v. 18.—Alcarganatu baño lenago. Ez dau iñoc emendic atera biar, guero araguiz alcartu cirala, cerren beti garbi bici izan ciran. San Geron.
2. c. 1, v. 26.—Emendic bere ecin atera leique, guero araguiz alcartu cirala. San Geron.
   Lelengo sortuba. Berba onec adierazoten eban Judeguben artian, lenago besteric izan baguia.
3. c. 3, v. 12.—Larriñia. Elessia da larrin bat aotsa ta garija, au da, onac eta deungac, naastauric dagozana. Egunen baten izango dira aldendubac. San Agust.
4. c. 5, v. 19.—Esan gura dau, ez dala sartuco cerubau. San Agust.
5. c. 5, v. 20.—Adituten da, escumia ta beguija bassen gauza biarra. San Hilar. San Geron.
6. c. 5, v. 34.—Au da, eguija, zucentasun ta premiña baga. Jerem. c. 4, v. 2.
7. c. 6 v. 24.—Emen eragozten da ardura larreguija. S. Tom.
8. c. 8, v. 19.—Escriba onec jarraitu gura eutsan Jesusi mundu onetaco ondasunen icharopenagaz. Crisost.
9. c. 9, v. 18.—Irudi onegaz adierazo eutsen Jesusec bere icaslasi, ez cirala oraindic ceruco bidian aurreraturic dagozanen iracatzijen duin. Crisost.
10. c. 9, v. 24.—Esan gura dau, Jesusec biztu leiquiala, lo daguan bat iratzartuten danaren erraztasunagaz. Crisost.
11. c. 6, v. 34.—Ezpatia: ilteco norberaren amodijo bide beguia, mundu donguia, eta araguijaren grinaac. Crisost.
12. c. 12, v. 31.—Esan gura dau, nequezago parcatuba izango dala. Crisost.
13. c. 12, v. 40.—Anaijaac: au da, senide urrecuac. Calmet.
14. c. 13, v. 12.—Asco artu eta ondo erantsuten deutsenai, ugarituco jaque: guichi artu eta charto erantsuten deutsenai barriz, urritu. S. Agust.
15. c. 15, v. 11.—Aituten da, auan sartuten dana ez danian Jaungoicoaren leguiac edo Elessa santiac eragotsija. Duhamel.
16. c. 15, v. 24.—Etorri zan guztijeu oneraco, baña Israeltarrai bacarric izan jaquen esquiñija. S. Agust.
17. c. 16, v. 19.—Guiltzac: au da, pecatubac parcatu, edo ez parcatuteco escubidia. Natal Alex.
18. c. 16, v. 23.—Satanas. Galerazoten deustaru Jaungoicoac gura dabena eguiña. Duhamel.
19. c. 17, v. 12.—Bijetan diño eguijac cerren batian aitatuten dan Bautistia eta bestian Elias.
20. c. 18, v. 10.—Esan gura dau, euren ainguerubac salatuco ditubezala Aita cerucoaren aurrian. Natal Alex.
21. c. 18, v. 22.—Irurogueiamar bidar zazpiraño: aditzen da, beti. San Geron. San Agust.
22. c. 19, v. 12.—Irendubac ez gorputzac, ezpada gurari loijac. San Agust.
23. c. 21, v. 44.—Arri au Jesucristo da. San Agust.
24. c. 27, v. 3.—Judasen damuba ez zan izan ona, ceren ez eutsan lagundu icharopenac. S. Agust.

EL APOCALIPSIS DEL APÓSTOL SAN JUAN
SAN JUAN APOSTOLUBAREN AGUERTUERIA

Jose Antonio Uriarte
Bizkaieraz
Londres
1857

Originala: «Azkue Biblioteka» - Euskaltzaindia

EL APOCALÍPSIS

DEL APÓSTOL SAN JUAN,

TRADUCIDO AL VASCUENCE,

DIALECTO VIZCAÍNO,

POR EL

P. FR. JOSÉ ANTONIO DE URIARTE,

PARA EL

PRÍNCIPE LUIS-LUCIANO BONAPARTE.

LÓNDRES.

1857.

I CERTIFY that this book was printed by me in the house of His Highness the Prince Louis-Lucien Bonaparte, and that the number impressed amounted to fifty-one copies only, one of which is printed on thick paper.

August, 1857. W. H. BILLING.

SAN JUAN

APOSTOLUBAREN

AGUERTUERIA.

LELENGO CAPITULUBA.

JESUCRISTOREN Aguertueria, emon eutsana berari Jaungoicuac, aguirijan iminteco bere serbitzarijai laster eguiñac izan biar daben gauzac : eta azaldau citnzan, bialduric bere Ainguerubaren bitartez bere serbitzari Juani,

2. Ceñec emon deutsan autorreria Jaungoicuaren berbiari, eta Jesucristoren autorreria, icusi cituzan edoceintzuc gauzai.

3. Zorijonecua, iracurri ta entzuten dituzana etortecoquizun onen berbac : eta gordetan dituzana, bertan escribiduric dagozan gauzac : cerren demporia urrian da.

4. Juanec Asian dagozan zazpi elessai. Gracija zubei, eta baquia aregandic, dana gandic, zana gandic, eta etorrico dana gandic : eta bere jarlecubaren aurrian dagozan zazpi espiritubac gandic :

5. Eta Jesucristo gandic, cein dan autorguilla leijala, illen lelensortuba, eta lurreco erregueen buruba, ceñec maitetu guinduzan, eta garbitu guinduzan gueure pecatubetatic bere odolian,

6. Eta eguin guinduzan erreiñuba, eta sacerdotiac Jaungoicuarentzat, ta bere Aitarentzat : berari glorija, ta aguintaritzia guizaldijen guizaldijetan : Alan izan dedilla.

7. Orra nun datorren odeijacaz, eta icusico dau begui guztijac, eta zulatu ebenac. Eta bularrac joco ditube bera icusijaz lurreco echadi guztijac : Alan izango da : Alan izan dedilla.

8. Ni naz alfa ta omega, asieria ta amaija, diño Jaun Jaungoicuac : danac, eta zanac, eta etorrico danac, guztijalac.

9. Ni Juan zuben anaijia, ta partilla naibaguian, eta erreinuban,

eta eruapenian Jesucristogan : egon nintzan Patmos derichan ugartian, Jaungoicuaren berbia gaitic, eta Jesucristoren autorreria gaitic :

10. Euqui neban icnsquizun bat domeca egun baten, eta entzun neban neure ondoric boz andi bat trompetiarena lacua,

11. Ciñuanarena : Icusten dozuna, escribidu eguizu liburuban : eta bialdu eguijezu Asian dagozan zazpi Elessai, Efesocuari, eta Esmirnacuari, eta Perganocuari, eta Tiatiracuari, eta Sardiscuari, eta Filadelfiacuari, eta Laodiciacuari.

12. Eta biurtu nintzan icusteco neugaz berba eguiten eban boza :

7

eta biurturic icusi nituzan zazpi candeleru urrezcuac:

13. Eta zazpi candeleru urrezcuen erdijan guizonaren Semiaren antzeco bat, soñeco luciagaz, eta loturic bularrac urrezco banda bategaz:

14. Bere buruba barriz, ta uliac ciran zurijac lana zurija leguez, eta edurra leguez, eta bere beguijac suzco garra leguez,

15. Eta bere oñac latoe piñaren antzecuac, daguanian laba issotuban, eta bere boza ur ascoren otsa lacua:

16. Eta eucazan bere escuman zazpi izar: eta bere aotic urteten eban alde bijetatic zorrozturico ez-

8

patiac: eta bere arpeguijac argui eguiten dau eguzquijac bere indarrian leguez.

17. Eta icusi nebanian, jausi nintzan bere oñen aurrian illic leguez. Eta imiñi eban bere escumia nire ganian, ciñuala: Ez zaite bildur izan: ni naz lelengua, ta azquenengua,

18. Eta bicija, ta izan nintzan illa, eta orra nun bici nazan guizaldijen guizaldijetan, eta daucadaz erijotziaren, ta infernuco guiltzac.

19. Escribidu eguizuz bada icusi dituzuzanac, eta diranac, eta oneen ondoren eguiñac izan biar dabenac.

20. Nire escuman icusi dituzun

9

zazpi izarren ezcutapena, eta zazpi candeleru urrezcuac: zazpi izarrac dira zazpi elessetaco ainguerubac: eta zazpi candelerubac, zazpi elessac dira.

BIGARREN CAPITULUBA.

ESCRIBIDU eguijozu Efesoco elessaco ainguerubari: Oneec esaten ditu daucazanac zazpi izar bere escuman, dabillenac urrezco zazpi candeleruben erdijan:

2. Badaquidaz zure eguitadac, eta zure lana, ta eruapena, eta ecin dituzula sufriu dongac: eta tentau

10

cenduzala esaten dabenac apostolubac dirala eurac, ta ez diranac: eta aurquitu dituzu guzurtijac:

3. Eta daucazu eruapena, eta sufriu dozu nire icena gaitic, ta ez dozu ucatu.

4. Baña badaucat aguiraca bat zuri eguiteco, ichi dozula ceure lelengo caridadia.

5. Gomuta zaite bada nundic jausi zarian: eta eguizu penitencija, eta eguizuz lelengo lanac. Bada bestelan banatortzu, eta aldenduco dot ceure candeleruba bere lecutic, ezpadozu eguiten penitencija.

6. Baña au daucazu, gorroto deutsezula Nicolaiten eguitadai, ce-

11

intzubei neuc bere gorroto deutsedan.

7. Belarrija daucanac, entzun begui cer esaten deutsen Espiritubac elessai: Garaituten dabenari emongo deutsat jaten neure Jaungoicuaren paradisuban daguan bicitzaco arbolatic.

8. Eta Esmirnaco elessaco ainguerubari escribidu eguijozu: Oneec esaten ditu lelenguac, ta azquenenguac, ill zanac, ta bici danac:

9. Badaquit zure naibaguia, ta zure ezeuquija, baña zara aberatsa: eta deungaro esaten dabe zu gaitic, Judegubac dirala diñuenac, eta ez dira, ezpada dira satanasen batzarra.

12

10. Ez eguizu euqui igaroco dituzun pena oneen bildurraren apurric. Orra nun botaco dituzan diabrubac ceubetarico batzuc presondeguira, izan zaitecen tentadubac: eta euquico dozube naibaguia amar egunian. Izan zaite leijala erijotzara guiño, eta emongo deutsut bicitzaco coroia.

11. Belarrija daucanac, entzun begui cer esaten deutsen Espiritubac elessai: Goituten dabenari, ez deutsa calteric eguingo bigarren erijotziac.

12. Eta escribidu eguijozu Pergamoco elessaco ainguerubari: Oneec esaten ditu daucanac alde bijetatic zorrozturico ezpatia:

13

13. Badaquit nun bici zarian, nun daguan satanasen jarlecuba: eta iraun eraguiten deutsazu nire icenari, eta ez dozu ucatu neure fedia. Eta egun aretan Antipas neure autorguilla leijala, illa izan zana ceuben artian, nun bici dan satanas.

14. Baña badaucadaz aguiraca guichi batzuc zuri eguiteco: daucazuzalaco or jarraituten deutsenac Balaamen iracatsijari, ceñec eracusten eutsan Balasqui iminten estropezua Israelgo semeen aurrian, jan eguijen, ta araguizco pecatuban jausi ceitecen:

15. Alan daucazuz zuc bere

14

jarraituten deutsenac Nicolaiten iracatsijari.

16. Penitencija eguizu bada: bestelan etorrico nachatzu laster, eta burruca eguingo dot euracaz neure aoco ezpatiagaz.

17. Belarrija daucanac, entzun begui dirautsana Espiritubac elessai: Goituten dabenari emongo deutsat mana ezcutuba, eta emongo deutsat arrichu zuri bat: eta arrichuban icen barri bat escribiduric, iñoc ez daquijana, ezpada artuten dabenac.

18. Eta escribidu eguijozu Tiatiraco elessaco ainguerubari: Oneec diñoz Jaungoicuaren Semiac,

15

daucazanac suzco garra laco beguijac, eta bere oñac latoe zurijaren antzecuac :

19. Badazaudaz zure eguitadac, eta zure fedia, ta caridadia, eta zure biarra, ta eruapena, eta zure azquenengo eguitada lelenguac baño gueijaguac.

20. Baña badaucadaz aguiraca guichi batzuc zuri eguiteco : laquetuten deutsazulaco Jezabel emacumiari, igarlia dala esaten dabenari, iracasten, ta engañetan nire serbitzarijac, araguizco pecatubac eguiten, eta jaten idolo jaquijac.

21. Eta emon oeutsan demporia penitencija eguiteco : eta ez dau

16

gura damutu bere araguizco pecatubagaz.

22. Eta orra nun imiñico dodan oeraturic : eta beragaz pecatu eguiten dabenac, icusico dira naibague guztiz andijan, ezpadabe eguiten euren pecatuben penitencija.

23. Eta euren semiac illgo ditut erijotziagaz, eta jaquingo dabe elessa guztijac, neu nazala aztertuten ditudazana erraijac, eta bijotzac : eta emongo deutsat zubetarico bacochari bere eguitaden erara. Zubei barriz dirautsubet,

24. Eta Tiatiran zagocen emparaubai : Iracatsi oni jarraituten ez deutsen guztijac, eta ezagutu ez

17

ditubezanac satanasen sacontasunac, eurac deituten deutsen leguez, ez dot imiñico zuben ganian beste cargaric :

25. Alambere gorde eguizube daucazubena natorren artian.

26. Eta goituten dabeuari, eta gordetan dituzanari azquenera guiño neure eguitadac, emongo deutsat escubidia jenteen ganian,

27. Eta zucenduco ditu burdiñazco cigorragaz, eta izango dira ausijac lapicoguiñaren ontzija leguez,

28. Neuc bere artu neban leguez neure Aita gandic : eta emongo deutsat egunsentico izarra.

18

29. Belarrija daucanac, entzun begui cer esaten deutsen Espiritubac elessai.

IRUGARREN CAPITULUBA.

ETA escribidu eguijozu Sardisco elessaco ainguerubari : Oneec esaten ditu daucazanac Jaungoicuaren zazpi Espiritubac, eta zazpi izarrac : Badaquidaz zure eguitadac, icena daucazula bici zariala, ta illic zagoz.

2. Izan zaite iratzarrija, eta sendatu eguizuz ilteco egozan beste

19

gauzac. Cerren ez ditudaz aurquituten zure eguitadac betiac neure Jaungoicuaren aurrian.

3. Euqui eguizu bada goguan celan artu dituzun, eta entzun dituzun, eta gorde eguizuz, eta penitencija eguizu. Baña baldin iratzarriric ez bazagoz, etorrico naz zu gana lapurra leguez, et ez dozu jaquingo ce orduten etorrico nazan zu gana.

4. Baña badaucazuz lagun guichi batzuc Sardisen, ez ditubezanac loitu euren soñecuac: eta ibillico dira neugaz zuriz, duiñac diralaco.

5. Goituten dabena, onelan izango da jantzija jantzi zuriz, eta ez

20

dot quenduco bere icena bicitzaco Libnrutic, eta autortuco dot bere icena neure Aitaren aurrian, ta bere aingueruben anrrian.

6. Belarrija dancanac, entzun begui cer esaten deutsen Espiritubac elessai.

7. Eta Filadelfijaco elessaco ainguerubari escribidu eguijozu: Oneec esaten ditu Santubac eta Eguijatijac, daucanac Dabiden guiltza: idiguiten dabenac, eta iñoc ichiten ez dabenac: ichiten dabenac, ta iñoc idiguiten ez dabenac:

8. Badaquidaz zure eguitadac. Orra nun imiñi dodan zure aurrian idiguiric atia, iñoc ichi ecin dabena:

21

birtute guichi daucazulaco, eta gorde dozu nire berbia, eta ez dozu ucatu nire icena.

9. Orra emen emongo dot satanasen batzarretic, esaten dabenac eurac dirala Judegubac, eta ez dira, ezpada guzurra diñne: Orra emen eguingo dot eurac etorri ditecela, eta adorau daguijela zure oñen aurrian: eta jaquingo dabe nic maitetu zaitndazala.

10. Gorde dozulaco neure eruapenaren berbia, neuc bere gordeco zaitut mundu guztira etorrico dan esetsico ordntic, esesteco lurrian bici diranai.

11. Beguira laster natorrela:

22

gorde eguizu daucazuna, iñoc artn ez daguijan ceure coroia.

12. Goituten dabena, abe eguingo dot neure Jaungoicuaren elessan, eta ez dan urtengo ostera campora: eta escribiduco dot bere ganian neure Jaungoicuaren icena, eta neure Jaungoicuaren urijaren icena, Jerusalem barrijarena, jatsi zanarena cerutic neure Jaungoicna gandic, eta neure icen barrija.

13. Belarrija dancanac, entzun begui cer esaten deutsen Espiritubac elessai.

14. Eta Laodiciaco elessaco ainguerubari escribidu eguijozu: Oneec esaten ditu Amenac, autorguilla lei-

23

jal, ta eguijatijac, Jaungoicuaren eguinquijaren asieria danac.

15. Badaquidaz zure eguitadac: ez zariala otza, ez berua: arren bada baciña otza, edo berua:

16. Baña zarialaco epela, eta ez otza, ez berua, asico nachatzu errebesetan neure aotic.

17. Esaten dozulaco: Aberatsa naz, eta ondasunez betia, eta ez daucat iñoren premiñaric: eta ez daquizu zu zariala guizajua, ta errucarrija, ta ezeuquija, ta ichuba, ta billosa.

18. Contzejetan zaitudaz erosi daguidazula neuri urre sutan garbituba aberatsa eguin zaitian, eta

24

soñeco zuriz jantzija izan zaitian, eta aguertu ez dedin zure billostasunaren lotsarija, eta beguiura eguijezu ceure beguijai icusi daguizun.

19. Nic aguiraca eguiten deutset maite ditudazanai, ta castiguetan ditut. Issotu zaite bada arimeu gurarijan, ta penitentzija eguizu.

20. Orra emen atian nagn, eta ots eguiten dot: baldin iñoc entzuten badau nire berhia, eta idiguiten badeust niri atia, sartuco naz bera gaua, eta apalduco dot beragaz, eta berac neugaz.

21. Goituten dabenari, jarri eraguingo deutsat neugaz neure jarlecuban: neuc bere goitic neban leguez,

25

eta jarri nintzan leguez neure Aitagaz bere jarlecuban.

22. Belarrija daucanac, entzun begui cer esaten deutsen Espiritubac elesaai.

LAUGARREN CAPITULUBA.

ONEEN ondoren beguiratu neban: eta orra emen atia idiguiric ceruban; eta entzun neban lelengo hoza, neugaz berba eguiten daben trompetiarena lacua, ciñuala: Igon eguizu ona, eta eracutsico deutsudaz

26

certzuc izan biar daben eguiñac oneen ondoren.

2. Eta beriala icusi neban icusquizun bat: eta orra emen jarlecu bat eguau iniñiric ceruban, eta jarlecubaren ganian eguau bat jarriric;

3. Eta jarriric eguana, zan erechijan arri nabarraren, ta aracar gorrijaren antzecua: eta ustarcuba eguan jarlecubareu inguruban, colore berdisquiareu antzecua.

4. Eta jarlecubaren inguruban oguetalau aulqui: eta oguetalau jarlecuben ganian zaarrac jarriric, jantziric soñeco zurijacaz, eta euren burubetan urrezco coroiac.

5. Eta jarlecutic urteten eben

27

oñaztubac, eta bozac, eta trumonotsac : eta jarlecubaren aurrian zazpi arguiontzi issoturic, ceintzubec diran Jaungoicuaren zazpi espiritubac.

6. Eta jarlecubaren icusbeguijan biderijozco ichasua lacua cristalaren antzecua : eta jarlecubaren erdijan, ta jarlecubaren inguruban, lau abere aurretic ta atzetic beguiz betiac.

7. Eta lelengo aberia leoiaren antzecua, eta bigarren aberia idiscuaren antzecua, eta irugarren aberia, eucana arpeguija guizonarena lacua, eta laugarren aberia, arrano egan dabillenaren antzecua.

8. Eta lau aberiac, euretarico

28

bacochac cucazan sei ego : eta inguruban, ta barruban dagoz beguiz beteric : eta atsedenic ez euquen egunaz ta gabaz, ciñuela : Santuba, Santuba, Santuba, Jauu Jaungoico guztijala, zana, dana, ta etortecua.

9. Eta abere areec emoten eutsenian glorija, ta ondria, ta bendiciñoia jarriric eguanari jarlecubaren ganian, bici zanari guizaldijen guizaldijetan,

10. Auzpaztuten ciran oguetalau zaarrac jarlecuban jarriric eguanaren aurrian, eta adoretan eben bici dana guizaldijen guizaldijetan, eta botaten citubezan euren coroiac jarlecubaren aurrian, ciñuela :

29

11. Duin zara, Jaun Jaungoico gueuria, artuteco glorija, ta ondria, ta birtutia ; cerren zuc eguin cenduzan gauza guztijac, eta zure borondatia gaitic ciran, ta izan ciran eguiñac.

BOSTGARREN CAPITULUBA.

ETA icusi neban jarlecubaren ganian jarriric eguanaren escuman, liburu bat escribiduric barrutic eta campotic, silluturic zazpi sillugaz.

30

2. Eta icusi neban aingueru sendua, ciñuala diadar andijagaz : ¿ Cein da, liburu au idiguiteco, eta bere sillubac ascatuteco duin ?

3. Eta iñoc eciu eban, ez ceruban, ez lurrian, ez lurraren azpijan, idigui liburuba, ez beguiratu berari.

4. Eta nic negar asco eguiten neban, ez zalaco aurquitu iñor duiñic liburuba idiguiteco, ez berari beguiratuteco.

5. Eta zaarretatic batec esan eustan : Ez eguizu negarric eguin : nrra nun goitu daben Judaco echadico leoiac, Dabiden sustraijac, idiguiteco liburuba, eta ascatuteco bere zazpi sillubac.

31

6. Eta beguiratu neban: eta orra jarlecubaren erdijan, eta lau abereenian, eta zaarren erdijan, Bildotsa oñen ganian illa leguez, eucazana zazpi adar, ta zazpi begui: ceintzuc diran Jaungoicuaren zazpi espiritubac, mundu guztira bialdubac.

7. Eta etorri zan: eta artu eban liburuba jarlecuban jarriric eguanaren escumatic.

8. Eta idigui ebanian liburuba, lau aberiac, eta oguetalau zaarrac auzpaztu ciran Bildotsaren aurrian, euquezala bacocbac quitarrac, eta urrezco ontzijac usaiñez betiac, ceintzuc diran santuben erregubac:

9. Eta cantetan eben canta barri

32

bat, ciñuela: Duin zara, Jauna, artuteco liburuba, eta idiguiteco bere sillubac: izan ciñalaco illa, eta erosi guenduzuzalaco Jaungoicuarentzat ceure odolagaz echadi, eta mintzoera, eta erri, eta erreiñu guztitic:

10. Eta eguin gaituzu gueure Jaungoicuarentzat erreiñuba, eta sacerdotiac: eta aguintauco dogu lurraren ganian.

11. Eta beguiratu neban, eta entzun neban aingueru ascoren boza jarlecubaren, eta abereen, eta zaarren inguruban: eta ciran eurac millen millac,

12. Ciñuenac diadar andijagaz: Duin da Bildotsa, illa izan zana,

33

artuteco birtutia, eta jaungoicotasuna, eta jaquiturija, eta sendotasuna, eta ondria, eta glorija, eta bendiciñoia.

13. Eta ceruban, eta lurraren ganian, eta lurraren barruban, eta ichasuan, eta bertan dagozan guztijai: diranai entzun neutsen ciñuela: Jarlecuban jarriric daguanari, eta Bildotsari: bendiciñoia, eta ondria, eta glorija, eta escubidia guizaldijen guizaldijetan.

14. Eta lau aberiac ciñuen: Alan izan dedilla. Eta oguetalau zaarrac auzpaztu ciran: eta adorau eben bici dana guizaldijen guizaldijetan.

34

SEIGARREN CAPITULUBA.

ETA icusi neban Bildotsac idigui ebala zazpi sillubetatic bat, eta entzun neutsan lau abereetatic bati, ciñuala, trumonadiarena laco boz bategaz: Erdu, ta icusi eguizu.

2. Eta beguiratu neban: eta orra zaldi zuri bat, eta bere ganian eguanac eucan uztaija, eta emona izan jacon coroia, eta urten eban garailari garaituteco.

3. Eta idigui ebanian bigarren silluba, entzun neutsan bigarren aberiari, ciñuala: Erdu, ta icusi eguizu.

4. Eta urten eban beste zaldi

35

origorri batec: eta bere ganian eguanari emona izan jacon escubidia quenduteco baquia lurretic, eta alcar ill eguijela, eta emona izan jacon berari ezpata andi bat.

5. Eta idigui ebanian irugarren silluba, entzun neutsan irugarren aberiari, ciñuala: Erdu, ta icusi eguizu. Eta orra emen zaldi baltz bat: eta bere ganian jarriric eguanac, eucan pisuba bere escuban.

6. Eta entzun neban boza laco bat lau abereen erdijan ciñuenenian: Libra bi gari errial bijan, eta iru libra garagar errial bijan, eta ez eguijozu calteric eguin ardauari, ta orijuari.

36

7. Eta idigui ebanian laugarren silluba, entzun neban laugarren aberiaren boza, ciñuanarena: Erdu, ta icusi eguizu.

8. Eta orra zaldi zurbil bat: eta bere ganian jarriric eguanac, eban icena Erijotzia, eta infernubac jarraituten eutsan, eta emona izan jacon escubidia lurreco lau aldeen ganian, iltecn ezpatiagaz, gosiagaz, eta erijotziagaz, eta lurreco pistijacaz.

9. Eta idigui ebanian bostgarren silluba: icusi nituzan altariaren azpijan illac izan ciranen arimac Jaungoicuaren berbia gaitic, eta enquen autorreria gaitic,

10. Eta diadarrac eguiten citubezan, ciñuela: ¿Noz artian, Jauna santuba ta eguijatija, ez dozu juzguetan, ta ez dozu benguetan gure odola lurrian bici diranetatic?

37

11. Eta emonac izan jaquezan euretarico bacochari soñeco zurijac: eta esan jaqnen atseden eguijela oraindic dempora labur baten, bete artian euren serbitzari lagunena, ta euren aoaijena, illac izango ciranena eurac leguez.

12. Eta beguiratu neban idigui ebanian seigarren silluba: eta orra nun eguiña izan zan luicara andi bat, eta eguzquija baltzitu zan zurdazco euna leguez: eta illarguija guztija biurtu zan odola leguez:

38

13. Eta ceruco izarrac jausi ciran lurraren ganera, picuac jausten ichiten deutsen leguez pico eldu bagai asse andijac eraguiten deutsanian.

14. Eta ceruba batu zao jiran imiñirico liburuba leguez: eta mendi guztijac, eta ugartiac izan ciran aldendubac euren lecubetatic:

15. Eta lurreco erreguiac, eta lenenac, eta gordetzallac, eta aberatsac, eta senduac, eta mempeco, ta ascatu guztijac ezcutan ciran lecetan, eta mendijetaco achetan:

16. Eta diraulse mendijai, tâ achai: Jausi zaitece gure ganera, eta ezcutau gaguizubez jarlecu go-

39

ratuban jarriric daguanaren icusbeguitic, eta Bildotsaren aserretic :

17. Cerren elduba da euren aserriaren egun andija : ¿ eta noo da zutunic egon deitequiana ?

ZAZPIGARREN CAPITULUBA.

ONEEN ondoric icusi nituzan lau aingueru egozala lurraren lau egaletao, euquezala lurreco lau assiac ez eguijen putzic eguin lurraren ganian, ez ichasuaren ganian, ez arbola batera bere.

40

2. Eta icusi neban beste aingueru bat igoten cbala eguzquijaren urteeratic, eucana Jaungoico bicijaren ezagungarrija : eta esan eutsen diadar andijagaz lau aingueru, emon jaquenai escubidia calte eguiteco lurrari, ta ichasuari,

3. Ciñuala : Ez eguijezube calteric eguin lurrari, ez ichasuari, ez arichai, sillutu daguiguzan artian gueure Jaungoicuaren serbitzarijac euren becoquijetan.

4. Eta entzun neban cirala marcaubac, eun eta berroguetalau milla sillutu, Israelgo semeen echadi guztijetatic.

5. Judaren echaditic amabi milla

41

sillutu : Rubenen echaditic amabi milla sillutu : Gaden echaditic amabi milla sillutu :

6. Aserren echaditic amabi milla sillutu : Neptaliren echaditic amabi milla sillutu : Manaseren echaditic amabi milla sillutu :

7. Simeonen echaditic amabi milla sillutu : Lebiren echaditic amabi milla sillutu : Isacarren echaditic amabi milla sillutu :

8. Zabulonen echaditic amabi milla sillutu : Joseren echaditic amabi milla sillutu : Benjaminen echaditic amabi milla sillutu.

9. Oneen ondoric icusi neban aldra andi, iñoc cembatu ecin eiquian

42

bat, erreiñu, eta echadi, eta erri, eta izcuntza guztijetatic, egozala zutunic jarlecubaren aurrian, eta Bildotsaren icusbeguijan, estalduric soñeco zurijacaz, eta palmac euren escubetan :

10. Eta eguiten citubezan diadar andijac ciñuela : Osasuna gure Jaungoico, jarriric daguanari jarlecu goijaren ganian, ta Bildotsari.

11. Eta aingueru guztijac egozan zutunic jarlecubaren, ta zaarren, ta lau abereen inguruban : eta auzpaztu ciran jarlecubaren icusbeguijan, eta adorau eben Jaungoicua,

12. Ciñuela : Alan izan dedilla. Bendiciñoia, eta arguitasuna, eta

43

jaquiturija, eta esquerrac, ondria, ta birtutia, eta sendotasuna gure Jaungoicuari guizaldijen guizaldijetan, Alan izan dedilla.

13. Eta asiric berbetan zaarretatic bat, esan eustan: Oneec, soñeco zurijacaz estalduric dagozanoc, ¿ceintzuc dira? eta ¿nundic etorri ciran?

14. Eta esan neutsan: Neure Jauna, zuc daquizu. Eta esan eustan: Oneec dira, etorri ciranac naibague anditic, eta garbitu citubezan euren soñecuac, eta zuritu citubezan Bildotsaren odolian.

15. Orregaitic dagoz Jaungoicuaren jarlecubaren aurrian, eta di-

44

rauntse bera adoretan gau ta egun bere elessan: eta jarlecuban jarriric daguana, bicico da euracaz:

16. Ez dabe euquico gueijago goseric, ez egarriric, ez da jausico euren ganera eguzquiric, ez beruaren apurric:

17. Cerren jarlecubaren erdijan daguan Bildotsac, zucenduco ditu, eta eruango ditu bicitzaco uren iturrijetara, eta sicatuco dau Jaungoicuac malco guztija eurec beguijetatic.

45

ZORTZIGARREN CAPITULUBA.

ETA idigui ebanian zazpigarren silluba, issillic guelditu zan ceruba, ordu erdi laco baten.

2. Eta icusi nituzan zazpi aingueru egozala zutunic Jaungoicuaren aurrian: eta emonac izan jaquezan zazpi trompeta.

3. Eta beste aingueru bat etorri zan, eta guelditu zan altariaren aurrian eucala urrezco intzentzonarijua: eta emonac izan jacozan usain gozoco intzentzo asco, imiñi eguizan santu guztijen erregubetatic, Jaun-

46

goicuaren jarlecubaren aurrian daguan urrezco altariaren ganian.

4. Eta igon eban santuben erreguben intzentzuen queiac aingueruben escutic Jaungoicuaren aurrera.

5. Eta artu eban ainguerubac intzentzonarijua, eta bete eban altaraco subagaz, eta bota eban lurrera, eta eguiñac izan ciran trumonadac, eta bozac, eta oñaztubac, eta luicara andija.

6. Eta zazpi aingueru, zazpi trompeta euquezanac, prestau ciran trompetac joteco.

7. Eta lelengo ainguerubac jo eban trompetia, eta eguiña izan zan

47

chingorra, eta suba, odolagaz naastauba, eta jaurtiguija izan zan lurrera, eta lurraren irugarren zatija izan zan erria, eta zugatzen irugarren zatija izan zan quiscaldua, eta bedar berde guztija izan zan erria.

8. Eta bigarren ainguerubac jo eban trompetia: eta jausi zan ichasuan mendi andi suz issotuba laco bat, eta ichasuaren irugarren zatija odol biurtu zan,

9. Eta ill zan ichasuan bicija euquen patarijeu irugarren zatija, eta ontzijen irugarren zatija galdu zan.

10. Eta irugarren ainguerubac jo eban trompetia: eta jausi zan cerutic izar andi bat, issotuba zu-

48

cija leguez, eta jausi zan ibaijen irugarreo zatijan, eta urezco iturrijetan:

11. Eta izarraren icena esaten da Asentzijua; eta uren irugarren zatija asentzijo biurtu zan: eta guizon asco ill ciran uracaz, mingoch biurtu ciralaco.

12. Eta laugarren ainguerubac jo eban trompetia: eta zaurituba izan zan eguzquijaren irugarren zatija, eta illarguijaren irugarren zatija, eta izarren irugarren zatija, ain modutan ce illundu zan euren irugarren zatija, eta ez eban arguiric eguiten egunaren irugarren zatijac, ta gabarenac bardin.

13. Eta icusi neban, ta entzun

49

neban cerubaren erditic egan ebilleu arrano baten boza, ciffuala diadar andijagaz: Ai, ai, ai lurrian bici diranen errucarrijac, trompetia jotera juazan iru ainguerubén beste bozac gaitic.

BEDERATZIGARREN CAPITULUBA.

ETA bostgarreo ainguerubac jo eban trompetia: eta icusi neban izar bat jausi zala cerutic lurrera, eta emona izan jacon lezaco pozuco guiltza.

50

2. Eta idigui eban lezaco pozuba: eta igon eban pozuco queiac, laba andi bateco queiac leguez: eta illundu zan eguzquija, ta airia pozuco queiagaz:

3. Eta pozuco queetic urten eben langostac lurrera, eta emon jaquen escubidia, dauquen leguez escubidia lurreco lupuac:

4. Eta aguindu jaquen ez eguijuela calteric eguin lurreco bedarrari, ez gauza berderi, ez arech bati: ezpada bacarric euren becoquijetan Jaungoicuaren ezagungarrija ez euquen guizonai:

5. Eta emon jaquen ez ilteco: ezpada min emoteco bost illabetian:

51

eta euren miñac, lupuaren miñac lacuac zaurituten dabenian guizona.

6. Eta egun aretan billatuco dabe guizonac erijotzia, eta ez dabe aurquituco: eta ill guraco dabe, eta erijotziac igues eguingo dau eurac gandic.

7. Eta langosten irudijac ciran gudaraco prestauric dagozan zaldijen antzecuac: eta euren buruben ganian coroiac lacuac urriaren antzecuac: eta euren arpeguijac guizonen arpeguijac lacuac.

8. Eta euquezan uliac emacumeen uliac lacuac. Eta euren aguiñac, leoien aguiñac lacuac ciran:

9. Eta euquezan loaricac burdiñazco loaricac lacuac, eta euren egüen otsa zaldi ascoren burdijen gudara arin duazanen otsa lacua:

52

10. Eta euquezan buztanac lupuen antzecuac, eta euquezan eztenac euren buztanetan: eta euren ala calte eguiteco guizonai bost illabetian: eta euquezan euren ganian

11. Erreguetzat lezaco aingueruba, derichana Ebreon Abaddon, Grijeguan Apollyon, eta Latinian icena eucana Exterminuans.

12. Ai bat igaro zan, eta orra nun datozan oraindic ai bi jazoera oneen ondoric.

13. Eta seigarren ainguerubac

53

jo eban trompetia: eta entzun neban boz bat Jaungoicuaren beguijen aurrian daguan urrezco altariaren lau aldeetatic,

14. Cirautsana seigarren aingueru, trompetia eucanari: Ascatu eguizuz Eufrates ibai andijan loturic dagozan lau ainguerubac.

15. Eta ascatubac izan ciran lau aingueru, prestauric egozanac orduraco, ta eguneraco, ta illeraco, ta urteraco: ill eguijen guizonen irugarren zatija.

16. Eta zaldizcuen aldria oguei milla bidar amar bidar milla. Eta entzun neban cembat ciran eurac.

17. Eta onelan icusi nituzan

54

zaldijac icusmenian: eta euren ganian jarriric egozanac, euquezan loarica suzcuac, eta moredin colorecuac, eta sufrezcuac, eta zaldijen burubac ciran leoien burubac lacuac: eta euren aotic urteteo dau subac, eta queiac, eta sufriac.

18. Eta iru izurri onecaz ill zan guizonen irugarren zatija euren aotic urteten eben subagaz, eta queiagaz, eta sufriagaz.

19. Cerren zaldijen ala dago curen auan, ta euren buztanetan. Bada euren buztanac burubac dauquezan sierpeen irudicuac: eta euracaz calte eguiteo dabe.

20. Eta beste guizon, illac izan

55

ez ciranac izurri oneetan, ta ez ebenac penitencija eguin euren escuben eguitadac gaitic, ez adoretaco demoniuac, eta urrezco, ta cidarrezco, ta metalezco, ta arrizco, ta zurezco irudijac, ecin dabenac icusi, ez entzun, ta ecin diranac ibilli,

21. Eta ez eben eguin penitencija eurac ill citubezan guizonac gaitic, ez euren sorguinquerijac gaitio, ez euren araguizco pecatuba gaitic, ez euren lapurretac gaitic.

56

AMARGARREN CAPITULUBA.

ETA icusi neban beste aingueru sendua, jatsiten zala cerutic odeijagaz estalduric, eta ustarcuba bere buruban, eta bere arpeguija zan eguzquija lacua, eta bere oñac suzco abia lacuac :

2. Eta eucan bere escuban liburuchu bat idiguiric : eta imiñi eban bere escumaco oña ichasuaren ganian, ezquerra barriz lurraren ganian :

3. Eta eguin eban diadar andi bat, leoiac orrua eguiten dabenian leguez. Eta diadar eguin ebanian,

57

zazpi trumonadac asi ciran berbetan euren bozacaz.

4. Eta berba eguin ebenian zazpi trumonadac euren bozacaz, ni niñoian escribietara : eta entzun neban oerutic boz bat, ciraustana : Marcau eguizuz zazpi trumonadac esan ditubezan berbac, eta ez eguizuz escribidu.

5. Eta ichasuaren ganian, ta lurraren ganian eguala icusi neban ainguerubac, jaço eban bere escuba cerura :

6. Eta juramentu eguin eban guizaldijen guizaldijetan bici zana gaitic, ceñec eguin eban ceruba, eta bertan dagozan gauzac : eta lurra,

58

eta bertan dagozan gauzac : eta ichasua, eta bertan dagozan gauzac : Ez dala izango gueijago demporaric :

7. Ezpada zazpigarren ainguerubaren bozaren egunetan, asiten danian trompetia joten, amaituba izango da Jaungoicuaren ezcutapena, aurrez adierazo eban leguez bere serbitzari igarlen bitartez.

8. Eta entzun neban boza cerutic berriro berba eguiten ebana neugaz, eta ciraustana : Zuaz, eta artu eguizu liburu idiguija ichasuaren ganian, ta lurraren ganian daguan ainguerubaren escutic.

9. Eta juan nintzan aingueruba gana, nirautsala, emou eguidala li-

59

buruba. Eta esan eustan : Artu eguizu liburuba, eta iruntzi eguizu : eta eguingo dau mingoztuba izan dedilla zure sabela, baña zure auan izango da gozua eztija leguez.

10. Eta artu neban liburuba ainguerubaren escutic, eta iruntzi neban : eta zan nire auan ezti gozua lacua : eta iruntzi nebanian, izan zan mingoztuba nire sabela.

11. Eta esan eustan : Barriro predicau biar deutsezu jente ascori, eta errijai, eta mintzoerai, ta erreguiai.

60

AMAICAGARREN CAPITULUBA.

ETA emon jatan cañabera bat cignrraren irudicua, ta esan jatan : Jagui zaite, eta neurtu eguizu Jaungoicuaren elessia, eta altaria, eta an adoretan dabenac.

2. Baña elessiaren campotic daguan ataija, bota eguizu campora, eta ez eguizu neurtu : cerren emona izan jaque jentillai, eta zapalduco dabe uri santuba berroguetabi illabetian :

3. Eta emongo ditut neure autorguilla bijac, eta predicauco dabe

61

milla berreun ta iruroguei egunian, soñeco mass ta latzacaz estalduric.

4. Oneec dira olibo bi, ta candeleru bi, lurreco Jaunaren aurrian dagozanac.

5. Eta baldin iñoc calteric eguin gura baleutse, subac urtengo dau euren aotic, eta iruntzico ditu euren arerijuac : eta iñoc gura baleutse eurai calteric eguin, onelan izan biar dau illac berac.

6. Oneec dauque escubidia ichiteco ceruba, euriric ez daguijan eguin euren eracutsijaren egunetan : eta escubidia dauque uren ganian odol biurtuteco, eta zaurituteco lurra izurri guztijagaz nai daben guztijan.

62

7. Eta amaituteu dabenian euren autorreria, burruca eguingo dau euracaz lezatic igoten daben pistijiac, eta goituco ditu, eta illgo ditu.

8. Eta euren gorputzac egongo dira etzunic uri andi, ecicenez Sodoma, eta Ejipto derichanaren placetan, nun euren Jauna bere izan zan curutzian josija.

9. Eta echadijetacuac, eta errijetacuac, eta mintzoeretacuac, eta erreiñubetacuac icusico ditube euren gorputzac iru egun ta erdijan : eta ez dabe ichico euren gorputzac izan ditecela imiñijac obijetan.

10. Eta lurrian bici diranac poztuco dira euren erijotzia gaitic, eta

63

gozatubac izango dira : eta oparijac bialduco deutsez alcarri, cerren igarla bi oneec minduten citubezan lurraren ganian bici ciranac.

11. Eta iru egun ta erdiren ondoric, Jaungoicuac sartu eban euretan bicigueija. Eta jarri ciran zutunic euren oñeo ganian, eta bildur andi bat jausi zan eurac icusi citubezanen ganera.

12. Eta entzun eben boz andi bat cerutic, cirautsela : Igon eguizube ona. Eta igon eben cerura odeijan : eta euren arerijuac icusi citubezan.

13. Eta ordu atan eguiña izan zan luicara andi bat, eta jausi zan

64

urijaren amargarren zatija : eta illac izan ciran luicaran zazpi milla guizonen icenac : eta emparaubac bildurtu ciran, eta emon eutsen glorija ceruco Jaungoicuari.

14. Ai bigarrena igaro zan : eta orra ai irugarrena etorrico da laster.

15. Eta zazpigarren ainguerubac jo eban trompetia : eta izan ciran boz andijac ceruban ciñuela : Mundu onetaco erreiñuba biurtuba izan jaco gueure Jaunari, ta bere Cristuari, eta aguintauco dau guizaldijen guizaldijetan : Alan izan dedilla.

16. Eta oguetalau zaar, jarriric dagozanac euren jalecubetan Jaungoicuaren aurrian, auzpaztu ciran,

65

eta adorau eben Jaungoicua, ciñuela :

17. Esquerrac emoteo deutsuguz Jaun Jaungoico guztijala, zariana, ciñana, eta etorrico zariana : artu dozulaco ceure escubide andija, eta aguintau dozulaco.

18. Eta aserratu jaque jentiai, eta etorri da zure aserria, eta illac juzgaubac izateco demporia, eta emoteco sarrija ceure serbitzarijai igarlai, ta santubai, eta ceure icen santubaren bildur diranai chiquichubai, ta andijai, eta erbestetuteco loitu ebenac lurra.

19. Eta idigui zan Jaungoicuaren elessia ceruban : eta icusija

66

izan zan testamentuco uchia bere elessan, eta eguiñac izan ciran oñaztubac, eta bozac, eta luicaria, eta arri andija.

AMABIGARREN CAPITULUBA.

ETA icusgarri andi bat aguerin zan ceruban : Emacume bat eguzquijagaz estalduric, eta illarguija bere oñen azpijan, eta bere buruban amabi izarrezco coroia :

2. Eta seindun egonic, diadar eguiten eban seña eguiten jardunaz,

67

eta ler eguiten eban miñez señia eguiteco.

3. Eta icusija izan zan beste icusgarri bat ceruban: eta orra emen dragoe andi gorri bat, eucazana zazpi buru, ta amar adar: eta bere burubetan zazpi cinta zuri zabal,

4. Eta bere alliac eracarren ceruco izarren irugarren zatija, eta bialdu cituzan lurrera, eta dragoia guelditu zan señia eguingo eban andriaren aurrian: señia eguiten ebanian iruntziteco bere semia.

5. Eta eguin eban seme arra, zucenduco cituzana jente guztijac burdiñazco cigorragaz: eta indarrez artuba izan zan bere semia Jaungoi-

68

cuarentzat, eta bere jarlecu goraturaco,

6. Eta andriac igues eguin eban eremura nun eucan Jaungoicuac lecuba prestauric, an jaten emon eguijueu milla berreun ta iruroguei egunian.

7. Eta izan zan guda andi bat ceruban: Miguelec, ta bere ainguerubac ciardubeu gudan dragoiagaz, eta dragoiac ciarduban gudan, ta bere ainguerubac:

8. Eta oneec ez ciran gueijago izan, eta euren lecuric ez zan aurquitu gueijago ceruban.

9. Eta jaurtiguija izan zan araco dragoe andija, anchiñaco sierpia,

69

derichana diabruba, eta satanas, engañetan dabena mundu guztija: eta jaurtiguija izan zan lurrera, eta bere ainguerubac beragaz izan ciran bialdubac.

10. Eta entzun neban boz andi bat ceruban, ciñuana: Orain izan da betia osasuna, ta birtutia, eta gueure Jaungoicuaren erreiñuba, eta bere Cristoren ala: jaurtiguija izan dalaco gueure anaijen salatzallia, salatuten cituzana gueure Jaungoicuaren aurrian egunaz ta gabaz.

11. Eta eurac goitu eben Bildotaaren odola gaitic, eta bere autorreria gaitic, eta ez citubezan maitetu euren arimac erijotzara guiño.

70

12. Orregaitic poztu zaitece, cerubac, eta euretan bici zarenac. Ai lurraren, ta ichasuaren zorigaiztocua, cerren jatsi da diabruba zubec gana, aserre andijagaz, jaquiñic dempora guichi daucala.

13. Eta icusiric dragoiac jaurtiguija izan zala lurrera, esetsi eutsan seme arra eguin eban emacumiari:

14. Eta emonac izan jacozan emacumiari ego bi arrano andijarenac, egan eguijan eremura bere lecura, nun daguan gorderic demporan ta demporetan, eta demporiaren erdijan sierpiaren icusbeguitic.

71

15. Eta bota eban sierpiac bere aotic emacumiaren ondoric, ura ibaija leguez, ibaijac eracarri eguijan.

16. Eta lagundu eutsan lurrac emacumiari, eta idigui eban lurrac bere aua, eta zurrut eguin eban dragoiac bere aotic bota eban ibaija.

17. Eta aserratu zan dragoia emacumiagaz: eta juan zan gudan eguitera bere jatorrico emparaubacaz, Jaungoicuaren aguindubac gordetan ditubezanacaz, eta Jesucristoren autorreria dauquenacaz.

18. Eta guelditu zan zutunic icbasoco ondarraren ganian.

72

AMAIRUGARREN CAPITULUBA.

ETA icusi neban urteten ebala ichasotic pistija batec, eucazanac zazpi buru, ta amar adar, eta bere adarren ganian amar cinta zuri zabal, eta bere buruben ganian erneguzco berben icenac.

2. Eta icusi neban pistijia, zan leoearriaren antzecua, eta bere oñac artzarenac lacuac, eta bere aua leoiaren aua lacua. Eta emon eutsan dragoiac bere indarra, ta escubide andija.

3. Eta icusi neban bere burubetatic bat illa leguez erijotzaraño: eta bere erijotzaco zaurija osatuba izan zan. Eta miraritu zan lur guztija pistijiaren ondoric.

73

4. Eta adorau eben dragoia, emon eutsana ala pistijiari: eta adorau eben pistijia, ciñuela: ¿Cein pistijiaren antzecua? eta ¿noc gudan jardun leique beragaz?

5. Eta emona izan jacon aua esaten cituzana arroquerijac, eta ernegubac: eta emona izan jacon berari eguiteco escubidia berroguetabi illabetian.

6. Eta idigui eban bere aua erneguzco berbacaz Jaungoicua gaitic, erneguetaco bere icena gaitic, eta bere bicilecuba gaitic, eta ceruban dagozanac gaitic.

74

7. Eta emona izan jacon berari guerra eguitia santubacaz, eta eurac goitutia. Eta emona izan jacon escubidia echadi, eta erri, eta mintzoera, eta erreiñu guztijaren ganian,

8. Eta adorau eben lurrian bici diran guztijac: ceintzuben icenac ez dagozan escribiduric Bildotsaren bicitzaco Liburuban, illa izan zanarenian mundubaren asieratic.

9. Iñoc baldin badauca belarriric, entzun dagnijala.

10. Catigarijora daroiana, catigarijora juango da: ezpatiagaz illten dabenac, izan biar dau berac ezpatiaz illa. Emen dago eruapena, ta santuben fedia.

75

11. Eta icusi neban beste pistija bat igoten ebala lurretic, eta eucazan adar bi Bildotsaren antzecuac, eta berba eguiten eban dragoiac leguez.

12. Eta lelengo pistijiaren escubide guztija eguiten eban bere aurrian: eta eguin eban lurrac, eta bertan bici ciranac, adorau eguijela lelengo pistijia, ceñen zauri illgarrija izan zan osatuba.

13. Eta eguin cituzan mirari andijac, cerutic lurrera subari jaisi eraguiteraño guizonen icusbeguijan.

14. Eta engañau cituzan lurrian bici ciranac pistijiaren icusbeguijan eguiteu laquetu jacon mirarijac gai-

76

tic, esanaz lurrian bici ciranai, eguijela pistijiaren irudija, daucanarena ezpatiaren zaurija, eta bici izan zan.

15. Eta emoua izan jacon emon eguijola bicigueija pistijiaren irudijari, eta berba eguijala pistijiaren irudijac: eta eguijala pistijiaren irudija adoretan ez eben edoceintzuc, illac izan ditecela.

16. Eta eguingo dau euqui daguijela guztijac chiquijac, eta andijac, eta aberatsac, eta ezeuquijac, eta ascatubac, eta mempecuac marca bat euren escumaco escuban, edo euren becoquijetan:

17. Eta ecin daiquiala iñoc erosi, edo saldu, ezpada daucanac pistijiaren marquia, edo icena, edo bere icenaren cembata.

77

18. Emen jaquiturija dago. Adiña daucanac, atera begui pistijiaren cembata. Cerren guizonaren cembata da: eta bere cembata seireun eta iruroguetasei.

AMALAUGARREN CAPITULUBA.

ETA beguiratu neban: eta orra emen Bildotsa eguan oñaz Siongo mendijaren ganian, eta beragaz eun eta berroguetalau milla,

78

euquenac bere icena, eta bere Aitaren icena escribiduric euren becoquijetan.

2. Eta entzun neban boz bat cerutic, ur ascoren boza lacua, eta trumonada andi baten boza lacua: eta entzun neban boza, citararijena lacua citarac joten citubezanena euren citaracaz.

3. Eta cantetan eben canta barrija lacua jarlecubaren aurrian, eta lau abereen, ta zarren aurrian, eta iñoc ecin esan eban cantia, ezpada eun eta berroguetalau milla areec, erosijac izan ciranac lurretic.

4. Oneec dira, ez ciranac izan loitubac emacumiacaz: cerren dira

79

doncellac. Oneec jarraituten deutse Bildotsari doian edocein lecutara. Oneec izan ciran erosijac guizonetatic lenenac Jaungoicuarentzat, eta Bildotsarentzat,

5. Eta euren auan ez zan aurquitu guzurric: cerren orbanic baga dagoz Jaungoicuaren jarlecubaren aurrian.

6. Eta icusi neban beste aingueru bat egan ebillela cerubaren erditic, eucana betico Ebanjelijua, eracusteco lurrian bici ciranai, eta erreinu, eta echadi, eta miin, eta erri guztijari:

7. Ciñuala diadar andijagaz: Izan zaitece Jaunaren bildur, eta

80

emon eguijozube berari ondria, cerren eldu da bere juicijoco orduba, eta adorau eguizube, eguin cituzana ceruba, ta lurra, ichasua, eta urezco iturrijac.

8. Eta beste aingueru batec jarraitu eutsan, ciñuala: Jausi da, jausi da araco Babilonija andija: emon eutsena edaten jente guztijai bere araguizco pecatubaren aserreco ardaotic.

9. Eta irugarren ainguerubac jarraitu eutsen, ciñuala diadar andijagaz: Baldin iñoc adoretan badau pistijia, eta bere irudija, eta artnten badau ezagungarrija bere becoquijan, edo bere escuban:

81

10. Onec bere edango dau Jaungoicuaren aserreco ardaotic, naastauric daguanetic ardao utsagaz berberaren aserreco ontzijan, eta izango da penauba subaguz, ta sufriagaz aingueru santuben aurrian, ta Bildotsaren aurrian:

11. Eta euren oñacen queiac igongo dau guizaldijeu guizaldijetan: ez dauque bere atsedenic egunaz, ez gabaz, adorau ebenac pistijia, ta bere irudija, eta baldin iñoc artuten badau bere icenaren marquia.

12. Emen dago santuben eruapena, gordetan ditubezanena Jaungoicuaren aguindubac, eta Jesusen fedia.

82

13. Eta entzun neban boza cerutic, ciraustana: Escribidu eguizu: Zorijonecuac illac, Jaunagan ilten diranac. Oraiudissec gueijago diño Espiritubac, atseden daguijela eureu biarretatic: cerren euren eguitadac jarraituten deutse.

14. Eta beguiratu neban, eta orra emen odei zuri bat: eta odeijaren ganian jarriric guizonaren Semiaren irudico bat, eucana bere buruban urrezco coroia, eta bere escuban iguitai zorrotza.

15. Eta beste aingueru batec urten eban elessatic, cirautsala diadar andijagaz jarriric eguanari odeijaren ganian: Beeratu eguizu ceure

83

iguitaija, eta equin eguijozu ebaguiten, igarturic dagualaco lurreco ebagui gueija.

16. Eta jarriric eguanac odeijaren ganian, beeratu eban lurrera bere iguitaija, eta izan zan ebaguija lurreco ebagui gueija.

17. Eta beste aingueru batec urten eban elessatic, ceruban daguanetic, eucala berac bere iguitai zorrotza.

18. Eta altaratic urten eban beste aingueru batec, eucanac escubidia subaren gañian: eta diadar eguin entsan boz andijagaz eucanari iguitai zorrotza, cirautsala: Sartu eguizu ceure iguitai zorrotza, eta

84

batu eguizuz lurreco maastico morduac: cerren bere maatsac elduric dagoz.

19. Eta sartu eban ainguerubac bere iguitai zorrotza lurrian, eta mindemiñau eban lurreco maatsa, eta bota eban mindemiñia Jaungoicuaren aserreco pozu andijan:

20. Eta zapalduba izan zan pozuba uritic campora, eta urten eban odolac pozutic zaldijen frenuetara guiño milla ta seireun estatuban.

85

AMABOSTGARREN CAPITULUBA.

ETA icusi neban beste icusgarri bat ceruban andija, ta miragarrija, zazpi aingueru, euquezanac azquenengo zazpi plagac: cerren euretan da osotuba Jaungoicuaren aserria.

2. Eta icusi neban biderijozco ichasua laco bat subagaz naastauba, eta goitu ebenac pistijia, ta bere irudija, eta bere icenaren cembata, egozala zutunic biderijozco ichasuaren ganian, euquezala Jaungoicuaren citarac:

86

3. Eta cantetan ebela Moisesen Jaungoicuaren serbitzarijaren cantia, eta Bildotsaren cantia, ciñuela: Andijac, eta miragarrijac dira zure eguitadac, Jaun Jaungoico guztijala: zucenac ta eguijazcuac dira zure bidiac, guizaldijen Erreguia:

4. ¿Nor ez da zure bildur izango, Jauna, eta noc ez dau gnratuco zure icena? cerren bacarric zara bijotz bigunecua: cerren jente guztijac etorrico dira, eta belaunicotuco dira zure aurrian, zure juicijuac aguertu diralaco.

5. Eta oneen ondoric beguiratu neban, eta orra idiguiric ceruban autorreraco bicilecuco elessia.

87

6. Eta urten eben elessatic zazpi aingueruc, euquczanac zazpi ondamendi, liño garbijagaz ta zurijagaz jantziric, eta loturic euren bularrac urrezco cinta zabalacaz.

7. Eta lau abereetatic batec emon eutsezan zazpi aingueruhai zazpi edontzi urrezco, Jaungoicuaren guizaldijen guizaldijetan bici danaren aserrez betiac.

8. Eta queez bete zan elessia Jaungoicuaren itzalez, eta bere birtutez : eta iñor ecin zatequian sartu elessan, amaitubac izan ciran artian zazpi aingueruben zazpi plagac.

88

AMASEIGARREN CAPITULUBA.

ETA entzun neban boz andi bat elessatic, ciautsena zazpi aingueruhai : Zuace, eta isuri eguizubez lurraren ganian Jaungoicuaren aserriaren zazpi edontzijac.

2. Eta juan zan lelengua, eta isuri eban bere edontzija lurrareo ganian : eta eguin jaquen zauri gogor, ta guztiz donga bat pistijiaren ezagungarrija euquen guizonai : eta bere irudija adoran ebenai.

3. Eta bigarren ainguerubac isuri eban bere edontzija ichasuan, eta biurtu zan illarena laco odol : eta arima bici guztija ill zan ichasuan.

89

4. Eta irugarrenac isuri eban bere edontzija ibaijen ganian, eta urezco iturrijen ganian, eta odol biurtu ciran.

5. Eta entzun neutsan uretaco ainguerubari ciñuala : Zucena zara, Jauna, zariana, ta ciñana santuba, oneec erabagui dituzuna :

6. Isuri ebelaco santuben, ta igarlen odola, ceuc bere emon deutsezu edaten odola : cerren duiñac dira.

7. Eta entzun neban beste batec altaratic ciñuala : Baita, Jaun Jaungoico guztijala, eguijazcuac ta zucenac zure erabaguijac.

90

8. Eta laugarren ainguerubac isuri eban bere edontzija eguzquijan, eta emona izan jacon atsacabetutia guizonac beruagaz, ta subagaz :

9. Eta berotu ciran guizonac bero andijagaz, eta deungaro esan eben Jaungoicuaren icena gaitic, eucana gaitic escubidia plaga oneen ganian, eta ez eben eguin penitencijaric emoteco berari glorija.

10. Eta bostgarren ainguerubac isuri eban bere edontzija pistijiaren jarlecubaren ganian : eta eguiña izan zan bere erreñuba illuna, eta jan citulezan euren miiñac miñez :

91

11. Eta deungaro esan eben ceruco Jaungoicua gaitic euren miñen, ta zaurijen indarrez, eta ez eben eguin penitencija euren eguitadac gaitic.

12. Eta seigarren ainguerubac isuri eban bere edontzija araco Eufrates ibai andijan, eta sicatu eban bere ura, prestetaco bidia eguzquijaren urteeraco erreguiai.

13. Eta icusi nituzan urteten dragoiaren aotic, pistijaren aotic, eta igarla guzurrezcuaren aotic iru espiritu loi ugarasijuen guisan.

14. Cerren dira demoniuen espiritubac eguiten ditubezanac mirarijac, eta duaz mundu guztico

92

erregueetara batntera gudaraco Jaungoico guztijalaren egun andiraco.

15. Orra banater lapurra leguez. Zorijonecua iratzarriric daguana, eta gordetan dituzana bere soñecuac, billosic ibilli ez dedin, eta icusi ez daguijen bere ezaintasuna.

16. Eta batuco ditu Ebreoz Armajedon dericban lecuban.

17. Eta zazpigarren ainguerubac isuri eban bere edontzija airian, eta urten eban boz andi batec elessatic jarlecutic, ciñuala: Au eguiña da.

18. Eta eguiñac izan ciran oñaztubac, eta bozac, eta trumonadac, eta luicara andi bat eguiña izan zan, lurraren ganian guizonac diran ez-

93

quero iñoz izan ez dana lacua: alaco luicara, ain andija.

19. Eta uri andija izan zan zatituba iru zatitan: eta jenteen nrijac jausi ciran: eta Babilonija andija etorri zan gomutan Jaungoicuaren aurrian, emoteco berari bere aserre sumiñaren ardaozco ontzija.

20. Eta ugarte guztijac igues eguin eban, eta mendijac ez ciran izan aurquitubac.

21. Eta arri andija bacocha-eun eta oguei libracua jausi zan cerutic guizonen ganera: eta dongaro esan eben Jaungoicua gaitic guizonac arrijaren plaguia gaitic: cerren izan zan guztiz andija.

94

AMAZAZPIGARREN CAPITULUBA.

ETA etorri zan zazpi ainguerubetatic bat, euquezanetatic zazpi edontzi, eta berba eguin eban neugaz, ciñuala: Erdu, eracutsico deutsut emacume galdu andijaren, ur ascoren ganian jarriric daguanaren galdnmendija,

2. Ceñegaz eguin eben araguizco pecatuba lurreco erreguiac, eta orditu ciran lurrian bici ciranac bere nasaiquerija aguirico ardauagaz.

3. Eta eruan ninduban espirituban eremura. Eta icusi neban ema-

95

cumia jarriric pistija gorrijaren ganian, Jaungoicua gaitic esaten cituzan icen gaistoz betia, eucazala zazpi buru, ta amar adar.

4. Eta emacumia eguan inguraturic purpuraz, ta escarlataz, eta apainduric urrez, eta arri balijotzuz, eta perlaz, eucala bere escuban urrezco edontzi bat, beteric izugarriz, ta bere araguizco pecatubaren ciquinquerijaz :

5. Eta bere becoquijan escribiduric : Ezcutapena : Babilonija andija, araguizco pecatuben, ta lurreco izugarrijen ama.

6. Eta icusi neban emacumia ordituric santuben odolagaz, eta

96

Jesusen martirijen odolagaz. Eta miriratu nintzan icusi nebanian mirari andijagaz.

7. Eta esan eustan ainguerubac : ¿ Cergaitic mirarituten zara ? Neuc esango deutsut emacumiaren, eta bera darabillen pistijiaren, zazpi buru, ta zazpi adar daucazanaren eracuspena.

8. Icusi cenduban pistijia, bazan, ta ez da, eta igongo dau lezatic, eta erijntzara juango da : eta mirarituco dira lurrian bici diranac, ceintzuben icenac ez dagozan escribiduric bicitzaco liburuban mundubaren asieratic, icusten dabenian bazan, ta ez dan pistijia.

97

9. Eta emen badago jaquiturija daucan ezagüeria. Zazpi burubac, zazpi mendi dira, ceintzuben ganian emacumia daguan jarriric, eta zazpi erregue dira.

10. Bost ill ciran, bat bada, eta bestia ez da etorri : eta datorrenian, iraun biar dau berac dempora laburrian.

11. Eta pistijia zana, ta ez dana : eta bera zortzigarrena da : eta da zazpiretaticua, eta galdumendira dua.

12. Eta amar adar icusi dituzunac, amar erregue dira : ceintzubec ez eben artu erreinuba, ezpada artuco dabe escubidia erreguiac leguez ordu batian pistijiaren ondoric.

98

13. Oneec asmo bat dauque, eta emongo deutse pistijiari bere indarra, ta escubidia.

14. Oneec burruca eguingo dabe Bildotsagaz, eta Bildotsac goituco ditu : cerren da jaunen Jauna, ta erregueen Erreguia, eta beragaz dagozanac, dira deitubac, autubac, eta leijalac.

15. Eta esan eustan : Icusi dituzun urac nun daguan jarriric emacume galduba, errijac dira, eta jentiac, eta miiñac.

16. Eta amar adarrac, icusi dituzunac pistijiagan, oneec gorroto izango deutse emacume galdubari, eta eguingo dabe solla, eta billosa,

99

eta bere araguijac jango ditube, eta subagaz erreco dabe.

17. Cerren Jaungoicuac imiñi dau euren bijotzetan eguin daguijela berari derichana: emon daguijuen bere erreñuba pistijiari bete ditecen artian Jaungoicuaren berbac.

18. Eta icusi dozun emacumia, da uri andija, aguintaritzia daucana lurreco erregueen ganian.

AMAZORTZIGARREN CAPITULUBA.

ETA oneen ondoric icusi neban beste aingueru bat jatsiten

100

zala cerutic, eucana al andija: eta lurra izan zan arguituba bere glorijaz.

2. Eta sendo diadar eguin eban, ciñuala: Jausi zao, jausi zan araco Babilonija andija: eta biurtu da demoninen bicilecu, eta espiritu loi guztijaren igueslecu, eta egazti loi, ta gorrotogarri guztijaren igueslecu:

3. Cerren jente guztijac edan eben bere aserreco araguizco pecatubaren ardaotic: eta lurreco erreguiac beragaz araguizco pecatuban jausi ciran: eta lurreco mercatarijac aberastu dira bere atseguiñen indarragaz.

4. Eta eutzun neban beste boz

101

bat cerutic, ciñuana: Urten eguizube beratatic, neure errija: izan ez zaitecen bere gaiztaquerijen partill, eta artu ez daguizuben bere plaguetatic.

5. Cerren bere pecatubac eldu dira cerura guiño, eta gomutau da Jauna bere gaiztaquerijacaz.

6. Biurtu eguijezube berari berac bere ceubei emon deutsuben leguez: eta pagau eguijezube berac emonagaz ta beste aimbeste gueijagogaz bere eguitaden erara: berac edaten emon eutsubeo ontzijan, emou eguijezube berari aimbeste ta beste aimbeste.

7. Cembat gozatu zan, eta atse-

102

guiñetan egon zao; aimbeste nñaz ta negar emon eguijezube: cerren bere bijotzian diño: Jarriric nago erreguiña: eta ez naz alarguna: eta ez dot icusico negarric.

8. Orregaitic egun batian etorrico dira bere plagac, erijotzia, eta negarra, eta gosia, eta subagaz erria izango da: cerren sendua da berari coutubac artuco deutsazan Jaungoicua.

9. Eta negar eguingo dabe, eta emongo deutsez otsac bularrai bere ganian lurreco erreguiac, beragaz araguizco pecatuban jausi ciranac, eta gozotasunetan bici izan ciranac, icusten dabeuian bere garren queia:

103

10. Urrin dagozala bere oñacen bildurra gaitic, diñuela: Ai, ai araco Babilonija uri andijaren, araco uri senduaren errucarrija: cerren ordu batian etorri zan zure galdumendija.

11. Eta lurreco mercatarijac negar eguingo dabe, ta uluca jardungo dabe bere ganian: cerren iñoc ez ditu gueijago erosico euren mercaderijac:

12. Eta urrezco, ta cidarrezco, ta arri balijotzuzco, eta perlazco, eta sedazco, eta granazco mercaderijac, eta zur usaintsu guztija, eta marfilezco ontzi guztijac, eta arri balijotzuzco, eta cobrezco, eta burdiñazco, eta marmolezco ontzi guztijac,

104

13. Eta canelia, eta usaiñezcuac, eta ujentuzcua, eta intzentzozcua, eta ardaozcua, eta orijozcua, eta urun lorazcua, eta garizcua, eta cargaco aberczcua, eta ardizcua, eta zaldizcua, eta cochezcua, eta mendecozcua, eta guizonen arimazcua.

14. Eta zure arimiaren gurarijaren frutac alde eguin eben zu gandic, eta gauza guicen, ta eder guztijac igues dabe zu gandic, eta onezquero ez dituzu gueijagn aurquituco.

15. Eta gauza oneen mercatarijac, aberastu ciranac, bera gandic urrin egongo dira bere oñacen bildurra gaitic, negarrez, ta uluz,

105

16. Eta diñuela: Ai, ai uri andi aren errucarrija, estalduric eguanarena liño piñez, eta escarlataz, eta granaz, eta urreturic eguana urrez, eta arri balijotzuz, eta perlaz:

17. Cerren ordu batian alde dabe aimbeste ondasunec. Eta gobernari guztija, eta ichasuan dabillen guztija, eta ichas guizonac, eta ichasoz saldu erosijac dauquezanac, urrindic egon ciran:

18. Eta icusiric bere garraren lecuba diadar eguin eben, ciñuela: ¿Cein uri andi onen antzecua?

19. Eta bota eben autsa euren buruben ganera, eta diadarrac eguin citubczan negarrez, ta uluz, ciñuela:

106

Ai, ai uri andi aren errucarrija, ceñetan aberastu ciran ichasuan ontzijac euquezan guztijac, bere precijuacaz: cerren ordu batian izan da arrasauba.

20. Poztu zaite bere ganian, ceruba, eta apostolu santubac, eta igarlac: cerren juzgau dau Jaungoicuac zuben juicijua bera gandic.

21. Eta jaso eban aiogueru sendo batec arri bat errota arri andi baten guisacua, eta bota eban ichasora, ciñuala: Onelaco bultzacadiagaz izango da botia araco Babilonija uri andija, eta ez da onezquero gueijago aurquituco.

22. Eta ez da iñoz zugan en-

107

tzungo citararijen boza, eta soñularijena, eta chillibituba joten dabenena, eta trompetia: eta languilla guztijen iracaslaric ez da aurquituco zugan gueijago: eta errota arrijen otsic ez da entzungo zugan gueijago:

23. Eta arguijaren arguic ez dau argui eguiogo gueijago zugan: eta ezcombarrijen bozic ez da izango entzuna onezquero zugan: cerren zure mercatarijac ciran lurreco andiquijac, cerren ceure sorguinquerijetan uts eguin eben jente guztijac.

24. Eta beratan izan da aurquituba igarlen ta santuben odola, eta lurrian illac izan diran guztijena.

108

EMERETZIGARREN CAPITULUBA.

ONEEN ondoric entzun neban aldra ascoren boza lacua ceruban, ciñuenena: Alleluia: Ossasuna, ta glorija, ta indarra gure Jaungoicuarentzat da:

2. Cerren bere erabaguijac dira eguijazcuac, ta zucenac, ceñec condenau daben bordion andija, gaiztotu dabena lurra bere nasaiquerija aguirijan, eta bengau daben bere serbitzarijen odola bere escubetatic.

3. Eta bigarrenez esan eben:

109

Alleluia. Eta bere queiac igoten dau guizaldijen guizaldijetan.

4. Eta auzpaztu ciran ogetalau zaarrac, eta lau aberiac, eta adorau eben Jaungoicua, jarriric eguana jarlecubaren ganian, ciñuela: Amen: Alleluia.

5. Eta bozac jarlecutic urten eban, ciñuala: Alabantzia esan eguijezube gure Jaungoicuari bere serbitzari guztijac: eta bere bildur zareenac chiquijac, ta andijac.

6. Eta entzun neban aldra andi baten boza lacua, eta ur ascoren boza lacua, eta trumonada andijen boza lacua, ciñuenena: Alleluia: cerren aguintau dau gure Jaungoico guztijalac.

110

7. Poztu gaitian, eta gozatu gaitian, eta emon daguijogun glorija berari: cerren etorri ciran Bildotsaren eztegubac, eta bere ezcongueija apaindu da.

8. Eta emona izan jacon estaldu dedilla liño arguitsu, ta zurijagaz. Cerren liño arguitsu au santuben birtutiac dira.

9. Eta esan eustan: Escribidu eguizu: Zorijonecuac, Bildotsaren eztogubetaco aparira deitubac izan diranac: eta esan eustan: Jaungoicuaren berba oneec eguijazcnac dira.

10. Eta auzpaztu nintzan bere oñetan, bera adoretaco. Eta esan eustan: Beguira ez daguizula eguin:

111

naz zure serbitzari laguna, eta zure anaijena, dauquenena Jesusen autorreria. Jaungoicua adorau eguizu. Cerren Jesusen autorreria da profecijaco espirituba.

11. Eta icusi neban ceruba idiguiric, eta orra zaldi zuri bat, eta bere ganian jarriric eguanari, erichan Berbacua, ta Eguijatija, eta zucentasunagaz juzguetan dau, eta diardu gudan.

12. Bere beguijac barriz suzco garra lacuac, eta bere buruban cinta zuri zabal asco, eta eucan icen bat escribiduric, iñoc ezagutu ez dabena ezpada berac.

13. Eta jantziric eguan odol

112

chipristiñez beterico soñecuagaz: eta deituten jaco bere icena, Jaungoicuaren Berbia.

14. Eta ceruban dagozan aldrac, jarraituten eutsen zaldi zurijetan, jantziric liño piñ zuri, ta garbiz.

15. Eta bere aotic urteten eban alde bijetatic zorrozturico ezpata batec: beragaz zaurituteco jentiac. Eta berac zucenduco ditu burdiñazco cigorragaz: eta berac zapalduten dau Jaungoico guztijalaren aserreco sumintasunaren ardauaren dolaria.

16. Eta dauca soñecuan, eta bere isterrian escribiduric: Erregueen Erreguia, ta aguiotetan dabenen Jauna.

113

17. Eta icusi neban aingueru bat eguala eguzquijan, eta eguin eban diadar andi bat, cirautsela cerubaren erditic egan ebiltzazan egazti guztijai: Erdube, ta batu zaitece Jaungoicuaren apari andiraco:

18. Jan daguizubezan erregueen araguijac, eta uri gordetzallen araguijac, eta senduen araguijac, eta zaldijen, ta euretan jarriric dagozanen araguijac, eta guztijen araguijac, ascatuben, ta mendecuen, ta chiquijen, ta andijenac.

19. Eta icusi neban pistijia, eta lurreco erreguiac, ta euren gudaritaguijac gudan eguiteco zaldi ganian

114

jarriric eguanagaz, ta bere gudaritaguijacaz.

20. Eta atrapauba izan zan pistijia, eta beragaz igarla guzurrezcua: eguin cituzana bere aurrian ezagungarrijac, ceintzubecaz engañau cituzan, artu ebenac pistijiaren marquia, eta adorau ebenac bere irudija. Biciric izan ciran jaurtiguijac oneec bijoc sufrez issoturic daguan suzco lecuban.

21. Eta emparaubac illac izan ciran zaldijaren ganian jarriric eguanaren ezpata, bere aotic urteten dabenagaz: eta egazti guztijac ase ciran euren araguijacaz.

115

OGUEIGARREN CAPITULUBA.

ETA icusi neban aingueru bat jatsiten zala cerutic, eucana lezaco guiltza, eta cateia andi bat bere escuban.

2. Eta eldu eutsan dragoiari, anchiñaco sierpiari, cein dan diabruba, ta satanas, eta lotu eban milla urteraco :

3. Eta sartu eban lezan, eta ichi eban, eta sillutu eban bere gania ez eguizan engañau gueijago jentiac, bete artian milla urte : eta oneen ondoric ascatubac izan biar dau dempora guichijan.

116

4. Eta icusi nituzan jarlecubac, eta jarri ciran curen ganian, eta emou jaquen contubac artuteco escubidia : eta Jesucristoren autorreria gaitic, eta Jaungoicuaren berbia gaitic samac ebaguijac izan jaquezanen arimac, eta ez ebenac adorau pistijia, ez bere irudija, ta ez ebenac artu bere marquia becoquijetan, edo euren escubetan, eta bici ciran, eta aguintau eben Cristogaz milla urtian.

5. Illen emparaubac ez ciran sartu bicitzan, bete artian milla urte. Au da lelengo biztuera barrija.

6. Zorijonecua, ta santuba, partill dana lelengo biztuera barrijan :

117

oneecgan bigarren erijotziac ez dauca escubideric : ezpada izango dira Jaungoicuaren ta Cristoren sacerdotiac, eta aguintauco dabe beragaz milla urtian.

7. Eta amaitubac diranian milla urtiac, ascatuba izango da satanas bere presondeguitic, eta urtengo dau, eta eogañauco ditu lurraren lau egaletan dagozan jentiac, Gog, eta Magog, eta batuco ditu gudaraco, ceintzuben cembata da ichasoco ondarra leguez.

8. Eta igon eben lurraren zabaleriareo ganera, eta inguratu citubezan santuben gudalecubac, eta uri maitatuba.

118

9. Eta jatsi zan suba Jaungoicua gandic cerutic, eta iruntzi cituzan : eta diabruba, eurac engañetan cituzana, izan zan sartuba suzco, ta sufrezco lecuban, nun pistijia bere,

10. Eta guzurrezco igarlia izango dira penaubac gau ta egun guizaldijen guizaldijetan.

11. Eta icusi neban jarlecu andi bat zurija, eta bat jarriric bere ganian,ceñen icusbeguitic igues eguin eban lurrac, eta cerubac, eta lecuric ez zan aurquitu eurenic.

12. Eta icusi nituzan illac, andijac eta chiquijac, egozala zutunic jarlecubaren icusbeguijan, eta liburubac izan ciran idiguijac : eta beste

119

Liburu bat izan zan idiguija cein dan bicitzacua : eta juzgaubac izan ciran illac liburubetan escribiduric egozan gaucetatic euren eguitaden erara.

13. Eta emon cituzan ichasuac, beragan egozan illac : eta erijotziac, eta infernubac emon citubezan eurctan egozan euren illac : eta euretarico bacocharen juicijua izan zan eguiña euren eguitaden erara.

14. Eta infernuba, eta erijotzia izan ciran jaurtiguijac suzco lecura. Au da bigarren erijotzia.

15. Eta aurquitu ez zana bicitzaco Liburuban escribiduric, izan zan jaurtiguija suzco lecura.

120

OGUETABATGARREN CAPITULUBA.

ETA icusi neban ceru barrija, ta lur barrija. Cerren lelengo ceruba, ta lelengo lurra juan zan, eta ichasua ez da onezquero.

2. Eta nic Juan icusi neban uri santu Jerusalem barrija jatsiten zala cerutic Jaungoicua gandic, prestauric, andra ezcombarri apainduba bere senarrarentzat leguez.

3. Eta entzun neban boz andi bat jarlecutic ciñuala : Orra emen Jaungoicuaren egolecuba guizonacaz,

121

eta bicico da euracaz. Eta eurac bere errija izango dira, eta Jaungoicua bera euracaz izango da euren Jaungoicua :

4. Eta garbituco dau Jaungoicuac malco guztija euren beguijetatic : eta erijotzaric ez da gueijago izango, ez negarric, ez diadarric, ez miñic izango da gueijago, cerren lelenguac igaro ciran.

5. Eta esan eban jarlecuban jarriric eguanac : Orra emen barrijac eguiten ditudaz guztijac. Eta esan eustan : Escribidu eguizu, cerreo berba oneec guztiz ciurrac dira, ta eguijazcuac,

6. Eta esan eustan : Eguin zan.

122

Ni naz alfa ta omega : asieria ta amaija. Nic egarri danari emongo deutsat bicitzaco ureco iturritic, duaric.

7. Goituten dabenac, euquico ditu oneec, eta izango nachaco Jaungoicua, eta bera izango da niretzat semia.

8. Barriz coldarrentzat, eta siniste baguentzat, eta madaricatubentzat, eta erallentzat, eta nasaijentzat, eta sorguiñentzat, eta idoluac adoretan ditubezanentzat, eta guzurti guztijentzat, eurac partill izango dira suz, ta sufrez issoturico lecuban : cein dan bigarren erijotzia.

9. Eta etorri zan zazpi aingue-

123

rubetatic bat, euquezanetatic edontzijac zazpi azquenengo plagaz betiac, eta berba eguin eban neugaz, ciñuala: Erdu, ta eracutsico deutsut andra ezcombarrija, Bildotsaren emaztia.

10. Eta eruan niuduban adiñez mendi andi, ta altu batera, eta eracutsi eustan Jerusalem uri santuba jatsiten zala cerutic Jaungoicua gandic,

11. Eucana Jaungoicuaren arguitasuna: eta bere arguija arri balijotsubaren irudicua jaspezco arrija lacua, cristalaren guisacua.

12. Eta eucan moralla andija, ta altuba, eucazana amabi ate: eta

124

atectan amabi aingueru, eta icenac escribiduric, ceintzuc diran Israelgo semeen amabi cchadijen icenac.

13. Urteeratic iru ate, eta ifarretic iru ate, eta egoetic iru ate, eta sarreratic iru ate.

14. Eta urijaren morallia, eucazana amabi cimentarri, eta amabi oneetan, Bildotsaren amabi apostoluben icenac.

15. Eta berba eguiten ebanac nigaz, eucan neurri bat urrezco cañaberazcua, neurtuteco urija, ta bere atiac, ta morallia.

16. Eta urija lau alde bardiñetacua da, eta bere luceeria aimbeste da cembat bere dan zabaleria: eta

125

neurtu eban urija urrezco cañaberiagaz amabi milla estadu: eta bere luceeria, ta altneria, ta zabaleria bardiñac dira.

17. Eta neurtu eban bere morallia eun eta berroguetalau beso, guizonaren ueurricua, cein dan ainguerubarena.

18. Eta bere morallia zan arri nabarrezcua: urija bera barriz urre garbija biderijo garbijaren antzecua.

19. Eta urico moralliaren cimendubac arri balijotsn guztijaz apaindubac. Lelengo cimenduba, arri nabarra: bigarrena, ceru arrija: irugarrena, arri urdiña: laugarrena, berdizquia:

126

20. Bostgarrena, arri gorrija: seigarrena, zurizquia: zazpigarrena, ori berdia: zortzigarrena, berde arguija: bederatzigarrena, berde orija: amargarrena, berde illuna: amaicagarrena, berde zurija: amabigarrena, morauba.

21. Eta amabi atiac, amabi perla dira, bacochian bat: eta ate bacocha zan perla bacochecua: eta urico plaeia urre ntsa biderijo arguitsuba lacua.

22. Eta elessario ez neban icusi bertan. Cerren Jaun Jaungoico guztijala da bere elessia, ta Bildotsa.

23. Eta urijac ez dauca eguzquijaren, ez illarguijaren premiñaric

127

argui eguiteco bertan: cerren Jaungoicuaren arguitasunac arguitu eban, eta bere arguija da Bildotsa.

24. Eta ibillico dira jentiac bere arguijan: eta lurreco erreguiac ecarrico dabe bertara euren glorija, ta ondria.

25. Eta bere atiac ez dira izango ichijac egunaz: cerren gauric ez da izango an.

26. Eta bertara eruango dabe erreinuben glorija, ta ondria.

27. Ez da sartuco bertan batbere loituric, ez iñor izugarrija, ta guzurra eguiteu dabenic; ezpada Bildotsaren bicitzaco Liburuban escribiduric dagozanac.

128

OGUETABIGARREN CAPITULUBA.

ETA eracutsi eustan ur bicizco ibai bat, arguija cristala leguez, urteten ebala Jaungoicuaren ta Bildotsaren jarlecutic.

2. Bere placiaren erdijan, eta ibaijaren alde bijetatic bicitzaco arbolia, ecazana amabi frutu, emoten dabena ill bacochian bere frutuba, eta arboliaren orrijac jenteen ossuneraco.

3. Eta madaricaciñoiaren quimetzic ez da an izango gueijago:

129

ezpada Jaungoicuaren, ta Bildotsaren jarlecubac egongo dira an, eta bere serbitzarijac serbiuco dabe.

4. Eta icusico dabe bere arpeguija: eta bere icena euren becoquijetan.

5. Eta gauric gueijago ez da izango: eta ez dabe euquico zucijaren arguijaren, ez eguzquijaren arguijaren premiñaric: cerren Jaun Jaungoicuac argui eguingo deutse, eta aguintauco dabe guizaldijen guizaldijetan.

6. Eta esan eustan: Berba oneec guztiz ciurrac dira, ta eguijazcuac. Eta igarlen espirituben Jaun Jaungoicuac bialdu eban bere ainguerubа

130

aguertutera bere serbitzarijai laster eguiñac izan biar daben gauzac.

7. Eta orra nun natorren guztiz arin. Zorijonecua, gordetan dituzana liburu onen gueroco barrijen berbac.

8. Eta ni Juan, entzun nituzana, ta icusi nituzana oneec. Eta entzun, ta icusi ezqnero, auzpaztu nintzan oneec eracusten eustazan ainguerubaren oñetan bera adoretaco:

9. Eta esan eustan: Beguira ez daguizula eguin: cerren naz zure serbitzari laguna, eta ceure anaija igarlena, eta liburu unen etorquizunen barrijaren berbac gordetan dituбezanena: Jaungoicua adorau eguizu.

131

10. Eta esan eustan: Ez eguizuz sillutu liburu onen etorquizunen barrijen berbac: cerren demporia urrian da.

11. Calte eguiten dabenac, calte eguin daguijala oraindic: eta loiquerijetan daguana, loitu dedilla oraindic: eta justuba dana, justutu dedilla oraindic: eta santuba, santutu dedilla oraindic.

12. Orra nun nator laster, eta nire sarija neugaz da, biurtuteco bacochari bere eguitaden erara.

13. Ni naz alfa ta omega, leleogua ta azquenengua, asieria ta amaija.

14. Zorijonecuac, garbituten di-

132

tubezanac euren soñecuac Bildotsaren odolian: izan ditecen eurac partill bicitzaco arbolan, eta atetatic sartu ditecen urijan.

15. Campora chacurrac, eta sorguiñac, eta nasaijac, eta erallac, eta idoloen serbitzarijac, eta guzurra maitetu, ta eguiten daben gnztija.

16. Nic Jesus bialdu dot neure aingueruba, adierazotera znbei oneec elessetan. Ni naz sustraija, eta Dabiden jatorrija, izar arguitsuba, ta gossecna.

17. Eta espiritubac, eta lagunac diñue: Erdu. Eta entzuten dabenac, esan begui: Erdu. Eta egarri dana,

133

betor: eta gura dabenac, artu begui bicitzaco ura, duaric.

18. Cerren dirautsat liburu onen etorquizunen barrijaren berbac entzuten dituzan guztijari: Baldin iñoc irasten badeutse eurai ecer, iniñico dituzala Jaungoicuac bere ganian liburu onetan escribiduric dagozan plagac.

19. Eta baldin iñoc guichituco balitu etorquizunen barri onen liburuco berbac, quenduco dau Jaungoicuac bere partiltasuna bicitzaco liburutic, eta uri santutic, eta liburu onetan escribiduric dagozan gaucetatic.

20. Diño oncen autorreria emo-

134

ten dahenac: Eguijaz banator laster: Alan izan dedilla. Erdu, Jaun Jesus.

21. Jesucristo gure Jaunaren gracija zubecaz guztijocaz. Alan izan dedilla.

EL APOCALIPSIS DEL APÓSTOL SAN JUAN
SAN JUAN APOSTOLUAREN APOKALIPSISA

Jose Antonio Uriarte
Gipuzkeraz
Londres
1858

Originala: «Azkue Biblioteka» - Euskaltzaindia

EL APOCALÍPSIS

DEL APÓSTOL SAN JUAN,

TRADUCIDO AL VASCUENCE,

DIALECTO GUIPUZCOANO

POR EL

P. FR. JOSÉ ANTONIO DE URIARTE,

PARA EL

PRÍNCIPE LUIS-LUCIANO BONAPARTE

LÓNDRES.

1859.

I CERTIFY that this book was printed by me in the house of His Highness the Prince Louis-Lucien Bonaparte, and that the number of copies impressed amounted to fifty, one of which is printed on thick paper.

August, 1858. E. BILLING.

SAN JUAN APOSTOLUAREN APOKALIPSISA.

LEMBIZIKO KAPITULUA.

JESUKRISTOREN Apokalipsisa, Jaungoikoak eman ziona, laster gertatu bear dutenak agertzeko bere serbitzariai: eta ezagutuerazi ziona, bidaldurik bere aingeruaren bitartez bere serbitzari Juani,

2. Zeñak lekukotasuna eman zion Jaungoikoaren itzari, eta Jesukristoren lekukotasuna, ikusi zituen guziai.

3. Doatsua profezia onetako itzak irakurtzen eta aditzen dituena: eta onetan eskribaturik daudenak gordetzen dituena: zeren dembora aldean da.

4. Juanek Asian dauden zazpi elizai. Grazia zuei, eta pakea dana gandik, zana gandik, eta etorriko dana gandik: eta aren tronuaren aurrean dauden zazpi espirituak gandik:

5. Eta Jesukristo gandik, zeñ dan lekuko leyala, illetatik lembizi sortua, eta lurreko erregeen aundiena, zeñak maitatu ginduen, eta garbitu ginduen gure pekatuetatik bere odolean, (1)

6. Eta egin gaitu Jaungoikoaren eta bere Aitaren erreinu, eta apaiz: ari gloria, eta agintaritza gizaldien gizaldietan: Ala izan dedilla.

7. Ona non etortzen dan odeyakin, eta ikusiko dute begi guziak, eta bera zulatu zutenak. Eta bularrak joko dituzte bera ikusiaz lurreko erri guziak: Bai: Ala izan dedilla.

8. Ni naiz alfa eta omega, asiera eta bukaera, dio Jaun Jainkoak: danak, eta zanak, eta etorriko danak, guztialak.

9. Ni Juan zuen anaya, eta partilla naigabean, eta erreinuan eta iragopenean Jesukristogan: izan nintzan Patmos deitzen zayon ugartean, Jaungoikoaren itza gatik eta Jesusen lekukotasuna gatik:

10. Izan nintzan gogoz eramana igande egun batean, eta aditu nuen nere ondoren boz errutsu bat trompetaren idurikoa,

11. Ziona: Ikusten dezuna, eskribatu ezazu liburu batean: eta bidaldu zayezu zazpi elizai, zeñak dauden Asian, Efeson, eta Esmirnan, eta Pergamon, eta Tiatiran, eta Sardisen, eta Filadelfian, eta Laodizian.

12. Eta itzuli nintzan itz egiten zidan boza ikusteko: eta itzuli nin-

7

tzanean ikusi nituen zazpi urrezko kandelero:

13. Eta zazpi urrezko kandeleroen erdian gizonaren Semea bezelako bat, soñeko luze batekin jantzirik, eta urrezko gerriko batez bularrondoak loturik:

14. Aren burua berriz, eta illeac zuriak ziran ille zuria bezela, eta elurra bezela; eta aren begiak su garra bezelakoak ziran:

15. Eta aren oñak iduri zuten latoe zuria, labe gorrian, eta aren itzac iduri zuten ur andien abarrotsa:

16. Eta zeuzkan bere eskuiko eskuan zazpi izar: eta aren aotik ezpata bat bi aldeetatik zorroztua ir-

8

tetzen zan: eta aren arpegia distiatzen da eguzkia bere indarrean bezala.

17. Eta ikusi nueneau, erori nintzan aren oñetan illa bezela. Eta jarri zuen bere eskuiko eskua nere gañean, ziola: Etzaite beldur izan: ni naiz lenena, eta azkena,

18. Bizi naizana, eta izan naiz illa, eta ona non bizi naizan gizaldien gizaldietan, eta ditut eriotzaren giltzak, eta infernukoak. (2)

19. Eskribatu itzatzu bada ikusi dituzunak, eta diranak, eta gertatu bear dutenak oyen ondoren.

20. Ona nere eskuiko eskuan ikusi dituzun zazpi izarren misterioa,

9

eta zazpi urrezko kandeleroena: zazpi izarrak dira, zazpi elizen aingeruak: eta zazpi kandeleroak, zazpi elizak dira. (3)

BIGARREN KAPITULUA.

ESKRIBATU zayozu Efesoko elizaren aingeruari: Oyec esaten ditu, dauzkanak zazpi izarrak bere eskuiko eskuan, eta zazpi urrezko kandeleroen erdian dabillanac:

2. Badakizkit zure egiteac, eta zure nekea, eta iragopena, eta ezin dituzula sufritu gaiztoac: eta aztertu

10

dituzula apostoluak dirala esaleac, ez izanik: eta gezurti arkitu dituzu:

3. Eta iragopena badezu, eta sufritu dezu nere izena gatik, eta ez dezu ukatu.

4. Baña badet zerchobait esateko zure kontra, zure lelengo karidadea utzi dezula.

5. Oroitu zaite bada nondik erori zeran: eta egizu penitentzia, eta egin itzatzu lelengo obrak. Zeren bestela, etortzen natzatzu, eta alde eragingo diot zure kandeleroari bere lekutik, ez badezu penitentzia egiten.

6. Baña au badezu, gorroto diezula Nikolaiten egiteai, zeñai nik ere gorroto diedan.

11

7. Belarria duenak, aditu beza Espirituak zer dioten elizai: Garaitzen duenari emango diot jaten bizitzako zuaitzetik, zeñ dagoan nere Jaungoikoareo paradisuan.

8. Eta Esmirnako elizaren aingeruari eskribatu zayozu: Oyek esaten ditu lembizikoak, eta azkenak, ill zanak, eta bizi danak:

9. Badakit zure naigabea, eta zure premia, baña aberatsa zera: eta Juduak dirala esaten dutenen gaizkiak, eta ez dira alá, baña bai satanasen batzarrea.

10. Ez iduki iragotzera zoazanen beldurrik. Ooa non deabruak sartuko dituan zuetariko batzuek pre-

12

soindegian, tentatuak izateko: eta naigabea izango dezute amar egunean. Izan zaite leyala ill arteraño, eta emango dizut bizitzako koroa.

11. Duenak belarria, aditu beza zer dioten Espirituak elizai: Garaitzen duena, ez da bigarren erintzak ukitua izango.

12. Eta Pergamoko elizaren aingeruari eskribatu zayozu: Oyek esaten ditu duenak ezpata bi aldeetatik zorroztua:

13. Badakit non zauden, satanasen esertokia dan tokian: eta badezu nere izena, eta ez dezu ukatu nere sinistea. Ez eta egun ayetan, zeñetan Antipas nere aitortzalle leyala

13

illa izan zan zuen artean, non dagoan satanas.

14. Baña badet zure kontra zerchobait: badituzu or jarraitzen diotenak Balaamen irakatsiari, zeñak irakasten zion Balaki galbidea ematen Israelko semeai, zillegi etziranak janerazitzen, eta lizunkerian nastuerazitzen:

15. Ala dituzu zuk ere Nikolaiten irakatsiari jarraitzen diotenak.

16. Egizu arren penitentzia: bestela etorriko natzatzu bereala, eta gudatuko naiz ayekin nere aoko ezpatarekin.

17. Duenak belarria, aditu beza zer esaten dioten Espirituak elizai:

14

Garaitzen duenari emango diot mana gordea, eta emango diot arri zuri bat: eta arrian izen berri bat eskribaturik, iñork ez dakiana artzalleac baizik. (4)

18. Eta Tiatirako elizaren aingeruari eskribatu zayozu: Oyek esaten ditu Jaungoikoaren Semeak, zeñaren begiak su garraren antzekoak diran, eta oñak latoe zuriaren idurikoak:

19. Ezagutzen ditut zure egiteak, eta sinistea, eta zure karidadea, eta lambidea, eta zure iragopena, eta zure azkeneko egiteak lembizikoak baño geyagoak.

20. Baña badet zure kontra zerchobait: uzten diozula Jezabel, e-

15

makume profeta dala berak dion bati, irakasten, eta nere serbitzariak engañatzen, loikeriara oyek erakarten, eta Jaungoiko gezurrezkoai eskeñitakoetatik janerazitzen.

21. Eta dembora eman diot penitentzia egiteko: eta ez du nai damutu bere lizunkeriaz.

22. Bera gatik ezarriko det oean: eta arekin nastu diranac, izango dira naigaberik andienean, ez badute egiten beren egiteen penitentzia.

23. Eta aren aurrak ilko ditut, eta jakingo dute eliza guztiak, ni naizala errayen, eta biotzen azterlaria: eta emango diot zuetariko bakoitzari

16

bere egiteen araura. Zuei berriz diozutet,

24. Eta beste Tiatiran zaudetenai: Irakaste oni jarraitzen ez dioten guztiak, eta ezagutzen ez dituztenak satanasen sakontasunak, ayek dioten bezela, ez det ezarriko zuen gañean beste kargarik:

25. Alaere dezutena gorde ezazute ni natorren artean.

26. Eta garaitzen duenari, eta nere azkeneko egiteak gordetzen dituenari, eskua emango diot errien gañean,

27. Eta erabilliko ditu burnizko zigorrarekin, eta lurrezko ontzi bat bezela izango dirade autsiak,

17

28. Nik ere artu nuen bezela nere Aita gaudik: eta emango diot egunsentiko izarra.

29. Belarria duenak, aditu beza zer dioten Espirituak elizai. (5)

IRUGARREN KAPITULUA.

ETA Sardisko elizaren aingeruari eskribatu zayozu: Oyek esaten ditu dauzkanak Jaungoikoaren zazpi espirituak, eta zazpi izarrak: Badakizkit zure egiteak, badezula bizi zeralako izena, eta illa zaudela.

2. Izan zaite iratzarria, eta secdatu itzatzu beste iltzera zijoazenak.

18

Zeren ez ditut arkitzen zure egiteak beteak nere Jaungoikoaren aurrean.

3. Gogoan bada ar zazu zer izan dezun, eta aditu, eta gorde ezazu, eta egin penitentzia. Ez bazaude ordea iratzarririk, etorriko natzatzu lapurra bezala, eta ez dezu jakingo zer ordutan etorriko natzatzun.

4. Argatik badituzu izen banaka batzuek Sardisen, beren soñekoak zikindu ez dituztenak: eta ibilliko dirade nerekin zuriz jantzirik, zeren diñak diraden.

5. Garaitzen duena, onela izango da zuriz jantzia, eta ez det kenduko aren izena bizitzako Liburutik: eta aitortuko det aren izena nere Aita-

19

ren aurrean, eta aren aingeruen aurrean.

6. Belarria duenak, aditu beza zer esaten dioten Espirituak elizai.

7. Eta eskribatu zayozu Filadelfiako elizako aingeruari: Oyek esaten ditu Santuak eta Egiatiak, Dabiden giltza duenak: zeñak idikitzen du, ta iñork ez du ichitzen: zeñak ichitzen du, eta ez du iñork idikitzen:

8. Badakizkit zure egiteak. Ona jarri dizut aurrean ate idikia, iñork ichi ezin dezakena: indar guchi dezulako, eta gorde dezulako nere itza, eta ez dezulako nere izena ukatu. (6)

9. Ona non emango dizudan sa-

20

tanasen batzarretik, Juduak dirala esaten duten batzuek, eta ez dirade ala, baña gezurra diote: Ona non etorrieraziko diedan, eta belaunikatuko dira zure oñetan: eta jakingo dute maite zaitudala.

10. Gorde dezulako nere iragopeneko itza, nik ere gordeko zaitat teotazioko orduan, zeñ etorriko dan mundu guztira, lurrean bizi diranak probatzera.

11. Ona non natorren bereala: gorde ezazu dezuna, iñork artu ez dezan zure koroa.

12. Garaitzen duenarekin egingo det abe bat nere Jaungoikoaren temploan, eta kampora ez da berriz ate-

21

rako: eta eskribatuko det aren gañean nere Jaungoikoaren izena, eta nere Jaungoikoaren erriaren izena Jerusalen berriarena, zeñ jachitzen dan zerutik nere Jaungoikoa gandik, eta nere izen berria.

13. Duenak belarria, aditu beza zer esaten dioten Espirituak elizai:

14. Laodiziako elizaren aingeruari ere eskribatu zayozu: Oyek esaten ditu: Egiak, lekuko leyalak, eta egiazkoak, zeñ dan Jaungoikoaren egiñen asiera. (7)

15. Badakizkit zure egiteak: etzerala ez otza, ez beroa: arren bada baziña ntza, edo beroa: (8)

16. Baña epela zeralako, eta ez

22

otza, ez beroa, asiko natzatzu aurtikitzen nere aotik.

17. Esaten dezulako: Aberatsa naiz, eta ondasuntsua, eta ez naiz iñoren bear: eta ez dakizu zerala chit beartsua, eta doakabea, eta deusgabea, eta itsua, eta billuza.

18. Konsejatzen zaitut erosi dizadazula sutan garbitutaco urrea aberastu zaitezen, eta jantzi ditzatzun soñeko zuriak, agertu ez dedin zure billuztasunaren lotsaria, eta begiurez igortzi itzatzu zure begiak ikusi dezazun. (9)

19. Nik maite ditudanak, zuzentzen ditut, eta kastigatzen. Piztu zaite bada, eta egizu penitentzia.

23

20. Ona non nagoan atean, eta jotzen det: baldin iñork aditzen badu nere boza, eta idikitzen badit atea, sartuko naiz bera gana, eta afalduko det arekin, eta ark nerekin. (10)

21. Garaitzen duenari, eserieraziko diot nerekin nere tronuan: nik ere garaitu nuen bezela, eta eseri nintzan bezela nere Aitarekin aren tronuan.

22. Duenak belarria, aditu beza zer dioten Espirituak elizai.

LAUGARREN KAPITULUA.

OYEN ondoren ikusi nuen: eta ona ate bat idikia zeruan; eta

24

lembizi aditu nuen bozak, trompeta bat bezela niri itz egiten, esan zidan: Igo zaite onera, eta erakutsiko dizkitzut gero gertatu bear dutenak.

2. Eta bereala izan nintzan gogoz eramana: eta ona esertoki bat jarririk zegoan zeruan, eta esertokiaren gañean eseria;

3. Eta eserirk zegoana, zan jaspe eta sardonis arrien idurikoa: eta ostrellaka bat zegoan esertokiaren inguruan, esmeraldoarenekoa.

4. Eta esertokiaren inguruan ogei ta lau esertoki: eta tronuen gañean ogei ta lau zar eserirk, soñeko zuriz inguraturik, eta ayen buruetan urrezko koroak.

25

5. Eta tronutik irteten ziran chimistak, eta deadarrak, eta turmoyak: eta zeuden tronuaren aurrean zazpi argi pizturik, zeñak diran Jaungoikoaren zazpi espirituak.

6. Eta tronnaren aurrean bidriozko itsaso bat bezala kristalaren idurikoa: eta esertokiaren erdian, eta esertokiaren inguruan, lau abere begiz betcak aurretik eta atzetik. (11)

7. Eta lembiziko aberea zan leoearen idurikoa, eta bigarren aberea chekorraren idurikoa, eta irugarren abereak zuen arpegi bat gizonaren idnrikoa, eta laugarren abereak iduri zuen egan dijoan arranoa.

8. Eta lau abereak bazituzten

26

seina ego: eta inguruan, eta barrenen beteak zenden begiz: eta atsedenik artu gabe gauaz ez egunaz, esaten zuten: Santua, Santua, Santua, Jaun Janngoiko guztiala, zeñ zan, eta zeñ da, eta zeñ etorriko da. (12)

9. Eta ari ziradela abere ayek glnria, eta onra eta bedeikazioa ematen eserirk zegoanari tronuaren gañean, bizi danari gizaldien gizaldietan,

10. Auzpez ernrtzen ziran ogei eta lau zarrak tronuan eserirk zegoanaren aurrean, eta botatzen zituzten beren koroak tronuaren aurrean ziotela:

11. Diña zera, gure Jaun Jainkoa,

27

izateko gloria, eta onra, eta birtutea: zeren zuk egin dituzu guziak, eta zure naiz ziran, eta egiñak izan dira.

BOSGARREN KAPITULUA.

ETA ikusi nuen tronuan eserirk zegoanaren eskuiko eskuan, liburu bat barrendik eta kampotik eskribatua, eta zazpi silluz ichia.

2. Eta ikusi nuen aingeru errutsu bat, sendo deadar egiten zuela: Nor da gai liburua zabaltzeko, eta silluak kentzeko?

3. Eta iñork ezin zuen, ez zeruan,

28

ez lurrean, ez lurpean, zabaldu liburua, ez berari begiratu.

4. Eta ni negar jarioan nengoan, iñor etzalako gai arkitu, zabaltzeko liburua, eta bera ikusteko.

5. Eta zarretatik batek esan zidan: Ez dezazula egin negarrik: ona irabazi du Judaren tribuko leoeak, Dabiden sustrayak, liburua zabaltzea, eta zazpi silluak kentzea.

6. Eta ikusi nuen: eta ona tronuaren eta lau abereen erdian, eta zarren erdian, Bildots bat zutik illa bezala, zeuzkaoa zazpi adar, eta zazpi begi: zeñak dirade Jaungoikoaren zazpi espiritu, lur guzira bidalduak. (13)

29

7. Eta etorri zan: eta artu zuen liburua tronuan eserirk zegoanaren eskuiko eskutik.

8. Eta zabaldu zuenean liburua lau abereak, eta ogei eta lau zarrak auzpeztu ziran Bildotsaren aurrean, zeuzkatela bakoitzak arpa, eta urrezko ontzi batzuek usai onez beteak, oyek dirade santuen erreguak:

9. Eta kantatzen zuten kanta berri bat, ziotela: Gai zara, Jauna, liburua artzeko, eta aren silluak kentzeko: zeren illa izan zera, eta erosi gaituzu Jaungoikoarentzat zure odolaz tribu, eta izkuntza, eta erri, eta erreinu guzitik:

30

10. Eta egin gaituzu gure Jaungoikoaren errege, eta apaiz: eta erreinatuko degu lurrean.

11. Eta ikusi nuen, eta aditu nuen aingueru askoren boza tronuaren, eta abereen, eta zarren inguruan: eta ziran milla millaka,

12. Deadar andiarekin ziotenak: Diña da, illa izan dan Bildotsa, artzeko birtutea, eta jaungoikotasuna, eta jakinduria, eta indarra, eta onra, eta gloria, eta bedeikazioa.

13. Eta zeruan, eta lurraren gañean, eta lurpean diran guztiai, eta itsasoan, eta artan barrenen diranai: guztiai aditu nien esaten: Tronuan eserirk dagoaoari, eta

31

Bildotsari: bedeikazioa, eta onra, eta gloria, eta ala gizaldien gizaldietan.

14. Eta lau abereak esaten zuten: Ala izan dedilla. Eta ogei eta lau zarrak auzpez erori ziran: eta adoratu zuten bizi dana gizaldien gizaldietan.

SEIGARREN KAPITULUA.

ETA ikusi nuen Bildotsak idiki zuela zazpi silluetatik bat, eta aditu nion lau abereetatik bati, esaten, turmoyaren boza bezelako batekin: Atoz, eta ikusi ezazu.

2. Eta ikusi nuen: eta ona zaldi

32

zuri bat, eta aren gañean eseririk zegoanak zeukan ballesta bat: eta eman zioten koroa bat, eta abiatu zan garaitzalle garaitzeko. (14)

3. Eta idiki zuenean bigarren sillua, aditu nion bigarren abereari, esaten: Atoz, eta ikusi ezazu.

4. Eta irten zan beste zaldi origorri bat: eta aren gañean eseririk zegoanari, emana izan zayon pakea lurretik kentzea, eta elkar iltzea, eta eman zioten ezpata andi bat. (15)

5. Eta idiki zuenean irugarren sillua, aditu nion irugarren abereari, esaten: Atoz, eta ikusi ezazu. Eta ona zaldi beltz bat: eta aren gañean

33

eseririk zegoanak, zeukan balantza bat bere eskuan. (16)

6. Eta aditu nuen boz bat bezela lau abereen artetik, esaten: Bi libra ogi diruan, eta iru libra garagar diruan, eta ardoari, eta olioari ez ukitu. (17)

7. Eta idiki zuenean laugarren sillua, aditu nuen laugarren aberearen boza, esaten: Atoz, eta ikusi ezazu.

8. Eta ona zaldi zurbil bat: eta aren gañean eseririk zegoanak, zuen izena Erioa, eta jarraitzen zion infernuak, eta eskua emana izan zayon lurraren lau ertzetan, iltzeko ezpatarekin, gosetearekin, eta eriotzarekin, eta lurreko pistiakin. (18)

34

9. Eta idiki zuenean bosgarren sillua: ikusi nituen aldarepean, Jaungoikoaren itza gatik, eta ekarri zioten lekukotasuna gatik illak izan ziradenen animak,

10. Eta deadarrez ari ziraden sendo, ziotela: Noiz artean, Jauna, santua eta egiatia, ez dezu zuzen egiten, eta ez dezu bengatzen gure odnla lurreao dauden ayetatik? (19)

11. Eta emanak izan zitzayozkaten soñeko zuriak: eta esana izan zitzayoten iehedon zezatela oraindikan piska bat, bete artean ayen serbitzari lagunen, eta berak bezela illak izan bear dutenen taldea.

12. Eta ikusi nuen idiki zuenean

35

seigarren sillua: eta ona lurdardara andi bat izan zan, eta eguzkia beltzitu zan zurdazko zaku bat bezela: eta illargi guztia odol bezela biurtu zan:

13. Eta izarrak zerutik erori ziran lurrera, pikondoak isurtzen dituen bezela bere pikoak, aize andi batek astintzen duenean.

14. Eta zerua bildu zan liburu bat biribillatzen dan bezela: eta mendi guziak, eta ugarteak beren tokietatik jausi ziran:

15. Eta lurreko erregeak, eta andienak, eta ejerzituetako agintariak, eta aberatsak, eta sendoak, eta mempeko diran guziak, eta jabeak gorde

36

ziran arzuloetan, eta mendietako aitzetan:

16. Eta esaten diote mendiai, eta aitzai: Erori zaitezte gure gañera, eta gorde gaitzatzute tronuan eseririk dagoanaren ikusbidetik, eta Bildotsaren aserretik:

17. Zeren eldu da ayen aserrearen egun andia: eta nor egon daiteke zutik?

ZAZPIGARREN KAPITULUA.

OYEN ondoan ikusi nituen lau aingeru zutik lurraren lau ertzetan, lurreko lau aizeak zeuzkatela,

37

ibilli etzitezen lurrean, ez itsasoan, ez zuaitz batean ere.

2. Eta ikusi nuen beste aingeru bat igotzen eguzkiaren irteeratik, zeñak zeukan Jaungoiko biziaren señalea: eta sendo deadar egin zioten lau aingeruai, zeñai eskua emanik zegoten lurra, eta itsasoa kaltetzeko,

3. Ziotela: Ez egin kalterik lurrari, ez itsasoari, ez eta zuaitzai, marka ditzagun artean gure Jaungoikoaren serbitzariak beren kopetetan.

4. Eta aditu nuen markatuen zembata, eun eta berrogei ta lau milla markatuak, Israelen semeen tribu guzitik.

38

5. Judaren tributik amabi milla markatuak: Rubenen tributik amabi milla markatuak: Gaden tributik amabi milla markatuak:

6. Aserren tributik amabi milla markatuak: Neftaliren tributik amabi milla markatuak: Manaseren tributik amabi milla markatuak:

7. Simeonen tributik amabi milla markatuak: Lebien tributik amabi milla markatuak: Isakarren tributik amabi milla markatuak:

8. Zabulouen tributik amabi milla markatuak: Joseren tributik amabi milla markatuak: Benjaminen tributik amabi milla markatuak.

9. Oyen ondoren ikusi nuen talde

39

andi bat, iñork kontatu ezin lezakeana erreinu, eta tribu, eta erri, eta izcuntza guzietatik, zutik tronuaren aurrean, eta Bildotsaren ikusbegian, soñeko zuriz estalirik, eta palmak beren eskuetan:

10. Eta sendo deadar egiten zuten ziotela: Agur gure Jaungoiko, tronuan eseririk dagoanari, eta Bildotsari.

11. Eta aingeru guziak zeuden zutik tronuaren, eta zarren, eta lau abereen inguruan: eta auzpez erori ziran tronnaren aurrean, eta adoratu zuten Jaungoikoa,

12. Ziotela, Bai: Bedeikazioa, eta ospea, eta jakinduria, eta eskerra,

40

eta onra, eta birtutea, eta indarra gure Jaungoikoari gizaldien gizaldietan, Ala izan dedilla.

13. Eta erantzun zidan zarretatik batek, eta esan zidan: Nor dira soñeko zuriz jantzirik dauden oyek? eta nondik etorri dira?

14. Eta esan nion: Nere Jauna, zuk dakizu. Eta esan zidan: Oyek dira, etorri diranak naigabe anditik, eta beren soñekoak garbitu dituztenak, eta berak zuritu Bildotsaren odolean.

15. Argatik daude Jaungoikoaren tronuaren anrrean, eta serbitzen dute gau ta egun aren temploan:

41

eta tronuan eseririk dagoana, egongo da ayen gañean:

16. Ez dute goserik, ez egarririk izango geyago, eta ez dituzte joko eguzkiak, ez beste bero errak:

17. Zeren Bildots, tronuaren erdian dagoanak, zaituko ditu, eta otsemango diote bizitzako iturri uretara, eta leortuko ditu Jaungoikoak malco guztiak ayen begietatik.

ZORTZIGARREN KAPITULUA.

ETA idiki zuenean zazpigarren sillua, ishildu zan zerua, ordu erdi baten aldean.

42

2. Eta ikusi nituen Jaungoikoaren aurrean dauden zazpi aingeruak: eta emanak izan zitzayozkaten zazpi trompeta.

3. Eta beste aingeru bat etorri zan, eta gelditu zan aldarearen aurrean intzentzonario bat zeukala: eta eman zitzayozkan intzentzo asko, ezarri zitzan santu guztien erreguetatik urrezko aldarearen gañean, zeñ dan Jaungoikoaren tronuaren aurrean.

4. Eta igo zan intzentzoen kea santuen erreguakin egiña aingeruaren eskutik Jaungoikoaren aurrera.

5. Eta artu zuen aingeruak intzentzonarioa, eta bete zuen aldareko

43

sutik, eta aurtiki zuen lurrera, eta egin zan turmoi, eta deadar, eta chimista, eta lurrikara andia.

6. Eta zazpi aingeru, zazpi trompetak zituztenak, gertutu ziran trompetak jotzeko.

7. Eta lembiziko aingeruak jo zuen trompeta, eta egin zan chingor, eta su, odolarekin nastua, eta ezarriak izan ziran lurrera, eta lurraren irugarren partea erre zan, eta zuaitzen irugarren partea kiskali zan, eta belar berde guzia erre zan. (20)

8. Eta bigarreu aingeruak jo zuen trompeta: eta mendi andi bat bezelako bat su garretan aurtikia izan

44

zau itsasora, eta itsasoaren irugarren partea odol biurtu zan,

9. Eta ill zan itsasoan bizia zeukaten kreaturetatik irugarren partea, eta ontzien irugarren partea galdu zan.

10. Eta irugarren aingeruak trompeta jo zuen: eta erori zan zerutik izar andi bat, su garretan zuzi bat bezala, eta erori zan ibayen irugarren partera, eta iturri uretara:

11. Eta izarraren izena da Asensioa; eta uren irugarren partea asensio biurtu zan: eta gizon asko ill zan ur ayekin, kirastu ziralako.

12. Eta laugarren aingerua trompeta otsez ari izan zan: eta joa izan zan

45

eguzkiaren irugarren partea, eta illargiaren irugarren partea, eta izarren irugarren partea, ala non illundu zan ayen irugarren partea, eta etzion irugarren parteak argirik eman egunari, ez eta orobat gauari.

13. Eta ikusi nuen, eta aditu nuen zeruaren erditik egan zijoan arrano baten boza, zeñak deadar egiten zuen sendoki: Zorigaitz, zorigaitz, zorigaitz, lurrean daudenak, beste iru aingeru, trompetak jo bear dituztenen bozak gatik.

46

BEDERATZIGARREN KAPITULUA.

ETA bosgarren aingeruak jo zuen trompeta: eta ikusi nuen izar bat erori zala zerutik lurrera, eta emana izan zitzayon leizeko putzuaren giltza.

2. Eta idiki zuen leizeko putzua: eta igo zan putzuko kea, su labe andi batena bezela: eta illundua izan zan eguzkia, eta airea putzuko keaz:

3. Eta putzuko keetik irten ziran langostak lurrera, eta emana izan zitzayoten ala, lurreko arrahioak duten bezelako ala:

47

4. Eta izan zitzayoten agindua etzayotela kalterik egin lurreko belarrari, ez berde zan gauzari, ez zuaitz bati ere; baizik bacarrik Jaungoikoaren señalea beren bekokietan ez duten gizonai:

5. Eta eskua emana izan zayoten ez berak iltzeko: baña oñazetzeko bost illez: eta ayen miñak ziran arrabioak gizonari ausikitzen dionean bezelako miñak.

6. Eta egun ayetan gizonak ibilliko dira eriotzaren ondoren, eta ez dute arkituko: eta ilko nai dute, eta eriotzak iges egingo diote.

7. Eta langostak bezelako ayek iduri zituzten zaldi gudarako ger-

48

tuak: eta ayen buruetan zeuden knroak bezelako batzuek urrezkoen idurikoak: eta ayen arpegia gizon arpegia bezelakoa zan. (21)

8. Eta zituzten illeak emakumeen idurikoak; eta ayen ortzak leoen ortzak iduri zituzten:

9. Eta zituzten lorikak burnizko lorikeu idurikoak, eta ayen egoen abarrotsak iduri zuen arin gudara dijoan zaldi talde baten abarrotsa:

10. Eta zituzten buztanak arrabioen idurikoak, eta eztenak zeuden ayen buztanetan: eta ayen ala gizonai kalte egiteko bost illez: eta zuten beren gañean

11. Erregetzat leize andiko aingo-

49

rua, zeñen izena da Ebreoz Abaddon, Grieguz berriz Apollyon, Latinez deitzen da Exterminans.

12. Zorigaitz bat igaro da, eta ona non datozten oraindik bi zorigaitz aren ondoren.

13. Eta seigarren aingeruak jo zuen trompeta: eta aditu nuen boz bat Jaungoikoaren begien aurrean dagoan urrezko aldarearen lau adarretatik,

14. Esaten seigarren aingeru trompetadunari: Aska itzak Eufrateko ibai andian loturik dauden lau aingeruak.

15. Eta askatuak izan ziran lau aingeruak, zeñak zeuden gertuturik

50

ordurako, eta egunerako, eta illerako, eta urterako: gizonen irugarren partea iltzeko.

16. Eta zaldizko ejerzituaren taldea ogei millatan amar milla. Eta aditu nuen ayen zembata.

17. Eta onela ikusi nituen zaldiak ikusaldian: eta ayen gañean eseririk zeudenak, zituzten suzko, jazintozko, eta sufrezko lorikak, eta zaldien buruak ziran leoen buruak bezelakoak: eta ayen aotik irteten zan sua, eta kea, eta sufrea.

18. Eta ill zan gizonen irugarren partea iru izurri oyekin, ayen aotik irteten ziran su, eta ke, eta sufreaz.

51

19. Zeren zaldien ala ayen aoan da, eta ayen buztanetan. Zeren ayen buztanak sugeen idurikoak dira, badituzte buruak, eta ayekin kalte egiten dute.

20. Eta izurri oyez illak izan etziran beste gizonak, etzuten artu beren eskuen egiteen damurik, eta etzioten utzi deabruak, eta urrezko, eta zillarrezko, eta metalezko, eta arrizko, eta zurezko iduripenak adoratzeari, zeñak ezin dezaketen ez ikusi, eta ez aditu, eta ezin daitezken ibilli.

21. Eta etzuten egin penitentzia beren gizonilteez, ez pozoitzeez, ez beren lizunkeriez, ez eta beren lapurretez.

52

AMARGARREN KAPITULUA.

ETA ikusi nuen beste aingeru sendo bat zerutik jachitzen odeyez inguraturik, eta uztargi bat buruaren gañean, eta aren arpegia zan eguzkia bezela, eta aren oñak suzko abe batzuek bezela:

2. Eta bazuen eskuan liburucho bat zabaldurik: eta jarri zuen eskuiko oña itsasoaren gañean, ezkerrekoa berriz lurraren gañean:

3. Eta deadar egin zuen sendoki, leoeak orroya egiten duen bezala. Eta deadar egin zuenean, zazpi turmoyak beren bozak adierazi zituzten.

53

4. Eta adierazi zituztenean zazpi turmoyak beren bozak, ni eskribatzera nijnan: eta aditu nuen boz bat zerutik niri esaten: Sillutu itzatzu zazpi turmoyak adieraziak: eta ez ditzatzula berak eskribatu.

5. Eta itsasoaren, eta lurrareu gañean zutik ikusi nuen aingeruak, alchatu zuen bere eskua zerurontz:

6. Eta juramentu egin zuen gizaldien gizaldietan bizi dana gatik, zerua eta artan daudenak, eta lurra eta artan daudeuak, eta itsasoa eta artan daudenak kreatu zituena gatik: Demborarik ez dala izango geyago:

7. Baizik zazpigarren aingeruaren bozaren egunetan, trompeta asi diten-

54

nean adierazotzen, kumplituko dala Jaungoikoaren misterioa, ezagutuerazo zuen bezela bere serbitzari profeten bitartez.

8. Eta aditu nuen boz bat zerutik berriz niri itz egiten, eta esaten: Zoaz, eta ar ezazu liburu zabaldua itsasoaren gañean, eta lurraren gañean zutik dagoen aingeruaren eskutik.

9. Eta joan nintzan aingerua gana, eta esan nion, eman zadala liburua. Eta esan zidan: Ar ezazu liburua eta iretsi ezazu: eta garrasteraziko dio zure sabelari, baña zure aoan gozoa izango da eztia bezela.

55

10. Eta artu nuen liburua aingeruaren eskutik, eta iretsi nuen: eta nere aoan gozoa zan eztia bezala: eta iretsi nuenean, garrastu zan nere sabela. (22)

11. Eta esan zidan: Bear diezu oraindikan egia adierazi erreinuai, eta erriai, eta izkuntzai, eta errege askori.

AMAIKAGARREN KAPITULUA.

ETA emana izan zitzadan kañabera bat zigor baten idurikoa, eta esana izan zitzadan: Jaiki zaite, eta neurtu ezazu Jaungoikoaren temploa,

56

eta aldarea, eta an adoratzen ari diranak.

2. Ataria berriz, templotik kampora dagoena, bego kampoan, eta ez dezazula ura neurtu: zeren utzia zate arrotzai, eta erri santua zapalduko dute berrogei ta bi illabetean:

3. Eta eskubidea emango diet nere bi lekukoai, eta egia adierazoko dute milla berreun eta irurogei egunean, zakuz jantzirik.

4. Oyek dirade bi olibo, eta bi kandelero, lurraren Jaunaren aurrean daudenak.

5. Eta norbaitek gaizkirik egin nai badiote, sua irtengo da ayen aotik, eta arrasatuko ditu ayen etsayak:

57

eta norbaitek min eman nai badiote, onela ark illa izan bear du.

6. Oyek badute eskua zerua ichitzeko, egin ez dezan euririk oyen profetizatzeko egunetan: eta eskua dute uren gañean ayek odol biurtzeko, eta lurra jotzeko nai duten izurriz nai duten guzian.

7. Eta bukatzen dutenean beren lekukotasuna, leize anditik igotzen dan pistia, gudan ariko da oyen kontra, eta garaituko ditu, eta ilko ditu.

8. Eta ayen gorputzak etzanik egongo dirade Sodoma, eta Ejipto iduripenez deitzen zayon erri andiko plazetan, non ayen Jauna ere izan zan gurutziltzatua.

58

9. Eta asko tribu, eta erri, eta izkuntza, eta erreinuetakok ikusiko dituzte ayen gorputzak iru egun, eta erdian: eta ez dute utziko ayen gorputzak obietan ezarten.

10. Eta lurrean bizi diradenak poztuko dira ayen iltzeaz, eta jostatuko dirade: eta elkarri emaitzak bidalduko dizkite, zeren bi profeta ayek oñazetu zituzten lurrean bizi ziradenak.

11. Eta iru egun, eta erdiren ondoan, bizitzako asnasea Jaungoikoa gandik sartu zan ayetan. Eta zutitu ziran beren oñen gañean, eta izi andi batek artu zituen ayen ikusleak.

12. Eta aditu zuten boz andi bat

59

zerutik, ayei esaten: Igo zaitezte onera. Eta igo ziran cerura odoi batean: eta ayen etsayak ikusi zituzten.

13. Eta ordu artan egin zan lurdardara andi bat, eta erriaren amargarren partea erori zan: eta illak izan ziran lurdardaran zazpi milla gizon: eta besteak iziak arturik egon ziran, eta gloria eman zioten zeruko Jaungoikoari.

14. Bigarren zorigaitza irago da: eta ona irugarren zorigaitza laster etorriko dana.

15. Eta zazpigarren aingeruak jo zuen trompeta: eta boz andiak adituak izan ziran zeruan, eta zioten: Mundu onetako nagusitasuna, gure

60

Jaunarena eta aren Kristorena egiña izan da, eta errege izango da gizaldien gizaldietan: Ala izan dedilla.

16. Eta ogei ta lau zarrak, Jaungoikoaren aurrean beren esertokietan jarririk daudenak, erori ziran auzpez, eta adoratu zuten Jaungoicoa, ziotela:

17. Eskerrak dizkitzugu, Jaun Jainko guztiala, zerana, eta ziñana, eta etorriko zerana: artu dezulako zure indar andia, eta jabetu zeralako.

18. Aserretu dira erreinuak, baña zure aserrealdia eldu da, eta dembora illak juzgatzeko, eta saria emateko zure serbitzari profetai, eta san-

61

tuai, eta zure izenaren beldur diranai, chikiai, eta andiai, eta lurra zikindu dutenak arrasatzeko.

19. Eta zabaldu zan Jaungoikoaren temploa zeruan, eta ikusi zan ayen elkartasuneko ucha, eta egin zan chimista, eta deadar, eta lurrikara, eta arritze andia.

AMABIGARREN KAPITULUA.

ETA ikusgarri andi bat agertu zan zeruan: Emakume bat eguzkiaz inguraturik, eta aren oñpetan illargia, eta aren buruan amabi izarrezko koroa bat: (23)

2. Eta izorra egonik, deadarrez

62

ari zan aurmiñetan, eta oñazetzen zan erditzeko.

3. Eta ikusi zan beste ikusgarri bat zeruan: eta ona dragoe andi origorri bat, zeñak zituen zazpi buru, eta amar adar: eta aren buruetan zazpi koroa,

4. Eta aren buztanak zekarren zeruko izarren irugarreo partea, eta aurtiki zituen lurrera, eta dragoea gelditu zan aurmiñetan zegoan emakumearen aurrean: erditzen zuenean, aren semea iretsitzeko.

5. Eta erdi zuen aur bat semea, zeñak zuzenduko ditu erreinu guztiak burnizko zigorrarekin: eta eramana izan zan aren semea

63

Jaungoikoa gana, eta aren tronura,

6. Eta emakumeak iges egin zuen eremura non zuen toki bat Jaungoikoak prestaturik, an azia izateko milla berreun eta irurogei egunean.

7. Eta izan zan guda andi bat zeruan: Migel, eta aren aingeruak gudan ari ziran dragoeareo kontra, eta dragoea gudan ari zan, eta aren aingeruak ere: (24)

8. Eta etzuten garaitu, eta etzan arkitu aren tokirik geyago zeruan.

9. Eta aurtikia izan zan dragoe andi ura, suge zarra, deabrua, eta satanas deitzen zayona, mundu guztia engañatzen duena: eta aurtikia

64

izan zan lurrera, eta aren aingeruak arekin aurtikiak izan ziran.

10. Eta aditu nuen boz andi bat zeruan esaten: Orain bete da salbazioa, eta indarra, eta gure Jaungoikoaren erreinua, eta aren Kristoren ala: aurtikia izan dalako gure anayen salatzallea, zeñak salatzen zituen gure Jaungoikoaren aurrean gau eta egun.

11. Eta oyek garaitu dute ura Bildotsaren odolaz, eta bere lekukotasunaren itzaz, eta ez dituzte beren biziak maitatu eriotzeari iges egiteraño.

12. Argatik poztu zaitezte, zeruak, eta an daudenak. Zorigaitz

65

lurra, eta itsasoa, zuec gana jachi dalako deabrua aserre andiarekin, jakiñik dembora guchi duela.

13. Ikusirik dragocak aurtikia izan zala lurrera, eraso zion semea erdi zuen emakumeari.

14. Eta emanak izan zitzaizkion emakumeari arrano andi baten bi ego, egan zezan eremura bere egontokira, non azia dan demboran eta demboretan, eta dembora erdian sugearen ikusbidetik.

15. Eta aurtiki zuen sugeak bere aotik emakumearen ondoan, ur ibai bat bezela, ibayak bera ekarriera-zia izateko. (25)

16. Eta lagundu zion lurrak ema-

66

kumeari, eta zabaldu zuen lurrak bere aoa, eta iretsi zuen dragoeak bere aotik aurtikitako ibaya. (26)

17. Eta aserretu zan dragoea emakumearen kontra: eta joan zan gudatzera aren odoleko besteen kontra, zeñak gordetzen dituzten Jaungoikoaren aginteak, eta daramaten Jesukristoren lekukotasuna.

18. Eta gelditu zan itsasoko ondarrean. (27)

AMAIRUGARREN KAPITULUA.

ETA ikusi nuen pistí bat itsasotik igotzen, zazpi buru zeuzkana,

67

eta amar adar, eta amar adarren gañean amar koroa, eta aren buruen gañean blasfemiazko izenak. (28)

2. Eta ikusi nuen pistiak iduri zuen leoenabarra, eta aren oñak artzaren atzaparrak bezelakoak ziran, eta aren aoa leoearen aoa bezelakoa. Eta dragoeak eman zion bere indarra, eta al andia.

3. Eta ikusi nuen aren buruetatik bat jorik zirudiala iltzera zijoala: eta aren eriozko zauria sendatu zan. Eta lur guztia arriturik jarri zan pistiaren ondoren. (29)

4. Eta adoratu zuten dragoea, zeñak eman zion ala pistiari: eta adoratu zuten pistia, ziotela: Nor

68

da pistiaren idurikoa? eta nork gudatuko al du arekin?

5. Eta emana izan zitzayon ao bat iseka egiten, eta blasfemiatzen zuena: eta eman izan zitzayon gaizki egiteko ala berrogei eta bi illabetean.

6. Eta idiki zuen aoa Jaungoikoa blasfemiatzeko, eta aren izena, eta aren egontokia, eta zeruen daudenak blasfemiatzeko.

7. Eta eman izan zitzayon santuai gerra egitea, eta ayek garaitzea. Eta eskua izan zuen tribu, eta erri, eta izkuntza, eta erreinu guzien gañean, (30)

8. Eta adoratu zuten lurrean zeu-

69

den guziak: zeñen izenak ez dauden eskribaturik munduaren asieratik illa izan zan Bildotsaren bizitzako Liburuan.

9. Iñork baldin badu belarririk, aditu beza.

10. Besterik katiberiora daramana, bera katiberiora joango da: ezpataz iltzalleak, bear du izan ezpataz illa. Emen da santuen iragopena, eta fedea.

11. Eta ikusi nuen beste pisti bat lurretik igotzen, eta zeuzcan bi adar Bildotsaren idurikoak, eta itz egiten zuen dragoeak bezela. (31)

12. Eta lenengo pistiaren al guzia egiten zuen aren aurrean: eta lurrari,

70

eta artan zendenai, adoraerazi zioten lembiziko pistia, zeñaren eriozko zauria sendatua izan zan.

13. Eta egin zituen gauza izigarri andiak, suari jachierazitzeraño zerutik lurrera gizonen aurrean. (32)

14. Eta engañatu zituen lurrean zeudenak, pistiaren aurrean egitea gatik eman izan zitzayon gauza izigarriak, esanik lurrean bizi ziradenai, egin dezatela ezpataren zauria izanik bizi zan pistiaren iduri bat.

15. Eta ala izan zuen bizia emateko pistiaren iduriari, eta pistiaren iduriari itzerazitzeko: eta egiteko pistiaren irudia adoratzen etzuten guziak, illak izan ditezela.

71

16. Eta guziai, chikiai, eta andiai, eta aberatsai, eta beartsuai, eta nagusiai, eta mempekoai artueraziko diote señale bat bereu eskuiko eskuan, edo beren kopetetan:

17. Eta egingo du iñork erosi, edo saldu ezin dezakeala, ez baldin badu pistiaren señalea, edo izena, edo aren izenaren zembata.

18. Emen da jakinduria. Duenak adiña, konta beza pistiaren zembata. Zeren gizon baten zembata da: eta aren zembata sei eun eta irurogei eta sei.

72

AMALAUGARREN KAPITULUA.

ETA ikusi nuen: eta ona Bildotsa zegoan zutik Siongo mendiaren gañean, eta arekin eun eta berrogei ta lau milla, aren izena, eta aren Aitaren izena eramaten zutenak beren kopetetan eskribaturik.

2. Eta aditu nuen abarrots bat zerutik, ur andien abarrotsaren idurikoa, eta turmoi andi baten orroaren idurikoa: eta aditu nuen abarrotsa zan arpalariak arpan ari diranean bezelakoa.

3. Eta kantatzen zuten kanta berri bat bezela esertokiaren aurrean,

73

eta lau abereen, eta zarren aurrean, eta iñork ezin zezakean esan kanta, eun eta berrogei ta lau milla, lurretik erosiak izan ziran ayek baizik.

4. Oyek dirade emakumeakin zikindu etziranak: zeren birjiña dira. Oyek Bildotsari jarraitzen diote noranai joan dedilla. Oyek erosiak izan dira gizonetatik lenenak Jaungoikoarentzat, eta Bildotsarentzat,

5. Eta ayen aoan ez da arkitu gezurrik: ala mancha gabe daude Jaungoikoaren tronuaren aurrean.

6. Eta ikusi nuen beste aingeru bat zeruaren erdiaren gañetik egan, Ebanjelio betikoa zeukala, irakasteko lurrean zeudenai, erreinu, eta

74

tribu, eta izkuntza, eta erri guztiai: (33)

7. Esaten zuela deadar andiarekin: Jannaren beldur izan zaitezte, eta eman zayozute onra, zeren badator aren juizioko ordua, eta adora ezazute, zerua, eta lurra, eta itsasoa, eta iturri urak egin dituena.

8. Eta beste aingeru bat ondoren etorri zan, esaten zuela: Erori da, erori da Babilonia andi ura: zeñak bere lizunkeriaren kolerazko ardoa edanerazi diote erreinu guziai.

9. Eta irugarren aingeru bat agertu zan ayen ondoren, esaten zuela deadar andiarekin: Iñork adoratuko balu pistia, eta areo iduria, eta

75

señalea artu bere bekokian, edo bere eskuan:

10. Ark ere edango du Jaungoikoaren aserrezko ardotik, aren aserrezko ontzian garbi prestatua izan danetik, eta izango da termentatua suaz eta sufreaz aingeru santnen aurrean, eta Bildotsaren aurrean:

11. Eta ayen oñazeen kea igoko da gizaldien gizaldietan: eta ez dute atsedenik gau ez egun, pistia, eta aren iduria adoratu zutenak, eta iñork aren izenaren señalea artu bazuen.

12. Emen dago Jaungoikoaren aginduak, eta Jesusen fedea gordetzen duten santuen iragopena.

13. Eta aditu nuen boz bat zeru-

76

tik, niri esaten: Eskribatu ezazu: Doatsuak illak, Jaunagan iltzen diranak. Oraindanik dio Espirituak, atseden dezatela beren nekeetatik, zeren beren obrak jarraitzen diezte.

14. Eta ikusi nuen eta ona odei zuri bat: eta odeyaren gañean eseririk gizonaren Semearen iduriko bat, zeñak zuen urrezko koroa bat buruan, eta eskuan igitai zorrotz bat.

15. Eta beste aingeru bat atera zan templotik, deadar egiñaz odeyaren gañean eseririk zegoanari: Iraitzi ezazu zure igitaya, eta itaitu ezazu, zeren etorri da itaitzeko ordua, zoritu diralako lurreko uztak. (34)

77

16. Eta iraitzi zuen odeyaren gañean eseririk zegoanak, bere igitaya lurrera, eta ebakia izan zan lurra.

17. Eta beste aingeru bat atera zan zeruan dagoen templotik, zuela ark ere igitai zorrotz bat.

18. Eta beste aingeru bat atera zan aldaretik, ark eskua zuen suaren gañean: eta deadar egin zion sendoki igitai zorrotza zeukanari, ziola: Erabilli ezazu zure igitai zorrotza, eta ebaki itzatzu lurreko mastiko mordoak: zeren zorituak daude ango matsak. (35)

19. Eta iraitzi zuen aingeruak bere igitai zorrotza lurrera, eta bildu zituen lurreko matsak, eta aurtiki zi-

78

tuen Jaungoikoaren aserreko putzu andian:

20. Eta zapaldua izan zan putzua erritik kampoan, eta irten zan odola putzutik zaldien bridetaraño milla eta sei eun estaduren bitartean.

AMABOSGARREN KAPITULUA.

ETA ikusi nuen beste señale andi, eta izigarri bat zeruan: zazpi aingeru, azken zazpi izurriak zeuzkatenak: ayetan bukatzen da Jaungoikoaren aserrea.

2. Eta iknsi nuen bidriozko itsasoa

79

bezelako bat suarekin nastua, eta pistiaren, eta aren iduriaren, eta aren izeneko zembataren, garaitzalleak, zeudela itsasoaren gañean Jaungoikoaren arpakin:

3. Eta kantatzen zuten Moyses Jaungoikoaren serbitzariaren kanta, eta Bildotsaren kanta, ziotela: Andiak, eta izigarriak dira zure obrak, Jaun Jaungoiko guziala: zuzenak eta egiazkoak dira zure bideak, gizaldien Erregea.

4. Nor ez da zure beldur izango, Jauna, eta nork ez du andituko zure izena? zeren zu bakarrik zera biotzbera: erreinu guziak etorriko dira, eta adoratuko dute zure au-

80

rrean, ageriak diralako zure juizioak.

5. Eta gero ikusi nuen, eta ona non idiki zan zeruan lekukotasunaren egontokiko temploa:

6. Eta irten ziran templotik zazpi izurriak zeuzkaten aingeruak, liñozko soñeko garbi, eta zuriz jantzirik, eta urrezko gerrikoz bularrak loturik.

7. Eta lau abereetatik batek eman zizkioten zazpi aingeruai zazpi urrezko ontzi, Jaungoiko gizaldien gizaldietan bizi danaren aserrez beteak.

8. Eta temploa kez bete zan Jaungoikoaren anditasuna gatik, eta

81

aren ala gatik: eta iñor ezin zitekean sartu temploan, zazpi aingeruen zazpi izurriak igaro artean.

AMASEIGARREN KAPITULUA.

ETA aditu nuen boz andi bat templotik, esaten zazpi aingeruai: Zoazte, eta isuri itzatzute Jaungoikoaren aserrearen zazpi ontziak lurrera.

2. Eta joan zan lembizikoa, eta isuri zuen bere ontzia lurrera, eta etorri zan zauri garratz, eta ezin gaiztoagoa pistiaren señalea zuten

82

gizonak gana, eta aren iduria adoratu zutenak gana.

3. Eta bigarren aingeruak isuri zuen bere ontzia itsasora, eta jarri zan ill baten odola bezela: eta bizi ziran guztiak ill ziran itsasoan.

4. Eta irugarrenak isuri zuen bere ontzia ibayetara, eta iturri uretara, eta odol biurtu ziran.

5. Eta aditu nuen uretako ainguerua esaten: Zuzena zara, Jauna, zerana, eta ziñana: santua, erabaki oyek eman dituzuna:

6. Isuri zutelako santuen, eta profeten odola, eman diezu odola edaten: zeren merezi zuten.

7. Eta aditu nuen beste bat alda-

83

retik esaten : Bai, Jaun Jainko guziala, egiazkoak dira eta zuzenak zure erabakiak.

8. Eta laugarren aingeruak isuri zuen bere ontzia eguzkiaren gañean, eta emana izan zitzayon gizonak beroaz tormentatzea, eta suaz.

9. Eta kiskali ziran gizonak bero andiaz, eta blasfematu zuten Jaungoikoa, izurri oyek bialtzeko eskua zuena, eta etziran damuan sartu ari gloria emateko.

10. Eta bosgarren aingeruak isuri zuen bere ontzia pistiaren esertokian : eta aren erreinua illundu zan, eta jan zitnzten beren mingañak miñez :

84

11. Eta blasfematu zuten zeruko Jaungoikoa beren miñ, eta zaurien artean, eta etziran damutu beren egitez.

12. Eta seigarren aingeruak isuri zuen bere ontzia Eufratesko ibai andi artara : eta agorrerazi zuen aren ura, bidea egiteko eguzkiaren irteerako erregeai.

13. Eta ikusi nituen dragoearen aotik, eta pistiaren aotik, eta profeta falsoaren aotik iru espiritu zikin irtetzen igelen idurian.

14. Zeren berak dirade deabruen espirituak gauza izugarri egilleak, eta dijoaz lur guztiko erregeak gana, ayek gudarako biltzera, Jaungoiko guzialaren egun andirako.

85

15. Ona non natorren lapurra bezela. Zorionekoa iratzarririk dagoena, eta soñekoak gordetzen dituena, billuzik ibilli ez dedin, eta ikusi ez dezaten aren itsustasuna.

16. Eta bilduko ditu Ebreoz Armagedon deitzen zayon tokian.

17. Eta zazpigarren aingeruak isuri zuen bere ontzia airera, eta adierazo izan zan boz andi bat templotik tronuko aldetik, ziona : Egin da.

18. Eta egin ziran chimistak, eta deadarrak, eta turmoyak, eta lurrikara bat izan zan, egundaño gizonak lurraren gañean ziran ezkero, izan etzana alako lurrikara andirik.

19. Eta erri andia egin zan iru

86

zatitan : eta erreinuetako erriak erori ziran. Eta Babilonia andia gogora etorri zitzayon Jaungoikoari, ari iresteta emateko bere aserre snmiñeko ardoaren edanontzia.

20. Eta ugarte guziak iges zuen, eta mendiak etziran arkitu.

21. Eta chingor andi bat talentua bezelakoa erori zan zerutik gizonak gana : eta blasfematu zuten Jaungoikoa gizonak arrizko izurria gatik : zeren izigarriro andia zan.

87

AMAZAZPIGARREN KAPITULUA.

ETA etorri zan zazpi ontziak zeuzkau zazpi aingeruetatik bat, eta itz egin zidan, ziola: Atoz, erakutsiko dizut ur andien gañean eseririk dagoen bordion andiaren kondenazioa, (36)

2. Zeñarekin nastu diran lurreko erregeak, eta orditu diran lurrean bizi diranak aren lizunkeriako ardoaz.

3. Eta eraman ninduen gogoz eremu batera. Eta ikusi nuen emakume bat esiririk pistia gorri baten

88

gañean, zeñ zegoan blasfemiazko izenez beterik, eta zeñak zituen zazpi buru, eta amar adar.

4. Eta emakumea inguraturik zegoan purpuraz, eta eskarlataz, eta urrez, eta arri baliotsuz, eta perlaz apaindurik, eta zeukan bere eskuan edanontzi bat, ichuskeriaz, eta bere lizunkeriazko naskaz beterik:

5. Eta aren kopetan izen bat eskribaturik: Misterioa: Babilonia andia, lizunkerien, eta lurreko ichuskerien ama.

6. Eta ikusi nuen emakumea orditurik santuen odolaz, eta Jesusen martirren odolaz. Eta izitu nintzan bera ikusiaz arrigarriki.

89

7. Eta esan zidan aingeruak: Zergatik miresten zera? Nik esango dizut emakumearen egia estalia, eta bera daraman pistia zazpi buru, eta amar adar dituenarena.

8. Ikusi dezun pistia, izan da, eta ez da, eta igoko da leizetik, eta iltzera joango da: eta izituko dira lurrean bizi diradenak, zeñen izenak ez dauden eskribatuak bizitzako Liburuan munduaren asieratik, ikusiaz pistia bazala, eta orain ez dala.

9. Eta au da esaera, zeñetan bada jakinduria. Zazpi buruak dira zazpi mendiak, zeñen gañean eseririk dagoan emakumea, baitaere zazpi errege dira.

90

10. Bost erori dira, bat badago, beste bat ez da oraindik etorri: eta etorri dedinean, bear du ark guchi egon.

11. Eta pistia zana, eta ez dana: bera da zortzigarrena: eta zazpietatikoa da, eta iltzera dijoa.

12. Eta ikusi dituzun amar adarrak, amar errege dira, zeñek erreinurik ez dute oraindikan izan, baña eskua errege bezela ordu batez izango dute pistiaren ondoren.

13. Oyek asmo bat dute, eta beren iodar, eta ala emango diote pistiari:

14. Oyek Bildotsarekin gudatuko dira, eta Bildutsak goituko ditu: ze-

91

ren jaunen Jauna da, eta erregeen Erregea, eta arekin diranak, deituak, autatuak, eta leyalak.

15. Eta esan zidan: Ur, ikusi dituzunak non bordiona eserita dagoen, erriak dira, eta erreinuak, eta izkuntzak.

16. Eta pistiari ikusi diozkazun amar adar: ayck gorrotatuko dute lizuna, eta jarriko dute galdua, eta billuza: aren aragiak jango dituzte, eta bera sutan erreko.

17. Zeren Jaungoikoak ezarri dijote biotzean, egin dezatela ark nai duena: eman dizayoten beren erreinua pistiari, bete ditezen bitartean Jaungoikoaren esanak.

92

18. Eta ikusi dezun emakumea, da erri andia, zeñak duen agintea lurreko erregeen gañean.

EMEZORTZIGARREN KAPITULUA.

ETA gero ikusi nuen beste aingeru bat, al andia zuena, jachitzen zerutik: eta lurra argitua izan zan aren gloriaz:

2. Eta deadar egin zuen sendoki, esaten zuela: Erori da, erori da Babilonia andia: eta egin da deabruen egontokia, eta espiritu loi guz-

93

tien igeslekua, eta egazti zikin, ta nazkagarri guzien zuloa:

3. Zeren aren aserreko zikinkeriaren ardotik edan zuten erri guziak: eta lurreko erregeak arekin nastu ziran: eta lurreko merkatariak aberastu ziran aren gozamen geyegiaren koztuz.

4. Eta aditu nuen beste boz bat, esaten: Atera zaite ortik, nere erria: etzaitezen izan aren gaiztakerietan partill, eta ez dezazun artu aren izurrietatik.

5. Zeren eldu dira aren bekatuak zeruraño, eta oroitu da Jaungoikoa aren gaiztakeriaz.

6. Itzuli zayozute eman dizuten

94

bezela: eta eman zayozute bitan aren egiteen araura: eskeñi dizuten edanontzian, edanerazi zayozute bitan.

7. Zembat goratu zan, eta gozatu, ambat gaitz eta negarbide eman zayozute: zeren esan du bere biotzean: Eseririk nago erregiña: eta ez naiz alarguna: eta ez det ikusiko negarbiderik. (37)

8. Argatik egun batean etorriko dirade aren gaitzak, eriotza, eta negarrak, eta gosetea, eta suan erreko da: zeren errutsua da bera juzgatuko duen Jaungoikoa. (38)

9. Eta negar egingo dute, eta ojuz ariko dira bera gatik, arekin nastu, eta atsegiñetan bizi izan ziran

95

lurreko erregeak, ikusten dutenean aren erretzeko kea:

10. Eta urruti daudela aren oñazeen beldurrez, esango dute: Zorigaitz, zorigaitz Babilonia erri andi ura, erri sendo ura: onela ordu baten barrenen etorri dek ire galtzea.

11. Eta lurreko merkatariak negar egingo dute, eta zispirio aren gañean, zeren ayen salgayak iñork ez ditu erosiko geyago:

12. Urrezko, eta zillarrezko, eta arri baliotsuzko, eta perlazko, eta liño meezko, eta purpurazko, eta sedazko, eta eskarlatazko salgayak, eta usai onezko zur guziak, eta marfillezko ontzi guziak, eta arri baliotsuzko,

96

eta brontzezko, eta burnizko, eta marmolezko ontzi guziak,

13. Eta kanela, eta usai onak, eta okenduak, eta intzentzoa, eta ardoa, eta olioa, eta irin lorea, eta garia, eta zamariak, eta ardiak, eta zaldiak, eta gurdiak, eta esklaboak, eta gizonen animak.

14. Ire animaren gozoko frutak joan dituk i gandik, eta gauza gizen, eta ederrak, galdu zazkik, eta etzetitek berak geyago arkituko.

15. Oyen merkatari aberastuak, argandik urruti egongo dira aren oñazeeo beldurrez, negarrez, eta zispirioz,

16. Esaten dutela: Zorigaitz, zo-

97

rigaitz erri andi ura, liño mez, eta purpuraz, eta eskarlataz estalirik zegoaoa, eta urrez, eta arri baliotsuz, eta perlaz apaindurik.

17. Nola ordu baten barrenen ezdenstu ziran aimbeste aberastasun, eta piloto guztiak, eta itsasoan dabilzan guztiak, eta mariñelak, eta itsasoan lanean ari diranak, urruti egon ziran,

18. Eta deadar egin zuten ikusiaz aren erretzearen tokia, ziotela: Zeñ izan da erri andi ooen berdiñ?

19. Eta aurtiki zuten autsa beren buruen gañera, eta deadar egio zuteo negar, eta ojurekio, ziotela: Zorigaitz, zorigaitz erri andi ura, zeñean

98

aberastu ziran itsasoan ontziak zituzten guztiak aren ondasunetatik: nola ordu baten barrenen eremu egin zan.

20. Bozkariatu zaite zerua, eta apostolu santuak, eta profetak: zeren bengatu zuen Jaungoikoak zuen juizioa aren kontra.

21. Eta aingeru sendo batek alchatu zuen arri bat errotarri andi bat bezelakoa, eta aurtiki zuen itsasora, ziola: Onelako bultzakadarekin botatua izango da Babiloniako erri andia, eta ez da geyago arkituko.

22. Eta arparien, eta kantarien, eta chillibitarien, eta trompetarien boza ez dek adituko igan geyago:

99

eta iñolazko ofizioko langillerik ez dek igan arkituko geyago: eta errotarriaren otsik ez dek geyago adituko igan:

23. Eta argizagiaren argiak ez dik igan argi egingo geyago: eta senar emazteen bozik ez dek adituko geyago igan: zeren ire merkatariak itukan lurreko andienak, zeren ire sorginkeriakin engañatuak izan itukan erri guztiak.

24. Eta argan arkituko da profeten eta santuen odola: eta lurrean illak izan ziran guziena.

100

EMERETZIGARREN KAPITULUA.

OYEN ondoan aditu nueo talde andi baten boza bezelako bat zeruan esaten: Alleluia: Agurra, eta gloria, eta indarra gure Jaungoikoarentzat dira:

2. Zeren egiazkoak dira, eta zuzenak aren juizioak, juzgatu zuelako bordion andia, bere zikinkerian lurra usteldn zuena, eta bengatu zuen aren eskuetatik bere serbitzarien odola.

3. Eta berriz esan zuten: Alleluia. Eta aren kea igotzen da gizaldien gizaldietan.

101

4. Eta lurreratu ziran ogei eta lau zarrak, eta abereak, eta adoratu zuten tronuan eseririk dagoan Jaungoikoa, ziotela: Amen: Alleluia.

5. Eta boz bat atera zan tronutik, ziona: Goratu ezazute gure Jaungoikoa, aren serbitzari guztiak: eta aren beldur zeratenak, chikiak eta andiak.

6. Eta aditu nuen talde andi baten boza bezelako bat, ur andien otsa iduri zuena, eta turmoi andien orroa bezelakoa, esaten zuena: Alleluia: erreinatu duelako gure Jaun Jainko guztialak.

7. Poz gaitezen, eta bozkariotu: eta eman dizayogun gloria: zeren

102

eldu dira Bildotsaren eztayak, eta aren ezcoogaya gertutua da.

8. Eta emana izan zitzayon jantzia izatea liño me distiatzalle, ta zuriaz. Zeren liño mezko jantzia santuen egite znzenak dira.

9. Eta esan zidau: Eskribatu ezazu: Doatsuak Bildotsaren eztayetako afarira deituak diranak: eta esan zidan: Jaungoikoaren itz oyek egiazkoak dira.

10. Eta erori nintzan aren oñetara, bera adoratzeko. Eta esan zidan: Begira ezazu ez dezazula egin: zure serbitzari laguna oaiz, eta Jesusen lekukotasuna duten zure anayena. Jaungoikoa adora ezazu. Zeren Je-

103

susen lekukotasuna da profeziazko espiritua.

11. Eta ikusi nuen zerua idikirik, eta ona zaldi zuri bat, eta aren gañean eseririk zegoanari, deitzen zitzayon Leyala, eta Egiatia, eta zuzentasunarekin juzgatzen du, eta gudatzen da.

12. Aren begiak berriz ziran su garraren idurikoak, eta buruan zituen koroa asko, eta zuen izen bat eskribaturik, iñork ez dakiana berak baizik.

13. Eta jantzirik zegoan soñeko odoleztu batekin: eta ark zuen izena, Jaungoikoaren Itza.

14. Eta zeruan diran ejerzituak, jarraitzen zioten zaldi zurietan, liño

104

mezko soñeko zuriaz, eta garbiaz jantzirik.

15. Eta aren aotik ateratzen zan ezpata bat bi aldetatik zorroztua, arekin erriak jotzeko. Eta berak zuzenduko ditu burnizko zigorrarekin: eta Jaungoiko guzialaren aserre sumiñeko dolarea berak zapaltzen du.

16. Eta du eskribaturik bere soñekoan, eta bere isterrean: Erregeen Erregea, eta jaunen Jauna.

17. Eta ikusi nuen beste aingeru bat eguzkian zutik, eta deadar egin zuen sendoki, esaten ziotela zeruaren erdiaren gañean egan zebiltzen egazti guziai: Atozte, eta bildu

105

zaitezte Jaungoikoaren afari andirako:

18. Jan ditzatzuten erregeen aragiak, eta ejerzituetako agintarien aragiak, eta sendoen aragiak, eta zaldien, eta oyetan eseririk daudenen aragiak, eta nagusien, eta mendekoen, eta chikien, eta andien aragiak.

19. Eta ikusi nituen pistia, eta lurreko erregeak, eta ayen ejerzituak bildurik, gudan aritzeko zaldian eseririk zegoanarekin, eta aren ejerzituarekin.

20. Eta arrapatua izan zan pistia, eta arekin gezurrezko profeta: aren aurrean gauza izigarrien egillea, zeñakin engañatu zituen pistiaren

106

markaren artzalleak, eta aren iduriaren adoratzalleak. Bizirik botatuak izan ziran bi oyek sufrez irazekirik dagoan suzko putzura.

21. Eta besteak illak izan ziran zaldian eseririk zegoanaren aotik ateratzen zan espataz: eta egazti guziak ase ziran ayen aragiez.

OGEIGARREN KAPITULUA.

ETA ikusi nuen aingeru bat jachitzen zerutik, zeñak zeukan leizeko giltza, eta kate andi bat bere eskuan.

107

2. Eta atzeman zuen dragoea, suge zarra, zeñ dan deabrua, eta satanas, eta lotu zuen milla urterako: (39)

3. Eta sartu zuen leizean, eta ichi zuen, eta sillutu zuen aren gañean, ez litzan geyago erreinuak engañatu, milla urte bete artean: eta gero soltatua bear du dembora piska baterako. (40)

4. Eta ikusi nituen esertokiak, eta eseri ziran ayen gañean, eta emana izan zitzayoten juzgatzeko eskua: eta Jesusen lekukotasuna gatik, eta Jaungoikoaren itza gatik buru moztuak izan ziradenen auimak, zeñak etzuten pistia adoratu, ez eta

108

aren iduria, ez artu aren señalea beren bekokietan, edo eskuetan, eta bizi izan ziran, eta erreinatu zuten Jesukristorekin milla urtean.

5. Beste illak etziran bizitu, milla urteak bete artean. Au da lenengo piztuera berria.

6. Doatsua, eta santua, partill dana lenengo piztuera berrian: ayetan bigarren eriotzak ez du eskurik: baizik Jesukristoren apaiz izango dira, eta errege arekin milla urtean.

7. Eta bete ditezenean milla urteak, askatua izango da satanas bere presoindegitik, eta aterako da, eta engañatuko ditu lurraren lau egale-

109

tan diran erriak, Gog, eta Magog, eta bilduko ditu gudarako; ayen zembata da itsasoko ondarra bezela.

8. Eta zabaldu ziran lurraren zabaleran, eta ingurutu zuten santuen batzartokia, eta erri maitea.

9. Eta jatsi zan sua zerutik Jaungoikoa gandik, eta iretai zituen: eta deabrua, ayen engañatzallea, aurtikia izan zan suzko, eta sufrezko putzura, non pistia ere,

10. Eta gezurrezko profeta izango dirade oñazetuak gau eta egun gizaldien gizaldietan.

11. Eta ikusi nuen tronu andi zuri bat, eta artan eseririk zegoana, zeñaren aurretik iges egiten duten

110

lurrak, eta zeruak, eta ayen tokirik etzan arkitu.

12. Eta ikusi oituen illak, andiak eta chikiak, tronuaren aurrean zutik: eta liburuak zabalduak izan ziran: beste Liburu bat ere zabaldua izan zan, zeñ dan bizitzakoa: eta juzgatuak izan ziran illak liburuetan eskribaturik zeudenetatik, ayen egiteen araura.

13. Eta itsasoak eman zituen artan zeuden illak: erioak ere, eta infernuak eman zituzten beren illak, ayetan zeudenak: eta juzgatuak izan ziran bakoitza bere egiteen araura.

14. Eta infernua, eta erioa bota-

111

tuak izan ziran suzko putzura. Au da bigarren eriotza.

15. Eta arkitu etzana bizitzako Liburuan eskribaturik, aurtikia izan zan suzko putzura.

OGUEI TA BATGARREN KAPITULUA.

ETA ikusi nituen zeru berria, eta lur berria. Zeren lengo zerua eta lengo lurra joan ziran, eta itsasorik ez da geyago.

2. Eta nik Joanek ikusi nuen erri santua Jerusalen berria zerutik ja-

112

chitzen Jaungoikoa gandik, jantzirik ezkomberria bere senarrarentzat apaintzen dan bezela.

3. Eta aditu nuen boz andi bat tronutik esaten: Ona Jaungoikoaren egontokia gizonakin, eta egongo da ayekin. Eta berak izango dira aren erria, eta Jaungoikoa bera izango da ayekin ayen Jaungoikoa:

4. Eta leortuko ditu Jaungoikoak malko guziak ayen begietatik: eta ez da izango geyago eriotzarik, ez biotzmiñik, ez deadarrik, ez eta naigaberik ez da geyago izango, zeren lenengoak joan ziran.

5. Eta esan zuen tronuan eseririk zegoanak: Ona berriak egiten ditut

113

guziak. Eta esan zidan: Eskribatu ezazu, itz oyek osotoro sinisgarriak dirala, eta egiazkoak,

6. Eta esan zidan: Egin da. Ni naiz alfa eta omega: asiera eta bukaera. Nic egarri danari emango diot bizitzako uraren iturritik, doan.

7. Garaitzen duenak, oyek idukiko ditu, eta aren Jaungoikoa izango naiz, eta bera nere seme izango da.

8. Bildurtiak berriz, eta sinisgabeak, eta madarikatuak, eta gizon eralleak, eta zikiñak, eta puzoi emalleak, eta jaungoiko falsoen adoratzalleak, eta gezurti guztiak, oyec partill izango dira suz, eta sufrez iraze-

114

kitako putzuan: au da bigarren eriotza.

9. Eta etorri zan ontziac azken izurriez beterik zeduzkan zazpi aingeruetatik bat, eta itz egin zidan, ziola: Atoz, eta erakutsiko dizut ezkomberria, Bildotsaren emaztea.

10. Eta gogoz eraman ninduen mendi andi, eta goratu batera, eta erakutsi zidan erri santua Jerusalen jatsitzen zerutik Jaungoikoa gandik,

11. Jaungoikoaren argiaz edertuik: eta aren argia arri baliotsuaren idurikoa jaspe arriaren antzekoa, kristala bezelakoa.

12. Eta zuen murru andi, eta goratu bat, zeñak zitue mabi ate:

115

eta ateetan, amabi aingeru, eta izenak eskribaturik, zeñak diraden Israelko semeen amabi tribuen izenak.

13. Eguzkiaren sortaldetik iru ate: eta ifarraldetik iru ate: eta egoaldetik iru ate: eta sartaldetic iru ate.

14. Eta erriko murruak zituen amabi zimendu, eta amabi ayetan, Bildotsaren amabi apostoluen izenak.

15. Eta nerekin itz egiten zuenak, zeukan urrezko kañaberazko neurri bat, erria, eta aren ateak, eta murrua neurtzeko.

16. Eta erria lau kantoitan egiña zegoan, eta aren luzeera zan zabalera bezambat: eta neurtu zuen

116

erria urrezko kañaberaz, eta arkitu zituen amabi milla estadu: eta luzeera, eta altuera, eta zabalera berdiñak dira.

17. Neurtu ere zuen aren murrua, zeñak zituen eun eta berrogei ta lau beso, gizon neurria, au da aingeruarena.

18. Eta murru ura egiñik zegoan jaspe arriz: erria bera berriz urre garbia bidrio argiaren irudikoa.

19. Eta erriko murruaren zimenduak arri baliotsn guziz edertuak ziran. Lembiziko zimeodua zan jaspea: bigarrena, zafiroa: irugarrena, kalzedonioa: laugarrena esmeralda:

20. Bosgarrena, sardonika: seigarrena, sardioa: zazpigarrena, kri-

117

solitoa: zortzigarrena, beriloa: bederatzigarrena, topazioa: amargarrena, krisoprasioa: amaikagarrena, jazintoa: amabigarrena, amatista.

21. Eta amabi ateak, amabi perla dirade, bakoitza bat: ate bakuitza perla bakoitz bat zan: eta erriko plaza urre garbia zan, bidrio argiargi baten idurikoa.

22. Eta templorik ez nuen artan ikusi. Zeren aren temploa da Jaun Jaungoiku guziala, eta Bildotsa.

23. Eta erriak ez du eguzkiaren, ez illargiaren bearrik argitua izateko. Zeren Jaungoikoaren argitasunak argitzen du, eta aren argitzallea da Bildotsa.

118

24. Eta ibilliko dira erri guziak aren argian: eta lurreko erregeak ekarriko diote beren gloria, eta onra.

25. Eta aren ateak ez dira ichiko egunez, ez da ere izango an gaurik.

26. Ekarriko ere dute ara errien gloria, eta onra.

27. Ez da an sartuko deus zikindurik, eta ichuskeriaren egillerik, eta gezur esalerik, baizik Bildotsaren bizitzako Liburuan eskribaturik daudenak.

119

OGEITA BI GARREN KAPITULUA.

ETA erakutsi zidan ur biziaren ibaya, kristala bezin argia, Jaungoikoaren eta Bildotsaren esertokitik irtetzen.

2. Ango plazaren erdian, eta ibayaren bi aldeetatik dago bizitzako zuaitza, zeñak ekarten ditu amabi frutu, eta ill bakoitzean ematen du bere fruta, eta zuaitzaren ostoak erreinuak osatzeko dira.

3. Eta madarikaziorik ez da izango geyago: baizik Jaungoikoaren,

120

eta Bildotsaren esertokiak an dira, eta aren serbitzariak serbituko dute.

4. Eta ikusiko dute aren arpegia: eta aren izena ayeo bekokietan izango da.

5. Eta gaurik geyago ez da izango: eta ez dute idukiko kandela argi bearrik, ez eguzkiaren argi bearrik, zeren Jaun Jaungoikoak argituko ditu, eta errege izango dira gizaldien gizaldietan.

6. Eta esan zidan: Itz oyek osotoro sioisgarriak dira, eta egiazkoak. Eta Jaunak profeten espirituen Jaungoikoak bialdu du bere aingerua erakustera bere serbitzariai zerk eldu bear duen laster.

121

7. Eta ona banator laster. Doatsua, liburu onetako profeziaren itzak gordetzen dituena.

8. Eta ni naiz Juan oyen aditzallea, eta ikuslea. Eta aditu, eta ikusi ondoan, lurreratu nintzan adoratzeko, oyek erakutsi zizkidan aingeruaren oñetan:

9. Eta esan zidan: Begira ezazu ez dezazula egin: zeren zure serbitzari laguna naiz, eta zure anaya profetena, eta liburu onetako profeziako itzak gordetzen dituztenena: Jaungoikoa adora ezazu.

10. Eta esan zidan: Ez sillutu liburu onen profeziako itzak: zeren aldean da dembora.

122

11. Gaitz egiten duenak, gaizki egin beza oraindik: eta lizunkerian dagoana, lizundu bedi oraindik: eta justua dana, justutu dedilla oraindik: eta garbia dana, garbitu dedilla oraindik. (41)

12. Ona banator laster: eta nere ordaña nerekin da, emateko bakoitzari bere egiteen araura.

13. Ni naiz alfa eta omega, lenena eta azkena, asiera eta bukaera.

14. Doatsuak, bere soñekoak Bildotsaren odolean garbitzen dituenak: eskua izan dezaten bizitzako zuaitzean, eta ateetatik sartu ditezen errian.

15. Kampora chaknarrak, eta pu-

123

zoitzaleak, eta zikiñak, eta gizon eralleak, eta Jaungoiko falsoen adoratzalleak, eta gezurra maite, eta egiten duten guziak.

16. Nik Jesusek bidaldu det nere aingerua oyekin zuei lekukotasuna ematera elizetan. Ni naiz Dabiden sustraya, eta etorkia, izar argia, eta goiz izarra.

17. Eta Espirituak, eta ezkongayak diote: Atoz. Eta aditzen duenak esan dezala: Atoz. Eta egarri dana, etorri bedi: eta nai duenak, artu beza bizitzako uretik, doan.

18. Adierazitzen diot liburu onetako profeziako itzak aditzen dituen guztiari: iñork erachekitzen badiote

124

oyei, Jaungoikoak ezarriko ditu bere gañera liburu onetan eskribaturik dauden izurri guztiak.

19. Eta iñork kentzen badu liburu onetako profeziaren itzetatik, Jaungoikoak ura kenduko du bizitzako Liburutik, eta erri santutik, eta liburu onetan eskribaturik daudenetatik.

20. Dio lekukotasuna oyekin ematen duenak. Bai banator laster: Ala izan dedilla. Atoz, Jesus Jauna.

21. Jesukristo gure Jaunaren grazia zuekin guztiokin. Ala izan dedilla.

GIPUZKOAKO APOKALIPSISARI ADIGARRIAK.

1. Lekuko leyala, eman ziolako munduari bere Aitaren aitorrera egiazkoa. Joan. 18, 38. Illetatik lembizi sortua, au da, piztu zana lembizi, ez berriz iltzeco, piztu zana berez.

2. Eta ditut eriotzareo giltzak eta infernukoak, esan nai du: neronek garaitu ditut eriotza eta infernua, eta ezin egin litzaketzute gaitzik zuen borondate gaba.

3. Zazpi elizen aingeru oyetan aditzen dirade Obispo Jaunak. ii. Corinth. 20.

4. Mana gordea: au da, biotzaren eta animaren barrendiko gozotasunak. arri zurian aditzen da betiko zorioneko sententzia, zeren anziña arrichoetan ematen ziran sententziak. Izen berri bat, au da, Jaungoikoaren semearen eta zeruko primuaren izena.

5. Espirituak, aditzen da Espiritu Santuak.

126

6. Ate idikia, asko sartzeko predikatuaz Ebanjelioa.

7. Egiak, au da, gezurrik esan ezin lezakeanak.

8. Esan nai du, nayago nuke baziña ona edo gaiztoa, ez epela: geyenez epela nekezago ondutzen da gaiztoa baño. Aug.

9. Sutan garbitutaco urreaz aditzen da karidadea.

10. Eman aditzen dirade Jaungoikoak era askotara bekatariari egiten diozkan deyak.

11. Lau abere oyetan aditzen dira lau Ebanjeliatak.

12.—Seina ago: oyek adierazotzen dute arintasuna predikatzeko Ebanjelioa: zeuden begiz beteak, oyekin adirazten da zuten argitasun aundia ezagutzeko lege bietako misterioak.

13. Bildots bat: au da Jesus. Ala adierazten dute Issiasek eta San Juan Bautistak ere. Dago illa bezela, ill bazan ere piztu zalako; edo adierazotzeko nola dagoan ostia konsagratuan. Adarrak adierazlan dute indarra: begiak ezaguera eta argitasuna.

127

14. Elizako Erakusleak aditzen dute zaldiaren gañean eseririk dagoenagan Jesus: zaldi zurian Apostoluak eta Ebanjelioaren lenengo predikadoreak: ballestan, bere itz bizi eta eragille biotzak zauritzen dituena.

15. Zaldi origorrian aditzen da martirren dembora; aren gañean eseririk zegoenagan deabrua, zeñak zirikatzen zituen persegitzalleak.

16. Zaldi beltzean aditzen dira erejeak, utsirik fedeko argia illumbetan bizi diralako: zaldi gañekoa da deabrua: balantzak esan nai du, liburu santuak aditzen dituztela beren burutazio ero, eta gura gaiztoen araura.

17. Emen aditzen da gorputzako eta animako janariaren urritasuna; baña Jaunak beti zaituko duela bere Eliza.

18. Zaldi zurbil onen gañean dagoenagan aditzen dute Eracusleak Mahoma: infernuak jarraitzen zion: au da, infernura joango ziradenen talde aundi batek.

19. Santuak emen eskatzen dutena da piztu ditzela beren gorputzak osotzeko beren gloria: baitaere beldurturik gaiztoak kastiguakin ez ditzayotela esetai onsi. Eta Jaungoikoak esaten diote, ichedon dezatela

128

onetarako dembora etortzen dan bitartean. Greg.

20. Emen aipatzen dirade Jaungoikoak gaiztoen gañera bidalduko dituen kastiguak.

21. Elizako Eracusle askok aditzen dituzte emen Luteru eta bere jarraitzalleak: esaten du dituztela korvak bezelakoak, beren mukertasuna gatik, ez dituztelako aitortu nai Eliza santaren erakutsiak ziertoak diradela ezagutu arren: dituzte gizonen irudiko arpegiak, badutelako onen irudia kampotikan, barrendik gaiztoak eta animen iltzallzak diradela. Emakumeen illeak adiratzen dute beren biziera zikiñ eta gura gaiztoen erakoa: burnizko lorikak beren biotzeko gogortasuna: beren egoen olak adierazotzen du elkarren artean oi dituzten guda eta ezbayak, bilizen eta elkartzen diradela Eliza Santa Erromakoari esateko.

22. Gozoa zan ikusten nituelako beterik Jaunaren zemakuntzak; baña garrastu zan nere sabela ikusiaz aimbeste animen betiko galmena.

23. Emakume au da Eliza santa: esaten da agertu zala zeruan, an duelako bere bizilekua: zegoan eguzkiarekin estalia, zeren Jesukristok egiazko justiziako eguzkiak zaitu eta gordetzen du: dauka oñazpian illargia, au da, mundu onetako gauza galdukorrak: igarotzen ditu aurregiten ari danaren alak irabazten animak Jesusentzat: dragoea da demonioa: zazpi buruak, zazpi bekatu kapitalak. Buruko apainduriak adierazotzen dituzte bere garaitzak: egin zuen aur bat semea, au da, sendo eta errutsua, zeñ dan Jesus animetan sortua: eramana izan zan zerura, au izateko guro bitartekoa. Aug.

24. Nola emen Migelek garaitu zituan Luzifer eta bere lagunak, ala orain du berarizko indarra ayek garaitzeko.

25. Balzak botatzen du aotik ura ibai bat bezela eta guro edan, erakarriaz bera gana asmaearekin, onela arrapatzeko igeai dijoazen arrayak: orobat egin zuen emen aipatzen dan sugeak.

26. Onak, au da, sendoak lurra berela lagundu zioten Elizari: idikirik beren aoa eskatu zuten zeruko laguntasuna, eta garaitu zituzten etsayak. Besto batzuek aditzen dute idikirik lurra iretsiko dituela Eliza santaren persegitzalleak.

27. Asmatzen nola garaituko zituen onak esetairik itsasoz eta legorrez.

28. Pisti au da Antekristoa: ateratzen da

129

pian illargia, au da, mundu onetako gauza galdukorrak: igarotzen ditu aurregiten ari danaren alak irabazten animak Jesusentzat: dragoea da demonioa: zazpi buruak, zazpi bekatu kapitalak. Buruko apainduriak adierazotzen dituzte bere garaitzak: egin zuen aur bat semea, au da, sendo eta errutsua, zeñ dan Jesus animetan sortua: eramana izan zan zerura, au izateko guro bitartekoa. Aug.

24. Nola emen Migelek garaitu zituan Luzifer eta bere lagunak, ala orain du berarizko indarra ayek garaitzeko.

25. Balzak botatzen du aotik ura ibai bat bezela eta guro edan, erakarriaz bera gana asmaearekin, onela arrapatzeko igeai dijoazen arrayak: orobat egin zuen emen aipatzen dan sugeak.

26. Onak, au da, sendoak lurra berela lagundu zioten Elizari: idikirik beren aoa eskatu zuten zeruko laguntasuna, eta garaitu zituzten etsayak. Besto batzuek aditzen dute idikirik lurra iretsiko dituela Eliza santaren persegitzalleak.

27. Asmatzen nola garaituko zituen onak esetairik itsasoz eta legorrez.

28. Pisti au da Antekristoa: ateratzen da

130

itsasotik, au da, mundu onetako bagen artetik.

29. Antekristoak bere asmazioakin sinistuerazikо diote zanri andi bat duela, ill eta piztu dala, onela Jaungoikotzat adoratu dezaten.

30. Antekristoak garaituko ditu santuak bizia kenduaz, baña ez Jesusen fedea ukatu eta bekatuan erorlerazitzeaz.

31. Pisti onetan aditzen dute geyenak Antekristoaren bidesurreko bat.

31. Iru dira Antekristoak egingo dituen gauza miragarriak. Lembizikoa bere eriotza eta piztutze irudizkoa. Bigarrena deabruaren asmazioakin suari zerutik jechicrazitzea. Irugarrena bere irudiari itzerazitzea sarturik barrenen deabrua.

33. Oyetan aipatzen diraden iru aingeruak dira iru predicadore biotz sendoko, Jaungoikoak bidalduko dituenak dembora artan.

34. Santuak nola nai duten osotzea beren zorionlasuna zeruan, elkarturik gorputz eta anima, eskatzen diote Jesusi ebaki ditzala aimbat lasterren gaiztoen biziak, zoritu diraden ezkeroz, au da, bete duten ezkeroz beren bekatuen neurria, eta salbaturik dauden ezkeroz salbatuko diradenak.

131

35. Zorituak dauden mets mordo oyetan aditzen dirade, beren bekatuen neurria bete duten bekatariak.

36. Bordion andiaren izenarekin aditzen da Jentillen Erroma.

37. Santuak mundu onetan ez oi diete gaitzik deseatu ez egin beren gaizkigilleai; baña bestean poztuko dirade bekatarien kastiguakin.

38. Ons nola Jaungoikoak kastigatzen duen arrokeria.

39. Milla urte oyetan aditzen da Ebanjelioko legeko dembora guzia, Antekristoa etorri artean.

40. Dembora gutxi onetan aditzen dirade iru urte eta erdi, zeña dan Antekristoak egintatuko duen dembora.

41. Ez da su aitori esatea bekatu egin dezala, edo lezakeala; baizik bekatariari egiten zayon errierta bat, esango balu bezela. Oraindañokoakin aspertu ez danak jarraitu bizayo bekatu egiteari; baña jakin beza, laster duela gañean kastigua.

ERRATAS.

Página.	Línea.	Dice.	Léase.
44	15	kirastu	garrastu
63	13	aren	ayen
87	15	esiririk	eserirk
122	12	bere	beren
—	13	dituenak	dituztenak

CANTICUM CANTICORUM SALOMONIS

Jose Antonio Uriarte
Gipuzkeraz, Bizkaieraz
Londini
1858

Originala: «Azkue Biblioteka» - Euskaltzaindia

CANTICUM CANTICORUM SALOMONIS

TRIBUS VASCONICÆ LINGUÆ DIALECTIS IN HISPANIA VIGENTIBUS VERSUM.

OPERA ET STUDIO

JOSEPHI A. DE URIARTE,

ET

LUDOVICI L. BONAPARTE.

LONDINI. 1858.

CANTICUM CANTICORUM SALOMONIS

IN TRES VASCONICAS DIALECTOS VERSUM.

MONITUM.—*Formæ alloquendi masculinæ rubeo, femininæ viridi colore indicantur.*

Canticum Canticorum Salomonis.

VERSIO VULGATA.

CANTICUM CANTICORUM SALOMONIS.

CAPUT I.

OSCULETUR me osculo oris sui: quia meliora sunt ubera tua vino,

2 Fragrantia unguentis optimis. Oleum effusum nomen tuum: ideo adolescentulæ dilexerunt te.

3 Trahe me: post te curremus in odorem unguentorum tuorum. Introduxit me rex in cellaria sua: exultabimus et lætabimur in te, memores uberum tuorum super vinum: recti diligunt te.

4 Nigra sum, sed formosa, filiæ Jerusalem, sicut tabernacula Cedar, sicut pelles Salomonis.

5 Nolite me considerare quod fusca sim, quia decoloravit me sol: filii matris meæ pugnaverunt contra me, posuerunt me custodem in vineis: vineam meam non custodivi.

6 Indica mihi, quem diligit anima mea, ubi pascas, ubi cubes in meridie, ne vagari incipiam post greges sodalium tuorum.

DIAL. GUIPUSCOANA LITTERALI.

SALOMONEN KANTEN KANTA.

LEMBIZIKO KAPITULUA.

MUSU eman bizat bere aoko musuarekin: zeren zure ire bularrak ardoa baño obeak dira dituk,

2 Usaigozodunak okendurik onenak bezela. Olio isuria da dek zure ire izena: orregatik neskach gazteak maitatu zinduten indukaten.

3 Ekar nazazu nazak: zure ire ondoren korrika joango gera gaitnk zure ire okenduen usayera. Barnartetu nindnen ninchiokan erregeak bere geletan: bozkariatuko eta poztuko gera gaituk zugan igan, oroiturik znre ire bular ardoa baño obeakin: zuzenak maite zaitnzte aute.

4 Beltza naiz, baña ederra, Jerusalengo alabak, Zedarko dendak bezela, Salomonen larruak bezela.

5 Ez konsideratu belcharana naizela, zeren eguzkiak deskoloretu ninduen: nere amaren semeak gudatu zuten nere kontra, jarri ninduten mästien zai: nere mästia ez nuen zaitu.

6 Erakutsi zadazu zadak, zuk ik nere animak maite duenak dikenak, non bazkatzen dezun dekan, non eguerdiera egiten dezun dekan, asi ez nadin naikan orrou ibiltzen zure ire lagnnen taldēn ondoren.

Canticum Canticorum Salomonis.

DIAL. BISCAINA MARQUINENSI.

SALOMONEN KANTEN KANTIA.

LELENGO KAPITULUBA.

MOSU emon begit bere aoko mosubagaz: zerren zure ire bularrāk ardaua baño obāk dira dituk,

2 Usaingozodunāk ugenturik onenāk legez. Orijo isurija da dok zure ire izena: orregaitik neskatilla gaztiāk maitetu ziudubezau induben.

3 Ekarri nagizu nagik: zure ire ondoren arin egingo dogu juagu zure ire ugentuben usaiñera. Sartu ninduban najinduban erregek bere geletan: gozatuko ta poztuko gara gaituk zugan igan, gomntaurik zure ire bular ardaua baño obākaz: zuzenāk maite zaitube aube.

4 Baltza naz, baña ederra, Jerusalengo alabāk, Zedarko dendāk legez, Salomonen narrnbāk legez.

5 Ez konsiderau balcherana nazala, zerren eguzkijak deskoloretu ninduban: neure amaren semiāk gudatu eben nire kontra, imiñi ninduben māstijen zain: neure māstija ez neban zaindu.

6 Erakutsi egidazu egidak, zuk ik nire arimiak maite dabenak juanak, nun larratuten dozun duan, nun eguberdieria egiten dozun duan, asi ez nadin najadin orron ibilten zure ire lagunen aldren ondoren.

DIAL. BISCAINA GENERALI.

SALOMONEN KANTEN KANTEA.

LELENGO KAPITULUA.

MOSU emon begit bere agoko mosuagaz: zegaiti zure ire bularrak ardaoa baño obeak dira dozak,

2 Usaingozodunak ubienturik onenak legez. Orio isuria da dok zure ire uzena: orregaiti neskato gazteak maitetu zenduezan enduen.

3 Ekarri nagizu nagik: zure ire atzean karraka joango gara gozak zure ire ubientuen usainera. Sartu nendun najendnn erregek bere geletan: gozatuko ta poztuko gara gozak zugan igan, gomutaurik zure ire bular ardaoa baño obeakaz: artezak maite zaituc aue.

4 Baltza naz, baya ederra, Jerusalengo alabak, Zedarko dendak legez, Salomonen narruak legez.

5 Ez kousiderau baltzerana nazala, zegaiti eguzkiak deskoloretu nenduen: neure amaren semeak gudatu enden nire kontra, ifiñi nendnen mastien jagola: neure mastia ez neuan jagon.

6 Erakutsi egidazu egidak, zuk ik nire arimeak maite dauenak joanak, non larratuten dozun doan, non eguerdierea egiten dozun doan, asi ez nadin najadin orron ibilten zure ire lagunen aldren atzean.

Canticum Canticorum Salomonis.

Versio Vulgata.

7 Si ignoras te, o pulcherrima inter mulieres, egredere, et abi post vestigia gregum, et pasce hœdos tuos juxta tabernacula pastorum.

8 Equitatui meo in curribus Pharaonis assimilavi te, amica mea.

9 Pulchræ snnt genæ tuæ sicut turturis : collum tuum sicut monilia.

10 Murenulas aureas faciemus tibi, vermiculatas argeuto.

11 Dum esset rex in accubitu suo, nardus mea dedit odorem suum.

12 Fasciculus myrrhæ dilectus meus mihi, inter ubera mea commorabitur.

13 Botrus cypri dilectus meus mihi, in vineis Engaddi.

14 Ecce tu pnlchra es, amica mea, ecce tu pulchra es, oculi tui columbarum.

15 Ecce tu pulcher es, dilecte mi, et decorus. Lectulus noster floridus :

16 Tigna domorum nostrarum cedrina, laquearia nostra cypressina.

Dial. Guipuscoana litterali.

7 Ez badakizu badakin, o emakumēn artean chit ederra, atera zaite adi, eta zoaz oa taldēn oñatzen ondoren, eta bazkatu itzatzu itzan zure ire anchumeak artzayen echoleu ondoan.

8 Irudierazi zindudan indunadan, nere adiskidea, nere zaldidiari Faraouen gurdietan.

9 Ederrak dira ditun zure ire masallak ala nola usatortolarenak : zure ire lepoa lepandeak bezela.

10 Urrezko katechoak egingo dizkizugu dizkiñagu, zillarrezko archoz margainduak.

11 Erregea bere etzinkayan zegoan bitartean, nere uardoak eman zuen bere usaya.

12 Mirrazko sortachoa da nere maitea neretzat, nere bularren artean geratuko da.

13 Ziprozko mordoa da nere maitea neretzat, Engaddi-ko māstietan.

14 Ai zeñ ederra zeran aizan, nere adiskidea, ai zeñ ederra zeran aizan! Zure ire begiak usoenak dira ditun.

15 Ai zeñ ederra zeran aizakan, nere maitea, ta emaguritsua! Gure oea loratsua da dek :

16 Gure echēn olkayak zedrozkoak dirade dituk, goyaspillatuak zipresezkoak.

Canticum Canticorum Salomonis.

Dial. Biscaina Marguinensi.

7 Ez badakizu badakin, o emakumēn artian guztiz ederra, urten egizu egiñ, eta zuaz ua aldren oiñatzen ondoren, eta larratu egizuz egizan zeure enre aumāk artzañen chabolen onduan.

8 Irudierazo zindudazan indunadan, neure adiskidia, neure zaldidijari Faraonen hurdijetan.

9 Ederrāk dira ditun zure ire matrallāk usatortoliarenāk legez: zure ire iduna lepandiāk legez.

10 Urrezko katechubāk egingo deutsuguz deunaguz, zidarrezko archuz margandubāk.

11 Errege here etzintokijan eguan artian, nire narduak emon eban bere usaiña.

12 Mirrazko sortachuba da nire maitia nirctzat, nire hularren artian geratuko da.

13 Ziprozko mordua da nire maitia niretzat, Engaddi-ko mâstijetan.

14 Ai ze ederra zarian azan, neure adiskidia, ai ze ederra zarian azan! Zure ire hegijāk usuenāk dira ditun.

15 Ai ze ederra zarian azan, neure maitia, ta abegi samurrekua! Gure oya loratsuba da dok:

16 Gure echēn kapirijuāk zedrozkuāk dira dituk, goyaspillatubāk zipresezkuāk.

Dial. Biscaina generali.

7 Ez badakizu badakina, o andren artean guztiz ederra, urten egizu egina, eta zoaz oa aldren oiñatzen atzean, eta larratu egizuz egizana zeure eure aumeak artzañen chaholen ondoan.

8 Irudierazo zindudazan indnnadana, neure adiskidea, nenre zaldidiari Faraonen gurdietan.

9 Ederrak dira dozana zure ire matrallak usatortolearenak legez: zure ire iduna lepandeak legez.

10 Urregorrizko katechuak egingo deutsuguz deunaguz, urrezurizko archuz marganduak.

11 Errege bere echunlekuan egoan artean, nire nardoak emon euan bere usaina.

12 Mirrazko chortachua da nire laztana niretzako, nire bularren artean geratuko da.

13 Ziprozko mordea da nire laztana niretzako, Engaddi-ko mastietan.

14 Ai ze ederra zarean azan, neure adiskidea, ai ze ederra zarean azan! Zure ire begiak usoenak dira dozana.

15 Ai ze ederra zarean azan, neure laztana, ta abegi samurrekoa! Gure oea loratsua da dok:

16 Gure etzēn kapirioak zedrozkoak dira dozak, goyaspillatuak zipresezkoak.

Canticum Canticorum Salomonis.

Versio Vulgata.

CAPUT II.

EGO flos campi, et lilium convallium.

2 Sicut lilium inter spinas, sic amica mea inter filias.

3 Sicut malus inter ligna sylvarum, sic dilectus meus iuter filios. Sub umbra illius, quem desideraveram, sedi: et fructus ejus dulcis gutturi meo.

4 Introduxit me in cellam vinariam, ordinavit in me charitatem.

5 Fulcite me floribus, stipate me malis: quia amore langueo.

6 Læva ejus sub capite meo, et dextera illius amplexabitur me.

7 Adjuro vos, filiæ Jerusalem, per capreas, cervosque camporum, ne suscitetis, neque evigilare faciatis dilectam, quoadusque ipsa velit.

8 Vox dilecti mei, ecce iste venit saliens in montibus, transiliens colles:

9 Similis est dilectus meus capreæ, hinnuloque cervorum. En ipse stat post parietem nostrum respiciens per fenestras, prospiciens per cancellos.

10 En dilectus meus loquitur mihi: Surge, propera, amica mea, columba mea, formosa mea, et veni.

Dial. Guipuscoana litterali.

BIGARREN KAPITULUA.

NI naiz kampoko lorea, eta ibarretako lirioa.

2 Nola lirioa arantzen artean, ala nere adiskidea alaben artean.

3 Nola sagarrondoa basoetako zuaitzen artean, ala nere maitea semēn artean. Nai izan nuenaren itzalaren azpian, eseri nintzan: eta aren frutua gozoa da nere eztarriarentzat.

4 Barnartetu ninduen ardoaren gelan, zuzendu zuen nigan karidadea.

5 Sendotu nazazute lorekin, inguru nazazute sagarrez: zeren amorioz kordegabetzen naiz.

6 Aren ezkerra nere buruaren azpian, eta beraren eskuyak besarkatuko nau.

7 Otoizmendutzen zaituztet, Jerusalengo alabak, kampoetako basauntzak, eta oreñak gatik, ez dezazutela eraiki, ez esnatuerazi ere maitea, berak nai duen arteraño.

8 Nere maitearen boza, ona emen non saltoka datorren mendietatik, muñoak igaroz:

9 Basauntzaren, eta orenkumearen antzekoa da nere maitea. Ona emen non dagoen gure paretaren atzean, leyoetatik begira, leyakeretatik zelatan.

10 Oua emen nere maiteak itz egiten dit: Jaiki zaite adi, presakatu zaite adi, nere adiskidea, nere usoa, nere ederra, eta atoz ator.

Canticum Canticorum Salomonis.

Dial. Biscaina Marquinensi.

BIGARREN KAPITULUBA.

NI naz kampoko loria, eta ibarretako lirijua.

2 Zelan lirijua arantzen artian, alan nire adiskidia alaben artian.

3 Zelan sagarrondna basuetako zugatzen artian, alan nire maitia semēn artian. Gura izan nebanaren keriziaren azpijan, jarri nintzan: eta aren frntuba gozua da nire estarrijarentzat.

4 Sartn ninduban ardauaren gelan, zuzendu eban nigan karidadia.

5 Sendotn nagizube lorākaz, inguratu nagizube sagarrez: zerren amodijoz kordebagatuten naz.

6 Aren ezkerra nire burubaren azpijan, eta bere eskumiak laztanduko nau.

7 Errcgututen deutsubet, Jerusalengo alabāk, kampnetako basauntzāk, eta oreiñāk gaitik, arren ez dagizubela irakori, ez esnatu eragin bere maitia, berak gura daben arteraño.

8 Nire maitiaren hoza, orra emen nun saltoka datorren mendijetatik, murubāk igaroz:

9 Basauntzaren, ta oreinkumiaren antzekna da nire maitia. Orra emen nun daguan gure ormiaren atzian, mentanctatik begira, zursarētatik zelatan.

10 Orra emen neure maitiak berba egiteu deust: Jagi zaite adi, arin egizu egiñ, neure adiskidia, neure usua, neure ederra, eta erdu ator.

Dial. Biscaina generali.

BIGARREN KAPITULUA.

NI naz kampoko lorea, eta ibarretako lirioa.

2 Zelan lirioa arantzen artean, alan nire adiskidea alaben artean.

3 Zelan sagarrondoa basoetako arechen artean, alan nire laztana semēn artean. Gura izan neuanaren gereshearen azpian, jarri nintzan: eta aren frutua gozoa da nire samearentzako.

4 Sartu nendun ardaoaren gelan, arteztu euan nigan karidadea.

13 O zu i ortuetan hizi zareana azana, adiskideak entzuten daude joena: entzun eragidazu eragidaua zure ire boza.

14 Iñes egizu egik, neure laztana, eta iruditu zakioz akioe basauntzari, eta oreinkumechuari usain gozoen mendien ganean.

I certify that only 250 *copies of this work have been printed,* 248 *of which are numbered on the back of the title, and of the remaining two, one is printed on thick paper.*

GEORGE BARCLAY,
28 Castle Street, Leicester Square.

EL EVANGELIO SEGÚN SAN MATEO
JESUCRISTOREN EBANJELIO SANTUA
SAN MATEOREN ARAURA

Jose Antonio Uriarte
Gipuzkeraz
Londres
1858

Originala: Baionako Udal Biblioteka

EL EVANGELIO

SEGUN

SAN MATEO,

TRADUCIDO AL VASCUENCE, DIAL. GUIPUZCOANO,

POR

EL P. FR. JOSÉ ANTONIO DE URIARTE,

PARA EL

PRÍNCIPE LUIS-LUCIANO BONAPARTE.

LÓNDRES.

1858.

(15) 7

JESUCRISTOREN

EBANJELIO SANTUA

SAN MATEOREN

ARAURA.

LEMBICICO CAPITULUA.

JESUCRISTOREN Daviden semearen, Abrahamen semearen jatorriaren liburua.

2. Abraham gandic izan zan sortua Isaac. Eta Isaac gandic izan zan sortua Jacob. Eta Jacob gandic izan ciran sortuac Judas, eta bere anayac.

3. Eta Judas gandic izan ciran sortuac Fares, eta Zara Tamargan. Eta Fares gandic izan zan sortua Esron. Eta Esron gandic izan zan sortua Aram.

4. Eta Aram gandic izan zan sortua Aminadab: Eta Aminadab gandic izan zan sortua Naasson. Eta Naasson gandic izan zan sortua Salmon.

5. Eta Salmon gandic izan zan sortua Booz Rahabgan. Eta Booz gandic izan zan sortua Obed Rutgan. Eta Obed gandic izan zan

4

sortua Jesse. Eta Jesse gandic izan zan sortua David erreguea.

6. Eta David erreguea gandic izan zan sortua Salomon argan Uriasena izan zanagan.

7. Eta Salomon gandic izan sortua Roboam. Eta Roboam gandic izan zan sortua Abias. Eta Abias gandic izan zan sortua Asa.

8. Eta Asa gandic izan zan sortua Josafat. Eta Josafat gandic izan zan sortua Joram. Eta Joram gandic izan zan sortua Ozias.

9. Eta Ozias gandic izan zan sortua Joatam. Eta Joatam gandic izan zan sortua Acaz. Eta Acaz gandic izan zan sortua Ezequias.

10. Eta Ezequias gandic izan zan sortua Manasses. Eta Manasses gandic izan zan sortua Amon. Eta Amon gandic izan zan sortua Josias.

11. Eta Josias gandic izan ciran sortuac Jeconias, eta bere anayac Babiloniaco errialdatzean.

12. Eta Babiloniaco errialdatzearen ondoan: Jeconias gandic izan zan sortua Salatiel. Eta Salatiel gandic izan zan sortua Zorobabel.

13. Eta Zorobabel gandic izan zan sortua Abind. Eta Abiud gandic izan zan sortua

5

Eliacim. Eta Eliacim gandic izan zan sortua Azor.

14. Eta Azor gandic izan zan sortua Sadoc. Eta Sadoc gandic izan zan sortua Aquim. Eta Aquim gandic izan zan sortua Eliud.

15. Eta Eliud gandic izan zan sortua Eleazar. Eta Eleazar gandic izan zan sortua Matan. Eta Matan gandic izan zan sortua Jacob.

16. Eta Jacob gandic izan zan sortua Jose Mariaren seuarra, ceñen gandic jayo zan Jesus, Cristo deritzana.

17. Ala bada Abraham gandic Davideraño-co guizaldi guciac, amalau guizaldi: eta David gandic Babiloniaco errialdatzeraño, amalau guizaldi: eta Babiloniaco errialdatzetic Cristoraño, amalau guizaldi.

18. Cristoren sorrera bada onela izan zan: Cegoela ezcontzaco itza emanic bere Ama Maria Joserequin, elcarganatu baño lenago, arquitu zan sabelean zuela Espiritu santuaren gandic.

19. Eta Jose bere senarrac, izanic zucena, eta nola etzuen nai betziztu, nai izan zuen ixillic utzi.

v. 18.—Elcarganatu baño lenago—Ez du iñore emendic atera bear, guero araguiz elcartu cirala. ceren beti garbi bici izan ciran. San Geron.

6

20. Eta cegoela oyec gogatzen, ona emen non Jaunaren ainguerua aguertu citzayon ametsetan, esaten ciola: Jose Daviden semea, etzaite beldur izan artzen Maria zure emaztea: ceren argan jayo dana, Espiritu santuarena da.

21. Eta erdituco du semea: eta deituco diozu bere icena Jesus: ceren berac salbatuco du bere erria beren becatuetatic.

22. Au gucia bada izan zan eguiña, betetasuna iduqui cezan Jaunac esan zuenac profetaren bitartez, ceñac esaten duen:

23. Ona emen birjiñac sabelean iduquico du, eta erdituco du semea: eta deituco diote bere icena Emmanuel, ceñac esan nai duen: Gurequin Jaungoicoa.

24. Eta jaiquiric Jose lotic, eguin zuen Jaunaren aingueruac aguindu cion becela, eta artu zuen bere emaztea.

25. Eta etzuen czagutzen, erditu zuen arteraño bere seme lembicisortua: eta deitu cion bere icena Jesus.

v. 25.—Erditu zuen arteraño—Emendic ere ecin atera lezaque, guero elcartu cirala. San Jeron.

v. 25.—Lembicisortua—Itz once esan nai zuen Juduco artean, lenago besterie izan gabea. San Jeron.

7

BIGARREN CAPITULUA.

JAYO zanean bada Jesus Judaco Belenen Herodes erreguearen egunetan, ona emen non Magoac sortaldetic etorri ciran Jerusalemera,

2. Ciotela: ¿Non da jayo dana Juduen erreguea? Icusi degu ccen bere izarra sortaldean, eta gatoz adoratzera.

3. Eta au adituric Herodes erregueac, izutu zan, eta Jerusalem gucia berarequin.

4. Eta bilduric apaicen nagusi guciac, eta errico Escribac, galdez cegoten non jayo bear ote zan Cristo.

5. Eta ayec esan cioten: Judaco Belenen: Ceren onela dago escribatua profetaren bitartez:

6. Eta zu Belen Judaco erria, iñolaere etzera chiquiena Jndaco anndienen artean: ceren zu gandic ateraco da guidaria, zucenduco duena Israel nere erria.

v. 1.—Magoac—Onela deitzeo citzayoten jaquintsuai, batezere izar eta ceruco beste gaucetan. Emen aipatsen diranac ciran erregueac, edo errietaco aguintariac.

v. 4.—Escribac—Legue jaquintsu eta eracusleac.

8

7. Orduan Herodesec, ixillic deituric magoai, ajolarequin icasi zuen berac gandic, izarraren dembora aguertu citzayotenarena:

8. Eta bialduric Belenera, esan cioten: Zoazte, eta galde ezazute arretarequin aurra gatic: eta arqnitzen dezutenean, jaquin erazo nazazute, nic ere etorrita adoratu dezadan.

9. Berac aditnric erreguea joan ciran. Eta ona emen non sortaldean icusi zuten izarra, cijoan beren aurretic, alic eta allegaturic, guelditu zan artean aurra cegoen toquiaren gañean.

10. Eta icusi zutenean izarra poztu ciran poz chit aundiarequin.

11. Eta sartzen cirala cchean, arquitu zuten aurra bere ama Mariarequin, eta auzpezturic adoratu znten: eta idiquiric beren gordalluac esqueñi cizquioten doayac, urrea, intzentzua, eta mirra.

12. Eta arturic erantzuera ametsetan, etziteztela itzuli Herodesen gana, beste bide batetic itzuli ciran beren errira.

13. Oyec alde eguin zuteucan, ona emen non Jaunaren ainguerua aguertu citzayon ametsetan Joseri, esaten ciola: Jaiqui zaite,

9

eta ar itzatzu aurra, eta bere ama, eta igues ezazu Egiptora, eta zaude an nic esan dezazudan artean. Guertatuco da ecen Herodesec billatzea aurra galdu erazoteco.

14. Bera jaiquiric artu cituen aurra, eta bere ama gauaz, eta alde eguin zuen Egiptora.

15. Eta egon zan an Herodesen eriotzeraño: bete cedin Jaunac esan zuena profetaren bitartez, ceñac esaten duen: Egiptotic deitu nuen nere semeari.

16. Orduan Herodes icusiric izan zala Magoac burlatua, aserratu zan asco, eta bidalduric ill erazo cituen Belenen, eta bere inguru gucietan ceuden aur seme guciac bi urtecoac eta beeracoac, Magoen gandic jaquin zuen demboraren araura.

17. Orduan betea izan zan esana izan zana Jeremias profetaren bitartez, ceñac esaten duen:

18. Boza Raman izan zau aditua, negarra eta oju asco: Raquel negarrez bere semeac gatic, eta etzuen nai izan poztua, ceren ez diran.

19. Illic bada Herodes, ona emen non Jaunaren aingoerua aguertu citzayon ametsetan zatzala Joseri Egipton,

10

20. Esaten ciola: Jaiqui zaite, eta ar itzatzu aurra, eta bere ama, eta zoaz Israelgo errira: ceren illac dira billatzen zutenac aurraren anima.

21. Bera jaiquitzen zala, artu cituen aurra, eta bere ama, eta etorri zan Israelgo errira.

22. Adituric ordea Arquelaoc aguintatzen zuela Judean bere aita Herodesen toquian, beldur izan zan ara joaten: eta izanic gaztigatua ametsetan zatzala, alde eguin zuen Galileaco aldeetarontz.

23. Eta etorriric bici izan zan Nazaret deritzan errian: bete cedin esana izan zana profeten bitartez: Nazaretarra deitua izango dala.

IRUGARREN CAPITULUA.

ETA egun ayetan etorri zan Juan Bautista predicatzen zuela Judeaco eremuan,

2. Eta esaten zuela: Penitencia eguin zazute: ceren alderatu da ceruetaco erreinua.

3. Bada an da esana izan zana Isaias profetac esaten duenac: Eremuau oju egoiten duenaren boza: Prestatu ezazute Jaunaren

11

bidea: zucenac eguin itzatzute bere bidechigorrac.

4. Eta Juanec berac ceucan gameluen illezco jantzia, eta larruzco guerricoa bere guerriaren ioguruan: eta bere janaria ciran langostac, eta basa eztia.

5. Orduan ateratzen zan beraren gana Jerusalem eta Judea guztia, eta Jordan inguruco alderri guztia;

6. Eta oi ciran berac batayatuac Jordanen, aitorturic beren becatuac.

7. Icusiric alabaña Fariseoetatic, eta Saduceoetatic asco, cetoztela bere batayura, esan cioten: Bibora arrazac, ¿nore eracutsi dizute igues eguiten etorrico dan iratic?

8. Eguin ezazute bada penitenciaren diñaco frutua.

9. Eta ez dezazutela nai esan zuen barrenean: Aita daucagu Abraham. Ceren esaten dizutet altsua dala Jaincoa arri oyetatic jasotzeco semeac Abrahami.

10. Ceren onezquero ipiñia dago aizcora arbolen sustrayan. Bada frutu ona eguiten ez ducn arbola guztia, izango da ebaquia, eta sutara botatua.

12

11. Nic eguiaz batayatzen zaituztet urean penitenciaraco: baña nere ondoren etorrico dana, ni baño sendoago da, ceñaren oñetacoac eramateco diña ez naiz: berac batayatuco zaituzte Espiritu santuau, eta suan.

12. Ceñarcu sardcchea bere escuan: eta garbituco du ongui bere larraña: eta bilduco du bere garia aleteguian, lastoac ordea erreco ditu suan iñoiz itzali eciogo danean.

13. Orduan etorri zan Jesus Galileatic Jordanera Juanen gana, onec batayatua izan cediu.

14. Juanec ordea galerazotzen cion, esaten ciola: ¿Zuc batayatua izan bear nnque nic, eta zu zatoz nere gana?

15. Erantzunaz alabañan Jesusec, esan cion: Utzi ezazu orain: ceren onela bear degu guc bete zucentasun gucia. Orduan utzi cion.

16. Eta batayatua izan ondoan Jesus, bereala igo zan uretic. Eta ona emen non idiqui

v. 11.—Suan—Caridadecoan. San Juan Crisost.

v. 12.—Larrafia—Eliza da larrafi bat, aotsa eta gari alea, au da, onac eta gaiztoac nasturic daudena. Egunen baten izango dira berecituac. S. Agust.

v. 15.—Zucentasun gucia—Au da, Aita cerucoaren erabagui eta aguinte guciac. S. Juan Crisost.

13

citzaizquion ceruac: eta icusi zuen Jaungoicoaren Espiritua jachitzen zala usoa becela, eta cetorrela beraren gañera.

17. Eta ona emen boz bat ceruetatic esaten zuena: Au da nere seme maitatua, ceñengan dedan poza.

LAUGARREN CAPITULUA.

ORDUAN Jesus izan zan espirituac eramana eremura, deabruac tentatua izan cedin.

2. Eta baran eguiñic berroguei egunean, eta berroguei gauean, guero gose izan zan.

3. Eta alderaturic beraren gana tentatzallea esan cion: Baldin bacera Jaungoicoaren semea, esan ezazu arri oyec eguin ditezlela oguiac.

4. Berac erantzunaz esan cion: Escribatua dago: Ogui utsarequin ez da bici guizona, baicic Jaungoicoaren aotic irtetzen dan itz guciarequin.

5. Orduan artu zuen deabruac, eta eraman znen erri santura, eta ipiñi zuen elizaco tellatuaren egalean,

14

6. Eta esan cion: Baldin bacera Jaungoicoaren semea, bota zaite beerontz. Ceren escribatua dago: Aguindu ciotela bere aingueruai zure gatic, eta escuetan artuco zaituzte, ustecabean beaztopotu ez dezazun arrian zure oñarequin.

7. Esan cion Jesusec: Baitaere escribatua dago: Ez dezu tentatuco zure Jaun Jaincoa.

8. Berriz artu zuen deabruac, eta eraman zuen mendi chit altu batera: eta eracutsi cizquion munduco erreinu guztiac, eta beren aunditasuna,

9. Eta esan cion: Oyec guciac emango dizquizut, baldin eroriric adoratzen banazu.

10. Orduan esau cion Jesusec: Oaquit, Satanas: ceren escribatua ceagoc: Zure Jaun Jaincoa adoratuco dezu, eta bera bacarric serbituco dezu.

11. Orduan utzi cion deabruac, eta ona emen non aingueruac alderatu citzaizcon, eta serbitzen zuten.

12. Eta adituric Jesusec Juan cegoela presondeguian, alde eguin zuen Galileara:

13. Eta, utziric Nazaretco erria, etorri zan, eta bicitu izan zan Cafarnaum itsas

15

bazterrecoan, Zabulon, eta Neftalico muguetan :

14. Betea izan cedin esana izan zana Isaias Profetaren bitartez :

15. Zabulongo erria, eta Neftalico erria, itsasoraco bidea Jordangn beste aldetic, Galilea gentillena.

16. Illumpetan eseria cegoen erriac, icusi zuen argui aundi bat : eta eserita ceudenai eriotzaren itzaleco alderrian, arguia jayo citzayoten.

17. Ordutic asi zan Jesus predicatzen, eta esaten : Penitencia eguin zazute : ceren alderatu da ceruetaco erreinua.

18. Eta cebillela Jesus Galileaco itsasoaren bazterrean, icusi citnen bi anai, Simon, Pedro deritzana, eta Andres bere anaya, botatzen sarea itsasoan (ceren ciran arrantzaleac),

19. Eta esan cioten : Atozte nere oudoren, eta eguingo det zuec izan zaiteztela guizonen arrantzaleac.

20. Eta ayec bereala utziric sareac, jarraitu cioten.

21. Eta joanic aurrerago andic, icusi cituen beste bi anai, Santiago Zebedeorena, eta Juan

16

bere anaya, chalupan Zebedeo beren aitarequin : adobatzen beren sareac : eta deitu cituen.

22. Eta ayec bereala, utziric sareac eta aita, jarraitu cioten.

23. Eta inguratzen zuen Jesusec Galilea gucia, eracusten zuela beren sinagoguetan, eta predicatzen zuela erreinuco ebanjelioa, eta sendatzen zuela miñantze gucia, eta eritasun gucia errian.

24. Eta barreatu zan bere otspea Siria gucitican, eta ecarri cizquioten gaizqui ceuden guciac, eritasun, eta oñace batzuec arrapatuac, eta demonioac ceuzcatenac, eta alditsuac, eta elbarriac, eta sendatu cituen :

25. Eta jarraitu cioten jende talde ascoc Galileatic, eta Decapolistic, eta Jerusalemdic, eta Judeatic, eta Jordango beste aldetic.

BOSGARREN CAPITULUA.

ETA icusiric Jesusec jende taldeac, igo zan mendi batera, eta eseri ezquero, alderatu ciran bere gana bere icasleac,

2. Eta idiquiric bere aoa ematen cizquioten eracutsiac, esaten zuela :

17

3. Doatsuac gogoz beartsuac: cergatic berena da ceruetaco erreinua.

4. Doatsuac malsoac: cergatic berac mempetuco dute lurra.

5. Doatsuac negar eguiten dutenac: cergatic berac izango dira poztuac.

6. Doatsuac zucentasunaren gosea, eta egarria dutenac: cergatic berac izango dira asetuac.

7. Doatsuac erruquitsuac: cergatic berac erruquia irichico dute.

8. Doatsuac biotz garbicoac: cergatic berac icusico dute Jaungoicoa.

9. Doatsuac paquetsuac: cergatic Jaungoicoaren semeac izango dira deituac.

10. Doatsuac daramazquiteuac persecucioa zucentasuua gatic: ceren bereua da ceruetaco erreinua.

11. Doatsuac cerate madaricatzen zaituztenean, eta perseguitzen zaituztenean, eta esaten dutenean gaizqui gucia zuen coutra guezurra diotela, nere gatic:

12. Poztu eta gozatu zaitezte, ceren zuen saria ugaria da ceruetan: onelaxe ecen perseguitu cituzten profetac, zuec baño lenago izan ciranac.

18

13. Zuec cerate lurreco gatza. Eta baldin gatza guezatzen bada, ¿cerequin izango da gaçitua? Ez du onezquero ecertaraco balio, baicic izateco campora botatua, eta guizonac zapaldua.

14. Zuec cerate munduaren arguia. Ecin izan lezaque ezcutatua mendi gañean ipiñia dagoen erria.

15. Ez dute ere pizten arguia, eta ipintzen dute lacariaren azpian, baicic candeleruaren gañean, argui eguin dizayoten ecbean dauden guciai.

16. Onela argui eguin beza zuen arguiac guizonen aurrean: icusi ditzaten zuen eguite onac, eta gloria eman dizayoten zuen Aita, ceruetan dagoenari.

17. Ez dezazutela uste izan etorri naicela ascatzera leguea, edo profetac: ez naiz etorri ascatzera, baicic betetzera.

18. Cergatic eguiaz esaten dizutet; igaro artean cerua eta lurra, jota bat, edo tilde bat ez dala gucldituco leguetic, guciac eguiñac izan gabe.

19. Orregatic autsitzen duena aguindu chit chiqui oyetatican bat, eta eracusten diotena

19

ala guizonai, chit chiquia izango da deitua ceruetaco erreinuan: eguiten duena ordea, eta eracusten ducna, au aundia izango da deitua ceruetaco erreinuan.

20. Cergatic esaten dizutet, ez baldin bada ugariago zuen zucentasuna Escribaena eta Fariseoena baño, etcerate sartuco ceruetaco erreinuan.

21. Aditu cenduten esan citzayela anciñacoai: Ez dezu ilco, eta iltzen duena izango da esertoquico epayaren obendun.

22. Nic ordea esaten dizutet: bere anayarequin aserretzen dan gucia, izango da esertoquico epayaren obendun. Eta esaten diona bere anayari, raka: izango da biltzarrcaren obendun. Eta esaten diona, eroa: izango da suzco toquiaren obendun.

23. Baldin bada ari bacera esquefitzen zure emaitza aldarean, eta an oroituco baciñaque zure anayac duela cerbait zure gaitzean:

24. Utzi ezazu an zure emaitza aldarearen aurrean, eta zoaz lenago baqueac eguitera zure anayarequin: eta orduan etorriric esquefiico dezu zure emaitza.

v. 19. Esan nai du, ez dala sartuco ceruan. S. Agust.

20

25. Oben zaquizquio zure etsayari bereala berarequin bidean zauden bitartean: etsayac auciepallearen mendean ipiñi etzaitzan, eta auciepalleac borrerocaren mendean ipiñi etzaitzan: eta izan zaitean presondeguira bidaldua.

26. Eguiaz esaten dizut, etcera ateraco andic, itzuli dezazun arte azqueneco ardita.

27. Aditu cenduten esana izan citzayotela anciñacoai: Ez dezu araguizco becaturic eguingo bestereu emaztearequin.

28. Nic ordea esaten dizutet: beguiratzen dion guztiac andreari bera guticiatzeco, adulterioa eguin du bere biotzean.

29. Eta baldin zure escuico beguiac becaturaco bidea ematen badizu, atera ezazu, ta bota ezazu zure gandican: ceren obeago dezu galdu dedin zure gorputzaren zati bat, zure gorputz guztia botatua izatea baño lenago infernura.

30. Baldin bada zure escuico escuac beeaturaco bidea ematen badizn, ebaqui ezazu, eta bota ezazu zure gandic: ceren obeago dezu galdu zure gorputzeco zati bat, zure gorputz gucia joatea baño infernura.

v. 29. Au da, escuya eta beguia becin ganza bearrac. San Hilar. S. Jeron.

21

31. Baita ere esana izandu zan: Beren emaztea uzten duen edoceñec, eman bizayo banacatutacoaren aguiria.

32. Nic ordea esaten dizutet: Beren emaztea uzten duen guciac, ez izanic araguizco becatua gatic, erori erazotzen dio adulterioco becatuan: eta artzen ducnac utzia, eguiten du adulterioco becatua.

33. Berriz aditu cenduten esan citzayotela auciñacoai: Ez dezu guezurrarequin juramenturic eguingo: baicic itzulico dizquiotzu Jaunari zure juramentuac.

34. Nic ordea esaten dizutet, iñola ere ez dezazutela juramenturic eguin, ez cerua gatic, ceren dan Jaincoaren esertoquigoya:

35. Ezta ere lurra gatic, ceren dan bere oñen aulquia: ez Jerusalem gatic, ceren dan erregue aundiaren erria:

36. Ez ezazu ere juramenturic eguin zure burua gatic, ceren ecin eguin dezazuque ille bat zuria, edo beltza.

37. Baicic izan bedi zuen izqueta, bai, bai: ez, ez: cergatic oyec baño ugariago dana, gaiztotic dator.

v. 34. Premia gabe; baña bai eguiarequin, zucentasunarequin eta premiarequin. Jerem. c. 1. v. 2.

22

38. Aditu cenduten esan zala: Beguia beguia gatic, eta ortza ortza gatic.

39. Nic ordea esaten dizutet, gaizquia gaizquiaz ez ordaintzeco: baicic iñorc jotzen bazaitu zure escuico masallean, eman zayozu bestea ere.

40. Eta aucitan ipiñi nai zaituanari, eta zure tunica artu, utzi zayozu capa ere.

41. Eta baldin iñorc eraman nai bazaitu zamaturic milla pausutan, zoaz berarequin beste bi millatan.

42. Escatzeu dizuuari eman zayozu: eta nai duenari zuc ordañean ematea, etzaquizquio itzuli.

43. Aditu cenduten esana izan zala: Maitatuco dezu zure lagun urcoa, eta gorroto iduquico diozu zure etsayari.

44. Nic ordea esaten dizutet: Maitatu itzatzute zuen etsayac, on eguin zayozute gorroto dizutenai: eta erregutu ezazute perseguitzen zaituztenac gatic, eta guezur aundiac asmatzen dizquitzutenac gatic:

45. Izan zaitezten zuen Aita ceruetan dagoanaren semeac: ceñac irtenerazotzen dion bere eguzquia onen ta gaiztoen gañera: eta eguiten du euria onen eta gaiztoen gañera.

23

46. Ceren maitatzen baldin badituzute maite zaituztenac, ¿cer ordañ izango dezute? ¿ez al dute eguiten orobat publicanoac ere?

47. Eta agur eguiten badiezute zuen anayai bacarric, ¿cer gueyago eguiten dezute? ¿ez al dute orobat eguiten gentillac ere?

48. Izan zaitezte bada zuec on osoac, nola zuen Aita cerucoa ere dan on osoa.

SEIGARREN CAPITULUA.

BEGUIRA ezazute ez dezazutela eguin zueo zucentasuna guizonen aurrean, berac icusiac izan zaitezten: bestela ez dezute ordañic izango zuen Aita ceruetan dagoanagan.

2. Eguiten dezunean bada limosna, ez dezazula joeraci trompeta zure aurrean, ipocritac eguin oi duten becela sinagoguetan, eta carriquetan, guizonac onratuac izau ditezten: eguiaz esaten dizutet, artu zuten beren ordaña.

3. Eguiten dezunean bada zuc limosna, ez beza jaquin zure ezquerrac cer eguiten duen zure escuyac:

4. Izan dedin zure limosna ezcutuan, eta

24

zure Aita, ezcutuan icusten duenac, itzulico dizu.

5. Eta erregutzen dezutenean, etcerate izango ipocritac becela, ceintzuec amatzen duten erregutzea zutic sinagoguetan eta placetaco carriquetan, guizonac icusiac izan ditezteo: eguiaz esaten dizutet, artu zuten beren saria.

6. Baña zuc, erregutzen dezunean, sartu zaite zure guelan, eta atea ichiric, erregutu zayozu zure Aitari ezcutuan, ete zure Aita icusten duenac ezcutuan, itzulico dizu.

7. Eta erreguan ari ceratenean, ez dezazutela itz asco eguin gentillac becela. Uste dute cceu itz ascoan adituac izango dirala.

8. Etzatzaquieztela bada irudieraci ayei. Badaqui ecen zuen Aitac, ceren premia dezuten, berari zuec escatu baño lenago.

9. Onela bada zuec erregutuco dezute: Aita gurea, ceruetan zaudena: santutua izan bedi zure icena.

10. Betor gu gaua zure erreinua. Eguin bedi zure naya, nola ceruan, ala lurrean.

11. Gure ogui egunorocoa eman iguzu gaur.

12. Eta barca zazquiguzu gure zorrac, guc gure zordunai barcatzen dieztegun becela.

25

13. Eta ez dizaguzu utzi tentacioan erorten. Baicic gorde gaitzatzu gaitzetic. Amen.

14. Ceren baldin barcatzen badiozcatezute guizonai beren becatuac, zuei ere barcatuco dizquitzute zuen Aita cerucoac zuen obenac.

15. Baldin berriz ez badiozatzute barcatzen guizonai: zuei ere ez dizquizute barcatuco zuen Aitac zuen becatuac.

16. Barau ceratenean bada, etzaiteztela paratu ipocritac becela itunac. Ceren itsusitzeu dituzte beren arpeguiac, adierazteco guizouai barau diradela. Eguiaz esaten dizutet, artu zutela beren saria.

17. Zuc ordea barau ceranean, gantzutu ezazu zure burua, eta zure arpeguia garbitu ezazu,

18. Guizonac icusia izan etzaitecen barau cerala, baicic zure Aita, ezcutuan dagoauac: eta zure Aita, ezcutuan dacusanac, itzulico dizu.

19. Ez dezazutela nai gordallutu zuentzat gordalluac lurrean: non erdoyac, eta sitsac arrasatzen dituzten: eta non lapurrac desobiratzen, eta ostutzen dituzten.

20. Baicic gordallutu itzatzute zuentzat gordalluac ceruan: non ez erdoyac, ez sitsac

26

dituzten arrasatzen, eta non lapurrac ez dituzten desobiratzen, ta ostutzen.

21. Ceren non dan zure gordallua, an ere da zure biotza.

22. Zure gorputzaren arguiontzia da zure beguia. Baldin zure beguia balitza tolesgabea: zure gorputz gucia izaogo da arguia.

23. Baldin ordea zure beguia balitza gaiztoa: zure gorputz gucia izango da illuoa. Baldin bada zugan dan arguia, illuntasunac badirade: ¿illuntasunac berac ceñ aundiac izango dirade?

24. Iñore ecin ditzaque bi nagusi serbitu: ceren edo gorroto izango dio bati, eta bestea maitatuco du: edo bata irozoco du, eta bestea mespreciatu. Ecin ditzaquezute Jaungoicoa serbitu, eta aberastasunac.

25. Bera gatic esaten dizutet, etzaiteztela arazoz egon zuen animareutzat cer jango dezuten, etzuen gorputzarentzat cerequin jantziac izango ceraten. ¿Ez al da anima janaria baño gueyago: eta gorputza jantzia baño gueyago?

26. Beguira zayozute ceruco egaztiai, ez

v. 25.—Emen eragozten da ajola gueyeguia. 8. Tom.

27

dutela ereiten, ez itaitzen, ez biltzen gambaretan: eta zuen Aita cerucoac bazoatzen ditu. ¿Ez al cerate zuec ayec baño asco gueyago?

27. ¿Eta zuetatic norc pensatuaz luzatu dezaque bere gorputzaren tallua beso batean?

28. ¿Eta cergatic zaudete jantziaren ajola gueyeguirequin? Oroi zaitezte campoco lirioaquin nola acitzen diraden: ez dute lanic eguiten, ez iruteo.

29. Esaten dizutet berriz, ez da Salomon ere bere anditasun gucian izandu zala estalia oyetatic bat becela.

30. Baldin bada campoco belar gaur dana, eta biar labe sutura botatzen dana, Jaungoicoac onela jazten badu: ¿cembat gueyago zuec fede guichicoac?

31. Etzaiteztela bada larrituric egon, esaten dezutela: ¿Cer jango degu, edo cer edango degu, edo cerequin izango guera estaliac?

32. Ceren oyec guztiac gentillac billatzen dituzte. Badaqui ecen zuen Aitac oyen guciocn premian zaudetela.

33. Billatu itzatzute bada lenengo Jaungoicoaren erreinua eta bere zucentasuna: eta oyec guciac gañera emango zatzute.

28

34. Etzaiteztela bada arazotan egon biarco. Ceren biarco egunac iduquico du berarentzat arazoa. Asco zayo egunari bere nequea.

ZAZPIGARREN CAPITULUA.

EZ dezazutela nai juzgatu, izan etzaitezten juzgatuac.

2. Ceren juzgatzen dezuten juicioarequin, izango cerate juzgatuac: eta neurtzen dezuten neurriarequio, izango cerate berriz neurtuac.

3. ¿Cergatic bada icusten dezu lastoa zure anayaren beguian: eta abea zure beguian ez dezu icusten?

4. ¿Edo nola esaten diozu zure anayari: Utzi, botaco det lastoa zure beguitic: eta ona non abea dago zure beguian?

5. Ipocrita, bota ezac lenengo abea ire beguitic, eta orduan icusico dec botatzeco lastoa ire anayaren beguitic.

6. Ez dieztezutela nai eman santua chacurrai, ezta ere bialdu zuen perlac cherrien aurrean, usteric gabe osticopetu ez ditzaten beren oñaquio, eta itzuliric zuec ganontz puscatu etzaitzaten.

29

7. Escatu ezazute, eta emango zatzute: billatu ezazute, eta arquituco dezute: jo ezazute, eta idiquico zatzute.

8. Ceren escatzen duen guciac, artzen du: eta billatzen duenac, arquitzen du: eta jotzen duenari, idiquico zayo.

9. ¿Edo zuetatic ceña da guizona, ceñari escatuco baldin balioque bere semeac oguia, arria luzatuco lioquena?

10. ¿Edo baldin arraya eseatuco balio, suguea luzatuco al lioque?

11. Baldin bada zuec, gaiztoac ceratelaric, badaquitzute emaitza onac ematen zuen semeai: ¿cembat gueyago zuen Aita, ceruetan dagoanac, emango diezte oodasunac escatzen dieztenai?

12. Guizonac bada zuei eguitea nai dezuten gucia, zuec ere eguiezute ayei. Au da ecen leguea, eta profetac.

13. Sartu zaitezte ate estutican: ceren zabala da atea, eta lasaya bidea galmenera daramana, eta asco dirade emendic sartzen diranac.

14. ¡Ceñ estua, eta mearra dan, bicitzara daraman bidea! eta guchi dira arquitzen dntenac.

30

15. Gorde zaitezte profeta guezurrezcoetatic, datoztenetatic zuec gana ardien jantziaquin, barruan ordea dira otso amorratuac.

16. Beren frutuetatic ezagutuco dituzute. ¿Arantzetatic artzen bai al dituzte matsac, edo sasilarretatic picoac?

17. Onela arbola on guciac frutu onac eguiten ditu: arbola charrac ordea frutu charrac eguiten ditu.

18. Ecin dezaque arbola onac frutu charric eguin: ezta cre arbola charrac frutu onic eguin.

19. Frutu ona eguiten ez duen arbola gucia, izango da ebaquia, eta sutara botatua.

20. Beraz beren frutuetatic ezagutuco dituzute.

21. Jauna, Jauna, niri esaten didan guztia, ez da sartuco ceruetaco erreinuan: baicic nere Aita ceruetan dagoanareu borondatea eguiten duena, uraxe sartuco da ceruetaco erreinuan.

22. Ascoc esango didate egun artan: Jauna, Jauna, ¿zure icenean ez al guiñituen etorquizunac asmatu, eta zure icenean ez al guiñituen demonioac bota, eta zure icenean ez al guiñituen eguin asco mirari?

31

23. Eta orduan esango diet: Etzinduztedan beñere ezagutu: oaquite nere gandic gaiztaqueria eguiten dezutenac.

24. Nere itz oyec bada aditzen dituen guztia, eta eguiten dituena, berdindua izango da guizon jaquintsu bati, eguin zuenari bere echea arcaitzaren gañean,

25. Eta jatsi zan euria, eta etorri ciran ibayac, eta ibilli ciran aiceac, eta jo zuten aguitz eche ura, eta etzan erori: ceren eguiña cegoen arcaitzaren gañean.

26. Eta nere itz oyec aditutzen dituen gucia, eta eguiten ez ditueua, izango da berdindua guizon ero bati, ceñac eguin zuen bere echea ondarraren gañean:

27. Eta jatsi zan euria, eta etorri ciran ibayac, eta ibilli ciran aiceac, eta jo zuten aguitz eche ura, eta erori zan, eta izandu zan aundia bere ondamena.

28. Eta guertatu zan, bucaturic Jesusec itz oyec, arritzen ciran jende taldeac bere eracutsiaren gañean.

29. Ceren eracasten cien aguintea ceucanac becela, eta ez beren Escribac, eta Fariseoac becela.

32

ZORTZIGARREN CAPITULUA.

JATSI zanean bada menditic, jarraitu cioten jende ascoc:

2. Eta ona emen non sorayo bat cetorrela, eta adoratzen zuen, esaten ciola: Jauna, nai badezu, garbitu nazaquezu,

3. Eta luzaturic Jesusec escua uquitu cion, esaten ciola: Nai det, garbitua izan zaite. Eta bereala garbitua izandu zan bere sorayotasuna.

4. Eta esan cion Jesusec: Beguira, ez daguiozula iñori esan: baicic zoaz, aguertu zatzaquio Sacerdoteari, eta esqueñi ezazu Moisesec aguindu zuen emaitza, aguiritzat ayentzat.

5. Sartu zanean bada Cafarnaumen, alderatu zan bera gana Euntaria, erregutzen ciola,

6. Eta esaten ciola: Jauna, nere morroya datza echean elbarritua, eta gaizqui oñacetua da.

7. Eta esan cion Jesusec: Ni etorrico naiz, eta sendatuco det.

8. Eta erantzunic Euntariac, esan cion: Jauna, ez naiz diña sartu zaitecen nere

33

tellatupean : baña esazu bacarric itz bat, eta izango da sendatua nere morroya.

9. Cereo ni erc guizona naiz besteren mendean paratua, dauzcadaoa nere aguindupean soldaduac, eta esaten diot oni : Zoaz, eta badijoa : eta besteari : Atoz, eta badator : eta nere morroyari : Eguin zazu au, eta eguiten du.

10. Eta adituric Jesusec arritu zan, eta jarraitzen ciotenai esan cioten : Eguiaz esaten dizutet, ez det arquitu sinismen añ aundiric Israelen.

11. Eta esaten dizutet, asco sortaldetic, eta sartaldetic etorrico diradela, eta eserico diradela Abraham, eta Isaac, eta Jacobequin ceruetaco erreinuan :

12. Erreinuco semeac ordea izango dira botatuac campoco illuntasunetara : an izango da negarra, eta ortz carrascotza :

13. Eta esan cion Jesusec Euntariari : Zoaz, eta sinistu dezun becela, ala eguiña izan daquizula. Eta sendatua izan zan morroya ordu artan.

14. Eta etorriric Jesus Pedroren echera, icusi zuen bere amaguiarraba cetzala oyan, eta sucartua :

34

15. Eta uquitu cion bere escua, eta utzi cion sucarrac, eta jaiqui zan, eta serbitzen cituen.

16. Eta etorriric arratsa, esqueñi eizquioten asco demonioac ceuzcatenac : eta botatzen cituen espirituac itzarequin : eta gaizqui ceuden guciac sendatu cituen.

17. Betea izan cedin esana izan zana Isaias profetaren bitartez, ceñac esaten duen : Berac artu cituen gure eritasunac, eta eraman cituen gure miñantzeac.

18. Icusiric ordea Jesusec jende talde asco bere inguruan, aguindu zuen joateco itsas beste aldera.

19. Eta alderaturic Escriba bat, esan cion : Eracuslea, jarraitnco dizut, jnaten ceran edoceñ toqnitara.

20. Eta esaten dio Jesusec : Aceriac dituzte cobac, eta ceruco egaztiac cabiac : guizonaren Semeac ordea ez dn non burua etzin.

21. Eta bere icasleetatic batec esan cion : Jauna, utzi zadazu lenengo joaten, eta lurpetzen nere aita.

v. 20.—Escriba onec jarraitu nai cion Jesusi, munduco ondasun eta aguintaritzen icharopenarequin. S. Juan Crisost.

35

22. Jesusec ordea esan cion: Arreit niri, eta utzi ezazu illac lurpetu ditzaten beren illac.

23. Eta sartzen zala bera ontzichoan, jarraitu cioten bere icasleac:

24. Eta ooa emen non alaco ecaitz aundi bat eguiña izandu zan itsasoan, non ontzichoa zan bagac estalia, bera berriz lo cetzan.

25. Eta alderatu ciran bera gana bere icasleac, eta esnatu zuten, esaten ciotela: Jauna, gorde gaitzatzu, galduac guera.

26. Eta esaten diote Jesusec: ¿Ceren beldur cerate, fede guchicoac? Orduan jaiquiric, aguindu cioten aiceai eta itsasoari, eta guelditu zan esne esnetan.

27. Guizonac bada arritu ciran, esaten zutela: ¿Nolacoa da au, aiceac eta itsasoac obeditzen diotena?

28. Eta irago zanean Jesus itsasoaren beste aldera Jerasenoen errira, atera citzaizcon bidera bi demonioac ceuzcatenac, irtenic ohietatic, supertueguiac, alaco moduan non iñor ecin citequean igaro bide artatic.

29. Eta ona emeu non asi ciran ojuca, ciotela: ¿Cer guri, eta zuri, Jesus Jaungoicoaren Semea? ¿Etorri bai al cera onara dembora baño lenago gu oñacetzera?

30. Cegoen berriz ez urrutian berac gandic cherri ascoren talde bat jaten.

31. Demonioac bada otoizten cioten, esaten ciotela: Botatzen bagaituzu emendic, bialdu gaitzazu cherrien taldera.

32. Eta esan cioten: Zoazte. Eta berac ateraric joan ciran cherrietara, eta ona emen non arin ta itsumustuan joan zan talde gucia amiltequietatic itsasora: eta ill ciran uretan.

33. Cherri zayac berriz igues zuten: eta etorriric errira, adierazo cituzten guertaera guztiac, baita ere demonioac iduqui cituztenenac.

34. Eta ona emen non erri gucia irten citzayon bidera Jesusi, eta icusiric bera, erregutzen cioten, atera cedilla beren muguetatic.

36

BEDERATZIGARREN CAPITULUA.

ETA sarturic ontzicho batean, irago zan itsas beste aldera, eta etorri zan bere errira.

37

2. Eta ona emen non esqueñtzen cinten elbarridun bat cetzana oyan. Eta icusiric Jesusec ayen fedea, esan cion elbarridunari: Ichedon ezazu, semea, barcatzen zazquizu zure pecatuac.

3. Eta ona emen non Escribaetatic batzuec esao zuten beren barrenean: Au gaizqui esaca ari da Jaungoicoa gatic.

4. Eta icusiric Jesusec beren gogoracioac, esan cioten: ¿Cergatic dauzcazute gogoracio gaiztoac zuen biotzetan?

5. ¿Cer gauza da errazago esatea: Barcatzen zazquizu zure pecatuac: ala esatea: Jaiqui zaite, eta zabiltza?

6. Jaquin dezazuten bada, guizonaren Semeac daueala escubidea lurrean barcatzeco pecatuac, orduan esan cion elbarridunari: Jaiqui zaite, ar zazu zure oya, eta zoaz zure echera.

7. Eta jaiqui zan, eta joan zan bere echera.

8. Eta icusiric gendeac bildurtu ciran, eta alabatu zuten Jaincoa, eman ciotena alaco escua guizonai.

9. Eta igarotzen zala andican Jesus, icusi zuen guizon bat eserita alquian, Mateo ceritzana. Eta esan cion: Darraidazu. Eta jaiquiric, jarraitu cion.

38

10. Eta guertatu zan cegoala bera eseriric echean, ona emen non publicano eta becatari asco etorriric, ceuden eserita Jesusequin, eta bere icasleaquin.

11. Eta icusiric Fariseoac, esaten cieten bere icasleai: ¿Cergatic zuen Eracusleac jaten du publicanoaquin eta becatariaquin?

12. Eta Jesusec adituric, esan zuen: Ez dute sendatzallearen premiaric ongui daudenac, baicic gaizqui daudenac.

13. Joaten ceratela bada icasi ezazute cer dan: Erruquia nai det, eta ez esqueñia. Ceren ez nintzan etorri deitzera ouac, baicic becatariac.

14. Orduan alderatu ciradeo bera gana Juanen icasleac, esaten ciotela: ¿Cergatic guc, eta Fariseoac, barur eguiten degu sarri: zure icasleac ordea ez dute barur eguiten?

15. Eta esan cioten Jesusec: ¿Ezcomberriaren semeac negar eguin bai al ditzaquete ezcomberria beraquin dan bitarteau? Etorrico dirade ordea egunac qneoduco zayotenac ezcomberria: eta orduan barur eguingo dute.

39

16. Ez dio berriz iñoro paratzen antolaira oyal sendocoric jantzi zarrari: ceren quentzen dio bere betetasuna jantziari, eta charragoa eguiten da bere urratua.

17. Ez dute ere botatzen ardo berria zagui zarretan; bestela urratzen dira zaguiac, eta ardoa isurtzen da, eta zaguiac galtzen dirade. Baicic ardo berria zagui berrietan botatzen dute, eta biac diraute.

18. Oyec esaten cieztela berac, ona emen non aguintari bat alderatu citzayon, eta adoratzen zuen, esaten ciola: Jauna, nere alaba arestian ill da: baña atoz, ipiñi ezazu zure escua beraren gañean, eta bicico da.

19. Eta jaiquiric Jesus, jarraitzen cion, baita bere icasleac ere.

20. Eta ona emen non emacume bat, odol jarioaren gaitzarequin cegoena amahi urtean, alderatu citzayon atzetican, eta uquitu cion bere jantziaren ertzari.

21. Ceren esaten zuen bere artean: Uquitzen badiot bere jantziari bacarric, izango naiz sendatua.

v. 16.—Irudi onequin adirazten diote Jesusec bere icasleai, etzirala oraindican, ceruco bidean aurreratuac daudenen iracatsi eta eguiteen diñac. S. Juan Crisost.

40

22. Eta Jesusec itzuliric, eta icusiric, esan cion: Ichedon ezazu, alaba, zure fedeac sendatu zaitu. Eta sendatua izan zan emacumea ordu artatic.

23. Eta etorri zanean Jesus aguintariaren echera, eta icusi cituenean chillibitulariac eta jende talde nasia osca, esaten cioten:

24. Alde ezazute: ez da ecen illa nescacha, baicic lo datza. Eta burlatzen citzayozcan.

25. Eta izan zanean botatua jende taldea, sartu zan: eta eldu cion bere escutic. Eta jaiqui zan nescacha.

26. Eta barreatu zan ospe au inguru guci artatic.

27. Eta igarotzen zala andic Jesus, jarraitu cioten bi itsuc ojuca, eta esaten ciotela: Daviden semea, erruqui gaitzazu.

28. Etorri zanean bada echera, alderatu citzayozcan itsuac. Eta esaten die Jesusec: ¿Sinisten dezute au eguin dizazutequedala? Berac esaten diote: Bai, Jauna.

29. Orduan uquitu ciezten beren beguiai, esaten ciela: Eguiña izan daquizutela zuen fedearen araura.

v. 24.—Au da, Jesusec piztu lezaqueala, lo datzan bat esnatzen dan erraztasunarequin. S. Juan Crisost.

41

30. Eta idiquiac izan ciraden beren beguiac: eta cematu cituen Jesusec, esaten ciotela: Beguira ez dezala iñore jaquin.

31. Berac berriz irteten cirala, barreatu zuten inguru guci artan.

32. Ateraric berriz itsuac, ona emen non esqueñi cioten guizon bat mutua, demonioa ceucana.

33. Eta botaric demonioa, itz eguin zuen mutuac, eta arritu ciraden jende taldeac, ciotela: Egundaño ez da aguertu onelacoric Israelen.

34. Fariseoac ordea esaten zuten: Demonioen aguintariagan botatzen ditu demonioac.

35. Eta inguratzen citnen Jesusec erri, eta ballera guciac, eracasten beren sinagoguetan, eta predicatzen erreinuco ebanjelioa, eta sendatzen gaitz gucia, eta eritasun gucia.

36. Icusiric ordea jende taldeac, erruquitu zan beraquin: ceren ceuden necatuac, eta etzinac artzairic ez duten ardiac becela.

37. Orduan esaten die beren icasleai: Uzta eguiaz asco, languilleac ordea guchi.

38. Erregutu zayozute bada uztaren Jaunari, bialdu ditzala languilleac bere uztara.

42

AMARGARREN CAPITULUA.

ETA deituric bere amabi icasleac, eman cioten escubidea espiritu ciquiñen gañean, botatzeco berac, eta sendatzeco miñantze gucia, eta eritasun gucia.

2. Eta amabi Apostoluen icenac dira oyec. Lembicicoarena, Simon Pedro deritzana, eta Andres onen anaya,

3. Santiago Zebedeorena, eta Juan onen anaya, Felipe, eta Bartolome, Tomas, eta Mateo publicanoa, Santiago Alfeorena, eta Tadeo,

4. Simon Canantarra, eta Judas Iscariote, ceñac saldu ere zueo.

5. Amabi nyec bialdu cituen Jesusec, aguintzen ciotela, esanaz: Jentillen bidera etzaiteztela joan, eta Samariatarren errietan etzaiteztela sartu:

6. Baicic aurrena zoazte Israelco echeco ardi, galdu ciradenetara.

7. Joaten ceratela bada predicatu ezazute, esaten diotezutela: Alderatu dala ceruetaco erreinua.

8. Eriac sendatu itzatzute, illac piztu itza-

43

tzute, leguenardunac garbitu itzatzute, demonioac bota itzatzute: doan artu cenduten, doan eman ezazute.

9. Ez dezazutela iduqui zuen mempean urreric, ez cillarric, ez diruric zuen ciscuetan:

10. Ez zacutoric bidean, ez bi jantziric, ez oñetacoric, ez bordoiric: ceren languillea bere janariaren diña da.

11. Eta edoceñ erritan, edo balleratan sartzen ceratenean, galdetu ezazute, ceñ dan diña artan: eta an egon zaitezte atera zaitezten bitartean.

12. Sartzen ceratenean bada echean, agur eguin zayozute, esaten dezutela: Paquea eche onetan.

13. Eta eguiaz balitza eche ura diña, etorrico da zuen paquea beraren gañera: ez balitza ordea diña, zuen paquea itzulico da zuec gana.

14. Eta zuec artzen etzaituzten guciac, eta zuen itzac aditzen ez dituenac: irteten ceratela campora echetic, edo erritic, astindu ezazute autsa zuen oñetatic.

15. Eguiaz esaten dizutet: Igarocarriago izango citzayo Sodomaco, eta Gomorraco

44

erriari azquen juicioco egunean, erri urari baño.

16. Ona non nic bialtzen zaituztedan ardiac otsoen erdira becela. Izan zaitezte bada contuzcoac sugueac becela, eta tolesgabeac usoac becela.

17. Gorde zaitezte ordea guizonetatic. Ceren ipiñico zaituzte beren erabaquilecuetan, eta beren sinagoguetan azotatuac izango cerate:

18. Eta eraentzalleac gana, eta erregueac gana eramanac izango cerate nere gatic, emateco aguiria ayei, eta jentillai.

19. Eramaten zaituztenean bada, ez ezazute pensatu nola, edo cer itz eguingo dezuten: emango zatzute ecen ordu artan, cer itz eguingo dezuten.

20. Ceren etzerate zuec itz eguiten dezutenac, baicic zuen Aitaren Espiritua, itz eguiten duena zuecgan.

21. Eramango du ordea anayac anaya eriotzera, eta aitac semea: eta jaiquico dirade semeac gurasoen contra, eta illeracico dituzte:

22. Eta guciac izango cerate gorrotatuac nere icena gatic. Irauten duena ordea azqueneraño, au salbatuco da.

45

23. Perseguituac ceratenean bada erri onetan, igues zazute beste batera. Eguiaz esaten dizutet, ez dituzutela onduco Israelco erriac, datorren arteraño guizonaren Semea.

24. Ez da icaslea eracuslea baño gueyago, ez eta ere morroya bere nagusia baño gueyago.

25. Asco du icasleac izatea bere eracuslea becela: eta morroyac bere nagusia becela. Baldin echeco nagusiari Beelzebub deitu bacioteu: ¿ cembat gueyago bere echecoai?

26. Etzaitezte bada beren beldur izan: ceren ez da gauza ezcutaturic, aguertua izango ez danic: ez isillic, jaquingo ez danic.

27. Esaten dizutedana illumpetan, esan ezazute arguitan: eta belarrian aditzen dezutena, predicatu ezazute tellatueu gañean.

28. Eta gorputza iltzen dutenen, baña anima ecin ill dezaquetenen bildur etzaitezte izau: baicic obequi eta anima, eta gorputza infernura bota ditzaqueanaren bildur izan zaitezte.

29. ¿ Bi echechori ez al dirade saltzen ardit bitan: eta oyetatic bat ez da erorico lurraren gañean zuen aita gabe?

30. Baita ere zuen buruco ille guciac daude cembatetuac.

46

31. Etzaitezte bada bildur izan: echechori asco baño obeagoac cerate zuec.

32. Guizonen aurrean bada aitortzeo nauen gucia, nic ere aitortuco det nere aita, ceruetan dagoanaren aurrean:

33. Ni ucatzen nauena berriz guizonen aurrean, ucatuco det ere nic nere aita, ceruetan dagoanaren aurrean.

34. Ez dezazutela uste izan etorri nintzala bialtzera paquea lurrera: ez nintzan etorri bialtzera paquea, baicic ezpata.

35. Ceren etorri nintzan banacatzera guizona bere aitaren contra, eta alaba bere amaren contra, eta erraña bere amaguiarrabaren contra:

36. Eta guizonaren etsayac, bere echecoac.

37. Maitatzen duena aita edo ama ni baño gueyago, ez da nere diña: eta maitatzen duena semea edo alaba ni baño gueyago, ez da nere diña.

38. Eta artzen ez duena bere gurutzea, eta ez darraidana, ez da nere diña.

39. Arquitzen duenac bere anima, galduco

v. 34.—Espata—iltzeco norberaren amorio eragabea, mundu guistoa, eta areguia. S. Juan Crisost.

47

du: eta galtzen duenac bere anima nere gatic, arquituco du.

40. Zuec artzen zaituztenac, ni artzen naute: eta ni artzen nauenac, artzen du, ni bialdn ninduena.

41. Artzen duenac profeta profetaren icenean, profetaren saria artuco du: eta artzen duenac justua justuaren icenean, justuaren saria artuco dn.

42. Eta ematen dion edoceñec edaria chiquien nyetatic bati edontzi bete ur otz bacarric icaslearen icenean: eguiaz esaten dizutet, ez du galduco bere saria.

AMAICAIGARREN CAPITULUA.

ETA guertatu zan, bucaturic Jesusec, aguintzen cintela bere amabi icasleai, irago zan andic eracusteco, eta predicatzeco beren errietan.

2. Juanec ordea adituric presondeguian Cristoren eguiteac, bialduric bere icasleetatic bi,

3. Esan cion: ¿Zu cera etorrico dana, ala besteren bat ichedotzen degu?

48

4. Eta erantzunaz Jesusec esan cioten: Joaten ceratela, adierazo zayozute Joani aditu, eta icusi dituzutenac.

5. Itsuac dacuste, errenac dabiltza, leguenardunac dirade garbituac, gorrac aditzen dute, illac pizten dirade, eta beartsuai adierazotzen zayote ebanjelioa:

6. Eta zorionecoa da gaitz bidea artzen ez duena neregan.

7. Joaten ciradela bada berac, asi zan Jesus esaten jende taldeai Juan gatic: ¿Cer icustera atera cerate eremura? ¿cañabera aiceac darabillana?

8. ¿Baña cer icustera atera cerate? ¿guizon soñeco biguñaquin jantzia? Eguiaz soñeco biguñaquin jazten diranac, erregueen echeetan daude.

9. ¿Baña cer icustera atera cerate? ¿prnfeta al? Baita esaten dizutet, profeta baño gueyago ere.

10. Au da ecen ceña gatic escribatua dan: Ona emen non nic bialtzen dedan nere ainguerua zure arpeguiaren aurretic, ceñac prestatuco duen zure bidea zure aurrean.

11. Eguiaz esaten dizutet, ez da jaiqui

49

emacume gandican guizasemeric Juan Bautista baño andiagoric: baña ceruetaco erreinuan chiquiena dana, andiagoa da ura baño.

12. Juan Bautistaren egunetatic berriz orain arteraño, ceruetaco erreinuari indarra eguin bear zayo, eta errutsuac arrapatzen dute.

13. Ceren profeta guciac, eta legueac Juaneraño etorquizunen berriac eman cituzten:

14. Eta nai badezute artu, bera da Elias, etorrico dana.

15. Dituenac belarriac aditzeco, adi beza.

16. ¿Ceñaren antzecoa dala berriz usteco det guizon casta au? Da plazan eseriric dauden mutillen antzecoa: ceñac deadar eguiñic beren quidecoai

17. Esaten diete: Cantatu dizugu, eta ez dezute dantzatu: negar eguin degu, eta etzerate adiacatu.

18. Ceren etorri zan Juan etzuela jaten, ez edaten, eta esaten dute: Demonina dauca.

19. Etorri zan guizonaren Semea jaten, eta edaten zuela, eta esaten dute: Ona emen guizon tripazaya, eta ardo edalea, publicanoen,

50

eta becatarien adisquidea. Eta jaquinduria izan da bereo semeac eguiztatua.

20. Orduan asi zan arpeguian ematen, beren mirari asco eguiñac izandu ciran erriai, etzutelaco eguin penitenciaric.

21. ¡Ay zure zorigaiztocoa, Corozain! ¡Ay zure zorigaiztocoa, Betsaida! ceren, baldin Tiron, eta Sidonen eguiñac izan balirade, zuecgan eguiñac izandu diran mirariac, aspaldi zurdatzean, eta autsean penitencia eguingo zuten.

22. Bera gatic esaten dizutet: Tironi, eta Sidoni biguñago izango zayotela azquen juicioco egunean, zuei baño.

23. ¿Eta zu, Cafarnaum, cerurаño jasoa izango bai al cera? infernuraño jatsico cera: ceren, baldin Sodoman eguiñac izan balira, zugan eguiñac izan diran mirariac, bearbada iraungo zuten egun onetaraño.

24. Bera gatic esaten dizutet, Sodomaco erriari biguñago izango citzayola azquen juicioco egunean, zuri baño.

25. Dembora artan erantzunic Jesusec esan zuen: Esquerrac ematen dizquizut, Aita, ceruco eta lurreco Jauna, ezcutatu dizquiote-

51

zulaco oyec jaquintsuai eta beguiratuai, eta aguertu dizquiotezulaco chiquichoai.

26. Ala Aita: bada onela oniritzi zan zure beguietan.

27. Gauza guciac izandu zaizquit nere Aitac emanac. Eta iñorc ez du ezagutzen Semea, baicic Aitac: ez du erc iñorc ezagutzen Aita, baicic Semeac, eta Semeac aguertu nai dionac.

28. Etorri zaitezte nere gana, necatnac, eta zamatuac zaudeten guciac, eta nic gozatuco zaituztet.

29. Erabilli ezazute nere uztarria zuen gañean, eta icasi ezazute nere gandic, ce beraa naizan, eta biotz umilla: eta arquituco dezute errepausa zuen animentzat.

30. Ceren nere uztarria leuna da, eta nere zama ariña.

AMABIGARREN CAPITULUA.

DEMBORA artao joan zan Jesus gari artetic larumbatean: bere icasleac berriz gose izanic asi ciran ebaquitzeu galburuac, eta jaten.

52

2. Eta Fariseoac icusiric esan cioten: Beguira ezazu nola zure icasleac eguiten duten cillegui ez dana eguitea larumbatetan.

3. Eta berac esan cien: ¿Ez al dezute iracurri cer eguin zuen Davidec, gose izan zanean, eta berarequin ceudenac?

4. ¿Nola sartu zan Jaungoicoaren echean, eta jan cituen ogui esqueñiac, ceñac jatea etzitzayon cillegui, ez berarequin ceudenai, baicic hacarric apaizai?

5. ¿Edo ez deznte iracurri leguean, larumbatetan apaizac elizan larumbata ausitzen dutela, eta becatu gabe daudela?

6. Esaten dizutet bada, eliza baño andiagoa da emen.

7. Baldin bada bacenequizute, cer dan: Erruquia nai det, eta ez esqueñia: etziñituzten eguudaño condenatuco obenic gabeac:

8. Jauna eceu da guizonaren Semea, larumbatareoa ere.

9. Eta andic igaroric, etorri zan beren sinagogara.

10. Eta ona emen guizon bat escu legortua zuena, eta galdetzen cioten, esaten ciotela: ¿Ote da cillegui larumbatetan sendatzea? bera salatzea gatic.

53

11. Berac berriz esan cien: ¿Cein izango da zuetatic guizona, dnena ardi bat, eta erorico balitza au larumbatetan znlo batera, ez al dio elduco, eta ez al du ateraco?

12. ¿Cembat gueyago obea ez da guizona ardia baño? Ala bada cillegui da larumbatetan on eguitea.

13. Orduan esan cion guizonari: Luzatu ezazu zure escua. Eta luzatu zuen, eta izandu citzayon jarria sendatuta bestea becela.

14. Irteten zutela ordea Fariseoac, batzarrea eguin zuten bere contra, nola galduco ote zuten.

15. Jesusec ordea jaquiñic alde eguin zuen andic, eta jarraitu cioten ascoc, eta sendatu cituen oyec guciac:

16. Eta aguindu cioten etzezatela aguertu.

17. Betea izan cedin esana izan zana Isaias profetaren bitartez, ceñac esaten duen:

18. Ona emen nere serbitzari, autatu nuena, nere maitea, ceñagan ongui gozatu zan nere anima. Ipiñico det nere espiritua bere gañeao, eta zucentasuna gentillai adierazoco diote.

19. Ez da leyatuco, ez du ere ojuric

54

eguingo, ez ere iñorc adituco carriquetan bere boza:

20. Cañabera quirricatua ez du ausico, eta quea darian mecha ez du itzalico, alic eta bota dezan bitartean garaitzera zucentasuna:

21. Eta bere icenean jeudcac ichedongo dute.

22. Orduao esqueñia izan citzayon demonioa ceucan bat, itsna eta mutua, eta sendatu zuen alaco modutao non itz eguiten zuen, eta icusten zuen.

23. Eta cordegabetzen ciran jende talde guciac, eta esaten zuten: ¿Daviden Semea bai al da?

24. Fariseoac ordea adituric, esan zuten: Onec ez ditu botatzen demonioac Beelzebub demonioen aguintariagan baicic.

25. Jesusec berriz jaquiñic beren gogoracioac, esan cioten: Bere contra berecitutaco erreinu gucia, izango da arrasatua: eta bere contra berecitutaco erri, edo eche guciac, ez du iraungo.

26. Eta baldin satanasec satanas botatzen badu, bere contra berecituta dago: ¿nola hada iranngo du bere errcinuac?

55

27. Eta baldin nic Beelzebubgan botatzen baditut demonioac, ¿ zuen semeac ceñegan botatzen dituzte? Argatic berac zuen juzgatzalleac izango dira.

28. Baldin bada nic Jaungoicoaren espirituan botatzen baditut demonioac, allegatu bide da zuec gana Jaincoaren erreinua.

29. ¿ Edo nola norbait sartu diteque sendoaren echean, eta dituenac arrapatu, baldin aurrena lotzen ez badu sendoa? eta orduan bere echeco gauzac arrapatuco diozca.

30. Nereqnin ez dana, nere contra da: eta nerequin biltzen ari ez dana, barreatzen ari da.

31. Bera gatic esaten dizutet: Becatu eta ernegu guciac barcatuac izango zazquiote guizonai, baña espirituaren ernegua ez da izango barcatua.

32. Eta edoceñec esaten badu itza guizonaren Semearen contra, barcatua izango zayo: baña esaten duenari espiritu santuaren contra, etzayo barcatuco ez mundu onetan. ez guerocoan.

v. 31.—Ez da izango barcatua.—Esan nai du, nequezago barcatua izango dala, ceren ez dago pecaturic barcatua izan ecin lezaqueanic. S. Juan Crisost.

56

33. Edo eguin ezazute arbola ona, eta bere frutua ona: edo eguin ezazute arbola gaiztoa, eta bere frutua gaiztoa: ceren frututic arbola da ezagutua.

34. Bibora arrazac, ¿ nola ditzaquezute itz onac esan, izanic zuec gaiztoac? ceren aoac itz eguiten du biotzaren ugaritasnnetic.

35. Guizon onac gordallu onetic ateratzen ditu gauza onac: eta guizon gaiztoac gordallu gaiztotic ateratzen ditu gauza gaiztoac.

36. Esaten dizutet bada, guizonac emango dutela azquen juicioco egunean, esaten dituzten itz alper guciaren contua.

37. Zure itzetatic ecen izango cera ontzat emana, eta zure itzetatic izango cera condenatua.

38. Orduan erantznn cioten Escribaetatic eta Fariseoetatic batznec, esaten ciotela: Eracuslea, nai degu zu gandic siñalea icusi.

39. Berac erantzunaz esan cien: Guizon casta gaizto, ta naslari onec siñalca billatzen du: eta siñaleric etzayo emana izango, Jonas profetaren siñalea baicic.

40. Ceren nola egon zan Jonas balearen sabelean iru eguuean, eta iru gauean, ala

57

egongo da guizonaren semea lurraren biotzean iru egunean, eta iru gauean.

41. Ninibetar guizonac jaiquico dira juicioan guizon casta onequin, eta condenatuco dute: ceren penitencia eguin zuten Jonasen predicacioan. Eta ona Jonas baño gueyago emen.

42. Egn aldeco erreguiña jaiquico da juicioan guizon casta onequin, eta condenatuco dute: ceren etorri zan lurraren azquen muguetatic aditzera Salomonen jaqninduria, eta ona Salomon baño gueyago emen.

43. Ateratzen danean bada espiritu ciquiña guizona gandic, dabil toqui legnrretatic, billatzen errepansa, eta ez du arquitzen.

44. Ordnan esaten du: Itzulico naiz nere echera, nondie atera nintzan. Eta etorriric arquitzen du ustua, erratzaquin garbitua, eta apaindua.

45. Ordnan dijoa, eta artzen ditu berarequin beste zazpi espiritu bera baño gaiztoagoac, eta sarturic bici dira an: eta eguiñac dirade guizon aren azquenac lengoac baño gaiztoagoac. Ala guertatuco zayo guizon arraza chit gaizto oni ere.

58

46. Oraindican izquetan ari zala bera jende taldeai, ona emen non bere ama eta anayac ceuden campoan, nai ciotela itz eguin.

47. Eta esan cion batec: Ona emen non zure ama, eta zure anayac campoan daude, billatzen zaituztela.

48. Eta berac erantzunaz itz eguiten cionari, esan cion: ¿Cein da nere ama, eta ceñec dirade nere anayac?

49. Eta luzaturic escua bere icasleac gana, esan zuen: Ona emen nere ama, eta nere anayac.

50. Ceren nere Aita, ceruetan dagoanaren borondatea eguiten duen edocein: orixe nere anaya, eta arreba, eta ama da.

AMAIRUGARREN CAPITULUA.

EGUN artan ateraric Jesus echetic, cegoen eserita itsas bazterrean.

2. Eta bildu ciran bera gana jende talde

v. 46.—Anayac—Au da, senide urcoac. Calm.

59

asco, alaco modutan ecic igoric ontzichora eseri zan: eta jende talde gucia cegoen itsas bazterrean,

3. Eta esan cizquioten gauza asco iduripenetan, esaten zuela: Ona emen non atera zan ereintzen duena, ereintzera.

4. Eta ereintzen ari dala, batzuec erori ciran bidearen ondoan, eta etorri ciraden ceruco egaztiac, eta jan cituzten.

5. Beste batzuec berriz erori ciran arritzetan, non etzeucaten lur asco: eta bereala erne ciran, etzutelaco lur lodiric.

6. Baña ateraric eguzquia berntu ciran: eta nola etzuten sustrairic, legortu ciran.

7. Beste batzuec berriz erori ciran arantzetan: eta aci ciran arantzac, eta ito cituzten.

8. Beste batzuec berriz erori ciran lur onean: eta cmaten zuten frutua, batac eunca, besteac irurogueica, besteac ogueitamarca.

9. Dauzcanac belarriac aditzeco, adi beza.

10. Eta alderaturic icasleac esan cioten: ¿Cergatic iduripenetan itz eguiten diotezu?

11. Berac erantzunaz, esan cien: Ceren zuei emana izan zazute ezagutzea ceruetaco

60

erreinuco ezcutapenac: ayei ordea etzayote emana izan.

12. Ceren duenari, emango zayo, eta izango du ugariago: ez duenari ordea, duena ere quenduco zayo.

13. Orregatic irudipenetan itz eguiten diotet: ceren dacustela, ez dute icusten, eta entzuten dutela, ez dute entzuten, ez aditzen.

14. Eta betetzen da beracgan Isaiasen profecia, esaten duenarena: Belarriarequin entzungo dezute, eta ez dezute adituco: eta icusten dezutela icusico dezute, eta ez dezute icusico.

15. Guicendu da ecen erri onen biotza, eta belarriaquin astunquiro aditu zuten, eta beren beguiac ichi cituzten: ala bearrez icusi ez dezaten beguietatic, eta entzun ez dezaten belarrietatic, eta biotzez ez dezaten aditu, eta itzuli ez ditecen, eta sendatu ez ditzadan.

16. Zuen beguiac urdea doatsuac, icusten dutelaco, eta zuen belarriac aditzen dutelaco.

17. Ceren eguiaz esaten dizutet, asco profetac, eta santuc nai izan cituztela icusi zuec

v. 12.—Asco artu eta ongui erantsuten dutenai, ugaritu cizte: guchi artu eta gaizqui erantzuten dutenai ordea, urritu. S. Agust.

61

icusten dituzutenac, eta etzituzten icusi: eta aditu zuec aditzen dituzutenac, eta etzituzten aditu.

18. Zuec bada aditu ezazute ereinlariaren irudipena.

19. Erreinuco itza entzun, eta aditzen ez dueu gucia, dator gaiztoa, eta arrapatzen du bere biotzean ereña izandu zana: au da bidearen ondoan ereña izandu zana.

20. Arri artean ordea ereña izan zana, au da, aditzen duena itza, eta bereala pozarequin artzen du:

21. Ez dauca ordea beragan sustrairic, baicic da iraute guchicoa. Izanic berriz eguiña naigabea eta persecucioa itza gatic, bereala artzen du gaitz bidea.

22. Arantz artean ereña izandu zana berriz, au da, aditzen duena itza, eta mundu onetaco ajolac, eta aberastasunen lilluramenduac itotzen du, eta frutu gabea eguiten da.

23. Lur onean ereña izandu zana berriz, au da entzuten duena itza, eta aditzen duena, eta frutua dacarrena, eta eguiten du batac eguiaz eunca, besteac ordea irurogueica, besteac berriz ogueitamarca.

62

24. Beste iduripen bat adierazo cioten, esaten ciotela: Ceruetaco erreinua da eguiña guizon baten antzecoa, ceñac erein zuen aci ona bere soroan.

25. Eta guizonac lotan ceudela, etorri zan beren etsaya, eta ereiu zuen gañetic lolloa gariaren erdian, eta joan zan.

26. Aci zanean bada belarra, eta eguiñic frutua, orduan aguertu zan lolloa ere.

27. Alderaturic bada echeco jaunaren morroyac, esan cioten: Jauna, ¿ez al cenduen ereñ aci ona zure soroan? ¿Nondic bada du lolloa?

28. Eta esan cien: Guizon etsayac au eguin du. Morroyac berriz esan cioten: ¿Nai dezu goacen, eta bildu dezagun?

29. Eta esan cien: Ez: ustecabean biltzen dezutela lolloa, atera ez dezazuten berequin batean garia ere.

30. Utzi zayezute biai acitzen uztaraño eta uztaroan esango diet galebaquitzalleai: Bildu ezazute lenengo lolloa, eta lotu ezazute escumenetan erretzeco, garia ordea bildu ezazute nere aletoquiraco.

31. Beste iduripen bat adierazo cieu

63

esaten ciela: Ceruetaco erreinua da mostaza alearen antzecoa, cein arturic guizonac erein zuen bere soroan:

32. Cein eguiaz da aci gucietatic chiquiena: acitzen danean berriz, da barazqui gucien artean aundiena, eta eguiña izaten da arbola, alaco eratan non ceruco egaztiac etortzen dirade, eta eguiten dituzte cabiac bere adarretan.

33. Beste irudipen bat esan cien. Ceruetaco erreinua da legamiaren antzecoa, cein arturic emacumeac ezcutatzen duen iru neurri iriñetan, alic eta gucia legamiatua dan bitartean.

34. Oyec guciac esan ciezten Jesusec irudipenetan jende taldeai: eta irudipenetan baicic etzien itz eguiten:

35. Betca izan cedin esana izan zana profetaren bitartez, ceñac esaten ducn: Idiquico det irudipenetan nere aoa, adierazoco ditut ezcutatuac munduaren asieratic.

36. Orduan, utziric jende taldeac, etorri zan echera: eta alderatu citzaizcon bere icasleac, esaten ciotela: Azaldu diezaguzu soroco lolloaren irudipena.

64

37. Berac erantzunaz esan cioten: Aci ona ereintzen duena, da guizonaren Semea.

38. Soroa berriz, da mundua. Aci ona berriz, oyec dira erreinuco semeac. Eta lolloa, seme gaiztoac dira.

39. Eta berac erein cituen etsaya, da deabrua. Ebaquitzeco dembora berriz, munduaren bucaera da: ebaquitzalleac berriz, aingueruac dirade.

40. Nola bada bildua dan lolloa, eta sutan errea: ala izango da munduaren bucaeran.

41. Bialduen ditu guizonaren Semeac bere aingueruac, eta bilduco dituzte bere erreinutic gaitz bide guciac, eta gaiztaqueria eguiten dutenac:

42. Eta bialduco dituzte suzco labera. An izango da negarra, eta ortz carrascotsa.

43. Orduan justuac distiatuco dute eguzquiac becela beren Aitaren erreinuan. Belarriac dituenac aditzeco, adi beza.

44. Ceruetaco erreinua da campoan ezcutatua dan gordalluaren antzecoa: cein arquitzen duen guizonac, gordetzen du, eta uraren pozarequin badijoa, eta saltzen ditu dauzcan gauza guztiac, eta erosten du campo ura.

65

45. Berriz cerucetaco erreinua da guizon mercatari, perla onac billatzen dituenaren antzecoa.

46. Arquituric berriz perla balio aundico bat joan zan, eta saldu cituen ceuzcan gauza guztiac, eta erosi zuen.

47. Berriz cerucetaco erreinua da itsasoan botataco sare, eta arrai mota guztiac biltzen dituenaren antzecoa.

48. Cein, betea izan ezquero, ateraric, eta itsas bazterrean eseriric, autatu cituzten onac ontzietaraco, charrac ordea campora bialdu cituzten.

49. Onela izango da munduaren bucaeran: ateraco dira aingueruac, eta berecituco dituzte gaiztoac onen erditican,

50. Eta bialduco dituzte suzco labera: an izango da negarra, eta ortz carrascotsa.

51. ¿Aditu dituzute oyec guztiac? Esaten diote: Bai.

52. Esaten die: Orregatic cerucetaco erreinuan escriba jaquintsu guztia, da guizon echeco nagusi, bere gordallutic berriac eta zarrac ateratzen dituenaren antzecoa.

53. Eta guertatu zan, bucaturic Jesusec iduripen oyec, joan zan andic.

66

54. Eta etorriric bere errira, ematen cizquioten eracutsiac beren sinagoguetan, alaco modutan non arritzen ciran, eta esaten zuten: ¿Nondic oni jaquinduria au, eta miriariac?

55. ¿Ez al da au arotzaren semea? Bere amari ez al deritza Maria, eta bere anayac, Santiago, eta Jose, eta Simon, eta Judas?

56. ¿Eta bere arrebac, ez al daude guztiac gure artean? ¿Nondic bada oni gauza guzti oyec?

57. Eta gaitz bidea artzen zuten beragan. Jesusec berriz esan cioten: Ez da profetaric onratua ez danic, baicic bere errian, eta bere echean.

68. Eta etzitueu eguin an asco mirari, beren siniagogortasuna gatic.

AMALAUGARREN CAPITULUA.

DEMBORA artan aditu zuen Herodes Tetrarcac Jesusen ospea:

2. Eta esan cioten bere morroyai: Au da Joan Bautista: bera piztu zan illen artetic,

67

eta orregatic birtuteac ari dirade lanean beragan.

3. Herodesec ecen arrapatu zuen Juan, eta lotu zuen: eta ipiñi zuen presoindeguian, Herodias bere anayareu emaztea gatic.

4. Ceren esaten cion Juanec: Ez dezu cillegui ura iduquitzea.

5. Eta il nairic Juan, erriaren beldur zan: ceren profeta becela ceucaten.

6. Herodesen jayotz egunean bada dantzatu zan Herodiasen alaba erdian, eta oniritzi citzayon Herodesi.

7. Orregatic juramentuarequin aguindu cioñ ematea escatzen cion edoceñi gauza.

8. Eta berac, izanic amac gaztigatua: Indazu, esan cion, emen platerean Juan Bautistaren burua.

9. Eta atsecabetu zan erregue: juramentua gatic ordea, eta berarequin mayean eserita ceudenac gatic, aguindu zuen emana izan cequiola.

10. Eta bialdu zuen, eta lepoa ebaqui cion Juani presoindeguian.

11. Eta ecarria izan zan bere burua platerean, eta emana izan citzayon nescachari, eta onec ecarri cion bere amari.

68

12. Eta etorriric bere icasleac, artu zuten bere gorputza, eta lurpetu zuten: eta etortzen ciradela adierazo cioten Jesusi.

13. Au aditu zueoean Jesusec, aldeguin zuen andic batelean, toqui bacar urrutico batera: eta adituric jende taldeac, jarraitu cioten oñez errietatic.

14. Eta irten zanean icusi zneo jende talde aundi bat, eta erruquitu citzayon, eta sendatu cituen beren eriac.

15. Etorriric ordea arratsaldea, alderatu citzaizcan bere icasleac, esaten ciotela: Toquia eremua da, eta ordua onezquero iragoa: utzi itzatzu jende taldeac, joanic errietara, erosi dezaten janaria.

16. Eta Jesusec esan cioten: Ez dute joatearen premiaric: eman zayezute zuec jaten.

17. Erantzun cioten: Ez ditugu emen bost ogui, eta bi arrai baicic.

18. Jesusec esan cioten: Ecarri zazquidatzute onara.

19. Eta aguinduric jende taldeai eseri citeztela belarraren gañean, arturic bost oguiac, eta bi arrayac, beguiraturio cerurontz bedeicatu cituen, chiquitu cituen, eta eman

69

ciozcaten icasleai oguiac, eta icasleac jende taldeai.

20. Eta jan zuten guztiac, eta ase ciran. Eta bildu cituzten puscac, amabi otarre zatiz beteac.

21. Jan zutenac berriz ciran, bost milla guizaseme, emacumeac, eta aurrac gabe.

22. Eta bereala igoerazo cituen Jesusec icasleac ontzichora, eta joanerazo cituen bere aurretic itsas beste aldera, bialtzen cituen arte jende taldeac.

23. Eta bialduric jende taldea, igo zan mendira bacarric erregu eguitera. Eta gaua eguiñic, bacarric cegoen an.

24. Ontzichoari berriz itsasoaren erdian bacirauntzen bagac: ceren zan aicea cuntracoa.

25. Gauaren laugarren belan bada, etorri zan Jesus berac gana cebillela itsasoaren gañean.

26. Eta icusi zutenean itsasoaren gañean cebillela, arritu ciran, esaten zutela: Zomorrua dala. Eta bildurturic asi ciran ojnca.

27. Eta bereala Jesusec itz eguin cioten, esaten ciotela: Iduqui ezazute ichedopena: ni naiz, etzaitezte beldur izan.

70

28. Erantzunaz berriz Pedroc esan cion: Jauna, zu bacera, aguindu zadazu zure gana etorri nadilla uren gañean.

29. Eta berac esan cion: Atoz. Eta jatairic Pedro ontzichotic, cebillen uren gañean etortzeco Jesusen gana.

30. Icusirio berriz aice sendoa, beldurtu zan: eta nola asi zan ondatzen, deadar eguin zuen esaten zuela: Jauna, gorde nazazu.

31. Eta bereala Jesusec luzatzen ciola escua, eldu cion: eta esan cion: Fede guchicoa, ¿certaco zalanzatu cera?

32. Eta igo zutenean ontzichora, guelditu zan aicea.

33. Ontzichoan ceudenac berriz, etorri ciran, eta adoratu zuten, esaten zutela: Eguiaz Jaungoicoaren Semea cera.

34. Eta igaro ciranean itsas beste aldera, etorri ciran Jenesar errira.

35. Eta ezagutu zutenean erri artaco guizonac, bialdu cituzten inguru guci artara, eta esqueñi cizquioten gaxo ciran guztiac:

36. Eta erregutzen cioten utzi citzaiztela uquitzen bere jantziaren ertza bederic. Eta uquitu cioten guciac, sendatuac izan ciran.

71

AMABOSGARREN CAPITULUA.

ORDUAN alderatu ciran bera gana Jerusalendic Escribac, eta Fariseoac, esaten zutela:

2. ¿Cergatic zure icasleac autsiten dituzte aurrecoetatic etorrita dauzcagun oitura onac? ez dituzte ecen garbitzen escuac oguia jaten dutenean.

3. Berac ordea erantzunaz esan cioten: ¿Cergatic zuec ere autsiten dezute Jaungoicoaren aguintea zuen oitura gatic? Ceren Jaungoicoac esan zuen:

4. Onratu itzatzu aita eta ama, eta: Madaricatzen duena aita, edo ama, eriotzarequin il bedi.

5. Zuec ordea esaten dezute: Esaten dion edoceñec aitari, edo amari: Nic esqueintzen dedan edocein emaitzac, zuri on eguingo dizu:

6. Eta ez du onratuco bere aita, edo bere ama: eta alperra eguin dezute Jaungoicoaren aguintea zuen oitura gatic.

7. Ipocritac, ongui lenagotic adierazo zuen zuec gatic Isaiasec, esaten zuela:

72

8. Erri onec ezpañaquin onratzen nau: beren biotza ordea urruti da nere gandic.

9. Alperric bada onratzen naute, eracusten dituztela guizonen eracutsi eta aguinteac.

10. Eta deituric bera gana jende taldeai, esan cioten: Entzun, eta aditu ezazute.

11. Aoan sartzen danac, ez du ciquintzen guizona: baicic ateratzen danac aotic, onec ciquintzen du guizona.

12. Orduan alderaturic bere icasleac, esan cioten: ¿Badaquizu Fariseoac, adituric itz au, gaitz bidea artu dutela?

13. Eta berac erantzunic esan cioten: Nere Aita cerucoac ipiñi ez duen landare guztia, izango da sustrayetic ateratua.

14. Utzi zayezute: itsuac dira, eta itsuen guidariac. Itsuac berriz itsua zucentzen badu, biac zulora erorten dirade.

15. Eta erantzunaz Pedroc, esan cinn: Azaldu zaguzu irudipen ori.

16. Eta Jesusec esan cion: ¿Oraindican zuec ere adimentu gabe cerate?

v. 11.—Aoan sartzen danac—Ez baldin bada Jaunguiznaren legueac edo Elizac galeracia. Duhamel.

v. 13.—Irracatsi ta siniste gaisto guciac. S. Jeron.

73

17. ¿Ez al dezute aditzen, aoan sartzen dan gucia, sabelera dijoala, eta toqui ezcutura botatzen dala?

18. Aotic ateratzen diradenac ordea, biotzetic ateratzen dira, eta oyec ciquiutzen dute guizona:

19. Biotzetic ecen ateratzen dirade gogoracio gaiztoac, erioac, besteren emazterequin gozatzeac, araguizco becatuac, lapurretac, guezurrezco asmacioac, erneguac.

20. Oyec dira, guizona ciquintzen dutenac. Escuac garbitu gabe jateac berriz, ez du ciquintzen guizona.

21. Eta ateraric andic Jesus aldeguin zuen Tiroco eta Sidongo toquietara.

22. Eta ona emen andre Canaantar batec muga ayetatic ateratuac deadar eguiten zuen, esaten ciola: Erruqui nazazu, Jauna, Daviden Semea: nere alaba gaizqui demonioac oñacetua da.

23. Berac etzion erantzun itzic. Eta alderaturic bere icasleac erregutzen cioten esaten ciotela: Bialdu ezazu: ceren deadarrez dator gure ondoren.

24. Berac berriz erantzunaz esan zuen:

74

Ez naiz izan bialdua Israelco echeco ardi galdu ciranetara baicic.

25. Baña emacumea etorri zan, eta adoratu zuen, esateu ciola: Jauna, balia zatzaquit.

26. Berac erantzunaz esan cion: Ez da ongui artzea semeen oguia, eta ematea chacurrai.

27. Eta emacumeac esan cion: Ala da, Jauna: baña chacurchoac ere jaten dituzte beren nagusien mayetic erortzen diran ogui apurrac.

28. Orduan erantzunaz Jesusec, esan cion: O andrea, andia da zure fedea: eguiña izan daquizula nai dezun becela. Eta sendatua izan zan bere alaba ordu artatic.

29. Eta ateraric andic Jesus, etorri zan Galileaco itsas bazterrera: eta igoric mendira, cegoen eserita an.

30. Eta alderatu ciran bera gana asco jende talde, cituztenac beraquin mutuac, itsuac, errenac, escuchangoac, eta beste asco: eta bota cituzten bere oñetara, eta sendatu cituen:

v. 24.—Etorri zan gucien onerako, baña bacarric Israeldarrai izan cituaten escatlia. S. Agust.

75

31. Alaco modutan non jende taldeac arritzen ciran icusiric mutuac izquetan, errenac cebiltzela, itsuac icusten zutela: eta alabatzen zuten Israelco Jaungoicoa.

32. Jesusec berriz, ots eguiñic bere icasleai, esan cioten: Jende taldearen erruqui naiz, ceren onezquero iru egun dira nerequin daudela, eta ez dute cer janic: eta ez ditut nai bialdu barauric, desmayatu ez ditecen bidean.

33. Eta diote icasleac: ¿Nondic bada arquitu guenzaque eremuan aimbeste ogui, asetzeco jende talde ain andia?

34. Eta esaten diote Jesusec: ¿Cembat ogui dituzute? Eta berac esan cioten: Zazpi, eta arraicho guchi batzueo.

35. Eta aguindu cion jende taldeari, etzin citeztela lurraren gañean.

36. Eta arturic zazpi oguiac, eta arrayac, eta esquerrac emanic, chiquitu cituen, eta eman ciezten bere icasleai, eta icasleac eman cizquioten erriari.

37. Eta jan zuten guciac, eta ase ciran. Eta guelditu zana pusquetatic, bildu cituzten zazpi sasqui beteac.

76

38. Ciran berriz jan zutenac, lau milla guizaseme, aurrac eta emacumeac gabe.

39. Eta, bialduric jende taldea, igo zan ontzichora: eta etorri zan Majedango muguetara.

AMASEIGARREN CAPITULUA.

ETA alderatu ciran bera gana Fariseoac, eta Saduceoac tentatzen zutela: eta erregutu cioten icusgarria cerutic eracutsi cizayotela.

2. Eta berac erantzunic, esan cioten: Arratsean esaten dezute: Eguraldi ona izango da, gorria da ecen cerua.

3. Eta goicean: gaur ecaitza, ceren osgorritua da ceru goibela.

4. Ceruaren arpeguia bada ezagutzen badaquizute: ¿eta demboren siñaleac ecin ditzaquezute jaquin? Casta gaizto eta siniste gabeco onec icusgarria billatzen du: eta icusgarriric etzayo emango, baicic Jonas profetaren icusgarria. Eta utziric berac, joan zan.

77

5. Eta etorri ciranean bere icasleac beste erriberara, aztu citzayoten oguiac artzea.

6. Berac esan cioten: Beguira ezazute, eta gorde zaitezte Fariseoen eta Saduceoen legamitic.

7. Eta icasleac pensatzen zuten beren artean esaten zutela: Ceren oguiac artu ez ditugu.

8. Jaquiñic bada Jesusec, esan cioten: ¿Cer peosatzen dezute zuen barrenetan, fede guchicoac, oguiac ez dauzcazutela?

9. ¿Ez al dezute aditzen, eta ez al cerate oroitzen bost oguirequin bost milla guizasemeentzat, eta cembat otarre bildu cinduzten?

10. ¿Ez eta ere zazpi oguirequin lau milla guizasemeentzat, eta cembat sasqui bildu cinduzten?

11. ¿Cergatic ez dezute aditu, ez dezutedala oguia gatic esan: Gorde zaiteztela Fariseoen eta Saduceoen legamitican?

12. Orduan aditu zuteo etzuela esan gordetzeco oguieo legamitic, baicic Fariseoen eta Saduceoen eracutsitic.

13. Etorri zan bada Jesus Cesarea Filiporen aldeetarontz: eta galdetzen cioten bere

78

icasleai, esaten ciotela: ¿Nor diote guizonac dala guizonaren Semea?

14. Eta berac esan zuten: Batzuec dala Juan Bautista, besteac berriz Elias, besteac ordea Jeremias, edo profetetatic bat.

15. Esaten diote Jesusec: ¿Zuec berriz nor naizala ni diozute?

16. Erantzunaz Simon Pedroc esan zuen: Zu cera Cristo, Jaungoico biciaren Semea.

17. Erantzunaz bada Jesusec, esan cion: Zorionecoa cera, Simon Juanen semea: ceren araguiac, eta odolac etzizun arguitu, baicic nere Aita, ceruetan dagoanac.

18. Eta oic esaten dizut, zu cerala Pedro, eta arri onen gañean jasoco det nere Eliza, eta infernuco ateac ez dira baliatuco aren contra.

19. Eta zuri emango dizquizut ceruetaco erreinuco guiltzac. Eta lurraren gañean lotzen dezun edocein gauza, izango da lotua ceruan ere: eta lurraren gañean ascatzen dezun edocein gauza, izango da ascatua ceruan ere.

v. 19.—Guiltzac—su da, becatuac parcatzeco edo ez parcatzeco escubidea. Natal. Alex.

79

20. Orduan aguindu cioten bere icasleai, etzitzayotela iñori esan bera zala Jesus Cristoa.

21. Ordutic asi zan Jesus adieracitzen bere icasleai, bearra zala bera joatea Jerusalemera, eta asco sufritu bear zuela zarrac gandic, eta Escribac gandic, eta apaizen buruac gandic, eta izandu bear zuela illa, eta irugarren egunean biztuco zala.

22. Eta arturic Jesus Pedroc bacarrean, asi citzayon erriertan eguiten esaten ciola: Urrutitic au zu gandic, Jauna: ez da guertatuco au zurequin.

23. Bera itzuliric, esan cion Pedrori: Quen zaquizquit aurretican, satanas, gaitz bidea ematen didazu: ceren ez dituzu aditzen Jaincoarenac diraden gauzac, baicic guizonenac diradenac.

24. Orduan Jesusec esan cioten bere icasleai: Iñorc nai badu nere ondoren etorri, uca beza bere burua, eta artu beza bere gurutzea, eta jarraitu bizait.

25. Ceren nai duenac bere anima salbatu,

v. 23.—Satanas—Galerazitzen didazu eguitea Jaungoicoac nai duena. Duhamel.

80

galduco du: galtzen duenac ordea bere anima ni gatic, arquituco du.

26. ¿Cer balio dio ecen guizonari, baldin mundu gucia irabazten badu, bere animari ordea calte eguiten badio? ¿Edo cer ordañ emango du guizonac bere anima gatic?

27. Ceren guizonaren Semea etorrico da bere Aitaren glorian bere aingueruaquin: eta orduan emango dio bacoitzari bere eguiteen araura.

28. Eguiaz esaten dizutet, badirade batzuec emen daudenetatic, ez dutenac gustatuco eriotza, alic eta icusi dezaten artean guizonaren Semea datorrela bere erreinuan.

AMAZAZPIGARREN CAPITULUA.

ETA sei egunen ondoren artu cituen Jesusec Pedro, eta Santiago, eta Juan bere anaya, eta eramaten ditu mendi goratu aldeudu batera:

2. Eta bestiruditu zan beren aurrean. Eta distiatu zuen bere arpeguiac eguzquiac becela:

81

bere jantziac berriz jarri ciraden zuriac elurra becela.

3. Eta ona emen non aguertu citzayozçaten Moises eta Elias berarequin izquetan asi dirala.

4. Eta erantzunic Pedroc, esan cion Jesusi: Jauna, ongui da gu emen egotea: nai badezu, eguio ditzagun emen iru bicitoqui, zuretzat bat, Moisesentzat bat, eta Eliasentzat bat.

5. Oraindican bera izquetan ari zala, ona emen non odei arguitsu batec estali cituen. Eta ona emeo boz bat odeitic, esaten zuena: Au da nere Semea maitatua, ceñagan ni gozatu naizan: bera aditu ezazute.

6. Eta aditzen cituztela icasleac erori ciran beren arpeguien gañera, eta bildurtu ciran asco.

7. Eta alderatu zan Jesus, eta uquitu cioten: eta esan cioten: Jaiqui zaitezte, eta etzaitezte beldur izan.

8. Eta jasoten cituztela beren beguiac, iñor etzuten icusi, baicic Jesus bacarric.

9. Eta jachitzen cirala berac menditican, aguindu cioten Jesusec, esaten ciotela: Iñori etzayozute esan icusqueta, alic eta guizonaren Semea illen artetic biztu dedin arteraño.

82

10. Eta galdetu cioten icasleac, esaten ciotela: ¿Cergatic bada escribac diote Eliasec aurrena etorri bear duela?

11. Eta berac erantzunaz, esan cioten: Elias eguiaz etorrico da, eta lengoratuco ditu gauza guztiac.

12. Esaten dizutet berriz, Elias onezquero etorri dala, eta etzuten ezagutu, baicic eguin zuten beragan nai izan cituzten gauza guztiac. Onela guizonaren Semeac ere padecituco du berac gandic.

13. Orduan aditu zuten icasleac Juan Bautista gatic itz eguin izao ciotela.

14. Eta etorri zanean bera jende taldera, alderatu zan bera gana guizon bat belauneu gañean jarriric bere aurreau, esaten ciola: Jauna, erruquitu zaite nere semearequin, ceren alditsua da, eta oñacetua gaizqui: ceren asco aldiz erortzen da sutara, eta sarri urera.

15. Eta eracutsi diotet zure icasleai, eta ecin izan dute sendatu.

16. Eta erantzunaz Jesusec, cion: O guizon arraza siniste gabe eta gaiztoa, ¿uoiz arte-

v. 12.—Orain eta len esaten du eguia: ceren orain aipatzen du Juan Bautista eta len Elias profeta. S. Crisost.

83

raño egongo naiz zuequin? ¿noiz arteraño sufrituco zaituztet? Ecarri zadazute onara nere gana.

17. Eta erriertan eguin cion Jesusec, eta irten zan bera gandic demonioa, eta sendatua izan zan mutilla ordu artatic.

18. Orduan alderatu ciran icasleac Jesus gana ixilleao, eta esan cioten: ¿Cergatic guc ecin izan degu bota?

19. Esan cioten Jesusec: Zuen fede laburra gatic. Ceren eguiaz esaten dizutet, bacenduquete fedea, moztaza alea becelacoa, esango diozute mendi oni, Joan adi emendican ara, eta joango da, eta ez da izango zuentzat eciñic.

20. Baña deabru mota au ez da izaten botatua baicic erreguaren, eta barauaren bitartez.

21. Eta ceudela berac elcarrequin Galilean, esan cioten Jesusec: Guizonaren Semea izango da ipiñia guizonen escuetan:

22. Eta ilco dute, eta irugarreu egunean biztuco da. Eta atsecabetu ciran andizquiro.

23. Eta etorri ciranean Cafarnaumera, alderatu ciran pecha biltzalleac Pedro gana,

84

eta esan cioten: ¿Zuen Eracusleac ez ditu pagatzen pechac?

24. Esan cioten: Bai. Eta sartu zanean echean, aurrea artu cion Jesusec, esaten ciola: ¿Cer deritzazu, Simon? Lurreco erregueac ¿ceñ gandic artzen dute pecha edo centzoa? ¿beren semeac gandic, ala arrotzac gandic?

25. Eta berac esan cion: arrotzac gandic. Esan cion Jesusec: Beraz semeac ez dute zor.

26. Baña gaitz bidea eman ez dizayegun, zoaz itsasora, eta bota ezazu amua: eta ar zazu lenengo datorren arraya: eta idiquiric bere aoa arquituco dezu lau dracmaco bat: bera artzen dezula, eman zayezu ni gatic, eta zu gatic.

EMEZORTZIGARREN CAPITULUA.

ORDU artan alderatu ciran icasleac Jesusen gana, esaten zutela: ¿Ceñ, uste dezu, aundiena dala ceruetaco erreinuan?

2. Eta deituric Jesusec aur bat, ipiñi zuen beren erdian,

3. Eta esan zuen: Eguiaz esaten dizutet,

85

ez bacerate biurtzen, eta eguiten ez bacerate aurrac becelacoac, etcerate sartuco ceruetaco erreinuan.

4. Aur au becela bada umiltzen dan edoceñ, au da andiena ceruetaco erreinuan.

5. Eta artzen duenac onelaco aur bat nere icenean, ni artzen nau.

6. Ematen dionac berriz gaitz bidea, ueregan sinisten duten chiqui oyetatic bati, obe luque asto errota arri bat bere lepotic lotuta, urpetuco balute itsasoaren barrenean.

7. ¡Ai munduaren zorigaiztocoa gaitz bideac gatic! Ceren premiazcoa da gaitz bideac etortzea: baña ¡ai zorigaiztocoa guizon arena, ceñaren bitartez datorren gaitz bidea!

8. Argatic zure escuac, edo oñac gaitz bidea ematen badizu: ebaqui ezazu, eta bota ezazu zu gandic: obe dezu bicitzan sartu maingu, edo erren, bi escu, edo bi oñ dituzula botatua izatea baño betico sutara.

9. Eta zure beguiac gaitz bidea ematen badizu, atera ezazu, eta bota ezazu zu gandic: obe dezu begui batequin bicitzan sartzea, begui bi dituzula bialdua izatea baño suzco infernura.

86

10. Beguira ezazute ez dezazutela guchitan iduqui chiquicho oyetatic bat: ceren esaten dizutet, beren ainguеruac ceruetan beti icusten dutela nere Aita, ceruetan dagoanaren arpeguia.

11. Ceren etorri zan guizonareu Semea salbatzera galdu zana.

12. ¿Cer deritzazute? balitu norbaitec eun ardi, eta galduco balitza ayetatic bat: ¿ez al ditu uzten laroguei ta emeretziac mendietan, eta dijoa galdua izan zanaren billa?

13. Eta guertatuco balitza arquitzea ura: Eguiaz esaten dizutet gueyago gozatzen dala berarequin laroguei ta emeretzi galdu etciranaquin baño.

14. Ala ez da zuen Aita, ceruetan dagoanaren borondatea, galtzea chiqui oyetatic bat.

15. Eta pecatu eguingo balu zure contra zure anayac, zoaz, eta zucendu eguizu zure, eta bere artean bacarric. Aditzen badizu, irabaci izango dezu zure anaya.

16. Adituco ez bacindu, ar itzatzu zurequin oraindic bat, edo bi, lecuco biren, edo iruen aoan egon dedin itz guztia.

v. 10.—Beren ainguеruac—salatuco diturte Aita cerucoaren aurrean. Natal. Alex.

87

17. Eta oyec adituco ez balitu, esayozu elizari. Eta eliza aditu nai ez balu, iduqui ezazu jentill, eta publicanotzat.

18. Eguiaz esaten dizutet, lurraren gañean lotzen dezuten gucia, lotua izango da ceruan ere: eta lurraren gañean ascatzen dezuten gucia, ascatua izango da ceruan ere.

19. Berriz esaten dizutet, zuetatic bi elcar aditzen badirade lurraren gañean, escatzen duten gauza gucia, nere Aita, ceruetan dagoanac, eguiña izango zayote.

20. Ceren non dauden bi, edo iru bilduric nere icenean, an naiz beren erdian.

21. Orduan alderaturic Pedro bera gana, esan cion: Jauna, ¿cembat aldiz pecatu eguingo du nere contra nere anayac, eta barcatuco diot? ¿zazpi aldiraño al?

22. Esaten dio Jesusec: Ez dizut esaten zazpi aldiraño, baita iruroguei eta amar aldiz zazpi aldiraño ere.

23. Argatic ceruetaco erreinua da iruditua guizon erregue, bere morroyaquin contuetan sartu nai zuenari.

v. 22.—Iruroguei eta amar aldiz zazpiraño—esan nai du, beti. San Jeron. S. Agust.

88

24. Eta asi zanean contuac artzen, esqueñia izan citzayon bat, zor ciozcana amar milla talentu.

25. Baña nola etzuen nondic itzuli, aguindu zuen bere nagusiac, izan cedilla saldua bera, eta bere emaztea, eta semeac, eta cituen gauza guciac, eta pagatu cequiola.

26. Auzpezturic berriz morroi ura, erregutzen cion esaten ciola: Ichedon eguidazu, eta gucia pagatuco dizut.

27. Eta erruquituric morroi aren nagusia, utzi cion, eta zorra barcatu cion.

28. Irtenic bada morroi ura arquitu zuen bere morroi lagun bat, zor ciozcana eun denario: eta elduric berari itotzen zuen, esaten ciola: Indac zor didacana.

29. Eta auzpezturic bere morroi laguna, erregutzen cion, esaten ciola: Ichedon eguidazu, eta gucia pagatuco dizut.

30. Arc berriz etzuen nai izan: baicic joan zan, eta sartu zuen presoindeguian zorra pagatu arteraño.

31. Bere morroi lagunac bada icusiric cer igarotzen zan, atsecabetu ciran asco: eta etorri ciran, eta contatu cioten beren nagusiari guertatu izan zan gucia.

89

32. Orduan deitu cion bere nagusiac: eta esan cion: Morroi gaiztoa, artzeco gucia barcatu nican erregutu idacalaco:

33. ¿Eta i ere ire lagunaz erruquitu bear ez intzacan, ni izaz erruquitu ninducan becela?

34. Eta aserreturic bere nagusia eman cioten borreroai, zor gucia págatu arteraño.

35. Onela nere Aita cerucoac ere eguingo dizute, barcatzen ez badiozute bacoitzac bere anayari zuen biotzetatic.

EMERETZIGARREN CAPITULUA.

ETA guertatu zan, bucaturic Jesusec itz oyec, joan zan Galileatic, eta etorri zan Judeaco muguetara Jordango beste aldera,

2. Eta jarraitu cioten jende talde ascoc, eta sendatu cituen an.

3. Eta alderatu ciran bera gana Fariseoac tentatzen zutela, eta esaten ciotela: ¿Cillegui bai al zayo guizonari utzitzea bere emaztea, edocein gauza gatic?

90

4. Berac erantzunic, esan cioten: ¿Ez al dezute iracurri, eguin zuenac guizona asieratic, arra eta emea eguin cituela? Eta esan zuen:

5. Bera gatic utzico ditu guizonac aita, eta ama, eta bere emaztearen ganatuco da, eta izango dira bi aragui batean.

6. Ala bada onezquero ez dira bi, aragui bat baicic. Jaungoicoac bada bildu zuena, guizonac ez beza berecitu.

7. Esaten diote: ¿Cergatic bada Moisesec aguindu zuen emateco banacatuaren aguiria, eta utzitzeco?

8. Esan cioten: Ceren Moisesec zueo biotzeco gogortasuna gatic utzi cizuten botatzea zuen emazteac: asieratic ordea etzan onela.

9. Eta esaten dizutet, bere emaztea utzitzen duen edoceñec, besterequin araguizco becatuan erori dalaco ez izanenean, eta besteric artzen duenac, eguiten du adulterioco becatua: eta utzia artzeo duenac, eguiten du adulterioco becatua.

10. Diote bere icasleac: Baldin orrela izan bear badu guizonac bere emaztearequin, ez da ezcondu bear.

91

11. Berac esan cinten: Ez dirade guciac itz onen diña, baicic emana izan zayotenac.

12. Ceren badirade chiquiratuac, ceñac amaren sabeletic ala jayo ciran: eta badirade chiquiratuac, guizonac eguiñac izan cirauac: eta badirade chiquiratuac, ayec berac chiquiratu ciranac ceruetaco erreinna gatic. Adi dezaqueanac adi beza.

13. Orduan esqueñiac izan citzayozcan aur batzuec, escuac gañean ipiñi ciozcaten, eta erregutu cezan. Icasleac ordea errierta eguiten cioten.

14. Jesusec berriz esan cioten: Utzi zayezute aurrai, eta etzayezute eragotzi nere gana etortzea: ceren onelacoena da ceruetaco erreinua.

15. Eta escuac gañean ipiñi ciozcatenean, joan zan andic.

16. Eta ona emen non bat alderaturic, esan cion: Eracusle on, ¿cer on eguingo det izan dezadan betico bicitza?

17. Berac esan cion: ¿Cergatic galdetzen didazu ona gatic? Bat da ona, Jaungoicoa.

v. 12.—Ceruetaco erreinua gatic—ireunduac, es gorputzac, baicic gura ciquiñac. S. Agust.

92

Nai badezu berriz bicitzan sartu, gorde itzatzu aguinduac.

18. Esan cion: ¿Ceñ? Eta Jesusec esan cion: Ez dezu iñor ilco: Etzera besteren emaztearen ganatuco: Ez dezu ebatsico: Ez dezu lecucotasun guezurrezcoric esango:

19. Onratu itzatzu zure aita, eta zure ama, eta maitatuco dezu zure lagun urcoa zu cerori becela.

20. Esaten dio gazteac: Oriec guciac gorde ditut nere gaztedandic, ¿cer falta zat oraiudic?

21. Esan cion Jesusec: Nai badezu guciz ona izan, zoaz, saldu itzatzu dituzun guciac, eta eman zayozcatzu beartsuai, eta iduquico dezu gordallua ceruan: eta atoz, jarrai zaquizquit.

22. Aditu zuenean bada gazteac itz au, joan zan itun: ceren zan ceduzcana ondasun asco.

23. Jesusec berriz esan cioten bere icasleai: Eguiaz esaten dizutet, aberatsa nequez sartuco dala ceruetaco erreinuan.

24. Eta berriz esaten dizutet: Errazago da gamelua jostorratzaren beguitic igarotzea, aberatsa sartzea baño ceruetaco erreinuan.

93

25. Adituric ordea oyec, icasleac miretsi ciraden andizquiro, esaten zutela: ¿ Nor da beraz salba ditequeana ?

26. Eta beguiraturic Jesusec, esan cioten: Guizonentzat au eciña da: Jaungoicoarentzat ordea gucia da eguincorra.

27. Orduan erantzunaz Pedroc esan cion: Ona emen non guc utzi ditugun gauza guciac, eta jarraitu dizugu: ¿ cer bada izango degu guc ?

28. Eta Jesusec esan cioten: Eguiaz esaten dizutet, zuec jarraitu nazutenac, gauden berriztaeran esertzen danean guizonaren Semea bere annditasuneco esertoquian, eserico ceratela zuec ere amabi esertoquien gañean, juzgatzen dituzutela Israelco amabi leñuac.

29. Eta uzteu dituen guciac echea, edo anayac, edo arrebac, edo aita, edo ama, edo emaztea, edo semeac, edo lurrac nere icena gatic, eun aldiz aimbeste artuco du, eta betico bicitzaren jabe izango da.

30. Berriz asco lenengo izango dira azquenac; eta azquenac lenengoac.

94

OGUEIGARREN CAPITULUA.

CERUETACO erreinua da guizon echeco jaun baten antzecoa, atera zanarena goicean goiz billatzera languilleac bere mastiraco.

2. Eta izturie languilleaquin eguneco denario bat emateco, bialdu cituen bere mastira.

3. Eta irtenic irugarren orduaren garayean, icusi cituen beste batzuec ceudenac zutic plazan alperric,

4. Eta esan cioten: Zoazte zuec ere nere mastira, eta zucen izan lezaqueana emango dizutet.

5. Eta berac joan ciran. Berriz atera zan seigarren, eta bederatzigarren orduaren garayean, eta orobat eguin zuen.

6. Eta atera zan amaicagarren orduaren garayean, eta arqnitu cituen beste batzuec zutic ceudenac, eta esaten diote: ¿ Cer eguiten dezute emen egun gucian alperric ?

7. Esaten diote: Iñorc ez digulaco alo-

95

gueran deitu. Esaten diote: Zoazte zuec ere nere mastira.

8. Etorriric bada arratsa, esaten dio mastiaren jaunac bere contuartzalleari: Dei itzatzu languilleac, eta eman zayezute aloguera, asiric azquenecoetatic lenengoetaraño.

9. Etorri ciranean bada amaicagarren orduaren inguruan etorri ciranac, artu zuteo bacoitzac bere denarioa.

10. Eta etorri ciradenean lembicicoac, uste izan zuten gueyago artuco zutela: artu zuten ordea berac ere bacoitzac denario bat.

11. Eta artzen zutela cerasaten echeco jaunaren contra,

12. Esaten zutela: Azqueneco oyec ordu batean eguin dute, eta beraquin berdindu gaituzu gu, eraman degunoc egunaren, eta beroaren nequea.

13. Eta berac erantzunaz ayetatic bati, esan cion: Adisquidea, ez dizut eguiten bidegaberic: ¿ez al ciñan iztuta guelditu nerequin denario batean?

14. Ar zazu zurea dana, eta zoaz: bada nai diot azqueneco oni ere eman zuri becela.

15. ¿Edo etzat niri cillegui nai dedana

96

eguitea? ¿zure beguia gaiztoa al da, ni ona naizalaco?

16. Onela izango dira lenengoac azquenac, eta azquenac lenengoac. Ceren asco dira deituac, guchi berriz autuac.

17. Eta igotzen zala Jesus Jerusalemera, artu cituen amabi icasleac berecituan, eta esan cioten:

18. Ona emen non igotzen gueran Jerusalemera, eta guizonaren Semea saldua izango zayote apaizen buruai, eta Escribai, eta iltzeco erabaquia emango diote,

19. Eta emango diote jentillai, izan dedin isecatua, eta azotatua, eta gurutzean josia, eta irugarren egunean biztuco da.

20. Orduan alderatu zan bera gana Zebedeoren semeen ama bere semeaquin, adoratzen zuela eta escatzen ciola cerbait.

21. Berac esan cion: ¿Cer nai dezu? Emacumeac esan cion: Esan zazu eseri ditecela nere seme bi oyec, bata zure escuyan, eta bestea ezquerrean zure erreinuan.

22. Eta erantzunio Jesusec, esan cion: Ez

v. 15.—Begnia gaiztoa—aditzen da, ondamua. Prov. 6.

97

daquizute cer escatzen dezuten. ¿Edan bai al dezaquezute nic edango dedan caliza? Berac esaten diote: Badezaguque.

23. Esaten diote: Eguiaz oere caliza edango dezute: esertzea ordea nere escuyan, edo ezquerrean ez dagoquit niri ematea zuei, baicic ayei ceñentzat nere Aitac prestatua izan dan.

24. Eta aditzean amarrac, aserretu ciran bi anayaquin.

25. Eta Jesusec deitu cituen bera gana, eta esan cioten: Badaquizute jentillen aguintariac dauzcatela mempean beren erriac: eta aundiagoac diranac, escubidearequin darabiltzatela.

26. Ez da izango onela zuen artean: baicic zuen artean aundiena izatea nai duen edoceñi, izan bedi zuen morroya.

27. Eta zuen artean nai duena lenengoa izan, izango da zuen serbitzaria.

28. Nola guizonaren Semea etzan etorri serbitua izatera, baicic serbitzera, eta ematera bere anima, ascoren erospeneraco.

v. 28.—Ascoren—gucien. S. Pabl. 2. ad Corinth. c. 5. v. 14.

98

29. Eta irteten zutela berac Jericotic, jarraitu cion jende talde ascoc;

30. Eta ona emen non bi itsuc eserita ceudenac bidearen ondoan, aditu zuten, Jesus igarotzen zala: eta deadar eguin zuten, esaten zutela: Jauna, Daviden Semea, erruqui gaitzatzu.

31. Jende taldeac berriz errierta eguiten cioten, isildu citezten. Baña berac gueyago deadar eguiten zuten, esateo zutela: Jauna, Daviden Semea, erruqui gaitzatzu.

32. Eta guelditu zan zutic Jesus, eta deitu cituen, eta esan cioten: ¿Cer nai dezute daguizutedan?

33. Esaten diote: Jauna, idiquiac izan ditecela gure beguiac.

34. Eta erruquituric Jesus beraquin, uquitu cizquioten beren beguiac. Eta bereala icusi zuten, eta jarraitu cioten.

OGUEITABATGARREN CAPITULUA.

ETA alderatu ciranean Jerusalemera, eta etorri Betfajera Olibeteco mendira: orduan Jesusec bialdu cituen bi icasle,

99

2. Esaten ciotela: Zoazte zuen aurrean dagoan erri orretara, eta bereala arquituco dezute asto eme bat lotuta, eta astocumea berarequin: ascatu ezazute, eta ecarzquidazute:

3. Eta iñorc cerbait esango balitzute, esan zayozute, Jaunac oyen premia duela: eta bereala utzico ditu.

4. Au gucia berriz izandu zan eguiña, betetasuna iduqui cezan esana izan zanac profetaren bitartez, ceñac esaten duen:

5. Esan zayozute Siongo alabari: Ona emen non zure erreguea datorren zuretzat malsoa, eserita asto emearen gañean, eta astocume uztarriaren azpian dagoanaren semea.

6. Joanic bada icasleac eguin zuten Jesusec aguindu cioten becela.

7. Eta ecarri cituzten asto emea, eta astochoa: eta ipiñi cituzten ayen gañean beren soñecoac, eta gañean eserierazo cioten.

8. Jende talde ascoc berriz zabaldu cituzten beren soñecoac bidean: beste batzuec berriz ebaquitzen cituzten osteac zuaitzetatic, eta zabaltzen cituzten bidean:

9. Eta aurretic, eta atzetic cijoacen jende

100

taldeac, deadar eguiten zuten, esaten zutela: Hosauna Daviden semeari: bedeicatua izan bedi datorrena Jaunaren icenean: hosanna goyenetan.

10. Eta sartu zanean Jerusalemen, arazotu zan erri gucia, esaten zutela: ¿Ceñ da au?

11. Erriac berriz esaten zuten: Au da Jesus Nazaret Galileaco profeta.

12. Eta sartu zan Jesus Jaungoicoaren elizan, eta botatzen cituen saltzen eta erosten ciarduten guciac elizan; eta nasi cituen cambialarien mayac, eta uso saltzalleen esertoquiac:

13. Eta esaten diote: Escribatua da: Nere echea erreguco echea izango da deitua: zuec berriz eguin dezute lapurren leicea.

14. Eta alderatu ciran bera gana itsuac, eta errenac elizan: eta sendatzen cituen.

15. Icusiric bada apaiz buruac, eta Escribac, eguin cituen mirariac, eta aurrac deadarrez elizan, eta esaten zutela: Hosanna Daviden semeari: aserretu ciran,

16. Eta esan cioten: ¿Aditzen bai al dezu oyec cer esaten duten? Eta Jesusec esan cioten: Bai. ¿Beñere ez al dezute iracurri:

101

Aurren eta bularretacoen aotic atera cenduen alabantza ?

17. Eta utziric ayec, joan zan campora erritic Betaniara : eta an egon zan.

18. Eta goicean itzuliric errira, gose izan zan.

19. Eta icusiric pico arbola bat bidearen ondoan, etorri zan bera gana : eta etzuen ecer arquitu, baicic ostoac bacarric, eta esan cion : Arren bada beñere ez al dec ire gandic fruturic jayoco gaur guero : eta legortu zan bereala picoa.

20. Eta icusiric icasleac, miretsi ciran, esaten zutela : ¿ Nola bereala legortu da ?

21. Eta erantzunic Jesusec, esan cioten : Eguiaz esaten dizutet, bacenduquete sinistea, eta ez baciñateque zalanzan jarrico, ez bacarric eguingo dezute picoarena, baita erc mendi oni esango baciñioquete, Quen adi ortic, eta bota adi itsasora, eguiña izango da.

22. Eta escatzen dezuten edocein gauza erreguan sinisten dezutela, artuco dezute.

23. Eta etorriric elizara, alderatu ciran bera gana iracasten ari zala, apaiz buruac, eta errico zarrac, esaten zutela : ¿ Cer escubiderequin oyec eguiten dituzu ? ¿ Eta norc eman dizu escubide au ?

102

24. Erantzuten ciotela Jesusec, esan cioten : Galdetuco dizutet nic ere itz bat : ceña esaten badidazute, nic ere esango dizutet cer escubiderequin oyec eguiten ditudan.

25. Juanen batayoa ¿ nondicoa zan ? ¿ ceruticoa, ala guizonetaticoa ? Eta berac pensatzen zuten beren artean, esaten zutela :

26. Esango baguendnque, ceruticoa, esango digu : ¿ Cergatic bada etciñioten sinistu ? Esango baguendu ordea, guizonetaticoa, jende taldearen bildur guera : ceren guztiac ceucaten Joan profeta becela.

27. Eta erantzun cioten Jesusi, esaten ciotela : Ez daquigu. Esan cioten berac ere : Nic ere ez dizutet esaten cer escubiderequin oyec eguiten ditudan.

28. ¿ Cer deritzazute bada ? Guizon batec cituen bi seme, eta alderaturic leoengoa gana, esan cion : Semea, zoaz gaur, eguizu lanean nere mastian.

29. Berac erantzunaz, esan cion : Ez det nai. Guero berriz damuturic, joan zan.

30. Eta alderaturic bestea gana, esan cion

103

berdin. Eta berac erantzunaz, esan cion: Banoa, Jauna, eta etzan joan.

31. ¿Bietatic ceñec eguin zuen aitaren borondatea? Esaten diote: Lenengoac. Esaten diote Jesusec: Eguiaz esaten dizutet, publicanoac eta emacume galduac joango dirala zuen aurretic Jaungoicoaren erreinura.

32. Ceren etorri zan zuec gana Joan zucentasuneco bidean, eta etciñioten sinistu. Publicanoac ordea, eta emacume galduac sinistu zuten: eta zuec icusten cendutela etzenduten damuric ere iduqui guero, sinisteco berari.

33. Beste irudi bat aditu ezazute: Bazan guizon echeco jaun bat, landatu zuena mastia, eta esiz ingurutu zuen, eta achurtuaz eguin zuen bertan dolarea, eta alchatu zuen torre bat, eta eman zuen errentan necazariai, eta nrrutira joan zan.

34. Alderatu zanean bada frutuen dembora, bialdu cituen bere serbitzariac necazariac gana, artu citzateo bere frutuac.

35. Eta necazariac, arrapaturic bere serbitzariac, bata zauritu zuten, bestea il zuten, besteari berriz arrica eguin cioten.

104

36. Berriz bialdu cituen beste serbitzari batzuec lenengoac baño gueyago, eta orobat eguin cioten.

37. Azquenic bialdu cioten bere semea, esaten zuela: Lotsa ecarrico diote nere semeari.

38. Baña necazariac icusi zutenean semea, esan zuten beren artean: Au da primua, atozte, il dezagun, eta iduquico degu bere primutza.

39. Eta clduric berari, bota zuten mastitic campora, eta il zuten.

40. Datorrenean bada mastiaren jauna, ¿cer eguiugo diote necazari ayei?

41. Esaten dute ayec: Gaiztoac gaizqui galduco ditu, eta bere mastia emango diote errentan beste necazari batzuei, pagatuco diotenai frutna bere demboretan.

42. Esaten diote Jesusec: ¿Beñere ez al dezute iracurri Escrituretan: Echeguilleac zocora bota zuten arria, au izan da ipiñia ecbe buruao? ¿Jaunac eguiña da au, eta da arrigarria gure beguietan?

43. Argatic esaten dizutet, quendua izango zatzutela Jaungoicoaren erreinua, eta emana

105

izango zayola bere frutuac eguiten dituan jendeari.

44. Eta erortzen dana arri onen gañera, izango da zatitua: eta berau gañera erortzen zayona, izango da puscatua.

45. Eta adituric apaiz buruac, eta Fariseoac bere irudipenac, ezagutu zuten berac gatic itz eguiten zuela.

46. Eta nai ciotela eldu, jende taldeen beldur ciran: ceren profeta becela ceucaten.

OGUEITABIGARREN CAPITULUA.

ETA erantzunic Jesusec, berriz itz eguin cioten irudipenetan, esaten ciotela:

2. Cernetaco erreinua da guizon erregue baten, bere semeari eztayac eguin ciozcanaren antzecoa.

3. Eta bidaldu cituen bere morroyac otseguitera eztayetara deituac ceudenac, eta etzuten nai etorri.

v. 44.—Arri—au Jesucristo da. S. Agust.

106

4. Berriz bidaldu ciezten beste morroi batzuec, esaten cietela: Esan zayezute deituac ciranai: Ona emen nere bazcaria prestatua det, nere cecenac eta abere guicenduac illac dirade, eta guciac dande prestatuac: atozte eztayetara.

5. Ayec berriz mezprezatu zuten gaztigua: eta joan ciran, bata bere sorora, bestea berriz bere saldu erosietara:

6. Besteac berriz escuac egotzi ciezten bere serbitzariai, eta irañez beteta il cituzten.

7. Eta erregue, aditu zuenean, aserretu zan: eta bidalduric bere soldaduac, galdu cituen iltzalle ayec, eta beren erriari su eman cion.

8. Orduan esan cioten bere morroyai: Eztayac eguiaz prestatuac daude, baña deituac ciradenac, etziran diña.

9. Zoazte bada bide gurutzetara, eta arquitzen dituzuten guciac, deitu itzatzute eztayetara.

10. Eta irtenic bere morroyac bidetara, bildu cituzten arquitu cituzten guciac, gaiztoac eta onac, eta beteac izan ciran eztayac deitutacoz.

107

11. Sartu zan bada erregue icusteco mayean eseriac ceudenac, eta icusi zuen an guizon bat eztayetaco jantziarequin jantzi gabe.

12. Eta esan cion: Adisquidea, ¿nola onara sartu cera ez dezula eztai jantzia? Eta bera mututu zan.

13. Orduan esan cioten erreguec bere morroyai: Loturic bere escuac eta oñac, botatu ezazute campoco illunetara: an izango da negarra, eta ortz carrascotsa.

14. Ceren asco dira deituac, guchi berriz autuac.

15. Orduan joaten oirala Fariseoac, biltzarrea eguin zuten arrapatzeco bera izquetan.

16. Eta bidaltzeo dizquiote beren icasleac Herodestarraquin, esaten ciotela: Iracaslea, badaquigu eguiatia cerala, eta Jaungoicoaren bidea eguian eracusten dezula, eta ez dezula iñoren ajolaric: ceren ez dezun beguiratzen guizonetan nor nor dan:

17. Esan zaguzu bada ¿cer deritzazu? ¿cillegui da centzoa ematea Cesarri, ala ez?

18. Ezaguturic berriz Jesusec beren gaiztaqueria, esan cioten: ¿Cergatic tentatzen nazute, ipocritac?

v. 11.—Eztai jantzia—da caridadea: au ez duena isango da aldenduta onen artetic juicioco egunean. Duhamel.

108

19. Eracutsi zadazute centzoco dirua. Eta berac aurrean ipiñi cioten denarioa.

20. Eta esan cioten Jesusec: ¿Ceñena da irudi au, eta gañean escribatua dagoena?

21. Esaten diote: Cesarrena. Orduan esan cioten: Biurtu zayozute bada Cesarrena dana, Cesarri: eta Jaungoicoarena dana, Jaungoicoari.

22. Eta aditu zuteneau miretsi ciran, eta utziric bera joan ciran.

23. Egun artan alderatu ciran bera gana Saducearrac, esaten dutenac ez dala piztuera berriric, eta galdetu cioten,

24. Esaten ciotela: Eracuslea, Moisesec esan zuen: Norbait ilco balitza semerio gabe, bere anaya ezcondu dedilla aren emaztearequin, eta eman bizayo jatorria bere anayari.

25. Izandu ciran bada gure artean zazpi anaya: eta lembicicoa, ezconduta, il zan: eta nola etzuen aurric, utzi cion bere emaztea bere anayari.

26. Berebat bigarrena, eta irugarrena zazpigarrenerañó.

109

27. Gucien ondoren berriz emaztea ere il zan.

28. ¿ Piztuera berrian bada zazpietatic ceñena izango da emaztea ? cergatic guztiac izan zuten.

29. Eta erantzunic Jesusec, esan cioten : Uts eguiten dezute, ez daquizquizutela Escriturac, ez Jaungoicoaren ala.

30. Ceren piztuera berrian ez dira ezconduco, ez ezconduac izango : baicic izango dira Jaungoicoaren aingueruac ceruan bezala.

31. Illen piztuera berriaren gañean berriz ¿ ez al dezute iracurri Jaungnicoac esana izan zana, esaten dizutela :

32. Ni naiz Abrahamen Jaungoicoa, eta Isaasquen Jaungoicoa, eta Jacoben Jaungoicoa ? Ez da illen Jaungoicoa, baicic biciena.

33. Eta aditzen zutela jende taldeac, miresten ciran bere eracutsian.

34. Fariseoac berriz aditu zutenean ixilduraci ciotela Saducetarrai, bildu ciran batean :

35. Eta galdetu cion beretaco batec leguearen eracusleac, tentatzen zuela :

36. Eracuslea, ¿ ceñi da aguindu aundia leguean ?

110

37. Esan cion Jesusec : Maitatuco dezu zure Jaun Jauugoicoa zure biotz gucitic, eta zure anima gucitic, eta zure gogo gucitic.

38. Au da aguindu aundiena, eta lembicicoa.

39. Eta bigarrena onen antzecoa da : Maitatuco dezu zure lagun urcoa, zu cerori bezala.

40. Aguindu bi oyetatic datoz legue gucia, eta profetac.

41. Eta ceudela bilduric Fariseoac, galdetu cioten Jesusec,

42. Ciotela : ¿ Cer deritzatzute Cristo gatic ? ¿ ceñen semea da ? Esaten diote : Davidena.

43. Esaten diote Jesusec : ¿ Nola bada Davidec espirituan deitzen dio Jauna, esaten diola :

44. Esan cion Jaunac nere Jaunari : Eseri zaite nere escuyetatic, ipiñi ditzadan bitartean zure etsayac zure oñen alquitzat ?

45. Baldin Davidec deitzen badio Jauna, ¿ nola bere semea da ?

46. Eta iñorc ecin cion erantzun itzic : eta etzan ere iñor beuturatu egun artatic gueyago berari galdetzen.

111

OGUEITAIRUGARREN CAPITULUA.

ORDUAN itz eguin cinten Jesusec jende taldeai, eta bere icasleai,

2. Ciola: Moisesen eracustoquiaren gañean eseri ciran Escribac, eta Fariseoac.

3. Esaten dizquizuten gauza guztiac bada, gorde eta eguin itzatzute: ez itzatzute ordea eguin beren eguiten araura: ceren esaten dute, eta ez dute eguiten.

4. Ceren Intutzen dituzte zama pisuac, eta eraman eciñac, eta ipintzen dituzte guizonen sorbaldetan: beren beatzarequin ordea ez dituzte nai muguitu.

5. Beren eguite guciac bada eguiten dituzte guizonac icusiac izan ditecen: zabaltzen dituzte ecen beren larru guerricoac, eta aunditzen dituzte ertzac.

6. Eta maite dituzte lembicico etzintoquiac afarietan, eta lembicico esertoquiac sinagoguetan,

7. Eta diosalac plazan, eta guizonac deituac izatea Eracusleac.

8. Zuec ordea ez ezazute nai izan deituac

112

Eracusleac: ceren bat da zuen Eracuslea, zuec gucioc berriz anayac cerate.

9. Eta etzayozute iñori aita deitu lurraren gañean: ceren bat da zuen Aita, ceruetan dagoana.

10. Etzaitezte ere deitu Eracusleac: ceren bat da zuen Eracuslea, Cristo.

11. Zuen artean aundiena dana, izango da zuen morroya.

12. Ceren goratzen dana, izango da becratua: eta beeratzen dana, izango da goratua.

13. Ai berriz zuen zorigaiztocoac, Escriba eta Fariseo ipocritac: ichitzen dezutenac ceruetaco erreinua guizonen aurrean. Ceren zuec etcerate sartzen, eta sartzeo ari diradenai ere ez diezute sartzen uzten.

14. Ai zuen zorigaiztocoac, Escriba eta Fariseo ipocritac: jaten dituzutenac alargunen ecbeac, otoitz luceac eguiñic: argatic artuco zazute contu zorrotzagoa.

15. Ai zuen zorigaiztocoac, Escriba eta Fariseo ipocritac: ceren ingurutzen dezute itsasoa eta leorra, zuen leguera norbait ecar-

v. 9.—Ez du galeracitzen Jesusec gurasoai Aita deitzea, baicic adieraci ceruan degula Aita obe bat. Crisost.

113

tzeco : eta eguiña daneau, eguiten dezute infernuco seme zuec baño bi aldiz gueyago.

16. Ai zuen zorigaiztocoac, guialari itsuac, esaten dezutenac : Edoceñec juramentu eguiten badu eliza gatic, utsa da : eguiten duenac ordea elizaco urrea gatic, zor du.

17. Eroac, eta itsuac : ¿ Cer da ecen aundiagoa, urrea, ala eliza, santututzen duena urrea ?

18. Eta edoceñec juramentu eguingn balu aldarea gatic, utsa da : edoceñec ordea juramentu eguingo balu bere gañean dagoan esqueñia gatic, zor du.

19. Itsuac : ¿ Cer da eceu aundiago, esqueñia, ala aldarea, santututzeu duena esqueñia ?

20. Juramentu eguiten duenac bada aldarea gatic, juramentu eguiten du bera gatic, eta bere gañean dauden gauza guciac gatic.

21. Eta juramentu eguiten duen edoceñec eliza gatic, juramentu eguiten du bera gatic, eta bertan bicitzen dana gatic.

22. Eta juramentu eguiten duenac cerua gatic, juramentu eguiten du Jaungoicoaren esertoquigoya gatic, eta aren gañean eserita dagoana gatic.

114

23. Ai zuen zorigaiztocoac, Escriba eta Fariseo ipocritac : amarrentzen dezutenac menda, eta ezamillua, eta cuminoa, eta utzi cinduzuten leguearen pisuenac diranac, zucentasuna, eta erruquia, eta sinistea. Oyec eguin bear ciran, eta besteac ez utzi.

24. Guialari itsuac, iragazten dezutenac elchoa, gamelua berriz iresten dezutenac.

25. Ai zuen zorigaiztocoac, Escriba eta Fariseo ipocritac, garbitzen dezutenac edan ontziaren, eta plateraren campoco aldea : barrendic ordea zaudete lapurreriaz, eta loiqueriaz beteac.

26. Fariseo itsua, garbitu ezac edan ontziaren eta plateraren barrenean ceagoana, garbia eguiña izan ceadin campoco aldetic ceagoana.

27. Ai zuen zorigaiztocoac, Escriba eta Fariseo ipocritac : ceren cerate obi zurituen guizonai campotic ederrac diruditenen antzecoac, barrendic ordea daude illeu ezurrez, eta ciquinqueri guciaz beteac.

28. Onela zuec ere campo aldetic eguiaz dirudizute guizonai zucenac : barrenean berriz zaudete guezurrez eta gaiztaqueriaz beteac.

29. Ai zuen zorigaiztocoac, Escriba eta

115

Fariseo ipocritac, eguiten dituzutenac profeten obiac, eta apaintzen dituzutenac justuen oroigarriac,

30. Eta esaten dezute: Izandu baguiña gure gurasoen egunetan, ez guiñan izango beren lagunac profeten odolean.

31. Ala bada lecuco cerate zuec zuei, ceratela profetac il cituztenen beren semeac.

32. Eta zuec bete ezazute zuen gurasoen neurria.

33. Sugueac biboren arrazac, ¿ nola iguestuco cerate infernuco juiciotic ?

34. Argatic ona non nic bidaltzen ditudàn zuec gana profetac, eta jaquintsuac, eta escribac, eta beretatic ilco dituzute, eta gurutzean josico dituzute, eta beretatic azotatuco dituzute zuen sinagoguetan, eta perseguituco dituzute erritic errira:

35. Etorri dedin zuen gañera odol oben gabeco gucia, isuria izan zana lurraren gañean, Abel oben gabearen odoletic Zacariasen Baraquiasen semearen, elizaren eta aldarearen bitartean il cendutenaren odolerañio.

36. Eguiaz esaten dizutet, etorrico dirade oyec guciac guizaldi onen gañera.

116

37. Jerusalem, Jerusalem, iltzen dituzuna profetac, eta arrica eguiten dietezuna, zure gana bidalduac diranai, ¿ cembat aldiz nai nituen bildu zure semeac, olloac biltzen dituen bezala bere chitoac egoen azpian, eta etcenduen nai izan ?

38. Ona emen non utzia izango zaizute zuen echea iñor gabe.

39. Ceren esaten dizutet, ez nazute icusico oraindandic, esan dezazuten bitartean: Bedeincatua datorrena Jaunaren icenean.

OGUEITALAUGARREN CAPITULUA.

ETA irtenic Jesus elizatic, cijoan. Eta alderatu citzaizcon bere icasleac, eracusteco berari elizaco murru eder eta aundiac.

2. Berac berriz erantzunaz esan cioten: ¿ Icusten dituzute oyec guciac ? Eguiaz esaten dizutet, ez da izango utzia emen arriric arriaren gañean, arrasatua izan gabe.

3. Cegoala berriz bera eseriric Olibeteco mendiaren gañean, alderatu ciran bera gana icasleac ixillean, esaten ciotela: Esan za-

117

guzu, ¿noiz izango dira oyec? ¿eta cer siñale zure etorrerarena, eta munduaren bucaerarena?

4. Eta erantzunaz Jesusec, esan cioten: Beguiratu ezazute iñorc etzaitzatela engañatu.

5. Ceren asco etorrico dira nere icenean, esaten dutela: Ni naiz Cristo: eta engañatuco dituzte asco.

6. Ceren adituco dituzute guerrac, eta guerren ospeac. Beguira etzaiteztela quezcatu. Ceren oyec eguiñac izan bear dute, baña ez da oraindican azquena.

7. Jaiquico da ecen jendea jendearen contra, eta erreinua erreinuaren contra, eta izango dirade izurriteac, eta gosetcac, eta lurricarac asco lecutao.

8. Oyec guciac berriz oüacen asierac dira.

9. Orduan emango zaituzte atsecabetuac izateco, eta ilco zaituzte: eta izango cerate jende guciac gorrotatuac nere icena gatic.

10. Eta orduao gaitz bidea artnco dute ascoc, eta elcar salduco dute, eta gorrotatuco dute elcar.

11. Eta asco guezurrezco profeta jaiquico dira, eta engañatuco dituzte asco.

118

12. Eta nola ugarituco dan gaiztaqueria, oztuco da ascoren caridadea.

13. Dirauena ordea azqueneraño, au izango da salbatua.

14. Eta izango da predicatua erreinuco ebanjelio au mundu gucian, aguiritzat jende gucientzat: eta orduan etorrico da azquena.

15. Icustco dezutenean bada toqui santuan dagoala galdumeneco nasca, esana izan zana Daniel profetaren bitartez: iracurtzen duenac, adi beza.

16. Orduan Jndean daudenac, igues eguin bezate mendietara:

17. Eta tellatuan dagoana, ez bedi jachi artzera cerbait bere echetican:

18. Eta landan dagoana, ez bedi biurtu artzera bere tnnica.

19. ¡Baña ai aurdun daudenen, eta aurrac acitzen dituztenen zorigaiztocoac egun ayetan!

20. Erregutu ezazute bada, zuen iguestea ez dedin eguin neguan, edo larumbatean.

21. Izango da ecen orduan atsecabe aundia, nolacoa izao etzan munduaren asieratic onaraño, eta ez da izango ere.

22. Eta laburtuac izango ez balirade egun

119

ayec, ez litzateque salbatua izango araguiric batere: baña autuac gatic izango dirade laburtuac egun ayec.

23. Orduan iñorc esango balizute: Beguira, Cristoa dago emen, edo an: etzayozute sinistu.

24. Jaiquico dirade ecen Cristo guezurrezcoac, eta profeta guezurrezcoac: eta emango dituzte siñale aundiac, eta mirariac, alaco moduan non (al balitza) guezurra sinistueracico liozcaque autuai ere.

25. Ona non lenagotic esan dizutet.

26. Esango balizuteque: Ona emen eremuan dago, etzaitezte irten: ona non dagoan echeco toquiric ezcutucnean, etzaizquiezute sinistu.

27. Ceren nola chimista ateratzen dan sortaldetic, eta aguiri dan sartalderañotic: ala izango da guizonaren Semearen etorrera ere.

28. Non nai dagoala gorputza, an bilduco dira arranoac ere.

29. Eta egun ayen atsecabearen ondoan

v. 24.—Au da, bizturic Jesus, cein dan gorputza, santuenac ere bizturic eta berriztaturic arranoac becela, inguratuco dutela. S. Hilar.

120

bereala eguzquia illunduco da, eta illarguiac ez du emango bere arguia, eta izarrac erorico dira cerutic, eta ceruco birtuteac izango dira muguituac:

30. Eta orduan aguertuco da guizonaren Semeareo siñalea ceruan: eta orduan negarrez egongo dira, eta osca arico dirade lurreco leñu guciac: eta icusico dute guizonareu Semea datorrela ceruco odeyetan al aundiarequin, eta andientzarequin.

31. Eta bidalduco ditu bere aingueruac trompetarequin, eta boz aundiarequin: eta bilduco dituzte bere autatuac lau aicetatic, ceruen gorenetatic beren muguetaraño.

32. Pico ondotican bada icasi ezazute idu-ripena: bere adarra beraa danean eta ostoac jayoac, badaquizute aldean dala uda:

33. Ala zuec ere icusten dituzutenean oyec guciac, jaquin ezazute aldean dala ateetan.

34. Eguiaz esaten dizutet, ez dala iragoco guizaldi au, oyec guciac eguiñac izan ditezten bitartean.

35. Cerua eta lurra iragoco dira, nere itzac ordea ez dira iragoco.

36. Egun aren gañean berriz eta ordua-

121

ren gañean iñore ez daqui, ez da ceruetaco ainguerac ere, baicican Aitac bacarric.

37. Nola bada Noeren egunetan, ala izango da guizonaren Semearen etorrera cre.

38. Nola ecen ceuden ugoldea baño lenagoco egunetan jaten zutela eta edaten zutela, ezcontzen cirala eta ezcontzaraco emanac cirala, Noe arcan sartu zan egun artaraño,

39. Eta etzuten ezagutu ugoldea etorri zan arteraño, eta eraman cituen guciac: ala izango da guizonaren Semearen etorrera ere.

40. Orduan bi egoogo dirade landan: bata izango da artua, eta bestea izango da utzia.

41. Bi emacume arico dira eotzen errotan: bata izango da artua, eta bestea izango da utzia.

42. Zaudete bada esnai, ceren ez daquizute cer ordutan zuen Jauna etorrico dan.

43. Au bada jaquin ezazute, baldin echeco jaunac balequi cer ordutan lapurra etorrico dan, esnai egongo liteque nosqui, eta ez luque utzico zulatua izaten bere echea.

44. Argatic zuec ere zaudete guertuac: ceren ez daquizuten orduan, guizonaren Semea etorrico da.

122

45. ¿Ceñ, uste dezu, dala morroi leyal, eta zurra, bere jaunac ipiñi zuena bere familiaren gañean, eman diozaten jaten demboran?

46. Doatsua morroi ura, ceña datorrenean bere jauna, arquitzen duen ala eguiten duela.

47. Eguiaz esaten diztet, bere ondasun gucien gañean ipiñico du.

48. Esango baln ordea morroi gaizto arc bere biotzean: Berantzen zayo nere jaunari etortzea:

49. Eta asico balitza jotzen bere morroi lagunac, eta jaten eta edaten ordiaquin:

50. Etorrico da morroi aren jauna, ichedoten ez dion egunean, eta ez daquian orduan:

51. Eta quenduco du, eta bere partea ipiñico du ipocritaquin. An izango da negarra, eta ortz carrascotsa.

OGUEITABOSGARREN CAPITULUA.

ORDUAN izango da ceruetaco erreinua amar birjiñen antzecoa, ceñac artzen eituztela beren arguiontziac irten ciran ezcomberriai bidera.

123

2. Beretatic bost bada ciran eroac, eta bost zurrac:

3. Baña bost eroac, artzen cituztela arguiontziac, etzuten artu olioa berequin:

4. Zurrac berriz artu zuten olioa beren ontzietan arguiontziaquiu.

5. Beranduturic bada ezcomberriaren etorrera, lo galetu ciran guciac eta loac artu cituzten.

6. Gan erdian berriz deadarra aditu zan: Ona emen ezcomberria dator, irten zaiquizquiote bidera.

7. Orduan jaiqui ciran birjiña guci ayec, eta apaindu cituzten bereo arguiootziac.

8. Eroac berriz zurrai esan cioten: Iguzute zuen oliotican: ceren gure arguiontziac itzaltzen dirade.

9. Erantzun zuten zurrac, esaten zutela: Ustecabean asco izao ez dedin guretzat eta zuentzat, zoazte saltzalletara, eta erosi ezazutc zoentzat.

10. Erostera cijoacen bitartean berriz, etorri zan ezcomberria: eta guerturic ceudenac sartu ciran berarequin eztayetara, eta ichia izan zan atea.

124

11. Azquenean berriz badatoz beste birjiñac ere, esaten dutela: Jauna, Jauna, idiqui zaguzu.

12. Eta berac erantzunaz esan zuen: Eguiaz esaten dizutet, etzaituztet ezagutzen.

13. Zaudete bada esnai, ceren ez daquizute eguna, ez ordua.

14. Ceren nola guizon urrutiraco irtetzen danac, deitn cituen bere morroyac, eta eman cizquioten bere oudasunac.

15. Eta bati eman cizqnion bost talentu, besteari berriz bi, besteari ordea bat, bacoitzari bere indarraren araura, eta irten zan bereala.

16. Joan zan bada bost talentu artu cituena, eta asi zan saldu erosian beraquin, eta irabaci cituen beste bost.

17. Orobat bi artu cituenac ere, irabaci cituen beste bi.

18. Bat artu zueoac berriz, joanie aitzurtu zuen lurrean, eta gorde zuen bere jaunaren dirua.

19. Dembora aseoren buruan berriz etorri zan morroi ayen jauna, eta eguin cituen contuac beraquio.

20. Eta alderaturic bost talentu artu ci-

125

tuena, esqueñi cizquion beste bost talentu, esaten ciola: Jauna, bost talentu eman ciñizquidan, ona emen beste bost ayez gañera irabaci ditut.

21. Esan cion bere jaunac: Ederqui, morroi ona eta leyala, guchian leyala izan ceralaco, ascoren gañean ipiñico zaitut, sartu zaite zure jaunaren pocean.

22. Alderatu zan bada bi talentu artu cituena ere, eta esan cion: Jauna, bi talentu eman ciñizquidan, ona emen beste bi irabaci ditut.

23. Esan cion bere Jaunac: Ederqui, morroi ona eta leyala, guchian izan ceralaco leyala, ascoren gañean ipiñico zaitut, sartu zaite zure jaunaren pocean.

24. Alderatzen zala bada talentu bat artu zuena ere, esan cion: Jauna, nic daquit guizon zorrotza cerala, itaitzen dezu ereñ etcenduen lecuan, eta biltzen dezu barreatu ez dezun lecuan:

25. Eta beldur izanic joan nintzan, eta ezcutatu nuen zure talentu lurrean: ona emen non dezun zurea dana.

26. Eta erantzunaz bere jaunac, esan cion:

126

Morroi gaiztoa, eta alperra, baequien ic itaitzen dicadala ereintzen ez dicadan lecuan, eta biltzen dicadala barreatu ez dicadan lecuan:

27. Bear uen bada eman ere dirua irabacian, eta ni etortzen niñoanean artuco nican eguiaz nerea decana irabazgoyarequin.

28. Quendu zayozute bada talentua, eta eman zayozute amar talentu dituenari.

29. Ceren duen guciari emango zayo, eta izaogo du ugariago: ez duenari ordea, duela uste duena ere, izango zayo queudua.

30. Eta morroi gauza eza bota ezazute campoco illunetara: an izango da negarra, eta ortz carrascotsa.

31. Datorrenean bada guizonaren Semea bere aunditasunean, eta aingueru guciac berarequin, orduan eserico da bere aunditasuneco alquian:

32. Eta bilduac izango dira bere aurrean jende guciac, eta banacatuco ditu elcargandican, artzayac banacatzen dituen becela ardiac anchumeac gandic:

33. Eta ipiñico ditu ardiac eguiaz bere escuyetatic, anchumeac ordea ezquerretatic.

34. Orduan esango diote erreguec bere

127

escuyetatic egongo diranai: Atozte, nere Aitaren bendeicatuoc, artu ezazute munduaren asieratic zuentzat prestatuta dagoan erreinua.

35. Ceren gose nintzan, eta eman ciñidaten jaten: egarri nintzan, eta eman ciñidaten edaten: arrotza nintzan, eta echean artu ninduzuten:

36. Billuza nengoan, eta estali ninduznten: gaixo nintzan, eta icusi ninduzuten: ichian nengoan, eta icustera etorri cintzazquidaten.

37. Orduan erantzungo diote onac, esaten diotela: Jauna, ¿noiz icusi cindugun gosetua, eta eman guiñizun jaten: egarritua, eta eman guiñizun edaria?

38. ¿Eta noiz icusi cindugun arrotza, eta echean artu cindugun: edo billuza, eta estali cindugun?

39. ¿Edo noiz cindugun gaixoa, edo ichian, eta etorri guiñan zure gana?

40. Eta erantzunaz erreguec, esango diote: Eguiaz esaten dizutet, nere anaya chiquien oyetatic bati eguin ciñiotena, niri eguin ciñidaten.

41. Orduan esango diote ezquerretatic egongn diranai: Zoazte ni gandic, madaricatuoc, betico sutara, prestatuta dagoanera deabruarentzat, eta bere ainguruentzat.

128

42. Ceren gose nintzan, eta etziñidaten eman jaten: egarri nintzan, eta etziñidaten eman edaten:

43. Arrotza nintzan, eta ez ninduzuten echean artu: billuza nengoan, eta ez ninduzuten estali: eri, eta ichian, eta ez ninduzuten icusi.

44. Orduan erantzungo diote berac ere, esaten dutela: Jauna, ¿noiz icusi cindugun gosetua, edo egarritua, edo arrotza, edo billnza, edo eri, edo ichian, eta ez guiñizun lagundu?

45. Orduao erantzungo diote, esaten diotela: Eguiaz esaten dizutet: Chiquicho oyetatican bati eguin etziñiotenean, niri ere etziñidaten eguin.

46. Eta joango dirade oyec betico oñacera: onac berriz betico bicitzara.

OGUEITASEIGARREN CAPITULUA.

ETA guertatu zan, acabaturic Jesusec itzaldi guci oyec, esan cioten bere icasleai:

129

2. Badaquizute bi egunen buruan Pascoa eguingo dala, eta guizonaren Semea saldua izango da gurutzean josia izateco.

3. Orduan bildu ciran apaiz buruac, eta errico zarrac apaiz nagusiaren, Caifas ceritzanaren atarian:

4. Eta biltzarrea eguin zuten Jesus engañuz arrapatzeco, eta iltzeco.

5. Esaten zuten ordea: Ez jai egunean, arazoaren bat errian atera ez dedin.

6. Cegoala berriz Jesus Betanian Simon leguenartiaren echean,

7. Alderatu zan bera gana emacume bat zuela alabastrozco ontzi bat oquendu baliotsuz betea, eta isuri zuen bere buruaren etziñic cegoanaren gañean.

8. Icusiric ordea icasleac, aserretu ciran, esaten zutela: ¿Certaraco galtzapen au?

9. Ceren saldua izan citequean au garesti, eta emana escalcai.

10. Jaquiñic ordea Jesusec, esan cioten: ¿Cergatic atsecabea ematen diozute emacume oni? Eguite ona ecen eguin du neregan.

11. Ceren beti dituzute escaleac zuequin: ni ordea beti ez nazute.

130

12. Isuriric ecen onec oquendu au nere gorputzean, ni obiratzeco eguin du.

13. Eguiaz esaten dizutet, non nai predicatua izan dedilla ebanjelio au mundu gucian, esango da ere onec eguin duena bere oroipenean.

14. Orduan joan zan amabietatic bat, Judas Iscariotes ceritzana apaizen buruac gana:

15. Eta esan cioten: ¿Cer nai didazute eman, eta nic salduco dizutet? Eta berac esqueñi ciozcaten oguei ta amar diru cillarrezco.

16. Eta gueroztic billatzen zuen mugona bera escuratzeco.

17. Legami gabeco oguien lembicico egunean berriz, alderatu ciran icasleac Jesusen gana, esaten ciotela: ¿Non nai dezu guertutu dezazugun jateco Pascoa?

18. Eta Jesusec esan cioten: Zoazte errian urliaren gana, eta esan zayozute: Eracusleac dio: Nere dembora aldean da, zure echean eguiten det Pascoa nere icasleaquin.

19. Eta eguin zuten icasleac Jesusec aguindu cioten becela, eta prestatu zuten Pascoa.

20. Etorriric bada arratsa, cegoen eserita mayean bere amabi icasleaquin.

131

21. Eta berac jaten ari ciradela, esan cioten: Eguiaz esaten dizutet, zuetatic batec salduco nauela.

22. Eta chit atsecabeturic, asi zan bacoitza esaten: ¿Ni ote naiz, Jauna?

23. Eta berac erantzunaz, esan zuen: Sartzeu ducnac nerequin escua plateran, onec salduco nau.

24. Guizonaren Semea badijoa eguiaz, bera gatic escribatua dan becela: baña doacabea guizon arena, ceñac saldua izango dan guizonaren Semea: obe izango citzayon, jayo ez balitza guizon ura.

25. Eta erantzunaz Judasec, ceñac saldu zuen, esan cion: ¿Ni ote naiz Eracuslea? Esan cion Jesusec: Zuc esan dezu.

26. Afaltzen ari cirala bada berac, artu zuen Jesusec oguia, eta bedeincatu zuen, eta ebaqui zuen, eta eman cien bere icasleai, esanaz: Artu, eta jan ezazute: au da nere gorputza.

27. Eta arturic caliza esquerrac eman

v. 25.—Zuc esan dezu—Judasen artean adirazten zuten Bai, ala da. Duhamel.

132

cituen, eta eman cioten, esanaz: Edan ezazute emendican gucioc.

28. Au da ecen testamentu berrico nere odola, asco gatic isuria izango dana becatuen barcacioraco.

29. Esaten dizutet berriz: Ez det edango oraindandic matsaren frutu onetatic egun artaraño, edango dedaneraño zuequin berria nere Aitaren erreinuan.

30. Eta esquerrac emanic, irteu ciran Olibeteco mendira.

31. Orduan esateu diote Jesusec: Zuec gucioc oquerreraco bidea artuco dezute nigan, gau onetan. Escribatua da ecen: Joco det artzaya, eta banatuco dira artaldeco ardiac.

32. Piztutzen naicen ondoan ordea, zuec baño lenago joango naiz Galileara.

33. Erantzunaz berriz Pedroc, esan cion: Guciac gaitzeraco bidea artuco balute ere zugan, nic iñoiz ez det gaitz bideric artuco.

34. Esan cion Jesusec: Eguiaz esaten dizut, gau onetan ollarrac jo baño lenago, iru aldiz ucatuco nazula.

35. Esan cion Pedroc: Zurequin il bear banu ere, etzaitut ucatuco. Orobat beste icasleac ere esan zuten.

133

36. Orduan etorri zan Jesus beraquin, Jetsemani deritzan baratzera, eta esan cioten bere icasleai: Eseri zaitezte emen ara joan, eta erregutu dezadan bitartean.

37. Eta arturic Pedro, eta Zebedeoreu bi semeac, asi zan goibeltzen, eta antsiatua egoten.

38. Orduan esan cioten: Goibel da nere anima il arteraño: zaudete emen, eta esnai egon zaitezte nerequin.

39. Eta joanic aurreraxeago, auzpeztu zan bere arpeguiaren gañean, otoitz eguiten, eta esaten zuela: Nere Aita, al baldin bada, irago bedi ni gandic caliz au; alaere ez nic nai dedan becela, baicic zuc becela.

40. Eta etorri zan bere icasleac gana, eta arquitu cituen lo cetzatela, eta esaten dio Pedrori: ¿Onela ecin izan cerate ordu batean esnai egon nerequin?

41. Zaudete esnai, eta erregutu ezazute sartu etzaitezten tentacioan. Espiritua eguiaz prest dago, baña araguia argala.

42. Berriz bigarren aldiz joan zan, eta erregutu zuen, esanaz: Nere Aita, ecin baditeque irago caliz au nic edan gabe, eguin bedi zure boroudatea.

134

43. Eta etorri zan berriz, eta arquitu cituen lo cetzatela: ceren ceuden beren beguiac pisuac.

44. Eta utziric ayec, berriz joan zan, eta erregutu zuen irugarrenez, itz ayec berac esanaz.

45. Orduan etorri zan bere icasleac gana, eta esaten diote: Lo eguin zazute ouezquero, eta ateeden zazute: ona emen alderatu da ordua, eta guizonaren Semea ipiñia izango da becatarien escuetan.

46. Ots jaiqui zaitezte, goacen: ona emen alderatu da etsayen escuetan ipiñicn nauena.

47. Oraindic bera izquetan ari zala, ona emen Judas amabietatic bat etorri zan, eta berarequin jende talde asco ezpataquin eta maquillaquin, apaicen buruac, eta errico zarrac bidalduac.

48. Saldu zuenac berriz, eman cioten siñalea, esanaz: Musu ematen diodan edoceñ, ura da, eldu zayozute.

49. Eta bereala alderaturic Jesusen gana, esan cion: Agur, Eracuslea. Eta musu eman cion.

50. Eta esan cion Jesusec: ¿Adisquidea,

135

certara etorri cera? Orduan alderatu ciran, eta escuac ezarri ciozcaten Jesusi, eta eldu cioten.

51. Eta ona non Jesusequin ceudenetatic batec, luceturic escua, atera zuen bere ezpata, eta zaurituric apaiz nagusiaren morroya ebaqui cion bere belarria.

52. Orduan esan cion Jesusec: Biur zazu zure ezpata bere toquira: ceren ezpata artzen duten guciac, ezpataz galduco dirade.

53. ¿Uste al dezu, ecin dizayoquedala erregutu nere Aitari, eta emango dizquidala orainche ainguruzco amabi talde baño gueyago?

54. ¿Nola bada beteac izango dirade Escriturac, onela eguiñac izan bear dutela?

55. Ordu artan esan cioten Jesusec jende taldeai: Lapur baten gana bezala atera cerate ezpataquin eta maquillaquin ni arrapatzera: egunero nengoan eserita zuen artean eracusten elizan, eta etziñidaten escuric ezarri.

56. Au gucia bada izan zan eguiña, beteac izan citezten profeten Escriturac. Orduan icasle guciac, utziric bera, igues eguin zuten.

57. Eta berac ceucatela Jesus, eraman

136

zuten Caifas apaiz nagusiaren gana, non Escribac eta zarrac bildu izan ciran.

58. Pedroc berriz jarraitzen cion urrutitic, apaiz nagusiaren atarirafio. Eta sarturic barrena, cegoan eserita morroyaquin, icusteco azquena.

59. Apaiz nagusiac berriz, eta biltzarre guciac billatzen zuten lecucotasun guezurrezcoa Jesusen contra, emateco bera eriotzeraco:

60. Eta etzuten arquitu, alderatu arren lecuco guezurrezco asco. Azquenean ordea etorri ciran bi lecuco guezurrezco,

61. Eta esan zuten: Onec esan zueu: Arrasatu dezaquet Jaincoaren eliza, eta iru egunen buruan berriz eguin.

62. Eta jaiquiric apaiz nagusia, esan cion: ¿Ez dezu ecer erantzuten oyec zure contra esaten dituzten gaucetara?

63. Jesus ordea ixillic cegoan. Eta apaicen nagusiac esan cion: Otoitz menatzen zaitut Jaioco biciaren icenean, esan zaguzula zu ceran Cristo Jaungoico biciaren Semea.

64. Esaten dio Jesusec: Zuc esan dezu. Baita ere esaten diztet, emendic guchi batera icusico dezute guizonaren Semea eseria Jaun-

137

goico indartsuaren escuyetatic, eta datorrela ceruco odeyetan.

65. Orduan apaicen nagusiac arrascatu cituen bere soñecoac, esaten zuela: Añenecoa bota du. ¿Onezquero lecucoen cer premia degu? Ona emen non orain aditu dezuten añenecoa:

66. ¿Cer deritzazute? Eta berac erantzuten zutela esan zuten: Eriotzaren obendun da.

67. Orduan chistua bota cioten bere arpeguira, eta ucabillaquin jo zuten, besteac berriz masallecoac bere arpeguian eman ciozcaten.

68. Esaten zutela: Asma zaguc, Cristo, ¿nor dec jo aucana?

69. Pedro berriz cegoan eserita campoan atarian: eta alderatu zan bera gana nescame bat, esaten ciola: Zu ere Jesus Galileacoarequin ciñan.

70. Baña berac ucatu zuen gucien aurrean, esanaz: Ez daquiñat cer esaten denan.

71. Irteoic ordea ura atera, icusi zuen beste nescame batec, eta esaten cioten an cendenai: An ere cegnan Jesus Nazaretcoarequin.

138

72. Eta berriz ucatu zuen ciñarequin: Ez dedala ezagutzen alaco guizonic.

73. Eta dembora labur baten buruan alderatu ciran an zutic ceudenac, eta esan cioten Pedrori: Eguiaz zu ere ayetacoa cera: ceren zure izquetac ere aguertzen zaitu.

74. Orduan asi zan birauca eta cinca, etzuela ezagutzen alaco guizonic. Eta bereala ollarrac jo zuen.

75. Eta oroitu zan Pedro Jesusen itzarequin, esan cionarequin: Ollarrac jo baño lenago, iru bider ucatuco nazu. Eta irtenic campora, negar eguin zuen saminquiro.

OGUEITAZAZPIGARREN CAPITULUA.

ETA etorriric goiza, batzarrea eguin zuten apaicen nagusi gueiac, eta errico zarrac Jesusen contra, bera eriotzera emateco.

2. Eta loturic eraman zuten, eta eman cioten Poncio Pilato Judeaco aguintariari.

3. Orduan icusiric Judasec, saldu zuenac,

v. 3.—Damuturic—Judasen damua etzan izan ona, ceren etzion lagun du icharopenac. S. Agust.

139

izan zala condenatua; damuturic, biurtu ciezten oguei ta amar diruac apaicen buruai, eta zarrai,

4. Esanaz: Becatu eguin det, salduaz odol oben gabea. Eta berac esan cioten: ¿Cer guri? Erorrec icusi ezac.

5. Eta botaric cillar diruac elizan, alde eguin zuen, eta joanic urcatu zan.

6. Apaiceu nagusiac ordea, arturic cillarrezco diruac, esan zuten: Ez da cillegui botatzea berac elizdiru toquira: ceren odolaren saria da.

7. Eta elcar adituric, erosi zuten beraquin eltzeguille baten soroa, lurpetzeco arroztac.

8. Argatic deitu citzayon soro ari, Haceldama, au da, odol soroa, gaurco egunerano.

9. Orduan betca izandu zan esana izandu zana Jeremias profetaren bitartez, ceñac esaten duen: Eta artu cituzten oguei ta amar diru cillarrezco saldua izan zanaren saria, ceña izan zan Israelco semeac esqueñia:

10. Eta eman cituzten eltzeguillearen soroa gatic, Jaunac aguindu cidan bezala.

11. Jesus bada izan zan eramana Judeaco

140

aguintariaren aurrera, eta galdetu cion aguintariac, esanaz: ¿Zu cera Juduen Erreguea? Esaten dio Jesusec: Zuc diozu.

12. Eta izanic apaicen buruac, eta zarrac salatua, etzuen ecer erantzun.

13. Orduan esaten dio Pilatoc: ¿Ez dezu aditzen cembat lecucotasun esaten dituzten zure contra?

14. Eta etzion erantzun itz bat ere, alaco modutan nnn andizqui arritu zan aguintaria.

15. Egun andian bada oituta cegoan Judeaco aguintaria erriari ascatatuta ematera, berac nai zuten, lotuta cegoan bat.

16. Ceucan bada orduan lotuta ospetsu bat, Barrabas ceritzana.

17. Bilduric bada ayec, esan cioten Pilatoc: ¿Ceñ nai dezute ascatu dizazutedan? ¿Barrabas, ala Jesus, deritzana Cristo?

18. Bacequien ecen becaitza gatic eraman ciotela.

19. Cegoala bada esertoquian, bidaldu zuen bera gana bere emazteac, esanaz: Ez guero justu orrequin eguinquizunic artu: bada gaur ametsetan gauza asco burura orren gatic etorri zaizquit.

141

20. Apaicen buruac ordea, eta zarrac ganeraci cituzten erriac escatzeco Barrabas, Jesus berriz galtzeco.

21. Erantzunaz ordea aguintariac, esan cioten: ¿Bietatic ceñ nai dezute eman dizazutedan? Eta berac esan zuten: Barrabas.

22. Esaten diote Pilatoc: ¿Cer eguingo det bada Jesus, Cristo deritzanarequin?

23. Diote guciac: Gurutziltzatua izan bedi: Esan cioten aguintariac: ¿Baña cer gaitz eguio du? Eta berac gueyago deadar eguiten zuten, esaten zutela: Gurutziltzatua izan bedi.

24. Icusiric bada Pilatoc etzuela ecer aurreratzen, baicic gueyagotuaz cijoala arazoa, arturic ura, garbitu cituen escuac erriaren aurrean, esanaz: Cutsutu gabea naiz ni obenic gabeco onen odolean: zuec icusi ezazute.

25. Eta erantzunaz erri guciac, esan zuen: Bere odola gure gañera, eta gure semeen gañera.

26. Orduan ascaturic Barrabas eman cioten: eta azotaturic Jesus eman cioten izan cedin gurutziltzatua.

27. Orduan aguintariaren soldaduac, artzen zutela Jesus, eta eramaten zutela auci guelara, bildu zuten bera gana tropa gucia:

142

28. Eta billuzten zutela granazco mantu bat jantzi cioten,

29. Eta eotzen zutela coroa bat arantzaquin, ipiñi cioten bere buruaren gañean, eta cañabera bat bere escuyan. Eta belaunicaturic berareu aurrean, isecatzen zuten, esaten ciotela: Agur, Juduen Erreguea.

30. Eta chistuca jardunic berari, artu zuten cañabera, eta jotzen zuten bere buruan.

31. Eta bera isecatu ezquero, quendu cioten mantua, eta jaotzi zuten bere soñecoaquin, eta eraman zuten gurutziltzatzera.

32. Ateratzen ciradela ordea campora, arquitu zuten guizon bat Cirenearra, icenez Simon: oni artu eraguin cioten Jesusen gurutzea.

33. Eta etorri ciran Golgota deritzan toqui batera, ceña dan Buruezur toquia.

34. Eta eman cioten edaten ardoa beazunarequin nastua. Eta dastaturic, etzuen nai izan edan.

35. Eta bera gurutziltzatu ezquero, berecitu cituzten bere soñecoac, suertea botatzen

v. 34.—Edari au zan centzunac concortzeco, eta onela penac ez sentitzeco: orregatic etzuen edan Jesusec. Natal. Alex.

143

zutela : betea izan cedin esana izan zana profetaren bitartez, ceñac esaten duen : Berecitu cituzten beren artean nere soñecoac, eta nere soñecoaren gañean bota zuten suertea.

36. Eta escriac ceudela, gordetzen zuten.

37. Eta ipiñi zuten bere buruaren gañean bere causa escribaturic : AU DA JESUS JUDUEN ERREGUEA.

38. Eta orduan gurutziltzatuac izan ciran berarequin bi lapur : bata escuyetatic, bestea ezquerretatic.

39. Eta andic iragotzen ciranac irraintzen zuten ecrabiltzatela beren buruac,

40. Eta esaten zutela : Adizac, Jaincoaren eliza arrasatu, eta iru egunean berriz eguiten decan orrec : ere burua libratu ezac : Jaincoaren Semea baaiz, jechi adi gurutzetic.

41. Berebat apaicen buruac ere burlatzen ciotela Escribaquin, eta zarraquin, esaten zuten :

42. Besteac libratu cizquian, bera ecin dec libratu : Israelco erregue badec, jechi ceadilla orain gurutzetic, eta sinistuco cioagu :

43. Jaungoicoagan cican ustea, libratu dezacala orain, maite badic : ceren esan cican : Jaungoicoaren Semea naiz.

144

44. Eta berarequin gurutziltzatuta ceuden lapurrac erc, orobat iseeatzen zuten.

45. Seigarren ordutic berriz izan ciran illunac lur guciaren gañean bederatzigarren oduraño.

46. Eta bederatzigarren ordua alderatu zanean deadar eguin zuen Jesusec boz andi batequin, esanaz : Eli, Eli, ¿ lamma sabacthani ? au da : Nere Jaincoa, nere Jaincoa, ¿ cergatic utzi uazu ?

47. An ceuden batzuec bada, au adituric, esaten zuten : Eliasi deitzen cioc onec.

48. Eta bereala corrica joanic beretatic batec, artu zuen esponja bat, bete zuen ozpiñez, eta ipiñi zuen cañabera baten erpiñean, eta ematen cion edaten.

49. Besteac berriz esaten zuten : Utz, icusi dezagun ote datorren Elias bera libratzera.

50. Jesusec ordea berriz deadar eguiñic boz aundi batequin, eman zuen azquenengo asnasa.

51. Eta ona emen non elizaco oyala urratu

145

zan bi zatitan goyenetic beeraño, eta lurra dardaratu zan, eta arriac zarracatu ciran,

52. Eta obiac idiqui ciran: eta illac ciradeu santu ascoren gorputzac, piztu ciran.

53. Eta ateratzen ciradela obictatic, beren pizte berriaren ondoren, etorri ciran erri santura, eta aguertu citzayezten ascori.

54. Euntaria berriz, eta berarequin ceudenac zaitzen Jesus, icusiric lur dardara eta iragotzen ciran gauzac, beldurtu ciran andizqui, esaten zutela: Eguiaz Jaungoicoaren Semea zan au.

55. Ceuden berriz an emacume asco, jarraitu ciotenac Jesusi Galileatic, serbitzen zutela:

56. Ceñen artean cegoan Maria Madalena, eta Maria Santiagoren, eta Joseren ama, eta Zebedeoren semeen ama.

57. Allegaturic bada arratsa, etorri zan guizon aberats bat Arimateacoa, ceritzana Jose, ceña ere zan Jesusen icaslea.

58. Au joan zan Pilatoren gana, eta escatu cion Jesusen gorputza. Orduan Pilatoc aguindu zuen emana izan cequiola gorputza.

59. Eta arturic gorputza, Josec bildu zuen maindire garbi batean.

146

60. Eta ipiñi zuen bere obia berri, arri bician idiquieraci zuenean. Eta estali zuen arlosa anudi batequin obiaren sarrera, eta joan zan.

61. Cegoan berriz an Maria Madalena, eta beste Maria, eseriac obiaren aurrean.

62. Beste egunean berriz, ceña dan Prestaeraco egunari darraicana, bildu ciran apaiz buruac, eta Fariseoac, eta joan ciran Pilatoren gana.

63. Ciotela: Jauna, oroitzen guera, guezurti arc esan zuela oraindican biciric cegoala: Iru egunen buruan biztuco naiz.

64. Aguindu ezazu bada zaitua izan dedilla obia irugarren eguneraño: benturan etorri ez ditezten bere icasleac, eta ostu ez dezaten, eta esan ez dizayoten jendeari: Biztu zan illen artetic: eta izango da azqneneco utseguitea gaiztoagoa lembicicoa baño.

65. Esan cioten Pilatoc: Badituzute gordetzalleac, zoazte, gorde ezazute daquizuten becela.

66. Berac berriz joaten ciradela, ingurutu zuten obia, silluturic arria, gordetzalleaquin.

147

OGUEITAZORTZIGARREN CAPITULUA.

LARUMBATAREN arratsaldean bada, beste astearen lembicico egunareu egun sentian, etorri ciran Maria Madalena, eta beste Maria, icustera obia.

2. Eta ona emen non lurricara andi bat eguin izan zan. Ceren Jaunaren ainguerua jechi zan cerutic: eta alderaturic iranli zuen arlosa, eta cegoen eserita bere gañean:

3. Zan berriz bere arpeguia chimista becelacoa, eta bere soñecoa elurra becelacoa.

4. Bere beldurraz berriz izutu ciraden gordetzallcac, cta illac becelatu ciran.

5. Eta asiric izquetan ainguerua, esao cioten emacumeai: Ez ezazute beldurric iduqui zuec: badaquit ecen Jesus, gurutziltzatua izan zana, billatzen dezutela:

6. Ez dago emen: piztu da ecen, esan zuen becela. Atozte, eta icusi ezazute toquia, non izan zan ipiñia Jauna.

7. Eta laster joaten ceratela esan zayozute bere icasleai piztn dala: eta ona emen non dijoan zuen aurretican Galileara: an

148

icusico dezute. Ona emen non lenagotican esan dizutedan.

8. Eta atera ciraden bereala obitican beldur, eta poz aundiarequin, corrica cijoacela adiraztera bere icasleai.

9. Eta ona emen non Jesus bidera irten citzayoteo, esanaz: Jaungoicoac gorde zaitzatela. Ayec berriz alderatu ciran, eta eldu cioten bere oñetatic, eta adoratu zuten.

10. Orduan esan cioten Jesusec: Etzaitezte beldur izan. Zoazte, eta ezayeznte nere anayai dijoacela Galileara, an icusico naute.

11. Emacume ayec joan ciradenean, ona emen non gordetzalletatic batzuec etorri ciran errira, eta adierazo cizquioten apaicen buruai guertatu ciraden gauza guciac.

12. Eta bilduric zarraquin elcar adituric, dirutze aundi bat eman cioten soldaduai,

13. Esaten cietela: Esan zazute bere icasleac etorri cirala gauez, eta ostn zutela, gu lotan gueundela.

14. Eta aguintariac aditua izango balitza au, guc sinistu eraguingo diogu, eta zaituco zaituztegu.

15. Eta ayec, arturic dirua, eguin zuten

149

eracutsiac izan ciran becela. Eta barreatu zan itz au Juduen artean, gaurco egunerafio.

16. Amaica icasleac bada joan ciran Galileara, Jesusec aguindu cioten mendira.

17. Eta icusi zutenean adoratu zuteu: bafia batzuec zalantzan ceuden.

18. Eta alderaturic Jesus itz eguin cioten, esanaz: Emana izan zait escubide gucia ceruan eta lurrean.

19. Joaten ecratela bada eman zayozcatzute eracutsiac jende guciai: batayatzen dituzutela Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu santuaren icenean.

20. Eracusten dieztezutela, gordetzen aguindu dizquizutedan gauza guciac: eta ona emen non ni zuequin nagoan egun gucietan, mnnduaren azqucnerafio.

ERRATAS.

Página	Línea.	Dice.	Léase.
9	10	nuen	nion
17	16	daramazquitenac	daramatenac
26	20	et zuen	ez zuen
32	5	eta adoratzen	adoratzen
81	4	asi	ari
82	22	cion	esan cion
125	23	talentu	talentua
127	2	bendeicatuoc	bedeicatuoc
.....	18	cindugun	icusi cindugun
139	14	arro-	arro-
.....	15	ztac	tzac

I CERTIFY that this book was printed by me in the house of His Highness the Prince Louis-Lucien Bonaparte, and that the number of copies impressed amounted to twenty-five, which are numbered, with the exception of two, one of which is printed on larger and stouter paper.

April, 1858. W. H. BILLING.

BIBLIA EDO TESTAMENTU ZAR ETA BERRIA

(Genesis, Exodo, Levitico)

Jose Antonio Uriarte
Gipuzkeraz

Londres
1859

Originala: «Azkue Biblioteka» - Euskaltzaindia

BIBLIA

EDO

TESTAMENTU ZAR ETA BERRIA

AITA FRAY JOSÉ ANTONIO DE URIARTEC

LATIÑEZCO VULGATATIC LEMBICICO ALDIZ

GUIPUZCOACO EUSCARARA ITZULIA.

LUIS-LUCIANO BONAPARTE PRINCIPEAC

ETA DON JOSÉ ANTONIO DE AZPIAZU GUIPUZCOATARRAC

LAGUNDURIC.

Londresen.

1859.

GENESISCO LIBURUA.

I. Cap.

ASIERAN ecerezetic eguin cituen Jaungoicoac cerua eta lurra.

2 Baña lurra cegoen moldacaitza eta utſa, eta illuntaſunac eſtaltzen zuten leiceco gaña: eta Jaungoicoaren Eſpiritua cebillen uren gañean.

3 Eſan zuen bada Jaungoicoac: Izan bedi eguiña arguia. Eta arguia izan zan eguiña.

4 Eta icuſi zuen Jaungoicoac ona zala arguia: eta berecitu zuen arguia illuntaſunetatican.

5 Eta arguiari deitu cion, Eguna; eta illuntaſunai, Gaua; eta arratſalde eta goizarequin eguin zan lembicico eguna.

6 Eſan ere zuen Jaungoicoac: Eguin bedi firmamentua uren erdian: eta berecitu bitza urac uretatic.

7 Eta eguin zuen Jaungoicoac firmamentua, eta berecitu cituen firmamentuaren azpian ceuden urac, firmamentuaren gañean ceudenetatic. Eta ala eguin zan.

8 Eta firmamentuari deitu cion Jaungoicoac, Cerua: eta arratſalde eta goizarequin eguin zan bigarren eguna.

9 Baitaere eſan zuen Jaungoicoac: Bildu bitez toqui batean ceruaren azpian dauden urac: eta aguertu bedi legorra. Eta ala eguin zan.

10 Eta legorrari deitu cion Jaungoicoac, Lurra, eta uren biltzarreai deitu cien, Itſaſoac. Eta icuſi zuen Jaungoicoac ona zala.

11 Eta eſan zuen: Eman beza lurrac belar berdea eta acia dacarrena, eta zuaitz frutu emalleac, ematen dutenac frutua beren moten araura, eta beren acia beretan izan bedi lurraren gañean. Eta ala eguin zan.

12 Eta eman zuen lurrac belar berdea, eta acia cecarrena bere motaren araura, eta zuaitz frutua cecarrena, eta bacoitzac acia zuena bere motaren araura. Eta icuſi zuen Jaungoicoac ona zala.

13 Eta arratſalde eta goizarequin eguin zan irugarren eguna.

14 Eſan zuen berriz Jaungoicoac: Eguin bitez arguicariac ceruco firmamentuan, berecitzeco eguna gauetic, eta izan ditecen demboren, eta egunen eta urteen ezagungarriac:

15 Diſtia dezaten ceruco firmamentuan, eta arguitu dezaten lurra. Eta ala eguin zan.

16 Eta eguin cituen Jaungoicoac arguicari andi bi: arguicari andiagoa, eguna arguitzeco; eta arguicari chiquiagoa, gaua arguitzeco; eta izarrac.

17 Eta paratu cituen ceruco firmamentuan, diſtia cezaten lurraren gañean,

18 Eta arguitu citzaten eguna eta gaua, eta berecitu cezaten arguia illuntaſunetatican. Eta icuſi zuen Jaungoicoac ona zala.

19 Eta eguin zan arratſalde eta goizarequin laugarren eguna.

20 Eſan ere zuen Jaungoicoac: Eguin bitzate urac anima bicico arraſtacariac, eta egaztiac lurraren gañean ceruco firmamentuaren azpian.

21 Ecerezetic eguin cituen bada Jaungoicoac bale andiac, eta beren moten araura uretan forturicaco anima bicia duten eta muguitzen diran guztiac, eta egazti guztiac beren moten araura. Eta icuſi zuen Jaungoicoac ona zala.

22 Eta bedeincatu cituen Jaungoicoac, eſaten zuela: Aci, eta ugaritu zaitezte, eta bete itzatzute itſaſoco urac: eta ugaritu bitez egaztiac lurraren gañean.

23 Eta arratſalde eta goizarequin eguin zan boſgarren eguna.

24 Eſan zuen ere Jaungoicoac: Eguin bitza lurrac anima bicia bere motan, zamariac, eta arraſtacariac, eta lurreco abereac beren moten araura. Eta ala eguin zan.

25 Eta eguin cituen Jaungoicoac lurreco abereac beren moten araura, eta zamariac, eta lurreco arraſtacari guztiac bere motan. Eta icuſi zuen Jaungoicoac ona zala,

26 Eta eſan zuen: Eguin dezagun guizona gure antz eta irudira: eta aguindu bizaye itſaſoco arrayai, eta ceruco egaztiai, eta abereai, eta lur guztiari, eta lurrean muguitzen dan arraſtacari guztiari.

27 Eta ecerezetic eguin zuen Jaungoicoac guizona bere irudira: Jaungoicoaren irudira eguin zuen: eguin cituen guizasemea eta emacumea.

28 Eta bedeincatu cituen Jaungoicoac, eta esan zuen: Aci, ta ugaritu zaitezte, eta bete ezazute lurra, eta menderatu ezazute, eta aguindu zayezute itsasoco arrayai, eta ceruco egaztiai, eta lurraren gañean muguitzen diraden abere guztiai.

29 Eta Jaungoicoac esan zuen: Ona non eman dizutedan lurraren gañean acia dacarren belar guztia, eta bere motaren acia berengan duten zuaitz guztiac, izan ditecen zuen janaria:

30 Eta lurreco abere guztiac, eta ceruco egazti guztiac, eta lurrean muguitzen diran guztiac, eta ceñetan dan anima bicia idoqui dezaten jateco. Eta ala eguin zan.

31 Eta icusi cituen Jaungoicoac eguin cituen gauza guztiac: eta ciraden chit onac. Eta arratsalde eta goizarequin eguin zan seigarren eguna.

II. Cap.

GUELDITU ciraden bada bucatuac cerua eta lurra, eta beren apainduri guztia.

2 Eta osotu zuen Jaungoicoac zazpigarren egunean bere lan eguin zuena: eta atseden zuen zazpigarrenean eguin cituen lan guztietatican.

3 Eta bedeincatu zuen zazpigarren eguna; eta santutu zuen: ceren beretan utzi cien Jaungoicoac osoz bucatu artean eguin cituen lan guztiai.

4 Au da ceruen eta lurraren jatorria, eguiñac izandu ciranean, Jaun Jaungoicoac eguin cituen egunean cerua eta lurra:

5 Eta campoco landare guztiac lurrean erne baño lenago, eta lurreco belar guztia moteatu baño lenago: ceren oraindican etzuen euriric eguin Jaun Jaungoicoac lurraren gañean; etzan ere guizonic lurra landutzeco:

6 Baña lurretican igotzen zan iturri bat, lurraren gañ guztia erregatzen zuena.

7 Eguin zuen bada Jaun Jaungoicoac guizona lurrezco loyarequin, eta bota cion bere arpeguira bicitzaco aynasa, eta gueldidu zan guizona anima biciarequin.

8 Jarri zuen berriz Jaun Jaungoicoac asieratican gozotasuneco paradisua: ceñean ipiñi zuen eguin zuen guizona.

9 Eta Jaun Jaungoicoac emaneraci cion lurrari zuaitz gucia beguiz ederra, eta jateco gozoa: baitaere bicitzaco zuaitza paradisuaren erdian, eta oneco eta gaitzeco jaquinduriaren zuaitza.

10 Eta ibai bat ateratzen zan gozotasuneco toquitican paradisua erregatzeco, andic lau zati eguiten zana.

11 Batari deritza Fison: au da ingurutzen duena Hevilatco erri guztia, non jayotzen dan urrea.

12 Eta toqui artaco urrea chit ederra da: an arquitzen da bdelioa, eta oniz arria.

13 Eta bigarren ibayaren icena Gehon: au da ingurutzen duena Etiopiaco lur guztia.

14 Irugarren ibayaren icena berriz, Tigris: au dijoa Asirioen alderontz. Eta laugarren ibaya da Eufrates.

15 Eraman zuen bada Jaun Jaungoicoac guizona, eta jarri zuen gozotasuneco paradisuan, landu eta zaitu cezan:

16 Eta aguindu cion esaten ciola: Jan ezazu paradisuco zuaitz gucietatic:

17 Oneco eta gaitzeco jaquinduriaren zuaitzetic ordea ez ezazu jan. Ceren beretatican jaten dezun edoceñ egunean, ilco cera.

18 Esan ere zuen Jaun Jaungoicoac: Ez da ongui guizona bacarric egotea: eguin zayogun bere antzeco laguna.

19 Eguiñic bada Jaun Jaungoicoac lurrarequin lurrecoa abere guztiac, eta ceruco egazti guztiac, eraman cituen Adan gana, icusi cezan cer icen ipiñico cien: ceren Adanec abere bici guztiari ipiñi cion icena, ori da bere icena.

20 Eta deitu cien Adanec beren icenaquin abere guztiai, eta ceruco egazti guztiai, eta lurreco pisti guztiai: Adanentzat ordea etzan arquitzen beraren antzeco lagunic.

21 Argatic Jaun Jaungoicoac lo pisu batean ipiñi zuen Adan: lo onetan cetzala, quendu cion sayets ezur bat, eta bete zuen araguiz onen lecua.

22 Eta eguin zuen Jaun Jaungoicoac emacumea, Adani quendu cion sayets ezur onequin: eta eraman zuen Adan gana.

23 Eta esan zuen Adanec: Au da nere ezurren ezurra, eta nere araguiaren araguia: oni deituco zayo Guizaemea,

ceren Guizaarra gandican izan dan artua.

24 Argatic utzico ditu guizonac bere aita, eta ama, eta itsatsico zayo bere emazteari: eta izango dirade bi aragui batean.

25 Ceuden berriz biac larrugorrian, au da, Adan eta bere emaztea: eta etziran lotsatzen.

III. Cap.

BAÑA suguea zan Jaun Jaungoicoac eguin cituen lurreco abere guztiac baño marrajoagoa. Onec esan cion emacumeari: ¿Cergatic aguindu dizute Jaungoicoac ez dezazutela jan paradisuco zuaitz gucietatic?

2 Ceñi erantzun cion emacumeac: Paradisuan dauden zuaitzetaco frututic, jaten degu:

3 Baña paradisuaren erdian dagoen zuaitzeco frututic, aguindu cigun Jaungoicoac ez jateco, eta uquituric ere berari ez eguiteco, ill ez gaitecen.

4 Esan cion orduan sugueac emacumeari: Iñolaere etzerate illco.

5 Badaqui ecen Jaungoicoac artatic jaten dezuten edoceñ egunean, idiquico diradela zuen beguiac: eta izango cerate jaungoicoac becelacoac, daquizutela ona eta gaitza.

6 Icusi zuen bada emacumeac zuaitza ona zala jateco, eta beguientzat ederra, eta irudiz gozagarria: eta artu zuen bere frututic, eta jan zuen: eta eman cion bere senarrari, ceñac ere jan zuen.

7 Eta zabaldu ciran bien beguiac: eta ezagutu zutenean larrugorrian ceudela, josi cituzten picu ofto batzuec, eta eguin cituzten berentzat mantalac.

8 Eta aditu zutenean Jaun Jaungoicoaren paradisuan cebillenaren boza airean egüerdi oftean, ezcutatu ciran Adan eta bere emaztea Jaun Jaungoicoaren beguietatic paradisuco zuaitzen erdian.

9 Eta deitu cion Jaun Jaungoicoac Adani, eta esan cion: ¿Non cera?

10 Berac erantzun zuen: Aditu det zure boza paradisuan: eta beldur izan naiz, larrugorrian nengoalaco, eta ezcutatu naiz.

11 Ceñari esan cion: ¿Norc bada eracutsi dizu larrugorrian ceundela, baicican jan dezulaco ez jateco aguindu nizun zuaitzetic?

12 Erantzun cion Adanec: Laguntzat eman didazun andreac, eman dit zuaitzetic, eta jan det.

13 Eta esan cion Jaun Jaungoicoac emacumeari: ¿Cergatic au eguin dezu? Berac erantzun cion: Sugueac engañatu nau, eta jan det.

14 Eta esan cion Jaun Jaungoicoac sugueari: Au eguin decalaco, madaricatua izango aiz abere, eta lurreco pisti guztien artean: ire sabelaren gañean ibillico aiz, eta lurra jango dec ire bicico egun guztietan.

15 Neronec ipiñico ceticat etsaitasunac ire eta emacumearen artean, eta ire arrazaren eta aren jatorriaren artean: berac lertuco dic ire burua, eta i ibillico aiz aren orpoaren celatan.

16 Emacumeari ere esan cion: Ugarituco ditut zure nequeac, eta aurguiteco zauden demboraco zure oñaceac: miñez aurrac eguingo dituzu, eta egongo cera guizonaren mendean, eta onec aguinduco dizu.

17 Adani berriz esan cion: Aditu dezulaco zure emaztearen boza, eta jan dezulaco ez jateco aguindu nizun zuaitzetic, madaricatua izan bedi lurra zu gatic: neque andiaquin ateraco dezu bera gandic janaria zure bicitzaco egun guztietan.

18 Arantzac eta sasilarrac emango dizquitzu, eta jango dezu lurreco belarra.

19 Zure arpeguico icerdiarequin jango dezu oguia, itzuli zaitecen bitartean lurrera nondic izan ciñan artua: ceren autsa cera, eta auts biurtuco cera.

20 Eta Adanec bere emazteari ipiñi cion icena da Eva: bici guztien ama izango zalaco.

21 Baitaere eguin ciezten Jaun Jaungoicoac Adani eta bere emazteari larruzco tunicac, eta jantzi ciezten:

22 Eta esan zuen: Ona non Adan eguin dan gu becelaco bat, daquiela ona eta gaitza: orain jaso ez dezan bere escua, eta artu ere ez dezan bicitzaco zuaitzetic, eta jan ez dezan, eta bici ez dedin beti,

23 Bota zuen Jaun Jaungoicoac atseguiñezco paradisutic, landu cezan lurra, ceñetatic izan zan eguiña.

24 Eta bota zuen Adan: eta ipiñi zuen atseguiñezco paradisuaren aurrean Querubin bat suzco ezpata jiracor batequin, bicitzaco zuaitzeraco bidea zaitu cezan.

IV. Cap.

ADANEC ordea ezagutu zuen bere emazte Eva: au aurguiteco jarri zan eta eguin zuen Cain, eſaten zuela: Izan det aurſeme bat Jaungoicoaren graciaz.

2 Eta bigarrenez eguin zuen onen anaya Abel. Abel izan zan artzaya, eta Cain nekazaria.

3 Eta guertatu zan igaroric egun aſco eſqueintzea Cainec Jaunari doayac lurreco frutuetatic.

4 Abelec ere eſqueñi ciozcan bere artaldeco lenenetatic, eta beren guicenenetatic: eta beguiratu cion Jaungoicoac oniritziz Abeli, eta bere eſqueñiai.

5 Caini berriz, eta bere eſqueñiai etzien beguiratu oniritziz: eta chit aſerratu zan Cain, eta jarri zan arpeguia beerontz zuela.

6 Eta eſan cion Jaunac: ¿Cergatic aſerratu cera? ¿eta cergatic zure arpeguia dago beerontz beguira?

7 ¿Ongui eguiten badezu, ez al dezu artuco ordaña? ¿Gaizqui eguiten badezu berriz, ez al da bereala jarrico pecatua zure beguien aurrean? Baña bere naya egongo da zure mendean, eta zuc aguinduco diozu.

8 Eta eſan cion Cainec bere anai Abeli: Goacen campora. Eta campoan ceudela, jaiqui zan Cain bere anai Abelen contra, eta ill zuen.

9 Eta Jaunac eſan cion Caini: ¿Non da Abel zure anaya? Ceñac erantzun zuen: Ez daquit: ¿Nere anayaren gordetzallea al naiz ni?

10 Eta eſan cion Jaunac: ¿Cer eguin dezu? Zure anayaren odola dezdarrez dagoquit lurretic.

11 Orain bada madaricatua izango cera lurraren gañean, ceñac idiqui zuen bere aoa, eta artu zuen zure anayaren odola zure eſcutic.

12 Landutzen dezunean, ez dizquitzu emango bere frutuac: toquiz toqui ta igueſi bicico cera lurraren gañean.

13 Eta eſan cion Cainec Jaunari: Andiagoa da nere gaiztaqueria, barcacioaren diña ni izateco baño.

14 Ona non boratzen nazun gaur lur onetatic, eta ezcutatuco naiz zure beguietatic, eta ibillico naiz toquiz toqui igueſi lurrean: arquitzen nauen edoceñec bada, illco nau.

15 Eta eſan cion Jaunac: Iñolaere ez da ala izango: baicic baldin iñorc illco balu Cain, zazpi bider gueyago caſtigatua izango da. Eta ipiñi cion Jaunac Caini ſeñale bat ill etzezan arquitzen zuenac.

16 Eta ateraric Cain Jaunaren aurretic, bici izan zan igueſi lurrean Edenen ſortaldeco aldamenean.

17 Ezagutu zuen bada Cainec bere emaztea, ceñ aurguiteco jarri zan, eta eguin zuen Enoc: eta eguin zuen erri bat, eta ipiñi cion bere ſemearen icena, Enoc.

18 Eta Enoc gandic izan zan ſortua Irad, eta Irad gandic izan zan ſortua Maviael, eta Maviael gandic izan zan ſortua Matuſael, eta Matuſael gandic izan zan ſortua Lamec.

19 Onec artu cituen bi emazte: bataren icena da Ada, beſtearen icena Sela.

20 Eta Ada gandic izan zan ſortua Jabel, ceñ izan zan echoletan bici diranen, eta artzayen aita.

21 Eta bere anayaren icena da Jubal: au izan zan citaran eta organuan cantatzen dutenen aita.

22 Sela gandic ere ſortua izan zan Tubalcain: au izan zan mallucaria eta cobrezco eta burnizco lan guztien eguillea. Tubalcaineń arreba berriz, Noema.

23 Eta eſan cien Lamequec bere emazte Ada eta Selari: Aditu ezazute nere boza, Lamequen emazteac, entzun itzatzute nere itzac: Neronec ill det guizon bat eguin nion zauri batequin, eta gaztecho bat eman nion colpearequin.

24 Cain iltzen duena izango bada castigatua zazpi bider gueyagorequin: Lamec iltzen duena izango da iruroguei ta amar zazpi bider.

25 Adanec oraindic ezagutu zuen bere emaztea: eta eguin zuen ſemea, eta ipiñi cion icena da Set, eſaten zuela: Eman dit Jaungoicoac beſte ſeme bat Cainec ill zuen Abel gatic.

26 Baita Seti ere jayo citzayon ſeme bat, ceñi deitu cion Enos: au aſi zan Jaunaren icenari otſeguiten.

V. Cap.

AU da Adanen jatorria. Jaungoicoac guizona eguin zuen egunean, Jaungoicoaren antzera eguin zuen.

2 Guizaſemea eta emacumea eguin,

eta bedeincatu cituen: eta eguiñac izan ciran egunean, ipiñi cien icena Adan.

3 Bici izan zan Adan eun eta oguei ta amar urtean: eta izan zuen ſeme bat bere antz eta iduricoa, eta ipiñi cion icena da Set.

4 Adanen egunac, Set izan zuen ezquero, izan ciran zortzireun urte: eta izan cituen ſemeac eta alabac.

5 Eta ala Adan bicitu zan dembora guztia, izan zan bederatzireun eta oguei ta amar urte, eta ill zan.

6 Eta Set bicitu zan eun eta boſt urtean, eta izan zuen Enos.

7 Set, Enos izan zuen ezquero, bicitu zan zortzireun eta zazpi urtean, eta izan cituen ſemeac eta alabac.

8 Eta Seten egun guztiac izan ciran bederatzireun eta amabi urte, eta ill zan.

9 Enos bicitu zan laroguei ta amar urtean, eta izan zuen Cainan.

10 Au jayo ezquero bicitu zan zortzireun eta amaboſt urtean, eta izan cituen ſemeac eta alabac.

11 Eta Enoſen egun guztiac izan ciran bederatzireun eta boſt urte, eta ill zan.

12 Bici ere zan Cainan iruroguei ta amar urtean, eta izan zuen Malaleel.

13 Eta bicitu zan Cainan, Malaleel izan zuen ezquero, zortzireun eta berroguei urtean, eta izan cituen ſemeac eta alabac.

14 Eta Cainanen egun guztiac etorri ciran izatera bederatzireun eta amar urte, eta ill zan.

15 Eta Malaleel bicitu zan iruroguei ta boſt urtean, eta izan zuen Jared.

16 Eta Jared izan ezquero, bici izan zan Malaleel zortzireun eta oguei ta amar urtean: eta izan cituen ſemeac eta alabac.

17 Eta Malaleelen bici guztia izan zan zortzireun eta laroguei ta amar urtecoa, eta ill zan.

18 Eta bicitu zan Jared eun eta iruroguei ta bi urtean, eta izan zuen Enoc.

19 Eta bicitu zan Jared, Enoc izan zuen ezquero, zortzireun urte, eta izan cituen ſemeac eta alabac.

20 Eta ala Jareden bici guztia izan zan bederatzireun eta iruroguei ta bi urtecoa, eta ill zan.

21 Eta bicitu zan Enoc iruroguei ta boſt urtean, eta izan zuen Matuſalen.

22 Eta Enoc ibilli zan Jaungoicoarequin: eta bicitu zan, Matuſalen izan zuen ezquero, irureun urte, eta izan cituen ſemeac eta alabac.

23 Eta Enoquen egun guztiac izan ciran irureun eta iruroguei ta boſt urte.

24 Eta jarraitu cion Jaungoicoarequin ibilteari, eta ezcutatu zan: ceren Jaungoicoac eraman zuen.

25 Matuſalen bici izan zan eun eta laroguei eta zazpi urtean, eta izan zuen Lamec.

26 Eta bicitu zan Matuſalen, Lamec izan zuen ezquero, zazpireun eta laroguei ta bi urte, eta izan cituen ſemeac eta alabac.

27 Eta Matuſalenen egun guztiac allegatu ciran bederatzireun eta iruroguei ta bederatzi urtera, eta ill zan.

28 Eta bicitu zan Lamec eun eta laroguei ta bi urte, eta izan zuen ſeme bat:

29 Eta oni deitu cion Noe, eſaten zuela: Onec gozatuco gaitu gure eſcuen neque eta lanetan, Jaungoicoac madaricatu zuen lurrean.

30 Eta bicitu zan Lamec, Noe izan zuen ezquero, boſteun eta laroguei ta amaboſt urtean, eta izan cituen ſemeac eta alabac.

31 Eta Lamequen egun guztiac izan ciran zazpireun eta iruroguei ta zazpi urte, eta ill zan. Noec berriz boſteun urte cituenean, izan cituen Sem, Cam eta Jafet.

VI. Cap.

ASI ezquero bada ugaritutzen guizonac lurraren gañean, eta iduquiric alabac,

2 Icuſiric Jaungoicoaren ſemeac guizonen alabac ederrac cirala, artu cituzten emaztetzat onguien ceritzenac.

3 Eta eſan zuen Jaungoicoac: Ez du iraungo beti nere eſpirituac guizonagan, aragucoya dalaco: eta bere egunac izango dira eun eta oguei urte.

4 Egun ayetan berriz baciraden goyanteac* lurraren gañean. Ceren naſi ciran ezquero Jaungoicoaren ſemeac guizonen alabaquin, eta oyec aurrac eguin cituzten, oyec dira anciñaco demboretaco errutſu oſpe andico guizonac.

5 Icuſiric berriz Jaungoicoac andia zala guizonen gaiſtaqueria lurrean, eta

* *giganteac.*

bere biotzeco gogoracio guztiac ceudela macurtuac gaitzera dembora guztian,

6 Damutu citzayon guizona eguin izatea lurrean. Eta biotz barrendico naigabe batequin,

7 Quenduco det, esan zuen, lurraren gañetic eguin nuen guizona, guizona gandic abereetaraño, arraſtacaritic ceruco egaztietaraño: ceren damu det berac eguiña.

8 Noec berriz arquitu zuen onguinaya Jaungoicoaren aurrean.

9 Oyec dirade Noeren semeac: Noe guizon ona ta obea izan zan bere demboran, Jaunguicoarequin ibilli zan.

10 Eta izan cituen iru seme, Sem, Cam eta Jafet.

11 Lurra berriz cegoan Jaungoicoaren aurrean uſtelduta, eta gaiztaqueriz beteric.

12 Icuſiric bada Jaungoicoac lurra cegoala uſtelduric (ceren lurraren gañean bici ciran guztiac gaiztotu ciran),

13 Esan cion Noeri: Allegatua da neronec icentatu nuen dembora bucatzeco guizon guztiac: betea da lurra beren gaiztaqueriz, eta neronec galduco ditut lurrarequin.

14 Eguin ezazu zuretzat cucha bat zur garlopatuaquin: guelachoac eguingo dituzu cuchan, eta betunarequin igortzi ezazu barrendican eta campotican.

15 Eta onela eguingo dezu: Cucharen luccera izango da irureun beſo, zabalera berroguei ta amar beſo, eta beraren altuera oguei ta amar beſo.

16 Eguingo diozu cuchari leyo bat, eta bere galyurra bucatuco dezu beſo batean: cucharen atea berriz ipiñico dezu aldamenetic: eta eguingo dituzu beretan guelac eta iru bicitza.

17 Eta ona nic ecarrico ditut lurraren gañera ugoldeco urac, iltzeco ceruaren azpian bicitzaco eſpiritua duen aragui guztia: lurrean dauden gauza guztiac galduco dirade.

18 Baña ni zurequin elcartuco naiz: eta ſartuco cera cuchan zu, eta zurequin zure ſemeac, zure emaztea, eta zure ſemeen emazteac.

19 Eta ſartuco dituzu cuchan abere mota guztietatic bi, arra ta emea, zurequin bici ditecen.

20 Egaztietatic bere motaren araura, eta zamarietatic bere motan, eta lurreco arraſtacari guztietatic bere motaren araura: bacoitzetic bi ſartuco dira zurequin, bici ditezquen.

21 Eramango dituzu bada zurequin jan al ditezquen janari guztiac, eta ipiñico dituzu zure bicitoquian: eta au izango da zuen, eta ayen janaria.

22 Eguin zuen bada Noec Jaungoicoac aguindu cion guztia.

VII. Cap.

ESAN cion guero Jaunac: Sartu zaite cuchan zure echeco guztiaquin: ceren zu arquitu zaitut onic nere aurrean guizaldi onetan.

2 Abere garbi guztietatic artuco dituzu zazpiña, arra ta emea: abere loyetatic berriz biña, arra ta emea.

3 Eta orobat ceruco egaztietatic zazpiña, arra ta emea: iraun dezan bere caſtac lur guztiaren gañean.

4 Ceren emendican zazpi egunera neronec eraguingo det euria lurraren gañean berroguei egunean eta berroguei gautan: eta galduco ditut lurraren gañean eguin nituen gauza guztiac.

5 Eguin zuen bada Noec Jaunac aguindu cion guztia.

6 Ceuzcan Noec ſeireun urte ugoldeco urac igo zutenean lurra ezcutatzeraño.

7 Eta ſartu zan Noe cuchan ugoldeco urac gatic, eta berarequin bere ſemeac, bere emaztea, eta bere ſemeen emazteac.

8 Orobat abere garbi ta loyetatic, eta egaztietatic, eta lurraren gañean muguitzen diran guztietatic,

9 Sartu cizquion Noeri cuchan biña, arra ta emea, Jaunac Noeri aguindu cion becela.

10 Eta igaro ciradenean zazpi egun, ugoldeco urac igo zuten lurra ezcutatzeraño.

11 Noec ſeireun urte cituanean, bigarren illean, illaren amazazpigarren egunean, urratu ciran leice andico iturri guztiac, eta idiqui ciran ceruco uarcac:

12 Eta eguin zuen euria lurraren gañean berroguei egunean eta berroguei gautan.

13 Egun artaco epe icentatuan ſartu ciran cuchan Noe, eta bere ſeme Sem, Cam eta Jafet; aren emaztea, eta bere ſemeen iru emazteac beraquin;

14 Berac eta abere guztiac beren

moten araura, eta zamari guztiac beren moten araura, eta lurrean muguitzen dan guztia bere motan, eta egazti guztiac beren moten araura, eta luma abere mota guztia, eta egoac dauzcan guztia

15 Sartu ciraden Noe gana cuchara biña, bicitzaco espiritua zuen aragui guztitic.

16 Eta sartu ciradenac, sartu ciraden arra ta emea aragui guztitic, Jaungoicoac aguindu cion beccla: eta Jaunac ichi cion campoco aldetic.

17 Orduan etorri zan berroguei eguneco ugoldea lurraren gañera: eta aci ciran urac, eta eraman zuten cucha lurretic chit gora.

18 Ceren urac chit andizquiro aci ciran: eta ezcutatu zuten lurraren gañean cegoen guztia: cucha berriz cebillen uren gañean.

19 Eta urac igo zuten chit gueyegui lurraren gañean: eta estaliac izan ciran mendiric altuen guztiac ceru guztiaren azpian.

20 Amabost beso altuagora allegatu zan ura estaliric ceuzcan mendiac baño.

21 Eta galdu zan lurraren gañean muguitzen zan aragui guztia, egaztiena, abereena, pistiena, eta lurraren gañean biurca dabiltzen arrastacari guztiena: guizonac guztiac,

22 Eta lurraren gañean bicitzaco asnasa duten guztiac, ill ciran;

23 Eta deseguin cituen lurraren gañean bici ciran guztiac, guizona gandic abereraño, bai arrastacariac eta bai ceruco egaztiac: eta lurretic izan ciran arrasatuac: bacarric guelditu zan Noe, eta berarequin cuchan ceudenac.

24 Eta egon ciran urac lurraren gañean eun eta berroguei ta amar egunean.

VIII. Cap.

OROITURIC berriz Jaungoicoa Noez, eta berarequin cuchan cegoen abere guztiaz, eta zamari guztiaz, atera zuen aicea lurraren gañean, eta guchitu ciran urac.

2 Eta ichi ciraden leiceco iturriac, eta ceruco uarcac: eta galeraci citzayen jechiera ceruco euriai.

3 Eta biurtu ciran urac lurretic cijoacela eta cetoztela: eta asi ciran guchitzen igaroric eun eta berroguei ta amar egun.

4 Eta guelditu zan cucha zazpigarren illean, illaren oguei ta zazpigarren egunean, Armeniaco mendien gañean.

5 Urac berriz bacijoacen eta guchitzen ciran amargarren illeraño: ceren amargarren illean, illaren lenengo egunean, aguertu ciran mendien tontorrac.

6 Eta igaroric guero berroguei egun, idiquiric Noec eguin zuen cuchaco leyoa, belea bialdu zuen:

7 Au ateraric, etzan itzuli, urac lurraren gañean legortu arteraño.

8 Onen ondoren bialdu zuen usoa ere, icusi cezan aitu al ciraden urac lurraren gañean.

9 Ez arquituric onec non ipiñi bere oña, itzuli zan bera gana cuchara: ceren oraindican urac ceuden lur guztiaren gañean: eta luzatu zuen escua, eta elduric sartu zuen cuchan.

10 Ichodonic oraindican beste zazpi egun, berriz bialdu zuen usoa cuchatic.

11 Bera berriz etorri zan bera gana arratsaldean, cecarrela bere mocoan oliboaren adar bat osto berdeaquin. Ezagutu zuen bada Noec aldeguin zutela urac lurraren gañetic.

12 Ichodon zuen alaere beste zazpi egun: eta bera zuen usoa: au etzan biurtu gueyago bera gana.

13 Seireun eta lenengo urtean bada, lenengo illean, illaren lenengo egunean, aldeguin zuten urac lurraren gañetic: eta idiquiric Noec cucharen tapa, beguiratu, eta icusi zuen leortu zala lurraren gaña.

14 Bigarren illean, illaren oguei ta zazpigarren egunean, leortu zan lurra.

15 Orduan itzeguin cion Jaungoicoac Noeri, esaten zuela:

16 Atera zaite cuchatic, zu eta zure emaztea, zure semeac eta zure semeen emazteac zurequin.

17 Atera itzatzu ere zurequin dauzcazun abere guztiac, cassa guztiacac, naiz egaztiac, naiz pistiac, eta lurraren gañean biurca dabiltzan arrastacari guztiac, eta atera zaitezte lurraren gañera: aci eta ugaritu zaitezte bere gañean.

18 Irten zan bada Noe, eta bere semeac, aren emaztea, eta bere semeen emazteac, berarequin.

19 Baitaere irten ciran cucharic abere

guztiac, zamariac, eta lurraren gañean biurca dabiltzan arraſtacariac beren moten araura.

20 Eta eguin cion Noec aldare bat Jaunari: eta arturic abere eta egazti garbi guztietatic, eſqueñi ciozcan ofrendac aldarearen gañean.

21 Eta uſai eguin zuen Jaunac uſai gozoa, eta eſan zuen: Iñolaere ez det gueyago madaricatuco lurra guizonac gatic: ceren guizonaren biotzaren centzuna eta gogoa gaitzera macurtuac daude bere gaztetaſunetic: ez det bada gueyago caſtigatuco anima bici guztia eguin dedan becela.

22 Mundua mundu dan artean, ereiteac eta itaiteac, otzac eta beroac, udac eta neguac, gauac eta egunac, elcarri jarraituco diezte.

IX. Cap.

GUERO bedeincatu cituen Jaungoicoac Noe eta bere ſemeac. Eta eſan cien: Aci, eta ugaritu zaitezte, eta bete ezazute lurra.

2 Eta zuen izu eta icara izan bedi lurreco abere guztien gañean, eta ceruco egazti guztien gañean, lurraren gañean muguitzen diran guztiaquin: itſaſoco arrai guztiac zuen eſcuetan paratuac daude.

3 Eta muguitzen eta bici dan guztia, izango da zuen janaria: baratzaco berdeac becela eman nizuten gauza guztiac;

4 Bacarric ez dezutela jango araguia odolarequin.

5 Ceren billatuco det zuen animen odola abere guztien eſcutic: eta billatuco det guizonaren anima, guizonaren eſcutic, guizaſemearen eta bere anayaren eſcutic.

6 Ixuria izango da guizonaren odola ixurtzen duen edoceñeu odola: ceren guizona eguiña izan zan Jaungoicoaren antzera.

7 Zuec berriz aci eta ugaritu, eta ſartu zaitezte lurraren gañean, eta bete ezazute.

8 Oyec ere eſan ciezten Jaungoicoac Noeri, eta berarequin bere ſemeai:

9 Ona nic eguingo det nere elcartaſuna zuequin, eta zuen jatorriarequin zuen ondoren:

10 Eta zuequin dan anima bici guztiarequin, naiz egaztiaquin, naiz cuchatic atera ciran lurreco zamari eta abere guztiaquin, eta lurreco piſti guztiaquin.

11 Eguingo det nere elcartaſuna zuequin, eta iñolaere gueyago ez da illa izango aragui guztia ugoldeco uraquin; ez da ere izango emendic aurrera lurra galtzen duen ugolderic.

12 Eta eſan zuen Jaungoicoac: Au da nere eta zuen, eta zuequin arquitzen dan anima bici guztien artean betico guizaldietaraco eguiten dedan elcartaſunaren ſeñalea:

13 Ipiñico det nere uztaya odeyetan, eta izango da nere arteco eta lurraren arteco elcartaſunaren ſeñalea.

14 Eta eſtalitzen dedanean ceruz odeyaquin, aguertuco da nere uztaya odeyetan:

15 Eta oroituco naiz zuequin; eta araguia bicitzen duen anima bici guztiarequin dedan nere elcartaſunaz: eta ez da berriz izango ugoldeco uric aragui guztia galtzeco.

16 Eta egongo da uztaya odeyetan, eta icuſico det, eta oroituco naiz Jaungoicoaren eta lurraren gañean dan aragui guztiaren anima bici guztiaren artean eguiña dagoen betico elcartaſunaz.

17 Eta eſan cion Jaungoicoac Noeri: Au da nere eta lurraren gañean bici dan aragui guztiaren artean eguiña dagoen elcartaſunaren ſeñalea.

18 Noeren ſeme, cuchatic atera ciranac ciraden bada, Sem, Cam eta Jafet: Cam au da Canaanen aita.

19 Iru oyec dirade Noeren ſemeac: eta oyetatic zabaldu ciran guizon guztiac lur guztiaren gañean.

20 Eta aſi zan Noe guizon necazaria lurra landutzen, eta ipiñi zuen maſti bat.

21 Eta edanic ardoa orditu zan, eta larrugorrian gueldítu zan bere bicilecuaren erdian.

22 Cam Canaanen aitac au icuſiric, au da, bere aitaren lotſariac ceudela aguirian, ateraric campora, eſan cien bere bi anayai.

23 Sem eta Jafetec berriz capa ipiñi zuten beren ſorbaldetan, eta ibilliric atzerontz, eſtali cituzten bere aitaren lotſariac: beren arpeguiac itzuliac ceuden, eta aitaren lotſariac etzituzten icuſi.

24 Eta eſnaturic Noe ordiqueritic, jaquin zuenean cer eguin cioten bere ſeme chiquiagoac,

25 Eſan zuen: Madaricatua izan bedi Canaan; bere anayen mendecoen mendecoa izango da.

26 Eſan zuen ere: Bedeincatua izan bedi Jauna Semen Jaungoicoa; Canaan izan bedi bere mendecoa.

27 Zabaldu beza Jaungoicoac Jafet, eta bici bedi Semen bicilecuetan; eta Canaan izan bedi bere mendecoa.

28 Bici izan zan Noe ugoldea igarota irureun eta berroguei ta amar urtetan.

29 Eta ala bere egun guztiac izan ciran bederatzireun eta berroguei ta amar urte: eta ill zan.

X. Cap.

OYEC dirade Noeren ſemeen, Sem, Cam eta Jafeten jatorriac: eta jayo citzayezten ſemeac ugoldearen ondoren.

2 Jafeten ſemeac: Gomer, eta Magog, eta Madai, eta Javan, eta Tubal, eta Moſoc, eta Tiras.

3 Gomerren ſemeac: Aſcenez, eta Rifat, eta Togorma.

4 Javanen ſemeac: Eliſa eta Tarſis, Cetim eta Dodanim.

5 Oyec partitu cituzten jendeen ugarteac beren alderrietan, bacoitzac bere izcuntzaren eta beren familien araura beren jendeetan.

6 Camen ſemeac: Cus, eta Meſraim, eta Fut, eta Canaan.

7 Cuſen ſemeac: Saba, eta Hevila, eta Sabata, eta Regma, eta Sabataca. Regmaren ſemeac: Saba eta Dadan.

8 Eta Cus gandic izan zan ſortua Nemrod: au aſi zan izaten alduna lurrean,

9 Eta zan eiztari indartſua Jaunaren aurrean. Emendic etorri zan eſaera: Nemrod becela eiztari indartſua Jaunaren aurrean.

10 Eta bere erreinuaren aſieta izan zan Babilonia, eta Arac, eta Acad, eta Calane, Senaarco lurrean.

11 Erri artatic irten zan Aſur, eta eguin cituen Ninive, eta errico plazac, eta Cale.

12 Baitaere Reſen Ninive eta Caleren artean: au da erri andia.

13 Eta Meſraimec izan cituen Ludim, eta Anamim, eta Laabim, eta Neftuim,

14 Eta Fetruſim, eta Caſluim: ceñetatican atera ciran filiſteotarrac eta caftoreotarrac.

15 Canaanec berriz izan zuen Sidon bere lenenſortua, Heteo,

16 Jebuſeo, eta Amorreo, Gergeſeo,

17 Heveo, eta Araceo: Sineo,

18 Eta Aradio, Samareo, eta Amateo: eta emendic zuten jatorria canaantarren erriac.

19 Eta Canaanen mugac ciran datoztenac becela Sidondic Gerarara Gaza artean, ſartu artean Sodoman eta Gomorran, eta Adaman, eta Seboimen, Leſa artean.

20 Oyec dirade Camen ſemeac beren ſenitarte, eta izcuntza, eta jatorri, eta erri eta jendeen araura.

21 Sem gandic ere, Heberren ſeme guztien aita gandic, Jafeten anai nagusia gandic, jayo ciran ſemeac.

22 Semen ſemeac: Elam, eta Aſur, eta Arfaxâd, eta Lud, eta Aram.

23 Aramen ſemeac: Us, eta Hul, eta Geter, eta Mes.

24 Arfaxâdec berriz izan zuen Sale, ceña gandic jayo zan Heber.

25 Eta Heberri jayo citzayozcan bi ſeme: bataren icena Faleg, bere egunetan lurra partitu zalaco: eta bere anayaren icena Jectan.

26 Jectan onegandic izan zan ſortua Elmodad, eta Salef, eta Aſarmot, eta Jare,

27 Eta Aduram, eta Uzal, eta Decla,

28 Eta Ebal, eta Abimael, Saba,

29 Eta Ofir, eta Hevila, eta Jobab: oyec guztioc dirade Jectanen ſemeac.

30 Eta oyen bicilecua izan zan Meſatic ſortaldeco mendi Sefarreraño.

31 Oyec dirade Semen ſemeac beren ſenitarte, eta izcuntza, eta errien araura, beren jendeetan.

32 Oyec Noeren familiac beren erri eta jendeen araura. Oyetatic zabaldu ciran jendeac lurrean ugoldearen ondoren.

XI. Cap.

ZAN berriz lurra izqueta batecoa, eta itz berbereracoa.

2 Eta atera ciradenean ſortaldetic, arquitu zuten celai bat Senaarco lurrean, eta guelditu ciran an egotez.

3 Eta eſan cien elcarri: Atozte, eguin ditzagun adrilluac, eta egoſi ditzagun ſurtan. Eta baliatu ciran adrilluaquin arrien toquian, eta betunarequin careorrearen toquian;

4 Eta eſan zuten: Atozte, eguin ditzagun guretzat erri, eta torre bat, erpiñarequin ceruraño allegatzen dana: eta eman dizayogun gure icenari oſpea mundu guztitic zabaldu gaitecen baño lenago.

5 Eta jechi zan Jauna Adanen ſemeac eguiten zuten erri eta torrea icuſtera,

6 Eta eſan zuen: Ona, bat da erria, eta izqueta bat dute guztiac: eta aſi dirade au eguiten, eta ez dirade atzeratuco beren gogoetatic, bucatu ditzaten bitartean.

7 Atozte bada, jechi gaitecen, eta naſi dezagun an beren izqueta, aditu ez dezan batac beſtearen itza.

8 Eta onela zabaldu cituen Jaunac toqui artatican mundu guztitic, eta utzi cioten erria eguiteari.

9 Eta orregatic icena deitu citzayon Babel, ceren an izan zan naſia mundu guztico izcuntza: eta andican banatu cituen Jaungoicoac erri guztien gañean.

10 Au da Semen jatorria: Sem zan eun urtecoa Arfaxâd izan zuenean, urte bi ugoldearen ondoren.

11 Eta bici izan zan Sem, Arfaxâd izan zuen ezquero, boſteun urtetan: eta izan cituen ſemeac eta alabac.

12 Eta Arfaxâd bici izan zan oguei ta amaboſt urtetan, eta izan zuen Sale.

13 Eta bici izan zan Arfaxâd, Sale izan zuen ezquero, irureun eta iru urtetan: eta izan cituen ſemeac eta alabac.

14 Eta bici izan zan Sale oguei ta amar urtetan, eta izan zuen Heber.

15 Eta bici izan zan Sale, Heber izan zuen ezquero, laureun eta iru urtetan: eta izan cituen ſemeac eta alabac.

16 Eta bici izan zan Heber oguei ta amalau urtetan, eta izan zuen Faleg.

17 Eta bici izan zan Heber, Faleg izan zuen ezquero, laureun eta oguei ta amar urtetan: eta izan cituen ſemeac eta alabac.

18 Eta bici izan zan Faleg oguei ta amar urtetan: eta izan zuen Reu.

19 Eta bici izan zan Faleg, Reu izan zuen ezquero, berreun eta bederatzi urtetan: eta izan cituen ſemeac eta alabac.

20 Eta bici izan zan Reu oguei ta amabi urtetan, eta izan zuen Sarug.

21 Eta bici izan zan Reu, Sarug izan zuen ezquero, berreun eta zazpi urtetan: eta izan cituen ſemeac eta alabac.

22 Eta bici izan zan Sarug oguei ta amar urtetan, eta izan zuen Nacor.

23 Eta bici izan zan Sarug, Nacor izan zuen ezquero, berreun urtetan: eta izan cituen ſemeac eta alabac.

24 Eta bici izan zan Nacor oguei ta bederatzi urtetan, eta izan zuen Tare.

25 Eta bici izan zan Nacor, Tare izan zuen ezquero, eun eta emeretzi urtetan: eta izan cituen ſemeac eta alabac.

26 Eta bici izan zan Tare iruroguei ta amar urtetan, eta izan cituen Abram, eta Nacor, eta Aran.

27 Eta au da Tareren jatorria: Tarec izan cituen Abram, Nacor eta Aran. Eta Aranec izan zuen Lot.

28 Eta ill zan Aran bere aita Tare baño lenago, bere jayoterrian, Ur Caldeacoan.

29 Eta Abramec eta Nacorrec artu cituzten emazteac: Abramen emaztearen icena, Sarai: eta Nacorren emaztearen icena, Melca, Aran Melcaren, eta Jeſcaren aitaren alaba.

30 Eta Sarai zan ſoilla, eta etzuen aurric.

31 Eta Tarec artu cituen bere ſeme Abram, eta Lot, bere ſeme Aranen ſemea, eta Sarai bere erraña, bere ſeme Abramen emaztea, eta atera cituen Ur Caldeacotic, joateco Canaango lurrera: eta etorri ciran Haraneraño, eta an bici izan ciran.

32 Eta izan ciran Tareren egunac berreun eta boſt urte, eta Haranen ill zan.

XII. Cap.

ETA eſan cion Jaunac Abrami: Atera zaite zure erritic, eta zure aideetatic, eta zure aitaren echetic, eta atoz eracutſico dizudan lurrera.

2 Eta eguingo zaitut jende andi baten buru, eta bedeincatuco zaitut, eta cbit alcbatuco det zure icena, eta izango cera bedeincatua.

3 Bedeincatuco ditut zu bedeincatutzen zaituztenac, eta madaricatuco ditut zu madaricatutzen zaituztenac, eta zugan izango dirade bedeincatuac lurreco etorqui guztiac.

4 Atera zan bada Abram Jaunac aguindu cion becela, eta Lot joan zan berarequin: iruroguei ta amaboſt urtecoa zan Abram atera zanean Harandic.

5 Eta eraman zuen Sarai bere emaztea, eta Lot bere anayaren ſemea, eta irabaci zuten acienda guztia, eta Haranen eguin cituzten animac: eta atera ciran joateco Canaango lurrera. Eta ara allegatu ciradenean,

6 Igaro zuen Abramec lurra Siquemgo toquiraño, ibar Arguitſuraño: eta canaantarra cegoen orduan lurrean.

7 Eta aguertu citzayon Jauna Abrami, eta eſan cion: Zure jatorriari emango diot lur au. Eta eguin cion an aldare bat aguertu citzayon Jaunari.

8 Eta igaroric andic Betelen ſortaldean cegoen mendira, zabaldu zuen an bere denda, ſartaldetic zuela Betel, eta ſortaldetic Hai: an ere eguin cion Jaunari aldare bat, eta ots eguin cion bere icenari.

9 Eta jarraitu cion Abramec ibilteari, eta joateari aurrera egoerontz.

10 Eta izan zan erri artan goſete bat: eta jechi zan Abram Egiptora, an egoteco bideaſcoa becela: ceren erri artaco goſetea chit andia zan.

11 Eta Egipton ſartzeco zorian cegoenean, eſan cion Sarai bere emazteari: Ezagutu det andre ederra cerala:

12 Eta egiptoarrac icuſten zaituztenean, eſango dutela: Bere emaztea da: eta ni illco naute, eta zu gordeco zaituzte.

13 Erregututzen dizut bada, arren eſan dezazula, nere arreba cerala, ongui artua izan nadin zure amorioa gatic, eta biciric guelditu nadin zure beguirunez.

14 Sartu zaneco bada Abram Egipton, icuſi zuten egiptoarrac emacumea chit ederra zala.

15 Eta andizquiac adiraci cioten Faraoni, eta alabatu zuten bere aurrean: eta izan zan eramana emacumea Faraonen echera.

16 Eta beraren beguirunez ongui tratatu zuten Abram: eta izan cituen ardiac eta idiac, eta aſtoac, eta mirabeac, eta aſtaemeac, eta gameluac.

17 Baña Jaunac caſtigatu zuen Faraon, eta bere echea gaitzete chit andiaquin, Sarai Abrahamen emaztea gatic.

18 Eta ots eguin cion Faraonec Abrami, eta eſan cion: ¿Cer da nerequin eguin dezun au? ¿cergatic ez didazu aguertu zure emaztea dala?

19 ¿Cer gauza gatic eſan dezu zure arreba dala, artu nezan nere emaztetzat? Orain bada ona zure emaztea, artu ezazu, eta zoaz.

20 Eta Faraonec aguindu cien bere jendeai Abram zaitzeco: eta lagundu ciezten berari, eta bere emazteari, ceuzcaten gauza guztiaquin.

XIII. Cap.

IGO ciran bada Abram Egiptotic, bera eta bere emaztea, eta ceuzcan gauza guztiac, eta Lot berarequin, egoeco aldamenera.

2 Eta zan chit aberatſa urrearen eta cillarraren dirutornean.

3 Eta biurtu zan etorri zan bidetic, egüerditic Betelerontz, Betel eta Hairen bitartean leen bere denda jarri zuen toquiraño:

4 Leen eguin zuen aldarearen lecura, eta an ots eguin cion Jaunaren icenari.

5 Baitaere Abramequin cegoen Lotec, ceuzcan artaldeac, eta abereac, eta dendac.

6 Eta ecin cabitu cituzten lurrac, elcarrequin bicitzeco: ceren beren acienda zan andia, eta ecin bici citezteguen toqui batean.

7 Argatic errierta izan zan Abramen eta Loten talde zaitzalleen artean. Eta dembora artan canaantarrac eta ferezeotarrac bici ciraden lur artan.

8 Eſan cion bada Abramec Loti: Ez bedi, arren, izan erriertaric nere eta zure artean, eta nere artzayen eta zure artzayen artean: ceren anayac gueran.

9 Ona emen non dezun lur guztia zure aurrean: erregututzen dizut, arren aldeguin dezazula ni gandic: ezquerrera joaten bacera, nic artuco det eſcuya: zuc eſcuya aututzen badezu, ni joango naiz ezquerrera.

10 Alchaturic bada Lotec beguiac,

icuſi zuen Jordango erribera guztia, ceñ guztia zan erregatua, Jaunac deſeguin cituen bañó lenago Sodoma eta Gomorra, Jaunaren paradiſua becela, eta Egipto becela Segorrera datoztenai.

11 Eta autatu zuen beretzat Lotec Jordango erribera, eta aldeguin zuen ſortaldetic: eta berecitu ciran anayac bata beſtea gandic.

12 Abram bici izan zan Canaango lurrean: eta Lot guelditu zan Jordanen aldamenean dauden errietan, eta bici izan zan Sodoman.

13 Sodomaco guizonac berriz ciran chit gaiztoac, eta pecatari chit andiac Jaunaren aurrean.

14 Eta eſan cion Jaunac Abrami, Lotec bera gandic aldeguin zuen ezquero: Alchatu itzatzu zure beguiac, eta beguiratu ezazu orain zauden toquitic, iſarrera eta egoera, ſortaldera eta ſartaldera.

15 Icuſten dezun lur guztia, emango dizut zuri eta zure jatorriari betico.

16 Eta eguingo det zure jatorria lurreco autſa becela: baldin guizonen batec contatu al badu lurreco autſa, zure jatorria ere contatu dezaque.

17 Jaiqui zaite, zoaz eta icuſi ezazu lurra bere luceeran, eta zabaleran: ceren zuri emango dizut.

18 Jaſoric bada Abramec bere denda, etorri zan eta bici izan zan Mambre ibarraren aldean, ceñ dagoan Hebronen: eta eguin cion an Jaunari aldare bat.

XIV. Cap.

GUERTATU zan berriz dembora artan, Amrafel Senaarco erreguea, eta Arioc Pontoco erreguea, eta Codorlahomor elamtarren erreguea, eta Tadal jendeen erreguea,

2 Guerran aritzea Bara Sodomaco erreguearen contra, eta Berſa Gomorraco erreguearen contra, eta Senaab Adamaco erreguearen contra, eta Semeber Seboimgo erreguearen contra, eta Balaco erreguearen contra, au da Segor.

3 Oyec guztioc elcartu ciran Baſoco ibarrean, ceñ dan orain itſaſo Gacia.

4 Ceren amabi urte ſerbitu zuten Codorlahomor, eta amairugarrenean errebelatu citzayozcan.

5 Bera gatic amalaugarren urtean etorri zan Codorlahomor, eta berarequin ceuden erregueac: eta deſeguin cituen rafaimtarrac Aſtarotcarnaimen, eta beraquin zucimtarrac, eta emimtarrac Save Cariataimen,

6 Eta correotarrac Seirco mendietan, bacardadean dagoan Farango campoetaraño.

7 Eta biurtu ciran, eta etorri ciran Miſfatco iturriraño, au da Cades: eta ondatu cituzten amalecſtarren aldeera guztia, eta Aſaſontamarren bici zan amorreotarra.

8 Eta atera ciran ſodomatarren erreguea, eta Gomorracoa, eta Adamaco erreguea eta Seboimgo erreguea, baitaere Balaco erreguea, ceñ dan Segor: eta zucendu zuten guda beren contra Baſoco ibarrean:

9 Au da Codorlahomor elamtarren erreguearen, eta Tadal jendeen erreguearen, eta Amrafel Senaarco erreguearen, eta Arioc Pontoco erreguearen contra: lau erregue boſten contra.

10 Eta Baſoco ibarrac ceuzcan betunezco putzu aſco. Eta ſodomatarren, eta Gomorraco erregueac, igues eguin zuten, eta erori ciraden an: eta biciric guelditu ciranac, igo ciran mendira.

11 Eta eraman zuten ſodomatarren eta Gomorraco acienda guztia, eta janari guztia, eta joan ciran:

12 Baitaere Lot, Abramen anayaren ſeme Sodoman bici zana, zuen guztiarequin.

13 Eta ona non igues eguin zuen batec, adieraci cion Abram hebreotar Mambre amorreotar Eſcolen anai, eta Anerren anayaren ibarrean bici zanari: ceren oyec elcartu ciran Abramequin.

14 Aditu zuenean au Abramec, au da, Lot bere anaya arrapatua izan zala, contatu cituen irureun eta emezortzi bere echeco ſerbitzari ariñca armatuac, eta jarraitu cien Daneraño.

15 Eta zabalduric lagunac, eraſo cien gauaz: eta deſeguin cituen, eta jarraitu cien Damaſcoco ezquerrean dagoan Hobaraño.

16 Eta quendu ciezten acienda guztia, eta Lot bere anaya bere aciendarequin; baitaere emacumeac eta erria.

17 Eta atera citzayon bidera ſodomatarren erreguea, biurtu zan ezquero, deſeguiñic Codorlahomor, eta berarequin Saveco ibarrean, ceñ dan Erregueren ibarra, ceuden erregueac.

18 Melquiſedec Salemgo erregueac berriz, ateraric oguia eta ardoa, ceren zan Jaungoico chit altuaren apaiza,

19 Bedeincatu zuen, eta eſan zuen: Jaungoico chit altu cerua eta lurra eguin cituenac bedeincatua izan dedilla Abram:

20 Eta bedeincatua Jaungoico chit altua, ceñaren laguntaſunarequin etſayac zure eſcuetan daude. Eta eman ciozcan guztien amarrenac.

21 Eſan cion berriz ſodomatarren erregueac Abrami: Eman zazquidazu animac; gañeracoac artu itzatzu zuretzat.

22 Berac erantzun cion: Jaſotzen diot nere eſcua Jaun Jaungoico chit altu ceruaren eta lurraren jabeari,

23 Irazcayaren aritic oñetacoaren locarriraño, ez det ecerere artuco zureac diraden gauza guztietatic, eſan ez dezazun: Nic aberaſtu nuen Abram:

24 Gazteac jan cituzten gauzac, eta nerequin etorri ciraden guizonen, Aner, Eſcol eta Mambreren parteac baicic: oyec artuco dituzte beren parteac.

XV. Cap.

ETA irago ezquero gauza oyec, Jaungoicoac itz eguin cion icuſquizun batean Abrami, eſaten ciola: Etzaite beldur izan, Abram; ni naiz zure gordetzallea, eta zure ſari chit andia.

2 Eta eſan zuen Abramec: Jaun Jaungoicoa, ¿cer emango didazu? Ni banoa aurric gabe: eta nere echeco morroinaguſiaren ſemea da Damaſcoco au, Eliezer.

3 Baita eſan zuen Abramec: Ez didazun ezquero eman niri aurric: ona emen nere echean jayo dan mendeco au, da nere jabegaya.

4 Eta bereala itz eguin cion Jaunac, eſaten zuela: Ez da au zure jabegaya: baicic zu gandic ſortuco dana, ura iduquico dezu jabegaitzat.

5 Eta atera zuen campora, eta eſan cion: Beguiratu ezazu cerura, eta contatu itzatzu izarrac, al baldin badezu. Eta eſan cion: Onela izango da zure jatorria.

6 Siniſtu cion Abramec Jaincoari, eta onera egoquia izan citzayon.

7 Eta eſan cion: Ni naiz Ur Caldeacotic atera cindudan Jauna, emateco zuri lur au, eta izateco zu bere jabea.

8 Baña berac eſan zuen: Jaun Jaungoicoa, ¿nondic ezagutu dezaquet beraren jabe izango naicela?

9 Eta erantzunaz Jaunac: Ar zadazu, eſan zuen, iru urteco bei bat, eta iru urteco auntz bat, eta iru urteco ari bat; uſatortola bat ere eta uſo bat.

10 Berac arturic gauza guzti oyec, erdiratu cituen, eta ipiñi cituen erdi biac bata beſtearen aurrean aldamen bietatic: egaztiac berriz etzituen ebaqui.

11 Eta jechi ciran egaztiac gorputz illen gañera, eta Abram cegoquien beguira.

12 Eta eguzquia ſartzeco cegoala, erori zan Abramen gañera lo gogor bat, eta izu andi eta illun batec artu zuen.

13 Eta eſana izan citzayon: Jaquin ezazu oraindandic guertatuco dala zure jatorria egotea arroztua berea ez dan lurrean, eta menderatuco dituzte, eta atſecabetuco dituzte laureun urtetan.

14 Alaere neronec juzgatuco det ſerbituco duten jendea: eta oyen ondoren ateraco dirade aberaſtaſun andiaquin.

15 Zu berriz joango cera zure guraſoac gana paquean, eta izango cera obiratua zartza onean.

16 Eta laugarren guizaldian biurtuco dirade onera: ceren oraindican ez dira bete amorreotarren gaiztaqueriac oraingo demboraraño.

17 Eguzquia ſartu zaſcan bada, etorri zan illuntaſun andi bat, eta aguertu zan labe bat quea ceriola, eta ſuzco lampara bat igarotzen zana abere erdiratuen artetic.

18 Egun artan eguin zuen Jaungoicoac elcartaſuna Abramequin, eſaten zuela: Zure ondocoai emango diet lur au Egiptoco ibaitican Eufrates ibai andiraño,

19 Cineotarrac, eta cenezeotarrac, cedmoneotarrac,

20 Eta hettarrac, eta ferezeotarrac, baitaere rafaimtarrac,

21 Eta amorreotarrac, eta canaantarrac, eta gergeſeotarrac, eta jebuſtarrac.

XVI. Cap.

SARAI, Abramen emazteac bada, etzuen eguin aurric: baña iduquiric Egiptoco neſcame bat Agar ceritzana,

2 Eſan cion bere ſenarrari: Ona non

Jaunac eguin nau ſoilla, aurric eguin ez dezadan: ſartu zaite nere neſcamea gana, icuſteco bera gandic bederic artu ote ditzadan ſemeac. Eta eguiñic berac erregututzen ciona,

3 Artu zuen Agar Egiptoco bere neſcamea, Canaango lurrean bici izaten aſi ciradenetic amar urte gueroago: eta eman cion bere ſenarrari emaztetzat.

4 Bera ſartu zan Agar gana. Eta icuſiric Agarrec aurdun cegoala, mezpreciatu zuen bere echecoandrea.

5 Eta eſan cion Saraic Abrami: Gaizqui eguiten dezu nere contra: nic eman nizun nere neſcamea emaztetzat, eta icuſiric onec aurdun dala, mezpreciatzen nau. Juzgatu dezala Jaunac nere eta zure artean.

6 Eta erantzunic Abramec: Ona emen, eſan zuen, zure neſcamea zure eſcuan dago; eguizu berarequin nai dezuna. Atſecabeturic Saraic Agar, igues eguin zuen.

7 Eta arquiturie Jaunaren aingueruac urezco iturri baten aldean, Surco bidean eremuan dagoen bacardadean,

8 Eſan cion: Agar Sarairen neſcamea, ¿nondic zatoz? ¿eta nora zoaz? Berac erantzun zuen: Nere echecoandre Sarairen aurretic igueſi noa.

9 Eta eſan cion Jaunaren aingueruac: Biurtu zaite zure echecoandrea gana, eta umillatu zaitzaquio.

10 Eta berriz: Ugarituaz, eſan zuen, ugarituco det zure jatorria, eta ecin contatuco da ugaritaſuna gatic.

11 Eta guero: Ona emen, eſan zuen, aurdun zaude, eta eguingo dezu ſeme bat: eta ipiñico diozun icena izango da Iſmael, Jaunac aditu zaituelaco zure eſtutaſunean.

12 Au izango da guizon ecigaitza: jaiquico da bera guztien contra, eta guztiac beraren contra; eta bere anai guztien aurquez aurque jarrico ditu bere dendac.

13 Eta berarequin itz eguiten zuen Jaunari ipiñi diozun icena izan zan: Zu cera icuſi nazun Jaungoicoa. Ceren eſan zuen: Eguiazqui emen icuſi ditut icuſten nauenaren bizcarrac.

14 Argatic deitu cion putzu ari, Bici danaren eta icuſten nauenaren putzua. Au dago Cades eta Baraden artean.

15 Eta eguin cion Agarrec ſeme bat Abrami: ceñac ipiñi cion icena Iſmael.

16 Laroguei ta ſei urtecoa zan Abram Agarrec Iſmael eguin cionean.

XVII. Cap.

SARTU zanean bada laroguei ta emeretzigarren urtean, aguertu citzayon Jauna, eta eſan cion: Ni naiz Jaungoico guztialduna: ibilli zaite nere aurrean, eta izan zaite chit ona.

2 Eta ipiñico det nere elcartaſuna nere eta zure artean, eta ugarituco zaitut chit andizquiro.

3 Auzpeztu zan Abram bere arpeguiaren gañean.

4 Eta eſan cion Jaungoicoac: Ni naiz, eta nere elcartaſuna zurequin, eta izango cera jende aſcoren aita.

5 Emendican aurrera ez da izango zure icena Abram, baicic izango cera deitua Abraham: ceren jarri zaitut jende aſcoren aitatzat.

6 Eta aci eraguingo dizut chit andizquiro, eta jarrico zaitut errien buru, eta erregueac ateraco dirade zu gandic.

7 Eta jarrico det nere elcartaſuna nere eta zure artean, eta zure jatorriaren artean zure ondoren beren guizaldietan, betico elcarraſunarequin: izan nadin zure Jaungoicoa, eta zure jatorriarena zure ondoren.

8 Eta emango dizut zuri eta jatorriari arrotz cerala bici ceran lurra, Canaango lur guztia beti bere jabe izateco, eta izango naiz beren Jaincoa.

9 Berriz eſan cion Jaincoac Abrahami: Zuc bada gordeco dezu nere elcartaſuna, eta zure jatorriac zure ondoren beren guizaldietan.

10 Au da nere elcartaſun gordeco dezutena nere eta zure artean, eta zure jatorriac zure ondoren: Zuen arteco guizaſeme guztia izango da inguruan ebaquia:

11 Eta inguruan ebaquico dezute zuen buztanmocoaren araguia, izan dedin nere eta zuen arteco elcartaſunaren ſeñaletzat.

12 Zortzi eguneco aurra izango da inguruan ebaquia zuen artean, guizaſeme guztia zuen guizaldietan: naiz echean jayotaco mendecoa, naiz eroſia izango da inguruan ebaquia, eta zuen jatorrizco ez dan guztia:

13 Eta egongo da nere tratua zuen araguian betico elcartaſuneraco.

14 Bere buztanmocoaren araguia,

inguruan ebaquia ez dan guizaſemea, izango da quendua anima ura bere erritic: deſeguin zuelaco nere tratua.

15 Baitaere eſan cion Jaunac Abrami: Sarai zure emazteari ez diozu deituco Sarai, baicic Sara.

16 Eta bedeincatuco det, eta bera gandic emango dizut ſeme bat bedeincatuco dedana, eta izango da jendeen aſiera, eta errien erregueac ateraco dirade bera gandic.

17 Auzpeztu zan Abraham bere arpeguiaren gañean, eta farreguin zuen, eſaten zuela bere biotzean: ¿Uſte al dezu eun urtecoari jayoco zayola ſemea? ¿eta Sara laroguei ta amar urtecoac aurra eguingo duela?

18 Eta eſan cion Jaungoicoari: Arren bada Iſmael bicico balitz zure aurrean.

19 Eta eſan cion Jaungoicoac Abrahami: Sara zure emazteac eguingo dizu ſeme bat, eta paratuco diozun icena izango da Iſaac, eta jarrico det nere tratua berarequin, eta bere jatorriarequin bere ondoren betico elcartaſuneraco.

20 Iſmaelen gañean ere aditu zaitut: ona, bedeincatuco det, eta acieracico diot, eta chit ugarituco det: amabi aguintari izango dira bera gandic ſortuac, eta eguingo det jende andiaren buru.

21 Nere tratua berriz jarrico det Iſaaquequin, ceñ eguingo dizun Sarac dembora onetan datorren urtean.

22 Eta bucatu zancan berarequin itz eguiten zuenaren jolaſa, igo zan Jaungoicoa Abraham gandic.

23 Eta artu zuen Abrahamec bere ſeme Iſaac, eta bere echean jayotaco mendeco guztiac: eta eroſi cituen guztiac, bere echeco guizaſeme guztiac: eta beren buztanmocoaren araguia inguruan ebaqui zuen bereala egun artan, Jaungoicoac aguindu cion becela.

24 Abraham zan laroguei ta emeretzi urtecoa inguruan ebaqui zuenean bere buztanmocoaren araguia.

25 Eta Iſmael bere ſemeac amairu urte beteac cituen bere inguruan ebaquitzeco demboran.

26 Egun batean inguruan ebaquiac izan ciran Abraham eta bere ſeme Ismael.

27 Eta bere echeco guizaſeme guztiac, bai echean jayoac, bay eroſiac eta arrotzac, izan ciran berdin inguruan ebaquiac.

XVIII. Cap.

ETA aguertu citzayon Jauna Mambreco ibarrean eſerita cegoala bere bicilecuaren atean egunaren beroric andienean.

2 Eta alchaturic bere beguiac, aguertu citzayozcan iru guizaſeme zutic bere aldean: eta icuſi cituenean, joan citzayen corrica berai bidera irtetzera bere bicilecuco atetican, eta macurtu zan lurreraño.

3 Eta eſan zuen: Jauna, arquitu badet onguinaya zure beguietan, etzaite irago zure ſerbitzaria gandic:

4 Baña ecarrico det ur piſca bat, eta garbitu itzatzute zuen oñac, eta atſeden ezazute zuaitzaren azpian.

5 Eta ipiñico det ogui mocadu bat, eta indartu ezazute zuen biotza; guero joango cerate aurrera: ceren argatic ceartu dezute bidea zuen ſerbitzaria ganontz. Berac eſan zuten: Eguin ezazu eſan dezun becela.

6 Joan zan bada ariñ Abraham bicilecura Sara gana, eta eſan cion: Zoaz ariñ, orratu itzatzu iru lacari iriñ lore, eta eguiñ itzatzu oguiac autſpean.

7 Bera berriz joan zan corrica abere taldera, eta artu zuen andic chal chit guri eta on bat, eta eman cion morroi bati: ceñ joan zan ariñ eta egoſi zuen.

8 Artu ere cituen guria * eta eſnea, eta egoſi zuen chala, eta ipiñi zuen beren aurrean: bera berriz cegoan zutic beren aldean zuaitzpean.

9 Eta jan zutenean, galdetu cioten: ¿Non da Sara zure emaztea? Berac erantzun zuen: Or guelan dago.

10 Ceñi eſan cion: Ni etorrico naiz zu gana dembora onetan, bicitza lagun dezula, eta iduquico du ſeme bat Sara zure emazteac. Au adituric, Sarac farreguin zuen guelaren ate atzean.

11 Bada biac ciran zarrac, eta urteetan aurreratuac, eta ez oi cituen onezquero Sarac illecoac.

12 Sarac farreguin zuen ezcutuan, eſaten zuela: ¿Ni atſotu, eta nere Jauna aguretuta, atſeguiñez gozatuco al naiz?

13 Eta Jaunac eſan cion Abrahami: ¿Cergatic farreguin du Sarac, eſaten

* *mantequilla.*

duela: Eguia ote da aurra eguingo dedala nic izanic atfoa?

14 ¿Jaincoarentzat gauza gaitzic bai al da? Efan dizudan epean berriz biurtuco naiz zu gana dembora onetan bertan, bicia badezu, eta Sarac izango du feme bat.

15 Sarac, beldurrez beteric, ucatu zuen, efaten zuela: Ez det farreric eguin. Eta Jaunac: Ez da ala, efan zuen: baicic farreguin dezu.

16 Eta jaiquiric andic guizonac, zucendu cituzten beguiac Sodomarontz: eta Abraham cijoan beraquin, laguntzen ciela.

17 Eta efan zuen Jaunac: ¿Nola eftali dizayoquet Abrahami eguitera noana:

18 Izango bada bera jende andi, eta chit indartu baten zucentzallea, eta beragan bedeincatuac izango badirade lurreco jende guztiac?

19 Ceren badaquit aguinduco diela bere femeai, eta bere echecoai bere ondoren, gorde dezatela Jaunaren bidea, eta bici ditecela ongui eta zucen: bete ditzan Jaunac Abraham gatic efan diozcan gauza guztiac.

20 Eta Jaunac efan cion: Sodomaco eta Gomorraco deadarra aci da, eta beren pecatua gueyegui pifutu da.

21 Jechico naiz eta icufico det, beren obrac ote diran, ni gana allegatu dan deadarra becelacoac: jaquiteco ala ote dan edo ez.

22 Eta aldeguin zuten andic, eta joan ciran Sodomarontz: baña Abraham oraindican cegoen zutic Jaunaren aurrean.

23 Eta alderaturic efan cion: ¿Ona gaiztoarequin galduco al dezu?

24 ¿Baldin balirade errian berroguei ta amar on, galduac izango ote dira batean? ¿eta ez al diozu barcatuco erri guztiari berroguei ta amar on gatic, arquituco balirade an?

25 Urruti zu gandic onelaco gauzaric eguitea, eta iltzea ona gaiztoarequin, eta izan dedilla ona gaiztoa becela; ez dagoquizu au zuri: zuc, lur guztia juzgatzen dezun orrec, iñolaere ez dezu emango erabaqui au.

26 Eta efan cion Jaunac: Arquitzen baditut Sodoman berroguei ta amar on erriaren erdian, barcatuco diot erri guztiari beren amorioa gatic.

27 Eta erantzunaz Abrahamec, efan zuen: Bein afi naicen ezquero, itz eguingo diot nere Jaunari, autfa eta errautfa banaiz ere.

28 ¿Eta cer, arquituco balirade berroguei ta amar on baño bofi guchiago? ¿galduco dezu erri guztia, berroguei ta bofi on baño ez diradelaco? Eta efan zuen: Ez det galduco, arquitzen baditut an berroguei ta bofi.

29 Eta berriz itz eguin cion: ¿Eta baldin berroguei on arquituco balirade, cer eguingo dezu? Erantzun zuen: Ez det galduco berrogueyen amorioa gatic.

30 Erregututzen dizut, Jauna, etzaitecela aferratu, baldin itz eguiten badizut: ¿Cer, baldin an arquituco balirade oguei ta amar? Erantzun zuen: Ez det eguingo, baldin arquitzen baditut an oguei ta amar.

31 Bein afi naicen ezquero, efan zuen, itz eguingo diot nere Jaunari: ¿Cer, baldin an arquituco balirade oguei? Efan zuen: Ez det illco ogueyen gatic.

32 Erregututzen dizut, Jauna, efan zuen, etzaitecela aferratu, bein bacarric itz eguiten badizut: ¿Cer, baldin arquituco balirade an amar? Eta efan zuen: Ez det galduco amar gatic.

33 Eta joan zan Jauna, Abrahami itz eguiteari utzi cionean: eta bera biurtu zan bere toquira.

XIX. Cap.

ETA allegatu ciran aingueru biac Sodomara illunabarrean, eta eferita cegoala Lot errico ateetan. Berac icufi cituenean, jaiqui zan, eta irten citzayoten bidera: eta adoratu cituen macurturic lurrerontz,

2 Eta efan cien: Jaunac, erregututzen dizutet, arren etorri zaiteztela zuen ferbitzari onen echera, eta egon zaiteztela an: garbitu itzartzute zuen oñac, eta biar zuen bideari jarraituco diozute. Berac erantzun zuten: Ez, baicic plazan guelldituco guera.

3 Bera leyatu citzayoten chit gogorqui guelldituz citezten bere echean: eta farturic an preftatu cien afaria, eta egofi cituen legami gabeco oguiac, eta jan zuten.

4 Eta etzatera joan baño lenago, errico guizonac inguratu zuten echea aurretatic aguretaraño, erri guztia batean.

5 Eta ots eguin cioten Loti, eta efan

cioten: ¿Non dirade zure echean gauaz ſartu diraden guizonac? Ecarzquiguzu onera, ezagutu ditzagun.

6 Ateraric berac gana, eta bere ondoren atea ichiriric, Lotec eſan cien:

7 Erregututzen dizutet, nere anayac, ez dezazutela eguin gaiztaqueri au.

8 Baditut guizonic ezagutu ez duten bi alaba: ateraco ditut zuec gana, eta eguin ezazute beraquin nai dezuten gaitz guztia, eguiten ez badiezute gaitzic guizon oyei, ceren ſartu diraden nere tellatuaren itzalpean.

9 Baña berac erantzun zuten: Alde ezazu ara. Eta berriz: Sartu cera onera, diote, arrotza becela; ¿gu juzgatzeco al da? Zu tratatuco zaitugu ayec baño gaizquiago. Eta indar chit andia eguiten cioten Loti: eta ateac puscatzeco zorian ceuden.

10 Eta ona non guizonac luzatu zuten eſcua, eta ſartu zuten berac gana Lot, eta ichi zuten atea.

11 Eta campoan ceudenac, chiquienetic andieneraño ichututa ipiñi cituzten, alaco modutan non ecin zuten arquitu atea.

12 Eta eſan cioten Loti: ¿Badezu emen zureetacorican? Atera itzatzu erri onetatic zureac diraden guztiac; ſuya, edo ſemeac, edo alabac.

13 Ceren deſeguingo degu toqui au, beren deadarra aci dalaco Jaunaren aurrean, ceñac bialdu gaitu berac galtzera.

14 Ateraric bada Lot, itz eguin cien bere alabac artuco cituzten bere ſuyai, eta eſan cien: Jaiqui, eta atera zaitezte toqui onetatic: ceren Jaunac deſeguingo du erri au. Eta iduritu citzayeten chanchan becela itz eguiten ciela.

15 Eta egunſentian, ainguerac leyatzen citzayozcan, eſaten zutela: Jaiqui zaite, artu itzatzu zure emaztea, eta dauzcazun alaba biac: zu ere galdu etzaitecen errico gaiztaquerian.

16 Icuſiric naguicho cebillela, eldu cieten eſcutic berari, bere emazteari, eta bere alaba biai, ceren Jaunac barcatu nai cion.

17 Eta atera zuten, eta ipiñi erritic campora: eta an itz eguin cioten, eſaten ciotela: Salba ezazu zure anima: ez atzera beguiratu, eta etzaite guelditu inguru guzti onetan: baicic mendian ſalbatu zaite, zu ere beſteaquin galdu etzaitecen.

18 Eta eſan cien Lotec: Erregututzen dizut, nere Jauna,

19 Arquitu duen ezquero onguinaya zure ſerbitzariac zure aurrean, eta eracutſi didazun ezquero urricalmendu ain andia, libraturic nere bicia eriotzatic, eta ecin naicen ezquero allegatu mendira, guertatu ez dedin caſtiguac arrapatura ill nadin:

20 Bada emen aldean erri bat, ceñean gorde naitequen: chiquia da, eta an ſalbatuco naiz. ¿Ez al da chiquia, ta ez al da bicico nere anima?

21 Eta eſan cion: Ona onetan ere ematen dizut eſcatzen didazuna, eta ez det deſeguingo erria ceña gatic itz eguin didazun.

22 Zabiltz ariñ eta ſalbatu zaite an: ceren ecin eguingo det ecer an ſartu zaitecen bitartean. Argatic izan zan deitua erri ura Segor.

23 Eguzquia atera zan lurraren gañera, eta Lot ſartu zan Segorren.

24 Orduan Jaunac eguin zuen cerutic ſufrezco eta ſuzco curia Jaunaren eſcuz Sodoma eta Gomorraren gañera:

25 Eta deſeguin cituen erri oyec, eta inguru guztia, errietan bici ciran guztiac, eta lurreco berde guztiac.

26 Eta beguiraturic atzera bere emazteac, gatz biurtu zan.

27 Abraham berriz joanic goicean goiz, Jaunarequin egon zan toquira,

28 Beguiratu zuen Sodomara eta Gomorrara, eta alderri artaco lur guztira: eta icuſi cituen igotzen lurretic chingarrac labe baten quea becela.

29 Ceren deſeguiten cituenean Jaincoac alderri artaco erriac, oroituric Abrahamez, libratu zuen Lot bici izan zan errien ondamenetic.

30 Eta igo zan Lot Segortic, eta guelditu zan mendian, baitaere bere alaba biac berarequin (ceren beldur zan Segorren egoten); eta egon zan leice batean bera, eta bere alaba biac berarequin.

31 Eta eſan cion andiagoac chiquiagoari: Gure aita zarra da, eta ez da guelditu lurrean guizonic gu gana ſartu daitequenic lur guztian oi dan becela.

32 Atoz, orditu dezagun ardoarequin, eta lo eguin dezagun berarequin, utzi ditzagun gueroco aurrac gure aita gandic.

33 Eta eman cioten beren aitari eda-

ten ardoa gau artan, eta ſartu zan andiagoa, eta lo eguin zuen aitarequin: eta berac etzuen ſentitu, ez alaba etzin zanean, ez jaiqui zanean.

34 Urrengo egunean ere eſan cion andiagoac chiquiagoari: Ona nic atzo lo eguin nuen nere aitarequin; eman zayogun edaten ardoa gau onetan ere, eta lo eguingo dezu berarequin, utzi ditzagun gueroco aurrac gure aita gandic.

35 Eman cioten gau artan ere beren aitari edaten ardoa, eta ſarturic alaba chiquiagoa, lo eguin zuen berarequin: eta orduan ere etzuen ſentitu etzin zanean, ez jaiqui zanean.

36 Eta ala aurdun guelditu ciran Loten bi alabac beren aita gandic.

37 Eta eguin zuen andiagoac ſeme bat, eta jarri cion icena Moab: au da moabtarren aita gaurco eguneraño.

38 Chiquiagoac ere eguin zuen ſeme bat, eta jarri cion icena Amon, eſan nai du, nere erriaren ſemea: au da amonitarren aita gaurco eguneraño.

XX. Cap.

ETA alde eguiñic andican Abrahamec ego aldera, bici izan zan Cades eta Surren artean: eta egon zan arrotza bezala Geraran.

2 Eta eſan zuen Sara bere emaztea gatic: Nere arreba da. Eta Abimelec Geraraco erregueac bialdu zuen bere billa, eta artu zuen Sara.

3 Baña etorri zan Jaungoicoa Abimelec gana ametſetan gauaz, eta eſan cion: Beguira illco cerala artu dezun emacumea gatic: ceren ſenarra du.

4 Abimelequec berriz etzion uquituric eguin, eta eſan zuen: Jauna, ¿illco dezu jende jaquiñez eta ona?

5 ¿Ez al cidan berac eſan: Nere arreba da: eta emacumeac eſan zuen: Nere anaya da? Nere biotzeco ſencilltaſunean, eta nere eſcuen garbitaſunean, eguin det au.

6 Eta eſan cion Jaungoicoac: Nic ere badaquit biotz ſencilloarequin eguin dezula: eta argatic gorde zaitut, pecatu eguin etzenezan nere contra, eta ez nizun utzi berari uquituric eguiten.

7 Orain bada itzuli zayozu bere ſenarrari emaztea, ceren profeta dan: eta erregutuco du zu gatic, eta bicico cera: baña itzuli nai ez badiozu, jaquin ezazu illco cerala zu, eta zurea dan guztia.

8 Eta bereala gauaz jaiquiric, Abimelequec deitu cien bere ſerbitzari guztiai: eta eſan cituen itz guzti oyec beren belarrietan, eta chit beldurtu ciran guizaſeme guztiac.

9 Eta deitu ere cion Abimelequec Abrami, eta eſan cion: ¿Cer eguin diguzu? ¿certan pecatu eguin degu zure contra, eracartzeco nere gañera eta nere erreinuaren gañera pecatu andi bat? Bear etzenduena, eguin diguzu.

10 Eta berriz quejaturic, eſan zuen: ¿Cer icuſi dezu, au eguiteco?

11 Erantzun zuen Abrahamec: Uſte nuen nere artean, eſaten nuela: Noſqui ez da Jaungoicoaren beldurric toqui onetan: eta illco naute nere emaztea gatic:

12 Beſtela ere nere arreba da, nere aitaren alaba, eta ez nere amaren alaba, eta artu det nere emaztetzat.

13 Eta atera nauen ezquero Jaungoicoac nere aitaren echetic, eſan nion: Meſede au eguin bear didazu: Sartzen gueran toqui guztian, eſango dezu zure anaya naicela.

14 Artu cituen bada Abimelequec ardiac eta idiac, eta mirabeac, eta eman ciozcan Abrahami: eta itzuli cion Sara bere emaztea,

15 Eta eſan zuen: Zuen beguien aurrean dago lurra, bici zaite nai dezun edoceñ toquitan.

16 Eta Sarari eſan cion: Ona milla diru cillarrezco eman diozcat zure anayari, au izango dezu beguien eſtalqui bateraco zurequin dauden guztien aurrean, eta joaten ceran edoceñ toquira: eta oroitu zaite arrapatua izan cerala.

17 Eta erregu eguiñic Abrahamec, ſendatu cituen Jaungoicoac Abimelec, eta emaztea, eta bere neſcameac, eta aurrac eguin cituzten:

18 Ceren ichi zuen Jaunac Abimelequen echeco emaſabel guztia Sara Abrahamen emaztea gatic.

XXI. Cap.

ETA bifitatu zuen Jaunac Sara eſqueñi zuen becela: eta bete cituen eſan cituenac.

2 Eta aurdun guelditu zan eta eguin zuen ſeme bat bere zartzan, Jaungoicoac leendican adieraci cion demboran.

3 Eta jarri cion icena Abrahamec, Sarac eguin cion bere ſemeari, Iſaac:

4 Eta inguru ebaqui zuen zortzigar-

ren eguñean, Jaungoicoac aguindu cion becela,

5 Eun urte ceuzcanean: ceren aitaren adiñ * onetan, jayo zan Iſaac.

6 Eta eſan zuen Sarac: Jaungoicoac farreraguin dit: aditzen duen guztia, burlatuco da nizaz.

7 Eta berriz eſan zuen: ¿Norc uſteco zuen adituco zuela Abrahamec, Sarac emango ciola bularra, zarra zala eguin cion ſeme bati?

8 Aci zan bada umea, eta titia quendua izan citzayon: eta Abrahamec eman zuen bazcari andi bat aurrari titia quendu citzayonean.

9 Eta icuſiric Sarac Agar egiptoarren ſemea joſtatzen zala bere ſeme Iſaaquequin, eſan cion Abrahami:

10 Bota ezazu neſcame au, eta bere ſemea: ceren ez da jabegaya neſcamearen ſemea nere ſeme Iſaaquequin.

11 Gogor eguin citzayon Abrahami au bere ſemea gatic.

12 Baña Jaungoicoac eſan cion: Ez bequizu iritzi gauza garratza Sarac eſcatzen dizun guztia, mutilla gatic, eta zure neſcamea gatic: aditu ezazu eſaten dizuna: ceren Iſaac da ceñaren bitartez iraungo duen zure jatorriac.

13 Baña jarrico det neſcamearen ſemea jende andiaren buru, zu gandic datorrelaco.

14 Jaiqui zan bada Abraham goicean, eta arturic oguia, eta zagui bat bete ur, Agarri ſorbaldan ipiñi ciozcan, eta eman cion mutilla, eta bialdu zuen. Au joanic, cebillen galduric Berſabeeco bacardadean.

15 Eta aitu citzayonean zaguico ura, utzi zuen mutilla an ceuden zuaitzetatic baten azpian.

16 Eta joan zan, eta eſeri zan aurquez urrutian uztayac bota dezaquen aimbeſte, eta eſan zuen: Ez det icuſico mutilla iltzen: eta eſeriric aurrean, jaſo zuen bere boza, eta negar eguin zuen.

17 Eta aditu zuen Jaungoicoac mutillaren boza: eta Jaincoaren aingueruac deitu cion Agarri cerutic, eſaten zuela: ¿Cer eguiten dezu, Agar? Etzaite beldurtu: ceren aditu du Jaungoicoac mutillaren boza dagoen toquitic.

18 Jaiqui zaite, artu ezazu mutilla, eta eldu zayozu bere eſcutic: ceren eguingo det jende andiaren buru.

19 Eta idiqui ciozcan Jaungoicoac bere beguiac: eta icuſiric urezco putzu bat, joan zan, eta bete zuen zaguia, eta eman cion edaten mutillari.

20 Eta Jaungoicoac lagundu cion: eta aci zan, eta bicitu izan zan bacardadean, eta izan zan gazte eiztari chit ona.

21 Eta bicitu izan zan Farango eremuan, eta bere amac eman cion emaztea Egiptoco lurretican.

22 Dembora bertan eſan cioten Abimelec, eta Ficol bere ejercituco principeac, Abrahami: Jaungoicoa zurequin da eguiten dituzun gauza guztietan.

23 Juramentu eguin zadazu bada Jaungoicoa gatic, ez didazula gaitzic eguingo niri, ez nere ondorengoai, ez nere etorquiari: baicic nic zurequin eguin nuen urricalmenduaren araura, eguingo didazu niri, eta arrotz bici izan ceran lurrari.

24 Eta eſan zuen Abrahamec: Nic juramentu eguingo det.

25 Eta quejatu citzayon Abimelequi bere morroyac indarrez quendu cioten urezco putzua gatic.

26 Eta erantzun zuen Abimelequec: Ez det jaquin norc eguin zuen gauza au: eta zuc ere etziñidan adieraci, eta nic ez det aditu gaur artean.

27 Eraman cituen bada Abrahamec ardiac, eta idiac, eta eman ciozcan Abimelequi: eta biac eguin zuten elcartaſuna.

28 Eta ipiñi cituen Abrahamec berecian artaldeco zazpi bildots urruxa.

29 Eta eſan cion Abimelequec: ¿Cer adierazten dute berecian ipiñieraci dituzun zazpi bildots urruxa oyec?

30 Eta berac erantzun cion: Zazpi bildots urruxa oyec artuco dituzu nere eſcutic: adieraci dizadaten, neronec aitzurtu nuela putzu au.

31 Argatic izan zan deitua putzu ura Berſabee: cergatic an biac juramentu eguin zuten.

32 Eta eguin zuten elcartaſuna juramentuco putzua gatic.

33 Eta jaiqui ciran Abimelec, eta Ficol bere ejercituco principea, eta itzuli ciran paleſtinatarren lurrera. Abrahamec berriz jarri zuen baſo bat

* edade.

Berſabeen, eta ots eguin cion an Jaun Jaungoico beticoaren icenari.

34 Eta bici izan zan arrotza becela paleſtinatarren lurrean dembora lucean.

XXII. Cap.

GAUZA oyec irago ciran ezqueroz, probatu zuen Jaungoicoac Abraham, eta eſan cion: Abraham, Abraham. Eta berac erantzun zuen: Emen nago.

2 Eſan cion: Ar zazu Iſaac zure ſeme bacar maite dezuna, eta zoaz icusqueraren lurrera: eta an eſqueñico dezu ſacrificioz eracutſico dizudan mendietatic baten gañean.

3 Eta ala gauaz jaiquiric, Abrahamec treſnatu zuen bere aſtoa, ceramazquiela berarequin bi gazte, eta Iſaac bere ſemea. Eta chiquituric egurra ſacrificioraco, abiatu zan Jaungoicoac aguindu cion mendirontz.

4 Eta irugarren egunean, alchaturic beguiac, icuſi zuen toquia urrutitican:

5 Eta eſan cien bere morroyai: Ichodon ezazute emen aſtoarequin: ni eta mutilla joanic laſter araño, adoratuta guero, itzulico guera zuec gana.

6 Artu ere zuen egurra ſacrificioraco, eta jarri zuen Iſaac bere ſemearen gañean: berac berriz ceramazquien eſcuetan ſua eta ganibeta. Eta cijoacela biac batean,

7 Eſan cion Iſaaquec bere aitari: Nere Aita. Eta berac erantzun zuen: ¿Cer nai dezu, ſemea? Ona emen, eſan zuen, ſua eta egurra: ¿non da eſqueñi gaya?

8 Eta eſan cion Abrahamec: Nere ſemea, Jaungoicoac eratuco du beretzat eſqueñi gaya. Bacijoacen bada biac batean:

9 Eta eldu ciran Jaungoicoac eracutſi cion lecura, ceñean eguin zuen aldare bat, eta gañean egurra maneatu zuen: eta loturic Iſaac bere ſemea, ipiñi zuen aldarean cegoen egur gabillaren gañean.

10 Eta luzatu zuen eſcua, eta artu zuen ganibeta bere ſemea iltzeco.

11 Eta ona non Jaunaren aingueruac cerutic deadar eguin cion, ciotſala: Abraham, Abraham. Eta berac erantzun zuen: Emen nago.

12 Eta eſan cion: Ez ezazu luzatu zure eſcua mutillaren gañera, eta etzayozu ere ecer eguin: orain ezagutzen det Jaungoicoari beldur zatzayola, eta ez diozula barcatu zure ſeme bacarrari ere nere amorioa gatic.

13 Alchatu cituen Abrahamec bere beguiac, eta icuſi zuen bere atzean ari bat, itſatſia ſaſian adarretatic, ceñi elduric eſqueñi zuen ſemearen lecuan.

14 Eta icendatu zuen lecu ura, Jaungoicoac icuſten du. Argatic gaurco eguneraño eſaten da: Mendian Jaunac icuſico du.

15 Eta deitu cion Jaunaren aingueruac Abrahami bigarrenez cerutican, eſaten zuela:

16 Ni nerau gatic juramentu eguin det, eſaten du Jaunac: eguin dezulaco gauza au, eta ez diozulaco barcatu zure ſeme bacarrari nere amorioa gatic:

17 Bedeincatuco zaitut, eta ugarituco det zure jatorria ceruco izarrac becela, eta itſas bazterrean dagoan ondarra becela: eta zure jatorria izango da bere etſayen ateen jabe.

18 Eta zure jatorrian izango dirade bedeincaruac lurreco jende guztiac, obeditu diozulaco nere bozari.

19 Itzuli zan Abraham bere morroyac gana, eta joan ciran batean Berſabeera, eta an bici izan zan.

20 Oyec onela igaroric, emana izan citzayon Abrahami berria, nola bere anaya Nacorrec izan cituen ſemeac Melca gandic.

21 Hus lembiciſortua, eta Buz bere anaya, eta Camuel ſiriatarren aita,

22 Eta Caſed, eta Azau, Feldas ere, eta Jedlaf,

23 Eta Batuel, ceñ gandic jayo zan Rebeca: zortzi oyec izan cituen Nacor Abrahamen anayac, Melca gandic.

24 Eta bere oelagun, Roma ceritzana gandic, izan cituen Tabee, eta Gaham, eta Tahas, eta Maaca.

XXIII. Cap.

ETA bici izan zan Sara eun ta oguei ta zazpi urtetan.

2 Eta ill zan Arbee errian, ceñ dan Hebron, Canaango lurrean: eta etorri zan Abraham negarrez bere progua eguitera.

3 Eta au bucaturic, itz eguin cien Heten ſemeai, eſaten zuela:

4 Erbeſtecoa naiz eta arrotza zuen artean: indazute obiaren eſcua zuequin, lurpetzeco nere illa.

5 Erantzun zuten Heten ſemeac, ciotela:

6 Aditu gaitzatzu, jauna, Jaungoicoaren principea cera gure artean: lurpetu ezazu zure illa gure obi autatuetan: eta iñorc ere ecin galeracico dizu bere obian lurpetzea zure illa.

7 Jaiqui zan Abraham, eta agur eguin cion lurreco erriari, au da, Heten ſemeai:

8 Eta eſan cien: Onguitzat baldin badezute lurpetzea nere illa, aditu nazazute, eta izan zaitezte nere bitartecoac Efron Seorren ſemearequin:

9 Eman dizadan bere landaren azquenengo aldean daucan leice bitan partitua: ſaltzen didala balio duenean zuen aurrean obia eguiteco.

10 Eta bici zan Efron Heten ſemeen erdian. Eta erantzun cion Efronec Abrahami, erri artaco atetican ſartzen ciraden guztiac aditzen zutela, eſanaz:

11 Iñolaere ez da ala izango, nere jauna, baicican aditu nazazu eſaten dizudana: Ematen dizquizut landa, eta an dagoen leicea, nere errico ſemeen aurrean: lurpetu ezazu zure illa.

12 Macurtu zan Abraham lurreco erriaren aurrean.

13 Eta itz eguin cion Efron jendez inguraturic cegoanari: Erregututzen dizut aditu nazazula: Emango dizut landac balio duen dirua: ar zazu, eta onela lurpetuco det an nere illa.

14 Eta erantzun zuen Efronec:

15 Nere jauna, aditu nazazu: Eſcatzen dezun lurrac, balio ditu laureun ſiclo cillarrezco: au da balioa nere eta zure artean: ¿Baña cembat da au? Lurpetu ezazu zure illa.

16 Aditu zuenean au Abrahamec, piſatu zuen Efronec eſcatu zuen dirua, Heten ſemeac aditzen zutela, laureun ſiclo cillarrezco mercatuco diru onean.

17 Onembeſterequin leen Efronena zan landa, ceñean cegoan leice bitan partitua, Mambrerontz beguira, bai landa ta bai leicea, zuaitz guztiaquin bere inguruco alderri guztietan,

18 Emana izan citzayon Abrahami bere jabe oſo izateco, Heten ſemeac, eta erri artaco atetic ſartzen ciran guztiac icuſten zutela.

19 Eta onela lurpetu zuen Abrahamec Sara bere emaztea Mambrera beguira cegoan leice bitan partituan. Au da Hebron Canaango lurrean.

20 Eta Heten ſemeac ſendotu cioten Abrahami landaren, eta an cegoen leicearen jabetaſun oſoa, obiac eguin citzan.

XXIV. Cap.

ETA zan Abraham zarra, eta egun aſcotacoa: eta Jaunac bedeincatu zuen gauza guztietan.

2 Eta eſan cion bere echeco morroi zarrago, ceuzcan gauza guztien contu artzalleari: Ipiñi ezazu zure eſcua nere iſterraren azpian,

3 Juramentu eraguin dizazudan ceru eta lurreco Jaun Jaungoicoa gatic, ez dezula artuco nere ſemearentzat emaztea ni bici naicen canaantarren arteco alabaric:

4 Baicic joan zaitecela nere errira eta aideac gana, eta andic artu dezazula emaztea nere ſeme Iſaaquentzat.

5 Erantzun zuen morroyac: Ez baldin balu nai emacumeac etorri nerequin lur onetara, ¿eraman bear al det zure ſemea zu atera ciñan toquira?

6 Eta eſan zuen Abrahamec: Beguira ez dezazula iñoiz eraman nere ſemea ara.

7 Ceruco Jaun Jaungoico ateratu ninduenac nere aitaren echetic, eta nere jayotzaco lurretic, itz eguin cidanac, eta juramentu eguin cidanac, eſaten zuela: Zure jatorriari emango diot lur au: arc bidalduco du bere ainguerua zure aurrean, eta artuco dezu andican emaztea nere ſemearentzat:

8 Emacumeac berriz ez baldin balizu jarraitu nai, etzera lotua egongo juramentura: baña iñolaere ez dezu eramango ara nere ſemea.

9 Ipiñi zuen bada morroyac eſcua bere naguſi Abrahamen iſterraren azpian, eta juramentu eguin cion eguimbide onen gañean.

10 Eta artu cituen amar gamelu bere naguſiaren taldetic, eta joan zan, ceramazquiela berequin bere ondaſun guztietatic, eta jarriric bidean eldu zan Meſopotamiara Nacorren errira.

11 Eta atſeden eraguiñic gameluai erritic campora urezco putzu baten ondoan illunabarrean, emacumeac ur eſque joan oi diran demboran, eſan zuen:

12 Nere naguſi Abrahamen Jaun

Jaungoicoa, erregututzen dizut, arren, lagun zadazula gaur niri, eta urrical zaitecela Abraham nere naguſiarequin.

13 Ona non nagoan ni urezco iturriaren ondoan, eta erri onetan bici diradenen alabac ateratzen dirade ur eſque.

14 Araco neſcacha bada, ceñi neronec eſango diodan: Beeratu ezazu zure pegarra edan dezadan: eta berac erantzungo balit: Edan ezazu, baitaere emango diet zure gameluai edaria: uraxe izan dedilla zure ſerbitzari Iſaaqui preſtatu diozuna: eta onegatic ezagutuco det urrical izan cerala nere naguſiarequin.

15 Oraindican bere artean itz oyec acabatu gabe, ona non irtetzen zan Rebeca, Melca Abrahamen anai Nacorren emaztearen ſeme, Batuelen alaba, pegarra bere ſorbaldan zuela:

16 Neſcach chit moduzcoa, eta dontzella chit ederra, eta guizonec ezagutugabea: jachi zan bada iturrira, eta bete zuen pegarra, eta itzultzen zan.

17 Eta bidera atera citzayon morroya, eta eſan cion: Eman zadazu ur piſcacho bat edateco zure pegarretican.

18 Berac erantzun cion: Edan ezazu, nere jauna; eta berealaxe beeratu zuen pegarra bere beſoaren gañera, eta eman cion edaten.

19 Eta arc edan zuenean, eſan zuen: Baitaere ateraco det ura zure gameluentzat, guztiac edan dezaten artean.

20 Eta uſturic pegarra aſquetan, itzuli zan putzura ura ateratzera: eta ateraric eman cien gamelu guztiai.

21 Bera berriz cegoquion beguira ixillic, jaquin nairic Jaunac zorionecoa eguin ote zuen bere bidea, ala ez.

22 Eta gameluac edan zutenean, atera cituen guizonac urrezco belarrietaco bi ſiclo piſatzen zutenac, eta aimbat eſcumuturretaco amar ſiclo piſatzen zutenac.

23 Eta eſan cion: ¿Noren alaba cera? Adieraci zadazu. ¿Bada zure aitaren echean oſtatuz egoteco toquiric?

24 Berac erantzun zuen: Naiz Batuelen alaba, Melcaren eta bere ſenar Nacorren ſemearena:

25 Eſan ere zuen: Bada ugari gure echean laſtoa eta belar legorra, eta toqui zabala egoteco.

26 Macurtu zan guizona, eta adoratu zuen Jauna,

27 Eſaten zuela: Bedeincatua Abraham nere naguſiaren Jaun Jaungoico, quendu ez duena bere urricalmendu eta eguſia nere naguſia gandic, eta ecarri nauena bide zucenetic nere naguſiaren anayaren echera.

28 Corrica joan zan bada neſcacha, eta bere amaren echean eſan zuen aditu zuen guztia.

29 Bazuen berriz Rebecac anai bat Laban icenez, ceñ aſiñ atera zan guizona gana, iturria cegoan toquira.

30 Eta icuſi cituenean belarrietacoac eta eſcumuturretacoac itz guztiac eſaten cituen bere arrebaren eſcuetan: Oyec eſan dizquit guizonac: etorri zan guizona gana, ceñ cegoan gameluen ondoan, eta urezco iturriaren aldean:

31 Eta eſan cion: Sartu zaite, Jaunaren bedeincatua: ¿cergatic zaude campoan? Preſtatu ditut echea, eta toquia gameluentzat.

32 Eta ſartu zuen bicilecuan: eta treſnagaberu cituen gameluac, eta eman ciezten laſtoa eta belar legorra, eta ura garbitzeco beraren, eta berarequin etorri ciraden guizonen oñac.

33 Eta ipiñi zuten bere aurrean oguia. Berac eſan zuen: Ez det jango, aliqueta eſan artean eſateco dedana. Erantzun cion: Eſan zazu.

34 Eta berac: Naiz, eſan zuen, Abrahamen morroya:

35 Eta Jaunac bendicioz bete du nere naguſia, eta chit andi eguin du: eta eman diozca ardiac eta idiac, cillarra eta urrea, mirabeac, gameluac eta aſtoac.

36 Eta ſeme bat eguin cion Sara nere naguſiaren emazteac nere naguſiari bere zartzan, eta eman ciozcan cituen gauza guztiac.

37 Eta juramentu eraguin cidan nere naguſiac, eſaten zuela: Ez dezu artuco emaztea nere ſemearentzat ni bici naicen canaantarren arteco alabaric:

38 Baicic joango cera nere aitaren echera, eta nere aideen artetic artuco dezu emaztea nere ſemearentzat.

39 Nic berriz erantzun nion nere naguſiari: ¿Eta cer, ez baldin balu nai etorri nerequin emacumeac?

40 Jaunac, eſan zuen, ceñen aurrean nabillen, bidalduco du bere ainguerua zurequin, eta zucenduco du zure bidea:

eta artuco dezu emaztea nere ſemearentzat nere aideen artetic eta nere aitaren echetic.

41 Libratua izango cera nere madaricaciotic, elduric nere aideac gana, emango ez baldin balizuquete.

42 Allegatu naiz bada gaur urezco iturrira, eta eſan det: Abraham nere naguſiaren Jaun Jaungoicoa, zucendu baldin badezu orain nabillen nere bidea,

43 Ona non nagoen urezco iturriaren aldean; eta ura ateratzera irtetzen duen dontzella, eta nic eſaten diodana: Eman zadazu ur piſcacho bat edateco zure pegarretic:

44 Eta eſaten didana: Edan ezazu zuc, eta ateraco det zure gameluentzat: uraxe izan dedilla Jaunac preſtatu duen emacumea nere naguſiaren ſemearentzat.

45 Eta nengoala gauza oyec ixillean nere artean nerabiltzala, aguertu zan Rebeca cetorrela bere ſorbaldan cecarren pegarrarequin, eta jachi zan iturrira eta atera zuen ura. Eta eſaten diot: Indazu piſcacho bat edateco.

46 Berac ariñ beeratu du pegarra ſorbaldatic, eta eſan dit: Edan ezazu, eta zure gameluai emango diet edaria. Edan det, eta eman die edaten gameluai.

47 Eta galdetu nion, eta eſan: ¿Noren alaba cera? Berac erantzun zuen: Naiz Batuelen alaba, Nacorren ſemearena, ceñ eguin cion Melcac. Eta ala ipiñi diozcat cincilica belarrietacoac bere arpeguia apaintzeco, eta jarri diozcat eſcumuturretacoac bere eſcuetan.

48 Eta auzpezturic adoratu nuen Jauna, bedeincatzen nuela Abraham nere naguſiaren Jaun Jaungoicoa, ceñac ecarri ninduen bide zucenetic, artu nezan nere naguſiaren anayaren alaba bere ſemearentzat.

49 Argatic baldin izan nai badezute onguiguilleac eta leyalac nere naguſiarequin, eſan zadazute; baña beſte gauzaric nai baldin badezute, au ere eſan zadazute, joan nadin eſcuyera, edo ezquerrera.

50 Eta erantzun zuten Laban eta Batuelec: Jaunaren lana da au: ecin guenzaque guc zurequin beſte gauzaric itz eguin beraren gogocoa dana baicic.

51 Ona emen non dezun zure aurrean Rebeca, ar zazu, eta zoaz, eta izan bedi zure naguſiaren ſemearen emaztea, Jaunac itz eguin duen becela.

52 Aditu zuenean au Abrahamen morroyac, auzpezturic lurrean adoratu zuen Jauna.

53 Eta ateraric cillarrezco eta urrezco ontziac, eta jantziac, eman ciozcan Rebecari doaitzat; bere anayai ere eta amari eſqueñi ciezten emaitzac.

54 Ipiñiric bazcaria, egon ciran an elcarrequin jaten eta edaten zutela. Eta jaiquiric goicean, morroyac eſan zuen: Utzi zadazute, joan nadin nere naguſia gana.

55 Eta erantzun zuten bere anayac eta amac: Bego gurequin neſcacha amar egunean bederic, eta guero bijoa.

56 Ez nazazute gueldidu, erantzun zuen, ceren Jaunac zucendu duen nere bidea: utzi zadazute joan nadin nere naguſia gana.

57 Eta eſan zuten: Ots eguin zayogun neſcachari, eta jaquin dezagun beraren borondatea.

58 Eta ots eguinda etorri zanean, galdetu cioten: ¿Nai dezu joan guizon onequin? Berac erantzun zuen: Joango naiz.

59 Utzi cien bada joaten berari, eta bere iñudeari, eta Abrahamen morroyari, eta bere lagunai,

60 Eta zoriontaſun guztiac opa ciozcatela beren arrebari, eta ciotela: Gure arreba cera, aci zaitecela millen millatan, eta zure jatorria beren eſayen ateen jabe izan dedilla.

61 Rebeca bada eta bere neſcameac, igoric gameluetan, jarraitu cioten guizonari: ceñ bacijoan ariñ bere naguſia gana:

62 Dembora artan berriz bacebillen Iſaac putzura daraman bidean, ceñen icena da Bici danarena eta icuſi duenarena: ceren bici zan egoeco lurrean:

63 Eta atera zan campora erregutzera, eguna igarota: eta alchaturic beguiac, icuſi cituen gameluac urrutian cetocela.

64 Rebeca ere, icuſiric Iſaac, jachi zan gamelutic,

65 Eta eſan cion morroyari: ¿Nor da araco guizon datorrena campotic guri bidera irtetzera? Eta eſan cion: Ura da nere naguſia. Eta bera bereala elduric beloari, eſtali zan.

66 Morroyac berriz contatu cion Iſaaqui eguin zuen guztia.

67 Ceñac ſartu zuen bere ama Sararen guelan, eta artu zuen emaztetzat: eta aimbeſteraño maitatu zuen, ece beraatu cion bere amaren eriotzac eman cion miña.

XXV. Cap.

ABRAHAM berriz ezcondu zan beſte emacume Cetura ceritzan batequin:

2 Ceñac eguin cizquion Zamram eta Jecſan, eta Madan, eta Madian, eta Jesboc, eta Sue.

3 Jecſanec ere eguin cituen Saba, eta Dadan. Dadanen ſemeac izan ciran Aſurim eta Latuſim, eta Loomim.

4 Eta Madian gandic jayo ciran Efa, eta Ofer, eta Enoc, eta Abida, eta Eldaa: oyec guztioc Ceturaren ſemeac.

5 Eta Abrahamec eman ciozcan Iſaaqui, ceuzcan gauza guztiac:

6 Oelagunen ſemeai berriz eman ciezten doayac, eta apartatu cituen bere ſeme Iſaac gandic, oraindican bera bici zala, ſortalderontz.

7 Eta Abrahamen bicitzaco egunac izan ciran, eun eta iruroguei ta amaboſt urte.

8 Eta indargabeturic ill zan zartza onean, eta adiñ* andicoa, eta egunez betea: eta bildu zan bere erriarequin.

9 Eta obiratu zuten Iſaac eta Iſmael bere ſemeac leice bitan partituan, ceñ dagoan Mambreren aurrean, Efron Seor Hettarraren ſemearen landan,

10 Ceñ eroſi cien Heten ſemeai: an izan ciran obiratuac bera, eta Sara bere emaztea.

11 Eta bera ill ezquero bedeincatu zuen Jaincoac bere ſeme Iſaac, bici zana Bici danaren eta icuſi duenaren icena duen putzuaren aldean.

12 Oyec dirade Iſmael Abrahamen ſeme, Agar egiptoarrac, Sararen nescameac eguin cionaren etorquiac:

13 Eta oyec dirade bere ſemeen icenac, ceñaquin izan ciran deituac bere ondorengoac. Iſmaelen lembiciſortua Nabaiot, guero Cedar, eta Adbeel, eta Mabſam,

14 Eta Maſma, eta Duma, eta Maſa,

15 Hadar, eta Tema, eta Jetur, eta Naſis, eta Cedma.

16 Oyec dirade Iſmaelen ſemeac: eta alacoac gazteluai eta erriai eman ciezten icenac. Berac etorri ciran izatera amabi principe becelacoac, bacoitza bere echadicoa.

17 Eta Iſmaelen bicitzaco urteac izan ciran eun eta oguei ta amazazpi, eta indargabeturic ill zan, eta izan zan bere erriarequin bildua.

18 Eta bicitu izan zan Hevilatic Surreraño, ceñac beguiratutzen duen Egiptora ſartzen diradenentzat Aſiriara; bere anai guztien aurrean ill zan.

19 Oyec ere dirade Abrahamen ſeme Iſaaquen guizaldiac: Abraham gandic izan zan ſortua Iſaac:

20 Ceñ berroguei urtecoa zala, ezcondu zan Rebeca Batuel Meſopotamiaco ſiriatarraren alaba, Labanen arrebarequin.

21 Eta Iſaaquec erregutu cion Jaunari bere emaztea gatic, aurgabea zalaco: ceñac aditu cion, eta eman cion Rebecari ſortzeco ala.

22 Baña burruca ari ciran bere ſabelean aurrac; eta eſan zuen: Baldin onela guertatu bear bacitzadan, ¿ſortzea cer premia zan? Eta joan zan Jaunari galdetzera.

23 Ceñac erantzunaz eſan zuen: Bi jende daude zure ſabelean, eta bi erri zure errayetatic berecituco dirade, eta erriac erria garaituco du, eta andiagoac ſerbituco du chiquiagoa.

24 Eldu izan zan bada aurguiteco dembora, eta ona non bizquiac izan ciran arquituac bere ſabelean.

25 Lembici atera zana, gorria zan, eta guztia illetſua larruaren antzera: eta bere icena izan zan Eſau. Beſteac, bereala ateraric, anayaren oñazpiari ichequitzen cion eſcuarequin: eta argatic deitu cion Jacob.

26 Iruroguei urtecoa zan Iſaac, jayo citzayozcanean aurrac.

27 Andi eguin ciranean, Eſau irten

* *edade.*

zan mutill eiztari trebea, eta necazaria: baña Jacob muill toleſgabea bici oi zan echoletan.

28 Iſaaquec maitatzen zuen Eſau, bere eicetatic jaten zuelaco: eta Rebecac amatzen zuen Jacob.

29 Eta jaqui bat egoſi zuen Jacobec: ceñ gana etorriric Eſau necatua campotic,

30 Eſan cion: Eman zadazu jaqui egoſi gorri onetatic, ceren chit necatua nago. Argatic eman citzayon icena Edom.

31 Ceñi eſan cion Jacobec: Saldu zazquidazu lembicitaſunaren eſcubideac.

32 Berac erantzun zuen: Ona non iltzen naicen, ¿cer balioco didate lembicitaſunaren eſcubideac?

33 Jacobec eſan zuen: Juramentu eguin zadazu. Juramentu eguin cion Eſauc, eta ſaldu ciozcan lembicitaſunaren eſcubideac.

34 Eta ala arturic oguia eta chiliſte* platera, jan, eta edan zuen, eta joan zan: guchitan ceucala ſaldu izatea lembicitaſunaren eſcubideac.

XXVI. Cap.

ETA etorriric goſetea lurraren gañera Abrahamen egunetan guertatu zan urritaſunaren ondoan, joan zan Iſaac Gerarara Abimelec paleſtinatarren erreguea gana.

2 Eta aguertu citzayon Jauna, eta eſan cion: Etzaite jachi Egiptora, baicic zaude gueldiric eſaten dizudan lurrean.

3 Eta bici zaite arrotza becela, eta izango naiz zurequin, eta bedeincatuco zaitut: ceren zuri eta zure ondorengoai emango dizquizutet alderri guzti oyec, beteaz zure aita Abrahami eſqueñi nion juramentua.

4 Eta ugarituco det zure jatorria ceruco izarrac becela: eta emango diztet zure etorquiai alderri guzti oyec: eta bedeincatuac izango dira zure jatorrian lurreco jende guztiac,

5 Abrahamec obeditu ciolaco nere bozari, eta beguiratu cielaco nere eſanai eta aguintzai, eta gorde cituelaco ceremoniac eta legueac.

6 Onembeſterequin guelditu zan Iſaac Geraran.

7 Eta nola toqui artaco guizonac galdetzen cioten bere emaztea gatic, erantzun zuen: Nere arreba da. Ceren beldur zan aitortzen berarequin ezcontzaz lotuta cegoala, errecelaturic menturaz illco zutela aren edertaſuna gatic.

8 Eta iragoric egun aſco, eta egonic anche, beguiraturic Abimelec paleſtinatarren erregueac leyo batetic, icuſi zuen joſtatzen bere emazte Rebecarequin.

9 Eta ots eguiñic berari, eſan cion: Ezagun da zure emaztea dala: ¿cergatic guezurrez eſan dezu zure arreba dala? Erantzun zuen: Beldur nintzan illco nintzala bera gatic.

10 Eta eſan zuen Abimelequec: ¿Cergatic engañatu gaituzu? Errico norbait naſi citequean zure emaztearequin, eta ecarri cenezaquean gure gañera pecatu andia. Eta aguindu cion erri guztiari, eſaten zuela:

11 Guizon onen emazteari uquitutzen diona, eguiazquiro illco da.

12 Eta crein zuen Iſaaquec lur artan, eta arquitu zuen eun bider aimbat: eta bedeincatu zuen Jaunac.

13 Eta aberaſtu zan guizona, eta bacijoan aurreratuaz eta aciaz, aliqueta chit andia eguin zan artean.

14 Izan ere cituen ardi eta abere taldeac, eta mirabe chit aſco. Argatic bere ondamuan jarriric paleſtinatarrac,

15 Eſtali cituzten dembora artan Abraham aren aitaren morroyac eguin cituzten putzu guztiac, beteric lurraz:

16 Aimbeſte, ece Abimelequec berac eſan cion Iſaaqui: Alde ezazu gu gandic, ceren gu baño chit altuago eguin ceran.

17 Eta berac alde eguiñic etortzeco Geraraco ujolera, eta an bicitzeco:

18 Berriz eguin cituen beſte putzu batzuec, ceñac eguin izan cituzten bere aita Abrahamen morroyac, eta ceñac, ura ill ezquero, eſtali cituzten filiſteotarrac: eta deitu cien aitac leen ifiñi ciezten bere icenaquin.

19 Eta aitzurtu zuten ujolean, eta arquitu zuten ur bicia.

20 Baña an ere erriertac ceuden Geraraco artzayen eta Iſaaquen artzayen artean, eſaten zutela: Gurea da ura: argatic, guertatu zana gatic, icendatu zuen putzua, Guezurra.

21 Aitzurtu zuten beſte bat ere: eta onegatic ere aſerratu ciran, eta deitu cion, Etſaitaſunac.

22 Joanic andic aitzurtu zuen beſte putzu bat, ceñegatic etzan izan erriertaric: eta argatic icendatu zuen, Zaba-

* *Ienteja.*

lera, eſaten zuela: Orain bai zabaldu gaituela Jaunac, eta jarri gaituela acitzeco eran.

23 Eta igo zan toqui arratic Berſabeera,

24 Non aguertu citzayon Jauna arrats artan bertan, eſaten zuela: Ni naiz zure aita Abrahamen Jaungoicoa, etzaite beldur izan, ceren ni zurequin nago: bedeincatuco zaitut, eta ugarituco det zure jatorria nere ſerbitzari Abraham gatic.

25 Eta ala eguin zuen an aldare bat: eta deituric Jaunaren icenari, zabaldu zuen bere denda: eta aguindu cien bere morroyai aitzurrutzeco putzu bat.

26 Eta etorriric toqui onetara Geraratic, Abimelec, eta Ocozat aren adisquidea, eta Ficol ſoldaduen aguintari naguſia,

27 Itz eguin cien Iſaaquec: ¿Cergatic etorri cerate ni, gorroto diozuten, eta zuec gandic bota cenduten guizona gana?

28 Ceñac erantzun zuten: Icuſi degu zurequin dala Jauna, eta argatic eſan degu: Bego juramentua gure artean, eta eguin dezagun elcartaſuna.

29 Ez diguzun eguin gaitzic, nola guc ere ez diogun uquitu zure gauzari, ez zuri calte eguingo dizun gauzaric eguin: baicican paquean utzi cindugun Jaunaren bendicioz beteric:

30 Eman cien bada bazcari eder bat, eta jan ta edan ezquero

31 Jaiquiric goiz, eguin ciozcaten elcarri juramentuac: eta utzi cien joaten Iſaaquec paquean beren toquira.

32 Eta ona non egun artan bertan etorri ciran Iſaaquen morroyac berri ematera berari aitzurtu zuten putzuaren gañean, eta eſaten zutela: Arquitu degu ura.

33 Argatic deitu cion, Ugaritaſuna: eta erriari iſiñi citzayon icena da Berſabee, gaurco eguneraño.

34 Eſauc berriz berroguei urtecoa zala artu cituen emazteac, Judit Beeri hettarraren alaba, eta Baſemat Elon toqui artacoxearen alaba:

35 Ceñ biac naigabetu izan cituzten Iſaac eta Rebeca.

XXVII. Cap.

ISAAC berriz zartu zan, eta beguiac illundu citzayozcan, eta ecin zuen icuſi: eta deitu cion Eſau bere ſeme andiagoari, eta eſan cion: Nere ſemea. Beraç erantzun zuen: Emen nago.

2 Ceñi aitac: Icuſten dezu, eſan zuen, zartu naicela, eta ez daquidala nere eriotzaco eguna.

3 Artu itzatzu zure armac, flechateguia, eta uztaya, eta atera zaite campora: eta atzitzen dezunean eiz gauzaric,

4 Eguin zadazu andic jaquia, nola daquizun nic nai dedala, eta ecarri zadazu jan dezadan, eta bedeincatu zaitzan nere anima ill nadin baño lenago.

5 Adituric au Rebecac, eta ura joanic campora aitaren aguintea betetzera,

6 Eſan cion bere ſeme Jacobi: Aditu det zure aita izquetan zure anai Eſaurequin, eta eſaten ciola:

7 Ecar zadazu zure eicetican, eta guiſatu zadazu jan dezadan, eta bedeincatu zaitzadan ill nadin baño lenago.

8 Orain bada, nere ſemea, eguizu nere eſanen araura:

9 Eta joanic aunztaldera, ecarzquidazu bi anchume onenac, eguiteco beraquin zure aitari gogotic jaten dituen janariac:

10 Ceñac zuc eramanic, eta berac janic, bedeincatu zaitzan ill dedin baño lenago.

11 Ceñi arc erantzun cion: Badaquizu Eſau nere anaya guizon illetſua dala, eta ni illegabea:

12 Baldin uquitzen badit nere aitac, eta ezagutzen banau, bildur naiz uſte izan ez dezala burlatu nai izan diodala, eta ecarri ez dezadala nere gañera madaricacioa bedeincacioaren ordez.

13 Ceñi amac: Neregan izan bedi, eſan cion, madaricacio au, nere ſemea: aditu ezazu bacarric nere boza, eta joanic ecarzquidazu eſan dituſanac.

14 Joan zan, eta ecarri cituen, eta eman ciozcan bere amari. Preſtatu cituen berac janariac, cequien becela nai cituela aren aitac.

15 Eta jantzi zuen Eſauren ſoñecoric onenaquin, ceñac ceuzcan gordeta echean:

16 Eta ingurutu ciozcan eſcuac anchumeen larruaquin, eta eſtali ciozcan lepoco aguirian ceuzcan parteac.

17 Eta eman cion jaquia, eta eſcuratu ciozcan egoſi izan cituen oguiac.

18 Ceñac eramanic, eſan zuen: Nere aita. Eta berac erantzun cion: Aditzen det. ¿Nor cera zu, nere ſemea?

19 Eta eſan zuen Jacobec: Ni naiz Eſau zure lembiciſortua: eguin det zuc aguindu izan didazun becela: jaiqui, eſeri zaite, eta jan ezazu nere eicetican, bedeincatu nazan zure animac.

20 Eta berriz Iſaaquec bere ſemeari: ¿Nola, eſan cion, ain laſter arquitu izan al dezu, nere ſemea? Ceñec erantzun cion: Jaunaren borondatea zan laſter niri bidera irtetzea nai nuena.

21 Eta eſan zuen Iſaaquec: Atozquit onera uquitu dizazudan, nere ſemea, eta ezagutu dezadan ote ceran zu Eſau nere ſemea, ala ez.

22 Alderatu zan ura aita gana, eta uquituric berari, eſan zuen Iſaaquec: Eguiazqui boza, Jacobena da: baña eſcuac, Eſaurenac dirade.

23 Eta etzuen ezagutu, ceren eſcu illetſuac eman cioten andiagoaren antza. Bedeincatzeco bada bera,

24 Eſan zuen: ¿Zu al cera nere ſeme, Eſau? Erantzun zuen: Ni naiz.

25 Eta berac: Ecarzquidazu, eſan zuen, janariac zure eicetic, nere ſemea, bedeincatu zaitzan nere animac. Ceñec eſqueñita jan cituenean, eſqueñi cion ardoa ere; ceñ edanic,

26 Eſan cion: Alderatu zaite ni gana, eta eman zadazu muſu bat, nere ſemea.

27 Alderatu zan, eta muſu eman cion. Eta berealaxe aditu zueneco bere ſoñecoen uſai gozoa, bedeincatutcen zuela, eſan zuen: Ona nere ſemearen uſaya Jaunac bedeincatu duen landa loratſu baten uſaya becelacoa.

28 Eman dizazula Jaungoicoac ceruco intza, eta lurreco mardultaſunarequin gariaren eta ardoaren ugaritaſuna.

29 Eta ſerbitu zaitzatela erriac, eta ailoratu echadiac: izan zaite zure anayen Jaun, eta macurtu bitez zure aurrean zure amaren ſemeac. Zu madaricatzen zaituena, izan bedi madaricatua: eta zu bedeincatzen zaituena, izan bedi bendicioz betea.

30 Iſaaquec itz oyec bucatu, eta Jacob campora irten orduco, etorri zan Eſau,

31 Eta eraman ciozcan aitari eiceco janariac egoſiric, eſaten zuela: Jaiqui zaite, nere aita, eta jan zazu zure ſemearen eicetic, bedeincatu nazan zure animac.

32 Eta eſan cion Iſaaquec: ¿Nor cera bada zu? Berac erantzun zuen: Ni naiz Eſau zure ſeme lembiciſortua.

33 Arritu zan Iſaac izu chit andiarequin: eta ſiniſtu al daitequen baño gueyago, mirarituta, eſan zuen: ¿Ceñ da bada areſtian ecarri didana eiz atzitua, eta jan det guztietatic zu etorri baño lenago? Eta bedeincatu det, eta bedeincatua izango da.

34 Adituric Eſauc aitaren itzac, orro eguin zuen deadar andiarequin: eta chit naigabeturic, eſan zuen: Bedeincatu nazazu ni ere, nere aita.

35 Ceñac eſan zuen: Etorri da trampaz zure anaya, eta artu du zure bendicioa.

36 Eta berac eſan zuen: Arrazoi andiarequin izan zan deitua bere icena Jacob: ceren ona non bigarren aldiz jarri dan nere toquian: leen eraman cidan nere lenen izatea, eta orain bigarrenez oſtu dit nere bendicioa. Eta berriz aitari: ¿Ez al dezu gorde, eſan cion, bendicioric neretzat ere?

37 Iſaaquec erantzun zuen: Iñiñi dizut jauntzat, eta bere anai guztiac jarri ditut bere mempeco uztarpean: ſendotu det gariz eta ardoz, ¿eta oyen ondoren, cer eguingo dizut zuri, nere ſemea?

38 Ceñi Eſauc eſan cion: ¿Cer bada, ez al dezu, aita, bendicio bat baicic? Erregututzen dizut ni ere bedeincatu nazazula. Eta nola oju andiz negar eguiten zuen,

39 Urricaturic, Iſaaquec eſan cion: Lurreco mardultaſunean, eta ceruco goico intzean,

40 Izango da zure bendicioa. Guerran bicico cera, eta zure anayaren mendeco izango cera: eta etorrico da dembora, aſtindu eta aſcatuco dezuna zure lepotic bere uztarria.

41 Eſauc bada beti gorrotatu zuen Jacob aitac eman cion bendicioa gatic: eta eſan zuen bere biotzean: Etorrico dira nere aitaren lutoco egunac, eta illco det nere anai Jacob.

42 Adiraci ciozcaten oyec Rebecari: ceñec bidalduric ots eguitera bere ſeme Jacobi, eſan cion: Ona non Eſau zure anaya ari da eſaten illco zaituela.

43 Orain bada, nere ſemea, aditu ezazu nere boza, eta jaiquiric igues ezazu Haranera nere anai Laban gana:

44 Eta bicico cera berarequin egun guchi batzuetan, aliqueta itzali dedin artean zure anayaren aſerrea,

45 Eta aitu artean bere gorrotoa, eta aztu dedin artean eguin diozcatzun gauzac: guero bialduco det, eta ecarrico zaitut andican onera. ¿Cergatic galduco ditut ſeme biac egun batean?

46 Eta eſan cion Rebecac Iſaaqui: Nere biciarequin igüinduric nago Heten alabac gatic: baldin Jacobec artzen badu emaztea lur onetaco etorquitic, ez det nai bici.

XXVIII. Cap.

ISAAQUEC bada ots eguin cion Jacobi, eta bedeincatu zuen, eta aguindu cion eſaten zuela: Ez ezazu artu emaztea Canaango caſtatic:

2 Baicic zoaz, eta irago zaite Siriaco Meſopotamiara, zure amaren aita Batuelen echera, eta artu ezazu zuretzat andican emaztea Laban zure ama aldeco oſabaren alabetatic.

3 Eta Jainco guztialdunac bedeincatu zaitzala, eta acieraci eta ugaritu zaitzala: izan zaitecen erri aſcoren guialaria:

4 Eta eman dizazquizula Abrahamen bendicioac, eta zure etorquiari zure ondotic: izan zaitecen arrotz ibilli ceran lur zure aitonari eſqueñi cionaren jabe.

5 Eta utzi cionean Iſaaquec, ateraric etorri zan Siriaco Meſopotamiara, Laban Batuel ſiriatarraren ſeme bere ama Rebecaren anaya gana.

6 Eta icuſiric Eſauc, bere aitac bedeincatu zuela Jacob, eta bialdu zuela Siriaco Meſopotamiara, andic artzeco emaztea, eta bendicioaren ondotic aguindu ciola, eſanaz: Ez dezu artuco emaztea Canaango alabetatic:

7 Eta obedituric Jacobec bere guraſoai joan zala Siriara:

8 Icuſiric ere irago citzayonaz bere aitac etziela arpegui onarequin beguiratzen Canaango alabai:

9 Joan zan Iſmael gana, eta artu zuen emaztetzat leen ceuzcanen gañera, Mahelet Abrahamen ſeme Iſmaelen alaba, Nabaioten arreba.

10 Ateraric bada Jacob Berſabeetic, bacijoan Haranerontz.

11 Eta elduric toqui batera, eta atſeden nairic bertan eguzquia ſartu ezquero, artu zuen lurrean ceuden arrietatic bat, eta iſiñiric bere buruaren azpian, lo eguin zuen toqui berbertan.

12 Eta icuſi zuen ametſetan eſcalera bat, ceñaren oña cegoan lurraren gañean, eta beraren goyac uquitzen cion ceruari: baitaere Jaincoaren aingueruac igotzen eta jachitzen cirala bertatican,

13 Eta Jauna eſcalerari cichecala, eſaten ciola: Ni naiz zure aita Abrahamen Jaun Jaungoicoa eta Iſaaquen Jaungoicoa: Lo zatzan lurra, emango dizutet zuri eta zure ondorengoai.

14 Eta izango da zure jatorria lurreco autſa bezala: izango cera zabaldua ſartaldera, eta ſortaldera, eta iſarrera, eta egoera: eta bedeincatuac izango dira zugan eta zure jatorrian lurreco echadi guztiac.

15 Eta izango naiz zure zaitzallea joaten ceran edoceñ toquitan, eta itzulico zaitut lur onetara; eta etzaitut utzico aliqueta bete artean eſan dedan guztia.

16 Eta eſnatu zanean Jacob lotatic, eſan zuen: Eguiazqui Jauna dago toqui onetan, eta nic ez nequien.

17 Eta izuturic, eſan zuen: ¡Ceñ icaragarria dan lecu au! Ez dago emen beſteric Jaungoicoaren echea, eta ceruco atea baicic.

18 Goiz jaiquiric bada, Jacobec artu zuen bere buruaren azpian jarri zuen arria, eta zutitu zuen oroipengarritzat, ixuriric olioa gañera.

19 Eta icendatu zuen erria Betel, ceñi leen ceritzan Luza.

20 Eguin ere zuen eſqueintzari bat, eſaten zuela: Baldin Jaungoicoa izaten bada nerequin, eta zaitzen banau nic daramadan bidean, eta ematen badizquit oguia jateco, eta ſoñecoa jantzitzeco,

21 Eta itzulico banintz ongui nere aitaren echera: Jauna izango da nere Jaungoicoa,

22 Eta oroipengarritzat zutitu dedan arri au, izango da deitua Jaungoicoaren echea: eta eſqueñico dizquitzut, ematen didazun guztiaren amarrenac.

XXIX. Cap.

JARRAITURIC bada bere bideari, Jacob etorri zan ſortaldeco lurrera.

2 Eta icuſi zuen putzu bat landa ba-

tean, eta iru artalde ceudela egüerdiera eguiten bere aldean, ceren bertatic edanerazten citzayen abereai, eta beraren aoa arloſa andi batequin ichi oi zan.

3 Eta oitura zan alderaguitea arriari ardi guztiac bilduric, eta edaneracita artaldeai berriz ipintzea putzuaren aoaren gañean.

4 Eta eſan cien artzayai: Anayac, ¿ nongoac cerate? Berac erantzun zuten: Harangoac.

5 Ceñai galdeturic, eſan cien: ¿ Ezagutzen al dezute Laban Nacorren ſemea? Eſan zuten: Ezagutzen degu.

6 ¿ Ongui al da? eſan zuen: Oſaſunarequin da, diote: eta ona emen Raquel beraren alaba dator bere artaldearequin.

7 Eta eſan zuen Jacobec: Oraindican egunari zati andia igaro gabe da, eta ez da artaldeac ſalechetan biltzeco dembora: eman zayezute lenago edaria ardiai, eta onela eraman itzatzute berriz larrera.

8 Berac erantzun zuten: Ecin guenzaque, aliqueta abere guztiac bildu ditecen artean, eta quendu dezagun putzuco aoco arria, edaneraci dezagun artaldeai.

9 Oraindican izquetan ari ciraden, eta ona non Raquel cetorren bere aitaren ardiaquin: ceren berac zaitzen zuen artaldea.

10 Ceñ icuſi zuencan Jacobec, eta jaquin bere lenguſua zala, eta ardiac bere ama aldeco oſaba Labanenac, alderaguin cion putzuaren gañeco arriari.

11 Eta artaldeari edaneracita guero, muſu eman cion: eta negar andiac eguin cituen,

12 Eta adiraci cion zala bere aitaren anaya, eta Rebecaren ſemea: eta joanic ariñ, Raquelec eſan cion bere aitari.

13 Ceñac adituric etorri zala Jacob bere arrebaren ſemea, corrica bidera irten citzayon: eta laztanduric, eta milla muſu emanic, eraman zuen bere echera. Eta adituric ara joaeraren arrazoyac,

14 Erantzun cion: Nere ezurra cera, eta nere araguia. Eta bete ciran ezquero ill bateco egunac,

15 Eſan cion: ¿ Doañ ſerbituco al nazu, nere anaya ceralaco? Eſan zadazu cer ſari artuco dezun.

16 Eta ceuzcan bi alaba, andiagoaren icena Lia: chiquiagoari berriz ceritzan Raquel.

17 Baña Liz zan begui macartſua: Raquel arpegui ederrecoa, eta liraña.

18 Ceñ maitaturic Jacobec, eſan zuen: Serbituco zaitut zure alaba chiquiago Raquel gatic, zazpi urtetan.

19 Erantzun zuen Labanec: Obe da zuri ematea beſte guizonen bati baño, guelditu zaite nerequin.

20 Serbitu zuen bada Jacobec Raquel gatic zazpi urtetan: eta iduritzen citzayozcan guchi egunac amorioaren anditaſuna gatic.

21 Eta eſan cion Labani: Indazu nere emaztea: ceren bete da berarequin eſcontzeco dembora.

22 Ceñec ots eguiñic adiſquide talde aſcori janedanera, eguin cituen ezteyac.

23 Eta illuntzean ſartu cion bere alaba Lia,

24 Ematen ciola alabari neſcame bat, icenez Zelfa. Ceñegana ſarturic Jacob oi bezala, zabalduric eguna, icuſi zuen Lia:

25 Eta eſan cion bere aitaguiarrebari: ¿ Cer da eguin nai izan dezuna? ¿ Raquel gatic ez al zaitut ſerbitu? ¿ cergatic engañatu nazu?

26 Erantzun zuen Labanec: Ez da oitura gure errian, chiquiagoac lenago eman ditzagula ezteyetaraco.

27 Bete ezazu eztei onen egunen aſtea: eta au ere emango dizut beſte zazpi urtetan ſerbitzeco nazun lana gatic.

28 Eguiñic eſcatu ciona, eta iragoric aſtea, ezcondu zan Raquelequin:

29 Ceñi aitac eman cion Bala neſcametzat.

30 Irichiric noizbait Jacobec ain nai cituen ezteyac, maiteago izan zuen bigarrena lembicicoa baño, ſerbitzen zuela Labanen echean beſte zazpi urtetan.

31 Baña icuſiric Jaunac mezpreciatzen zuela Lia, emaſabela idiquicrazo cion, aizpa ſoilla guelditzen zala.

32 Ceñac arguitara eman zuen beregan ſortua izan zan ſemea, eta jarri cion icena, Ruben, eſaten zuela: Icuſi zuen nere umilltaſuna, orain maitatuco nau nere ſenarrac.

33 Berriz ere aurdun guelditu zan eta eguin zuen ſeme bat, eta eſan zuen: Aditu duelaco Jaunac mezpreciatua naicela, eman dit au ere; eta paratu cion icena, Simeon.

34 Irugarrenez ere aurdun guelditu zan, eta eguin zuen beſte ſeme bat: eta

eſan zuen: Orain ere bilduco da nerequin nere ſenarra, eguin diozcadalaco iru ſeme: eta argatic deitu cion, Levi.

35 Laugarrenez aurdun guelditu zan, eta eguin zuen ſeme bat, eta eſan zuen: Orain alabatuco det Jauna, eta argatic deitu cion, Juda: eta etzan berriz aurdun guelditu.

XXX. Cap.

ICUSIRIC berriz Raquelec ſoilla zala, bere aizparen onaren damua izan zuen, eta eſan cion bere ſenarrari: Eman zazquidazu aurrac, beſtela illco naiz.

2 Ceñi erantzun cion Jacobec aſerraturic: ¿Jaungoico zure ſabeleco frutuican gabe utzi zaituanaren lecuan bai al nago ni?

3 Eta berac: Badet, eſan cion, Bala neſcamea: ſartu zaite bera gana, aur eguin dezan nere magalean, eta izan ditzadan bera gandican ſemeac.

4 Eta eman cion Bala emaztetzat: ceñ,

5 Sarturic bera gana ſenarra, aurdun guelditu zan, eta eguin zuen ſeme bat.

6 Eta eſan zuen Raquelec: Juzgatu nau Jaunac, eta aditu du nere boza, emanic niri ſeme bat, eta argatic deitu cion, Dan.

7 Berriz ere aurdun gueldituric Bala eguin zuen beſte bat;

8 Argatic eſan zuen Raquelec: Erriertan jarri nau Jaungoicoac nere aizparequin, eta garai atera naiz: eta deitu cion, Neftali.

9 Ezaguturic Liac utzi ciola aurguiteari, eman cion ſenarrari bere neſcame Zelfa.

10 Ceñac aurdun guelditu ondoren eguiñic ſeme bat,

11 Eſan zuen: Galanqui. Eta argatic deitu cion, Gad.

12 Zelfac beſte ſeme bat ere eguin zuen.

13 Eta eſan zuen Liac: Au nere zorioneraco: ceren emacumeac deituco didate zorionecoa: argatiç deitu cion, Aſer.

14 Eta ateraric campora gariac ebaquitzeco demboran, Rubenec arquitu cituen urriloac*: ceñac eraman ciozcan bere ama Liari. Eta eſan zuen Raquelec: Eman zazquidazu zure ſemearen urrilo* batzuec.

15 Berac erantzun zuen: ¿Guchi al deritzazu quentzea neri ſenarra, gañera eramateco nere ſemearen urriloac* ere? Eſan zuen Raquelec: Lo eguin beza zurequin gaurco gauean zure ſemearen urriloac* gatic.

16 Eta itzultzen zala Jacob campotican illunabarrean, irten zan bere bidera Lia, eta eſan cion: Nerequin egongo cera: ceren neronec eroſi det eſcubide au nere ſemearen urriloac* gatic. Eta lo eguin zuen berarequin gau artan.

17 Eta aditu cituen Jaungoicoac bere erreguac: eta aurdun guelditu zan, eta eguin boſgarren ſemea,

18 Eta eſan zuen: Eman dit Jaungoicoac ſaria: eman niolaco nere neſcamea nere ſenarrari: eta deitu cion, Iſacar.

19 Berriz ere Lia aurdun gueldituric, eguin zuen ſeigarren ſemea,

20 Eta eſan zuen: Donatu nau Jaincoac dote onarequin: oraingo aldian ere nerequin izango da nere ſenarra, eguin diozcadalaco ſei ſeme. Eta argatic deitu cion, Zabulon.

21 Seme onen ondoren eguin zuen alaba bat, icenez Dina.

22 Raquelez ere oroituric, Jaunac aditu zuen, eta idiquierazo cion emaſabela.

23 Ceñ aurdun guelditu zan eta eguin zuen ſeme bat, eſaten zuela: Quendu du Jaungoicoac nere lotſa.

24 Eta deitu cion, Joſe, eſaten zuela: Eman bizat Jaunac beſte ſeme bat.

25 Eta Joſe jayota, eſan cion Jacobec bere aitaguiarrebari: Utzi zadazu irzuli nadin nere jayoterrira, eta nere lurrera.

26 Eman zazquidatzu nere emazteac, eta nere aurrac, ceñac gatic ſerbitu zaitudan, joan nadin: zuc daquizu nola ſerbitu zaitudan.

27 Eſan cion Labanec: Arquitu dezadala nic arpegui ona zure aurrean: iragoarequin icaſi det, Jaungoicoac bedeincatu nauela zu gatic:

28 Icendatu ezazu emango dizudan zure ſoldata.

29 Eta berac erantzun zuen: Zuc badaquizu nola ſerbitu zaitudan, eta ceñ

* *mandragorac.*

andiac izan diraden zure ondaſunac nere eſcuetan.

30 Guchi cenduen ni zu gana etorri baño lenago, eta orain aberaſtu cera: eta bedeincatu zaitu Jaunac nere ſarreran. Bearra da bada nic ere noizbait beguiratu dezadala nere echea gatic.

31 Eta eſan zuen Labanec: ¿Cer emango dizut? Eta berac eſan zuen: Ez det ecer nai: baña eguiten baldin badezu eſcatzen dedana, berriz larrean erabilli, eta zaituco ditut zure abereac.

32 Ingurutu itzatzu zure artalde guztiac, eta banacatu itzatzu ardi pintatu, eta ille nabarreco guztiac: eta jayotzen diran beltz, manchatu, eta pintatu guztiac, naiz ardietan, naiz auntzetan, izango dira nere ſoldatatzat.

33 Eta bere demboran itz eguingo du nere alde nere leyaltaſunac, allegatzen danean epe erabaquia: eta pintatu, eta manchatu, eta beltzac ez diran guztiac, naiz ardietan, naiz auntzetan, lapurtzat ſalatuco naute.

34 Eta eſan zuen Labanec: Ongui deritzat eſcatzen dezuna.

35 Eta banacatu cituen egun artan auntz, eta ardi, eta aquer, eta ari, pintatu eta manchatuac: eta abere colore bateco, au da, ille zuri edo beltzeco guztia, jarri zuen bere ſemeen eſcuan.

36 Eta ipiñi zuen iru eguneco bidearen bitartea, beraren eta ſuyaren artean, ceñec larrean darabilzquien Labanen beſte artaldeac.

37 Arturic bada Jacobec zumarrezco, eta almendrozco, eta platanozco cigor berdeac, zati batzuetan deſazaldu cituen: eta quenduric azalac, zuritaſuna aguertu zan azal gabe guelditu ciradenetan: oſoric utzi citzayotenac berriz, berdeac gueldiru ciren: eta onela izan zan eguiña colore nabarra.

38 Eta ipiñi cituen ura ixuri oi zan aſquetan: artaldeac edatera cetocenean, beguien aurrean iduqui citzaten cigorrac, eta berai beguira umetu citecen.

39 Eta guertatu zan naſieraco berotaſunean bertan beguiratzea ardiac cigorrai, eta eguitea ume manchatu, eta nabar, eta aſco colorez naſtutuac.

40 Eta banacatu zuen artaldea Jacobec, eta jarri cituen cigorrac aſquetan arien beguien aurrean: eta ciran Labanenac zuri eta beltz guztiac: gañeracoac berriz Jacobenac, banacaturic artaldeac beren artean.

41 Ala bada udaberrian arremetzen ciradenean ardiac, jartzen cituen Jacobec cigorrac ur aſquetan arien eta ardien beguien aurrean, berac gogoan cerabiltzatela umetu citecen:

42 Naſiera berriz udazquenecoa zanean, eta umetzea azquenecoa, etzituen ipintzen. Eta onela Labanenac ciran udazquenecoac: eta Jacobenac udaberricoac.

43 Eta onela chit aberaſtu zan guizona, eta izan cituen abere aſco, mirabeac, gameluac eta aſtoac.

XXXI. Cap.

ADITU cituen ezquero berriz Labanen ſemeen itzac eſaten zutela: Eraman ditu Jacobec gure aitaren ciran gauza guztiac, eta aren ondaſunaquin aberaſtuta, eguin da alquitſua:

2 Arretatu ere zuen, Labanen arpeguia, etzala bere alde atzo eta erenegun becelacoa,

3 Batezere eſanic Jaunac berari: Itzuli zaite zure guraſoen lurrera, eta zure aideac gana, eta izango naiz zurequin.

4 Bidaldu cituen, eta ots eguin cien Raquel eta Liari artaldeac larrean cerabilzquien campora:

5 Eta eſan cien: Icuſten det zuen aitaren arpeguia ez dala nere ganaco atzo eta erenegun becelacoa: baña nere aitaren Jaungoicoa izan da nerequin.

6 Eta ceroc daquizute nere indar guciaquin ſerbitu dedala zuen aita.

7 Baña zuen aitac ere engañatu nau, eta aldatu du nere ſoldata amar bider: eta alaere ez dio utzi Jaungoicoac niri gaitzic eguiten.

8 Berac eſan zuenean: Nabarrac izango dira zure ſoldata: ardi guztiac eguiten cituzten ume nabarrac. Beſtera berriz eſaten zuenean: Zuri guztiac artuco dituzu ſoldatatzat, artalde guztiac eguin cituzten zuriac.

9 Eta Jaincoac artu ditu zuen aitaren ondaſunac, eta eman dizquit niri.

10 Ceren ardiac umetutzeco dembora allegatuta laſter, alchatu nituen nere beguiac, eta icuſi nituen ametſetan emeen gañera igotzen ciran artac cirala nabar-

rac, eta manchatuac, eta colore aſcotacoac.

11 Eta eſan cidan Jaincoaren ainguеruac ametſetan: Jacob. Eta nic erantzun nuen: Emen nago.

12 Ceñec eſan zuen: Alchatu itzatzu zure beguiac, eta icuſi itzatzu emeen gañera igotzen diraden ar guztiac, nabarrac, manchatuac, eta naſtutuac. Ceren icuſi det Labanec zuri eguin dizun gucia.

13 Ni naiz Betelgo Jaungoicoa, non untatu cenduen arria, eta eguin ciñidan eſqueintzari bat. Orain bada jaiqui zaite, eta atera zaite lur onetatic, itzultzen cerala zure jayoterrico lurrera.

14 Eta erantzun zuten Raquelec eta Liac: ¿Condar piſcaren bat bai al degu gure aitaren echeco ondaſunetan eta ſenipartean?

15 ¿Ez al gaitu iduqui arrotzac bezala, eta ſaldu, eta jan gure balioa?

16 Baña Jaungoicoac artu ditu gure aitaren ondaſunac, eta eman dizquigu guri, eta gure ſemeai: argatic eguin ezazu Jaincoac aguindu dizun gucia.

17 Jaiqui zan bada Jacob, eta jarriric bere aurrac eta emazteac gameluen gañean, joan zan.

18 Eta eraman cituen bere ondaſun guztiac, eta abereac, eta Meſopotamian irabaci zuen guztia, joaten zala bere aita Iſaac ganontz Canaango lurrera.

19 Dembora onetan joana zan Laban ardiac moztutzera, eta Raquelec oſtu cituen bere aitaren jaincoac.

20 Etzion adiraci nai Jacobec bere aitaguiarrebari igues eguitera cijoala.

21 Eta joanic bera bereac ciran gauza guztiaquin, eta iragoric ibaya, cijoala Galaadco mendirontz,

22 Adiraci citzayon Labani irugarren egunean, nola Jacob igueſi cijoan.

23 Ceñec, arturic bere anayac, jarraitu cion zazpi egunean: eta atzitu zuen Galaadco mendian.

24 Eta icuſi zuen ametſetan Jaungoicoa eſaten ciola: Contu guero itz eguitearequin Jacoben gaitzeraco izan daitequen gauzaric.

25 Eta Jacobec zabaldu zuen mendian denda: eta nola Labanec atzitu zuen bere anayaquin, Galaadco mendi berberran jarri zuen denda.

26 Eta eſan cion Jacobi: ¿Certaraco onela eguin dezu ixillean eramaten dizquidazula nere alabac ezpataz catibatuac balirade becela?

27 ¿Cergatic neronec jaquin gabe nai izan dezu igues eguin, eta ez adieraci neroni, laguntzeco pozarequin, eta cantaquin, eta panderoaquin, eta guitarraquin?

28 Ez didazu utzi muſu ematen nere ſemeai, eta alabai: eroen guiſara eguin dezu: orain eguiazqui

29 Badu nere eſcuac indarra itzultzeco zuri gaitza gaitza gatic: baña zuen aitaren Jaungoicoac atzo eſan cidan: Contu guero ez daguizula eſan Jacoben gaitzean izango dan itzic.

30 Ongui da; nai cenduen joatea zureac gana, eta zure aitaren echearen deſeoan ceunden: ¿Cergatic oſtu dituzu nere jaungoicoac?

31 Erantzun zuen Jacobec: Zuc jaquin gabe atera nintzan, ceren bildur nintzan quenduco ciñizquidala zure alabac.

32 Lapurreta gatic eſaten didazunaren gañean berriz: guretaco edoceñi arquitzen baldin badiozcazu zure jaungoicoac, illa izan bedi gure anayen aurrean. Billatu ezazu, eta eraman arquitzen baldin badezu nigan zurea dan gauzaric. Oyec eſaten cituenean, etzequien Raquelec oſtu cituela jaincoac.

33 Eta Jacoben eta Liaren, eta nescaine bien dendan farturic, Labanec etzituen arquitu. Eta ſartu zanean Raquelenean,

34 Berac laſter joanic ezcutatu cituen gameluaren treſnen azpian, eta eſeri zan gañean: eta denda gucian billa cebillenari, eta ecer arquitzen etzuenari,

35 Eſan cion: Ez bequio aſerratu nere jaunari, zure aurrean jaiqui ecin naicelaco: ceren emacumeen oituraren guiſara guertatu zat orainche. Onela izan zan burlatua billariaren trebetaſuna.

36 Eta aſerraturic, Jacobec garrazqui eſan cion: ¿Cer nere falta, eta cer nere pecatu gatic etorri cera ain iracequia nere ondoren,

37 Eta naſtu dituzu nere echetreſna guztiac? ¿cer arquitu dezu zure echeco aberaſtaſun guztitic? Ipiñi ezazu emen nere anayen, eta zure anayen aurrean, eta juzgatu dezatela nere eta zure artean.

38 ¿Onetaraco egon naiz zurequin

oguei urtetan? Zure ardiac eta auntzac etziran izan antzuac, ez det jan zure artaldeco ariric:

39 Ez dizut ere eracutſi piſtiac arrapatutacoric, calte gucia neronec oſotzen nuen: oſtua gatic galtzen zan gucia, lazqui eſcatzen ciñidan.

40 Gau ta egun erretzen nintzan beroarequin, eta izotzarequin, eta igues eguiten zuen loac nere beguietatican.

41 Eta onela oguei urtetan zure echean ſerbitu cindudan; amalau, alabac gatic, eta ſei, zure artaldeac gatic: aldatu ere ciñidan nere ſoldata amar bider.

42 Nere aita Abrahamen Jaungoicoac, era Iſaaquen bildurrac lagundu ez baldin balit, aurqui orain larrugorrian bidalduco ninduzun: Jaungoicoac beguiratu cien nere eſtutaſunari eta nere eſcuen lanari, eta atzo zurequin aſerratu zan.

43 Erantzun cion Labanec: Nere alabac eta ſemeac, eta zure artaldeac, eta icuſten dezun gucia, nereac dira: ¿cer eguin dizayequet nere ſeme eta illobai?

44 Atoz bada, eta eguin dezagun alcartaſuna: izan dedin teſtimoniotzat nere eta zure artean.

45 Artu zuen bada Jacobec arri bat, eta zutitu zuen oroipengarritzat:

46 Eta eſan cien bere anayai: Ecarri itzatzute arriac. Ceñac bilduric eguin zuten arri pilla bat, eta jan zuten bere gañean:

47 Ceñi deitu cion Labanec Teſtiguaren pilla: eta Jacobec, Teſtimonioaren montoya, biac beren izcuntzaren araura.

48 Eta eſan zuen Labanec: Pilla au izango da gaur teſtigua nere eta zure artean, eta argatic izan zan icendatua Galaad, au da, Teſtiguaren pilla.

49 Beguiratu eta juzgatu beza Jaunac gure artean banacatzen gueranean bata beſtea gandican,

50 Atſecabetzen baldin badituzu nere alabac, eta artzen baldin badituzu oriez gañera beſte emazte batzuec: gure itzen beſte teſtiguric ez da, emen beguira dagoen Jaungoicoa baicic.

51 Eta berriz eſan cion Jacobi: Ona pilla au emen, eta nere eta zure artean zutitu dedan arria,

52 Teſtigu izango da: pilla au, diot, eta arria izan bitez teſtimoniotzat, baldin nic iragotzen badet zu gana joateco, edo zuc iragotzen badezu, niri gaitz eguiteco aſmoarequin.

53 Abrahamen Jaungoicoac, eta Nacorren Jaungoicoac eta beren aitaren Jaungoicoac, juzgatu beza gure artean. Juramentu eguin zuen bada Jacobec bere aita Iſaaquen bildurra gatic:

54 Eta eguiñic eſqueintzariac mendian, deitu cien bere anayai oguia jateco. Ceñac jan zutenean, guelditu ciran an.

55 Labanec berriz jaiquiric gauaz, muſu eman cien bere ſemeai eta alabai, eta bedeincatu cituen: eta itzuli zan bere toquira.

XXXII. Cap.

JACOB ere joan zan aſi zuen bidetic: eta Jaungoicoaren ainguеruac atera citzayozcan bidera.

2 Ceñac icuſi cituenean, eſan zuen: Jaungoicoaren egonlecuac dirade oyec: eta deitu cion toqui ari, Mahanaim, au da, Egonlecuac.

3 Bidaldu ere cituen mandatariac bere aurretican bere anai Eſau gana Seirco lurrera, Edomgo alderrian:

4 Eta aguindu cien, eſanaz: Onela itz eguingo diozute nere jaun Eſauri: Oyec eſaten ditu zure anai Jacobec: Labanen echean arrotza izan naiz, eta egon naiz gaurco eguneraño.

5 Baditut beyac, eta aſtoac, eta ardiac, eta mirabeac: eta bidaltzen ditut orain mandatariac nere jauna gana, arquitu dezadan eſquer ona zure aurrean.

6 Eta itzuli ciran mandatariac Jacob gana, eſaten zutela: Allegatu guera zure anai Eſau gana, eta ona non agudo datorren zuri bidera irtetzera lareun guizonequin.

7 Chit beldurtu zan Jacob: eta izuturic partitu zuen berarequin ceucan jendea, abereac ere, eta ardiac, eta beyac, eta gameluac, bi taldetan,

8 Eſaten zuela: Eta etortzen baldin bada Eſau talde batera, eta zauritzen baldin badu, guelditzen dan beſte taldeac, igues eguingo du.

9 Eta eſan zuen Jacobec: Nere aita Abrahamen Jaungoicoa, eta nere aita Iſaaquen Jaungoicoa: Jaun, eſan cidana: Itzuli zaite zure lurrera, eta zure jayoterrico toquira, eta ongui eguingo dizut:

10 Zure urricaltaſun guztien, eta zure

ſerbitzari oni, aguindu ciñiozcanaren araura, bete diozcazun leyaltaſunaren diña ez naiz ni. Nere maquilla onequin irago nuen Jordan au, eta orain biurtzen naiz bi talde oyequin.

11 Gorde nazazu nere anai Eſauren eſcutic, ceren chit bere bildur naiz: cergatic etorrita zauritu ez dezan ama ſemeaquin.

12 Zuc eſan cenduen ongui eguingo ciñidala, eta zabalduco cenduela nere jatorria itſaſoco ondar, ugaritaſunaz contatu ecin dezaquena becela.

13 Eta lo eguiñic an gau artan, berecitu cituen ceuzcanetatic, eſqueintzariac bere anai Eſaurentzat,

14 Berreun auntz, oguei aquer, berreun ardi, eta oguei ari,

15 Oguei ta amar gamelu ama beren umeaquin, berroguei bei, eta oguei cecen, oguei aſtaeme, eta beren amar ume.

16 Eta bidaldu cituen bere ſerbitzarien eſcuz talde bacoitza berecian, eta eſan cien bere morroyai: Zoazte nere aurretican, eta bego artea taldetic taldera.

17 Eta lenengoari aguindu cion, eſaten zuela: Arquituco baldin bacendu nere anai Eſau, eta galdetuco balizu, ¿Norena cera? edo, ¿nora zoaz? edo, ¿norenac dirade aurrean daramazquizunac?

18 Erantzungo dezu: Dirade zure ſerbitzari Jacobec nere naguſi Eſauri bidaltzen diozcan emaitzac: eta bera ere badator gure ondoren.

19 Aguinte ayec berac eman ciezten bigarrenari, eta irugarrenari, eta taldeen ondoren cijoacen guztiai, eſaten zuela: Itz ayec berac eſan zayozute Eſauri, arquitzen dezutenean.

20 Eta guero eſango dezute: Zure ſerbitzari Jacobec berac ere badarraiquio gure bideari. Ceren eſan zuen: Bigunduco det nere aurrean dijoacen eſqueintzariaquin, eta guero icuſico det, noſqui ongui artuco nau.

21 Onela joan ciran bere aurretican eſqueintzariac, bera berriz guelditu zan gau artan campoco etzanlecuetan.

22 Eta goiz jaiquiric, artu cituen bere emazte biac, eta beſte aimbeſte neſcame, amaica ſemeaquin, eta irago zuen Jaboqueco ondajoa.*

23 Eta irago eraguiñic bereac ciraden gauza guztiac,

24 Guelditu zan bacarric: eta ona non guizon bat burruca ari zan berarequin goiceraño.

25 Ceñac icuſiric ecin zuela garaitu, uquitu cion bere iſtarreco zañari, eta bereala igartu citzayon.

26 Eta eſan cion: Utzi nazazu, egunſentia data. Erantzun zuen: Etzaitut utzico, bedeincatutzen ez nazun artean.

27 Eſan zuen bada: ¿Cer icen dezu? Erantzun zuen: Jacob.

28 Berac eſan zuen: Iñolaere ez da izango zure icena Jacob, baicic Iſrael: cergatic ece Jaungoicoaren contra ain ſendo eraſo badezu, ¿nola guizonac garaituco ez dituzu?

29 Galdetu cion Jacobec: Eſan zazu, ¿cer icenequin deitua cera? Erantzun zuen: ¿Certaco jaquin nai dezu ceñ dan nere icena? Eta bedeincatu zuen toqui artan bertan.

30 Eta icendatu zuen Jacobec toqui ura Fanuel, eſaten zuela: Icuſi det Jaungoicoa arpeguiz arpegui, eta biciric guelditu naiz.

31 Eguzquia irten citzayon bereala, Fanuel irago ezquero: berac berriz oñ batetican erren eguiten zuen.

32 Argatic gaurco eguneraño ez dute jaten Iſraelen ſemeac zañic, ceren Jacoben iſtarrean igartu zan, uquitu ciolaco bere iſtarreco zañari, eta ſortu citzayolaco.

XXXIII. Cap.

ETA alchaturic Jacobec bere beguiac, icuſi zuen cetorrela Eſau, eta berarequin lareun guizon: eta jarri cituen bere eran Liaren eta Raquelen, eta neſcame bien ſemeac:

2 Eta lenengo jarri cituen neſcame biac, eta beren aurrac: Lia berriz, eta bere ſemeac, bigarren lecuan: eta Raquel eta Joſe azquenean.

3 Eta bera aurreraturic auzpeztu zan zazpi aldiz macurtzen zala, aliqueta alderatu artean bere anaya.

4 Eta corrica joanic Eſau bidera irtetzera bere anayari, laztandu zuen: eta eſtuturic bere lepoa, eta muſu emanic negar eguin zuen.

5 Eta alchaturic beguiac, icuſi cituen andreac eta ayen umeac, eta eſan zuen:

* *vedra.*

¿Ceñ dirade oyec? ¿zureac al dira? Erantzun zuen: Jaungoicoac niri zure ſerbitzari oni eman cizquidan umeac dirade.

6 Eta alderaturic neſcameac eta beren ſemeac, dioſala eguin cioten.

7 Alderatu zan Lia ere bere aurraquin: eta orobat eguiñic, azquenean Joſec eta Raquelec ere agur eguin cioten.

8 Eta eſan zuen Eſauc: ¿Cer dira bidean arquitu ditudan talde oyec? Erantzun zuen: Arquitzeco eſquer ona nere jaunaren aurrean.

9 Eta berac eſan zuen: Baditut, nere anaya, ondaſunic aſco; izan bitez zureac zuretzat.

10 Eta eſan zuen Jacobec: Ez ezazu, arren, orrelacoric eguin: baicic onguinai baldin badidazu, artu ezazu nere eſcuetatic eſqueintzaricho au: ceren icuſi det zure arpeguia, Jaungoicoaren arpeguia icuſi banu becela: eguin zadazu meſede au,

11 Eta ar zazu ecarri dizudan bendicioa, eta ceñ eman cidan Jaungoico gauza guztien emalleac. Nequez arturic anayaren erregu gueyeguiac gatic,

12 Eſan zuen: Gabiltzan alcarrequin, eta izango naiz zure bidelaguna.

13 Eta eſan zuen Jacobec: Badaquizu, nere jauna, nerequin dituudala aur gaztechoac, eta ardiac, eta bei umedunac: ceñac gueyegui necatzen baldin baditut ibillian, illco dira egun batean artalde guztiac.

14 Bijoa nere jauna bere ſerbitzariaren aurretican: eta nic gueldica jarraituco diet bere aztarnai, icuſten dedan araura nere aurrac ibilli daitezquen: allegatu artean Seirren dagoen nere jauna gana.

15 Erantzun zuen Eſauc: Erregutzen dizut, nerequin dan jendetican lagun batzuec bederic guelditu ditecela zure bidelagun izateco. Ez da, eſan zuen, premiaric: gauza bat bacarric bear det, onguinai izan zadazula, nere jauna.

16 Itzuli zan bada egun artan Eſau Seirrera etorri zan bidetican.

17 Eta Jacob etorri zan Socotera: non eguiñic eche bat eta jarriric campo etzauntzac, deitu zuen toqui ura Socot, au da, Dendac.

18 Eta irago zan Salem ſiquemtarraren errira, ceñ dagoan Canaango lurrean, itzuli zan ezquero Meſopotamia Siriacotic, eta bicitu izan zan erriaren aldean.

19 Eta eroſi cien dendac jarri cituen campoaren zatia, Hemor Siquemen aitaren ſemeai, eun arcume gatic.

20 Eta eguiñic an aldare bat, ots eguin cion bere gañean Iſraelen Jaungoico chit ſendoari.

XXXIV. Cap.

ETA atera zan Dina Liaren alaba alderri artaco emacumeac icuſtera.

2 Ceñ icuſiric Siquem Hemor heveotarraren ſeme, lur artaco principeac, chit maitatu zuen: eta oſtu zuen, eta berarequin lo eguin zuen, indarrez defloretzen zuela neſcacha.

3 Guelditu zan bere biotza neſcach onen amoriozco locarriaquin chit eſturic, eta icuſiric triſte cegoala, gozatu nai zuen pozqueriaquin.

4 Eta joanic bere aita Hemor ganontz, eſan cion: Indazu neſcach au emaztetzat.

5 Adituric au Jacobec, ſemeac urruti ceudela, eta ari ciradela abereac larrean, ixillic egon zan aliqueta itzuli ciraden artean.

6 Eta ateraric Hemor Siquemen aita, Jacobi itz eguitera,

7 Ona non bere ſemeac cetocen campotic: eta adituric guertatu zana, chit aſerratu ciran, gauza itſuſia eguin zuelaco Iſraelen, eta, indartuaz Jacoben alaba, gauza debecatua eguin zuelaco.

8 Ala bada Hemorrec eſan cien: Siquem nere ſemeac chit maite du zuen alaba: eman zayozute emaztetzat:

9 Eguin ditzagun alcarrequin ezcontzac: eman zazquiguzute zuen alabac, eta gureac artu itzatzute.

10 Eta bicitu zaitezte gurequin: zuen aguindura dago lurra, landu ezazute, eguin itzatzute ſaldu eroſiac, eta beraren jabe izan zaitezte.

11 Siquemec ere eſan cien aitari eta bere anayai: Eguin zadazute meſede au: eta erabaquitzen dezuten guztia, emango det.

12 Gueitu ezazute dotea, eta eſcatu itzatzute emaitzac, eta pocic emango det eſcatzen dezutena: bacarric ematea gatic neſcach au emaztetzat.

13 Erantzun cien Jacoben ſemeac

Siquem eta bere aitari engañuz, aferraturic arreba defloretu zuelaco:

14 Ecin eguin dezaquegu eſcatzen dezutena, ez eta eman ere gure arreba buztanmocoa inguruan ebaqui ez duen guizon bati: gauza debecatu eta nazcagarria dalaco gure artean.

15 Baña alcartuco guera zuequin, izan nai baldin badezute gure antzecoac, eta inguruan ebaquia izan dedilla zuen artean guizaſeme guztia;

16 Orduan eman eta artuco dieztegu alcarri zuen alabac, eta gureac: eta bicico guera zuequin, eta izango guera erri bat:

17 Eta baldin ez badezute inguruan ebaqui nai, artuco degu gure alaba, eta alde eguingo degu.

18 Ongui iritzi citzayoten beren eſqueñia Hemor, eta bere ſeme Siquemi:

19 Eta etzuen luzatu gazteac bereala eguitea eſcatzen citzayona: ceren chit maite zuen neſcacha, eta bera zan arguitſua bere aitaren eche guztian.

20 Eta farturic errico atean, itz eguin cioten erriari:

21 Guizon oyec paquetſuac dirade, eta nai dute bici gurequin: iduqui bitzate ſaldu erofiac lurrean, eta landu bezate, ceren izanic ain andia ta zabala, lantzalleen premia du: artuco ditugu beren alabac emaztetzat, eta emango diozcategu gureac.

22 Gauza bat da luzatzen diguna on ain andia: Inguruan ebaqui ditzagula gure guizaſemeac, erri onen oituraz.

23 Eta beren ondaſunac, eta abereac, eta duten guztia, gureac izango dira; onetan bacarric elcartu gaitecen, eta batean biciric, eguingo degu erri bat.

24 Guztien gogocoa izan zan eſcabide au, eta inguruan ebaqui cituzten guizon guztiac.

25 Eta ona non, irugarren egunean, zaurien oñacea chit andia danean; Jacoben bi ſeme Simeon eta Levi Dinaren anayac arturic ezpatac, ſartu ciran errian bildurgaberic, illic guizaſeme guztiac,

26 Hemor eta Siquem ere ill cituzten, artzen zutela Dina bere arreba Siquemen echetican.

27 Oyec ateraric, egotzi ciran illen gañera Jacoben beſte ſemeac: eta ondatu zuten erria arrebaren defloretzea bengatzeco.

28 Artu cituzten beren ardiac, eta abereac, eta aſtoac, eta deſeguindu echetan eta campoan zan guztia;

29 Beren aurrac eta emazteac ere catibu eraman cituzten.

30 Oyec eguiñic bildur gabe, Jacobec eſan cien Simeon eta Leviri: Jarri nazute eſtura andian, eta eguin nazute gorrotogarri canaantar, eta ferezeotar lur onetan bici diradenai. Gu guchi guera: berac bilduric zatituco naute, eta izango guera galduac ni, eta nere echea.

31 Erantzun zuten: ¡Cer bada! ¿Gaizqui uſatu bear al zuten gure arrebaz puta batez becela?

XXXV. Cap.

BITARTEAN itz eguin cion Jaungoicoac Jacobi: Jaiqui zaite, eta igo Betelera, eta bicitu zaite an, eta eguin zayozu aldare bat zure anai Eſauren igueſi cinjoacenean aguertu citzatzun Jaungoicoari.

2 Eta Jacobec, bilduric bere echeco guztiac, eſan cien: Bota itzatzute zuen erdian dauden jaungoico arrotzac, eta garbitu zaitezte, eta aldatu itzatzute zuen ſoñecoac.

3 Jaiqui zaitezte, eta igo gaitecen Betelera, eguitera an aldare bat nere eſtutaſuneco egunean aditu ninduen Jaungoicoari, eta nere bideco lagun izan zanari.

4 Eman ciozcaten bada ceuzcaten jainco arrotz guztiac, eta berequin ceuzcaten belarrietacoac: eta lurpetu cituen Siquemgo erria baño arontzago dan terebintoaren azpian.

5 Eta joan ciradenean, Jaungoicoaren bildurra erori zan inguruetaco erri guztien gañera, eta etziraden atrebitu jarraitzen cijoacenai.

6 Etorri zan bada Jacob Luzamera, ceñ dagoan Canaango lurrean, icengoitiz Betel: bera eta erri guztia berarequin.

7 Eta eguin zuen aldare bat, eta deitu cion toqui ari Jaungoicoaren echea: ceren an aguertu citzayon Jaungoicoa bere anayaren igueſi cijoanean.

8 Dembora artan bertan ill zan Debora Rebecaren iñudea, eta obitua izan zan Betelen oñean arte baten azpian: eta deitua izan zan toqui ura, Negar artea.

9 Eta aguertu citzayon berriz Jaun-

goicoa Jacobi Siriaco Meſopotamiatic itzuli zan ezquero, eta bedeincatu zuen,

10 Eſaten ciola: Emendic aurrera etzera deitua izango Jacob, baicic Iſrael izango da zure icena. Eta deitu cion Iſrael,

11 Eta eſan cion: Ni naiz Jaungoico guztialduna, aci, eta ugaritu zaite: jendeac eta erri taldeac jayoco dirade zu gandic, erregueac ateraco dirade zure odoletic.

12 Eta Abrahami eta Iſaaqui eman nien lurra, emango dizut zuri eta zure etorquiari zure ondoren.

13 Eta alde eguin zuen bera gandican.

14 Berac berriz jaſo zuen arrizco oroipengarri bat Jaungoicoac itz eguin cion lecuan: eſqueñiric bere gañean emaitzac, ta olioa ixuriric:

15 Eta deitzen ciola lecu ari, Betel.

16 Eta ateraric andican etorri zan udaberrian Efratara dijoan lurrera: ceñean aur miñac arturic Raquel,

17 Aſi zan peligroan egoten aurguite nequeza gatic. Eta eſan cion emaguiñac: Etzaite beldurtu, ceren ſeme au ere izango dezun.

18 Eta irtetzen citzayola anima oñacearen indarrez, eta illtzeco zorian cegoala, deitu cion bere ſemeari Benoni, au da, nere oñacearen ſemea: aitac berriz deitu cion, Benjamin, au da, eſcuyaren ſemea.

19 Ill zan bada Raquel, eta obitua izan zan Efrata, au da Belenera dijoan bidean.

20 Eta jaſo zuen Jacobec oroipengarri bat bere obiaren gañean: Au da Raquelen oroipengarriaren icena, gaurco eguneraño.

21 Ateraric andican, jarri zuen bere denda Abere torrea baño arontzago.

22 Eta alderri artan bicitu zala, joan zan Ruben, eta lo eguin zuen Bala bere aitaren oelagunarequin: ceña Jacobec jaquin zuen. Ciraden berriz onen ſemeac amabi.

23 Liaren ſemeac: lembiciſortua Ruben, eta Simeon, eta Levi, eta Judas, eta Iſacar, eta Zabulon.

24 Raquelen ſemeac: Joſe eta Benjamin.

25 Bada Raquelen neſcamearen ſemeac: Dan eta Neftali.

26 Zelfa Liaren neſcamearen ſemeac: Gad eta Aſer: oyec dira Jacoben ſeme, Siriaco Meſopotamian jayo citzayozcanac.

27 Etorri ere zan bere aita Iſaac gana, ceñ dagoen Mambre, Arbeeco errian, au da Hebron: ceñean arrotzac becela bici izan ciraden Abraham eta Iſaac.

28 Eta allegatu ciran Iſaaquen egunac eun eta laroguei urtera.

29 Eta erquituric adiñaz* ill zan: eta izan zan bere erriari bilduric zarra eta egunez betea: eta obitu zuten bere ſeme Eſau eta Jacobec.

XXXVI. Cap.

ETA oyec dirade Eſauren, au da Edomen ondorengoac:

2 Eſauc artu cituen emazteac Canaango alaben artean: Ada Elon hettarraren alaba, eta Oolibama Ana Sebeon heveotarraren alabaren alaba:

3 Baſemat ere Iſmaelen alaba Nabaioten arreba.

4 Eta eguin zuen Adac, Elifaz: Baſematec eguin zuen Rahuel:

5 Oolibamac eguin cituen Jehus, eta Ihelon, eta Core. Oyec dirade Eſauren ſeme Canaango lurrean jayo citzayozcanac.

6 Artu cituen bada Eſauc bere emazteac eta ſemeac eta alabac, eta bere echeco lagun guztiac, eta acienda, eta abereac, eta Canaango lurrean iduqui litzaquen gauza guztiac: eta joan zan beſte erri batera, eta alde eguin zuen bere anai Jacob gandican.

7 Ceren ciran chit aberatſac, eta bici ecin ciran elcarrequin; eta ecin cabitu ere arrotzac becela ceuden lurrean beren artaldeen ugaritaſuna gatic.

8 Eta bici izan zan Eſau Seirco mendian, au da Edomen.

9 Eta oyec dirade Eſau Edomen aitaren ondorengoac Seirco mendian,

10 Eta oyec bere ſemeen icenac: Elifaz Adar Eſauren emaztearen ſemea: Rahuel ere Baſemat bere emaztearen ſemea.

11 Eta izan cituen Elifazec ſemeac: Teman, Omar, Sefo, eta Gatam, eta Cenez.

12 Eta Tamna zan Elifaz Saulen ſemearen oelaguna: ceñec eguin cion

* *idadean.*

Amalec. Oyec dirade Ada Eſauren emaztearen ſemeac.

13 Eta Rahuelen ſemeac: Nahat eta Zara, Sama eta Meza. Oyec Baſemat Eſauren emaztearen ſemeac.

14 Oyec ere ciran Oolibama Ana Sebeonen alabaren alaba, Eſauren emaztearen ſeme eguin ciozcanac Jehus eta Ihelon eta Core.

15 Oyec Eſauren ſemeen aguintariac: Elifaz Eſauren lembiciſortuaren ſemeac: Teman aguintaria, Omar aguintaria, Sefo aguintaria, Cenez aguintaria,

16 Core aguintaria, Gatam aguintaria, Amalec aguintaria. Oyec Elifazen ſemeac Edomgo lurrean, eta oyec Adaren ſemeac.

17 Oyec ere Rahuel Eſauren ſemearen ſemeac: Nahat aguintaria, Zara aguintaria, Sama aguintaria, Meza aguintaria. Eta oyec Rahuelen aguintariac Edomgo lurrean: Oyec Baſematen Eſauren emaztearen ſemeac.

18 Eta oyec Oolibama Eſauren emaztearen ſemeac: Jehus aguintaria, Ihelon aguintaria, Core aguintaria. Oyec Oolibama Anaren alaba Eſauren emaztearen aguintariac.

19 Oyec dirade Eſauren ſemeac, eta oyec beren aguintariac: ura bera da Edom.

20 Oyec dirade Seir horreotarraren ſemeac, erri artan bici ciranac: Lotan, eta Sobal, eta Sebeon, eta Ana,

21 Eta Diſon, eta Eſer, eta. Diſan. Oyec Horreco aguintariac, Seirren ſemeac Edomgo lurrean.

22 Eta Lotanen ſemeac izan ciraden: Hori eta Heman: Eta Tamna zan Lotanen arreba.

23 Eta oyec Sobalen ſemeac: Aloan eta Manahat eta Ebal, eta Sefo eta Onam.

24 Eta oyec Sebeonen ſemeac: Aia eta Ana. Ana au da arquitu cituena ur beroac eremuan, bere aita Sebeonen aſtoac larrean erabiltzen cituenean:

25 Eta izan zuen ſeme bat Diſon, eta alaba bat Oolibama.

26 Eta oyec Diſonen ſemeac: Hamdan, eta Eſeban, eta Jetram, eta Caran.

27 Oyec ere Eſerren ſemeac: Balaan, eta Zavan, eta Acan.

28 Eta Diſanec izan cituen ſemeac: Hus, eta Haram.

29 Oyec horreotarren aguintariac: Lotan aguintaria, Sobal aguintaria, Sebeon aguintaria, Ana aguintaria,

30 Diſon aguintaria, Eſer aguintaria, Diſan aguintaria: oyec horreotarren Seirco lurrean gobernatu zuten aguintariac.

31 Eta Edomgo lurrean erreinatu zuten erregueac, Iſraelen ſemeac erregue iduqui zuten baño lenago, ciraden oyec:

32 Bela Beorren ſemea, eta bere erriaren icena Denaba,

33 Eta ill zan Bela, eta bere lecuan erreinatu zuen Jabab Zara Boſracoaren ſemeac.

34 Eta ill zanean Jobab, erreinatu zuen bere lecuan Huſam temantarren lurrecoac.

35 Au ere illic, erreinatu zuen onen lecuan Adad Badaden ſemeac, ceñac deſeguin zuen Madian Moabco alderrian: eta bere erriaren icena Avit.

36 Eta ill zanean Adad, erreinatu zuen bere lecuan Semla Maſrecacoac.

37 Au ere illic, erreinatu zuen bere lecuan Saul Rohoboteo ibaicoac.

38 Eta au ere ill zanean, jarraitu cion erreinuan Balanan Acoborren ſemeac.

39 Au ere illic, erreinatu zuen bere lecuan Adarrec, eta bere erriaren icena Fau: eta bere emazteari deitzen citzayon Meetabel, Matred Mezaaben alabaren alaba.

40 Oyec bada Eſauren aguintariac icenac beren ondorengoetan, eta lecuetan, eta icenetan: Tamna aguintaria, Alva aguintaria, Jetet aguintaria,

41 Oolibama aguintaria, Ela aguintaria, Finon aguintaria,

42 Cenez aguintaria, Teman aguintaria, Mabſar aguintaria,

43 Magdiel aguintaria, Hiram aguintaria: oyec bere mempeco aguintariac lurrean bici ciraden Edomgo aguintariac: au da Eſau idumeotarren aita.

XXXVII. Cap.

ETA bici izan zan Jacob Canaango lurrean, ceñean bere aita arrotza egon zan.

2 Eta ona bere jatorriac: Joſec amaſei urtecoa zala, larrean erabiltzen cituen abereac bere anayaquin, oraindican mutilla: eta cegoan Bala eta Zelfa bere aitaren emazteen ſemeaquin: eta ſalatu cituen bere anayac aitaren aurrean pecatu chit gaizto batez.

3 Eta Iſraelec maite zuen Joſe bere ſeme guztien gañetic, ſortua izan zalaco zartzan: eta eguin cion jantzi nabar bat.

4 Eta icuſiric bere anayac beſte ſeme guztiac baño gueyago bere aitac maitatua zala, gorroto cioten, eta ecin itzic eguin cioten garratz baicican.

5 Guertatu ere zan contatzea bere anayai eguin zuen amets bat: ceñ izan zan gorroto andiagoaren aciera.

6 Eta eſan cien: Aditu ezazute eguin dedan nere ametſa:

7 Iduritzen citzadan gueundela ſoroan lotzen gabillac: eta nere gabilla jaiquico balitz bezala, eta zucen cegoala, eta zuen gabillac inguruan jarriric agur eguiten ciotela nere gabillari.

8 Erantzun zuten bere anayac: ¿Gure erregue izango ote aiz? ¿edo ire mendeco izan bearco ote gaituc? Ala bada amets eta izqueta oyec ematen cien damu eta gorroto gaya.

9 Eguin ere zuen beſte amets bat, ceñ contatzen ciela anayai, eſan zuen: Icuſi det ametſetan, eguzquiac, eta illarguiac eta amaica izarrec adoratuco baninduteque becela.

10 Ceñ adieraciric bere aitari, eta anayai, erriertan eman cion bere aitac, eta eſan: ¿Cer eſan nai du eguin dezun amets orrec? ¿nic neronec eta zure amac, eta ſenideac adoratuco ote zaitugu lurraren gañean?

11 Eta ala bere anayac beraren damuz ceuden: baña aitac gauza au ixillic gogoan cerabillen.

12 Eta bere anayac ceudela Siquemen aitaren abereac larrean erabiltzen,

13 Eſan cion Iſraelec: Zure anayac daude Siquemen ardiac larrean erabiltzen: atoz, bidalduco zaitut berac gana. Eta erantzunic berac:

14 Preſt naiz, eſan cion: Zoaz, eta icuſi ezazu ongui dauden zure anayac, eta abereac: eta adieraci zadazu igarotzen dana. Bidalduric Hebrongo ibarretic, etorri zan Siquemera:

15 Eta arquitu zuen guizon batec campoan orremen cebillela, eta galdetu cion ceren billa cebillen.

16 Eta berac erantzun zuen: Nere anayen billa nabill, eracutſi zadazu non larrean erabiltzen dituzten artaldeac.

17 Eta eſan cion guizonac: Alde eguin zuten toqui onetatican: eta aditu diet eſaten: Goacen Dotainera. Joan zan bada Joſe bere anayen ondoren, eta arquitu cituen Dotainen.

18 Ceñac icuſi zutenean urrutitican, berac gana alderatu baño lenago, erabaqui zuten bera iltzea.

19 Eta eſaten cioten alcarri: Ara ametſlaria badator:

20 Atozte, ill dezagun, eta bota dezagun putzu zulo zar onetara: eta eſango degu: Piſti chit gaizto batec iretſi du: eta orduan aguertuco da cer balio dioten bere ametſac.

21 Eta adituric au Rubenec, aleguiñac eguiten cituen gordetzeco beren eſcuetatic, eta eſaten zuen:

22 Etzayozute quendu bicia, eta ez bere odolic ixuri: baicic bota ezazute eremuan dagoan putzu zulo onetara, eta gorde itzatzute zuen eſcuac cutſutu gabe: eta au eſaten zuen, quendu nairic beren eſcuetatic, eta itzuli bere aitari.

23 Allegatu zaneco bada bere anayac gana, bereala erantzi cioten ſoñeco luce eta nabarra:

24 Eta bota zuten uric etzuen putzu zulo zar batera.

25 Eta eſeriric oguia jateco, icuſi cituzten iſmaeltar batzuec bidean cetocela Galaadtican, eta beren gameluac ceramazquitela uſaigozoac, eta erreſina, eta eſtactea Egiptoraco.

26 Eta eſan cien Judaſec bere anayai: ¿Cer balio digu gure anaya ill, eta bere odola ezcutatzeac?

27 Obe da ſaldu dizayegun iſmaeltarrai, eta gure eſcuac ez ditecela cutſutu: ceren gure anaya eta araguia da. Anayac etorri ciran bere arrazoyetara.

28 Eta iragotzen cirala madiantar mercatari batzuec, ateratic putzu zulotic, ſaldu cieten iſmaeltarrai, oguei cillarrezco dirutan, ceñac eraman zuten Egiptora.

29 Eta itzuliric Ruben putzu zulora, etzuen arquitu mutilla:

30 Eta urraturic ſoñecoac, joanic bere anayac gana, eſan zuen: Mutilla ez da aguiri, ¿eta ni nora joango naiz?

31 Eta artu zuten bere ſoñecoa, eta buſti ill zuten anchume baten odolean:

32 Bialduric bere aitari, eta eſaneraciric ceramatenai: Soñeco au arquitu degu: icuſi ezazu zure ſemearen ſoñecoa ote dan, edo ez.

33 Ceñ ezagutu zuenean aitac, eſan zuen: Nere ſemearen ſoñecoa da, abere

chit gaiztoren batec jan du, piſtiaren batec iretſi du Joſe.

34 Eta urraturic ſoñecoac, jantzi zan cilicioz, negar eguiten zuela bere ſemea gatic dembora aſcoan.

35 Eta bilduric bere aur guztiac gozatzeco aitaren oñacea, etzuen artu nai poztaſunic, baicican eſan zuen: Jechico naiz obira negarrez nere ſemea gana. Eta cirauela berac malcoetan,

36 Madiantarrac ſaldu cioten Joſe Egipton Putifar Faraonen guizon chiquiratu, ſoldaduen aguintariari.

XXXVIII. Cap.

DEMBORA onetan, Juda, berecituric bere anayac gandican, egon zan oſtatuz, odolamtar guizon bat Hiram ceritzanaren echean.

2 Eta icuſi zuen an canaantar baten alaba Sue ceritzana; eta arturic emaztetzat, berarequin bici izan zan.

3 Ceñ aurdun guelditu zan, eta ſeme bat eguin zuen, ceñi deitu cion Her.

4 Berriz ere aurdun guelditu zan, eta izan zuen ſemeari deitu cion Onan.

5 Irugarren bat ere eguin zuen, ceñi deitu cion Sela; au jayoric, utzi cion berriz aurtac eguiteari.

6 Eta Judac eman cion emaztetzat Her bere lembiciſortuari, emacume bat Tamar ceritzana.

7 Eta Her Judaren lembiciſortua izandu zan gaiztoa Jaunaren aurrean: etz berac illa izandu zan.

8 Eſan cion bada Judac Onan bere ſemeari: Sartu zaite zure anayaren emaztea gana, eta bicitu zaite berarequin, eman dizayozun etorquia zure anayari.

9 Berac jaquiñic etziradela beretzat jayoco ſemeac, ſarturic bere anayaren emaztea gana, ixurtzen zuen lurrera acia, jayo etzitecen aurrac anayaren icenarequin.

10 Eta argatic zauritu zuen Jaunac, gauza gorrotogarri bat eguiten zuelaco.

11 Argatic eſan cion Judac Tamar bere errañari: Egon zaite alargun zure aitaren echean, aliqueta aci dedin bitartean Sela nere ſemea: ceren bildur zan au ere ill etzedin, bere anayac becela. Bera joan zan, eta bici izan zan bere aitaren echean.

12 Eta igaroric egun aſco, ill zan Judaren emazte Sueren alaba: Juda progua eguin ezquero, gozaro jarriric, igotzen ciran Tamnaſera bere ardien motzalleac gana, bera eta Hiras odolamtar artaldearen artzai naguſia.

13 Eta adierazo cioten Tamarri bere aitaguiarreba bacijoala Tamnaſera ardiac motzera.

14 Arc, utziric alarguntzaco ſoñecoac, artu zuen mantu bat: eta aldaturic jantzia, eſeri zan Tamnaſeraco dijoan bidegurutzean: cergatic Sela acia izanic, etzuelaco ſenartzat artu.

15 Judac icuſi zuenean, ſoſpechatu zuen emacume galduren bat zala: ceren eſtali zuen bere arpeguia, ezagutua izan etzedin.

16 Eta alderaturic bera gana, eſan zuen: Utzi zadazu bicitzen zurequin: ceren etzequien bere erraña zala. Ceñac erantzunic: ¿Cer emango didazu zure naya eguitea gatic?

17 Bidalduco dizut, eſan zuen, anchume bat nere abere taldeetatican. Eta berriz berac eſanic: Emango dizut nai dezuna eguiteco eſcubidea, ematen baldin badidazu prenda bat, bidaldu artean eſqueintzen dezuna.

18 Eſan zuen Judac: ¿Cer nai dezu eman dizazudan prendatzat? Erantzun zuen: Zure eraztuna, eta eſcumuturretacoa, eta eſcuan dezun maquilla. Lembicico aldian bacarric bada emacumea aurdun guelditu zan,

19 Eta jaiquiric joan zan: eta utziric artu zuen ſoñecoa, jantzi zan alarguntzaco ſoñecoaz.

20 Eta Judac bidaldu zuen anchumea bere artzai odolamtarrarequin, artu cezan emacumeari eman cion prenda: ceñac ez arquituric emacumea,

21 Galdetu cien toqui artaco guizonai: ¿Non da bidegurutzean eſerita cegoen emacumea? Guztiac erantzunic: Toqui onetan ez da izan emacume galduric:

22 Itzuli zan Juda gana, eta eſan cion: Ez det arquitu emacumea: eta toqui artaco guizonac ere eſan cidaten: Etzala an iñoiz eſeriric egon emacume galduric.

23 Eſan zuen Judac: Gorde dezala, eguiazqui ecin guezurtatuco gaitu: neronec bidaldu nuen eſqueñi nuen anchumea, eta zuc ez dezu arquitu.

24 Eta ona non iru illabeteren buruan adieraci cioten Judari, eſaten zutela:

Tamar zure erraña araguizco pecatuan erori da, eta dirudi bere ſabela aciaz dijoala. Eta eſan zuen Judac: Atera ezazute campora errea izan dedin.

25 Baceramatela penara, bidaldu cion mandatu bat bere aitaguiarrebari, eſaten zuela: Prenda oyen jabea dan guizona gandic, guelditu naiz aurdun: ezagutu ezazu ceñenac diran eraztun au, eſcumuturretaco au, eta maquilla au.

26 Judac, ezaguturic prendac, eſan zuen: Ni baño juſtuago da, ez diodalaco eman nere ſeme Sela. Alaere etzuen berriz ezagutu.

27 Eta alderaturic aurguiteco dembora, aguertu ciran bizquiac ſabelean: eta aurrac eguiteco era artan, batac atera zuen eſcua, ceñean emaguiñac lotu zuen granazco ari bat, eſaten zuela:

28 Au lembici ateraco da.

29 Baña nola berac atzeratu zuen eſcua, atera zan beſtea: eta eſan zuen andreac: ¿Cergatic urratu da zu gatic pareta? Eta gauza onegatic deitu cion Fares.

30 Guero atera zan bere anaya, ceñaren eſcuan cegoen granazco aria: ceñi deitu cion Zara.

XXXIX. Cap.

JOSE bada izan zan eramana Egiptora, eta erosi zuen Putifar Faraonen guizon egiptoar chiquiratu, ejercituco aguintariac, eraman izan zuten iſmaeltarren eſcutic.

2 Eta Jauna izan zan berarequin, eta zan guizon bat gauza guztiac ongui irtetzen citzayozcana: eta bici izan zan bere naguſiaren echean,

3 Ceñec chit ongui ezagutzen zuen Jauna cegoala Joſerequin, eta eguiten cituen gauza guztiac ciradela Jaungoicoac zucenduac bere eſcuan.

4 Eta Joſec arquitu zuen gracia bere naguſiaren aurrean, eta ſerbitzen zuen; ceñac ipiñiric guztien gañetic, gobernatzen zuen bere contura utzitaco echea, eta emanac izan citzayozcan gauza guztiac.

5 Eta bedeincatu zuen Jaunac Egiptoarraren echea Joſe gatic, eta ugaritu zuen bere acienda, bai echeetan eta bai campoetan:

6 Eta naguſia etzan ſartzen beſte gauzatan, jaten zuen oguian baicic. Joſe zan berriz arpegui ederrecoa, eta irudi onecoa.

7 Eta egun aſcoren buruan bere echecoandreac ipiñi cituen bere beguiac Joſegan, eta eſan cion: Lo eguin ezazu nerequin.

8 Ceñec iñolaere ez eguin nairic gaiztaqueri andi au, eſan cion: Ona non nere naguſiac ipiñiric nere eſcuetan gauza guztiac, ez daqui cer duen bere echean:

9 Eta ez da nere eſcuan ez dan, edo niri eman ez didan gauzaric, zu bere emaztea cerana baicic: ¿nola bada eguin dezaquet gaitz au, eta pecatu eguin nere Jaungoicoaren contra?

10 Eta egunero onelaco itzaquin andreac atſecabetzen zuen gaztea, eta beronec etzuen nai eguin itſuſqueriric.

11 Eta guertatu zan egun batean ſartzea Joſe echean, eta lan batean aritzea bacarric:

12 Eta arc, elduric bere ſoñecoaren ertzari, eſatea: Lo eguin ezazu nerequin. Ceñec, utziric bere capa aren escuan, igues eguin zuen, eta atera zan campora.

13 Eta icuſi zuenean andreac ſoñecoa bere eſcuetan, eta mezpreciatua izan zala,

14 Ots eguin cien bera gana bere echeco guizonai, eta eſan cien: Ona ſartu du echean hebreotar guizaſeme au gu burlatzeco: ſartu da ni gana nerequin ibiltzeco: eta nic deadar eguiñic,

15 Eta berac adituric nere boza, utzi du neronec atzitu nuen capa, eta igues eguin du campora.

16 Eta bere leyaltaſunaren onguigarritzat, ſenarra echera itzuli zanean eracutſi cion capa, ceñarequin guelditu zan,

17 Eta eſan cion: Zuc ecarri cenduen morroi hebreotar au, ſartu zan ni nengoen toquira ni burlatzeco:

18 Eta aditu zuencan nic deadar eguiten nuela, utzi zuen atzituta neucan capa, eta igues eguin zuen campora.

19 Oyec adituric, eta ſiniſcorreguia emaztearen itzetara, jauna chit aſerratu zan:

20 Eta ſartu zuen Joſe erregueren preſoac gordeta ceuden preſondeguian, eta an cegoen ichia.

21 Eta Jauna izan zan Joſerequin, eta urricalduric beraz eguin zuen carcelazayaren gogoco.

22 Ceñac utzi cituen bere eſcuan carcelan ceuden preſo guztiac: eta eguiten zan guztia, zan bere aguinduz.

23 Eta utziric gucia Joſeri, carcelazayac etzuen eceren ajolaric: ceren Jauna zan berarequin, eta zucentzen cituen bere lan guztiac.

XL. Cap.

OYEC onela iragoric, guertatu zan guizon chiquiratu bic, Egiptoco erregueren copazayac, eta oquiñac, pecatu eguitea beren nagusiaren contra.

2 Eta aſerraturic beren contra (ceren bata zan copazayen aguintaria, eta bestea oquiñena), Faraonec

3 Bidaldu cituen ſoldaduen aguintariaren preſondeguira, ceñean cegoan preſo Joſe ere.

4 Baña carcelazayac eman cizquion Joſeri, ceñac ſerbitzen ere cituen. Demboraren piſca bat iragoa zan, eta oraindican berac ceuden preſondeguian,

5 Biac gau batean eguin zutenean amets bat bacoitzaren egoerari cegoquiena:

6 Ceñac gana ſarturic goicean, eta icuſiric triſte ceudela, Joſec

7 Galdetu cien eſaten ciela: ¿Cergatic daude gaur zuen arpeguiac oi baño triſteagoac?

8 Ceñac erantzun zuten: Amets eguin degu, eta ez da iñor aſmatu dizaguquenic. Eta eſan cien Joſec: ¿Ez al dagoquio Jaungoicoari aſmatzea? Eſan zadazute icuſi dezutena.

9 Copazai nagusiac contatu zuen aurrena bere ametſa: Icuſten nuen nere aurrean mats bat,

10 Ceñac ceuzcan iru ſarmentu, acitzen zala gueldica gueldica motac bota artean, eta loreen ondoren matſac eldutzen ciradela:

11 Eta Faraonen edanontzia nere eſcuan: atzitu nituen bada matſac, eta lertu eſcuan nuen edanontzian, eta eman nion edaten Faraoni.

12 Erantzun zuen Joſec: Au da ametſaren aſmacioa: Iru ſarmentuac, oraindican dauden iru egunac dira:

13 Ceñen buruan oroituco da Faraon zure languintzaz, eta itzulico zaitu lengo eguitecora: eta emango diozu edanontzia zure languitearen araura, leen eguin oi cenduen becela.

14 Bacarric erregututzen dizut oroitu zaitecela nizaz, ongui zaudenean, eta urrical zaitecela nizaz, oroitueracitzen diozula Faraoni atera nazala preſondegui onetatican:

15 Ceren lapurretaz izan nintzan arrapatua hebreotarren lurretican, eta emen bidegabe izan naicen preſondeguian ſartua.

16 Icuſiric oquiñen nagusiac ceñ ongui aſmatu zuen ametſa, eſan zuen: Neronec ere amets eguin det: Nere buruaren gañean neuzcala iru ſaſqui iriñ:

17 Eta goragо cegoen ſaſqui batean, neramazquiela oquiñen lanean eguiten diran janari guztiac, eta egaztiac beretatic jaten zutela.

18 Erantzun zuen Joſec: Au da ametſaren aſmacioa: Iru ſaſquiac, oraindican dauden iru egunac dira:

19 Ceñen ondoren ebaquico du Faraonec zure burua, eta cintzilica ifiñico zaitu gurutzean, eta egaztiac puſcatuco dituzte zure araguiac.

20 Iru egunen buruan zan Faraonen urtebetetzea: ceñac emanic bazcari andi bat bere ſerbitzariai, oroitu zan jan edanen artean copazai nagusiaz, eta oquiñen buruaz.

21 Eta bata itzuli zuen bere toquita, copa eman cizayon:

22 Beſtea ichequi zuen urcamendian, aſmatzallearen eguia aguertzeco.

23 Eta alacre etorriric egun onac, copazai nagusia aztu zan bere aſmatzalleaz.

XLI. Cap.

URTE biren buruan eguin zuen Faraonec amets bat. Iduritzen citzayon cegoala ibai baten aldean,

2 Ceñetatican igotzen ciran zazpi bei, ederrac eta guicen guicenac: eta larrean cebiltzen toqui urtſuetan.

3 Beſte zazpi ere ateratzen ciran ibaitican, itſuſiac eta argalez aituac: eta larrean cebiltzen ibayaren bazterrean bertan, toqui berdetſuetan.

4 Eta iretſi cituzten gorputzen guicentaſun eta edertaſun miragarria ceuzcatenac. Eſnaturic Faraon,

5 Berriz loac artu zuen, eta eguin zuen beſte amets bat: laſto batec ceuzcan zazpi galburu, beteac eta ederrac:

6 Beſte aimbeſte galburu ere ernetzen ciran, meac eta erreac joac

7 Iretſitzen cituztenac ain ederrac

ciran lembicicoac. Esnaturic atsedenaren ondoren,

8 Eta eguna zabalduta izuaz icaraturic, deitu cien Faraonec Egiptoco aztiai eta jaquintsu guztiai: eta ceudela bilduric adiraci cien ametsa, eta etzan asmatu lezaquenic.

9 Orduan oroituric azquencan, copazai nagusiac esan zuen: Aitortzen det nere pecatua.

10 Aserraturic bere serbitzariaquin, erreguec aguindu zuen sartzeco soldaduen aguintariaren presondeguian ni eta oquiñ nagusia:

11 Non bioc arrats batean eguin guenduen gueroco guertaeren amets bat.

12 Cegoan an hebreotar mutill bat, soldaduen aguintari beraren morroya: ceñi esaten guiñiozcala ametsac,

13 Aditu guenduen guero guertatu citzaigun guztia. Ceren ni izan nintzan itzulia nere lanera: eta ura izan zan ichequia gurutzean.

14 Bereala ateraric Jose presondeguitic erregueren aguinduz moztu zuten; eta aldaturic soñecoac, eraman cioten.

15 Ceñi berac esan cion: Eguin ditut ametsac, eta ez da arguitu ditzaquenic: aditu det zu gatic argui andia dezula asmatzeco.

16 Erantzun zuen Josec: Ni gabetanic Jaungoicoac erantzungo diozca gauza doatsuac Faraoni.

17 Contatu cion bada Faraonec icusi zuena: Iduritzen citzadan nengoala ibayaren bazterraren ondoan,

18 Eta ibaitican igotzen cirala zazpi bei chit cderrac, eta aragui guicenecoac: ceñac jaten zuten belar berdea aintziraco * larrean.

19 Eta ona non oyei cerraizquien beste zazpi bei ain itsusi eta argalac, Egiptoco errian iñoiz icusi ez ditudan becelacoac:

20 Ceñac, iretsi eta deseguiñic lembicicoac,

21 Etzuten eman asetasunaren aztarnic batere: baicican ceuden fortatuac lembicicoaren antzeco argaltasun eta ciquiñarequin. Esnaturic, eta berriz lozorroac arturic,

22 Amets eguin nuen: Lasto batec ceuzcan zazpi galburu beteac eta chit cderrac.

23 Beste zazpi meac eta erreac joac ere, ateratzen ciran lasto batetican:

24 Ceñac iretsi cituzten ain ederrac ciran lembicicoac. Contatu nien aztiai, ametsa eta ez da arguitu dezaquenic.

25 Erantzun zuen Josec: Erregueren ametsa gauza bat da: aguertu dio Faraoni Jaungoicoac eguingo duena.

26 Zazpi bei ederrac, eta zazpi galburu beteac, ugaritasuneco zazpi urte dirade: eta ametsaren indar ura bera dute.

27 Baitaere zazpi bei argal eta mee ayen ondoren atera ciradenac, eta zazpi galburu mee, eta aice erregarriac joac, etorrico dan goseteco zazpi urte dirade.

28 Ceñac onela beteco dira:

29 Etorrico dirade aurrena ugaritasun andico zazpi urte Egiptoco lur guztian:

30 Ceñai jarraituco diete beste zazpi urte urritasun ain andicoac, non aztueracico dute lengo ugaritasun guztia: ceren gosеac ondatuco du lur guztia,

31 Eta urritasunaren anditasunac galduco du ugaritasunarena.

32 Eguin dezun bigarren amets gauza artara bertara jotzen duena berriz: sendotasunaren ezagungarria da, eguiaztuco dala Jaincoaren itza, eta lembaitleen beteco dala.

33 Orain bada arquitu beza erreguec guizon jaquintsu eta cintzo bat, eta eman bizayo Egiptoco lurreco aguintaritza:

34 Ipiñi ditzan gobernariac alderri guztietan: eta zazpi urte ugaritasuneco frutuen bosgarrenac,

35 Ceñac oraindandic izango diran, bildu bitza gambaretan: eta gari guztia ipiñi bedi Faraonen mendean, eta gorde bedi errietan.

36 Eta bego prestaturic etorrico dan zazpi urteco gosete Egipto estutuco dueneraco, eta ez da aituco lurra urritasunarequin.

37 Esana ongui erori citzayen Faraoni, eta bere morroi guztiai:

38 Eta itz eguin cien: ¿Arquituco bai al degu Jaungoicoaren espirituz betea dagoen onelaco guizonic?

39 Esan cion bada Joseri: Jaungoicoac aguertu dizquizun ezquero esan dituzun gauza guzti oyec, ¿arquituco al det nic zu baño jaquintsuago eta zure antzecoric?

40 Zu izango cera nere echeco gobernaria, eta zure aoaren aguindura erri guz-

* *lagunaco.*

tiac obedituco du: ez naiz zu baño gueyago izango, erreinuco esertoquian baicic.

41 Eta berriz esan cion Faraonec Joseri: Ona non jarri zaitudan Egiptoco lur guztico erregue ordeco.

42 Eta quendu zuen eraztuna bere escutic, eta ipiñi cion Joseri: eta jantzi zuen liño chit finezco soñeco batequin, eta jarri cion bere lepoaren inguruan urrezco lepande * bat.

43 Eta igoeraci cion bere bigarren gurdian, deadarrez pregoi batec ciola, guztiac bere aurrean belaunicatu citecela, eta jaquin cezatela Egiptoco lur guztico gobernari jarria cegoala.

44 Esan ere cion erreguec Joseri: Ni naiz Faraon: zure aguindu gabe ez du muguituco iñore escu edo oñic Egiptoco lur guztian.

45 Aldatu ere zuen bere icena, eta deitu cion Egiptoco izcuntzan, Munduaren salbaguillea. Eta eman cion emaztetzat Asenet, Putifar Heliopolico apaizaren alaba. Atera zan bada Jose Egiptoco lurrera.

46 (Eta oguei ta amar urtecoa zan Faraon erreguearen aurrean egon zanean) eta ingurutu cituen Egiptoco alderri guztiac.

47 Eta etorri zan zazpi urteco ugaritasuna: eta laboreac gabillaturic izan ciran bilduac Egiptoco aleteguietan.

48 Eta erri bacoitzean gorde ciran ugari uztaco frutuac.

49 Eta ain andia izan zan gariaren ugaritasuna, non berdintzen zuen itsasoco ondarra, eta zan neurriz gañeticoa.

50 Gosetea etorri baño lenago jayo citzayozcan Joseri bi seme: ceñac eguin ciozcan Asenet Putifar Heliopolico apaizaren alabac.

51 Eta lembiciſortuari deitu cion Manases, ciola: Aztuerazo dizquit Jaungoicoac nere neque guztiac, eta nere aitaren echecoac.

52 Eta bigarrenari deitu cion Efraim, ciola: Jaungoicoac aberastu nau cziduquia sartu nintzan lurrean.

53 Igaroric bada Egipton izan ciran ugaritasuneco zazpi urteac:

54 Asi ciran etortzen Josec profetizatu cituen urritasuneco zazpi urteac: eta gosetea zabaldu zan mundu guztitican; baña Egiptoco lur guztian bazan oguia.

55 Zabalduric Egipton gosetea, erriac deadar eguin cion Faraoni, janari esque. Ceñai berac erantzun cien: Zoazte Jose gana: eta berac esaten dizuten guztia, eguin ezazute.

56 Aciaz cijoan bada egunetic egunera gosetea lur guztian: eta Josec idiqui cituen aletegui guztiac, eta saltzen cien egiptoarrai: ceren berac cre estutu cituen gosteac.

57 Eta alde gucietatic cetocen Egiptora jaquiac erostera, eta ezurteen gaitza arintzera.

XLII. Cap.

ETA adituric Jacobec janaria saltzen zala Egipton, esan cien bere semeai: ¿Cergatic zaudete elcarri beguira?

2 Aditu det garia saltzen dala Egipton: jechi zaitezte, eta crosi ezazute bear dezutena bici gaitecen, eta gosez ill ez gaitecen.

3 Jechiric bada Joseren amar anai Egiptora gari erostera,

4 Guelduric echean Benjamin Jacobec, ceñec esan cien bere anayai: Ezbearren bat bidean guertatu ez daquion:

5 Sartu ciran Egiptoco lurrean erostera cijoacen beste batzuequin. Eta Canaango errian bazan gosetea.

6 Eta Jose zan aguintaria Egiptoco lurrean, eta bere naira garia saltzen citzayen erriai. Eta bere anayac adoratu zutenean,

7 Eta berac ezagutu cituenean, itz eguiten cien garrazquiro, arrotzac bezala, galdetzen ciela: ¿Nondic etorri cerate? Berac erantzun zuten: Canaango lurretican jateco bear deguna erostera.

8 Eta alaere ezaguturic anayac, Jose etzan izan berac ezagutua.

9 Eta oroituric noizbait izan cituen amets ayezaz, esan cien: Celatariac cerate: etorri cerate icustera lurreco erracenac.

10 Berac esan zuten: Ez da ala, jauna, baicic zure serbitzariac etorri dirade cer jan erostera.

11 Guztioc guera guizon baten semeac: paquea dacargu, eta zure morroyac ez dute gaitzic eguiteco asmorican.

12 Ceñai berac erantzun cien: Bestela da: etorri cerate ezagutzera lur onetaco toqui sendotugabeac.

13 Eta berac: Amabi anai guera, diote, zure serbitzariac, guizon baten se-

* collar.

meac Canaango errian: chiquiena gure aitarequin dago, beſtea ill zan.

14 Au da, erantzun zuen, nic eſan dedana berbera: Celatariac cerate.

15 Orain noa zuen billabidea eguitera: Faraonen bicia gatic etzerate ateraco emendican, aliqueta etorri artean zuen anai chiquiena.

16 Bidaldu ezazute zuetatic bat, eta ecarri beza: eta zuec egongo cerate preſondeguian, jaquin artean eguiac ala guezurrac diran eſan dituzuten gauzac: beſtela Faraonen bicia gatic celatariac cerate.

17 Bidaldu cituen bada preſondeguira iru eguneraco.

18 Eta irugarren egunean ateraric preſondeguitic, eſan cien: Eguin itzatzute eſan ditudan gauzac, eta bicico cerate: ceren badet Jaungoicoaren bildurra.

19 Paquea badacartzute, zuen anayetatic bat guelditu bedi lotuta preſondeguian: eta zuec zoazte, eta eraman itzatzute eroſi dituzuten gariac, zuen echeetara,

20 Eta ecarri zadazute zuen anai chiquiena, eguiazcotzat ezagutu ditzadan zuen itzac, eta ill etzaitezten. Eguin zuten eſan zuen becela,

21 Eta elcarri eſan cioten: Bidez padecitzen ditugu oyec, ceren pecatu eguin guenduen gure anayaren contra, icuſiric bere animaco larritaſuna, erregututzen cigunean, eta ez guiñion aditu: argatic etorri da gure gañera naigabe au.

22 Ceñetaco batec, Rubenec, eſan zuen: ¿Ez al nizuten eſan: Ez dezazutela gaiztaqueri au eguin mutillaren contra: eta ez ninduzuten aditu? Ona nola dan eſcatua bere odola.

23 Eta etzequiten Joſec aditzen ciela: adieratzallearen bitartez itz eguiten cielaco.

24 Eta alde eguin zuen piſca bat, eta negar eguin zuen: eta itzuliric itz eguin cien.

25 Eta elduric Simeoni, eta loturic beren aurrean, aguindu cien mendecoai betetzeco gariz beren zacuac, eta ipintzeco bacoitzaren diruac beren zacuetan, emanic gañera janaria bideraco: ceñac ala eguin zuten.

26 Eta berac ceramazquitela gariac beren aſtoetan, joan ciraden.

27 Eta idiquiric batec zacua emateco aſtoari jaten oſtatuan, icuſiric dirua zacuaren aoan,

28 Eſan cien bere anayai: Itzuli didate dirua, ona non dagoen zacuan. Eta arritu eta izuturic, elcarri eſan cioten: ¿Cer da Jaungoicoac gurequin eguin duen au?

29 Eta etorri ciran bere aita Jacob gana Canaango lurrera, eta eſan ciozcaten guertatu citzayozcaten gauza guztiac, ciotela:

30 Garrazqui itz eguin cigun lur artaco jaunac, eta uſte zuen guiñala errico celatariac.

31 Ceñi erantzun guiñion: Paquetſuac guera, eta ez gabiltza gaitz eguiteco aſmoetan.

32 Amabi anai guera aita baten ſemeac: bat ez da bici, chiquiena gure aitarequin dago Canaango lurrean.

33 Ceñec eſan cigun: Onela ezagutuco det paquetſuac ceratela: zuen anai bat utzi ezazute nerequin, eta artu itzatzute bear dituzuten janariac zuen echeetaraco, eta zoazte,

34 Eta ecar zadazute zuen anai chiquiena jaquin dezadan etzeratela celatariac: eta eraman dezazuten preſondeguian guelditzen dan au: eta guero izan dezazuten eſcubidea eroſteco nai dezutena.

35 Oyec eſanic, gariac botatzean, bacoitzac arquitu cituen zacuen aoan diruac loturic: eta izuturic guztiac batean,

36 Eſan zuen aita Jacobec: Zuec utzi nazute ſeme gabe, Joſe ez da bici, Simeon guelditu da preſondeguian, eta Benjamin quenduco didazute: nere gañera erori dirade gaitz guzti oyec.

37 Ceñi erantzun cion Rubenec: Ill itzatzu nere bi ſemeac, itzultzen ez baldin badizut: jarri ezazu nere eſcuan, eta nic biurtuco dizut.

38 Eta berac: Ez da jachico, eſan zuen, nere ſemea zuequin: bere anaya ill zan, eta bera bacarric guelditu da: ezbearren bat guertatuco baldin balitzayo zoazten lurrean, eramango dituzute nere ille urdiñac penarequin obira.

XLIII. Cap.

BITARTEAN goſeteac chit eſtutuzen zuen lur guztia.

2 Eta aituric Egiptotic ecarri cituzten janariac, eſan cien Jacobec bere ſemeai: Itzuli zaitezte, eta eroſi zaguzute janari piſcacho bat.

3 Erantzun zuen Judac: Eſan cigun guizon arc juramentuaren azpian, ciola: Ez dezute icuſico nere arpeguia, ecartzen ez baldin badezute zuequin zuen anai chiquiena.

4 Baldin bada nai badezu bidaldu gurequin, joango guera batean, eta erosico dizugu bear dezuna:

5 Baña ez baldin badezu nai, ez guera joango: ceren guizon arc, maiz eſan degun becela, adiraci cigun, eſaten zuela: Ez dezute icuſico nere arpeguia zuen anai chiquiena gabe.

6 Eſan cien Iſraelec: Nere zorigaitzeraco ezagutueraci ciñioten beſte anai bat ere bacendutela.

7 Eta berac erantzun zuten: Galdetu cigun guizonac banan banan ceñ zan gure etorquia: aita bici zan: beſte anairic guenduen: eta guc erantzun guiñion bear becela galdetu cigunaren araura: ¿nola jaquin guenezaquen eſango cigula: Ecartzazute zuequin zuen anaya?

8 Judac ere eſan cion bere aitari: Bidaldu ezazu nerequin mutilla joan gaitecen, eta bici gaitezquen: gu eta gure aurrac ill ez gaitecen.

9 Neronec artzen det mutilla: nere eſcutic eſcatu ezazu; atzera ecartzen ez baldin badizut, eta itzuli, peccatu eguiñ izango det zure contra dembora gucitan.

10 Izan ez balitz luzapenic, onezquero beſte batean etorri izango guiñan.

11 Iſrael beren aitac bada eſan cien: Ala bear bada, eguin ezazute nai dezutena; artu itzatzute lurreco fruturic onenetatican zuen ontzietan, eta eraman zayozcazute guizon ari eſqueintzariac, errechiñaren eta eztiaren, eta eſtoraquearen, eſtactearen, eta terebintoaren, eta almendren piſca bat.

12 Eraman ezazute ere zuequin birritan aimbat diru: eta berriz eraman ezazute zacuetan arquitu cendutena, utſeguiñez guerratu baldin balitz ere;

13 Artu ezazute ere zuen anaya, eta zoazte guizon argana.

14 Eta nere Jaungoico guztia dezaquenac eguin dizazutela ongui eguincorra: eta bidaldu ditzala zuequin bere mendean daucan zuen anaya, eta Benjamin au: eta ni guelldituco naiz ſemeric gabe becela.

15 Eraman cituzten bada guizonac eſqueintzariac, eta birritan aimbat diru, eta Benjamin: eta jachi ciran Egiptora, eta egon ciraden Joſeren aurrean.

16 Ceñac icuſi citueneco, eta Benjamin beraquin, aguindu cion bere echeco morroi naguſiari, ciola: Sartu itzatzu guizon oriec echean, eta ill itzatzu abereac, eta preſtatu bazcaria; ceren nerequin jango dute egüerdian.

17 Berac eguin zuen aguindu citzayona, eta ſartu cituen guizonac echera.

18 Eta an beldurturic, eſan cioten elcarri: Sartu gaituzte leen gure zacuetan eraman guenduen dirua gatic: guezurren bat guri aſmatzeco, eta indarrez menderatzeco gu, eta gure aſtoac.

19 Argatic ate atetan alderaturic echeco morroi naguſia gana,

20 Eſan cioten: Erregutzen dizugu, jauna, arren aditu gaitzazula. Leen ere etorri guiñan janariac croſtera:

21 Oyec eroſiric, allegatu guiñanean oſtatura, idiqui guiñituen gure zacuac, eta arquitu guenduen dirua zacuen aoan: ceñ orain piſu berean dacargu berriz.

22 Beſte diru bat ere badacargu erosteco bear deguna: ez daquigu norc ipiñi zuen gure bolſetan.

23 Eta berac erantzun zuen: Paquea zuequin, etzaitezte beldurtu: zuen Jaungoicoac, eta zuen aitaren Jaungoicoac, eman cizquizuten ondaſunac zuen zacuetan. Ceren eman ciñidaten dirua, nic contuan jarria daucat. Eta atera zuen Simeon berac gana.

24 Eta ſarturic echean, ecarri zuen ura, eta garbitu cituzten bere oñac, eta eman cien janaria beren aſtoentzat.

25 Eta berac preſtatzen cituzten esqueintzariac, aliqueta ſartu artean Joſe egüerdian: ceren aditu zuten an jan bear zutela.

26 Sartu zan bada Joſe bere echean, eta eſcañi cizquioten emaitzac, bere escuetan cituztela: eta adoratu zuten macurturic lurrera.

27 Eta berac, agur chit gozatſua eguiñic, galdetu cien, eſanaz: ¿Ongui da zuen aita zarra, ceñ gatic itz eguin ciñidaten? ¿oraindican bici da?

28 Berac erantzun zuten: Ongui da zure ſerbitzari gure aita, oraindican bici da. Eta macurturic, adoratu zuten.

29 Eta alchaturic Joſec beguiac, icuſi zuen Benjamin bere anai ſabel batecoa,

eta eſan zuen: ¿Au al da zuen anai chiquiena, ceñ gatic itz eguin ciñidaten? Eta berriz: Jaungoicoa, eſan zuen, urricaldu dedilla zuzaz, nere ſemea.

30 Eta agudo joan zan, ceren muguiquidatu citzayozcan bere errayac bere anaya gatic, eta malcoac ceriozcan: eta ſarturic guelan, negar eguin zuen.

31 Eta ateraric berriz arpeguia garbituta, iduquidatu zan, eta eſan zuen: Ipiñi itzatzute oguiac.

32 Ceñac jarriric, Joſe berecian, eta anayac berecian, elcarrequin jaten zuten egiptoarrac ere berecian (ceren ez da bidezcoa egiptoarrentzat jatea hebreotarraquin, eta gaizquia dala uſte dute onelaco jatequeta),

33 Eſeri ciran bere aurrean, lembiciſortua lembicico ſorreraren araura, eta chiquiena bere adiñaren* araura. Eta chit aſco miraritzen ciran,

34 Arturic berac emandaco parteac: eta zatiric andiena etorri zan Benjamin gana, alaco moduan non zan boſt aldiz andiagoa. Eta edan zuten, eta gozatu ciran berarequin.

XLIV. Cap.

ETA aguindu cion Joſec bere echeco morroi naguſiari, ciola: Bete itzatzu gariz beren zacuac, cabitu al ditzaquen aimbeſtean: eta jarri ezazu bacoitzaren dirua zacuaren goyenean.

2 Eta jarri itzatzu nere cillarrezco copa, eta garia gatic eman duen dirua gazteenaren zacuco aoan. Eta ala eguin zan.

3 Eta allegaturic goiza, bidalduac izan ciran bere aſtoaquin.

4 Eta ateratu izan ciraden erritican, eta ibilli cerbaitcho: orduan Joſec ots eguiñic echeco morroi naguſiari, Zoaz, eſan cion, eta jarraitu zayezu guizon ayei; eta irichiric eſan zayezu: ¿Certaco itzuli dezute gaitza ona gatic?

5 Oſtu dezuten copa, da ura bera, ceñean edaten duen nere naguſiac, eta ceñean aſmatu oi duen: eguin dezute gauza chit gaizto bat.

6 Berac eguin zuen aguindu zuen becela. Eta irichiric itz eguin cien aguinduaren araura.

7 Berac erantzun zuten: ¿Cergatic gure jaunac onela itz eguiten du, zure ſerbitzariac gaiztaqueri ain andia eguin dutela?

8 Zacuen goyenean arquitu guenduen dirua, berriz ecarri guenduen zu gana Canaango lurretican: ¿nola bada izan daiteque oſtutzea guc zure naguſiaren echetic urrea edo cillarra?

9 Zure ſerbitzarietaco edoceñ, ceñegan arquitzen dan billatzen dezuna, ill bedi, eta gu izango guera gure jaunaren mempecoac.

10 Ceñac eſan cien: Eguin bedi zuen erabaquiaren araura: nic arquitzen diodan edoceñ, bera izango da nere mempecoa, eta zuec izango cerate ezgaizquitatuac.

11 Ala bada agudo utziric lurrean zacuac, idiqui zuen bacoitzac berea.

12 Ceñac billaquinduric andiena gandic aſita chiquieneraño, arquitu zuen copa Benjaminen zacuan.

13 Eta berac, urraturic ſoñecoac, eta cargaturic berriz aſtoac, itzuli ciran errira.

14 Eta aurrena Juda anayaquin ſartu zan Joſe gana (ceren etzan muguitu toquitican), eta guztiac batean bere aurrean auzpeztu ciran lurrean.

15 Ceñai berac eſan cien: ¿Cergatic nai izan dezute eguin onela? ¿ez al daquizute ez dala nere antzecoric aztí jaquindurian?

16 Ceñi Judac eſan cion: ¿Cer erantzungo diogu nere jaunari, edo cer eſango degu, edo bidez erantzun dezaquegu? Jaungoicoac aguertu du zure ſerbitzarien gaiztaqueria: ona guztioc guera nere jaunaren mempecoac, bai gu, eta bai ura ceñegan arquitua izan dan copa.

17 Erantzun zuen Joſec: Urrutian ni gandic orrelacoric eguitea: copa oſtu duena, bera izan bedi nere mempecoa: eta zuec joan zaitezte libreac zuen aita gana.

18 Eta alderaturic gueyago, Judac fidandez eſan zuen: Erregutzen dizut, nere jauna, utzi dizayozula arren zure ſerbitzari oni zuri itz eguiten, eta etzaitecela aſerratu zure morroi onequin: ceren zu cera

19 Nere jaun Faraonen urrengoa. Galdetu ciñien lembicicoan zure ſerbitzariai: ¿Badezute aitaric, edo anairic?

20 Eta guc erantzun guiñizun zuri nere jaun ceranari: Badegu aita zar bat, eta anai chiqui bat, bere zartzan jayo ci-

* *edadearen.*

tzayona; ceñen anai ſabel batecoa ill da: eta au bacarric guelditzen da bere ama gandic, eta bere aitac ſamurquiro maitatzen du.

21 Eta eſan ciñien zure ſerbitzariai: Ecarri zadazute onera, ceren icuſi nai nuque.

22 Adiraci guiñion nere jaunari: Ecin dezaque mutillac utzi bere aira: ceren utzitzen baldin badu, illco da.

23 Eta eſan ciñien zure ſerbitzariai: Etortzen ez baldin bada zuequin zuen anai chiquiena, ez dezute berriz icuſico nere arpeguia.

24 Allegatu guiñanean bada gure aita zure ſerbitzariaren echera, contatu guiñiozcan nere jaunac eſan ciñizquigun gauza guztiac.

25 Eta eſan zuen gure aitac: Itzuli zaitezte, eta eroſi zazquiguzute gari piſca bat.

26 Ceñi eſan guiñion: Ez gaitezque joan: gure anai chiquiena joaten bada gurequin, elcarrequin joango guera: bestela bera gabetanic, ez guera atrebitzen icuſtera guizon aren arpeguia.

27 Oyei berac erantzun cieten: Zucc badaquizute bi ſeme eguin cizquidala nere emazteac.

28 Atera zan bata, eta eſan cenduten: Piſti batec iretſi zuen: eta oraindaño ez da aguiri.

29 Au ere eramaten baldin badezute, eta ezbearren bat guertatzen bazayo bidean, eramango dituzute nere ille urdiñac atſecabearequin obira.

30 Sartuco banintz bada zure ſerbitzari nere aita gana, mutill au eraman gabe (aren bicia onena gandican ichequita nola dagoan),

31 Eta icuſico baldin balu berau ez dala gurequin, illco da, eta zure ſerbitzariac eramango dituzte bere ille urdiñac atſecabearequin obira.

32 Ni nerau izan nadin zure mempecoa, bere fiatzalle jarri nintzan bezala, eta eſqueñi nuen eſanaz: Berriz ecartzen ez baldin badizut pecatu eguin izango det nere aitaren contra dembora gucitan.

33 Gueldituco naiz bada ni zure ſerbitzari au mutillaren toquian nere jaunaren morroitzan, eta mutilla bijoa bere anayaquin.

34 Ceren ez naitequen itzuli nere aita gana mutill gabe: izan ez nadin nere aita eſtutuco duen naigabe andiaren icuſle.

XLV. Cap.

BARRENAC ecin artu zuen gueyago Joſe an ceuden aſcoren aurrean: argatic aguindu zuen atera citecela guztiac campora, eta etzedilla arrotzic batere egon elcarren ezagüeran.

2 Eta alchatu zuen boza negarrarequin: ceñ aditu n egiptoarrac, eta Faraonen eche guztiac.

3 Eta eſan cien bere anayai: Ni naiz Joſe: ¿oraindican nere aita bici da? Ecin zuten erantzun anayac icararuric izu gueyegui batequin.

4 Ceñai berac gozaro eſan cien: Alderatu zaitezte ni gana. Eta allegaturic aldera, eſan cien: Ni naiz Egiptoraco ſaldu cenduten Joſe zuen anaya.

5 Etzaitezte icaratu, eta ez ere atſecabetu ſaldu ninduzutelaco erri oyetaraco: ceren zuen oſaſuna gatic bidaldu nau Jaungoicoac zuen aurretic Egiptora.

6 Ceren bi urte dirade aſi zala goſetea lurrean: eta oraindican boſt urte falta dira, ceñetan ecin goldeatu, ta ez iguitaitu daiteque.

7 Eta Jaunac aurretican bidaldu ninduen zuec biciric izan zaitezten lurraren gañean, eta iduqui dezaquezuten cer jan bicitzeco.

8 Ez naiz izan bidaldua onera zuen aſmoz, baicic Jaungoicoaren borondatez: ceñac eguin ninduen Faraonen aita becela, eta bere eche guztico jauna, eta Egiptoco lur guztico principea.

9 Agudo ibilli zaitezte, eta igo nere aita gana, eta eſango diozute: Oyec bidaltzen dizquitzu eſaten zure ſeme Joſec: Jaincoac eguin nau Egiptoco lur guztico jaun: jachi zaite ni gana, ez luzatu,

10 Eta bicico cera Geſengo lurrean: eta izango cerate nere aldean zu, eta zure ſemeac, eta zure ſemeen ſemeac, zure ardiac, eta zure abereac, eta dezun guztia.

11 Era an jana emango dizut (ceren oraindican goſeteco boſt urte falta dira) galdu etzaitezten zu, eta zure echea, eta dituzun gauza guztiac.

12 Ona non zuen beguiac, eta nere anai Benjaminen beguiac, icuſten dute nere aoac itz eguiten dizutela.

13 Adiraci zayozute nere aitari nere gloria guztia, eta Egipton icuſi dituzuten gauza guztiac: ibilli zaitezte agudo, eta ecarri zadazute ni gana.

14 Eta utziric erortzen bere anai Benjaminen lepora, laztanduric, aſi zan negarrez: baitaere berac negar eguiten zuela Joſeren lepoaren gañean.

15 Eta muſu eman cien Joſec bere anai guztiai, eta negar eguin zuen bacoitzaren gañean: ceñen ondoren atrebitu ciran itz eguiten berari.

16 Eta aditua izan zan, eta zabaldua erregueren jaureguian guztien artean berri au: Etorri ciraden Joſeren anayac: eta poztu ciran Faraon, eta bere echeco guztiac.

17 Eta eſan cion Joſeri aguindu dizayela bere anayai, eſaten ciela: Cargaturic abereac, zoazte Canaango lurrera,

18 Eta artu itzatzute andican zuen aita eta aideac, eta atozte ni gana: eta nic emango dizquizutet Egiptoco ondaſun guztiac, jan dezazuten lurreco mardultaſuna.

19 Aguindu zayezute ere artu ditzatela gurdiac Egiptoco lurretican, bere umeac eta emazteac ecartzeco: eta eſan zayezute: Artu ezazute zuen aita, eta ariñ ibilliric etorri zaitezte aimbat laſterrena.

20 Eta ez ezazute utzi zuen treſnaric batere: ceren Egiptoco aberaſtaſun guztiac zuenac izango diran.

21 Eta eguin zuten Iſraelco ſemeac aguindua izan citzayoten becela. Ceñai eman cizquioten Joſec gurdiac, Faraonen aguinduaren araura, eta janaria bideraco.

22 Aguindu ere zuen ateratzeco bacoitzarentzat bi ſoñeco: eta Benjamini eman ciozcan irureun diru cillarrezco boſt ſoñeco chit ederraquin:

23 Bidaltzen ciozcala bere aitari beſte aimbeſte diru eta ſoñeco, eta gañera amar aſto eramateco Egiptoco ondaſun guztietatican, eta beſte aimbeſte aſtaeme, garia eta oguiac bideraco ceramazquitenac.

24 Bidaldu cituen bada bere anayac, eta cijoacenean eſan cien: Etzaitezte aferratu bidean.

25 Ceñac igoric Egiptotican, etorri ciran Canaango lurrera bere aita Jacob gana.

26 Eta eman cioten berria, eſaten zutela: Joſe zure ſemea bici da: eta bera da aguintzen duena Egiptoco lur guztian. Au adituric, lozorro batetican eſnatuco balitz becela, Jacobec oraindican etzioten ſiniſten.

27 Berac contrara contatzen zuten guertatu citzayoten guztia. Eta icuſi cituenean gurdiac, eta bidaldu ciozcan gauza guztiac, berriz piztu zan bere espiritua,

28 Eta eſan zuen: Aſqui da neretzat nere ſeme Joſe oraindican bici baldin bada: joango naiz, eta icuſico det ill nadin baño lenago.

XLVI. Cap.

ETA ateraric Iſrael ceuzcan gauza guztiaquin, etorri zan Juramentuco putzura: eta eſqueñiric an emaitzac Iſaac bere aitaren Jaungoicoari,

2 Aditu zuen gaueco icuſqueta batean ots eguiten ciola, eta eſaten: Jacob, Jacob. Ceñi erantzun cion: Ona non nagoen.

3 Eſan cion Jaungoicoac: Ni naiz zure aitaren Jaungoico chit ſendoa: etzaite beldur izan, jechi zaite Egiptora, ceren an eguingo zaitudan erri andi baten buru.

4 Ni jechico naiz zurequin ara, eta nic andican ecarrico zaitut itzultzen cerancan: eta Joſec ichico dizquitzu beguiac illtcen ceranean.

5 Jaiqui zan bada Jacob Juramentuco putzutic: eta eraman zuten ſemeac bere umeaquin eta emazteaquin Faraonec agurea eramateco bidaldu cituen gurdietan,

6 Eta Canaango lurrean ceuzcan gauza guztiac: eta etorri zan Egiptora bere ondoco guztiaquin,

7 Bere ſemeac, eta illobac, eta ſenide guztiac elcarrequin.

8 Eta oyec dirade Egipton ſartu ciran Iſraelen ſemeen icenac, onera etorri zanean bere aurraquin. Lembiciſortua Ruben.

9 Rubenen ſemeac: Enoc eta Falu eta Heſron eta Carmi.

10 Simeonen ſemeac: Jamuel eta Jamin eta Ahod eta Jaquin eta Sohar, eta Saul canaantar baten ſemea.

11 Leviren ſemeac: Gerſon eta Caat eta Merari.

12 Judaren ſemeac: Her eta Onan eta Sela eta Fares eta Zara. Baña Her

eta Onan ill ciraden Canaango lurrean. Eta Farefi jayo citzayozcan: Hefron eta Hamul.

13 Iſacarren ſemeac: Tola eta Fua eta Job eta Semron.

14 Zabulonen ſemeac: Sared eta Elon eta Jahelel.

15 Oyec Liaren ſemeac eguin ciozcanac Siriaco Meſopotamian Dina bere alabarequin; bere ſeme eta alaba guztiac ciran oguei ta amairu.

16 Gaden ſemeac: Sefion eta Hagi, eta Suni eta Eſebon eta Heri eta Arodi eta Areli.

17 Aſerren ſemeac: Jamne eta Jeſua eta Jeſui eta Beria eta Sara beren arreba. Beriaren ſemeac: Heber eta Melquiel.

18 Oyec Zelfaren Labanec bere alaba Liari eman cionaren ſemeac. Eta oyec eguin ciozcan Jacobi, amaſei lagun.

19 Raquel Jacoben emaztearen ſemeac: Joſe eta Benjamin.

20 Eta Joſeri jayo citzayozcan ſemeac Egiptoco lurrean, ceñac eguin ciozcan Aſenet Putifar Heliopolifco apaizaren alabac: Manaſes eta Efraim.

21 Benjaminen ſemeac: Bela eta Becor eta Aſbel eta Gera eta Naaman eta Equi eta Ros eta Moſim eta Oſim eta Ared.

22 Oyec Raquelec Jacobi eguin ciozcan ſemeac: lagun guztiac, amalau.

23 Danen ſemeac: Huſim.

24 Neftaliren ſemeac: Jaſiel eta Guni eta Jeſer eta Salem.

25 Oyec Balaren Labanec bere alaba Raqueli eman cionaren ſemeac: eta oyec eguin ciozcan Jacobi: lagun guztiac, zazpi.

26 Jacobequin Egipton ſartu ciraden lagun guztiac, eta bera gandic atera ciranac, bere ſemeen emazteac gabetanic, iruroguei ta ſei.

27 Eta Joſeren ſeme jayo citzayozcanac Egiptoco lurrean, bi lagun. Jacoben echeco lagun guztiac Egipton ſartu ciradenac, izan ciran iruroguei ta amar.

28 Eta bidaldu zuen Juda bere aurretican Joſe gana adirazteco nola cetorren, eta bidera ateratzeco Geſeneta.

29 Ara allegaturic, igoric Joſe bere gurdira, joan zan bere aitari bidera irtetzera lecu bertara: eta icuſiric bera, egotzi citzayon bere lepora, eta laztanen artean negar eguin zuen.

30 Eta eſan cion aitac Joſeri: Orain bai pocic illco naiz, icuſi dedalaco zure arpeguia, eta biciric utzitzen zaitudalaco.

31 Eta berac itz eguin cien bere anayai, eta bere aitaren eche guztiari: Igoco naiz eta adiracico diot Faraoni, eta eſango diot: Canaango lurrean ciran nere anayac, eta nere aitaren echea, etorri dira ni gana:

32 Berac dirade artzayac, eta abereac acitzen ari oi dirade: ecarri dituzte berequin beren artaldeac, eta abereac, eta iduqui cezaquetean guztia.

33 Eta deitzen dizutenean, eta eſaten dizutenean: ¿Certan ari oi cerate?

34 Erantzungo dezute: Guizon artzayac guera zure ſerbitzariac, gure aur demboratic oneraño, eta gu eta gure aitac. Eta oyec eſango dituzute bici al zaitezten Geſengo lurrean: ceren gorroto dieten egiptoarrac artzai guztiai.

XLVII. Cap.

SARTURIC bada, Joſec adiraci cion Faraoni, eſaten zuela: Nere aita eta anayac, beren ardiac eta abereac dituzten gauza guztiaquin, etorri dira Canaango lurretican: eta ona non guelditu diran Geſengo lurrean.

2 Eta bere anayetatic azquenengo boſt guizonac eraman cituen erregueren aurrera:

3 Ceñai berac galdetu cien: ¿Certan ari oi cerate? Erantzun zuten: Artzayac guera zure ſerbitzariac, bai gu, eta bai gure aitac.

4 Etorri guera zure lurrean egotera dembora zati batean: ceren ez dan belarric zure ſerbitzarien abereentzat, gueitzen dalaco goſetea Canaango lurrean: eta eſcatzen dizugu aguindu dezazula egon gaitecela gu zure ſerbitzariac Geſengo lurrean.

5 Eta eſan cion erreguec Joſeri: Zure aita eta zure anayac etorri dira zu gana.

6 Egiptoco lurra zure aurrean dago: eguizu bici ditecela toquiric onenean, eta eman zayezu Geſengo lurra. Eta baldin ezagutzen badezu badiradela beren artean guizon cintzoac, ipiñi itzatzu nere abereen artzainagufitzat.

7 Oyen ondoren ſartu zuen Joſec bere aita erregue gana, eta jarri zuen bere aurrean: ceñac agur eguiñic,

8 Eta izanic erreguec galdetua: ¿Cembat dira zure urteac?

9 Erantzun zuen: Ni mundu onetan arrotza becela ibilli naicen urteac eun eta oguei ta amar dirade, laburrac eta nequez beteac, eta ez dirade allegatu nere aitac mundu onetan arrotzac becela ibilli izan ciraden urteetara.

10 Eta erregueri agur eguiñic, atera zan campora.

11 Eta Josec eman cien bere aitari eta anayai Rameſesco lurra, toqui chit ugaria Egipton, Faraonec aguindu zuen becela.

12 Eta acitzen cituen berac, eta bere aitaren eche guztia, emanic janaria bacoitzarentzat.

13 Ceren mundu guztian falta zan oguia, eta goſeteac ceucan eſtuturic lurra, batczere Egiptocoa eta Canaangoa.

14 Ceñetatic bildu zuen diru guztia ſalduric garia, eta ſartu zuen erregueren dirutoquian.

15 Eta aituric dirua eroſleai, etorri zan Egipto guztia Joſe gana, eſaten zuela: Eman zaguzu oguia: ¿cergatic utzitzen diguzu illtzen zure aurrean, diruric ez degulaco?

16 Ceñai berac erantzun cien: Ecarri itzatzute zuen abereac, eta berac gatic emango dizquitzutet janariac, dirurican gueyago ez baldin badezute.

17 Oyec ecarriric, eman ciezten janariac zaldiac, eta ardiac, eta idiac, eta astoac gatic: eta jaten eman cien urte artan abereac gatic.

18 Etorri ere ciraden bigarren urtean, eta eſan cioten: Ez diogu eſtalico gure jaunari ez degula abereric, ez diruric: eta arguiro icuſten dezu ez degula gorputzac eta lurra baicic.

19 ¿Cergatic bada illco guera zuc icuſten gaituzula? Eta gu eta gure lurra zureac izango guera: eroſi gaitzatzu erregueren mempecotzat, eta eman zaizquiguzu aciac, galduric necazariac lurra eremu itzuli ez dedin.

20 Eroſi zuen bada Josec Egiptoco lur guztia, ſaltzen cituela bacoitzac ceuzcan lur guztiac goſete andia gatic. Eta jarri zuen Egipto guztia Faraonen mendean,

21 Eta bere erri guztiac, Egiptoco aſieratic bere azqueneco muguetaraño,

22 Salbu apaicen lur erreguec berai emana: ceñai ere ematen oi ciozcaten janari icentatuac guztien aleteguietatic, eta argatic etzituzten ſaldu bear izan beren lurrac.

23 Eſan cien bada Josec erriai: Ona non, icuſten dezuten becela, Faraonenac cerate zuec eta zuen lurra: artu itzatzute aciac, eta erein campoetan.

24 Frutuac iduqui al ditzatzuten. Boſgarren partea emango diozute erregueri: lau gañeracoac uzten dizquizutet acitaco, eta zuen echeco eta aurrac jateco.

25 Ceñac erantzun zuten: Bicia eman diguzu: bacarric ongui beguiratu bizagu gure naguſiac, eta pocic erregue ſerbituco degu.

26 Dembora artatic gaurco eguneraño, Egiptoco lur guztian, erregueai pagatzen zaye boſgarren partea, eta etorri zan leguea becela izatera, ſalbu apaicen lur pagu au gabe guelditu zana.

27 Bicitu izan zan bada Iſrael Egipton, au da, Geſengo lurrean, eta izan zan bere jabe: eta gueitu zan, eta chit ugaritu.

28 Eta bicitu zan bertan amazazpi urtetan: eta bere bicitzaco urte guztiac izan ciran eun eta berroguei ta zazpi urte.

29 Eta nola icuſten zuen alderatzeu zala bere eriotzaco eguna, deitu cion bere ſeme Joſeri, eta eſan cion: Eguiaz maite baldin banazu, jarri ezazu zure eſcua nere iſtarraren azpian: eta meſede eguin zadazu eſqueintzea eguia guztiarequin ez nazula obiratuco Egipton:

30 Baicic joango naizala atſedetera nere guraſoaquin, eta ateraric lur onetatic, jarrico nazula nere antziñacoen obian. Ceñi erantzun cion Josec: Nic eguingo det aguindu dezuna.

31 Eta berac eſan cion: Juramentu eguin zadazu bada. Ceñec juramentu eguiñic, adoratu zuen Iſraelec Jaungoicoa, itzuliric oearen burura.

XLVIII. Cap.

OYEC onela iragota, adiraci citzayon Joſeri bere aita eriric cegoala: ceñ, arturic bere bi ſeme Manaſes eta Efraim, jarri zan bidean.

2 Eta eſan citzayon agureari: Ona zure ſeme Joſe dator zu gana. Bera ſendoturic eſeri zan oean.

3 Eta ſarturic Joſe aita gana, eſan

cion: Jaungoico guztia dezaquena aguertu citzadan Luzan, ceñ dagoen Canaango lurrean; eta bedeincatu ninduen,

4 Eta esan cidan: Nic gueitu eta ugarituco zaitut, eta eguingo zaitut erri ascoren buru: eta emango dizut betico lur au zuri, eta zure etorquiari zure ondoren.

5 Argatic zure bi seme jayo citzazquizunac Egiptoco lurrean ni onera zu gana etorri baño lenago, nereac izango dira: Efraim eta Manases ain neretzacotzat iragoco dirade, nola Ruben eta Simeon.

6 Baña emendican aurrera dituzun besteac, zureac izango dira, eta dituzten lurrac eramango dute beren anayen icena.

7 Ceren ill citzadan Raquel bidean bertan, Mesopotamiatic nentorrenean, eta udaberria zan: eta sartzera ninjoan Efratan, eta obiratu nuen Efrata beste icenez Belen deitzen zayoneco bidearen aldean.

8 Eta icusiric Joseren semeac, esan cion: ¿Nor dirade oyec?

9 Erantzun zuen: Jaungoicoac toqui onetan eman cizquidan nere semeac dira. Alderatu zaizquidazu, esan cion, bedeincatu ditzadan.

10 Ceren Israelen beguiac illundu ciran zartza gueyeguia gatic, eta ecin icusi zuen arguiro. Eta alderaturic bere gana musu emanic, eta laztanduric,

11 Esan cion bere semeari: Noizbait icusten zaitut: gañera eracutsi dizquit Jaungoicoac zure semeac.

12 Eta eramanic Josec bere semeac aitaren besartetican, adoratu zuen macurruric lurreraño.

13 Era jarri zuen Efraim bere escuyetic, au da, Israelen ezquerretic: eta Manases berriz bere ezquerretic, au da, aitaren escuyetic; eta alderatu cituen biac bera gana.

14 Ceñec luzaturic escuya jarri zuen Efraim anai gazteagoaren buru gañean: eta ezquerra Manases zarragoaren buru gañean, aldaturic escuac.

15 Eta bedeincatu cituen Jacobec Joseren semeac, eta esan zuen: Jaungoicoac, ceñen aurrean ibilli ciran Abraham eta Isaac nere aitac, Jaungoicoac nere gaztetasunetic gaurco eguneraño acitzen nauenac:

16 Gaitz guztietatic gorde ninduen ainguruac, bedeincatu ditzala aur oyec: eta izan bedi deitua nere icena beren gañean, baitaere Abraham eta Isaac nere aiten icenac, eta ugaritu bitez gueyago ta gueyago lurraren gañean.

17 Eta icusiric Josec bere aitac jarri zuela escuya Efraimen buru gañean, damu andia artu zuen: eta elduric aitaren escuari jaso nai izan zuen Efraimen burutic, eta eraman Manaseren buru gañera.

18 Eta esan cion aitari: Ez da orrela bear, aita: au dalaco lembicisortua, jarri ezazu zure escuya bere buru gañean.

19 Berac etzuen nai, eta esan zuen: Badaquit, nere semea, badaquit: au eguiaz izango da ere errien aita, eta ugarituco da: baña bere anai chiquiagoa, bera baño andiagoa izango da, eta bere etorquia acico da jendeetan.

20 Eta bedeincatu cituen dembora artan, esaten zuela: Zugan izango da bedeincatua Israel, eta esango da: Eguin zaitzala Jaungoicoac Efraim becela, eta Manases becela. Eta jarri zuen Efraim Manases baño lenago.

21 Eta esan cion bere seme Joseri: Badaquizu aurqui ill bear dedala, eta Jaungoicoa izango da zuequin, eta berriz eramango zaituzte zuen aiten lurrera.

22 Ematen dizut zure anayen gañera amorreotarren escutican nere ezpata eta uztayaz artu nuen zatia.

XLIX. Cap.

ETA Jacobec deitu cien bere semeai, eta esan cien: Bildu zaitezte, adiraci dizazutedan cer guertatuco zazuten azquenengo egunetan.

2 Bildu zaitezte, eta aditu ezazute Jacoben semeac, aditu ezazute Israel zuen aita:

3 Ruben nere lembicisortua, zu nere sendotasuna, eta nere penaren asiera: lendabicicoa doayetan, andiagoa aguintaritzan.

4 Ixuri cera ura becela, etzaite aci: igo ciñalaco zure aitaren oera, eta loitu cenduclaco bere etzanlecua.

5 Simeon eta Levi anayac: gaiztaquerico tresna guerrariac.

6 Nere anima ez dedilla sartu beren asmoetan, eta nere gloria ez dedilla izan beren batzarrean: ceren beren aserrean ill zuten guizona, eta beren borondatean zulapetu murrua.

7 Madaricatua beren sumiña, dalaco

ſetatia: eta beren aſerrea, dalaco gogorra: berecituco ditut Jacobgan, eta zabaldu Iſraelen.

8 Juda, alabatuco zaituzte zure anayac: zure eſcua zure etſayen lepoetan, adoratuco zaituzte zure aitaren ſemeac.

9 Leoyaren umea Juda: arrapatzera igo ciñan, nere ſemea: atſedenaz etzan ciñan leoya becela, eta leoi emearen guiſan, ¿ norc eſnatuco du?

10 Ez da quendua izango erregue maquilla Judatic, eta aguintaria bere jatorritic, aliqueta etorri dedin bitartean bidaldua izango dana, eta bera izango da jendeen ichodopena.

11 Lotzen diola maſtiari bere aſtoa, eta matſondoari, o nere ſemea, bere astaemea. Garbituco du ardotan bere ſoñecoa, eta matſaren odoletan bere mantua.

12 Ederragoac dirade bere beguiac ardoa baño, eta bere ortzac zuriagoac eſnea baño.

13 Zabulon bicico da itſaſoaren bazterrean, eta ontzien portuan zabaltzen dala Sidoneraño.

14 Iſacar aſto indartſua etziña muguen bitartean.

15 Icuſi zuen atſedena ona zala: eta lurra gucietan obeena: eta beeratu zuen bere ſorbalda zamac eramateco, eta menderatu zan pechac pagatzera.

16 Danec juzgatuco du bere erria beſte edoceñ tribuc becela Iſraelen.

17 Izan bedi Dan ſuguea bidean, ceraſtea bidechigorrean ozcatzen dituena zaldiaren azcazalac, erori dedin atzerontz bere gañecoa.

18 Nic, Jauna, ichedongo det zure oſaſuna.

19 Gad, guerria armaz beteric gudan arico da bere aurrean: eta ura bera izango da armatua atzerontz.

20 Aſer, bere oguia guritſua, eta emango diezte gozotaſunac erregueai.

21 Neftali, oreñ aſcatua, eta ematen dituena edertaſuneco eſanac.

22 Seme azten dana Joſe, ſeme azten dana eta arpegui ederrecoa: alabac corrica joan ciraden murruaren gañera.

23 Baña mindu zuten, eta erriertac izan cituzten, eta ondamu izan cioten dardoac ceuzcatenac.

24 Jarri zuen ſendoagan bere uztaya, eta bere beſoen eta eſcuen locarriac izan ciran aſcatuac Jacoben aldunaren eſcuen bitartez: andican atera zan artzaitzat, eta Iſraelco arritzat.

25 Zure aitaren Jaungoicoa izango da zure laguntzallea, eta Guztialdunac bedeincatuco zaitu goico ceruco bendicioaquin, bean datzan leicearen bendicioaquin, bularren eta emaſabelaren bendicioaquin.

26 Zure aitaren bendicioac izan dirade ſendotuac bere aiten bendicioaquin: etorri dedin artean betico muñoen opatua: eguiaztu bitez Joſeren buruan, eta nazaretarraren buruaren erpiñean bere anayen artean.

27 Benjamin otſo arraparia, goicean jango du oſtu duena, eta arratſaldean partituco ditu condoac.

28 Oyec guztioc dirade Iſraelco amabi tribuen aguintariac: oyec eſan ciezten bere aitac, eta bedeincatu zuen bacoitza, cegocan bendicioaquin.

29 Eta aguindu cien, eſaten zuela: Ni biltzera noa nere erriarequin: obiratu nazazute nere aitaquin Efron hettarraren landan dagoen leice bitan partituan:

30 Mambreren aurrean Canaango lurrean, ceñ eroſi cion Abrahamec landarequin Efron hettarrari bere obien toquitzat.

31 An obiratu zuten, baita Sara bere emaztea ere: an izan zan obiratua Iſaac bere emazte Rebecarequin: an ere datza obiratua Lia.

32 Eta bucaturic aguinteac, ceñaquin arguitutzen cituen ſemeac, bildu cituen bere oñac ocaren gañean, eta ill zan: eta izan zan bere erriarequin batean jarria.

L. Cap.

AU icuſiric, Joſe erori zan aitaren arpeguiaren gañean negarrez, eta muſu ematen ciola.

2 Eta aguindu cien bere ſerbitzari ſendatzalleai baltſamatu cezatela aita.

3 Ceñac beteric aguinduac, irago ciraden berroguei egun: ceren au zan gorputz ill baltſamatuentzaco oitura; eta negar eguin zuen bera gatic Egiptoc iruroguei ta amar egunean.

4 Eta bucaturic proguco dembora, eſan cion Joſec Faraonen familiari: Arquitu baldin bader meſedea zuen aurrean, adieraci zayozute Faraoni:

5 Nere aitac juramentu eraguin cidala, eſaten zuela: Ni illtzen naiz, obiratuco nazu Canaango lurrean neretzat aitzurtu

nuen nere obian. Igoco naiz bada, eta obiratuco det nere aita, eta itzulico naiz.

6 Eta eſan cion Faraonec: Igu zaite eta obiratu ezazu zure aita juramentu eguin cenduen becela.

7 Ceñ igoric, joan ciraden berarequin Faraonen echeco agure guztiac, eta Egiptoco lurreco zarrenac:

8 Joſeren echea bere anayaquin, aurrac eta artaldeac, eta abereac gabe, ceñac utzi cituzten Geſengo lurrean.

9 Izan ere cituen laguntzan gurdiac eta zaldiac: eta bildu zan jende talde ez chiquia.

10 Eta allegatu ciran Ataden larrañera, ceñ dagoen Jordanen beſte aldean: non irago cituzten zazpi egun proguan negar andi eta ſamiñaquin.

11 Icuſi zutenean au Canaango lurrean bici ciradenac, eſan zuten: Progu andia da au egiptoarrentzat. Argatic izan zan deitua toqui au, Egiptoco progua.

12 Eguin zuten bada Jacoben ſemeac aguindu cien becela:

13 Eta eramanic bera Canaango lurrera, obiratu zuten leice bitan partituan; ceñ eroſi cion Abrahamec landarequin bere obiac izateco Efrom hettarrari Mambreren aurrean.

14 Eta itzuli zan Joſe Egiptora bere anayaquin, eta laguntza guztiarequin, obiraturic aita.

15 Ceñ ill eta, bere anayac bildur izanic, eta alcarri ciotela: ¿Norc daqui oroituco ote dan Joſe ſufritu zuen penaz, eta itzulico digun eguin guiñion gaitz guztia?

16 Bidaldu cioten eſatera: Zure aitac aguindu cigun, ill baño lenago,

17 Oyec bere icenean eſan guiñizazquizula: Erregutzen dizut aztu zaitecela zure anayen gaiztaqueriaz, eta zurequin eguin zuten pecatu eta bidegabetaſunaz: guc ere erregutzen dizugu barca dizayezula gaiztaqueri au zure aiaren Jaungoicoaren ſerbitzariai. Ceñac adituric, Joſec negar eguin zuen.

18 Eta etorri ciraden bera gana bere anayac: eta adoratzen zutela macurturic lurrerontz, eſan zuten: Zure ſerbitzariac guera.

19 Ceñai berac erantzun cien: Etzaitezte bildur izan: ¿Gu jaiqui al gaitezque Jaungoicoaren borondatearen contra?

20 Zuec uſte cenduten niri gaitz eguitea: baña Jaincoac itzuli zuen onera, ni goratzeco, orain icuſten dezuten becela, eta ſalbatzeco erri aſco.

21 Etzaitezte bildur izan: nic emango dizutet jaten zuei eta zuen aurrai. Eta poztu cituen, eta itz eguin cien beraſun eta biguntaſunarequin.

22 Eta bicitu izan zan Egipton bere aitaren eche guztiarequin: eta bicitu izan zan eun eta amar urtetan. Eta icuſi cituen Efraimen ſemeac irugarren guizaldiraño. Baitaere Maquir Manaſeſen ſemearen ſemeac jayota jarriac izan ciran Joſeren belaunetan.

23 Ceñac iragoric, itz eguin cien bere anayai: Nere eriotzaren ondoren Jaungoicoac biſitatuco zaituzte, eta igoeracico zaituzte lur onetatican Abraham, Iſaac, eta Jacobi juramentuz eſqueñi cien lurrera.

24 Eta juramentu eraguiñic berai, eta eſanic: Jaungoicoac biſitatuco zaituzte: eramaan itzatzute nere ezurrac zuequin lur onetatican:

25 Ill zan, bere bicitzaco eun eta amar urteac beteric. Eta baltſamaturic, izan zan ipiñia cucha batean Egipton.

EXÔDOCO LIBURUA.

I. Cap.

OYEC dirade Jacobequin Egipton ſartu ciraden Iſraelco ſemeen icenac: bacoitza ſartu zan bere echecoaquin:

2 Ruben, Simeon, Levi, Judas,

3 Iſacar, Zabulon, eta Benjamin,

4 Dan, eta Neftali, Gad, eta Aſer.

5 Ciraden bada iruroguei ta amar Jacob gandic ſortu ciran guztiac: Joſe alabaña cegoan Egipton.

6 Illic au, eta bere anai guztiac, eta jatorri guzti ura,

7 Iſraelco ſemeac aci ciraden, eta uga-

ritu belarra bezala: eta chit gueituric, bete zuten lurra.

8 Bitartean jaiqui zan Egipton erregue berri bat, Joſe ezagutzen etzuena.

9 Eta eſan cion bere erriari: Ona, Israelco ſemeen erria chit ugaria da, eta gu baño ſendoagoa.

10 Atozte, eſtutu dezagun mañaz, ugaritu ez daitequen: eta izango baldin balitz guerraren bat gure contra elcartu ez dedin gure etſayaquin, eta garaituric gu atera ez dedin lur onetatican.

11 Argatic jarri ciezten lanarizayac atſecabetu citzaten zamaquin: eta eguin ciozcaten Faraoni denden erriac Fitom, eta Rameſes.

12 Eta cembat eta gueyago atſecabetzen cituzten, ambat eta gueyago ugaritzen, eta acitzen ciraden:

13 Eta egiptoarrac gorroto ciezteen Iſraelco ſemeai, eta atſecabetzen cituzten burlatzen cietela,

14 Eta iragoeracitzen ciezten bici ſamiñ bat neque andiaquin careorrea eta adrilluac eguiten, eta morroitza mota guztiz, ceñez ciran eſtutuac campoco lanetan.

15 Eſan ere cien Egiptoco erreguec hebreotarren emaguiñai, ceñetatic bati ceritzan Sefora, beſteari Fua,

16 Aguintzen ciela: Laguntzen diezutenean emaguintzan hebreotar emacumeai, eta aurguiteco dembora allegatzen danean: baldin bada ſemea, ill ezazute: baldin bada alaba, gorde ezazute.

17 Baña emaguiñac Jaungoicoaren bildur izan ciran, eta etzuten eguin Egiptoco erregueren aguintcaren araura, baicic biciric utzitzen cituzten ſemeac.

18 Ceñac bere gana ots eguiñic, erreguec eſan zuen: ¿Cer eguin nai izan dezute, utziric biciric ſemeac?

19 Ceñac erantzun zuten: Hebreotar emacumeac ez dirade Egiptocoac becelacoac: ceren berac badute emaguintzaco jaquinduria, eta berac gana allegatzen gueran baño lenago, aurreguiten dute.

20 Jaungoicoac bada ongui eguin cien emaguiñai: eta aci zan erria, era chit ſendotu.

21 Eta Jaungoicoaren beldur izan ciradelaco emaguiñac, eman ciezten echeac.

22 Aguindu cion bada Faraonec bere erri guztiari, eſaten zuela: Jayotzen dan ſeme guztia, bota ezazute ibayera: alaba guztiari utzi zayozute biciric.

II. Cap.

OYEN ondoren atera zan Levico echeco guizaſeme bat: eta artu zuen bere jatorrico emaztea.

2 Ceñac ſortu zuen, eta eguin zuen ſeme bat: eta icuſiric zala ederra, ezcutatu zuen iru illean.

3 Eta ecin gueyago ezcutatu zuenean, artu zuen iizco ſaſquicho bat, eta eſtali zuen betunez eta piquez, eta jarri zuen barrenen aurchoa, eta utzi zuen ibai bazterreco cañaberadian,

4 Bere arreba bat cegoala zutic urrutian, eta gauza onen guertaeraren celatan.

5 Eta ona non jachitzen zan Faraonen alaba ibayean garbitzera: eta bere dontzellac cebiltzen ibayaren bazterrean. Ceñac icuſi zueneco ſaſquichoa cañaberadian, bidaldu zuen bere neſcameetatican bat: eta eracarrita

6 Idiquiric, eta icuſiric an ume bat negarrez, cupituric beraz, eſan zuen: Hebreotarren aurren bat da au.

7 Ceñi aurraren arrebac eſan cion: ¿Nai dezu joan nadin, eta ots eguin diozadan zuretzat hebreotar emacume bati, aci dezaquena umecho au?

8 Erantzun zuen: Zoaz. Joan zan neſcacha, eta ots eguin cion bere amari.

9 Ceñi itz eguin cion Faraonen alabac, eſaten ciola: Ar zazu aur au, eta aci zadazu: nic neronec emango dizut zure ſaria. Artu zuen andreac aurra, eta aci zuen: eta aunditu zanean eman cion Faraonen alabari.

10 Ceñ berac artu zuen ſemetzat, eta deitu cion Moiſes, eſaten zuela: Uretican atera nuelaco.

11 Dembora artan Moiſes aunditu zanean, atera zan bere ſenideac gana: eta icuſi zuen beren eſtutaſuna, eta egiptoar guizon batec jotzen zuela bere anai hebreotar bat.

12 Eta beguiraturic alde guztietara, eta icuſiric etzala iñor aguiri, ill zuen egiptoarra, eta ezcutatu zuen ondarrean.

13 Eta ateraric biaramonean, icuſi cituen bi hebreotar erriertan: eta eſan cion eraſotzen cionari: ¿Cergatic jotzen dezu zure anaya?

14 Berac erantzun zuen: ¿Norc jarri au principe eta jueztzat gure gañean? ¿ic ill nai al nauc, atzo ill ucan becela egiptoarra? Beldurtu zan Moiſes, eta

esan zuen: ¿Nola zabaldu ote da guertaera au?

15 Eta aditu zuen Faraonec itz au, eta ill nai zuen Moises: ceñac igues eguiñic bere aurretic, bicitu izan zan Madiango lurrean, eta eseri zan putzu baten aldean.

16 Eta Madiango apaizac cituen zazpi alaba, ceñac etorri ciran ura ateratzera: eta beteric ascac edaten eman nai cieten beren aitaren abereai.

17 Ondoren etorri ciraden artzai batzuec, eta bota cituzten: eta jaiqui zan Moises, eta jarriric nescachen alde, eman cien edaten beren ardiai.

18 Ceñac itzuliric beren aita Raguel gana, esan cien: ¿Cergatic zatozte oi baño lasterrago?

19 Erantzun zuten: Guizon egiptoar batec libratu gaitu artzayen escutic: gañera atera ere du ura gurequin, eta eman die edaten ardiai.

20 Eta berac esan zuen: ¿Non da? ¿cergatic utzi diozute joaten guizon orri? Deitu zayozute oguia jan dezan.

21 Eta juramentu eguin zuen Moisesec berarequin bicico zala. Eta artu zuen emazterzat bere alaba Sefora:

22 Ceñec eguin cion seme bat, ceñari deitu cion Gersam, esaten zuela: Arrotza izan naiz besteren lurrean. Eta beste seme bat eguin cion, ceñi deitu cion Eliecer, esaten zuela: Ceren nere aitaren Jaungoicoac nere laguntzalleac atera ninduen Faraonen escutican.

23 Eta dembora ascoren buruan ill zan Egiptoco erreguea: eta Israelco semeac negarrez, beren lanac gatic deadar eguin zuten: eta beren deadarra igo zan Jaungoicoa gana beren lanetatic.

24 Eta aditu zuen beren negarra, eta oroitu zan Abraham, Isaac, eta Jacobequin eguin zuen elcartasunaz.

25 Eta beguiratu cien Jaunac Israelco semeai, eta ezagutu cituen.

III. Cap.

ETA Moisesec larrean cerabilzquien bere aitaguiarreba Jetro Madiango apaizaren ardiac: eta eramanic abere taldea eremuaren barrenera, etorri zan Horeb Jaungoicoaren mendira.

2 Eta aguertu citzayon Jauna suzco garrean sasiaren erditican: eta icusten zuen sasia garretan cegoela, eta erretzen etzala.

3 Esan zuen bada Moisesec: Joango naiz, eta icusico det icusqueta andi au, cergatic erretzen ez dan sasia.

4 Eta icusiric Jaunac bacijoala icustera, deitu cion sasiaren erditic, eta esan zuen: Moises, Moises. Ceñac erantzun zuen: Emen nago.

5 Eta berac esan zuen: Ez alderatu onera: quendu itzatzu zure oñetacoac: ceren zauden lecua, lur santua da.

6 Eta esan zuen: Ni naiz zure aitaren Jaungoicoa, Abrahamen Jaincoa, Isaaquen Jaincoa, eta Jacoben Jaincoa. Estali zuen Moisesec bere arpeguia: ceren etzan benturatzen Jaungoicoa ganontz beguiratzea.

7 Ceñi esan cion Jaunac: Icusi det nere erriaren esturasuna Egipton, eta aditu det bere deadarra languillezayen gogortasuna gatic:

8 Eta jaquiñic bere pena, jachi naiz libratzera egiptoarren escuetatican, eta ateratzera lur artatican lur on, eta zabalera, esnea eta eztia darion lurrera, canaantarraren, eta hettarraren, eta amorreotarraren, eta ferezeotarraren, eta heveotarraren, eta jebustarraren lecuetara.

9 Israelco semeen deadarra bada allegatu da ni gana: eta icusi det beren esturasuna, ceñez diraden egiptoarrac menderatuac.

10 Baña atoz, eta bialduco zaitut Faraon gana, atera dezazun Egiptotican nere erria, Israelco semeac.

11 Eta esan cion Moisesec Jaungoicoari: ¿Nor naiz ni joateco Faraon gana, eta ateratzeco Israelco semeac Egiptotican?

12 Ceñac esan cion: Ni egongo naiz zurequin: eta au izango dezu nic bialdu zaitudan señaletzat: Ateratzen dezunean nere erria Egiptotican, eguingo diozu Jaungoicoari esqueintzaria mendi onen gañean.

13 Esan cion Moisesec Jaungoicoari: Ona non ni joango naicen Israelco semeac gana, eta esango diedan: Zuen aiten Jaungoicoac bialdu nau zuec gana. Esango baldin balidate: ¿Ceñ da bere icena? ¿cer esango diet?

14 Esan cion Jaungoicoac Moisesi: Ni naiz naicena. Esan zuen: Onela esango diezu Israelco semeai: Danac, bialdu nau zuec gana.

15 Eta esan cion berriz Jaungoicoac Moisesi: Oyec esango diezu Israelco

ſemeai: Zuen aiten Jaun Jaungoicoac, Abrahamen Jaincoac, Iſaaquen Jaincoac, eta Jacoben Jaincoac bidaldu nau zuec gana: au da nere icena betico, eta au da nere oroicarria guizaldien guizaldietan.

16 Zoaz, eta bildu itzatzu Iſraelco zarrac, eta eſango diezu: Zuen aiten Jaun Jaungoicoa, Abrahamen Jaincoa, Iſaaquen Jaincoa, eta Jacoben Jaincoa aguertu citzadan, eſaten cidala: Ni etorri naiz zuec biſitatzera, eta icuſi ditut Egipton guertatu citzatzuten gauza guztiac:

17 Eta eſan det ateraco zaituztedala Egiptoco eſtutaſunetican, canaantarraren, eta hettarraren, eta amorreotarraren, eta ferezeotarraren, eta heveotarraren, eta jebuſtarraren lurrera, eſnea eta eztia darion lurrera.

18 Eta adituco dute zure boza: eta ſartuco cerate zu, eta Iſraelco zarrac, Egiptoco erregue gana, eta eſango diozu: Hebreotarren Jaun Jaungoicoac ots eguin digu: joango guera iru eguneco bidean eremura eguitera gure Jaun Jaungoicoari eſqueintzaria.

19 Baña nic badaquit ez dizutela utzico joaten Egiptoco erreguec, eſcu ſendoaren bitartez baicican.

20 Ceren nic luzatuco det nere eſcua, eta zaurituco det Egipto beren erdian eguingo ditudan mirari guztiaquin: oyen ondoren utzico dizute joaten.

21 Eguingo ere det erri orrec arquitu dezala meſede egiptoarren beguietan, ateratzen ceratenean irten etzaitezten utſic:

22 Baicic emacume bacoitzac eſcatuco diozca bere auzoco emacumeari eta bere oſtatuemalleari, cillarrezco eta urrezco oñtziac, eta ſoñecoac: eta jarrico dituzute zuen ſemeen eta alaben gañean, eta uſtuco dezute Egipto.

IV. Cap.

ERANTZUNAZ Moiſeſec, eſan zuen: Ez didate finiſtuco, ez dute ere adituco nere boza, baicican eſango dute: Etzatzu aguertu Jauna.

2 Eſan cion bada: ¿Cer da zure escuan dezuna? Erantzun zuen: Cigor bat.

3 Eta eſan zuen Jaunac: Bota ezazu lurrera. Bota zuen, eta ſugue biurtu zan, alaco moduan, non igues eguiten zuen Moiſeſec.

4 Eta eſan zuen Jaunac: Luzatu ezazu zure eſcua, eta eldu zayozu bere buztanari. Luzatu zuen, eta eldu cion, eta cigor itzuli zan.

5 Siniſtu dezaten, eſan zuen, aguertu zatzula beren guraſoen Jaun Jaungoicoa, Abrahamen Jaincoa, Iſaaquen Jaincoa, eta Jacoben Jaincoa.

6 Eta eſan cion Jaunac berriz: Sar zazu zure eſcua zure colcoan. Ceñ ſarturic colcoan, atera zuen leguenez beteric elurra becela.

7 Berriz ſartu ezazu, eſan cion, zure eſcua zure colcoan. Berriz ſartu zuen eta atera bigarren aldian, eta zan beſte araguiaren antzecoa.

8 Ez baldin badizute ſiniſten, eſan zuen, eta ez baldin balute adituco lendabicico ſeñalearen boza, ſiniſtuco dute bigarren ſeñalearen itza.

9 Eta ez baldin balute ſiniſtuco ſeñale bi oyequin ere, eta ez balute adituco zure itza: ar zazu ibayeco ura, eta ixuri ezazu lurraren gañean, eta ibayetican ateratzen dezun guztia odol biurtuco da.

10 Eſan zuen Moiſeſec: Jauna, erregutzen dizut, oroitu zaitecela ez naicela iñoiz izan iztun ona: eta zure ſerbitzari oni itz eguiten diozun ezquero, arquitzen ere naiz motelago eta mingañ aſtunagoarequin.

11 Eſan cion Jaunac: ¿Norc eguin zuen guizonaren aoa, edo norc moldatu zuen mutua eta gorra, icuſten duena eta itſua? ¿ez al naiz izan ni?

12 Zoaz bada, era ni izango naiz zure aoan: eta eracutſico dizut cer itz eguingo dezun.

13 Eta berac: Erregutzen dizut, Jauna, arren bidaldu dizazula bidalduco dezuna.

14 Aſerraturic Jaunа Moiſeſequin, eſan zuen: Aaron zure anai Levico ſemeac, badaquit izquetan ongui eguiten duela: beguira, badator zuri bidera irtetzera, eta icuſten zaituenean biotzez poztuco da.

15 Itz eguin zayozu, eta jarri itzatzu nere itzac bere aoan; eta ni izango naiz zure aoan, eta aren aoan, eta eracutſico dizutet cer eguin bear dezuten.

16 Berac itz eguingo dio zu gatic erriari, eta izango da zure aoa: eta zu izango cera beretzat Jaungoicoari dagozquion gaucetan.

17 Artu ere ezazu zure eſcuan cigor au, ceñaz eguingo dituzu mirariac.

18 Joan zan Moiſes, eta itzuli zan Jetro bere airaguiarreba gana, eta eſan

cion: Joango naiz, eta itzulico naiz nere anayac gana Egiptora icuſi dezadan oraindican bici ote diran. Ceñi eſan cion Jetroc: Zoaz ordu onean.

19 Eſan cion bada Jaunac Moiſeſi Madianen: Zoaz, eta itzuli zaite Egiptora: ceren illac diran zuri bicia quendu nai cizuten guztiac.

20 Artu cituen bada Moiſeſec bere emaztea, eta bere ſemeac, eta jarri cituen aſto baten gañean, eta biurtu zan Egiptora, ceramala Jaungoicoaren cigorra bere eſcuan.

21 Eta eſan cion Jaunac itzultzen zanean Egiptora: Beguira, eguin ditzatzula Faraonen aurrean zure eſcuan jarri ditudan izucari guztiac: nic gogortuco det bere biotza, eta ez dio utzico erriari joaten:

22 Eta eſango diozu: Au dio Jaunac: Iſrael da nere ſeme lembiciſortua.

23 Eſan dizut: Utzi zayozu nere ſemeari ſerbitu nazan; eta etziñion utzi nai izan: ona emen non nic illco dedan zure lembiciſortua.

24 Eta cegoela bidean, atera citzayon Jauna bidera oſtatuan, eta ill nai zuen.

25 Bereala Seforac artu zuen arri chit zorrotz bat, eta inguru ebaqui zuen bere ſemearen buztanmocoa, eta uquituric Moiſeſen oñai, eſan cion: Zu cera neretzat odolezco ſenar bat.

26 Eta utzi cion eſan zuenean: Odolen ſenarra, inguru ebaquitzea gatic.

27 Eta eſan cion Jaunac Aaroni: Zoaz Moiſeſen bidera eremura; eta joan zan bere bidera Jaungoicoaren mendira, eta muſu eman cion.

28 Eta contatu cion Moiſeſec Aaroni Jaunac eſan cion guztia bidaltzean, eta nolaco mirariac eguiteco aguindu cion.

29 Eta etorri ciraden elcarrequin, eta bildu cituzten Iſraelco ſemeen zar guztiac.

30 Eta Aaronec eſan cituen Jaunac Moiſeſi eſan ciozcan itz guztiac: eta eguin cituen mirariac erriaren aurrean,

31 Eta ſiniſtu zuen erriac. Eta aditu zuten Jaunac biſitatu cituela Iſraelco ſemeac, eta beguiratu ciola beren eſtutaſunari: eta auzpezturic adoratu zuten.

V. Cap.

OYEN ondoren ſartu ciran Moiſes eta Aaron, eta eſan cioten Faraoni: Oyec eſaten ditu Iſraelco Jaun Jaungoicoac: Utzi zayozu nere erriari ſacrificatu dizadan eremuan.

2 Baña berac erantzun zuen: ¿Ceñ da Jauna aditu dezadan bere boza, eta utzi dizayodan joaten Iſraeli? Ez det ezagutzen Jauna, eta ez diot utzico joaten Iſraeli.

3 Eta berac eſan zuten: Hebreotarren Jaungoicoac ots eguin digu, joan gaitecen iru eguneco bidean bacardadean, eta eguin dizayogula eſqueintzaria gure Jaun Jaungoicoari: etorri ez dedin gure gañera izurria* edo guerra.

4 Eſan cien Egiptoco erreguec: ¿Certaco, Moiſes eta Aaron, aldeeracitzen diozute erriari beren lanetatic? Zoazte zuen eguinquizunetara.

5 Eta eſan zuen Faraonec: Erri au chit ugaritu da toqui onetan: icuſten dezute nola aci dan jendea: ¿cembat gueyago ematen badiozute atſedena bere lanetan?

6 Aguindu cien bada egun artan languillezayai, eta errico eſcaleai, eſaten zuela:

7 Iñolaere berriz ez diozute emango erriari laſtoric adrilluac eguiteco, leen becela: baicic bijoaz berac, eta bildu bitzate galondoac.

8 Eta eſcatuco diezute oraindaño eguiten zuten adrilluen neurria, ecercho ere guchitu gabe: bada alperquerian daude, eta argatic deadar eguiten dute, diotela: Goacen, eta eguin dizayogun esqueintzaria gure Jaungoicoari.

9 Izan bitez lanez lertuac, eta bucatu bezate: finiſteric eman ez dizayeten guezurrezco itzai.

10 Ateraric bada languillezayac, eta eſcaleac, eſan cioten erriari: Onela eſaten du Faraonec: Ez dizutet ematen laſtoric:

11 Zoazte, eta bildu ezazute baldin iñon arquitu al badezaquezute; etzazute ere guchituco ecer zuen lanetican.

12 Eta banatu zan erria Egiptoco lur guztitican laſtoa biltzera.

13 Eta languilleen zayac eſtututzen cituzten, eſaten zutela: Bucatu ezazute zuen eguneroco lana, leen eguin oi cenduten becela ematen citzazutenean laſtoa.

14 Eta Faraonen eſcaleac azotatu cituzten Iſraelco ſemeen languillezayac, eſaten cietela: ¿Certaco ez dezute bete-

* *peſte.*

tzen adrilluen neurria, leen becela, ez atzo, ta ez gaur?

15 Eta etorri ciran Iſraelco ſemeen languillezayac, eta deadar eguin cioten Faraoni, eſaten zutela: ¿Cergatic onela gaizqui darabilzquizu zure ſerbitzariac?

16 Ez digute ematen laſtoric, eta aguintzen digute eguiteco adrilluac leen becela: beguira ezazu azomtuac guerala zure ſerbitzarioc, eta gaizqui eguiten dute zure erriaren contra.

17 Ceñec eſan zuen: Alperquerian zaudete, eta argatic diozute: Goacen, eta eguin dizayogun eſqueintzaria Jaunari.

18 Zoazte bada, eta lanean ari zaitezte: laſtoric etzazute emango, eta eguingo dezute oraindaño oi cenduten aimbeſte adrillu.

19 Eta Iſraelco ſemeen languillezayac icuſten ciraden larri, eſaten citzayotelaco: Ez da ecer ere guchituco eguneroco adrilluetatic.

20 Eta bidera irten citzayezten Moiſeſi eta Aaroni aurrez aurre ceudenai, Faraon gandican ateratzen ciranean:

21 Eta eſan cieten: Jaunac icuſi eta juzgatu beza; zuec bada jarri gaituzute Faraonen eta bere ſerbitzarien gorrotoan, eta eman diozute ezpata gu illtzeco.

22 Eta itzuli zan Moiſes Jauna gana, eta eſan zuen: Jauna, ¿cergatic eſtutu dezu erri au? ¿cergatic bidaldu nazu?

23 Sartu nintzan ezquero bada Faraon gana zure icenean itz eguiteco, estutu du zure erria: eta ez dituzu libratu.

VI. Cap.

ETA eſan cion Jaunac Moiſeſi: Orain icuſico dezu cer eguingo diodan Faraoni: ceren eſcu ſendoaren bildurrez utzico die joaten, eta eſcu indartſuaz botaco ditu bere erritican.

2 Eta itz eguin cion Jaunac Moiſeſi, ciola: Ni naiz Jauna

3 Aguertu nintzayona Abrahami, Iſaaqui, eta Jacobi Jaungoico guztia dezaqueanaren guiſan; eta nere icen Adonai ez nien aguertu.

4 Eta eguin nuen elcartaſuna beraquin emango niela Canaango lurra, berac arrozturic ibilli ciraden lurra, ceñean egon ciraden erbeſtecoac becela.

5 Nic aditu det Iſraelco ſemeen deadarra, egiptoarrac eſtutu dituztelaco: eta oroitu naiz nere elcartaſunaz.

6 Argatic eſan zayezu Iſraelco ſemeai: Ni Jaun ateraco zaituztedana Egiptoco ciegatican, eta libratuco zaituztet catiberitic: eta erreſcatatuco zaituztet emanic ots andiac nere beſo alchatuaz.

7 Eta nic artuco zaituztet nere erritzat, eta izango naiz zuen Jaungoicoa: eta jaquingo dezute ni naicela egiptoarren ciegatic atera cinduztedan zuen Jaun Jaungoicoa:

8 Eta ſartu cinduztedana ango lurrera, ceñaren gañean jaſo nuen nere eſcua emateco bera Abraham, Iſaac, eta Jacobi: eta emango dizutet bere jabe izateco, nic Jaunac.

9 Contatu ciezten bada Moiſeſec gauza guzti oyec Iſraelco ſemeai: ceñac etzioten ſiniſteric eman ceuden eſtutaſun eta larria gatic neque gueyeguiaquin.

10 Eta itz eguin cion Jaunac Moiſeſi, ciola:

11 Sartu zaite, eta eſan zayozu Faraon Egiptoco erregueri utzi dizayela Iſraelco ſemeai joaten beren lurretican.

12 Erantzun zuen Moiſeſec Jaunaren aurrean: Ona non Iſraelco ſemeac ez nauten aditzen: ¿eta nola adituco nau Faraonec, batezere izanic ni motela?

13 Itz eguin cien Jaunac Moiſeſi eta Aaroni, eta aguindu cien joateco Iſraelco ſemeen, eta Faraon Egiptoco erregueren billa Iſraelco ſemeac Egiptoco lurretic ateratzeco.

14 Oyec dirade echeetaco buruac beren familien araura. Ruben Iſraelen lembiciſortuaren ſemeac: Enoc eta Falu, Heſron eta Carmi:

15 Oyec Rubenen ſenideac. Simeonen ſemeac: Jamuel, eta Jamin, eta Ahod, eta Jaquin, eta Soar, eta Saul canaantar emacume baten ſemea. Oyec Simeonen jatorriac.

16 Eta oyec Leviren ſemeen icenac beren ſenitartetatic. Gerſon eta Caat, eta Merari. Eta Leviren bicitzaco urteac izan ciran eun eta oguei ta amazazpi.

17 Gerſonen ſemeac: Lobni eta Semei, beren ſenitartetatic.

18 Caaten ſemeac: Amran, eta Iſaar, eta Hebron, eta Oziel. Eta Caaten bicitzaco urteac eun eta oguei ta amairu.

19 Merariren ſemeac: Moholi eta

Muſi. Oyec Leviren ſenitarteac beren familietatic.

20 Eta Amramec artu zuen emaztetzat Jocabed bere lenguſu aitaldecoa: ceñac eguin ciozcan Aaron eta Moiſes. Eta Amramen bicitzaco urteac izan ciraden eun eta oguei ta amazazpi.

21 Eta Iſaarren ſemeac: Core, eta Nefeg, eta Zecri.

22 Eta Ozielen ſemeac: Miſael, eta Eliſafan, eta Setri.

23 Eta Aaronec artu zuen emaztetzat Eliſabet, Aminadaben alaba, Nahaſonen arreba, ceñac eguin ciozcan Nadab, eta Abiu, eta Eleazar, eta Itamar.

24 Eta Coreren ſemeac: Aſer, eta Elcana, eta Abiaſaf. Oyec dirade coretarren ſenitarteac.

25 Baña Eleazar Aaronen ſemeac artu zuen emaztea Futielen alabetatic: ceñac eguin cion Finees. Oyec dirade levitar familien buruac beren ſenitartetic.

26 Oyec dira Aaron eta Moiſes, ceñai aguindu cien Jaunac ateratzeco Iſraelco ſemeac Egiptoco lurretic zabalduric taldeetan.

27 Oyec dirade itz eguiten diotenac Faraon Egiptoco erregueari ateratzeco Iſraelco ſemeac Egiptotican: oyec dira Moiſes eta Aaron,

28 Jaunac Moiſeſi Egiptoco lurrean itz eguin cion egunean.

29 Eta itz eguin cion Jaunac Moiſeſi, ciola: Ni naiz Jauna: eſan zazquiozu Faraon Egiptoco erregueri nic eſaten dizquizudan gauza guztiac.

30 Eta eſan zuen Moiſeſec Jaunaren aurrean: Icuſten dezu motela naicela: ¿nola adituco nau Faraonec?

VII. Cap.

ETA eſan cion Jaunac Moiſeſi: Ona non eguin zaitudan Faraonen Jaungoico: eta Aaron zure anaya izango da zure profeta.

2 Zuc eſango diozu nic eſaten dizudan guztia: eta arc itz eguingo dio Faraoni utzi dizayela joaten Iſraelco ſemeai bere erritic.

3 Baña nic gogortuco det bere biotza, eta ugarituco ditut nere mirari eta izucariac Egiptoco lurrean,

4 Eta etzaituzte adituco; baña nic luzatuco det nere eſcua Egiptoren gañera, eta ateraco ditut nere ejercitu eta erria Iſraelco ſemeac juicio chit andien bitartez.

5 Eta adituco dute egiptoarrac ni naicela Jauna, luzatzen dedanean nere escua Egiptoren gañean, eta ateratzen ditudanean Iſraelco ſemeac beren erditican.

6 Eguin zuten bada Moiſeſec eta Aaronec Jaungoicoac aguindu zuen becela: ala eguin zuten.

7 Moiſes zan berriz laroguei urtecoa, eta Aaron laroguei ta irucoa, itz eguin ciotenean Faraoni.

8 Eta eſan cien Jaunac Moiſeſi eta Aaroni.

9 Eſaten dizutenean Faraonec: Aguertu itzatzute ezagungarriac, eſango diozu Aaroni: Ar zazu zure cigorra, eta bota ezazu Faraonen aurrean, eta ſugue biurtuco da.

10 Sarturic bada Faraon gana Moiſes eta Aaronec eguin zuten Jaunac aguindu cien becela. Eta artu zuen Aaronec cigorra Faraonen eta bere ſerbitzarien aurrean, ceñ ſugue biurtu zan.

11 Eta deitu cien Faraonec jaquintſuai eta ſorguiñai: eta berac ere orobat eguin zuten egiptoarren ſorguinqueriaquin, eta gauza eſtali batzuequin.

12 Eta bota cituen bacoitzac bere cigorrac, ceñac dragoyac biurtu ciran: baña Aaronen cigorrac iretſi cituen beren cigorrac.

13 Eta gogortu zan Faraonen biotza, eta etzituen aditu, Jaunac aguindu zuen becela.

14 Eta eſan cion Jaunac Moiſeſi: Aſtundu da Faraonen biotza, eztio utzi nai joaten erriari.

15 Zoaz bera gana goicetic, beguira, ateraco dala uretara: eta egongo cera zai ibai bazterrean, dragoi biurtu zan cigorra eſcuan dezula.

16 Eta eſango diozu: Hebreotarren Jaun Jaungoicoac bidaldu nau zu gana eſatera: Utzi zayozu joaten nere erriari eguin dizadan eſqueintzaria eremuan: eta oraindaño ez dezu aditu nai izan.

17 Oyec bada eſaten ditu Jaunac: Onetan jaquingo dezu Jauna naizala: beguira, joco dedala ibayeco ura nere eſcuan dedan cigorraz, eta odol biurtuco da.

18 Ibayean dauden arrayac ere illco dirade, eta uſtelduco dirade urac, eta ibayeco ura edaten duten egiptoarrac naigabetuco dirade.

19 Eſan ere cion Jaunac Moiſeſi: Eſan zayozu Aaroni: Ar zazu zure cigorra, eta luzatu ezazu zure eſcua Egiptoco uren gañera, eta beren ibayen gañera, eta erreca eta putzu, eta aintzira * guztien gañera, odol biurtu ditecen: eta izan dedin odola Egiptoco lur guztian, ala zurezco ontzietan, nola arrizcoetan.

20 Eta eguin zuten Moiſeſec eta Aaronec Jaunac aguindu cien becela: eta jaſoric cigorra, jo zuen ibaico ura Faraonen eta bere ſerbitzarien aurrean: ceñ odol biurtu zan.

21 Eta ill ciran ibayean ceuden arrayac: eta uſteldu zan ibaya, eta ecin zuten edan egiptoarrac ibayeco ura, eta izandu zan odola Egiptoco lur guztian.

22 Eta orobat eguin zuten egiptoarren ſorguiñac beren encantuaquin; eta gogortu zan Faraonen biotza, eta etzituen aditu, Jaunac aguindu zuen becela.

23 Eta atzea eman cien, eta ſartu zan bere echean, eta etzan bere biotza bigundu oraingo aldian ere.

24 Eta egiptoar guztiac aitzurtu zuten ibayaren inguruan ura edateco: ceren ecin edan zuten ibaico ura.

25 Eta zazpi egun oſoac iragо ciraden, Jaunac ibaya jo zuen ezquero.

VIII. Cap.

ESAN ere cion Jaunac Moiſeſi: Sar zaite Faraon gana, eta eſango diozu: Oyec eſaten ditu Jaunac: Utzi zayozu joaten nere erriari eguin dizadan eſqueintzaria:

2 Eta baldin ez baciñioque utzi nai, ona non nic caſtigatuco ditudan zure alderri guztiac iguelez.

3 Eta ibaya guelditzaca egongo da iguelaquin: ceñac igo ta ſartuco diran zure eche, eta zuc lo eguiten dezun guela, eta zure oean; baitaere zure ſerbitzarien echeetan, eta zure errian, eta zure labeetan, eta zure janarien condarretan:

4 Eta iguelac ſartuco dira zu gana, eta zure erri, ta ſerbitzari guztiac gana.

5 Eta eſan cion Jaunac Moiſeſi: Eſayozu Aaroni: Luzatu ezazu zure eſcua ibayen eta errequen eta putzuen gañera, eta atera itzatzu iguelac Egiptoco lurraren gañera.

6 Eta luzatu zuen Aaronec eſcua Egiptoco uren gañera, eta igo ciran iguelac, eta eſtali zuten Egiptoco lurra.

7 Eta orobat eguin zuten ſorguiñac beren encantuaquin, eta atera cituzten iguelac Egiptoco lurraren gañera.

8 Eta ots eguin cien Faraonec Moiſeſi eta Aaroni, eta eſan cien: Erregutu zayozute Jaunari quendu ditzala iguelac ni eta nere erria gandic: eta utzico diot erriari eguin dizayola eſqueintzaria Jaunari.

9 Eta eſan cion Moiſeſec Faraoni: Icentatu zadazu noiz erregutuco dedan zu, eta zure ſerbitzariac, eta zure erria gatic botatuac izan ditecen iguelac zu gandic, eta zure echetic, eta zure ſerbitzariac gandic, eta zure erritic: eta bacarric guelditu ditecen ibayean.

10 Ceñac erantzun zuen: Biar. Eta berac: Eguingo det, eſan zuen, zure itzaren araura jaquin dezazun ez dala gure Jaun Jaungoicoa becelacoric.

11 Eta alde eguingo dute iguelac zu gandic, eta zure echetic, eta zure ſerbitzariac gandic, eta zure erritic: eta bacarric ibayean gueldituco dirade.

12 Eta atera ciraden Moiſes eta Aaron Faraon gandic: eta Moiſeſec deadarrez erregutu cion Jaunari Faraoni eguin cion eſqueintzariaren betetaſuna gatic iguelen gañean.

13 Eta cumplitu zuen Jaunac Moiſeſen itza: eta ill ciran eche, eta baſerri, eta campoetaco iguelac.

14 Eta bildu cituzten pilla neurrigabeetan, eta uſteldu zan lurra.

15 Baña icuſiric Faraonec bere burua gaitzetic libraturic, aſtundu zuen bere biotza, eta etziruen aditu, Jaunac aguindu zuen becela.

16 Eta eſan cion Jaunac Moiſeſi: Eſan zayozu Aaroni: Luzatu ezazu zure cigorra, eta jo ezazu lurreco autſa: eta jayo bitez elchoac Egiptoco lur guztian.

17 Eta ala eguin zuten. Eta luzatu zuen Aaronec eſcuan zuen cigorra: eta jo zuen lurreco autſa, eta guizonac, eta zamariac guelditu ciraden elchoz beteric: lurreco auts guztia elcho biurtu zan Egiptoco lur guztian.

18 Eta orobat eguin zuten ſorguiñac beren encantuaquin ateratzeco elchoac, eta ecin zuten: eta goizonac eta zamariac ceuden elchoz beteric.

19 Eta eſan cioten ſorguiñac Faraoni:

* *Iago.*

Au Jaungoicoaren beatza da. Eta gogortu zan Faraonen biotza, eta etzituen aditu Jaunac aguindu zuen becela.

20 Eta esan cion Jaunac Moisesi: Goiz jaiqui, ta jarri zaite Faraonen aurrean: ceren ateraco da uretara: eta esango diozu: Oyec esaten ditu Jaunac: Utzi zayozu joaten nere erriari eguin dizadan esqueintzaria.

21 Ceren uzten ez badiozu joaten, ona non nic bidalduco dedan zure, eta zure serbitzarien, eta zure echeen gañera euli mota guztia: eta egiptoarren echeac, eta bici diraden toqui guztiac beteco dirade euli mota ascoz.

22 Eta eguingo det miragarria egun artan Gesengo lurra, ceñean dagoan nere erria, euli gabe gueldituric: eta jaquin dezazun ni Jauna bici naizala lurraren erdian.

23 Eta nic berecituco det nere erria zure erria gandic: biar izango da mirari au.

24 Eta ala eguin zuen Jaunac. Eta euli gogaicarri eta calteguille talde andiac etorri ciran Faraonen eta bere serbitzarien echeetara, eta Egiptoco lur guztira: eta ustelduzan lurra onelaco euliz.

25 Eta ots eguin cien Faraonec Moisesi eta Aaroni, eta esan cien: Zoazte eta eguin zayozute esqueintzaria zuen Jaungoicoari lur onetan.

26 Eta esan zuen Moisesec: Ori eguin ez dezaque: ceren esqueñico guiñiozcaquen gure Jaun Jaungoicoari egiptoarren nazcagarriac. Eta baldin beren beguien aurrean illco baguiñituque berac adoratzen dituztenac, arrica emango liguquete.

27 Ibillico guera iru eguneco bidean bacardadean: eguingo diogu esqueintzaria gure Jaun Jaungoicoari, aguindu cigun becela.

28 Eta esan cion Faraonec: Nic utzico dizutet joaten eguin dizayozuten esqueintzaria zuen Jaun Jaungoicoari eremuan: baña etzaitezte urrutiago joan, erregutu ezazute ni gatic.

29 Eta esan zuen Moisesec: Ateratzen naicenean zu gandican, erregutuco diot Jaunari: eta biar aldeguingo dute euliac Faraon, eta bere serbitzariac gandic, eta bere erritic: baña ez nazazu berriz engañatu uzten ez diozula erriari joaten Jaunari esqueintzaria eguitera.

30 Eta Faraon gandic ateraric, Moisesec erregutu cion Jaungoicoari.

31 Ceñac eguin zuen Moisesen itzaren araura: eta quendu cituen euliac Faraon, eta bere serbitzariac gandic, eta bere erritic: etzan guelditu batere.

32 Eta astundu zan Faraonen biotza, alaco moduan, non etzion utzi erriari joaten oraingo aldian ere.

IX. Cap.

ETA esan cion Jaunac Moisesi: Sartu zaite Faraon gana, eta esan zayozu: Oyec esaten ditu hebreotarren Jaun Jaungoicoac: Utzi zayozu joaten nere erriari eguin dizadan esqueintzaria.

2 Ceren baldin oraindican ez badezu nai, eta guelditzen badituzu:

3 Ona non nere escua izango dan zure campoen gañean: eta bidalduco det zaldi, eta asto, eta gamelu, eta idi, eta ardien gañera izurrite* chit andi bat.

4 Eta eguingo du Jaunac mirari bat Israelco, eta egiptoarren gaucen artean ez dala galduco ecercho ere Israelco semeai dagotenic.

5 Eta Jaunac icentatu zuen epea, ciola: Bigar eguingo du Jaunac mirari au lurrean.

6 Ala eguin zuen Jaunac biaramonean: eta ill ciran egiptoarren abere guztiac: baña Israelco semeen abereetatic bat ere etzan galdu.

7 Eta bidaldu zuen Faraonec icustera: eta arquitu zan etzala ill Israelena zan gauzaric batere. Eta astundu zan Faraonen biotza, eta etzion utzi joaten erriari.

8 Eta esan cien Jaunac Moisesi eta Aaroni: Artu itzatzute escuac bete auts sutoquitic, eta banatu beza Moisesec cerurontz Faraonen aurrean.

9 Eta zabaldu bedi auts au Egiptoco lur guztitic: eta izango dira guizonetan, eta zamarietan zauriac, eta anditsuac Egiptoco lur guztian.

10 Eta artu zuten autsa sutoquitic, eta jarri ciraden Faraonen aurrean, eta banatu zuen Moisesec cerurontz, eta aguertu ciraden anditsuen zauriac guizonetan, eta zamarietan:

11 Eta sorguiñac ecin aguertu ciran Moisesen aurrean berac eta Egiptoco lur guzticoac ceuzcaten zauriac gatic.

12 Eta gogortu zuen Jaunac Farao-

* *pusa.*

nen biotza, eta etzituen aditu, Jaunac Moiſeſi eſan cion becela.

13 Eta eſan cion Jaunac Moiſeſi: Goiz jaiqui, eta jarri zaite Faraonen aurrean, eta eſango diozu: Oyec eſaten ditu hebreotarren Jaun Jaungoicoac: Utzi zayozu joaten nere erriari eguin dizadan eſqueintzaria.

14 Ceren oraingo aldian bidalduco ditut nere gaitz guztiac zure biotzaren, eta zure ſerbitzarien, eta zure erriaren gañera: jaquin dezazun ez dala nere antzecoric lur guztian.

15 Ceren orain luzaturic eſcua zaurituco zaituztet zu, eta zure erria izurriteaz * eta galdua izango cera lurretican.

16 Onetaraco gorde zaitut biciric aguertzeco zugan nere ſendotaſuna, eta goratua izan dedin nere icena mundu guztian.

17 ¿Oraindican guelldituric daucac nere erria: eta ez dioc utzi nai joaten?

18 Ona non nic bigar ordu onetan bertan eguingo dicat arri chit ugari bat, nolacoa izan ez dan Egipton, eguiña izan zan egunetic, gaurco eguneraño.

19 Bidaldu itzac bada oraindandic, eta bildu ire zamariac, eta campoan dauzcacan gauza guztiac: ceren guizonac, eta abereac, eta campoan arquitzen diran gauza guztiac, eta campotic bilduac izan ez diranac, eta ceñen gañera erortzen dan arriac, illco dituc.

20 Faraonen ſerbitzarietatican Jaunaren itzaren beldur izandu zanac, bilduetaci cituen bere mirabeac, eta zamariac echeetara:

21 Baña mezpreciatu zuenac Jaunaren itza, utzi cituen bere mirabeac, eta zamariac campoetan.

22 Eta eſan cion Jaunac Moiſeſi: Luzatu ezazu zure eſcua cerurontz erori dedin arria Egiptoco lur guztian, guizonen, zamarien, eta campoco belar guztiaren gañera Egiptoco lurrean.

23 Eta luzatu zuen Moiſeſec cigorra cerurontz, eta Jaunac eguin cituen turmoyac, eta arria, eta lurraren gañean jirabiraco cebiltzen chimiſtac: eta eguin zuen Jaunac arria Egiptoco lurraren gañean.

24 Eta arria eta ſua erortzen ciran naſiac beren artean: eta ain andia izan zan, non etzan leen iñoiz alacoric icuſi Egiptoco lur guztian jende ura eguiña izan zanetic.

25 Eta arriac zauritu cituen Egiptoco lur guztian campoetan ceuden guztiac, guizona gandic zamariraño: eta campoco belar guztia zatitu zuen arriac, eta alderrico zuaitz guztia autſi zuen.

26 Bacarric Geſcngo lurrean, non ceuden Iſraelco ſemeac, etzan erori arrirican.

27 Eta bidaldu zuen Faraonec, eta deitu cien Moiſes eta Aaroni, eſaten ciela: Pecatu eguin det orain ere: Jauna zucna da: ni eta nere erria, gaiztoac.

28 Erregutu zayozute Jaunari guelditu ditecela Jaungoicoaren turmoyac, eta arria: joaten utzi dizazutedan, eta iñolaere gueyago etzaitezten guelditu emen.

29 Eſan zuen Moiſeſec: Erritic ateratzen naicenean, luzatuco ditut nere eſcuac Jauna gana, eta guelldituco dira turmoyac, eta ez da izango arriric; jaquin dezazun Jaunarena dala lurra:

30 Baña icuſten det ez zuc, eta ez zure ſerbitzariac ez dezutela Jaun Jaungoicoaren beldurric.

31 Liñoac bada, eta garagarrac izan cituzten calteac, garagarra berdetzen, eta liñoa aletzen ceudelaco:

32 Baña garian eta galchurian etzuen calteric eguin, berancorrac ciradelaco.

33 Eta erritic ateraric Faraon utzita, Moiſeſec luzatu cituen eſcuac Jauna ganontz: eta guelditu ciran turmoyac eta arria, eta etzan berriz erori eurlaren tantoric lurraren gañean.

34 Eta icuſiric Faraonec guelditu cirala euria, eta arria, eta turmoyac, gueitu zuen bere pecatua:

35 Eta aſtundu zan bere biotza, eta bere ſerbitzariena, eta chit gogortu zan: eta etzien utzi joaten Iſraelco ſemeai, Jaunac aguindu zuen becela Moiſeſen eſcuz.

X. Cap.

ETA eſan cion Jaunac Moiſeſi: Sartu zaite Faraon gana: ceren nic gogortu det bere biotza, eta bere ſerbitzariena: eguin ditzadan nere mirari oyec beragan,

2 Eta contatu diezazun zure ſemeai, eta zure illobai, cembat aldiz ceatu nituen egiptoarrac, eta eguin nituen nere mirariac beracgan: eta jaquin dezazuten ni naizala Jauna.

* *peſteaz.*

3 Sartu ciran bada Moiſes eta Aaron Faraon gana, eta eſan cioten: Oyec eſaten ditu hebreotarren Jaun Jaungoicoac: ¿Noiz arteraño nai dezu egon nere mendean jarri gabe? Utzi zayozu joaten nere erriari eguin dizadan eſqueintzaria.

4 Baña baldin oraindican gogor eguiten badezu, eta ez badiozu utzi nai joaten: ona non nic ſartuco ditudan biar larrapoteac * zure alderrietan.

5 Ceñac eſtalico duen lurraren gaña beraren piſcaric aguertu ez dedin, baicic izan dedin jana arriac utzi duen guztia. Ceren ortzicatuco ditu campoetan moteatzen diraden zuaitz guztiac.

6 Eta beteco dituzte zure echeac, eta zure ſerbitzarienac, eta Egiptoco guztienac: aimbeſte, non icuſi ez duten zure aitac, eta aitonac, lurraren gañean jayo ciradenetic, gaurco eguneraño. Eta alde eguin zuen, eta atera zan Faraon gandic.

7 Eſan cioten bada Faraoni bere ſerbitzariac: ¿Noiz arteraño ſufrituco degu galtzepen au? Utzi zayezu joaten guizon oyei eguitera eſqueintzaria beren Jaun Jaungoicoari. ¿Ez al dezu icuſten galdu dala Egipto?

8 Eta berriz ots eguin cien Moiſeſi eta Aaroni Faraon gana: ceñac eſan cien: Zoazte, eguin zayozute eſqueintzaria zuen Jaun Jaungoicoari: ¿ceñ dira joango diranac?

9 Eſan zuen Moiſeſec: Joango guera gure aur, eta zar, ſeme eta alabaquin, ardi eta abereaquin; ceren gure Jaun Jaungoicoaren jaya da.

10 Eta erantzun zuen Faraonec: Ala izan bedi Jauna zuequin, nola utzico dizutedan joaten zuei, eta zuen aurrai. ¿Norc duda dezaque chit gaizqui penſatzen dezutela?

11 Ez da ala izango baicic zoazte guizonac bacarric, eta eguin zayozute esqueintzaria Jaunari: ceren au da zuec ceroc eſcatu cendutena ere. Eta bereala izan ciraden botatuac Faraonen aurretic.

12 Eta eſan cion Jaunac Moiſeſi: Luzatu ezazu zure eſcua Egiptoco lurraren gañera larrapoteetara * igo ditecen bere gañera, eta iretſi dezaten arriac utzi duen belar guztia.

13 Eta luzatu zuen Moiſeſec cigorra Egiptoco lurraren gañera: eta Jaunac bidaldu zuen aice erretzalle bat egun guzti artan, eta gauean: eta etorriric goiza, aice erretzalleac jaſo cituen larrapoteac,*

14 Ceñac igo ciran Egiptoco lur guztiaren gañera: eta jarri ciraden Egiptoco alderri guztietan ecincontatualac, nolacoac izan etziran dembora ura baño lenago, eta izango ere ez diran guero.

15 Eta eſtali zuten lurraren gañ guztia, ondatzen zutela guztia. Iretſia izan zan bada lurreco belarra, eta zuaitzetan zan, arriac utzitaco fruta guztia: eta gauza berderic ecerere etzan gueldítu zuaitzetan, eta lurreco belarretan, Egipto guztian.

16 Argatic Faraonec chit agudo ots eguin cien Moiſes eta Aaroni, eta eſan cien: Pecatu eguin det zuen Jaun Jaungoicoaren, eta zuen contra.

17 Baña orain barca zadazute pecatua aldi onetan ere, eta erregutu zayozute zuen Jaun Jaungoicoari quendu dezala ni gandican eriotza au.

18 Eta ateraric Faraonen aurretic, Moiſeſec erregutu cion Jaunari.

19 Ceñec atera zuen aice chit aundi bat ſartaldetic, eta arruric larrapoteac * bota citen iſaſo Gorrira: etzan gueldítu bat bacarra ere Egiptoco alderri guztietan.

20 Eta gogortu zuen Jaunac Faraonen biotza, eta etzien utzi joaten Iſraelco ſemeai.

21 Eta eſan cion Jaunac Moiſeſi: Luzatu ezazu zure eſcua cerurontz: eta egon bitez illuntaſun ain trincoac Egiptoco lurraren gañean, non uquituac izán ditezquen.

22 Eta luzatu zuen Moiſeſec eſcua cerurontz: eta eguiñac izan ciraden illuntaſun izugarriac Egiptoco lur guztian iru egunean.

23 Etzuen icuſten batac beſtea, etzan ere iñor muguitu cegoen toquitic: baña Iſraelco ſemeac ceuden edoceñ lecutan, argui cegoen.

24 Eta ots eguin cien Faraonec Moiſes eta Aaroni, eta eſan cien: Zoazte, eguin zayozute eſqueintzaria Jaunari: bacarric gueldítu bitez zuen ardiac, eta abereac: zuen aurrac bijoaz zuequin.

25 Eſan zuen Moiſeſec: Oſtiac eta olocauſtoac ere emango dizquiguzu es-

* *Iangoſtac.*

queñi dizazquiogun gure Jaun Jaungoicoari.

26 Abere guztiac joango dirade gurequin: ez da guelldituco beretatic azcazalic ere: ceñac premiazcoac dirade gure Jaun Jaungoicoaren adoracioraco: batezere ez daquigun ezquero cer izan bear duen eſqueñia, toqui bertara allegatu gaitecen bitartean.

27 Gogortu zuen bada Jaunac Faraonen biotza, eta etzien utzi nai joaten.

28 Eta eſan cion Faraonec Moiſeſi: Alde ezac ni gandican, eta gorde adi icuſi ez dezacan berriz nere arpeguia: nere aurrean jartzen aizan edocen egunean, illco aiz.

29 Erantzun zuen Moiſeſec: Ala izango da itz eguin dezun becela, ez det icuſico berriz zure arpeguia.

XI. Cap.

ETA eſan cion Jaunac Moiſeſi: Oraindican zaurituco ditut Faraon eta Egipto gaitz batequin, eta oyen ondoren bidalduco zaituzte, eta eſtutuco zaituzte ateratzeco.

2 Eſango diozu bada erri guztiari escatu dizazquiola guizaſeme bacoitzac bere adiſquideari, eta emacume bacoitzac auzoco emacumeari, cillarrezco, eta urrezco gauzac.

3 Eta Jaunac emango dio gracia bere erriari egiptoarren aurrean. Eta Moiſes izan zan guizon chit andia Egiptoco lurrean, Faraonen ſerbitzarien, eta erri guztiaren aurrean.

4 Eta eſan zuen: Oyec eſaten ditu Jaunac: Gauerdian ateraco naiz Egiptotican ibiltzera:

5 Eta illco da lembiciſortu guztia Egiptoco lurrean, Faraonen lembiciſortu bere tronuan eſerita dagoanetic, errotarria darabillen neſcamearen lembiciſorturaño, eta zamarien lembiciſortu guztiac.

6 Eta izango da Egiptoco lur guztian deadar andia, nolacoa izan ez dan leen, eta guero ere izango ez dan.

7 Iſraelco ſeme guztien artean berriz guizona gandic abereac gana ez du zangatuco zacur batec bederic: jaquin dezazuten nolaco mirariaz berecitzen dituen Jaunac Egipto eta Iſrael.

8 Eta zure ſerbitzari guzti oyec etorrico dira ni gana, eta belaunico erregutuco didate, diotela: Atera zaitezte zu, eta zure mendean dari erri guztia: oyen ondoren ateraco guera.

9 Eta atera zan Faraon gandic chit aſerratua. Eta eſan cion Jaunac Moiſeſi: Etzaituzte adituco Faraonec eguin ditecen mirari aſco Egiptoco lurrean.

10 Eta Moiſeſec eta Aaronec eguin cituzten Faraonen aurrean eſcribituac guelditzen diraden mirari guztiac. Eta gogortu zuen Jaunac Faraonen biotza, eta etzien utzi joaten Iſraelco ſemeai bere lurretican.

XII. Cap.

ESAN ere cien Jaunac Moiſes eta Aaroni Egiptoco lurrean:

2 Ill au, zuentzat illen aſiera: izango da lendabicicoa urtearen illetan.

3 Itz eguin zayozute Iſraelco ſemeen batzarre guztiari, eta eſan zayezute: Ill onen amargarren egunean artu beza bacoitzac arcume bat familia, eta eche bacoitzarentzat.

4 Baldin echeren bateco lagunac ez balirade arcume bat jateco aimbeſte, artuco du bere echearen alderengo dagoen auzotic arcumea jateco bear dan aña lagun.

5 Eta arcumea izango da mancha gabe, arra, ta urtebarrucoa: ceremonia onen araura artuco dezute anchumea ere.

6 Eta gordeco dezute ill onen amalaugarren eguneraño: eta illic eſqueñico du Iſraelco ſemeen talde guztiac arratſaldetic.

7 Eta artuco dute bere odoletican, eta jarrico dute abe bien gañean, eta jango duten echeen ateburuetan.

8 Eta arrats artan jango dituzte aragui ſuan erreac, eta oguiac legami gabe baſalechugaquin.

9 Ez dezute bertatic jango gauza gordiñic, ez urean egoſiric, baicican ſuan errea bacarric: jango dezute burua bere oñaquin eta eſteaquin.

10 Ez da guelldituco bertatican ecer biaramoneraco: ecer guelditzen bada, ſutan erreco dezute.

11 Eta onela jango dezute: Lotuco dituzute zuen guerriac, eta iduquico dituzute zapatac oñetan, eta maquillac escuetan, eta laſter jango dezute: dalaco pazcoa (au da Jaunaren iragoera).

12 Eta igaroco naiz Egiptoco lurretic gau artan, eta eriotzaz zaurituco det

lembiciſortu guiztia guzona gandic abereetaraño: eta caſtigatuco ditut Egiptoco jainco guciac, nic Jaunac.

13 Eta odola izango da zuentzat ſeñalea zaudeten echeetan: eta icuſico det odola, eta iragoco zaituztet: eta ez da izango zuecgan gaitz ondatzalleric zauritzen dedanean Egiptoco lurra.

14 Eta iduquico dezute egun au gogoangarritzat: eta celebratuco diozute Jaunari beti betico beguirunez jai andia becela zuen guizaldietan.

15 Zazpi egunean jango dezute legamigabeco oguia: lenengo egunetic ez da izango zuen echeetan legamiric: legamidun oguia jaten duen guztia, lenengo egunetic zazpigarrenerano, anima ura izango da ebaquia Iſraeltic.

16 Lenengo eguna izango da ſantua eta jaya, eta zazpigarrena jai andi becelacoz beneratua: ez dezute eguingo beretan lanic batere, janariari dagoquienac baicic.

17 Eta gordeco dezute legamigabeen jaya: ceren egun artan bertan ateraco det zuen erria Egiptoco lurretic, eta gordeco dezute egun au zuen guizaldietan beti betico ceremoniaz.

18 Lembicico illean, illaren amalaugarren egunean, arratſaldetic jango dituzute legamigabeac, ill aren beraren oguei ta batgarren eguneraño arratſaldetic.

19 Zazpi egunean ez da arquituco zuen echeetan legamiric: jaten duena legamitua, galdua izango da bere anima Iſraelco batzarretic, naiz izan arrotza, naiz berez erricoa.

20 Ez dezute jango gauza legamituric: zuen bicileeu guztietan jango dituzute legamigabeac.

21 Eta ots eguin cien Moiſeſec Iſraelco ſemeen zar guztiai, eta eſan cien: Zoazte, artzen dezutela aberea zuen familia bacoitzarentzat, eta eguin ezazute pazcoa.

22 Eta iſopo chortacho bat buſti ezazute atepean dagoen odolean, eta berarequin odolez chipriztatu itzatzute ateburua, eta abe biac: ez bedi atera zuetatic iñor bere echeco atetic goiceraño.

23 Ceren iragoco da Jauna egiptoarrac zaurituaz: eta icuſten duenean odola ateburuan, eta abe bietan, iragoco da echearen atetic, eta ez dio utzico zauritzalleari zuen echeetan ſartzen eta calte eguiten.

24 Gorde ezazu aguinte au izango dana legue bat becela zuretzat eta zure ſemeentzat beti betico.

25 Eta ſartzen ceratenean Jaunac emango dizuten lurrean eſqueñi zuen becela, gordeco dituzute ceremonia oyec.

26 Eta galdetzen dizutenean zuen ſemeac: ¿Cer eſan nai du beguirune mota onec?

27 Erantzungo diezute: Jaunaren itagoeraco eſqueintzaria da, irago zanean Iſraelco ſemeen echeetatic Egipton, zaurituaz egiptotarrac, gure echeai calteric eguin gabe. Eta macurturic erria, adoratu zuen.

28 Eta ateraric Iſraelco ſemeac eguin zuten Jaunac Moiſes eta Aaroni aguindu cien becela.

29 Eta guertatu zan gauaren erdian, zauritu cituen Jaunac lembiciſortu guztiac Egiptoco lurrean, Faraonen lembiciſortu beraren tronuan eſerita cegoena gandic, preſondeguian cegoen andre mendecoaren lembiciſorturaño, eta zamarien lembiciſortu guztiac.

30 Eta jaiqui ciran gauaz Faraon eta bere ſerbitzari guztiac, eta Egipto guztia: eta atera zan garraſi andi bat Egipton: ceren etzan echeric, ceñean etzegoan illen bat etzanic.

31 Eta ots eguiñic gauaz Faraonec Moiſes eta Aaroni, eſan cien: Jaiqui eta atera zaitezte nere erritic, zuec eta Iſraelco ſemeac: zoazte, eguin zayozute eſqueintzaria Jaunari eſaten dezuten becela.

32 Artu itzatzute zuen ardiac eta abereac eſcatu dezuten becela, eta zoaztenean bedeincatu nazazute.

33 Eta egiptotarrac eſtutzen zuten erria laſter ateratzeco beren lurretic, ciotela: Guztioc ill bear degu.

34 Erriac bada artu zuen iriñ orratua legamia jarri citzayon baño lenago: eta loturic mantuetan ipiñi zuen bere ſorbalden gañean.

35 Eta eguin zuten Iſraelco ſemeac Moiſeſec aguindu cien becela: eta eſcatu ciezten egiptotarrai cillarrezco eta urrezco ontziac, eta ſoñeco chit aſco.

36 Eta Jaunac eman cion gracia erriari egiptotarren aurrean, preſtatu ciezten: eta ecer gabe guelditu ciran egiptoarrac.

37 Eta joan ciraden Iſraelco ſemeac

Rameſeſtic Socoterontz, ſeireun milla guizon oñezco guertu, aurrac contatu gabe.

38 Baitaere atera zan beraquin naſiric errico jende talde neurri gabe bat, ardiac eta abereac eta chit ugariz aſco motaco animaliac.

39 Eta egoſi zuten lencheago Egiptotic atera zuten iriñ orratua: eta eguin cituzten auſpeco ogui legamigabeac: ceren bota ecin izan cioten legamiric, egiptotarrac obligatzen cituztelaco ateratzera, eta guelditucho bat ere eguin gabe ibiltzera: etzitzayoten ere gogoratu janariaren piſca bat preſtatzea.

40 Eta Iſraelco ſemeac Egipton bici izan ciran dembora, zan lareun era oguei ta amar urtecoa.

41 Ceñac beteric, egun bat batean atera zan Egiptoco lurretic Jaunaren ejercitu guztia.

42 Gau au diña da iragotzeco Jaunaren icenean, ceñean atera cituen Egiptoco lurretic Iſraelco ſemeac: celebratu bear dute emendican aurrera beti Iſraelco ſeme guztiac.

43 Eta eſan cien Jaunac Moiſes, eta Aaroni: Au da pazcoa celebratzeco modua: Arrotzec ez du jango bertatican.

44 Eta mendeco eroſi guztia izango da inguruan ebaquia, eta orduan jango du.

45 Arrotzac eta aloguerecoac * ez dute jango bertatican.

46 Eche batean jango da, eta ez dituzute eramango campora bere araguiac, ez dezute ere autſico bere ezurric.

47 Iſraelco ſemeen batzarre guztiac celebratuco du pazcoa.

48 Eta baldin arrotzen batec nai balu biurtu zuec gana, eta celebratu Jaunaren pazcoa, lendican izango dirade inguruan ebaquiac guizaſeme guztiac, eta orduan celebratuco du leguearen araura: eta izango da errian jayoa balitz becela: baña inguruan ebaquia ez danac, ez du pazcoa jango.

49 Legue bat gordeco dute zuen artean bici diran erritarrac eta arrotzac.

50 Eta eguin zuten Iſraelco ſeme guztiac Jaunac Moiſes eta Aaroni aguindu cien becela.

51 Eta egun artan bertan atera cituen Jaunac Egiptoco lurretic Iſraelco ſemeac beren taldeetan.

* *jornalerоac.*

XIII. Cap.

ETA itz eguin cion Jaunac Moiſeſi, ciola:

2 Eſqueñi zadazu bere amaren ſabela idiquitzen duen lembiciſortu guztia Iſraelco ſemeen artean, bai guizonetatic eta bai abereetatic: ceren guztiac dirade nereac.

3 Eta Moiſeſec eſan cion erriari: Oroitu zaitezte egun onezaz, ceñean atera ciñaten Egiptotic eta catiberico echetic, ceren eſcu ſendoz atera cinduzten Jaunac toqui onetatic: ez dezazuten jan legamidun oguia.

4 Gaur ateratzen cerate uzta berrien illean.

5 Eta ſartzen zaituenean Jaunac canaantarraren, eta hettarraren eta amorreotarraren, eta heveotarraren, eta jebuſtarraren zure guraſoai juramentuz eſqueñi cien emango cizula eſnea eta eztia darion lurrean, celebratuco dezu ceremonia ſantu au ill onetan.

6 Zazpi egunean jango dituzu legamigabeac: eta zazpigarren egunean izango da Jaunaren jai andia.

7 Jango dituzute legamigabeac zazpi egunean: ez da aguertuco zugan legamidun gauzaric; ez eta zure alderri guztietan.

8 Eta contatuco diozu zure ſemeari egun artan, eta eſango diozu: Au da Jaunac eguin cidana Egiptotic atera nintzanean.

9 Eta izango da ſeñalea becela zure eſcuan, eta oroipena becela zure beguien aurrean: eta Jaunaren leguea beti izan dedin zure aoan, ceren eſcu ſendoz atera cinducen Jaunac Egiptotic.

10 Gordeco dezu alaco ceremonia dembora icentatuan egunetatic egunetara.

11 Eta ſartzen zaituenean Jaunac canaantarraren lurrean, juramentu eguin cizuten becela zuri, eta zure guraſoai, eta ematen dizunean:

12 Berecituco dizquiozu Jaunari lēmbiciſortu guztia, eta zure abereetan lenen jayoa: dituzun ar guztiac, eſqueñico dizquiozu Jaunari.

13 Aſtoaren lembiciſortua gambiatuco dezu ardi batequin: erreſcatatzen ez baldin badezu, illco dezu. Baña zure ſeme

lembiciſortu guztiac, diruz erreſcatatuco dituzu.

14 Eta galdetzen dizunean zure ſemeac biar, diola: ¿Cer da au? Erantzungo diozu: Eſcu ſendoz atera guinduen Jaunac Egiptoco lurretic, catiberico echetic.

15 Ceren nola gogortu zan Faraon, eta ez utzi nairic guri joaten, ill zuen Jaunac lembiciſortu guztia Egiptoco lurrean, guizonaren lembiciſortua gandic zamarien lembiciſorturaño: argatic esqueintzen dizquiot Jaunari emaſabela idiquitzen duten ar guztiac, eta nere ſemeen lembiciſortuac erreſcatatzen ditut.

16 Izango da bada ſeñale bat becela zure eſcuan, eta cintzillica dagoen gauza bat becela zure beguien aurrean oroipengarritzat: eſcu ſendoz atera guinduelaco Jaunac Egiptotic.

17 Utziric bada irtetzen Faraonec erriari, etzituen eraman Jaungoicoac filiſteotarren lur aldean dagoanetic: damutu etzequion beldurrez, baldin icuſten bazuen guerrac jaiquitzen ciradela bere contra, eta itzuli etzedin Egiptora.

18 Baicican eraman zuen ingurutuaz itſaſo Gorriaren aldean dagoen eremuco bidetic: eta Iſraelco ſemeac armaturic igo ciran Egiptoco lurretic.

19 Eraman ere cituen Moiſeſec berequin Joſeren ezurrac: ceñac juramentuz eſqueñieraci cien Iſraelco ſemeai, ciola: Jaungoicoac biſitatuco zaituzte, eraman itzatzute emendican nere ezurrac zuequin.

20 Eta berac joanic Socotican jarri cituzten etzauntzac Etamen bacardadearen azquenengo muguetan.

21 Eta Jauna cijoan beren aurretican eracuſteco bidea egunaz odeizco abe batean, eta gauaz ſuzco abe batean: izateco bideco zucentzallea dembora bietan.

22 Etzan iñoiz faltatu odeizco abea egunaz, ez eta ſuzco abea gauaz, erriaren aurrean.

XIV. Cap.

ETA itz eguin cion Jaunac Moiſeſi, ciola:

2 Eſan zayezu Iſraelco ſemeai: Itzuli ditecela, eta jarri ditzatela dendac Fihahiroten aurrean, ceñ dagoan Magdaloren eta itſaſoaren bitartean Beelſefonen aurrean: bere aurrean jarrico dituzute dendac itſaſoaren aldean.

3 Eta eſango du Faraonec Iſraelco ſemeac gatic: Eſtutuac daude lurtartean, eta eremuac ingurutu ditu.

4 Eta gogortuco det bere biotza, eta perſeguituco zaituzte: eta izango naiz gloriaz betea Faraongan, eta bere ejercitu guztiagan, eta jaquingo dute egiptoarrac ni naizala Jauna. Eta ala eguin zuten.

5 Eta adiraci cioten egiptoarren erregueri igues eguin zuela erriac: eta aldatu zan Faraonen eta bere ſerbitzarien biotza erria gatic, eta eſan zuten: ¿Cer eguin nai izan degu Iſraeli joaten utzitzeaz ſerbitu ez guintzan?

6 Preſtatueraci zuen bada gurdia, eta artu zuen berequin bere erri guztia.

7 Eta eraman cituen ſeireun gurdi autatu, eta Egipton arquitu ciraden guciac: eta ejercitu guztico aguintariac.

8 Eta gogortu zuen Jaunac Faraon Egiptoco erreguearen biotza, eta perſeguitu cituen Iſraelco ſemeac: baña berac atera ciran eſcu indartſu baten laguntaſunez.

9 Eta jarraituric egiptoarrac aurretic cijoacenen aztarnac, arquitu cituzten dendetan itſaſoaren aldean: Faraonen zaldizco guztiac eta gurdiac, eta ejercitu guztia, ceuden Fihahiroten Beelſefonen aurrean.

10 Eta alderatu zanean Faraon, Israelco ſemeac alchaturic beguiac, icuſi cituzten egiptoarrac beren ondoren: eta chit bildurtu ciraden: eta deadarrez aſi ciran Jaunari erregutzen,

11 Eta eſan cioten Moiſeſi: Noſqui etzan Egipton obiric, argatic ecarri gaituzu ill guindecen bacardadean: ¿cer eguin nai cenduen Egiptotic gu ateratzeaz?

12 ¿Ez al guiñizun eſaten oraindican Egipton gueundela: Alde ezazu gu gandic ſerbitu ditzagun egiptoarrac? Ceren aſcoz obeago zan berac ſerbitzea, bacardadean illtzea baño.

13 Eta eſan cion Moiſeſec erriari: Etzaitezte bildur izan: zaudete ſendo, eta icuſico dituzute Jaunac gaur eguingo dituen miriariac: ceren icuſten dituzuten egiptoarrac, iñolaere berriz ez dituzute icuſico ſecula gueyago.

14 Jaunac gudatuco du zuec gatic, eta zuec ixillic egongo cerate.

15 Eta eſan cion Jaunac Moiſeſi: ¿Cergatic deadar eguiten didazu? Eſan zayezu Iſraelco ſemeai dijoacela.

16 Eta zuc alchatu ezazu zure cigorra, eta luzatu ezazu zure eſcua itſaſoaren gañera, eta berecitu ezazu: joan ditecen Iſraelco ſemeac itſaſoaren erditic leorrean.

17 Eta nic gogortuco det egiptoarren biotza, perſeguitu zaitzaten: eta izango naiz gloriaz betea Faraongan, eta bere ejercitu guztiagan, eta beraren gurdi ta zaldietan.

18 Eta jaquingo dute egiptoarrac ni naizala Jauna, gloriaz betea naizanean Faraongan, eta bere gurdi ta zaldietan.

19 Eta jaiquiric Iſraelco ejercituaren aurretic cijoan Jaungoicoaren ainguerua, jarri zan beren atzean: eta orobat berarequin odeizco abea, utziric aurrea

20 Jarri zan egiptoarren atzealdetic; eta Iſraelco ejercituen bitartean: eta odeya zan illuna alde batetic, eta beſtetic arguitzen zuen gaua alaco moduan, non ecin citezquean elcar gana alderatu.

21 Eta luzaturic Moiſeſec eſcua itſaſoaren gañera, idiqui zuen Jaunac erditican, eta nola cerabillen gau guztian aice ſendo eta erretzalle bat, leortu zuen: eta urac guelditu ciran berecituac.

22 Eta ſartu ciraden Iſraelco ſemeac itſaſo leorraren erditican: ceren ura cegoen murrua becela beren eſcuitic eta ezquerretic.

23 Eta perſeguitzen cietela egiptoarrac ſartu ciraden beren ondoren, eta Faraonen zaldizco guztiac, bere gurdiac eta zaldiac itſaſoaren erditic.

24 Eta egunſentia allegatu zan bezain laſter, ona non beguiraturic Jaunac egiptoarren ejercituaren gañera ſuzco eta odeizco abetican, ill zuen beren ejercitua:

25 Eta autſi cituen gurdien curpillac, eta eramanac ciraden itſaſoaren ondora. Eſan zuten bada egiptoarrac: Igues eguin dezagun Iſrael gandic: ceren Jauna ari da gudan beren alde eta gure contra.

26 Eta eſan cion Jaunac Moiſeſi: Luzatu ezazu zure eſcua itſaſoaren gañera, itzuli ditecen urac egiptoarrac gana beren gurdien eta zaldien gañera.

27 Eta luzaturic Moiſeſec eſcua itſaſorontz, itzuli zan egunſentian lengo toquira: eta urac bidera atera citzayezten igueſi cijoacen egiptoarrai, eta Jaunac ondatu cituen baguen erdian.

28 Eta itzuli ciraden urac, eta eſtali cituzten Iſraeltarren ondoren itſaſora ſartu ciran Faraonen ejercituco gurdi eta zaldi guztiac: eta beretatic bat bacarra ere etzan guelditu.

29 Iſraelco ſemeac ordea irago ciraden itſaſo leorraren erditican, eta urac ciraden berentzat murrua becela eſcuitic, eta ezquerretic:

30 Eta Jaunac libratu zuen egun artan Iſrael egiptoarren eſcutican.

31 Eta icuſi cituzten egiptoarrac itſas bazterraren gañean, eta Jaunac beren contra alchatu zuen eſcu ſendoa: eta erria Jaunaren beldur izan zan, eta finiſtu cien Jaunari, eta bere ſerbitzari Moiſeſi.

XV. Cap.

ORDUAN Moiſeſec eta Iſraelco ſemeac cantatu cioten canta au Jaunari, eta eſan zuten: Cantatu ditzayogun Jaunari: ceren arguitueraci ditu bere gloria eta anditaſuna, eta bota ditu itſaſora zaldia eta zalduna.

2 Jauna da nere ſendotaſuna, eta nere alabantzen gaya, ceren bera izan da nere ſalbaguillea: au da nere Jaungoicoa, eta nic zabalduco det bere gloria: nere guraſoen Jaungoicoa, eta goratuco det.

3 Jauna da guizon gudari errutſu bat becelacoa, bere icena Gucialduna.

4 Bota cituen itſaſora Faraonen gurdiac eta bere ejercitua: bere aguintari autatuac izan ciraden ondatuac itſaſo Gorrian.

5 Leiceac obiratu cituzten, jachi ciran ondora arria becela.

6 Zure eſcuyac, o Jauna, eracutſi du bere ſendotaſun andia: zure eſcuyac, o Jauna, zauritu zuen etſaya.

7 Eta zure gloriaren ugaritaſunaz bota dituzu zure etſayac: bidaldu cenduen zure aſerrea, ceñac iretſi cituen laſtoa becela.

8 Eta zure aſerreco aiceaz montoitu ciraden urac: guelditu zan bacijoan baga, montoitu ciraden leiceetaco urac itſaſoaren erdian.

9 Eſan zuen etſayac: Jarraituco diet eta arrapatuco ditut, emango dieztet gauza arrapatuac, aſeco da nere anima: aguertuco det nere ezpata, illco ditu nere eſcuac.

10 Atera zuen zure aicea, eta eſtali cituen itſaſoac: ondatu ciran beruna becela ur chit andietan.

11 ¿Ceñ zure antzecoa ſendoen artean, Jauna? ¿ceñ zure antzecoa, ain andia ſantutaſunean, icaragarria eta alabagarria, eta mirarien eguillea?

12 Luzatu cenduen zure eſcua, eta iretſi cituen lurrac.

13 Zure erruquitaſunean izan ciñan eroſi cenduen erriaren zucentzallea: eta eraman cenduen zure ſendotaſunaz, bere bicilecu ſantura.

14 Jaiqui ciran erriac, eta aſerratu ciran: guelditu ciran miñ andiaquin Paleſtinan bici ciranac.

15 Orduan izutu ciran Edomgo principeac, eta icara jabetu zan Moabco errutſuaquin: ill otzic guelditu ciran Canaanen bici ciran guciac.

16 Erori bedi beren gañera beldurra eta izua, zure beſoaren anditaſuna gatic: guelditu bitez muguitu eciñac arri bat becela, iragotzen dan artean, o Jauna, zure erria, iragotzen dan artean, zuc irabaci dezun zure erri au.

17 Eramango dituzu barrena, eta jarrico dituzu zure bicilecu chit ſendo zuc eguin cenduen zure jabegaitaſuneco mendian, Jauna: zure eſcuac ſendotu zuten ſantu lecuan, Jauna.

18 Jaunac erreinatuco du beti eta gueyago.

19 Ceren Faraon ſartu zan zaldiz itſaſoan bere gurdiaquin eta zaldizcoaquin: eta Jaunac bota cituen beren gañera itſaſoco urac: Iſraelco ſemeac berriz ibilli ciraden leorretic beraren erdian.

20 Arru zuen bada Maria emacume profeta, Aaronen arrebac, damboliñ bat bere eſcuan: eta atera ciraden emacume guciac bere ondoren damboliñaquin eta dantzaquin,

21 Ceñai aſten citzayen cantatzen, ciola: Cantatu dizayogun Jaunari, ceren arguitueraci ditu bere gloria eta anditaſuna, eta bota ditu itſaſora zaldia eta zalduna.

22 Eta eraman zuen Moiſeſec Iſrael itſaſo Gorritic, eta atera ciraden Surco eremura: eta ibilli ciraden iru egunean bacardadean, eta etzuten arquitzen uric.

23 Eta etorri ciraden Marara, eta ecin edan cituzten Maraco urac ſamiñac ciradelaco: argatic jarri ere cion toquiari icen egoquia, deitzen ciola Mara, au da, ſamintaſuna.

24 Eta gaizqui eſaca ari zan erria Moiſeſen contra, ciola: ¿Cer edango degu?

25 Baña berac deadar eguin cion Jaunari, ceñac eracutſi cion zur bat: ceñ botaric uretara, gozotu ciran. An eman ciozcan Jaunac erriari aguinteac, eta legueac, eta an probatu zuen,

26 Ciola: Aditzen badezu zure Jaun Jaungoicoaren boza, eta eguiten badezu bere aurrean ona dana, eta obeditzen badiezu bere aguinteai, eta gordetzen badituzu bere aguinte guztiac, ez det botaco zure gañera Egiptoren gañera bota nituen gaitzic batere: ceren ni naiz zure ſendatzalle Jauna.

27 Eta etorri ciraden Elimera Iſraelco ſemeac, non ceuden amabi iturri urezco, eta iruroguei ta amar palma: eta jarri cituzten dendac uren aldean.

XVI. Cap.

ETA joan ciraden Elimdic, eta Iſraelco ſemeen talde guztia etorri zan Singo eremura, ceñ dagoan Elim eta Sinairen bitartean: bigarren illaren amabosgarren egunean, atera ciraden ezquero Egiptoco lurretic.

2 Eta gaizqui eſan zuen Iſraelco ſemeen batzarre guztiac Moiſes eta Aaron gatic bacardadean.

3 Eta eſan cien Iſraelco ſemeac: Arren bada ill izan baguiña Jaunaren eſcuz Egiptoco lurrean, eſertzen guiñanean araguien eltzeen ondoan, eta jaten guenduenean oguia aſe arteraño. ¿Cergatic atera guinduzuten eremu onetara, goſez ill cenezaten talde guztia?

4 Eta eſan cion Jaunac Moiſeſi: Ona non nic bidalduco dizquizutedan oguiac cerutic: atera bedi erria, eta bildu beza aſqui dana egun bacoitzeraco: probatu dezadan ote dabillen nere leguean, ala ez.

5 Baña ſeigarren egunean preſtatu bitzate gordeco dutena: eta izan bedi egunero bildu oi zutena baño birretan gueyago.

6 Eta eſan cieten Iſraelco ſeme guztiai Moiſeſec eta Aaronec: Gaurco arratſaldean jaquingo dezute Jaunac atera cinduztela Egiptoco lurretic:

7 Eta biar icuſico dezute Jaunaren anditaſuna, ceren aditu du bera gatic quejatzen ceratela: ¿gu berriz cer guera, gure contra erauſian aritzeco?

8 Eta eſan zuen Moiſeſec: Jaunac emango dizquizute arratſaldean araguiac jateco, eta goicean oguia aſe arteraño: aditu dituelaco zuen gaizqui eſateac, ceñaquin gaizqui eſan dezuten bere contra: ¿ceren cer guera gu? Ez da ere gure contra zuen gaizqui eſatea, baicic Jaunaren contra.

9 Eſan ere cion Moiſeſec Aaroni: Eſan zayozu Iſraelco ſemeen batzarre guztiari: Atozte Jaunaren aurrera: ceren aditu du zuen gaizqui eſatea.

10 Eta itz eguiten cionean Aaronec Iſraelco ſemeen batzarre guztiari, beguiratu zuten bacardadera: eta ona non Jaunaren anditaſuna aguertu zan odeyaren erdian.

11 Eta Jaunac itz eguin cion Moiſeſi, ciola:

12 Aditu ditut Iſraelco ſemeen gaizqui eſanac, eſan zayezu: Arratſaldean jango dituzute araguiac, eta goicean aſeco cerate oguiz: eta jaquingo dezute ni naizala zuen Jaun Jaungoicoa.

13 Allegatu zan bada arratſaldea, eta igoric galeperrac, eſtali zuten dendalecua: goicean ere cegoan zabalduric intz bat bere inguruan.

14 Eta eſtaliric lurraren gaña, aguertu zan bacardadean gauza chee bat, eta almericean machacatua becela, izotzaren irudian lurraren gañean.

15 Ceñ icuſi zutenean Iſraelco ſemeac, eſan cioten elcarri: ¿Manhu? Ceñac eſan nai duen: ¿Cer da au? Ceren etzequiten cer zan. Ceñai eſan cien Moiſeſec: Au da Jaunac eman dizuten oguia jateco.

16 Ona Jaunac berac aguindu duena: Bildu beza bacoitzac bertatic jateco aſqui dana: gomor bana, denda bacoitzean zuetatic bici diran aimbeſte, ala artuco dezute.

17 Eta ala eguin zuten Iſraelco ſemeac: eta bildu zuten, batac gueyago, beſteac guchiago.

18 Neurtu zuten guero gomorraz: gueyago bildu zuenac, etzuen argatic gueyago iduqui: eta guchiago preſtatu zuenac ere, etzuen arquitu guchiago: baicic bacoitzac bildu zuen jan al lezaquenaren araura.

19 Eta eſan cien Moiſeſec: Ez beza iñorc bertatic utzi biarco.

20 Ceñac etzuten aditu, baicican beretatic batzuec gorde zuten biaramoneraco, eta aſi zan arrez betetzen, eta uſteldu zan: eta aſerratu zan Moiſes beren contra.

21 Biltzen zuen bada bacoitzac goicean, jateco aſqui izan lezaquen aimbeſte: eta eguzquia berotzen aſten zanean, urtutzen zan.

22 Eta ſeigarren egunean bildu zuten birretan aimbat janari, au da, gomor biña: eta etorri ciraden errico buru guztiac, eta contatu cioten Moiſeſi.

23 Ceñac eſan cien: Au da Jaunac eſan duena: Biar da larumbateco atſedena Jaunari ſantutua: eguingo dan lan guztia, eguin ezazute: eta egoſico diraden gauza guztiac, egoſi itzatzute: eta gueldítzen dan guztia, gorde ezazute biar arte.

24 Eta eguin zuten Moiſeſec aguindu cien becela, eta etzan uſteldu, eta arric ere etzan bertan arquitu.

25 Eta eſan zuen Moiſeſec: Jan ezazute au gaur, ceren Jaunaren larumbata da: ez da arquituco gaur campoan.

26 Sei egunean bildu ezazute: zazpigarren egunean ordea Jaunaren larumbata da, argatic ez da arquituco.

27 Eta etorri zan zazpigarren eguna: eta ateraric errícoac biltzera, etzuten arquitu.

28 Eta eſan cion Jaunac Moiſeſi: ¿Noiz arteraño ez dituzute gorde nai nere aguinteac, eta nere leguea?

29 Beguira ezazute Jaunac eman cizutela larumbata, eta argatic ſeigarren egunean eman cizuten birretan aimbat janari: bego bacoitza bere dendan, ez bedi iñor atera bere toquitican zazpigarren egunean.

30 Eta aſeden zuen erriac zazpigarren egunean.

31 Eta Iſraelco echeac deitu cion janari oni Mana: ceñ zan zuria cilantroaren aciaren antzecoa, eta bere guſtua eztiarequin iriñ lorearena bezala.

32 Eta eſan zuen Moiſeſec: Au da Jaunac aguindu zuen itza: Bete ezazu beraz gomor bat, eta gorde beti guero izango diraden guizaldietaraco: jaquin dezaten cer ogui eman nizuten jaten bacardadean, ateratuac izan ciñatenean Egiptoco lurretican.

33 Eta eſan cion Moiſeſec Aaroni: Ar zazu ontzi bat, eta jarri ezazu an gomor batec cabitu al dezaquen mana: eta ipiñi ezazu Jaunaren aurrean gordetzeco zuen guizaldietaraco,

34 Jaunac aguindu cion becela Moiſeſi. Eta jarri zuen Aaronec tabernaculoan gordetzeco.

35 Eta Iſraelco ſemeac jan zuten mana berroguei urtetan, etorri ciraden artean lur bicigarrira: janari onequin aciac izan ciraden, uquitu cieten bitartean Canaango lurraren mugai.

36 Gomor bat berriz efi baten amargarren zatia da.

XVII. Cap.

JOANIC bada Iſraelco ſemeen talde guztia Singo eremutic beren egotaldiaquin, Jaunac eſan cien becela, jarri cituzten dendac Rafidimen, non etzuen erriac uric edateco.

2 Ceñec afiric deadarrez Moiſeſen contra, eſan zuen: Eman zaguzu ura edan dezagun. Ceñai erantzun cien Moiſeſec: ¿Cergatic gaizqui eſaten dezute nere contra? ¿cergatic tentatzen dezute Jauna?

3 Egarritu zan bada erria uraren urritaſuna gatic, eta gaizqui eſan zuen Moiſes gatic, ciola: ¿Cergatic ateraeraci diguzu Egiptotican gu, eta gure ſemeac, eta zamariac egarriaz illtzeco?

4 Eta deadarrez zucendu zan Moiſes Jauna gana, ciola: ¿Cer eguingo diot erri oni? Dembora guchi barru, arrica ere emango dit.

5 Eta Jaunac eſan cion Moiſeſi: Jarri zaite erriaren aurrean, eta artu itzatzu zurequin Iſraelco zarretatic batzuec: eta eraman ezazu zure eſcuan cigorra, ceñaz zatitu cenduen ibaya, eta zoaz.

6 Ona non ni egongo naicen an zure aurrean, Horebco aitzaren gañean: eta joco dezu, eta bertatican ateraco da ura edan dezan erriac. Ala eguin zuen Moiſeſec Iſraelco zarren aurrean:

7 Eta toqui ari deitu cion tentacioa, Iſraelco ſemeen eraufia gatic, eta Jauna tentatu zutelaco, ciotela: ¿Jauna gure artean dago, edo ez?

8 Eta etorri zan Amalec, eta gudatzen zuen Iſraelen contra Rafidimen.

9 Eta eſan cion Moiſeſec Joſueri: Autatu itzatzu guizonac: eta ateraric, gudatu zaite Amalequen contra: biar ni egongo naiz muñoaren tontorrean, nere eſcuan Jaungoicoaren cigorra dedala.

10 Eguin zuen Joſuec Moiſeſec eſan cion becela, eta gudatu zan Amalequen contra: eta Moiſes eta Aaron, eta Hur igo ciran muñoaren tontorrera.

11 Eta jaſotzen cituenean Moiſeſec eſcuac, garaitzen zuen Iſraelec: baña beeratzen cituenean piſca bat, garaitzen zuen Amalequec.

12 Eta Moiſeſec ceuzcan eſcuac necaturic: artzen zutela bada arri bat, jarri zuten bere azpian, eta bertan eſeri zan: eta Aaronec eta Hurrec ſoſtenitzen cituzten bere eſcuac aldamen bietatic. Eta guertatu zan bere eſcuac ez necatzea eguzquia ſartu artean.

13 Eta Joſuec igues eraguin cion Amalequi, eta bere erriari ezpataren puntaz.

14 Eta eſan cion Jaunac Moiſeſi: Escribatu ezazu au oroipengarritzat liburu batean, eta adierazo zayozu Joſueri: ceren arras quenduco det bere oroitza ceruaren azpitic.

15 Eta eguin zuen Moiſeſec aldare bat: eta deitu cion Jauna nere gloriemallea, ciola:

16 Ceren Jaunaren eſcua, eta Jaunaren guerra izango da Amalequen contra, guizalditic guizaldira.

XVIII. Cap.

ETA aditu cituenean Jetro, Madiango apaiz, Moiſeſen aitaguiarrebac Jaungoicoac Moiſeſi, eta Iſraelco bere erriari eguin ciozcan gauza guztiac, eta Jaunac ateraeraci ciola Iſraeli Egiptoricar:

2 Artu zuen Sefora Moiſeſen emaztea, ceñ bialdu cion:

3 Eta bere bi ſemeac, ceñetatican bati ceritzan Gerſam, ciola aitac: Arrotza izandu nintzan beſteren errian.

4 Beſteari berriz Eliecer: ceren, eſan zuen, nere aitaren Jaungoicoa izan zan nere laguntzallea, eta libratu ninduen Faraonen ezpatatic.

5 Etorri ciran bada Jetro Moiſeſen aitaguiarreba, eta bere ſemeac, eta bere emaztea, Moiſes gana eremura, non ceuden jarriric dendac Jaungoicoaren mendiaren aldean.

6 Eta bidaldu cion mandatua Moiſeſi, ciola: Ni Jetro zure aitaguiarreba banator zu gana, eta zure emaztea, eta zure bi ſemeac berarequin.

7 Ceñ ateraric bidera bere aitaguiarrebari, macurtu citzayon, eta muſu eman cion: eta agurrac eguin ciozcaten el-

carri itz paquetſuaquin. Eta ſarturic dendara,

8 Contatu ciozcan Moiſeſeç bere aitaguiarrebari Jaunac Faraoni, eta egiptoarrai eguin ciezten gauza guztiac Iſraelen amorioa gatic: eta bidean irago bear izan cituzten neque guztiac, eta Jaunac libratu cituela.

9 Eta poztu zan Jetro Jaunac Iſraeli eguin ciozcan meſede guztiac gatic, atera zuelaco egiptoarren eſcutican,

10 Eta eſan zuen: Bedeincatua izan dedilla egiptoarren eſcutic, eta Faraonen eſcutic libratu cinduzten Jauna, ceñac atera zuen Egiptoren eſcutic bere erria.

11 Orain ezagutzen det andia dala Jauna jaungoico guztien gañetic: arroqueriz jaiqui diradelaco beren contra.

12 Eſqueñi ciozcan bada Jetro Moiſeſen aitaguiarrebac Jaungoicoari olocauſto eta oſtiac: eta etorri ciraden Aaron eta Iſraelco zar guztiac oguia jatera berarequin Jaungoicoaren aurrean.

13 Eta beſte egunean eſeri zan Moiſes erria juzgatzeco, ceñ cegoan Moiſeſen inguruan goicetic arratſalderaño.

14 Aditu zuenean au bere aitaguiarrebac, au da, errian eguiten cituen gauza guztiac, eſan zuen: ¿Cer da errian eguiten dezuna? ¿certaraco zaude eſerita bacarric, eta erri guztia dago zai goicetic arratſalderaño?

15 Ceñi erantzun cion Moiſeſec: Erria ni gana dator Jaungoicoaren erabaquia billatzera.

16 Eta ezpaiten bat guertatzen zayenean, etortzen dira ni gana, juzgatu dezadan beren artean, eta eracutſi dizayeztedan Jaungoicoaren aguinteac, eta bere legueac.

17 Eta berac: Ez da ona, eſan zuen, eguiten dezun gauza:

18 Alperrezco lanez necatzen cerate bai zu, eta bai zurequin dagoan erria: zure indarren gañetico gauza da, bacarric ecin beteco dezu.

19 Baicic aditu itzatzu nere itzac eta eſan onac, eta Jaungoicoa zurequin izango da. Izan zaite zu erriaren bitartecoa Jaungoicoari dagozquion gaucetan, preſentatzen diozcazula eguiten zayozcan erreguac:

20 Eta eracutſi dizayozcazun erriari ceremoniac, eta beguirunen modua, ceñ bideri jarraitu bear dioten, eta cer dan eguin bear dutena.

21 Eta autatu itzatzu erri guztitic guizon ſendo, eta Jaungoicoaren bildurrecoac, eguia zaleac, cequentaſunaren gorrotocoac, eta beretatic jarri itzatzu milla, eta eun, eta berroguei ta amar, eta amar guizonen buruac,

22 Ceñac juzgatu dezaten erria dembora guztian: gauza andiagoa dan guztia berriz ecarri dezatela zu gana, eta berac juzgatu ditzatela bacarric balio guchico gauzac: eta eramangarriago izan dedin zuretzat, beſteen artean partituric carga.

23 Au eguiten baldin badezu beteco dezu Jaunaren aguindua, eta iduqui ditzaquezu beren indarrean bere aguinteac: eta erri guzti au itzulico da bere toquietara paquean.

24 Ceñac adituric, Moiſeſec eguin cituen are adiraci ciozcan gauza guztiac.

25 Eta autaturic guizon errutſuac Israel guztitic, jarri cituen erriaren aguintaritzat, milla, eta eun, eta berroguei ta amar, eta amar guizonen buruac.

26 Ceñac juzgatzen zuten erria dembora guztian: eta gauza andiagoa zan guztia, eramaten cioten Moiſeſi, juzgaturic berac gauza errazagoac bacarric.

27 Eta bidaldu zuen bere aitaguiarreba: ceñ ateraric joan zan bere errira.

XIX. Cap.

EGIPTOCO lurretican Iſraelen atera-eraren iugarren illean, egun onetan etorri ciraden Sinaico bacardadera.

2 Ceren joanic Rafidimdic, eta allegaturic Sinaico eremuraño, jarri cituzten dendac toqui bertan, eta Iſraelec ipiñi cituen mendiaren aurrean.

3 Eta Moiſes igo zan Jaungoicoa gana, eta Jaunac ots eguin cion menditican, eta eſan zuen: Oyec eſango diozcazu Jacoben echeari, eta adiracico diozcazu Iſraelco ſemeai:

4 Zuec ceroc icuſi cenduten cer eguin nien egiptoarrai, nola eraman cinduztedan arranoen guiſa egoen gañean, eta artu neretzat.

5 Baldin bada aditzen badezute nere boza, eta gordetzen badezute nere elcartaſuna, izango cerate neretzat erri guztien artean zati autatu bat: ceren nerea da lur guztia.

6 Eta zuec izango cerate neretzat erreinu bat apaizac conſagratua, eta jende ſantua. Oyec dirade Iſraelco ſemeai eſango dieztezun itzac.

7 Etorri zan Moiſes: eta bilduric errico zar guztiac, adiraci ciezten Jaunac aguindu ciozcan itz guztiac.

8 Eta erantzun zuen erri guztiac batean: Eguingo ditugu Jaunac eſan dituen gauza guztiac. Eta adiraciric Moiſeſec Jaunari erriaren itzac,

9 Eſan cion Jaunac: Orainche etorrico naiz zu gana odei illun batean, aditu nazan erriac zurequin izquetan ari naizala, eta ſiniſtu dezazula betico. Moiſeſec bada adiraci ciozcan Jaunari erriaren itzac.

10 Ceñac eſan cion: Zoaz erria gana, eta ſantutu itzatzu gaur, eta biar, eta garbitu bitzate beren ſoñecoac.

11 Eta beude preſtatuac irugarren eguneraco: ceren irugarren egunean jachico da Jauna erri guztiaren aurrean Sinaico mendiaren gañera.

12 Eta icentatuco diozcazu mugac erriari inguruan, eta eſango diezu: Beguira ezazute etzaiteztela igo mendira, eta ez dizayezutela uquitu beraren mugai: mendiari uquitzen dion guztia, eguiazqui illco da.

13 Eſcuac ez dio uquituco, baicican izango da arrica, edo ſaetaca illa: naiz dala zamaria, naiz guizona, ez da bicico. Aſten danean trompeta jotzen, orduan igo bitez mendira.

14 Jachi zan Moiſes menditican errira, eta ſantutu zuen erria. Eta garbitu cituztenean beren ſoñecoac,

15 Eſan cien: Zaudete preſtatuac irugarren eguneraco, eta etzaitezte allegatu zuen emazteac gana.

16 Eta allegatu izan zan irugarren eguna, eta goiza arguitua: eta ona non turmoyac aſi ciraden adituac izaten, chimiſtac arguitzen, eta odei chit trinco batec mendia eſtaltzen, eta trompetaren ſoñuac ots eguiten zuen gogortaſun andiagoaz: eta dendetan cegoan erria bildurtu zan.

17 Eta ateraric berac, Moiſeſec denden toquitic Jaungoicoari bidera irtetzeco, guelditu ciraden mendiaren ondoan.

18 Eta Sinaico mendi guztia quetan cegoan: Jauna jachi zalaco bere gañera futan, eta igotzen zalaco bertatic quea labe batetican becela: eta mendi guztia cegoan icaragarria.

19 Eta trompetaren otſa gueldica gueldica acitzen zan andiagora, eta urrutiagora zabaltzen zan: Moiſeſec itz eguiten zuen, eta Jaungoicoac erantzuten cion.

20 Eta jachi zan Jauna Sinaico mendiaren gañera mendiaren tontorrean bertan, eta ots eguin cion Moiſeſi bere toqui goyenera. Igoric ara,

21 Eſan cion: Jachi zaite, eta contuan ipiñi ezazu erria: ez ditzala irago mugac Jauna icuſteco, eta bertatic talde andiren bat galdu ez dedin.

22 Santutu bitez Jauna gana alderatzen diran apaizac ere, zauritu ez ditzan.

23 Eta eſan cion Moiſeſec Jaunari: Ecin igoco da erria Sinaico mendira: ceren zuc adiraci, ta aguindu dezu, eſaten dezula: Icentatu itzatzu mugac mendiaren inguruan, eta ſantutu ezazu.

24 Ceñi eſan cion Jaunac: Zoaz, jachi zaite: eta igoco cera zu, eta Aaron zurequin: baña apaizac eta erriac ez bitzate irago mugac, eztaere igo Jauna gana ill ez ditzan.

25 Eta jachi zan Moiſes erria gana, eta contatu cien guztia.

XX. Cap.

ETA eſan cituen Jaunac itz guzti oyec:

2 Ni naiz zure Jaun Jaungoico, atera cindudana Egiptoco lurretican, catiberico echetican.

3 Ez dituzu iduquico beſteren Jaungoicoac nere aurrean.

4 Ez dezu eguingo zuretzat eſculturazco obraric, ez goyan ceruan dagoanaren, ez bean lurrean dagoanaren, ez lurraren azpian uretan daudenen irudiric.

5 Ez dituzu adoratuco, ez beguiruneric emango diezu: ni naiz zure Jaun Jaungoico ſendoa, celotſua, caſtigatzen dedana guraſoen gaiztaqueria ſemeetan, gorroto didatenen irugarren eta laugarren guizaldian:

6 Eta eguiten dedana urricalmendua millatan mairatzen nautenaquin, eta nere aguinteac gordetzen dituztenaquin.

7 Ez dezu artuco alperrican zure Jaun Jaungoicoaren icena. Ceren ez du caſtigu gabe utzico Jaunac bere Jaun Jaungoicoaren icena alperrican artzen duena.

8 Oroitu zaite ſanturutzeaz larumbateco eguna.

9 Sei egunean arico cera lanean, eta eguingo dituzu zure bear guztiac.

10 Zazpigarren eguna ordea zure Jaun Jaungoicoaren larumbata da: ez

dezute eguingo lanic bertan, zuc, eta zure ſemeac eta zure alabac, zure morroyac eta zure neſcameac, zure zamariac, eta zure ateen barrenen dagoen arrotzac.

11 Ceren ſei egunean eguin cituen Jaunac cerua eta lurra, eta itſaſoa, eta beretan dauden gauza guztiac, eta atſeden zuen zazpigarren egunean; argatic bedeincatu zuen Jaunac larumbateco eguna, eta ſantutu zuen.

12 Ondratu itzatzu zure aita eta zure ama, urte aſcotan bici zaitecen zure Jaun Jaungoicoac emango dizun lurraren gañean.

13 Ez dezu illco.

14 Ez dezu araguizco pecaturic eguingo.

15 Ez dezu oſtuco.

16 Ez dezu eſango zure antzecoaren contra guezurrezco teſtimonioric.

17 Ez dezu guticiatuco zure antzecoaren echea, ez dituzu ere deſeatuco bere emaztea, ez morroya, ez neſcamea, ez idia, ez aſtoa, ez berea dan gauzaricen.

18 Eta erri guciac aditzen cituen bozac, eta trompetaren otſa, eta icuſten cituen arguiac, eta mendia quetan: eta bildurturic eta icaraturic, egon ciraden urrutian,

19 Ciotela Moiſeſi: Itz eguin zaguzu zuc, eta adituco dizugu: ez dizagula itz eguin Jaunac ill ez gaitecen.

20 Eta eſan cion Moiſeſec erriari: Etzaitezte beldurtu: ceren Jaungoicoa etorri da zuec probatzera, eta izan dedin zuec gan bere beldurra, eta ez dezazuten pecaturic eguin.

21 Eta egon zan erria urrutian. Moiſes berriz alderatu zan Jaungoicoa cegoan illuntaſunera.

22 Gañera eſan cion Jaunac Moiſeſi: Oyec eſango dieztezu Iſraelco ſemeai: Zuec icuſi dezute cerutican itz eguin dizutedala.

23 Ez dezute eguingo cillarrezco jaungoicoric, ez dezute ere eguingo zuentzat urrezco jaungoicoric.

24 Eguingo didazute lurrezco aldarea, eta eſqueñico dituzute bere gañean emaitz eta oſtia paquetſuac, zuen ardiac eta idiac, nere icenaren oroitza dan toqui guztian: etorrico naiz zu gana, eta bedeincatuco zaitut.

25 Eta eguiten baldin badidazu arrizco aldarea, ez didazu eguingo arri landuz: ceren alchatzen baldin badezu cicelic bere gañean, loitua izango da.

26 Etzera igoco nere aldarera malletatican, aguertu ez ditecen zure eſtaligabeac.

XXI. Cap.

OYEC dirade ipiñico diozcazun juezlegueac.

2 Eroſico baldin bacendu hebreotar morroi bat, ſei urtetan ſerbituco zaitu: zazpigarrenean ateraco da aſcatua doañ.

3 Nolaco ſoñecoarequin ſartu zan, alacoarequin atera bedi: baldin ſartu bazan emaztea zuela, emaztea ere ateraco da batean.

4 Baña baldin bere naguſiac emango balio emaztea, eta eguingo balitu ſemeac eta alabac: andrea eta bere aurrac izango dirade bere naguſiarenac, bera berriz ateraco da bere ſoñecoarequin.

5 Eta eſango balu morroyac: Maitatzen ditut nere naguſia eta emaztea eta aurrac, ez naiz ateraco aſcatuta:

6 Naguſiac eramango du jaungoicoac gana, eta jarrico du atearen eta abeen contra, eta zulatuco du bere belarria eztenaz: eta izango da morroi naguſiarentzat betico.

7 Iñorc ſalduco baldin balu bere alaba neſcametzat, ez da ateraco beſte neſcameac atera oi diran becela.

8 Ez baldin baderitza ongui emana izan zayon naguſiari bere beguietan, utzico dio joaten: baña ez du eſcubideric izango ſaltzeco erri arrotzi, naguſiac mezpreciatuco baldin balu.

9 Baña baldin bere ſemearequin ezconduco balu, alaben oituraren araura beguiratuco dio.

10 Baña ezconduco baldin balu bere ſemea beſte batequin, emango dizquio neſcachari ſenarra, eta ſoñecoac, eta ez dio ucatuco birjintaſunaren balioa.

11 Iru gauza oyec eguingo ez baldin balitu, ateraco da doañ dirurican gabe.

12 Jotzen duena guizona iltzeco gogoz, illa izan bedi.

13 Baña celatac jarri ez diozcana, baicic Jaungoicoac bere eſcuetan paratu duena: icentatuco dizut toquia, ceñera igues eguin bearco duen.

14 Baldin iñorc illco balu bere antzecoa berariaz, eta celataquin: ateraco dezu nere aldaretic, illa izan dedin.

15 Jotzen duena bere aita edo ama, illa izan bedi.

16 Guizonen bat oſtu, eta ſaltzen duena, eguiazturic gaiztaqueria, illa izan bedi.

17 Madaricatzen duena bere aita, edo ama, illa izan bedi.

18 Aferratzen baldin badira bi guizon, eta batac jotzen badu bere laguna arrica edo ucabillca, eta au illtzen ez bada, baicic egongo balitz oyan etzanic:

19 Jaiquico baldin balitz, eta ibilli campoan bere maquillaren gañean, ez da caſtigatua izango jo duena, pagatzen baditu bere calteac, eta ſendaguilleen gastuac.

20 Jotzen duena bere morroi, edo neſcamea cigorraz, eta illco balirade bere eſcuetan, izango da gaiztaqueri andienaren culpadun.

21 Baña bicico baldin balitz guero egun batean edo bian, ez da caſtigatua izango, ceren bere dirua dan.

22 Guizonac erriertan arico baldin balirade, eta beretacoren batec joco balu andre aurduna, eta aurra galduco balu, eta bera biciric guelduco balitz: pagatuco du caltea gatic andrearen ſenarrac eſcatzen duena, eta erabaquitzalleac juzgatzen dutena.

23 Baña andrea illco balitz, pagatuco du bicia bicia gatic,

24 Beguia gatic beguia, ortza gatic ortza, eſcua gatic eſcua, oña gatic oña,

25 Errea gatic errea, zauria gatic zauria, mallatzea gatic mallatzea.

26 Baldin norbaitec joco balu bere morroi edo neſcamea beguian, eta beguibacarrac jarrico balitu, utzico die joaten atera dien beguia gatic.

27 Orobat ateraco baldin balio ortz bat bere morroi edo neſcameari, libre utzico ere die joaten.

28 Baldin idiren batec adarraz joco balu guizaſemea edo emacumea, eta illco balirade, izango da arrica illa: eta ez dirade jango bere araguiac, eta idiaren jabea ez da caſtigatua izango.

29 Baña baldin idia balitz adarcaria lendican, eta gaztigatua izan balitz bere jabea, eta iduquico ez balu ichian, eta illco balu guizaſeme edo emacumeren bat: ez bacarric izango da idia arrica illa, baita bere jabea ere illa izango da.

30 Ipiñico baliote caſtigutzat dirua pagatzea, emango du bere bicia gatic eſcatzen zayon guztia.

31 Eta adarraz joco baldin balu mutill edo neſcachen bat, erabaqui beraren mendean egongo da.

32 Baldin eraſoco balio morroi edo neſcameari, emango diozca oyen naguſiari oguei ta amar ſiclo cillarrezco, eta idia izango da arrica illa.

33 Baldin iñorc idiquico balu putzu zuloren bat, edo aitzurtuco balu, eta ez balu eſtalico, eta erorico baldin balitz ara idi edo aſtoren bat,

34 Pagatuco du putzuaren jabeac abereen balioa: eta ill dana berea izango da.

35 Norbaiten idiac zaurituco balu besterena, eta au illco balitz: ſalduco dute idi bicia, eta partituco dute balioa; baitaere illa partituco dute beren artean.

36 Baña baldin bacequien adarcaria zala idia lendican, eta iduqui ez baldin balu bere jabeac ichian: itzulico du idia gatic idia, eta artuco du oſoric idi illa.

XXII. Cap.

BALDIN norbaitec oſtuco balu idiren bat, edo ardiren bat, eta ill edo ſalduco balu: biurtuco ditu boſt idi idi bategatic, eta lau ardi ardi bategatic.

2 Baldin arquituco balitz lapurren bat echean indarca ſartzen edo lurrean aitzurtzen ari dala, eta arturic zauriren bat illco balitz: jotzallea ez da izango odolaren culpadun.

3 Baña au eguingo baldin balu eguzquia atera ezquero, gaizqui ill du guizona, eta bera ere illa izango da. Ez baldin baluque lapurrac cer biurtu oſtu zuena gatic, ſaldua izango da.

4 Arquitu balitz bere eſcuan biciric oſtu duena, naiz idia, naiz aſtoa, naiz ardia; itzulico du birretan aimbat.

5 Baldin iñorc calteric eguiten badu ſoroan edo maſtian, eta utzitzen badio joaten bere zamariari jatera beſterenac: itzulico du bere ſoroan, edo maſtian duen gauzaric onen guztia, caltearen araura.

6 Suac zabalduric arquitu balitu arantzac, eta artuco balitu frutuen gabillac, edo campoetan zutic dauden uztac; pagatuco du caltea ſu eman dionac.

7 Baldin iñorc emango balio dirua edo ontzia adiſquideari gordetzeco, eta oſtuco baliozcate artu dituenari: lapurra arquitzen bada, biurtu beza birretan aimbat.

8 Ezcutuan baldin badago lapurra, echeco nagusia izango da jarria juezen aurrean, eta juramentu eguingo du ez duela jarri escua bere lagunaren gaucetan,

9 Ez cer icusiric izan lapurretan, naiz idi, naiz asto, naiz ardi, naiz soñeco, naiz calte eguin dezaquen edoceñ gauzarenean: bien aucia eramango da juezac gana: eta baldin oyec erabaquitzen badute, birretan aimbat itzulico dio bere lagunari.

10 Baldin norbaitec emango balio bere lagunari astoa, idia, ardia, edo edoceñ zamari gordetzeco, eta illco balitz, edo elbarritu, edo izango balitz etsayac arrapatua, eta iñorc au icusico ez baldin balu:

11 Juramentu eguingo du, ez diola luzatu escua bere lagunaren gauzari: eta jabeac juramentu artuco du, eta bestea ez da beartua izango caltea osotzera.

12 Baña ostu baldin baliote, osotuco dio caltea jabeari.

13 Izan baldin balitz pistiac zatitua, eraman beza jabea gana illa izan dana, eta ez du biurtuco.

14 Escatzen dionac bere lagunari prestamenean oyetaco edoceñ gauza, eta elbarritu edo illco balitz jabea aurrean ez dala, beartua izango da itzultzera.

15 Baña jabea aurrean baldin balego, ez du itzulico, batezere alquilatua balitz bere lanaren saria gatic.

16 Baldin iñorc engañatuco balu nescach bat ezcontzaz iztu gabea, eta lo eguingo balu berarequin: emango dio dotea, eta artuco du emaztetzat.

17 Baldin nescacharen aitac ez balio eman nai, pagatuco du dirua nescachac artu oi izan duten dotearen neurriaren araura.

18 Ez diezu utzico bicitzen sorguiñai.

19 Zamariarequin nasitzen dana, illa izan bedi.

20 Eguiten diozcana esqueintzariac Jaungoicoa ez dan edoceñi, illa izango da.

21 Ez dezu naigabetu, eta estutuco arrotza: ceren zuec ere arrotzac izan ciñaten Egiptoco lurrean.

22 Ez diezute calterican eguingo alargunari eta umezurtzari.

23 Calterican eguiten baldin badiezute, deadar eguingo dute ni gana, eta nic adituco det beren deadarra:

24 Eta piztuco da nere aserrea, eta zaurituco zaituztet ezpataz, eta izango dirade zuen emazteac alargunac, eta zuen semeac umezurtzac.

25 Ematen baldin badiozu dirua prestamenean nere erri beartsu zurequin bici danari, ez dezu premiatuco cobratzalleac beccla, eztaere usuraz estutuco.

26 Artuco baldin bacendu zure laguna gandic soñecoa prendan, itzulico diozu eguzquia sartu baño lenago.

27 Ceren orixe bera da soñeco bacarra, ceñez estaltzen duen bere araguia, eta ez du besteric, ceñarequin lo eguin: ni gana deadarrez zucentzen baldin bada, adituco det, ceren urricaltsua naicen.

28 Ez dezu gaizqui esango juezac gatic, eta ez dezu madaricatuco zure errico principea.

29 Ez dezu luzatuco pagatzea amarrenac eta autatuenac: zure semeen lembicisortua emango didazu.

30 Eta berdin eguingo dezu idiaquin, eta ardiaquin: zazpi egunean bego bere amarequin, eta zortzigarren egunean itzulico didazu.

31 Guizon santuac izango cerate neretzat: abereac lendican probatua izan dan araguia, ez dezute jango, baicican botaco diezute zacurrai.

XXIII. Cap.

ETZAITE egon guezur aimatzalleai aditzen: ez dezu ere emango zure escua guezurrezco testimonioric gaiztoaren alde.

2 Ez diezu jarraituco ascoai gaizqui eguiteco: eta batzarrean ere, ez diozu jarraituco ascoren iritziari, eguiatic aldeguiteco.

3 Beartsuaz ere etzera urrical izango erabaquia ematean.

4 Arquituco baldin bacendu zure etsayaren idi, edo asto galdua, itzuli zayozu.

5 Icusico baldin bacendu gorroto dizunaren astoa etziñic zamaren azpian, etzera aurrera iragoco, baicic lagunduco diozu alchatzen.

6 Etzera ceartuco zucentasunetic erabaquia ematean beartsuaren contra.

7 Igues eguingo dezu guezurra gandic. Culpagabe eta justua ez dezu illco: ceren gorroto diodan gaiztoari.

8 Ez dituzu ere artuco emaitzac, ce-

ñac itſutzen dituzten beguiratuac ere, eta biurritzen juſtuen eſanac.

9 Arrotzari ez diozu gogait eraguingo. Ceren badaquizute cer dan arrotz izatea: ceren zuec ere arrotz egon ciñaten Egiptoco lurrean.

10 Sei urtetan ereingo dezu zure lurra, eta bilduco dituzu bere laboreac.

11 Baña zazpigarren urtean utzico dezu, eta atſedeneratico diozu, jan dezaten zure errico beartſuac: eta guelditzen dan guztia, jan bezate campoco piſtiac: ala eguingo dezu zure maſtian, eta zure olibadian.

12 Sei egunean arico cera lanean: zazpigarren egunean deſcanſatuco cera, atſeden dezaten zure idiac eta zure aſtoac: eta gozatu ditecen zure neſcamearen ſemea, eta arrotza.

13 Gorde itzatzute eſan dizutedan gauza guztiac. Eta ez dezute juramenturic eguingo jaungoico erbeſtecoen icenean, eta ez da aditua ere izango zuen aotican.

14 Iru alditan urteero celebratuco dizquidazute jayac.

15 Gordeco dezu legamigabeco oguien jaya. Zazpi egunean jango dituzu legamigabeco oguiac, aguindu nizun becela, frutu berrien illaren demboran, atera ciñanean Egiptotic: etzera aguertuco nere aurrean utſic.

16 Beſte jaya izango da zure lanen autatuenac ebaquitzean, campoan erein dezun guztiena: irugarren jaya izango da campoco labore guztiac biltzean, urtearen bucaeran.

17 Iru aldiz urtean aguertuco da zure guizaſeme guztia zure Jaun Jaungoicoaren aurrean.

18 Ez dezu eſqueñico legamiarequin nere bitimaren odola; ez da ere gueldituco nere jai andiraco gantza goiceraño.

19 Zure lurreco laboreen autatuenac eramango dituzu zure Jaun Jaungoicoaren echera. Ez dezu egoſico anchumea bere amaren eſnean.

20 Ona non nic bidalduco dedan nere ainguerua joango dana zure aurretic, eta gorde zaitzan bidean, eta ſartu zaitzan preſtatu dedan toquian.

21 Erreberenciatu ezazu, eta aditu bere boza, ez ezazu uſte izan mezpreciatzecoa dala: ceren pecatu eguiten dezunean ez dizu barcatuco, eta beragan da nere icena.

22 Baña baldin adituco bacendu bere boza, eta eguingo baciñitu eſaten dirudan gauza guztiac, izango naiz zure etſayen etſaya, eta naigabetuco ditut naigabetzen zaituztenac.

23 Eta joango da zure aurretic nere ainguerua, eta ſartuco zaitu amorreotar, eta hettar, eta ferezeotar, eta canaantar, eta heveotar, eta jebuſtar nic puſcatuco ditudanen lurrean.

24 Ez dituzu adoratuco beren jaungoicoac, eta ez diezu ere beguirune emango: ez dezu eguingo beren obraric, baicic arraſatuco dituzu, eta autſico dituzu eſculturazco lan beren antzera eguiñac.

25 Eta ſerbituco dezute zuen Jaun Jaungoicoa, bedeincatu ditzadan zure oguiac eta urac, eta quendu dezadan eritaſuna zure erditican.

26 Ez da izango zure lurrean andre ugaricor ez danic, ez ere ſoillic: beteco det zure egunen neurria.

27 Bidalduco det nere izua zure aurretican, eta arraſatuco det zu ſartzen ceran erri guztia: eta igues eraguingo diet zure aurretican zure etſai guztiai:

28 Bidalduric liſtortzarrac aurretic, ceñac igueſeracico dieten heveotar, eta canaantar, eta hettarrari, ſartu zaitecen baño lenago.

29 Ez ditut botaco zure aurretic urte batean: lurra eremu itzuli ez dedin, eta ugaritu ez ditecen piſtiac zure contra.

30 Gueldica gueldica botaco ditut zure aurretic, aliqueta ugaritu, eta lurraz jabetu zaitecen bitartean.

31 Eta jarrico ditut zure mugac itſaſo Gorritic paleſtinatarren itſaſoraño, eta eremutic ibairaño: ipiñico ditut zuen eſcuetan lurrean bici diradenac, eta botaco ditut zuen aurretic.

32 Ez dezu eguingo elcartaſunic beraquin, eztaere beren jaungoicoaquin.

33 Ez bitez bici zure lurrean, pecatu eraguin ez dizazun nere contra, ſerbituco baldin baciñitu beren jaungoicoac: ceñ eguiazqui izango litzaquen zure galmena.

XXIV. Cap.

MOISESI ere eſan cion: Igo zaitezte Jauna gana zu, eta Aaron, Nadab, eta Abiu, eta Iſraelco iruroguei ta amar agureac, eta adoratuco dezute urrutitican.

2 Eta Moiſes bacarric igoco da Jauna gana, eta ayec ez dirade alderatuco; eta erria ere ez da berarequin igoco.

3 Etorri zan bada Moiſes eta contatu ciozcan erriari Jaunaren itz, eta erabaqui guciac: eta erantzun zuen erri guztiac itz batean: Eguingo ditugu Jaunac eſan dituen itz guztiac.

4 Eta eſcribatu cituen Moiſeſec Jaunaren itz guztiác: eta goiz jaiquiric eguin zuen aldare bat mendiaren ondoan, eta amabi oroipengarri Iſraelco amabi echadien araura.

5 Eta bidaldu cituen Iſraelco ſemeetatic gazte batzuec, eta eguin cituzten emaitzac, eta illic chalac, eſqueñi ciozcaten Jaunari bitima paquetſutzat.

6 Eta artu zuen Moiſeſec odolaren erdia, eta bota zuen ontzietara: eta gañeracoa ixuri zuen aldarearen gañean.

7 Eta arturic elcartaſuneco liburua, iracurri zuen erriac aditzen zuela: ceñac eſan zuen: Eguingo ditugu Jaunac eſan dituen gauza guztiac, eta obedituco degu.

8 Berac berriz arturic odola chipriztatu zuen erriaren gañean, eta eſan zuen: Au da Jaunac zuequin itz guzti oyen gañean eguin duen elcartaſunaren odola.

9 Eta igo ciran Moiſes eta Aaron, Nadab eta Abiu, eta Iſraelco zarretatic iruroguei ta amar:

10 Eta icuſi zuten Iſraelco Jaungoicoa: eta bere oñen azpian zafiro arriz eguindaco lan bat becelacoa, eta cerua, oſgarbi dagoenean becelacoa.

11 Etzuen ere luzatu bere eſcua urrutira alde eguin zuten Iſraelco ſemeen gañera, eta icuſi zuten Jaungoicoa, eta jan, eta edan zuten.

12 Eta eſan cion Jaunac Moiſeſi: Igo zaite ni gana mendira, eta zaude an: eta emango dizquizut arrizco olac, eta eſcribatu ditudan leguea eta aguinteac: eracutſi dizayeztezun.

13 Jaiqui ciraden Moiſes eta Joſue bere laguntzallea: eta igoric Moiſes Jaungoicoaren mendira,

14 Eſan cien zarrai: Ichedon ezazute emen aliqueta itzuli gaitecen bitartean zuec gana. Badituzute zuequin Aaron eta Hur: izango baldin balitz ezpairic, eramango dezute berac gana.

15 Eta igoric Moiſes, odei batec estali zuen mendia,

16 Eta Jaunaren gloria aguertu zan Sinairen gañean, eſtaltzen zuela odeyac ſei egunean: eta zazpigarren egunean ots eguin cion illuntaſunaren erditican.

17 Eta zan Jaunaren gloriaren irudia, mendico tontor gañean iracequita dagoan ſua becelacoa, Iſraelco ſemeen aurrean.

18 Eta ſarturic Moiſes lañoaren erdira, igo zan mendira: eta egon zan an berroguei egunean eta berroguei gautan.

XXV. Cap.

ETA itz eguin cion Jaunac Moiſeſi, ciola:

2 Eſan zayezu Iſraelco ſemeai artu ditzatela neretzat autatuenac: artuco dizquiozute bere naiz eſqueintzen dituen guizon guztiari.

3 Oyec dirade berriz artu bear dituzutenac: Urrea, eta cillarra, eta cobrea,

4 Jacintoa eta purpura, eta grana bi aldiz tintatua, eta liño fiña, auntzen illeac,

5 Eta arien larru gorrituac, eta larru bioleta colorezcoac, eta ſetim zurac:

6 Lamparac iraun dezaten olioa: aromac oquenduarentzat, eta uſai oneco lurrin gayac:

7 Oniz arriac, eta arri baliotſuac ſorbaldagañeco ta bularreco jantziac apaintzeco.

8 Eta eguingo didate ſantulecu bat, eta bicico naiz beren erdian:

9 Guztian eracutſico dizudan rabernaculoco irudiaren, eta bear dituen ontzi guztien araura: eta onela eguingo dezute:

10 Eguin ezazute ſetim zurez cucha bat, luceeran beſo bi ta erdi dituena: zabalcran beſo bat eta erdi: orobat goibean beſo bat eta erdi.

11 Eta eſtalico dezu barrendic eta campotic urre chit garbiz: eta eguingo dezu bere gañean, urrezco coroi bat inguruan zabaltzen dana:

12 Eta urrezco lau eraztun, ceñac ipiñico dituzun cucharen lau eguietan: bi eraztun egon bitez alde batean, eta bi beſtean.

13 Eguingo ere dituzu cigor batzuec ſetim zurez, eta urrez eſtalico dituzu.

14 Eta ſartuco dituzu cucharen aldamenetan dauden eraztunetatic, beretan eramateco:

15 Ceñac egongo diraden beti eraztunetan, eta ez dirade iñoiz ateraco beretatic.

16 Eta jarrico dezu cuchan emango dizudan leguea.

17 Eguingo ere dezu propiciatorioa urre chit garbiz: iduquico ditu luceeran beſo bi ta erdi, eta zabaleran beſo bat eta erdi.

18 Eguingo ere dituzu beraren alde batetic eta beſtetican, bi querubin urrezcoac eta malluz landuac.

19 Querubin bata bego alde batean, eta beſtea beſtean.

20 Eſtali bitzate propiciatorioaren aldamen biac zabalduric egoac, eta bera eſtaliric, eta beude elcarri beguira itzuliric arpeguiac propiciatoriora, ceñaz estaldua izango da cucha,

21 Ceñean jarrico dezu emango dizudan leguea.

22 Andican emango dizquizut aguinteac: eta itz eguingo dizut propiciatorioaren gañean, eta bi querubin teſtimonioco cucharen gañean egongo diradenen erditic, zure bitartez Iſraelco ſemeai aguinduco dieztedan gauza guztiac.

23 Eguingo ere dezu ſetim zurez mai bat bi beſo luceeran, eta beſo bat zabaleran, eta beſo bat eta erdi goibean dituena.

24 Eta eſtalico dezu urre chit garbiz: eta eguingo diozu urrezco ertz bat inguruan,

25 Eta ertzari berari eſculturazco coroi bat alturan lau beatzecoa: eta beraren gañean, beſte urrezco coroicho bat.

26 Preſtatuco ere dituzu lau eraztun urrezco, eta ipiñico dituzu mayaren beraren lau eguietan oñ bacoitzean.

27 Urrezco eraztunac egongo dirade coroyaren azpian, cigorrac ſartu ditecen beretatic, eta maya eramana izan dezaquen.

28 Eguingo ere dituzu cigor oyec ſetim zurez, eta inguratuco dituzu urrez maya eramateco.

29 Preſtatuco ere dituzu urreric garbienez catilluac, eta ontzichoac, eta intzentſonarioac, eta copac, ceñetan esqueñiac izango diraden emaitzac.

30 Eta jarrico dituzu mayaren gañean propoſicioco oguiac nere aurrean beti.

31 Eguingo ere dituzu urre garbienez candelero bat malluz landua, bere zortena, eta adarrac, baſochoac, eta bolachoac, eta bertatican ateratzen diraden lirioac.

32 Sei adar ateraco dirade aldamenetatic, iru aldamen batetic, eta iru beſtetic.

33 Adar bacoitzean egongo dirade iru baſo inchaurren guiſara, eta batean bolacho ta lirio bat: eta modu bertan iru baſo inchaurren guiſara beſte adarrean; baitaere bolacho eta lirio bat. Au izango da zortenetic ateraco diraden ſei adarren lana:

34 Eta candeleroan bertan egongo dirade lau baſo inchaurren guiſara, eta bacoitzean bolachoac, eta lirioac.

35 Egongo dirade bolacho batzuec bi adarren azpian iru toquitan, ceñac batean diraden ſei zorten batetican ateratzen diradenac.

36 Bolachoac bada eta adarrac ateraco dirade bertatican, malluz urreric garbienez eguiñac guciac.

37 Eguingo ere dituzu zazpi lamparachoac, eta jarrico dituzu candeleroaren gañean, argui eguin dezaten aurretican.

38 Eſpabiladerac ere, eta babillac itzaltzeco ontziac, eguingo dirade urreric garbienez.

39 Candeleroaren piſu guztia bere ontzi guztiaquin izango da talento bat urre chit garbia.

40 Beguira, eta eguin ezazu mendian eracutſi citzazun moldearen araura.

XXVI. Cap.

TABERNACULOA berriz onela eguingo dezu: Eguingo dituzu amar cortiña liño fiñ biurtuzco, eta jacintozco, eta purpurazco, eta grana bi aldiz tintatutaco, bordatu mota aſcorequin.

2 Cortiña bacoitzaren luceerac iduquico ditu oguei ta zortzi beſo: zabalera, lau beſocoa izango da. Neurri batecoac izango dirade cortiña guztiac.

3 Boſt cortiñac itſatſico dira elcarri, eta beſte boſtac itſatſico dirade modu bertan.

4 Eguingo dituzu jacintozco eutſcarriac cortiñen aldamenetan eta goyeran, elcarri itſatſi daitezquen.

5 Cortiña bacoitzac iduquico ditu berroguei ta amar eutſcarri aldamen bacoitzean, alaco moduan maneatuac, non bata beſtearen contra etorri dedin, eta elcarri itſaſi daitezquen.

6 Eguingo ere dituzu berroguei ta amar eraztun urrezco, ceñez bituco

diraden cortiñen beloac, tabernaculo bat bacarra eguin dedin.

7 Eguingo ere dituzu auntzen illezco amaica ſayal tabernaculoaren tellatua estaltzeco.

8 Sayal baten luceerac iduquico ditu oguei ta amar beſo: eta zabalerac lau: berdiña izango da ſayal guztien neurria.

9 Ceñetatican elcartuco dituzu boſt berecian, eta itſatſico dituzu ſei bata bestearequin, alaco moduan, non ſeigarren ſayala toleſtuco dezun tellatuaren aurretican.

10 Eguingo ere dituzu berroguei ta amar eutſcarri ſayal baten egalean, bitu dedin beſtearequin: eta berroguei ta amar eutſcarri beſte ſayalaren egalean, beſtearequin itſatſi dedin.

11 Eguingo ere dituzu berroguei ta amar ebilla cobrezco, ceñez elcartu ditecen eutſcarriac, guztietatic eſtalqui bat eguin dedin.

12 Baña nola tellaturaco dauden ſayaleratic ſobratzen dan bat, onen erdiaz estalico dezu tabernaculoaren atzeco aldea.

13 Eta beſo bat guelldituco da cintzilica aldamen batetican, eta beſte bat bestetican, ceñ ſobratzen dan ſayalen luceeran, tabernaculoaren bi aldamenac eſtaltzen dituela.

14 Eguingo ere diozu tabernaculoari beſte eſtalqui bat arien larru gorrituz: eta onen gañean beſte eſtalqui bat bioleta colorezco larruz.

15 Eguingo ere dituzu ſetim zurez tabernaculoaren ol zutiac,

16 Ceñac guztiac iduquico dituzten amarna beſo luceeran, eta zabaleran bana ta erdi.

17 Ol bacoitzaren aldamenetan eguingo dirade bi acats, catigatzeco ol bata beſtearequin: eta era onetan ipiñico dirade beſte ol guztiac.

18 Ceñetatic oguei egongo dirade egüerdiaren alde egoera beguira dagoenean.

19 Ceñentzat urtu eta eguingo dituzu berroguei ondo cillarrezco, alaco moduan, non bi ondo egon ditecen ol bacoitzaren azpian egui bietatic.

20 Ifarrera beguira dagoen tabernaculoaren beſte aldean ere, oguei ol egongo dirade,

21 Dauzcatenac berroguei ondo cillarrezco: bi ondo ipiñico dirade ol bacoitzaren azpian.

22 Tabernaculoaren ſartaldeco aldean berriz eguingo dituzu ſei ol,

23 Eta berriz beſte bi, ceñac alchatuco diraden eguietan tabernaculoaren atzean.

24 Eta egongo dirade elcarturic beetic goraño, eta locarri batec iduquico ditu guztiac. Eta elcartaſun berdiña gordeco da eguietan ipiñico diraden ol bietan.

25 Eta guztietan izango dirade zortzi ol, eta beren ondo cillarrezcoac amaſei, contaturic bi ondo ol bacoitza gatic.

26 Eguingo ere dituzu boſt aga ſetim zurez, olac tabernaculoaren alde batean ſendotzeco,

27 Eta beſte boſt beſtean, eta ſartaldeco aldean beſte aimbeſte:

28 Ceñac atrabeſatuco dituzte olac alde batetic beſtera.

29 Baita eſtalico dituzu urrez olac berac, eta urtu eta eguingo dituzu berentzat urrezco eraztunac, ceñen bitartez agac iduqui ditzaten olac; ceñac eſtalico dituzu urrezco orriz.

30 Eta alchatuco dezu tabernaculoa mendian eracutſia izan zatzun moldearen araura:

31 Eguingo ere dezu jacintozco, eta purpurazco, eta bi aldiz tintaturaco granazco, eta liño fiñ biurtuzco belo bat, lan bordatuaquin eta ederqui mota nabarrez eoa:

32 Ceñ ichequico dezu ſetim zurezco lau abeen aurrean, ceñac ere egongo dirade urrez eſtaliric, eta iduquico dituzte urrezco erpiñac, baña ondo cillarrezcoac.

33 Eta beloa guelldituco da cintzilica eraztunen bitartez, eta beraren barrenen ipiñico dezu teſtimonioco cucha, ceñaz berecituac guelldituco dirade ſantua, eta ſantuen ſantua.

34 Ipiñico ere dezu propiciatorioa testimonioco cucharen gañean ſantuen ſantuan:

35 Eta maya belotic campoan: eta mayaren aurrean candeleroa tabernaculoaren egüerdirontzco aldean: ceren maya egongo da ifarreco aldean.

36 Eguingo ere dezu tabernaculoaren ſarreran jacintozco, eta purpurazco, eta bi aldiz tintaturaco granazco, eta liño fiñ biurtuzco cortiña bat, bordatutaco lanez.

37 Eta urrez eſtalico dituzu ſetim zurezco boſt abeac, ceñen aurrean ichequico dezu cortiña: ceñen erpiñac izan-

go dirade urrezcoac, eta ondo cobrezcoac.

XXVII. Cap.

EGUINGO ere dezu ſetim zurez aldare bat, ceñac iduquico dituen luceeran boſt beſo, eta beſte aimbeſte zabaleran, au da, lauquia, eta iru beſo alturan.

2 Eta bertatic ateraco dirade adar batzuec lau eguietatic: eta cobrez eſtalico dezu.

3 Eta eguingo dituzu aldarearen bearretaraco paci batzuec autſac biltzeco, eta tenazac, eta irortzac, eta braſaontziac: gauza guzti oyec cobrez eguingo dituzu.

4 Eta erreja cobrezco bat ſarearen guiſara: ceñen lau eguietan egongo dirade lau eraztun cobrezco,

5 Ceñac ipiñico dituzu aldarearen ſutoquiaren azpian: eta erreja allegatuco da aldarearen erdiraño.

6 Eguingo ere dituzu aldareraco bi cigor ſetim zurez, ceñac eſtalico dituzu cobrezco orriz;

7 Eta ſartuco dituzu eraztunetatican eta egongo dirade aldarearen alde bietatic auxe eramateco.

8 Ez dezu eguingo beteric, baicic utſa eta zocona barrendican, mendian eracutſi zatzun becela.

9 Eguingo ere dezu tabernaculoaren ataria, ceñaren egoeco aldean egüerdirontz egongo dirade liño fiñ biurtuzco cortiñac: alde batac iduquico ditu luceeran eun beſo.

10 Eta oguei abe beſte aimbeſte cobrezco ondorequin, ceñac iduquico dituzte cillarrezco erpiñac beren moldatutaco apaingarriaquin.

11 Eta berdin iſarraldean luceeran egongo dirade eun beſoco cortiñac, oguei abe, eta beſte aimbeſte cobrezco ondo, eta beren cillarrezco erpiñac beren moldatutaco apaingarriaquin.

12 Eta ſartaldera beguiratzen duen atarico zabalean, egongo dira cortiñac berroguei ta amar beſotan, eta amar abe, eta beſte aimbeſte ondo.

13 Baitaere ſortaldera beguiratzen duen atarico zabalerac, berroguei ta amar beſo izango ditu.

14 Non amaboſt beſoco cortiñac alde batetic paratuco diran, eta iru abe beſte aimbeſte ondorequin:

15 Eta beſte aldean egongo dirade cortiña batzuec allegatzen diradenac amaboſt beſora, iru abe, eta beſte aimbeſte ondo.

16 Eta atariaren ſarreran eguingo da jacintozco, eta purpurazco, eta bi aldiz tintatutaco granazco, eta liño fiñ biurtuzco oguei beſoco cortiña bat, lan bordatuz: iduquico ditu lau abe, beſte aimbeſte ondorequin.

17 Atarico abe guztiac egongo dirade eſtaliac inguruan cillar orriz, cillarrezco erpiñaquin, eta cobrezco ondoaquin.

18 Atariac iduquico ditu luceeran eun beſo, zabaleran berroguei ta amar, goibeeran boſt beſocoa izango da: eta eguingo da liño fiñ bi aldiz biurtuzcoz, eta iduquico ditu cobrezco ondoac.

19 Tabernaculoco ontzi guztiac bere premia eta ceremonia guztietaraco, naiz bere eſtacac, naiz atariçoac, eguingo dituzu cobrezcoac.

20 Aguindu zayezu Iſraelco ſemeai ecarri dizazutela oliboetatic olioric garbiena, almericean ateratua, iracequia egon dedin beti lampara.

21 Teſtimonioco tabernaculoan, testimonioco cucharen aurrean ichequita dagoen belotic campoan. Eta ipiñico dute Aaronec eta bere ſemeac, argui eguin dezan goiceraño Jaunaren aurrean. Au izango da Iſraelco ſemeen artean betico beguirunea beren jatorrietan.

XXVIII. Cap.

ALDERATUERACI zayozu ere zu gana Aaron zure anayari bere ſemeaquin Iſraelco ſemeen erditican, ari ditecen neretzat apaiz lanetan: Aaron, Nadab, eta Abiu, Eleazar, eta Itamar.

2 Eta eguingo diozu zure anai Aaroni ſoñeco ſagradua glória eta edertaſuneraco.

3 Eta arguitaſunez bete ditudan guizon jaquintſu guciai itz eguingo diezu, eguin ditzaten Aaronen ſoñecoac, ceñaquin ſantuturic ari dedin apaicen lanetan.

4 Eta oyec izango dirade eguingo dituzten ſoñecoac: Bularrecoa ta ſorbaldagañecoa, tunica eta bi liñozco tunica estua, tiara eta guerricoa. Eguingo diezte ſoñeco ſantuac zure anai Aaroni eta bere ſemeai, apaicen lanetan ari ditecen neretzat.

5 Eta artuco dute urrea, eta jacintoa, eta purputa, eta bi aldiz tintatutaco grana, eta liño fiña.

6 Eta eguingo dute ſorbaldagañeco jantzi urrez eta jacintoz eta purpuraz, eta bi aldiz tintatutaco granaz, eta liño fiñ biurtuz, gucia lan nabarrez.

7 Iduquico ditu bi ertz elcarturic goyenen alde bietatican, batera itzuli ditecen.

8 Eoa bera eta lan mota guztiac urrezcoac, eta jacintozcoac, eta purpurazcoac, eta bi aldiz tintatutaco granazcoac, eta liño biurtuzcoac.

9 Eta artuco dituzu bi oniz arri, eta jarrico dituzu beretan Iſraelco ſemeen icenac:

10 Sei icen arri batean, eta ſei gañeracoac beſtean, beren jayotzaco demboraren araura.

11 Eſculturazco lanez eta arri baliotſu languillearen eſcuz, jarrico dituzu beretan Iſraelco ſemeen icenac, urrean ſarturic eta beronequin inguruturic:

12 Eta ipiñico dituzu ſorbaldagañeco jantziaren alde bietan oroipengarritzat Iſraelco ſemeentzat. Eta eramango ditu Aaronec beren icenac Jaunaren aurrean ſorbalda bien gañean, oroipenaraco.

13 Eguingo ere dituzu urrezco corcheta batzuec,

14 Eta urre chit garbizco bi catecho elcarri elduric, ceñac ſartuco dituzu corchetetan.

15 Eguingo ere dezu bularreco jantzia juicioraco lan nabarrez, ſorbaldagañecoaren eoaren araura, urrez, jacintoz, eta purpuraz, eta bi aldiz tintatutaco granaz, eta liño biurtuz.

16 Izango da lauquia eta bitan aimbat: iduquico du arra baten neurria, bai luceeran eta bai zabaleran.

17 Eta jarrico dituzu bertan lau arrizco errencada: lendabicico errencadan egongo da ſardioa, eta topacioa, eta esmeralda:

18 Bigarrenean carbuncloa, zafiroa, eta jaſpea:

19 Irugarrenean ligurioa, agata, eta ametiſtoa:

20 Laugarrenean criſolitoa, oniza, eta beriloa. Urrean ſarturic egongo dirade beren errencadetan.

21 Eta iduquico dituzte Iſraelco ſemeen icenac: amabi icenac egongo dirade moldatuac, arri bacoitzean berea amabi tribuen araura.

22 Eguingo dituzu bular jantziraco urre chit garbizco catecho bi elcarri ichequitzen diranac:

23 Eta urrezco eraztun bi, ceñac ipiñico dituzu bularreco jantziaren goico alde bietan,

24 Eta itſatſico dituzu urrezco cateac bere ertzetan dauden eraztunaquin:

25 Eta cateen beren azquenac elcartuco dituzu bi corchetaz bularreco jantzira beguira dauden ſorbaldagañecoaren alde bietan.

26 Eguingo ere dituzu urrezco eraztun bi, ceñac jarrico dituzu bularreco jantziaren eguietan, ſorbaldagañecoaren aurretic dauden, eta bere atzera beguiratzen duten ertzetan.

27 Baitaere urrezco beſte bi eraztun jarrico diradenac beetican ſorbaldagañecoaren alde bietan, ceñac beguiratzen duen beeco guiltzaren arpeguirontz ſorbaldagañecoarequin lotzeco,

28 Eta eſtutu dedin bularreco jantzia bere eraztunaquin ſorbaldagañecoarenaquin jacintozco cordoi batez, guiltza egoqui eguiña guelldituco dan eran, eta bularreco ta ſorbaldagañeco ſoñecoac elcargandic berecitu ecin daitezquen moduan.

29 Eta eramango ditu Aaronec Iſraelco ſemeen icenac bularreco jantzian juicioraco bere bularraren gañean, ſartzen danean ſantulecuan, betico oroipengarritzat Jaunaren aurrean.

30 Eta ipiñico dituzu bularreco jantzian juicioraco Jaquinduria eta Eguia, egongo diradenac Aaronen bularraren gañean, ſartzen danean Jaunaren aurrera: eta eramango du beti bere bularraren gañean Iſraelco ſemeen juicioa, Jaunaren aurrean.

31 Eguingo ere dezu ſorbaldagañeco tunica, guztia jacintozcoa,

32 Ceñaren erdian goyaldetican egongo da zulo bat buruarentzat, eta ertz apaindu bat bere inguruan eoa, eguin oi dan becela ſoñecoen ertzetan, erraz urratu ez dedin.

33 Eta bean, tunicaren beraren oñetan, inguruan, eguingo dituzu granada batzuec becelacoac, jacintozco, eta purpurazco, eta bi aldiz tintatutaco granazcoac, gucia chincherriz naſturic:

34 Alaco moduan, non egon ditecela urrezco chincherri bat eta granada bat: eta berriz beſte urrezco chincherri bat eta granada bat.

35 Eta berarequin jantzita egongo da Aaron bere languintzan, aditua izan dedin otsa santulecuan sartzen eta ateratzen danean Jaunaren aurrean, eta ill ez dedin.

36 Eguingo ere dezu urre chit garbizco orri bat: ceñean moldatuco dezu, Santutasuna Jaunarentzat.

37 Eta lotuco dezu jacintozco cordoi batez, eta egongo da tiararen gañean,

38 Erortzen dala apaiznagusiaren copetaren gañera. Eta Aaronec eramango ditu Israelco semeac eguin dituzten pecatuac esqueñi eta santutu dituzten emaitz eta doai guztietan. Beti egongo da orri au bere copetaren gañean, Jauna beren alde iduqui dezaten.

39 Eta eguingo dezu liño siñezco tunica estua, eta tiara ere liño siñezcoa, eta guerrico nabarra.

40 Baña Aaronen semeentzat prestatuco dituzu liñozco tunicac, eta guerricoac eta tiarac, gloria eta edertasuneraco:

41 Eta oyec guztiaquin jantzico dituzu Aaron zure anaya eta bere semeac berarequin. Eta guztien escuac consagratu, eta santutuco dituzu, ari ditecen neretzat apaicen lanetan.

42 Eguingo ere dituzu liñozco galtza mochac, estali ditzaten bere lotsagarriac, guerriuc istar bucaeraño:

43 Eta erabillico dituzte Aaronec eta bere semeac sartzen diradenean testimonioco tabernaculoan, edo alderatzen diradenean aldarera santulecuco lanetan aritzeco, gaiztaqueriaren culpadun eguiñic ill ez ditecen. Aguinte beticoa izango da Aaronentzat, eta bere ondoren bere jatorriarentzat.

XXIX. Cap.

AU ere eguingo dezu neretzat apaicen lanetan consagratzeco. Artu itzatzu abere taldetican chal bat, eta bi ari aitzaquigabeac;

2 Baitaere oguiac, olioz orratutaco opill bat, eta lasaña olioz gantzutuac legamiric ez dutenac: guztia eguingo dezu gari iriñ lorez.

3 Eta ipiñiric sasquicho batean esqueñico dezu: chala ere eta ari biac.

4 Eta alderatuco dituzu Aaron, eta bere semeac testimonioco tabernaculoaren sarrera. Eta garbitzen dituzunean urez aita ta bere semeac,

5 Jantzico dezu Aaron bere jantziaquin, au da, liñozco ta tunica eta sorbaldagañeco, eta bularreco soñecoaquin; au guerricoaz estutuco dezu.

6 Eta jarrico dezu tiara bere buruan, eta orri santua tiararen gañean,

7 Eta ixurico dezu bere buruaren gañean untzioco olioa: eta ceremonia onequin izango da consagratua.

8 Bere semeac ere alderatuco dituzu, eta jantzico dituzu liñozco tunicaquin, eta lotu guerricoaz,

9 Au da, Aaron eta bere semeac, eta ipiñico diezu mitrac: eta izango dirade neretzat apaizac jatorriz betico. Eta consagratuta bere escuac,

10 Alderatuco dezu chala ere testimonioco tabernaculoaren aurrera. Eta Aaronec eta bere semeac jarrico dituzte escuac aren buruaren gañean,

11 Eta illco dezu Jaunaren aurrean, testimonioco tabernaculoaren atearen aldean.

12 Eta arturic chalaren odoletic, ipiñico dezu aldarearen eguien gañean zure beatzaz, eta gañeraco odola ixurico dezu bere ondoaren aldean.

13 Artuco ere dituzu esteac estaltzen dituen guicen guztia, eta guibelaren sarea, eta giltzurrun biac, eta beren gañean dagoen gantza, eta esqueñico dezu intzentsua aldarearen gañean:

14 Baña chalaren araguiac eta larrua eta gorotza erreco dituzu egonlecutic campoan: ceren pecatua gatic da.

15 Artuco ere dezu ari bat, ceñaren buruaren gañean jarrico dituzte escuac Aaronec eta bere semeac.

16 Ceñ ill eta, artuco dezu bere odoletic, eta ixurico dezu aldarearen inguruan.

17 Baña aria bera ebaquico dezu zatietan: eta garbituric bere esteac eta oñac ipiñico dituzu aragui zatituen gañean, eta bere buruaren gañean.

18 Eta esqueñico dezu ari guztia erreric aldarearen gañean: Jaunari eguiten zayon emaitza da, Jaunaren esqueintzariaren usai chit gozoa.

19 Artuco ere dezu beste aria, ceñaren buruaren gañean jarrico dituzte escuac Aaronec eta bere semeac.

20 Ceñ ill eta, artuco dezu bere odoletic, eta ipiñico dezu Aaron eta bere semeen escuico belarriaren mocoan, eta beren escuaren eta escuico oñaren beatz

lodien gañean, eta ixurico dezu odola aldarearen gañean inguruan.

21 Eta arturic aldare gañean dagoen odoletic, eta untzioco oliotic, intzatuco dituzu Aaron eta bere ſoñecoac, ſemeac eta beren ſoñecoac. Eta conſagraturic berac eta ſoñecoac,

22 Artuco dezu ariaren guicena, eta buztana, eta errayac eſtaltzen dituen guicena, eta guibelaren ſarea, eta guiltzurrun biac, eta beren gañean dagoen gantza, eta eſcuico ſorbalda, conſagracioco aria dalaco:

23 Eta ope bat, opill oliorequin orratu bat, eta legamigabeen ſaſquichoco laſaña bat ipiñita dagoena Jaunaren aurrean:

24 Eta ipiñico dituzu guztiac Aaron eta bere ſemeen eſcuen gañean, eta ſantutuco dituzu alchaturic Jaunaren aurrean.

25 Eta artuco dituzu guztiac beren eſcuetatic: eta erreco dezu aldare gañean eſqueintzaria eguiteco, uſai chit gozoa Jaunaren aurrean, ceren bere esqueintzaria da.

26 Artuco ere dezu ariaren bularra, ceñaz conſagratua izan zan Aaron, eta ſantutuco dezu alchaturic Jaunaren aurrean, eta izango da zure partea.

27 Eta ſantutuco ere dezu bular conſagratua, eta aritic berecitu cenduen ſorbalda,

28 Ceñaz conſagratuac izan ciraden Aaron eta bere ſemeac, eta izango dirade Aaronen eta bere ſemeen parteac betico tocamenez Iſraelco ſemeen eſqueintzarietan: ceren dirade beren doai paquetſu Jaunari eſqueintzen diozcatenen autatuenac, eta lenengoa.

29 Eta Aaronec darabillen ſoñeco ſantua, iduquico dute bere ſemeac berc ondoren, jantzita daudela unjituac izan ditecen, eta conſagratuac beren eſcuac.

30 Zazpi egunean erabillico du bere ſemeetatican apaiznaguſi bere lecuan jarria izan danac, eta ſartzen danac teſtimonioco tabernaculora, ſantulecuan lanean aritzeco.

31 Eta artuco dezu conſagracioco aria, eta egoſico dituzu bere araguiac toqui ſantuan:

32 Ceñac jango dituzten Aaronec eta bere ſemeac. Jango ere dituzte teſtimonioco tabernaculoaren ſarreran ſaſquichoan dauden oguiac,

33 Izan dedin bigungarria eſqueintzaria, eta ſantutuac izan ditecen eſqueintzalleen eſcuac. Arrotzac ez du jango beretatic, ceren ſantuac dirade.

34 Eta gueldituco baldin balitz aragui, edo ogui conſagratuetatic cerbait goiceraño, erreco dituzu condoac ſuan: ez dirade jango, ceren dirade gauza ſantutuac.

35 Aguindu dizquizudan gauza guztiac Aaron eta bere ſemeen gañean eguingo dituzu. Zazpi egunean conſagratuco dituzu beren eſcuac:

36 Eta eſqueñico dezu egunero chal bat pecatua barcatua izan dedin. Eta garbituco dezu aldarea eguiten dezunean eſqueintzaria, pecatutic garbitua izateco, eta ſantutzeco untatuco dezu.

37 Zazpi egunean garbitu, eta ſantutuco dezu aldarea, eta izango da chit ſantua: uquitzen dion guztia ſantutu bearco da.

38 Au da aldare gañean eſqueñico dezuna: Egunoro urtebarruco arcume bi ſeculacotz,

39 Arcume bat goicean, eta beſtea arratſaldean,

40 Eſi baten amargarren parte iriñ lore hin baten laugarren parte aceituna zapalduen olioz intzatua, eta berebat ardo eſqueintzarietaraco arcume bacoitzarequin.

41 Eta arratſaldetic eſqueñico dezu beſte arcumea goiceco eſqueintzariaren ceremoniaren araura, eta eſan degun becela, uſai gozoraco:

42 Jaunari beti zuen guizaldietan eguingo zayon eſqueintzaria, teſtimonioco tabernaculoaren ſarreran, Jaunaren aurrean, ceñ dan zuri itz eguitea erabaqui dedan toquia.

43 Eta an emango dieztet nere aguinteac Iſraelco ſemeai, eta aldarea izango da ſantutua nere gloriarequin.

44 Santutuco ere det teſtimonioco tabernaculoa aldarearequin, eta Aaron bere ſemeaquin, apaicen lanetan ari ditecen neretzat.

45 Eta bicico naiz Iſraelco ſemeen erdian, eta izango naiz beren Jaungoicoa.

46 Eta jaquingo dute ni naicela beren Jaun Jaungoico Egiptoco lurretican atera nituena beren artean guelditzeco, ni beren Jaun Jaungoicoa.

XXX. Cap.

EGUINGO ere dezu aldare bat ſetim zurez lurrin gayac erretzeco,

2 Dituena luceeran beſo bat, eta zabaleran beſte bat, au da, lauquia, eta bi beſo alturan. Adar batzuec ateraco dirade bertatican.

3 Eta eſtalico dezu urreric garbienaz, baitaere erreja, eta bai paretac inguruan, eta adarrac. Eta eguingo diozu urrezco coroicho bat inguruan,

4 Eta urrezco eraztun bi coroyaren azpian alde bacoitzetic ſartzeco beretatic aga batzuec, eta eramana izan dedin aldarea.

5 Eta eguingo ere dituzu agac berac ſetim zurez, eta urrez eſtalico dituzu.

6 Eta ipiñico dezu aldarea beloaren aurrean, ceñ dagoen ichequita propiciatorioaren aurrean, ceñaz eſtaltzen dan teſtimonioa, non itz eguingo dizudan.

7 Eta Aaronec erreco du goicetic bere gañean uſai gozoco intzentſua. Compontzen dituenean lamparac, iracequico dio:

8 Eta pizten dituenean illunabarrean, erreco du lurrin gai beticoa Jaunaren aurrean zuen guizaldietaraco.

9 Ez dezute eſqueñico bere gañean beſte gairequin eguindaco lurrin gairic, ez eſqueintzariric, ez doairic, ez emaitzic.

10 Eta erregutuco du Aaronec bere adarren gañean urtean bein pecatua gatic eſqueñia izan zan odola ixuriric, eta onen bitartez biguntaſuna irichico du zuen guizaldietan. Gauza chit ſantua izango da Jaunarentzat.

11 Eta itz eguin cion Jaunac Moiſeſi, eſaten zuela:

12 Ateratzen dezunean Iſraelco ſemeen contua cembat diranen araura, bacoitzac emango dio Jaunari cerbait bere anima gatic, eta ez da beretan izango zorigaitzic, contatuac diradenean.

13 Eta contatua dan guztiac emango du ſiclo baten erdia temploco piſuaren araura. Siclo batec oguei obolo dauzca. Siclo baten erdia izango zayo eſqueñia Jaunari.

14 Contatua danac, oguei urtez gora, emango du precioa.

15 Aberatſac ez dio ecer gueituco ficloaren erdiari, eta beartſuac ez du ecer guchituco.

16 Eta arturic Iſraelco ſemeac eman duten dirua, emango dezu teſtimonioco tabernaculoaren premientzat, izan dedin beren oroipengarri bat Jaunaren aurrean, eta erruquitu dedin beren animaquin.

17 Eta itz eguin cion Jaunac Moiſeſi, eſaten zuela:

18 Eguingo ere dezu cobrezco bacia bat bere ondoarequin garbitzeco: eta ipiñico dezu teſtimonioco tabernaculoaren eta aldarearen bitartean. Eta botaric ura,

19 Garbituco dituzte bertan Aaronec eta bere ſemeac beren eſcuac eta oñac,

20 Sartzen diradenean teſtimonioco tabernaculoan, eta allegatzen diradenean aldarera, eſqueintzera bere gañean Jaunari lurrin gayac,

21 Guertatu ez dedin ill ditecen. Betico legue bat izango da au beretzat eta bere jatorriarentzat guizaldietatic.

22 Eta itz eguin cion Jaunac Moiſeſi,

23 Eſaten zuela: Artu itzatzu aromac, mirraric obenen eta autatuaren boſt eun ſiclo, eta cinamomoaren erdia, au da, berreun eta berroguei ta amar ſiclo, eta berebat cañabera uſaitſuaren berreun eta berroguei ta amar,

24 Eta canelaren boſteun ſiclo ſantulecuco piſuan, aceitunen oliotic hinen neurria:

25 Eta eguingo dezu untzioco olio ſantua, oquendu lurringaiguillearen lanaren araura eguiña,

26 Eta untatuco dezu beraz teſtimonioco tabernaculoa, eta teſtamentuco cucha,

27 Eta maya bere ontziaquin, candeleroa, eta bere uſu bearrac, lurrin gayen aldareac.

28 Baitaere olocauſtoarena, eta beren premietaraco bear dituzten treſna guztiac.

29 Eta gauza guzti oyec ſantutuco dituzu, eta izango dirade chit ſantuac: uquitzen diena, ſantutuco da.

30 Unjituco dituzu Aaron eta bere ſemeac, eta ſantutuco dituzu, ari direcen neretzat apaicen lanetan.

31 Iſraelco ſemeai ere eſango diezu: Untzioco olio au ſantua izango da neretzat zuen guizaldietan.

32 Guizonaren araguiric ez da berac unjitua izango, eta bera eguin oi dan erara ez dezute beſteric eguingo, ceren

ſantutua dago, eta ſantua izango da zuentzat.

33 Alacoric eguiten duen edoceñ guizon, eta bertatic ematen diona erbeſtecoari, arroztua izango da bere erritic.

34 Eta eſan cion Jaunac Moiſeſi: Artu itzatzu zuretzat aromac, eſtacte ta oniquea, uſai oneco galbanoa, eta intzentſuric arguiena; piſu berdiñecoac izango dirade guztiac:

35 Eta eguingo dezu lurrin gai bat lurringaiguillearen lanaren araura eguiña, chit ongui naſia, eta garbia, eta niri eſqueñia izateco chit diña.

36 Eta guztia auts chit chean eotu ezquero, jarrico dezu bertatic teſtimonioco tabernaculoaren aurrean, ceñ toquitan aguertuco natzatzun. Chit ſantua izango da zuentzat lurrin gaya.

37 Alacoric ez dezute eguingo zuen uſuetaraco, ceren Jaunari conſagratutaco gauza da.

38 Alacoric eguiten duen edoceñ guizon berari uſai eguiteco, galdua izango da bere errien erditican.

XXXI. Cap.

ETA itz eguin cion Jaunac Moiſeſi, ciola:

2 Ona non, autatu dedan bere icenez Beſeleel Uri Hurren ſemearen ſemea Judaco tribucoa,

3 Eta bete det Jaungoicoaren eſpirituz, jaquinduriz, eta adieraz, eta jaquindez eſcu lan guztiraco,

4 Aſmatzeco eguin al dezaquen lan guztia urrez, eta cillarrez, eta cobrez,

5 Marmolez, eta arri baliotſuz, eta zur aſcoz.

6 Eta eman cion laguntzat Ooliab Aquiſamet Dango tribucoaren ſemea. Eta jarri det jaquinduria jaquinti guztiaren biotzean: eguin ditzaten aguindu dizquizudan gauza guztiac,

7 Elcartaſuneco tabernaculoa, eta teſtimonioco cucha, eta bere gañean dagoan propiciatorioa, eta tabernaculoco ontzi guztiac,

8 Eta maya ta bere ontziac, candelero chit garbia bere ontziaquin, eta lurrin gayaren aldareac,

9 Eta olocauſtoarena, eta beren ontzi guztiac, bacia bere ondoaquin,

10 Soñeco ſantuac Aaron eta bere ſemeentzat apaiz lanean, beren eguiteetan ari ditecen gauza ſantuetan,

11 Untzioaren olioa, eta aromen lurrin gayac ſantulecuan: eguingo dituzte aguindu dizquizudan gauza guztiac.

12 Eta itz eguin cion Jaunac Moiſeſi, ciola:

13 Itz eguin zayezu Iſraelco ſemeai, eta eſango diezu: Beguira, gorde dezazutela nere larumbata: ceren da nere eta zuen arteco ſeñalea zuen guizaldietan: jaquin dezazuten ni naizala ſantutzen zaituztedan Jauna.

14 Gorde ezazute nere larumbata. Ceren ſantua da zuentzat: gaizqui iragotzen duena, eriotzez caſtigatua izango da: lanic bertan eguiten duena, galduco da bere erriaren erditic.

15 Sei egunean arico cerate lanean: zazpigarren egunean larumbata da, atſeden ſantua Jaunarentzat: egun onetan lanic eguiten duen guztia, illco da.

16 Gorde bezate Iſraelco ſemeac larumbata, eta celebratu bezate beren guizaldietan. Erabaqui au beticoa da

17 Nere ta Iſraelco ſemeen artean, eta ſeñale iraunconra: ceren ſei egunean eguin cituen Jaunac cerua ta lurra, eta zazpigarrenean etzuen lanic eguin.

18 Eta bucaturic onelaco itzaldiac Sinaico mendian, eman ciozcan Jaunac Moiſeſi teſtimonioco bi arriol Jaungoicoaren beatzaz eſcribatuac.

XXXII. Cap.

BAÑA icuſiric erriac luzatzen zuela Moiſeſec menditican jachitzea, bilduric Aaronen contra, eſan zuen: Jaiqui zaite, eguin zazquiguzu gure aurretic joango diraden jaungoicoac: ceren ez daquigu cer guertatu zayon Egiptoco lurretic atera guiñituen Moiſes guizon orri.

2 Eta eſan cien Aaronec: Artu itzatzute urrezco belarricoac zuen emazteen, eta ſemeen, eta alaben belarrietatic, eta ecarri zazquidazute.

3 Eta eguin cituen erriac aguindu citzazquion gauzac, belarricoac eramanic Aaron gana.

4 Ceñac berac arturic, urtueraci cituen, eta uſtu molde baten, eta eguin zuen beraquin urrezco chal bat. Orduan eſan zuten: Iſrael, oyec dirade Egiptoco lurretic atera cinduzten zure jaincoac.

5 Icuſi zuenean au Aaronec, eguin zuen aldare bat bere aurrean, eta deadar

eguin zuen pregoilariaren bozaz ciola: Biar Jaunaren jai andia da.

6 Eta goiz jaiquitzen ciradela, eſqueñi cituzten emaitzac, eta doai paquetſuac, eta eſeri zan erria jateco ta edateco, eta jaiqui ciraden joſtatzera.

7 Eta itz eguin cion Jaunac Moiſeſi, ciola: Zoaz, jaiqui zaite: pecatu eguin du Egiptoco lurretic atera cenduen zure erriac.

8 Laſter alde eguin dute eracutſi ciñien bidetic: eta eguin dute chal bat gai urtuz, eta adoratu dute, eta eſqueintzen diozcatela doayac, eſan dute: Oyec dirade, Iſrael, Egiptoco lurretic atera cinduzten zure jaincoac.

9 Eta berriz eſan cion Jaunac Moiſeſi: Icuſten det erri au buru gogorrezcoa dala:

10 Utzi zadazu, iracequi dedin nere ſumindura beren contra, eta deſeguin ditzadan, eta eguingo zaitut erri andi baten zucentzalle.

11 Baña Moiſeſec erregutzen cion bere Jaun Jaungoicoari, eſaten zuela: ¿Cergatic, Jauna, iracequitzen da zure ſumindura ſendotaſun andiz, eta eſcu indartſuz Egiptoco lurretic atera cenduen zure erriaren contra?

12 Ez dezarela eſan, erregututzen dizut, egiptotarrac: Mañaz atera ditu illtzeco mendietan, eta arras quentzeco lurretic: bigundu bedi zure aſerrea, eta barca ezazu zure erriaren gaiztaqueria.

13 Oroitu zaite zure ſerbitzari Abraham, Iſaac, eta Iſraelez, ceñai juramentu eguin ciñien zu cerori gatic, eſaten cenduela: Ugarituco det zuen jatorria ceruco izarrac becela: eta emango diot zuen jatorriari lur guzti au, ceñ gatic its eguin dedan, eta izango da beti zuena.

14 Onenbeſterequin bigundu zan Jauna, eta etzion eman bere erriari eſan zuen caſtigua.

15 Eta itzuli zan Moiſes menditic ceramazquiela bere eſcuan teſtimonioco ol bi alde bietatic eſcribatuac,

16 Eta Jaungoicoac eguiñac: eta Jaungoicoaren eſcritura cegoan itſatſia oletan.

17 Eta adituric Joſuec deadarca ari zan erriaren iſcambilla, eſan cion Moiſeſi: Gudaren ojuac aditzen dira etzanlecuetan.

18 Ceñac erantzun zuen: Ez da gudara elcar ciricatzen duten jendeen deadarra, ez igueſeracitzen dutenen ojuac: baicic cantatzen dutenen boza aditzen det nic.

19 Eta alderaturic etzanlecuetara, icuſi cituen chala ta dantzac: eta andizquiro aſerraturic, bota cituen eſcutic olac, eta zatitu cituen mendiaren ondoan.

20 Eta eguin zuten chala elduric, erre, ta puſcatu zuen autſeraño, ceñ zabaldu zuen urean, eta bertatic eman cien edaten Iſraelco ſemeai.

21 Eta eſan cion Aaroni: ¿Cer eguin dizu erri onec bere gañera pecatu ain andia eracartzeco?

22 Ceñi berac erantzun cion: Ez bedi aſerratu nere jauna: ceren zuc ezagutzen dezu erri au, nola dan gaitzera griñatua:

23 Eſan cidaten: Eguin zazquiguzu gure aurretic joango diraden jaungoicoac: ceren ez daquigu cer guertatu zayon Egiptoco lurretic atera guinducen Moiſes oni.

24 Ceñai nic eſan nien: Zuetaco ceñec du urrea? Ecarri zuten, eta eman cidaten: eta bota nuen futara, eta atera zan chal au.

25 Icuſiric bada Moiſeſec erantziric cegoala erria (ceren Aaronec utzi zuen jantzi gabe loiqueriaren lotſaria gatic, eta ipiñi zuen larrugorritan etſayen artean),

26 Eta cegoala etzanlecuetaco atean, eſan zuen: Iñor baldin bada Jaunarena, bildu bedi nerequin. Eta bildu ciraden berarequin Leviren ſeme guztiac:

27 Ceñai eſan cien: Oyec eſaten ditu Iſraelco Jaun Jaungoicoac: Jarri beza bacoitzac ezpata bere alboan: zoazte, eta itzuli zaitezte ateric ate eſzauntzen erditic, eta ill beza bacoitzac bere anaya, eta adiſquidea, eta laguna.

28 Eta eguin zuten Leviren ſemeac Moiſeſen itzaren araura, eta ill ciran egun artan oguei ta iru milla guizon becelaxe.

29 Eta eſan zuen Moiſeſec: Gaur conſagratu diozcazute Jaunari zuen eſcuac, bacoitzac bere ſeme, eta anayaren contra; argatic izango cerate bedeincatuac.

30 Urrengo egunean eſan cion Moiſeſec erriari: Eguin dezute pecatu guciz andi bat: igoco naiz Jauna gana, baldin nolabait ecarri al badezaquet Jauna zuezaz erruquitzera.

31 Eta itzuliric Jauna gana eſan zuen: Aditu nazazu: erri onec eguin du pecatu chit andi bat, eta eguin ditu beretzat urrezco jaungoicoac: edo barcatu zayozu uts au,

32 Edo, eguiten ez baldin badezu, borratu nazazu eſcribatu dezun liburutican.

33 Ceñi erantzun cion Jaunac: Pecatu eguiten duena nere contra, borratuco det nere liburutic:

34 Baña zu zoaz, eta eraman ezazu erri au eſan dizudan toquira: nere ainguerua joango da zure aurretican. Eta neronec bengantzaco egunean caſtigatuco det oraindican eguin duten pecatu au.

35 Caſtigatu zuen bada Jaunac erria Aaronec eguin zuen chalaren pecatua gatic.

XXXIII. Cap.

ETA itz eguin cion Jaunac Moiſeſi, eſaten zuela: Zoaz, igo zaitezte toqui onetatic zu, eta zure erri Egiptoco lurretican atera cenduena, Abrahami, Iſaaqui, eta Jacobi juramentuz eſqueñi nien lurrera, eſaten nuela: Zure jatorriari emango diot:

2 Eta bidalduco det zure aurretican aingueru bat, botatzeco neronec canaantar, eta amorreotar, eta hettar, eta ferezeotar, eta heveotar, eta jebuſtarra,

3 Eta ſartu zaitecen eſnea eta eztia darion lurrean. Bada ez naiz igoco zurequin, ceren buru gogorrezco erria cera: icuſi ez nadin zu bidean galtzeco premian.

4 Eta adituric erriac izqueta chit garratz au, negar eguin zuen: eta etzituen iñorc jantzi oi cituen apaingarriac.

5 Eta eſan cion Jaunac Moiſeſi: Eſan zayezu Iſraelco ſemeai: Buru gogorrezco erria cera: bein aguertzen banaiz zure erdian, deſeguingo zaitut. Orain utzi itzatzu zure apainduriac, jaquin dezadan cer eguingo dizudan.

6 Utzi cituzten bada Iſraelco ſemeac beren apainduriac Horebco mendiaren ondoan.

7 Eta Moiſeſec quenduric tabernaculoa, zabaldu zuen urrutian etzanlecuetatic campora, eta deitu zuen, elcartaſuneco tabernaculoa. Eta cerbaiten gañean galdetzeco premian arquitzen ciraden errico guztiac, ateratzen ciraden elcartaſuneco tabernaculora, etzanlecuetatic campora.

8 Eta ateratzen zanean Moiſes tabernaculora, jaiquitzen zan erri guztia, eta bacoitza cegoan zutic bere dendaren atean, eta beguiratzen cioten Moiſeſen atzeari, tabernaculoan ſartzen zan arteraño.

9 Eta ſartzen zaneco bera elcartaſuneco tabernaculoan, jachitzen zan odeizco abe bat, eta guelditzen zan atean, eta itz eguiten zuen Moiſeſequin,

10 Icuſten zutela guztiac nola odeizco abea cegoan tabernaculoaren atean. Eta berac ceuden zutic, eta adoratzen zuten beren denden ateetatic.

11 Eta itz eguiten cion Jaunac Moiſeſi arpeguiz arpegui, guizon batec itz eguin oi dion becela bere adiſquideari. Eta itzultzen zanean bera etzanlecuetara, bere ſerbitzari Joſue gazte Nunen ſemeac etzuen alderic eguiten tabernaculotic.

12 Eta eſan cion Moiſeſec Jaunari: Aguintzen didazu atera dezadala erri au, eta ez didazu eracuſten ceñ bidalduco dezun nerequin, batezere zuc eſan cenduan ezquero: Ezagutzen zaitut zure icenez, eta arquitu dezu gracia nere aurrean.

13 Baldin bada arquitu badet gracia zure aurrean, eracutſi zadazu zure arpeguia, ezagutu zaitzadan, eta arquitu dezadan gracia zure beguien aurrean: beguiratu zayozu zure erria dan jende oni.

14 Eta eſan zuen Jaunac: Ni nerau joango naiz zure aurretic, eta emango dizut atſedena.

15 Eta eſan zuen Moiſeſec: Zu cerori joaten ez baldin bacera aurretic, ez gaitzatzu atera toqui onetatic.

16 ¿Ceren certan jaquin dezaquegu nic eta nere erriac gracia arquitu degula zure aurrean, ibiltzen ez baldin bacera gurequin, lurraren gañean bici diraden erri guztiac ondratuac izan gaitecen?

17 Eta eſan cion Jaunac Moiſeſi: Eſan dezun itz ori ere eguingo det: bada arquitu dezu gracia nere aurrean, eta zu cerori zure icenez ezagutzen zaitut.

18 Ceñac eſan zuen: Eracutſi zadazu zure gloria.

19 Erantzun zuen: Nic eracutſico dizut on gucia, eta eſango det Jaunaren icena zure aurrean: eta erruquituco naiz

nai dedanez, eta izango naiz biguña deritzadanarequin.

20 Eta berriz esan zuen: Ecin icusico dezu nere arpeguia: bada ez nau icusico guizonec, ill gabetanic.

21 Eta beste aldi batean: Ona, esan zuen, toqui bat bada nere aldean, eta egongo cera arcaitzaren gañean.

22 Eta iragotzen dauean nere gloria, ipiñico zaitut arriaren zuloan, eta estalico det nere escuyez, igaro nadin bitartean.

23 Eta quenduco det nere escua, eta atzetic icusico nazu: nere arpeguia ordea ecin icusico dezu.

XXXIV. Cap.

ETA guero esan zuen: Ebaqui itzatzu bi arriol lembicicoac becelacoac, eta escribatuco ditut beren gañean autsi ciñituen olac cituzten itzac.

2 Prest zaude biarco, igo zaitecen bereala Sinaico mendira, eta egongo cera nerequin mendi tontor gañean.

3 Ez bedi iñor igo zurequin; ez bedi ere iñor icusi mendi guztian: idiric eta ardiric ere ez bitez bere aurrean larrean ibilli.

4 Ebaqui cituen bada arriol bi leenac becelacoac: eta jaiquiric gauaz igo zan Sinaico mendira, Jaunac aguindu cion becela, olac berequin ceramazquiela.

5 Eta jachiric Jauna odei batean, egon zan Moises berarequin, deitzen ciola Jaunaren icenari.

6 Ceñ iragotzen zala bere aurretic, esan zuen: Jaun Jaungoico aguintzallea, urricaltsu ta biotzbera, sufritzallea ta erruqui ascocoa, eta eguitia,

7 Gordetzen dezuna urricaltasuna millentzat, quentzen dituzuna gaiztaqueria, eta biurriqueriac, eta pecatuac, eta ceñen aurrean ez dagoan berez faltagaberic. Castigatzen dezuna gurasoen gaiztaqueria seme, ta illobacgan irugarren eta laugarren jatorriraño.

8 Eta ariñ Moises, macurtu zan lurrera beguira, eta adoratzen zuela

9 Esan zuen: Jauna, arquitu baldin badet gracia zure aurrean, erregutzen dizut ibilli zaitecela gurequin (ceren buru gogorrezco erria da) eta barcatu ditzatzula gure gaiztaqueri ta pecatuac, eta gurequin jabetu zaitecela.

10 Erantzun zuen Jaunac: Nic eguingo det elcartasuna guztien aurrean; iñoiz lurraren gañean, eta jende baten eguin ez diraden miriac eguingo ditut: icusi dezan erri onec, ceñaren erdian zauden, eguingo dedan Jaunaren lan icaragarria.

11 Gorde itzatzu gaur aguintzen dizquizudan gauza guztiac: nic neronec botaco ditut zure aurretican amorreotar, eta canaantar, eta hettarra; ferezeotarra ere, eta heveotarra, eta jebustarra.

12 Beguira ezazu ez dezazula iñoiz iduqui lur artan bici diradenaquin adisquidetasunic, ceren izango da zure galmeneraco:

13 Baicic deseguin itzatzu beren aldareac, pusatu arrizco ichurac, ta basoac ebaqui;

14 Ez ezazu adoratu besteren jaungoicoric. Jaunaren icena da celotsua; bacarric maitatua izan nai du Jaincoac.

15 Ètzaite elcartu erri artaco guizonaquin, beren jaungoicoaquin usteldu, eta beren ichurac adoratu ezquero, norbaitec combidatu etzaitzan gauza esqueñiac jatera.

16 Ez dezu ere artuco beren alabetatic emazteric zure semeentzat: berac adoraturic guezurrezco jaungoicoac, guertatu ez dedin ecartzea zure semeac ere guezurrezco jaungoicoac adoratzera.

17 Ez dezu eguingo gauza urtuzco jaungoicoric.

18 Gordeco dezu ogui legamigabeen jai andia. Zazpi egunean jango dituzu, aguindu dizudan becela, frutu berrien illaren demboran: ceren udaberrico illean atera ciñan Egiptotic.

19 Emasabela idiquitzen duen ar guztia, nerea izango da: abere guztietacoa, naiz idi, naiz ardietacoa, nerea izango da.

20 Asloaren lembicisortua erosico dezu ardi batequin: eta ematen ez baldin badezu bera gatic balioa, illa izango da. Zure semeen lembicisortua erosico dezu: etzera ere aguertuco utsic nere aurrean.

21 Sei egunean arico cera lanean: zazpigarren egunean ez dezu goldeatuco, ez igaitaituco.

22 Celebratuco dezu asteen jaya zure gari ebaquiaren autatuenaquin, eta beste jaya, urtearen bucaeran gucia biltzen dauean.

23 Urtearen iru eratan prefentatuco dirade zure guizaseme guztiac Israelco Jaun Jaungoico gucialaren aurrean.

24 Ceren quentzen ditudanean zure aurretic jendeac, eta zabaldu zure mu-

gac, ez diozca iñorc ipiñico celatac zure lurrari, igotzen cerala zu, eta aguertzen zure Jaun Jaungoicoaren aurrean urtean iru aldiz.

25 Ez dezu eſqueñico legamiarequin nere bitimaren odola: ez da ere gueldituco biaramoneraco pazcoa jai andiaren eſqueintzaric.

26 Zure lurreco laboreen autatuenac eſqueñico dituzu zure Jaun Jaungoicoaren echean. Ez dezu egoſico anchumea bere amaren eſnean.

27 Eta eſan cion Jaunac Moiſeſi: Eſcribatu itzatzu zuretzat itz oyec, ceñez eguin det elcartaſuna zurequin eta Iſraelequin.

28 Egon zan bada an Jaunarequin berroguei egunean eta berroguei gautan: etzuen jan oguiric, eta etzuen edan uric, eta eſcribatu cituen oletan elcartaſuneco amar itzac.

29 Eta jachitzen zala Moiſes Sinaico menditic, ceramazquien teſtimonioco ol biac, eta etzequien arguitua cegoela bere arpeguia Jaunaren itzaldiaren laguntaſuna gatic.

30 Eta icuſiric Aaronec eta Iſraelco ſemeac Moiſeſen arpeguia arguitua, bildur ciran guertura alderatzen.

31 Baña izanic beronec deituac, joan ciraden, bai Aaron, eta bai ſinagogaco lenenac. Eta berai itz eguin ezquero,

32 Etorri ciraden bera gana Iſraelco ſeme guztiac ere: ceñai aguindu ciezten Sinaico mendian Jaunari aditu ciozcan gauza guztiac.

33 Eta itzaldiac bucaturic, jarri zuen belo bat bere arpegui gañean.

34 Ceñ ſartzen zanean Jauna gana, eta berarequin izquetan ari zanean, quentzen zuen atera artean, eta orduan eſaten ciezten Iſraelco ſemeai aguinduac izan citzayozcan gauza guztiac.

35 Ceñac icuſten zuten arguitua cegoala Moiſeſen arpeguia ateratzen zanean, baña berac berriz eſtaltzen zuen bere arpeguia, berai itz eguiten cien guztian.

XXXV. Cap.

BILDURIC bada Iſraelco ſemeen talde guztia, eſan cien: Oyec dirade Jaunac eguiteco aguindu dituen gauzac.

2 Sei egunean arico cerate lanean: zazpigarren eguna izango da zuentzat ſantua, larumbata, eta Jaunaren atſedena: bertan lanic eguiten duena, illa izango da.

3 Ez dezute iracequico ſuric zuen bicitoqui guztietan larumbateco egunean.

4 Eta eſan cien Moiſeſec Iſraelco ſemeen guizadi guztiari: Au da Jaunac aguindu duen itza, diola:

5 Berecian paratu itzatzute zuen artean autatuenac Jaunarentzat. Bacoitzac eſqueñi bitzazquio Jaunari borondatez eta gogo onez: urre ta cillarra, eta cobrea,

6 Jacinto ta purpura, eta grana bi alditan tintatua, eta liño fiña, eta auntz illeac,

7 Eta ari larru gorrituac, eta bioleta colorezcoac, ſetim zurac,

8 Eta olioa lamparac maneatzeco, eta oquendua eguiteco, eta lurrin gai chit gozoac,

9 Oniz arriac, eta beſte arri baliotſuac ſorbaldagañeco ta bularreco ſoñecoac apaintzeco.

10 Zuen artean jaquintſua dan guztia, betor, eta eguin beza Jaunac aguindu duena:

11 Au da, tabernaculoa, eta bere tellatua, eta eſtalquia, eraztunac, eta oltzarrac agaquin, eſtacac eta ondoac.

12 Cucha ta cigorrac, propiciatorioa, eta bere aurrean zabaltzen dan beloa:

13 Maya bere cigorraquin eta ontziaquin, eta propoſicioco oguiac:

14 Candelcroa lamparac iduquitzeco, bere ontziac eta lamparachoac, eta olioa arguiac iraun dezaten:

15 Lurrin gayaren aldarea, eta bere cigorrac, eta untzioco olioa, eta aromazco lurrin gaya: beloa tabernaculoaren atean:

16 Eſqueintzariaren aldarea, eta bere cobrezco erreja bere cigor eta ontziaquin: bacia ta bere ondoa:

17 Atarico cortiñac abe eta ondoaquin, beloa atariaren atean,

18 Tabernaculoco eta atarico eſtacac beren cordoyaquin:

19 Santulccuco lanetan erabilli oi diraden ſoñecoac, Aaron apez naguſiaren eta bere ſemeen jantziac, apez lanetan ari ditecen neretzat.

20 Eta ateraric Iſraelco ſemeen talde guztia Moiſeſen aurretic,

21 Eſqueñi ciozcaten Jaunari borondate chit ariñ eta onez autatuenac teſtimonioco tabernaculoaren lana eguiteco. Ceremonia ta ſoñeco ſantuetaraco bear zan guztia,

22 Guizaſemeac emacumeaquin eman cituzten eſcumuturretacoac eta belarricoac, eraztunac eta eſcuico apaingarriac: urrezco ontzi guztiac ipiñiac izan ciraden berecian Jaunari eſqueintzeco.

23 Iñorc baldin bazuen jacintoric, eta purpuraric, eta bi aldiz tintatutaco granaric, liño fiñic eta auntz illeric, ari larru gorrituric, eta bioleta colorezcoric,

24 Cillarezco eta cobrezco gairic eſqueñi ciozcaten Jaunari, eta ſetim zurac uſu aſcotaraco.

25 Baitaere irun zuten emacume jaquintſuac, eman cituzten jacintoa, purpura, eta eſcarlata, eta liño fiña,

26 Eta auntzen illeac, beren borondatez ematen zutela guztia.

27 Eta principeac eſqueñi cituzten oniz arriac, eta beſte arri baliotſuac forbaldagañeco, eta bularreco foñecoentzat,

28 Eta aromac eta olioa lamparac maneatzeco, eta oquendua preſtatzeco, eta uſai chit gozozco lurrin gaya eguiteco.

29 Gogo onezco guizaſeme eta emacume guztiac, eſqueñi cituzten doayac, Moiſeſen eſcuz Jaunac aguindu cituen lanac eguiteco. Iſraelco ſeme guztiac borondatez conſagratu ciozcaten Jaunari beren doayac.

30 Eta eſan cien Moiſeſec Iſraelco ſemeai: Beguira, nola ots eguin dion Jaunac bere icenez Beſeleel Uri Hurren ſemearen ſeme Judaco tribucoari.

31 Eta bete du Jaungoicoaren eſpirituz, jaquindez, adieraz, jaquinduriz, eta cintzoera guztiz,

32 Aſmatu eta eguiteco lanac urre ta cillar, eta cobrez,

33 Eta arri eſculpituz, eta arotz lanez. Artez aſmatu al daitequen guztia,

34 Jarri du bere biotzean: eta berebat Ooliab Aquiſamequen ſeme Dango tribucoa:

35 Bioc arguitu cituen jaquinduriz eguiteco lanac zurean, colore aſcotaco oyaletan, jacintozco, eta purpurazco, eta bi aldiz tintatutaco granazco, eta liño fiñezco bordatuetan, eta eo ditzaten gauza guztiac, eta edoceñ lan berri asmatu ditzaten.

XXXVI. Cap.

BESELEEL, eta Ooliabec bada, eta guizon jaquintſu guciac, ceñai Jaunac jaquinduri ta adimentua eman ciezten artez lan eguiteco ſantulecuaren uſuetaraco premiazcoac diraden gauzac, eguin cituzten Jaunac aguindu cituenac.

2 Eta ots eguiñic Moiſeſec berai, eta Jaunac jaquinduria eman cion guizon aditu guztiari, eta beren borondatez esqueñi ciradenai lana eguiteco,

3 Eman ciezten Iſraelco ſemeen esqueintzari guztiac. Ceñac ari ciradela gogotican lanean, erriac eſqueintzen cituen egunero goicetic doayac.

4 Argatic languilleac etortzera bearturic,

5 Eſan cioten Moiſeſi: Erriac eſqueintzen du bear dan baño gueyago.

6 Aguindu zuen bada Moiſeſec adirazteco pregoyaren bitartez: Ez guizaſeme, ez emacumeric ezqueñi dezala ecer emendican aurrera ſantulecuaren laneraco. Eta onela utzi zuten doayac esqueintzea,

7 Eſqueñiac aſco eta gueyegui ciradelaco.

8 Tabernaculoaren lanetaraco guizon gai eta jaquintſu guztiac bada, eguin cituzten amar cortiña liño fiñ biurtuzco, eta jacintozco, eta purpurazco, eta bi aldiz tintatutaco granazco, lan, eta bordatu mota aſcorequin:

9 Beretaco bacoitzac ceuzcan luceeran oguei ta zortzi beſo, eta zabaleran lau. Bat bera zan cortiña guztien neurria.

10 Eta itſatſi cituen Beſeleelec boſt cortiña, bata beſteari, eta beſte boſtac ere elcartu cituen beren artean.

11 Eguin ere cituen eutſcarri jacintozcoac cortiña bataren ertzean alde bietatic, eta berebat beſte cortiñaren ertzean,

12 Eutſcarriac etorri citecen bata bestearen aurrez aurre, eta elcarri itſaſteco.

13 Artaraco eguin cituen berroguei ta amar eraztun urrezco beretan catigatzeco cortiñen eutſcarriac, eta onela guelditu cedin eguiñic denda bat bacarric.

14 Eguin ere cituen amaica eſtalqui auntz illezco tabernaculoaren tellatua estaltzeco:

15 Eſtalqui bacoitzac cituen luceeran oguei ta amar beſo, eta zabaleran lau beſo: neurri batecoac ciraden eſtalqui guztiac:

16 Ceñetatic boſt elcartu cituen zati batean, eta beſte ſeirac beſtean.

17 Eta eguin cituen berroguei ta amar eutſcarri eſtalqui bataren ertzean, eta ber-

roguei ta amar beſtearenean, bata besteari elcartzeco :

18 Eta berroguei ta amar ebilla cobrezco beraquin itſaſteco tellatua, ta estalqui guztiaquin bat eguiteco.

19 Eguin ere zuen tabernaculoaren eſtalquia ari larru gorrituz : eta gañean beſte bat bioleta colorezco larruz.

20 Berebat eguin cituen ſetim zurez tabernaculoco ol zutiac.

21 Amar beſocoa zan ol bacoitzaren luceera : eta beſo bat eta erdi cituen zabalerac.

22 Bi acats ceuden ol bacoitzean bata beſtearequin catigatzeco. Eta berebat eguin zuen tabernaculoco ol guztietan.

23 Oyetatic oguei ceuden egüerdi alde egoera beguira dagoanean,

24 Berroguei urrezco ondoaquin. Jartzen ciraden bi ondo ol bacoitzaren azpian beren egui bietan, non bucatzen diran aldeetaco acatſac eguietan.

25 Eta ifarrera beguira dagoen tabernaculoaren aldera ere, eguin cituen oguei ol,

26 Berroguei urrezco ondoaquin, bi ondo ol bacoitzarentzat.

27 Eta ſartalderontz, au da, itſaſora beguira dagoen tabernaculoaren alderontz, eguin cituen ſei ol,

28 Eta beſte bi tabernaculoaren atzeco egui bacoitzarentzat :

29 Ceñac ceuden elcarturic beetic gora, eta elcarturic cetozten gorputz bat eguitera. Ala eguin zuen eguietan alde bietatic :

30 Alaco moduan, non guztiac elcarturic ciran zortzi ol, eta ceuzcaten amaſei urrezco ondo, au da, bi ondo ol bacoitzaren azpian.

31 Eguin ere cituen agac ſetim zurez, boſt iduquitzeco ſendo elcarturic olac tabernaculoaren alde batean,

32 Eta beſte boſt iduquitzeco ſendo elcarturic beſte aldecoac : eta oyez gañera beſte boſt aga tabernaculoaren ſartaldeco aldean itſaſorontz.

33 Eguin ere zuen beſte aga bat olen erditic egui batetic beſtera allegatzen zana.

34 Olezco pareta oyec beroc eſtali cituen urrezco orriz, urtuta eguiñic bere cillarrezco ondoac. Eguin ere cituen bere eraztunac urrezcoac, ceñetatic agac irago al cezaten : ceñac ere urrezco orriz estali cituen.

35 Eguin ere zuen beloa jacintozcoa, eta purpurazcoa, granazcoa, eta liño fiñ biurtuzcoa, colore nabar, eta bordatu ascorequin eoa :

36 Eta lau abe ſetim zurez, ceñac beren erpiñaquin urrez eſtali cituen, urtuta eguiñic beren cillarrezco ondoac.

37 Eguin ere cituen tabernaculoaren ſarreran cortiña bat jacintozcoa, purpurazcoa, granazcoa, eta liño fiñ biurtuzcoa, bordatulariaren lanez :

38 Eta boſt abe beren erpiñaquin, ceñac eſtali cituen urrez, eta beren ondoac urtutaco cobrez eguin cituen.

XXXVII. Cap.

ETA eguin ere zuen Beſeleelec cucha ſetim zurez bi beſo ta erdi luceeran cituena, eta beſo bat eta erdi zabaleran, eta altura ere zan beſo bat eta erdicoa : eta eſtali zuen urre chit garbiz barrendic eta campotic.

2 Eta eguin cion urrezco coroi bat inguruan,

3 Eta bere lau eguietan ipiñi cituen lau eraztun urre urtuz eguiñac : bi eraztun alde batean, eta bi beſtean.

4 Berebat eguin cituen cigor batzuec ſetim zurez, ceñac urrez eſtali cituen,

5 Eta ceñac ſartu cituen cucharen aldeetan ceuden eraztunetan cucha eramateco.

6 Eguin ere zuen propiciatoria, au da, oraculoa, urre chit garbizcoa, bi beſo ta erdicoa luceeran, eta beſo bat eta erdicoa zabaleran.

7 Baitaere bi querubin urre mallucatuz, ceñac ipiñi cituen propiciatorioaren alde bietan :

8 Querubin bat alde bataren azquenean, eta beſte querubina beſtearenean : querubin bi propiciatorioaren altueneco azquen bietan,

9 Zabaltzen cituztela egoac, eta estaltzen zutela propiciatorioa, eta elcarri eta oni beguira.

10 Eguin ere zuen mai bat ſetim zurez luceeran bi beſocoa, eta zabaleran beſo batecoa, ceñac zuen alturan beſo bat eta erdi.

11 Eta eſtali zuen urre chit garbiz, eta eguin cion urrezco ertz bat inguruan,

12 Eta ertzari berari lau beatzeco urrezco coroi bat eſculturazcoa, eta beraren gañean, beſte urrezco coroi bat.

13 Urtu eta eguin ere cituen urrezco

eraztunac, ceñac ipiñi cituen lau eguietan mayaren oñ bacoitzean

14 Coroyaren aurrean: eta ſartu cituen beretatic cigorrac, maya eramana izan lezaquen.

15 Cigorrac berac ere eguin cituen ſetim zurez, eta urrez eſtali cituen.

16 Eta ontziac maico uſu aſcotaraco, catilluac, ontzichoac, eta copac, eta intzentſonarioac urre garbizcoac, ceñetan eſqueñiac izango dirade doayac.

17 Eguin ere zuen urre chit garbizco candelero bat malluz landua. Ceñaren zortenetic ateratzen ciraden adarrac, baſochoac, eta bolachoac, eta lirioac:

18 Sei alde bietan, iru adar alde batetic, eta iru beſtetic:

19 Iru baſo inchaurren guiſara adar batean, eta berebat bolachoac eta lirioac; eta iru baſo inchaurren guiſara beſte adarrean, eta berebat bolachoac eta lirioac. Guiſa berean zan adarren lana, ceñac ateratzen ciraden candeleroaren zortenetic.

20 Eta onetan bertan ceuden lau baſo inchaurren guiſara, eta berebat bacoitzari laguntzen cioten bolachoac eta lirioac:

21 Eta bolachoac adar bien azpian iru toquitan, ceñac elcarturic dirade ſei adar ateratzen ciradenac zorten bacar batetic.

22 Eta bolachoac bada, eta beretatic ateratzen ciraden adar guztiac ciraden urre chit garbizcoac malluz eguiñac.

23 Eguin ere cituen urre chit garbizco zazpi lamparacho beren eſpabiladeraquin, eta ontziac eſpabillatzen dana itzaltzeco.

24 Talento bat urre piſatzen zuen candeleroac bere ontzi guztiaquin.

25 Eguin ere zuen ſetim zurez lurrin gayaren aldarea, lauquian beſo bat, eta alturan bi cituena: bere eguietatic ateratzen ciraden adarrac.

26 Eta eſtali zuen urre chit garbiz; baitaere erreja ta pareta ta adarrac.

27 Eta eguin cion urrezco coroi bat inguruan, eta urrezco eraztun bi coroyaren azpian alde bacoitzetic ſartzeco beretan cigorrac, eta eramana izan lezaquen aldarea.

28 Eta cigorrac berac eguin cituen ſetim zurez, eta eſtali cituen urre orriz.

29 Compondu ere zuen olioa ſantutaſuneco oquenduraco, eta lurrin gaya uſairic gozoenaquin lurringaiguillearen lanaren araura.

XXXVIII. Cap.

EGUIN ere zuen olocauſtoco aldarea ſetim zurez boſt beſocoa lauquian, eta irucoa alturan:

2 Ceñen adarrac ateratzen ciraden eguietatic, eta eſtali zuen cobre orriz.

3 Eta bere uſuetaraco preſtatu cituen cobrezco ontzi aſco, paciac, tenazac, irortzac, cacoac, eta braſaontziac.

4 Eta bere erreja ſarearen guiſara eguin zuen cobrezcoa, eta bere azpian aldarearen erdian ſutoquia,

5 Eguiñic lau eraztun errejaren lau azquenetan cigorrac ſartzeco, eta aldarea eramateco:

6 Ceñac berac ere eguin cituen ſetim zurez, eta eſtali cituen cobre orriz:

7 Eta ſartu cituen aldarearen aldeetan ateratzen ciraden eraztunetatic. Aldarea bera berriz etzan barren betea, baicic olezco arroa, eta barrendic utſa.

8 Eguin ere zuen cobrezco baci bat bere ondoaquin tabernaculoaren atean beguiratzen egon oi ciraden emacumeen iſpilluz.

9 Ataria ere eguin zuen, ceñaren egoaldean ceuden lino fiñ biurtuzco cortiñac, cun beſocoac,

10 Oguei abe cobrezco beren ondoaquin, abeen buruac, eta lanaren moldeera guztia zan cillarrezcoa.

11 Berebat ifarraldeco cortiñac, abeac eta ondoac, eta abeen buruac ciran neurri, lan, eta gai beretacoac.

12 Sartaldera beguiratzen duen aldean berriz, baciraden berroguei ta amar beſoco cortiñac, amar abe beren cobrezco ondoaquin, eta abeen erpiñac, eta lanaren moldeera guztia, cillarrezcoa.

13 Gañera ſortaldearen aurrean ipiñi cituen berroguei ta amar beſoco cortiñac.

14 Ceñetatic, amaboſt beſo ceuden alde batean; baitaere iru abe, ta bere ondoac:

15 Eta beſte aldean (bien artean eguin zuelaco tabernaculoco ſarrera) berebat ceuden amaboſt beſoco cortiñac, eta iru abe, eta beſte aimbeſte ondo.

16 Atarico cortiña guztiac liño fiñ biurtuz ceuden eoac.

17 Abeen ondoac izan ciraden cobrezcoac, eta beren erpiñac beren moldeera guztiaquin cillarrezcoac: baitaere atarico abeac eſtali cituen cillarrez.

18 Eta bere ſarreran eguin zuen cor-

tiña bat bordatua jacintoz, purpuraz, escarlataz, eta liño fiñ biurtuz, ceñac cituen oguei beſo luceeran; altura berriz boſt beſocoa zan, atarico cortiña guztiac ceuzcaten neurriaren araura.

19 Eta ſarreran ceuden abeac ciran lau cobrezco ondoaquin, eta beren erpiñac eta moldeerac cillarrezcoac.

20 Tabernaculoco eta atarico eſtacac ere eguin cituen cobrezcoac inguruan.

21 Oyec dirade teſtimonioaren tabernaculoco uſubearrac, ceñac izan ciraden contatuac Moiſeſec aguindu zuen becela levitarren lanetaraco Itamar Aaronen ſeme apaizaren eſcuz:

22 Ceñac bucatu cituen Beſelcel Uri Hurren ſemearen ſeme Judaco tribucoac, Jaunac aguintzen ciola Moiſeſen bitartez,

23 Arturic beretzat laguntzat Ooliab Aquiſamequen ſeme Dango tribucoa: ceñ ere izan zan languille chit ederra zuretan, eta bordaruetan eta gañloratzen jacintoan, purpuran, eſcarlatan eta liño fiñean.

24 Santulecuco lanean gaſtatu zan urre guztia, eta doayetan eſqueñia izan zana, oguei ta bederatzi talento, eta zazpireun eta oguei ta amar ſiclo izan zan, ſantu lecuco piſuaren araura.

25 Eta eſqueñi zuten contatuac izatera irago ciraden ſeireun eta iru milla, eta boſteun eta berroguei ta amar armazco guizonec, oguei urtez goracoac.

26 Gañera ciraden eun talento cillar, ceñetatic eguiñac izan ciraden ſantulecuco, eta beloa ichequita dagoen ſarreraco ondoac.

27 Eun ondo eguin ciraden eun talentoetatic, talento bat ondo bacoitzarentzat contaturic.

28 Eta milla zazpireun, eta iruroguei ta amaboſtetic, eguin cituen abeen erpiñac, ceñac berac ere cillarrez eſtali cituen.

29 Eſqueñiac ere izan ciraden bi milla eta iruroguei ta amar talento cobrezco, eta gañera laureun ſiclo,

30 Ceñetatic eguin ciraden ondoac teſtimonioco tabernaculoaren ſarreran, eta cobrezco aldarea bere errejarequin, eta bere uſuari dagozquion ontzi guztiac,

31 Eta atarico ondoac, naiz bere inguruan, naiz ſarreran, eta tabernaculoco ta atarico eſtacac, inguruan.

XXXIX. Cap.

ETA jacintoz eta purpuraz, eta eſcarlataz, eta liño fiñez eguin cituen ſoñecoac, ceñaquin jantzico zan Aaron ari zanean lan ſantuetan, Jaunac Moiſeſi aguindu cion becela.

2 Eguin zuen bada ſorbaldagañecoa urrez, jacintoz, eta purpuraz, eta bi aldiz tintatutaco granaz, eta liño fiñ biurtuz,

3 Colore aſcoz eoac, eta ebaqui cituen urrezco orriac, eta meetu cituen aritan, biurtu litzatequen leengo colore aſcotaco irazcayarequin,

4 Eta eguin cituen bi ertz bata besteari elcartuac altuen alde bietan,

5 Eta colore beretaco guerricoa, aguindu cion becela Jaunac Moiſeſi.

6 Preſtatu ere cituen bi oniz arri, itſatſiac eta ſartuac urrean, eta moldatu bertan arri baliotſu languillearen eſcuz Iſraelco ſemeen icenac.

7 Eta jarri cituen ſorbaldagañeco jantziaren aldeetan Iſraelco ſemeen oroipengarritzat, aguindu cion becela Jaunac Moiſeſi.

8 Eguin ere zuen bularreco jantzia, colore aſcotaco lana, ſorbaldagañecoaren guiſara, urrez, jacintoz, purpuraz, eta bi aldiz tintatutaco granaz, eta liño fiñ biurtuz:

9 Lauquia, birritan aimbat, arra baten neurricoa.

10 Eta ipiñi cituen bertan arri baliotſuz lau errencada. Lenengo errencadan cegoan ſardioa, topacioa, eſmeralda.

11 Bigarrenean, carbuncloa, zafiroa eta jaſpea.

12 Irugarrenean, ligurioa, agata, eta ametiſtoa.

13 Laugarrenean, criſolitoa, oniza, eta beriloa, inguruturic eta ſarturic urrean beren errencadetan.

14 Eta amabi arrietan bertan ceuden itſatſiac Iſraelco amabi tribuen icenac, arri bacoitzean bere icena.

15 Eguin ere cituzten bularreco jantzian urre chit garbizco catecho batzuec, elcarri itſatſiac:

16 Eta bi corcheta, eta beſte aimbeſte urrezco eraztun. Gañera jarri cituzten eraztunac bularreco jantziaren bi aldeetan,

17 Ceñetatic egongo ciraden cintzilica bi urrezco cate, ceñac ſartu cituzten

ſorbaldagañeco jantziaren eguietan ateratzen ciraden corchetetan.

18 Gauza oyec aurretic eta atzetic ain egoqui cetozten, non ſorbaldagañeco ta bularreco jantziac elcarri lotzen citzayozcan,

19 Guerricoari eſtuturic eta ſendoago itſatſiric eraztunez, ceñac ceuden lotuta cinta jacintozco batez, laſaituta erori etzitecen, eta berecitu etzitecen bata beſtea gandic, Jaunac Moiſeſi aguindu cion becela.

20 Berebat eguin zuten ſorbalden gañeco tunica guztia jacintozcoa,

21 Eta buru zulo bat goico aldean erdirontz, eta ertz eo bat buru zuloaren inguruan:

22 Eta bean oñetarontz granada batzuec jacintozcoac, purpurazcoac, eſcarlatazcoac, eta liño fiñ biurtuzcoac:

23 Eta urre garbizco chincherri, ceñac jarri cituzten granaden artean tunicaren beeco aldearen inguruan:

24 Urrezco chincherri bat, eta granada bat, ceñez apainduta cebillen apaiz naguſia bere lanean ari zanean, Jaunac Moiſeſi aguindu cion becela.

25 Eguin ere cituzten Aaron eta bere ſemeentzat liño fiñez eotaco tunicac:

26 Eta liño fiñezco mitrac beren coroichoaquin:

27 Eta liño fiñezco galtza mochac ere:

28 Baña guerricoa liño fiñ biurtuzcoa, jacintozcoa, purpurazcoa, eta bi aldiz tintatutaco granazcoa, gainlora aſcorequin, Jaunac Moiſeſi aguindu cion becela.

29 Eguin ere zuten beneracio ſagraduco orria urre chit garbizcoa, eta eſcribatu zuten bertan arri baliotſu languillearen eſcuz, Jaunaren ſantutaſuna:

30 Eta lotuta jarri cioten mitrari jacintozco cinta batez, Jaunac Moiſeſi aguindu cion becela.

31 Bucatua izan zan tabernaculo ta teſtimonioaren tellatuco lan guztia: eta eguin cituzten Iſraelco ſemeac Jaunac Moiſeſi aguindu ciozcan gauza guztiac.

32 Eta eſqueñi cituzten tabernaculoa, eta tellarua, eta uſubear guztiac, eraztunac, olac, cigorrac, abeac, eta ondoac,

33 Eſtalqui ari larru gorrituzcoa, eta beſte eſtalqui bat bioleta colorezco larruzcoa,

34 Beloa, cucha, cigorrac, eta propiciatorioa,

35 Maya bere ontziaquin, eta propoſicioco oguiaquin:

36 Candeleroa, lamparac, eta beren uſubearrac olioarequin.

37 Urrezco aldarea, eta oquendua, eta aromazco lurrin gaya:

38 Eta cortiña tabernaculoco ſarreran:

39 Cobrezco aldarea, erreja, cigorrac, eta bere ontzi guztiac: bacia bere ondoaquin: atarico cortiñac, eta abeac beren ondoaquin:

40 Cortiña atarico ſarreran, eta bere cordoyac, eta eſtacac. Etzan faltatu tabernaculoaren laneraco eta elcartaſunaren tellaturaco eguiteco aguindu zan ontziric.

41 Santulecuan apaizac uſatzen dituzten ſoñecoac ere, au da, Aaronec eta bere ſemeac,

42 Eſqueñi cituzten Iſraelco ſemeac, Jaunac aguindu zuen becela.

43 Ceñac icuſi cituenean Moiſeſec bucaturic guztiac, bedeincatu cituen.

XL. Cap.

ETA itz eguin cion Jaunac Moiſeſi, eſaten zuela:

2 Lembicico illean, illaren lembicico egunean, alchatuco dezu teſtimonioco tabernaculoa,

3 Eta jarrico dezu bertan cucha, eta utzico diozu erortzen beloari bere aurrean:

4 Eta ſarturic maya, jarrico dituzu bere gañean beren errencadan aguindu diraden gauzac. Egongo da candeleroa bere lamparaquin,

5 Eta urrezco aldarea ceñean erretzen dan intzentſua, teſtimonioco cucharen aurrean. Jarrico dezu cortiña tabernaculoaren ſarreran,

6 Eta bere aurrean olocauſtoaren aldarea:

7 Bacia aldarearen eta tabernaculoaren bitartean, ceñ beteco dezun urez.

8 Eta inguratuco dituzu cortiñez ataria, eta bere ſarrera.

9 Eta arturic untzioco olioa unjituco dezu tabernaculoa bere ontziaquin, ſantutuac izan ditecen:

10 Olocauſtoaren aldarea eta bere ontzi guztiac:

11 Bacia bere ondoaquin: guztia conſagratuco dezu untzioco olioz, guztia izan dedin gauza chit ſantua.

12 Eta alderatuco dituzu Aaron eta bere ſemeac teſtimonioco tabernaculoaren ateetara, eta garbitu ezqueroztic urez,

13 Jantzico dituzu ſoñeco ſantuaquin, ni ſerbitu naitzaten, eta beſen untzioac balio izan dezan betico apaiztaſuneraco.

14 Eta eguin cituen Moiſeſec Jaunac aguindu ciozcan gauza guztiac.

15 Ala bada bigarren urteco lembicico illean, illaren lembicico egunean, izan zan jarria tabernaculoa.

16 Ceñ alchatu zuen Moiſeſec, ipiñiric olac eta ondoac eta agac, eta jarriric abeac,

17 Eta zabalduric tellatua tabernaculoaren gañean, jarriric gañean eſtalquia, Jaunac aguindu izan zuen becela.

18 Jarri ere zuen teſtimonioa cuchan, ſarturic azpitican cigorrac, eta goyan oraculoa.

19 Eta ſartu zuenean cucha tabernaculoan, eſequi zuen beloa bere aurrean Jaunaren aguintea betetzeco.

20 Jarri ere zuen maya teſtimonioco tabernaculoan ifarraldeco belotic campoan,

21 Jarriric aurrean errencadan propoſicioco oguiac, Jaunac Moiſeſi aguindu cion becela.

22 Jarri ere zuen candeleroa teſtimonioco tabernaculoan, egoaldean mayaren aurretic,

23 Jarriric errencadan lamparac, Jaunaren aguinduaren araura.

24 Jarri ere zuen urrezco aldarea teſtimonioco eſtalquiaren aurretic beloaren aurrean,

25 Eta erre zuen bere gañean aromen intzentſua, Jaunac Moiſeſi aguindu cion becela.

26 Jarri ere zuen cortiña teſtimonioco tabernaculoaren ſarreran,

27 Eta olocauſtoco aldarea teſtimonioco atarian, eſqueintzen cituela bertan olocauſtoac, eta emaitzac, Jaunac aguindu zuen becela.

28 Jarri ere zuen bacia teſtimonioco tabernaculo eta aldarearen bitartean, urez betetzen zuela.

29 Eta garbitu cituzten Moiſeſec eta Aaronec eta bere ſemeac beren eſcuac eta oñac,

30 Sartzen ciraden eran elcartaſuneco tabernaculoan, eta alderatzen ciradenean aldarera, Jaunac Moiſeſi aguindu cion becela.

31 Eguin ere zuen ataria tabernaculoaren, eta aldarearen inguruan, jarriric cortiña bere ſarreran. Eguiñac izan ciraden ezquero gauza guzti oyec,

32 Eſtali zuen odei batec teſtimonioco tabernaculoa, eta Jaunaren gloriac bete zuen.

33 Eta ecin ſartu zan Moiſes elcartaſuneco tabernaculoan, odeyac guztia estaliric, eta Jaunaren anditaſunac argui eguiñic, ceren odeyac guztia eſtali zuen.

34 Odeyac tabernaculotic alde eguiten zuen guztian, joaten ciraden Iſraelco ſemeac bere taldeetan:

35 Odeya jartzen baldin bazan gueldiric gañean, berac ere egoten ciran gueldiric lecuan bertan.

36 Ceren Jaunaren odeya cegoan tabernaculoaren gañean egunaz, eta gauaz ſu bat, icuſten cituztela Iſraelco erri guztiac beren egotaldi guztietan.

LEVITICOCO LIBURUA.

I. Cap.

ETA ots eguin cion Jaunac Moiſeſi, eta itz eguin cion teſtimonioco tabernaculotic, ciola:

2 Itz eguin zayezu Iſraelco ſemeai, eta eſango diezu: zuetaco guizon esqueintzen diona Jaunari olocauſtoa abereetatic, au da, eſqueintzen dizquiona bitimac idietatic eta ardietatic,

3 Bere eſqueñia balitz olocauſto bat, eta abere taldecoa, eſqueñico du ar aitzaqui gabe bat teſtimonioco tabernaculoco atean beraatzeco beretzat Jauna:

4 Eta jarrico du eſcua oſtiaren buruaren gañean, eta izango da Jaunaren gogocoa, eta meſedegarria bera garbitzeco.

5 Eta illco du chal bat Jaunaren aurrean, eta Aaronen ſeme apezac eſqueñico dute aren odola, ixurtzen dutela tabernaculoco atearen aurrean dagoan aldarcaren inguruan.

6 Eta quenduric larrua abere illari, ebaquico dute gorputza zatietan.

7 Eta jarrico dute ſua aldarearen azpian, ipiñita lendanaz egur montoya:

8 Eta jarriric gañean errencan ebaquiac izan diraden gorputz zatiac, au da, burua, eta guibelari itſaſita dauden gauza guztiac,

9 Garbituric urez eſteac eta oñac: erreco ditu apezac aldare gañean eguiteco Jaunari uſai gozoco eſqueñia.

10 Baña abere eſqueintza balitz ardi edo auntzetacoa, eſqueñico du manchagabeco arra:

11 Eta illco du iſarrerontz beguira dagoan aldarearen aldean, Jaunaren aurrean: eta Aaronen ſemeac ixurico dute aren odola inguruan aldare gañean:

12 Eta ebaquico dituzte gorputz zatiac, burua, eta guibelari itſatſia dagoan guztia: eta jarrico dute egurraren gañean, ceñi azpian ſua ipiñico zayo:

13 Eta urez garbituco dituzte eſteac eta oñac. Eta apezac erreco du eſqueñi guztia aldarearen gañean, Jaunari uſai chit gozoco eſqueintzari bat eguiteco.

14 Baña Jaunari eguindaco olocauſtoco eſqueintzaria balitz egaztiena, uſatortolena, edo uſacumeena,

15 Eſqueñico du apezac aldarearen gañean: eta biurturic burua lepora, eta zauri bat bertan idiquiric, joaneracico dio odolari aldarearen ertzera:

16 Baña botaco ditu cintzurreco papoa ta lumac aldarearen ondoan ſartaldeco aldean, autſac bota oi diraden toquian,

17 Eta autſico diozca bere egoac; baña ez du ebaquico, eztaere berecituco ganibetaz, eta erreco du aldare gañean, jarriric ſua egurren azpian. Au da olocauſto ta eſqueintza uſai chit gozocoa Jaunarentzat.

II. Cap.

NORBAITEC eguiten dionean Jaunari eſqueintzaren doaya, bere emaitza izango da iriñ lorea: eta ixurico du bere gañean olioa, eta ipiñico du intzentſua,

2 Eta eramango du Aaronen ſeme apaizac gana: ceñetatic batec artuco du eſcua bete iriñ lore, olioa, eta intzentſu guztia, eta ipiñico du oroipengarritzat aldare gañean, eta izan dedin uſai chit gozoa Jaunarentzat.

3 Eta ſacrificiotic ſobratzen dana, izango da Aaron eta bere ſemeena, gauza chit ſantua Jaunaren doayetatic.

4 Baña eſqueintzen dezunean labean erretaco gauzaren baten doaya: au da, iriñ lorezco ogui legamigabeac, olioarequin orratuac, ta legamigabezco laſaña olioz gantzutuac,

5 Zure eſqueintzaria balitz zartaguicoa, olioarequin orratu ta legamigabeco iriñ lorezcoa,

6 Puſcatuco dezu cheero, eta ixurico dezu olioa bere gañean.

7 Eta baldin eſqueintzaria balitz parrillacoa, berebat orratuco da iriñ lorea olioarequin:

8 Ceñ eſqueintzen diozula Jaunari, jarrico dezu apaizaren eſcuetan.

9 Ceñec eſqueñi ezquero bera, artuco du eſqueintzaritic oroipengarritzat, eta erreco du aldarearen gañean, Jaunac uſai gozoa izan dezan:

10 Eta ſobratzen dan guztia, izango da Aaron eta bere ſemeena, Jaunaren esqueintzetatic gauza chit ſantua.

11 Jaunari eſqueintzen zayon doai guztia eguingo da legami gabe, etzayo ere erreco eſqueintzarian Jaunari legamiaren eta eztiaren gauzaric.

12 Gauza oyen autatuenac bacarric eſqueñico dituzute eta doayac: ez dirade ordea ipiñico aldarearen gañean uſai gozoa botatzeco.

13 Doaitzat eſqueintzen dezun guztiari, gatza emango diozu, eta ez dezu quenduco zure Jaungoicoaren elcartaſuneco gatza zure doayetic. Zure emaitz guztian eſqueñico dezu gatza.

14 Eta baldin eſqueñico baciñio Jaunari zure lembicico laboreen doaya oraindican berdeac dauden galburuetatic, chigortuco dituzu ſuan, eta cheatuco dezu galchuriaren guiſara, eta onela eſqueñico diozcatzu Jaunari zure autatuenac,

15 Ixuriric beren gañean olioa, eta ipiñiric intzentſua, Jaunaren eſqueintzaria dalaco.

16 Ceñetic erreco ditu apaizac doayaren oroipengarritzat galchuri cheatuaren, eta olioaren zati bat, eta intzentſu guztia.

III. Cap.

ETA baldin bere eſqueintzaria balitz doai paquetſua, eta naico balu esqueñi idietacoa, eſqueñico du Jaunaren aurrean ar edo eme manchagabea.

2 Eta jarrico du eſcua bere bitimaren buru gañean, ceñ illa izango da teſtimonioco tabernaculoaren ſarreran, eta Aaronen ſeme apaizac ixurico dute odola aldarearen inguruan.

3 Eta eſqueñico dute doai paquetſutic ofrenda Jaunarentzat, errayac eſtaltzen dituen guicena, eta barrenen dan guicentaſun guztia :

4 Guiltzurrun biac ſayeſpeac eſtaltzen dituen gantzarequin, eta guibelaren ſarea guiltzurrunaquin.

5 Eta erreco dituzte olocauſtotzat aldarearen gañean, ipiñiric ſua egurren azpian, uſai chit gozoaren doaya bezala Jaunarentzat.

6 Baña baldin bere eſqueintzari eta doai paquetſua balitz ardietatic, naiz esqueñi dezala arra, naiz emea, manchagabeac izango dirade.

7 Eſqueñico baldin balu arcume bat Jaunaren aurrean,

8 Jarrico du bere eſcua bere bitimaren buru gañean, ceñ izango da illa teſtimonioco tabernaculoaren ſarreran : eta Aaronen ſemeac ixurico dute aren odola aldarearen inguruan.

9 Eta eſqueñico dizquiote doaitzat Jaunari ofrenda paquetſutic, guicentaſun eta buztan guztia

10 Guiltzurrunaquin, eta ſabela eta errai guztiac eſtaltzen dituen guicenarequin, ta guiltzurrun biac ſayeſpearen aurrean dagoan gantzarequin, eta guibelaren ſarea guiltzurrunaquin.

11 Eta erreco ditu apaizac aldarearen gañean ſutaraco gaitzat eta Jaunaren esqueintzaritzat.

12 Bere eſqueintzaria baldin balitz auntza, eta eſqueñico balio Jaunari,

13 Jarrico du bere eſcua bere buruaren gañean : eta illco du teſtimonioco tabernaculoco ſarreran. Eta Aaronen ſemeac ixurico dute aren odola aldarearen inguruan.

14 Eta artuco dute bertatic Jaunaren ſutaraco gaitzat, ſabela ta errai guztiac eſtaltzen dituen guicena :

15 Guiltzurrun biac ſayeſpeen aldean beren gañean dagoen ſarearequin, eta guibeleco guicena guiltzurrunaquin :

16 Eta erreco ditu apaizac aldarearen gañean ſutaraco, eta uſai chit gozoraco gaitzat. Guicentaſun guztia izango da Jaunarena

17 Betico leguez zuen jatorri, eta bicitoqui guztietan : ez dezute ere jango odolaren, ez guicentaſunaren gauzaric.

IV. Cap.

ETA itz eguin cion Jaunac Moiſeſi, ciola :

2 Itz eguin zayezu Iſraelco ſemeai : Ezjaquiñez pecatu eguiten duen norbaitec, eta cerbait Jaunac ez eguiteco aguindu zuen aguinte guztietatic eguiten duen edoceñec :

3 Pecatu eguingo baldin balu unjitua dagoan apaizac, pecatu eguineraciric erriari, eſqueñico dio Jaunari bere pecatua gatic manchagabeco chal bat :

4 Eta eramango du teſtimonioco tabernaculoco atera Jaunaren aurrera, eta jarrico du eſcua bere buru gañean, eta eſqueñico dio Jaunari.

5 Artuco ere du chalaren odoletic, ſartzen duela teſtimonioco tabernaculoan.

6 Eta odolean buſti ezquero beatza, beraz arico da intzatzen zazpi aldiz Jaunaren aurrean ſantulecuco belorontz.

7 Eta ipiñico du odol artatic bertatic lurrin gayaren aldare Jaunarentzat chit gogoco adarren gañean, ceñ dagoan testimonioco tabernaculoan. Eta ſobratzen dan odol guztia ixurico du eſqueintzariaren aldarearen ondoan tabernaculoco ſarreran.

8 Eta quenduco du chalaren guicena pecatua gatic, bai errayac eſtaltzen dituena, eta bai barrenen dauden gauza guztiac :

9 Guiltzurrun biac eta beren gañean ſayeſpeen aldean dagoan ſarea, eta guibeleco guicena guiltzurrunaquin,

10 Quentzen dan becela eſqueintzari paquetſuaren chaletic : eta erreco ditu eſqueintzariaren aldare gañean.

11 Baña larrua ta aragui guztiac, buru ta oñ eta eſte eta cimaur,

12 Eta gorputzaren gañeracoarequin, ateraco ditu egonlecuetatican campora

toqui garbi batera, non bota oi diraden autſac, eta ſu emango die egur montoi baten gañean, ceñac izango dirade erreac autſac botatzen diraden toquian.

13 Eta baldin Iſraelco talde guztiac pecatu eguingo balu ezjaquiñez, eta arreta gabe eguingo balu Jaunaren aguinduaren contra dana,

14 Eta guero ezagutuco balu bere pecatua, eſqueñico du bere pecatua gatic chal bat, eta eramango du tabernaculoaren atera.

15 Eta errico zarrac jarrico dituzte eſcuac chalaren buru gañean Jaunaren aurretic. Eta illic Jaunaren aurrean,

16 Unjituric dagoen apaizac ſartuco du bere odoletic teſtimonioco tabernaculoan,

17 Zazpi aldiz beatz buſtiaz belorontz intzatzen duela.

18 Eta ipiñico du odol artatic bertatic aldarean Jaunaren aurrean teſtimonioco tabernaculoan dagoenaren adarretan: eta guelditzen dan odola ixurico du eſqueintzarien aldare teſtimonioco tabernaculoco ſarreran dagoenaren ondoen aldean.

19 Eta quenduco du bere guicen guztia, eta erreco du aldare gañean:

20 Ala eguiten duela chal onequin nola eguin zuen leen ere: eta erreguturic apaizac berac gatic Jaunac barcatuco die.

21 Eta chala bera ateraco du bicilecuetatic campora, eta erreco du lembicico chala becela: erriaren pecatua gatic dalaco.

22 Pecatu eguingo baldin balu principeac, eta eguingo baldin balu ezjaquiñez Jaunaren leguean galeracita dauden gauza aſcotacoren bat:

23 Eta guero ezagutuco balu bere pecatua, eſqueñico dio emaitza Jaunari, aquer manchagabeco bat auntzetatic.

24 Eta jarrico du bere eſcua onen buru gañean: eta ill ezquero olocauſtoa ill oi dan toquian Jaunaren aurrean, pecatua gatic dalaco,

25 Buſtico du apaizac beatza bitimaren odolean pecatua gatic, uquitzen diela eſqueintzarien aldarearen adarrai, eta gañeracoa ixurtzen duela bere ondoan.

26 Baña guicena erreco du gañean, eguin oi dan becela eſqueintza paquetſuetan: eta erregutuco du apaizac bera gatic eta bere pecatua gatic, eta barcatua izango zayo.

27 Eta pecatu eguingo baldin balu ezjaquiñez lurreco errico norbaitec, eguiten duela Jaunaren leguean galeracitzen diraden gauza ayetacoren bat, eta pecatu eguingo balu,

28 Eta ezagutuco balu bere pecatua, eſqueñico du manchagabeco auntz bat.

29 Eta jarrico du eſcua pecatua gatic dan bitimaren buru gañean, eta illco du eſqueintzariaren toquian.

30 Eta artuco du apaizac odoletic bere beatzean: eta uquituric doayen aldarearen adarrai, gañeracoa ixurico du bere ondoan.

31 Eta guicen guztia quenduric quendu oi dan becela doai paquetſuetatic, erreco du aldare gañean Jaunarentzat uſai gozoa zabaltzeco: eta erregutuco du bera gatic, eta barcatua izango zayo.

32 Baña baldin eſqueñico balu pecatua gatic doayen bat abereetatic, au da, ardi mancha gabecoren bat;

33 Jarrico du eſcua onen buru gañean, eta illco du abere eſqueintzac ill oi diraden toquian.

34 Eta artuco du apaizac bere odoletic bere beatzaz, eta uquituric doayen aldarearen adarrai, gañeracoa ixurico du bere ondoan.

35 Eta quenduric guicen guztia, quendu oi dan becela doai paquetſua gatic illtzen dan ariarena: erreco du aldare gañean Jaunarentzat eſqueñitaco intzentſu bat becela: eta erregutuco du bera gatic eta bere pecatua gatic, eta barcatua izango zayo.

V. Cap.

PECATU eguingo baldin balu norbaitec, eta adituco balu juramentu eguiten duenaren boza, eta teſtigo izango balitz, naiz berac icuſi duelaco, naiz daquielaco: adirazten ez baldin badu, pagatuco du bere pecatuaren pena.

2 Norbaitec uquituco balio gauza loiren bati, naiz piſtiac illa izan danari, naiz berez illari, naiz edoceñ arraſtacariri: eta artuco balitz bere loiqueriaz, culpadun da, eta pecatu eguin du:

3 Berebat uquituco baldin balio guizonen baten loiqueriari edoceñ loiqueritan, ceñez manchatu oi dan, eta ajola gabe; baña guero conturatuco balitz, pecatuaren culpadun izango da.

4 Juramentu eguiten duenac, eta eſaten duenac bere ezpañaquin eguingo duela cerbait ongui, edo gaizqui, eta ſen-

dotuco balu bera juramentuz eta itzez, eta azturic ezagutuco balu guero bere pecatua,

5 Penitencia eguin beza bere pecatua gatic,

6 Eta eſqueñi beza abere taldeetatic arcume eme bat edo auntz bat, eta erregutuco du apaizac bera gatic eta bere pecatua gatic:

7 Baña ecin eſqueñi balu abere bat, eſqueñi bizazquio Jaunari bi uſatortola, edo uſacume bi, bat pecatua gatic, eta beſtea eſquecintzaritzat,

8 Eta emango diozca apaizari: ceñac eſqueñiric lembicicoa pecatua gatic, biurtuco du bere burua egochoetarontz, lepoari itſatſia gueldituco dan, eta oſoz urratuco ez dan eran.

9 Eta intzatuco du bere odolaz aldareco pareta. Eta guelditzen dan guztiari jarioeracico dio tantoca bere ondora, pecatua gatic dalaco.

10 Beſtea berriz erreco du eſqueñitzat, eguin oi dan becela: eta erregutuco du apaizac bera gatic eta bere pecatua gatic, eta barcatua izango zayo.

11 Baña ecin eſqueñi baldin balitu bi uſatortola, edo uſacume bi, eſqueñico du bere pecatua gatic iriñ lorearen efi baten amargarren partea: ez du paratuco olioric bertan, ez du ere ipiñico intzentſuric bere gañean, pecatua gatic dalaco.

12 Eta emango dio apaizari: ceñec arturic bertatic eſcua bete, erreco du aldare gañean, eſqueñi duenaren oroipengarriraco,

13 Erregututzen duela bera gatic eta garbitzen duela, eta gañeraco zatia berac iduquico du doaitzat.

14 Eta itz eguin cion Jaunac Moiſeſi, eſaten zuela:

15 Norbaitec, pecatu eguingo baldin balu, utſeguitez, faltatzen duela Jaunari conſagratuta dauden gaucetaco ceremonietan, eſqueñico du bere pecatua gatic aitzaquigabeco ari bat ſiclo bian eroſi dezaquen taldeetatic, ſantulecuco piſuaren araura:

16 Eta oſotuco du eguin duen caltea, eta gañera ipiñico du boſgarren partea, ematen diola apaizari, ceñac erregutuco duen bera gatic eſqueintzen duela aria, eta barcatua izango zayo.

17 Norbaitec pecatu eguingo balu ezjaquiñez, eta eguingo baldin balu Jaunaren leguean galeracitzen diraden gauzaren bat, eta izanic pecatuaren culpadun ezagutuco balu bere gaiztaqueria,

18 Eſqueñico dio apaizari aitzaquigabeco ari bat taldeetic, pecatuaren neurri ta anditaſunaren araura: ceñac erregutuco duen bera gatic, ezjaquiñean eguin zuelaco: eta barcatua izango zayo,

19 Ceren oquer uſtean pecatu eguin zuen Jaunaren contra.

VI. Cap.

ITZ eguin cion Jaunac Moiſeſi, eſaten zuela:

2 Pecatu eguiten duenac, eta mezpreciaturic Jauna, ucatzen dionac lagunari bere leyaltaſuna gatic gordetzeco eman citzayon gauza, edo indarrez cerbait quenduco balio, edo guezurra aſmatuco balio,

3 Edo gauza galduren bat arquituco balu, eta ucaturic gañera guezurrez juramentu eguingo balu, eta eguingo balu beſte aſcotatic gauzaren bat, ceñetan guizonac pecatu eguin oi duten,

4 Ezaguturic pecatu eguin duela, biurtuco du

5 Oſoz, engañuz beretu nai zuen guztia, eta gañera boſgarren partea caltea eguin cion jabeari.

6 Eta bere pecatua gatic eſqueñico du ari mancha gabe bat taldetic, eta emango dio apaizari, pecatuaren anditaſunaren eta neurriaren araura:

7 Ceñec erregutuco du bera gatic Jaunaren aurrean, eta barcatuco zayo pecatu eguiñarequin eguin zuen gauza bacoitza.

8 Eta itz eguin cion Jaunac Moiſeſi, eſaten zuela:

9 Aguindu zayezu Aaroni ta bere ſemeai: Au da olocauſtoaren leguea: Errea izango da aldarean gau guztian goiceraño: ſua izango da aldarecoa berbera.

10 Apaiza jantzico da tunicarequin eta liñozco galtza mochaquin: eta artuco ditu autſac, ceñetara ſu deſeguilleac biurtu izango duen, eta ipiñiric aldarearen aldean,

11 Utzico ditu lembicico ſoñecoac, eta jantziric beſteaquin, eramango ditu autſac bicilecuetatic campora, eta toqui chit garbi batean deſeguineracico ditu chingar biurtu ditecen bitartean.

12 Eta beti aldarean egongo da ſua iracequia, ceñ piztuco duen apaizac ipiñiric azpian egurra goicetic egun bacoi-

tzean, eta jarriric olocauſtoa goyan, erreco du bere gañean oſtia paquetſuen guicentaſuna.

13 Au da betico ſu iñoiz aldarean faltatuco ez dana.

14 Au da Aaronen ſemeac Jaunaren aurrean eta aldarearen aurrean eſqueñico dituzten ſacrificioaren eta libacioen leguea.

15 Artuco du apaizac eſcua bete iriñ lore olioarequin orraturic dagoena, eta iriñ lorearen gañean jarria izan dan intzentſu guztia: eta erreco du aldarean, Jaunaren uſai chit gozoaren oroipengarritzat:

16 Eta ſobratzen dan iriñ lorearen partea jango du Aaronec bere ſemeaquin, legamirican gabe: eta jango du tabernaculoco atarico toqui ſantuan.

17 Eta etzayo legamirican ipiñico, ceren beraren zati bat eſqueintzen da Jaunaren intzentſuan. Gauza chit ſantu bat izango da au, pecatua ta culpa gatic becela.

18 Bacarric Aaronen jatorrico guizaſemeac jango dute. Gauza bidezco eta beticoa izango da zuen guizaldietan Jaunaren eſqueintzetan. Gauza oyei uquitzen dion guztia izango da ſantutua.

19 Eta itz eguin cion Jaunac Moiſeſi, eſaten zuela:

20 Au da Aaronec, eta bere ſemeac bere untzioaren egunean Jaunari eſqueñi bear dioten doaya. Eſqueñico dute betico doaitan eſi bat iriñ lorearen amargarren partea, erdia goicean, eta beſte erdia arratſaldean:

21 Ceñ olioarequin orraturic frigituco da zartagui batean. Eta eſqueñico du berotan, iduqui dezan uſai chit gozoa Jaunarentzat

22 Aitaren lecuan tocamenez jartzen dan apaizac, eta guztia erreco da aldarean.

23 Ceren apaicen eſqueintza guztia ſuaz deſeguiña izango da, eta ez du iñorc bertatic jango.

24 Eta itz eguin cion Jaunac Moiſeſi, eſaten zuela:

25 Itz eguin zayezu Aaroni eta bere ſemeai: Au da oſtiaren leguea pecatua gatic: Izango da illa Jaunaren aurrean olocauſtoa eſqueintzen dan toquian. Gauza chit ſantua da.

26 Eſqueintzen duen apaizac, jango du toqui ſantuan, tabernaculoaren atarian.

27 Bere araguiai uquitzen dien guztia, izango da ſanturua. Baldin bere odolaz chipriztatua izango balitz ſoñecoa, izango da garbitua toqui ſantuan.

28 Eta bera errea izan dan lurrontzia, autſia izango da. Baña ontzia balitz cobrezcoa, izango da igortzia, eta urez garbituco da.

29 Apaicen jatorrico guizaſeme guztiac jango ditu bere araguiac, gauza chit ſantua diralaco.

30 Pecatua gatic illtzen dan aberea bada, ceñaren odola ſartzen dan teſtimonioco tabernaculoan garbitzeco ſantulecuan, ez da jango, baicic ſuan erreco da.

VII. Cap.

AU ere da pecatua gatic eſqueñitaco doayaren leguea: gauza chit ſantua da:

2 Argatic olocauſtoa illtzen dan toquian, illco da pecatua gatic bitima ere: bere odola izango da ixuria aldarearen inguruan.

3 Eſqueñico dituzte bertatic buztana eta errayac eſtaltzen dituen guicena:

4 Guiltzurrun biac, eta ſayeſpeen aldean dagoen gantza, eta guibelaren ſarea guiltzurrunaquin.

5 Eta erreco ditu apaizac aldarearen gañean: Jaunaren intzentſua da pecatua gatic.

6 Apaicen jatorrico guizaſeme guztiac jango ditu aragui oyec toqui ſantuan, gauza chit ſantua diralaco.

7 Nola pecatua gatic eſqueintzen dan doaya, ala gaiztaqueria gatic ere: doay bien leguea bat izango da: eſqueintzen duen apaizari egoquico zayo.

8 Doaya eſqueintzen duen apaizac bere larrua iduquico du.

9 Eta labean erretzen dan iriñ lorezco doai guztia, eta parrillan edo zartaguian preſtatzen dan guztia, izango dira apaizarenac, ceñac eſqueñiac diran:

10 Naiz izan dedilla olioarequin orratua, naiz idorra, partituco da Aaronen ſeme guztien artean neurri berdiñez bacoitzarentzat.

11 Au da Jaunari eſqueintzen zayon doai paquetſuaren leguea.

12 Doaya balitz eſquerrac emateco, eſqueñico dituzte legamigabeco olioarequin orratuac, eta laſaña legamigabe olioz gantzutuac, eta iriñ lore errea, eta orre oſtoac olioarequin naſtuta orratuac:

13 Eta legamidun oguiac ere eſquerrac emateco bitimarequin, ceñ illtzen dan doai paquetſuac gatic:

14 Ceñetatic bat eſqueñico zayo Jaunari autatuenac gatic, eta izango da esqueintzan abere illaren odola ixurtzen duen apaizarena:

15 Aren araguiac jango dirade egun artan bertan, eta ez da guelldituco bertatic ecer biaramoneraco.

16 Norbaitec eſqueñico baldin balu doaya botoz, edo borondatez, berebat egun artan jango da: baña biaramoneraco cerbait guelldituco balitz ere, bidezco izango da jatea:

17 Baña irugarren eguneraco ſobratzen dana, izango da ſuaz deſeguiña.

18 Norbaitec jango baldin balitu irugarren egunean bitima paquetſuaren araguiac, utſa balioco du eſqueintzariac, eta ez dio meſederic eracarrico eſqueintzen duenari: beſtela alaco gauzaric jatearequin loitzen dana, ſedea auſten duenaren culpadun izango da.

19 Gauza loiren bati uquitzen dion araguia ez da jango, baicic ſuan erreco da: garbi dagoenac jango du bertatic.

20 Guizon loitu ollia paquetſuen aragui Jaunari eſqueñia izan zayonetic jaten duena, izango da bere errietatic galdua.

21 Eta uquitzen diona guizonaren, edo aberearen, edo loitu dezaquen edoceñ gauzaren ciquinqueria, eta jaten duena onelaco araguietatic, galdua izango da bere errietatic.

22 Eta itz eguin cion Jaunac Moiſeſi, eſaten zuela:

23 Eſango diezu Iſraelco ſemeai: Ez dezute jango ardiaren, idiaren, ta ez auntzaren guicenic.

24 Baña gorde cenezaquete uſu aſcotaraco abere illquiaren, edo piſtiaren batec arrapatua izan dan aberearen guicena.

25 Iñorc jango baldin balu Jaunaren eſqueintzarian errea izan bear duen guicena, izango da galdua bere erritic.

26 Ez dezute ere artuco janarian animalien odolic, ez egaztienic, ez abereenic.

27 Odola jaten duen guizon guztia, izango da galdua bere errietatic.

28 Eta itz eguin cion Jaunac Moiſeſi, ciola:

29 Itz eguin zayezu Iſraelco ſemeai, eſaten diezula: Eſqueintzen dionac Jaunari bitima paquetſua, eſqueñi beza batean doaya ere, au da, dagozquion emaitzac.

30 Iduquico ditu eſcuetan abere illaren guicena, eta bularra: eta conſagratzen dituenean biac eſqueñita Jaunari, emango diozca apaizari,

31 Ceñac erreco du guicena aldarearen gañean; eta bularra izango da Aaron eta bere ſemeentzat.

32 Oſtia paquetſuen eſcuico ſorbalda ere guelldituco da apaizaren autatuenentzat.

33 Aaronen ſemeen artean eſqueintzen duenac odol eta guicena, iduquico ere du berac eſcuico ſorbalda bere zatian.

34 Ceren Iſraelco ſemeen oſtia paquetſuen araguitic gorde det nere aurrean goratzen dan bularra, eta berecitu dan ſorbalda, eta eman dieztet Aaron apaizari eta bere ſemeai, Iſraelco erri guztiaren betico leguetzat.

35 Au da Aaron eta bere ſemeen untzioa Jaunaren ceremonietan, Moiſeſec eſqueñi cituen egunean apaiz lanetan aritzeco,

36 Eta au da Jaungoicoac aguindu ciena Iſraelco ſemeai eman citzayotela betico leguez beren guizaldietan.

37 Au da olocauſtoaren leguea, eta ſacrificioarena pecatua ta falta gatic, eta conſagracioa ta emaitz paquetſuac gatic:

38 Jaunac Moiſeſi aguindu ciona emateco Sinaico mendian, aguindu cienean Iſraelco ſemeai eſqueintzeco beren doayac Jaunari Sinaico eremuan.

VIII. Cap.

ETA itz eguin cion Jaunac Moiſeſi, ciola:

2 Ar itzatzu Aaron bere ſemeaquin, beren ſoñecoac, eta untzioco olioa, chala pecatua gatic, bi ari, ſaſqui bat ogui legamigabeaquin,

3 Eta bilduco dezu erri guztia tabernaculoco atean.

4 Eguin zuen Moiſeſec Jaunac aguindu zuen becela. Eta bilduric talde guztia tabernaculoaren ateen aurrean,

5 Eſan zuen: Au da Jaunac eguiteco aguindu duena.

6 Eta bereala preſentatu cituen Aaron eta bere ſemeac. Eta garbitu cituenean,

7 Jantzi zuen apaiz naguſia liñozco alcandorarequin, lotzen ciola guerricoaz, eta jantzitzen zuela jacintozco tunicarequin, eta jarri cion bere gañean ſorbaldagañeco ſoñecoa,

8 Ceñ eſtuturic guerricoaz itſatſi cion bularrecoa, ceñean cegoen Jaquinduria eta Eguia.

9 Eſtali ere cion burua tiaraz: eta bere gañean, becoquiaren aurrean, jarri zuen urre ornia conſagratua ſantutaſunean, Jaunac aguindu cion becela.

10 Artu ere zuen untzioco olioa, ceñaz untatu zuen tabernaculoa bere treſna guztiaquin.

11 Eta intzatu ezquero aldarea ſantututzen zuela zazpi aldiz, untatu zuen, baita bere ontzi guztiac ere, eta olioz ſantutu zuen bacia bere ondoaquin.

12 Eta ixuriric Aaronen buru gañean, untatu eta conſagratu zuen:

13 Baita bere ſemeac ere preſentatu ezquero jantzi cituen liñozco tunicaquin, eta lotu ciozcaten guerricoz, eta jarri ciezten mitrac, Jaunac aguindu zuen becela.

14 Eſqueñi ere zuen chala pecatua gatic. Eta jarriric Aaronec, eta bere ſemeac beren eſcuac aren buru gañean,

15 Ill zuen: eta arturic odola, eta buſtiric beatza bertan, uquitu cien aldarearen adarrai inguruan: ceñ garbitu eta ſantuturic, ixuri zuen gañeraco odola beren oñetan.

16 Eta erre cituen aldare gañean errayen aldean cegoan guicena, eta guibelaren ſarea, eta guiltzurrun biac, beren gantzarequin:

17 Erretzen zuela bicilecuetatic campora chala bere larru ta aragui, eta gorotzarequin, Jaunac aguindu zuen becela.

18 Eſqueñi ere zuen ari bat doaitzat: ceñaren buru gañean jarri ezquero Aaronec eta bere ſemeac beren eſcuac,

19 Ill zuen, eta ixuri bere odola aldarearen inguruan.

20 Eta aria bera partituric zatietan, erre cituen ſuan bere burua, beſte parteac, eta guicena,

21 Garbituric lendican eſteac eta oñac: eta erre zuen batean ari guztia aldarearen gañean, Jaunarentzat eſqueintza uſai chit gozocoa zalaco, aguindu cion becela.

22 Eſqueñi ere zuen bigarren aria, apecen conſagracioan: eta jarri cituzten Aaronec eta bere ſemeac beren eſcuac aren buru gañean,

23 Ceñ illic Moiſeſec arturic bere odoletican, uquitu cion Aaronen eſcuico belarriaren mocoari, eta bere eſcuico beatz lodiari, eta orobat oñecoari ere.

24 Eſqueñi ere cituen Aaronen ſemeac. Eta uquituric ari illaren odolaz bacoitzaren eſcuico belarriaren mocoa, eta eſcuico eta oñaren beatz lodiac, gañeracoa ixuri zuen aldarearen gañean inguruan:

25 Eta berecitu cituen guicena, eta buztana, eta eſteac eſtaltzen dituen guicentaſun guztia, eta guibelaren ſarea, eta guiltzurrun biac beren gantzarequin, eta eſcuico ſorbaldarequin.

26 Eta arturic Jaunaren aurrean cegoen ogui legamigabeen ſaſquichotic bat, eta orre ofto bat olioarequin orratua, eta laſaña bat, jarri cituen guicenaren eta eſcuico ſorbaldaren gañean,

27 Ematen ciela guztia batean Aaroni eta bere ſemeai. Ceñac alchatu ezquero berac Jaunaren aurrean,

28 Berriz arturic beren eſcuetatic, erre zuen eſqueintzaco aldarearen gañean, conſagracioco doaya zalaco, uſai chit gozocoa Jaunarentzat,

29 Eta alchaturic Jaunaren aurrean conſagracioco ariaren bularra, gorde zuen bere zatia becela, Jaunac aguindu cionaren araura,

30 Eta arturic oquendua, eta aldarearen gañean cegoen odola, intzatu cituen Aaron eta bere ſoñecoen, eta bere ſemeen eta beren ſoñecoen gañean.

31 Eta ſantutu cituenean beren ſoñecoan, aguindu cien, ciola: Erre itzatzute araguiac tabernaculoaren ateen aurrean, eta an jan itzatzute. Jan itzatzute ere ſaſquichoan jarriric dauden conſagracioco oguiac, Jaunac aguindu cidan becela, ciola: Aaronec eta bere ſemeac jango dituzte:

32 Eta ſobratzen dan aragui eta ogui guztia, ſuac deſeguingo du.

33 Etzerate ere ateraco tabernaculoco atetican zazpi egunean zuen conſagracioco dembora betetzen dan eguneraño; ceren zazpi egunean aitzen da conſagracioa:

34 Orain eguin dan becela ſacrificioco ceremonia betetzeco.

35 Gau ta egun egongo cerate tabernaculoan belan zaudetela Jaunaren aurrean, ill etzaitezten: ceren onela aguindua izan zat.

36 Eta eguin cituzten Aaronec eta bere ſemeac Jaunac Moiſeſen eſcuz eſan ciezten gauza guztiac.

IX. Cap.

ETA allegaturic zortzigarren eguna, ots eguin cien Moiſeſec Aaroni ta bere ſemeai, eta Iſraelco zarrai, eta eſan cion Aaroni:

2 Ar itzatzu taldetican chal bat pecatua gatic, eta ari bat doaitzat, biac manchagabeac, eta eſqueñi itzatzu Jaunaren aurrean.

3 Eta Iſraelco ſemeai itz eguingo diezu: Ar itzatzute aquer bat pecatua gatic, eta chal bat eta arcume bat biac urtebarrucoac eta manchagabeac, doaitzat,

4 Idi bat eta ari bat doai paquetſutzat, eta ill itzatzute Jaunaren aurrean, esqueintzen dezutela iriñ lore oliorequin orratua bacoitzaren ſacrificioan. Ceren gaur Jauna aguertuco zatzute.

5 Eraman cituzten bada Moiſeſec aguindu cituen gauza guztiac tabernaculoaren atera: non erri guztia aurrean cegoala,

6 Eſan zuen Moiſeſec: Au da Jaunac aguindu duena: eguin zazute, eta aguertuco zatzute bere gloria.

7 Eta eſan cion Aaroni: Alderatu zaite aldarera, eta eſqueñi ezazu doaya zure pecatua gatic: eſqueñi ezazu emaitza, eta erregutu ezazu zu ta erria gatic. Eta eſqueñi ezquero erriaren doaya, erregutu ezazu bera gatic, Jaunac aguindu zuen becela.

8 Eta bereala Aaron alderaturic aldarera, ill zuen chala bere pecatua gatic:

9 Ceñaren odola eſqueñi cioten bere ſemeac: ceñean buſtiric beatza, uquitu cien aldarearen adarrai, eta gañeracoa ixuri zuen bere ondoan.

10 Eta guicen ta guiltzurrun eta guibelaren ſare pecatua gatic diradenac, erre cituen aldarearen gañean, Jaunac Moiſeſi aguindu cion becela:

11 Araguiac berriz eta bere larrua ſuaz erre cituen egonlecuetatic campora.

12 Ill ere zuen eſqueintzaren aberea: eta bere ſemeac eſqueñi cioten bere odola, ceñ ixuri zuen aldarearen inguruan.

13 Aurrean jarri ere cioten abere illa bera zatietan partitua, buruarequin eta beſte parte bacoitzarequin. Ceñac guztiac ſuaz erre cituen aldare gañean,

14 Garbituric lendican urez eſteac eta oñac.

15 Eta ill zuen aquerra, eſqueintzen zuela erriaren pecatua gatic: eta garbituric aldarea,

16 Eguin zuen eſqueintza,

17 Gañera eguiten cituela ſacrificioan libacioac, ceñac batean eſqueintzen diraden, eta erretzen cituela aldare gañean, utzi gabe goiceco eſqueintzaco ceremoniac.

18 Berebat ill cituen idi ta aria, erriaren doai paquetſuac: eta bere ſemeac aurrean jarri cioten odola, ceñ ixuri zuen aldare gañean inguruan.

19 Idiaren guicena ordea, eta ariaren buztana, eta guiltzurrunac beren gantzarequin, eta guibelaren ſarea

20 Jarri cituzten bularren gañean. Eta erre ezquero guicena aldare gañean,

21 Berecitu cituen Aaronec beren bularrac, eta eſcuico ſorbaldac, alchaturic Jaunaren aurrean, Moiſeſec aguindu zuen becela.

22 Eta luzaturic eſcuac erria ganontz, bedeincatu zuen. Eta bucaturic onela eſqueintzac pecatua gatic, eta olocauſtoac, eta emaitz paquetſuac, jachi zan.

23 Eta ſarturic Moiſes eta Aaron testimonioco tabernaculoan, ta aterdric guero, bedeincatu zuten erria. Eta aguertu citzayon Jaunaren gloria erri guztiari:

24 Eta ona non ateraric ſua Jauna gandic iretſi cituen aldare gañean ceuden emaitza, eta guicena. Eta au icuſiric jende taldeac, alabatu zuten Jauna, eroiric beren arpeguien gañean.

X. Cap.

BAÑA Nadab eta Abiu Aaronen ſemeac arturic intzentſonarioac, ipiñi cituzten bertan ſua, eta intzentſua, esqueintzen zutela Jaunaren aurrean ſu arrotza: ceñ cegoquien eragotzia.

2 Eta ateraric ſua Jauna gandic iretſi cituen, eta ill ciraden Jaunaren aurrean.

3 Eta eſan cion Moiſeſec Aaroni: Au da Jaunac eſan duena: Santutua izango naiz alderatzen citzazquidanetan, eta gloriaz betea izango naiz erri guztiaren aurrean. Au entzunic ixillic egon zan Aaron.

4 Eta ots eguiñic Moiſeſec Miſael eta Eliſafan Oziel Aaronen aitaldeco oſabaren ſemeai, eſan cien: Zoazte ta quendu itzatzute zuen anayac ſantulecuaren aurretic, eta eraman itzatzute bicilecuetatican campora.

5 Eta berealaxe joanic, eraman cituz-

ten, liñozco ſoñecoaquin jantzita, etzanic ceuden becela, eta bota cituzten campora, aguindua izan citzayen becela.

6 Eta itz eguin cien Moiſeſec Aaroni, eta bere ſeme Eleazar eta Itamarri: Ez itzatzute aguertu zuen buruac, eta ez itzatzute urratu zuen ſoñecoac, ill etzaitezten, eta aſerrea zabaldu ez dedin erri guztiaren gañera. Zuen anayac eta Israelco erri guztiac negar eguin bezate Jaunac iracequi duen ſua gatic:

7 Zuec ordea etzerate ateraco tabernaculoco ateetatic, beſtela galduco cerate: ceren untzio ſantuco olioa da zuen gañean. Ceñac eguin cituzten gauza guztiac Moiſeſen aguinduaren araura.

8 Eſan cre cion Jaunac Aaroni:

9 Ez dezute edango ardoric, eta ez beſte edari orditu dezaquenic zuc eta zure ſemeac, teſtimonioco tabernaculoan ſartzen ceratenean, ill etzaitezten: ceren betico leguea dan zuen guizaldientzat:

10 Eta iduqui dezazuten jaquinduria ezagutzeco ceñ dan gauza ona ta ceñ gaiztoa, ceñ manchatua ta ceñ garbia:

11 Eta eracutſi dizayeztezuten Iſraelco ſemeai nere legue guztiac, ceñac eman dieztedan Moiſeſen bidez.

12 Eta itz eguin cien Moiſeſec Aaroni, eta oni guelditu citzayozcan ſeme Eleazar eta Itamarri: Artu ezazute Jaunaren eſqueintzatic ſobratu dan ſacrificiotic, eta jan ezazute legamirican gabe aldarearen aldean, ceren gauza chit ſantua dan.

13 Eta jango dezute toqui ſantuan: ceren da Jaunaren eſqueintzetatic zuri eta zure ſemeai emandaco gauza, aguindu citzadan becela.

14 Berebat eſqueñia izan dan bularra, eta berecitua izan dan ſorbalda jango dituzute toqui chit garbi batean zuc eta zure ſemeac, eta zure alabac zurequin. Ceren zuretzat eta zure aurrentzat izan dirade gordeac Iſraelco ſemeen eſqueintza paquetſuetatic:

15 Ceren alchatu dituzten Jaunaren aurrean ſorbalda eta bularra, eta aldarean erretzen dan guicena, eta zuri dagozquizu eta zure ſemeai betico leguez, Jaunac aguindu zuen becela.

16 Gauza oyen artean, billatzen zuela Moiſeſec pecatua gatic eſqueñia izan zan aquerra, arquitu zuen errea: eta aſerraturic Eleazar eta Itamar Aaronen ſeme guelditu ciradenen contra, eſan zuen:

17 ¿Cergatic ez dezute jan toqui ſantuan pecatua gatic eſqueñia izan dan doai chit ſantua dana, eta emana zuei eraman dezazuten erriaren gaiztaqueria, erregutu dezazuten bera gatic Jaunaren aurrean,

18 Batezere izan ez dan ezquero ſartua bere odola ſantulecuaren barrenen, eta jan bear cenduten ezquero zuec bertan, aguindua izan zadan becela?

19 Erantzun zuen Aaronec: Gaur izan da eſqueñia doaya pecatua gatic, eta olocauſtua Jaunaren aurrean: eta niri guertatu zat icuſten dezuna. ¿Nola nic jan nezaquen, edo oniritzi Jaunari ceremonietan, gogo larrituz?

20 Adituric au Moiſeſec, ontzat artu zuen erantzuera.

XI. Cap.

ETA itz eguin cien Jaunac Moiſeſi ta Aaroni, ciola:

2 Eſan zayezute Iſraelco ſemeai: Lurreco abere guztietatic oyec dirade jango dituzutenac:

3 Jango dezute azcazala partituric duen guztia, eta auſmarrean aritzen dana abereen artean.

4 Baña auſmar eguin, eta azcazala iduqui arren, partitua ez duen guztia, gamelua eta gañeracoac becela, ez dezute jango, eta iduquico dezute ez garbien artean.

5 Tricu auſmar eguiten duena, eta azcazala partituric ez duena, ez da garbia.

6 Ezta erbia ere: ceren auſmar eguiten badu ere, ez du partitua azcazala.

7 Ezta cherria ere: ceñec iduquiric azcazala partituric, ez du auſmartzen.

8 Oyen araguiric ez dezute jango, ezta uquitu ere beren gorputz illac, ceren ez dirade garbiac zuentzat.

9 Oyec dirade uretan acirzen diradenac, eta jatea debecatua ez daudenac. Egatzac eta eſcamac dituen guztia, naiz itſaſoan, naiz ibayetan eta putzuetan, jango dezute.

10 Baña uretan muguitzen eta bicitu diradenetatic egatzic eta eſcamaric ez duen guztia, izango da zuentzat gorrotogarria

11 Eta nazcagarria; ez dituzute jango beren araguiac, eta igues eguingo dezute beren gorputz illetatican.

12 Uretan egatzic eta eſcamaric ez duten guztiac, izango dirade loyac.

13 Oyec dirade egaztien artean jan bear ez dituzutenac, eta berac gandic

igues eguin bear dezutenac: Arranoa, eta grifoya, eta itſas arranoa,

14 Eta mirua ta buzoca * bere motaquin,

15 Eta bele mota guztia bere antzecoaquin,

16 Sayea †, eta ontza, eta gabiota, eta mirotza ‡ bere motaquin:

17 Mozolloa §, eta itſas belea, eta ibiſa,

18 Eta belcharga ‖, eta pelicanoa, eta uchorigorria,

19 Coartza ¶ ta caradrioya beren motaquin; arguiollarra ere, eta ſaguxarra.

20 Lau oñez dabillen egodun guztia, nazcagarria izango da zuentzat.

21 Baña lau oñez ibilli arren, atzeco ancac, ceñez ſalto eguiten duen lurraren gañean, luceagoac dituen gucia,

22 Jan dezaquezute, nola dan brucoa bere motaquin, eta ataco ta oſomacoa, eta larrapotea **, bacoitza bere motaquin.

23 Baña lau oñ bacarric dituen egodun guztia, nazcagarria izango da zuentzat:

24 Eta beren aragui illquiai uquitzen dien guztia, guelldituco da loitua, eta ez da izango garbia arratſalde arte.

25 Eta eraman bear baldin balu norbaitec oyetaco abere illen bat, garbituco ditu bere ſoñecoac, eta loya egongo da eguzquia ſartu artean.

26 Azcazala iduqui arren, partituric ez duen abere guztia, eta auſmar eguiten ez duena, loya izango da: eta uquitzen diona loitua izango da.

27 Lau oñen gañean dabiltzen beſte abere guztien artean eſcuen gañean ibiltzen dana, loya izango da: beren aragui illquiai uquitzen diena, loitua guelldituco da arratſalde arte.

28 Eta oyec becelacoen gorputz illac eramaten dituenac, garbituco ditu bere ſoñecoac, eta loya izango da arratſalde arte: ceren oyec guztiac loyac diraden zuentzat.

29 Eta lurrean muguitzen diradenetatic oyec ere loitzat iduquico dirade, erbiñudea, eta ſagua, eta cocodriloa, bacoitza bere motaquin,

30 Baxacoa ††, eta camaleoya, eta larjalea ‡‡, eta muſquerra, eta ſatorra:

31 Oyec guztiac loyac dirade. Uquitzen diena beren aragui illquiai, izango da loya arratſalderaño:

32 Eta oyen illqui gauzaren bat gañera erortzen zayon guztia, loitua izango da, naiz zurezco ontzia, naiz ſoñecoa, naiz larruac, naiz cilicioac: eta edoceñ gauzataraco bear diradenean, ſartuco dirade urean, eta loyac izango dirade arratſalderaño, eta onela izango dirade guero garbituac.

33 Baña onelaco gauzaren bat barrena erortzen zayon lurrontzia, guelldituco da loitua, eta argatic izan bear du autſia.

34 Jaten dezuten jaqui guztia, ixurtzen baldin bada ura bere gañera, loitua izango da: eta ontzi oyetatic edaten dan edari guztia, loya izango da.

35 Eta bere gañera erorico baldin balitz onelaco illqui gauzaric, loitua izango da: naiz labechoac, naiz tupiac, loituac izango dirade, eta deſeguingo dirade.

36 Baña iturriac eta putzuac, eta urtoqui guciac garbiac izango dirade. Ango illquiren bati uquitzen diona, loitua guelldituco da.

37 Erorico baldin balitz aciaren gañera, ez du loituco.

38 Baña baldin norbaitec urez intzatuco balu acia, eta guero gauza illen batec ùquitua izango baldin balitz, berealaxe loitua guelldituco da.

39 Illco baldin balitz zuec jan dezaquezuten abereren bat, bere gorputz illari uquitzen diona, izango da loitua arratſalderaño.

40 Eta bertatic cerbait jaten, edo eramaten duenac, garbituco ditu bere ſoñecoac, eta izango da loitua arratſalderaño.

41 Lurraren gañean arraſtaca dabillen guztia, nazcagarria izango da, eta ez da artuco janaritzat.

42 Tripa gañean dabillen, eta oñ aſco dituen, edo lurrean arraſtaca dijoana, ez dituzute jango, nazcagarria dalaco.

43 Ez itzatzute loitu zuen animac, eta etzayozute uquitu beretaco gauzari, loyac guelditu etzaitezten.

44 Ceren ni naicen zuen Jaun Jaungoicoa: ſantuac izan zaitezte, ceren ni ſantua naiz. Ez itzatzute loitu zuen animac lurraren gañean muguitzen dan edoceñ arraſtacaritan.

45 Ceren ni naiz Egiptoco lurretic atera zaituztedan Jauna zuen Jaungoicoa izateco. Santuac izango cerate, ceren ni ſantua naiz.

* *butrea.* † *aveſtruza.* ‡ *gabiraya.* § *onta andia.* ‖ *ciſnea.* ¶ *garza.* ** *langoſta.* †† *muſgaña.* ‡‡ *ſalamanqueſa.*

46 Au da abereen eta egaztien, eta uretan muguitzen dan, eta lurrean arrastaca dabillen animali guztiaren leguea.

47 Ezagutu ditzazuten garbiaren eta loyaren deſberdintaſunac, eta jaquin dezazuten cer jan bear dezuten eta cer ez.

XII. Cap.

ETA itz eguin cion Jaunac Moiſeſi, ciola:

2 Itz eguin zayezu Iſraelco ſemeai, eta eſango diezu: Baldin andreac arturic acia eguingo balu ſemea, izango da loya zazpi egunean, illecoen egunen araura bereciturie:

3 Eta zortzigarren egunean izango da aur ſemechoaren buztanmocoa inguruan ebaquia.

4 Bera berriz oguei ta amairu egunean egongo da bere odola garbitzen. Gauza ſanturi ez dio uquituco, ez da ere ſartuco ſantulecuan, bere garbitueraco egunac bete ditecen bitartean.

5 Baña eguingo baldin balu alaba, izango da loya bi aſtetan, illeco jarioaren oituraren araura, eta iruroguei ta ſei egunean egongo da bere odola garbitzen.

6 Eta betetzen diradenean bere garbitueraco egunac, naiz ſeme, naiz alaba gatic, eramango ditu eſqueintzatzat urtebarruco arcume bat, eta uſacume bat edo uſatortola bat pecatua gatic, teſtimonioco tabernaculoco atera, eta emango diozca apaizari,

7 Ceñac eſqueñico ditu Jaunaren aurrean, eta erregutuco du bera gatic, eta onela izango da garbitua bere odolaren jariotican. Au da ſemea edo alaba eguiten duenaren leguea.

8 Baña baldin onetara allegatuco ez balitz, eta ecin eſqueñico balu arcume bat, artuco ditu bi uſatortola edo bi uſacume, bata doaitzat, eta beſtea pecatua gatic. Eta erregutuco du bera gatic apaizac, eta onela izango da garbitua.

XIII. Cap.

ETA itz eguin cien Jaunac Moiſeſi eta Aaroni, ciola:

2 Guizona, ceñaren larruan edo araguian aguertzen dan beſte colore bat, edo poſtillaren, edo gauza arguitſuren bat, au da, leguenen gaitza, izango da eramana Aaron apaiza gana, edo bere ſemeetatic edoceñ gana.

3 Ceñac icuſten duenean leguena larruan, eta illeac colore zurira biurtuac, eta leguenaren toquia ondatuago larrua, eta gañeraco araguia baño: leguenen gaitza da, eta bere erabaquira izango da berecitua.

4 Baña baldin zuritaſun arguitſu bat arquituco balitz larruan, eta ez balitz egongo ondatuago gañeraco araguia baño, eta illeac balirade lembicico colorecoac, iduquico du apezac zazpi egunean ichiric,

5 Eta beguiratuco dio zazpigarren egunean: eta baldin ez balitz gueyago zabaldu leguena, eta irago ez balitu larruan lembicico mugac, berriz iduquico du beſte zazpi egunean ichiric.

6 Eta zazpigarren egunean eſamiñatuco du: illunago aguertuco baldin balitz leguena, eta aci ez balitz larruan, garbitzat emango du, ceren atza da: eta garbituco ditu guizonac bere ſoñecoac, eta izango da garbia.

7 Baña baldin apezac icuſia izan ezquero, eta itzulia garbitaſunera, berriz leguena zabalduco balitz; izango da eramana bera gana,

8 Eta loitzat emana.

9 Leguenen gaitza duen guizona, izango da eramana apeza gana,

10 Eta icuſico du. Eta aguertzen danean larruan colore zuri bat, eta aldatu balu illeen colorea, eta aguertuco ere balitz aragui bicia:

11 Iduquico da leguen chit zar eta larruari itſatſitzat. Eta ala apezac emango du loitzat, eta ez du iduquico ichian, ceren loiqueria aguirian dago.

12 Baña baldin zabalduric larruan leguena loretuco balitz, eta eſtalico balu larru guztia burutic oñetaraño, beguien aurrean dagoen guztia,

13 Beguiratuco dio apaizac, eta adirazoco du leguenic garbiena duela: guztia zuritaſunera biurtu dalaco, eta argatic garbia izango da guizona.

14 Baña aguertzen danean beragan aragui bicia,

15 Orduan izango da loya apaizaren erabaquiz, eta loyen artean iduquia; ceren aragui bicia leguenac chipriztatua baldin badago, loya da.

16 Baña baldin berriz zuritaſunera biurtuco balitz, eta guizon guztia eſtalico balu,

17 Eſamiñatuco du apaizac, eta garbia dala erabaquico du.

18 Araguia eta narrua ordea, ceñean zauria jayoa eta ſendatua izan dan,

19 Eta zauriaren lecuan poſtilla zuria aguertuco balitz, edo cerbait gorria, eramana izango da guizona apaiza gana:

20 Ceñac icuſten duencan leguenaren toquia ondatuago gañeraco araguia baño, eta illeac zuri biurtuac, loitzat emango du: ceren leguenen zauria aci eta barrena ſartu da.

21 Baña baldin illea lembicico colorecoa bada, eta poſtilla cerbait illuna, eta aldeco araguia baño ondatuago ez badago, iduquico du zazpi egunean ichiric:

22 Eta zabalduco baldin balitz, leguentzat emango du.

23 Baña egongo baldin balitz bere toquian, zauriaren poſtilla da, eta guizona garbia izango da.

24 Baña ſuaz erretzen duen araguian eta narruan, ſendatuta, aguertuco balitz poſtilla zuria edo gorria,

25 Beguiratuco du apaizac, eta icuſten badu, itzuli dala zuritaſunean, eta bere toquia ondatuago dagoala gañeraco narrua baño: emango du loitzat, ceren leguenen zauria poſtillan aguertu da.

26 Baña ez baldin balitz mudatu illeen colorea, eta zauria ez baldin balego ondatuago gañeraco araguia baño, eta leguenaren irudia bera balitz cerbait illuna, ichico du zazpi egunean,

27 Eta zazpigarren egunean berriz icuſico du: baldin leguena zabaldu balitz narruan, emango du loitzat:

28 Baña baldin zuritaſuna egongo balitz bere toquian ez chit arguia, errearen zauria da, eta argatic garbitzat emango du, ceren errearen poſtilla dan.

29 Guizaſemea, edo emacumea, ceñaren buruan edo bizarrean erne dan leguena, icuſico du apaizac.

30 Eta baldin toquia balego ondatuago gañeraco araguia baño, eta illea oria, eta oi baño meago; loitzat emango ditu, ceren buruco eta bizarreco leguena dan.

31 Baña icuſico baldin balu manchaaren toquia berdiña dagoela aldeco araguiarequin, eta illea beltza: ichico du zazpi egunean,

32 Eta zazpigarren egunean beguiratuco dio. Mancha aci ez baldin bada, eta illea bada bere colorecoa, eta zauriaren toquia gañeraco araguiarequin berdiña:

33 Moztua izango da guizona mancharen toquitic campora, eta ichia egongo da beſte zazpi egunean.

34 Zazpigarren egunean icuſico baldin balitz guelditu dala zauria bere toquian, eta ez dagoela ondatuago gañeraco araguia baño, garbitzat emango du, eta garbituric bere ſoñecoac, garbia izango da.

35 Baña baldin garbitu ezquero, berriz zabalduco balitz mancha narruan,

36 Ez du gueyago beguiratuco illea colore orira aldatu dan ala ez, ceren loya dala aguerian dagoen.

37 Baña baldin mancha gueldiric balego, eta illeac beltzac balirade, jaquin beza guizona ſendatu dala, eta ichodopenez erabaqui beza garbia dala.

38 Guizaſeme, edo emacumeari, ceñaren narruan aguertzen dan zuritaſuna,

39 Beguiratuco dio apaizac. Arquituco baldin balu zuritaſun cerbait illunac argui eguiten duela narruan, jaquin beza ez dala leguena, baicic colore zuriaren mancha, eta guizona garbia dala.

40 Guizona, ceñaren burutic erortzen diraden illeac, calboa eta garbia da:

41 Eta baldin copetatic erorico balitzayozca illeac, aurrez calboa eta garbia da:

42 Baña baldin calban edo aurreco calban aguertuco balitz colore zuria edo gorria,

43 Eta icuſico baldin balu apaizac, erabaquico du dudarican gabe, calban aguertu zayon leguenez loitua dala.

44 Ala bada leguenez loitua dagoenac, eta aldenduric arquitzen danac apaizaren erabaquira,

45 Iduquico ditu ſoñecoen joſturac aſcatuac, burua aguirian, ſoñecoaz eſtalia, eta deadar eguingo du ciquiñic eta loituric dagoela.

46 Leguentſu eta loi dagoen dembora guztian, bicituco da bacarric bicilecuetatic campora.

47 Illezco edo liñozco ſoñeco leguenez loitua,

48 Ari irazquian, edo irazcayan, edo larrua ere, edo larruz eguindaco gauzaren bat,

49 Baldin balitz cutſatua mancha zuriz edo gorriz, leguentzat iduquico da, eta eracutſico zayo apaizari:

50 Ceñac eſamiñaturic, iduquico du zazpi egunean ichiric:

51 Eta zazpigarren eguncan berriz

beguiraturic, arquituco baldin balu zabaldu dala, leguen itſatſia da: loitzat emango ditu ſoñecoa, eta ura arquitzen dan guztia:

52 Eta argatic erreco da garretan.

53 Baldin alabaña icuſico balu ez dala zabaldu,

54 Aguinduco du, eta garbituco dute leguena duen gauza ura, eta berriz iduquico du ichita beſte zazpi egunean.

55 Eta icuſten duenean ez dala eguiazqui itzuli lembicico irudira, baña alaere ez dala zabaldu leguena, loitzat emango du, eta erreco du ſutan, ceren leguena zabaldua dago ſoñecoaren gañean, edo ſarturic bere barren guztian.

56 Baña baldin garbitu ezquero ſoñecoa leguenaren toquia balego illunago, ebaquico du, eta berecituco du oſotican.

57 Eta baldin guero aguertuco balitz leen garbiac ceuden toquietan, leguen batetic beſtera ta orremen dabillena: ſutan erre bear da.

58 Quenduco balitz, bigarren aldiz garbituco ditu urez garbi daudenac, eta garbiac izango dirade.

59 Au da illezco eta liñozco ſoñecoaren, ari irazqui, ta irazcayaren, eta larruzco trefna guztiaren leguenaren leguea, nola erabaqui bear dan garbia dagoen, edo loya.

XIV. Cap.

ETA itz eguin cion Jaunac Moiſeſi, ciola:

2 Au da eguin bear dana leguendunarequin, garbitua izango danean: Izango da eramana apeza gana:

3 Ceñac ateraric bicilecuetatic, arquitzen duenean leguena garbitua izan dala,

4 Aguinduco dio garbitzen danari, eſqueñi ditzala bera gatic bi choarre bici, ceñetatic jatea ez da debecatua, eta cedrozco zura, eta grana, eta iſopoa.

5 Eta aguinduco du illtzeco choarreetatic bat lurrezco ontzi batean ur bicien gañean:

6 Eta beſte bicia cedrozco zurarequin, eta grana ta iſopoarequin, buſtico du illa izan dan choarrearen odolean,

7 Ceñaz intzatuco du zazpi aldiz garbitua izango dana, garbitua izan dedin ceremoniaren araura: eta utzico dio joaten choarre biciari, egatu dezan campora.

8 Eta garbitzen dituenean guizonac bere ſoñecoac, arras ebaquico ditu bere gorputzeco ille guztiac, eta garbituco da urtan: eta garbituric ſartuco da egonlecuetan, baña egon bearco du zazpi egunean bere dendatic campoan,

9 Eta zazpigarren egunean arras ebaquico ditu buruco illeac, eta bizarra eta bepuruac, eta gorputz guztico illeac. Eta berriz garbituric ſoñecoac eta gorputza,

10 Zortzigarren egunean artuco ditu bi arcume manchagabeac, eta urtebarruco ardi aitzaquigabea, eta iru amarren iriñ lore eſqueintzaraco, oliorequin naſia izan dana, eta berecian ſeico neurri bat olio.

11 Eta guizona garbitzen duen apaizac preſentatzen duenean gauza guzti oyequin Jaunaren aurrean teſtimonioco tabernaculoco atean,

12 Artuco du arcume bat, eta eſqueñico du culpa gatic, eta ſeico neurri olioa: eta eſqueñiric guztia Jaunaren aurrean,

13 Illco du arcume bat, pecatua gatic bitima illa izan oi dan toquian, olocaustoa, au da, toqui ſantuan. Ceren pecatua gatic bezala, ala culpa gatic eſqueintzen dan doaya ere apezari dagoquio: gauza chit ſantua da.

14 Eta arturic apezac culpa gatic illa izan dan aberearen odoletic, jarrico du garbitzen danaren eſcuico belarri mocoaren gañean, eta eſcuico eta oñeco beatz lodien gañean:

15 Eta ſeico neurritic botaco du olioa bere ezquerreco eſcuaren gañera,

16 Eta buſtico du beriañ bere eſcuico beatza, eta intzatuco du Jaunaren aurrean zazpi alditan.

17 Eta ezquerreco eſcuan ſobratzen dan olioa, ixurico du garbitzen danaren eſcuico belarri mocoaren gañean, eta escuico eſcu ta oñeco beatz lodien gañean, eta culpa gatic ixuria izan dan odolaren gañean,

18 Eta bere buruaren gañean.

19 Eta erregutuco du bera gatic Jaunaren aurrean, eta eguingo du eſqueintza pecatua gatic. Orduan illco du eſqueñico dan aberea,

20 Eta jarrico du aldarearen gañean bere libacioaquin, eta guizona izango da garbitua ceremoniaren araura.

21 Baña baldin beartſua balitz, eta allegatuco ez balitz eſan diradenetara, artuco du arcume bat eſqueintzeco culpa gatic, erregutu dezan bera gatic apezac, eta iriñ lore eſqueintzaraco oliorequin

naſiaren amargarren partea, eta ſeico neurri olioa,

22 Eta uſatortola bi edo uſacume bi, ceñetatic bat izango da pecatua gatic, eta beſtea eſqueintzaraco.

23 Eta eſqueñico dizquio apezari bere garbitueraco zortzigarren eguncan, teſtimonioco tabernaculoco atean Jaunaren aurrean.

24 Ceñac arturic arcumea culpa gatic ta ſeico neurri olioa, alchatuco ditu batean:

25 Eta illic arcumea, jarrico du bere odoletic garbitzen danaren eſcuico belarri mocoaren gañean, eta bere eſcuico eſcu ta oñeco beatz lodien gañean:

26 Eta olioaren zati bat botaco du bere ezquerreco eſcura,

27 Ceñean buſtiric eſcuico beatza intzatuco du zazpi alditan Jaunaren aurrean:

28 Eta uquituco dio garbitzen danaren eſcuico belarri mocoari, eta eſcuico eſcu ta oñeco beatz lodiai, culpa gatic ixuria izan zan odolaren toquian:

29 Eta ezquerreco eſcuan dagoen olioaren gañeraco zatia, botaco du garbituaren buru gañean, biguntzeco bera gatic Jauna:

30 Eta eſqueñico du uſatortola edo uſacumea,

31 Bata culpa gatic, eta beſtea doaitzat beren libacioaquin.

32 Au da garbitzeco bear diran guciac iduqui ez ditzaquen leguendunaren esqueintza.

33 Eta itz eguin cien Jaunac Moiſeſi ta Aaroni, ciola:

34 Sartzen ceratenean Canaango lurrean, ceñ emango dizutedan bere jabe izateco, baldin balego leguenen gaitzic echeetan,

35 Joango da echearen jabea, eta adiracituaz apezari, eſango du: Leguenen gaitza becelacoa deritzat dagoala nere echean.

36 Eta berac aguinduco du atera ditzatela gauza guztiac echetican, bertan ſartu baño lenago, icuſi dezan leguenac arturic ote dagoen, loitu ez ditecen echean dauden gauza guztiac. Eta ſartuco da guero echeco leguena ezagutzeco:

37 Eta icuſico baldin balitu paretetan zulocho batzuec colore orizco edo gorrizco manchaz itſuſituac, eta ondatuagoac beſte gaña baño,

38 Ateraco da echeco atetican campora, eta bereala ichico du zazpi egunean.

39 Eta itzuliric zazpigarren egunean, icuſico du: arquituco baldin balu zaldu dala leguena,

40 Aguinduco du ateratzeco arriac, ceñetan dagoen leguena, eta botatzeco erritican campora toqui loi batera:

41 Eta echea bera arraſcatzeco barrendican inguruan, eta zabaltzeco arrascatuaren autſa erritic campora toqui loi batean,

42 Eta jartzeco beſte arriac quendu diradenen lecuan, eta zuriberritzeco echeco paretac.

43 Baña baldin ateratuac izan ciraden ezquero arriac, eta autſa arraſcatua, eta zuriberritua echea,

44 Sarturic apeza icuſico baldin balu itzuli dala leguena, eta paretac manchaz beteac daudela, leguen itſatſia da, eta echea loya:

45 Ceñ bercala deſeguingo dute, eta botaco dituzte erritic campora toqui loi batera bere arriac eta zurac, eta auts guztia.

46 Sartzen dana echean ichiric dagoenean, loya izango da arratſalderaño:

47 Eta bertan lo eguiten duenac, eta cerbait jaten duenac, garbituco ditu bere ſoñecoac.

48 Baña ſarturic, apezac icuſico balu leguena ez dala zabaldu echean, zuriberritu dan ezquero, emango du garbitzat:

49 Eta bera garbitzeco artuco ditu bi choarre eta cedrozco zura, eta grana, ta iſopoa:

50 Eta illic choarre bat lurrezco ontzi batean ur bicien gañean,

51 Artuco du cedrozco zura, eta iſopoa, eta grana, eta choarre bicia, eta bustico ditu guztiac choarre illaren odolcan, eta ur bicietan, eta intzatuco du echea zazpi aldiz,

52 Eta garbituco du, ala choarrearen odolaz, nola ur bici, choarre bici, cedrozco zur, iſopo eta granaz.

53 Eta uzten dionean choarreari egatu dezan campora librequiro, erreguturo du echea gatic, eta izango da garbitua ceremoniaren araura.

54 Au da leguen guztiaren, eta zauriaren,

55 Soñecoen eta echeen leguenaren,

56 Poſtillaren eta campora ateratzen diraden maſculloen, mancha arguitſuaren,

eta coloreen mota aſcotaco aldaeren leguea,

57 Jaquiña izan dezaquen cer demboratan cerbait garbia, edo loya dan.

XV. Cap.

ETA itz eguin cien Jaunac Moiſeſi eta Aaroni, ciola:

2 Itz eguin zayezute Iſraelco ſemeai, eta eſan zayezute: Aciaren jarioa daucan guizona, loya izango da.

3 Eta orduan erabaquico da eritaſun onen mendean dagoala, puntutic puntura gai loya itſaſten zayonean bere araguiari, eta gogortzen danean.

4 Lo eguiten duen erzantoqui gucia, loya izango da: baita ere eſertzen dan lecu gucia.

5 Guizonen batec uquitzen baldin badio bere oeari, garbituco ditu bere ſoñecoac: eta bera urez garbitua, loya izango da arratſalderaño.

6 Eſertzen baldin bada ura eſeria cegoen toquian, berac ere garbituco ditu bere ſoñecoac: eta urez garbituric, loya izango da arratſalderaño.

7 Bere araguiari uquitzen dionac, garbituco ditu bere ſoñecoac: eta bera urez garbituric, loya izango da arratſalderaño.

8 Baldin onelaco guizonac chiſtua botaco balu garbia dagoenaren gañera, garbituco ditu bere ſoñecoac: eta urez garbituric, loya izango da arratſalderaño:

9 Chalma, ceñaren gañean eſertzen dan, loya izango da:

10 Aciaren jario daucanaren azpian dagoen gucia, loitua izango da arratſalderaño. Gauza oyetatic cerbait daramanac, garbituco ditu bere ſoñecoac: eta bera urez garbituric, loya izango da arratſalderaño.

11 Onelaco guizonac, lendican eſcuac garbitu gabe, uquitua dan guciac, garbituco ditu bere ſoñecoac: eta urez garbitu ezquero, loya izango da arratſalderaño.

12 Uquitzen dion lurrezco ontzia, autſia izango da: zurezcoa bada urez garbitua izango da.

13 Sendatzen baldin bada onelaco gaitza duena, contatuco ditu bera garbitu ezqueroco zazpi egun, eta garbituric ſoñecoac eta gorputz guztia ur bicietan, garbia izango da.

14 Eta zortzigarren egunean artuco ditu bi uſatortola, edo bi uſacume, eta etorrico da Jaunaren aurrera teſtimonioco tabernaculoco atera, eta emango diozca apezari:

15 Ceñac eſqueñico ditu bata pecatua gatic, eta beſtea doaitzat: eta erregutuco du bera gatic Jaunaren aurrean, garbitua izan dedin bere aciaren jariotic.

16 Guizonac, ceñ gandic atera dan bere naſico acia, urez garbituco du bere gorputz gucia: ta loya izango da arratſalderaño.

17 Urez garbituco ditu ſoñecoa eta duen larrua, eta loya izango da arratſalderaño.

18 Emacumea, ceñarequin naſitzen dan, urez garbitua izango da, eta izango da loya arratſalderaño.

19 Illeco odolaren jarioa duen emacumea, berecitua izango da zazpi egunean.

20 Berari uquitzen dion guztia, loya izango da arratſalderaño:

21 Eta bera berecitua dagoen egunetan lo eguiten duenean, edo eſertzen danean azpian duen guztia, loitua izango da.

22 Bere oeari uquitzen dion guztiac, garbituco ditu bere ſoñecoac: eta bera urez garbituric, loya izango da arratſalderaño.

23 Uquitzen dionac bera gañean eſerita egon dan edoceñ gauzari, garbituco ditu bere ſoñecoac: eta bera urez garbituric, loya izango da arratſalderaño.

24 Baldin guizona naſico balitz berarequin illeco odolaren demboran, loya izango da zazpi egunean: eta lo eguiten duen etzanlecu gucia, izango da loitua.

25 Odolaren jarioa egun aſcotan duen emacumea illecoen demboraz campora, edo illeco odolen ondoren jarioa guelditzen etzayona, gaitz onequin dagoan bitartean, loya izango da illecoaquin balego bezala.

26 Lo eguiten duen etzanlecu gucia, edo eſertzen dan gauza gucia, loya izango da.

27 Oyei uquitzen dien guztiac, garbituco ditu bere ſoñecoac: eta bera urez garbituric, loya izango da arratſalderaño.

28 Gueldituco baldin balitz odola, eta urzico balio jarioac, contatuco ditu zazpi egun bere garbitueraren ondoren:

29 Eta zortzigarren egunean eſqueñico dizquio bera gatic apezari uſatortola

bi edo uſacume bi teſtimonioco tabernaculoco atean:

30 Ceñac bata eſqueñico du pecatua gatic, eta beſtea doaitzat, eta erregutuco du bera gatic Jaunaren aurrean, eta bere loiqueriaren jarioa gatic.

31 Eracutſico diezute bada Iſraelco ſemeai gorde ditecela ciquinqueritic, eta ez ditecela ill beren loiquerietan, manchatzen dutenean beren artean dan nere tabernaculoa.

32 Au da aciaren jario duenaren, eta araguizco naſiz loitzen danaren,

33 Eta illecoen demboran berecitua dagoen emacumearen, edo odol jarioac jarraitzen dionaren eta berarequin lo eguiten duen guizonaren leguea.

XVI. Cap.

ETA itz eguin cion Jaunac Moiſeſi Aaronen bi ſemeen eriotzaren ondoren, eſqueintzen zutela ſu arrotza illac izan ciradenean:

2 Eta aguindu cion, eſaten zuela: Itz eguin zayozu zure anai Aaroni ez dedilla ſartu edoceñ demboratan propiciatorioaren aurrean, ceñaz eſtaltzen dan cucha, beloaren barrenen dagoen ſantulecuan, ill ez dedin (ceren odeyan aguerruco naiz oraculoaren gañean),

3 Gauza oyec lendican eguiten ez baldin baditu: Eſqueñico ditu chal bat pecatua gatic, eta ari bat doaitzat.

4 Jantzico du liñozco tunica, tapatuco ditu lotſariac liñozco galtza mochez: eſtunco da liñozco guerrico batez, jarrico du buruan liñozco tiara: ceren ſoñeco oyec ſantuac dirade: ceñ guztiaquin jantzico da, garbitu ezquero.

5 Eta artuco ditu Iſraelco ſemeen talde guztia gandic bi aquer pecatua gatic, eta ari bat doaitzat.

6 Eta eſqueintzen duenean chala, eta erregutzen duenean bera gatic eta bere echea gatic,

7 Preſentatuco ditu aquer biac Jaunaren aurrean teſtimonioco tabernaculoaren aurrean.

8 Eta botatic ſuertea bien gañean, bata Jaunarentzat, eta beſtea aquer mandatariarentzat:

9 Eſqueñico du pecatua gatic Jaunarentzat ſuertean irten zayon ura:

10 Eta irten zayona izateco aquer mandataria, preſentatuco du biciric Jaunaren aurrean, erreguac eguiteco bere gañean, eta botatzeco eremura.

11 Oyec eguiñic ceremonien araura, eſqueñico du chala, eta erregutzen duela bera gatic eta bere echea gatic, illco du:

12 Eta arturic intzentſonarioa, ceñ bete izango duen aldareco chingarrez, eta ateraric eſcuaz intzentſatzeco eguindaco lurrin gaya, ſartuco da belotic barrena ſantulecuan:

13 Jarriric ſuaren gañean aromac, beren queac eta lurriñac eſtali dezan teſtimonioaren gañean dagoan oraculoa, eta ill ez dedin.

14 Artuco ere du chalaren odoletic, eta intzatuco du beatzaz zazpi alditan propiciatorioaren aurretic ſortalderontz.

15 Eta illic aquerra errico pecatua gatic, ſartuco du bere odola beloaren barrenen, chalaren odola gatic aguindu zan becela, intzatu dezan oraculoaren aurretican,

16 Eta garbitu dezan ſantulecua Israelco ſemeen loiquerietatic, eta fédea auſitzeaz eguin dituzten gaiztaquerietatic, eta pecatu guztietatic. Ceremonia onen araura eguingo du beren bicilecuaren loiquerien erdian jarria dagoen teſtimonioco tabernaculoarequin.

17 Guizonic batere ez bedi egon tabernaculoan apaiz nagufia ſartzen danean ſantulecuan bera ta bere echea, eta Israelco batzarre guztia gatic, atera dedin artean.

18 Eta ateratzen danean Jaunaren aurrean dagoen aldaretic, erregutu beza bera gatic, eta arturic chalaren eta aquerraren odola ixuri beza aldarearen adarren gañean inguruan:

19 Eta intzaturic beatzaz zazpi aldiz, garbitu, eta ſantutu beza Iſraelco ſemeen loiquerietatic.

20 Garbitu ezquero ſantulecua, eta tabernaculoa, eta aldarea, orduan eſqueñi beza aquer bicia:

21 Eta jarriric eſcu biac bere buru gañean, aitortu bitza Iſraelco ſemeen gaiztaqueri guztiac, eta culpa guztiac eta beren pecatuac: ceñac jarriric birauaquin bere buru gañean, bidalduco du guizon preſtatuaren bidez eremura.

22 Eta eramanic aquerrac beren gaiztaqueri guztiac lur bacarrera, eta aſcatua danean eremuan,

23 Itzulico da Aaron teſtimonioco tabernaculora, eta erantziric, leen ſantule-

cuan fartu zanean jantziric ceuzcan ſoñecoac, eta utziric an,

24 Garbituco du bere gorputza lecu fantuan, eta jantzico ditu bere ſoñecoac. Eta irten ezquero, bere doaya eta erriarena eſqueñiric, erregutuco du bai bera gatic, eta bai erria gatic :

25 Eta erreco du aldarearen gañean pecatuac gatic eſqueñia izan dan guicena.

26 Eta aquer mandataria bidaldu duenac, garbituco ditu bere ſoñecoac eta gorputza urez, eta ala egonlecuetan ſartuco da.

27 Eta pecatua gatic illac izan diraden chala eta aquerra, eta ceñen odola ſartua izan dan ſantulecuaren barrenen garbituera betetzeco, eramango dituzte egonlecuetatic campora, eta ſuaz erreco dituzte bai beren larruac, bai beren araguiac eta gorotza :

28 Eta erretzen dituen edoceñec, garbituco ditu urez bere ſoñecoac eta gorputza, eta ala ſartuco da egonlecuetan.

29 Eta au izango da zuentzat betico legue bat. Zazpigarren illean, illaren amargarren egunean, penatuco dituzute zuen animac, eta ez dezute lanic eguingo, ez erricoac, ez zuen artean dabillen arrotzac.

30 Egun onetan izango da zuen garbitzea, eta zuen pecatu guztiac borratzea : Jaunaren aurrean izango cerate garbituac.

31 Ceren atſedeneco larumbata da, eta penatuco dituzute zure animac betico beguirunez.

32 Eta garbitzea eguingo du unjitua izan zan apezac, eta ceñaren eſcuac izan ciraden conſagratuac bere aitaren lecuan apaiz lanetan aritzeco : eta jantzico ditu liñozco tunica ta ſoñeco ſantuac,

33 Eta garbituco ditu ſantulecua eta teſtimonioco tabernaculoa ta aldarea ; apaizac ere ta erri guztia.

34 Eta au izango da zuentzat betico legue bat, erregutu dezazutela Iſraelco ſemeac gatic, eta bere pecatu guztiac gatic urtean bein. Eta eguin zuen Jaunac Moiſeſi aguindu cion becela.

XVII. Cap.

ETA itz eguin cion Jaunac Moiſeſi, eſaten zuela :

2 Itz eguin zayezu Aaroni, eta bere ſemeai, eta Iſraelco ſeme guztiai, eſaten diezula : Au da Jaunac eman duen aguintea, ceñac eſaten duen :

3 Iſraelco echeco edoceñ guizonec, illco baldin balu idia edo ardia, edo auntza, egonlecuetan edo oyetatic campoan,

4 Eta eſqueñico ez baldin balio tabernaculoaren atean doaitzat Jaunari, odolaren culpadun izango da ; odola ixuri baldin balu becela, ala izango da galdua bere erriaren erditican.

5 Argatic apaizari eſqueñi bear dizquiote Iſraelco ſemeac beren emaitzac, ceñac illco dituzten campoan, izan ditecen Jaunari conſagratuac teſtimonioco tabernaculoaren atean, eta eſqueñi dizazquioten Jaunari doai paquetſuac becela.

6 Eta ixurico du apaizac odola Jaunaren aldare gañean teſtimonioco tabernaculoaren atean, eta erreco du guicena uſai gozoa bota dezan Jaunarentzat :

7 Eta iñolaere berriz ez dizayezten eſqueñi beren doayac demonioai, ceñac adoratu dituzten. Au izango da berentzat eta beren ondorengoentzat betico legue bat.

8 Eſango ere diezu berai : Iſraelco echeco, eta zuen artean dabiltzan arrotzetatic edoceñec, eſqueñico baldin balu doaya edo emaitza,

9 Eta eramango ez baldin balu teſtimonioco tabernaculoaren atera, eſqueñia izan dizayon Jaunari, galduco da bere erritic.

10 Iſraelco echeco, eta beren artean dabiltzan arrotzetatic edoceñ guizonec, baldin jango balu odola, nic jarrico det ſendo alacoaren gañean nere arpegui aferretua, eta galduco det bere erritic,

11 Ceren araguiaren bicia odolean dago : ta nic eman dizutet, berarequin pagatu ditzazuten aldarearen gañean zuen animen zorrac, eta odolac balio dezan anima eroſteco.

12 Argatic eſan diet Iſraelco ſemeai : Zuen arteco batec ere ez du jango odolic, eztaere zuen artean dabiltzan arrotzec.

13 Iſraelco ſemeetatic, eta zuen artean dabiltzan arrotzetatic edoceñ guizonec, atzituco baldin balu eicean piſti edo egazti, ceñetatic jatea debecatua ez danen bat, ixuri beza bere odola, eta eſtali beza lurrez.

14 Ceren aragui guztiaren bicia odolean dago : argatic eſan diet Iſraelco ſemeai : Abereren odolic ez dezute jango,

ceren araguiaren bicia odolean dagoen: eta jaten duen guztia, galdua izango da.

15 Gauza illqui, edo piſtiac arrapatua jaten duen guizon guztiac, naiz errico, naiz arrotzac, garbituco ditu bere ſoñecoac, eta bere gorputza urez, eta loitua egongo da arratſalderaño: eta era onetan garbitua izango da.

16 Eta baldin ez baditu garbitzen bere ſoñecoac eta gorputza, eramango du bere gañean bere gaiztaqueria.

XVIII. Cap.

ITZ eguin cion Jaunac Moiſeſi, eſaten zuela:

2 Itz eguin zayezu Iſraelco ſemeai, eta eſango diezu: Ni zuen Jaun Jaungoicoa:

3 Ez diezute jarraituco Egiptoco lur bicitu izan cerateneco oiturai: ez dituzute ere artuco Canaango lur nic ſartuco zaituztedaneco uſuac; etzerate ere ibillico beren legueen erara.

4 Eguingo dituzute nere erabaquiac, eta gordeco dituzute nere aguinteac, eta ibillico cerate beretan. Ni zuen Jaun Jaungoicoa.

5 Gorde itzatzute nere legueac, eta erabaquiac; ceñac eguiñic guizonac, arquituco du bicia beretan. Ni Jauna.

6 Guizonic ez bedi alderatu emacume aide odol batecoa gana bere lotſagarriac aguertzeco. Ni Jauna.

7 Ez ditun aguertuco ire aitaren lotſagarriac: ire amarenac aguertuco ez dituc: ire ama dec: ez dituc aguertuco bere lotſagarriac.

8 Ez dituc aguertuco ire aitaren emaztearen lotſagarriac: bada ire aitarenac dituc.

9 Ez dituc aguertuco ire aita edo amaldeco arreba, naiz echean, naiz campoan jayo danaren lotſagarriac.

10 Ez dituc aguertuco ire ſemearen alabaren edo alabaldeco illobaren lotſagarriac: ceren ireac diran.

11 Ez dituc aguertuco ire aitaren emaztearen alaba, ceñ arc eguin zuen ire aitarentzat, eta ire arreba danaren lotſagarriac.

12 Ez dituc aguertuco ire aitaren arrebaren lotſagarriac: ceren ire aitaren araguia dan.

13 Ez dituc aguertuco ire amaren aizparen lotſagarriac: ceren ire amaren araguia dan.

14 Ez dituc aguertuco ire aitaldeco oſabaren lotſagarriac, eta ez adi alderatu bere emazte ire aide ezcontzaz dana gana.

15 Ez dituc aguertuco ire errañaren lotſagarriac, ceren ire ſemearen emaztea dan, eztaere aguertuco bere itſuſtaſuna.

16 Ez dituc aguertuco ire anayaren emaztearen lotſagarriac: ceren ire anayarenac diran.

17 Ez dituc aguertuco ire emaztearen alabaren lotſagarriac. Ez dec artuco bere ſemearen alaba, eztaere bere alabaren alaba beren lotſagarriac aguertzeco: ceren beren araguia diran, eta alaco elcartaſuna aide cutſua dan.

18 Ez dec artuco ire oe laguntzat ire emaztearen aizparic, ez dituc aguertuco ere bere lotſagarriac ura bici dan artean.

19 Ez adi alderatu emaztea gana illecoac dituen bitartean, ez dec aguertuco ere bere itſuſtaſuna.

20 Ez dec araguizco pecaturic eguingo ire lagunaren emaztearequin, eta ez aiz ere loituco alaco naſiaz.

21 Ez dec emango ire ſemeric Moloc jainco falſoari conſagratzeco, eta ez dec ere loituco ire Jaungoicoaren icena. Ni Jauna.

22 Ez adi naſi guizaſemearequin emacumearen guiſara, ceren gorrotogarria dan.

23 Aberequin ez aiz naſico, ezta loitu ere berarequin. Ez da etzango emacumea aberequin, eztaere berarequin naſtuco: ceren gaiztaqueri andia dan.

24 Etzaitezte ere loitu nic zuec icusten dezutela botaco ditudan jende guztiac naſtu diraden gauza guzti oyequin,

25 Eta ceñaquin loitua izan dan lurra: ceñaren gaiztaquerien contu eſtuac artuco dieztet nic, bota ditzan bera gandic aſerrez beragan bici diradenac.

26 Gorde itzatzute nere legueac eta erabaquiac, eta ez ezazute eguin alaco gaiztaquerietatic bat ere, ez erricoac, ez zuen artean bici diraden erbeſtecoac.

27 Ceren gauza nazcagarri guzti oyec eguin dituzte zuec baño lenago lur artan bicitu izan ciradenac, eta daucate cutſaturic.

28 Contu bada zuec ere bera gandic aſerrez bota etzaitzaten, zuec baño lenagoco jendea bota zuen becela, alaco gauzaric eguiten baldin badezute.

29 Gaiztaqueri oyetacoren bat eguiten

duena, galdua izango da bere erriaren erditic.

30 Gorde itzatzute nere aguinteac. Ez ezazute eguin zuec baño lenagocoac eguin dutena, eta etzaitezte ere loitu alaco eguiteaquin. Ni zuen Jaun Jaungoicoa.

XIX. Cap.

ITZ eguin cion Jaunac Moiſeſi, eſaten zuela:

2 Itz eguin zayozu Iſraelco ſemeen batzarre guztiari, eta eſango diezu: Santuac izan zaitezte, ceren ni ſantua naiz, zuen Jaun Jaungoicoa.

3 Bacoitza bere aitaren eta bere amaren beldur izan bedi. Gorde itzatzute nere larumbatac. Ni zuen Jaun Jaungoicoa.

4 Etzaitezte itzuli jainco falſoetara, eta ez ezazute ere eguin zuentzat Jaungoico urtuzcoric. Ni zuen Jaun Jaungoicoa.

5 Baldin eſqueñico baciñioquete Jaunari doai paquetſuric, izan dedin onginaya,

6 Jango dezute illa izan dan egunean bertan, eta biaromenean: baña irugarren eguneraco ſobratzen dan guztia, ſuaz erreco dezute.

7 Baldin iñorc jango balu bertatic bi egunen ondoren, gaizquiguillea izango da, eta pecatuaren culpadun:

8 Eta eramango du bere gañean bere gaiztaqueria, Jaunaren ſantua loitu zuelaco, eta guizon ura galdua izango da bere erritic.

9 Iguitaitzen dituzunean zure lurreco laboreac, ez dezu ebaquico azpiraño lurraren gaña: ez dituzu ere bilduco guelditzen diraden galburuac.

10 Eta zure maſtian ere ez dituzu bilduco mordoac eta erorrzen diraden aleac, baicic utzico dituzu, beartſuac eta arrotzac bildu ditzaten. Ni zuen Jaun Jaungoicoa.

11 Ez dezute oſtuco. Ez dezute guezurrican eſango, eta ez du ere iñorc engañatuco bere laguna.

12 Ez dezu guezurrez juramenturic eguingo nere icenean, ez dezu ere loituco zure Jaungoicoaren icena. Ni Jauna.

13 Ez diozu guezurrican aſmatuco zure lagunari, ez dezu ere indarrez mendetuco. Ez da ere gueldituric egongo zugan biarco eguneraño zure aloguerecoaren * lana.

14 Ez dezu gaizqui eſango gorra gatic, ez diozu ere jarrico aurrean itſuari eſtropozoric: baicic zure Jaun Jaungoicoaren beldur izango cera, ceren ni naicen Jauna.

15 Ez dezu eguingo bidegabea dan gauzaric, ez dezu ere bidegabero juzgatuco. Etzayozu beguiratu beartſuari, ez ezazu ere ondratu aldunaren arpeguia. Bidez juzgatu ezazu zure laguna.

16 Etzera izango guezur aſmatzallea, ez berritſua errian. Etzera egongo zure lagunaren biciaren contra. Ni Jauna.

17 Ez diozu gorrotoric izango zure anayari zure biotzean, baicic erriertan emayozu aguirian, bera gatic pecatu eguin ez dezazun.

18 Ez ezazu billatu bengantza, etzera ere oroituco zure erritarren irainez. Maitatuco dezu zure adiſquidea zu cerori becela. Ni Jauna.

19 Gorde itzatzute nere legueac. Ez dezu naſieracico zure zamaria beſte abere motarequin. Ez dezu ereingo zure ſoroan aci mota aſco. Ez dezu jantzico bi gayez eoric dagoen ſoñecoa.

20 Baldin guizon batec lo eguingo balu emacume mempeco oraindic ezcongairen batequin, baña alaere erreſcatatu, ta bere libertadean jarri gabearequin: biac izango dirade azotatuac, baña ez illac, ceren emacumea etzegoen libre.

21 Baña guizonac eſqueñico du ari bat bere pecatua gatic teſtimonioco tabernaculoco ſarreran:

22 Eta apaizac erregutuco du bera gatic, eta bere pecatua gatic Jaunaren aurrean, eta berarequin paqueac eguingo ditu, eta barcatua izango zayo pecatua.

23 Sartzen ceratenean lur artan, eta ipintzen dituzutenean bertan frutadun zuaitzac, botaco dituzute lembicico frutuac, eta lembici ematen dituztenac loitzat iduquico dituzute, eta ez dituzute jango.

24 Baña laugarren urtean beren frutu guztia izango da conſagratua Jaunaren gloriara.

25 Eta bofgarren urtean jango dituzute frutuac, biltzen dituzutela ematen dituzten guztiac. Ni zuen Jaun Jaungoicoa.

* *jornaleroaren.*

26 Ez dezute jango ecer odolarequin. Ez dezute aztiren lanic eguingo, ez diezute ere beguiratuco ametſai.

27 Ez dezute ere ebaquico illeric inguruan: ez dezute ere artas quenduco bizarric.

28 Eta illa gatic ez dezute pitzatuco zuen araguiric, ez dezute ere eguingo zuen gañean irudiric, ez marcaric. Ni Jauna.

29 Ez ezazu utzi zure alaba beſteren gogo ciquiñetara, loitu ez dedin lurra, eta gaiztaqueriz bete ez dedin.

30 Gorde itzatzute nere larumbatac, eta nere ſantulecuaren beldur izan zaitezte. Ni Jauna.

31 Ez alderatu ſorguiñac gana, etzayezute ere ecer galdetu aztiai, berac gatic loitu etzaitezten. Ni zuen Jaun Jaungoicoa.

32 Jaiqui zaite butu urdiñaren aurrean, eta ondratu ezazu agurea: eta zure Jaun Jaungoicoaren beldur izan zaite. Ni naiz Jauna.

33 Baldin arrotzic bicituco balitz zuen lurrean, eta egongo balitz zuen artean, etzayozute arpeguira eman:

34 Baicic egon bedi zuen artean erricoa becela: eta maitatuco dezute zuec ceroc becela: ceren zuec ere izan ciñaten arrotzac Egiptoco lurrean. Ni zuen Jaun Jaungoicoa.

35 Ez ezazute eguin gauza gaiztoric erabaquian, canan, piſuan, neurrian.

36 Balanza izan bedi juſtua, eta piſuac izan bitez berdiñac, modioa juſtua, ta ſeico neurria berdiña: Ni zuen Jaun Jaungoico Egiptoco lurretic atera cinduztedana.

37 Gorde itzatzute nere aguinte guztiac, eta nere erabaqui guztiac, eta bete itzatzute. Ni Jauna.

XX. Cap.

ETA itz eguin cion Jaunac Moiſeſi, eſaten zuela:

2 Oyec eſan zayezu Iſraelco ſemeai: Iſraelco ſemeetatic, edo beren artean bici diran arrotzetatic edoceñec, emango baldin balio bere ſemeren bat Moloc jainco falſoari, illa izango da: errico jendeac arrica emango dio.

3 Eta nic eracutſico det nere aſerrea bere contra: eta ateraco det bere erriaren erditic, eman dizquiolaco bere ſemeac Moloqui, eta loitu duelaco nere ſantulecua, eta nere icen ſantua cutſatu.

4 Baña baldin erriac malmetitu gabe, eta guchitan iduquiric becela nere aguintea, utzico balu caſtigatu gabe bere ſemeren bat Moloqui eman dion guizona, eta ez baldin balu nai ill,

5 Nic eracutſico det nere aſerrea alaco guizonaren contra eta bere aideen contra, eta ateraco ditut beren erriaren erditic bera, eta Moloc jainco falſoaren adoratzea onguitzat eman zuten guztiac.

6 Sorguiñai ta aztiai alderatzen, ta beraquin elcartzen dan guizona, nic aguertuco det nere aſerrea bere contra, eta arroztuco det bere erriaren erditic.

7 Santutu zaitezte ta izan zaitezte ſantuac, ceren ni naicen zuen Jaun Jaungoicoa.

8 Gorde itzatzute nere aguinteac, eta bete itzatzute: Ni zuec ſantutzen zaituztedan Jauna.

9 Bere aita, edo ama madaricatzen duena, illa izan bedi: aita, edo ama madaricatu zuenac, bere odola betor bere gañera.

10 Baldin norbait etzango balitz besteren andrearequin, araguizco pecatuan erortzen bere lagunaren emaztearequin, illac izan bitez bai guizona, ta bai emacumea.

11 Bere ugazamarequin etzaten dana, eta bere aitaren lotſagarriac aguertzen dituena, biac izan bitez illac: erori bedi beren odola beren gañera.

12 Baldin iñorc lo eguiten badu bere errañarequin, biac izan bitez illac, pecatu andi bat eguin dutelaco: beren odola erori bedi beren gañera.

13 Pecatu eguiten duena guizaſemearequin berau emacumea balitz becela, biac eguin dute eſaquizun eztana; illac izan bitez: beren odola izan bedi beren gañean.

14 Iduquiric norbaitec emaztetzat alaba, guero onen amarequin ezcontzen danac, eguiten du gaiztaqueri andi bat: biciric errea izan bedi beraquin, eta ez bedi guelditu zuen artean pecatu ain andiaren aztarnaric ere.

15 Pecatu eguiten duena zamari edo abereren batequin, illa izan bedi: ill ezazute aberea ere.

16 Edoceñ abererequin pecatu eguiten duen emacumea, illa izan bedi abererequin batean: erori bedi beren odola beren gañera.

17 Iñorc artzen badu bere aita, edo

amaldeco arrebaric, eta bere lotſagarriac elcarri icuſten badiote: biac eguin dute pecatu nazcagarri bat: izango dirade illac erri guztiaren aurrean, batac beſtea ezagutu duelaco nabarmenquiro, eta pagatuco dute beren gaiztaqueriaren pena.

18 Baldin norbait elcartuco balitz emacumearequin illeco jarioaren demboran, eta aguertuco balu beragan lotſac eſtali bear zuena, eta emacumeac berac eracutſico balu bere loiqueria, biac izango dirade beren erritican botatuac.

19 Ez dituzu aguertuco zure ama, edo aitaldeco icebaren lotſagarriac: alacoric eguiten duenac, bere araguia lotſatzen du: biac pagatuco dute beren pecatuaren pena.

20 Naſten dana aita, edo amaldeco oſabaren emaztearequin, beguiratu gabe aidetaſunaren lotſari, biac artuco dute diña diradena: illco dirade aurric gabe.

21 Ezcontzen danac bere anayaren emaztearequin, gauza debecatu bat eguiten du: aguertu cituen bere anayaren lotſagarriac: aurric gabe guelduco dirade.

22 Gorde itzatzute nere legueac, eta erabaquiac, eta bete itzatzute: ſartuta, bicitzera zoazten lurrac bota etzaitzaten izugarriro zuec ere bera gandic.

23 Etzayezute jarraitu nic zuen aurrean bota ditudan jendeen oiturai. Ceren berai gauza guzti oyec eguitea gatic nic gorroto diet.

24 Eta zuei eſaten dizutet: Artu ezazute zuentzat beren lur nic zuei jabegaitaſuneraco emango dizutedana, eſnea ta eztia darion lurra. Ni zuen Jaun Jaungoico beſte errietatic berecitu zaituztedana.

25 Berecitu ezazute bada zuec ere zamari garbia loya gandic, eta egazti garbia loya gandic: ez itzatzute loitu zuen animac abereac gatic, egaztiac gatic, eta lurraren gañean muguitzen diraden, eta nic loyac becela eracutſi dizquizutedanac gatic.

26 Izango zatzaiquizquit ſantuac, ceren ni Jauna ſantua naiz, ta berecitu cinduztedan beſte errietatic nereac izateco.

27 Pitonen, edo aztiaren eſpiritua duen guizaſemea, edo emacumea, illa izan bedi: Arrica illco dituzte: beren odola betor beren gañera.

XXI. Cap.

ESAN ere cion Jaunac Moiſeſi: Itz eguin zayezu Aaronen ſeme apaizai, eta eſango diezu: Ez bedi loya biurtu apaiza bere erritarren eriotzan,

2 Baicic bacarric aideen, eta aldecoenean, au da, aita, ta ama, ta ſeme, ta alabarenean, anayarenean ere,

3 Eta arreba birjiña ezcondua izan ez danarenean:

4 Eta bere errico principearenean ere ez bedi loya biurtu.

5 Ez dute arras moztuco burua, ez bizarra, eta ez dute ere eguingo beren araguietan pitzaturic.

6 Santuac izango zazquio beren Jaungoicoari, eta ez dute loituco bere icena: ceren eſqueintzen dituzte Jaunaren intzentſua, eta beren Jaungoicoaren oguiac, eta argatic ſantuac izango dirade.

7 Ez dirade ezconduco andre galdu, ez puta dollor, eztaere ſenarrac utzia izan danarequin: ceren beren Jaungoicoari conſagratuac dirade,

8 Eta propoſicioco oguiac eſqueintzen dituzten. Izan bitez bada ſantuac, ceren ni ere ſantutzen ditudan Jauna ſantua naicen.

9 Baldin apaizaren alaba arrapatua balitz araguizco pecatuan, onela deſondratzen duela bere aitaren icena, biciric errea izango da.

10 Pontificea, au da, bere anayen artean apaiz aundiena, ceñaren buruaren gañera izan zan ixuria untzioaren olioa, eta ceñaren eſcuac izan ciraden conſagratuac apaiztzat artu zuenean, eta jantzia dagoanac ſoñeco ſantuaquin, ez du aguertuco bere burua, ez ditu urratuco ſoñecoac:

11 Iñolaere ez da ſartuco gorputz illa dagoen toquian. Bere aita gatic eta ama gatic ere ez bedi loya biurtu.

12 Ez da ere ateraco toqui ſantuetatic, loitu ez dezan Jaunaren ſantulecua, ceren bere Jaungoicoaren untzio ſantuaren olioa bere gañean dan. Ni Jauna.

13 Birjiña artuco du emaztetzat:

14 Eta ez du artuco alargunic, ez utzitacoric, ez deſondraturic, ez putaric, baicic bere errico birjiña:

15 Ez beza naſtu bere etorquico odola bere errico jende nonaicoarequin: ceren ni naiz ſantutzen dedan Jauna.

16 Eta itz eguin cion Jaunac Moiſeſi, eſaten zuela:

17 Itz eguin zayozu Aaroni: Zure etorquico familietaco guizon faltaren bat duenac, ez diozca eſqueñico oguiac bere Jaungoicoari,

18 Ez da ere alderatuco bere lanera: balitz itſua, errena, ſudur chiqui, andi, edo oquerrecoa,

19 Baldin oñ, edo eſcu autſitacoa,

20 Balitz concorra, edo macarſua, balu beguian lauſoa, edo atz irauncorra, balu erperic gorputzean, edo balitz poraminduna.

21 Aaron apaizaren jatorrico edoceñ guizon faltá duena, ez da alderatuco esqueintzera Jaunari doayac, eztaere bere Jaungoicoari oguiac:

22 Baña jango du ſantulecuan eſqueintzen diraden oguietatic,

23 Sartzen ez bada beloaren barrenen, ez alderatzen aldarera, ceren falta daucan, eta ez du loitu bear nere ſantulecua. Ni naiz ſantutzen ditudan Jauna.

24 Moiſeſec bada eſan ciezten Aaroni, eta bere ſemeai, eta Iſrael guztiari, aguinduac izan citzazquion gauza guztiac.

XXII. Cap.

ITZ eguin ere cion Jaunac Moiſeſi, eſaten zuela:

2 Eſan zayezu Aaroni eta bere ſemeai alde dezatela Iſraelco ſemeac eguiten dizquidaten eſqueintzari ſagraduetatic, loitu ez ditzaten nere ondran ſantututaco gauza berac eſqueintzen dituztenac. Ni Jauna.

3 Eſan zayezu berai ta beren ondorengoai: Zuen jatorrico edoceñ guizon, loituric egonic, alderatzen dana gauza conſagratuetara, eta Iſraelco ſemeac Jaunari eſqueñi ciozcatenetara, galdua izango da Jaunaren aurrean. Ni naiz Jauna.

4 Aaronen jatorrico guizon leguendun danac, edo aciaren jarioa duenac, ez ditu jango ſantutuac izan citzazquidan gauza ayetatic, ſendatua jarri dedin bitartean. Uquitzen diona illen bati uquitu diolaco loya danari, eta uquitzen diona aci ixurtea gatic loitua dagoanari,

5 Eta uquitzen diona arraſtacariren bati, edo edoceñ gauza liquitſi, ceñaren uquitua dan ciquiña,

6 Loya izango da arraſalderaño, eta ez ditu jango ſantutuac izan diraden gauzac: baña garbitzen duenean urez bere gorputza,

7 Eta eguzquia ſartzen danean, orduan garbituric jango ditu gauza ſantutuac, ceren bere janaria diran.

8 Ez dute jango gauza illquiric edo piſtiac arrapaturic, ez dirade ere loituco beretan. Ni naiz Jauna.

9 Gorde bitzate nere aguinteac, pecatuaren mendean jarri ez ditecen, eta ſantulecuan ill ditecen, bera loitu ezquero. Ni ſantutzen ditudan Jauna.

10 Arrotzec ez du jango ſantututaco gaucetatic, apaizaren maiſterrac, eta alogueracoac * ez dute jango beretatic.

11 Baña apaizac eroſten duenac, eta bere echean jayoa danac, oyec jango dute beretatic.

12 Baldin apaizaren alaba ezconduco balitz errico edoceñequin: ez du jango ſantutuac izan diraden gaucetatic, ez autatuenetatic.

13 Baña baldin alargun gueldituta, edo ſenarrac utzita, eta aurric gabe biurtuco balitz bere aitaren echera: izango da bere aitaren janariz acia, neſcacha zanean oi zuen becela. Arrotzec ez du beretatic jateco eſcurican.

14 Jaten duenac gauza ſantutuetatic ezjaquiñean, irachequico dio boſgarren partea jan duenari, eta emango dio apaizari ſantulecuraco.

15 Ez bitzate bada loitu guizonac Iſraelco ſemeac eſqueintzen dituzten gauza ſantutuac:

16 Artu ez dezaten beren pecatuaren caſtigua, gauza ſantutuac jaten dituztenean. Ni ſantutzen ditudan Jauna.

17 Eta itz eguin cion Jaunac Moiſeſi, eſaten zuela:

18 Itz eguingo diezu Aaroni ta bere ſemeai eta Iſraelco ſeme guztiai, eta eſango diezu: Iſraelco echeco, edo zuen artean bici diraden arrotzetaco guizon, esqueintzen duenac bere doaya, edo cumplitzen dituela emaitzac, edo eſqueintzen dituela borondatez, dana dala Jaunari esqueintzen dion doaya,

19 Izan dedin eſqueñia zuen bitartez, izango da ar manchagabea idi, edo ardi, edo auntzetatic:

20 Baldin balu mancharic, ez dezute eſqueñico, ez da ere izango onirizgarria.

21 Doai paquetſua Jaunari eſqueintzen

* *jornalaroac.*

dion guizonac, naiz emaitzac cumplitzen dituela, naiz borondatez eſqueintzen dituela, ala idi, nola ardietatic, eſqueñico du manchagabea, izan dedin onirizgarria: mancha bat ere ez da beragan izango.

22 Baldin itſua balitz, edo ezurren bat autſitacoa, edo poſtillaren bat, lupuac, atza, edo erpea balitu: ez diozcazute eſqueñico Jaunari, ez dezute ere erreco beretatic Jaunaren aldare gañean.

23 Idi ta ardi belarri ta buſtan ebaquicoac, borondatez eſqueñi ditzaquezu; baña beraquin ecin cumplitu daitezque emaitzac.

24 Ez diozute Jaunari eſqueñico barrabillac autſiac, edo zapalduac, edo ebaquiac, edo quenduac dituenic, eta iñolaere ez dezute au eguingo zuen errian.

25 Arrotzaren eſcutic ez diozute zuen Jaincoari eſqueñico oguiric, ez eman nai luquen beſte gauzaric: ceren guztia dan loi ta ciquiña: ez dituzute artuco.

26 Eta itz eguin cion Jaunac Moiſeſi, eſaten zuela:

27 Idi, ardi, eta auntz, jayotzen diradenean, egongo dirade zazpi egunean bere amaren errapean: baña zortzigarren egunean eta guero Jaunari eſqueñiac izan daitezque.

28 Naiz izan dedilla beya, naiz ardia, ez dirade izango illac egun batean beren umeaquin.

29 Baldin illco bacenduquete aberea Jaunari eſquerrac emateco, izan daitequen onirizgarria,

30 Egun bertan jango dezute; ez da ecer guelgituco biaramon goiceraco. Ni Jauna.

31 Gorde itzatzute nere aguinteac, eta eguin itzatzute. Ni Jauna.

32 Ez ezazute loitu nere icen ſantua, ſantutua izan nadin Iſraelco ſemeen erdian. Ni ſantutzen zaituztedan,

33 Eta Egiptoco lurretic atera cinduztedan Jauna, izan nendin zuen Jaungoicoa. Ni Jauna.

XXIII. Cap.

ETA itz eguin cion Jaunac Moiſeſi, eſaten zuela:

2 Itz eguin zayezu Iſraelco ſemeai, eta eſango diezu: Oyec dirade Jaunaren jai ſantuac deituco dieztezutenac.

3 Sei egunean lanean arico cerate: zazpigarren eguna, larumbateco atſedena dalaco, deitua izango da ſantua. Lanican batere ez dezute bertan eguingo. Jaunaren larumbata da zuen bicilecu guztietan.

4 Oyec dirade bada Jaunaren jai ſantuberen demboretan celebratu bear dituzutenac.

5 Lembicico illean, illaren amalaugarren egunean arratſaldetic, Jaunaren pazcoa da:

6 Eta ill onen amaboſgarrenean, Jaunaren legamigabeco oguien jai andia da. Zazpi egunean jango dituzute.

7 Lembicico eguna izango da zuentzat oſpe chit andicoa, eta ſantua: ez dezute bertan eguingo lan ſerbigoquiric batere:

8 Baicican eſqueñico diozute doaya ſuaren gañean Jaunari zazpi egunean. Eta zazpigarren eguna izango da oſpetſu eta ſantuagoa: eta lan ſerbigoquiric batere ez dezute bertan eguingo.

9 Eta itz eguin cion Jaunac Moiſeſi, eſaten zuela:

10 Itz eguin zayezu Iſraelco ſemeai, eta eſango diezu: Sartzen ceratenean neronec emango dizutedan lurrean, eta iguitaitzen dituzutenean laboreac, eramango diozcazute apaizari galburuen gabillac, zuen uztaren autatuenentzat:

11 Ceñac jayaren biaramonean alchatuco du gabillachoa Jaunaren aurrean, oniritzia izan dedin zuentzat, eta ſantutuco du.

12 Eta gabilla conſagratzen dan egun artan bertan, illa izango da arcume mancharic gabeco urtebarrucoa Jaunaren doaitzat.

13 Eta libacioac izango dirade eſqueñiac berarequin, bi amarren iriñ lore oliorequin orratua, errea izango dana uſai gozoa bezala Jaunarentzat: eta ardoaren libacioa ere, hin baten laurdena.

14 Oguiric, taloric, eta laborezco pucheric ez dezute jango, beretatic zuen Jaungoicoari eſqueintzen diozuten egunerañó. Aguinte beticoa da zuen guizaldietan, eta bicilecu guztietan.

15 Contatuco dituzute bada jayaren biaramoneco egun autatuenen gabilla esqueñi cendutenetic, zazpi aſte beteac,

16 Zazpigarren aſtea beteta urrengo egunerañó, au da, berroguei ta amar egun: eta onela eſqueñico diozute Jaunari doai berria

17 Zuen bicilecu guztietan, bi amar-

ren iriñ lorezco ogui legamidun bi autatuenetacoac, ceñac erreco dituzute Jaunaren autatuenentzat.

18 Eta eſqueñico dituzute oguiaquin urtebarruco zazpi arcume manchagabe, eta taldeco chal bat, eta bi ari, eta izango dirade doayeraco beren libacioaquin, uſai chit gozoraco Jaunarentzat.

19 Eſqueñico ere dituzute aquer bat pecatua gatic, eta bi arcume urtebarruco doai paquetſutzat.

20 Eta berac alchatu ezquero apaizac Jaunaren aurrean autatuenetaco oguiaquin, utzico dituzte bere uſuraco.

21 Eta deituco diozute egun oni chit oſpeco ta chit ſantua: lan ſerbigoquiric batere ez dezute eguingo bertan. Erabaqui beticoa izango da zuen bicilecu, eta jatorri guztietan.

22 Eta iguitaitzen dituzutenean zuen lurreco laboreac, ez dituzute ebaquico lurreraño: ez dituzute ere bilduco guelditzen diraden galburuac, baicic utzico dituzute beartſu ta arrotzentzat. Ni naiz zuen Jaun Jaungoicoa.

23 Eta itz eguin cion Jaunac Moiſeſi, eſaten zuela:

24 Itz eguin zayezu Iſraelco ſemeai: Zazpigarren illean, illaren lembicico egunean, izango da zuentzat jai gogoangarria: celebratuco dezute trompeta ſoñuz, eta izango da deitua ſantua:

25 Lan ſerbigoquiric batere ez dezute eguingo bertan, eta eſqueñico diozute doaya Jaunari.

26 Eta itz eguin cion Jaunac Moiſeſi, eſaten zuela:

27 Zazpigarren ill onen amargarren eguna, izango da barcacioco egun chit oſpecoa, eta deitua izango da ſantua: eta atſecabetuco dituzute bertan zuen animac, eta eſqueñico diozute doaya Jaunari.

28 Lan ſerbigoquiric batere ez dezute eguingo egun onen demboran: ceren barcacioco eguna da, paquetu dedin zuequin zuen Jaun Jaungoicoa.

29 Egun onetan atſecabetzen ez dan guizon guztia, galdua izango da bere errietatic:

30 Eta lanic batere eguiten duena, quenduco det bere erritic.

31 Ez dezute bada eguingo bertan lanic batere: betico legueа izango da zuentzat zuen jatorri, eta bicilecu guztietan.

32 Atſedeneco larumbata da, eta atſecabetuco dituzute zuen animac illaren bederatzigarren egunean. Arratſaldetic arratſaldera celebratuco dituzute zuen larumbatac.

33 Eta itz eguin cion Jaunac Moiſeſi, eſaten zuela:

34 Itz eguin zayezu Iſraelco ſemeai: Zazpigarren ill onen amaboſgarren egunean aſico dirade tabernaculoen jayac, ceñac celebratuco diraden Jaunaren ondran zazpi egunean.

35 Lembicico eguna izango da deitua chit oſpecoa ta chit ſantua: ez dezute bertan eguingo lan ſerbigoquiric batere.

36 Eta zazpi egunean eſqueñico dizquiozute doayac Jaunari. Zortzigarren eguna ere izango da chit oſpecoa ta chit ſantua, eta eſqueñico dezute doaya Jaunaren ondran: ceren da jende aſco eta batzarre andicoa: lan ſerbigoquiric batere ez dezute bertan eguingo.

37 Oyec dirade Jaunaren jai deituco dieztezutenac chit oſpecoac, eta chit ſantuac, eta eſqueñico dizquiozute bertan Jaunari emaitzac, doayac eta libacioac egun bacoitzaren ceremoniaren araura.

38 Jaunaren larumbaten, eta zuen doayen, eta Jaunari botoz eſqueintzen dizquiozutenen, edo borondatez ematen dizquiozutenen gañera.

39 Ala bada zazpigarren illaren amaboſgarren egun zuen lurreco frutu guztiac biltzen dituzutenetic, celebratuco dituzute Jaunaren jayac zazpi egunean: lembicico egunean eta zortzigarrenean izango da larumbata, au da, atſedena.

40 Eta artuco dituzute zuentzat lembicico egunean zuaitzic ederrenaren frutuac, eta palmen, eta zuaitz oſtotſuen adarrac, eta ujoletaco zaricac,* eta poztuco cerate zuen Jaun Jaungoicoaren aurrean.

41 Eta celebratuco dezute bere jaya zazpi egunean urte bacoitzean; betico leguea izango da zuen jatorrietan. Zazpigarren illean celebratuco dituzute jayac,

42 Eta bicico cerate itzal toquietan zazpi egunean. Iſraelco etorquicoa dan guztia bicico da dendetan:

43 Icuſi dezaten zuen ondorengoac dendetan bicieraci niela Iſraelco ſemeai, atera nituenean Egiptoco lurretic. Ni zuen Jaun Jaungoicoa.

* *fauzac.*

44 Eta itz eguin cien Moiſeſec Iſraelco ſemeai Jaunaren jai andien gañean.

XXIV. Cap.

ETA itz eguin cion Jaunac Moiſeſi, eſaten zuela:

2 Aguindu zayezu Iſraelco ſemeai ecarri dizazutela aceitunetaco olioric garbi, ta arguiena lamparac beti iracequiac iduquitzeco,

3 Teſtimonioco beloaren campotican elcartaſuneco tabernaculoan. Eta jarrico ditu Aaronec arratſaldetic goiceraño Jaunaren aurrean: au da zuen ondorengoac beti onela gordeco duten ceremonia bat.

4 Egongo dirade jarriac beti candelero chit garbiaren gañean Jaunaren aurrean.

5 Artuco ere dezu iriñ lorea, eta erreco dituzu bertatic amabi ogui, ceñetatican bacoitzac iduquico ditu bi amarren:

6 Eta jarrico dituzu Jaunaren aurrean mai chit garbi baten gañean ſei alde bacoitzean:

7 Eta jarrico dezu beren gañean intzentſu chit arguia, izan dedin oguia Jaunaren doayaren oroipenean.

8 Larumbat bacoitzean aldatuco dirade Jaunaren aurrean artzen dituztela Iſraelco ſemeac gandic betico elcartaſunez:

9 Eta izango dirade Aaronenac eta bere ſemeenac, jan ditzaten toqui ſantuan: Jaunaren doayetatic gauza chit ſantua diralaco betico eſcubidez.

10 Bitartean guertatu zan iſraeltar andre baten ſeme egiptoar guizon bat gandic izan zuenac, ateraric Iſraelco ſemeen artetic, erriertan eguitea dendalecuetan iſraeltar guizon batequin.

11 Eta nola blasfematu zuen icena, eta madaricatu zuen, eramana izan zan Moiſes gana. (Eta bere amari ceritzan Salumit, Dabri Dango tribucoaren alaba.)

12 Eta ſartu zuten carcelan, ezagutzen zuten artean cer aguintzen zuen Jaunac.

13 Ceñac itz eguin cion Moiſeſi,

14 Eſaten zuela: Atera ezazu blasfemaria dendalecuetatic campora, eta aditu cioten guztiac jarri ditzatela beren eſcuac bere buru gañean, eta arrica eman bizayo erri guztiac.

15 Eta itz eguingo diezu Iſraelco ſemeai: Bere Jaungoicoa madaricatzen duen guizonac, pagatuco du bere pecatuaren pena:

16 Eta blasfematzen duena Jaunaren icena, illa izan bedi: erri guztiac arrica quenduco dio bicia, naiz izan dedilla eritarra, naiz erbeſtecoa. Jaunaren icena blasfematzen duena, illa izan bedi.

17 Guizona jo ta iltzen duena, illa izan bedi.

18 Aberea illtzen duenac, itzulico du bera becelaco beſte bat, au da, aberea aberea gatic.

19 Bere erricoren bat manchatzen duenari, eguin duen becela, ala eguingo zayo:

20 Autſia gatic autſia, beguia gatic beguia, ortza gatic ortza biurtuco du. Nolacoa dan eguin duen gaitza, alacoa iragueracico zayo.

21 Zamaria illtzen duenac, biurtuco du beſte bat. Guizona illtzen duena, izango da caſtigatua.

22 Berdiña izan bedi zuen artean justicia, naiz izan erbeſtecoa, naiz erricoa pecatu eguiten duena: ceren ni naiz zuen Jaun Jaungoicoa.

23 Eta itz eguin cien Moiſeſec Iſraelco ſemeai: eta atera zuten egonlecuetatic campora blasfematu zuena, eta arrica ill zuten. Eta eguin zuten Iſraelco ſemeac Jaunac Moiſeſi aguindu cion becela.

XXV. Cap.

ETA itz eguin cion Jaunac Moiſeſi Sinaico mendian, eſaten zuela:

2 Itz eguin zayezu Iſraelco ſemeai, eta eſango diezu: Sartzen ceratenean nic emango dizutedan lurrean, gordeco dezu Jaunaren larumbata.

3 Sei urtetan ereingo dezu zure foroa, eta ſei urtetan podatuco dezu zure maſtia, eta bilduco dituzu bere frutuac:

4 Baña zazpigarren urtean izango da lurraren larumbata, Jaunaren atſedenarena: camporican ez dezu ereingo, eta maſtirican ez dezu podatuco.

5 Ez dezu iguitaituco lurrac berez ematen duenic: eta ez dituzu bilduco maſbiltza becela zure autatuenen mordoac: ceren lurraren atſedeneco urtea da:

6 Baicic jango dituzute zuc, eta zure mirabeac, eta zure aloguerecoac *, eta zurequin bici diraden arrotzac:

* *jornaleroac.*

7 Eta lurrac ematen duen guztiac ſerbituco du zure zamari eta abereen janaritzat.

8 Contatuco ere dituzu zuretzat zazpi aſte urte, au da, zazpi alditan zazpi, ceñac batean eguiten dituzte berroguei ta bederatzi urte:

9 Eta zazpigarren egunean, illaren amargarren egunean, barcacioco demboran, joco dezu trompeta zuen erri guztian.

10 Eta ſantutuco dezu berroguei ta amargarren urtea, eta adiracico dezu barcacioa zure errian bici diraden guztientzat: ceren au da jubileoa. Itzulico da bacoitza bere egoerara, eta bacoitza biurtuco da antziñaco familiara:

11 Ceren jubileoa dan, eta berroguei ta amargarren urtea. Ez dezute ecer ereingo, ez dezute ere iguitaituco campoan berez ernetzen danic, eta ez dituzute bilduco maſbiltzaren autatuenac,

12 Jubileoaren ſantutaſuna gatic, baicican jango dezute aurrean jartzen zatzuten lembicico gauza.

13 Jubileoco urtean biurtuco dirade gauza guztiac beren jabeac gana.

14 Saltzen diozunean cerbait zure erricoari, edo eroſten diozunean, ez ezazu atſecabetu zure anaya, baicic eroſico diozu jubileoco urteen contuaren araura,

15 Eta uzten contuaren araura ſalduco dizu.

16 Cembat urte gueyago guelditzen diraden jubileoaren ondoren, ambat acico ere da bere balioa: eta cembat dembora guchiago contatzen dezun, ambat guchiago coſtaco da eroſten dana ere. Ceren uzten demboraren araura ſalduco dizu.

17 Ez itzatzute premiatu zuen tribucoac, baicic bacoitza bere Jaungoicoaren beldur izan bedi, ceren ni naiz zuen Jaun Jaungoicoa.

18 Eguin itzatzute nere aguinteac, eta gorde nere erabaquiac, eta bete itzatzute, bici zaitezquen lurrean beldurric batere gabetanic,

19 Eta lurrac eman dizazquizuten bere frutuac, ceñac jan ditzazuten aſe arreraño, iñoren aſerrearen beldurrican gabe.

20 Eta eſango baldin bacendute: ¿Cer jango degu zazpigarren urtean, baldin ez badegu ereiten, eta biltzen ere ez baditugu gure laboreac?

21 Emango dizutet nere bendicioa ſeigarren urtean, eta emango ditu iru urteco frutuac:

22 Eta ereingo dezute zortzigarren urtean, eta jango dituzute labore zarrac bederatzigarren urteraño: berriac erne artean, jango dituzute zarrac.

23 Lurra ere ez da ſalduco betico: ceren nerea dan, eta zuec arrotzac eta nere maiſterrac ceraten.

24 Argatic zuec dituzuten lur guciac ſalduac izango dirade berriz eroſteco condicioarequin.

25 Baldin premian arquituric zure anaya ſalduco balu bere aciendachoa, eta bere aideac naico balu, berriz eroſi dezaque arc ſaldu zuena.

26 Baña baldin ez balu aide guertucoric, eta berac arquitu al balu berriz eroſteco balioa:

27 Contatuco dira frutuac ſaldu zan demboratic: eta ſobratzen dana, biurtuco dio eroſleari, eta onela artuco du bere acienda.

28 Eta baldin berac arquituco ez balu balioa biurtzeco, eroſleac iduquico du eroſi zuena, jubileoco urteraño. Ceren onetan ſaldutaco guztia biurtuco da antziñaco bere naguſi, ta jabea gana.

29 Saltzen duenac eche bat errico murruen barrenen, iduquico du berriz eroſteco eſcua, urte bat bete artean.

30 Berriz eroſico ez balu, eta iragoco balitz urtea, eroſlea, eta bere ondorengoac izango dirade beti bere jabeac, eta ecin berriz eroſico da jubileoan ere.

31 Baña baldin echea balego murruric ez duen errian, ſaldua izango da campoco legueen araura. Baldin lendican ez balitz berriz eroſia, jubileoan biurtuco da bere jabea gana.

32 Levitarren eche errietan daudenac, beti berriz eroſiac izan daitezque:

33 Baldin ez balirade berriz eroſiac, jubileoan biurtuco dira jabeac gana, ceren levitarren eche errietacoac aciendatzat iduqui oi diraden Iſraelco ſemeen artean.

34 Baña beren lur errien aldecoac ez bitez iñoiz izan ſalduac, beti berenac diradelaco.

35 Baldin zure anaya gueldituco balitz premiatua, et indargabecoa, eta artuco bacendu arrotza eta erbeſtecoa becela, eta zurequin bicico balitz,

36 Ez ezazu bera gandic artu uſurarican, eztaere eman ciñon baño gueyago.

Izan zaite zure Jaungoicoaren bildur, bici izan daitequen zure anaya zure echean.

37 Ez diozu emango zure dirua uſuran, eta aleetan ez diozu eſcatuco emanaz gañecoric.

38 Ni zuen Jaun Jaungoico Egiptoco lurretic atera cinduztedana zuei Canaango lurra emateco, eta zuen Jaincoa izateco.

39 Baldin zure anaya premiaz beartuta ſalduco balitzazu, ez dezu eſtutuco mendecoen ſerbicioz,

40 Baicic iduquico dezu aloguerecoa* eta maiſterra becela: zure echean arico da lanean jubileoco urteraño,

41 Eta guero ateraco da bere aurraquin, eta biurtuco da aideac gana, ta bere gurasoen aciendara.

42 Ceren nere ſerbitzariac dirade, eta neronec atera nituen Egiptoco lurretic: ez bitez ſalduac izan mendecoen guiſara:

43 Ez ezazu eſtutu al dezunez baliaturic, baicic zure Jaungoicoaren bildur izan zaite.

44 Morroya ta neſcamea izango dituzute zuen inguruan dauden jendeetacoac.

45 Eta zuen artean dabiltzan arrotzetatic, edo oyetatic zuen errian jayo diradenac, oyec iduquico dituzute mendecotzat:

46 Eta jabegaitaſuneco leguez utzico diozcazute ondorengoai, eta beren jabeac izango cerate beti. Baña ez itzatzute eſtutu al dezunez baliaturic zuen anai Iſraelco ſemeac.

47 Baldin arrotz eta erbeſtecoren bat aberaſtuco balitz zuen artean, eta zure anai bearturen bat ſalduco balitzayo berari, edo bere jatorricoren bati:

48 Saldua izan ezquero berriz eroſia izan daiteque. Nai duenac bere anayetatic, berriz eroſico du,

49 Naiz aitaldeco oſabac edo lenguſuac, naiz odol bateco edo ezcontzazco aideac. Baña baldin berac berez al balu, bere burua libratuco du,

50 Contatuta bacarric ſaldua izan zan demboratic jubileoco urterañoco urteac: eta contuan iduquiric ſaldua izan zan dirua, urteen cembataren eta aloguerecoaren* guiſan.

51 Baldin aſco balirade jubileoraño guelditzen diraden urteac, oyen araura ala pagatuco du baliora.

52 Baldin guchi balirade, contuac eguingo ditu berarequin urteen cembataren araura, eta pagatuco dio eroſleari urteetan ſobratzen dana,

53 Leen aloguerean* ſerbitu cituenen contua eguiñic: ez du eſtutuco gogorrez zure aurrean.

54 Baldin ecin balitzaque berriz eroſia izan bide oyetatic, jubileoco urtean ateraco da bere aurraquin.

55 Ceren nere ſerbitzariac dirade, Israelco ſemeac, ceñac atera nituen Egiptoco lurretic.

* *jornalerea.*

XXVI. Cap.

NI zuen Jaun Jaungoicoa: Ez dezute zuentzat eguingo eſculturazco jaincoric edo obraric, ez dezute ere jaſoco oroipengarriric, ez ipiñico arri icenturic zuen errian bera adoratzeco. Ceren ni naiz zuen Jaun Jaungoicoa.

2 Gorde itzatzute nere larumbatac, eta icaratu zaitezte nere ſantulecuan. Ni Jauna.

3 Ibillico baldin baciñate nere aguinteetan, eta gordeco baldin baciñituquete nere mandamentuac, eta bete, emango dizquizutet euriac bere demboretan,

4 Eta lurrac emango du bere alea, eta zuaitzac frutaz beteac izango dirade.

5 Laboreen jotzeac iraungo du masbiltzeraño, eta maſbiltzac eragotzi naico du ereitza: eta jango dezute zuen oguia aſe arteraño, eta beldurric gabe bicico cerate zuen lurrean.

6 Eguingo det paquea izan dedilla zuen inguruetan: lo eguingo dezute, eta ez da izango icaratuco zaituztenic. Quenduco ditut piſti gaiztoac: eta ezpataric ez da ſartuco zuen muguetan.

7 Perſeguituco dituzute zuen etſayac, eta erorico dirade zuen aurrean.

8 Zueraco boſtec perſeguituco dituzte eun arrotz, eta zuetaco eunec amar milla: erorico dirade zuen etſayac ezpataz zuen aurrean.

9 Beguiratuco dizutet, eta acieracico zaituztet: ugarituco cerate, eta ſendotuco det nere elcartaſuna zuequin.

10 Jango dezute zarren zarrena, eta berriac etorriric zarrac botaco dituzute.

* *jornalean.*

11 Paratuco det nere tabernaculoa zuen erdian, eta etzaituztet botaco.

12 Ibillico naiz zuen artean, eta izango naiz zuen Jaungoicoa, eta zuec izango cerate nere erria.

13 Ni zuen Jaun Jaungoicoa: atera cinduztedana egiptoarren lurretic, ſerbitu etziñizayeten, eta autſi nituena zuen lepoetaco cateac, zucen ibilli cenezaten.

14 Baña baldin adituco ez baninduzute, eta eguingo ere ez baciñituzte nere aguinte guztiac,

15 Baldin mezpreciatuco baciñituzte nere legueac, eta ez eſtimatu nere erabaquiac ez eguiteco nic aguinduta dauzcadan gauzac, eta utſera botaco bacendute nere elcartaſuna:

16 Nic ere oyec eguingo dizquizutet: Caſtigatuco zaituztet chit laſter goſez, ta zuen beguiac erreco dizquizuten ta zuen biciac bucatuco dituen bero batez. Alperric ereingo dituzute aleac, ceren izango dirade etſayac iretſiac.

17 Ezarrico dizutet beguicada bat arpegui aſerratuz, eta erorico cerate zuen etſayen oñetan, eta gueldituco cerate gorrotatzen zaituztenen mendean: Igues eguingo dezute, iñorc perſeguitu gabe.

18 Eta baldin onela ere obedituco ez baciñidate, eranſico diet zazpi aldiz aimbat zuen caſtiguai zuen pecatuac gatic,

19 Eta autſico det zuen gogortaſunaren arroqueria. Eta emango dizutet ceru bat goyan burnia becelacoa, eta lur bat broncezcoa.

20 Alperra izango da zuen lana, lurrac ez du emango aleric, eta zuaitzac ere ez dute emango frutaric.

21 Baldin ibillico baciñate nerequin leyan, eta aditu naico ez baciñidate, eranſico diet zazpi aldiz aimbat zuen caſtiguai zuen pecatuac gatic:

22 Eta bidalduco ditut zuen contra campoco piſtiac, iretſi zaitzaten zuec eta zuen abereac, biurtzen zaituztela guchi batera, eta jartzen dituztela eremu eguiñic zuen bideac.

23 Eta baldin onela ere onguitu nai ez bacendute, baicic ibillico baciñate nerequin leyan:

24 Ni ere ibillico naiz leyan zuen contra, eta caſtigatuco zaituztet zazpi aldiz zuen pecatuac gatic,

25 Eta ecarrico det zuen gañera nere elcartaſunaren ezpata bengatzallea. Eta igues eguiten dezutenean errietara, bidalduco det izurria* zuen erdira, eta izango cerate jarriac etſayen eſcuetan,

26 Uzten zaituztedanean zuen oguia gabe goſe andiz: alaco moduan, non amar emacumec labe baten erreco dituzten oguiac, eta ematen dituztenean onrzaca: eta jango dezute, eta etzerate aſeco.

27 Eta baldin oyec guztiaquin ere ez baninduzute adituco, baicic ibillico baciñate nere contra:

28 Ni ere ibillico naiz zuen contra etſayaren aſerrez, eta caſtigatuco zaituztet beſte zazpi gaitzez zuen pecatuac gatic,

29 Jango dituzuten eran zuen ſemeen eta zuen alaben araguiac.

30 Deſeguingo ditut zuen lecu goratuac, eta autſico ditut zuen ichurac. Erorico cerate zuen jainco arrizcoen puſcatartean, eta nic gorrotatuco zaituztet,

31 Alaco moduan, non zuen erriac bacartaſunera biurtuco ditut, eta zuen ſantulecuac jarrico ditut eremu eguiñic, eta ez det orduezquero onguitzat artuco uſai chit gozoa.

32 Eta galduco det zuen lurra, eta arrituco dirade zuen etſayac bera icuſiaz, ſartzen diradenean bertan bicitzera.

33 Zuec berriz zabalduco zaituztet jendeetatic, eta aguertuco det nere ezpata zuen ondoren, eta izango da zuen lurra eremu bat, eta zuen erriac gueldituco dirade deſeguiñic.

34 Orduan lurra gozatuco da bere larumbatetan, bere bacartaſuneco dembborac dirauen artean: zuec zaudetenean

35 Etſayen errian, atſedengo da, eta deſcanſatu bere bacartaſunaren larumbatetan, atſeden etzuelaco zuen larumbatetan bertan bici ciñatenean.

36 Eta zuetatic guelditzen diradenai, emango diet icara beren biotzetan etſayen errietan, egan dijoan oſto baten otſac icaratuco ditu, eta ala igues eguingo dute ezpata bat gandic becela: erorico dirade, iñorc perſeguitu gabe,

37 Eta erorico da bacoitza bere anayaren gañera gudatic igueſi dijoacenac becela: zuetacoric batere ez da atrebituco etſayai arpegui ematen.

38 Galduco cerate jendeen artean, eta lur etſayac deſeguingo zaituzte.

39 Eta baldin oraindican oyetacoren

* *peſte.*

batzuec guelldituco balirade, uftelduco dirade beren gaiztaquerietan, beren etſayen errian, eta atſecabetuac izango dirade beren guraſoen pecatuac gatic eta berenac gatic:

40 Aitortu ditzaten bitartean beren gaiztaqueriac, eta beren guraſoenac, ceñez autſi zuten nere ſedea, eta ibilli ciraden nerequin leyan.

41 Ni ere bada ibillico naiz beren contra, eta eramango ditut lur etſaira, aliqueta beren biotz gogotra lotſatu dedin artean: orduan eſcatuco dute beren gaiztaquerien barcacioa.

42 Eta ni oroituco naiz Jacob, Iſaac, eta Abrahamequin eguin nuen nere elcartaſunaz. Lurraz ere oroituco naiz:

43 Ceñ berac utzia danean, poztuco da bere larumbatetan, ſufritzen duela bacartaſuna berac gatic. Baña berac erregutuco dute beren pecatuac gatic, bota cituztelaco nere erabaquiac, eta mezpreciatu nere legueac.

44 Eta oyec guciaquin etſai lurrean ceudenean ere, ez nituen oſoro bota, eta ez nituen utzi deſeguiñac izateco, eta utſean guelditzeco beraquin eguiñic nuen nere elcartaſuna. Ceren ni naiz beren Jaun Jaungoicoa,

45 Eta oroituco naiz nere anciñaco elcartaſunaz, atera nituenean Egiptoco lurretican jendeac beguira ceudela, izateco ni beren Jaungoicoa. Ni Jauna. Oyec dirade erabaqui eta aguinte ta legue Jaunac jarri cituenac bere eta Iſraelco ſemeen artean Sinaico mendian Moiſeſen eſcuz.

XXVII. Cap.

ETA itz eguin cion Jaunac Moiſeſi, eſaten zuela:

2 Itz eguin zayezu Iſraelco ſemeai, eta eſango diezu: Boto eguingo balu guizonac, eta eſqueñico balio Jaungoicoari bere bicia, emango du balio icentatua.

3 Baldin balitz oguei urtetic iruroguei-rañoco guizaſemea, emango ditu berroguei ta amar ſiclo cillarrezco ſantulecuco piſuan:

4 Baldin balitz emacumea, oguei ta amar.

5 Baña boſt urtetic ogueiraño, guizaſemeac emango ditu oguei ſiclo: emacumeac amar.

6 Ill batetic boſt urteraño, guizaſemea gatic emango dirade boſt ſiclo: emacumea gatic, iru.

7 Guizaſeme iruroguei urteco ta andic aurreragocoac emango ditu amaboſt ſiclo: emacumeac, amar.

8 Baldin balitz beartſua, eta ecin eman balu icentatua, joango da apaiza gana, eta oni deritzana, eta icuſten duena eman al dezaquela, aimbeſte emango du.

9 Baldin iñorc botoz eſqueñico balu Jaunari eſqueñia izan dezaquen aberea, ſantua izango da,

10 Eta ecin izan daiteque gambiatua, au da, obeagoa gaiztoa gatic, ez gaiztoagoa ona gatic. Baña baldin gambiatuco balu: gambiatua izan dana, eta gauza ura ceña gatic gambiatua izan dan, gueldituco dira conſagratuac Jaunari.

11 Baldin iñorc eſqueñico balu Jaunari eſqueñia izan ecin daitequen abere loya, eramana izango da apaizaren aurrera:

12 Ceñac erabaquiric ona ala gaiztoa dan, icentatuco du balioa.

13 Eta baldin eman nai balu eſqueintzen duenac, gueituco dio taſari boſgarren partea.

14 Baldin guizonac eſqueñico balu bere echea, eta conſagratuco balio Jaunari, beguiratuco du apaizac ona ala charra dan, eta berac icentatu duen precioan ſaldua izango da:

15 Baña baldin eſqueñi duenac nai balu berriz eroſi, emango du boſgarren partea icentatuaz gañera, eta iduquico du echea.

16 Eta baldin eſqueñico balu, eta Jaunari conſagratuco balio bera jabe dan ſoroa: icentatuco zayo balioa ereitzen dan alearen araura: bear baldin badira oguei ta amar modio garagar, ſaldu bedi berroguei ta amar ſiclo cillarrezcotan.

17 Baldin eſqueñico balu ſoroa jubileoco urtea aſita bereala, icentatuco zayo balio dezaquena.

18 Baña balitz dembora piſca bat iragota, apaizac icentatuco du ditua, jubileoraño dauden urteen cembataren araura, eta guchituco zayo balioari.

19 Eta baldin berriz eroſi nai balu ſoroa botoz eſqueñi zuenac, gueituco dio boſgarren partea balio icentatuari, eta beraren jabe izango da.

20 Baña ez baldin balu nai berriz eroſi, baicic ſalduco balio beſte edoceñi, esqueñi zuenac ecin eroſico du berriz:

21 Ceren nola datorren jubileoco egu-

na, izango da Jaunari conſagratua, eta acienda conſagratua apaizai dagoquiote.

22 Baldin Jaunari conſagratutaco ſoroa izan bazan eroſia, eta ez balitz gurasoen aciendacoa,

23 Apaizac ipiñico dio balioa jubileora dauden urteen cembataren araura: eta botoz eſqueñi zuenac, emango dio Jaunari.

24 Baña jubileoan biurtuco da lembicico jabe ſaldu zuena gana, eta iduqui zuena gana bere aciendaren artean.

25 Icendatzen dan taſa izango da piſatua ſantulecuco ſicloaren araura. Sicloac oguei obolo ditu.

26 Ecin iñorc conſagratuco, ez botoz eſqueñico ditu Jaunari dagozquion lembiciſortuac: naiz idia, naiz ardia, Jaunarenac dirade.

27 Baña baldin aberea loya balitz, berriz eroſico du eſqueñi zuenac, zure iritziaren araura, eta gueituco du balioaren boſgarren partea. Baldin ez balu nai berriz eroſi, izango da beſte bati ſaldua zuc erabaqui dezunean.

28 Jaunari conſagratzen zayon guztia, naiz izan dedilla guizona, naiz aberea, naiz ſoroa, ez da ſaldua izango; ecin izango ere da berriz eroſia. Bein conſagratua dan guztia Jaunari, izango da gauza chit ſantua.

29 Eta onela guizon batec eſqueñia eta conſagratua dan guztia, ez da izango berriz eroſia, baicic illa.

30 Lurreco amarren guztiac, naiz laboreac, naiz zuaitzen frutac, Jaunarenac dirade, eta berari conſagratzen zayozca.

31 Eta baldin iñorc naico balitu berriz eroſi bere amarrenac, gueituco du beren boſgarren partea.

32 Artzayaren cigorraren azpitic igarotzen diraden idien, eta ardien, eta auntzen amarren guztietatic, amargarren datorren guztia, izango da Jaunari conſagratua.

33 Ez da auratuco onic, ez charric, ez da ere izango beſte gatic gambiatua. Baldin iñorc mudatuco balu: gueldituco da Jaunari conſagratua mudatua izan dana, baita gauza ura, ceña gatic mudatua izan dan, eta ez da izango berriz eroſia.

34 Oyec dirade Jaunac Moiſeſi Iſraelco ſemeentzat Sinaico mendian eman ciozcan aguinteac.

ZUCENTZECO BIDEA.

Non dagoen	Iracurri bedi
Gen. xl. 3; xviii. 7, 8; xix. 3; xxvii. 17, 31; Ex. xii. 39; xvi. 23; xxix. 31, egoñ egoñco egoñric	erre erreco erreric
Gen. xxxviii. 2, canaantar baten alaba Sue ceritzana	Sue ceritzan canaantar baten alaba
Ex. xiv. 20, egiptoarren atzealdetic; xxx. 29 obenen	atzealdetic, egiptoarren obeen

LE CANTIQUE DES CANTIQUES DE SALOMON
SALOMONEN CANTEN CANTIA

Jose Antonio Uriarte
Bizkaieraz

Londres
1862

Originala: «Azkue Biblioteka» - Euskaltzaindia

Le Cantique des Cantiques de Salomon,

TRADUIT EN

BASQUE BISCAYEN CENTRAL,

TEL QU'IL EST COMMUNÉMENT PARLÉ AUX ENVIRONS DE BILBAO,

ET ACCOMPAGNÉ D'UNE TRADUCTION EN

BASQUE BISCAYEN LITTÉRAIRE DE MARQUINA,

PAR LE P. J. A. DE URIARTE.

SUIVI D'UN PETIT DICTIONNAIRE COMPARATIF DES DIALECTES BASQUES ET DE NOTES EXPLICATIVES,

PAR LE PRINCE LOUIS-LUCIEN BONAPARTE.

LONDRES. 1862.

We certify that only 250 copies of this work have been printed, of which one is on thick paper.

STRANGEWAYS & WALDEN,
28 Castle Street, Leicester Square.

SALOMONEN CANTEN CANTIA.

SALOMONEN CANTEN CANTIE.

Biscayen de Marquina.

SALOMONEN CANTEN CANTIA.

I. Cap.

MOSU emon beguit bere aoco mosubagaz: cerren zure bularrac ardaua baño obac dira,

2 Usaingozodunac ujenturic onenac leguez. Orijo isurija da zure icena: orregaitic nescatilla gaztiac maitetu cindubezan.

3 Ecarri naguizu: zure ondoren arin ibillico gara zure ujentuben usaiñera. Sartu ninduban erreguec bere gueletan: gozatuco ta poztuco gara zugan, gomutauric zure bular ardaua baño obacaz: zuconac maite zaitube.

4 Baltza naz, baña ederra, Jerusalengo alabac, Cedarco dendac leguez, Salomonen narrubac leguez.

5 Ez contsiderau balcherana nazala, eguzquijac descoloretu nindubalaco: neure amaren semiac gudatu eben

nire contra, imiñi ninduben maastijen zain: neure maastija ez neban zaindu.

6 Eracutsi eguidazu, zuc nire arimiac maite dabenac, nun larrian erabilten dozun, nun eguberdieria eguiten dozun, asi ez nadin batera ta bestera ibilten zure lagunen aldren ondoren.

7 Ez badaquizu, o emacumeen artian guztiz ederra, urten eguizu, eta zuaz aldren oiñatzen ondoren, eta larrian erabilli eguizuz ceure aumac artzañen chabolen onduan.

8 Irudierazo cindudazan, neure adisquidia, neure zaldidijari Faraonen burdijetan.

9 Ederrac dira zure matrallac usotortoliarenac leguez: zure iduna collarrac leguez.

10 Urrezco catechubac eguingo deutsuguz, cidarrezco archuz apaindubac.

11 Erregue bere etzintoquijan eguan artian, nire narduac emon eban bere usaiña.

12 Mirrazco sortachuba da nire maitia niretzat, nire bularren artian gueratuco da.

13 Ciprozco mordua da nire maitia niretzat, Engadico maastijetan.

14 ¡Ai ce ederra zarian, neure adisquidia, ai ce ederra zarian! Zure beguijac usuenac dira.

Biscayen Central.

SALOMONEN CANTEN CANTIE.

I. Cap.

MOSU emon beguit bere agoco mosuegas: sagaiti sure bulerrac ardaoa baño obiec dire,

2 Useingosodunec ubijenturic onenac legues. Orijo isurije da sure usena: orregaiti nescato gastiec amau senduesan.

3 Ecarri naguisu: sure atzien carraca joango gara sure ubijentuen useinera. Sartu nendun erreguec bere cuartuetan: gosatuco ta postuco gara suguen, acordauric sure buler ardaoa baño obiecas: artesac ametan saitue.

4 Baltza nas, baye ederra, Jeruselengo alabac, Sedarco dendac legues, Salomonen narruec legues.

5 Es contziderau baltzerana nasala, egusqnijec descoloretu nenduelaco: neure amen semiec pelieu euden

nire contra, ifiñi nenduen mastijen jagola: neure mastije es neuen jagon.

6 Eracutzi eguidesu, seuc nire arimiec ametan dauenac, non larrien erabilten dosun, non egüerdierie eguiten dosun, asi es nadin batera ta bestera ibilten sure lagunen pilloen atzien.

7 Es badaquisu, o andren artien gustis ederra, urten eguisu, eta soas pilloen oiñetzen atzien, eta larrien erabilli eguisus seure anmiec artzañen chabolen ondoan.

8 Irudieraso sindudesan, neure adisquidie, neure saldidijeri Faraonen gurdijetan.

9 Ederrac dire sure matrallac usetortolienac legues: sure idune collarrac legues.

10 Urregorrisco catiechuec eguingo deutzugus, urresurisco archus edertuec.

11 Erregue bere echunlecuen egoan artien, nire nardoac emon euen bere useine.

12 Mirresco chortachue da nire lastana niretzaco, nire bulerren artien gueratuco da.

13 Siprosco mordie da nire lastana niretzaco, Engadico mastijetan.

14 ¡Ai se ederra sarien, neure adisquidie, ai se ederra sarien! Sure beguijec usoenac dire.

15 ¡Ai ce ederra zarian, neure maitia, ta liraña! Gure oya loratsuba da.

16 Gure echeen capirijuac cedrozcuac dira, goyaspillatubac cipresezcuac.

II. Cap.

NI naz campoco loria, ta ibarretaco lirijua.

2 Celan lirijua arantzen artian, alan nire adisquidia alaben artian.

3 Celan sagarrondua basuetaco zugatzen artian, alan nire maitia semeen artian. Gura izan nebanaren quericiaren azpijan, jarri nintzan: eta aren frutuba gozua da nire estarrijarentzat.

4 Sartu ninduban ardauaren guelan, zucendu eban nigan caridadia.

5 Sendotu naguizube loraz, inguratu naguizube sagarrez: cerren amodijoz cordebagatuten naz.

6 Aren ezquerra niro burubaren azpijan, eta bere escumiac laztanduco nau.

7 Erregututen deutsubet, Jerusalengo alabac, campuetaco basauntzac, eta oreiñac gaitic, arren ez daguizubela iracori, ez maitia esnatu eraguin bere, berac gura daben arteraño.

15 ¡Ai se ederra sarien, neure lastana, ta lireña! Gure oye loratzue da:

16 Gure etzoen capirijoac sedroscoac dire, goyaspilletnec sipresescoac.

II. Cap.

NEU nes campoco lorie, eta iberretaco lirijoa.

2 Selan lirijoa arantzen artien, alan nire adisquidie alaben artien.

3 Selan sagarrondoa basoetaco arechen artien, alan nire lastana semeen artien. Gure isen neuenen gueresien aspijen, jarri nintzen: eta ain frutue gosoa da nire samientzaco.

4 Sartu nendun ardaoen cuartuen, artestu euen niguen caridedie.

5 Sendotu naisue loras, inguretu naisue sagarres: segaiti amudijos cordebagatuten nas.

6 Ain esquerra nire burnen aspijen, eta bere escoyec lastanduco nau.

7 Erregututen deutzuet, Jeruselengo alabac, campoetaco basauntzoc, eta oreinec gaiti, arren es daguisuela erantau, es lastana iretzartu eraguin bere, berac gure dauen artien.

8 Nire maitiaren voza, orra emen nun saltoca datorren mendijetatic, murubac igaroz:

9 Basauntzaren, ta oreincumiaren antzecua da nire maitia. Orra emen nun daguan gure ormiaren atzian, mentanetatic beguira, zursareetatic celatan.

10 Orra emen neure maitiac berba eguiten deust: Jagui zaite, arin eguizu, neure adisquidia, neure usua, neure ederra, eta erdu.

11 Cerren onezquero negnba igaro zan, eurija joan zan, eta aldendu.

12 Loreo aguertu ciran gure lurrian, podiaren eria etorri da: usotortoliaren voza entzuna izan da gure errijan:

13 Piconduac motatu cituban bere uztapicuac: maastijac loretan emon eben euren usaiña. Jagui zaite, neure adisquidia, neure ederra, eta erdu:

14 Nire usua arcacheco zuluetan, arriesico utsunian, eracutsi eguidazu zure arpeguija, soñu eguin begui zure vozac nire belarrijetan: cerren zure voza gozua da, ta zure arpeguija ederra.

15 Atrapau eguiguzubez maastijac lurreratuten ditubezan aceri chiquichubac: bada gure maastija loratu da.

16 Nire maitia niretzat, eta ni neure maite, lirijuen artian aciten dan arentzat,

8 Nire lastanen vosa, ara emen non saltuque datorren mendijetati, muruec igueros:

9 Basauntzen, ta oreincumien antzecoa da nire lastana. Ara emen non dagoan gure ormien atzien, mentanetati adi, sulsaretati sorotz.

10 Ara emen neure lastanac berba eguiten deust: Jaigui saite, arin eguisu, neure adisquidie, neure usoa, neure ederra, eta erdu.

11 Segaiti onesquero negüe iguero san, eurije joan san, eta aldendu.

12 Lorac aguertu sirien gure lurrien, podien demporie etorri de: usetortolien vosa entzune isen da gure errijen:

13 Icondoac motatu situsen bere usteicoac: mastijec loretau emon euden euren useine. Jaigui saite, neure adisquidie, neure ederra, eta erdu:

14 Nire usoa acheco suloetan, arriesico utzunien, eracutzi eguidesu sure arpeguije, soñu eguin begui sure vosac nire belarrijetan: segaiti sure vosa gosoa da, ta sure arpeguije ederra.

15 Cossi eguigusues mastijec lurreratuten ditusan luqui chiquerchuec: bada gure mastije loratu de.

16 Nire lastana niretzaco, eta ni neure lastan lirijoen artien asiten dan aintzaco,

17 Eguna zabaldu, ta querizac jausi ditecen artian. Biurtu zaite: iruditu zaquijuez, neure maitia, basauntzari, eta oreincumiari Beterco mendijen gañian.

III. Cap.

NEURE oyan billatu neban gabetan neure arimiac maite dabena: billatu neban, ta ez neban aurquitu.

2 Jaguico naz, eta inguratuco dot urija: caleetatic eta placetatic billatuco dot neure arimiac maite dabena: billatu neban, ta ez neban aurquitu.

3 Aurquitu ninduben urija zainduten dabeen gordetzallac: ¿ Icusi badoznbe nire arimiac maite dabena?

4 Piscachu bat igaro nitubanian, aurquitu neban neure arimiac maite dabena: eldu neutsan: eta ez deutsat ichico, aric eta sartu daguidan artian neure amaren echian, eta neu eguin nindubenaren guelan.

5 Erregututen deutsubet, Jerusalengo alabac, campuetaco basauntzac, ta oreiñac gaitic, arren ez daguizubela irracori, ez maitia esnatuerazo bere, berac nai daben arteraño.

6 ¿ Cein da igoten daben au eremutic, mirrazco, ta

intzentzozco, ta usaingozoguiñaren anta guztico aromen quezco cigorchuba leguez?

7 Orra emen nun inguratuten dabeen Salomonen oya iruroguei erruteuc Israelgo errutsubenetaticuac:

8 Guztijac danquezala ezpatac, eta gudetaraco guztiz ondo icasijac: bacocharen ezpatia bere isterraren gañian gabetaco bildurrac gaitic.

9 Bideraco oe bat eguin eban beretzat Salomon erreguiac Libanoco zuracaz:

10 Bere abiac eguin cituzan cidarrezcuac, etzintoquija urrezcua, igoeria purpurazcua: erdicua ezcutau eban amodijoz Jerusalengo alabac gaitic:

11 Urten eguizube, ta icusi, Siongo alabac, Salomon erreguia bere amac imiñi eutsan coroyagaz aren ezcontza berbaco, ta bere bijotzaren poceco egunian.

IV. Cap.

¡CE ederra zarian, neure adisquidia, ce ederra zarian! Zure beguijac usuenac dira, barruben ezcutauric daguana baga. Zure uliac Galaadco menditic igon eben auntzen aldrac lacuac.

2 Zure aguiñac garbilecutic igon eben artaldi mostu-

17 Egune sabaldu, ta gueressac jausi ditesan artien. Biurtu saite: iruditu saquijoes, neure lastana, basauntzeri, ta oreincumieri Beterco mendijen ganien.

III. Cap.

NEURE oyen topau neuen gauetan neure arimiec ametan dauena: topau neuen, ta es neuen aurquitu.

2 Jaiguico nas, eta inguretuco dot urije: calletaric eta plasetaric topauco dot neure arimiec ametan dauena: topau neuen, ta es neuen aurquitu.

3 Aurquitu nenduen urije jagoten dauden jagolac: ¿ Icusi bosue nire arimiec ametan dauena?

4 Pisquechu bet iguero nendusenien, aurquitu neuen neure arimiec ametan dauena: oratu neutzen: eta es deutzet ichico, aric eta sartu daguideu artien neure amen etzieu, eta neu eguin nendunen cuartuen.

5 Erregututen deutzuet, Jeruselengo alabac, campoetaco basauntzec, eta oreinec gaiti, arren es dagnisuela erantau, es lastana iretzartu eraguin bere, berac guro dauen artion.

6 ¿ Nor da igoten dauen au basamorturic, mirresco,

ta intzentzosco, ta useingosoguiñen antz gustico aromen quesco sigorchue legues?

7 Ara emen non inguretuten dauden Salomouen oye iruroguei sendoc Israelgo sendoeuetaricoac:

8 Gustijec danquiesala espatac, eta pelietaco ondo iquesijec: bacocben espatie bere isterren ganien gauetaco bildurrec gaiti.

9 Bideraco oe bat eguin eneu beretzat Salomon erreguiec Libanoco sulecas:

10 Bere aguiec eguin situseu urresuriscoac, ecbunlecue urregorriscoa, igoerie purpurescoa: erdicoa escuten euen amudijos Jeruseleugo alabac gaiti:

11 Urten egnisue, ta icusi, Siongo alabac, Salomon erreguie bere amac ifiñi eutzen coroyegas ain escontza berbaco, ta bere bijotzen poseco egunien.

IV. Cap.

¡SE ederra sarien, neure adisquidie, se ederra sarien! Sure beguijec usoenac dire, barrueu escuteuric dagoana baga. Sure ulliec Galaadco mendiric igon euden pillosac langoac.

2 Sure aguiñec garbilecuti igon euden pillo motzi-

bac lacuac, guztijac ume biquijacaz, eta umebagacoric ez dago euren artian.

3 Zure ezpanac, granazco locarrija lacuac: eta zure berbaeria, gozua. Granadiaren acatsa leguez, alan dira zure matrallac, barruban ezcutauric daguana baga.

4 Daviden torria leguez zure iduna, eguiñic daguana baluartiacaz: milla ezcutu dagoz dinguilizca bertatic, errutsuben arma aldra guztija.

5 Zure bular bijac lirijuen artian dabiltzen basauntzcume biqui bi lacuac.

6 Eguna arguitu, eta querizac alde daguijen artian, juango naz mirraco mendira, ta intzentzuaren mururra.

7 Guztijori zara ederra, neure adisquidia, ta orbanic ez dago zugan.

8 Erdu Libanotic, neure ezcongueija, erdu Libanotic, erdu: izango zara coronauba Amanaco burutic, Sanir eta Hermongo tontorretic, lioeen cobauetatic, eta lioearreen mendijetatic.

9 Zauritu dozu nire bijotza, neure arreba ezcongueija, zauritu dozu nire bijotza zure beguijetatic bategaz, eta zure iduneco ule bategaz.

10 Ce ederrac diran zure bularrac, neure arreba ezcongueija, ederraguac dira zure titijac ardaua baño, ta zure ujentuben usaiña aroma guztijen gañeticua.

tuec langoac, gustijec ume bicochacas, eta umebagacoric es dago euren artien.

3 Sure espanac, granasco estugarrije langoac: eta sure berbaerie, gosoa. Granadien acatza legues, alan dire sure matrallac, barruen escuteuric dagoana baga.

4 Daviden torrie legues sure idune, eguinic dagoana baluartiecas: mille escutu dagos dinguilisque bertaric, sendoen armapillo gustije.

5 Sure buler bijec, lirijoen artien dabiltzesan basauntzcume bicocha bi langoac.

6 Egune arguitu, eta güeressac alde daguijen artien, joango nas mirreco mendire, eta intzentzoen mururre.

7 Gustijori sara ederra, neure adisquidie, ta orbanic es dago suguen.

8 Erdu Libanoti, neure escongueije, erdu Libanoti, erdu: isengo sara coronaue Amanaco buruti, Sanir eta Hermongo tontorreti, lioeen cobetaric, eta lioearreen mendijetaric.

9 Sauritu dosu nire bijotza, neure arreba escongueije, sauritu dosu nire bijotza sure beguijetaric bategas, eta sure iduneco ulle bategas.

10 ¡Se ederrac dirien sure bulerrac, neure arreba escongueije! ederragoac dire sure titijec ardaoa baño, ta sure ubijentuen useine aroma gustijen ganeticoa.

11 Zure ezpanac, ezcongueija, abao erijua dauquenac, eztija ta eznia zure miñaren azpijan: eta zure soñecuen usaiña intzentzuaren usaiña lacua.

12 Ortu ichija zara, neure arreba ezcongueija, ortu ichija, iturri sillutuba.

13 Zure motac granadazco verjela sagarren frutubacaz. Cipruac narduagaz,

14 Nardua ta azafraya, cañabera usaintsuba ta cinamomua Libanoco zur guztijaquin, mirria ta zahila ujenturic onen guztijaquin.

15 Ortubetaco iturrija: Libanotic bultzadaca duazan ur bicijen pozuba.

16 Jagui adi, iparra, eta ator, egoya, ahil nire ortutic, eta erijo beitez bere aromac.

11 Sure espanac, escongueije, abao erijoa dauquienac, estije ta eanie sure miñen aspijen: eta sure soñecoen useine intzentzoen useine langoa.

12 Ortu ichije sara, neure arreba escongueije, ortu ichije, iturri sillutue.

13 Sure motiec granadasco verjela sagarren frutuecas. Siproac nardoagas,

14 Nardoa ta asafraye, cañabera useintsue eta sinamomoa Libanoco aul gustijecas, mirrie ta sabile ubijenturic onen gustijecas.

15 Ortuetaco iturrije: Libanoti bultzeca doasan ur bisijen posoa.

16 Jaigui adi, iferra, eta ator egoye, abil nire ortuti, eta erijo beites bere aromac.

V. Cap.

BETOR nire maitia bere ortura, ta jan begui bere sagarren frutuba. Etorri naz neure ortura, neure arreba ezcongueija, iguitaitu dot neure mirria neure aromacaz: jan dot abaua neure eztijagaz, edan dot neure ardaua neure ezniagaz: jan eguizube, adisquidiac, eta orditu zaitece, guztiz maitiac.

V. Cap.

BETOR nire lastana bere orture, ta jan begui here sagarren frutue. Etorri nes neure orture, neure arreba escongueije, igueteitu dot neure mirrie neure aromacas: jan dot abaoa neure estijegas, edan dot neure ardaoa neure eaniegas: jan eguisue, adisquidiec, eta edan eguisue, eta orditu saitese, gustis lastanac.

2 Ni lotan nago, eta nire bijotza esna: nire maite ots eguiten dabenaren voza: Idigui eguidazu, neure arrebia, neure adisquidia, neure usua, neure orbanbaguia: cerren nire buruba dago iruntzez beteric, eta nire quizcurrac gabetaco tantaz.

3 Erantzi dot neure tuniquia, ¿celan jantzico dot? garbitu ditut neure oiñac, ¿celan ciquinduco ditut?

4 Nire maitiac sartu eban bere escuba zulotic, eta nire erraijac icaratu ciran bere ucutubagaz.

5 Jagui nintzan, idiguitera neure maitiari: nire escubai erijen mirria, eta nire atzac mirra guztiz autuz betiac.

6 Idigui neutsan neure maitiari neure atiaren chingueta: baña berac alde eguin eban, eta igaro zan. Nire arimia urtu zau, berba eguin ebaneco: billatu neban, eta ez neban aurquitu: deitu neutsan, eta ez eustan erantzun.

7 Aurquitu ninduben urija inguratuten dabeen gordetzallac: jo ninduben, eta zauritu ninduben: eruan eusten neure mantuba murallen gordetzallac.

8 Erregututen deutsubet, Jerusalengo alabac, aurquituten badozube nire maitia, arren adierazo daguijozubela amodijoz cordebagatuten nazala.

9 ¿Celacua da zure maitetuben maitia, o emacumeen

2 Ni lo nago, eta nire bijotza iretzarturic: nire lastan otz eguiten dauenen vosa: Idigui eguidesu, neure arrebie, neure adisquidie, neure usoa, neure orbanbaguie: segaiti nire burue dago iñontzes beteric, eta nire quiscurrec gauetaco tangas.

3 Erantzi dot neure tuniquie, ¿selan jantzico dot? garbitu dodas neure oiñec, ¿selan loituco dodas?

4 Nire lastanac sartu euen bere escue suloti, eta nire erraijec iqueratu siren bere ucutuegas.

5 Jaigui nintzen, idiguiteco neure lastanari: nire escuei erijen mirrie, eta nire atzamarrac mirre gustis autus betiec.

6 Idigui neutzen neure lastanari neure atien chingueta: baye berac alde eguin euen, eta iguero san. Nire arimie urtu sen, berba eguin eueneco: topau neuen, eta es neuen aurquitu: gucitu neutzen, eta es eusten erantzun.

7 Aurquitu nenduen urije inguretuten dauden jagolac: jo nenduen, eta sauritu nenduen: eroan eusten neure mantue murellen jagolac.

8 Erregututen deutzuet, Jeruselengo alabac, aurquituten badosue niro lastana, arren adieraso daguijosuela amudijos cordebagatuten nasala.

9 ¿Selangoa da sure lastanduen lastana, o andren

artian ederrena? ¿celacua da zure maitetuben maitia, alaco arrenacaz guri erregututeco?

10 Nire maitia da zurija ta gorrija, millen artian autuba.

11 Bere buruba urre guztiz ona: bere uliac palmen motac leguez, baltzac belia leguez.

12 Bere beguijac usuac ur errecachuben gañian leguez, ceintzubec dagozan ezniagaz garbituta, eta egoten diran ur ugari arin duazanen onduan.

13 Bere matrallac aromen larrinchu usaingozoguiñac imiñitacuac leguez. Bere ezpanac lirijo mirraric garbijena darijenac.

14 Bere escubac urrezcuac tornutubac, jacintoz betiac. Bere sabela marfillezcua, zafiroz apainduba.

15 Bere ancac marmolezco abiac, imiñiric dagozanac urrezco ondopeen gañian. Bere edertasuna Libanorena, autuba cedruac leguez.

16 Bere estarrija guztiz gozua, eta guztija desiagarrija: alacua da nire maitia, eta bera da nire adisquidia, Jerusalengo alabac.

17 ¿Nora juan da zure maitia, o emacumeen artian ederrena? ¿nora alde eguin dau zure maitiac, eta billatuco dogu ceugaz?

artien ederrena? ¿selangoa da sure lastanduen lastana, alango arrenacas guri erregututeco?

10 Nire lastana da surije ta gorrije, millen artien autue.

11 Bere burue urregorri gustis ona: bere ulliec palmen motiec legues, baltzac belie legues.

12 Bere beguijec usoac ur errecachuen ganien legues, seintzuc dagosan esniegas garbitute, eta egoten dirien ur ugueri ariu doasanen ondoan.

13 Bere matrallac aromen larrinchu useingosoguiñec ifiñiricoac legues. Bere espanac lirijo mirreric garbijena darijoyenac.

14 Bere escuec urregorriscoac tornutuec, jasintos betiec. Bere sabela marfillescoa, safiros edertue.

15 Bere caderac marmolesco aguiec, ifiñiric dagosanac urregorrisco ondopeen ganien. Bere edertasune Libanoena, autue sedroac legues.

16 Bere samio gustis gosoa, eta gustije desiegarrije: alangoa da nire lastana, eta bera da nire adisquidie, Jeruselengo alabac.

17 ¿Nora joan da sure lastana, o andren artien ederrena? ¿nora alde eguin deu sure lastanac, eta topauco dogu seugues?

VI. Cap.

NIRE maitia jatsi zan bere ortura usaingozozco larrinchura, ortubetan acitzera, eta lirijuac artutera.

2 Ni neure maitiarentzat, eta nire maite, lirijuen artian aciten dana, niretzat.

3 Ederra zara, nire adisquidia, gozua, ta liraña Jerusalen leguez: icaragarrija ejertzitu guertuba leguez.

4 Aldendu eguizuz zure beguijac ni gandic, eurac egan eraguin eustelaco. Zure uliac dira Galaadtic aguertu ciran auntzen aldria leguez.

5 Zure aguiñac garbilecutic igon eben ardijen aldria leguez, guztijac ume biquijacaz, eta umebagacoric ez dago euren artian.

6 Granadiaren azala leguez, alan zure matrallac zure ezcutucuac baga.

7 Iruroguei dira erreguiñac, eta laroguei oelagunac, eta nescatilla gazteen cembatic jaquin ecin leiteque.

8 Bat bacarric da nire usua, nire guztiz ona, bacarra da bere amarena, eguin ebanarentzat autuba. Icusi eben alabac, eta guztiz zorijonecua predicau eben: erreguiñac eta oelagunac bere alabau eben.

9 ¿Cein da doyan au, egunsentija jaguiten dan le-

VI. Cap.

NIRE lastana jatzi sen bere orture useingososco larrinchure, ortuetan asiteco, eta lirijoac artuteco.

2 Ni neure lastanentzaco, eta nire lastan, lirijoen artien asiten dana, niretzaco.

3 Ederra sara, nire adisquidie, gosoa, ta lireña Jeruselen legues: iqueragarrije ejertzitu guertue legues.

4 Aldendu eguisus sure beguijec ni gandic, eurec egas eraguin eustelaco. Sure ulliec dire Galaadtic aguertu siren auntzen pilloa legues.

5 Sure aguiñec garbilecuric igon euden ardijen pilloa legues, gustijec ume bicochacas, eta umebagacoric es dago euren artien.

6 Granadien asala legues, alan sure matrallac sure escutucoac bagaric.

7 Iruroguei dire erreguiñec, eta lauroguei oelagunec, eta nescato gasteen sembatic jaquin esin leite.

8 Bat bacarric de nire usoa, nire gustis ona, bacarra da bere amena, eguin cucuentzaco autue. Icusi euden alahac, eta gustis sorijonecoa prediqueu euden: erreguiñec eta oelagunec bere alabau euden.

9 ¿Nor da doyen au, egunsentije jaiguiten dan le-

guez, ederra illarguija leguez, autuba eguzquija leguez, icaragarrija ejertzitu guertuba leguez?

10 Jatsi nintzan inchaurren ortura, ibarretaco sagarrac icustera, eta loratu ete zan maastija, eta motac urten ete eutsen granadai beguiratutera.

11 Ez neban jaquin: nire arimiac icaratu ninduban Aminadaben burdijac gaitic.

12 Biurtu zaite, biurtu, Sulamitia: biurtu zaite, biurtu, beguiratu daguizugun.

VII. Cap.

¿CER icusico dozu Sulamitiagan, gudarijen aldrac baño? ¡Ce ederrac diran zure pausubac oiñetacuetan, printzipiaren alabia! Zure isterren guiltzac, languilliaren escuz eguiñac izan diran escuturrecuac leguez.

2 Zure cila urasca tornuban eguiña, edari baga iñoz ez daguana. Zure sabela gari muntoya lacua, lirijoz inguratuba.

3 Zure bular bijac, basauntzcume biqui bi lacuac.

4 Zure iduna marfillezco torria lacua. Zure beguijac Hesebonen arrainlecubac leguez, ceintzuc dagozan aldriaren alabiaren atian. Zure surra Libanoco torre, Damascoruntz beguira daguana leguez.

gues, ederra iretarguije legues, autue egusquije legues, iqueragarrije ejertzitu guertue legues?

10 Jatzi nintzen inchurren orture, iberretaco sagarrac icusteco, eta loratu ete san mastije, eta motiec urten ete eutzen granadai aituteco.

11 Es neuen jaquin: nire arimiec iqueratu nendun Aminadahen gurdijec gaiti.

12 Biurtu saite, biurtu, Sulamitie: biurtu saite, biurtu, aitu daguisugun.

VII. Cap.

¿SER icusico dosu Sulamitiegan, pelijerien pilloac baño? ¡Se ederrac dirien sure pausuec oiñetacoetan, printzipien alabie! Sure isterren guiltziec, languillien escus eguinec isen diren escubitorrecoac legues.

2 Sure sille urasca tornuen eguine, edari baga iños es dagoana. Sure sabela gari montoye langoa lirijos inguretue.

3 Sure buler bijec, basauntzcume bicocha bi langoac.

4 Sure idun. marfillesco torrie langoa. Sure beguijec Hesehonen arrainlecuec legues, seintzuc dagosan pilloen alabien atien. Sure surre Libanoco torre, Damascorancha adi dagoana legues.

5 Zure buruba Carmelo lacua: eta zure buruco uliac, erregueren purpura errequetan lotuba leguez.

6 ¡Ce ederra zarian, eta ce liraña, guztiz maitia, atseguiñetan!

7 Zure luceeria irudituten jacon palmiarenari, eta zure bularrac morduai.

8 Esan neban: Igongo dot palmara, eta artuco ditut bere frutubac: eta izango dira zure bularrac maastico morduac leguez: eta zure aoco usaiña sagarrena lacua.

9 Zure estarrija ardaoric onena lacua, nire maitiac edateco, eta bere ezpan eta aguiñacaz miazquetaco duiña.

10 Ni neure maitiarentzat, eta bere biurreria ni ganuntz.

11 Erdu, neure maitia, urten daguigun campora, bici gaitian baserrijetan.

12 Jagui gaitian goss maastijetaraco, icusi daguigun maastija loratu eto dan, lorac garautu, granadac loratu badira: an emongo deutsudaz neure bularrac.

13 Urriluac* emon eben usaiña. Gure ateetan fruta guztijac dagoz: barrijac eta zaarrac, neure maitia, gorde deutsudaz.

* *Mandragorac.*

5 Sure burue Carmelo langoa: eta sure buruco ulliec, erreguen purpure errequetan estue legues.

6 ¡Se ederra sarien, eta se lireña, gustis lastana, atzeguinetan!

7 Sure luseerie irudituten jacon palmienari, eta sure bulerrac mordai.

8 Esan neuen: Igongo dot palmara, eta artuco dodas bere frutuec: eta isengo dire sure bulerrac mastico mordac legues: eta sure agoco useine sagarrena langoa.

9 Sure samie ardaoric onena langoa, nire lastanac edateco, eta bere espan eta aguiñecas chupetaco duiñe.

10 Ni neure lastanentzaco, eta bere bijorrerie ni ganancha.

11 Erdu, neure lastana, urten daigun campora, bisi gaitesan baserrijetan.

12 Jaigui gaitesan gosseti mastijetaraco, icusi daigun mastije loratu ete dan, lorac garautu, granadac loratu badire: an emongo deutzudes neure bulerrac.

13 Urriloac* emon euden useine. Gure atetan frute gustijec dagos: barrijec eta sarrac, neure lastana, gorde deutzudes.

* *Mandragorac.*

VIII. Cap.

¿NOC emon ciñaique niri, neure nebia, neure amaren bularrac artuten, aurquitu zaidazala campuan, eta mosu emon daguizudala, eta onezquero ez naijala iñoc desprecijau?

2 Elduco deutsut, eta eruango zaitut neure amaren echera: an iracatsico deustazu, ta emongo deutsut ardao ondubaren edarija, ta neure granaden mostua.

3 Bere ezquerra nire burubaren azpijan, eta aren escumiac laztanduco nau.

4 Erregututen deutsubet, Jerusalengo alabac, arren ez daguizubela iracori, ez maitia esnatuerazo bere, berac gura daben arteraño.

5 ¿Cein da igoten daben au eremutic, gozotasunez beteric, bere maitiari elduric? Sagarrondo baten azpijan esnatu cindudazan: an izan zan galduba zure ama, an izan zan indarrez galduba eguin cinduzana.

6 Imiñi naguizu silluba leguez zure bijotzaren gañian, silluba leguez zure besuaren gañian: cerren sendua da amodijua erijotzia leguez, gogorra celua infernuba leguez: bere lamparac dira suzcuac eta garrezcuac.

VIII. Cap.

¿NOC emon siñeique niri, neure nebie, neure amen bulerrac artuten, aurquitu saidesala campoan, eta mosu emon daguisudela, eta onesquero es naijela iñoc despresijeu?

2 Oratuco deutzut, eta eroango saitut neure amen etzera: an irecatzico deustesu, ta emongo deutzut ardao onduen edarije, ta neure granaden mostoa.

3 Bere esquerra nire burnen aspijen, eta ain escoyec lastanduco nau.

4 Erregututen deutzuet, Jeruselengo alabac, arren es daguisuela crantau, es lastana iretzartu eraguin bere, berac gure dauen artien.

5 ¿Nor da igoten dauen au basamortuti, gosotasunes beteric, bere lastanari oraturic? Sagarrondo baten aspijen iretzartu sendudesan: an isen san galdue sure ama, an isen san inderres galdue eguin sendusena.

6 Ifiñi naguisu sillue legues sure bijotzen ganien, sillue legues sure besoen ganien: segaiti sendoa da amudijoa erijotzie legues, gogorra seloa infernue legues: bere lamparac dire suscoac eta garrescoac.

7 Ur ascoc ecin eben amatau caridadia, eta ibaijac bere ez dabe urpetuco: emon arren guizonac bere echeco izate guztija amodijua gatic, utsa leguez desprecijauco dau.

8 Gure aiztia chiquija da, eta ez dauca bularric. ¿Cer eguingo deutsagu gure aiztiari berba eguingo jacon egunian?

9 Murallia bada, eguin daguiguzan bere gañian cidarrezco torrechubac: atia bada, apaindu daguigun cedrozco olacaz.

10 Ni naz murallia: eta nire bularrac dira torria leguez, izan nazan ezquero bere aurrian baquia aurquitu dabena leguez.

11 Baquetsubac euqui eban maastija, errijac daucazan aregan: emon eutsen gordetzallai, guizonac dacaz bere frutuba gatic milla diru cidarrezco.

12 Nire maastija nire aurrian dago. Zure millac baquetsubarenac, eta berreun bere frutubac gordetan ditubezanentzat.

13 O zu ortubetan bici zariana, adisquidiac aituten dabe: entzun eraguidazu zure voza.

7 Ur ascoc esin euden amatau caridedie, eta ibeijec bere es daude urpetuco: emon arren guisonac bere etzeco isete gustijo amudijoa gaiti, arienes legues despresijeuco dau.

8 Gure aistie chiquerra da, eta es dauco bulerric. ¿Ser eguingo deutzegu gure aistieri berba eguingo jacon egunien?

9 Murellie bada, eguin daigusen bere ganien urresco torrechuec: atie bada, apaindu daigun sedrosco olacas.

10 Ni nes murellie: eta nire bulerrac dire torrie legues, isen nasan esquero bere aurrien baquie aurquitu dauena legues.

11 Baquetzuec euqui euen mastije, errijec dauquiesan agan: emon eutzen jagolai, guisonac dacas bere frutue gaiti mille diru urresco.

12 Nire mastije nire aurrien dago. Sure millec baquetzuenac, eta berreun bere frutuec gordetan dituesanentzaco.

13 O su ortuetan bisi sariena, adisquidiec entzuten daude: entzun eraguidesu sure vosa.

14 Igues eguizu, neure maitia, eta iruditu zaquijucz basauntzari, ta oreincumechubari usaingozuen mendijen gañian.

14 Iñes eguisu, neure lastana, eta iruditu saquijos basauntzeri, ta oreincumechueri useingosoen mendijen ganien.

INDEX AUCTORUM

BONAPARTE, L.L., I, 85, 91, 97, 103, 163, 167, 175, 443; III, 212.
CASENAVE, II, 9.
DUVOISIN, J.P., II, 59, 67, 77, 307.
ECHENIQUE, B., II, 85, 151.
ELIZONDO, M., III, 255, 421.
HUALDE MAYO, P., III, 255.
INCHAUSPE, E., II, 159, 267, 307.
ITURRIAGA, A.P., II, 307.
LIZARRAGA, J., III, 9, 103.
MENDIGACHA, M., III, 421.
MINONDO, P.J., III, 255.
OLCE, I., III, 169, 191.
SALABERRY, III, 331.
SAMPER, P.J., III, 255, 421.
UDABE, J.E., IV, 9.
URIARTE, J.A., II, 307; IV, 31, 113, 153, 191, 227, 309, 439.

L.L. Bonaparte
printzearen omenez
OPERA OMNIA VASCONICE
lau liburutan
argitaratu ditu
1991.eko urriaren 15ean
EUSKALTZAINDIAK

IBERDROLAREN KABESAZ